XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA SAILA

2728

76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (2000) 14. artikuluan ezartzen du pertsona guztiek dutela hezkuntzarako eskubidea –barne dela derrigorrezko hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza inklusiboa eta kalitatekoa doan jasotzeko aukera–, beren bizitza-proiektuan arrakasta lortzeko gaitasunak eskuratu eta mantentzeko eta gizartean bete-betean parte hartzeko.

Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak ezartzen du haur eta nerabe guztiek dutela hezkuntza eta irakaskuntza jasotzeko eskubidea. Bestalde, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Legeak adierazten du funtsezkoa dela haurren eta nerabeen giza duintasuna eta integritate fisikoa eta psikologikoa errespetatzen direla ziurtatzea eta errespeta daitezen sustatzea, indarkeria mota ororen prebentzioaren bidez. Eskubide horiek familiak eta eskolak bermatzen dituzte.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena) curriculumaren kontzeptuari buruzko aldaketak sartu ditu. Bestalde, eskumenak banatu dira berriz Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean, eta horrek funtsean aldatzen du Batxilergoko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko irailaren 6ko 127/2016 Dekretuan ezarritakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 16. artikuluak irakaskuntzaren gaineko eskumen propioa esleitzen dio Euskal Autonomia Erkidegoari, irakaskuntzaren osotasunean, maila eta gradu guztietan eta modalitate eta espezialitate guztietan.

Euskararen Erabilpena arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Legea da euskal ikasle guztiak euskaraz eta gaztelaniaz behar adinako komunikazio-konpetentziarekin moldatzeko ahalduduko dituen konpetentzia eleaniztunean aurrera egiteko erreferentzia. Era berean, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean (otsailaren 19ko 1/1993 Legea) helburu hau jasota dago: derrigorrezko irakaskuntza-aldia amaitzean bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa izatea bermatzea, baldintza-berdintasunean bermatu ere, euskararen erabilera bultzatuz eta, horrela, euskararen erabilera normalizatzen lagunduz, euskara hezkuntza-komunitatearen jarduera guztietan ohiko adierazpide gisa erabil dadin.

Curriculumari buruzko dekretu honen zehaztasuna helburu honi zor zaio: euskal hezkuntza-sisteman lortutako hezkuntza-mailak hobetzea eta XXI. mendeko erronka handiei erantzungo dieten hezkuntza-xede berriak bultzatzea. Hori guztia, bat etorriz UNESCOren 2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (zehazki, 4. helburuarekin: «Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea»), Euskadi Basque Country 2030 Agendaren testuinguruan, eta bat etorriz etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruz 2018ko maiatzaren 22an Europar Batasuneko Kontseiluak egindako gomendioarekin.

Dekretu hau idazteko, funtsezkoa izan da besteak beste alderdi hauek kontuan hartzea: Euskal Autonomia Erkidegoan egin den hezkuntza-ibilbidea, azken urteetan garatu diren proiektu inklu-

siboen inplementazioa, euskara sistemaren ardatz nagusi gisa duen esparru eleaniztun baten aldeko apustua eta hezkuntza-komunitateak partekatu eta bultzatu duen kultura pedagogikoa. Era berean, kontuan hartu dira gure inguruneko gizarte- eta hezkuntza-erronkak eta hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntza.

Horretarako, Batxilergoa amaitzean, ikasleek hezkuntza-xedeak erdietsita izan behar dituzte eta bizitzako esparru eta egoeretan moldatzen jakin behar dute. Horrekin bat etorriz, dekretu berriak berriz formulatzen du ikasleen irteera-profilaren kontzeptua, 127/2016 Dekretuan jasoa, eta testu honexek ordezten du. Ikasleek Batxilergoa amaitzean erdietsi behar dituzten pertsona-eredua eta funtsezko konpetentziak deskribatzen ditu beronek. Alde batera utzi da aurreko dekretuak zeharkako eta diziplinako konpetentzien artean egiten zuen bereizketa, funtsezko konpetentzien eta konpetentzia espezifikoen aldeko orientazioaren mesedetan, Europar Batasuneko Kontseiluaren 2018ko gomendioari jarraituz.

Batxilergoko irteera-profila deskriptore operatiboen bidez definitu da, eta ziurtatu behar da ikasle guztiek erdietsi dituztela etapa amaitzerako deskriptore horiek.

XXI. mendeko «ezagutzaren gizarteak» aldaketa sakonak dakartza berekin, eta, ondorioz, beste ezagutza batzuk eta beste konpetentzia batzuk behar dira, ikasleek eskuratu beharrekoak. Hori dela eta, irakasteko eta elkarri eragiteko beste modu batzuk behar dira eskolan. Ikasleen aniztasuna dela eta, paradigmaz aldatu behar da, eta egitura malguagoak eta irakaskuntzan kolaboratzeko prozedurak sortu, baita irakasleen arteko eta ikastetxeen arteko sareak sortu ere.

Aldaketa horiek adimen-heldutasuna eta giza heldutasuna, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eman behar dizkiete ikasleei, bizitza aktiboan gaituta eta erantzukizunez hasteko eta arrakasta pertsonala eta soziala lortzeko. Etapa honetan, geroko prestakuntzari eta lanbideari aurre egiteko ezinbesteko konpetentziak eskuratu beharko dira, eta goi-mailako hezkuntzan sartzeko gaitu. Halaber, oinarri sendoak ezarri behar dira honako hau bermatzeko: bizialdi osoan ikasten jarraitzea; norberaren erabakien gaineko erantzukizuna hartzea; oraingo eta geroko beharrak betetzeko gaitasuna izatea, eta parte-hartze aktibo, kritiko eta arduratsuaren bidez integratzea gizartean, munduaren beste ikuskera batzuk errespetatuta eta pertsonak zaintzera bideratuta.

Ingurumen-krisiak eta krisi humanitarioak, sanitarioak eta balioenak inoiz baino gehiago eskatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ikasleek enpatia, autonomia, erresilientzia, espiritu kooperatibo eta kritikoa, konpromiso soziala eta ingurumenarekiko konpromisoa garatzea. Gainera, funtsezko konpetentziak garatzera bultzatu beharko da, gero eta globalizatuagoa, interdependenteagoa eta zalantzazkoagoa den eta laugarren iraultza industrialean (Industry 4.0) murgilduta dagoen mundu honetan bizitzeko eta gaur egungo gizartea ezaugarritzen duten erronka sozial handietan ondo moldatzeko.

Garrantzizkoa da, bestalde, kultura bakoitzak behar horietarako eskaintzen dituen erantzunak ezagutzea, etnozentrismoaren arriskuak saihesteko eta kultura guztien ekarpenak baloratzeko edo aintzat hartzeko, kultura guztien arteko errespetua eta elkarrizketa bultzatuko duten kulturarteko hezkuntza-planteamenduen bidez. Era berean, garrantzizkoa da aniztasun afektibo-sexuala eta kulturala onartzea, alde batera utzita sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren araberako estereotipo eta rol guztiak.

Hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparru berria aurrerapauso bat da Heziberri 2020ren aurreko ereduaren aldean: Heziberri 2020ren zeharkako eta diziplinako konpetentziek bat egiten dute, eta konpetentzia-eredu integratu bat sortzen, funtsezko konpetentzien eta konpetentzia espezifikoen bidez definitzen dena eta Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioak (2018) dioenarekin bat datorrena.

Gure hezkuntza-eredua hobetzen jarraitzeko, dekretu hau ildo estrategiko hauen barruan errenditzen da, eta berauek izango dira dekretuan jasotako elementuak garatzeko oinarrizko erreferentziak:

– Ikasleak dira euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria, eta ikasle bakoitzak Batxilergoko irteera-profila lortzea da hezkuntza-sistemaren helburua. Ziurtatu behar da ikasle guztiak XXI. mendeko erronkei pertsonalki, sozialki eta profesionalki arrakastaz aurre egiteko moduan daudela. Hori guztia, ongizate emozionaleko inguru inklusibo eta seguru batean.

– Ikastetxea da hezkuntza-eraldaketarako ardatza, eta antolakunde ahaldundua izan behar du, lidergoa banatzea sustatzen duena eta hezkuntza-komunitate osoaren ikaskuntzan oinarritutako berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatuko dituena. Horretarako, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ikastetxeen autonomia sustatuko du.

– Irakasleek rol aktiboa hartu behar dute ikaskuntza-prozesuan, eta, hain zuzen, beren irakaskuntza-esparruan eta trebetasun didaktiko eta metodologikoetan duten aditu mailako ezagutza da haien lidergoaren oinarria. Gainera, gidari, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardun behar dute ikaskuntza partekatuko edo ikaskuntza autonomoko jardueretan, bai eta talde-lanera edo kolaborazio-lanera edo proiektu bidezko lanera bideratutako jardueretan edo ikasleak guztiz garatzeko benetan balio duen beste edozein irakaskuntza edo ikaskuntza modalitatetan ere. Tutorearen rola etapa guztietan indartzen da, tutorea ikasleen bideratzaile eta gidari gisa hartuta, ikasle guztien elkarbizitza ona eta arrakasta lortzeari begira.

– Konpetentzia-curriculuma ikaskuntza sakon eta funtzional jakin baterantz bideratzen da: ikasten dena era bateko eta besteko egoeretan erabil daiteke, denboran zehar irauten du eta aukera ematen du egoera errealetan problemak konpontzeko.

– Ebaluazio hezitzailea, hau da, informazioa biltzen eta analizatzen duen prozesu iraunkor eta sistematikoa, bai ikaskuntza-prozesuak eta bai konpetentzien garapenean izandako aurrerapena ezagutzeko eta baloratzeko.

– Arreta berezia jartzen da etapen arteko trantsizioan, ikasleak etapa bakoitzeko erronketara egokitu daitezen.

– Hezkuntza linguistiko eta eleaniztunaren kalitatea funtsezkoa da: beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak ematen ditu errealitatea ulertzeko, pentsamendua adierazteko, arrazoitzeko, ezagutza transmititzeko eta mundu-ikuskera eta ulerkera jakin bat eta besteekin harremanetan jartzeko era zehatz bat garatzeko. Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia hartzen du euskararekin –hizkuntza propioa baita– eta kulturarekin eta haren transmisioarekin, euskara eta euskal kultura identitate-, adierazpen- eta elkarbizitza-tresnatzat hartzen dituen heinean, baita beste hizkuntzekin ere. Gainera, konpetentzia linguistiko eta eleaniztunaren garapenak gainerako funtsezko konpetentzien garapena sustatzen du, eta, beraz, gainerako arloen zerbitzura egongo da.

– Curriculumerako sarbidearen unibertsaltasuna, benetako integraziorako, aukera-berdintasunerako, erabateko parte-hartzerako eta eskola-arrakastarako bidea markatuko duena. Ikaskuntzarako garapen unibertsala hartuko da aintzat irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesuetan.

– Hezkidetza funtsezkoa da pertsonei sexuaren, sexu-orientazioaren, identitatearen edo genero-adierazpenaren araberako estereotipoetatik eta roletatik kanpo garatzen laguntzeko, eta bera izango da hezkuntza-sistemaren ildo estrategikoa eta ikastetxeen antolaketa pedagogikoarentzako irizpide orientatzailea.

– Arreta berezia jarri behar zaie ikasleen ongizate emozionalari eta hezkuntza-komunitate osoa zaintzeari. Ondo eta harmonian sentitzearen esperientzia subjektiboa sartzen da hor, eta norberaren gogobetetasuna ere bai, zailtasunei aurre egiteko eta haiek ondo gainditzeko segurtasuna ematen duena. Ongizate emozionala beharrezkoa da inguruneko eskaerei eta egoerei aurre egiteko edo horietara egokitzeko, eta eskaera horien artean dago ikaskuntza ere. Alde horretatik, curriculumak ongizate emozionalean lagundu behar du.

Hori guztia aintzat hartuta, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzun ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez eta Gobernu Kontseiluak 2023ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honen xedea Batxilergoko etapako curriculum propioa ezartzea da, eta hura nola ezarri, ebaluatu eta garatu arautzea, alde batera utzi gabe Estatuko oinarrizko legediak Batxilergoaren antolamenduaz eta Batxilergoko gutxieneko ikasketez ezartzen duena.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketa horiek ematen dituzten ikastetxe guztietan da aplikatzekoa.

2. artikulua.– Definizioak.

Honela ulertu behar dira:

a) Helburuak: funtsezko konpetentziak eskuratuz ikasleek etaparen amaierarako iritsi beharko lituzketen lorpenak.

b) Irteera-profila: etapa amaitzerako ikasle guztiek konpetentzietan iritsi behar duten maila, aukera emango diena bizitza-proiektua arrakastaz garatzeko eta bizitzan zehar funtsezko konpetentziak garatzen jarraitzeko.

c) Funtsezko konpetentziak: ikasleek arrakastaz aurrera egin ahal izateko eta bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin ahal izateko ezinbestekotzat jotzen diren jardunak. Pertsona guztiek beren errealizazio eta garapenerako behar dituztenak dira, bai eta herritartasun aktiboa, gizarte-inklusioa eta enplegua sustatzeko behar direnak ere.

d) Konpetentzia espezifikoak: ikasgai bakoitzeko oinarrizko jakintza beharrezkoa den jardueretan edo egoeretan ikasleek baliatzen jakin behar duten neurriak. Konpetentzia espezifikoak alde batetik funtsezko konpetentziak eta bestetik ikasgaietako oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak lotzeko eta zehazteko elementuak dira.

e) Ebaluazio-irizpideak: ikasgai bakoitzaren konpetentzia espezifikoetan aipatutako jardueretan edo egoeretan ikasleek ikaskuntza-prozesuaren une jakin batean iritsi beharko lituzketen jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak.

f) Oinarrizko jakintza: arlo, ikasgai edo esparruetako berezko ezagutza, trebetasun eta jarrerak, edozein pertsonak menderatu, artikulatu eta mobilizatu behar dituenak konpetentzia espezifi-

koetan definitutako gaitasunekin batera, problemak konpontzeko edo egoera jakin batzuetan erronkei aurre egiteko. Curriculum-proposamen honetan, konpetentzia espezifikoak eskuratzeko eta garatzeko egiten duten ekarpenarengatik hautatzen dira oinarrizko jakintza horiek, nahiz eta diziplina-logikak eduki horiek hobeto antolatzen eta aurkezten laguntzen duen.

g) Ebaluazio hezitzailea: irakasteko eta ikasteko prozesua ebaluatzeko modalitate bat da, izaera arautzailea duena, eta ikasleen zailtasunak eta aurrerapenak hautematea du xede, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokitzeko.

h) Esparrua: curriculumaren antolaketa globalizatua eta diziplinartekoa, zenbait ikasgai elkarren artean erlazionatzen dituena, eta ikasgaien eta haien atalen batura baino gehiago dena. Esparruak bertan sartutako ikasgaiei dagozkien konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintza biltzen ditu.

i) Ikas-egoerak: ikasleei funtsezko konpetentziekin eta konpetentzia espezifikoekin lotutako jarduerak garatzea eskatzen dieten egoerak eta jarduerak, konpetentzia horiek eskuratzen eta garatzen laguntzen dietenak. Ikas-egoeretatik abiatuta egindako lanak aukera ematen du konpetentzien araberako ikaskuntzaren ikuspegiaren oinarrian dauden jakintza eta gaitasunak uztartzen dituzten egoeratan oinarrituta egituratzeko ikasturte-programazioa edozein ikasgai edo esparrutan.

j) Ikaskuntzarako diseinu unibertsala (IDU): curriculuma garatzeko printzipioak dira, ikasle guztiei hezkuntzarako sarbidean aukera-berdintasuna ematen dietenak, eta haien helburua benetako inklusio eta parte-hartzea lortzea da, ikasle guztientzat ikaskuntzarako oztopoak minimizatuz eta ikasteko aukerak maximizatuz.

3. artikulua.– Batxilergoaren antolaketa.

1.– Hauek izango dira Batxilergoko modalitateak:

a) Arteak.

b) Zientziak eta Teknologia.

c) Orokorra.

d) Giza eta Gizarte Zientziak.

2.– Arteen modalitateak bi adar izango ditu: Arte Plastikoei, Irudiari eta Diseinuari buruzkoa bata, eta Musikari eta Arte Eszenikoei buruzkoa bestea.

3.– Ikasleek ikasten duten modalitateko ikasgai espezifiko guztien artean hautatu ahal izango dute. Ikastetxeek, horretarako, eskaintzen dituzten modalitateetako eta, hala badagokio, adarretako ikasgai espezifiko guztiak eskaini behar dituzte. Ikasle gutxiegi badago bakarrik mugatu daiteke ikasgaiak eta adarrak hautatzeko aukera, betiere hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ezarritako irizpide objektiboen arabera. Ikastetxean antolaketa-arrazoien ondorioz ikasgai espezifikoen eskaintza mugatuta geratzen bada, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak aukera emango du arrazoi horren ondorioz irakatsi ezin diren ikasgaiak urrutiko hezkuntzako modalitatearen bidez edo beste ikastetxe batzuetan ikasteko.

4.– Arteen modalitateko adarren eskaintza antolaketa-arrazoien ondorioz mugatuta geratzen bada ikastetxean, aurreko apartatuan araututakoa aplikatu behar zaie eskainitako adarra osatzen duten ikasgaiei.

5.– Batxilergoko ikasketak ematen dituzten ikastetxeek dekretu honetan ezartzen diren curriculum-elementuetara egokitu behar dute beren irakasle-jarduna, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak ezartzen dituen alderdietan ikastetxe bakoitzak duen autonomia pedagogikoa ezertan galarazi gabe.

6.– V. eranskinean zehazten da ikastetxeek ikasgai bakoitzean zenbat ordu eman behar dituen gutxienez, baita ikastetxeak bere autonomia baliatuz ikasgaien artean zenbat ordu banatu ditzakeen ere.

7.– Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektuaren arabera antolatu behar du etapa, banatu behar ditu ikasgaiak edo jakintzak ikasmailen artean eta prestatu behar du ordutegia, bere autonomia pedagogikoaz baliatuz eta ikasleen hezkuntza-premien arabera, eta dekretu honetan ezarritakoa betez betiere.

4. artikulua.– Batxilergoko etaparen xedeak.

Batxilergoaren helburua da ikasleei prestakuntza, adimen-heldutasuna eta giza heldutasuna ematea, ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak, helduarorako eta bete-beteko bizitzarako prestatzeko, elkarbizitza harmoniatsua garatzearekin eta gizarte bidezkoagoa eta ekitatezkoagoa eraikitzearekin konprometitutako kide aktiboak izan daitezen, bai eta naturaren kontserbazioarekin eta garapen jasangarriarekin konprometitutako pertsonak ere. Etapa honek, halaber, ikasleak goi-mailako ikasketak egiteko edo lan-munduan behar bezala txertatzeko prestatu behar ditu, eta bizitza osoan ikasten eta prestatzen jarraitzeko motibatu.

5. artikulua.– Batxilergoko etaparen ezaugarri orokorrak.

Batxilergoa honako printzipio hauen arabera antolatuta dago:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua dutenek egin ditzakete Batxilergoko ikasketak, edo Lanbide Heziketako edo Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren edo goi-mailako teknikariaren titulua dutenek, edo Kiroletako teknikariaren edo goi-mailako teknikariaren titulua dutenek.

1.– Batxilergoko etapak bi maila ditu: Batxilergoko 1. eta 2. mailak.

2.– Ikasleek lau urte eman ditzakete, jarraian edo ez, Batxilergoa araubide arruntean egiten.

3.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak Batxilergoko plaza publikoen eskaintza pixkanaka handitzea sustatuko du, haren modalitate eta adar guztietan.

4.– Batxilergoko etapan garapen pertsonalaren, familiarraren, soziokulturalaren, akademikoaren eta profesionalaren esparruekin erlazionatutako alderdiak landu behar dira.

5.– Irakasle guztiak hezitzaileak dira, eta modu bateratu eta koordinatuan lan egiten dute, dagokien curriculum-ikasgaitik abiatuta, hezkuntzaren ardura partekatzen dutenekin –nagusiki, familiarekin edo legezko tutoreekin– lankidetzan jardunez, baita instantzia eta eragile sozializatzaileekin eta hezkuntzakoekin ere.

6.– Ikastetxeek, ikasleak onartzeko araudiaren arabera, aukera-berdintasuna sustatu behar dute eskolaratzean eta eskolako ibilbidean. Horretarako, ikasle guztiei hezkuntza-aukera berak eskainiko dizkiete, eta diskriminazio positiboko neurri inklusiboak hartu behar dituzte desabantaila ekonomiko, sozial, kultural edo pertsonalak dituztenen alde, hezkuntza-prozesuan laguntzeko eta eskola-porrotari aurrea hartzeko.

7.– Batxilergoko ikasgaiek curriculumean euskal kulturaren eta hizkuntzaren dimentsio espezifikoa txertatu behar dute eta funtsezko konpetentzia guztiak garatzen lagundu.

6. artikulua.– Batxilergoko etaparen printzipio pedagogikoak.

1.– Ikastetxeek, inklusioaren eta ekitatearen printzipioa aplikatzen dela bermatzeko, ikasleen aniztasuna kontuan hartuta prestatu behar dituzte etapa honetako ikasle guztientzako proposamen pedagogikoak. Era berean, ikasleen ikasteko askotariko erritmoak kontuan hartuko dituzten, beren kabuz ikasteko gaitasuna bultzatuko duten, talde-lana sustatuko duten eta ikerketa-metodo egokiak aplikatuko dituzten metodoak ezarri behar dituzte.

2.– Hezkuntza-arloak lan egin behar du modu progresiboan garatzeko eta finkatzeko ikasle bakoitzari Batxilergoko irteera-profilean aurreikusitako funtsezko konpetentziak behar bezala eskuratzeko bidea emango dioten oinarriak, betiere ikasle bakoitzaren heltze-prozesua eta etapa honetarako espero diren jardun-mailak kontuan hartuta.

3.– Honako hauek bermatu behar dira: hezkuntza- eta hizkuntza-inklusioa; arreta pertsonalizatua; ikasleek ikastetxeko egituretan eta elkarbizitzan parte hartzea; ikasteko zailtasun espezifikoak hautematea; gaitasun handiko ikasleei arreta ematea, eta laguntzeko eta malgutzeko mekanismoak, alternatiba metodologikoak eta beste neurri batzuk abian jartzea. Hezkuntza-inklusioa bermatzeko hartzen diren antolaketa-, metodologia- eta curriculum-neurriak Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioei jarraitu behar diete, pertsona guztiek hezkuntza-arrakasta lortu dezaten.

4.– Batxilergoko curriculuma honako hauei begira zehaztu eta garatu behar da: ikasle guztien gizarte-inklusioa lortzea, garapen pertsonal orekatua izatea, herritartasun kritikoa, berdinzalea, aktiboa eta konstruktiboa eraikitzea eta geroko prestakuntza-prozesuetarako sarbidea erraztea. Helburu horiek hertsiki erlazionatuta daude I. eranskinean zehazten den Batxilergoko irteera-profilarekin.

5.– Konpetentzia-curriculuma ikaskuntza sakon eta funtzional batera bideratuta dago, ikasitakoak hartara askotariko inguruneetan balio izateko eta erabiltzeko, denboran irauteko eta orotariko egoeretan baliatu eta problemak konpontzeko.

6.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak behar diren neurriak bultzatu behar ditu interesa eta irakurtzeko ohitura eta jendaurrean behar bezala hitz egiteko gaitasuna sustatzen dituzten jarduerak baliatzeko ikasgaietan.

7.– Ikasitakoa barneratzen laguntzeko, eskola-ordutegian tarte bat hartu behar da zeharkako proiektu adierazgarriak eta garrantzitsuak egiteko eta arazoak elkarlanean konpontzeko, ikasleen autoestimua, autonomia, gogoeta eta erantzukizuna indartu daitezen.

8.– Ikasgai guztietan, zeharka sustatu behar dira genero-ikuspegia, bakearen aldeko hezkuntza, osasun-hezkuntza, sentsibilitate estetikoa eta sorkuntza artistikoa, jasangarritasunerako eta kontsumo arduratsurako hezkuntza, elkarrenganako errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarreren eta portaeren prebentzioa, eta berdinen arteko lankidetza. Bereziki, arreta jarri behar zaio indarkeria motaren bat jasaten denean –indarkeria matxista, LGTBIfobikoa edo arrazista edo zeinahi dibertsitate motari lotua– sortzen diren ondoez-egoerak identifikatzeari.

9.– Arreta berezia jarri behar zaio ongizateari. Ondo, harmonian eta lasai sentitzearen esperientzia subjektiboa eta zailtasunei aurre egin eta ondo gainditu ahal izateko gogobetetasun-esperientzia sartzen dira hor.

10.– Hizkuntza, informaziorako eta ezagutzaren eraikuntzarako atea izanik, ikasteko prozesuaren erdigunean dago. Hizkuntzen ikaskuntzari konpetentzia-ikuspegi globalizatu batetik heltzen zaio, arreta hizkuntzen ikaskuntza integratuan eta hizkuntzen eta jakintzen ikaskuntza integratuan jartzen duten ikuspegi metodologikoen bidez.

11.– Hizkuntza ofizialak laguntza gisa bakarrik erabiliko dira atzerriko hizkuntzak ikasteko prozesuan. Prozesu horretan, ulermena, adierazpidea eta ahozko interakzioa lehenetsiko dira.

12.– Konpetentzien araberako pedagogiaren ikuspegiaren aukera metodologikoen barruan, garrantzitsua da aintzat hartzea konpetentziak osorik garatzea, egoera errealetan oinarritutako benetako jardueren bidez lan egitea, eta abar.

13.– Etapa honetan, ebaluazioa etengabea eta hezigarria da. Halaber, ebaluazioa integratzailea, kolaboratiboa eta parte hartzekoa da. Hori dela eta, ikastetxeek eta irakasle-talde ebaluatzaileek bitarteko eta estrategia egokiak jarri behar dituzte ikasleak eta familiak ebaluazioari lotutako prozesuetan integra daitezen eta horietan aktiboki kolaboratu eta parte har dezaten.

14.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak behar diren neurriak sustatuko ditu ikasleen tutoretza pertsonala eta hezkuntza-orientazioa eta orientazio psikopedagogikoa eta profesionala funtsezko elementuak izan daitezen Batxilergoko etaparen antolamenduan.

7. artikulua.– Helburuak.

Batxilergoak honako hauek egiteko gaitasuna garatzen lagundu behar die ikasleei:

a) Herritartasun demokratikoa egikaritzea, ikuspegi globaletik, eta kontzientzia zibiko arduratsua hartzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren balioek eta giza eskubideek inspiratua, gizarte bidezko eta ekitatezko baten eraikuntzan erantzukizun partekatua sustatuko duena.

b) Heldutasun pertsonala, afektibo-sexuala eta soziala finkatzea, begirunez, arduraz eta modu autonomoan jarduteko eta espiritu kritikoa garatzeko aukera izan dezaten. Gatazka pertsonalak, familiarrak eta sozialak eta indarkeria-egoera posibleak aurreikustea, hautematea eta modu baketsuan konpontzea.

c) Emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasun eraginkorra sustatzea, dauden desberdintasunak analizatzea eta kritikoki baloratzea, baita emakumeek historian izan duten zeregina aitortzea eta irakastea ere, eta benetako berdintasuna eta jaiotzan, sexuan, arraza- edo etnia-jatorrian, desgaitasunean, adinean, gaixotasunean, erlijioan edo sinesmenetan, sexu-orientazioan edo genero-identitatean nahiz beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialetan oinarritutako diskriminaziorik eza bultzatzea.

d) Irakurtzeko, ikasteko eta diziplina izateko ohiturak finkatzea, ikaskuntza eraginkortasunez aprobetxatzeko beharrezko baldintza gisa eta garapen pertsonalerako bitarteko gisa.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ondo jakitea ahoz zein idatziz.

f) Atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan erraz eta zuzen hitz egitea.

g) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu fidagarrian eta erantzukizunez erabiltzea.

h) Gaur egungo munduaren errealitateak, aurrekari historikoak eta bilakaeraren faktore nagusiak ezagutzea eta kritikoki baloratzea. Modu solidarioan parte hartzea beren gizarte-ingurunearen garapenean eta hobekuntzan.

i) Funtsezko ezagutza zientifikoak eta teknologikoak eskuratzea eta hautatutako modalitatearen berezko oinarrizko trebetasunak menderatzea.

j) Ikerketaren eta metodo zientifikoen funtsezko elementuak eta prozedurak ulertzea. Zientziak eta teknologiak bizi-baldintzen aldaketan izandako ekarpena ezagutzea eta modu kritikoan baloratzea, eta ingurumenarekiko sentiberatasuna eta errespetua finkatzea.

k) Espiritu ekintzailea finkatzea, sormena baliatuz, malgua izanez, ekimenez, talde-lana eginez, norberaren gainean konfiantza izanez eta zentzu kritikoa izanez.

l) Sentsibilitate artistikoa eta literarioa eta irizpide estetikoa garatzea, prestakuntza eta aberaste kulturalaren iturri gisa.

m) Heziketa fisikoa eta kirola erabiltzea garapen pertsonal eta sozialaren alde egiteko. Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak egiteko ohiturak finkatzea, ongizate fisikoari eta mentalari mesede egiteko, eta garapen pertsonal eta sozialerako bitarteko gisa.

n) Mugikortasun seguru eta osasungarriaren esparruan errespetu- eta prebentzio-jarrerak finkatzea.

o) Klima-aldaketaren aurkako borrokan eta garapen jasangarrirako defentsan jarrera arduratsua eta konprometitua sustatzea.

p) Garapen Jasangarrirako Helburuek ekartzen dituzten aldaketak sustatzea eta erronkei aurre egitea.

8. artikulua.– Hizkuntza-esparrua.

1.– Hezkuntza-sistemaren lehentasunezko hizkuntza-helburua da ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-konpetentzia garatzea, eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik euskararen erabileran sakonduz. Batxilergoa amaitutakoan, ikasle guztiek oso ondo menderatu behar dituzte hizkuntza ofizialak, ahozko zein idatzizko adierazpenean, eta jarioz eta zuzentasunez aritzeko gai izan atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan.

2.– Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza antolatzeko eta hizkuntzak tratatu eta erabiltzeko irizpideak ikastetxeen autonomiaren esparruan zehaztuko dira, ikasleen eta haien ingurunearen errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta. Ikastetxeak hartzen dituen erabaki guztiak ikastetxearen hizkuntza-proiektuan zehaztu behar dira hezkuntza proiektuaren barne; hala, hizkuntza-proiektu horretan planifikatu behar dira ikasleek hizkuntzak ikasteko, erabiltzeko eta hizkuntzekiko jarrera positiboa garatzeko bideak, bat etorrita I. eranskinean zehazten den irteera-profilarekin. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak hizkuntza-proiektuon jarraipena eta ebaluazioa egingo du.

3.– Euskararen irakaskuntzari dagokionez, hizkuntza-proiektuak curriculumaren eta ikastetxearen helburuak zehaztuko ditu. Era berean, euskararen ingurumen-erabilera ziurtatzera bideratutako eskolaz kanpoko jardueren proposamenak jaso behar ditu.

4.– Komunikazio- eta hizkuntza-konpetentziaren garapena zeharka landuko da curriculumeko ikasgaietan.

5.– Euskal Hezkuntza Sisteman berandu sartzen diren ikasle atzerritarrak hartzeko eta haiei hizkuntza-arreta emateko, ikasle horien inklusioa ahalbidetuko duten prestakuntza-programa integralak beharko dira.

6.– Irakasleak prestatzeko eta hobetzeko plan bat egin behar da, hizkuntzen esparruan hizkuntza- eta metodologia-gaitasunak hobetzeko.

9. artikulua.– Ikasleek Batxilergoko etapa amaitzerako izan behar duten irteera-profila eta funtsezko konpetentziak.

1.– Batxilergoko etapak Batxilergoko irteera-profila lortzeko behar dituzten konpetentziak garatzen lagunduko die ikasleei; irteera-profila I. eranskinean jasota dago.

2.– Ikasleek etapa amaitzerako izan behar duten Batxilergoko irteera-profila bizitzako esparru eta egoera guztietan moldatzeko gai den pertsonaren ereduari dagokiona da. Era berean, ikasleek oinarrizko irakaskuntza amaitzean eskuratu eta garatu behar izan dituzten funtsezko konpetentziak finkatzen ditu. Ikasleek konpetentzia horiek garatzen jarraitu ahal izango dute etengabeko ikaskuntzaren bidez, eta konpetentzia horiek lagungarriak izango zaizkie helduen bizitzan sartzeko.

3.– Batxilergoko irteera-profila etapa honetako curriculum-arkitekturaren ardatza da. Horrenbestez, hartan oinarritu behar dira eskola-praktikan hartzen diren curriculum-erabakiak, estrategiak eta orientabide metodologikoak, eta bera da erreferentzia-elementua ikasleen ikaskuntzen barne- eta kanpo-ebaluazioari begira. Batxilergoko irteera-profila etapako helburuekin eta arlo bakoitzeko konpetentzia espezifikoekin erlazionatuta dago.

4.– Hezkuntzako sail eskudunak, Batxilergoko irteera-profila erreferentziatzat harturik –bat bakarra Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle guztientzat–, behar diren aholkuak emango dizkie ikastetxeei, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan irteera-profil hori beren ikasleentzat egokitu dezaten.

5.– Batxilergoan, ikasleek funtsezko konpetentzia hauek garatuko dituzte:

a) hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia,

b) konpetentzia eleaniztuna,

c) matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia,

d) konpetentzia digitala,

e) konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa,

f) herritartasunerako konpetentzia,

g) ekintzailetza-konpetentzia,

h) kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

6.– Dekretu honek ezartzen dituen ikasketen xedea da Batxilergoko irteera-profilean aurreikusitako funtsezko konpetentziak garatzen direla bermatzea. Dekretu honetan ezarritako curriculumetan eta ikastetxeetako hezkuntza-proiektuek curriculumok zehazteko eran, Batxilergoko irteera-profil hori hartuko da erreferentetzat, eta bereziki kontuan hartuko dira dekretu honetako I. eranskinean jasotako funtsezko konpetentzietako deskriptore operatiboak.

II. KAPITULUA

CURRICULUMA

10. artikulua.– Curriculumaren alderdi orokorrak.

1.– Curriculumak honako alderdi hauek hartzen ditu: helburuak, ikasgaietako konpetentziak (funtsezkoak eta espezifikoak), ebaluazio-irizpideak, oinarrizko jakintza gisa enuntziatutako edukiak, ikas-egoerak eta metodo pedagogikoak.

2.– Dekretu honek curriculumaren oinarrizko alderdiak finkatzen ditu, Batxilergoko etapako ikasketak osatzen dituztenak.

3.– Ikastetxeek, beren autonomiaz baliatuz, Batxilergoko curriculuma garatu eta, hala badagokie, osatu egingo dute, beren hezkuntza-proiektuaren barruan.

4.– Dekretu honetako II. eranskinean, ikasgai bakoitzerako konpetentziak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak finkatzen dira.

5.– Funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak eskuratze eta garatze aldera, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak agintzen duen eran planifikatuko ditu irakasle-taldeak ikas-egoerak. Irakasleei beren praktika errazte aldera, III. eranskinean, hura diseinatzeko orientabideak azaltzen dira.

11. artikulua.– Ikasgai komunak.

1.– Batxilergoko modalitate guztien lehen mailako ikasgai komunak honako hauek dira:

a) Gorputz Hezkuntza.

b) Filosofia.

c) Euskara eta Literatura I.

d) Gaztelania eta Literatura I.

e) Atzerriko Hizkuntza I.

2.– Batxilergoko modalitate guztien bigarren mailako ikasgai komunak honako hauek dira:

a) Espainiako Historia.

b) Filosofiaren Historia.

c) Euskara eta Literatura II.

d) Gaztelania eta Literatura II.

e) Atzerriko Hizkuntza II.

12. artikulua.– Arteen modalitateko ikasgai espezifikoak.

1.– Arteen modalitatetik jotzen duten ikasleek Arte Plastikoen, Irudiaren eta Diseinuaren adarra edo Musikaren eta Arte Eszenikoen adarra aukeratu behar dute.

2.– Lehen mailan, Arte Plastikoen, Irudiaren eta Diseinuaren adarra aukeratzen duten ikasleek Marrazketa Artistikoa I ikasgaia dute, eta modalitateko beste bi ikasgai, honako hauen artean aukeratu beharrekoak:

a) Ikus-entzunezko Kultura.

b) Arte Plastikoei eta Diseinuari Aplikatutako Marrazketa Teknikoa I.

c) Proiektu Artistikoak.

d) Bolumena.

3.– Bigarren mailan, Arte Plastikoen, Irudiaren eta Diseinuaren adarra aukeratzen duten ikasleek Marrazketa Artistikoa II ikasgaia dute, eta modalitateko beste bi ikasgai, honako hauen artean aukeratu beharrekoak:

a) Arte Plastikoei eta Diseinuari Aplikatutako Marrazketa Teknikoa II.

b) Diseinua.

c) Artearen Oinarriak.

d) Adierazpen Grafiko-plastikoaren Teknikak.

4.– Musikaren eta Arte Eszenikoen adarretik jotzen duten ikasleek, berriz, lehen mailan, Analisi Musikala I edo Arte Eszenikoak I ikasgaia dute (aukeratzen dutena), eta modalitateko beste bi ikasgai, honako hauen artean aukeratu beharrekoak:

a) Analisi Musikala I.

b) Arte Eszenikoak I.

c) Korua eta Ahots Teknika I.

d) Ikus-entzunezko Kultura.

e) Musika Hizkuntza eta Praktika.

5.– Bigarren mailan, Musikaren eta Arte Eszenikoen adarretik jotzen duten ikasleek Analisi Musikala II edo Arte Eszenikoak II ikasgaia dute (aukeratzen dutena), eta modalitateko beste bi ikasgai, honako hauen artean aukeratu beharrekoak:

a) Analisi Musikala II.

b) Arte Eszenikoak II.

c) Korua eta Ahots Teknika II.

d) Musikaren eta Dantzaren Historia.

e) Literatura Dramatikoa.

13. artikulua.– Zientzien eta Teknologiaren modalitateko ikasgai espezifikoak.

1.– Zientzien eta Teknologiaren modalitatetik jotzen duten ikasleek, lehen mailan, Matematika I ikasgaia dute, eta modalitateko beste bi ikasgai, honako hauen artean aukeratu beharrekoak:

a) Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak.

b) Marrazketa Teknikoa I.

c) Fisika eta Kimika.

d) Teknologia eta Ingeniaritza I.

2.– Era berean, bigarren mailan ikasleek Matematika II edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II ikasgaia dute (aukeratzen dutena), eta modalitateko beste bi ikasgai, honako hauen artean aukeratu beharrekoak:

a) Biologia.

b) Marrazketa Teknikoa II.

c) Fisika.

d) Geologia eta Ingurumen Zientziak.

e) Kimika.

f) Teknologia eta Ingeniaritza II.

14. artikulua.– Modalitate Orokorreko ikasgai espezifikoak.

1.– Modalitate Orokorretik jotzen duten ikasleek, lehen mailan, Matematika Orokorra ikasgaia dute, eta ikastetxean eskaintzen diren lehen mailako modalitateko ikasgai guztien artean aukeratu behar dituzten beste bi ikasgai. Eskaintza horretan, nahitaez sartu behar da Ekonomia, Ekintzailetza eta Enpresa Jarduera ikasgaia, modalitate horretako espezifikoa.

2.– Era berean, bigarren mailan, ikasleek Zientzia Orokorrak ikasgaia dute, eta ikastetxean eskaintzen diren bigarren mailako modalitateko ikasgai guztien artean aukeratu behar dituzten beste bi ikasgai. Eskaintza horretan, nahitaez sartu behar da Kultura eta Arte Mugimenduak ikasgaia, modalitate horretako espezifikoa.

15. artikulua.– Giza eta Gizarte Zientzien modalitateko ikasgai espezifikoak.

1.– Giza eta Gizarte Zientzien modalitatetik jotzen duten ikasleek, lehen mailan, Latina I edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I ikasgaia dute (aukeratzen dutena), eta modalitateko beste bi ikasgai, honako hauen artean aukeratu beharrekoak:

a) Ekonomia.

b) Grekoa I.

c) Mundu Garaikidearen Historia.

d) Latina I.

e) Literatura Unibertsala.

f) Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I.

2.– Era berean, bigarren mailan, ikasleek Latina II edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II ikasgaia dute (aukeratzen dutena), eta modalitateko beste bi ikasgai, honako hauen artean aukeratu beharrekoak:

a) Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua.

b) Geografia.

c) Grekoa II.

d) Artearen Historia.

e) Latina II.

f) Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II.

16. artikulua.– Tutoretza.

Etapa osoan, ikastetxeek astean ordubete utzi behar dute ikasleekin hezkuntzarako tutoretza egiteko.

17. artikulua.– Aukerako ikasgaiak.

1.– Ikastetxeek II. eranskinean zerrendatzen diren aukerako edozein ikasgai eskain dezakete, bai eta ikastetxeek berek proposatutako beste ikasgai batzuk ere, baldin eta ikasgai horiek hezkuntzaren arloko eskumena duen sailaren aldez aurreko baimena badute, proposatutako curriculum-edukia Batxilergoko mailari eta ikasketei egokitzen zaien kontuan hartuta.

2.– Hala ere, nahitaez eskaini behar da atzerriko bigarren hizkuntza bat Batxilergoko lehen eta bigarren mailetan, eta Jarduera Fisikoa, Aisialdia eta Osasuna ikasgaia bigarren mailan.

18. artikulua.– Batxilergoa hiru ikasturtetan antolatzea.

1.– Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 32.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak neurriak ezarriko ditu ikasleak Batxilergoa araubide arruntean hiru ikasturtetan egin ahal izan dezan, baldin eta haren egoera iraunkor edo iragankorra dela-eta hala komeni bada. Kasu horietan, ikasleak Batxilergoko bi mailetako ikasgaiak aldi berean ikasteko aukera aztertu behar da.

2.– Egoera hauetako batean daudenak baliatu daitezke neurri horretaz:

a) Batxilergoko etapa eta Musikako edo Dantzako ikasketa profesionalak aldi berean egitea.

b) Goi-mailako edo errendimendu handiko kirolaritzat hartzen direla frogatzea.

c) Ohikoaz bestelako hezkuntza-arreta behar izatea, berariazko hezkuntza-laguntzaren premiaren bat dutela eta.

d) Hezkuntza-administrazioaren iritziz neurri hori aplikatzea justifikatzen duten beste kontu batzuk alegatzea.

3.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak Batxilergoa osatzen duten ikasgaiak nola banatu behar diren zehaztuko du, eta lehentasuna duten ikasgaien eskaintzaren plangintza egokia dela bermatuko, IV. eranskinean xedatutakoaren arabera.

III. KAPITULUA

PEDAGOGIA- ETA KUDEAKETA-AUTONOMIA

19. artikulua.– Ikastetxeen autonomia.

1.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ikastetxeen pedagogia- eta kudeaketa-autonomia sustatuko du. Gainera, irakasleen talde-lana eta ikerketa-jarduera sustatuko ditu, heziketa-praktikatik abiatuta.

2.– Ikastetxeek autonomia izango dute curriculumak zehazteko, eta, horiek garatzeko, beren hezkuntza-proiektuan ezarritakoa hartuko dute erreferentziatzat. Autonomia hau, era berean, islatuta geratzen da ikastetxe bakoitzak garatzen dituen proiektuetan, zeinek Hezkuntza-proiektua ere hartuko baitute erreferentziatzat. Proiektu guztietan, beharrezkoa da curriculumaren gaineko erabakiak eta antolakuntzaren gainekoak bat etortzea.

3.– Ikastetxe bakoitzak bere curriculuma garatuko du. Horretarako, modu autonomoan kudea dezake dekretu honen V. eranskinean ezarritako asteko ordutegiaren ehuneko bat. Taldeak eta ikasgaiak malgutasunez antola ditzakete; ikasleen ezaugarrien araberako antolaketa-neurri egokienak eta ezaugarri haien arabera aniztasunari arreta emateko neurri egokienak har ditzakete, eta esparru bereko ikasgaiak batera ematea dakarten antolaketa didaktikoak ezar ditzakete.

4.– Curriculuma garatzean, ikastetxeek beste era batean banatu ahal izango dute hautazko ikasgaietako denbora ikasturtean zehar, zuzendaritza eskudunak baimena emanez gero.

5.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ezarritako curriculumak zehaztu edo egokituko dituzte ikastetxeek, eta beren hezkuntza-proiektuan islatuko dute hori, lehentasuna emanez herritartasun aktibora bideratutako ikaskuntza konpetentzialaren berezko printzipioak, helburuak eta metodologia sustatzeari eta garatzeari.

6.– Zuzendaritza-taldeek, beren autonomia esparruaren barruan, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea sustatuko dute, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan ezarritako konpromisoak betetzeko zeregina bultzatze aldera.

7.– Batxilergoko helburuak erdiesteko, zuzendaritza-taldeek lankidetza- eta kooperazio-harremanak hasiko dituzte hurbileko beste erakunde batzuekin; bereziki, udalekin.

8.– Ikastetxeek laguntza emango diete beren inguruneko erakundeei hizkuntza-normalizazioko planak sustatzeko.

9.– Ikasleek ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren prestaketan parte har dezaten sustatuko da.

10.– Ikastetxeek familien parte-hartzea eta inplikazioa sustatuko dute. Horretarako, ikastetxeek eta guraso-elkarteek prestakuntza-ekintzak garatu ditzakete guraso eta legezko tutoreentzat, eta, horietan, curriculumean ezarritako inklusio- eta hezkidetza-printzipioak hartuko dituzte kontuan.

11.– Ikastetxea hezkuntza-sistema baten barruan txertatuta dago eta haren arabera dihardu; ikastetxearen autonomiak, bada, behar bezala egokitu behar du testuinguru horretara. Hezkuntza-esparru hau gai da egokiro bateratzeko helburu eta arau komunak eta ikastetxeek hain beharrezkoa duten pedagogia- eta kudeaketa-autonomia; hori horrela izan dadin, baina, nahitaezkoa da ebaluazioa egiteko eta kontuak emateko mekanismoak ezartzea. Hezkuntza-sistemak erronka handiak ditu aurrez aurre, eta egoera horrek ezinbestean eskatzen du ikastetxeen esku uzten diren bitarteko eta baliabideen erabilerari buruzko informazioa publikoa eta gardena izatea, eta, horrekin batera, lortzen diren emaitzen gaineko balorazioa egitea.

20. artikulua.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektua.

1.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektuan, ikastetxeak bere autonomia baliatuz egindako hezkuntza-aukera eta jarraibide nagusiak biltzen dituen proposamen integrala jaso behar da; jarraibide nagusiok erreferentzia gisa balio dute hezkuntza-komunitateak ikastetxean esku hartzeko prozesua koherentziaz zuzentzeko.

2.– Ikastetxearen hezkuntza-proiektuak berariaz jasoko ditu balioak, helburuak eta jarduketa-lehentasunak, eta eskumeneko sailean ezarritako curriculumak ikastetxean nola zehaztuko diren adieraziko du –Klaustroak finkatu eta onartuko du curriculuma zehazteko modua–; orobat, herritar aktiboak hezteko ikaskuntza konpetentzialak berezko dituen printzipioak, helburuak eta metodologia sustatu eta garatuko ditu. Horiez gain, modu transbertsalean landuko ditu balioetan oinarritutako hezkuntza, garapen jasangarria, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta diskriminaziorik eza, nesken eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, eskolako jazarpena eta ziberjazarpena, eta bake-kultura eta giza eskubideak. Ikastetxearen estrategia digitala ere jasoko du. Ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-proiektua eratzeko, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruko osagaia izanik, hezkuntza-proiektu osoa eratzeko orduan bezala, arretaz hausnartu eta aztertuko da ikastetxearen ingurunea.

3.– Ikastetxe publikoetako Ordezkaritza Organo Gorenari edo itunpeko ikastetxe pribatuetako titularrari dagokio ikastetxearen hezkuntza-proiektua onartzea. Batean zein bestean, argitara eman behar da.

21. artikulua.– Ordutegia.

1.– Ikastetxe bakoitzak ikasgaien artean banatuko ditu ikasmaila bakoitzeko orduak, betiere V. eranskinean gutxienekotzat jotzen den ordu kopurua beteta. Aukera hori baliatzen ez duten ikastetxeek eranskin berean adierazten den erreferentziazko ordutegia beteko dute.

2.– Batxilergoko lehen mailan, astean 34 eskola-ordu eman behar dira gutxienez, eta, bigarren mailan, 33 ordu.

3.– Ikastetxeek, beren autonomia pedagogikoaz eta antolaketa-autonomiaz baliatuz, ordubete baino gehiago edo gutxiago irauten duten ordutegi-moduluak ezar ditzakete, baldin eta ikasleen asteko eskola-orduen gutxieneko kopurua eta irakasleen lanaldia betetzen badira.

4.– Batxilergoko eguneko eskolaldia goizeko saioetan edo goiz eta arratsaldekoetan antola daiteke.

5.– Batxilergoko ikastetxeek, indarrean dagoen araudiaren arabera, ordutegia malgutzeko aukera aurreikusi behar dute, ikasleek dituzten egoera bereziei erantzuteko. Besteak beste, osasuna, eskolatze partekatua edo ikasketen aldiberekotasuna direla-eta sortzen diren egoerak sartzen dira hor.

22. artikulua.– Familiek eta legezko tutoreek hezkuntza-prozesuan laguntzea eta parte hartzea.

1.– Gurasoek eta legezko tutoreek eskubidea dute ikasle adingabeen eskola-hezkuntzaren jarraipena egiteko eta haien eskola-hezkuntzan parte hartzeko.

2.– Ikasle adingabeen gurasoek eta legezko tutoreek hezkuntza-prozesuan babesa eman eta parte hartu behar dute, laguntza emanez ikastetxeek ikasleen aurrerabidea errazteko hartzen dituzten laguntza-neurri indargarrietan.

23. artikulua.– Irakasle-taldea.

1.– Ikasle talde berean esku hartzen duten irakasleak dira talde horren irakasle-taldea.

2.– Zuzendaritza-taldeak talde-lana, gogoeta eta hezkuntza-ikerketa sustatuko ditu irakaskuntzan, koordinazio-bileren bidez. Esparru horretan, ordutegi espezifikoak aurreikusi behar dira irakasle-taldeen koordinazio-bilera horiek irakasleek ikastetxean egon behar duten aldian egiteko.

3.– Ikastetxeko zuzendariari dagokio ikasle taldeei irakasleak esleitzea. Ikastetxean gerora sortutako beharrei erantzute aldera, ikastetxeko zuzendariak aldi baterako eta behar bezala justifikatuta alda dezake esleipen hori, baita irakastorduen banaketa ere.

24. artikulua.– Irakasleen konpetentzia-profila, prestakuntza, koordinazioa eta ebaluazioa.

1.– Irakasleek konpetentzia-profil egokia izan behar dute egoera ezin hobean beren gain hartzeko beren funtzioen berezko erantzukizunak eta, bereziki, ikasleei Batxilergoko irteera-profilari lotutako konpetentziak lortzen laguntzearekin lotuta dauden erantzukizunak.

2.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak zehaztuko du irakasleen konpetentzia-profila.

3.– Irakasleen prestakuntzaren helburua da ikasleei garapen pertsonal eta afektiboan eta konpetentzien garapenean laguntzeko behar den konpetentzia-profila lortzea. Prestakuntza-prozesuetan

arreta berezia jarri behar zaie hezkuntza inklusiboari, hezkidetzari, aniztasun afektibo-sexualari eta hezkuntzan laguntza berezia eta berariazkoa behar duten kolektiboentzako arreta egokiari. Era berean, ikastetxeen testuinguruan berdintasunaren, jazarpenaren eta tratu txarren arloak lantzeko prestakuntza espezifikoa ere jasoko da, bai, orobat, haurren aurkako indarkeriari aurre hartzeko, antzemateko eta aurre egiteko prestakuntza ere. Hezkuntza arloko eskumena duen sailak irakasleak prestatzeko jarduerak planifikatuko ditu; jarduera horien eskaintza dibertsifikatua eta doakoa bermatuko du, eta behar diren neurriak ezarriko ditu irakasleek jarduerotan parte har dezaten. Ikastetxe bakoitzaren premien arabera hautatuko da prestakuntza espezifikoa, hausnarketa-prozesuetatik ateratako ondorioak aintzat hartuta.

4.– Hezkuntza-komunitateko kide guztien koordinazioa eta kooperazioa sustatu behar da ikastetxeko hezkuntza- eta antolaketa-arlo guztietan. Era berean, inguruko beste ikastetxe eta hezkuntza-eragile batzuekin koordinatzeko eta kooperatzeko ekintzak sustatu behar dira. Irakasleek prozesu horretan laguntza eman eta parte hartu behar dute.

5.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ebaluatuko ditu irakasleen konpetentziak. Ebaluazio horretan, irakasleek ere parte hartuko dute, beren garapen profesionala hobetzen eta ebaluazio horretatik eratortzen diren prestakuntza-ekintzak planifikatzen laguntzeko.

25. artikulua.– Tutoretza eta orientazioa.

1.– Hezkuntza-orientazioa etengabeko laguntza-prozesua da, sistematikoa, irakasteko jardueran sartzen dena, eta haren helburua ikasleei oinarrizko konpetentziak garatzen eta eskuratzen laguntzea da, beren proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izan daitezen eta herritartasuna gauzatu dezaten.

2.– Hezkuntzarako tutoretza eta orientazioa emateko eginkizuna hezkuntza-komunitate osoaren ardura da; berariaz, irakasle-taldeari dagokio, eta, bereziki, tutoreari. Azken hori da bere taldeko ikasleen orientazio akademiko eta profesionalaren arduradun nagusia, eta hark du, era berean, ikasle horiei eskolak ematen dizkieten irakasleak koordinatzeko eta, ikasle adingabeen kasuan, haien gurasoekin edo legezko arduradunekin komunikazio arina ezartzeko ardura nagusia. Hori guztia irakasle orientatzaileen edo aholkularien laguntzarekin egingo da. Irakasleek hezkuntzarako tutore-lana ondo egiteko, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak agintzen duen prestakuntza jaso behar dute irakasle guztiek.

3.– Batxilergoko etapa osoan, ikasleek hezkuntzarako ordubeteko tutoretza-saioa izango dute tutorearekin.

4.– Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak hezkuntza-orientazioa arautzen duten printzipioak ezarriko ditu; orobat, hezkuntzarako tutoretzaren eredua zehaztuko du, eta ikasleen eskolaratze-denboran hezkuntzarako tutoretza-ekintza koherentziaz eta modu jarraituan egiten dela bermatuko du eskura dituen bitartekoen bidez.

5.– Ikastetxeko zuzendaritzak adi egon behar du tutoretzako eta hezkuntza-orientazioko ekintzak ikastetxeko profesional guztien eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen artean banatuta eta koordinatuta gauzatu daitezen.

6.– Hezkuntza-orientazioa Orientazio eta Tutoretza Planean islatu behar da (plan hori ikastetxearen Urteko Planean txertatuta dago), eta ikasleen garapen integrala bermatzen duten jarduera programatuak, sistematizatuak eta ebaluagarriak jaso behar ditu, baita laguntza pertsonalizatua ere, eta nork bere burua ezagutzera eta autonomia garatzera bultzatu, erabakiak hartzeko orduan gida ditzan ikasleak. Irakasle-taldeek, gainera, ikasleen ikaskuntzaren eta autonomiaren aldeko estrategia didaktikoak eta pedagogikoak sartu behar dituzte. Egokiro garatzeko, hezkuntzaren

arloko eskumena duen sailak orientabideak emango dizkie ikastetxeei Batxilergoko Orientazio eta Tutoretza Plana egiteko eta garatzeko.

7.– Orientazio-prozesuak barnean hartuko ditu ikasleei beren burua ezagutzen laguntzen dieten eta prestakuntza-ibilbidea eta bizitza-proiektua egiteko orduan erabakiak hartzen laguntzen dieten orientazio pertsonal, sozial, akademiko eta profesionaleko jarduerak, eta lan-orientazio guztien berri jakitea bultzatuko da, estereotipo sexistarik gabeko interes eta bokazioak pizten laguntzeko.

8.– Ikastetxeek informatu eta orientatu behar dituzte ikasleak, beren interesetarako eta ondorengo prestakuntza-orientaziorako modalitate, adar eta ikasgai egokienak aukeratu ditzaten.

9.– Behar bezala garatutako hezkuntzarako tutoretzak bermatu behar du taldeko ikasle bakoitza banaka eta bere berezitasunekin hartzen dela aintzat. Talde bakoitzeko tutorea da laguntzeko, desberdintasunak hautemateko eta inklusioa eta aniztasuna indartzeko aukera gehien duen pertsona hezkuntza-komunitatean.

10.– Hezkuntzarako tutoretza hezkuntza-ekintzen multzo bat da, zeinek funtsezko konpetentziak lortzen laguntzen baitute eta, aldi berean, beharrezkoak baitira ikasleen ibilbide pertsonala, akademikoa eta profesionala –bilakaera-unearen arabera– modu progresiboan garatzeko.

11.– Hezkuntzarako tutoretzak jarraipen indibiduala eta irakasle guztien jarraipen pertsonalizatua eta taldeko jarraipena konbinatzen ditu, ikasleen gizarte-kohesioan laguntzen duten proposamen pedagogikoak aplikatuz. Halaber, ikasleek beren ikasteko prozesuan eta beren garapen pertsonalean eta sozialean inplikazio aktiboa izan dezaten sustatzen du.

12.– Hezkuntzarako taldeko tutoretza-saioen edukiak lau gai multzoren inguruan antolatu behar dira: garapen pertsonala, pertsonen arteko harremanak, ikasteko prozesuak eta ikasketa-orientazio profesionala. Azken multzo horrek garrantzi handia du etapa honetan.

13.– Ikasleen hezkuntzarako tutoretza irakaskuntza-funtzioaren parte da. Ikasle guztiek izan behar dute tutore bat, eta tutore hori arduratuko da dagozkion ikasleen hezkuntza-prozesua orientatzeaz, banaka zein taldean. Tutorea ikasleen garapen pertsonalaz, haien ongizateaz eta funtsezko konpetentzien lorpen progresiboaz arduratuko da bereziki.

14.– Tutoreari dagokio ikasleei eta haien gurasoei edo legezko tutoreei –ikasleak adingabeak izanez gero– ikasleen eskola-jarduerei buruzko guztiaren berri ematea; haiek, nolanahi ere, haiek eskubidea dute irakasleengana edo ikastetxeko gobernu-organoetara jotzeko.

15.– Tutoreari dagokio beharrezkoa den dokumentazio akademikoa formalizatu eta betetzea eta irakasle-taldea koordinatzea ikasleen kudeaketa pedagogikoari dagokionez.

16.– Batxilergoan zehar, irakasle-taldeek ikasle bakoitzari buruzko informaziorik garrantzitsuena jaso eta hurrengo mailara eramango dute. Ikastetxeak informazioa jasotzeko eta bidaltzeko erregistro bat izan behar du, eta tutoreak du erregistro horretako informazioa eguneratzeko eta kudeatzeko erantzukizuna. Erregistro horretan, besteak beste, konpetentzietan erdietsi den mailari buruzko datuak eta jaso diren errefortzu-neurriak eta laguntzak sartu behar dira.

17.– Ikasleek eta haien gurasoek edo legezko tutoreek –ikasleak adingabeak izanez gero– banakako ebaluazio-txostena jasoko dute ikasturte bakoitza amaitutakoan. Txosten hori ikaslearen tutoreak egingo du, irakasle-taldearen laguntzarekin, eta ikaslearen ikaskuntzei buruzko informazioa eta funtsezko konpetentzietan eskuratutako mailari buruzkoa bilduko du hor, eta, hala badagokio, hurrengo ikasturterako gomendioak eta hezkuntza-arloko errefortzu-neurrien proposamenak. Txosten hori ikasleen espedientearekin batera gorde behar da, eta ezarritako koordinazio-mekanismoen bidez eman behar da ikaslea ikastetxez aldatzen denean.

18.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak tresna digitalak jarriko ditu eskura aurreko bi puntuetan jasotakoa errazteko. Aipatutako dokumentuak ikasleen dokumentazio akademikoaren parte izango dira, eta hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak adierazi bezala kudeatu behar dira.

19.– Ikastetxeko irakasle orientatzaileek laguntza emango diete tutoreari eta irakasle-taldeari orientazioko eta hezkuntzarako tutoretzako ekintzen plangintza eta jarraipena egiteko. Beharrezkoa izanez gero, ikasteko zailtasun zehatzak aztertzen lagunduko dute, eta aholkularitza emango dute zehazteko zer hezkuntza-erantzun inklusibo baliatu ikasle guztiek eskola-arrakasta lortzeko. Halaber, ikastetxez kanpoko gizarte- eta hezkuntza-arloko eta komunitate-arloko eragile eta babesleekiko elkarlana koordinatuko dute, eta familiei zein ikasleei lagunduko diete eskola-ibilbidean zehar, eta orientabidea emango diete erabakiak hartzeko orduan, beren gaitasunak eta interesak ahalik eta hobekien gara ditzaten.

26. artikulua.– Batxilergoko etaparako trantsizioa.

1.– Mailaz igarotzen denerako, etapa bat bukatu eta beste bat hasten denerako eta ikastetxez aldatzen denerako, ikastetxeek koordinazio-mekanismoak eta informazioa eskualdatzeko mekanismoak izan behar dituzte, hezkuntza-koherentzia eta prestakuntzaren jarraitutasuna errazteko eta ziurtatzeko.

2.– Horretarako, ikaskuntzen garapenaren jarraitutasuna eta ikasleen jarraipen pertsonalizatua bermatzeko, beharrezkoa da haiei buruzko informazioa etapa batetik bestera eramatea. Beren funtzioak betetzeko adingabearen edo haren familiaren ohorea eta intimitatea ukitzen dituzten datu pertsonaletara eta familiarretara irispidea duten irakasleek eta gainerako langileek isilpean gorde beharko dituzte datuok.

3.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailari esker, ikasleak Batxilergoko ikastetxean matrikulatu ondoren, ikastetxeak ikasleen historia akademiko osoa eskuratu ahal izango du, barnean direla aurreko etapetan egindako ikasketei buruzkoa eta aurreko etapako bukaerako txosten indibiduala.

4.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik Batxilergora igarotzen laguntzeko, azken horren antolaketan ahaleginak egin behar dira DBHko titulua ikasgairen bat gainditu gabe lortu zuten eta Batxilergoan jarraitzen duten ikasleek indartze-neurriak izan ditzaten, etapa berria ondo betetzen dutela ziurtatzeko.

5.– Beste autonomia-erkidego batera joaten diren ikasleen kasuan, ikastetxeak historia akademikoaren kopia bat eman behar die, dagokien ikastetxean matrikula formalizatzeko aukera izan dezaten.

6.– Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, aholkularitza eta orientazio psikopedagogikoko taldeek arreta berezia jarri behar dute trantsizio-prozesuan.

27. artikulua.– Baliabide eta material didaktikoak.

1.– Material eta baliabide didaktikoen erabilerak bat etorri behar du dekretu honetan proposatzen den hezkuntza-eredu pedagogikoarekin. Ekitatearen, inklusioaren eta gizarte-kohesioaren printzipioei erantzun behar die, eskola inklusiborako oinarri gisa.

2.– Diseinatutako eta sortutako baliabide eta material pedagogiko eta didaktikoek aurrera egiten utzi behar diete ikasle guztiei, eta irudikapenean, adierazpidean eta konpromisoan proposamen dibertsifikatuak eskaini behar dizkiete. Irizpide hauei jarraitu behar diete:

a) genero-ikuspegia,

b) aniztasun guztiekiko errespetua: generoa, afektibo-sexuala, kulturala, etnikoa...,

c) materialen eskuragarritasuna hobetzea eta areagotzea eta ikaskuntzarako eta komunikaziorako oztopoak minimizatzea eta ezabatzea,

d) zorroztasun zientifikoa,

e) hizkuntza-egokitasuna,

f) ikaskuntzen pertsonalizazioa,

g) euskarrien aniztasuna.

3.– Ikastetxeek autonomia dute Batxilergoan erabili beharreko material eta baliabide didaktikoak sortzeko eta aukeratzeko, indarrean dagoen araudian eta aurretik zehaztutako irizpideetan ezarritakoaren arabera.

4.– Hezkuntza Saileko Ikuskaritzak ikastetxeen hezkuntza-prozesuak aztertuko ditu eta ikastetxeek erabiltzen dituzten material eta baliabide didaktikoak dekretu honetan proposatzen den hezkuntza-ereduarekin bat datozen ebaluatuko, irakatsi eta ikasteko prozesua osatzen duten elementu guztiak gainbegiratzeko ohiko prozesuaren barruan.

IV. KAPITULUA

EBALUAZIOA, PROMOZIOA ETA TITULAZIOA

28. artikulua.– Ikaskuntzen ebaluazioa.

1.– Ikasleen ikaskuntza-prozesua ebaluatzea funtsezko osagaia da Batxilergoan, eta arretaz planifikatu eta garatu behar da irakasteko eta ikasteko prozesuaren barruan.

2.– Ikasleen ebaluazioak globala, jarraitua, hezigarria eta ikasgaien arabera bereizia izan behar du, eta kasuan kasuko konpetentzien garapen-maila eta ikaskuntza-prozesuan izandako aurrerapena izan behar ditu erreferentziatzat.

3.– Ikasgai bakoitzeko irakasleak erabakiko du ikasturte-bukaeran ea ikaslea dagozkion konpetentzien eskuratze-maila egokira iritsi den etapako helburuak lortzeko.

4.– Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez baloratua eta aitortua izateko duten eskubidea bermatu behar da, eta, horretarako, behar diren prozedurak ezarri behar dira. Prozedura horiek, betiere, etapa honetako ebaluazioaren izaera jarraitua eta ikasgaien arabera bereizia hartuko dute kontuan.

5.– Ikasgaietan ikasleen ikaskuntza-prozesuak ebaluatzeko, ikaskuntza-prozesuetako konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideetan ezarritakoa hartu behar da erreferentziatzat.

6.– Beren autonomiaren esparruan, eta indarrean dagoen araudiaren arabera, ikastetxeek ebaluazio-irizpideak eta ezinbesteko ikaskuntzak garatu eta zehaztu behar dituzte beren hezkuntza-proiektuan, eta ikasle guztien hezkuntza-premiei erantzuteko beharrezkoak diren neurriak ezarri.

7.– Askotariko ebaluazio-tresnak erabili behar dira, ikasle guztien ikaskuntzaren bilakaera behar bezala ebaluatzeko modukoak, ikasleen ezaugarri eta premia indibidualetara eta espezifikoetara eta ikas-egoeretara egokitzen direnak.

8.– Ikasleek eta haien gurasoek edo legezko tutoreek –ikasleak adingabeak izanez gero– hezkuntza-prozesuaren hasieratik, hauek ezagutu behar dituzte: ebaluazio-irizpideak, ezinbesteko ikaskuntzak, ikaskuntza-prozesua ebaluatzeko prozedurak, kalifikazio-irizpideak eta ikasleak hurrengo mailara igotzeko edo titulazioa lortzeko erabakiak hartzeko erabiliko diren irizpideak. Ikastetxeek alderdi horien guztien berri eman behar diete ikasleei eta haien familiei edo legezko tutoreei –ikasleak adingabeak izanez gero– ikasturte bakoitzaren hasieran.

9.– Ebaluazioak, nagusiki, ikasleen aurrerapenak identifikatu behar ditu, baita hezkuntza-prozesuan zehar ikasleek dituzten zailtasunak ere, zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak hartu daitezen irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan.

10.– Irakasle-taldeak koordinazio-espazioak eta prozedura sistematikoak ezarriko ditu ikasleen ikasteko prozesuari buruz eta haiek funtsezko konpetentzien garapenean duten bilakaerari buruz informazioa biltzeko, ikasle bakoitza ondoen orientatuko duten erabakiak hartu daitezen.

11.– Irakasle-taldeak, taldeko tutoreak koordinatuta, ebaluazio jarraitua eta hezigarria egingo du ikasturtean zehar, eta, ikasturtea amaitzean, azken ebaluazio-saioetako lehenengoa egingo du, eta, ikasgairen bat gainditu ez duten ikasleen kasuan, ezohiko azken saio bat. Ikasleek lortutako konpetentzia-garapena aztertu ondoren, promozioari edo, hala badagokio, titulazioari buruzko erabakiak hartuko dituzte, dekretu honen 30. eta 31. artikuluetan jasotakoari jarraikiz. Era berean, behar diren erabakiak hartuko dira laguntza-neurriak planteatu beharrari buruz edo lehendik daudenak berrikusteari buruz.

12.– Irakasleek, ikasleen ikaskuntzak ez ezik, irakasteko prozesuak eta beren irakasle-jarduna bera ere ebaluatu behar dituzte, horiek guztiak hobetzen laguntzeko. Ikasleek lortutako emaitzen analisiari buruzko ondorioetatik abiatuta, neurriak ezarri behar dituzte curriculumaren, antolamenduaren eta, bereziki, irakasle-jardunaren esparruan. Neurri horiek plangintza-dokumentuetan jasotako hobekuntza-helburuetan islatuko dira.

29. artikulua.– Ikaskuntzen ikasturte-bukaerako kalifikazioa.

1.– Ikasgaietako ikaskuntzen kalifikazioa kasuan kasuko konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideen arabera egingo da.

2.– Curriculum-elementuak zenbait ikasgai biltzen dituzten zeharkako esparru edo proiektu globalizatzaileen bidez antolatu badira, ebaluazioa modu integratuan egin daitekeen arren, kalifikazioa ikasgaika egin behar da.

3.– Aurreko puntuan adierazitako kasuetan, esparru edo proiektu horietan biltzen diren konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio-irizpideak definitu behar dira, eta horiek izango dira ebaluazio eta kalifikaziorako erreferentzia. Ikasleei edo familiei ebaluazioaren emaitzari buruz helarazten zaien informazioan, esparru edo proiektuetan lortutako emaitzekin batera, haien parte diren ikasgaien erreferentzia jaso behar da, edo curriculum-elementuak hartu zaizkien haien parte diren ikasgaien erreferentzia.

4.– Lehen zein bigarren mailen amaieran, ikasturteko azken ebaluazioko ondorioekin bat etorrita, irakasle-taldeak erabakiko du zer ondorio duten ikasleen kalifikazioek; alegia, hurrengo maiara igarotzen den eta titulazioa lortzen duen. Horretarako, ikasleei ikasgaiak ematen dizkieten ikasleek eta tutoreak osatuko dute irakasle-taldea. Horretarako, azken ebaluazioko saioa egin behar da, eta saio hori ebaluazio partzialeko azken saioarekin bat etor daiteke.

5.– Ikasgairen batean ebaluazio positiboa lortu ez bada, ikasgai horren ezohiko azken ebaluazioa egin behar da.

6.– Ebaluazio-aktetan jasotako ebaluazioaren emaitzak zerotik hamarrera bitarteko zenbakizko kalifikazioen bidez adierazi behar dira, hamartarrik gabe, eta negatibotzat joko dira bostetik beherako kalifikazioak. Ikasleak ez badira aurkezten aparteko azterketetara, Ez Agertua jaso behar da (EA).

7.– Bigarren mailako aktetan, gainera, aurreko ikasturtean gainditu gabeko ikasgaiak dituzten ikasleak agertuko dira, eta Batxilergoko titulua emateko proposamena jasoko da, etapako batez besteko notarekin batera. Ikasmaila horretan, gainditu gabeko ikasgaien ebaluazio-aktak egin behar dira ohiko eskolaldia eta aparteko azterketaren deialdia amaitzean.

30. artikulua.– Hurrengo mailara igarotzea.

1.– Ikasleak Batxilergoko lehen mailatik bigarren mailara igarotzen dira ikasgaiak gainditzen dituztenean edo gehienez ere bi ikasgaitan ebaluazio negatiboa dutenean. Dena den, bigarren mailan, lehen mailan gainditu ez dituzten ikasgaien matrikula egin behar dute, eta gainditu gabeko ikasgaitzat jotzen dira. Ikastetxeek errekuperazio-jarduerak eta gainditu gabeko ikasgaien ebaluazioa antolatu behar dituzte, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ezartzen duen antolaketa-esparruan.

2.– IV. eranskinean adierazitako bigarren mailako ikasgaiak gainditzeko, ezinbestekoa da eranskin horretan adierazten diren lehenengo mailako ikasgaiak gainditzea, haien arteko jarraitutasuna dela eta. Hala ere, modalitate beraren barruan, ikasleak bigarren mailako ikasgaian matrikulatu ahal dira lehenengo mailan ikasgai hori gainditu gabe, ikasgai hori ematen duen irakasleak iritziz gero bigarren mailako ikasgaia ongi jarraitzeko behar diren baldintzak betetzen dituztela. Bestela, lehenengo mailako ikasgaia ikasi behar dute eta gainditu gabeko ikasgaitzat jotzen da. Hala ere, ikasgai hori ez da kontuan hartzen bigarren mailara igarotzeko baldintzak aldatzeari dagokionez.

3.– Bigarren maila amaitzean ikasgai batzuetan ebaluazio negatiboa duten ikasleek aukera dute ikasgai horietan matrikulatzeko, gainditutako ikasgaiak berriro ikasi beharrik izan gabe, edo maila osoa errepikatzeko.

4.– Batxilergoko lehen maila modalitate edo adar jakin batean egin duen ikasle batek bigarren mailara beste modalitate edo adar batean igaro nahi badu, titulua lortzeko, bi mailetako ikasgai komunez eta hautazkoez gain, modalitate edo adar berriko ikasgai espezifiko guztiak ikasi eta gainditu behar ditu, 12., 13., 14. eta 17. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

31. artikulua.– Batxilergoko titulua.

1.– Batxilergoko tituluak egiaztatzen du etaparako ezarritako helburuak lortu direla eta dagozkion konpetentziak eskuratu direla.

2.– Batxilergoko titulua lortzeko, ebaluazio positiboa izan behar da Batxilergoko bi mailetako ikasgai guztietan.

3.– Salbuespen gisa, irakasle-taldeak erabaki dezake ikasgai bat ez beste guztiak gainditu dituen ikasle batek Batxilergoko titulua lortu duela, baldin eta, gainera, honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

a) Irakasle-taldeak uste izatea ikasleak titulu horri lotutako helburuak eta konpetentziak lortu dituela.

b) Ikasleak ikasgaian behin eta berriz eta justifikaziorik gabe huts egin ez izana. Hutsegite jarraitu eta justifikaziorik gabeko horren gehieneko iraupena ezin da izan dagokion ikasgaiaren ordu kopuruaren % 20 baino handiagoa.

c) Ikaslea proba guztietara aurkeztu izana eta hura ebaluatzeko beharrezkoak diren jarduerak egin izana, ezohiko deialdikoak barne.

d) Etapako ikasgai guztietan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa bost edo gehiago izatea. Kasu horretan, etaparen amaierako kalifikazioa kalkulatzeko, gainditu gabeko ikasgaian lortutako zenbakizko kalifikazioa hartu behar da kontuan.

4.– Batxilergoko titulua bakarra da, eta egindako modalitatea eta lortutako batez besteko kalifikazioa adierazita ematen da. Horretarako, ikasitako ikasgai guztien kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa kalkulatzen da, ehunenera biribilduta. Kalkulu hori egiteko, ikasgai komunak eta aukerakoak, tituluari dagokion modalitatearen ikasgai espezifikoak eta, hala badagokio, Erlijioa ikasgaia kontuan hartu behar dira.

32. artikulua.– Batxilergoko titulua beste ikasketa batzuen bidez lortzea.

1.– Lanbide Heziketako teknikariaren titulua duten ikasleek Batxilergoko titulua lortu dezakete modalitate Orokorrean, baldin eta ikasgai komunak gainditzen badituzte.

2.– Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikariaren titulua duten ikasleek Batxilergoko titulua lortu dezakete Arteen modalitatean, baldin eta ikasgai komunak gainditzen badituzte.

3.– Halaber, Batxilergoko titulua lortu dezakete, Arteen modalitatean, Musikako edo Dantzako ikasketa profesionalak gainditu dituztenek, baldin eta, gainera, ikasgai komunak gainditzen badituzte.

4.– Ikasle horien Batxilergoko tituluan agertuko den kalifikazioa honako haztapen honetatik ondorioztatzen da: a) Batxilergoko ikasgai komunetan lortutako kalifikazioen batezbestekoaren % 60; b) titulua lortzeko bidea ematen duten ikasketetan lortutako batez besteko kalifikazioaren % 40 (ikasketa haiek antolatzeko hurrenez hurreneko errege-dekretuetan ezarritakoaren arabera kalkulatu behar da kalifikazio hori).

33. artikulua.– Ebaluazio-dokumentu ofizialak.

1.– Batxilergoko ebaluazio-dokumentu ofizialak hauek dira: ikasturte-bukaerako ebaluazio-aktak, ikasketa-espedientea, historia akademikoa eta, hala badagokio, lekualdaketei buruzko txosten pertsonala. Dokumentu horiekin batera, ikasturte-bukaerako txostena eta etapa amaierakoa jasoko dira.

2.– Historia akademikoa eta, hala badagokio, lekualdaketei buruzko txosten pertsonala oinarrizko dokumentutzat hartzen dira Estatuko lurralde osoan ikasleen mugikortasuna berma dadin.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoan, ebaluazio-dokumentu ofizialak modu digitalizatuan bete eta jaso behar dira, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak zehazten dituen aplikazio informatikoen bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan adierazitakoaren arabera.

4.– Halakorik dagoen bitartean, paper-formatuko ebaluazio-dokumentu ofizialak ikastetxeetan gorde behar dira. Ikastetxe publikoren bat ixten bada edo itunpeko ikastetxe pribatu bateko jarduerak bertan behera geratzen badira, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzek finkatuko dituzte ikastetxe iraungiak sortutako dokumentazioa artxibatu eta zaintzeko gidalerroak.

5.– Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio hala ebaluazio prozesua nola ebaluazio-dokumentuak betetzeko eta zaintzeko prozedura gainbegiratzea.

34. artikulua.– Hezkuntzako Ikuskaritzako irakatsi eta ikasteko prozesua eta ebaluazio-prozesuak gainbegiratzea.

1.– Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio, bere zereginen barruan, ikasleen eta irakasteko eta ikasteko prozesuaren planifikazioa, aplikazioa eta ebaluazioa ondo egiten direla gainbegiratzea.

2.– Hezkuntzako Ikuskaritza, gainbegiratze-prozesuen barruan, aldian-aldian bilduko da ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-taldearekin eta koordinazio pedagogikoko taldeekin. Bilera horietan, ikasleen emaitza akademikoak (barnekoak zein kanpokoak) aztertu eta ebaluatuko dira, emaitzei buruzko gogoeta eta analisia sustatu eta bultzatuko da eta irakasteko eta ikasteko prozesuetan ikastetxeak jarritako helburuak hobetzeko neurriak bultzatuko dira.

3.– Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokio ikastetxe publikoetako irakasle-jarduna ebaluatzea, betiere oinarrizko hezkuntza-arauan eta 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena). Ebaluazio horren helburu nagusia da irakaskuntza-jardunaren kalitatea bermatzea eta aholku ematea jardun profesional hori hobetzen eta ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetzen laguntzen duten neurriak hartzeko orduan.

35. artikulua.– Ebaluazio objektiborako eskubidea eta ikasleei eta haien guraso edo legezko tutoreei, ikasleak adingabeak izanez gero, eman beharreko informazioa.

1.– Ebaluazio objektiborako eskubidea bermatze aldera, irakasleek emandako kalifikazioaren arrazoiak jakinaraziko dizkiete ikasleei eta haien guraso edo legezko tutoreei –ikasleak adingabeak izanez gero–, eta lortu diren edo lortu ez diren eta kalifikazio hori eragin duten ebaluazio-irizpideak aipatuko dizkiete.

2.– Ikastetxeko aholkularitza- eta orientazio-taldeak tutorearekin kolaboratuko du, ikasleari eta haren gurasoei edo legezko tutoreei –ikaslea adingabea bada– beharrezko informazioa, orientazioa, aholkularitza eta laguntza emateko eta ikasleak hezkuntza-prozesuan eta eskolatze-aukerarik egokienei buruz orientatzeko.

3.– Gurasoek edo legezko tutoreek –ikasleak adingabeak izanez gero– seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuaren bilakaeran parte hartu eta lagundu behar dute, eta haien ebaluazioari, promozioari eta titulazioari buruzko erabakiak ezagutu behar dituzte; gainera, ikastetxeek seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-aurrerapena errazteko hartzen dituzten laguntza- edo indartze-neurriekin kolaboratu behar dute.

4.– Ikasleak adingabeak izanez gero, gurasoei eta legezko tutoreei beren seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzeko duten eskubidea eta betebeharra betetzen laguntzeko, ikastetxeak informazioa bidaliko die aldian-aldian beren seme-alaben ikaskuntza-prozesuari buruz, baita orientazioa eman ere prozesu horretan lagun ahal izan dezaten. Ikastetxeak, horretarako, eraginkortzat jotzen dituen bitartekoak baliatuko ditu, hala nola txosten kualitatiboak, banakako elkarrizketak, talde-bilerak eta abar. Gutxienez, banakako bilera bat egin behar da ikasturtearen hasieran, eta beste bat bukaeran, eta, beharrezkotzat joz gero, talde-bilerak.

5.– Adin nagusiko ikasleen kasuan, guraso eta legezko tutoreek aurreko artikuluan adierazitako eskubideak baliatu ahal izango dituzte, interes legitimoa justifikatuta.

36. artikulua.– Egiazkotasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna.

1.– Ikasleen datu pertsonalak lortzeari dagokionez eta ikastetxe batzuek beste batzuei datu horien segurtasuna eta konfidentzialtasuna lagatzeari dagokionez, indarrean dagoen datu pertsonalak babesteari buruzko legedian xedatutakoari jarraituko zaio, baita, nolanahi ere, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari ere.

2.– Ikaslearen espediente elektronikoak, gutxienez, ebaluazio-dokumentu ofizialetan jasotako datuak bildu behar ditu, eta berariaz bete behar du urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuan ezarritakoa (4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren arloko Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena), baita administrazio elektronikoari buruz Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako araudia ere.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Batxilergoko ikasketak eta beste ikasketa batzuk bateragarri egitea.

1.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak aukera emango du aldi berean egiteko Batxilergoko ikasketak eta musikako eta dantzako arte-ikasketa profesionalak.

2.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak salbuespenezko eskolatze-neurriak baimendu ditzake errendimendu handiko kirol-jarduerak eta antzekoak egiten dituztenentzat.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erlijioaren irakaskuntza.

1.– Ikasturtea hasi baino lehen, adin nagusiko ikasleek eta adingabeen familiek edo legezko tutoreek adierazi behar dute Erlijioko eskolak jaso nahi dituzten ala ez.

2.– Ikastetxeak bi mailetan eskaini behar du Erlijioa, etapako 70 orduak betetzen direla bermatuta betiere. Ikasleek egin behar dute ikasteko aukera, eta, ikaslea adingabea bada, familiek edo legezko tutoreek. Ikastetxeek antolaketa-neurriak hartu behar dituzte Erlijioa ikasten ez duten ikasleek behar den hezkuntza-arreta jaso dezaten. Arreta horrek funtsezko konpetentzien garapena bultzatu behar du, ikasleen heldutasun pertsonala, soziala eta emozionala lortzen lagunduko duten eta ikasleen autonomia, hausnarketa, erantzukizuna eta balio zibiko eta etikoak sustatuko dituzten komunitatearen zerbitzurako proiektuen bitartez. Erlijioa ikasten ez duten ikasleen hezkuntza-arreta taldeko tutorearen esku egongo da, ahal izanez gero.

3.– Erlijio katolikoaren irakaskuntza Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean sinatutako Irakaskuntza eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakoari lotu behar zaio.

4.– Beste erlijio batzuen irakaskuntzak bat etorri behar du Espainiako Estatuaren eta Espainiako Erakunde Erlijioso Ebanjelikoen Federazioaren, Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioaren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren artean sinatutako kooperazio-akordioetan xedatutakoarekin, eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio batzuekin izenpetzen diren akordioetan xedatutakoarekin.

5.– Erlijioa ikasgaiaren curriculuma zehaztea kasuan kasuko erlijio-agintaritzen eskumena da. Eskola-liburuak eta material didaktikoak erabiltzeari buruzko erabakiak eta, hala badagokio, horiek gainbegiratu eta onartzeari buruzkoak kasuan kasuko erlijio-agintaritzei dagozkie, Espainiako Estatuarekin sinatutako akordioetan ezarritakoaren arabera.

6.– Erlijio katolikoaren irakaskuntza etapako beste ikasgaien baldintza eta ondorio berekin ebaluatu behar da. Estatuarekin kooperazio-akordioak sinatu dituzten erlijioen irakaskuntzaren ebaluazioa akordio horietan ezarritakoari lotu behar zaio.

7.– Berdintasun-printzipioa eta lehia askea bermatzeko, erlijioko ikasketen ebaluazioan jasotako kalifikazioak ez dira kontuan hartuko batez bestezko media eratzeko orduan, beste ikasketa batzuetara sartzeko edo ikasketa-bekak eta -laguntzak lortzeko deialdietan, prozesu horietan ikasketa-espedienteen lehia badago.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ikasgaiak atzerriko hizkuntzetan irakastea.

Curriculumeko ikasgai batzuk atzerriko hizkuntzetan irakasteko baimena eska diezaiokete ikastetxeek hezkuntzaren arloko eskumena duen sailari. Baimena izanez gero, irakaskuntza horrek bere hartan eutsi behar die dekretu honetan araututako curriculumaren oinarrizko alderdiei, eta

ahaleginak egin behar dira ikasleek bi mailetan ikasgaien berezko terminologia atzerriko hizkuntzan eta erkidegoko hizkuntza ofizialean edo ofizialetan jakin dezaten.

Horretarako, ezin izango dira inola ere aldatu maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 86. artikuluan ikasleak onartzeko ezarritako irizpideak.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Helduen hezkuntza.

Helduentzako Batxilergoa egiten duten ikasleek titulua lortuko dute baldin eta Batxilergoko bi mailetako ikasgai guztietan ebaluazio positiboa lortu badute, edo bigarren mailako ikasgai batean ez beste Batxilergoko guztietan lortu badute, betiere honako baldintza hauek beteta: a) irakasle-taldeak uste izatea ikasleak titulu horri lotutako helburuak eta konpetentziak lortu dituela; b) ikasleak ikasgaia bertan behera utzi ez izana; c) ikaslea proba guztietara aurkeztu izana eta hura ebaluatzeko beharrezkoak diren jarduerak egin izana, ezohiko deialdikoak barne; d) etapako ikasgai guztietan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa bost edo gehiago izatea.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Batxilergoko beste modalitate batzuk lortzea.

Batxilergoko titulua lortu dutenek beste edozein modalitate lor dezakete, baldin eta aukeratutako modalitaterako dekretu honen arabera behar diren lehen eta bigarren mailako modalitateko ikasgaiak gainditzen badituzte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Indargabetuta geratzen da 127/2016 Dekretua, irailaren 6koa, Batxilergoko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Ezartzeko egutegia.

Dekretu honetan araututako ikasketen curriculuma 2023-2024ko ikasturtean amaituko da ezartzen.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Tutoretza.

1.– Batxilergoan modu progresiboan ezarri behar da tutoretza, ikastetxeek hura planifikatu ahal izan dezaten eta irakasle-taldea prestatu ahal izan dezaten. 2022-2023ko ikasturtean ezartzen hasi, eta 2023-2024ko ikasturtean amaituko da ikastetxe guztietan ezartzen.

2.– Tutoretza modurik onenean ezartzeko, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak emango dien prestakuntza jaso behar dute Batxilergoko irakasle guztiek.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 30ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

MAIATZAREN 30EKO 76/2023 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

IKASLEEN IRTEERA PROFILA

Batxilergo amaierako Ikasleen irteera-profila da Euskal Autonomia Erkideko hezkuntza-sistemaren printzipioak eta helburuak zehazten dituen tresna. Profilak identifikatu eta definitzen du, XXI. mendeko erronkekin lotuta, ikasleek beren prestakuntza-ibilbidearen aldi hori amaitzean lortu nahi dituzten funtsezko konpetentzien garapen-maila, etengabeko ikaskuntza-prozesuaren zati gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoko irteera-profila oinarrizko irakaskuntzaren curriculuma osatzen duten elementuak eta antolamendua kohesionatzen eta justifikatzen dituen helburu estrategikoa da. Horrenbestez, curriculum-erabakiak eta irakaskuntza-praktikaren estrategia eta orientabide metodologikoak oinarritzen dituen tresnatzat hartzen da, eta funtsezko erreferentea da bai ikasleen ikaskuntzen barneko eta kanpoko ebaluazioan, bai mailen arteko eta etapen arteko sustapenari buruzko erabakiak hartzean.

Batxilergoko irteera-profila abiapuntua da funtsezko konpetentzien ikuspegi estrukturala eta funtzionala. Batxilergoko irteera-profila eskuratzea ezinbestekotzat jotzen da ikasleek beren prestakuntza- eta lanbide-etorkizunerako, adimen- eta giza heldutasuna eta gizarte-funtzioak garatzeko, goi-mailako hezkuntzan sartzeko, gaitzeko eta bizitza aktiboan erantzukizunez eta gaitasunez sartzeko.

Irteera-profila, beraz, ikaskuntzen elementu artikulatzailea da, ikasleek bizitzan zehar izango dituzten erronkei eta erronkei heldutasunez eta arrakastaz aurre egiteko aukera izan dezaten.

Irteera-profil honetan jasotako konpetentziak definitzeko abiapuntuko erreferentea Europar Batasuneko Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioa da, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruzkoa. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoak bere konpromisoa sendotzen du, erreferentzia komunak hartuz, Europa mailako hezkuntza-kohesioa indartzeko eta, hala irizten badiote, herritarrek beren herrialdean bertan nahiz inguruko beste herrialde batzuetan beren bizitzan zehar ikasi eta lan egin ahal izatea errazteko.

Europako Gomendioaren funtsezko konpetentziak XXI. mendeko erronka eta erronka global nagusiei lotuta daude. Erronka eta erronka horiei aurre egin beharko diete ikasleek, eta ahalik eta heldutasun handienarekin hedatu beharko dituzte.
Era berean, UNESCOren Nazioarteko Hezkuntza Bulegoaren Key Drivers of Curricula Change in the 21st Century dokumentuan jasotako erronkak gehitu dira, baita Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailean onartutako 2030 Agendaren Garapen jasangarrirako Helburuak eta Eusko Jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agentziaren bidez hartutako konpromisoak ere.
Funtsezko konpetentzien eta XXI. mendeko erronken arteko loturak emango die zentzua ikaskuntzei, eskola eguneroko bizitzako egoera, gai eta arazo errealetara hurbiltzean; horrek, aldi berean, beharrezko laguntza-puntua emango du ikaskuntza-egoera esanguratsuak eta garrantzitsuak bultzatzeko, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat. Batxilergoa arrakastaz gainditzen duen eta, beraz, gaitasun-profila garatzen duen ikasle orok eskuratutako ikaskuntzak mobilizatzen jakitea bermatu nahi da, bizitzan zehar aurre egin beharko dien erronka nagusiei erantzuteko. Horren barruan sartzen dira:

- Jarrera arduratsua garatzea, ingurumenaren degradazioaren kontzientzia hartuz, hura eragiten, larriagotzen edo hobetzen duten arrazoien ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.
- Euskararen erabilera eta euskal kulturarekiko jakin-mina garatzea guztion ondasunean duten eragina baloratzea.

- Kontsumo arduratsuarekin lotutako alderdiak identifikatzea, norberaren eta guztion ondasunean duten eragina baloratzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta kontsumitzaile gisa dituen eskubideen urraketen aurrean kontrol soziala egitea.
- Bizi-ohitura osasungarriak garatzea, organismoaren funtzionamendua ulertuta eta organismoan eragina duten barneko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa kritikoa eginda, osasun publikoa sustatzeko erantzukizun pertsonala bere gain hartuta.
- Sentsibilitatea lantzea ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, enpatia- eta erruki-sentimenduak garatzeko.
- Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, modu baketsuan konpondu beharrekoak.
- Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzea eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.
- Ziurgabetasuna, erantzun sortzaileak artikulatzeko aukera gisa onartzea, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.
- Gizarte ireki eta aldakorretan lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.
- Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.
- Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukera emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

Erronka horiek jarrera etiko zorrotza hartzea eskatzen dute, ongizate pertsonalaren bilaketa legitimoa denon ongia errespetatuz artikulatzea baitakarte. Gainera, tokiko begirada gainditu behar dute, arazo globalak aztertu eta horiekin konprometitzeko. Horrek guztiak eskatzen du, alde batetik, buru konplexu bat, termino sistemikoetan, irekietan eta ziurgabetasun-maila handiarekin pentsatzeko gai dena, eta, bestetik, alderdi garrantzitsuekin enpatizatzeko gaitasuna, zuzenean eragiten ez badigute ere; horrek berekin dakar zaintzaren eta errespetuaren balioak onartzea eta bidegabekeria, ekitaterik ezarekin eta bazterkeriarekin lotutako egoerekiko sentsibilitate handia garatzea.

Gainera, erronka horiei eta beste batzuei erantzuteko – horien artean erabateko interdependentzia dago –, funtsezko konpetentzien azpian dauden ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak behar dira, eta curriculuma osatzen duten arlo, eremu eta ikasgai guztietan lantzen dira. Horiek eskaintzen dituzten curriculum-elementuek ikasleei beren inguruan gertatzen dena ulertzen laguntzen diete, eta, horrela, egoera kritikoki baloratzeko eta behar bezala erantzuteko aukera ematen diete.

Hemen aurkezten den curriculumak konpetentzia-ikuspegia du, eta bertan, erronkei aurre eginez eskuratzen dira edukiak, kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Horrek ikaskuntzak eskuratzea eta mobilizatzea eta horiek transferitzeko gaitasuna bultzatzen du, eta, horrela, ikasleen prestakuntza-bilakaeran heldutasun-maila eta kalitate handiagoko ikaskuntza garatzen da.

Eskuratu beharreko funtsezko konpetentziak

Irteera-profilean jasotzen diren funtsezko konpetentziak honako hauek dira: Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioan, martxoaren 1eko 157/2022 Errege Dekretuan eta martxoaren 29ko 217/2022 Errege Dekretuan (Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituena) ezarritako funtsezko konpetentziak Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemara egokitzea. Egokitzapen hori konpetentzia horiek XXI.

mendeko erronka eta desafioei eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren printzipio eta helburuei lotzeko beharrari dagokio.

Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioa bizitza osoan zehar egin behar den ikaskuntzari buruzkoa bada ere, irteera-profilak ikasleen garapen pertsonalaren, sozialaren eta prestakuntzakoaren une zehatz bat adierazten du: oinarrizko irakaskuntzaren etapa.

Oro har, ulertu behar da oinarrizko irakaskuntzako hezkuntza-etapetarako curriculuma garatzeko dekretu honetan aurreikusitako konpetentzia espezifikoak eta helburuak lortzea irteera-profila osatzen duten funtsezko konpetentziak eskuratzearekin eta garatzearekin lotuta dagoela. Hauek dira konpetentzia horiek:

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
- Konpetentzia eleaniztuna.
- Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia (STEM, ingelesezko siglen arabera).
- Konpetentzia digitala.
- Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
- Herritartasunerako konpetentzia.
- Ekintzailetza-konpetentzia.
- Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

Ez dago hierarkiarik funtsezko eskumen horien artean, eta ezin da elkarrekikotasun esklusiborik ezarri arlo, eremu edo gai bakar batekin. Horietako bakoitza eskuratzeak beste guztiak eskuratzen laguntzen du, eta arlo, eremu edo zenbait ikasgaien bidez eskuratzen diren ikaskuntzek hainbat konpetentzia garatzen dituzte. Zeharkakotasuna irteera-profilaren berezko baldintza da, ikaskuntza guztiek hori lortzen laguntzen baitute.

Batxilergo irakaskuntzako funtsezko konpetentzien deskribatzaile operatiboak

Funtsezko konpetentzien dimentsio aplikatuari dagokionez, horietako bakoitzerako deskribatzaile operatibo multzo bat definitu da.

Funtsezko konpetentzien deskribatzaile operatiboak esparru erreferentziala dira, eta esparru horretatik zehazten dira arlo, eremu edo gai bakoitzaren konpetentzia espezifikoak. Deskribatzaile operatiboen eta konpetentzia espezifikoen arteko lotura horrek, azken horiek ebaluatzean, irteera-profilean definitutako funtsezko konpetentzien eskuratze-maila eta, beraz, etaparako aurreikusitako konpetentziak eta helburuak lortzea ahalbidetzen du.

Konpetentziak nahitaez modu sekuentzialean eta progresiboan eskuratzen direnez, profilean oinarrizko irakaskuntzarako aurreikusitako deskribatzaile operatiboak ere sartzen dira, bi etapa horien arteko jarraitutasuna, koherentzia eta kohesioa bultzatuz eta zehaztuz.

HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (HKK)

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak esan nahi du ahoz, idatziz edo modu koherente eta egokian jardun behar dela hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat komunikazio-helbururekin. Ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak modu kontzientean mobilizatzea eskatzen du, ahozko mezuak, zeinuak, idatziak, ikus-entzunezkoak edo multimodalak ulertzeko, interpretatzeko eta kritikoki baloratzeko aukera ematen dutenak, manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak saihestuz, bai

eta beste pertsona batzuekin modu kooperatiboan, sortzailean, etikoan eta errespetuzkoan eraginkortasunez komunikatzea ere.

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia norberaren pentsamendurako eta jakintzaren eremu guztietan ezagutza eraikitzeko oinarria da. Horregatik, hizkuntzak ezagutza-arlo bakoitzeko diskurtso-genero espezifikoetan duen funtzionamenduari buruzko hausnarketa esplizituari lotuta dago haren garapena, bai eta ahozkotasunaren, signazioaren edo idazketaren erabilerei ere, pentsatzeko eta ikasteko. Azkenik, hizkuntzaren dimentsio estetikoa aintzat hartzea eta literatura-kulturaz gozatzea ahalbidetzen du.

Deskriptore operatiboak

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
HKK1. Euskaraz eta gaztelaniaz ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglen bidez hitz egiten du, koherentziaz, zuzentasunez eta gizarte-testuinguruekiko egokitasunez, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzan eta errespetuz, informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai eta lotura pertsonalak eraikitzeko ere.	HKK1. Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten du, ahoz, idatziz, siglen bidez z edo multimodalki, jariotasunez, koherentziaz, zuzentasunez eta testuinguru sozial eta akademikoetara egokituz, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzan eta errespetuz, informazioa trukatzeko, ezagutza sortzeko eta iritziak argudiatzeko nahiz pertsonen arteko harremanak ezartzeko eta zaintzeko.
HKK2. Pertsona-, gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu jarrera kritikoz, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.	HKK2. Hainbat eremutako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, jarrera kritikoz ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu, eta arreta berezia jartzen du testu akademikoetan eta komunikabideetako testuetan, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.
HKK3. Hainbat iturritatik datorren informazioa, euskaraz eta gaztelaniaz, gero eta modu autonomoagoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, irakurketa-helburuen arabera, eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz; informazioa integratu eta ezagutza bihurtzen du, komunikatzeko, ikuspegi sortzaile, kritiko eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.	HKK3. Hainbat iturritatik datorren euskarazko eta gaztelaniazko informazioa modu autonomoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, eta, horretarako, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzen ditu irakurketa-helburuen arabera, manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz, eta ezagutza bihurtzen du, modu argi eta zorrotzean komunikatzeko, ikuspegi sortzaile eta kritikoa hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.
HKK4. Autonomiaz irakurtzen ditu bere adinerako egokiak diren hainbat lan euskaraz eta gaztelaniaz, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa esperientzia indibidual eta kolektiboaren bide pribilegiatutzat hartzen du; eta bere esperientzia biografikoa eta ezagutza literario eta kulturalak mugiarazten ditu, obren interpretazioa eraikitzeko eta partekatzeko eta gero eta konplexuagoak diren asmo literarioko testuak sortzeko.	HKK4. Autonomiaz irakurtzen ditu literaturako lan garrantzitsuak euskaraz eta gaztelaniaz, eta erlazionatzen ditu bere testuinguru soziohistorikoarekin, aurreko eta ondorengo literatura-tradizioarekin eta haren ondareak gaur egun duen arrastoa aztertuz, obren interpretazio arrazoitua eraikitzeko eta partekatzeko, asmo literarioko lanak sortu eta birsortzeko eta pixkanaka mapa kultural bat osatzeko.
HKK5. Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzearen eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, hizkuntzaren	HKK5. Komunikazio-praktikak bizikidetza demokratikoaren, gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzearen eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, erabilera

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
erabilera diskriminatzaileak baztertuz, bai eta hizkuntzaren bidezko botere-gehiegikeriak ere, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera asertiboa izateko.	diskriminatzaileak eta sexistak saihestuz eta baztertuz, bai eta botere-abusuak ere, komunikazio-sistemak modu eraginkorrean eta etikoan erabil daitezen eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera proaktiboa izan dadin laguntzeko.

KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE)

Konpetentzia eleaniztunak hainbat hizkuntza, ahozkoak edo zeinuzkoak, ikasteko eta komunikatzeko modu egoki eta eraginkorrean erabiltzea eskatzen du. Konpetentzia horrek esan nahi du norberaren hizkuntza-profilak aitortu eta errespetatu behar direla, eta norberaren esperientziak baliatu behar direla bitartekaritza-estrategiak garatzeko eta hizkuntzen arteko transferentziak egiteko, hizkuntza klasikoak barne, eta, hala badagokio, trebetasunak mantendu eta eskuratzeko hizkuntzan, familia-hizkuntzan edo hizkuntza ofizialetan. Era berean, gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ezagutzera, balioestera eta errespetatzera bideratutako dimentsio historikoak eta kulturartekoak biltzen ditu, bizikidetza demokratikoa sustatzeko helburuarekin.

Deskriptore operatiboak

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
KE1. Hizkuntza bat edo gehiago modu eraginkorrean erabiltzen ditu, familiako hizkuntzaz edo hizkuntzez eta hizkuntza ofizialez gain, bere komunikazio-premiei behar bezala eta egoki erantzuteko, bai bere garapen eta interesei dagokienez, bai eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguruei dagokienez.	KE1. Arintasunez, egokitasunez eta zuzentasunez erabiltzen ditu hizkuntza bat edo gehiago, familia-hizkuntzaz eta hizkuntza ofizialez gain, bere komunikazio-beharrei bat-batean eta autonomiaz erantzuteko, eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguru desberdinetan.
KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, bere ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzen du, eta beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan eskuratutako ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko estrategiak erabiltzen ditu, eta konfiantzazko jarrera erakusten du komunikatzeko gaitasuna hobetzeko ikasteko duen konpetentzian.	KE2. Bere esperientzietatik abiatuta, banakako hizkuntza-errepertorioa modu sistematikoan zabaltzeko eta aberasteko estrategiak garatzen ditu, modu eraginkorrean komunikatzeko eta, aldi berean, hizkuntzen arteko ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko.
KE3. Ikastetxearen eta ingurunearen hizkuntza-aniztasuna onartzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrera erakusten du, eta hizkuntzak komunikabide eraginkortzat, kultura-ondaretzat eta gizarte-kohesioa sustatzeko tresnatzat hartzen ditu.	KE3. Ikastetxean eta ingurunean dagoen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ezagutzen eta kritikoki baloratzen du, eta bere garapen pertsonalean integratzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko jarrera erakusten du eta hizkuntzak kultura-ondare gisa baloratzen ditu.

MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA eta ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIARITZARAKO KONPETENTZIA (STEM)

Matematikarako konpetentziak eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentziak (STEM konpetentzia, ingelesezko sigletan) mundua ulertzea dakar berekin, metodo zientifikoak,

pentsamendu eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniaritza-metodoak erabiliz ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.

Matematikarako konpetentziak ikuspegi eta arrazoibide matematikoak garatzea eta aplikatzea ahalbidetzen du, hainbat testuingurutan zenbait problema ebazteko.

Zientziarako konpetentziak ingurune naturala eta soziala ulertzea eta azaltzea dakar berekin, ezagutza eta metodologia multzo bat erabiliz, behaketa eta esperimentazioa barne, galderak planteatzeko eta probetan oinarritutako ondorioak ateratzeko, mundu naturala eta testuinguru soziala interpretatu eta eraldatu ahal izateko.

Teknologia eta ingeniaritzako konpetentziak zientziei dagozkien ezagutzak eta metodologiak aplikatzea barne hartzen du, gure gizartea pertsonen behar edo nahien arabera segurtasun, erantzukizun eta iraunkortasuneko esparru batean eraldatzeko.

Deskriptore operatiboak

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
STEM1. Arrazoiketa matematikoaren berezko metodo induktibo, deduktibo eta logiko batzuk erabiltzen ditu, baita metodo zientifikoaren arrazoiketa hipotetiko-deduktiboa ere egoera ezagunetan, eta problemak ebazteko hainbat estrategia hautatu eta erabiltzen ditu, jarraitutako soluzioak eta prozesua kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa izanez gero.	STEM1. Arrazoiketa matematikoaren berezko metodo induktiboak, deduktiboak eta logikoak erabiltzen ditu, baita metodo zientifikoaren arrazoiketa hipotetiko-deduktiboa ere, aukeratutako modalitatearen berezko egoeretan, eta problemak ebazteko hainbat estrategia hautatu eta erabiltzen ditu, jarraitutako prozesua eta soluzioak kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa izanez gero.
STEM2. Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du bere inguruan gertatzen diren sistema natural eta materialei buruzko prozesu eta gertaera batzuk ulertzeko eta azaltzeko, ezagutzan konfiantza bereganatuz garapenaren motor gisa, galderak planteatuz, eta hipotesiak egiaztatuz esperimentazioaren eta ikerketaren bidez, tresna egokiak erabiliz, zehaztasunaren eta egiazkotasunaren garrantzia balioetsiz, eta eredu zientifikoarekiko ondorio esanguratsu eta koherenteren bat lortuz, zientziaren irismenari eta mugei buruzko jarrera kritikoa erakutsiz.	STEM2. Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du aukeratutako modalitatearekin zerikusia duten fenomenoak ulertzeko eta azaltzeko, eta ezagutzan konfiantza du, garapen-motor gisa. Horretarako, galderak egiten ditu eta hipotesiak formulatzen, kontrastatzen edo egiaztatzen ditu behaketaren, esperimentazioaren eta ikerketaren bidez. Halaber, lanerako egokiak diren tresnak erabiltzen ditu, zehaztasunaren eta egiazkotasunaren garrantzia balioesten du, eta eredu zientifikoarekiko ondorio oinarrituak eta koherenteak ateratzen ditu, erabilitako metodoen irismenari eta mugei buruzko jarrera kritikoa erakutsiz.
STEM3. Proiektuak planteatzen eta garatzen ditu, eta, horretarako, hainbat prototipo edo eredu diseinatu, fabrikatu eta ebaluatzen ditu, premia edo arazo bati modu sortzailean eta kooperatiboan irtenbidea emango dioten produktuak sortzeko eta/edo erabiltzeko, talde osoaren parte-hartzea saiatuz, sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz, ziurgabetasunaren aurrean egokituz eta iraunkortasunaren garrantzia baloratuz.	STEM3. Proiektuak planteatu eta garatzen ditu, behar edo arazo bati irtenbidea emango dioten produktuak elkarlanean sortzeko eta/edo erabiltzeko prototipoak edo ereduak diseinatuz eta sortuz, talde osoaren parte-hartzea saiatuz, sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz, ziurgabetasunaren aurrean egokituz eta lortutako produktua proposatutako helburuen, iraunkortasunaren eta gizartean duen eragin eraldatzailearen arabera ebaluatuz.
STEM4. Prozesu, arrazoiketa, erakustaldi, metodo eta emaitza zientifiko, matematiko eta teknologikoen elementu garrantzitsuenak argi eta zehatz interpretatzen eta transmititzen ditu, hainbat formatutan (grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak...) eta kultura digitala modu	STEM4. Ikerketa zientifikoen eta teknikoen elementu garrantzitsuenak argi eta zehatz interpretatzen eta transmititzen ditu, hainbat formatutan (grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, hizkuntza matematiko-formala...), kultura digitala etikaz eta erantzukizunez baliatuz, zientziak eta

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
kritikoan aprobetxatzen du, hizkuntza matematiko-formala barne, etika eta erantzukizunez, ezagutza berriak partekatzeko eta eraikitzeko.	teknologiak bizi-baldintzetan egiten duten ekarpena modu kritikoan baloratzeko eta ezagutza berriak partekatzeko eta eraikitzeko.
STEM5. Osasun fisikoa eta mentala eta ingurumena babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzei ekiten die, eta etika- eta segurtasun-printzipioak aplikatzen ditu ingurune hurbila modu jasangarrian eraldatzeko proiektuak egitean, haren eragin globala baloratuz eta kontsumo arduratsua praktikatuz.	STEM5. Osasun fisikoa eta mentala sustatzeko eta ingurumena eta izaki bizidunak babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzak planifikatzen eta abiarazten ditu, kontsumo arduratsua eginez, etikaren eta segurtasunaren printzipioak aplikatuz, balioa sortzeko eta bere ingurunea modu jasangarrian eraldatzeko, tokiko eremuan eta eremu globalean konpromisoak hartuz, herritartasun arduratsua gauzatuz.
STEM6. Modu kritikoan justifikatzen du ikerketa zientifikoaren beharra eta horren aplikazioak eta aurrerapen zientifiko-teknologikoak gizartearen ongizatean, hainbat egoera problematikoren aurrean erabaki arrazoituak hartzeko gizarte modernoaren garapenean izan duten zeregina ezagututa.	STEM6. Ikerketa zientifikoak eta bere aplikazio eta aurrerapen zientifiko-teknologikoek gizartearen garapenean eta orainak eta etorkizunak planteatzen dizkioten erronken aurrean erabaki arrazoituak hartzean jokatzen duten papera argudiatzen du.

KONPETENTZIA DIGITALA (KD)

Konpetentzia digitalak ikaskuntzarako, lanerako eta gizartean parte hartzeko teknologia digitalen erabilera kritikoa, segurua, osasungarria, iraunkorra, sortzailea eta arduratsua eskatzen du, bai eta teknologia horien bidez pertsonekin edo gailuekin elkarreragitea ere.

Konpetentzia digitalaren barruan sartzen dira informazioaren eta datuen alfabetatzea, komunikazio eraginkorra eta hainbat kanal eta inguruneren bidezko lankidetza, hainbat hizkuntzaren erabilerari buruzko alfabetatze mediatikoa, askotariko eduki digitalen sorrera (programazioa barne), segurtasuna (ongizate digitala barne) eta herritartasun digitalarekin, pribatutasunarekin, jabetza intelektualarekin, arazoen ebazpenarekin, pentsamendu konputazionalarekin eta kritikoarekin lotutako gaitasunak.

Deskriptore operatiboak

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
KD1. Interneten bilaketa aurreratuak egiten ditu (bilaketa-terminoen, formatuaren, gaurkotasunaren eta lizentziaren arabera), baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak kontuan hartuta, informazioa modu kritikoan hautatu eta ulertzen du, modu esanguratsuan konbinatuz, eta modu ordenatuan artxibatuz, berreskuratu eta erreferentzia egiteko, jabetza intelektuala errespetatuz.	KD1. Bilaketa aurreratuak egiten ditu, eta Interneten bilaketa-motorrek nola funtzionatzen duten ulertzen du, baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak aplikatuta, emaitzak modu kritikoan hautatuta eta informazioa modu egoki eta seguruan biltegiratuta, erreferentzia egiteko eta ondoren berrerabiltzeko.
KD2. Etengabeko ikaskuntzako bere ingurune pertsonal digitala kudeatzen eta erabiltzen du jatorrizko ezagutza eta eduki digitalak hainbat formatutan ekoizteko eta gordetzeko, atazaren edo beharren arabera dagozkion tresna digitalak erabilita, bai dauden edukiak berrerabilita, bai sortutako edukiei lizentziei buruzko ezagutza	KD2. Eduki digitalak sortzen, integratzen eta berregiten ditu, banaka edo taldeka, segurtasun-neurriak aplikatuz eta, une oro, egiletza digitaleko eskubideak errespetatuz, bere baliabideak zabaltzeko eta ezagutza berria sortzeko.

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
aplikatuta.	
KD3. Sare sozialen edo lineako komunitateen gisako tresnen eta/edo plataformen bidez parte hartzen, laguntzen eta elkarreragiten du, komunikatzeko, lankidetzan lan egiteko eta edukiak, datuak eta informazioa partekatzeko; horretarako, bere helburura ondoen egokitzen dena aukeratzen du, bere ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzen ditu sarean, eta herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetatsua gauzatzen du.	KD3. Gailu digitalak, tresnak, aplikazioak eta lineako zerbitzuak hautatu, konfiguratu eta erabiltzen ditu, eta ikaskuntza digitaleko bere ingurune pertsonalean txertatzen ditu, komunikatzeko, lankidetzan aritzeko eta informazioa partekatzeko. Horretarako, haien ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzen ditu sarean, eta herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetatsua gauzatzen du.
KD4. Gailu digitalak babesten ditu, segurtasun-estrategiak eguneratzen ditu, haien pribatutasuna eta besteena ulertzen eta babesten ditu oro har, eta oinarrizko ezagutza du haien datuak biltzeko eta erabiltzeko moduari buruz, badaki bere burua eta beste batzuk ziberjazarpenetik babesten, eta ulertzen ditu teknologien erabilerari lotutako osasun-arriskuak (ergonomia, adikzioak), eta ulertzen du teknologiak ingurumen-jasangarritasunean duen eragin positiboa eta negatiboa.	KD4. Arriskuak ebaluatzen ditu eta neurriak aplikatzen ditu teknologia digitalak erabiltzean gailuak, horien pribatutasuna eta besteena, datu pertsonalak, osasuna eta ingurumena babesteko, eta teknologia horien erabilera kritikoa, legala, segurua, osasungarria eta iraunkorra egiten du.
KD5. Arazo tekniko posibleak eta gabeziak identifikatzen ditu, baliabideak, tresnak eta gaitasun digitala garatzeari dagokionez, eta irtenbidea ematen die; informatika-aplikazio errazak eta irtenbide teknologiko sortzaile eta jasangarriak garatzen ditu arazo zehatzak konpontzeko edo proposatutako erronkei erantzuteko; interesa erakusten du, eta teknologia digitalen bilakaeraren, garapen jasangarriaren eta erabilera etikoaren azpian dauden printzipio orokorrak eta logika ulertzen ditu.	KD5. Konponbide teknologiko berritzaileak eta iraunkorrak bilatzen ditu bere kabuz bere arazo eta behar digital zehatzetarako, bere gaitasun digitala hobetzeko modu gisa, eta teknologia mota horien bilakaera baloratzen du ikuspegi jasangarri eta etikotik.

KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII)

Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoak berekin dakar nork bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nork bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzeko; beste batzuekin modu eraikitzailean lankidetzan aritzeko; erresilientziari eusteko; eta bizialdi osoko ikaskuntza kudeatzeko. Honako hauek ere sartzen dira: ziurgabetasunari eta konplexutasunari aurre egiteko gaitasuna; aldaketetara egokitzea; prozesu metakognitiboak kudeatzen ikastea; bizikidetzaren aurkako jokabideak identifikatzea eta horiei aurre egiteko estrategiak garatzea; norberaren eta gainerako pertsonen ongizate fisiko, mental eta emozionalari laguntzea, nork bere burua eta ingurukoak zaintzeko trebetasunak garatuz erantzunkidetasunaren bidez; etorkizunera bideratutako bizitza bat eramateko gai izatea; enpatia adieraztea eta gatazkei heltzea.

Deskriptore operatiboak

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
KPSII1. Bere emozioak erregulatzen eta adierazten ditu, eta, horretarako, baikortasuna, erresilientzia,	KPSII1.1 Baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta helburuen bilaketa modu

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
autoeraginkortasuna eta ikasteko asmoa eta motibazioa bilatzen ditu, edozein testuingurutan sortzen diren erronkak eta aldaketak modu konstruktiboan kudeatuz eta bere helburuekin harmonizatuz.	autonomoan indartzen ditu, ikaskuntza eraginkorra izan dadin. KPSII1.2 Nortasun autonomoa garatzen du, eta aldaketak, parte-hartze soziala eta bere jarduera propioa modu konstruktiboan kudeatzen ditu bere bizitza zuzentzeko.
KPSII 2. Faktore sozialekin lotutako osasunerako arriskuak ezagutzen ditu, maila fisikoan eta mentalean bizi-ohitura osasungarriak finkatzeko, eta ikaskuntza sustatzen eta oztopatzen duten baldintza pertsonalak eta ingurunekoak identifikatzen ditu.	KPSII 2. Bizimodu jasangarria modu autonomoan hartzen du eta norberaren eta besteen ongizate fisiko eta mentalari erantzuten dio, gizartean mundu osasuntsuago bat eraikitzeko laguntza bilatuz eta eskainiz.
KPSII3. Besteen ikuspegiak eta esperientziak modu proaktiboan ulertzen ditu, eta ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, zereginak eta erantzukizunak modu ekitatiboan banatuz eta onartuz eta estrategia kooperatiboak erabiliz.	KPSII3.1 Besteen emozioekiko eta esperientziekiko sentsibilitatea erakusten du, eta taldeak pertsonengan duen eraginaz jabetzen da, nortasun enpatiko eta independentea sendotzeko eta bere adimen emozionala garatzeko . KPSII3.2 Zereginak, baliabideak eta erantzukizunak modu orekatuan banatzen ditu talde batean, helburuen arabera, eta ikuspegi sistemikoa bultzatzen du, helburu partekatuak lortzen laguntzeko.
KPSII4. Bere ikaskuntza-prozesuari buruzko autoebaluazioak egiten ditu, informazioa baliozkotzeko, sostengatzeko eta kontrastatzeko eta ondorio garrantzitsuak ateratzeko iturri fidagarriak bilatuz.	KPSII4. Hainbat iturritatik datozen datuak, informazioa eta ideiak alderatu, aztertu, ebaluatu eta laburbiltzen ditu, ondorio logikoak modu autonomoan lortzeko eta horien fidagarritasuna baloratzeko.
KPSII 5. Epe ertainerako helburuak planifikatzen ditu eta atzeraelikadurako prozesu meta-kognitiboak garatzen ditu, ezagutza eraikitzeko prozesuan dituen akatsetatik ikasteko.	KPSII5. Epe luzera, ezagutza eraikitzeko helburuak eta prozesuak planifikatzen ditu, eta ezagutzaren eremuak erlazionatzen ditu, ezagutza hori transmititzeko, ideia sortzaileak proposatzeko eta arazoak autonomiaz ebazteko aukera emango dioten ikaskuntza-prozesu autorregulatuak garatzeko.

HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA (HK)

Herritartasunerako konpetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta, bai eta munduko gertaeren ezagutzan eta iraunkortasunarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromiso aktiboan ere. Horren barruan sartzen dira alfabetatze zibikoa, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratikoaren berezko balioen onarpen kontzientea, gure garaiko arazo etiko handiei buruzko hausnarketa kritikoa eta 2030 Agendan planteatutako Garapen jasangarrirako Helburuekin bat datorren bizimodu iraunkorraren garapena.

Deskriptore operatiboak

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
HK1. Bere nortasunaren dimentsio sozialari eta herritarrari buruzko ideiak aztertzen eta ulertzen ditu, bai eta identitatea zehazten duten gertaera sozial, historiko eta arauemaileei buruzkoak ere, eta arauak, enpatia, ekitatea eta espiritu konstruktiboa errespetatzen ditu besteekiko elkarreraginean, hainbat testuinguru sozioinstituzionaletan.	HK1. Bere nortasunaren dimentsio sozial, historiko, zibiko eta moralari buruzko gertaerak, arauak eta ideiak aztertzen ditu, bere heldutasun pertsonala eta soziala sendotzen laguntzeko, herritarren kontzientzia eta kontzientzia arduratsua lortzeko, autonomia eta espiritu kritikoa garatzeko, eta besteekiko eta ingurunearekiko elkarrekintza baketsua eta errespetuzkoa ezartzeko.
HK2. Europako integrazio-prozesutik, Euskal Autonomia Estatututik eta giza eta haurren eskubideetatik datozen printzipioak eta balioak aztertzen eta onartzen ditu, eta, horretarako, Erkidegoko jardueretan parte hartzen du, hala nola erabakiak hartzean edo gatazkak konpontzean, jarrera demokratikoarekin, aniztasunarekiko errespetuarekin eta genero-berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, garapen jasangarriarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromisoarekin.	HK2. Europako integrazio-prozesuari, Espainiako Konstituzioari, Autonomia Estatutuari, giza eskubideei eta norberaren historia eta kultura-ondareari buruzko printzipioak, idealak eta balioak ezagutzen, aztertzen eta aplikatzen ditu hainbat testuingurutan, modu kritiko eta kontsekuentean, eta, aldi berean, talde-jarduera guztietan parte hartzen du printzipio eta prozedura demokratikoetan, berdintasunarekiko konpromiso etikoan, gizarte-kohesioan, garapen jasangarrian eta munduko herritarren lorpenean oinarritutako jarrerarekin.
HK3. Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etikoak ulertzen eta aztertzen ditu, norberaren eta besteen balioak kritikoki kontuan hartuz, eta bere iritziak garatuz, eztabaida moralari aurre egiteko elkarrizketarako, argudiatzeko, errespetuzko eta edozein diskriminazio edo indarkeriaren aurkako jarreraz.	HK3. Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etiko eta filosofikoen aurrean iritzi propioa eta arrazoitua hartzen du, balio, sinesmen eta ideien aniztasunari elkarrizketaren aldeko jarrerarekin aurre eginez, diskriminazio eta indarkeria mota guztiak baztertuz, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta erantzunkidetasun eraginkorra aktiboki sustatuz.
HK4. Jarduera lokal eta globalen arteko interdependentzia, ekodependentzia eta interkonexioko harreman sistemikoak barne hartzen ditu, eta modu kontzientean eta motibatuan hartzen du bizimodu iraunkorra eta ekosozialki arduratsua.	HK4. Gure bizimoduaren eta ingurunearen arteko interdependentzia- eta ekomendetasun-harremanak aztertzen ditu, eta, horretarako, giza ekintzen aztarna ekologikoaren azterketa kritikoa egiten du, eta konpromiso etiko eta ekosozial arduratsua erakusten du Garapen jasangarrirako Helburuak eta klima-aldaketaren aurkako borroka lortzera bideratutako jarduera eta ohiturekin.

EKINTZAILETZA- KONPETENTZIA (EK)

Ekintzailetzarako konpetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikoak erabiliz. Hainbat estrategia eskaintzen ditu: beharrak eta aukerak hautemateko begirada egokitzea; sormen eta berrikuntza prozesuen barruan, pentsamendu estrategikoa, sormena, irudimena eta hausnarketa etiko, kritiko eta konstruktiboa erabiliz ideiak sortu eta birplanteatzea; ingurunea aztertu eta ebaluatzeko pentsamendua entrenatzea; eta ikasteko, arriskatzeko eta ziurgabetasunari aurre egiteko jarrera piztea. Era berean, informazioan eta ezagutzan oinarritutako erabakiak hartzea eta beste pertsona batzuekin modu arinean lankidetzan aritzea eskatzen du, motibazioz, enpatiaz eta komunikazio- eta negoziazio-trebetasunez, planteatutako ideiak ekintzara eramateko balio sozial, kultural eta ekonomiko-finantzarioko proiektu iraunkorrak planifikatuz eta kudeatuz.

Deskriptore operatiboak

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
EK1. Beharrak eta aukerak aztertzen ditu, eta	EK1. Beharrak eta aukerak ebaluatzen ditu eta

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
erronkei zentzu kritikoarekin aurre egiten die, iraunkortasunaren balantzea eginez, ingurunean izan dezaketen eragina baloratuz, ideia eta irtenbide berritzaileak, etikoak eta iraunkorrak aurkezteko, eremu pertsonalean, sozialean, kulturalean eta ekonomikoan balioa sortzera bideratuta.	erronkei aurre egiten die, zentzu kritiko eta etikoarekin, iraunkortasuna ebaluatuz eta, ezagutza tekniko espezifikoetatik abiatuta, ingurunean izan dezaketen inpaktua egiaztatuz, testuinguru lokaletara zein globaletara zuzendutako ideia eta irtenbide berritzaileak aurkezteko eta gauzatzeko, proiekzio profesional ekintzailea duten eremu pertsonal, sozial eta akademikoan.
EK2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak ebaluatzen ditu, autoezagutzako eta autoeraginkortasuneko estrategiak erabiliz, eta ekonomiaren eta finantzen funtsezko elementuak ulertzen ditu, ekonomia- eta finantza-ezagutzak aplikatzen dizkie jarduera eta egoera zehatzei, eta lankidetza- eta talde-lana erraztuko duten trebetasunak erabiltzen ditu, ekintzara esperientzia ekintzaile baliotsua eramango duten beharrezko baliabideak biltzeko eta optimizatzeko.	EK2. Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak ebaluatu eta hausnartzen ditu, autoezagutza- eta autoeraginkortasun-estrategiak erabiliz, ezagutza ekonomiko eta finantzario espezifikoak barneratzen ditu, eta tokiko testuinguruetara eta testuinguru globaletara transferitzen ditu, lankidetza- eta talde-lana arinduko duten estrategiak eta trebetasunak aplikatuz, beharrezko baliabideak bildu eta optimizatzeko, ekintzara esperientzia edo ekimen ekintzaile baliotsua eramango dutenak.
EK3. Ideia eta konponbide baliotsuak sortzeko prozesua garatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, modu arrazoituan, planifikatzeko eta kudeatzeko estrategia arinak erabiliz. Egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, prototipo berritzaileak eta baliozkoak sortzeko prozesua burutzeko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.	EK3. Ideia eta konponbide berritzaileak sortzeko prozesua gauzatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, zentzu kritiko eta etikoarekin, proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko ezagutza tekniko espezifikoak eta estrategia arinak aplikatuz. Halaber, egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, besteentzako balioaren azken prototipo bat egiteko, arrakastaren eta porrotaren esperientzia kontuan hartuta, ikasteko aukera bat baita.

KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA (KAKK)

Kontzientzia eta kultura adierazpenetarako konpetentziak berekin dakar ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea, bai eta hainbat arteren eta beste kultura-adierazpenen bidez ere. Norberaren ideiak ulertzen, garatzen eta adierazten ahalegintzea eskatzen du, bai eta gizarteko kide izatearen zentzua izatea edo gizarteko funtzio bat hainbat modutan eta testuingurutan betetzea ere, eta nortasuna aberastea kulturen arteko elkarrizketaren bidez.

Deskriptore operatiboak

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
KAKK1. Edozein garaitako ondare kultural eta artistikoaren funtsezko alderdiak ezagutu, kritikoki estimatu, errespetatu eta sustatzen ditu, eta bere nortasuna eraikitzeko kultura- eta arte-aniztasunari datxekion adierazpen-askatasuna eta aberastea baloratzen ditu.	KAKK1. Edozein garaitako kultura- eta arte-ondarea hausnartu, sustatu eta kritikoki baloratzen du, ondare horren berezitasunak kontrastatuz eta bere nortasunetik abiatuz, aniztasunari datxekion adierazpen-askatasuna, berdintasuna eta aberastea defendatzeko.
KAKK2. Gozatu, ezagutu eta aztertu autonomiaz ondareko adierazpen artistiko eta kultural	KAKK2. Ondarearen hainbat adierazpen artistiko eta kulturalen berezitasunak eta intentzionalitateak

OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK	BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK
nabarmenenen berezitasunak eta intentzionalitateak, haien hizkuntza eta elementu teknikoen bidez, edozein bitarteko edo euskarritan.	ikertzen ditu, harrera aktiboko eta gozameneko jarrera baten bidez, horiek gauzatzeko testuinguru, bitarteko eta euskarri desberdinak bereiziz eta aztertuz, bai eta horiek ezaugarritzen dituzten lengoaia eta elementu tekniko eta estetikoak ere.
KAKK3. Ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta modu irekian adierazten ditu. Autoestimua, sormena eta pertenentzia-sena garatzen ditu, adierazpen kultural eta artistikoaren bidez, enpatiaz eta lankidetzazko jarreraz.	KAKK3.1 Ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta espiritu kritikoz adierazten ditu, bere ekoizpen kultural eta artistikoak zorroztasunez eginez, modu aktiboan parte hartzeko giza eskubideen sustapenean eta praktika artistikoaren ondoriozko identitate pertsonalaren sozializazio- eta eraikuntza-prozesuetan. KAKK3.2 Ea deskubritzen duen autoadierazpena, gorputz-interakzioaren eta hainbat tresna eta lengoaia artistikorekin esperimentatzearen bidez, eta ea aurre egiten dien egoera sortzaileei, jarrera enpatiko eta kolaboratiboarekin, autoestimuarekin, ekimenarekin eta irudimenarekin.
KAKK4. Interpretazioaren, exekuzioaren, inprobisazioaren eta konposizio musikalaren bidez produktu artistikoak eta kulturalak sortzeko oinarrizko baliabide/euskarri plastikoak, ikus-entzunezkoak, soinuzkoak eta gorputzezkoak ezagutzen, hautatzen eta sormenez erabiltzen ditu. Eskaintzen dizkioten garapen pertsonal, sozial eta ekonomikorako aukerak identifikatzen ditu	KAKK4.1 Sormenez hautatzen eta integratzen ditu hainbat bitarteko eta euskarri, bai eta teknika plastikoak, ikusizkoak, ikus-entzunezkoak, soinuzkoak edo gorputzezkoak ere, proiektu artistiko eta kultural iraunkorrak diseinatzeko eta ekoizteko, eta eskaintzen dituzten garapen pertsonal, sozial eta laboralerako aukerak aztertzen ditu, interpretazioaz, egikaritzeaz, inprobisazioaz edo konposizioaz baliatuta. KAKK4.2 Bere ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak planifikatu, egokitu eta antolatzen ditu, sormenez eta eraginkortasunez erantzuteko ekoizpen kultural edo artistiko indibidual edo kolektibo batetik eratorritako jarduerei, lengoaia, kode, teknika, tresna eta baliabide plastiko, bisual, ikus-entzunezko, musikal, gorputzezko edo eszenikoak erabiliz, prozesua zein azken produktua baloratuz eta eskaintzen dituzten aukera pertsonal, sozial, inklusibo eta ekonomikoak ulertuz.

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA SAILA

3570

HUTS-ZUZENKETA, dekretu honena: 76/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako hutsak atzeman dira dekretu honen II. eranskinaren argitalpenean: 76/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Dekretu hori 2023ko ekainaren 9ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 109. zenbakian. Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da II. eranskina oso-osorik argitaratuz.

MAIATZAREN 30EKO 76/2023 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

BATXILERGOKO JAKINTZAGAIAK

ATZERRIKO LEHEN HIZKUNTZA

Egungo gizarteen bilakaera bizkorra eta haien askotariko loturak direla eta, gizabanakoei gero eta globalagoa, kulturartekoagoa eta eleaniztunagoa den egungo errealitatearekin konprometitutako herritartasun independente eta aktibo bat gauzatzen lagunduko dieten konpetentziak garatu behar dira. Kultura Demokratikorako Konpetentzien Erreferentzia Esparruan adierazten denez, kulturalki anitzak diren egungo gizarteetan prozesu demokratikoek kulturarteko elkarrizketa behar dute. Beraz, hainbat hizkuntzatan komunikatzea funtsezkoa da kultura demokratikoa garatzeko. Europako Hezkuntza Esparruaren ideiaren barruan, hizkuntza bat baino gehiagotan komunikatzeari esker mugak ez dira hezkuntza eta prestakuntzarako oztopo. Horrela komunikatzeko aukerak, gainera, nazioartekotzea eta mugikortasuna bultzatzen ditu eta beste kultura batzuk ezagutzea eta ikasleen ikuspegiak zabaltzea ahalbidetzen du. Beraz, gure hezkuntza-sistemak elebitasuna ziurtatzeko duen erronkari pertsona eleaniztunak lortzeko helburua gaineratu behar diogu. Pertsona eleaniztun horiek gai izan beharko dute gutxienez atzerriko hizkuntza batean eraginkortasunez, jarioarekin eta zuzentasunez ulertzeko, adierazteko eta elkarreragiteko. Halaber, kulturarteko kontzientzia aberastu eta zabaldu beharko da.

Atzerriko Lehen Hizkuntza jakintzagaia lagungarria da Batxilergoko funtsezko konpetentziak eskuratzeko, eta zuzenean parte hartzen du konpetentzia eleaniztunaren lorpenean. Izan ere, konpetentzia horrek ikaskuntzarako eta komunikaziorako hainbat hizkuntza era egoki eta eraginkorrean erabiltzea dakar. Konpetentzia eleaniztunak, komunikazio-dimentsioa ez ezik, ikasleak hizkuntza-, arte- eta kultura-aniztasuna ezagutzera, kritikoki baloratzera eta errespetatzera eramaten dituzten eta gizarte demokratiko batekin konprometitutako herritartasun independente eta aktibo bat gauzatzen laguntzen duten alderdi historikoak eta kulturartekoak ere biltzen ditu. Horrez gain, ingurune digitaletan hobeto moldatzea eta atzerriko hizkuntzaren bidez bideratutako kulturetara hurbiltzea (prestakuntza- eta ikaskuntza-eragile gisa zein informazio- eta gozamen-iturri gisa) ahalbidetzen die ikasleei. Bestalde, pentsamendu kritiko eta sortzailearen garapena, herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetatsu bat gauzatzea, informazio-alfabetatzea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera segurua, etikoa, iraunkorra eta arduratsua ere oso ikaskuntza-elementu garrantzitsuak dira jakintzagai honetan. Hortaz, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna lortzen ez ezik, Batxilergoa amaitzean funtsezko konpetentziak garatzen eta eskuratzen ere laguntzen du.

Jakintzagai honek atzerriko hizkuntzan era egokian eta eraginkorrean komunikatzea eta hizkuntza-errepertorio indibiduala aberastea ahalbidetzen die ikasleei, eta esperientzia propioak baliatu behar dira familia-hizkuntzetan, EAEko hizkuntza koofizialetan eta atzerriko gainerako hizkuntzetan komunikazioa hobetzeko. Hizkuntza-jakintzagaien komunikazio-izaera eta izaera instrumentala dela eta, nabaria da gainerako jakintzagaiei egiten dien ekarpena. Izan ere, hizkuntzak ikastearen oinarrizko helburua da etapa bakoitzaren berezko komunikazio-egoeretara egokitutako askotariko testuak era koherente, kohesionatu eta zuzenean ulertu eta ekoizteko gaitasuna garatzea, bizitza osoko ikaskuntzarako oinarriak finkatzeko, testuinguru formaletan, informaletan eta ez-formaletan. Hizkuntza erabiltzen ikastea problemak aztertzen eta ebazten, planak egiten, erabaki-prozesuei ekiten eta komunikazio-egoera bakoitzerako estrategia egokiak erabiltzen ikastea ere bada. Ikasleek, edukiekin batera, jakintzagai bakoitzaren berezko adierazpideak ikasi behar dituzte. Beharrezkoa da, beraz, edukia eta hizkuntza integratzea, eta, ildo horretan, ikas-egoeren bidez planteatutako diziplinarteko lana ezinbestekoa da ikasleek jakintzagai bakoitzaren berezko diskurtso-generoak barneratzeko. Era berean, jakintzagai guztiek laguntzen dute ahozko eta idatzizko produkzio- eta hartze-prozesuen hobekuntzan, baita produkzio- eta hartze-prozesu multimodalen hobekuntzan ere.

Batxilergoan, atzerriko hizkuntzaren jakintzagaiko konpetentzia espezifikoek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean eskuratutako konpetentziak sakontzea eta zabaltzea dakarte. Gainera, etapa berri honen oinarria izango dira, eta ikasleen errepertorio eta esperientzietatik abiatuta garatuko dira. Horrek guztiak

ulermen, ekoizpen, interakzio eta bitartekotzako komunikazio-jardueren eta komunikazio-estrategien garapen handiagoa dakar. Etapa honetan, aniztasunari erantzutera eta elkar ulertzeko eta ulertzeko arazoetan laguntzera eta haiek konpontzera bideratutako jardueratzat hartzen da bitartekotza. Progresioak, halaber, hizkuntzen funtzionamenduari eta ikasleen errepertorio indibidualetako hizkuntzen arteko erlazioei buruzko gogoeta kritikoagoa eta sistematikoagoa dakar. Konpetentzia espezifikoek, gainera, kulturarteko egoerak kudeatzeko beharrezkoak diren jakintzak neurri handiagoan sakontzea eta hizkuntza-, arte- eta kultura-aniztasunaren balorazio kritikoa egitea eta horretara egokitzea dakarte, elkar ulertzea sustatzeko eta kultura partekatu bat garatzen laguntzeko.

Jakintzagaiko ebaluazio-irizpideek, nolanahi ere, ikasleek Batxilergoko etapa amaitzean dituzten konpetentzia espezifikoen eskuratze-maila ezartzen dute, eta, beraz, konpetentzia horiei lotuta daude. Beren konpetentzia-formulazioan, ikasleek eskuratu beharreko prozesua edo gaitasuna, aplikatzeko testuingurua edo modua eta prozesu edo gaitasun horren erabilera adieraziz planteatzen dira irizpideak. Ebaluazio-irizpideen nibelazioa Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan (HEEEB) oinarrituta dago, irizpideak Batxilergoko etapako ikasleen heldutasunera eta garapen psikoebolutibora egokituta badaude ere.

Oinarrizko jakintzek jakintzagaiko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko beharrezkoak diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea) biltzen dituzte, eta irizpideen bitartez ikaskuntzak ebaluatzeko aukera errazten dute. Hiru multzotan egituratuta daude. *Komunikazioari* buruzko multzoak ulermen, ekoizpen, interakzio eta bitartekotzako hizkuntza-jarduerak garatzeko mobilizatu beharreko jakintzak biltzen ditu, informazio-iturrien bilaketa, hautaketa, kontraste eta kudeaketari lotutakoak barne. *Eleaniztasunari* buruzko multzoak hizkuntzen funtzionamenduari buruzko gogoeta egiteko gaitasunari lotutako jakintzak biltzen ditu, atzerriko hizkuntza ikasten eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzak hobetzen laguntzeko. Azkenik, *Kulturartekotasunari* buruzko multzoak atzerriko hizkuntzaren bidez komunikatutako kulturei buruzko jakintzak biltzen ditu. Halaber, atzerriko hizkuntza herrien artean komunikatu eta ulertzeko baliabidea eta parte-hartze sozialerako eta aberaste pertsonalerako tresna den heinean harekiko interes-jarrerak garatzera bideratutako jakintzak jasotzen ditu.

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (HEEEB) jakintzagaiko curriculum-elementuak bideratu, nibelatu eta zehazteko erreferentzia da. Tresna horrek ikaskuntza dinamikoa, jarraitua, malgua eta irekia errazten du, eta ikaskuntza horrek ikasleen heldutasunera, inguruabarretara, beharretara eta interesetara egokituta egon beharko du. Ikasleak gai izango dira esparru desberdinen berezko komunikazio-egoeretan oinarrizko jakintza guztiak abian jartzeko. Testuak ikasleek ezagutzen dituzten eguneroko gaiei buruzkoak izango dira, garrantzi pertsonalekoak edo interes publikokoak, eta Garapen Iraunkorrerako Helburuei (GIH) eta XXI. mendeko erronkei lotutako alderdiak jasoko dituzte.

HEEEBn planteatzen den ekintzara bideratuta dagoen eta metodologia eklektikoen erabilera sustatzen duen ikuspegiari jarraikiz, curriculum honen konpetentzia-izaerak atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa sendotzeko tresna digitalak erabiltzera eta hizkuntzen tratamendu integratua kontuan hartuko duten diziplinarteko eta testuinguruan kokatutako zeregin esanguratsuak eta garrantzitsuak sortzera bultzatzen ditu irakasleak. Ikasleak beren ikasteko prozesuaren erantzuleak izango diren gizarte-eragile autonomotzat hartuko dira. Etapa honetan, nazioz haraindiko kolaborazio-proiektuak txertatu behako lirateke, aurreiritzirik gabeko Europako herritartasun demokratiko baten eraikuntza bultzatuko duten Europako programen esparruan.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Erabili ohi diren diskurtso-generoetako testuak, hizkuntza estandarrean adierazitakoak, ulertzea eta interpretatzea, iturri fidagarriak bilatuz eta esanahiak inferitu eta egiaztatzeko estrategiak erabi- liz, betiere ideia nagusiak ateratzeko eta aztertzeko, eta planteatutako komunikazio-beharretan oinarrizko argudio-ildoak kritikoki baloratzeko.

Ulermenak informazioa jasotzea eta prozesatzea dakar. Batxilergoko etapan, ahozko testuetan, idatzizkoetan eta multimodaletan oinarrituta garatu beharreko komunikazio-trebetasun bat da ulermena. Garapen Iraunkorrerako Helburuei lotutako eta hizkuntza estandarrean adierazitako garrantzi pertsonaleko edo interes publikoko gaiak landuko dira.

Maila honetan, ulermenak honako hauek dakartza: testuak ulertu eta interpretatzea, ideia nagusiak eta argudio-ildorik azpimarragarrienak ateratzea, eta edukia, asmoa, diskurtso-ezaugarriak eta ñabardura jakin batzuk (hala nola ironia eta hizkuntzaren erabilera estetikoa) kritikoki baloratzea. Horretarako, estrategiarik egokienak abiarazi behar dira, asmoa eta testuetako iritzi inplizituak zein esplizituak bereizteko.

Ikasleentzako ulermen-estrategiarik baliagarrienen artean, honako hauek aipa daitezke: esanahien inferentzia eta egiaztapena, hitzik gabeko elementuen interpretazioa, testuen azpian dauden iritziei eta asmoari buruzko hipotesien formulazioa eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen ezagutza, trebetasun eta jarreren transferentzia eta integrazioa. Formatu multimodalean, testuaren asmoari eta zentzuari buruzko hasierako hipotesia egiaztatzea eta, beharrezkoa izanez gero, hipotesi alternatiboak planteatzea ahalbidetzen duten hainbat irudikapen motaren (idazketa, irudia, grafikoa, taulak, diagramak, soinua, keinuak eta abar), testuinguru-informazioaren (hizkuntzaz kanpoko elementuak) eta informazio kotestualaren (hizkuntza-elementuak) interpretazioa biltzen ditu ulermenak.

Estrategia horiez gain, iturri fidagarriak euskarri analogikoetan zein digitaletan bilatzea oso metodo baliagarria da ulermenerako, informazioa egiaztatu, balidatu eta sostengatzea eta testuetan oinarrituta ondorio garrantzitsuak lortzea ahalbidetzen baitu. Ulertzeko eta interpretatzeko prozesuetarako, aurreiritzi eta estereotipoen identifikazio kritikoa eta desberdintasun eta antzekotasun etnokulturalekiko interesa bultzatuko duten komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dira.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KPSII5, KAKK2.

2. Erabili ohi diren diskurtso-generoetako testu originalak ekoiztea, hedadura handiagokoak, argiak, ondo antolatuak eta xehatuak, plangintza, sintesia, konpentsazio eta autozuzenketa gisako estrategiak erabiliz, betiere komunikazio-xede zehatzei jarraikiz ideiak eta argudioak era sortzaile, egoki eta koherentean adierazteko.

Ekoizpenak ahozko adierazpena, idatzizkoa zein multimodala biltzen ditu. Etapa honetan, Garapen Iraunkorrerako Helburuei buruzko garrantzi pertsonaleko edo interes publikoko testuak sormenarekin, koherentziarekin eta egokitasunarekin idazteari eta azaltzeari lotuta egongo da ekoizpena. Etapa honetan, hainbat formatu eta euskarritako ekoizpenak honako alderdi hauek bildu ditzake: tamaina ertaineko aurkezpen formal baten azalpena (ideiak adibide eta xehetasun egokiekin sendotuz), deskribapen argia eta xehatua, eta egitura logiko bati erantzungo dioten eta tresna digital eta analogikoen bidez planteatutako ikuspegiaren aldeko eta kontrako puntuak azalduko dituzten argudio-testuen idazketa. Ekoizpenak, halaber, Interneteko informazioaren bilaketa aurreratua dakar, dokumentazio-iturri gisa. Formatu multimodalean, ekoizpenak esanahia sortzeko hainbat baliabideren erabilera bateratua aurreikusten du (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak eta abar), baita komunikatzeko, kolaborazioan lan egiteko eta informazioa partekatzeko gailu digitalen, tresnen eta aplikazioen hautaketa, konfigurazioa eta erabilera ere, sareko ekintzak, presentzia eta agerikotasuna arduraz kudeatuz.

Testuen ekoizpenari lotutako jarduerek funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte eremu akademiko eta profesionaletan, eta funtzio horiei lotutako balio sozial eta zibiko zehatz bat dago. Hainbat euskarritako ekoizpenik formalenetan lortutako trebetasuna komunikazioaren konbentzioen eta diskurtso-ezaugarririk ohikoenen erabileraren bidezko ikaskuntzaren emaitza da. Hizkuntza-izaerako alderdi formalagoak ez ezik, erabilitako generoari lotutako aurreikuspenen eta konbentzioen ikaskuntza, hizkuntzaren erabilera etikoa, sormenezko ekoizpeneko tresnak eta erabilitako euskarriaren ezaugarriak ere biltzen ditu. Ekoizpen formala zein informala hobetzeko aukera ematen duten estrategiek honako hauek biltzen dituzte etapa honetan: plangintza, autoebaluazioa eta koebaluazioa, atzeraelikadura eta monitorizazio, balidazio eta konpentsazio autonomoa eta sistematikoa.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE1, KE2, STEM 4, KD2, KD3, KPSII5, EK1, EK3, KAKK3.1.

3. Beste pertsona batzuekin aktiboki, behar adinako jario eta zehaztasunarekin eta naturaltasunez elkarreraginean aritzea, kooperazio-estrategiak erabiliz, baliabide analogikoak eta digitalak erabiliz eta adeitasun-arauak errespetatuz, betiere komunikazio-xede zehatzei erantzuteko.

Interakzioak bi parte-hartzaile edo gehiago inplikatzen ditu diskurtso bat osatzeko garaian. Pertsona arteko interakzioa hizkuntzaren jatorritzat hartzen da, eta pertsona arteko funtzioak, kooperatiboak eta transakzionalak biltzen ditu. Beste pertsona batzuekiko interakzioan, honako hauek esku hartzen dute: hizkuntza-adeitasunak, netiketak, komunikazioaren hitzezko eta hitzik gabeko elementuek, eta ahozko genero dialogikoetarako, idatzizkoetarako eta multimodaletarako egokitzapenak. Hezkuntza-etapa honetan, interakzioak ikasleentzat garrantzi pertsonala duten edo interes publikokoak diren gaiak lantzea espero da.

Konpetentzia espezifiko hau funtsezkoa da ikaskuntzan, hizkuntzen arteko transferentziak egiteko, kooperazioan jarduteko, hitza eman eta hartzeko zein argibideak edo berrespena eskatzera bideratutako galderak egiteko estrategiak biltzen baititu. Interakzioa, gainera, ezinbesteko jarduera da kooperazio-lanean. Izan ere, lan horretan, zereginak eta erantzukizunak modu zuzen, eraginkor, errespetuzko eta enpatikoan banatu eta onartzea helburu partekatuak lortzera bideratuta dago. Horrez gain, hizkuntza-adeitasunari eta etiketa digitalari buruzko arauak eta printzipioak ikasi eta aplikatzeak herritartasun demokratikoa, arduratsua, errespetuzkoa, segurua eta aktiboa gauzatzeko prestatzen ditu ikasleak.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE1, KE2, KD3, KPSII3.1, KPSII3.2, HK3, KAKK3.1.

4. Hizkuntzen edo aldaeren, edota hizkuntza bereko modalitate edo erregistroen arteko bitartekotza egitea, kontzeptuak eta iritziak azaltzera edo mezuak sinplifikatzera bideratutako estrategia eta ezagutza eraginkorrak erabiliz, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan helarazteko eta komunikazioa erraztuko duen giro positiboa sortzeko.

Bitartekotza hainbat estrategiatan (hala nola birformulazioan) oinarrituta mezuak edo testuak ahoz edo idatziz azaltzean eta haien ulermena erraztean datzan hizkuntza-jarduera da. Bitartekotzan, ikasleek zubiak eraikitzeaz arduratutako gizarte-eragile gisa jardun behar dute, eta mezuak dialogikoki sortzen edo adierazten lagundu behar dute, hizkuntza desberdinen artean ez ezik, hizkuntza bereko modalitate edo erregistro desberdinen artean ere bai. Horretarako abiapuntuak kooperazio-lana eta besteen iritziak eta jarrerak argitzera bideratutako lana izango dira.

Batxilergoko etapan, bitartekotzak hiru alderdi ditu ardatz nagusi. Alde batetik, hizkuntzak komunikazio-testuinguruan sortzen diren erronkei aurre egiteko eta komunikaziorako eta ikaskuntzarako espazio eta baldintza egokiak sortzeko tresna gisa betetzen duen rola dago. Bestalde, bitartekotzak gainerakoen parte-hartzea behar du esanahi berriak sortu eta ulertzeko. Azkenik, bitartekotzak informazio berria era egoki, arduratsu eta konstruktiboan helaraztea dakar. Horretarako, baliabide konbentzionalak zein aplikazio edo plataforma birtualak erabil daitezke edukiak itzultzeko, aztertzeko, interpretatzeko eta partekatzeko. Etapa honetan, mezuak edo testuak ikasleentzat garrantzitsuak diren edo interes publikoa duten gaiei buruzkoak izango dira. Formatu multimodalean, birformulazioak edo bitartekotzak esanahia sortzeko baliabideen interpretazioa eta erabilera hartzen du kontuan: idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak eta abar.

Bitartekotzak ikasleen pentsamendu estrategikoaren garapena errazten du. Izan ere, beren errepertorioko trebetasun eta estrategiarik egokienak behar bezala aukeratu behar dituzte komunikazio eraginkorra lortzeko eta, halaber, norberak eta beste pertsona batzuek informazioaren elkartrukerako kooperazio-inguruneetan parte hartzeko. Era berean, eskuragarri dauden baliabideak ezagutu behar dira, eta gainerakoen motibazioa eta enpatia sustatu behar da, solaskideen motibazioak, iritziak, ideiak eta ingu-

ruabar pertsonalak ulertuz eta errespetatuz eta norberarenekin harmonizatuz. Hori dela eta, enpatia, errespetua, espiritu kritikoa eta zentzu etikoa funtsezko elementuak dira bitartekotzan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM4, KPSII3.1, KPSII3.2, EK1.

5. Norberaren hizkuntza-errepertorioa mobilizatzea eta erabiltzea, errepertorio hori osatzen duten hizkuntza eta aldaera bakoitzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoa eginez eta norberaren ezagutzak eta estrategiak esplizitu eginez eta partekatuz, betiere atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasuna eta norbere komunikazio-beharretarako erantzuna hobetzeko.

Hizkuntza-errepertorioaren erabilera eta haren funtzionamenduari buruzko gogoeta hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztunari lotuta daude. Ikuspegi eleaniztunaren abiapuntua da ikasleek ezagutzen dituzten hizkuntzekin dituzten esperientziak hizkuntza berrien ikaskuntza zabaltzeko eta hobetzeko oinarria direla, eta hizkuntza-errepertorio eleaniztuna eta jakin-min eta sentsibilizazio kulturala garatzen eta aberasten laguntzen dietela.

Batxilergoko etapan, ezinbestekoa da ikasleek hizkuntzen funtzionamenduari buruzko gogoeta egitea eta beren errepertorio pertsonala osatzen duten hizkuntzak sistematikoki alderatzea, antzekotasunak eta desberdintasunak aztertuz, hizkuntza horietan lortutako ezagutzak eta estrategiak zabaltzeko. Era horretan, hizkuntza berrien ikaskuntza erraztu eta komunikaziorako konpetentzia hobetuko da. Hizkuntzei eta haien funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoak eta sistematikoak ikasleek hizkuntzen arteko erlazioak ulertzea dakar, eta hizkuntza- eta komunikazio-esparruan dituzten indarrak eta gabeziak identifikatzen laguntzen du. Ikasleak, gainera, ezagutza eta estrategia propioez jabetuko dira, eta esplizitu egingo dituzte. Ildo horretan, ziurgabetasunari aurre egiteko eta ekimenaren zentzua eta helburuak lortzean edo erabakiak hartzean beharrezkoa den jarraikitasuna garatzeko trebetasunak ere beharko dira.

Gainera, hainbat hizkuntza eta aldaera ezagutzeak gizartearen hizkuntza-aniztasuna alderdi aberasgarri gisa kritikoki baloratzea eta aniztasun horretara egokitzea ahalbidetzen du. Norberaren hizkuntza-errepertorioari buruzko eduki berriak sortu eta txertatzeko gailu eta tresna analogikoak zein digitalak hautatzeak, konfiguratzeak eta aplikatzeak beste hizkuntza batzuk eskuratzeko eta hobetzeko zeregina erraztu dezakete.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, KD3, KPSII1.1, KPSII5.

6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna kritikoki baloratzea eta aniztasun horretara egokitzea, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasun eta desberdintasunei buruzko gogoeta eginez eta haiek partekatuz, betiere kulturarteko egoeretan enpatiaz, errespetuz eta eraginkortasunez jokatzeko eta elkar ulertzea sustatzeko.

Kulturartekotasunak gizartearen hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna esperimentatzea, aztertzea eta hari etekina ateratzea dakar. Batxilergoko etapan, kulturartekotasunak gainerakoekin ulertzea errazten du, eta arreta espezifikoa merezi du. Izan ere, ikasleek herritartasun arduratsua, errespetuzkoa eta konprometitua gauzatzeko oinarriak finkatzen ditu, eta estereotipo eta aurreiritzien ondorioz kulturartekotasunaren pertzepzioa desitxuratuta egotea eta hori diskriminazio mota jakin batzuen jatorria izatea eragozten du. Balorazio kritikoak eta aniztasunera egokitzeak kulturarteko egoeretan enpatiaz, errespetuz eta arduraz jokatzea ahalbidetu behar diete ikasleei.

Aniztasunaz jabetzeak hainbat kulturaren arteko lotura ezartzeko aukera ematen die ikasleei. Gainera, sentsibilitate artistiko eta kulturalaren garapena bultzatzen du, baita beste kultura batzuetako pertsonekin harremanak ezartzea ahalbidetuko duten estrategia ugari identifikatu eta erabiltzeko gaitasuna ere. Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan planteatu daitezkeen kulturarteko egoerek (Europako programen esparruan, adibidez) esperientzia, ideia, gizarte eta kultura berrietara irekitzeko, desberdinarekiko interesa agertzeko, norberaren ikuspegia eta kultura-balioen sistema bera erlatibizatzeko eta diskriminazio mota orotan oinarritutako jarreren edo estereotipoen sendotzearen ondorioak baztertzeko eta ebaluatzeko au-

kera ematen diete ikasleei. Hori guztia kultura partekatu bat eta iraunkortasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasuna bultzatzeko eta justifikatzeko helburuarekin garatu behar da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, KPSII3.1, HK3, KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Etapa honetan, hizkuntza-mailan landu beharreko testuak garrantzi pertsonaleko edo interes publikoko hainbat esparrutako gai orokorrei edo espezifikoagoei buruzkoak izango dira, eta bereziki kontuan hartuko dira testu akademikoak, hedabideetakoak eta fikziozkoak.

Atzerriko Lehen Hizkuntza I eta II
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Tamaina handi samarreko, benetako edo egokitutako, ahozko, idatzizko eta multimodalak, ongi antolatuak eta konplexuak, erregistro formalekoak zein informalekoak, zehatzak zein abstraktuak, garbi eta hizkuntza estandarrean edo ohiko aldaeretan adieraziak, baita ingurune zaratatsu samarretan ere, eta hainbat euskarriren bitartez sortutako testuen ideia nagusiak, informazio xehatua eta inplikazio orokorrak ateratzea eta aztertzea.
1.2. Tamaina eta konplexutasun handi samarreko testuen edukia, asmoa, diskurtso-ezaugarriak eta ñabardura jakin batzuk (hala nola ironia eta hizkuntzaren erabilera estetikoa) kritikoki interpretatzea eta baloratzea.
1.3. Testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasunik garrantzitsuenak ulertzeko, testuen asmoa eta iritziak (inplizituak zein esplizituak) bereizteko, esanahiak inferitzeko eta hitzik gabeko elementuak interpretatzeko, eta baliotasunari, kalitateari, gaurkotasunari eta fidagarritasunari lotutako irizpideak aplikatuz informazioa bilatu, hautatu, egiaztatu eta era egoki eta seguruan biltegiratzeko komunikazio-egoera bakoitzean egokienak diren estrategiak eta ezagutzak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Hainbat motatako testu argiak, koherenteak, xehatuak, ongi antolatuak eta solaskidearentzat eta komunikazio-xederako egokiak ahoz, behar adinako jarioarekin, zuzentasunez, ahoskera, intonazio eta erregistro egokiak erabiliz adieraztea, deskribatzeko, kontatzeko, argudiatzeko eta informatzeko helburuarekin, hainbat euskarritan, hitzezko eta hitzik gabeko baliabideak erabiliz eta hizkuntza, eraginkortasunez ez ezik, etikoki ere erabiliz.
2.2. Tamaina handi samarreko testu original xehatuak, ongi egituratuak eta konplexu samarrak, lexikoari dagokionez aberatsak eta komunikazio-egoerara, testu-tipologiara eta erabilitako tresna analogiko eta digitaletara egokituak idaztea eta zabaltzea, akats garrantzitsuak saihestuz, hainbat iturritako informazioa eta ideiak birformulatuz, laburbilduz eta koherentziaz antolatuz, norberaren iritziak justifikatuz, hizkuntza etikoki erabiliz, jabetza intelektuala errespetatuz eta plagioa saihestuz.
2.3. Ongi egituratutako eta komunikazio-asmoetara, testuinguru-ezaugarrietara, alderdi soziokulturaletara eta testu-tipologiara egokitutako testuak osatzeko plangintza, ekoizpen, berrikuspen eta kooperazioko ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren eta testua zuzenduta dagoen solaskide erreal edo potentzialen arabera egokienak diren baliabide fisikoak edo digitalak erabiliz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Egoera interaktibo sinkronoak edo asinkronoak planifikatzea eta egoera horietan hainbat euskarriren bidez asertiboki eta aktiboki parte hartzea eta kolaboratzea, hizkuntza-adeitasunaren, netiketa eta solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioen inguruan ekimena, enpatia eta errespetua agertuz, ideiak eta iritziak zehaztasunez adieraziz eta era sinesgarrian argudiatuz.
3.2. Komunikazioa hasi, jarraitu eta amaitzeko, hitza adeitasunez hartu eta emateko, norberaren ekarpena solaskideen ekarpenera egokitzeko (haien erreakzioak hautemanez), argibideak eta azalpenak eskatu eta formulatzeko, arazoak birformulatu, konparatu eta egiaztatu, laburbildu, haietan lagundu, eztabaidatu eta konpontzeko eta egoera zailak kudeatzeko estrategia egokiak eraginkortasunez, naturaltasunez eta ingurune desberdinetan hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Aniztasuna kontuan hartu beharreko egoeretan testuak, kontzeptuak eta komunikazioak interpretatzea eta azaltzea, hainbat baliabide eta euskarri baliatuta, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntza, aldaera edo erregistroekiko errespetua eta estimazioa agertuz eta, elkar ulertzeko problemen ebazpenean parte hartuz.
4.2. Zubiak sortzen lagunduko duten, komunikazioa erraztuko duten, testuak, kontzeptuak eta mezuak azaltzeko eta sinplifikatzeko baliagarriak izango diren eta komunikazio-asmoetarako, testuinguru-ezaugarrietarako, alderdi soziokulturaletarako eta testu-tipologiarako egokiak izango diren estrategiak aplikatzea, baliabide eta euskarri fisikoak edo digitalak erabiliz, zereginaren eta solaskideen aldez aurreko ezagutzen, interesen eta ideien arabera.

Atzerriko Lehen Hizkuntza I eta II
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Hainbat hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatzea, hizkuntzen funtzionamenduari buruz sistematikoki gogoeta eginez eta haien arteko loturak ezarriz.
5.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko eta hizkuntza horretan komunikatzeko gaitasuna hobetzen lagunduko duten estrategiak eta ezagutzak ekimenez eta sormenez erabiltzea, beste solaskide batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzarekin edo gabe.
5.3. Atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzaren inguruko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratu erregistratzea eta haiei buruzko gogoeta egitea, zailtasun horiek gainditzeko eta ikaskuntza indartzeko estrategiarik egokienak eta eraginkorrenak hautatuz, ikaskuntzaren planifikaziorako, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako estrategia eta tresnen bidez hala nola Hizkuntzen Portfolio Europarraren (HPE) edo ikaskuntza-eguneroko baten bidez, aurrerapen eta zailtasun horiek esplizitu eginez eta partekatuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Kulturarteko egoeretan modu egoki, enpatiko eta errespetuzkoan jokatzea, hizkuntza eta kultura desberdinen artean loturak eraikiz, diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipo mota oro baztertuz eta ebaluatuz, eta komunikazioa zailtzen duten faktore soziokulturalak zuzenduz.
6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeek berezkoa duten hizkuntza-aniztasuna, aniztasun soziokulturala eta arte-aniztasuna kritikoki baloratzea, gozamen eta aberastasun pertsonaleko iturritzat hartuz giza eskubideei dagokienez, eta aniztasun horretara egokitzea, kultura partekatu baten eta iraunkortasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasun baten garapena bultzatuz eta justifikatuz.
6.3. Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna defendatu eta estimatzeko estrategiak sistematikoki aplikatzea, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz eta justizia-, ekitate- eta berdintasun-printzipioak errespetatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Atzerriko Lehen Hizkuntza I eta II
A. Komunikazioa.
Ahozko, idatzizko eta testu multimodalen ulermena (aurrea hartzea, egiaztapena, dedukzioa, zalantzen argitzea, ulertzeko arazo propioen identifikazioa eta abar), produkzioa eta koprodukzioa (informazioaren plangintza eta bilaketa, testua lantzeko zeregina, berrikuspena eta autozuzenketa) planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta zuzentzeko estrategiak.*
Eguneroko egoeretan bitartekotza-jarduerak egitea ahalbidetzen duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.*
Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako komunikazio-funtzioak: pertsonen, objektuen, lekuen, prozeduren, prozesuen, fenomenoen eta gertaeren ezaugarri fisikoak eta abstraktuak deskribatzea; argibideak, aholkuak, ohartarazpenak eta abisuak ematea; iraganeko aldizkako eta ohiko gertaerak kontatzea, egungo egoerak deskribatzea eta etorkizuneko gertaerak eta epe labur, ertain eta luzeko iragarpenak adieraztea; emozioak adieraztea; interesa, onarpena, estimazioa, goraipamena, mirespena, gogobetetzea, itxaropena, konfiantza, sorpresa eta haien kontrakoak adieraztea; iritzia adieraztea; argudioak adieraztea; birformulatzea, besteen iritziak aurkeztea, laburbiltzea; jakin-mina, ezagutza, ziurtasuna, berrespena, zalantza, eszeptizismoa, borondatea, asmoa, erabakia, promesa, agindua, baimena eta debekua, salbuespena eta eragozpena adieraztea; iradokizunak, nahiak, baldintzak eta hipotesiak formulatzea.*
Testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak pertsona arteko harremanen, mundu profesionalaren, komunikabideen, ikaskuntzaren eta literaturaren esparruen berezko erabilera komunekoak diren ahozko, idatzizko eta testu multimodal luze eta lexikoan eta egituretan aberatsak direnak, ulertu, ekoitzi eta koproduzitzeko: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako aurreikuspenak eta generoaren, testu-funtzioaren eta egituraren araberako antolaketa eta egituraketa.*
Hizkuntza-unitateak eta unitate horiei lotutako esanahiak, hala nola entitatearen eta haren propietateen adierazpena; kantitatea eta kualitatea; espazioa eta espazio-erlazioak; denbora eta denbora-erlazioak; denboraren adierazpena: iragana, oraina, etorkizuna; aspektuaren adierazpena: puntuala, iraunkorra, ohitura-aspektua, inkoatiboa, amaiera-aspektua; modalitatearen adierazpena: faktualtasuna, gaitasuna, aukera/probabilitatea, beharra, betebeharra, baimena, asmoa; baieztapena, ukapena, galdera eta harridura; erlazio logikoak: konjuntzioa, disjuntzioa, oposizioa/kontzesioa, kausa, helburua, konparazioa, emaitza/korrelazioa, baldintza, zehar-estiloa, denbora-erlazioak.*
Ikasleentzat interesa duen lexiko arrunta eta espezializatua: denbora eta espazioa; egoerak, ekitaldiak eta gertaerak; jarduerak, prozedurak eta prozesuak; harreman pertsonalak, sozialak, akademikoak eta profesionalak; hezkuntza, lana eta ekintzailetza; hizkuntza eta kulturarteko komunikazioa; zientzia eta teknologia; historia eta kultura; eta lexikoa aberasteko estrategiak (eratorpena, konposizioa, polisemia, sinonimia eta abar).*

Atzerriko Lehen Hizkuntza I eta II
Soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak eta patroi horiei lotutako esanahi eta asmo komunikatibo orokorrak. Oinarrizko alfabeto fonetikoa.*
Konbentzio ortografikoak eta formatu, patroi eta elementu grafikoei lotutako esanahiak eta komunikazio asmoak.*
Elkarrizketa-konbentzio eta -estrategiak, komunikazioa hasi, jarraitu eta amaitzeko, hitza hartu eta emateko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, birformulatu, konparatu eta kontrastatzeko, laburbildu eta parafraseatzeko, kolaborazioan aritzeko, esanahiak negoziatzeko edo ironia detektatzeko, formatu sinkronoan edo asinkronoan.*
Baliozko informazioa, kalitatekoa, egungoa eta fidagarria bilatu eta hautatzeko baliabide analogiko eta digitalak eta estrategia aurreratuak, eta edukiez arduratzea.*
Kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien gaineko jabetza intelektuala eta egile-eskubideak: datu bibliografikoak tratatzeko tresnak eta plagioa saihesteko baliabideak.*
Ahozko ulermen, produkzio eta koprodukziorako, idatzizkorako eta multimodalerako tresna analogikoak eta digitalak; eta proiektuak atzerriko hizkuntzako hiztunekin edo ikasleekin ikasi, komunikatu eta garatzeko hezkuntza-arloko interakzio, kolaborazio eta kooperazioko plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, kolaborazio-tresna digitalak eta abar).*
B. Eleaniztasuna eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.
Autokonfiantza, ekimena eta asertibitatea. Autozuzenketa- eta autoebaluazio-estrategiak, atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza autonomoan aurrera egiteko baliabide gisa.*
Komunikazio-behar jakin bati eraginkortasunez eta autonomia, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun handiarekin erantzuteko estrategiak eta teknikak eta atzerriko hizkuntzan eta norberaren hizkuntza-errepertorioko gainerako hizkuntzetan lortutako konpetentzia-mailaren ondoriozko mugak gainditzeko.*
Ikasteko baliabideak eta hizkuntza-unitateak identifikatu, antolatu, gogoan gorde, berreskuratu eta sormenez erabiltzeko estrategiak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak eta abar), hizkuntza-errepertorio pertsonala osatzen duten hizkuntzen eta aldaeren konparaziotik abiatuz. Maileguak, kalkoak eta transferentzia negatiboak.*
Autoebaluazio, koebaluazio eta autozuzenketarako eta atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzaren inguruko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzeko estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak. Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE)*
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikatzeko eta ikasteko tresnei buruzko gogoeta egiteko eta gogoeta partekatzeko esamoldeak eta lexiko espezifikoa (metahizkuntza).*
Atzerriko hizkuntzaren eta ikasleen hizkuntza-errepertorioko beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta hizkuntzen arteko konparazio sistematikoa egiteko estrategiak: jatorria eta ahaidetasunak.*
Kooperazio-estrategia sinpleak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartzeko jarraibideak. Gatazken kudeaketa.*
C. Kulturartekotasuna.
Atzerriko hizkuntza herrien arteko komunikaziorako eta elkar ulertzeko baliabide gisa, beste kultura eta hizkuntza batzuetara hurbiltzeko bideratzaile gisa eta parte-hartze sozialerako eta aberaste pertsonalerako tresna gisa.*
Atzerriko hizkuntzako hiztunekin edo ikasleekin hainbat baliabide erabiliz, ahoskera, erritmo eta intonazio egokiarekin, erabilera komuneko konbentzio ortografikoak eta sozialak errespetatuz eta testuen aurkezpena zainduz, komunikazio-elkartrukeak egiteko eta atzerriko hizkuntzan hitz egiten den herrialdeetako kultura-informazioak ezagutzeko interesa eta ekimena.*
Atzerriko hizkuntzaren berezko kultura-ereduak.*
Konbentzio sozialei, adeitasun-arauei eta erregistroei lotutako alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak; instituzioak, ohiturak eta erituak; balioak, arauak, sinesmenak eta jarrerak; estereotipoak eta tabuak; hitzik gabeko hizkuntza; historia, geografia, kultura eta komunitateak; pertsona arteko harremanak eta globalizazio-prozesuak atzerriko hizkuntzan hitz egiten den herrialdeetan.*
Atzerriko hizkuntzak munduan dituen aldaerak.
Atzerriko Hizkuntza Euskal Herrian eta bere eragina euskaran.
Hizkuntzen egoera Europan. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak, menderatzaileak, menderatuak. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna.
Balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko estrategiak.*
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak prebenitu, detektatu eta baztertzeko eta haien aurrean jarduteko estrategiak.*
Literatura-testuaren eta irakurketaren balorazioa gozamen-iturri gisa, arte- eta kultura-adierazpenetarako hurbilketari eta hizkuntza-aberastasunari eta aberastasun pertsonalari begira.
Literatura-testuak dramatizatu, birsortu eta errezitatzeko estrategiak.

ESPAINIAKO HISTORIA

Hezkuntza-sistemaren xedea herritar gogoetatsu eta sortzaileak prestatzea da, gure gizartea gero eta anitzagoa eta aldakorragoa baita. Alde batetik, honek areagotzen du nerabezaroan irudimentsuki pentsatzeko gaitasuna sustatzearen beharra, premia berriei egokitzeko. Bestalde, gizarte demokratikoek kognitiboki prestatutako eta emantzipatutako pertsonak behar dituzte, balio demokratikoak defendatzeko gai direnak.

Batxilergoan, *Espainiako historia*k, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako *Geografia eta historia* jakintzagaiaren konpetentziak garatzeko prozesuari jarraipena emateaz gain, gure iragana aztertzeak gaur egun gure bizitza sozial, politiko eta ekonomikoa ulertzeko duen garrantzia definitzen du, egungo munduan zentzua hartzen duten tresna kontzeptualak eskaintzen dizkigulako. Are gehiago, jakintzagaiak gazteen adimenaren garapen orekaturako beharrezkoak diren datuak eta jarduera intelektuala errazten dituzten tresna kontzeptualak ematen dizkigu. Beraz, eztabaidaezina da *Espainiako Historia* garaikidea lantzeko beharra, pentsamendu eta judizio analitiko askerako gaitasuna sustatzen laguntzen duen jakintzagai gisa.

Historiak, gertakarietan eta ondorengo hausnarketetan oinarrituta, nor garen eta zergatik garen jakiten laguntzen digu. Eta horrek guztiak baliabideak bilatzen ditu, digresio pertsonaletan oinarritutako pentsamendu kritikoa balioesteko, alderatzeko eta gauzatzeko. Beraz, ondoriozta daiteke jakintzagai honetako Oinarrizko jakintzak irakasteak barne hartzen dituela, ez bakarrik iraganeko garaiei buruzko ezagutzak, baizik eta gertaeretatik abiatutako gogoeta egitea eta iraganaren eta orainaren arteko erlazioak bilatzea ere. Hau da, gizartean aurrera egiten lagunduko duten herritar zentzudunak, moldagarriak eta pentsakorrak sortzeko tresnak. Eta hori guztia, jakina Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren parte den diziplina gisa, Euskal Herriko historia eta kultura, baita gizartea, balioak, erakundeak, ekonomia, zerbitzuak eta sistema politikoa eta gobernu-sistema ere kontuan harturik.

Oinarrizko jakintzak blokeetan didaktikoki antolatuta daude eta diziplinaren ordena naturala errespetatzen duen sekuentzia logiko batean lotzen dira, baina, euren planteamenduen bidez, espiritu pedagogiko berritzailea ere proposatzen da. Konbinazio horrek ikasleak bideratuko ditu, irakaslearen lanarekin batera, *Espainiako historia* garaikidearen ulermen eta ikuspegi orokor bat lortzera eta, pixkanaka eta nerabeen garapen psikokognitiboa kontuan hartuta, euren Konpetentzia Profila osatzen, panorama orokor bateko piezak behar bezala ahokatzen lagunduko dien oinarri sendo bat eskuratuz.

Horrela, jakintzagai hau ikasteak, zuzenean lantzen ditu Herritartasunerako Konpetentzia —kultura politikoa, pentsamendu kritikoa eta herritarren parte-hartze aktiboa garatzen laguntzen baitu— eta Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten Ikastekoa —gertaerak erlazionatzen, hausnartzen eta aldaketetara egokitzeko eta bizitza osoan zehar ikaskuntza kudeatzeko beharrari erreparatzen irakasten du eta—. Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako konpetentziaz ere arduratzen da, edozein motatako adierazpen artistiko ezagutzeak bai sentsibilitatea bai Ondare historiko-artistikoa aintzat hartzea, errespetatzea, balioestea eta hartaz gozatzea gauzatzen dituelako.

Zeharka bada ere, diziplina honek Ekintzailetza konpetentzia garatzen du; izan ere, laguntza ematen die ikasleei, gizakiaren bilakaera gure hurbileko, lehenaldiko eta gaur egungo kultura-ingurunean ezagutuz eta erronka politiko, ekonomiko edo sozialak kontuan harturik, bizitzan zehar aurre egin beharko dieten beharrak, erronkak eta aukerak onartzen, gaur egun globalizatuta dagoen eta etengabe aldaketak jasaten dituen mundura egokitu ahal izateko. Azkenik, Hizkuntza komunikaziorako konpetentziari eta Konpetentzia eleaniztunari egiten zaien ekarpena eztabaidaezina da, ezinbestekoa baita edozein hizkuntzatan komunikatzea informazioa transmititzeko; eta Konpetentzia digitala funtsezko tresna da jakintzagai hau lantzeko.

Horri guztiari Historiaren diziplinartekotasuna gehitzen badiogu, gainerako jakintzagaiekin batera lan egiteko aukera ematen duena, gure iragana ezagutzeko beharraren ondorioa —egungo munduan kokatzeko eta hura ulertu, zaindu, aberastu eta dituen xehetasun ugariez gozatzeko— saihestezina bihurtzen da. Historian zehar, jakintza-diziplina guztiak gizakiok etengabe planteatzen ditugun galderei eta erronkei erantzuteko garatu direla kontuan hartuta, Industrializazioaren Historiaren eta Espainiako eta Euskal Herriko Ekonomia eta Teknologiaren arteko erlazioaren adibidea, besteak beste, ukaezina da.

Batxilergoko bigarren mailan zehar, *Oinarrizko jakintzen* bidez egindako lanaren bitartez eskuratzen eta garatzen joango diren trebetasunei *Konpetentzia espezifikoak* deitzen zaie. *Espainiako historia* kasuan, horien helburua da: ikasleak gai izatea idatzizko iturri historikoei buruzko iruzkin kritikoak fidagarritasunez egiteko; Espainiako eta Euskal Herriko Historia garaikidean hainbat erregimen politikoen eraketa- eta eboluzio-prozesua, eta erregimen horietan herritarrek parte hartzeko moduak ezagutzea eta azaltzea; gure ekonomiaren garapenean eta modernizazioan parte hartu duten faktoreak ezagutzea eta aztertzea; gure gizarteek Aro garaikidean zehar izan dituzten aldaketak eta jarraitutasunak deskribatzea eta aztertzea; sinesmenek eta ideologiek Espainian eta Euskal Herrian Historia garaikidean izan duten eboluzioa eta gizartearekin eta politikarekin izan duten harremana ulertzea eta zorroztasun historikoz adieraztea; Iberiar Penintsularen balio geoestrategikoa ezagutzea eta Espainiako eta Euskal Herriko Historia garaikidearekin eta nazioarteko panoramarekin lotzea; Ondare historiko eta kulturalak memoria kolektiboaren legatu eta adierazpen gisa, herentzia material eta immaterial gisa eta Historiaren iturri gisa duen esanahia aintzatestea eta genero-ikuspegia txertatzea Espainiako eta Euskal Herriko Historia garaikidearen eta egungo egoera soziopolitikoaren azterketan.

Horrek guztiak gure ikasleei lagunduko die iturri historikoei buruzko iruzkin kritikoek ikerketa historikoan duten garrantziaz jabetzen, eta historialarien lan zorrotza eta artxiboen beharra eta munta baloratzen; eskubideak eta askatasunak sustatu dituzten mugimenduak eta ekintzak baloratzen, eta 1978ko Konstituzioaren eta 1979ko Autonomia estatutuaren dimentsioa ulertzen; egungo koiuntura ekonomikoa gizarte —ongizateari lotutako aurrerapenaren ideia, berrikuntza, etengabeko ikaskuntza eta jasangarri— tasuna ulertzen eta horien guztien inguruko begirada kritikoa eraikitzen; gaur egungo gizarte-aniztasunaz jabetzen, hartu diren neurrien irismena balioesten, eta berdintasunerako, ongizaterako, justiziarako eta gizarte-kohesiorako aurrerapausoak eta mugak ulertzen; gure herriaren aniztasuna aitortzen eta baloratzen, eta errespetuzko jarrerekin egungo arazoei buruz hausnartzen eta eztabaidatzen; gaur egungo Espainiak munduan duen benetako eginkizuna ulertzen, baita berak dituen nazioarteko kooperazio-, elkartasun-, europeismo- eta segurtasun-konpromisoen garrantzia ere; Ondare historikoaren garrantzi kulturalaz eta aniztasunaren aberastasunaz jabetzen, eta haren kontserbazioa bermatzen duten legeei balioa ematen; Historian emakumeen presentzia aitortzen; oztopoak, aurrerapen- eta atzerapauso-uneak ohartarazten eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorraren aldeko jarrerak sustatzen.

Eta ikasleek gai horietan egindako aurrerapenak baloratzeko, Ebaluazio irizpideak daude. Horien helburua da, jakintzak zenbateraino barneratu diren eta, ondorioz, Konpetentzia espezifikoen lorpenaren zer progresio-maila lortu den zehaztea, baita ikasleek beren garapenerako garrantzitsuak diren jarrerak eta balioak bereganatu dituzten zehaztea ere. Irizpide horien formulazioan, beraz, jakitearen, egiten jakitearen eta izatearen erreferentziak jasotzen dira.

Oinarrizko jakintzen bidez ikasleek Konpetentzia profil fidagarri batera eramango dituzten Konpetentzia espezifikoak eskuratuko dituzte. Hori dela eta, jakintza horiek ezinbestekoak dira, Espainiako historia garaikidean zehar mundua ulertzeko egon diren eta dauden modu desberdinak behar bezala transmititu ahal izateko. Era berean, errealitate aldakorrak aurretik gertatutako guztiak baldintzatzen dituela eta, ondorioz, aldaketa horietako asko gure ekintzen ondorio direla barneratzeko. Horregatik, bilakaera nolakoa izan den erakusten diguten gutxieneko eta pedagogikoki antolatutako datu historiko zehatz batzuk jakin gabe, ezinezkoa izango litzateke errealitatea aztertzea ezta etengabeko aldaketa hautematea ere.

Oinarrizko jakintzak hiru bloketan bereizi dira: *A. Gizarteak denboran zehar*, hau da, Historiari dagozkion oinarrizko jakintzak; *B. Egungo munduaren erronkak*, hau da, Trantsiziotik gaur egungo gizarte-eztabaidako auzietara bitartekoak; eta *C. Konpromiso zibikoa*, oso-osorik gainerako jakintzekin batera landuko diren gai transbertsalak jorratzen dituena. Aditzera eman behar da A, B eta C blokeen barruan, jakintza transbertsal batzuk ere badaudela (A1, 2, 3, 4, 15 eta 22, B1, 2 eta 3 eta C2, 4 eta 7) eta horiek ikaste egoera guztietan landu beharko direla, besteak jakintza espezifikoak izanda. Azken horiek, adierazitako moduan jorratu ahal izango dira (politika, gizarte, erlijio, ideologia eta abarren erlazioetatik abiatuta), edo ikaste-egoerak kronologikoki eta pedagogikoki antolatzeko helburuarekin konbinatuta, adibidez, Espainiako Historia Garaikidearen etapen arabera, edo irakasle-taldeak egokiagotzat joko duen moduan.

Jakintzagai honek, baliabide horien eta irakaslearen lanaren bitartez —azken hori diziplinaren jakintza globala maneiatzen duena eta gida izanda—, ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista izan daitezen eta figura pasibo eta ezagutza-hartzaile soil izateari utz diezaieten, lagundu egingo du. Jakintza aztertu, aplikatu eta sortzeko irakaskuntza, eta informazioa ezagutza bihurtzea uztartu behar ditugu. Horrela, gure historia garaikidearen bilakaeraren ikaskuntza, jakin-mina, pentsamendu kritikoa, errespetua eta autonomia sustatzen ditugu. Konbinazio horrek motibazioa sortuko du eta XXI. mendeko erronkak ikuspegi berrietatik ikusi ahal izango dira.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Idatzizko iturri historikoei buruzko iruzkin kritikoak fidagarritasunez egitea, haien tipologia desberdinak ezagutuz eta haien erabilera zientifikoan trebatuz eta informazioa alderatuz, ikerketa historikoan duten garrantziaz jabetzeko, eta historialarien lan zorrotza eta artxiboen beharra eta munta baloratzeko.

Iturri historiko guztiak informazio zehatz eta inplizitu ugari dakartza, bai euren testuinguru soziopolitikoari buruz, bai dokumentu horiek sortu zituztenen mundua ulertzeko bai mundu horrekin erlazionatzeko moduari buruz. Horrela, iturrien azterketak Historiako une, pertsonaia edo gertaera zehatzen ezagutza osatuagoa, dibertsifikatuagoa eta esanguratsuagoa lortzeko aukera ematen digu. Testu historikoen iruzkinak egitearen helburua da, ematen dizkigun elementuetatik abiatuta eta aztertutako dokumentuak bere garaian izan zuen garrantzi-maila kontuan hartuta, ikasleak ikerketa lanera hurbiltzea, baita garai bat barrutik ulertzera ere. Informazio hori ateratzeko teknika testu historikoen iruzkina da. Hori ez da inprobisazio hutsa, baizik eta prestakuntza, gaiari buruzko ezagutza, metodo zehatz bat eta objektibotasuna eskatzen ditu.

Gertaera historikoak eta horiei buruzko informazioa ematen diguten askotariko dokumentuak ezagutzeak eta ulertzeak, edozein etapa gainditzen duten gaiei (politika, ekonomia, gizartea…) buruzko testu idatziak sakonki ulertzera bideratuko dituzte ikasleak, eta Historiaren eta beraien egungo ingurunearen arteko harremanei, eta desinformazioari eta manipulazioari buruzko hausnarketara ere. Horregatik, jakintzagaiaren alderdi teoriko eta tekniko esanguratsuenak behar bezala konbinatu behar dira, terminologia egokia erabiliz, iruzkinak egiteko eta dokumentuen barneko eta kanpoko gakoak argi eta koherentziaz adierazteko, objektibotasuna eta ikuspegi historikoa bilatuz eta hemendik eta orainetik eraikitako ikuspegia saihestuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE2, KD3, KP--SII1.2, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3.

2. Hainbat erregimen politikoen eraketa- eta eboluzio-prozesua, eta erregimen horietan herritarrek parte hartzeko moduak ezagutzea eta azaltzea, antolamendu politiko mota desberdinak konparatiboki aztertuz eta terminologia zuzena erabiliz, eskubideak eta askatasunak sustatu dituzten mugimenduak eta ekintzak baloratzeko, eta 1978ko Konstituzioaren eta 1979ko Autonomia estatutuaren dimentsioa ulertzeko.

Historia aurrerapausoen eta atzerapausoen bilakaera ez lineala da. XIX. mendetik, Espainiako sistema politikoak eta, ondorioz, Euskal herrikoak izan duten bilakaerak ekarpenak egin dizkio parlamentarismoa garatzeko prozesuari, atzerapausoak kontuan hartuta, gure egungo demokrazia ezarri eta finkatu arte. XIX. mendeko iraultza burgesa, bere parlamentarismo liberal ezegonkorrekin, hein handi batean atzerapen sozialak eta nazioarteko isolamenduak markatutako XX. mendean, joera autoritario kontserbadoreetarantz eboluzionatu zuen. Gero, 70eko hamarkadan, Espainian trantsizio itundu bat gertatu zen, Estatuko eliteek (Errege izendatu berria barne) bultzatutako eta alderdi politikoen eta beste ordezkari batzuen artean adostutako erreforma baten bidez, Monarkia parlamentarioa ekarri zuena. Horren doikuntza eta finkapena 1982an garatu zen, Partido Socialista Obrero Español (PSOE) alderdiaren lehen gehiengo absolutuarekin, zeinak gobernuko egonkortasun aldi luze bat eta beste aukera batzuen antolakuntza, Alderdi Popularra (PP) buru, ekarri zituen.

Hori guztia ulertu eta barneratzeko, eta gaur egun indarrean dagoen 1978ko Konstituzioaren dimentsio demokratikoa gure bizikidetzaren eta gure eskubideen bermearen oinarri gisa ulertzeko, Autonomia estatutu desberdinak barne, 1812az geroztik egon diren erregimen politiko desberdinei buruzko konparaziozko estrategiak garatu behar dira Fernando VII.aren Erregealdia eta, ondoren, Absolutismoaren amaiera eta Isabel II.aren Erregealdia, Seiurteko demokratikoa, Berrezarkuntza, II. Errepublika eta zegokion 1931ko Konstituzioa, Gerra zibila eta Frankismoa, Trantsiziora arte; halaber, erregimen guzti haien izaera definitzen eta testuinguruan kokatzen ahalbidetzen duten termino eta kontzeptu historiko, politiko eta juridikoen erabilera zuzena.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE2, KD3, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

3. Aro garaikidean Espainiako eta Euskal Herriko ekonomiaren garapenean eta modernizazioan parte hartu duten faktoreak ezagutzea eta aztertzea, iturri historikoak erabiliz, hala nola grafikoak, estatistikak, erroldak…; egungo koiuntura, gizarte-ongizateari lotutako aurrerapenaren ideia, berrikuntza, etengabeko ikaskuntza eta jasangarritasuna ulertzeko eta horien guztien inguruko begirada kritikoa eraikitzeko.

Espainiako eta Euskal Herriko ekonomiak Aro garaikidean zehar izandako bilakaera aztertzeak, ikasleari lagunduko dio, bai horrek gizartearen garapenarekin dituen zuzeneko harremanak, bai gaur egungo egoera ulertzen. Globalizazioaren ekonomiaren funtzionamenduarekin trebatzeko, funtsezkoa da lehenik eta behin haren erro historikoak, pentsaera desberdinak eta horien eragileen eta politikak aztertzea, oinarrizko kontzeptuak erabiltzeaz gain; *krisi ziklikoak, interbentzionismoa* edo *librekanbismoa*, besteak beste. Bestalde, auzi hauetan sakontzeak, testuinguru unibertsala ahaztu gabe, Estatu liberala Espainian eraikitzeko funtsezko oinarrietako honetan, eta honen aurrerabidean gaur egun arte, baita ekonomia arloan 1789tik aurrera izan diren arazoetan ere, Historiaren panoramika bat ematen du, egungo ereduaren zergatiarekin edota gizarte-ongizatea edo iraunkortasuna bezalako gaiez arduratzeko beharrarekin lotzen dena. Azkenak, gainera, ikuspegi kritikoa ematen dio aurrerapenaren ideiari, haren planteamendu filosofiko eta ekonomikoei eta haren ondorio politikoei. Historikoki bere lehentasunen artean, ez aberastasunaren banaketa ez ingurumen-ondorioak kontuan hartu ez dituen hazkunde ekonomikoak eragindako ondorioak kontuan hartu behar dira.

Magnitude horiek ezagutzeko bideak eskatzen du dokumentu historikoetako iruzkinez baliatzea, hala nola grafikoak, estatistikak, erroldak eta abarrez, eta aplikazio informatikoak erabiltzea. Zeregin horrek interpretaziorako eta loturak egiteko gaitasunaren garapena eskatzen du, faktore ekonomikoak gainerako fenomeno historikoekin lotzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE2, KD1, KD2, KD3, STEM4, KPSII1.2, KPSII5, HK1, HK3.

4. Espainiako eta Euskal Herriko gizartek Aro garaikidean zehar izan dituzten aldaketak eta jarraitutasunak deskribatzea eta aztertzea, bertako biztanleriaren eboluzioa eta horrek bizitza-mailekin eta moduekin, lan-baldintzekin, gizarte- gatazkekin eta langile-mugimenduekin duten lotura kontuan hartuz, gaur egungo gizarte-aniztasunaz jabetzeko, hartu diren neurrien irismena balioesteko, eta berdintasunerako, ongizaterako, justiziarako eta gizarte-kohesiorako aurrerapausoak eta mugak ulertzeko.

Ikasleek Espainiako eta Euskal Herriko gizartearen, bilakaera demografikoa eta aldaketak eta jarraitutasunak Aro garaikidean zehar aztertu behar dituzte, mendeko izatetik herritar izatera egindako urratsa, harreman eta garapen sozial, ekonomiko eta politikoko modu berriekin, espazioaren banaketarekin eta lurraldeen arteko desoreka mantentzearekin lotuz. Helburua da Euskal Herriak Espainiako Estatuaren testuinguruan izan duen modernizazio ekonomiko eta sozialaren prozesua ulertzea, baita Espainiako gizartearen heterogeneotasun eta konplexutasun handia bere historian eta orainaldian ere.

Aipatutako azterketa bai subjektuan bai gizataldeko esperientzietan oinarritu behar da, eta analisia, iturri historiografikoen eta askotariko iturri historikoen —hala nola datu estatistikoen, testuen, errolden eta abar— aztertze kritikoaren bidez egin behar da. Gizarteen bilakaerak barne hartzen ditu: lorpenak eta atzerapenak, Estatuaren erregimen politiko desberdinek orain arte hartutako neurriak, eguneroko bizitza- eta ongizate-mailen eboluzioa, eta etorkizuneko mugak eta erronkak. Eta gaurkotasunari dagokionez, gatazkak kudeatzeko, desberdintasunak arintzeko, gizarte-tentsioa neutralizatzeko edo ordena publikoaren nahasmendua erreprimitzeko hartutako neurriak kontuan hartuta, interesa piztu ahal izango da ikasleengan, gizartea beste ikuspegi batetik aztertzeko, aipatutakoari buruz hartu diren neurrien irismena eta berdintasunaren, ongizatearen, justiziaren eta gizarte-kohesioaren bidean egindako aurrerapenak eta mugak baloratzera eramango dituena.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII1.2, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3, KAKK1.

5. Sinesmenek eta ideologiek Espainian eta Euskal Herrian Historia garaikidean izan duten eboluzioa eta gizartearekin eta politikarekin izan duten harremana ulertzea eta zorroztasun historikoz adieraztea, identitateen eta proiektu politikoen konfigurazioan duten eragina kontuan hartuz, gure herriaren aniztasuna aitortu eta baloratzeko, eta errespetuzko jarrerekin egungo arazoei buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko.

Sinesmenak eta ideologiak gizartearen ardatz egituratzaile nagusietako bat izan dira eta hala dira, eta horietatik abiatuta sortu dira soziabilitaterako eta loturak eta talde- identitateak sortzeko gunerik garrantzitsuenak. Absolutismoaren eta Estatu liberalaren garaietatik egungo gizarte demokratikora arte, ikasleek pentsamoldetan eta ikuskera politiko eta nazionalistetan izandako aldaketak identifikatu beharko dituzte.

Funtsezkoa da, ikasleek Espainiako Estatuaren barruan dagoen identitate- aniztasuna ulertzea, zorroztasun historikoz adieraztea eta aitortzea, Espainiako eta Euskal Herriko Historia garaikidean gizarte-taldeen, alderdi politikoen edo indar sindikalen arteko desadostasunak, tirabirak eta liskarrak eragin zituzten gizatalde baten kidea izatearen sentimenduak eta ikuspegi politikoak kontuan hartuta. Azken horiek, Karlismoa, Liberalismoa, Errepublikanismoa, langileen mugimenduak eta alderdiak, nazionalismoak edota ideologia totalitarioak barne hartzen dituzte.

Beharrezkoa da, ikasleek iturri fidagarri eta lan kontrastatuetan oinarritutako iritzi propioak sortzea, desinformazioa saihesten eta elkarrizketa bultzatzen dutenak. Horrela, korronte ideologikoen eta borroka politikoen sare konplexua aztertzeko, Historiaren azterketa guztietan bezala, iturri historiografiko zehatzen erabilera historialarien metodo zientifikora hurbiltzearekin konbinatu behar da. Helburua da, gertaera historikoak ezagututa, edozein pertenentzia- eta nortasun-sentimendu errespetatzen ikastea, baita gure bizikidetza-esparru komunak antolatzen dituzten arauak ere.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE2, KD1, KD3, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII5, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

6. Iberiar Penintsularen balio geoestrategikoa ezagutzea eta Espainiako eta Euskal Herriko Historia garaikidearekin eta nazioarteko panoramarekin lotzea, informazio bibliografikoa eta webgrafikoa bilatuz eta tratatuz, gaur egungo Espainiak munduan duen benetako eginkizuna ulertzeko, baita berak dituen nazioarteko kooperazio-, elkartasun-, europeismo- eta segurtasun-konpromisoen garrantzia ere.

Geografia erabakigarria da historia politikorako; horregatik, Espainiako eta Euskal Herriko historiari buruzko hurbilketa ulergarri batek beren kokapen geografikoaren ikuspegi batetik abiatu behar du, kokapen horrek gizadiaren ibilbide historiko handien eta Mediterraneoan, Atlantikoan eta Europa kontinentalean Iberiar penintsularen inguruan gertatu diren prozesu handien parte izateko aukera eman diola ikusteko. Penintsulak historian zehar izan duen kokapena eta horrek dakarren balio geopolitikoa balioetsi eta interpretatzeak, Aro garaikidean arreta jarriz, ikasleei oraina iraganarekin lotzeko aukera ematen die, Espainiako Estatuak nazioarteko politikan izan dituen iraganeko zein egungo asmo eta betebeharren eta

bilakaera historikoaren zergatia identifikatuz. Izan ere, begirada historiko bat egitean gaur egungo Espainiak eta Euskal Herriak munduan duten rolaren azterketa ere egin behar da, besteak beste, Nazio Batuen Erakundeko, Europar Batasuneko eta NATOko kide izateak dakartzan konpromisoak onartuz, autonomia-erkidegoetan dituzten ondorioak adieraziz eta ekintza humanitarioen eta nazioarteko segurtasunekoen beharra eta garrantzia nabarmenduz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII1.2, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3.

7. Ondare historiko eta kulturalak memoria kolektiboaren legatu eta adierazpen gisa, herentzia material eta immaterial gisa eta Historiaren iturri gisa duen esanahia aintzatestea, lan indibidual edo kolektiboen bidez ikertuz, haren garrantzi kulturalaz eta aniztasunaren aberastasunaz jabetzeko, eta haren kontserbazioa bermatzen duten legeei balioa emateko.

Honela hasten da Espainiako Ondare historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea: *Espainiako Ondare historikoa da espainiarrek zibilizazio unibertsalari egindako ekarpen historikoaren eta gaur egungo sormen-gaitasunaren lekuko nagusia. Hura osatzen duten ondasunak babestea eta aberastea funtsezko betebeharrak dira, eta botere publiko guztiak lotzen dituzte, Konstituzioaren 46. artikuluak haiei ematen dien aginduaren arabera.*

Espainiako eta Euskal Herriko Ondare historiko eta kulturala, gure gizarteak bere bilakaera historikoaren ondorioz sortutako elementu eta adierazpen ukigarri eta ukiezin guztiek osatzen duten iturri historiko eskerga da, non ideien eta sorkuntza materialen erreprodukzioa identifikatzen eta bereizten gaituzten faktore bihurtzen diren. Gaur egungo kultura-ondarearen kontzeptuak barne hartzen ditu, ez bakarrik monumentuak eta iraganeko beste adierazpen batzuk —hala nola guneak, dokumentuak edo artelanak—, baita ondare bizia deritzona ere: herri-kulturaren hainbat adierazpen, hala nola hizkuntzak, herri-arteak, jantziak, ezagutzak, balioak, ohiturak eta tradizioak, etab. Azken horrek barne hartzen ditu ondare intelektuala —hau da, literatura, teoria zientifikoak eta filosofikoak—, erlijioa, erritoak eta musika; baita ahozko historian, musikan eta dantzan adierazten diren portaera-patroiak eta kultura ere. Ondare horren aztarna materialak idazkietan, partituretan, argazki-irudietan edo datu-base informatikoetan gorde daitezke, baina hori lortzea ez da hain erraza, adibidez, ikuskizunetan edo antzezpen- edo interpretazio--estilo jakin baten eboluzio historikoan.

Azterketa- eta ikerketa-lanak egiteak, iturri historiografikoez baliatuz eta metodologia historikoari ekinez, eta memoria kolektiboarekin lotutako produktuak sortzeak —inguruko gizarte- edo kultura-intereseko gertaera, pertsonaia edo ondare- elementuei buruz—, ikasleei lagunduko diete ondare historikoa ondasun amankomun gisa balioesten, bai legeek, bai herritarrok, gure erantzukizun indibiduala onartuz, babestu behar duguna.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE2, KD1, KD2, KD3, KPSII1. 2, KPSII3.2, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

8. Genero-ikuspegia txertatzea Espainiako eta Euskal Herriko Historia garaikidearen eta egungo egoera soziopolitikoaren azterketan, emakumeen eginkizuna aztertuz, iturri historikoak erabiliz eta mugimendu feministei buruzko ikerketa zuzena eginez, historian emakumeen presentzia aitortzeko, oztopoak eta aurrerapen- eta atzerakada-uneak ohartarazteko, eta emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorraren aldeko jarrerak sustatzeko.

Aro Garaikideko Espainiak eta Euskal Herriak ere, gizarte-jokabide orokor gisa, bizitza pribatu eta publikoan emakumearen baztertzea islatu dute. Historikoki, beraien gaitasunak ukatu eta ezkutatu egin dira, eta hori, oraindik ere agerian dago, besteak beste, soldata-arrakalari edota gizarte, politika eta enpresaren arloko goi-karguetan emakumezkoen presentzia urriari erreparatzen bazaie. Historia ikastean, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna sortu eta mantendu duten nagusitasun kultural eta soziopolitikorako mekanismoak identifikatzen dira, eta, horri esker, ezagutzen dira emakumea gizartean eta

politikan aintzatesteko dauden oztopoak eta aurrerapen- eta atzerapen-uneak, eta baloratzen dira emakumearen emantzipazioaren aldeko ekintza guztiak.

Jakintzagai hau aztertzeak, halaber, gizonen eta emakumeen arteko arrakala onartezina murrizteko beharra ulertzen lagundu behar du. Iturri historiografikoetatik eta testu nabarmenen iruzkinetik abiatuta. Historiak, beren generoagatik soilik, bidegabeki isilarazi eta alde batera utzi dituen emakume esanguratsu indibidualak eta kolektiboak berreskuratu nahi dira. Horretaz gain, ikasleengan piztu nahi da, alde batetik, onespenari eta borroka sozialari buruzko hausnarketa eta, bestetik, eremu guztietan jarrera zibilizatuak eta arrazoinamendu kritikoan oinarrituta, emakumearen aurkako diskriminazio-jokabideen aurrean.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII4, HK1, HK3, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

EspainiakoHistoria
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Idatzizko Iturri historikoen iruzkin kritikoen prozesuak fidagarritasunez egitea, informazioa aztertu eta kontrastatu ondoren, haien garaiko testuinguruan kokatuz, eta aurreko eta ondorengo auziekiko zein uneko errealitatearekiko dituen inplikazioen inguruan hausnartuz.
1.2 Metodologia zientifikoak historialarien zereginean duen garrantziaz jabetzea, tokiko ingurunean interesgarriak diren gertakari, pertsonaia edo gertaera historikoei buruzko produktuak sortzen dituzten banakako edo taldeko ikerketa- eta ikerketa-lanak eginez, objektibotasuna eta ikuspegi historikoa islatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1 Zenbait erregimen politikoen eta beraietan herritarrek parte hartzeko moduen eraketa- eta eboluzio-prozesua ezagutzea eta deskribatzea, Espainiako Historia garaikidean zehar, 1978ko Konstituziora arte; etapak ezaugarrituz eta antolaketa politiko desberdinak konparatiboki aztertuz, eta horretarako, jakintzagaiari lotutako terminoak eta kontzeptuak egoki erabiliz.
2.2 Zenbait erregimen politikoen eta beraietan herritarrek parte hartzeko moduen eraketa- eta eboluzio-prozesua ezagutzea eta deskribatzea, Euskal Herriko Historia garaikidean eta 1979ko Autonomia estatutura arte, etapak ezaugarrituz, jakintzagaiari lotutako terminoak eta kontzeptuak egoki erabiliz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1 Antzinako Erregimenaren amaieratik gaur arte Espainiak izan duen bilakaera ekonomikoa ezagutzea eta aztertzea, bere inguruko herrialdeen testuinguruan, kapitalismoaren eta industrializazioaren garapen-prozesu eta erritmoari, eta hazkunde-, krisi- eta berreskurapen-zikloei erreparatuz, eta iturri historiografikoez eta dokumentu historikoen iruzkinez baliatuz.
3.2 Antzinako erregimenaren amaieratik gaur arte Euskal Herriak izan duen bilakaera ekonomikoa ezagutzea eta aztertzea, Espainiako Estatuaren testuinguruan, kapitalismoaren eta industrializazioaren garapen-prozesu eta erritmoari, eta hazkunde-, krisi- eta berreskurapen-zikloei erreparatuz, eta iturri historiografikoez eta dokumentu historikoen iruzkinez baliatuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Antzinako Erregimenaren amaieratik Espainian eta Euskal Herrian izandako gizarte-eraldaketak ezagutzea eta deskribatzea, iturri historikoen eta historiografikoen azterketa kritikoaren bidez, mendeko izatetik herritar izatera igarotzea soziabilitate modu berriekin lotuz, eta gizarte-harremanen eboluzioa eta boterea talde jakin batzuen eskuetan kontzentratzea identifikatuz.
4.2. Aro garaikideko eboluzio demografikoa, eta bizi-maila eta bizimoduetan izandako aldaketak deskribatzea eta aztertzea, lan-baldintzak, gizarte-gatazkak, langileen mugimenduak eta Estatuak ondorengo etapa politikoetan hartutako neurriak kontuan hartuz, baita horren guztiaren ondorioak eta gorabehera ere.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Historia garaikideko sinesmen eta ideologien jatorria eta eboluzioa, eta horiek Espainiako eta Euskal Herriko artikulazio sozial eta politikoarekin duten harremana zorroztasun historikoz adieraztea, zenbait identitate politiko eta lurraldekoak, eta horien antolatzeko moduak eta proiektu politikoak identifikatuz, baita aurre egin dioten aurkaritza ere.

Espainiako Historia
5.2. Identitate desberdinek Espainian eta Euskal Herrian betetzen duten eginkizuna ulertzea, aniztasuna aitortuz eta baloratuz, egungo auziei buruz hausnartuz eta eztabaidatuz, bereak ez diren taldekide izatearen sentimenduen eta norberaren ideiekin bat ez datozenen aurrean errespetuzko jarrerak erakutsiz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Iberiar penintsularen balio geoestrategikoa Espainiako eta Euskal Herriko Historia garaikidearekin eta gaur egun munduan duten zereginarekin lotzea, informazio bibliografikoa eta webgrafikoa bilatuz eta tratatuz.
6.2. Espainiako Estatuak nazioarteko politikan dituen erronkak eta konpromisoak ezagutzea eta azaltzea, bereziki NBEko, EBko eta NATOko kide izatearen ondoriozkoak, horien ondorioak adieraziz eta kooperazio-, elkartasun- eta segurtasunbalioen garrantzia nabarmenduz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Ondare historiko eta kulturalaren kontzeptuaren esanahia modu arrazoituan azaltzea, memoria kolektiboarekin erlazionatuz, historiaren iturri gisa eta herentzia material eta immaterial gisa duen balioa kontuan hartuz, eta haren kontserbazioa bermatzen duten legeak kontsideratuz.
7.2. Azterketa- eta ikerketa-lanak egitea, iturri historiografikoez baliatuz eta metodologia historikoari ekinez, inguruneko gizarte- edo kultura-intereseko gertaera, pertsonaia edo ondare-elementuei buruz memoria kolektiboarekin lotutako produktuak sortuz, ondare historikoa babestu beharreko ondasun komun gisa balioetsita.
8. konpetentzia espezifikoa
8.1. Genero-ikuspegia txertatzea Espainiako eta Euskal Herriko Historia garaikidearen azterketan eta egungo panoramaren behaketan, gizonen eta emakumeen arteko disparekotasuna sortu eta mantendu duten mekanismo kulturalak eta soziopolitikoak identifikatuz, baita bakoitzari esleitutako rolak eta tradizionalki okupatutako jarduera- espazioak ere.
8.2. Emakumeek historian zehar izan duten bazterketaren errealitatea egiaztatzea, iturri historikoak aztertuz, eta emakumeak gizartean eta politikan aitortzeko oztopoak eta aurrerapen- eta atzerapen-uneak ohartaraziz, emakumeen emantzipazioaren eta mugimendu feministaren aldeko ekintza guztiak baloratuz, eta isildutako eta ahaztutako pertsonaia esanguratsuak berreskuratuz, indibidualak zein kolektiboak.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Espainiako Historia
A. Gizarteak denboran zehar
1- Iturri historikoak: tipologia eta horien erabilera zientifiko zuzenaren garrantzia. Artxiboen garrantzia. Historia jakintzagaiaren terminoak eta kontzeptu teknikoak. Testu-iruzkinak.*
2- Eskola historiografikoei eta iraganeko gakoak berreraikitzeko eta interpretatzeko dituzten moduei buruzko sarrera, ekonomiaren, gizartearen, politikaren eta abarren ikuspegitik.
3- Iraganaren eta orainaren arteko lotura. Historiaren erabilera publikoak: egungo gizartearen eztabaidetan agertutako gertaera historikoen azterketa.
4- Iberiar Penintsularen esanahi geoestrategikoa eta ondare historiko eta kulturalaren garrantzia.* Mediterraneoa, Atlantikoa eta Europa kontinentala Historia garaikidearen erroetan.
5- Herentzia koloniala Aro Garaikideko Espainian: kolonien independentzia Fernando VII.aren garaitik, Marokoko auzira arte.*
6- Zentralizazio politiko eta administratiboa XIX. eta XX. mendeetako estatu liberalaren eraketan eta garapenean. Gerra napoleonikoa eta Cadizko Gorteak.*
7- Erlijio-sentimendua Espainian eta Euskal Herrian Aro garaikidean: laikotasuna, libre-pentsamendua, sekularizazioa, klerikalismoa eta antiklerikalismoa.*
8- Estatu liberalaren eraikuntza: Antzinako Erregimenaren krisitik Seiurteko liberalera. Absolutismoa eta Liberalismoa aurrez aurre. Ideologiak eta kultura politikoak Espainian Aro garaikidearen hasieran. Gatazkak, sistema politikoak eta boterearen erabilerak.*
9- Berrezarkuntza-sistema: jatorria, lidergoa, ezaugarriak eta funtzionamendua. Indar monarkikoak, karlismoa, errepublikanismoa eta langile-mugimenduak. Nazionalismoak eta erregionalismoak. Primo de Riveraren diktadura eta Berrezarkuntzaren amaiera.*

Espainiako Historia
10- Euskal lurraldeak Aro garaikidean. Independentzia gerratik Gerra karlistetara: Foru sistema desagerrarazteko prozesua eta Ekonomia itunen sorrera.*
11- Kapitalismorako trantsizioa Espainian: hazkunde-erritmoak eta -zikloak. Mendizabal eta Madoz, Trenbideen legea, Meategien legea eta Kataluniako eta Euskal Herriko industrializazioak. Berrezarkuntzaren egiturak eta Primo de Rivera.*
12- Industrializazioa Euskal Herrian, eraldaketa ekonomiko eta sozialak, eta abertzaletasunaren sorrera.*
13- Aldaketak eta gizartea antolatzeko - modu berriak: estamentuzko gizartearen desagerpena eta herritartasunaren kontzeptuaren garapena. Burgesiaren garaipena eta ondorengo proletarizazio industriala. Erdi-mailako klaseen sorrera eta ongizate-estatua.*
14- Espainiako gizartearen eboluzioa: biztanleria, familiak eta ziklo demografikoak landa-munduan eta hiri-munduan.* Landaren eta hiriaren arteko interdependentzia- eta elkarrekikotasun-harremanak. Nekazaritza-gizartetik landa- exodoetara eta gaur egun Espainia hustua deritzonera. Hiri-fenomenoa Espainia garaikidean.
15- Gizarte-gatazkak eta langile-mugimenduak. Marxismoa eta Anarkismoa Espainia garaikidean. Subjektu kolektiboaren ekintza Historian 1890eko grebaz geroztik. Estatuaren erantzunak.*
16- II. Errepublika eta Espainiaren eraldaketa demokratikoa: egiturazko erreforma handiak eta horien arrazoi historikoak. Alternantzia politikoa. Gizartearen polarizazioa eta erreformen aurkako erreakzio antidemokratikoak. Armadaren eta Elizaren papera.*
17- 1936-39ko Gerra zibila eta Frankismoa. Erregimen frankistaren oinarri ideologikoak eta sozialak, nazioarteko harremanak eta etapa politiko eta ekonomikoak. Oposizioa, errepresioa eta diktaduraren aurkako protesta-mugimenduak.*
18- Politika ekonomikoak XX. mendean: II. Errepublika, Gerra zibila eta Autarkia eta *desarrollismo* frankista: ongizate-estatuaren eraketa.*
19- Emakumeen papera Espainiaren Historia garaikidean: hezkuntza, eta lana eta boterea eskuratzeko aukera gizarte-mailaren arabera. Emakume protagonistak, indibidualak eta kolektiboak.*
B. Egungo munduaren erronkak
1- Memoria demokratikoaren legea: Espainiako Historia garaikidean askatasunaren aldeko ekintza eta mugimenduen errekonozimendua, iraganeko gertaera traumatikoen eta indarkeriazko egoera mingarriak ez errepikatzearen kontzientzia. Indarkeriaren biktimen erreparazioa.*
2- Auzi nazionala: Espainia garaikidean nazionalismoen eta erregionalismoen jatorriari eta eboluzioari heltzeko, kontzientzia historikoa eta iturrien kritika.*
3- Hazkunde ekonomikoa eta iraunkortasuna: datuen, aplikazioen eta grafikoen erabilera, Espainiako ekonomiak *Desarrollismo*tik gaur egunera arte izan duen eboluzioa aztertzeko. Gizarte-, lurralde- eta ingurumen-desorekak.*
4- Trantsizioa: Erreforma politikorako legetik 1978ko Konstituziora. Autonomien estatua, sufragio unibertsal demokratikoa, oposizio bortitza eta adostasun politiko-soziala. Moncloako itunak. Emakumeen emantzipazioaren aldeko borroka eta mugimendu feministak 1978az geroztik.*
5- Euskal Herriko antolaketaren eta administrazioaren oinarrizko elementuak Espainiako estatuaren testuinguruan: autogobernuaren iturriak eta 1979ko Autonomia estatutua. 1982ko Nafarroako estatutua.*
6- Espainia Europar Batasunean: Europar Batasunean integratzeko prozesuaren ondorio ekonomiko, sozial eta politikoak, egungo egoera eta etorkizunerako itxaropenak.
7- Espainia eta mundua: Espainiak munduko segurtasunari eta kooperazioari egiten dion ekarpena eta nazioarteko erakundeetan duen partaidetza. Erakundeek Garapen Iraunkorrerako Helburuen aurrean duten konpromisoa eta horrek herritarren bizitzan dituen ondorioak.
C. Konpromiso zibikoa
1- Kontzientzia demokratikoa. Konstituzioaren printzipioen eta arauen ezagutza, balio zibikoen erabilera eta herritarren parte-hartzea: eskubideak eta betebeharrak.
2- Nortasuna eta kide izatearen sentimenduak: estatuaren eta nazioaren arteko bereizketa eta Espainiaren konplexutasunaren ezagutza.*
3- Portaera ekosoziala: Garapen Iraunkorrerako Helburuekiko konpromisoa.
4- Herritartasun etikoa ingurune analogiko eta digitaletan: egile-eskubideak eta jabetza intelektualarekiko errespetua. Informazioa, desinformazioa eta manipulazioa.*

Espainiako Historia
5- Europeismoaren balioak: Europar Batasunaren ideia gidatzen duten printzipioak eta Erkidegoko programen eta proiektuen aurrean jarrera parte-hartzailea.
6- Elkartasuna eta kooperazioa: Espainiari eta munduari eragiten dieten erronka handiak eta konpromiso sozialera, asoziazionismora eta boluntariotzara bideratutako jokabideak.
7- Ondare historikoaren kontserbazioa eta zabaltzea: artxiboak, museoak eta interpretazio-zentroak. Memoria kolektiboaren ondare-, gizarte- eta kultura-balioa.*

EUSKARA ETA LITERATURA ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA

EAEko eskola-instituzioaren lehentasunezko helburuetako bat ikasle elebidunak lortzea da, bi hizkuntza koofizialetan. Helburu hori lortzeko, eskolak euskararen erabilera sustatu behar du komunikazio-hizkuntza eta haren normalizazioa bultzatu behar du, presentzia sozial zuzena lortzeko. Gainera, euskara euskal kulturaren ezaugarri bereizgarri nagusia denez gero, ezin da bere kultura-testuingurutik kanpo garatu eta ikasi. Izan ere, kulturek gizarte-loturak sortzeko ahalmena dute, eta haien askotariko adierazpenak komunitateen kohesioa bultzatzen duten ezaugarri bereizgarriak dira.

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura curriculum bateratua ikasle guztiei EAEko bi hizkuntza koofizialak menderatzeko aukera eta haien erabilera egokia eta eraginkorra bermatzeko diseinatu da. Bi jakintzagaiak curriculum bakarrean bateratzearen eta programazio adostu bat lantzearen ondorioz, hizkuntza-ikaskuntzak emankorragoak izango dira bi hizkuntzetan. Etapa honetan, gainera, beharrezkoa izango da ikasleek ikastetxeko beste hizkuntzetan (atzerriko lehen edo bigarren hizkuntzan eta/edo hizkuntza klasikoetan) egiten dituzten ikaskuntzen transferentzia sustatzea eta hizkuntzen arteko gogoeta bultzatzea, ikasleek konpetentzia eleaniztuna ahalik eta gehien gara dezaten.

Bi jakintzagai horiek, hizkuntzen erabileraren, haiei buruzko gogoetaren eta literaturaren ikaskuntza eta gozamenaren bidez, XXI. mendeko herritarrak prestatzen laguntzen dute. Herritar horiek osatuko duten gizarteak pertsona kultuak, kritikoak eta ongi informatuak beharko ditu, hitzak eraginkortasunez eta etikoki erabiltzeko gai izango direnak, desberdintasunak errespetatuko dituztenak, herritartasun digital aktiboa eta segurua gauzatzeko trebeak, informazioa eskuratzeko, informazio hori ezagutza bihurtzeko, beren kabuz ikasteko eta taldean egiteko gaitasuna izango dutenak, sortzaileak eta ekintzaileak, eta garapen iraunkorrarekin, arte- eta kultura-ondarearen zaintzarekin eta bizikidetza baketsu, berdintasunezko eta demokratikoarekin konprometituak. Hortaz, jakintzagaia lagungarria izango da Batxilergoaren amaieran funtsezko konpetentziak garatzeko eta eskuratzeko. Gainera, hizkuntza- eta literatura-hezkuntzak gazteen heldutasun pertsonala eta intelektuala lortzen eta goi-mailako prestakuntzara eta lanbide-etorkizunera trebetasunez iristen laguntzen du.

Hizkuntza-jakintzagaien komunikazio-izaera eta izaera instrumentala dela eta, nabaria da gainerako jakintzagaiei egiten dien ekarpena. Hizkuntza erabiltzen ikastea problemak aztertzen eta ebazten, planak egiten, erabaki-prozesuei ekiten eta komunikazio-egoera bakoitzerako estrategia egokiak erabiltzen ikastea ere bada. Ikasleek, edukiez gain, ezagutza-esparru bakoitzaren berezko adierazpen motak ikasi behar dituzte. Beraz, hizkuntza-jakintzagaiak garatzeak gainerako jakintzagaiak garatzen laguntzen du, eta alderantziz. Edukia eta hizkuntza integratu egin behar dira, eta, ildo horretan, ikaskuntza-egoeren bidez planteatutako diziplinarteko lana ezinbestekoa da ikasleek jakintzagai bakoitzaren berezko diskurtso-generoak barneratzeko eta XXI. mendeko gizartearen erronkak islatuko dituzten beste batzuk kritikoki aztertzeko. Horri dagokionez, eskolako liburutegia funtsezkoa da kultura-, ikerketa- eta ikaskuntza-espazio gisa eta baliabideen, prestakuntzaren eta koordinazioaren gune gisa.

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura curriculumaren ardatza hamar konpetentzia espezifikoz osatuta dago. Lehenak munduko hizkuntza- eta dialekto-aniztasunaren ezagutzan eta hari buruzko gogoetan sakontzen du elebitasun asimetriko bat duen EAEko testuinguru eleaniztun konplexu bereizgarrian oinarrituta, aniztasun horrekiko —oro har— eta euskararen normalizazio-prozesuarekiko —be-

reziki— estimazio-jarrerak bultzatzeko, hizkuntza-aurreiritziei eta hizkuntza-estereotipoei aurre egiteko eta hizkuntzen arteko gogoeta sustatzeko. Bigarren eta hirugarren konpetentzia espezifikoak ahozko komunikazioari lotuta daude. Ildo horretan, EAEko egoera soziolinguistikoa dela eta, beharrezkoa da euskarazko ahozko komunikazioa sustatzea, euskararen gizarte-erabilerari laguntzeko eta normalizazio-prozesua bultzatzeko. Laugarren konpetentzia espezifikoa irakurmenari lotuta dago, bosgarrena idazmenari, eta seigarrena informazio-alfabetatzeari. Zazpigarren eta zortzigarren konpetentzia espezifikoetan, literatura-irakurketa lantzen da, autonomoa zein gidatua. Bederatzigarrenak, berriz, hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta du ardatz, eta hamargarrena, azkenik, komunikazioaren etikari lotuta dago eta guztien zeharkakoa da.

Oinarrizko jakintzak lau multzotan antolatuta daude:

– *Hizkuntzak eta hiztunak:* hizkuntza-aniztasunaren ezagutzan sakontzen du, kontaktuan dauden hizkuntzen artean gertatzen diren fenomenoak eta dialekto, soziolekto eta erregistroen arteko desberdintasunak azpimarratuz, hizkuntza-aurreiritziei eta hizkuntza-estereotipoei behar bezala argudiatuta aurre egiteko.

– *Komunikazioa*: ahozko eta idatzizko komunikazioan eta informazio-alfabetatzean eta alfabetatze mediatikoan inplikatutako jakintzak biltzen ditu, eta testuak (akademikoak eta komunikabideetakoak funtsean) sortu, jaso eta kritikoki aztertzeko zereginen inguruan egituratzen ditu.

– *Literatura-hezkuntza*: irakurtzeko ohitura indartzeko, irakurketa-identitatea osatzeko, literatura-testuen interpretaziorako trebetasunak garatzeko, testu horiei buruzko balorazio argudiatuak adierazteko eta euskarazko eta gaztelaniazko literaturako obra garrantzitsu batzuk sakonean irakurtzearen bidez testuen bilakaera, konfigurazioa eta haien arteko erlazioa ezagutzeko beharrezkoak diren jakintzak eta esperientziak biltzen ditu.

– *Hizkuntzari buruzko gogoeta*: gramatikaren ikaskuntza sistematikoan sakontzen du ikerketa-prozesuen bidez, eta lotura bat ezartzen du ezagutza gramatikal esplizituaren eta hizkuntzaren erabileraren artean, gogoeta egitearen eta ondorioak metahizkuntza egokiarekin komunikatzearen bidez.

Aurreko etaparekiko sakontzea honako hauetan oinarritzen da: errealitatea aztertzeko kontzientzia teoriko eta metodologiko handiagoa, ezagutza multzo handiagoaren mobilizazioa, testuen, beharrezkoak diren ekoizpen- edo interpretazio-trebetasunen eta erabilerei buruzko gogoetarako beharrezkoa den metahizkuntzaren konplexutasunaren gradazioa, eta ikasleei emandako autonomia-maila handiagoa. Hori dela eta, oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak etapa honetako bi mailei dagozkie, Euskara eta Literatura I eta Gaztelania eta Literatura I, eta Euskara eta Literatura II eta Gaztelania eta Literatura II jakintzagaien berezkoak salbuetsita.

Azkenik, eskola-testuinguruen hizkuntza-aniztasuna, ikasle elebidunak lortzeko helburua eta hezkuntza eleaniztunaren beharra direla eta, hizkuntzen tratamendu bateratua ezinbestekoa da hizkuntzen arteko gogoeta sustatzeko eta askotan bi hizkuntza edo gehiago aldi berean erabiltzea eskatzen duten gizarte-erabilera errealetara hurbiltzeko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Munduko hizkuntza-aniztasuna azaltzea eta balioestea, EAEko eta inguruneko errealitate elebidun eta eleaniztunaren ezagutzatik, euskararen eta gaztelaniaren dialekto-aberastasunaren ezagutzatik eta hizkuntzen arteko kontaktuari lotutako fenomenoei buruzko gogoetatik abiatuz, hizkuntzen arteko gogoeta bultzatzeko, hizkuntza-estereotipoak eta hizkuntza-aurreiritziak ezeztatzeko, aniztasun hori kultura-ondarearen iturri gisa baloratzeko eta euskararen erabilerarekiko portaera asertiboak sustatzeko.

Hizkuntza-aniztasuna egungo munduaren funtsezko ezaugarri bat da. Errealitate horri gehitu behar zaio hizkuntza edo dialekto desberdinetan hitz egiten duten gazteak ere baditugula gure ikasgeletan. Euskal eskolak, elebitasuna bermatzeko erronkari aurre egiteaz gain, pertsona eleaniztunak lortu behar ditu.

Sistema eleaniztun horrek euskara du ardatz, gaur egun bi hizkuntza ofizialen artean dagoen desoreka (euskararen aurkakoa) gainditzeko eta bi hizkuntzen arteko gizarte-berdintasuna eta ikasleen aukera-berdintasuna sustatzeko. Horregatik, eta eskola euskararen eta hizkuntza horri lotutako kulturaren funtsezko gunea izan dadin, koherentziaz jardun behar dute hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek, eta euskararen ohiko erabilera normalizatua ziurtatu behar da esparru formalean eta informalean, barneko zein kanpoko jardueretan eta, oro har, eskola-jarduketetan. Hizkuntza-eskolek hizkuntza-aniztasun hori baliatu behar dute aniztasun horren ondoriozko kultura-esanahiak baloratzeko, hizkuntza-aurreiritziak saihesteko eta hizkuntzen eta haien aldaeren funtzionamenduaren ezagutzan sakontzeko. Era horretan, hizkuntzen arteko gogoeta eta beste hizkuntza batzuetako hiztunekiko komunikazioa erraztuko da. Konpetentzia honen garapena, beraz, ez da mugatzen gure inguruko hizkuntzak eta dialektoak mapa batean kokatzera eta aniztasunaren arrazoi historikoak ikaskuntzaren azken helburu gisa ikastera. Aitzitik, hurbilketa hori hizkuntza- eta dialekto-aniztasuna islatuko duten izaera sozial eta kulturaleko ahozko testuei, idatzizkoei eta multimodalei buruzko azterketaren eta elkarrizketaren bidez egin behar da. Jakintzagai hauen ikaskuntzaren xede diren hizkuntzen kasuan, ikasleek honako hauek ezagutu eta baloratu behar dituzte: euskararen milaka urteko historia, euskarak kultura-ondareari egindako ekarpena, euskararen aniztasuna, erakundeek eta kolektiboek hizkuntzaren batasuna sustatzeko, euskalkietako hiztunen arteko komunikazioa errazteko eta euskararen iraupena zaintzeko egindako ahaleginak euskara *batua* sortzearen bidez, eta hizkuntzaren egungo egoera soziolinguistikoa. Ikasleek, gainera, euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa agertu behar dute, gure erkidegoko kultura-ondarea zaintzen laguntzeko. Gaztelania, bestalde, hizkuntza unibertsala eta polizentrikoa da, eta oso dialekto-aniztasun handia du. Heterogeneotasuna, beraz, bi hizkuntzen ezaugarria da. Hala ere, aldaera geografikoetako ezein ez da hartu behar bestea baino hobetzat, bakoitzak bere arau kultua baitu.

Ikasleek, gainera, hizkuntzen aniztasun geografikoari lotutako ezaugarriak eta soziolektoari edo hiztun batek komunikazio-egoera desberdinetara egokitzeko erabiltzen dituen erregistroei lotutako beste ezaugarri batzuk bereizten ikasi behar dute.

Azkenik, ikaskuntza hori guztia hizkuntzen arteko kontaktuaren esparruan gertatzen diren fenomenoen eta hizkuntza-bizikidetzako ereduek horren inguruan izan ditzaketen ondorioen ulermen kritikoan oinarritu dadin bultzatu behar da. Horren guztiaren azken helburua herritartasun sentsibilizatua, informatua eta hizkuntza-eskubide indibidual eta kolektiboekin eta hizkuntza gutxituen defentsarekin konprometitua sustatzea izango da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2.

2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, testu akademikoak eta komunikabideetakoak bereziki kontuan hartuz, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena jasoz, igorlearen ikuspuntua eta asmoa identifikatuz eta testu horien fidagarritasuna, forma eta edukia baloratuz, ezagutza eraikitzeko, iritzia osatzeko eta gozamen- eta aisia-aukerak zabaltzeko.

Ahozko ulermenerako estrategiak garatzeak komunikazioa asmoak interpretatzeko etengabeko prozesutzat hartzea dakar. Prozesu horretan, solaskideen arteko ezagutza partekatuak eta testuaren esanahiaz haratago joateko eta haren zentzua interpretatzeko aukera ematen duten testuinguru-elementu eta elementu kotestual guztiek esku hartzen dute. Ahozko mezuak ulertu eta interpretatzeko irakatsi eta ikasi beharreko trebetasun espezifikoak behar dira, oinarrizkoenekin hasi (edukia aurreratzea, informazio garrantzitsua helburuaren beraren arabera gordetzea, gertakariak eta iritziak bereiztea edo diskurtsoaren zentzu orokorra eta zatien arteko erlazioa ulertzea) eta aurreratuenekin amaitzeraino (igorlearen asmoa identifikatzea, prozedura erretorikoak aztertzea, argudioetako gezurrak antzematea edo testuaren fidagarritasuna, forma eta edukia baloratzea, besteak beste).

Etapa honetan, espezializazio-maila handiagoko testu akademikoak eta komunikabideetakoak erabiltzen dira ahozko ulermenerako estrategiak garatzeko. Horretarako, beharrezkoa da diskurtso-genero berrietara hurbiltzea, aldez aurreko ezagutzen eta testua ulertzeko behar direnen arteko aldea desagerraraz-

tea ahalbidetuko duten estrategiak zabaltzea, eta teknizismo, mailegu eta erdarakada ugariz osatutako lexikoarekin ohitzea. Garrantzi sozial eta zientifikoko eta euskal kultura-ondarearen inguruko gaiei lotuta dauden ahozko diskurtsoak presentzialki edo kanal digitalen bitartez txertatzea funtsezkoa da ikasleak bizitza sozialean aktiboki parte hartzeko zein ondorengo garapen akademiko eta profesionalerako prestatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK2, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, HK3.

3. Ahozko testuak eta testu multimodalak zehaztasun, jariakortsaun, koherentzia, kohesio eta erregistro egokiarekin sortzea, testu akademikoei lehentasun berezia emanez eta diskurtso-genero desberdinen berezko konbentzioak kontuan hartuz, eta ahozko interakzioetan errespetuz eta kooperazioan parte hartzea, ezagutza eraiki eta lotura pertsonalak ezartzeko zein gizarte-testuinguru desberdinetan era aktibo eta informatuan esku hartzeko.

Etapa honetan, arreta berezia jarriko zaie solaskideen artean distantzia soziala handiagoa den egoera publikoei. Egoera horietan, hizkuntza-erabilera landuagoak, erregistro formalak eta hitzik gabeko komunikazioarekin zerikusia duen guztiaren kontrol kontzientea behar dira. Ahozko ekoizpen formalari lotutako trebetasunak, testuinguru analogikoetan zein digitaletan, funtsezkoak izango dira ondorengo garapen akademiko eta profesionalerako. Beharrezkoa izango da diskurtso-genero espezifikoen gakoak ezagutzea eta ikasleei herritarrentzat, zientifikoki edo kulturalki garrantzitsuak diren edota curriculum-edukiei lotuta dauden gaiei buruzko ahozko ekoizpenak aldizka egitea ahalbidetuko dieten ikaskuntza-egoerak proposatzea. Sekuentzia didaktiko horiek modu errekurtsiboan eta elkarlanean erantzungo diete prozesuaren hurrengo faseei (plangintza, ekoizpena, saiakuntza eta berrikuspena), azken produktura iritsi arte.

Ahozko interakzioetan hizkuntza-kontzientzia handiagoa izatea ezinbesteko baldintza da gizarte demokratikoetan modu aktibo, konprometitu eta etikoan parte hartzeko. Ahozko erabilerak komunikazio-xedera egokitzea eta solaskidearengan dituzten ondorioak neurtzea funtsezkoa da elkarrekiko errespetuan eta zaintzan oinarrituta egongo den eta erabilera diskriminatzaileak eta sexistak saihestuko dituen komunikazio eraginkor baterako. Hizkuntza-eskolek gizarte- edo hezkuntza-esparruen berezko testuinguruak (parte-hartzean oinarritutakoak) ahalbidetu behar dituzte, ikasleek hitza hartu ahal izan dezaten eta entzute aktiboko, elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-adeitasuneko estrategiak garatu ahal izan ditzaten. Berariazko gaitasun hori garatzeak garrantzi berezia du Euskara eta Literatura irakasgaian, ikasleek ikasiko dituzten jakintzagaiak ondo ikasteko. Euskal eskolaren kasuan, gainera, euskarak gizartean duen presentzia txikiagoa konpentsatu behar da, eskola-inguruneko hainbat testuingurutan euskararen erabilera bultzatuz. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek formatu berriak eskaintzen dituzte ahozko komunikazio multimodal, sinkrono edo asinkronorako, eta ikasleen ahozko ekoizpenak erregistratzea ahalbidetzen dute, testuinguru errealetan zabaltzeko eta, geroago, aztertu, berrikusi eta ebaluatzeko (autoebaluazioa eta koebaluazioa).

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII5, HK2, EK3.

4. Idatzizko testuak zentzu kritikoarekin eta hainbat irakurketa-xederekin ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, testu akademikoei eta komunikabideetakoei arreta berezia eskainiz, zentzu orokorra eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutuz, informazio esplizitua txertatuz eta beharrezkoak diren inferentziak eginez, igorlearen asmoa identifikatuz, edukiari eta formari buruzko gogoeta eginez eta kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatuz, ezagutza eraikitzeko eta askotariko komunikazio-beharrei eta komunikazio-interesei erantzuteko.

Etapa honetan, espezializazio-maila handiko testu akademikoak eta garrantzi sozial, zientifiko eta kulturaleko gaiak lantzen dituzten komunikabideetako testuak erabiliko dira irakurmenerako estrategiak garatzeko. Testu akademikoak irakurri eta interpretatzeko, beharrezkoa da diskurtso-genero berrietara hur-

biltzea, aldez aurreko ezagutzen eta testuak ematen dituenen arteko distantzia desagerraraztea ahalbidetuko duten estrategiak zabaltzea, eta askotan teknikoa den eta mailegu eta erdarakada ugariz osatuta dagoen lexikoarekin ohitzea.

Bestalde, kazetaritza-testuak irakurri, interpretatu eta baloratzeko, testu horiei zentzua ematea eta alborapen ideologikoak detektatzea ahalbidetzen duten testuinguru-gakoak ezagutu behar dira. Horrela egin ezean, irakurlea esandakoaren hitzez hitzezko interpretaziora mugatuta geratuko da, eta ez da gai izango ironiak, zeharkako aipamenak edo zentzu bikoitzak hautemateko edo egilearen komunikazio-asmoa neurtzeko. Hortaz, Batxilergoan irakurtzeko konpetentzia garatzeko, beharrezkoa da irakurtzeko motibazioa, konpromisoa eta jardunbideak azpimarratzea eta irakurtzeko ekintzaren aurretik, bitartean eta ondoren zabaldu behar diren estrategiak ezagutu eta erabiltzea, askotariko iturriak erabiltzeko arintasunaren garapena bereziki kontuan hartuz, testu jakin baterako beharrezkoak diren aldez aurreko ezagutzarik eza konpentsatu ahal izateko eta fidagarritasuna bermatu edota iturrien helburua argitu ahal izateko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD1, KPSII4, HK3.

5. Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, esparru akademikoko diskurtso-generoak bereziki kontuan hartuz, ezagutza eraikitzeko eta komunikazio-eskari zehatzei erantzun informatua, eraginkorra eta sormenezkoa emateko.

Gaur egun, idazten jakiteak euskarri eta formatu desberdinetan idazten jakitea esan nahi du (euskarri eta formatu horietako asko hipertestualak eta multimodalak dira), eta erabilera-esparruen (diskurtso-generoen) berezko idatzizko komunikazio-jardunak gauzatzeko «moldeak» ezagutu eta eskuratu behar dira. Batxilergoan, bereziki garrantzitsuak dira genero akademikoak (mintzaldiak, saiakerak, txostenak edo iruzkin kritikoak, besteak beste), hainbat ikuspegi, jakintza-alor edo diziplina bateratu behar baitira. Ikasleek, beraz, trebetasunez erabili behar dute informazioaren eta iritziaren txandakatzea (kontsultatutako iturriak kontsignatuz), eta azalpen-argitasun egokia agertzen saiatu behar dute, nolabaiteko estilo-bokazioarekin. Ikasleek, azken batean, zentzuen eraikuntza kolektiboaren parte izateak dakarren erantzukizunaz jabetu behar dute, ikuspuntu kultural eta etikotik abiatuta.

Idatzizko testu baten konposizioak (bakarka edo modu kolaboratiboan egindakoa) erregistroaren koherentzia, kohesioa eta egokitasuna zein zehaztasun lexikoa eta zuzentasun gramatikala eta ortografikoa hartu behar ditu kontuan. Halaber, diskurtsoaren hizkerari eta pertsonak (igorlea eta hartzaileak) diskurtsoan txertatzeko moduari buruzko erabakiak hartu beharko dira. Gainera, funtsezkoa da hizkuntzari eta estiloari arreta jartzea. Hortaz, hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta esplizitua eta erabilera testualetan duen proiekzioa bereizezinak dira. Hori dela eta, idazten irakatsi eta ikasteko prozesuaren barruan, arretaz eta modu jarraituan esku hartu behar da ikasgelan, eta ekoizpenak etengabe berrikusi behar dira ebaluazio eta koebaluazioko tresnen bidez.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII5, HK2, EK3.

6. Hainbat iturritako informazioa hautatzea eta egiaztatzea, haren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera ebaluatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuz, eta informazio hori integratzea eta ezagutza bihurtzea komunikatu ahal izateko, ikuspuntu kritiko eta pertsonala eta, aldi berean, jabetza intelektuala errespetatuko duena agertuz, bereziki curriculumeko gaiei edota irakurritako literatura-obrei lotutakoei buruzko ikerketa-lanen esparruan.

Informazioaren ekoizpena, ugaritzea eta banaketa egungo gizarteak eratzen dituen printzipioa da, baina informazioaren eskuragarritasunak ez du ezagutza berez bermatzen. Hori dela eta, ezinbestekoa da ikasleek informazioa ezagutza bihurtzeko abileziak eta trebetasunak eskuratzea, eta jakitea informazio hori noiz behar den, non bilatu behar den eta nola kudeatu, ebaluatu eta komunikatu behar den, ikuspuntu kritiko eta pertsonal bat hartuz eta jabetza intelektualarekin eta identitate digitalarekin jarrera etiko eta arduratsu bat agertuz. Alfabetatze Mediatiko eta Informazionalaren (AMI) aldeko apustua da. Horrek

teknologien erabilera arduratsua dakar, informazio partzial edo faltsuen detekzioa, iturrien etengabeko ebaluazioa, erabilera-denborak eta autorregulazioa bereziki kontuan hartuta.

Saiatu beharra dago ikasleek, bakarka edo kooperazioan, informazio-iturri fidagarriak, seguruak eta askotarikoak testuinguru sozialetan edo akademikoetan kontsultatu ditzaten, curriculumeko edo irakurritako beste literatura-obra batzuetako gaiei buruzko ikerketa-lanak edo ikerketa-proiektuak egiteko. Ikerketa-prozesu horietan, informazioaren plangintza, kudeaketa eta biltegiratzea era autonomoan egin behar da behar bezala berreskuratzeko, eta ezarritako aurkezpen-konbentzioei jarraitu behar zaie (aurkibidea, epigrafeetan oinarritutako antolaketa, aipamenak egiteko prozedurak, oin-oharrak, bibliografia eta webgrafia). Era berean, sormena garatu behar da eta testuingurura egokitu beharra dago ikaskuntza berria zabaltzean. Eskolako liburutegia edo mediateka, sormenezko ikaskuntza-espazioa den aldetik, ingurune aproposa izango da konpetentzia hau eskuratzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK3, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII4, HK2, EK3.

7. Literatura garaikideko obra garrantzitsuak plazer- eta ezagutza-iturri gisa autonomiaz hautatzea eta irakurtzea, obren aniztasunari, konplexutasunari eta kalitateari dagokienez bilakaera bat izango duen irakurketa-ibilbide bat konfiguratuz, eta irakurketa-esperientziak partekatzea, irakurketa-identitatea bera eraikitzeko eta irakurketaren gizarte-dimentsioaz gozatzeko.

Konpetentzia hau garatzeak autonomia sendotzeko eta irakurketa-identitatea bera eraikitzeko bidean aurrera egitea dakar. Ildo horretan, aldizkako denbora jarraitu bat eskaini behar zaio bakarkako irakurketari, eta irakurritako testuen artean loturak ezartzea erraztuko duten bakarkako edo taldeko gogoeta-uneak (hala nola solasaldi dialogikoen bidez) ahalbidetu behar dira.

Horretarako, aintzat hartutako testuen aniztasuna, konplexutasuna eta gozatzeko moduak —egungo literatura mota inprimatu eta digitalekiko eta sortzen ari diren kultura-jardunekiko kontaktua barne— eta irakurketa-esperientzia adierazteko gaitasuna zabaldu behar dira. Xedea da entretenimendu soilarekin eta argudioetan oinarritutako irakurketarekin lotura txikiagoa izango duten eta literaturaren hautemate estetikora bideratuta egongo diren irakurketa autonomoen corpus baterako urrats bat egitea. Hortaz, obrei buruzko balio-iritziak askoz elementu gehiago izango ditu oinarri, testuartekotasunaren identifikazioa barne, eta irakurritako obren inguruko saiakeren ikerketa, irakurketa eta ekoizpena jasoko ditu.

Konpetentzia hau lagungarria da ikasleek honako hauek ahalbidetzen dituen literatura- eta kultura-jakintza bat eskuratzeko: irakurketa gidatuen eta autonomoen arteko erlazioak ezartzea, irakurritako obrei buruz ikertzea, testuak ulertu eta interpretatzeko norberaren irakurketa- eta kultura-esperientzia mobilizatzea, testuak beren ekoizpenaren testuinguruan eta inskribatuta dauden kultura-formetan kokatzea, eta obrak sortzeko oinarri diren konbentzioen funtzioak eta eraginak ulertzea. Helburu hori lortzeko, funtsezkoa da testuen corpus bat konfiguratzea. Corpus horretan, euskal kultura-ondareari lotutako obrak ugari izango dira, eta emakume idazleen kopurua esanguratsua izango da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KD2, KD3, KPSII1.1, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2.

8. Euskal Herriko, Espainiako eta Hispanoamerikako literaturako obra garrantzitsuak irakurtzea, interpretatzea eta baloratzea, metahizkuntza espezifiko bat erabiliz eta esperientzia biografikoa eta literatura- eta kultura-ezagutzak mobilizatuz, askotariko testuen eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuen arteko loturak ezartzeko, kultura-mapa bat osatzeko, literaturaz gozatzeko aukerak zabaltzeko eta literatura-asmoko testuak sortzeko.

Konpetentzia honek ondoko interpretazio-trebetasunak garatzeko funtzioa betetzen du: literatura-ondareko obra garrantzitsuak irakurtzea; irakurketei buruz argudiatuz balio-iritzi bat hitzez adieraztea; eta eremu nazionalak, Europakoak eta unibertsalak uztartzeko eta literatura-obrak beste adierazpen artistiko eta kultural batzuekin lotzeko kultura-mapa bat eraikitzea. Irakurtzean gozamen kontzientea eta landua lortzeko, beharrezkoa izango da irakurketa gidatuekin aurrera egiteko prestakuntza-ibilbideak

ezartzea. Ibilbide horietan oinarrituta, literatura-fenomenoaren funtzionamendua ulertu, historikotasun nozioan eta testuen arteko hierarkia nozioan sakondu eta ikaskuntza ikerketa-prozesuetan eta obren interpretazioaren eraikuntza partekatuko prozesuetan oinarritu ahal izango da.

Helburua ez da entziklopedia-asmoko literaturaren historia bati ekitea, ikasgelan modu gidatu eta partekatuan irakurriko diren obra kopuru txiki bat hautatzea baizik. Literatura-fenomenoaren bilakaerari eta obren arteko loturari buruzko ikerketa bultzatzeko, aukeratutako izenburuei hainbat testu gaineratuko zaizkie. Testu horiek obren testuinguru historikoa eta kulturala zein literatura-tradizioan duten lekua, haien interpretazioen historia eta beste forma artistiko klasiko eta egungo batzuekiko elkarrizketa ulertzen lagunduko dute. Azken batean, ikasgelan modu gidatu eta partekatuan irakurtzeko literatura-ondareko obra garrantzitsu batzuk —emakume idazleen obrak barne— hautatu behar dira, literaturaren eraikuntza eta funtzionamenduaren zein beste testu batzuekin eta ekoizpen-testuinguruko balio ideologiko eta estetikoekin ezartzen diren erlazioen eta oraina argitzeko eta azaltzeko duten ahalmenaren elementu garrantzitsuak erakusteko. Halaber, literatura-testuak estilo-kontzientziarekin sortzea bultzatu behar da, generoen konbentzio formalak errespetatuz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.

9. Hizkuntzaren egiturari eta erabilerei buruzko ezagutza esplizitu eta sistematikoa sendotzea eta horretan sakontzea, eta terminologia egokiarekin egin beharreko hizkuntza- eta diskurtso-aukeraketei buruz era autonomoan gogoeta egitea, hizkuntza-kontzientzia garatzeko, komunikazio-errepertorioa handitzeko eta ahozko eta idatzizko trebetasunak zein ulermen eta interpretazio kritikorako trebetasunak hobetzeko.

Hizkuntzaren azterketa sistematikoa baliagarria izan dadin, ikasleen metahizkuntzazko konpetentzia sustatu behar du, eta hiztunen berezko erabilera errealekin eta testuingurukoekin lotu behar du. Metahizkuntzazko gogoetak ikasleek hizkuntzaren erabiltzaile gisa duten ezagutza intuitiboan oinarritu behar du, eta zubiak ezarri behar ditu hizkuntzaren ezagutza sistematikoarekin. Horretarako, terminologia espezifikoa erabili behar da, eta maila morfosintaktikoa, semantikoa eta pragmatikoa bateratu behar dira hizkuntza-formak aztertzean.

Beraz, gramatikaren ikaskuntza egituratuari ekin behar zaio ikerketa-prozesuen bidez, eta lotura bat ezarri behar da ezagutza gramatikal esplizituaren eta hizkuntzaren erabileraren artean, gogoetatik eta ikerketa-proiektu txikietatik abiatuta. Horretarako, esanahiaren behaketatik eta hizkuntza-formek diskurtsoan betetzen duten funtziotik abiatu beharra dago, honako hauetan oinarrituta orokortzera eta sistematizaziora iristeko: enuntziatuen manipulazioa, perpausen arteko kontrastea, hipotesi eta arauen formulazioa, kontradibideen erabilera edo beste hizkuntza-fenomeno batzuekiko lotura. Halaber, emaitzak metahizkuntza egokiarekin komunikatu behar dira. Azken batean, metahizkuntzazko eta hizkuntzen arteko gogoeta sustatu behar da, ikasleek hizkuntzaren inguruan pentsatu eta hitz egin dezaten, ezagutza horrek norberaren ekoizpenen hobekuntza eta besteen ekoizpenen ulermen eta interpretazio kritiko hobea eragin ditzan eta, aldi berean, hizkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko ezagutza esplizitu bat pixkanaka eraikitzea ahalbidetu dezan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII5.

10. Komunikazio-jardunbideak bizikidetza demokratikoaren, gatazkak elkarrizketa bidez kudeatu eta konpontzearen eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiliz eta hitzaren bidezko nagusikeriak baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik, etikoa eta demokratikoa ere bultzatzeko.

Konpetentzia hau eskuratzean, pertsonak eraginkorrak izango dira komunikatzeko garaian, eta, gainera, komunikazioaren ezinbesteko dimentsio etikoa alde batera utziko ez duten helburu batzuen zerbitzura jarriko dituzte hitzak.

Komunikazio pertsonalaren esparruan, hizkuntza-hezkuntzak enpatian eta errespetuan oinarritutako pertsonen arteko harremanak lantzen lagundu behar du, eta entzute aktiborako, komunikazio asertiborako, argudioetan oinarritutako deliberaziorako eta gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketa eta konponketarako tresnak eskaini behar ditu. Hizkuntzaren erabilera sexistak, diskriminatzaileak eta manipulatzaileak eta hitzaren bidezko nagusikeriak desagerraraztea agindu etikoa da. Hezkuntza-, gizarte- eta lanbide-esparruetan, hizkuntza-hezkuntzak herritartasun aktiboa gauzatuz hitza hartzeko trebatu behar du. Herritartasun hori konprometituta egongo da gizarte bidezkoagoak, demokratikoagoak eta, gizateriak aurrean dituen erronka handiei dagokienez (planetaren iraunkortasuna, indarkeriak desagerraraztea —genero-indarkeria barne—, gora doazen desberdintasunak desagerraraztea eta abar) arduratsuagoak eraikitzearekin.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII3.1, HK1, HK2, HK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. EAEko eta Espainiako hizkuntza koofizialak eta haien aldaerak (eta, bereziki, norberaren lurraldekoa) hizkuntza-aberastasunerako baliabide gisa ezagutzea eta baloratzea, haien garapen historiko eta soziolinguistikoaren azalpenetik eta egungo egoeratik abiatuz, eta ahozko adierazpenetan, idatzizkoetan eta multimodaletan dialektoen ezaugarriak (dialekto--aniztasunari lotuta dauden hizkuntza-ezaugarriak eta soziolektoei edo erregistroei dagozkienak bereiziz) eta hizkuntzen hizkuntza- eta diskurtso-alderdiak esplizituki eta metahizkuntza egokiarekin egiaztatuz.
1.2. Hizkuntza-aurreiritziak eta hizkuntza-estereotipoak zalantzan jartzea eta argudiatuz kontra egitea, kultura-, hizkuntza- eta dialekto-aberastasuna errespetatu eta baloratzeko jarrera agertuz, hizkuntzen arteko kontaktuaren fenomenoen inguruko ikerketatik eta gogoetatik abiatuz, hizkuntza berean dauden arau kultuen eta estandarren aniztasuna kontuan hartuz, eta sare sozialek eta komunikabideek eta hizkuntza-eskubideei eta hizkuntzen arteko bizikidetza-ereduei buruzko ikerketak betetzen duten zereginari arreta berezia jarriz.
1.3. EAEko hizkuntza-errealitatearen ezaugarriak aztertzea oinarrizko ezagutza soziolinguistikoen bidez, eta euskarekin hizkuntza-ohitura eta hizkuntza-portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea, euskararen erabilera lehenetsiz eta eskola- eta gizarte-bizitzaren hainbat esparrutan eta euskararen normalizazioari eta euskal kulturaren transmisio eta sorkuntzari lotuta ikastetxean eta ingurunean garatzen diren ekimenetan jarrera proaktiboa eta afektiboa agertuz.
1.4. Hizkuntzen funtzionamenduaz jabetzea eta hizkuntzen arteko gogoetak hizkuntzak ikasteko eta ezaugarriak konparatzearen bidez komunikaziorako konpetentzia garatzeko egiten duen ekarpena baloratzea.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Hainbat esparrutako berezko ahozko testu eta testu multimodal konplexuen eta/edo espezializatuen zentzu orokorra, egitura, informazio garrantzitsua (komunikazio-beharren arabera) eta igorlearen asmoa identifikatzea, kodeen arteko interakzioa aztertuz.
2.2. Ahozko testu eta testu multimodal konplexuen eta/edo espezializatuen forma eta edukia kritikoki baloratzea, erabilitako kanalaren kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Hainbat ikuspuntu jasoko dituzten interes zientifiko eta kulturaleko eta garrantzi akademiko eta sozialeko gaiei buruzko ahozko azalpen eta argudiatze formalak egitea plangintza-maila desberdinekin, diskurtso-genero bakoitzaren berezko konbentzioetara egokituz eta jarioa, zehaztasuna, koherentzia, kohesioa eta erregistro egokia agertuz, hainbat euskarritan eta hitzezko eta hitzik gabeko baliabideak eraginkortasunez erabiliz.
3.2. Ahozko interakzioetan (formaletan eta informaletan) eta talde-lanean era aktiboan eta egokian parte hartzea, entzute aktiboko jarrerekin eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-adeitasunerako estrategiekin, erabilera diskriminatzaileak (sexistak barne) saihestuz eta baztertuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Idatzizko testu eta testu multimodal konplexuen eta/edo espezializatuen zentzu orokorra, egitura, informazio garrantzitsua eta igorlearen asmoa identifikatzea, testu akademikoak eta komunikabideetakoak bereziki kontuan hartuz, beharrezkoak diren inferentziak eginez eta irakurketa-xede desberdinak agertuz.
4.2. Idatzizko testu eta testu multimodal konplexuen eta/edo espezializatuen forma eta edukia kritikoki baloratzea, erabilitako kanalaren kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Curriculumeko gaiei edo gizarte- eta kultura-interesekoei buruzko idatzizko testu eta testu multimodal akademiko koherenteak, kohesionatuak eta erregistro egokikoak lantzea eta, aldez aurretik, komunikazio-egoera, hartzailea, xedea eta kanala kontuan hartuko dituen plangintza-prozesu bat eta zirriborroak bakarka, berdinen artean edota beste kontsulta-tresna batzuen bidez idazteko eta berrikusteko prozesu bat egitea.
5.2. Idatzizko testuak eta testu multimodalak aberasteko prozedurak txertatzea, diskurtso-, hizkuntza- eta estilo-alderdiak kontuan hartuz, zehaztasun lexikoarekin eta zuzentasun ortografiko eta gramatikalarekin.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Hainbat iturritako informazioa aurkitzea, hautatzea eta egiaztatzea, informazio horren biltegiratze eta berreskuratzearen kudeaketa eta irakurketa-helburuen araberako egokitasunaren ebaluazioa kontuan hartuz; eskema propioetan antolatzea eta integratzea; eta berregituratzea eta era sortzailean komunikatzea, eta jabetza intelektualarekiko ikuspuntu kritiko eta errespetuzkoa hartuz.
6.2. Albisteen eta informazioen egiazkotasuna ebaluatzea, sare sozialak eta beste ingurune digital batzuk bereziki kontuan hartuz, analisia, kontrastea eta egiaztapena egiteko jarraibideei jarraituz, tresna egokiak erabiliz, informazioaren alborapenen aurrean jarrera kritikoa agertuz eta faltsukerien hedapena saihestuz.
6.3. Curriculumeko gaiei eta interes kultural, pertsonal eta sozialeko gaiei buruzko ikerketa-lanak egitea era autonomoan eta hainbat euskarritan, bakarka edo modu kooperatiboan, hautatutako informaziotik abiatuz, jabetza intelektuala errespetatuz eta informazioa behar bezala erreferentziatuz.
6.4. Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, osasungarri eta iraunkorreko ohiturak hartzea, arriskuak ebaluatuz eta erabiltzean gailuak, datu pertsonalak, osasuna eta ingurumena babesteko neurriak aplikatuz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Irakurketa gidaturako proposamenei lotutako literatura garaikideko obra garrantzitsuak era autonomoan aukeratzea eta irakurtzea, literatura-saiakera eta tradizioarekin loturak ezartzen dituzten egungo obrak barne, eta irakurketa- eta kultura-ibilbide pertsonalaren aurrerapena jasota uztea, irakurgaiak hautatzeko irizpideak, literatura-kulturan sartzeko moduak eta irakurketa-esperientzia argudioekin azalduz.
7.2. Irakurketa-esperientzia partekatzea, esperientzia hori gozamen- eta ezagutza-iturri gisa baloratuz eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz; eta interpretazio pertsonal bat lantzea, beste obra batzuekin eta beste esperientzia artistiko eta kultural batzuekin lotura argudiatuak ezarriz.
8. konpetentzia espezifikoa
8.1. Irakurritako obren interpretazioa azaltzea eta argudiatzea, osatzen dituzten elementuen eta obraren zentzuaren arteko barne-erlazioak eta testuaren eta haren testuinguru soziohistorikoaren eta literatura-tradizioaren arteko kanpo-erlazioak aztertzearen bidez, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta obren hautemate estetikoari lotutako balio-iritziak gaineratuz.
8.2. Testu pertsonal edo kolektiboak sortzea literatura-asmoarekin eta estilo-kontzientziarekin, hainbat euskarritan eta beste hizkuntza artistiko edo ikus-entzunezko batzuen bidez, literatura-generoen eta literatura-estiloen konbentzio formalak erabiltzen dituzten obren edo pasarte esanguratsuen irakurketatik abiatuz.
Ondorengo ebaluazio-irizpidea espezifikoa da Euskara eta Literatura I eta Gaztelania eta Literatura I jakintzagaietarako: 8.3. Ahozko aurkezpen batean, saiakera batean edo aurkezpen multimodal batean gauzatu beharreko ikerketa-proiektuak garatzea, irakurketa gidatuko euskal literaturako eta Espainiako literaturako klasikoen eta beste testu eta adierazpen artistiko eta kultural klasiko eta garaikide batzuen arteko lotura argudiatuak ezarriz (gai, topiko, egitura, hizkuntza, adierazpen-baliabide eta balio etiko eta estetikoen arabera) eta irakurleak irakurketan duen inplikazioa eta erantzun pertsonala azalduz.
Ondorengo ebaluazio-irizpidea espezifikoa da Euskara eta Literatura II eta Gaztelania eta Literatura II jakintzagaietarako: 8.3. Ahozko aurkezpen batean, saiakera batean edo aurkezpen multimodal batean gauzatu beharreko ikerketa-proiektuak garatzea, irakurketa gidatuko XIX. mendearen azken laurdeneko eta XX. eta XXI. mendeetako Euskal Herriko, Espainiako edo Hispanoamerikako literaturako obren eta beste testu eta adierazpen artistiko eta kultural klasiko eta garaikide batzuen arteko lotura argudiatuak ezarriz (gai, topiko, egitura, hizkuntza, adierazpen-baliabide eta balio etiko eta estetikoen arabera) eta irakurleak irakurketan duen inplikazioa eta erantzun pertsonala azalduz.
9. konpetentzia espezifikoa
9.1. Testu propioak berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, metahizkuntzazko eta hizkuntza arteko gogoetan oinarrituta aldaketak argudiatuz eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz, eta ulertzeko arazoak identifikatzea eta konpontzea, hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko ezagutza esplizituak erabiliz.
9.2. Igorlearen komunikazio-xedearen eta hizkuntza-aukeraketen arteko erlazioa eta hartzailearengan dituen ondorioak azaltzea eta argudiatzea, hizkuntzaren ezagutza esplizitua eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz.

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura
9.3. Hizkuntzaren funtzionamenduaren alderdi garrantzitsuei buruzko ikerketa-proiektu txikien emaitzak lantzea eta aurkeztea, hipotesiak formulatuz eta alderdi orokorrak ezarriz, kontzeptu eta hizkuntza-terminologia egokiak erabiliz eta hiztegiak, eskuliburuak eta gramatikak autonomiaz kontsultatuz.
10. konpetentzia espezifikoa
10.1. Hizkuntzaren erabilera sexistak eta diskriminatzaileak eta hitzaren bidezko nagusikeriak eta hizkuntzaren erabilera manipulatzaileak identifikatzea eta desagerraraztea, erabilitako hizkuntza-, testu- eta diskurtso-elementuen inguruko gogoetatik eta azterketatik eta pertsonen arteko komunikazioa zuzentzen duten ez-hitzezko elementuetatik abiatuz.
10.2. Gatazkak elkarrizketa bidez kudeatu eta konpontzeko eta adostasunak bilatzeko estrategiak erabiltzea, solaskideen iritzi eta sentimenduekin jarrera enpatikoa eta errespetuzkoa agertuz, esparru pertsonalean zein hezkuntza- eta gizarte-esparruan.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura	
A. Hizkuntzak eta hiztunak	
*Kontzeptu soziolinguistikoak eta diziplina honen berezko metahizkuntza.	
*Ahozko eta idatzizko testuen bidez euskararen euskalki nagusiak identifikatu eta aztertzeko estrategiak.	
*Euskararen dialekto-aldaera nagusien konparazio-azterketa.	
*Euskararen historia: jatorria, teoria nagusiak, lehen testigantzak eta lehen egileak.	
*Euskal Herrikoko egungo errealitate soziolinguistikoa eta haren bilakaera denboran.	
*Espainiako hizkuntzen eta gaztelaniaren dialektoen garapen soziohistorikoa eta egungo egoera.	
Gaztelaniaren Espainiako eta Amerikako dialekto-aldaera nagusien konparazio-azterketa.	
*Dialekto-aldaeren berezko ezaugarrien (fonikoen, gramatikalen eta lexiko-semantikoen) eta soziolektoen eta erregistroen ezaugarrien arteko desberdintasunak, euskaraz eta gaztelaniaz.	
* Arau kultu eta arau estandar kontzeptuen ikerketa eta azalpena, euskaran eta gaztelanian duten baliagarritasuna eta aniztasuna kontuan hartuta.	
*Hizkuntzen arteko gogoetarako estrategiak	
*Hizkuntza-aurreiritziak eta hizkuntza-estereotipoak detektatzeko eta haiei aurre egiteko estrategiak, hizkuntzaren erabilera sexista barne.	
*Hizkuntzen arteko kontaktuaren fenomenoak: elebitasuna, maileguak, interferentziak. Hizkuntza-diglosia eta dialekto-diglosia.	
*Hizkuntza-eskubideak, legeetan duten adierazpena eta erakunde-adierazpenak. Hizkuntzen arteko bizikidetza-ereduak, haien arrazoiak eta ondorioak. Gutxiengoaren hizkuntzak, hizkuntza gutxituak eta galzorian dauden hizkuntzak. Hizkuntza-iraunkortasuna.	
*Euskararen erabilerarekiko interesa, ekimena eta jarrera proaktiboa, ikastetxean eta hainbat gizarte-esparrutan.	
*Hizkuntzak eta kultura defendatu eta garatzeko erakundeak.	
*Hizkuntza eta euskal kultura garatu, sustatu eta normalizatzeko prozesuen aldeko organismoak, erakundeak, herri-mugimenduak, komunikabideak eta gizarte-sareak.	
*Gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren ezagutza, Euskal Herriko egoera bereziki kontuan hartuta.	
B. Komunikazioa	
Hainbat esparrutako ahozko testuak, idatzizkoak eta multimodalak ekoizteko, ulertzeko eta kritikoki aztertzeko estrategiak, honako alderdi hauek kontuan hartuta:	
Testua eta testuingurua	*Komunikazio-ekintzaren osagaiak: egoeraren formalitate-maila eta izaera publikoa edo pribatua; solaskideen arteko gizarte-distantzia; komunikazio-xedeak eta asmoen interpretazioa; komunikazio-kanala eta komunikazioaren hitzik gabeko elementuak.

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura	
	* Testua. Haren definizioa eta sailkapen desberdinak.
	*Testu-propietateak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna. Erreferentziakidetasuna.
	*Testu-tipologia, testu-generoak eta erabilera-esparruak.
	*Azalpen-testua. Sailkapena. Egitura. Testu-tipologiaren berezko ezaugarriak eta hari lotutako hizkuntza-ezaugarriak.
	*Argudio-testua. Egitura. Testu-tipologiaren berezko ezaugarriak eta hari lotutako hizkuntza--ezaugarriak. Argudio motak.
	*Hezkuntza-esparruaren berezko diskurtso-generoak. Testu akademikoak.
	*Gizarte-esparruaren berezko diskurtso-generoak. Sare sozialak eta komunikabideak.
	*Testu baten gaia eta tesia formulatzeko jarraibideak. Laburpenaren teknika.
	Ahozkotasunari lotutako euskal kultura-tradizioak.
	Euskal zinema eta antzerkia.
	Euskal musika-ondare tradizional eta garaikideko erreferentziazko abestiak.
Ulermena	*Ahozko eta idatzizko ulermenerako estrategiak: testuaren zentzu orokorra, zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsua hautatzeko eta gogoan gordetzeko jarraibideak. Igorlearen asmoa. Hitzezko, hitzik gabeko eta hizkuntza ikonikoaren erabilera sexisten eta diskriminatzaileen detekzioa. Testuaren formaren balorazioa eta edukiaren interpretazio kritikoa.
	Euskal tradizioko atsotitzak eta esaerak.
	*Testuartekotasuna.
Ekoizpena	*Ahozko ekoizpen formalerako estrategiak: informazioaren plangintza eta bilaketa, testualizazioa eta berrikuspena. Entzuleenganako eta azalpen-denborarako egokitzapena. Hitzik gabeko elementuak. Ahozkotasun formalaren diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak. Argudiatutako ahozko deliberazioa.
	*Ahozko ekoizpenerako estrategiak. Lantzeko prozesua: informazioaren bilaketa, plangintza, idazketa, berrikuspena eta edizioa hainbat euskarritan.
	*Aipamenak eta erreferentzia bibliografikoak egiteko prozedurak. Orri-oinak eta haien erabilerak. Bibliografia eta *webgrafia.*
	Idaztearen bidez pentsamendua antolatzeko eta emozioak kudeatzeko jarraibideak: idazketa automatikoa, eskemak, kontzeptuzko mapak, laburpenak eta abar.
	*Hitzezko hizkuntzaren, hitzik gabekoaren eta ikonikoaren erabilera ez-sexistarako jarraibideak.
Interakzioa	*Ahozko eta idatzizko interakzio formalerako jarraibideak. Hitza hartzeko eta emateko jarraibideak. Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-adeitasuna.
	*Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak elkarrizketa bidez kudeatu eta ebazteko baliabideak: esanahia argitzeko, emozioak islatzeko, parafraseatzeko eta enuntziatuak berriz formulatzeko jarraibideak.
Informazio-alfabetatzea	*Informazioa fidagarritasun-, kalitate- eta egokitasun-irizpideekin bilatu eta hautatzeko estrategiak; informazioaren azterketa, balorazioa, berrantolaketa eta sintesia eskema propioetan, eta informazioa ezagutza bihurtzeko estrategiak; berregituratutako informazioaren komunikazioa eta hedapena, sormenez eta jabetza intelektualarekiko errespetuz. Informazio garrantzitsuaren edukiak kudeatzeko, informazio hori biltegiratzeko eta berreskuratzeko jarraibideak. Albiste faltsuak eta gertakarien egiaztapena. Ziberamua.
	*Etiketa eta aztarna digitala.
	*Eskola-proiektuak egiteko plataforma birtualak.
Hizkuntza-elementuen ezagutza eta diskurtso-erabilera	*Testuetan subjektibotasuna eta objektibotasuna adierazteko hizkuntza-formak.
	*Erregistroa komunikazio-egoerara egokitzeko hizkuntza-baliabideak.
	*Konektoreak, diskurtso-markatzaileak eta testuari kohesioa ematen laguntzen duten beste prozedura lexiko-semantiko batzuk.

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura	
	*Adizkien arteko erlazioak (testuaren kohesiorako prozedura gisa), aditz-denboren balorazioa eta erabilera bereziki kontuan hartuta.
	*Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa, gramatikala eta tipografikoa. Euskarri analogiko edo digitaleko hiztegien, kontsulta-eskuliburuen eta zuzentzaile ortografikoen erabilera eraginkorra.
	*Puntuazio-zeinuak idatzizko testua antolatzeko mekanismo gisa, eta esanahiarekin duten lotura.
	*Euskararen berezko hizkuntza-elementuak perpausaren osagaiak lotzeko (aditz-komunztadura eta deklinabidea).
Lanaren antolaketa eta ikaskuntzari buruzko gogoeta	*Bakarkako eta taldeko lana antolatzeko estrategiak. Erantzukizunak bere gain hartzeko jarraibideak.
	*Norbere buruarenganako konfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa.
	*Autoebaluaziorako, koebaluaziorako eta autozuzenketarako erabilera komuneko estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak.
C. Literatura-hezkuntza	
Irakurketa autonomoa	Espezifikoa Euskara eta Literatura I eta Gaztelania eta Literatura I jakintzagaietarako: Irakurketa-ibilbideari berari buruzko gogoeta eragiten duten literatura unibertsal garaikideko obren irakurketa, eta kulturaren interpretazio-eztabaidan txertatzeko jarraibideak, behean adierazten diren jakintzak kontuan hartuta.
	Espezifikoa Euskara eta Literatura II eta Gaztelania eta Literatura II jakintzagaietarako: Gidatutako irakurketarako proposamenei lotuta dauden eta irakurketa-ibilbideari berari buruzko gogoeta eragiten duten obra garrantzitsuen irakurketa, eta kulturaren interpretazio-eztabaidan txertatzeko jarraibideak, ondorengo jakintzak kontuan hartuta.
	* Gomendio espezializatuen laguntzarekin obrak hautatzeko jarraibideak (literatura-saiakera eta kultura-ekoizpeneko eta kultura-kontsumoko egungo formak barne hartuta, Euskara eta Literatura II eta Gaztelania eta Literatura II jakintzagaien kasuan).
	* Literatura- eta irakurketa-ibilbidean aktiboki parte hartzeko estrategiak, testuinguru presentzialean eta digitalean. Liburutegi mota ororen erabilera autonomoa. Beste kultura-esperientzia batzuk izateko aukera.
	Irakurketa-gustu pertsonalak argudioekin adierazteko jarraibideak. Irakurritako corpusaren dibertsifikazioa, liburuaren merkataritza-zirkuituak kontuan hartuz eta literatura kanonikoa eta kontsumokoa, klasikoak eta bestsellerrak bereiziz.
	*Irakurketa-esperientzia komunikatzeko jarraibideak, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta alderdi tematikoak, generoa eta azpigeneroa, egituraren eta estiloaren elementuak eta obren balio etikoak eta estetikoak kontuan hartuz.
	*Esperientzia pertsonala, irakurketa-esperientzia eta kultura-esperientzia mobilizatzeko eta, era horretan, irakurritako obraren eta egungo alderdien eta beste literatura- edo arte-adierazpen batzuen artean loturak ezartzeko estrategiak.
	*Literatura ezagutza berriak eskuratzeko iturri gisa eta sentsibilitate estetikoa garatzeko laguntza gisa.
	Hainbat euskarritako irakurgaiak gomendatzeko jarraibideak, alderdi tematikoak, formalak eta testuartekoak kontuan hartuz.
	*Literatura-, musika- eta eszena-ondarearekin motibazio-lotura emozionalak (sentsazio berrien esperimentazioa), sinbolikoak (pertsona gisa aberasteko beharra) eta kulturalak ezartzeko estrategiak.
Gidatutako irakurketa	Espezifikoa Euskara eta Literatura I eta Gaztelania eta Literatura I jakintzagaietarako: Ibilbide tematikoetan edo genero-ibilbideetan inskribatutako Espainiako Erdi Arotik Erromantizismora bitarteko literaturako klasikoen eta euskal literaturaren hasieratik XX. mendera bitarteko klasikoen irakurketa, behean adierazitako jakintzak kontuan hartuz.

Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura	
	Espezifikoa Euskara eta Literatura II eta Gaztelania eta Literatura II jakintzagaietarako:
	Ibilbide tematikoetan edo genero-ibilbideetan inskribatutako euskal literaturako XX. mendetik egunera arteko obra garrantzitsuen irakurketa.
	Ibilbide tematikoetan edo genero-ibilbideetan inskribatutako Espainiako literaturako XIX. mendearen azken laurdeneko eta XX. eta XXI. mendeetako obra garrantzitsuen irakurketa, honako hiru ardatz hauen inguruan: (1) Espainiako kulturaren Zilarrezko Aroa (1875-1936); (2) gerra zibila, erbestealdia eta diktadura; (3) Espainiako eta Hispanoamerikako literatura garaikidea, honako jakintza hauek kontuan hartuz:
	* Literatura-eztabaiden edo literatura-elkarrizketen bidez obren interpretazioa era partekatuan egiteko estrategiak.
	* Literatura-generoa eratzen duten elementuak eta obraren zentzuarekin duten lotura. Adierazpen-baliabideen harreran dituzten ondorioak.
	* Informazio soziohistorikoa, kulturala eta artistikoa erabiltzeko eta, era horretan, obrak interpretatzeko eta literatura-tradizioan duten lekua ulertzeko estrategiak.
	* Euskal literaturako, Espainiako literaturako eta literatura unibertsaleko testuen arteko erlazio esanguratsuak eta obren eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuen testuarteko loturak, gaien, topikoen, egituren eta hizkuntzen arabera. Jarraitutasun- eta haustura-elementuak.
	* Testuen interpretazioa argudioekin adierazteko estrategiak, aztertutako alderdiak integratuz eta balio kulturalak, etikoak eta estetikoak kontuan hartuz.
	* Adierazpen-irakurketa, dramatizazioa eta errezitatzea, inplikatutako ulermen-, bereganatze- eta oralizazio-prozesuak kontuan hartuz.
	* Literatura-asmoko testuak sortzeko jarraibideak, irakurritako obretatik abiatuz.
	* Genero-ikuspegian oinarritutako irakurketa.
	* Euskal kultura-ondareko obrak eta pasarteak.
D. Hizkuntzari buruzko gogoeta	
Hizkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko ondorio propioak metahizkuntza espezifiko batekin lantzeko estrategiak, komunikazio-unitateen behaketa, konparazio eta sailkapenetik eta hizkuntzen arteko kontrastetik abiatuz eta honako jakintza hauek kontuan hartuz:	
* Ahozko hizkuntzaren eta idatzizko hizkuntzaren arteko desberdintasun garrantzitsuak eta gurutzaketak, alderdi sintaktikoak, lexikoak eta pragmatikoak kontuan hartuz.	
* Hizkuntza hainbat mailarekin konektatutako sistema gisa: fonologikoa, morfologikoa, sintaktikoa eta lexiko-semantikoa.	
* Hitzen formaren (kategoria gramatikalak) eta funtzioaren (perpaus bakunaren eta perpaus elkartuaren funtzio sintaktikoak) arteko bereizketarako estrategiak.	
* Perpaus bakunaren eta perpaus elkartuaren egitura semantikoaren (hitzezko esanahiak eta argudioak) eta sintaktikoaren (subjektua, predikatua eta osagarriak) arteko erlazioak, komunikazio-xedearen arabera.	
* Hitzak eskuratu eta osatzeko prozedurak eta esanahian gertatzen diren aldaketei buruzko gogoeta. Hitzen arteko erlazio semantikoak. Balio denotatiboak eta konnotatiboak, testuinguruarekiko egokitasunaren eta komunikazio-xedearen arabera.	
* Informazio gramatikal orokorra lortzeko hiztegien, gramatika-eskuliburuen eta beste kontsulta-iturri batzuen erabilera autonomoa.	
*Edozein hizkuntzatan eskuratutako ezagutzak aktibatzeko eta, era horretan, gainerako hizkuntzetan hizkuntza-gogoeta bultzatzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko estrategiak.	

FILOSOFIA

Filosofia jakintzagaiak, berekin dakarren errotiko ezagutza-jarreragatik eta jorratzen dituen gaien eta alderdien aniztasunagatik, espazio egokia eskaintzen du Batxilergoko etapako funtsezko konpetentziak eta helburuak modu integratuan garatzeko. Alde horretatik, arazo unibertsal eta funtsezkoei buruzko

ikerketak, hala nola errealitatearen azken izaerari, egiari, justiziari, edertasunari edo norberaren nortasunari eta giza duintasunari buruzkoak, gure ingurune kulturala osatzen duten ideia eta praktikei buruzko gogoeta kritikoarekin batera, baliagarria da, aldi berean, ikasleen heldutasun pertsonala eta soziala sustatzeko, baita haien dimentsio intelektuala nahiz beren nortasuna osatzen duten beste alderdi etiko, politiko, zibiko, emozional eta estetikoak garatzeko ere. Horregatik, funtsezko konpetentzia guztiak lantzen badira ere, bereziki jorratzen dira hizkuntza komunikaziorako konpetentzia, herritartasunerako konpetentzia eta konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.

Arlo honek etapako gainerako jakintzagaiekin duen loturari dagokionez, Filosofia Batxilergoko jakintza guztien arteko lotura naturala da, ikasleek aukeratzen duten ibilbidea edozein dela ere. Gai filosofiko nagusietara gogoeta eginez eta modu dialogikoan hurbiltzeak, erraztu egiten ditu ikaste-prozesu esanguratsuak eta diziplinarteko ikuskera. Adar zientifiko eta humanistikoek zein artistikoek kontzeptualizazio bat eta abstrakzio-gaitasunaren garapen bat behar dute, eta horretan Filosofia jakintzagaiak berebiziko garrantzia du Batxilergoko lehen mailan. Gainera, hizkuntza-konpetentzien garapena sakonean lantzen da, testu filosofikoak edo beste euskarri batzuk analizatuz. Horiek argudiaketan sakontzearen pizgarri gisa erabil daitezke, testuinguru analogikoetan zein digitaletan. Jakintzaren ibilbideetan (zientziak, arteak, humanitateak) dagoen gogoetak, espazio bat aurkitzen du Filosofiaren adar etikoan (bioetika, memoria historikoa, lan-etika, politika ekonomikoa...). Gogoeta hori egitea ezinbestekoa da ikasmaila hauetan, ikasleek beren etorkizun akademikoa edo lanekoa zein izango den erabaki aurretik. Azkenik, gogoeta filosofiko existentziala beharbeharrezkoa da Batxilergoko ikasleentzat.

Filosofia jakintzagaiak hiru helburu horiei erantzuten die (hurbilketa gogoetatsua eta dialogikoa, hizkuntza-konpetentzien garapena eta gogoeta filosofiko existentziala), konpetentzia espezifiko batzuk batera garatuz, gehienak arazo eta hipotesi filosofikoen kritikaren eta azterketa dialektikorako prozesuaren inguruan antolatuta. Prozesu horren izaera maieutikoa dela eta, konpetentzia horiek nahitaez inplementatu behar dira, hein handi batean, ikasleen ikerketa filosofikoa bera erreferentzia-zentro gisa hartuko duen irakaskuntza dialogikoaren esparru metodologikoan.

Lehenengo konpetentzia errealitatearen izaera problematikoa eta giza existentzia bera ulertzeari buruzkoa da, baita hura azaltzen eta bideratzen saiatzeko ezinbestekoa den gogoetari buruzkoa ere. Zeregin horrek eskatzen du, era berean, hurrengo hiru konpetentzia espezifikoak garatzea. Horiek, hurrenez hurren, zerikusia dute informazioaren erabilera kritikoarekin eta produkzio zorrotzarekin, argudioen erabilerarekin eta ezagutzarekin, eta elkarrizketa ezagutza-prozesu kooperatibo gisa praktikatzearekin. Elkarrizketaren praktikak jardun filosofikoa formalki osatzen du, eta, aldi berean, ideia eta teoria filosofikoen izaera plurala eta ez-dogmatikoa ezagutzea eskatzen du, garatu beharreko beste konpetentzia bat den aldetik, baita ezagutza hori zeregin bikoitz (kritiko eta konstruktibo) honetan inplementatzea: ideia eta teoria horiek kontrastatzea eta horien arteko aurkakotasuna eta osagarritasuna deskubritzea. Filosofiaren praktikak, gainera, ahalmen erabilgarriak eman behar ditu, bai ikasleen nortasunaren prestakuntza integrala lortzeko, bai horiek gai izan daitezen erronka pertsonal, sozial eta profesionalei arrakastaz aurre egiteko, etengabe eraldatzen ari den eta ziurgabetasunez beteta dagoen geure munduak berekin dakartzan erronkei, hain zuzen. Horrela, arazoen ikuspegi globala eta diziplinartekoa eskuratzea, funtsezko gaiei buruzko pentsamendu propio eta zorrotza sortzeko ahalmena izatea eta XXI. mendeko erronkei buruzko iritzi eta konpromiso autonomoak garatzea ezinbesteko elementuak dira ikasleen erabateko heldutasun intelektuala, morala, zibikoa eta emozionala lortzeko. Azkenik, emozioak hezteak —besteak beste, arteari eta kultura garaikidea osatzen duten ikus-entzunezko inguruneei buruzko gogoeta estetikoaren inguruan— ikasleen hazkunde integralerako ezinbesteko konpetentzia lortzen laguntzen du.

Oinarrizko jakintzak hiru multzo handitan banatuta daude, eta helburu dute ikasleei filosofiak barne hartzen duen ikaste-eremu aberats eta konplexuaren oinarrizko eta osotasunezko ikuspegia ematea. Hala ere, kasu bakoitzean, eta ikasleen idiosinkrasia, heziketa-testuingurua edo beste irizpide pedagogiko batzuk kontuan hartuta, batzuk besteak baino gehiago sakondu ahal izango dira. Gainera, komeni bezala multzokatu eta egituratu ahal izango dira. Horrela, jarduera filosofikoaren berezko izaerari eta horrek giza izaeraren arazoekin duen loturari buruzko lehen jakintza multzoaren ondoren, beste bi multzo zabaltzen dira: ezagutzaren eta errealitatearen inguruko oinarrizko gaien analisiari buruzkoa bata, eta etikari, filosofia politikoari eta estetikari buruzko arazoekin lotutakoa bestea. Multzoak eta ja-

kintzak diseinatzean eta banatzean, helburu hartu da planteamendu eta joera desberdinen arteko oreka eta elkarrizketa lortzea, dagoeneko aipatutako konpetentzia espezifikoak garatzea eta, halaber, duela gutxi arte diziplina hau garatzea oztopatu duten egoerak konpontzen saiatzea. Egoera horien artean daude emakumearen marjinazio eta ezkutatze historikoa edo aurreiritzi kultural etnozentriko eta antropozentrikoak.

Ebaluazio-irizpideen helburua da jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoen lorpen maila zehaztea eta jakintzak zein neurritan barneratzen eta nola aplikatzen diren egiaztatzea, eta ikasleek beren garapen pertsonal eta akademikorako jarrera eta balio garrantzitsuak hartzen ote dituzten adierazten dute. Haien formulazioan, beraz, jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea aipatzen da argi eta garbi. Hori dela eta, oinarrizko jakintzekin harremanean, ikaskuntzaren prozesuei eta produktuei berei erreparatu behar diete, eta, horiek behar bezala gauzatzeko, askotariko ebaluazio-tresnak behar dituzte, konpetentzien garapena zehaztu behar den ikaste-testuinguru eta -egoeretara egokitu ahal izango diren tresnak, hain zuzen.

Kontuan izanda filosofiari dagokion jarrera eta ezagutzeko modua eta giza esperientzian sakon errotuta dauden haren arazo nagusik, argi dago filosofia irakatsi eta ikasteak ez duela gaien azalpen programatiko hutsa izan behar. Aldiz, galdera filosofikoak deskubritzeko esperientzia erreal bat sortu behar da. Esperientzia horretatik abiatuz, ikasleak bultzatu behar dira horien inguruko ikerketa analitikora, eman zaizkien erantzunen ebaluazio kritikora eta beren jarrera-hartze pertsonalen eraikuntza zorrotzera. Azken horren mende dago, gainera, jarrera horiekin bat etorriko den praxia garatzea eta ikasleen bizitza pertsonala, soziala eta profesionala orientatuko duen gogoeta egitea. Ildo horretatik, jakintzagaiaren programazioan kontuan hartu beharko da jarduera filosofikoak berez duen izaera dialogikoa, parte-hartzailea, diziplinartekoa, sortzailea eta garrantzizko arazoekin konprometitua. Hala, autonomia pertsonala eta herritarren jardun kritiko eta ekosozialki arduratsua lortzera bideratuko da programazioa.

Tokiko ikuspegiak, genero-ikuspegiak eta ikuspegi inklusiboak hezkuntzajardunean txertatuta egon daitezen, eta beharrezkoa denean eredu artistiko, kultural, antropologiko, linguistiko edo sozialetara jotzea, kontuan izan behar ditugu aniztasuna (funtzionala, sexuala, afektiboa, ekonomikoa, jatorrikoa...), genero-berdintasuna eta euskal dimentsioa, beste kultura-dimentsio batzuekin lotuta, beharrezkoa balitz. Adibide horiek erreferentzia izan behar dute pentsamendu kritikoa eta gogoeta-pentsamendua garatzeko. Gainera, Batxilergoan garrantzitsua da erreferente teoriko jakin batzuei heltzea, euskal dimentsioarekin eta aipatu dugun inklusioarekin lotutako ideia eta egile zehatzen bidez.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Arazoak identifikatzea eta errealitatearen eta giza existentziaren oinarriari, balioari eta zentzuari buruzko galderak egitea, testuen eta adierazpen filosofiko eta kulturaleko beste modu batzuen analisitik eta interpretaziotik abiatuz, gai horien errotikotasuna eta transzendentzia ezagutzeko, baita horiei aurre egiteko beharra ere, bizitza gogoetatsua eta kontzientea garatzeko.

Jarduera filosofikoaren abiapuntua existentziaren beraren aurrean dagoen harridura da, baita, sinesmen komunak zalantzan jarri ondoren, haren izaerari, balioari eta zentzuari buruz plantea daitezkeen galderak ere. Zalantza eta harridurako jarrera horrek, nerabezaroan ia modu naturalean garatzen den arren, bide formala eta metodologikoa, hizkuntza espezifikoa eta kultura-tradizioa behar ditu, ikasleei beren bizi-kezkak eta kezka existentzialak adierazten eta analizatzen laguntzeko. Horregatik komeni da errealitateari, giza entitate eta identitateari berari eta horrek ingurunearekin dituen erlazio teoriko, praktiko eta estetikoei buruzko galdera handiak, munduko esperientzia problematikoaren beraren bidez azaltzeaz gain, adierazpen filosofikoko edo kulturaleko testu eta beste bitarteko batzuetan (zientifikoa, artistikoa, erlijiosoa...) ezagutzea eta analizatzea.

Helburu nagusia da ikasleak erabat jabetzea gai horien egokitasunaz eta proiekzio unibertsalaz eta, aldi berean, historikoki eta kulturalki txertatuaz, baita aipatutako gaiek eskatzen duten ezinbesteko interpe-

lazioaz eta horiei aurre egiteko betebeharraz ere, bizitza gogoetatsua, kritikoa eta bere buruaz erabat jabetua lortzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KPSII2, HK1, HK3 eta KAKK1

2. Gai filosofikoei buruzko informazioa behar bezala bilatzea, kudeatzea, interpretatzea, produzitzea eta transmititzea, iturrien erabilera kontrastatua eta segurua, iturri horien erabilera eta analisi zorrotza, eta ikerketako eta komunikazioko oinarrizko prozeduren erabilera oinarritzat hartuz, gogoeta filosofikoaren esparruan jarrera arakatzailea, autonomoa, zorrotza eta sormenezkoa garatzeko.

Filosofian, funtsezko ikerketa-teknikak ezagutzeko, lehenik eta behin, informazio segurua eta garrantzitsua bilatzeko, antolatzeko eta ebaluatzeko irizpideak eta prozedurak menderatu behar dira, bai inguru-ne digitaletan, bai beste tradizionalago batzuetan, eta bai esparru akademikoan, bai egunerokoan. Bestalde, iturrietatik abiatutako ikerketa filosofikoak eskatzen du irakurtzeko ohitura, besteak beste, garatzea ez ezik, iturri horiek aztertzeko, interpretatzeko, errezitatzeko eta kritikoki eta filosofikoki ebaluatzeko estrategia oinarrizkoak eta espezifikoak erabiltzea ere, izan idatzizkoak edo ahozkoak, izan testualak edo ikus-entzunezkoak, eta izan ala ez genero erabat filosofikokoak. Era berean, ikerketa filosofikoak beharrezkoa du eskuratutako ezagutzak produzitzeko eta transmititzeko metodoak eta protokoloak menderatzea, hala nola: testuetan, diskurtsoetan, aurkezpenetan, ikus-entzunezko dokumentuetan edo beste edozein motatako sorkuntzatan islatu ahal izango diren proiektuak lantzeko eta jendaurrean komunikatzeko jarraibideak.

Helburua da ikasleek, galdera eta arazo filosofikoek benetan bultzatuta, eta argudiaketaren eta elkarrizketaren bidez tesi eta ikuskera filosofiko nagusien oinarrizko ulermen informatua lortu ondoren, tesi horien inguruko jardun dialektikoa jarraitzea eta osatzea, ikerlanaren formatuan edo antzeko batean, irizpide-autonomia eta heldutasuna garatzen lagunduko duen proposamen konstruktibo batekin.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KD1, KD2, KD3, KPSII5, HK3 eta EK3.

3. Argumentuak eta argudio-egiturak behar bezala erabiltzea eta baloratzea, haien analisi formaletik zein informaletik abiatuz, diskurtso mota desberdinak zorrotz sortzeko eta balioesteko, eta iritziak eta hipotesiak sostengatzeko modu dogmatiko, faltsu eta alboratuak saihesteko.

Argudiatzeko prozedurak kontzienteki menderatzea ezinbesteko baldintza da zorroztasunez eta eraginkortasunez pentsatzeko eta komunikatzeko, ezagutza filosofiko edo zientifikoaren esparruan eta eguneroko bizitzan, eta norberaren iritzia prestatzeko eta ikasleen autonomia pertsonala garatzeko. Argudiaketa, alde batetik, zeharkako konpetentzia da, hizkuntza edo kalkulua izan daitezkeen bezala; baina, beste edozein ikaskuntza motatarako duen garrantzia kontuan izanda, haren irakaskuntza, hizkuntzarena edo kalkuluarena bezalaxe, hezkuntza-espazio propio batean tematizatu behar da.

Argudiatzeko prozedurak ikasteko esparrurik egokiena filosofiarena da. Izan ere, filosofian lantzen dira, modu substantibo, zehatz eta problematizatuan, argudiaketaren funtsak, baldintzak, arauak, motak, propietateak eta mugak, bai formalak, bai informalak, baita horiek ezagutzaren prozesu osoan txertatzea ere, logika formalari, oro har argudiaketari eta ezagutza arrazionalaren metodoei buruzko azterketaren bidez. Helburua da ikasleek argudio logiko eta erretorikoki zuzenak eta ondo oinarrituak produzitzea eta ezagutzea, baita hainbat komunikazio-ingurunetan falaziak, isuriak eta aurreiritziak hautematea ere. Beharrezkoa da, halaber, ikasleak elkarrizketa filosofikoaren berezko bertuteetan trebatzea, hura diskurtso pertsuasibo soiletik bereizten duten bertuteetan, alegia: elkarrekin ikertzea, egiarekiko konpromisoa izatea, arrazionalki iraunkorrak diren ideia eta jarrera guztiak errespetuz ezagutzea, eta norberaren ideiak adierazteko eta besteenak jasotzeko jarrera arduratsua izatea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, STEM1 eta HK3.

4. Elkarrizketa filosofikoa zorrotz, kritikoki, tolerantziaz eta enpatiaz praktikatzea, horrek eskatzen dituen jarraibide etiko eta formalak barneratuz eta exijitzen digun kudeaketa emozionala identifikatuz, talde-jardueretan parte hartuz eta gai filosofikoen planteamendu dialogikoaren bidez, ideiak kontrastatzea eta trukatzea eta herritartasun aktibo, emozionalki trebe eta demokratikoaz jardutea sustatzeko.

Eredu dialogikoak, hasiera-hasieratik, zalantzarik gabeko lehentasuna du filosofatzeko metodo gisa eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko funtsezko erreferente gisa. Hau da, beraz, konpetentzia garrantzitsuenetako bat filosofia benetako heziketa zibikoa dela esan dezakegun konpetentzien artean. Elkarrizketa filosofikoak batera gutxitan agertzen diren hainbat bertute biltzen ditu: zorroztasun arrazionalaren eskakizuna, aniztasun ideologikoaren onarpena eta bat ez gatozen pertsonekiko errespetuzko jarrera enpatikoa, jarrera komun bat bilatzeari eta elkarrekin aurkitzeari utzi gabe, eta desadostasuna nahitaez gatazka gisa ulertu behar izan gabe, ikuspegien aniztasun eta osagarritasun gisa baino. Elkarrizketa filosofikoaren praktika, gainerakoan, norberaren ikaskuntzaren antzeko prozesua da, alderdi motibazionaletan, emozionaletan, ikaskuntza aktibo eta esanguratsuan, ikerketa edo aurkikuntza bidezko irakaskuntzan, kolaborazio-lanean edo bizitza osoko prestakuntzan eragiten duen ia edozein ikuspegi pedagogikotatik.

Oro har, elkarrizketaren praktikak modu konstruktiboan integratzen ditu ziurgabetasunaren eta kritikaren elementuak, eta, horietatik abiatuta, planteamendu berritzaileak eta gainditzaileak aurkitzea ahalbidetzen du, eta kooperazioaren, zintzotasunaren eta eskuzabaltasun hermeneutikoaren printzipioek arautzen dute, baita haren izaera ireki eta bukatugabeak ere, nahiz eta horrek ez dion eraginkortasunik kentzen herritarren ikerketa filosofikorako eta jardun aktibo eta demokratikorako.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, STEM1, KPSII4, HK2, HK3, KAKK1.

5. Filosofiaren funtsezko arazo bakoitzaren inguruko ikusmolde, ideia eta argudioen izaera anitza ezagutzea, horiei buruzko hainbat tesi garrantzitsuren analisi kritiko eta dialektikoaren bidez, gai eta ideia horien ikusmolde konplexua eta ezdogmatikoa sortzeko, baita jarrera irekia, tolerantea eta gatazken konponbide arrazional eta baketsuarekin konprometitua ere.

Ikerketa filosofikoa, historikoa zein gaur egungoa, ezagutzaren beste arlo batzuetan ez bezala, errotik irekia eta eztabaidagarria agertzen da arlo guztietan. Hala ere, egitate hori akats edo disfuntzio gisa interpretatzetik urrun, pentsaera filosofikoaren berezko propietate gisa ulertu behar da, pentsamendu filosofikoa ulertuta nahitaez plural eta dialektikotzat eta, orobat, elkarrizketa arrazional ireki eta konstruktibo batean jarduteko abagunetzat; izan ere, itxuraz hori baita dagokiona ekintzen, esperientzien eta giza inguruabar estetikoen izaeran, zentzuan eta azken balioan eragina duten gai guztietan, hala nola arazo etikoak, politikoak edo estetikoak dakartzatenetan, besteak beste.

Horrela, pentsamendu konplexu bat gauzatzeko aukera sortzen da hemen. Pentsamendu horretan sistematikoki agertuko da bestearen pentsamenduaren lekuan jartzeko beharra, arrazoietan zintzo oinarrituta dagoen heinean haren ikuspuntua ulertuta eta errespetatuta; hargatik, hain zuzen eztabaida publikoaren ekitate-baldintzen aurka eragiten duten bidegabekeria- eta bereizkeria-modu guztiak onartzera eraman gabe. Beraz, konpetentzia hau da, elkarrizketari buruzko lehen deskribatutakoarekin batera, ikasleei herritartasun demokratikoan jarduteko heziketa egokia hobekien eta sakonen eman diezaiekeena.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, HK1, HK2 eta HK3.

6. Pentsalari garrantzitsuenen ideia eta teoria filosofiko nagusiak ulertzea, ideia eta teoria horien eta horiek xede dituzten funtsezko arazoen azterketa kritiko eta dialektikoaren bidez, filosofiak duen aberastasunaren eta eragin kultural, sozial eta historikoaren eta ondare komunari egiten dion ekarpenaren ikusmolde zorrotz eta kritikoa sortzeko.

Galdera filosofikoen inguruko elkarrizketak eta ikerketak oinarri hartu behar dute dagoeneko ondare kultural komunaren parte diren eta, era berean, herritarren ezagutza intelektualaren parte ere izan behar

duten ideia eta hipotesien ezagutza sakona. Historiako pentsalari nagusiek denboran zehar formulatu eta eztabaidatutako ikuskera eta ideia horiek gure nortasunaren, gure kulturan indarrean dauden doktrina ekonomiko, politiko, zientifiko, estetiko edo erlijiosoen oinarri ideologikoaren eta argudiozkoaren parte ordezkaezina dira, baita ekintza morala, soziala eta politikoa bideratzen edo inspiratzen duten printzipio eta balioen multzoarena ere.

Ideia horiek zorrotz eta sakon ezagutzea eta balioestea ez da soilik arazo filosofikoak eta, neurri batean, beste edozein gai kultural edo etiko-politiko aztertzeko baldintza, baizik eta norbere burua ezagutzeko funtsezko eskakizuna ere, ekintza eta gogoeta bera, neurri batean edo bestean, ideia horietatik elikatzen den heinean.

Bestalde, argi dago filosofiak bere arazo bakoitza formulatzeko eta lantzeko erabili dituen termino, kontzeptu eta teorien ulermena eta erabilera ezin direla ulertu horien benetako esperientziaren testuinguruan ez bada. Hortaz, ikasleek ideia eta proposamen teoriko horiek guztiak onartu, baloratu eta berrinterpretatu behar dituzte, benetako ikerketa filosofikoaren jardun pertsonal eta kolektibo baten parte diren heinean.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HK1, HK3 eta KAKK2.

7. Funtsezko eta gaurkotasuneko gaien planteamenduan ikuspegi globala, sistemikoa eta diziplinaz gaindikoa eskuratzea, haien askotariko alderdiak analizatuz eta kategorizatuz, funtsezkoa dena osagarria denetik bereiziz, eta hainbat diziplina-esparrutako informazioa eta ideiak integratuz, filosofiaren oinarrizko ikuspegitik, gai konplexuak modu kritikoan, sormenezkoan eta eraldatzailean jorratu ahal izateko.

Filosofiaren heziketa-zereginetako bat da —askotariko gaiak sistematikoki pentsatzeko ahaleginean, haren alderdirik unibertsalenak eta funtsezkoenak kontuan hartuta— laguntzea zenbait gairen ulermen integrala, sistemikoa, diziplinartekoa eta diziplinaz gaindikoa lortzen. Gai horien artean daude, adibidez, giza espezifikotasuna, kosmosaren azken izaera, zientzia, artea edo erlijioa, baita gaur egun gure bizitza maila guztietan baldintzatzen duten eragin globaleko gertakariak ere. Azken ildo horretatik, gai ekosozialen, prozesu ekonomiko eta politikoen edo garapen teknologikoari eta ingurunearen digitalizazioari lotutako fenomenoen izaera konplexua eta globala hobeto uler daitezke, besteak beste, antropologiaren, etikaren, politikaren edo estetikaren arloko ikusmolde filosofikoekin batera datu eta azalpen zientifikoak integratuko dituen analisiaren bidez.

Antzeko moduan, ontologia eta epistemologia filosofikoak diziplina-esparru egokia dira honako gai hauen inguruko arazoak planteatzeko, beste askoren artean: bestelako ikusmolde kulturalen arteko erlazioa, tokikoa denaren eta globala denaren arteko lotura problematiko eta aberasgarria, eztabaida zientifikoak edota jakintzaren eta giza esperientziaren esparru aniztunen eta gero eta espezializatuagoen arteko lotura.

Kasu guztietan, asmoa litzateke gai eta proiektu globalen ulermen konplexua, diziplinartekoa, kategoriaren arabera antolatua eta filosofikoki bideratua sustatzea. Ahalmen horrek XXI. mendeko erronkei espiritu kritiko eta eraldatzaileaz aurre egiteko balio behar die ikasleei.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KPSII5, HK1, HK3, HK4 eta KAKK1.

8. Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etiko eta politikoak analizatzea, horiek interpretatzeko eta ebazteko jarrera filosofikoki egokiak modu kritiko eta dialektikoan azalduz, norberaren iritzia eta autonomia morala garatzeko.

Filosofiaren ezaugarri bereizgarrietako bat da bere dimentsio teoretiko eta praktiko bikoitza. Horren bidez, helburu du, errealitatearen eta giza existentziaren izaerari, balioari eta zentzuari buruzko arazoak ulertzeaz gainera, era berean, horrekin bat etorriz, gure ekintza indibidualak zein kolektiboak arautzeko printzipio eta irizpideak arrazoituz argitzea eta proposatzea, ekintza horiek onberatasunaren eta justiziaren idealetara egokituta. Ideal horiek kritikoki berrikusi behar dira betiere.

Etika eta filosofia politikoak, filosofiaren bi diziplina praktiko nagusiak diren heinean, era berean eskatzen dute kontzeptuak, esparru teorikoak eta banakako eta taldeko lan-teknikak ikastea. Horietan, funtsezko eta gaurkotasuneko gaien analisiak ikaskuntzaren berezko parte izan behar du. Gai horien artean daude honako hauekin lotutakoak, besteak beste: kohesio soziala lortzea, gaixotasunen eta gosearen aurkako borroka, herritartasun globala, genero-berdintasun eraginkorra, iraunkortasun ekosoziala edo giza eskubideak betetzea.

Nolanahi ere, doktrinamendu dogmatiko orotatik urrun, etika eta filosofia politikoak eskatzen dute arrazionalki onargarriak diren balioen ikusmolde eta sistema guztiak aztertzea, ikasleak izan daitezen —modu arrazoituan eta baliozkoak eta beraiek onartuak izango diren irizpideekin— ikerketa pertsonalaren eta besteekiko interakzioan eta elkarrizketaren bidez, berezkoak dituzten printzipio eta jarrerak deskubrituko dituztenak. Horretarako, indarrean dagoen morala osatzen dutenak ezagutu eta haztatu behar dituzte, eta modu kontziente, aske eta arduratsuan garatu euren judizio etikoa eta politikoa, baita horri dagokion jarrera enpatikoa ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KPSII1.2, HK1, HK2, HK3, HK4 eta EK1.

9. Artearekiko eta balio estetikoa duten beste adierazpen batzuekiko sentsibilitatea eta ulermen kritikoa garatzea, edertasun eta sorkuntza artistikoari buruzko pentsamendu filosofikoan jardunez, sentimendu estetikoak hezteko eta irudien hizkuntzari eta zentzuari buruzko jarrera gogoetatsua garatzen laguntzeko.

Sentsibilitatea eta hautemate estetikorako ahalmena garatzea berezkoa du giza nortasunaren eraketak. Ez da komeni garapen hori gogoeta filosofikoaren jardun intelektualetik bereiztea. Filosofikoa eta estetikoa denaren arteko erlazioa bi zentzutan eman daiteke, gutxienez: arrazionaltasun teorikoaren erabateko jardunari berez egotz dakiokeen izaera estetiko eta emozionalari dagokionez, eta jardun horrek berak, objektu eta fenomeno estetikoen analisiari aplikatuta, objektu eta fenomeno estetikoen hautemate intelektual eta emozionalean lagundu dezakeen heinean.

Ildo horretatik, jardun filosofikoa, hemen, arrazoien eta emozioen arteko harreman harmoniatsua sustatzeko tresna egokia izan daiteke, lehen aipatutako bi zentzuetan benetako hezkuntza emozionala lortzen laguntzen baitu: esperientzia filosofikoaren beraren une estetikoa nabarmenduz, bai edukiari dagokionez, bai adierazpideei dagokienez, eta edertasunari eta horrekin berekin dakartzan emozioen inguruan berariaz gogoeta eginez, bai artean, bai beste giza jarduera batzuetan, hala nola etikan, gogoeta politikoan, naturarekiko harremanean eta filosofiak dakarren jardun teorikoan eta kontenplaziozkoan bertan.

Bestalde, edertasunari eta bere bitartekotza estetikoei buruzko pentsamendu filosofikoan jarduteak ikerketa- eta gogoeta-esparru kritiko bat ematen du, artearen eginkizun espresiboei buruz ez ezik, eginkizun adierazgarriei, gogoetazkoei eta eraldatzaileei buruz ere, baita ikus-entzunezko kulturaren eta irudiaren egungo zehaztasunari buruz ere, kultura ulertuta, ideiak transmititzeko bitarteko gisa ez ezik, berez, pentsamenduaren leku gisa ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII4, HK2, HK3, KAKK1 eta KAKK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Filosofia
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Arazo filosofikoen errotikotasuna eta garrantzia ezagutzea, arazo horiek formulatuz, ezagutuz eta analizatuz, testuekin eta beste adierazpide batzuekin (filosofikoak, literarioak, historikoak, zientifikoak, artistikoak edo beste edozein kultura-esparrukoak) lan eginez.

Filosofia
1.2. Filosofiaren izaera ulertzea, bere sorkuntzaren testuinguruan, bere adar guztietan egiten duen lanean eta horietako bakoitzaren atzean dauden galdera handietan sakonduz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Ikerketa filosofikoaren oinarrizko prozeduren ezagutza praktikoa frogatzea, honako zeregin hauen bidez, besteak beste: iturri fidagarriak identifikatzea, informazioa efizientziaz eta segurtasunez bilatzea, galdera filosofikoak behar bezala identifikatzea eta ikerketa hori digitalki nahiz bitarteko analogikoen bidez behar bezala antolatzea, analizatzea, interpretatzea, ebaluatzea, produzitzea eta komunikatzea.
2.2. Gogoeta filosofikoaren esparruan arakatzeko jarrera autonomoa eta aktiboa garatzea, jatorrizko produktuak diseinatuz, landuz eta jendaurrean komunikatuz, hala nola ikerlanak, hitzaldiak, testu-iruzkinak edo bestelakoak, jabetza intelektuala errespetatuz eta informazioa behar bezala erreferentziatuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Galdera eta arazo filosofikoei buruzko argudiozko diskurtsoak, ahozkoak eta idatzizkoak, produzitzea eta ebaluatzea, arau eta jarraibide logiko, erretoriko eta argudiozkoen erabilera egokia erakutsiz.
3.2. Iritziak eta hipotesiak sostengatzeko modu dogmatiko, faltsu eta isurituak antzematea eta saihestea, eta argudiaketa--bertuteak lantzea, falazia eta isuri horien izaera azalduz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Kooperazioaren, egiarekiko konpromisoaren, aniztasunarekiko errespetuaren eta jarrera diskriminatzaile edo arbitrario oro arbuiatz earen garrantzia ezagutzea, printzipio horiek argudio-praktikan eta besteekiko elkarrizketan aplikatuz, pentsamendu arretatsuaren ideiatik abiatuta.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Landutako filosofiaren adar guztiekin, lotutako arazo filosofikoen ikusmolde konplexua eta ez-dogmatikoa sortzea, horien inguruko tesi filosofiko ezberdin eta kontrajarrien analisi kritikoaren bidez.
5.2. Zenbait tesi eta teoria filosofiko analizatzea eta azaltzea, gogoetarako eta elkarrizketarako prozesu dinamiko eta beti ireki baten une gisa, tesi eta teoria horien argudio, printzipio, metodologia eta ikuspegien analisi konparatiboaren bidez.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Pentsamendu filosofikoaren aberastasunaz eta eraginaz jabetzea, edozein esparru kulturaletako testu edo dokumentuetako ideia eta teoria filosofiko nagusiak identifikatuz eta analizatuz, baita esperientzia, ekintza edo gertaera komun eta egungoekin lotuta ere.
6.2. Historiako pentsalari garrantzitsuenetako batzuen ideia eta teoria filosofikoen ezagutza esanguratsua lortzea eta erakustea, horien erabilera eta analisi kritikoaren bidez, ikerketa filosofikoaren jardun indibidual edo kolektiboaren testuinguruan.
6.3. Pentsamenduaren historiako arazo, ideia, tesi eta eztabaida filosofiko nagusiak identifikatzea, ulertzea eta horiei buruz eztabaidatzea, filosofiarako garrantzitsuak diren testu eta dokumentu filosofikoak analizatuz eta kritikoki iruzkinduz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Funtsezko eta gaurkotasuneko gai konplexuei aurre egitea, modu diziplinartekoan, sistemikoan eta eraldatzailean, zenbait jakintza-esparrutatik datozen kontzeptuak, ideiak eta prozedurak erabiliz, eta ikuspegi filosofiko batetik kritikoki orientatuz eta artikulatuz.
8. konpetentzia espezifikoa
8.1. Norberaren iritzia eta autonomia morala garatzea, funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etiko eta politikoen analisi filosofikoaren bidez, Filosofiaren historian zehar egindako proposamen etiko eta politiko nagusiak ezagutuz, zer jarrera dauden kontuan hartuz, eta gaiari buruzko norberaren tesiak gainerakoekin landuz, argudiatuz, azalduz eta elkarrizketara eramanez.
9. konpetentzia espezifikoa
9.1. Arazo filosofikoak (batez ere estetikaren esparrukoak) kontuan hartzean, oreka egokia sortzea alderdi arrazional eta emozionalaren artean, artearen esperientziari buruzko berariazko gogoetaren bidez, oro har, eta irudiek eta ikus-entzunezko hizkuntzak kultura garaikidean duten zeregina analizatuz.
9.2. Abstrakziotik ulertzea artearen eta edertasunaren inguruan historian zehar agertu diren gai filosofikoak eta sorkuntza artistikoarekin eta plazer estetikoarekin lotutako oinarrizko kontzeptuak, eta horiek eztabaida estetiko garaikideekin erlazionatzea.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Filosofia	
A. Filosofia eta gizakia	
1. Norberaren filosofiari buruzko gogoeta filosofikoa	Jakintza filosofikoaren ezaugarriak eta ikusmoldeak. Filosofiaren aipamen historiko laburra: mitotik logoserako jauzia. Filosofiaren adarretako banaketa tradizionalak eta gaur egungo ikerketa-arloak. Filosofiaren gaurkotasuna eta erabilgarritasuna: XXI. mendeko erronken inguruan filosofatzearen garrantzia.*
	Filosofia, jakintzaren eta giza jardueraren beste arlo batzuekin lotuta.
	Filosofoaren oinarrizko metodoak eta tresnak: iturrien erabilera eta analisi kritikoa; dokumentu filosofikoen ulermena eta interpretazioa; kulturaren beste esparru batzuetako arazo filosofikoen identifikazioa;* pentsamendua eta argudiozko elkarrizketa; ikerketa eta disertazio filosofikoa.*
	Diskriminazio soziala, generokoa, etniakoa eta adinekoa tradizio filosofikoan. Filosofia eta kondizio soziala. Emakumearen diskriminazioa filosofiaren historian. Filosofia eta etnozentrismoa. Filosofia eta haurtzaroa.
2. Gizakia esperientzia filosofikoaren subjektu gisa	Filosofia eta giza existentzia.*Gizakia galdera filosofikoaren subjektu gisa: bizitzaren zentzua.*
	Giza izaeraren genesiari eta definizioari buruzko eztabaida:*espezifikotasun naturala eta baldintzatzaile historiko-kulturalak*. Gizakiaren gaineko ikusmolde filosofikoak.
	Kultura aniztasunaren aurrean jarrera desberdinak.
	Nortasunaren egitura psikosomatikoa: sentikortasuna, hunkiberatasuna, desioak eta bolizioa, ahalmen kognitiboak. Kontzientzia eta hizkuntza.
	Identitate pertsonalaren arazoa. Identitate motak eta moduak.*Identitatearen eraikuntza*. Transhumanismoaren inguruko espekulazioa.
	Gizakiaren zoriontasuna jakintza filosofikotik: zoriontasunaren etikak.
B. Ezagutza eta errealitatea	
1. Ezagutzaren eta egiaren arazo filosofikoa	Ezagutzaren arazoa: definizioa, posibilitatea eta mugak. Egiaren teoriak. Desinformazioa, gehiegizko informazioa eta egia-ostearen fenomenoa*.
	Ezagutzaren teoriak: arrazionalismoaren, enpirismoaren eta beste teoria batzuen formak (idealismoa, errealismoa, fenomenologia eta hermeneutika).
	Arrazoibidea eta argudiaketa. Argudiaketa informala. Logika formalaren nozioak. Falazien eta alborapen kognitiboen detekzioa*.
	Ezagutza eskuratzeko prozesua. Ezagutza-moduak. Filosofia eta hezkuntza..
	Jakintza zientifikoa: definizioa, mugaketa eta metodologia zientifikoak. Zientziaren filosofia: ezagutza zientifikoaren izaera, arazoak eta mugak.
	Emakumearen zeregina zientzian eta beste jakintza batzuetan.
	Beste jakintza-modu batzuk: jakintza arrunta; arrazoi poetikoa; erlijiosinesmenak. Jakintza metafisikoaren arazoa.
	Ezagutzaren dimentsio soziala eta politikoa. Ezagutza, boterea eta interesak. Teknozientzia garaikidea.
2. Errealitatea eta erreala dena	Errealitatearen auzia izaera goren gisa.
	Erreala denaren arazoa. Itxura eta errealitatea. Errealitaterako hurbilketak (esentzialista, prozesuala eta erlazionala).
	Batasuna eta aniztasuna. Kategoriak eta izaerak. Entitate fisikoak eta objektu idealak: unibertsalen arazoa.
	Adimen-gorputz auzia. Adimenaren filosofia eta adimen artifizialaren inguruko eztabaida.
	Denboraren eta aldaketaren arazo filosofikoa. Determinismoaren arazoa. Beharra, zoria eta askatasuna.
	Jainkoaren existentziaren arazo filosofikoa. Teismoa, ateismoa eta agnostizismoa. Erlijioen bilakaera*.

Filosofia	
C. Ekintza eta sorkuntza	
1.Giza ekintza: filosofia etikoa eta politikoa	Auzi etikoa: nola jokatu behar dugun. Izatea eta izanbeharra. Gogoeta morala. Judizioaren baldintzak eta elkarrizketa etikoa*. Garapen moralaren faseak.
	Etika arrazionalaren posibilitatea*. Kognitibismoa eta emotibismoa. Emotibismo morala eta etika arrazionala.*Erlatibismo moralaren inguruko eztabaida. Minimoen etika unibertsalaren erronka.*
	Auzi etikoaren aurrean erantzun nagusiak: etika kontsekuentzialistak, betebeharraren etikak eta bertutearen etikak. Nietzscheren moral amorala. Zaintzaren etikak. Ingurumen-etika. Etika aplikatuak.
	Giza eskubideak: haien genesia, legitimitatea eta gaurkotasuna. Giza eskubideen belaunaldiak. Animalien eskubideak.
	Gure garaiko arazo etiko handiak: desparekotasuna eta pobrezia; gerra eta beste indarkeria mota batzuk; gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna; gutxiengoekiko diskriminazioa eta errespetua; identitate nazionalak; arazo ekosozialak eta ingurumenekoak; bioetika (adimen artifiziala, lagundutako ugalketa...).
	Justiziaren auzi filosofikoa. Gizakia izaki sozial gisa. Politikaren definizioa. Legezkotasuna eta legitimitatea. Etikaren eta politikaren arteko erlazioa.*
	Antolaketa sozialaren eta botere politikoaren funtsa. Naturaz gaindiko jatorriaren teoriak vs. teoria kontraktualistak. Demokraziari buruzko gogoeta filosofikoa. Kontzeptu nagusien inguruko gogoeta: estatua, nazioa, herria, aberria...
	Oinarrizko printzipio politikoen inguruko elkarrizketa: berdintasuna eta askatasuna; gizabanakoa eta estatua; lana, jabetza eta aberastasunaren banaketa. Eztabaida politiko garaikidea: liberalismoa, utilitarismoa eta komunitarismoa.
	Idealak, utopiak eta distopiak.*Mugimendu sozial eta politikoak. Feminismoa eta genero-ikuspegia filosofian*. Beste eztabaida politiko garaikide batzuk: ekologismoa, globalizazioa, klase sozialak...
	Politikan parte hartzeko moduak.
2. Sorkuntza artistikoaren inguruko gogoeta filosofikoa	*Estetikaren definizioa, esparruak eta arazoak: artea, edertasuna eta gustua*. Estetikaren lotura kulturaren beste esparru batzuekin. Etika eta estetika. Artearen eginkizun politikoa.
	Edertasunari eta arteari buruzko teoria klasikoak eta modernoak. Teoria eta auzi estetiko garaikideak.*Irudiaren eta ikus-entzunezko kulturaren inguruko gogoeta.*

FILOSOFIAREN HISTORIA

Giza kulturak galderarik oinarrizkoenei ematen dizkieten erantzunen arabera eratzen dira, honen arabera ere ezagutzera ematen dutelarik euren burua. Galdera horien artean, honako hauei lotutakoak daude: kosmosaren jatorria, izaera eta zentzua, gizakiaren izatea bera eta patua, ezagutzarako aukera eta moduak, eta gure ekintzak eta sorkuntzak bideratzeko egokitzat hartzen ditugun balioen definizioa (egia, ongia, justizia, edertasuna eta abar). Dena dela, galderak funtsean berberak badira ere, haiek planteatzeko eta haiei erantzuteko moduen aldakortasun historikoa oso handia da itxuraz. Filosofiaren Historia jakintzagaiaren helburua galdera eta erantzun horiek mendebaldeko pentsamenduan izan duten bilakaeraren bidea egitea da, kritikoki eta arrazionalki, pentsamenduaren beste tradizio batzuen aberastasuna eta garrantzia alde batera utzi gabe. Helburu horrek garrantzi nabaria du ikasleen heldutasun pertsonala, soziala eta profesionala lortzeko. Ideia filosofikoen bizitza eta historikoki elkarren artean eta gure kulturaren beste alderdi batzuekin duten erlazio konplexua eta dialektikoa ikertzen ausartzea, pentsatzeko, desiratzeko, sentitzeko eta jokatzeko oinarri dugun sare mental korapilatsua ikertzea ere bada. Izan ere, ezagutzen erudizio-laburpen hutsa izan ordez, Filosofiaren Historia jakintzagaiak beren izaeraren zein beren garai eta gizarteingurunekoaren oinarri diren ideiak eta balioak ezagutzeko ariketa argigarria izan behar du ikasleentzat.

Filosofiaren Historia jakintzagaiak, lehen mailako Filosofia jakintzagaiaren kasuan bezala, duen ezagutzarekiko jarrera erradikala eta, hala nola lantzen dituen askotariko gaiak eta alderdiak direla eta, espazio egokia eskaintzen du Batxilergoko etapako funtsezko konpetentzien eta helburuen garapen bateraturako. Zentsu horretan, arazo unibertsalei eta funtsezkoei (hala nola errealitatearen azken izaerari, egiari, justiziari, edertasunari edo giza identitateari eta giza duintasunari berari lotutakoei) buruzko ikerketaren berrikuspen historikoa (testuinguruan kokatua) eta pentsamenduaren historia osatu duten ideiei eta jardunbideei buruzko gogoeta kritikoa baliagarriak dira, ikasleen heldutasun pertsonala eta soziala sustatzeko eta dimentsio intelektuala zein nortasuna osatzen duten alderdi etiko, politiko, zibiko, emozional eta estetikoak garatzeko. Hori dela eta, funtsezko konpetentzia guztiak lantzen badira ere, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, herritartasunerako konpetentzia eta konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa bereziki jorratzen dira.

Arlo honen eta etapako gainerako arloen arteko erlazioari dagokionez, Filosofiaren Historia lotura natural bat da Batxilergoko jakintza guztien artean, ikasleek aukeratzen duten ibilbidea edozein izanik ere. Historiako gai filosofiko nagusietara planteatzen den hurbilketa gogoetatsu eta dialektikoak, ikaskuntza esanguratsua eta diziplinarteko ikusmoldea bultzatzen dituen ikuspegi bat eskaintzen du. Are gehiago, ideia horiek testuinguruan kokatzeari dagokion garrantzia emanez gero. Adar zientifikoak, humanistikoak zein artistikoak testuinguruan kokatu behar dira eta abstrakzio-ahalmena garatu behar da. Horretarako, Filosofiaren Historia jakintzagaiak funtsezko zeregina betetzen du Batxilergoko bigarren mailan. Gainera, hizkuntza konpetentzien garapena sakonki lantzen da, testuinguru analogikoetan zein digitaletan argudiaketan sakontzeko eragile gisa erabil daitezkeen testu filosofikoen zein bestelako euskarri batzuen aztertzearen bidez. Era horretan, eta historiako ideia filosofikoak testuinguruan kokatzeko lan horren bidez, hainbat alderdi (hala nola historia bera, zientzia, ekonomia, biologia eta artea) estuki landuko dira Filosofiaren Historia jakintzagaian.

Filosofiaren Historia jakintzagaiak hainbat konpetentzia espezifiko garatzea proposatzen du. Konpetentzia horiek, Batxilergoko lehen mailan ikerketa filosofikoaren inguruan landu ziren prozeduretan sakontzea eta mendebaldeko pentsamenduaren historiako ikuskera, dokumentu eta egileetako batzuei buruzko ezagutza esanguratsu bat lortzeaz gain, ikasleei beren ideietan kritikoki pentsatzeko aukera ematea, ideia horiek beren jatorririk urrunenarekin identifikatzea eta haien aldaketa historikoen jarraipena egitea dute helburu nagusitzat. Ideien analisi historiko eta dialektiko horrek kontuan hartu behar ditu, bai ideia horiek gainerako ideia filosofikoekin dituzten aurkakotasun- eta osagarritasun-erlazioak, bai ideia horiek beren garaiko adierazpen kultural, politiko eta sozialekin duten harremana, testuinguruan ulertuta eta testuingurua ulertzeko. Hori dela eta, proposamen honetan azpimarratzen da pentsamendu filosofikoaren historia ez dela ulertu behar modu isolatuan, testu eta egilerik garrantzitsuenen ezagutzara mugatuta, baizik eta ideiak agertzen, sortzen eta adierazten diren testuinguru historiko eta kultural osoari lotuta baizik. Horretarako, kontuan hartu behar da ideia horiek adierazpide eta fenomeno sozial, politiko, artistiko, zientifiko edo erlijiozko anitzetan aurkitu ditzazkegula, eta, zehazkiago, ikertu behar da ideia horiek testu literaturio, historiko, zientifiko eta bestelakoetan duten presentzia. Horren azken helburua da ikasleak, mendebaldeko pentsamenduaren historia eratu duten teoria eta eztabaida filosofikoak ulertu ondoren, egoera hobean egotea egungo arazoen eta XXI. mendeko erronken aurrean jarrera propioa, elkarrizketarako irekia, emozionalki gaitua, kritikoa eta aktiboa hartzeko.

Ebaluazio-irizpideen helburua jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoen lorpen-maila zehaztea da, jakintzak zer neurritan barneratzen diren eta nola aplikatzen diren egiaztatzea eta ikasleak bere garapen pertsonal eta akademikorako jarrera eta balio garrantzitsuak hartzen dituen zehaztea. Haien formulazioan, beraz, jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea aipatzen dira argi eta garbi. Hortaz, oinarrizko jakintzekin harremanean, ikasteko prozesuak zein ikaskuntzaren emaitzak berak hartu behar dituzte kontuan, eta horiek behar bezala gauzatzeko, konpetentziak garatuko diren ikasteko testuinguru eta egoeretara egokitzeko moduko askotariko ebaluazio tresnak behar dira.

Oinarrizko jakintzak, bestalde, hiru multzotan banatuta daude, mendebaldeko pentsamendu filosofikoaren historian bereziki esanguratsuak izan diren hiru aldi historikori lotuta: antzinako Greziako filosofiaren jatorria eta garapena, Europako modernitatearen sorrera (Erdi Aroko pentsamenduan eta kulturan dituen sustraietatik abiatuta) eta pentsamendu modernoaren klimaxa eta krisia, filosofiaren egungo egoera heterogeneo-

ra iritsi arte. Hiru multzo horietako bakoitzean, Batxilergoko Filosofiaren Historiako oinarrizko maila batean ezinbestez landu behar diren jakintzak aipatzen dira, multzo eta jakintza bakoitzari eskaini beharreko arreta-maila eta haiek antolatzeko modua aurretik ezarri gabe, zabalak direlako landu behar direnak eta modu osagarrian edo testuinguruaren arabera txertatutakoak hautatu ahal izan daitezen.

Oinarrizko jakintza horien edukia arazo filosofiko jakin batzuekin osatu nahi izan da. Arazo horiek tratatzeko, beharrezkoa izango da hainbat pentsalarik arazo horien inguruan izan duten elkarrizketari eta jakintzagaiaren oinarrizko izaerari erreparatzea, hala nola arazo hauetaz diharduten, egokiak diren eta garrantzi historikoa duten edo izan duten testu eta dokumentu literario, historiografiko eta bestelakoen azterketa osagarria egitea ere.

Bestalde, emakume izate hutsagatik kanon tradizionalean bidegabeki baztertuak izan diren filosofoek jasan duten laido historikoa onbideratu nahi izan da hiru multzoetan. Neurri hori osatzeko, arreta berezia eskaintzen zaio azken bi multzoetan pentsamendu feministari, ideien historia hurbilaren ikuskerarik adierazgarrienetako bat baita. Ohiko lau aldi historiografikoak alde batera uztearen bidez, pentsamendu filosofikoaren historiako etapa edo faseen dinamikotasuna eta elkarrekiko lotura azpimarratu nahi izan da, eta garrantzi handiagoa eman nahi izan zaio azken bi multzoetan elementu nagusia den pentsamendu moderno eta garaikidearen azterketari. Dena dela, horrek ez du esan nahi ahaztuta utziko direnik antzinako eta Erdi Aroko pentsamenduari lotutako gai eta ideia ugariak eta aberatsak.

Konpetentzia espezifiko horietako bakoitza Batxilergoko etapako helburu orokorrekin eta funtsezko konpetentziekin lotuta dago, eta, modu zuzenagoan, ebaluazio-irizpide jakin batzuekin. Irizpide horiek konpetentzia espezifikoak eskuratzean espero den jardunmaila hobetzeko eta horren diagnostikoa egiteko tresna gisa ulertu behar dira. Konpetentzia-ikuspegi horrekin, ebaluazio-irizpideek konpetentzia espezifikoei lotutako prozesuen ebaluazioa izango dute ardatz, baina ez dituzte ahaztuko edukiek ematen dizkiguten Edonola ere, ikasteko prozesuak zein haien emaitza hartu beharko dituzte ezinbestez kontuan. Bestalde, adierazitako konpetentziak garatzeko ikaskuntza-testuinguruetara eta ikaskuntza-egoeretara egokitzeko moduko ebaluazio-tresna bereizien bidez inplementatu beharko dira irizpide horiek.

Azpimarratu beharra dago jakintzagaiaren programazioa legeak ezartzen duen konpetentzia-espirituarekin bat etortzeko, Kant-en «filosofatzen ikastea» ideia orientagarritzat hartu behar dela eta ikasleen ikerketa-jarduerak irakatsi eta ikasteko prozesu osoaren ardatza eta xedea izan behar duela. Ildo horretan, Batxilergoko lehen mailan landu diren eta autonomia intelektuala eta morala eta heldutasun zibikoa lortzen lagunduko duten konpetentzien garapenean sakondu beharko da. Azpimarratu beharra dago, azkenik, komeni dela Filosofiaren Historia testuinguru historiko eta kulturalean ulertzea, haren tratamendu isolatua eta akademizista saihestea, eta egungo arazorik larrienen gaineko (eta, bereziki, gizakien arteko ekitateari, giza eskubideen justifikazio eta kontsiderazioari, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari eta arazo ekosozialei lotutakoak) gogoeta eginez, kritikoki lantzeko tresna egoki gisa erabiliz.

Tokiko ikuspegiak, genero-ikuspegiak eta ikuspegi inklusiboak hezkuntza praktikan integratuta egon daitezen, eta adibideak, erreferentzia artistikoak, kulturalak, antropologikoak, linguistikoak edo sozialak erabili behar direnean, kontuan izan behar ditugu aniztasuna (funtzionala, sexual-afektiboa, ekonomikoa, jatorriari lotutakoa eta abar), genero-berdintasuna eta euskal dimentsioa, beste kultura-dimentsio batzuekin alderatuta, beharrezkoa izanez gero. Adibide horiek pentsamendu kritikoa eta gogoetan oinarritutako pentsamendua garatzeko erreferentziak izan behar dute. Gainera, Batxilergoan garrantzitsua da aipatu ditugun euskal dimentsioari eta inklusioari lotutako ideia eta egile jakin batzuen bidez erreferentzia teoriko jakin batzuk lantzea.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Gertakari historiko-filosofikoei buruzko informazioa bilatzea, aztertzea, interpretatzea, ekoiztea eta adieraztea, iturriak modu kritiko eta seguruan erabiliz eta oinarrizko ikerketa-teknikak menderatuz, arazo eta ideia filosofikoen historiaren inguruko ezagutza eta ekoizpen propioak sortzeko.

Filosofiaren Historia ikertzeko zereginaren kasuan, ikasketa historikoen, filologiaren eta beste giza zientzia batzuen kasuan bezala, ikaskuntzaren aztergaia tradizioak utzitako testuen, dokumentuen eta antzeko adierazpenekin lotuta dago. Beraz, funtsezkoa da ikasleek iturri fidagarri eta garrantzitsuekin lan egiten jakitea, betiere iturri horiek beren testuinguru sozial eta kulturalean eta beren proiekzio historikoan kokatuz eta garai eta kultura desberdinetako dokumentuen artean loturak ezarriz. Horretarako, ikerketa-tresnak eman behar zaizkie informazioa ingurune digitaletan zein beste ingurune tradizionalago batzuetan bilatu eta antolatzeko, informazio hori ebaluatzeko eta kritikoki erabiltzeko, jakintzagaiari buruzko ezagutzak ekoiztu eta helarazi ahal izan ditzaten.

Helburua da nolabaiteko konplexutasun formal eta materialeko dokumentuak erabiltzeaz gain, iritzi propioak osatu eta ekoizpenak egin ahal izatea, dokumentu horiekiko elkarrizketan eta diziplinaren ikaskuntzaren inguruko jarrera ikertzaile, autonomo eta aktibo batean oinarrituta. Horretarako, beharrezkoa da testu eta beste dokumentu eta adierazpen historiko-filosofikoak formalki interpretatzeko, haiei buruzko iruzkinak egiteko eta arazo, tesi eta egileekin lotzeko ahalmena ez ezik, eskemak, kontzeptuzko mapak, koadro kronologikoak eta beste lan batzuk (oinarrizko ikerketalanen ekoizpena eta azalpena barne) bakarka zein taldean egiteko ahalmena ere bai, beti ere horretarako protokoloak jarraituz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KD1, KD3, KPSII4, KPSII5, HK3, EK3.

2. Argudiatze eta elkarrizketa filosofikoaren arauak eta jarraibideak ezagutzea, arau eta jarraibide horiek hainbat euskarri eta jardueretan identifikatuz eta aztertuz, argudioak osatzean eta azaltzean eta gainerakoekin hitz egitean zorroztasunez aplikatzeko.

Argudiatzea menderatzea funtsezko faktorea da zientzien eta jakintzen esparruan zein eguneroko bizitzan doitasunez eta eraginkortasunez pentsatzeko eta komunikatzeko, eta ezinbesteko baldintza da iritzi pertsonala osatzeko. Beharrezkoa da, beraz, ikasleek, testu eta dokumentuekin lan egitean zein beste batzuekiko elkarrizketa filosofikoan, argudio zuzenak eta ongi oinarritutakoak erabiltzea, argudioen doitasuna hautematea eta iritziak eta hipotesiak defendatzeko edo eztabaidatzeko modu dogmatikoak, faltsuak eta partzialak detektatu eta saihestea.

Elkarrizketak merezitako estimazioa du filosofiaren didaktikan, ikerketa filosofikoaren izaera dialektikoaren adierazpen gisa zein herritartasun demokratikoaren funtsezko elementu gisa, eta funtzio bikoitza betetzen du ideien historiaren azterketan: eztabaida filosofikoa sustatzea, eta eztabaida hori historian zehar elkarrizketa gai izan diren planteamendu eta ikuskeren inguruan egitea. Asmoa, beraz, kooperatiboa eta ezagutzaren bilaketarekin, ideien adierazpen askearekin eta tesien eta iritzien aniztasunarekiko errespetuarekin konprometitua dagoen elkarrizeta sustatzea da. Ikasleen artean, oso garai desberdinetako egileen ideien inguruko ikuspegi kritiko eta erlazionalerako gaitasuna sustatu nahi da honekin, desadostasuna eta eztabaida gazka huts bezala ulertu beharrean, osgarritasunetik arazoak hobeto ulertzeko aukera gisa ulertuta.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, STEM1, KPSII3.1, KPSII4, KD3, HK2, HK3, KAKK1.

3. Elkarrizketa filosofikoan modu zorrotz, kritiko, tolerante eta enpatikoan parte hartzea, elkarrizketa horrek behar dituen jarraibide etiko eta formalak barneratuz eta eskatzen digun kudeaketa emozionala identifikatuz, talde-jardueretan parte hartzearen eta gai filosofikoen planteamendu dialogikoaren bidez, ideien kontrastea eta elkartrukea sustatzeko eta herritartasun aktiboa, emozionalki gaitua eta demokratikoa gauzatzeko.

Eredu dialogikoak, hasiera-hasieratik, lehentasun ukaezina izan du filosofatzeko metodo gisa eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko funtsezko erreferentzia gisa. Beraz, konpetentzia hau garrantzitsuenetako bat da filosofia benetako hezkuntza zibikoa dela erakusten dutenen artean. Elkarrizketa filosofikoak elkarrekin gutxitan agertzen diren hainbat dohain biltzen ditu: zorroztasun arrazionalaren eskakizuna, aniztasun ideologikoaren onarpena, jarrera arretatsua norberaren ideiak adierazteko eta besteenak ja-

sotzeko garaian, eta gurekin ados ez dauden pertsonekiko errespetua eta enpatia, betiere elkarrekin jarrera komun bat bilatzeari eta aurkitzeari utzi gabe eta desadostasuna nahitaez gatazka gisa ulertu behar izan gabe, ikuspegi-aniztasun eta osagarritasun gisa baizik.

Elkarrizketa filosofikoa, bestalde, ikaskuntzaren beraren prozesu analogoa da, alderdi motibazionalak, emozionalak, ikaskuntza aktiboa eta esanguratsua, ikerketa edo aurkikuntza bidezko irakaskuntza, kolaborazio-lana edo bizitza osoko prestakuntza bezalako ezaugarriak garrantzitsutzat hartzen dituen ia ikuspuntu pedagogiko orotan. Oro har, elkarrizketak ziurgabetasunaren eta kritikaren elementuak era konstruktiboan integratzen ditu, eta aukera ematen du elementu horietatik abiatuta planteamendu berritzaileak eta gainditzaileak aurkitzeko. Gainera, kooperazioaren, zintzotasunaren eta eskuzabaltasun hermeneutikoaren printzipioei jarraitzen die, eta izaera irekia eta amaitu gabea du, baina horrek ez du esan nahi eraginkortasun txikiagoa duenik ikerketa filosofikorako eta herritartasunaren jardun aktibo eta demokratikorako.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KPSII4, HK2, HK3, KAKK1.

4. Historikoki izan diren ikuskera filosofikoak ulertzea eta adieraztea, iturrietara hurbilduz eta haien inguruko lan kritikoa eginez, kultura-ondare komunaren eta herritartasun ilustratu baten ondare intelektualaren funtsezko parte diren ideien ezagutza garatzeko.

Tradizio filosofikoak eta gaur egungo eztabaida filosofikoak gai filosofikoen inguruko planteamendu, galdera, erantzuteko ahalegin, ideia, argudio eta azalpenen balio handiko ondarea metatu eta transmititu dute eta sortzen jarraitzen dute, testuinguru historikoaren eta adierazteko aukera izan zuten egileen ahaleginaren arabera modulatua. Proposamen filosofiko horietako garrantzitsuenen ezagutzak ikasle guztien eta, oro har, behar bezala informatutako herritarren kulturaren parte izan behar du.

Ikuskera filosofiko horiek ikasteko, Batxilergoko lehen mailan landutako gaien esperientzia eguneratuan oinarritutako lan bat egin behar da, ikasleek gai horien sustraia eta dimentsio historikoa dokumentuekiko zuzeneko kontaktuaren eta haiekin egindako lanaren bidez ikertzeko beharra sentitu dezaten. Ikerketa horrek, bestalde, aurreiritzi etnozentrikoetatik, sexistetatik edo beste edozein motatakoetatik kanpo egon behar du, eta emakumeek bete duten zeregina (askotan ezkutatu eta baztertu dena) aitortu behar du, baita gureaz bestelako pentsamendu-tradizioen garrantzia eta eragina ere, diskurtso filosofikoaren parte diren edo izan diren kontzeptualizazio baztertzaileak edo diskriminatzaileak kritikoki aztertuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HK1, HK2, HK3, KAKK1.

5. Historikoki izan diren ikusmolde filosofikoen izaera funtsean plurala eta askotarikoa ezagutzea, erlazio dialektikoan, konfrontazio-erlazioan eta osagarritasun-erlazioan jarriz, pentsamenduaren historiaren ikuskera konplexu eta dinamikoa sortzeko eta gatazken konponbidean jarrera zentzuzko eta elkarrizketatzaile zein tolerante batekin konpromesua hartzeko.

Filosofia, beste ezagutza-esparru batzuk ez bezala, erabat irekia eta eztabaidatua agertzen da bere arlo guztietan, eta hori ez da zertan akats edo disfuntzio gisa interpretatu behar, izaera konplexu eta dialektiko baten seinale gisa baizik. Izaera horrek, nolanahi ere, ahobatezkotasunik lortzen ez duten (agian hori lortzea ere ez da komeni) baina elkarrizketa konstruktibo eta errespetuzkoan oinarrituta dauden eztabaidak egiten laguntzen du.

Filosofiaren izaera plural hori nabariagoa da dimentsio historikoaren bitartez ulertzen dugunean. Dena dela, ikuspegi-aberastasun horrek ez du zalantzan jartzen eginkizun filosofiko oro egiaren eta errealitatearen zentzuaren alderdirik oinarrizkoenen baldintzatu gabeko bilaketa integral gisa definitzen duen funtsezko batasuna. Bestalde, ikusmolde filosofikoei dagozkien argudiatze eta azalpen mota desberdinak eta haiek interpretatzeko dauden askotariko moduak ezagutzea esperientzia aproposa da pentsamendu konplexua, analisia eta sintesia lantzeko eta errealitatea eta arazo filosofikoak eta gizarte-garrantzia dutenak hain partziala izango ez den eta dogmatismo ororekin kritikoa izango den ikuspegi sakonago eta pluralago batetik ulertzeko, herritartasun demokratikoaren gauzatzeak izan behar duenarekin bat etorriz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

6. Arazo filosofiko berak hainbat garaitan eta ikuskera filosofikotan nola planteatu diren ezagutzea, testuak eta beste adierazpide filosofiko, historiko edo kultural batzuk aztertuz eta interpretatuz, arazo horiei tradizioaren ekarpenaren ezagutzari buruzko gogoeta kritiko batetik abiatuta aurre egiteko.

Gogoeta filosofikoa gaika lantzen zen nagusiki Batxilergoko lehen mailan, eta bigarren mailan ere era diakronikoan ematen da, arazo filosofikoak garai historiko, hizkuntza eta forma desberdinen bidez aztertuz, eta garai eta kultura bakoitzeko alderdi soziokulturalei lotuta. Ikasleek fase edo une horiek guztiek osatzen duten planteamendu eta erantzun multzoa ezagutu behar dute, atzean geratu den historia eta "historia" kontzeptua bera ulertzeko ez ezik, oraina ulertzeko eta etorkizunari buruz arretaz eta modu gogoetatsu baten pentsatzeko. Bestalde, filosofiaren izaera plurala eta beti irekia dela eta, filosofian beste jakintza batzuetan baino beharrezkoa da prozesu historiko horretaz jabetzea. Prozesua bera gogoeta filosofikoaren xede da, eta pentsamendu garaikide osoaren hazia aurkitzeko aukera ematen du.

Hortaz, beharrezkoa da ikasleek historian izan diren arazo filosofikoak aztertzea, arazo horiek agertu diren une historiko bakoitzeko baldintza soziokulturalak argitzea eta arazo horiei pentsamendu-korronte eta pentsamendu-eskola desberdinetan eman zaien tratamenduarekin lotzea. Helburua da ikasleek arazo horiei, haien erradikaltasun eta unibertsaltasunaren zein haien adierazpenen aniztasun eta aldakortasunaren ezagutzatik heltzea, bi alderdi hauen arteko loturari buruz gogoeta eginez, filosofiaren eta hura txertatuta dagoen kulturaren ezagutza sakona eta kritikoa sustatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

7. Galdera filosofikoak eta haiei erantzuteko ahaleginak kulturaren beste esparru batzuetan historikoki nola aurkeztu diren ezagutzea, esparru horietako testuen eta beste adierazpen batzuen interpretazio-azterketa eginez, mendebaldeko kulturaren historiaren eta ideia filosofikoek bete duten zereginaren ikuskera sistematiko, erlazional eta konplexu bat sustatzeko.

Filosofia ez da bere arazoetan eta hizkuntzan bakartuta dagoen jakintza bat, giza existentziaren gainerako jakintza eta alderdietatik kanpo dagoena. Aitzitik, beti agertu izan du interesa ezagutzaren beste esparru batzuetaz hitz egiteko, hornitzeko eta ideiak emateko. Gainera, filosofia ikastea suspergarriagoa eta aberatsagoa da arazo eta ikuskera historiko-filosofikoak agertzen diren (tazituki bada ere) beste kulturaadierazpen batzuen azterketaren bidez lantzen denean. Hori dela eta, Filosofiaren Historia jakintzagaira hurbiltzeko, beharrezkoa da, filosofo handien testuak aztertu eta interpretatzea ez ezik, filosofikoki garrantzitsuak diren izaera politiko, artistiko, zientifiko edo erlijiosoko beste dokumentu eta gertaera historiko batzuk aztertzea ere bai.

Helburua bikoitza da. Alde batetik, ikasleek gogoeta filosofikoaren diziplinarteko eta diziplinaz haraindiko izaera eta jakintza guztiak egituratzeko betetzen duen funtzioa ulertzea. Bestetik, dauden teoria filosofikoen eta haien espazio historiko eta kultural berekoak diren mugimendu, doktrina eta sorkuntza sozialen, politikoen, moralen, artistikoen, zientifikoen eta erlijiosoen arteko lotura ezagutzea, elkarren arteko eraginak eta, bereziki, mugimendu, doktrina eta sorkuntza horien azpian dauden funts eta arazo filosofikoak identifikatuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

8. Egungo gai garrantzitsuen planteamenduan ikuspegi sistemiko eta diziplinaz haraindiko bat eskuratzea, gai horien inguruko jarrera historiko-filosofiko desberdinak kritikoki azalduz, haien askotariko alderdiak aztertuz eta kategorizatuz, funtsezkoa dena eta osagarria dena bereiziz eta hainbat diziplina-esparrutako informazioa eta ideiak txertatuz, judizio-autonomia garatzeko eta etikoki kontsekuenteak diren jarrerak sustatzeko.

Historian zehar garatu diren pentsamendu-sistema handiak ez dira, besterik gabe, iragana, gure kultura-ezaugarri bereizgarriak edo gure izateko, ezagutzeko eta baloratzeko modua sakonki ulertzeko erreferentziak hutsak. Horrez gain, eta kritikoki erabiliz gero, egungo eztabaidarik konplexuenak argitzen dituzten gidak ere badira, eta, beraz, ezinbesteko tresna mundu justuago, jasangarriago eta arraziona-

lago bat sustatzeko zereginean. Zentsu honetan, filosofiaren historia errealitatea ulertzeko eta giza ekintza bideratzeko ahalegin progresibo baten isla da, zentzu indibidualean zein kolektiboan. Gainera, ikasleei erreferentzia-esparru egokia eskaintzen die herritartasun kontzientea, balio komunekin kritikoki konprometitua eta XXI. mendeko erronken aurrean gogoetan oinarritutako jarrera konstruktibo bat gauzatzeko. Hortaz, gaurkotasuna duten gaietan (hala nola desberdintasunean eta pobrezian, giza eskubideek munduan duten egoeran, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunaren lorpenean edo arazo ekosozialetan) inplikatuta dauden ideia, teoria eta eztabaida filosofikoak sakon ezagutzen diren heinean, hobeto ulertuko dira eta hobeto egingo zaie aurre ikuspegi global, sistemiko eta diziplinaz haraindiko batetik.

Azken xedea da ikasleek haien aurrean jarrera bat hartu ahal izatea, haien askotariko alderdiak aztertuz eta kategorizatuz, funtsezkoa dena eta osagarria dena bereiziz, eta diziplina-esparru desberdinetako informazioa eta ideiak bateratuz, beren ideiek pentsamendu filosofikoaren ibilbide historikoari zor diotenaz erabat jabeturik. Horrek eskakizun kritiko handiagoa eta ideia horien hobekuntzarekiko eta haietatik ondoriozta daitezkeen jarrera eta ekintzekiko konpromiso irmoagoa ekarri beharko luke.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1.

9. Pentsamendu kritikoa eta emozioen hezkuntza garatzea, kooperazio-prozesu dialogikoetan parte hartzearen bidez eta gai horiei buruzko berariazko gogoeta egin duten egileen bitartez, elementu horiek pentsamenduaren garapenean betetzen duten zeregina hobeto ulertzeko eta autoezagutza eta kudeaketa pertsonal handiagoa lortzeko.

Pentsamendu kritikoaren eta emozioen hezkuntzaren garapena giza nortasunaren eraketaren berezko parte da, eta, horregatik, Filosofiaren Historia jakintzagaiaren helburuetako bat izan behar du. Curriculum honetan azaldutakoari jarraikiz, ez da komeni bereiztea ideiak ulertzeak dakarren ariketa intelektuala eta ideia horietara hurbiltze filosofiko bat ahalbidetzen diguten ezaugarri pertsonalen garapena. Pentsamendu kritikoaren garapena pentsamendu filosofikoaren zutabeetako bat da. Zutabe hori egileen ideietara kritikoki hurbilduz eta ikasleek egile horiek landu dituzten galderei buruzko gogoeta eginez garatzen da. Horrez gain, gai horien inguruko berariazko gogoeta egin duten egileen ideiak landu behar dira.

Autoezagutza handiagoa eta kudeaketa pertsonal hobea ahalbidetzen diguten gai emozionalak bi norabidetan gara daitezke: alde batetik, arlo honetan landutako gaietako batzuek dakarten esperientzia emozionalaren inguruan, eta, bestetik, gai horri buruz berariazko gogoeta egin duten egileen ideien azterketaren inguruan. Ildo horretan, jardun filosofikoa bide egokia izan daiteke arrazoien eta emozioen arteko harreman harmoniatsua sustatzeko, emozioek giza jardueran (hala nola etikan, gogoeta politikoan, naturarekiko harremanean eta filosofiak dakarren ariketa teorikoan eta kontenplaziozkoan) duten lekuaren inguruko bizipenaren eta gogoetaren bidez.

Esandako guztiagatik, ezinbestekoa da filosofiaren historia jarduera dialogiko eta kooperatiboekin hornitzea. Jarduera horietan, ikasleek, historian gai horiei buruz adierazi diren ideiak ulertzeaz gain, bizipen-jardunbidetik abiatuta pentsamendu kritikoa eta emozioen hezkuntza garatu ahal izango dute.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII4, HK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Filosofiaren Historia
1. Konpetentzia espezifikoa
1.1. Filosofikoki garrantzitsuak diren iturri eta dokumentuen ezagutza zehatza sortzea, haiek bilatu, antolatu, aztertu, konparatu eta interpretatzeko teknikak testuinguru analogikoetan zein digitaletan aplikatuz eta testuinguru historikoekin, arazoekin, tesiekin, egileekin eta beste kulturaesparru batzuetako elementuekin behar bezala lotuz.

Filosofiaren Historia
1.2. Arazo historiko-filosofikoei buruzko iritzi propioak eraikitzea, haiei buruzko dokumentuak eta ikerketa-lanak zehaztasunez eginez eta aurkeztuz, ohiko protokoloak bakarka zein taldean eta kooperazioan aplikatuz, jabetza intelektuala errespetatuz eta informazioa behar bezala erreferentziatuz.
2. Konpetentzia espezifikoa
2.1. Argudioak zehatz erabiltzea, arau, teknika eta jarraibide logikoak, erretorikoak eta argudiatzekoak ezagutuz eta aplikatuz, eta iritziak eta hipotesiak defendatzeko modu dogmatikoak, faltsuak eta partzialak saihestuz.
2.2. Argudioetan oinarritutako elkarrizketa enpatikoa, irekia eta ezagutzaren bilaketarekin konstruktiboki konprometitua erabiltzeko ohitura hartzea, proposatzen diren jarduera guztietan aktiboki, errespetuz eta elkarlanean parte hartuz.
3. Konpetentzia espezifikoa
2.1. Gai eta arazo filosofikoei buruzko ahozko eta idatzizko argudio-diskurtsoak egitea eta ebaluatzea, arau eta jarraibide logikoen, erretorikoen eta argudiatzekoen erabilera zuzena erakutsiz. 2.2. Iritziak eta hipotesiak defendatzeko modu dogmatikoak, faltsuak eta partzialak detektatzea eta saihestea, eta argudiatzearen ahalmenak baliatzea, modu faltsu eta partzial horien izaera azalduz.
3.3. Kooperazioaren, egiarekiko konpromisoaren, aniztasunarekiko errespetuaren eta jarrera diskriminatzaile edo arbitrario ororen bazterketaren garrantzia ezagutzea, pentsamendu arretatsuaren ideian oinarrituta printzipio horiek argudiatze-jardunean eta gainerakoekiko elkarrizketan aplikatuz.
4. Konpetentzia espezifikoa
4.1 Historian egin diren proposamen filosofikorik garrantzitsuei buruzko ezagutza esanguratsua eskuratzea eta adieraztea, haiei buruzko ikerketa eginez eta erantzun duten galderak identifikatuz.
4.2 Pentsamenduaren historiako arazo, ideia, tesi eta eztabaida filosofiko nagusiak identifikatzea, ulertzea eta haiei buruz eztabaidatzea, testu eta dokumentu filosofikoen edo filosofian garrantzitsuak diren galderen azterketa eta iruzkin kritikoak eginez.
5. Konpetentzia espezifikoa
5.1. Pentsamenduaren historiaren ikuskera plural, dialektiko eta kritiko bat sortzea, azterketa-, konparazio- eta sintesi-jardueren bidez garai edo tradizio bereko edo garai eta tradizio desberdinetako tesi, eskola eta filosofoen arteko aurkakotasun- eta osagarritasun-erlazioak ulertuz eta adieraziz.
5.2. Gatazken zentzuzko eta elkarrizketan oinarritutako konponbide batekin konprometitutako jarrera irekia eta tolerantea garatzea, gai filosofikoen aniztasuna eta konplexutasuna barneratuz.
6. Konpetentzia espezifikoa
6.1. Arazo filosofiko handiak ezagutzea, haien denbora-dimentsioa eta dimentsio unibertsala ulertuz, arazo horien agerpenari eta bilakaerari lotutako kultura-baldintzei eta garai, eskola, tradizio eta egile desberdinek arazo horiei emandako tratamendu filosofikoari buruzko azterketa kritikoaren bidez.
6.2. Gauzak zalantzan jartzea pentsamendu filosofikoaren historiaren funtsezko elementutzat hartzea, garai desberdinetako filosofoek egindako galderen bidez pentsamendu hori egituratzen duten galderak identifikatuz.
7. Konpetentzia espezifikoa
7.1. Mendebaldeko kulturaren historiaren eta ideia filosofikoek historia horretan bete duten zereginaren ikuskera sistemikoa eta erlazionala eskuratzea, literatura-izaerako testu edo dokumentuen, historiografikoen, kazetaritzakoen, zientifikoen edo erlijiosoen eta filosofiaren historian garrantzitsuak izan diren arazoak eta ikuskerak adierazten dituzten mota orotako kultura-adierazpenen konparazioazterketa eta konparazio-iruzkina eginez.
8. Konpetentzia espezifikoa
8.1. Egungo funtsezko arazoen inguruko judizio-autonomia garatzea eta etikoki eta zibikoki kontsekuenteak diren planteamenduak, jarrerak eta ekintzak sustatzea, arazo horiek argitzen lagundu dezaketen ideia, teoria eta eztabaida historiko-filosofikoak ulertuz eta ikuspegi global, sistemiko eta diziplinaz haraindiko batean oinarrituta proposamen kritikoak eta pertsonalak eginez.
9. Konpetentzia espezifikoa
9.1. Arazo filosofikoak kontuan hartzean alderdi arrazionalaren eta alderdi emozionalaren arteko oreka egokia lortzea, historian arazo horien inguruan egin diren ekarpen teorikoak ulertuz eta oreka horren garapena sustatuko duten jardueretan parte hartuz.
9.2. Gaitasun kritikoa eta gogoeta egitekoa garatzea, historian arazo horien inguruan egin diren ekarpen teorikoak ulertuz eta oreka horren garapena sustatuko duten jardueretan parte hartuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Filosofiaren Historia
A. Filosofiaren sorreratik Grezian, antzinaroaren amaierara.
Arazo eta ikuskera filosofikoen historikotasuna eta unibertsaltasuna.
*Filosofoaren oinarrizko metodoak eta tresnak:*iturrien erabilera eta azterketa kritikoa; dokumentu filosofikoen ulermena eta interpretazioa; arazo filosofikoen identifikazioa kulturaren beste esparru batzuetan;*argudioan oinarritutako pentsamendua eta elkarrizketa; ikerketa eta mintzaldi filosofikoa.*
Mendebaldeko filosofiaren sorrera Grezian. Mundu-ikuskera mitikoa eta teorizazio filosofikoa.*
Errealitatearen arazoa presokratikoengan.
Filosofia eta herritartasuna Greziako Ilustrazioan: sofistak eta Sokrates.* Aspasia Miletokoa eta emakumeek Greziako kulturan eta filosofian bete duten zeregina.
Ideia eta izaera: ezagutza eta errealitatea Platonengan eta Aristotelesengan.*
Antropologia filosofia klasikoan: Sokrates eta norberaren gaineko ezagutza; psikea Platonengan eta Aristotelesengan.
Eztabaida etikoa: intelektualismo sokratiko-platonikoa*; bertuteen teoria Platonengan eta Aristotelesengan; “eudaimonia” kontzeptua.
Eztabaida politikoa: Platonen proiektu politikoa eta Aristotelesen politika.
Polisetatik inperiora. Filosofia, zientzia eta kultura helenismoan. Estoizismoa, epikureismoa, zinismoa eta eszeptizismoa*. Hipatia Alexandriakoaren figura historikoa.
B. Erdi Arotik Europako Modernitatera.
Erdi Aroko filosofiaren etapak, metodoak eta funtsezko gaiak*. Jainkoaren existentzia hainbat egilerengan. Agustin Hiponakoa, Tomas Akinokoa eta Gilen Ockhamgoa. Hildegard von Bingen-en nortasun polifazetikoa.
Greziar filosofiaren asimilazioa Erdi Aroko teologian. Fedearen eta arrazoiaren arteko erlazioaren arazoa*.
Europako modernitatearen sorrera*. Errenazimentua. Protestantismoa. Iraultza zientifikoa. Comte eta positibismoa.
Arrazionalismoa eta enpirismoa*. René Descartes eta David Hume.
Eztabaida metafisiko modernoa. Substantzien teoria kartesiarra* . Materialismoa, Thomas Hobbesengandik Ilustraziora.
Gizartearen eta boterearen jatorria eta funtsa*. Makiavelo. Erdi Aroko pentsamendu politikotik kontratu sozialaren teoriara, Thomas Hobbes, John Locke eta Jean-Jacques Rousseauren arabera.
Utilitarismoa eta liberalismo politikoa, gizarte kapitalistaren jatorri: lehiakortasuna eta kooperazioa*.
C. Modernitatetik postmodernitatera.
Proiektu ilustratua: arrazoiaren ahalmena eta mugak. Gizakiaren eskubideak. Lehen bolada feminista: Mary Wollstonecraft eta Olympe de Gouges*.
Immanuel Kant-en filosofia kritikoa eta metafisikaren arazoa jakintza gisa*.
Zoriontasunaren etikak eta betebeharraren etikak. Kant-en etika utilitarismoaren aurrean*. Joxe Azurmendiren ekarpena.
Susmoaren filosofoak: Freud, Nietzsche eta Marx. Haien pentsamenduari buruzko sarrera*.
Kapitalismoaren kritika: Karl Marx-en pentsamendu iraultzailea eta Ilustrazioaren dialektika Frankfurteko Eskolan*. Estatuaren interbentzionismoa (Popper-Habermas eztabaida). Hannah Arendt-en totalitarismoaren analisia*. John Rawls: ongizate-estatuan izan duen eragina.
Mendebaldeko tradizioaren dekonstrukzioa Friedrich Nietzsche-rengan, eta herentzia postmodernoa*. Postmodernitatearen ezaugarriak eta proposamenak: Habermas eta modernitatearen erreforma hausturaren aldeko pentsalarien aurrean.
Arazo filosofikoak hizkuntzaren analisia kontuan hartuta: Ludwig Wittgenstein eta filosofia analitikoa. Hizkuntzaren filosofia: euskaratik abiatutako analisia, Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi”.
Existentzialismoa: Martin Heidegger eta Jean-Paul Sartre. Bizi-arrazoia eta arrazoi poetikoa: José Ortega y Gasset, María Zambrano* eta Miguel de Unamuno.
Feminismoaren garapen garaikidea: Simone de Beauvoir*.
Egungo gizartea eta XXI. mendeko erronkak: globalizazioa, kapitalismoa, ekologismoa, generoalderdia eta mundu birtuala: Naomi Klein, Zygmunt Bauman, Martha Nussbaum, Noam Chomsky, Byung-Chul Han, Judith Butler, Yayo Herrero eta Paul B. Preciado*.

HEZIKETA FISIKOA

Egoera motorren bidez, ingurune fisiko, sozial eta kulturalarekiko interakzioen unibertso bat azaltzen diegu gure ikasleei, funtsezkoa euren garapenerako. Gainera, nork bere burua eta besteak ezagutzeko aukera ematen diegu, harreman, emozio, erabaki eta sorkuntzen unibertso aberasgarria sustatuz. Horregatik, Batxilergoan akzio motorrak gure jakintzagaiaren ardatz egituratzailea izaten jarraitu behar du, aurreko hezkuntza-etapetan bezala. Jokabide motorren hezkuntzaren bidez, premia pertsonalei eta sozialei erantzungo dien benetako konpetentzia motorra eraikitzen eta finkatzen lagunduko dugu.

Egoera motor bati aurre egite aldera, askotariko fenomenoetan oinarritzen da baliabideak mobilizatzeko eta erantzun berritzaileak eta sormenezkoak emateko gaitasuna: pertzepzioa, motibazioa, emozioa, autoestimua, komunikazioa eta aurrea hartzea. Jokabide motorrak, nortasunaren adierazpen gisa ulertuta, gure esku-hartzearen ardatz bihurtzen dira; izatez, egoera motor bati aurre egiten diogun bakoitzean, nortasunaren alderdi guztiak abian jartzen dira (biologikoa, kognitiboa, soziala eta harremanetakoa, afektiboa, adierazpenekoa eta erabakien arlokoa). Ez dugu ahaztu behar nortasun bakoitzaren adierazpen partikularrak esperientzia motorra baldintzatzen eta zehazten duela, jarduten duen pertsonak bere beldur, ilusio, motibazio, itxaropen, historia eta sormenarekin jarduten baitu. Pertsona bakoitzaren potentziala garatuko bada, pertsona bere gaitasunen eta inguruabarren arabera hezi behar dugu, hala lortuko baitugu pertsonaren garapen integrala.

Derrigorrezko hezkuntzan egindako lanari eta bertan landu ziren funtsezko erronkei jarraipena emateaz gain (bizimodu aktiboa sendotzea, norberaren gorpuztasunaz eta izaera motorreko kultura-adierazpenez gozatzea, eko-sozialki arduratsuak diren jarrerak aktiboki garatzea edo motor-egoerak konpontzeko esku hartzen duten erabaki-prozesu guztien garapena finkatzea), etapa honetan, Heziketa Fisikoa jakintzagaiak ere aurrera egiten du, bere izaera propedeutikoarekin lotutako bigarren lan-ildoaren arabera. Ildo horretan, azken hamarkadan jarduera fisikoak, kirolak, osasunak eta astialdiaren erabilerak izan duten eboluzioak azaltzen du horrekin lotutako titulazioen eta lan-aukeren eskaintzak izan duen hazkunde esponentziala. Jakintzagaia diziplinaren aldakortasuna erakusten duten aukera ugari aurkezten saiatuko da, ikasleak lanbide horietara eta ikasteko aukeretara hurbiltzeko, dela unibertsitatean, dela lanbide-heziketan, dela kirol-irakaskuntzetan.

Gure ikasleen garapen integrala lortzeko helburuari erreparatuta, Batxilergoaren amaieran ikasleen irteera-profilean ezarritako konpetentziak eta etaparen helburu orokorrak izango dira oinarrizko erreferentzia. Konpetentzia horien deskriptoreak dira, hain zuzen ere, arloko konpetentzia espezifikoak zehazteko erreferentziazko esparrua. Heziketa Fisikoak funtsezko konpetentziak garatzen laguntzen badu ere, ekarpen garrantzitsuena konpetentzia pertsonalari, sozialari eta ikasten ikasteari egiten die. Izan ere, akzio motorraren bidez, kooperatzen ikasten dugu, baita norberaren eta besteen mugak eta aukerak ezagutzen, erronkak taldean ebatzi behar diren egoerei aurre egiten, ohitura osasungarriak hartzen, norberaren ahalegina eta dedikazioa baloratzen eta gogoeta-prozesu gidatuetan parte hartzen.

Mekanismo kognitibo guztiak motrizitatean oinarritzen dira, eta badakigu mugimenduak ezagutza berriak eskuratzen laguntzen duela, baita askotariko adimenak garatzen, ikaskuntza berrien aurrean motibatzen, kontzentratzen eta hezkuntza-laguntzako berariazko zailtasunak dituzten ikasleak gizarteratzen ere. Heziketa Fisikoa eszenatoki ezin hobea da kulturetatik ikasteko, gure gizartearen azterketa politikoa proposatzeko, eztabaida etiko esanguratsuak eta sakonak pizteko, gure biologia hobeto ezagutzeko, hitzezko eta hitzik gabeko adierazpen eta komunikazio eraginkorragoa lortzeko (arlo hau, gainera, oso egokia da familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleek hizkuntzaren erregistro informalagoak ikasteko eta erabiltzeko), artea ezagutzeko eta sortzeko, harremanak izaten ikasteko eta gure historia ezagutzeko… Horrenbestez, garrantzitsua izango da loturak ezartzea eta beste jakintzagai batzuekin konbergentziak sortzea, ikaskuntzaren ikuspegi holistikoa eskaini ahal izateko, gure errealitate konplexu eta interkonektatuarekin lotuagoa.

Heziketa Fisikoaren arloko konpetentzia espezifikoek egoera motorretan moldatzeko beharrezkoak diren konpetentzia motorrak biltzen dituzte, eta gizartearen funtsezko erronkekin lotutako alderdiak integratzen dituzte: bizimodu aktibo eta osasungarria sendotzen jarraitzea, afektibitate- eta motibazio-gaitasunak,

pertsonen arteko harremanak eta gizarteratzeko gaitasunak garatzen jarraitzea, eta ingurumenarekin eta bertan bizi diren izaki bizidunekin errespetuz bizitzeko beharra azpimarratzen jarraitzea.

Curriculumaren antolaketa-proposamen berrian eta elementuetan, funtsezko elementuak konpetentzia espezifikoak dira, eta, batez ere, ebaluazio-irizpideak; izan ere, horiek dira praktikatik hurbilen dagoen tresna eta konpetentzia espezifikoak eta, beraz, irteera-profila eskuratzeko eta garatzeko graduazioa eskaintzen duena. Konpetentzia espezifiko horiek lortze aldera, zazpi multzotan antolatzen dira oinarrizko jakintzak, eta multzo horiek testuinguru ezberdinetan garatu beharko dira, izaera inklusiboagatik nabarmenduko diren askotariko ikaste-egoerak sor daitezen. Zazpi multzoetatik sei akzio motorraren dominioei dagozkie, eta gure arloko dominioekiko zeharkakoa den zazpigarren multzo bat eransten da. Irakasleek erabakiko dute nola uztartu jakintza horiek.

Akzio motorraren dominioak konpetentzia mota desberdinekin lotzen dira, egoera bakoitzak erantzun motor espezifikoak abian jartzen dituzten akzio-baliabideak eskatzen baititu. Akzio dominioen ezaugarri bereizgarriak ezagutzen baditugu, eragin ditzaketen hezkuntza-efektuen arabera sailka ditzakegu dominio horiek; hain zuzen ere, horixe da arloko oinarrizko jakintzak antolatzeko irizpiderik onena. Kontuan hartu behar dugu, halaber, unibertso ludomotorra kirol-jokoen lau arlo handitan hedatzen dela (arauak, lehiaketak eta instituzionalizazioak dituztenak eta ez dituztenak), eta horiek osatzen dutela gure gizartearentzat eta ikasleentzat aberastasun eta balio aparta duen kultura-ondare motorra. Hori dela eta, Heziketa Fisikoak ez du izan behar erreproduzitu beharreko tekniken sorta hutsa, eta ez du kirolera mugatu behar. Gainera, garrantzi handikoa da konpetentzia motorra ez dadila murriztu aurrez definitutako erantzun batzuetara; izan daitezkeen berrikuntzetara ireki behar dugu.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Jarraian adierazten diren konpetentzia motorrak baliagarriak izango ditugu proiektu motorren eta jardun motorren eskaerei erantzuteko, hainbat helbururekin, eguneroko bizitzako testuinguruetan.

1. Euren jarduera fisikoa planifikatzea autoebaluaziotik hasita, parametro zientifikoetan eta ebaluagarrietan oinarrituz, osasunean dituen ondorioak baloratuz, autorregulazio emozionaleko prozesuak eta gatazken kudeaketa garatuz, aisialdi aktiboko eta ongizate pertsonaleko eskaerak asetzeko, komunitateari zerbitzua emateko ekintzak antolatu eta garatzeko, eta jarduera fisikoarekin lotutako irtenbide profesional posibleak ezagutzeko.

Konpetentzia espezifiko hori eskuratuko dute, ikasleak —osasuna eta jarduera fisikoa baldintzatzen duten elementu guztiez jabetuta— elementu horiek kontuan hartzeko, egokitzeko eta koordinatzeko gai direnean (euren jardun motorra eta bizi-ohiturak kudeatzeko, planifikatzeko eta autorregulatzeko), euren interes eta helburu pertsonalen arabera.

Konpetentzia honi hel dakioke parte-hartze aktibotik, elikadura osasungarritik, jarrera-hezkuntzatik, gorputzaren zaintzatik, autokontzeptutik, autoestimutik, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan hautemandako iruditik edo eguneroko testuinguruetan eta/edo kirolarekin eta jarduera fisikoarekin lotutako egoeretan gertatzen diren portaera antisozialen eta osasunerako ohitura txarren azterketatik, besteak beste. Ikaskuntza horiek gauzatzeko hainbat formula eta aplikazio-testuinguru daude. Horiek lantzen jarraitu behar da jardun motorraren plangintza pertsonalarekin edo dieta osasungarria mantentzeko alderdi desberdinen analisiarekin, motrizitatearekin zerikusia duten egoeren azterketa kritikotik hasi, eta lehen sorospen, lesioen prebentzio edo ikasleen eguneroko bizitzara eramanez aurreko guztia testuinguruan kokatuko duten proposamen fisiko eta kirol-proposamen ugaritan parte hartu arte.

Bestalde, batzuetan jarduera fisiko- eta kirol-testuinguruetan gertatzen diren desparekotasunak eta portaera antidemokratikoak eta gizalegearen aurkakoak gainditu nahi ditu. Horretarako, alde batetik, emozioen kudeaketa pertsonala azpimarratzen du, baita hobetze-jarrerak, frustrazioarekiko tolerantzia, eta arrakasta eta porrota maneiatzeko jarrerak sustatzea ere, jardun motorreko testuinguruetan. Bestetik, maila kolektiboan, gizarte-trebetasunak jarri behar dira jokoan, jardun motorrean norberarekin parte hartzen duten pertsonekiko interakzioari aurre egiteko.

Azkenik, teknologia digitalaren erabilera egokia gure arloko diziplinaz haraindiko ikuspegi batetik bultzatu behar da, batez ere konpetentzia honetan, sedentarismoaren eta gaixotasun hipozinetikoak deiturikoen —neurri handi batean, pantailen aurrean denbora gehiago igarotzeak eragina— aurkako borrokan.

Konpetentzia espezifiko hori Batxilergoko funtsezko konpetentzien honako deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, KE1, STEM2, STEM5, KD1, KD4, KPSII1.1, KPSII2, KPSII5, EK1 eta EK3.

2. Ziurgabetasunik gabeko ingurunean egoera psikomotorretan jardutea, akzio-plan pertsonalak aplikatuz, autonomiaz, erronka fisikoei aurre egitean hobetze- eta erresilientzia-jarrerak sendotuz, autonomia eta hazkunde harmonikoa garatzeko ikuspegi organiko, kognitibo, afektibo eta sozialetik.

Egoera psikomotorrek sortzen dituzten esperientziek eskatzen dute: estereotipo motorrak automatizatzea, akzio motorrak egiteko modu jakin bat behin eta berriz errepikatzea, energia-iturriak dosifikatzea —eskatzen den ahalegin fisikoan eraginkortasunez jardun dadin—, nork bere buruaz jabetzea, eta norberaren gorputza barrutik aztertu eta ezagutzea (introiekzioa). Egoera psikomotorretan jarduteak espiritu kritikoa eta gogoetatsua garatzen lagunduko die, beharrezkoa baita autonomia eta hazkunde harmonikoa hezteko ikuspegi organiko (fisiologikoa), kognitibo, afektibo eta sozialetik.

Konpetentzia horrek berekin dakar inguruabarrei egokitutako erabakiak hartzea, jomugak zehaztea, planak egitea, akzioak sekuentziatzea, planifikatutakoa gauzatzea, prozesuan zer gertatzen den aztertzea, beharrezkoa bada estrategia aldatzea eta, azkenik, emaitza balioestea. Ikasleek esku hartzen duten egoera motorren barne-logika aztertzen dutenean, beren esku-hartzea planifikatzen eta modu gogoetatsuan parte hartzen ikasten dute.

Konpetentzia espezifiko hori Batxilergoko funtsezko konpetentzien honako deskriptore operatibo hauekin lotzen da: STEM5, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII5 eta EK3.

3. Ziurgabetasunik gabeko ingurunean aurkaritza-egoeren eskakizunetara egokitzea, kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako portaeren aurrean jarrera kritikoa eta proaktiboa hartuz, erronkara egokitutako jokabideak doitzeko eta kultura motorraren lorpenean eta sorreran laguntzeko.

Konpetentzia honek eskatzen du erabakiak hartzea, aurrea hartzea, mezu engainagarriak kodetzea (emititzea) eta besteen gorputz-zeinuak deskodetzea, betiere modu estrategikoan jardun eta aurkaria gainditzeko. Egoera multzo hori baliagarria izan daiteke erronkarekin, lehiakortasunarekin edo arazoen ebazpenarekin lotzen diren jokabide motorrak susta daitezen. Era berean, dimentsio afektiboa ondo kudeatzeak duen garrantziaz hitz egiten digu, faktore mugatzaile bihur ez dadin eta, horren ordez, jokabide egokiagoak eragin ahal izan ditzan. Gainera, aurkaritza-egoerak agertoki egokia dira sor daitezkeen (edo hedabideen bidez ikus daitezkeen) kirol-legearen kontrako portaerei buruz taldean hausnartzeko, eta jarrera kritikoa eta proaktiboa izateko kalitatezko erreferentziak eskaintzeko aukera emango digu.

Halaber, berarekin dakar helburuak zehaztea, planak egitea, akzioak sekuentziatzea, planifikatutakoa gauzatzea, prozesuan zer gertatzen den aztertzea, beharrezkoa izanez gero estrategia aldatzea eta, azkenik, emaitza baloratzea. Aurkaritza-jokoek eskaintzen dituzten egitura interaktibo mota guztiekin lan egitea komeni da (bat baten aurka, bat denen aurka edo denak denen aurka).

Etapa honetako ikasleek duten ezagutza motorrak aukera emango die egoerei aurrea hartzeko eta euren trebetasun motorrak egoera bakoitzaren eskakizunetara egokitzeko. Abantaila horri esker, orain arte bigarren mailan geratzen ziren alderdietara bideratu ahal izango dute arreta, eta, horrela, gauzatze tekniko-taktikoa hobetu ahal izango dute, eta egoera bakoitzean gertatzen diren akats ohikoenak identifikatu ahal izango dituzte, horiek saihesteko. Horri esker, beste urrats bat eman ahal izango dute, eta beste pertsona batzuentzako jarduera fisikoak planifikatu, zuzendu eta gainbegiratu ahal izango dituzte, entrenatzaile- edo teknikari-funtzioak garatuz.

Konpetentzia espezifiko hori Batxilergoko funtsezko konpetentzien honako deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII5, HK1 eta HK3.

4. Ziurgabetasunik gabeko ingurunean kooperazioko egoera soziomotorretan moldatzea, jarduera fisikoko eta kirol-jarduerako espazioak partekatuz, kultura-, gizarte-, genero- eta trebetasun-desberdintasunak alde batera utzita, parte hartzen den espazioetan gizartearen ulermenean eta konpromiso etikoan autonomiaz laguntzeko, eta lan kooperatiboaren potentziala aitortzeko.

Konpetentzia honek bizipen ugari eskaintzen ditu, eta horien ondorioz, komunikazio motorrarekin lotzen diren jokabide motorrak sortzen dira, baita itunarekin, kolaborazioko eskuzabaltasunarekin, ekimena hartzearekin, erantzun originalak sortzearekin eta besteen erabakiak errespetatzearekin lotzen diren jokabide motorrak ere. Helburua da elkarrizketan aritzea, eztabaidatzea, ideiak kontrastatzea eta ados jartzea, egoerak ebatz daitezen, proposamenak, pentsamenduak eta emozioak adieraz daitezen, modu aktiboan entzun dadin eta asertibitatez jardun dadin. Horrelako egoerek nolabaiteko enpatia garatzea eta prosozialtasunetik jardutea eskatzen dute. Akzio horiek kanpoko ongizatea ere bilatzen dute, eta, aldi berean, jardun motorrarekin lotutako errealitatea baloratzea eta erantzukizunez, zuzentasunez, inklusioz, errespetuz, elkartasunez, justiziaz eta modu baketsuan baliatutako askatasun-parametroetatik jardutea.

Azkenik, gure ikasleei helarazi ahal izango diegu zein garrantzitsua den elkarrekin lan egitea guztion onerako eta kooperazioa indartzea, zeregin jakin batzuei aurre egiteko. Horrela, lehiatzeko edo kooperatzeko aukera duten egoeretan, hautatzeko ahalmena emango dien kooperazioaren ezagutza eta kultura eskuratu dute.

Konpetentzia espezifiko hori Batxilergoko funtsezko konpetentzien honako deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, KPSII3.1, KPSII3.2, HK1 eta HK3.

5. Ziurgabetasunik gabeko ingurunean aurkaritza-/kolaborazio-egoera soziomotorretan elkarrekintzan jardutea, akzio-plan kolektibo bat prestatuz, akzio-arauak eta -printzipioak aplikatuz, informazio-eskaera handiko zereginetan jokabide motorra optimizatzeko eta, jarrera etiko eta kritiko batetik, praktika horiek transmititzen dituzten balioak defendatzeko.

Konpetentzia honek erabakiak etengabe hartzea eta gainerako parte-hartzaileen mezuak interpretatzea eskatzen du. Ikasleek ahaleginak egin beharko dituzte taldekideen eta aurkarien jarrerak deskodetzeko, logika kolektibo batean sartzen diren aukeraketa estrategikoak egin daitezen. Gainera, ikasleak aurreko etapetan eraikitzen hasi diren kultura motorraren kontzeptuan sakontzen du. Ezagutza sakon horretatik abiatuta, norberaren nortasuna sendotzen jarraitzea da helburua, haren adierazpenak eta faktore baldintzatzaileak oro har aztertu eta ulertu ahal izateko. Etapa honetan, gainera, transmititzen dituzten eta kontserbatzea interesgarri egiten duten balioak ikasleek ulertzea lortu nahi da, balio horiek baitira beren existentziaren gakoa eta kultura globalari egiten dioten ekarpen nagusia.

Konpetentzia hori garatzeko testuinguru ugari dago, hala nola kirol-joko kolektiboak edo joko tradizionalak. Horiez gain, kontuan hartu beharko lirateke kolaborazio-erlaziotik aurkaritza-erlaziora alda daitezkeen jokoak, talde-jokoak edo erlazio kontraesankorren arloko jokoak. Adibide horietan, partekatutako lehiaketa da, eta, hartara, jokoa geratzen denean, ez dago ez irabazlerik ez galtzailerik.

Azkenik, azterketa kritikoak egin daitezke kirolean dauden genero-estereotipo jakin batzuei buruz edo kirolaren alde ezkutuari buruz —pertsonen osasunetik edo lehiaketa osasuntsutik kanpo dauden interes ekonomikoak eta politikoak ezkutatzen ditu—.

Konpetentzia espezifiko hori Batxilergoko funtsezko konpetentzien honako deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, KPSII1.2, HK1, HK3, EK2 eta KAKK1.

6. Ziurgabetasuna erakusten duen inguruneko egoera motorretan jarduteko aukerak aurkitzea eta aprobetxatzea eraginkortasunez eta doitasunez, praktiken segurtasunean erantzukizunak hartuz, bizimodu aktibo eta osasungarria barneratzeko, ingurune naturala eta hirikoa kontserbatzearekin eta hobetzearekin konprometitua.

Konpetentzia honek eskatzen du protagonistek irakur eta deszifra ditzatela praktika-eremuarekin dituzten erlazioetan sortutako zailtasunak eta ezustekoak. Horrelako egoerek moldagarritasuneko jokabide motorrak errazten dituzte, batik bat erabakiak hartzearekin, eraginkortasunarekin, aurreratzearekin, ingurunearekiko errespetuarekin, arriskuarekin eta abenturarekin zerikusia dutenak. Horrelako jarduerak egitea prestakuntza-interes handiko beste alderdi batzuekin lotzen da, hala nola, natura ezagutu eta errespetatzearekin, bizikidetzarako hezkuntzarekin, norberaren babesarekin eta segurtasun pertsonalarekin nahiz kolektiboarekin. Ikasleek ingurune naturalarekin dituzten erlazioek inplikazio handia eta erabateko konpromisoa ekarri ohi dute, eta horrek karga emozional handia eragin dezake; horrenbestez, funtsezkoak izango dira emozioen identifikazioa eta kudeaketa.

Aurreko etapetan hasitako lanarekin jarraituz, Batxilergoko ikasleek natura- eta hiri-testuinguruetako jardueretan parte hartu beharko dute, beren ezagutza motorra eta eskola-testuingurutik kanpoko esperientziak zabaltzeko. Besteentzako jarduerak ere diseinatu eta antolatuko dituzte. Bertan, ingurumena eta bertan bizi diren izaki bizidunak errespetatzeaz gain, hura hobetzen eta horretaz kontzientziatzen saiatuko dira. Ingurumena komunitate-ondasuntzat hartzen duen erantzukizun ekologiko eta sozialaren ikuspegi horrek ongintzako jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak eta ekitaldiak antola daitezen bultza dezake, ikaskuntza/zerbitzua gisako planteamenduen ildo beretik.

Konpetentzia espezifiko hori Batxilergoko funtsezko konpetentzien honako deskriptore operatibo hauekin lotzen da: STEM5, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII2, HK4 eta EK1.

7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna gisa baliatzea, proiektu artistiko-espresibo bat sortzeko prozesua barneratuz, azken produktua aberastuko duten ekarpen estetiko eta sortzaileekin, gorputzak eta mugimenduak eskaintzen dituzten adierazpen-aukerak eta -baliabideak integratzeko.

Konpetentzia honek egoera motorretan asmo artistiko edo espresiboekin moldatzeko gaitasuna hartzen du aintzat. Horrelako akzioak biltzen dituzten jarduerak eskakizun bikoitz baten inguruan antolatzen dira: adierazpena eta komunikazioa. Jokabide motor adierazkorrak motrizitate adierazkorrean, sinbolizazioan eta komunikazioan oinarritzen dira. Sortzeko eta adierazteko garaian, subjektuak irudimena eta sormena mobilizatzen ditu, sentsibilitatea eta afektibitatea pizten ditu, zenbait adierazpen-erregistro erabiltzen ditu (gorputza, hitza, dantza, musika, eta abar), akzioak kateatzen ditu eta adierazpen-baliabide ugari erabiltzen du (espazioak, erritmoak, desplazamenduak, formak, objektuak, rolak...).

Akzio horien oinarriak dira espazioaren erabilera, akzio motorraren kalitatea, osagai erritmikoak eta irudimena, baita sormena mobilizatzea, adierazpen-erregistro desberdinak erabiltzean (gorputza, hitza, dantza, musika). Ikasleek sortzailearen, interpretatzailearen eta ikuslearen/epailearen/kritikariaren rolak esperimentatu ahal izango dituzte, eta, ikusle gisa, aukera izango dute begirada hezteko, aktorearen lana errespetatzeko, esker ona amaieran erakusteko, baita nabarmendu beharreko alderdiak hautemateko, eta horretatik ikasteko ere. Gainera, adierazpen-jardun motorrek emozioen identifikazioa eta kudeaketa dakarte, emozioak kontrolatzen eta adierazpen positiborantz bideratzen jakin dadin.

Konpetentzia hori testuinguru ugaritan garatu ahal izango da. Aurreko etapetan bezala, kultura motor tradizionala jokoen, folklore tradizionaleko dantzen edo munduko dantzen bidez landu daiteke, besteak beste. Kultura artistiko eta espresibo garaikidea lantzeko garaian, adierazpen-teknika zehatzak erabil ahal izango dira (bat-batekotasuna, mimika edo pantomima), keinu-antzerkia, itzal-antzerkia, antzezpen landuagoak (borroka eszenikoa, rol-jokoak edo zirko-jarduerak, besteak beste), edo jarduera erritmiko-musikalak (gorputz-perkusioa, dantzak, koreografiak edo antzeko beste adierazpen batzuk). Gainera, etapa honetan, jakintza horiek aberastu egin daitezke kritika sozialeko elementuak txertatuz.

Konpetentzia espezifiko hori Batxilergoko funtsezko konpetentzien honako deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, KE3,KPSII3.1, KPSII3.2, EK3, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.1 eta KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Heziketa Fisikoa
1. Konpetentzia espezifikoa
1.1. Osasuna hobetzera edo mantentzera bideratutako jarduera fisikoko programa pertsonal bat modu autonomoan planifikatzea, lantzea eta praktikan jartzea, nahastutako gaitasun fisikoak garatzeko sistemak aplikatuz, norbanakoaren beharren eta interesen arabera, eta norberaren gorputz-errealitatea eta -nortasuna errespetatuz, eta lortutako emaitzak ebaluatuz.
1.2. Norberaren lehentasunen arabera, honako prozesu hauek modu autonomoan txertatzea: gorputzaren aktibazioa, autorregulazioa eta esfortzuaren dosifikazioa, elikadura osasungarria, jarrera-hezkuntza, erlaxazioa eta higienea jarduera motorrak egiten diren bitartean; ondorengo edo etorkizuneko eginkizun profesionalekin izan dezaketen loturari buruz hausnartuz.
1.3. Jarduera fisikoaren aurretik, bitartean eta ondoren lesioak prebenitzeko neurri espezifikoak ezagutzea eta modu arduratsu eta autonomoan aplikatzea, baita larrialdi- edo istripu-egoeretan lehen sorospenak aplikatzeko neurriak ere, ezagutza horiek lanbide- eta okupazio-esparruetan izan ditzaketen erabilerak identifikatuz.
1.4. Hainbat jarduera motor antolatzea eta praktikatzea, haien potentziala baloratuz irtenbide profesional posible gisa, eta haien onurak aztertuz osasunaren, gozamenaren, autosuperazioaren eta interakzio sozialeko aukeren ikuspegitik, interes-, ahalegin-, lidergo- eta enpatia-jarrerak hartuz haiekin lotutako rol desberdinak hartzean eta betetzean.
1.5. Gorputz-esparruarekin eta osasuna arriskuan jartzen duten portaerekin lotutako gizarte-estereotipoen aurrean modu kritiko, konprometitu eta arduratsuan jardutea, jasotako informazioari baliozkotasuna, fidagarritasuna eta objektibotasuna emateko irizpide zientifikoak autonomiaz eta independentziaz aplikatuz.
1.6. Gatazkak kudeatzea, horretarako, autorregulazio emozionaleko prozesuak aplikatuz jardun motorretan, aniztasunarekiko errespetuz, eta kiroltasunez jokatuz antolatzailearen, ikuslearen, parte-hartzailearen edo bestelakoen rolak betetzean.
1.7. Jarduera fisikoaren kudeaketarekin lotutako aplikazio eta gailu digitalak autonomiaz erabiltzea, egokiena hautatuz, eta pribatutasuna eta datu pertsonalen zabalkunde publikoari lotutako oinarrizko segurtasun-neurriak errespetatuz.
2. Konpetentzia espezifikoa
2.1. Egoera psikomotorrak ebaztea, akzio-printzipioak eraginkortasunez aplikatuz, gorputzaren kontrola eta nagusitasuna nabarmenduz, autonomiaz, eta norberaren eta besteen jarduketari buruz birdoituz eta hausnartuz.
2.2. Akzio-plan pertsonalak eraikitzea, egoera bakoitzaren logika interpretatuz eta akzio-estrategiak modu autonomoan landuz.
2.3. Nork bere jokabide motorra erregulatzea, norberaren ahalmen motorrak aztertuz, gaitasun fisikoak hobetzen lagunduz, eta ezagutza eta balioak beren bizi-eremura eramanez.
3. Konpetentzia espezifikoa
3.1. Aurkaritza-egoerak arintasunez, zehaztasunez eta kontrolez ebaztea, estrategiak praktikan sortzen diren baldintza aldakorretara egokituz, eta jarrera proaktiboa erakutsiz kirol-legearen kontrako edo bizikidetzaren kontrako portaeren aurrean.
3.2. Akzio-planak aplikatzea, esku-hartzea baldintzatzen duten funtsezko faktoreak aztertuz, errore komunak, gabeziak eta parte-hartzaileen indarguneak identifikatuz, eta plana berregokituz.
3.3. Aurkaritzako kirol-jokoetan modu aktiboan parte hartzea, kultura motorraren lorpenean eta sorreran lagunduz, eta jatorri desberdineko pertsonen artean interakzio eraikitzaileak sortzeko espazio gisa duten potentziala aztertuz eta baloratuz.
4. Konpetentzia espezifikoa
4.1. Izaera kooperatiboko proiektu motorrak ebaztea, autonomiaz kudeatuz, helburu komunak bilatuz, arauak hitzartuz, erabaki partekatuak hartuz eta elkarri lagunduz, eta autoebaluaziorako eta koebaluaziorako estrategiak barne hartuz.
4.2. Harremanetarako eta elkar ulertzeko mekanismoak autonomiaz ezartzea, elkarrizketarako gizarte-trebetasunak eraginkortasunez erabiliz, aniztasunarekiko errespetuz, eta estereotipoen, jarduera diskriminatzaileen eta indarkeriaren aurrean jarrera aktiboa eta kritikoa hartuz.
5. Konpetentzia espezifikoa
5.1. Aurkaritza-/kolaborazio-testuinguruetan akzio-plan kolektibo bat egiten laguntzea, barne-logika aztertuz, kolektiboaren potentziala kontuan hartuz, akats komunak identifikatuz eta horientzako soluzioak proposatuz, eta, horrela, akzio-plan kolektiboa berregokituz.
5.2. Aurkaritza-/kolaborazio-testuinguruetan egokiro jardutea, esku hartzeari buruz hausnartuz, jokabide motorraren dimentsioetatik abiatuta, jarrera kritiko eta proaktiboarekin, kirol-legearen kontrako edo bizikidetzaren aurkako portaeren aurrean.

Heziketa Fisikoa
5.3. Adierazpen motor garrantzitsuenen eragin kulturala eta soziala ulertzea eta testuinguruan kokatzea, haien jatorriak eta eboluzioak aztertuz, eta gizarte ireki, inklusibo, askotariko eta berdintasunezko baten balioetara egokitzen ez diren osagaiak baztertuz.
6. Konpetentzia espezifikoa
6.1. Ziurgabetasuna duen ingurune batean egoera motorrak ebaztea, kirol-jardueren eta jarduera fisikoen oinarri teknikoak eta taktikoak aplikatuz, eta eraginkortasuna eta doitasuna bilatuz.
6.2. Ingurune naturaletan (lurrekoak edo uretakoak) egiten diren kirol-jarduerak sustatzea eta haietan parte hartzea, inguruneaz modu jasangarrian gozatuz, jarduera horiek sor dezaketen ingurumen-inpaktua minimizatuz, haien aztarna ekologikoa ahal den guztia murriztuz eta garatzen direneko espazioetako baldintzak kontserbatzeko eta hobetzeko jardunak eginez.
6.3. Natura- eta hiri-ingurunean kirol-jarduerak diseinatzea eta antolatzea, erantzukizunak norberaren gain hartuz, eta banakako eta taldeko segurtasun-arauak aplikatuz, ekipamenduak erabiltzearen, ingurunearen edo parte-hartzaileen jarduketa beraren ondoriozko norberaren jardueraren berezko arriskuak aurreikusteko eta kontrolatzeko.
7. Konpetentzia espezifikoa
7.1. Banakako edo taldeko gorputz-konposizioak sortzea eta irudikatzea, oinarri musikalarekin eta gabe, konposizio bakoitzerako adierazpen-teknika egokienak zehaztasunez, egokitasunez eta koordinazio eszenikoz aplikatuz, taldekideen edo komunitateko beste kide batzuen aurrean antzezteko.
7.2. Proiektu eta ekoizpen motorrak garatzen diren bitartean, ekimena erakutsiz kooperatzea eta kolaboratzea, prozesuan zehar sor daitekeen edozein ezusteko edo egoera modu koordinatuan konponduz.
7.3. Emozioak kudeatzea, arte-/adierazpen- egoeretan desinhibituta eta eraginkortasunez parte hartzeko gai izanik, eta gainerakoen esku-hartzeak errespetatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Heziketa Fisikoa
A. Egoera psikomotorrak
Pertzepzio-/motor-gaitasunak praktika-testuinguruan: gorputz-eskemaren integrazioa; koordinazio-, espazio- eta denbora--mekanismoei buruzko jarduera motor bat egin aurretik erabakiak hartu, baita esku-hartzea bera egokitu ere.*
Euren interesei erantzuten dieten jarduera fisikoen trebetasun espezifikoen hobekuntza.
Gorputzaren entzute aktiboari eta hura praktikan jartzeari lotutako printzipioak (adibidez, arreta, geldotasuna eta arintasuna), hainbat luzamendu-motatan; arnasketa-tekniketan; esfortzuaren errekuperazioan.*
B. Aurkaritza-egoera soziomotorrak.
Teknika optimoa erreproduzitzeko eraginkortasun-printzipioen eskuratzea.*
Espazioak handitzeko edo murrizteko printzipioen konbinazioa.*
Espazio libreak aurkariaren zelaian, jotzeak etengabe aldatuz sakoneran, zabaleran, potentzian eta altueran, ziurgabetasuna sortzeko eta txandakatzea eteteko.*
Ziurgabetasun-printzipioen aplikazioa aurkariari zuzendutako mezu engainagarriekin (iskin egin, aurrea hartu) eta horien interpretazioa deskodetu.
Estrategia esku-hartzea planifikatzen edo prestatzen denean.*
Aurkariaren analisitik abiatuta, kontaktuko jarduera fisiko eta kirol-jardueretan ekintzen aukera, egokitasuna eta arriskua.*
C. Kooperazio-egoera soziomotorrak.
Akzio-printzipioak eta egoera kooperatiboetan arrakasta izateko giltzarriak: sinkronizazioa, algoritmo motorrak, gorputzaren kontrola, enpatia...*
Pertzepzio-/motor-gaitasunak praktika-testuinguruan: gorputz-eskemaren integrazioa; aldez aurreko erabakiak hartu eta esku-hartzea bera egokitu, behar bezala ebazteko.*

Heziketa Fisikoa	
Emaitzak taldean aztertzeko prozesuak, jarduera kooperatiboetan arrakasta lortzeko eta partaidetza orekatua ziurtatzeko.*	
Sormen motorra: erronkak eta arazo-egoerak sortu konponbide eraginkorrenarekin, eskura dauden baliabideen arabera.	
Jarrera kritikoa eta konpromiso aktiboa estereotipoen, diskriminazioen eta indarkeriaren aurrean.*	
D. Aurkaritza-/kolaborazio-egoera soziomotorrak	
Domeinu honen berezko akzio-printzipioak eskuratu, hala nola erasoko eta defentsako algoritmoak, helbururantz aurrera egin, eragilearen kontrol esanguratsu indibiduala eta kolektiboa, taldearen aldeko desorekak, kateatzeak eta ekintzen jarraipena, rolen aldaketa azkarra eta estatus-aldaketa…*	
Ziurtasun/ziurgabetasun printzipioen aplikazioa mezu garden edo engainagarriekin.	
Eraso- eta defentsa-estrategiak, taldekideen eta aurkarien ezaugarrien arabera, kolaborazioko/aurkaritzako egoera motorretan.*	
Timing: une egokiena jokoari lotutako erantzun bat emateko jokoaren egoera bakoitzaren arabera.*	
Talde-kirolen araudia (jokoaren hasiera, jokalarien eskubideak eta betebeharrak, puntuatzeko aukerak, zigorrak…).*	
Aurkaritza kolektiboko jardunen balioak eta taldekideekiko eta aurkariekiko errespetua arrakasta- eta porrot-egoeretan.*	
Askotariko rolen jarduera sistema taktikotan. Kirolarekin lotutako rolen jarduera: epailea, entrenatzailea, parte-hartzailea, ikuslea...	
E. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak.	
Ingurunea deskodetzearen printzipioen aplikazioa.*	
Adierazleak erabiltzeko orientazioa.*	
Gorputza jardueraren esfortzura egokitzeko printzipioen aplikazioa.*	
Jardueren euskarri-materialen erabilera.*	
Ustekabeen aurrean autonomiaz eta erantzukizunez jarduteko modua.*	
Hurbileko ingurunearen zaintza eta hobekuntza, komunitaterako zerbitzu gisa, ingurune naturalean egiten den jarduera fisikoan.*	
Jardueren ondoriozko arriskuen aurreikuspena eta materialen erabileraren segurtasun-printzipioak.	
Ingurunearen sustapena eta erabilera sortzaileak, motrizitatetik abiatuta.	
F. Arte- eta adierazpen-egoera motorrak.	
Gorputz-adierazpeneko teknika espezifikoak.*	
Espazio, denbora eta objektu errealen eta imajinarioen erabileran sinbolizazio-printzipioen aplikazioa.*	
Musikaren egitura erritmikoa: erritmo, tempo eta antolaketa motak.	
Sormenezko irudikapen baten planifikazioa: ideia edo gaia; eraldaketa nagusiak eta paperen banaketa…*	
Sormen-prozesuaren faseak: eragilea, aniztasuna/barietatea, aberastea, banakako edo taldeko aukeraketa, ekoizpena eta aurkezpena besteen aurrean.*	
Akzio-plan espresibo edo artistiko bat sortzeko prozesuan esleitutako rolarekiko (zuzendaria/koreografoa/interpretea/ikuslea) errespetua.*	
G. Heziketa Fisikoaren zeharkako jakintzak	
Bizitza aktiboa eta osasungarria.	*Osasun fisikoa*: jarduera fisikoaren programa pertsonala (maiztasuna, bolumena, intentsitatea eta jarduera mota kontuan hartuta).* Gaitasun fisikoen eta koordinazio-gaitasunen autoebaluazioa: teknikak, estrategiak eta neurtzeko tresnak.* Jarduera fisiko pertsonaleko programa baten bidez lortu beharreko helburuen identifikazioa (motorrak, osasungarriak, jarduerakoak edo antzekoak). Programaren helburuen lorpenaren ebaluazioa eta emaitzetatik abiatuta jardueren orientazio berria. Jarduera fisikoari eta osasunari lotutako lanbideak. Dieta orekatuak, ezaugarri fisiko eta pertsonalen arabera. Jarduera fisikoa kudeatzeko tresna digitalak. Jarrera deskargatzeko eta erlaxatzeko oinarrizko teknikak. Core-aren muskulatura (erdialdeko zona edo lunbo-pelbikoa) indarra entrenatzeko. Oinarrizko jarrera-arazoen identifikazioa eta jarrera-osasunaren prebentzio-plangintza jarduera espezifikotan.*

Heziketa Fisikoa	
	Gizarte-osasuna: norberaren edo taldearen osasunerako ondorio positiboak eta negatiboak dituzten jarduera fisikoko praktikak.* Gizarte-ohiturak eta horiek egoera fisikoan eta osasunean duten eragina. Kirol profesionalaren abantailak eta eragozpenak. Bi generoetako kirolari profesionalen bizitza-historiak.
	Osasun mentala: arnasteko, bistaratzeko eta erlaxatzeko teknikak, estresa askatzeko eta karga kognitibo handia eskatzen duten egoerak bideratzeko.* Gorputzaren irudiari lotutako nahasmenduak: bigorexia, anorexia, bulimia eta beste batzuk.* Gizartean nagusi diren gorputz-tipologiak, eta publizitatean eta komunikabideetan duten presentziaren azterketa kritikoa.
Jarduera fisikoaren antolaketa eta kudeaketa.	Oinarrizko gaitasun fisikoak garatzeko plangintza: indarra eta erresistentzia. Entrenamendu-sistemak. Energia-gastuaren kudeaketa.*
	Jarduera fisikoaren eta kirolaren plangintzarekin lotutako neurriak (kirol mota, materialak, helburuak, jarduerak eta antzekoak).
	Kirol-materialaren hautaketa arduraz eta modu jasangarrian. Publizitate-estrategien azterketa kritikoa.
	Izaera motorreko proiektu pertsonalen autokudeaketa maila guztietan (soziala, motibaziozkoa, antolaketakoa edo antzekoa).*
	Arrisku-faktoreak jarduera fisikotan. Segurtasun-neurri kolektiboak.*
	Jardun kritikoak istripuen aurrean. BAL jokabidea: babestu, abisatu, lagundu. Istripua izan dutenen joan-etorriak eta garraioa. Desfibriladore erdiautomatikoaren bidezko erreanimazioa (DESA). BBB protokoloa.* Teknika espezifikoak eta istripu kardiobaskularren zantzuak (Heimlich maniobra, iktus-seinaleak eta antzekoak). Sorospen-kitaren oinarrizko edukia (botikina).
	Protokoloak eskola-alerten aurrean.
	Autorregulazio emozionala eta interakzio soziala egoera motorretan.
	Adostutako parte hartzeko arauen onarpena eta errespetua.*
	Arrakastaren eta ospearen kudeaketa testuinguru fisiko eta kirol-testuinguruetan: Adibideak.
	Talde-jardueretan beste pertsona batzuk integratzeko estrategiak.**
	Kirolaz kanpoko arauak kirolean berdintasuna bermatzeko: joko garbi finantzarioa, oinarrizko kiroleko hezkidetza eta antzekoak.
	Egoera motorretan bizikidetzaren aurkako jokabideen identifikazioa eta gaitzespena (indarkeriazko portaerak, konpetentzia motorreko gaien ondoriozko diskriminazioa, jarrera xenofoboak edo sexistak).*
Kultura motorraren adierazpenak	Joko eta kirol tradizionalak eta autoktonoak eta horien lotura kulturala: jatorria, eboluzioa, babesa eta faktore baldintzatzaileak.*
	Praktika profesionalak kirolean.
	Kirola eta genero-ikuspegia: genero-estereotipoak testuinguru fisiko eta kirol-testuinguruetan. Presentzia komunikabideetan.*
	Kirola, politika eta ekonomia: gizartean duten eraginaren azterketa kritikoa; kontsumismoa eta kirola; kirolaren inguruko lanbideak.
Ingurunearekiko interakzio efizientea eta jasangarria	Garraio aktiboaren eta jasangarriaren sustapena eguneroko jardueretan.*
	Hiri-inguruneak praktika fisikorako eta hura hobetzeko jardueretarako dituen aukeren azterketa: ekipamenduak, erabilerak, irisgarritasuna…
	Jarduerei lotutako arriskuen aurreikuspena eta jarduketaren beraren eta taldearen jarduketaren ondoriozkoak. Arrisku-faktoreak eta ekipamenduak.*
	Jarduera fisikoa egiteko hiri- eta natura-baliabideen mantentzea eta erabilera jasangarria. Ingurunearen sustapena eta erabilera sortzaileak.

ADIERAZPEN GRAFIKO-PLASTIKOAREN TEKNIKAK

Historian zehar, arte-teknikek izugarri baldintzatu dute artelanen izaera eta forma. Adierazpen-beharrak bezala, materialak, tresnak eta prozedurak eboluzionatu egiten dira denborarekin, eta ondare tekniko--artistiko bat osatzen dute. Ondare hori ezagutzea ezinbesteko baldintza izango da obra artistikoak aztertu edo ekoizteko prest dagoen edozein pertsonaren baliabideak aberasteko. Adierazpen Grafiko--plastikoaren Teknikak jakintzagaiak arte-ekoizpena, oro har, eta ekoizpen plastiko, grafiko eta bisualak, bereziki, ahalbidetzen dituzten baliabideei, teknikei, prozedurei eta tresna-aplikazioei buruzko ezagutzak ematen ditu. Jakintzagaiaren bidez, ikasleek tradizioz pintura, grabatu eta estanpazio gisa sailkatutako teknikei buruzko ezagutzak bereganatuko dituzte. (Marrazketa Artistikoa sakon aztertzen da lehen eta bigarren mailako derrigorrezko jakintzagaian). Era berean, sailkapen horretatik kanpo dauden teknika alternatibo eta berritzaileenetara hurbilduko dira.

Teknika grafiko-plastikoa ezagutzeak eta praktikatzeak ikusizko komunikazioaren materialtasuna ahalbidetzen dute, eta hizkuntza propioak ikertzea eta bilatzea errazten dute, nolabaiteko konplexutasuna duten sormen-proiektuei ekiteko gai den nortasun artistikoa eraikitzeko, bai banaka, bai modu kolaboratiboan, betiere ikuspegi inklusibotik —bertan materialen erabilerari buruzko ezagutzak barne hartzen dira—; eta iraunkortasuna kontuan hartuz, bai erabileran, bai arte-ekoizpenak sor ditzakeen hondakinen kudeaketan. Era berean, kontuan hartuko dira material eta tresna berritzaileak ez ezik, material biodegradagarri berriak ere, ingurumena zaintzeari buruzko egungo araudia errespetatzen dutenak.

Jakintzagai honetan 5 konpetentzia espezifiko finkatu dira, Kontzientzia eta Adierazpen Kulturaletarako konpetentziaren 6 osagaien inguruan artikulatzen direnak (kultura-harrera eta -nortasuna, ikerketa eta analisia, autoadierazpena, bizi-esperientzia, arte- eta kultura-ekoizpena, plangintza eta antolamendua). Teknika desberdinen ezagutzan, artelanen azterketan eta harreran —adierazpide desberdinen erabileran bai gaitasun autonomoa garatzeko, bai ekoizpen artistiko indibidual eta kolektiboak egiteko— oinarritzen dira, kalitatea ebaluatuz, proposatutako helburua kontuan hartuz eta norberaren eta besteen bizipenak erabiliz.

Era berean, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak barne hartzen dituzten ebaluazio-irizpide batzuk formulatu dira.

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, jakintzagai honetan ikasleen artean honako hauek garatzea planteatzen da:

– Ondare artistiko-plastikoaren inguruan sentsibilizatzea eta hura errespetatzea, ondare hori gauzatzeko erabili diren teknikak aztertzeko gai izanik.

– Ekoizpen artistiko grafiko-plastikoak ulertzea eta interpretatzea.

– Baliabide materialak eta prozedurazkoak hautatzea, ekoizpen plastikoari lotutako kolaborazio-proiektuetan edo proiektu pertsonaletan aktiboki parte hartzeko.

– Obra grafiko-plastikoak sortzea, ideiak, sentimenduak edo emozioak komunikatzeko material, prozedura eta teknika egokiak koherentziaz aplikatuz.

Konpetentzia espezifiko horiek eskuratzeko aktibatu beharko diren jakintzagaiari buruzko oinarrizko jakintzak bost multzotan antolatzen dira.

Alderdi orokorrak; Pintura-teknikak; Grabatzeko eta estanpatzeko teknikak; Teknika mistoak eta alternatiboak; Proiektu grafiko-plastikoak.

Ikaskuntza-egoerek elkarri lotutako lana ahalbidetuko dute. Horrela, lan-munduan eta mundu profesionalean proiektatzen denarekin bat datozen lan-metodologiak jasoko dira, eta ikasleek jakintzagaian inplikazio handiagoa izango dute, eurei prestakuntza osoagoa eta integralagoa eskainiz. Betiere ikuspegi inklusibotik begiratuta, jarduera ororen oinarri gisa, eta kultura- eta arte-ondarearen aniztasuna balioesteak dakarren aberastasuna kontuan hartuta.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Obra grafiko-plastikoak aztertzea, haien alderdi formalak baloratuz, haiek gauzatzeko eta kontserbatzeko erabilitako teknikak, materialak eta prozedurak alderatuz, eta ingurumenean izan dezaketen eraginari buruz hausnartuz, sormena bultzatuko duen eta ondarearekiko jarrera positiboa —iraunkortasunarekin konprometituta egotearekin batera— sustatuko duen erreferentziazko esparru pertsonal bat eratzeko.

Hainbat ikuspegitatik landu daitezkeen elementu konplexutzat hartuta, ekoizpen artistikoak eurak sortu direneko testuinguru sozial, kultural eta historikoaren isla dira. Testuinguru hori definitzen laguntzen duen alderdietako bat materialen eta erabilitako teknika eta prozeduren azterketa da, adierazteko eta komunikatzeko ezaugarriekin lotuta; horretarako, alderdi formalak ere kontuan hartu behar dira (konposizioa, forma, kolorea eta testura, argia, etab.). Azterketa horri esker, hainbat testuingurutako lanak alderatu eta erlazionatu daitezke, eta, horrela, ikasleek baliabide ugari izango dituzte etorkizuneko balorazio kritikoetan eta beren ekoizpen artistikoetan aplikatzeko. Bestalde, ekoizpen artistiko desberdinen azterketa horrek ondarearen aniztasun kultural eta artistikoaren balorazio positiboa sustatzen lagunduko du. Aztertutako adibideen artean, genero-ikuspegia eta kulturen arteko ikuspegia sartu behar dira, emakumeek eta tradizioz mendebaldeko kanon artistikoan oso presentzia mugatua izan duten talde etnikoetako eta herrialdeetako pertsonek egindako ekoizpenen azterketan arreta jarriz.

Adierazpen grafiko-plastikoak aztertzeko hainbat metodologia erabil daitezke; besteak beste, iturri analogiko edo digitalen bidez dokumentatutako ikerketa eta azterketa zientifikorako tresna teknologiko berriak. Biak hurbilketaren adibide baliotsuak diren arren, obraren ezinbesteko ikusizko azterketaren osagarri dira; izan ere, ikusizko azterketaren sinpletasun teknikoa, berehalakotasuna eta aldakortasuna direla eta, lehen hurbilketa-metodotzat har daiteke, funtsezko bere bi alderdietan: gozamen estetikora hurbiltzeko alderditik —beste prozesu kognitibo garrantzitsu batzuk aktibatuz, hala nola arreta eta memoria— eta zentzu kritikoa garatzeko alderditik. Harrera-metodologia horiek beste ezagutza-esparru batzuetara eraman daitezke, ikasleen prestakuntza integrala hobetuz.

Bestalde, ekoizpen artistiko plastiko gehienak objektu fisikoak direnez, hauen gainean ingurumenari lotutako hausnarketa egitea komeni da, bai horiek egiteko erabilitako material, teknika eta tresnen eraginagatik, bai ekoizpen-prozesuetatik eratorritakoagatik, horiek ere planetarako kaltegarriak izan daitezkeen hondakinak sor baititzakete. Beraz, bereziki garrantzitsua da lan grafiko-plastikoan erabilitako materialak egiteko teknikak ezagutzea. Ikasleek gogoeta horiek guztiak kontuan hartu behar dituzte, obra jakin bat jasotzen dutenean, horrek ingurumenean duen eragina baloratu ahal izateko. Azkenik, arte-ekoizpenaren iraunkortasuna ondare artistikoaren kontserbazioaren eta zaintzaren aldeko apustu kontzientearekin osatu behar da, bi alderdien arteko errespetuzko elkarrizketa ezarriz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM2, KD1, KPSII2, HK1, HK2, HK4, KAKK1, KAKK2.

2. Hizkuntza grafiko-plastikoaren berezko elementuak eta prozedurak erabiltzea, ezagutza teknikoa erakutsiz, eta sormenez eta modu berritzailean esperimentatuz bere aukerekin eta konbinazioekin, adierazteko gaitasun autonomoa eta pertsonala garatzeko eta helburu jakin batzuei erantzuteko.

Hizkuntza grafiko-plastikoa gizakiarentzako lagungarri izan da hasieratik, eta, beraz, oso aberatsa eta askotarikoa da. Hori dela eta, adierazpen grafiko-plastikoko tekniken azterketak ezagutza-arlo desberdinei lotutako jakintzak eskatzen ditu, prozedurak aplikatzeko praktika eta trebetasuna barne. Teknika grafiko-plastikoek oso baliabide indartsuak eskaintzen dituzte, edozein gairi buruzko edo bizipen pertsonal edo partekatuetan oinarritutako ideiak, sentimenduak eta iritziak modu pertsonal eta askean adierazteko. Horrela, ikasleek alderdi pertsonala txertatzen dute beren konposizioetan, beren inplikazioa areagotuz. Nolanahi ere, baliabide egokienak hautatu beharko dituzte, lortu nahi duten asmoaren arabera, azken produktuaren iraunkortasunari buruzko beharrezko hausnarketa alde batera utzi gabe.

Gainera, ekoizpen grafiko-plastikoek esperimentazio- eta sormen-maila handia ahalbidetzen dute, material, tresna, teknika eta prozedurak hainbat modutan konbinatuz. Horrek guztiak askatasun handiagoa ematen die ikasleei ideia eta sentimendu pertsonalak islatzeko. Beharrezko trebetasunak eskuratuz eta ekoizpenak gauzatzeko erraztasun teknikoa lortuz, ikasleak inprobisazioan trebatu ahal izango dira. Laburbilduz, ekoizpen grafiko-plastiko horiek ebaztea laguntza handia da ikasleen hazte pertsonalerako, eta autokonfiantza-giroa sortzen du; aldi berean, zentzu kritikoa areagotzen du, autoestimua handitzen du eta sormena indartzen du.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: KPSII1.1, KPSII1.2, HK4, EK3, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.1, KAKK4.2.

3. Obra grafiko-plastikoak banaka eta taldeka egiteko prozesua planifikatzea, teknika, material eta prozedurek eskaintzen dituzten aukerak baloratuz, baita proposamen jakin bati egokitzeko ahalmena ere, kultura- edo arte-ekoizpenarekin lotutako edozein jarduerari eraginkortasunez eta sormenez erantzuteko.

Ekoizpen grafiko-plastikoen konplexutasun-mailak askotarikoak dira, eta berezko nahiz kanpoko zirkunstantziek baldintzatzen dituzte. Horiek arrakastaz garatzea lortzeko, ikasleek, konplexutasun-mailarekin batera, proiekturako eskuragarri dauden baliabideen aukerak baloratu behar dituzte, baita proiektura egokitzen diren ere. Egoeraren diagnostiko horren ondoren, modu ordenatuan planifikatu behar dituzte gauzatze-faseak, proposamenera hobekien egokitzen diren baliabideak zentzuz eta sormenez hautatuz. Horrela, abiapuntuko egoera aztertzeko prozesua eta obraren plangintza azken produktua adina balio edo gehiago duten osagai bihurtzen dira ikasleentzat, harreman-sare konplexu hori behar bezala kudeatzeko gai izan behar baitute, proiektu grafiko-plastiko bati arrakastaz aurre egiteko.

Proiektuak kolektiboak direnean, garrantzitsua da taldeko kideen parte-hartzea planifikatzea, haien ahuleziak eta indarguneak baloratuz, partekatutako esperientziak integratzeko eta lan-dinamika eraginkorrak, errespetuzkoak, enpatikoak eta aberasgarriak bultzatzeko.

Azkenik, funtsezkoa da, obra grafiko plastikoaren plangintza amaitu ondoren, plangintza horren ebaluazio prozesu bat egitea, banakakoa edo taldekoa. Bertan, hautatutako materialek, teknikek, errealizazio-prozesuek eta hizkuntzek azken produktua nola baldintzatu duten azaltzeko aukera emango dien beste analisi bat sartuko da.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, KPSII3.2, KPSII4, EK2, KAKK4.2.

4. Banakako eta kolaborazioko proiektu grafiko-plastikoak garatzea, hainbat material, teknika eta prozedura trebetasunez erabiliz, sormen-prozesua integratzeko eta jarduteko helburu jakin batzuei modu efikaz, jasangarri eta sortzailean erantzuteko.

Proiektu kolektiboetan zein banakakoetan, ikasle bakoitzak problemak ebatzi beharko ditu, eskuratutako trebetasunak eta teknikak kontzienteki aplikatuz. Funtsezko alderdi bat da planteatutako beharrari erantzuteko teknika, material, euskarri eta prozedura egokienak zehaztea. Nolanahi ere, materialen hautaketan eta obra grafiko-plastikoak sortzeko prozeduren aplikazioan, ezinbestekoa da iraunkortasun-ikuspegia aplikatzea; horregatik, material birziklatuak eta ez-kutsatzaileak erabiltzea eta ingurumena errespetatzen duten prozedurak erabiltzea proposatzen da.

Proiektuak indibidualak direnean, autonomia eta autoestimua garatzen laguntzen dute, eta, aldi berean, etorkizuneko kolaborazio-ekoizpenak aberasteko aukera ematen dute. Kolaboratiboak direnean, gainera, ikasle bakoitzak taldeko gainerako kideengandik jasotzen du, ekarpenak egiten ditu eta haiekin partekatzen ditu, horrela enpatia-estrategiak eta problemak eta gatazkak konpontzeko estrategiak garatuz. Edonola ere, bi kasu horietan helburua lan-dinamika enpatiko eta aberasgarriak sortzea da, ikasleek norberaren lana zein besteena errespetatzen ikas dezaten. Hori, gainera, ekarpen baliagarria izango da identitate pertsonala eraikitzeko eta espiritu kritikoa aberasteko. Bestalde, proiektu grafiko-plastikoak, indibidualak zein kolektiboak, esperimentazioarekin, adierazpen pertsonalarekin eta problemak ebazte-

ko autonomiarekin lotu daitezke. Norbanakoaren eta kolektiboaren arteko elkarrizketa horren baitan dago, hein handi batean, erantzunaren efikazia eta hori edozein proposamenetara egokitzea.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, KPSII1.1, KPSII3.1, KPSII 3.2, EK3, KAKK3, KAKK3.2, KAKK4.1.

5. Norberaren eta besteen produktu grafiko-plastikoak ebaluatzea, gizartean eta kulturan izan dezaketen eragina baloratuz, adierazpen grafiko-plastikoaren eremuan garapen pertsonala eta profesionala bultzatuko duen jarrera kritikoa eta arduratsua sustatzeko.

Proiektu artistiko kolektibo orok kideen inplikazio aktiboa behar du, plangintza- eta sorkuntza-prozesuan esku hartzen duten ikaskuntzak arrakastaz aplikatzeko eta aldez aurretik planteatutako helburu zehatz bati erantzungo dion azken ekoizpen egoki batean islatzeko. Ideiak eztabaidatu, zalantzan jarri eta trukatzeko komunikazio-prozesu bat da, inklusioa bultzatzen duena eta ikasleen garapen pertsonal eta sozialerako aukerak balioesten dituena. Horretarako, proiektuak eremu horietan eta beste batzuetan izan ditzakeen ondorioak ulertu behar dituzte ikasleek.

Horregatik, proiektu grafiko-plastikoa landu ondoren, ezinbestekoa da norberaren eta besteen ekoizpenak ebaluatzea, lehenik eta behin, erabilitako hizkuntzen, tekniken, materialen eta prozeduren arteko egokitzapena kontuan hartuta, hasierako asmoaren eta lortu nahi zen produktu motaren arabera. Horretarako, ikasleek berariazko hiztegia eta terminologia profesional egokia erabili behar dituzte, jarrera enpatikoa eta konstruktiboa erakusteaz gain, akatsak eta ahulguneak ikasteko eta hobetzeko aukera gisa adieraziz eta onartuz.

Ebaluatu beharreko beste alderdi bat da, zalantzarik gabe, egikaritzearen kalitatea eta jardueraren plangintzaren egokitasun-maila ekoizpenaren errealitatearekiko, baita ingurumeneko interakzio posibleak ere. Azken produktuaren jabetza intelektualarekiko errespetua ebaluatzeko unea ere bada, baita egindako lanen eta eskolakoak ez diren beste esparru batzuetako lan batzuen arteko paralelismoak ezartzeko unea ere, teknika grafiko-plastikoak ezagutzearen eta modu fidagarrian aplikatzearen ondoriozko aukera profesionalei buruz hausnartuz. Horrek pizgarria eragingo du ikasleek jakintzagaian duten inplikazio-mailan, ikasgelako lana eta etorkizunean lan-munduan izango duten proiekzioa lotuko baititu.

Horregatik guztiagatik, mugimendu bat sortzen da, eta mugimendu horrek eragina izango du bai ondoz ondoko lanen hobekuntzan, bai argudiatutako gaitasun kritikoaren garapenean. Gaitasun hori bizitza pertsonaleko eta akademikoko beste arlo askotan aplikatu ahal izango da, eta funtsezkoa da nortasun autonomoa garatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, HK4, EK2, KAKK1, KAKK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Adierazpen Grafiko-Plastikoaren Teknikak
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Mota eta garai desberdinetako obra grafiko-plastikoak aztertzea, erabilitako materialak, teknikak eta prozedurak identifikatuz, euren adierazpen-efektuak baloratuz eta alderdi formalen azterketatik abiatuta balio estetikoko judizioak txertatuz.
1.2 Ekoizpen grafiko-plastikoetan erabiltzen diren elementuak, teknikak eta prozedurak alderatzea, ezberdintasunak eta alderdi komunak identifikatuz eta horien arteko erlazioak ezarriz.
1.3 Zenbait une historikotan sorkuntza grafiko-plastikoan erabilitako prozeduren eta materialen iraunkortasuna eta ingurumen-inpaktua kritikoki baloratzea, ingurumena errespetatzen duten alternatibak proposatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1 Baliabide grafiko-plastiko egokiak sormenez hautatzea, adierazpen-egoera edo eskatutako jardueraren asmoa kontuan hartuz.

Adierazpen Grafiko-Plastikoaren Teknikak
2.2 Adierazpen- eta komunikazio-beharrak ebaztean, adierazpen grafiko-plastikoaren teknika, material eta prozedurak sormenez eta autonomiaz erabiltzea, egikaritzean eta azken produktuaren iraunkortasunean zorroztasuna azpimarratuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Askotariko lan grafiko-plastikoak, banakakoak edo taldekoak, egiteko prozesu osoa planifikatzea, egikaritze-faseak ezarriz eta komunikazio- edo sormen-asmoen arabera egokienak diren teknika, material, prozedura eta hizkuntzen aukeraketa argudiatuz.
3.2 Kolaborazio-proposamenetan, faseen eta lan-taldeen antolamendua behar bezala planifikatzea, kasu bakoitzean eskatzen diren trebetasunak identifikatuz eta zereginak irizpidearekin banatuz eta onartuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1 Ideiak, iritziak eta sentimenduak adieraztea, arrazoi edo planteamendu desberdinei buruzko ekoizpen grafiko-plastiko indibidualak eta kolaboratiboak sortuz, eta prozedura desberdinak kaudimenez eta kontrol teknikoz aplikatuz.
4.2 Produkzio grafiko-plastiko kolektiboen garapenean modu koordinatuan eta kolaboratiboan jardutea, taldeko kideen artean iritzi desberdinak daudenean jarrera errespetuzkoa, sortzailea eta bateratzailea erakutsiz.
4.3 Konposizio grafiko-plastiko indibidualak edo kolaboratiboak egitea, ahal denean material birziklatuen erabilera integratuz eta inklusio- eta iraunkortasun-irizpideak aplikatuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1 Produktu grafiko-plastikoak ebaluatzea, erabilitako hizkuntzak, teknikak, materialak eta prozedurak aurreikusitako asmora zenbateraino egokitzen diren argudiatuz —berariazko terminologiarekin—, eta gauzatzearen zorroztasuna eta kalitatea baloratuz, baita iraunkortasunarekin eta jabetza intelektualarekin lotutako alderdiak ere.
5.2 Adierazpen grafiko-plastikoko teknikak ezagutzearen ondorioz sortzen diren garapen pertsonalerako eta profesionalerako aukerak identifikatzea eta baloratzea.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Adierazpen Grafiko-Plastikoaren Teknikak
A. Alderdi orokorrak.
Hizkuntza grafiko-plastikoa: forma, kolorea, testura eta konposizioa. Haren eboluzio historikoa.
Teknika grafiko-plastikoei lotutako euskarriak, tresnak, pigmentuak, aglutinatzaileak eta disolbatzaileak. Materialen arteko interakzioa.
Material artistikoen segurtasuna, toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua. Euskarri eta material jasangarriak.
Genero-ikuspegia, kulturarteko ikuspegia eta ikuspegi inklusiboa ekoizpen grafiko-plastikoetan.
Produktu kulturalak eta artistikoak ikertzeko, aztertzeko, interpretatzeko eta kritikoki baloratzeko estrategiak.
Jabetza intelektualaren aurrean jarrera etikoa. Erabilera arduratsuak.
B. Pintura-teknikak.
Materialak, tresnak eta euskarriak. Ezaugarriak eta terminologia espezifikoa.
Ur-teknikak: akuarela, tenpera eta akrilikoa.
Teknika solidoak, oliozkoak eta mistoak. Arrautza-tenplea. Enkaustadurak. Pastelak. Olioak. Urarekin nahas daitezkeen olioak. Pintura biodegradagarriak.
C. Grabatzeko eta estanpatzeko teknikak.
Materialak, tresnak, makineria eta euskarriak. Terminologia espezifikoa.
Monoinprimaketa eta erreprodukzio anizkoitza. Obra grafikoa. Monotipia laua.
Erliebezko estanpazioa. Xilografia. Linoleoa.
Hutsunedun estanpazioa. Kalkografia. Teknika zuzenak eta zeharkakoak.
Estanpazio laua. Metodo planografikoa. Litografia. Metodo permeografikoa. Serigrafia.

Adierazpen Grafiko-Plastikoaren Teknikak
D. Teknika mistoak eta alternatiboak.
Adierazpen grafiko-plastikoko beste teknika, material eta prozedura batzuk.
Irudi digitala. Arte digitala.Metodo elektronikoa. Copy Art.
E. Proiektu grafiko-plastikoak.
Proiektu-metodologia.
Proiektu grafiko-plastikoak planifikatzeko eta garatzeko estrategiak. Lan-taldeen antolamendua.
Pintura-lan bat egiteko prozesua.
Autonomia eta zorroztasuna lanak egitean eta/edo egikaritzean.
Proiektu grafiko-plastikoen erakusketa eta hedapena.
Proiektu grafikoen faseak eta emaitzak ebaluatzeko estrategiak. Errorea hobetzeko eta ikasteko aukera gisa

ARTE PLASTIKOEI ETA DISEINUARI APLIKATUTAKO MARRAZKETA TEKNIKOA

Arte-irakaskuntzen helburuetako bat da ikasleei beharrezko trebetasunak ematea objektuak eta espazioak irudikatzeko eta sortzeko, ideiak eta sentimenduak komunikatzeko eta proiektuak garatzeko, bereziki ondoren gauzatuko den hori aurreratzea eta komunikatzea eskatzen duten arte diziplina guztietan. Bozetoak, esku hutsezko krokisak, planoak edo modelizazio digitalak eginez, hainbat eraikuntza geometriko eta irudikapen-teknika ulertzea eta erabiltzea oso garrantzitsua da ikaslearen sormena eta komunikazio eraginkorragoa garatzeko, eta, horrez gain, pentsamendu dibergentea garatzen eta ingurunea behatzen eta ulertzen laguntzeko. Marrazketa Teknikoa eta Marrazketa Artistikoa bi diziplina osagarri dira, eta lotura handia dago artearen eta geometriaren edo artearen eta zientziaren artean. Jakintzagai hau bi urtetan ikasiko da eta Batxilergoko ikasketak Arteen modalitatean egiten dituzten ikasleei zuzen-duta dago. Marrazketa teknikoak komunikazio grafikoko elementu gisa eta formak sortzeko elementu gisa betetzen duen zeregin garrantzitsua balioetsi nahi du, baita eraikitako ingurunearen eraldaketan duen eragina ere.

Gainera, neurri handiagoan edo txikiagoan, funtsezko konpetentzietako eta etapako helburuetako askorekin lotzen da; izan ere, sormena garatzen du eta ikasleen adierazpen-aukerak aberasten ditu, banakako eta taldeko lanean diziplina- eta erantzukizun-ohiturak sendotzen ditu, ezagutza zientifikoak integratzen ditu, problema praktikoak ebazteko arrazoibide logikoa sustatzen du, trebetasun teknologikoak garatzen ditu, konpetentzia digitala garatzen du, eta gaitasun eta inteligentzia inter eta intrapertsonalak indartzen ditu. Era berean, XXI. mendeko erronkei zeharka heltzen zaie, bereziki eta zuzen-zuzenean kontsumo arduratsuari, aniztasun pertsonal eta kulturalaren balorazioari, herritarrek tokiko esparruan eta esparru globalean duten konpromisoari, kultura digitalaren aprobetxamendu kritiko, etiko eta arduratsuari, eta ezagutzaren konfiantzari, garapenaren motor gisa.

Arte Plastikoei eta Diseinuari Aplikatutako Marrazketa Teknikoa jakintzagaiak diziplina anitzeko izaera eta izaera funtzional nabarmena du, talde-lana, esperimentazioa eta sormenaren garapena sustatzen duten metodologia aktiboen mesederako, diseinu-proposamenak ebaztean edo diziplinarteko proiektuetan parte hartzean oinarrituta, eta funtsezko konpetentziak osotasunean garatzen eta etapako helburuak eskuratzen laguntzen du.

Ildo horretan, diseinuko eta marrazketako 2 eta 3 Dko tresnak eta programak zeharka sartzeak ikasleek hizkuntza hori integra dezaten laguntzen du, eta beren etorkizun profesionalerako ezinbestekoa den konpetentzia digitala modu kritiko, seguru eta arduratsuan jorratzeko aukera ematen die, pribatutasuna eta jasangarritasuna errespetatuz. Gainera, ikasleek berdintasunean aktiboki parte hartzea sustatzen du, ikuspegi inklusiboa eta ez-sexista hartuz, eta diskriminazioa dakarren edozein estereotipo gainditzea bereziki azpimarratuz.

Jakintzagaiaren egiturari dagokionez, bost konpetentzia espezifiko ezarri dira, hain zuzen ere jakintzagai horrek laguntzen dituen konpetentzia-ikaskuntzak. Lehenengoa, arkitektura- eta ingeniaritza lanak balioesteari eta aztertzeari —haien egituren eta elementu teknikoen ikuspegitik— buruzkoa da. Bigarrena problema grafiko-matematikoak ebaztean zentratzen da, geometria lauaren oinarriak praktikan jarriko dituzten arrazoibide induktiboak, deduktiboak eta logikoak aplikatuz. Hirugarrenak proiektuak egiteko irudikapen-sistema egokienaren erabilerari eta aplikazioari egiten dio erreferentzia. Laugarrenak diseinuak formalizatzea eta proiektu tekniko kolaboratzaileak aurkeztea jasotzen du, aplikatu beharreko araudiei jarraituz. Bosgarrenak ordenagailuz lagundutako diseinuko programa espezifikoekin ikertzea eta esperimentatzea aurreikusten du.

Ebaluazio-irizpideen helburua da jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoen lorpen-maila zehaztea eta jakintzak zein neurritan barneratzen eta nola aplikatzen diren egiaztatzea, eta ikasleek beren garapen pertsonal eta akademikorako jarrera edo balio garrantzitsuak hartzen ote dituzten adieraztea. Haien formulazioan, beraz, jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea aipatzen dira argi eta garbi.

Jakintzagai honi buruzko oinarrizko jakintzak elkarri lotutako bost multzoren inguruan antolatzen dira: Orokorrak; Geometria, artea eta ingurunea; Espazioaren irudikapen-sistema aplikatuak; Proiektuen normalizazioa eta diseinua; eta Diseinurako tresna digitalak.

Jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak eskuratzeko, ikaskuntza-egoera jakin batzuk beharko dira, ikasleek esperientzia sorta zabala arretaz aztertu ahal izan dezaten. Egoera horien garapenean, konpetentzia espezifikoak ez dira independentetzat hartuko; aitzitik, osotasunean landuko dira, kasu bakoitzean esanguratsuenak diren zereginek esku har dezaten; horrela, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak elkarri lotuta eta pixkanaka eskuratu ahal izango dira konplexutasunari dagokionez. Egoera horiek prestakuntza--aplikazioen eta aplikazio profesionalen panorama zabala emango diete ikasleei, hainbat alderditan. Batxi-lergoko bi mailetan zehar, jakintza-multzoek pixkanakako zailtasun-maila eta sakontze-maila hartzen dute.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Geometriak naturan, ingurune eraikian eta artean duen presentzia behatzea, aztertzea eta baloratzea, haren egitura geometrikoak, elementuak eta kodeak identifikatuz, hautemateko eta gozatzeko jarrera proaktiboarekin, haren jatorria, funtzioa eta asmoa hainbat testuingurutan eta baliabidetan azaltzeko.

Konpetentzia hori pentsamendu dibergentearen garapenari, ingurunea behatzeari eta ulertzeari lotuta dago. Iraganeko eta oraingo artearen, naturaren eta eraikitako ingurunearen azpian dauden egitura geometrikoetan gai berari emandako hainbat erantzun hautemateko eta gozatzeko jarrera proaktiboarekin identifikatzeko eta aztertzeko gaitasunari esker. Beharrezkoa da konposizio-elementu gisa eta ideiak eta formak sortzen dituen elementu gisa duen paper garrantzitsua ezagutzea, haiek sortu direneko gizarteari buruzko informazioa emanez. Analisiarekin batera, ikasleek berariazko terminologia teknikoa eta artistikoa barneratzen dute, euren komunikatzeko gaitasuna aberastuz. Beraz, helburua da geometriaren azterketari ekitea, esplorazioaren eta aurkikuntzaren bidez, erabili diren kulturen testuinguruan kurben, poligonoen eta eraldaketa geometrikoen erabilera aztertzea, iraganeko eta oraingo adierazpen artistikoen ezagutza zabalagoa eta aberatsagoa lortzeko. Ezagutza zabal horrek arte-ekoizpenetan eta euren ingurune eraikian dauden forma eta egitura geometrikoak aztertzen eta identifikatzen gozatzea sustatzen du ikasleengan.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM2, KD1, KPSII4, HK1, KAKK1, KAKK2.

2. Proposamen grafikoak eta diseinukoak garatzea, esku hutsezko marrazketa eta marrazketa teknikoaren berezko materialak erabiliz, planoan trazadurak, konposizioak eta eraldaketa geometrikoak modu intuitiboan eta arrazoituan eginez, eta zorroztasunarekiko interesa agertuz, norberaren hizkuntza plastikoan txertatzeko.

Konpetentzia horrek forma eta eraikuntza geometriko nagusien irudikapena eta trazadura menderatzea eskatzen du, eta, are garrantzitsuagoa dena, ikasleen hizkuntza plastiko pertsonalean integratzea. Kontua da, beraz, elementu horiek sorkuntza autonomoko eta esperimentazio praktikoko prozesuetan sar daitezen sustatzea; era berean, alde batetik, errealitatearen pertzepzioa eta kontzeptualizazioa bultzatzea, errealitatea artistikoki birsortu edo interpretatzeko, eta, bestetik, dekorazio-elementuak, mosaikoak, patroiak eta tipografiak sortu eta diseinatzeko oinarrizko baliabide geometrikoak ematea. Arte-ekoizpen horiek egitura formalak, ideiak edo kontzeptu estetikoak gauzatzeaz gain, ikasleentzat baliabide baliotsua dira euren sentimenduak adierazteko eta emozioak bideratzeko, euren nortasuna eraikitzen lagunduz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM2, KPSII1. 1, KPSII5, EK1, KAKK1, KAKK2 eta KAKK3.1.

3. Espazioa eta hiru dimentsioko objektuak ulertzea eta irudikatzea, irudikapen artistikoetan duten presentzia baloratuz, eta irudikapen-sistema egokiena hautatuz eta erabiliz ilustrazioak eta objektuak eta espazioak diseinatzeko proiektuak egiteko.

Konpetentzia honek gauzatu nahi den arte-proiektuaren helbururako egokienak diren irudikapen prozedurak eta -sistemak hautatu eta aplikatzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia —bistak diedrikoan, perspektiba axonometrikoan eta perspektiba konikoan—.

Era berean, espazioaren ikuspegia eta krokizazioan eta esku hutsezko marrazketan trebetasuna garatzea du helburu, lanean egindako ahaleginean eta jarraitutasunean oinarrituta, horrekin guztiarekin ikasleen trebetasun grafikoak ilustrazioetan hobetuz, baita objektuen eta espazioen diseinuetan ere. Azken batean, helburua da ikasleei komunikazio-tresna grafikoak ematea, haien espazio-ikuspegia hobetzea eta irudikapen-sistemek artearen eta diseinuaren eremuetan dituzten aplikazioetako batzuetan has daitezen bultzatzea.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM4, KPSII1.1, KPSII5, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

4. Bozetoak aztertzea, definitzea eta egitea, banaka edo taldean, UNE eta ISO funtsezko arauak aplikatuz objektuak eta espazioak interpretatzeko eta irudikatzeko, baita diseinu-proiektuak dokumentatzea ere.

Konpetentzia horrek kode grafiko eta arau unibertsal batzuk (ISO eta UNE) aplikatzea eskatzen du, modu argi eta unibokoan komunikatu ahal izateko soluzio pertsonalak eta diseinu-proiektuak, banaka edo taldean eginak. Marrazketa normalizatuak aukera ematen du bozetoen eta krokisen bidezko soluzio posible, askotariko eta sortzaileen lehen adierazpenetik, pentsamendu dibergentea sustatuz, azken formalizaziora arte. Beraz, diseinuaren ideiaren eta gauzatze materialaren arteko tarteko urratsa izango da. Ikasleak funtzionaltasuna, eraginkortasuna eta unibertsaltasuna funtsezko ezaugarriak dituen irudikapen mota batean hastean datza; izan ere, marrazketa normalizatuak informazio erabilgarria, aplikatzeko eraginkorra eta nazioarteko arauen bidez oso kodetua izan behar du, zalantzarik gabe interpretatu ahal izateko.

Bestalde, konpetentzia horrek talde-lana egitea ahalbidetzen du, errespetua, enpatia eta iritzi eta ikuspuntu desberdinen balorazioa bezalako gaitasunen garapena bultzatuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KE1, STEM4, KD3, KPSII5, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

5. Tresna digitalek eskaintzen dituzten aukerak modu kritiko, seguru eta arduratsuan integratzea eta aprobetxatzea, 2D marrazketa bektorialeko eta 3D modelatuko programa eta aplikazio espezifikoak hautatuz eta erabiliz, arte-sorkuntza pertsonaleko edo diseinuko prozesuak garatzeko.

Konpetentzia horrek berekin dakar modu kritiko, etiko, seguru eta arduratsuan erabiltzea, eta bi eta hiru dimentsiotan marrazteko eta modelatzeko tresna digital eta teknika nagusien ezagutza praktiko eta

instrumentala eskuratzea, jakintzagaiari buruzko gainerako jakintzekiko zeharka. Gailu digitalak sormen--prozesuan aplikatzeko tresna gisa erabiltzea eskatz en du, hainbat diziplina eta joera artistikotan esperimentatzeko tresna gisa txertatzea, eta diseinu grafikoko proiektuak, objektuak eta espazioak kudeatzeko eta aurkezteko tresna gisa erabiltzea. Horrek guztiak laneko eta erantzukizuneko ohiturak finkatzen laguntzen du.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, KD2, KD3, KPSII5, EK3, KAKK4. 1 eta KAKK4. 2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehenengo maila	Bigarren maila
1. konpetentzia espezifikoa.	
1.1. Naturan, ingurunean, artean eta diseinuan egitura, forma eta erlazio geometriko desberdinak jarrera proaktiboz aztertzea, hiztegi tekniko eta artistiko espezifikoa erabiliz, horien funtzioa aztertuz eta testuinguru historikoaren barruan duten garrantzia baloratuz.	1.1. Hautemateko eta gozatzeko jarrera proaktiboarekin, artean eta diseinuan forma eta erlazio geometrikoen presentzia aztertzea, berariazko hiztegi teknikoa eta artistikoa, horiek erabiltzeko arrazoia edo asmoa eta gai berari emandako soluzioak ulertuz eta erabiliz.
2. konpetentzia espezifikoa.	
2.1. Forma poligonalak marraztea eta formen diseinuari aplikatutako oinarrizko ukitzaileak eta simetriak ebaztea, trazaduran garbitasunaren eta zehaztasunaren garrantzia aplikatuz eta balioetsiz.	2.1. Patroiak eta mosaikoak diseinatzea, transformazio geometrikoak haien diseinura aplikatuz, zereginean zehaztasuna, argitasuna eta garbitasuna erakutsiz.
2.2. Ideiak, sentimenduak eta emozioak transmititzea, esku hutsez egindako naturalaren azterketak, zirriborroak eta apunteak eginez, formen barneko eta kanpoko geometria identifikatuz eta marrazketan duten garrantzia balioetsiz.	2.2. Sormenezko formak diseinatzea, ukitzaileak, loturak eta kurba konikoak erabiliz, eta haien zehaztasunean zorroztasuna erabiliz.
3. konpetentzia espezifikoa.	
3.1. Irudikapen-sistemen ezaugarriak bereiztea, kasu bakoitzean, irudikapenaren helbururako sistemarik egokiena hautatuz.	3.1. Perspektiba isometrikoan eta cavalieri perspektiban forma bolumetrikoak marraztea, kurbak txertatuz, eta irudikapen-sistema horiek artearen eta diseinuaren eremuetan duten aplikazioa balioetsiz.
3.2. Objektu sinpleak irudikatzea, haien bista diedrikoak interpretatuz, bai sistema axonometrikoan, bai sistema konikoan, emaitza konparatuz eta irukapen-sistema horien ezaugarrie iburuz hausnartuz	3.2. Espazioak edo eszenografiak diseinatzea, perspektiba konikoa aplikatuz, edukitako objektuen argiak eta itzalak irudikatuz eta egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruz hausnartuz
3.3. Ontzi errazak diseinatzea, perspektiba isometrikoan edo cavalieri-perspektiban irudikatuz, beharrezko ezagutza teknikoak aplikatuz, eta egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruz hausnartuz.	
3.4. Ilustrazioak edo binetak marraztea, perspektiba konikoaren teknikak aplikatuz espazioak, objektuak edo pertsonak hainbat ikuspuntutatik irudikatzean, eta lanean egindako ahalegina eta jarraitutasuna baloratuz.	
4. konpetentzia espezifikoa.	
4.1. Bozetoak eta krokisak UNE ISO arauaren arabera egitea, objektuen forma eta dimentsioak komunikatuz, ideia sortzaileak proposatuz eta problemak autonomiaz ebatziz, hizkuntza unibertsal gisa duten garrantzia baloratuz.	4.1. Diseinu erraza proiektatzea, banaka edo taldean, normalizazioaren bidez haren forma eta dimentsioak argi eta garbi komunikatuz, kolaborazio lana arinduko duten estrategiak eta trebetasunak aplikatuz, errespetua, enpatia eta iritzi eta ikuspuntu desberdinen balorazioa erakutsiz.

Lehenengo maila	Bigarren maila
5. konpetentzia espezifikoa.	
5.1. 2Dko marrazketa bektorialeko tresnak eta teknikak maneiatzeko trebetasunak eskuratzea, laneko ohitura eta erantzukizuna baloratuz eta diseinu-proiektuak egitean modu seguruan aplikatuz.	5.1. Proiektuak egitea eta aurkeztea, marrazketa bektorialeko tresnek diseinuaren eta artearen arloei eskaintzen dizkieten aukerak aprobetxatuz, hura egikaritzean zorroztasunez jokatuz eta lanean jarraitutasuna erakutsiz.
5.2. 3Dko modelazioan hastea, eskulturak edo instalazioak diseinatuz, sorkuntza-tresna gisa duen ahalmena baloratuz, eta laneko eta erantzukizuneko ohitura sendotuz.	

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehenengo maila
Orokorrak.
Hautemateko eta gozatzeko jarrera proaktiboa.
Komunikazio-gaitasunaren aberastea, terminologia tekniko eta artistiko espezifikoa barneratuz
Pentsamendu dibergentearen, ingurunea behatzearen eta ulertzearen estimulazioa eta garapena.
Arrazoibideen zorroztasunarekiko interesa, zehaztasuna, argitasuna eta garbitasuna.
Ahaleginaren eta jarraitutasunaren balorazioa lanean.
Sormenaren eta espazio-ikuspegiaren sendotzea.
Iritzi eta ikuspuntu desberdinen balorazioa, errespetua eta enpatia.
Tresna digitalen erabilera kritikoa, etikoa, segurua eta arduratsua.
Lan- eta erantzukizun-ohituren finkapena
A. Geometria, artea eta ingurunea.
Geometria naturan, ingurunean eta artean. Behaketa zuzena eta zeharkakoa
Geometria konposizioan.
Espazioaren irudikapena artean. Artearen historian zehar genero-ikuspegitik eta kultura-aniztasunetik egindako ikuspegiari buruzko azterketak.
Erlazio geometrikoak artean eta diseinuan: proportzioa, berdintasuna eta simetria. urrezko zenbakia artean eta naturan.
Zenbakizko eskalak eta eskala grafikoak. Eraikuntza eta erabilera.
Eraikuntza poligonalak. Aplikazioa diseinuan.
Oinarrizko ukitzaileak. Kurba teknikoak. Aplikazioa diseinuan.
Formaren barneko eta kanpoko geometriaren esku hutsezko azterketak. Apunteak eta zirriborroak.
B. Espazioaren irudikapen-sistema aplikatuak.
Proiekzio motak eta kontzeptua. Irudikapen-sistemen helburua.
Sistema diedriko ortogonala lehen diedroan. Bistak sistema europarrean.
Perspektiba isometrikoa eta cavalieri-perspektiba. Packaging diseinuaren hastapenak.
Perspektiba koniko, frontal eta zeiharraren aplikazioa komikian eta ilustrazioan.
C. Proiektuen diseinua eta normalizazioa.
Normalizazioaren kontzeptua. UNE, ISO funtsezko arauak. Proiektuen dokumentazio grafikoa: arauen beharra eta aplikazio-esparrua.
Bozetoen eta krokisen prestaketa.

Lehenengo maila
D. Diseinurako tresna digitalak.
2Dko marrazketa bektorialeko tresnen eta tekniken hastapenak. Diseinu grafikorako aplikazioak.
3Dko modelatzearen hastapenak. Arte-proiektuetarako aplikazioak.

Bigarren maila
Orokorrak.
Hautemateko eta gozatzeko jarrera proaktiboa.
Komunikazio-gaitasunaren aberastea, terminologia tekniko eta artistiko espezifikoa barneratuz.
Pentsamendu dibergentearen, ingurunea behatzearen eta ulertzearen estimulazioa eta garapena.
Arrazoibideen zorroztasunarekiko interesa, zehaztasuna, argitasuna eta garbitasuna.
Ahaleginaren eta jarraitutasunaren balorazioa lanean.
Sormenaren eta espazio-ikuspegiaren sendotzea.
Iritzi eta ikuspuntu desberdinen balorazioa, errespetua eta enpatia.
Tresna digitalen erabilera kritikoa, etikoa, segurua eta arduratsua.
Lan- eta erantzukizun-ohituren finkapena
A. Geometria, artea eta ingurunea.
Konposizio modularrak diseinu grafikoan, objektuen diseinuan eta espazioen diseinuan.
Geometria eta ilusio optikoak artean eta diseinuan.
Kurba konikoak naturan, ingurunean, artean eta diseinuan.
Espazioaren irudikapena diseinu eta arte garaikidean
Mosaikoen eta patroien sorrerari aplikatutako transformazio geometrikoak. Trazadura tresna digitalekin eta gabe.
Loturak eta ukitzaileak. Aplikazioa diseinu grafikoan, eskuzko trazaduraren eta trazadura digitalaren bidez.
B. Espazioaren irudikapen-sistema aplikatuak.
Zirkunferentzia eta solido sinpleen irudikapena perspektiba isometrikoan eta cavalieri perspektiban. Hiru dimentsioko formak diseinatzeko aplikazioa.
Egitura poliedrikoak. Solido platonikoak.Aplikazioa arkitekturan eta diseinuan.
Perspektiba konikoaren, aurretiko perspektibaren, zeiharreko perspektibaren eta koadro inklinatukoaren aplikazioak espazioen eta objektuen diseinuan. Argien eta itzalen irudikapena.
C. Proiektuen diseinua eta normalizazioa.
Diseinu-proiektu baten faseak: krokisetik tailerreko planora.
Objektuen irudikapena beren bista akotatuen bidez. Ebaketak, sekzioak eta hausturak.
D. Diseinurako tresna digitalak.
Arte- eta diseinu-proiektuei aplikatutako ordenagailuz lagundutako marrazketa.

ANALISI MUSIKALA

Analisi Musikala jakintzagaiak musika-proposamenetara zentzuz hurbiltzeko aukera ematen du, eta horrek proposamenen esanahi eta ezaugarri desberdinak arakatzea eta ikuspegi kritiko jakintzagaiak estetikotik aztertzea eskatzen du. Horri esker, ikasleek konpositoreak adierazi nahi izan zuen mezuaren dimentsioak partekatu ahal izango dituzte, baita proposamenak berau sortu zeneko testuinguru historiko-sozialarekin duen erlazioa ere. Aldi berean, lana entzuteak eta interpretazioak norberarengan eta besteengan duen eraginaren balorazioa eskatzen du.

Jakintzagai honen bidez, ikasleak musika-hizkuntzak antolatzeko eta konposatzeko teknika eta prozedurekin ohitzen dira, eta, aldi berean, estilo eta testuinguru desberdinen funtsezko osagaiak antzematen dituzte lan horietan. Musika-proposamen desberdinak aztertzeak soinu-unibertsoa zabaltzea sustatzen du. Unibertso horretan mugitzen dira egunero ikasleak, eta arte-hizkuntzaren hainbat erabilera planteatzeko aukera ematen die.

Musika-proposamen bat nola eraikitzen den aztertzeak lagundu egiten du espiritu kritikoa garatzen, aniztasuna kultura-aberastasunerako iturri gisa baloratzen, jakin-mina sustatzen, enpatia hobetzen eta hitzezko hizkuntzan emozioak definitzeko gai diren hizkuntza-erabilerak bilatzen. Horretarako, ikasleei eskatuko zaie gai izan daitezela musika-hizkuntzaren elementuen, soinu-iturrien edo konposizio-teknikaren oinarrien erabilera baliabide estilistiko eta formal bereizgarriekin eta alderdi historiko-sozial garrantzitsuekin erlazionatzeko, baita gogoeta estetikoekin eta emozioekin ere. Iruzkinak, ahozko gogoetak edo idatzizko aipamenak eginez, ikasleek musika-proposamen propioei, interpretazioari eta entzule gisa duten inpresioari buruz ikasitakoa azalduko dute. Euren esperientzia partekatuz, modu eraginkorragoan integratzen dute euren ikaskuntza, beste sortze-, egikaritze- edo hautemate-egoera batzuetan aplikatzeko.

Era berean, formula melodiko-erritmikoak eta eredu harmonikoak analisiaren bidez nola erabiltzen diren ulertzeak aukera ematen du ikasleek beren musika-interpretazioetara modu aplikatuan eraman eta eskema oinarrizkoenetan automatizatu ahal izango dituzten konposizio-prozesuak barneratzeko, beren inprobisazioetan eta sorkuntzetan modu logiko batean sartzeko.

Euren musika-sorkuntzak partekatzean eta analizatzean, eta sorkuntza-prozesuetan erabilitako prozedurei eta tresnei buruz elkarrekin hausnartzean, berdinen arteko ikaskuntza sustatzen da, eta, ondoren, beste sormen-lan batzuetan aplikatzea eta hobetzea, baita musika-lanak edo musika-laburpenak hautematea ere.

Analisi Musikala jakintzagaia bi mailatan banatzen da, eta bigarrena lehenengo mailaren jarraipen logikoa da. Konpetentzia espezifikoak funtsezko lau osagairen arabera egituratzen dira: Kultura Nortasuna, Kultura Harrera, Autoadierazpena eta Arte/Kultura Ekoizpena. Horiek ikasleen gaitasunak garatzen dituzte, analisi musikala ezagutuz, erabiliz eta aplikatuz, musika ulertzeko, hartaz gozatzeko, hura ikertzeko, ezagutzeko eta erabiltzeko ezinbesteko tresna gisa.

Jakintzagaia musikaz egiten diren erabileren aurkikuntzak osatzen du jakintzagaiak, era horretan modu kontzientean entzulearengan eragiteko, dela helburu terapeutikoekin, dela erabat musikalak ez diren esparruetan erabiltzeari lotutako beste funtzionalitate batekin.

Ebaluazio-irizpideak zerrendatzen diren konpetentzia espezifikoak lortu diren ala ez zehazteko egin dira. Musika-proposamen bat aztertzen ikastea proposamen osoa ulertzeko eta proposamen hori osatzen duten elementuak hainbat testuingurutan erabiltzen jakiteko tresna da.

Maila bakoitza jakintza multzotan egituratzen da, eta ezagutza, trebetasun eta jarrera multzokatuak osatzen dituzte. Lehenengo mailan, honako enuntziatu hauen pean: A. Analisi musikalaren hastapena eta B. Forma musikala. Lehenengo mailako oinarrizko jakintzak entzute aktiboaren garapenean, gaitasun analitikoetan eta musika-proposamen bat osatzen duten elementuak eta egiturak ulertzeko beharrezkoak diren gaitasunen eta trebetasunen erabileran oinarritzen dira. Bigarren mailan, jakintzak bi epigrafetan multzokatuta daude: A. Analisi musikalaren teknikak eta B. Musika-generoak. Bigarren maila honetan, musikako ezagutzak hobetzen jarraitzen da, analisiaren erabilera musikan sakontzeko eta musika-generoetan berezkoak diren sormen-prozesuak ezagutzeko tresna gisa, historian zehar hainbat proposamen artistiko-musikalen bidez.

Horretarako, ikasleek analisi-prozesuan modu aktiboan parte hartzea proposatzen da, eta, ikasgelako jardueren bidez, ezagutzak aplikatu ahal izateko benetako egoerekin lotzea. Jakintzagaiak aukera ematen du jarduerak diseinatzeko. Jarduera horietan, entzute aktiboak —euskarri grafiko edo bisualekin edo gabe— kultura-ondarearen gaineko argumentazio kritikoa egiteko eta nortasun propioa eraikitzeko gaitasuna sustatuko du, eta horrek proiektu artistikoak arrakastaz garatzeko aukera emango die.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Hainbat lanetako musika-elementuak aztertzea, entzute aktiboa eta partituren azterketa erabiliz, horien ezaugarriak deskribatzeko eta konparazioak egiteko.

Lan bat osatzen duten elementuen ezaugarrien deskribapenak bat egiten du teoria musikalari buruzko ikaskuntzekin eta horien hautemate-ezagutzarekin, eta hainbat konposizio definitzen dituzten ezaugarrien arteko konparazioa ahalbidetzen du.

Bestalde, hainbat testuingurutan sortutako eta genero eta estilo desberdinetakoak diren musika-lanen arteko analogiak eta desberdintasunak hautemateak aukera ematen die ikasleei soinu-unibertso zabal batean sartzeko, beren musika-gustuak aberasteko eta beren arte-errepertorioa zabaltzeko.

Gainera, ikasleei funtsezko elementuak ematen dizkie oraina ulertzeko eta interpretatzeko, kultura-nortasun propioa garatzeko eta kultura- eta arte-ondarea babesteko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KPSII5, HK1, KAKK1, KAKK2.

2. Konposizio baten musika-elementuen arteko erlazioak ezartzea, haren egitura eta erabilitako konposizio-prozedurak aztertuz, musika-lana genero, estilo eta sorkuntza-testuinguru batekin lotzeko.

Musika-pieza baten intentzionalitateak ezagutzeak musikagilearen adierazpen-borondatera hurbiltzea esan nahi du; izan ere, musikagileak, bere sorkuntzan, musika-hizkuntzaren elementu diferenteak erabiltzen ditu konposizioari forma eta zentzua emateko.

Horrek aukera ematen du erabilitako konposizio-tekniken ulermenean sakontzeko, eta, gainera, obraren ikuspegi globala eraikitzen laguntzen du, osagaien eta azken emaitza musikalean eragina duten testuinguru-faktoreen eta faktore estilistikoen arteko erlazioaren bidez.

Egileari eta sorkuntza-testuinguruari buruzko informazio-iturri analogiko zein digitaletatik abiatuta ikerketak garatzeak konpetentzia hori hobeto garatzen laguntzen du.

Era berean, ikasleek konposizio baten ezaugarri bereizgarriak musikaren historian zehar eboluzionatu duten estilo eta generoekin nahiz garrantzi bereziko forma-tipo jakin batzuekin lotu ahal izango dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KD1, KPSII4, HK1, KAKK1, KAKK2.

3. Aztertutako obrei buruzko musika-iruzkinak eta -kritikak egitea, terminologia egokia erabiliz eta hainbat informazio-iturri kontsultatuz, iritzi pertsonal oinarrituak adierazteko eta musika-ondarea zabaltzen laguntzeko.

Musika-elementuak identifikatu, aztertu eta deskribatzeko trebetasunak garatzeak, baita hainbat lan eta interpretazio alderatzeak ere, ikasleei beharrezko terminologia eta tresnak ematen dizkie, musika-lan jakin baten sorkuntzari edo interpretazioari buruzko balorazio pertsonala modu arrazoituan azaltzeko.

Egokia da, beraz, ikasleek sentimenduen eta emozioen ahozko adierazpenaren gaitasunak dakartzan onurak ulertzea. Pentsamendua talde-testuinguruetan adierazteak ikaskuntza kolektiboa errazten du, ezagutzak berdinen artean transmititzen laguntzen du eta, aldi berean, autoestimua eta autopertzepzioa indartzen ditu.

Era berean, iruzkin pertsonalak aberastu egingo dira ikasgelan argudiatutako hainbat ikuspuntu bateratuz eta hainbat iturri fidagarriren kontsultaren bidez lortutako informazioarekin.

Egunkari orokorretan edo aldizkari espezializatuetan argitaratutako kritiken irakurketak, gainera, aukera emango du horrelako testuetan erabilitako egiturari eta hiztegiari buruz hausnartzeko, eta ikasleek bitarteko analogiko edo digitalen bidez landu eta zabaldu ahal izango dituzten musika-aipamen, -iruzkin edo -kritiketarako ereduak eta adibideak eskainiko ditu. Testu horiek lantzeak, kasu askotan, kontsultatutako informazioa berriz lantzea dakarrenez, egile-eskubideak eta jabetza intelektuala errespetatzea sustatuko da.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KD2, KD3, KPSII4, HK1, EK3, KAKK3.1.

4. Oinarrizko konposizio-prozedurak eta teknologia digitalak erabiltzea, musika-elementu eta -egitura egokienak erabiliz, obra errazak sortzeko eta inprobisazioak egiteko.

Musika ikuspegi analitiko baten bidez ulertzeko gai izateak aukera ematen die ikasleei musika-proposamenen garapenean aktiboki parte hartzeko, musika-lan edo zati baten soinu-formulazioa azpiko eduki espresiboarekin lotzen duten konposizioetatik hartutako ereduetatik abiatuta.

Aldi berean, musika-ideia garatzeak berekin dakar lortu nahi diren efektuen araberako musika-materialak eta estilo-ezaugarriak aukeratzea, harmoniaren, erritmoaren, melodiaren eta tonu-egituraren arauak aplikatzea, eta konposizioak inprobisazioaren eta interpretazioaren beharretara egokitzea.

Oinarrizko konposizio-prozedurak aplikatzeak musika-lan berriak sortzea errazten du, musika-material berri hori sormen-prozesuan txertatzen den testuinguruetan, jakintzagaiaren ikaskuntzak eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak aplikatuz.

Oinarrizko konposizio-prozedurekin lotutako ikaskuntza horiek praktikan jartzeak adierazpen-gaitasunen eta ekintzailetza-jarreren garapena ere lantzen du, taldeko musika-proiektuetan parte hartuz. Proiektu horietan, ikasleek funtzio desberdinak hartzen dituzte beren gain, eta besteen ekarpenak eta ideiak errespetatzen dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, KD3, KPSII3.1, KPSII3.2, EK3, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.1, KAKK4.2.

5. Musikaren erabilera helburu terapeutikoekin, eta beste adierazpide artistiko batzuekin batera, ikertzea, hainbat informazio-iturri erabiliz eta musika-lanen ezaugarri musikalak aztertuz, musika-ezaugarri jakin batzuek osasunean eta emozioetan nola eragiten duten ulertzeko.

Analisi musikala, tradizioz, obra bere sorkuntza-testuinguruan ulertzera bideratu izan da, musika-lan horren musikak hautematen duenarengan musikak sor dezakeen efektua nabarmendu gabe.

Musika baliabide terapeutiko gisa erabiltzeari buruzko ikerketa ugari egin dira azken hamarkadetan, eta arazo fisikoak, kognitiboak, psikologikoak edo sozialak dituzten pertsonengan sortzen duen onuraren ebidentziak daude. Horrek aukera ematen du ikasleek musikaren ikuspegi analitikoa aberasteko, helburu terapeutikoekin erabiltzen den musikaren ezaugarriak identifikatuz, eta osasunean eta emozioetan duen eragina ikusiz. Horretarako, hautatutako errepertorioa ikertzeko prozesuak garatu beharko dira, informazio-iturri fidagarriak erabiliz.

Halaber, musikak beste arte batzuekin (zinema, dantza edo antzerkia, adibidez) batera betetzen dituen ezaugarrien eta funtzioen analisiak aukera emango die ikasleei askotariko giro emozionalak sortzen dituzten baliabide musikalak ezagutzeko eta barneratzeko, eta, ondoren, musika beste adierazpide artistiko batzuekin uztartzen duten sormenezko proposamenak garatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM 4, KD1, KD3, KPSII4 KAKK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehenengo maila	Bigarren maila
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1. Musika-lan bat osatzen duten elementuak eta horien funtzioa identifikatzea, entzute aktiboaren bidez eta partituraren eta entzutearen plazer estetikoaren laguntzaz.	1.1. Entzute aktibotik eta partituren azterketatik abiatuta, musika-lan baten musika-ezaugarriak deskribatzea, haiek osatzen dituzten elementuak eta konposizioaren barruan betetzen duten funtzioa jarrera irekiaz eta errespetuz aztertuz.

Lehenego maila	Bigarren maila
1.2. Hainbat musika-konposiziotako oinarrizko elementu teknikoak eta egitura formal bereizgarrienak deskribatzea, askotariko obrak aztertuz, eta besteen iritziekiko errespetuzko jarrera erakutsiz.	1.2. Hainbat musika-proposamenen osagaiak eta ezaugarriak alderatzea, haien arteko analogiak eta desberdintasunak ezarriz eta kultura-aniztasuna errespetatuz.
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1. Musika-lanak modu gidatuan aztertzea, erabilitako egitura formala eta konposizio-prozedurak identifikatuz, hainbat baliabide eta euskarritan oinarrituz.	2.1. Historian zehar musika-genero nagusiek izan dituzten forma-, konposizio- eta estilo-ezaugarriak identifikatzea, euren elementu teknikoen eta egitura formalaren analisian oinarrituz, jarrera irekiarekin eta ikuspegi estetikotik duten garrantzia baloratuz.
2.2. Aztertutako musika-lanak beren sorkuntza-testuinguruarekin lotzea, egileari eta garaiari buruzko banakako eta taldeko ikerketa-prozesuen bidez, informazioa iturri fidagarrietatik hautatuz eta hizkuntza tekniko egokia erabiliz.	2.2. Aztertutako musika-lanak genero, estilo eta sorkuntza-testuinguru jakin batekin lotzea, egitura formala, erabilitako konposizio-prozedurak eta asmo artistikoa modu autonomoan identifikatuz.
3. konpetentzia espezifikoa	
3.1. Entzundako musikak eragindako zirrarak eta sentimenduak askatasunez eta jarrera irekiz adieraztea, pentsamendu kritikoaren garapena erakusten duten argudioak erabiliz, eta beste adierazpen artistiko batzuekiko lotura ezarriz.	3.1. Aztertutako musika-lanei buruzko iritzi pertsonalak adieraztea, musika-terminologia egokia erabiliz, besteen iritziekiko jarrera gogoetatsu eta errespetuzkoarekin.
3.2. Kultura-zabalkunde analogikoko eta/edo digitaleko proiektuetan parte hartzea, analista kritiko gisa kolaboratuz eta egile-eskubideak eta jabetza intelektuala errespetatuz.	3.2. Aztertutako musika-lanei buruzko norberaren iritzia justifikatzea, baliabide analogiko eta digitaletatik informazio egokiena ikertu, hautatu eta tratatuz.
	3.3. Musika-kritikak eta norberaren iruzkinak egitea eta zabaltzea, baliabide analogiko zein digitalen bidez, argudio eta irizpide musikal egokietan oinarrituz, egile-eskubideak eta jabetza intelektuala errespetatuz.
4. konpetentzia espezifikoa	
4.1. Aurrez aztertutako musika-eredu jakin batzuk ahots-, gorputz- edo instrumentu-interpretazioaren bidez erreproduzitzea, haien egitura barneratuz, pertzepzio fisiko-motorraren eta soinu-pertzepzioaren bidez, eta memorizazio-estrategiak aplikatuz.	4.1. Musika-lan bat osatzen duten elementuak sormenez aplikatzea konposizioetarako oinarri gisa, patroi melodiko, erritmiko, harmoniko eta formalak eta funtsezko konposizio-prozedurak erabiliz.
4.2. Musika-egitura eta -sorkuntza laburrak inprobisatzea, beren funtsezko elementuen ezagutzatik eta analisitik abiatuz.	4.2. Inprobisazioen bidez, arte-hizkuntzaren erabilera desberdinekin taldean esperimentatzea, enpatia eta kolaborazioa erakutsiz.
4.3 Teknologia digitalak musika-konposizioan erabiltzea modu kritiko, seguru eta arduratsuz.	4.3. Analisi musikalari aplikatutako metodoak eta teknikak eraginkortasunez erabiltzea, tresna teknologikoen laguntzaz, musika-ondarea zabaltzen, hedatzen eta balioesten laguntzeko autonomia erakutsiz.
5. konpetentzia espezifikoa	
5.1. Musikak beste adierazpide batzuekin (zinema, antzerkia, dantza…) erlazionatzen denean betetzen dituen funtzioak identifikatzea, horien ezaugarriak eta ikuslearengan sortzen duen efektua aztertuz.	5.1 Musikaren erabilera terapeutikoak aztertzea, baita zenbait musika-ezaugarrik osasunean eta emozioetan nola eragiten duten ere, informazio-iturri fidagarrietan lortutako informaziotik abiatuz.
	5.2 Helburu terapeutikoekin erabiltzen den musikaren ezaugarriak deskribatzea, obren adibideak aztertuz eta haien ezaugarriek entzulearengan izan dezaketen ondorioekin lotuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehenengo maila
A. Analisi musikalaren hastapena.
Partitura eta entzute aktiboa analisi musikalaren euskarri gisa.
Musika-proposamen baten oinarrizko elementuak eta horien arteko erlazioa: erritmoa, melodia, harmonia dinamikoa, agogikoa, testura eta instrumentazioa.
Hainbat garai, estilo eta generotako musika-proposamen adierazgarriak entzuteko analisi-estrategiak.
Proiektuak ikertu, konposatu, zabaldu eta lantzeko baliabide digitalak eta musika-aplikazioak.
Iruzkinak, ahozko gogoetak eta musika-aipamenak.
Egile-eskubideak eta jabetza intelektuala.
Tresna digitalen erabilera kritikoa, iraunkorra eta arduratsua.
Enpatia eta hainbat ikuspunturen balorazioa.
B. Forma musikala.
Forma musikalaren oinarrizko elementuak identifikatzeko estrategiak.
Oinarrizko konposizio-printzipioak: errepikapena, bariazioa, kontrastea eta garapena.
Sailkapena eta tipologia formalak: forma sinpleak, konposatuak eta libreak.
Musikaren funtzioa beste adierazpen artistiko batzuekin batera.
Jarrera inklusiboen sustapena eta kultura-aniztasunaren onarpena.
Musika-proposamen sortzaileak beste arte batzuekin batera.

Bigarren maila
A. Analisi musikalaren teknikak
Konparazioa teknika analitiko gisa.
Entzumena eta partiturak aztertzeko teknikak.
Sorkuntza-testuingurua aztertzeko teknikak.
Sortzailearen pentsamendua, testuinguru-baldintzatzaileak eta obraren interpretazioa.
Iruzkinak, ahozko gogoetak eta musika-kritikak.
Musika ikertzeko, konposatzeko eta zabaltzeko baliabide digitalak.
Egile-eskubideak eta jabetza intelektuala.
Kultura digitalaren jarrera kritikoa, etikoa eta arduratsua.
B. Musika-generoak.
Musikaren soinu- eta estilo-ezaugarriak Erdi Arotik gaur egunera arte.
Musika-formak eta -generoak Erdi Arotik gaur egunera arte.
Musikaren erabilera helburu terapeutikoekin.
Orkestraren barruko instrumentu-familia nagusien erabilera eta eboluzio organologikoa.
Talde-lanean parte-hartze aktiboa eta arduratsua, diskriminazioa dakarten estereotipoak gainditiuz.
Musikak osasunean eta emozioetan dituen eraginak.

ARTE ESZENIKOAK

Arte Eszenikoak jakintzagaia bi ikasturtetan ematen da; ikasturte horietan curriculuma pixkanaka garatzen da. Bizirik dagoen arte gisa, bere izaera nagusiki praktikoa da, esperimentazio eta esplorazio kolektibokoa; bertatik adierazkortasunaren, komunikazioaren eta sormenaren garapena sustatzeko, eta arte eszenikoen kode espezifikoak ezagutzeko. Izaera praktiko horrek berak bultzatzen du jakintzagai hau beste batzuekin lotzera, non gorputz-trebetasunak, bokalak, testualak, musikalak edo proiektu artistikoen plangintza eta kudeaketakoak ere lantzen diren.

Jakintzagaia bost konpetentzia espezifikotan oinarrituta diseinatu da, eta konpetentzia horiek etaparen helburuekin eta Batxilergorako aurreikusitako funtsezko konpetentziekin lotzen dira. Konpetentzia espezifiko horiei esker, ikasleek beren inguruko kultura-bizitzan parte har dezakete, eta ondarea zabaldu eta balioetsi dezakete. Besteekiko errespetuzko eta kolaborazioko portaera sustatzen dute, eta, aldi berean, haien pertzepzio-gaitasuna, sormena eta pentsamendu kritikoa garatzen laguntzen dute. Era berean, arte eszenikoek ikasleengan sustatzen dute imajinarioa aberastea, adierazpen artistikoez gozatzeko aukerak zabaltzea eta arte horiei lotutako garapen pertsonal, sozial, akademiko edo profesionalerako aukerak identifikatzea. Halaber, irizpide estetikoa, komunikazio- eta negoziazio-trebetasunak, autoezagutza, sormena, enpatia, irudimena eta espiritu ekintzailea bultzatzen dituzte.

Konpetentzia espezifiko horietatik zuzenean ondorioztatzen diren ebaluazio-irizpideak konpetentzia horien lorpen-maila egiaztatzeko diseinatuta daude.

Konpetentzia espezifiko horiek eskuratzeko aktibatu beharko diren jakintzagaiaren oinarrizko jakintzak bost multzotan antolatzen dira. Multzo horiek ez dira nahitaez aurkeztu diren ordenan landu behar, baizik eta modu integratuan, ikaste-egoerek planteatzen dituzten eskaeren arabera; horrela, jakintzagaiaren ikuspegi orokorra erraztuko da. Lehenengo multzoan, «Ondare eszenikoa» izenekoan, arte eszenikoen tipologiei eta tradizioei erreparatzen zaie, baita denboran zehar izan dituzten aldaketei eta eraldaketei ere. Bigarren multzoak, «Adierazpen eta komunikazio eszenikoa» izenekoak, eszena-esangurako hainbat sistema, bitarteko eta kode biltzen ditu. Hirugarren multzoak, «Interpretazioa» izenekoak, birsortze eta irudikapen eszenikoari buruzko elementuak biltzen ditu. Laugarren multzoak, «Antzezpena eta eszenifikazioa» izenekoak, ikuskizun eszenikoari eta talde-lanari buruzko jakintzak biltzen ditu. Azkenik, «Arte eszenikoetan harrera» izeneko multzoa publikoaz eta adierazpen eszenikoak aztertzeko estrategiez eta teknikez arduratzen da.

Espero da ikasleak gai izatea oinarrizko jakintzak abian jartzeko ikaste-egoeren barruan, non gero eta autonomoagoak izango diren eta pixkanaka beren ikaskuntza-prozesuaz arduratzen diren gizarte-eragile gisa jardungo duten. Ikasleek adierazpen eta proposamen desberdinetan funtzio desberdinak beren gain hartzetik abiatuta egoerak proposatzea gomendatzen da, birsortze artistikoaren parte bizia izan daitezen. Horretarako, positiboa izango da jakintzagaiaren antolaketa publiko mota desberdinen aurrean eta agertoki desberdinetan proiektuak egiteko programatzea, gozamen artistikoa partekatuz eta komunitatearen bizitza kulturala aberastuz. Horri dagokionez, komeni da hainbat erreferentzia kulturalen berri emango duten piezak hautatzea.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Garai eta tradizio desberdinetako adierazpen eszenikoak aztertzea, horien ezaugarriak deskribatuz, euren testuinguruarekin erlazioak ezarriz eta balizko eraginak eta proiekzioak identifikatuz, ondarea baloratzeko eta norberaren iruditeria aberasteko.

Konpetentzia hori eskuratzeak berekin dakar hainbat garai eta tradiziotako ikuskizun eszenikoen mota nagusien ezaugarriak identifikatzen eta deskribatzen ikastea, baita ikuskizun horiek beren testuinguru historiko eta geografikoarekin erlazionatzen ikastea ere, horien sorburu edo isla diren gizarte-eraldaketetan duten garrantzia baloratuz. Ikuskizun horiek testuinguruan kokatzeak garai eta testuinguru sozial jakin bateko produktu gisa behar bezala baloratzea ahalbidetuko du, eta, aldi berean, haien eboluzioari

eta orainarekin duten erlazioari buruzko gogoeta egitea ahalbidetuko du. Horregatik, mendebaldeko kanonera jotzeaz gain, komeni da beste kultura-tradizio batzuetara hurbiltzea. Gainera, arreta jarriko da ondare eszenikoaren aniztasunean ezartzen diren erlazio motetan: formen eta estiloen arteko eraginak —denboran bereizita egon edo ez kontuan hartu gabe—, aldi bateko elementu jakin batzuk beste aldi batean irauten duten ikustea, eta estilo edo korronte jakin batek sortzen dituen erreakzio, arbuio edo subertsioak. Bestalde, testuinguruaren azterketari heltzean genero-ikuspegia eta kulturartekoa sartzeak lagunduko du ikasleek uler dezaten emakumeak eta diskriminazioa jasaten duten talde etnikoetako eta populazioetako pertsonek historian zehar artean izan duten zeregina, eta garai bakoitzean jaso dituzten iritziak. Alde horretatik, hainbat obratan izan dituzten antzezpenak ez ezik, arte eszenikoei egin dizkieten ekarpenak ere aztertu beharko dira.

Konpetentzia honen garapenaren esparruan, harrera aktibotik eta hiztegi tekniko egokiarekin, adierazpen eszeniko adierazgarriak aztertuko dira, eta, ahal dela, horiek eszenaratzearen bidez, zuzenean edo erreprodukzio analogiko edo digitalen bidez eskuratuko dira. Testuen eta irudien iruzkinak eta iturri bibliografikoak kontsultatzea ere baliagarriak izango dira.

Gehien ezagutzen dituzten adierazpideak ez diren beste batzuk aurkitzeak ikasleen imajinarioa aberastuko du, eta beren sorkuntzetan edo interpretazioetan aplikatzeko ideiak eta teknikak emango dizkie. Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KE3, KD1, KD2, KPSII2, HK1, KAKK1 eta KAKK2

2. Eszena-esangurako sistema, bitarteko eta kodeen adierazpen-aukerak aztertzea, jarduera praktikoen bidez, haien erabilera baliabideen errepertorio pertsonalean txertatzeko, eta komunikazio-asmoaren arabera egokienak direnak hautatzeko irizpidea garatzeko.

Eszena-esangurako sistemek, bitartekoek eta kodeek eskaintzen dituzten adierazpen-aukerak aurkitzeak eta aztertzeak ikasleei aukera ematen die euren baliabideen errepertorio pertsonala aberasteko, eta komunikazio-behar edo -asmo bakoitzerako egokienak hautatzen eta aplikatzen ikasteko. Dramatizazioa, jolasa, talde-sorkuntza eta inprobisazioa, bai arautua bai askea, bitarteko egokiak dira miaketa hori egiteko. Ikasgelan, jarduera praktiko horiek aukera emango diete ikasleei, banaka edo taldean, egoerari, ekintzari eta gatazka dramatikoari buruz hausnartzeko hainbat teknika eta estrategia aurkitu eta aplikatzeko, edo pertsonaiaren azterketa, eraikuntza eta karakterizazioa egiteko. Era berean, jarduera horiek oso tresna baliagarriak izango dira agertokian islatu nahi diren ideia, sentimendu eta emozioetara hobekien egokitzen diren dantza-baliabideak, baliabide plastikoak, literarioak, ikus-entzunezkoak edo bestelakoak hautatzen ikasteko.

Teknologia digitalek baliabide horien erabileraren adibide-sorta zabal baterako sarbidea ere erraztuko dute. Adierazpen eta komunikazio eszenikorako aukerak aztertzeak autoezagutza, konfiantza eta motibazioa errazten ditu, eta ideien eta iritzien aniztasunarekiko errespetua, berdinen arteko aberastasun kulturala eta oztopo eta estereotipo sozial, kultural edo sexistak gainditzen laguntzen du.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KD1, KPSII1.1, KPSII2, HK1, EKK3, KAKK3.1.

3. Ekintza dramatikoaren edo dantza-ekintzaren birsorkuntza eta irudikapena lantzea, mota guztietako pertsonaiak eta gatazkak erakusten dituzten eszenen eraikuntza kolektibotik abiatuz, komunikazio- eta negoziazio-trebetasunak garatzeko eta autoezagutza, sormena, enpatia, irudimena eta espiritu ekintzailea indartzeko hainbat egoera eta testuingurutan.

Birsortze eta irudikapen eszenikoak kultura-ondare immateriala ulertzen eta aintzatesten laguntzen du, baita norberaren adierazpenerako aukerak zabaltzen ere, interpretearen berezko trebetasunak eta mugimendu-teknikak, ahozkoak, keinuzkoak eta erritmiko-musikalak eskuratuz.

Obrak irakurtzea eta aztertzea, ikuskizunak ikustea eta entseguak banakako eta taldeko interpretazio-trebetasun eta -teknika horiek eskuratzeko uneak eta espazioak dira. Banakako interpretazioak hainbat alder-

di lantzeko aukera ematen du, hala nola kontzentrazioa, memorizazioa, adierazpen pertsonala edo zuzendaritzaren jarraibideetara egokitzea. Bestalde, talde-interpretazioak hainbat funtzio betetzeko gaitasuna garatzen laguntzen du, baita besteei entzuteko eta emanaldian haiekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna ere. Konpetentzia hori eskuratzen dela ziurtatzeko, mota guztietako pertsonaiak, egoerak eta gatazka dramatikoak erakusten dituzten eszenen eraikuntza kolektiboan ikasleek parte har dezaten sustatu behar da.

Interpretazio-teknikak barneratzeak eta obrak ikasgelan edo ikasgelatik kanpo antzezteak beste estrategia eta trebetasun batzuk eskuratzea eskatzen du, ikasleei ikaskuntza-prozesuak berak sor dezakeen frustrazioa behar bezala kudeatzen laguntzeko, kontzentrazioari eusten laguntzeko eta emanaldietan zehar segurtasunik eza eta beldur eszenikoa gainditzen laguntzeko. Emozioak kontrolatzeko eta kudeatzeko estrategia horiek ikasleei euren autoestimua garatzen lagunduko diete, eta ziurgabetasun-egoerei eta aurre egin beharko dieten erronkei segurtasun handiagoz aurre egiteko aukera emango diete.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KD2, KPSII1.1, KPSII2, HK1, EKK1, KAKK3.

4. Sorkuntza eta hedapen eszenikoko proiektuak egitea, horien faseak planifikatuz, esanahi-elementuak hautatuz eta egituratuz, eta hainbat funtzio ekimenez eta erantzukizunez hartuz, komunikazio-asmoa adierazteko, kultura-ingurunea aberasteko eta garapen pertsonal, sozial, akademiko edo profesionalerako aukerak identifikatzeko.

Sorkuntza eta hedapen eszenikoko proiektu baten diseinuak eta errealizazioak lan planifikatua eta talde-lana eskatzen du. Baterako sorkuntza-prozesu horretan parte hartzeak lagundu egiten du ikasleen ekimena eta autonomia sustatzen, aurkitutako zailtasunak sormenez ebazten, talde-lana baloratzen, helburu komun bat lortzeko banakako erantzukizunak hartzen, eta enpatia eta gaitasun- eta iritzi-aniztasunarekiko errespetua sustatzen.

Jakintzagai honen eta beste batzuen esparruan eskuratutako ikaskuntzak aktibatuz, ikasleek proiektuko ideiak sortu eta hobetu beharko dituzte, hainbat iturri digital eta bibliografikotara joz, jabetza intelektuala errespetatuz eta komunikazio-asmoa, aurreikusitako harrera-esparruaren ezaugarriak eta proiektuaren bideragarritasuna eta jasangarritasuna kontuan hartuz, baldintza eta muga tekniko posibleei dagokienez. Gainera, esanahi-elementu egokienak hautatu eta egituratuko ditu; interpretazio-, irudikapen- eta eszenifikazio-jarraibideak ezarriko ditu; proiektuaren etapak planifikatuko ditu, bereziki, entseguetarako behar den denbora ziurtatuz; eta zereginak modu orekatu eta eraginkorrean banatuko ditu, funtzioen identifikaziotik eta prozesuaren fase diferentetan funtzio bakoitzari lotutako lan-kargatik abiatuta. Hedapen-, sustapen- eta ebaluazio-plan bat ere aurreikusi beharko du, arte eszenikoen sustapenean nahastutako erakunde eta organismo publiko eta pribatuekin harremanetan jartzea kontuan hartzeko aukerarekin. Ekintza horiek guztiak egin ahal izateko, oso baliagarria izango da ikasgelan kasu zehatzak aztertzea, hasierako ideiatik hasi eta ikuskizuna taularatu arteko prozesua ikusi eta ulertu ahal izateko.

Proiektuak berekin ekar dezake, halaber, diziplina anitzeko lana eta hainbat aplikazio eta tresna teknologiko, analogiko eta digitalen erabilera. Bestalde, interpretazioak zein ekoizpenaren funtzioren bat betetzeak aukera emango die ikasleei beren gaitasunak ezagutzeko eta arte eszenikoen esparruarekin lotutako garapen pertsonal, sozial, akademiko edo profesionalerako hainbat aukera ezagutzeko. Aukera horiek sormenak ematen duen balio erantsia dute.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KD2, KPSII3.1, KPSII5, HK2, HK3, EK2, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

5. Adierazpen eszenikoak kritikoki baloratzea, zein publikori zuzendua dagoen identifikatuz eta haien ezaugarriak eta aurrekontu artistikoak aztertuz, irizpide estetikoa garatzeko, ondarea zabaltzeko eta arte eszenikoez gozatzeko aukerak zabaltzeko.

Ikuskizunetara joateak edo hainbat adierazpen eszeniko ikusteak, dela zuzenean, dela bitarteko digitalen bidez, ikuslearen rol bikoitzaz jabetzeko aukera ematen die ikasleei, hartzaile aktibo eta baloratzaile kritiko gisa. Esperientzia hori baliatu behar da publikoaren nozioan sakontzeko eta haren tipologia eza-

gutzeko. Katarsiaren bizipen kolektiboak, arrozteak, identifikazioak eta parte-hartzeak, gainera, harrera-prozesua ulertzen laguntzen dute, eta elementu motibatzaile gisa funtziona dezakete harrera aktiboaren garapenean. Azterketa kritikorako estrategiak eta teknikak eskuratzeak mesede egingo dio; gainera, estrategia eta teknika horiek taldeko kideek obra jakin bati buruz egiten dituzten iritziak eta iruzkinak bateratzetik abiatuta landu daitezke. Ezagutza batera eraikitzeko prozesu horretan lagunduko dute kritika eszenikoetan eta aipamen dramatikoetan adituek adierazitako balorazioek. Testu horiek kontsultatzean, ikasleek hiztegi espezifiko bat, egitura berriak eta tresna berriak aurkituko dituzte, beren balorazio kritikoak hobeto artikulatzen lagunduko dietenak. Horiek ahoz, idatziz edo modu multimodalean formulatu ahal izango dituzte, betiere jabetza intelektuala errespetatuz, kasu bakoitzean azterketa-kontzeptu eta -estrategia egokienak erabiliz. Ekoizpen horietan, hala badagokio, obraren abiapuntu den testuaren balorazio bat egin ahal izango da. Ikasleen kritikak argitaratzea baliagarri izan daiteke ondarea zabaltzeko tresna gisa eta espazio eszeniko desberdinetara jotzeko gonbidapen gisa.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, KD1, KD2, KPSII4, HK1, KAKK1, KAKK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehengo maila	Bigarren maila
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1 Hiztegi egokiarekin, garai eta tradizio desberdinetako adierazpen eszenikoen ezaugarri nagusiak identifikatzea, haien testuinguruarekin erlazioak ezarriz eta horiek modu aktiboan jasotzeko irekitasun-, interes- eta errespetu-jarrera nabarmenduz.	1.1 Hiztegi egokiarekin, garai eta tradizio desberdinetako adierazpen eszenikoak aztertzea, haien ezaugarriak deskribatuz, haien testuinguruarekin erlazioak ezarriz eta horiek modu aktiboan jasotzeko irekitasun-, interes- eta errespetu-jarrera nabarmenduz.
1.2 Garai eta tradizio desberdinetako adierazpen eszenikoen arteko loturak ezartzea, egungo arte eszenikoetan duten eragina baloratuz.	1.2 Garai eta tradizio desberdinetako ohitura, gustu eta erreferente eszenikoak kritikoki baloratzea, haien eboluzioari buruz eta oraingoekin duten erlazioari buruz hausnartuz.
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1 Eszena-esangurako sistemak, bitartekoak eta kodeak esploratzen ekimenez, konfiantzaz eta sormenez parte hartzea, jarduera praktikoen bidez.	2.1 Eszena-esangurako sistemak, bitartekoak eta kodeak esploratzen ekimenez, konfiantzaz eta sormenez parte hartzea, jarduera praktikoen bidez.
2.2 Ekintza dramatikoa edo dantzakoa, pertsonaien diseinua eta egoeren eta eszenen konfigurazioa islatzea, baliabideen errepertorio pertsonala osatzen duten tekniken artean teknika egokienak hautatuz.	2.2 Ekintza dramatikoa edo dantzakoa, pertsonaien diseinua eta egoeren eta eszenen konfigurazioa islatzea, komunikazio-asmoaren arabera egokienak diren baliabideen errepertorio pertsonaleko teknikak hautatuz.
3. konpetentzia espezifikoa	
3.1 Interpretatzeko oinarrizko teknikak erabiltzea, buruz ikasteko estrategiak aplikatuz eta entseguak entzute-, elkarrizketa- eta ikaskuntza-espazio gisa baloratuz.	3.1 Hainbat interpretazio-teknika sormenez erabiltzea, buruz ikasteko estrategiak aplikatuz eta entseguak entzute-, elkarrizketa- eta ikaskuntza-espazio gisa baloratuz.
3.2 Ekintza dramatikoa edo dantzatua islatzea eta irudikatzea, eraginkortasuna erakutsiz, zuzendaritzaren jarraibideei jarraituz, kontzentrazioari eutsiz eta antsietatea eta beldur eszenikoa modu gidatuan kudeatuz.	3.2 Ekintza eszenikoa islatzea eta irudikatzea, zehaztasuna, eraginkortasuna eta adierazkortasuna erakutsiz, zuzendaritzaren jarraibideei jarraituz, kontzentrazioari eutsiz, eta antsietatea eta beldur eszenikoa modu gidatuan kudeatuz.
4. konpetentzia espezifikoa	
4.1 Sorkuntza eta hedapen eszenikoko proiektu kolektiboen errealizazioan aktiboki parte hartzea, hainbat funtzio ekimenez eta erantzukizunez hartuz, eta taldeko gainerako kideen ekarpenak eta esperientziak baloratuz eta errespetatuz.	4.1 Sorkuntza eta hedapen eszenikoko proiektu kolektiboen diseinuan ekimenez, erantzukizunez eta talde-kontzientziaz parte hartzea, plangintzan eta errealizazioan, faseak behar bezala antolatuz, zereginak modu arrazoituan banatuz, haien bideragarritasuna eta jasangarritasuna ebaluatuz, eta esangura-elementuak eta interpretazio-, antzezpenedo eszenifikazio-jarraibideak hautatuz eta egituratuz.

Lehenengo maila	Bigarren maila
4.2 Sorkuntza eta hedapen eszenikoko proiektuetan parte hartzearen emaitzak ebaluatu eta aurkeztea, planteatutako helburuen eta lortutako azken produktuaren arteko erlazioa aztertuz, eta horien artean egon daitezkeen desberdintasunak modu arrazoituan azalduz.	4.2 Sorkuntza eta hedapen eszenikoko proiektuen emaitzak ebaluatu eta aurkeztea, planteatutako helburuen eta lortutako azken produktuaren arteko erlazioa aztertuz, eta horien artean egon daitezkeen desberdintasunak azalduz.
	4.3 Esparru artistikoarekin erlazionatutako garapen pertsonalerako, sozialerako, akademikorako edo profesionalerako aukerak identifikatzea, haien balio erantsia ulertuz eta iritzi pertsonala modu kritikoan eta errespetuz adieraziz.
5. konpetentzia espezifikoa	
5.1 Ikuskizun jakin bat zer publiko motari zuzentzen zaion identifikatzea, argumentuak obraren analisian eta ikusleen erreakzioetan oinarrituz.	5.1 Proposamen eszeniko jakin bati eskainitako harrera baloratzea, obraren ezaugarriak, eszenaratzearen testuingurua eta ikusleen erreakzioak erlazionatuz.
5.2 Adierazpen eszenikoak komentatzea, terminologia egokia erabiliz, iturri fidagarrietatik informazioa birlanduz, eta horien ezaugarri eta aurrekontu artistikoei buruzko gogoeta kritikoa eginez.	5.2 Erreseina eta kritika eszenikoak egitea eta partekatzea, terminologia egokia erabiliz, iturri fidagarriak kontsultatuz eta obraren ezaugarriei, aurrekontu artistikoei eta harrerari buruzko gogoeta zorroztasunez eta sendotasunez eginez.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehenengo maila
A. Ondare eszenikoa
Arte eszenikoak: kontzeptua, tipologiak eta tradizioak.
Arte eszenikoak eta hauen historia: aldaketak eta eraldaketak.
Dramatikotasuna, antzerki-izaera eta performatibitatea.
Ondare immateriala.
B. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa.
Eszena-esangurako kodeak: izaera, deskribapena eta sailkapena.
Espazio eszenikoa esanahi-sortzaile gisa. Antzerki-konbentzioa.
Baliabide plastikoak: eszenografia bolumetrikoa eta birtuala, karakterizazioa, argiztapena eta soinu-espazioa.
Literatura-baliabideak eta bestelako materialak. Testu dramatikoa.
Gatazka dramatikoa: pertsonaia, egoera eta ekintza dramatikoa.
Pertsonaia dramatikoa: analisia, karakterizazioa eta eraikuntza.
Joko dramatikoa
Eszena-esangurako kodeak: izaera, deskribapena eta sailkapena.
C. Interpretazioa.
Prestakuntza fisikoa eta adierazpen aurreko prestakuntza. Gorputzaren zaintza.
Interpretazioko edo dantzako metodoak eta teknikak.
Interpretearen instrumentuak: gorputz-adierazpena, keinu-adierazpena, ahozkoa eta erritmiko-musikala. Kontzientzia emozionala.
Pertsonaia dramatikoa: irudikapen-mailak, helburuak eta funtzioak.
Interpretazio-partitura eta haren gauzatzea
D. Antzezpena eta eszenifikazioa.
Ikuskizun eszenikoa: kontzeptua eta ezaugarriak.

Lehenengo maila
Ikuskizunaren oinarrizko tipologiak: klasikoa, abangoardiakoa, gorputzekoa, mendebaldekoa, ekialdekoa, objektuena, musikala, dantzakoa, barrukoa, kalekoa.
Bestelako aurkezpen eszenikoak: happening, performance, bideo-antzerkia edo antzerki-dantza.
Ikuskizun baten diseinua: ekipoak, faseak eta lan-arloak.
Entseguak: tipologia, helburuak eta antolamendua.
Ikuskizun eszenikoen antzezpena.
Talde-laneko estrategiak. Gatazken konponketa.
E. Harrera arte eszenikoetan.
Publikoa: kontzeptua eta tipologiak.
Antzerki-harrera: katarsia, arroztasuna eta partaidetza.
Adierazpen eszenikoak aztertzeko estrategiak eta teknikak.
Jabetza intelektualaren errespetua. Norberaren sormenaren babesa.

Bigarren maila
A. Ondare eszenikoa
Arte eszenikoak eta hauen historia: aldaketak eta eraldaketak.
Arte eszenikoen esanahi soziala
Adierazpen ikusgarriak: erritualak eta sozialak. Herri-jaiak.
Antzezpen eszenikoaren eta performatiboaren egungo joerak.
Ahozkoak ez diren adierazpenak.
B. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa.
Emozioen, ideien edo testu eszenikoen adierazpena eta komunikazioa.
Egungo egitura dramatikoak eta dantzakoak.
Pertsonaia jardunean gaur egungo adierazpenetan.
Jolas dramatikoa, dantza, inprobisazioa, dramatizazioa eta sorkuntza kolektiboa.
C. Interpretazioa.
Egungo arte dramatikoaren eta dantzaren interpretazio-metodoak.
Interpretearen instrumentuetan sakontzea: gorputz-adierazpena, dantza, ahozkoa eta erritmiko-musikala. Kontzientzia emozionala.
Pertsonaia dramatikoaren egungo eraikuntza.
Sorkuntza eszenikoa: prozesua eta gauzatzea.
D. Antzezpena eta eszenifikazioa.
Obra eszeniko baten diseinua: ekipoak, faseak eta lan-arloak. Espazio eszenikoak eta espazio ez-eszenikoak. Ahozkoak ez diren hizkuntzen eta hizkuntza teknologikoen integrazioa.
Dramaturgia proiektu eszeniko baten diseinuan.
Proiektu eszeniko baten ekoizpena eta errealizazioa.
Zuzendaritza artistikoa proiektu eszenikotan.
Entseguak: zuzendaritza eszenikoaren eta kudeaketaren funtzioak.
Ikuskizun eszenikoen antzezpena.
Produktu eszenikoen erakusketa, hedapena, banaketa eta ebaluazioa.
Talde-laneko estrategiak. Zereginen banaketa eta lidergo partekatua. Gatazken konponketa.
Jakintzagaiari lotutako garapen pertsonal, sozial, akademiko eta profesionalerako aukerak.

Bigarren maila
E. Harrera arte eszenikoetan.
Adierazpen eszenikoak aztertzeko estrategiak eta teknikak. Testua, eszenaratzearekin duen erlazioan.
Kritika eszenikoa. Erreseina bat egiteko estrategiak eta teknikak.
Jabetza intelektualaren errespetua. Norberaren sormenaren babesa.

ARTEAREN OINARRIAK

Artearen Oinarriak jakintzagaiaren bidez, ikasleek hainbat diziplina artistikoko zenbait obra aztertuko dituzte, forma eta teknika ezberdinak dituztenak, kronologikoki kokatzeko, identifikatuta, ikaskuntza hori sorkuntza artistikoaren ideiarekin lotuta. Diziplina horrek beren berezko baliabideak aberastuko ditu, eta ezagutza kultural irekia eta desberdina handituko du. Gainera, bereganatutako kontzeptuei esker, ikasleek kontzientzia berezia izango dute ondare kultural eta artistikoarekiko. Horrez gain, hainbat obra eta artista ezagutu eta ezagutaraziko dituzte, zenbait arrazoi medio, artearen historia tradizionalean ezkutuan egon direnak.

Irteera-profilaren funtsezko konpetentziaren garapenaren bidez, ikaskuntza holistikoa eta konpetentzia-la errazten dira, komunikatzeko gaitasuna, bitarteko analogiko eta digitalekin ikerkuntza zientifikoko tresnak erabiltzea eta ezagutzaren eraikuntzan konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoaren gaitasunaren garapena sustatuz. Azkenik, jakintzagai honetan, aztertutako obren dimentsio sozialari, historikoari, zibikoari eta moralari buruzko gertakariak eta arauak aztertuko dira, eta horiek herritartasunerako konpetentziarekin dute lotura. Ekintzailetza-konpetentziarekin batera, bereganatutako ezagutza horiek praktikan jarriko dituzte ikasleek jakintzagaiaren berezko proiektuetan eta jakintzagaiarekin zerikusirik ez duten proiektuetan, hala etorkizuneko goi-mailako prestakuntzetarako edo arteari lotutako proiektu profesionaletan parte hartzeko prestatuko dira.

Hainbat artista eta obra ezagutu eta aztertzea, horien ingurumen-inpaktua kontuan hartuz, baita ondare kultural eta artistikoaren kontserbazioa ere, egungo munduaren erronkekin eta garapen iraunkorreko helburuekin konprometituta daude.

Konpetentzia espezifikoei dagokienez, elkarrekin lotuta eta mailakatuta bereganatuko dira, bakoitzaren konplexutasun-maila kontuan hartuta. Zortzi konpetentzia espezifiko ezarri dira, eta honako hau dute oinarri: artearen sorkuntzan gertatu diren aldaketak ulertzea, artearen funtzioen inguruan hausnartzea, erabilitako hainbat lengoaia hautematea, hainbat bitarteko eta euskarritan egindako obrak aztertzea, ezagutza zientifikoak integratzea, eta sentimenduak, emozioak edota ideiak adierazteko moduak bereiztea. Hori guztia ikaskuntza eta banakako edo taldekako proiektuak uztartzeko bitartekoa izango dira, iraunkortasun-testuinguruan, taldeko lana eta inklusioa balioan jarrita.

Oinarri Artistikoak jakintzagaiaren jakintza-multzoak honako hauek dira:

A. Arte-kontzeptua: jatorrien bila; multzo honetan artearen hainbat teoria aztertzen dira, eta horiek arteak historian zehar izan dituen hainbat kontzeptu eta funtzioekin lotzen dira.

B. Arte Klasikoaren proiekzioa: multzo honetan, arte klasikoaren eta artearen askotariko susperraldi eta eraginen gako adierazgarrienak ikasiko ditu ikasleak.

C. Argia eta espiritualitatea artean: argia-espiritualitatea binomioaren bidez, intereseko hainbat alderdi lantzen dira, jarduera artistikoen eta mugimendu ezberdinen berezitasunak ezagutzeko.

D. Artea eta errepresentazioa: multzo honetan, errepresentazioari lotutako alderdiak aztertzen dira eta, horretarako, ikusmen-berregite eta -interpretaziorako forma askotarikoak eta aberatsak alderatzen dira.

E. Artea adierazpen gisa: multzo honek adierazpen artistikoko aldagai mugagabe batzuk definitzen ditu, korronte estetiko adierazgarrienak aztertuz eta alderatuz.

F. Natura, gizartea eta komunikazioa artean: multzo honetan, artearen alderdi ekologikoa eta jiraunkorra hartzen dira kontuan, baita artearen alderdi soziala eta funtzionalitatea ere, eta artearen eta komunikabideen arteko eraginak eta interferentziak.

G. Metodologiak eta estrategiak: multzo honek artearen ikasketa eta azterketa hainbat ikuspegitatik barne hartzen ditu, baita talde-lanarekin eta proiektu artistikoen faseekin lotutako jakintzak ere. Garatu beharreko jarrera-alderdiak ere kontuan hartu dira.

Bereganatutako ezagutza horiek praktikan jarriko dituzte ikasleek jakintzagaiaren berezko proiektuetan eta jakintzagaiarekin zerikusirik ez duten proiektuetan, hala etorkizuneko goi-mailako prestakuntzetarako edo arteari lotutako proiektu profesionaletan parte hartzeko prestatuko dira.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Artearen sorkuntzan gertatutako aldaketak ulertzea, garai historiko eta kultura-testuinguru bakoitzaren arteko berdintasunak eta ezberdintasunak aztertuz, aniztasuna aberasgarria dela azaltzeko.

Arte-kontzeptuaren definizioa eztabaidagai da gaur egun ere. Artearen esanahia elementu bizia da, aldakorra, eta aldatzen joan da historian zehar. Aldaketak ez dira gertaeren kronologiagatik baino gertatu; aldiz, artea ekoizten duten kulturen aniztasunarekin dute lotura. Arte informalaren sorrerak, zalantza dadaistak edo argazkilaritzaren sorrerak, adibidez, astindu handia eman zioten kontzeptuari eta, beraz. ikasleak ezagutu beharreko mugarriak dira.

Aldaketa horiek balioestea eta ezagutzea oso aberasgarria da ikasleen baliabideetarako, ondoren hainbat estilo eta garaitako adierazpen artistikoak iritzi osatuagoaz baloratzeko, hainbat obra alderatuz, horien arteko loturak ezarriz eta arrazoituta azalduz. Horri guztiari esker, ikasleek azaltzeko aukera izango dute aniztasun artistikoaren aberastasuna eta, horretarako, ahoz, idatzi edo modu anitzen bidez egingo dituzte aurkezpenak. Artera aurreiritzirik gabe hurbilduko dira eta beren kultura-ezagutza handituko dute.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, KPSII4, HK1, KAKK1, KAKK2.

2. Arteak historian zehar izan dituen funtzioen inguruan hausnartzea, garai bakoitzeko funtzioaren bilakaera aztertuz, berezitasunak aintzat hartzeko eta edozein garaitako ondare kultural eta artistikoa balioan jartzeko.

Artearen esanahian murgiltzean, ezinbestean artearen baliagarritasuna jartzen da zalantzan. Kontzeptua aldatzen joan den moduan, artearen funtzioak ere jasan ditu bere aldaketak historian zehar. Funtzio magikoa, erlijiozkoa, pedagogikoa, oroitzapenezkoa edo estetikoa izan dira, besteak beste, arte-ekoizpenek gizateriaren hastapenetik izan dituen hainbat funtzioetako batzuk. Aldi berean, gizarteek eta kulturek erabilera ezberdina eman diete aurretik zeuden produktu artistikoei, eta, batzuetan, erabilera hori sortzerakoan izan zutenaren oso bestelakoa da. Jarduera artistikoaren funtzionaltasunen atribuzio-joko dinamiko hori ezagutu eta balioetsi egin behar dute ikasleek, hala, edozein garaitako ondare kultura eta artistikoari dagokion garrantzia emateko. Gainera, ikasleek edozein ekoizpen artistiko kokatzen duten eta funtzioa baldintzatzen duten ingurumen- eta testuinguru-baldintzen jakitun izan behar dute, obrak errespetutik, sakontasunez eta irizpideen arabera aztertzeko, eta ondorioak ahozko aurkezpen bidez, testu bidez edo modu anitzen bidez azaltzeko. Aurkezpen horietan, betiere, berezitasunak balioan jarri eta aurreiritziak alde batera utziko dira.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, KPSII4, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

3. Garai eta estilo ezberdinetako ekoizpen artistikoak formalki, funtzionalki eta semantikoki aztertzea, elementu eratzaileak eta lengoaien gakoak aintza hartuz eta hiztegi espezifikoa erabiliz, irizpide estetikoa garatzeko eta arteaz gozatzeko aukerak zabaltzeko.

Artearen estilo, joera eta mugimendu bakoitzak berezko lengoaiari lotutako gako komunak ditu. Gako horiek laguntzen dute obra ulertzen eta obra sortu zen unearekin identifikatzen. Hurbilpen-metodo horrek arte-lanak sailkatzea du helburu, eta horixe da ekoizpen artistikoaren unearen araberako konplexutasuna jorratzeko lehenengo modua. Artearen estiloak, mugimenduak edo joerak aztertzeko hurbiltze aldera, beharrezkoa da hainbat ekoizpen artistiko ikertzea eta iturri analogiko eta digitaletatik abiatutako informazioa aztertzea, berezitasunak eta puntu komunak nahiz ezberdintasunak azalduz. Ikasleek terminologia espezifiko zabala ezagutu behar dute, lengoaia zehatz, egoki eta koherentearekin deskribatzeko artelan baten analisiak onartzen dituen ñabardura, aldagai eta zorroztasun anitzak.

Gainera, mugimendu eta estilo artistikoei lotutako formak, funtzioak eta esanahiak aztertzeko hainbat metodologia ulertu eta irizpidez aplikatu behar ditu, obretara hurbiltzeko oinarriak baitira eta artean erabilitako lengoaia ezberdinak kontuan hartzeko aukera ematen baitute. Helburua da ikasleei irizpide estetiko informatua ematea, edozein adierazpide artistiko jorratzeko. Horretarako, obra kontenplatzean, estiloa eta testuingurua identifikatu eta artearen adierazpidearen aberastasuna jarriko ditu balioan, obraz gozatzeko aukerak areagotuz.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK2, KD1, KPSII1.2, KPSII4, HK1, KAKK1, KAKK2.

4. Hainbat bitarteko eta euskarri bidez egindako obra artistikoak azaltzea, sortu zireneko gizarte-, geografia- eta historia-testuingurua identifikatuz, baita eragin eta proiekzio posibleak ere, garai eta kultura bateko lekuko eta ondarearen elementu gisa balioesteko.

Ondare artistikoa behar bezala aintzat hartzeko, berau osatzen duten obrak sakon ezagutzea ez ezik, hura sortu zeneko testuingurua ulertzea beharrezkoa da. Hala, edozein bitarteko edo euskarri bidez egindako obra baten estilora eta hori kokatzen den mugimendura hurbiltzeko, kontuan hartu behar dira obraren inguruko alderdi historikoak, geografikoa eta sozialak. Horri gehitzen badiogu teknikaren eta prozeduraren analisia, beharrezko gakoak eskainiko ditu adierazpide artistiko ezberdinak interpretatzeko, eta ikasleek obrak ezagueraz eta errespetuz balioesteko. Obrak sortu zireneko testuinguru historiko, sozial eta geografikoaren analisia jorratzean genero-ikuspegia txertatzen bada, ikasleek ulertuko dute zein izan den artean emakumeek izan duten zeregina historia zehar, eta emakumeekiko egon diren iritzi ezberdinak, garaiaren arabera. Ildo horretatik, emakumeen errepresentazioak ez ezik, sortzaile gisa egin dituzten ekarpenak ere ikasiko dira.

Bestalde, ondare kultural eta artistikoaren aniztasunean hainbat harreman-mota gertatzen dira: estiloen arteko eraginak, denbora bereizita edo ez, elementu batzuk garai batetik bestera gelditzea edota estilo edo korronte jakin batek eragiten dituen erreakzioak, gutxiespenak edo subertsioak. Obren eta estiloen arteko harremanak baldintzatzen dituzten fenomenoak ikasteak, ezagutzeak eta identifikatzeak, hainbat iturri analogiko eta digitaletatik abiatuta jorratuta, ikasleari aukera ematen dio edozein ekoizpen artistiko irizpidez eta sakontasunez aztertzeko. Hala, obra bere testuinguruan hobeto aztertzeko loturak sortzen dira.

Hainbat bitarteko eta euskarriren bidez egindako obren analisien ondorioetatik abiatuta, ikasleek ahoz, idatziz eta modu anitzetan egingo dituzte haien ikerketen emaitzak azaltzeko aurkezpenak eta, horien bidez, adierazpide artistikoak garaiko ondare kultural gisa eta ondare osoaren parte gisa balioetsiko dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, HKK2, KD1, KPSII4, HK1, KAKK1, KAKK2.

5. Artearen ahalmen komunikatiboa ulertzea, hainbat ekoizpenetan bizitzako esperientzien isla identifikatuz eta aintzat hartuz, adierazpide artistikoa sormena, irudimena, autoestimua eta hazkunde pertsonala indartzeko tresna gisa balioesteko.

Sormen artistikoaren lengoaia bereizgarri ezberdinak tresna bikaina dira ideia eta kontzeptuak eta sentimendu eta emozioak transmititzeko. Baina artearen esanahia, komunikazio-egintza oro bezala, artistak nola adierazten duenaren eta jendarteak obra nola hartzen duenaren arteko konbinazioa da. Lengoaia artistikoaren dimentsio bikoitz horren ezagutza eta praktikari esker, ikasleek ekoizpen artistikoen analisian sakondu ahal izango dute, obra mota ororen aurrean bizitakoa adieraziz. Era berean, beren bizitzako esperientziak eta ekoizpen artistikoak lotuta, ikasleek adierazpide artistikoa sormena, irudimena, autoestimua eta hazkunde pertsonala garatzeko bitarteko gisa har dezakete aintzat.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, HK1, KAKK2, KAKK3.1.

6. Hainbat obra artistiko formaren, esanahiaren, sorrera- eta harrera-testuinguruaren arabera interpretatzea, sentiberatasuna eta zentzu kritikoa garatzeko eta ekoizpen artistikoekiko pertzepzio eta iritzi ezberdinak balioesteko.

Obra baten forma, esanahia eta testuingurua dira obra artistikoak aztertzeko oinarrizko alderdiak eta, gainera, obraren harrera aztertzeko alderdi adierazgarriak dira. Alderdi horiek identifikatzen badira, ikasleek zentzuz egingo dute aurrera obrara sakontasunez hurbiltzeko: aurreko analisitik abiatuta, obra artistikoa eta ezaguera-eremu ezberdinetan aurki daitezkeen beste elementuak lotzea. Interpretatzeko, elementu berriak txertatu behar dira, eta ez soilik berezko ideia eta ezagutzak, sentimenduak eta emozioak ere gehitu behar baitira. Hala, obra elementu bizia izango da ikasleentzat, bere egingo dute eta elkarrizketarako eta iritzi-aniztasunerako objektu dinamizatzailea izango da. Enpatia laguntzeko elementu ere izango da. Interpretazioak ikasleen sormena aberasten du. Ikuspuntu ezberdinak baloratu behar dituzte eta, beraz, ekoizpen artistikoen aurrean sentiberatasuna eta zentzu kritikoa garatzen eta pertzepzioen eta iritzien aniztasuna aintza hartzen ikasten dute. Hainbat obra artistikoren berezko interpretazioak ahoz, idatziz edo modu anitzetan transmititu daitezke, hala eztabaida sustatu eta ikuspuntu ezberdinak bateratzeko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, KPSII4, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

7. Banakako edo taldeko proiektu artistikoak kreatibitatez sortzea, diziplina anitzeko estiloak, teknika eta lengoaiak ikertuz eta egokienak direnak hautatu eta aplikatuz, proposatutako ideia eta helburuak osatzeko eta erronka artistiko berriei aurre egiten ikasteko.

Hainbat diziplinak barne hartzen dituzten proiektu artistiko berritzaile eta kreatiboak, ingurune digitala kontuan hartuta, artea eta kultura sustatzeko modua dira, eta erronka mota horiek laguntzeko aniztasun kulturaleko testuinguruan ideiak eta helburuak osatzen laguntzen dute. Proiektu horietan parte hartzeko, beharrezkoa da pertsonak eta baliabideak antolatzea, baita proiektuak faseka sailkatzea ere. Ikasleak banakako eta taldeko proiektuetan aktiboki parte hartzean, antolatzen, zereginak banatzen eta gainerakoen ekarpenak errespetuz eta enpatiaz balioesten ikasteko aukera emango dio. Zeregin horiek inklusio-testuinguruan garatuko dira, metodologia kolaboratiboak erabiltzea sustatzen dituztenetan.

Prozesu horretan, funtsezkoa da proiektuak garatu eta hedatzeko baliabideak eta bitartekoak integratzea. Horretarako, diziplina anitzeko lengoaiak eta teknikak erabiltzeak, eta horiek kreatiboki uztartzeak eta aplikatzeak ikasleari emango dizkio etorkizuneko proiektuak erraztasunez garatzeko beharrezko trebetasunak.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: KD3, KPSII3.1, KPSII3.2, HK3, EK2, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Artearen Oinarriak
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Aniztasunak artean eragiten duen aberastasuna errespetuz azaltzea, garai eta kultura ezberdinetako obrak testuinguruan kokatzearekin lotuta ikertuz eta dagokion arte-kontzeptua aztertuz.
1.2. Arteak historian izan duen ikusmoldearen bilakaera argudiatzea, garai eta kultura ezberdinetako esanahiak alderatuz eta antzekotasunak eta ezberdintasunak aztertuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Arteak historian zehar izandako funtzioak bereiztea, haren bilakaera aurreiritzirik gabe aztertuz, hainbat estilo eta garaitako ekoizpen artistikoen azterketatik abiatuta.
2.2. Hainbat adierazpide kultura eta artistikoren berezitasunak modu irekian, kritikoan eta errespetuz azaltzea, dagokion funtzioarekin lotuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1 Hainbat garai eta estilotako adierazpide artistikoen elementu eratzaileak identifikatzea, horien lengoaien gakoak aintzat hartuz eta horiek dagokien garai, artista edo mugimenduarekin duten lotura justifikatuz.
3.2 Hainbat adierazpide artistiko formalki, funtzionalki eta semantikoki aztertzea, irizpidez eta sentiberatasunez, dagozkien lengoaien terminologia espezifikoa erabiliz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1 Hainbat estilo eta garaitako ekoizpen artistikoak aztertzea, hainbat bitarteko eta euskarritan egindakoak, sortu zeneko testuinguru sozial, geografiko eta historikoarekin lotuz eta beste garai eta kulturetako obrekin izan ditzakeen harremanak azalduz.
4.2 Hainbat estilo eta garaitako ekoizpen artistikoei buruzko ikerketen ondorioak azaltzea eta dagokion testuinguruan jartzea, bitarteko analogiko eta digital egokienak erabiliz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1 Artearen adierazteko aukera askotarikoak eta ideiak, kontzeptuak, sentimenduak eta emozioak transmititzeko ahalmena azaltzea, garai eta estilo ezberdinetako artisten obrak abiapuntu hartuta, horien inguruan egin diren interpretazio ezberdinak aztertuz.
5.2 Hainbat garai eta estilotako ekoizpen artistikoak aztertzea, norberaren eta besteen bizitzako esperientziekin kreatiboki lotuz, eta sormena, irudimena, autoestimua eta hazkunde pertsonala indartzeko tresna gisa balioetsiz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1 Hainbat garai eta estilotako obra artistikoak interpretatzea, horien forma, esanahia eta sortu zeneko testuingurua aztertuz eta norberaren ideiak, ezagutzak, emozioak eta sentimenduak txertatuz.
6.2 Hainbat adierazpide artistikoren inguruko interpretazioak alderatzea, ikuspuntu ezberdinak aztertuz eta norberaren iritzia proposatuz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1 Proiektu artistikoak azaltzea, banakakoak edo taldekoak, diziplina anitzetako estilo, teknika eta lengoaia egokienak hautatuz, eta zereginak modu arrazoituan antolatu eta banatuz.
7.2 Banakako zein taldeko proiektu artistikoak kreatibotasunez egitea, proposatutako ideia eta helburuak lortuz eta beregan-atutako ikaskuntzak aplikatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Artearen Oinarriak
A. Arte-kontzeptua: jatorriaren bila
Artearen teoriak. Artearen definizioa historian zehar. Genero-ikuspegitik.

Artearen Oinarriak
B. Arte klasikoaren proiekzioa
Greziako arkitektura eta eskultura. Sarrera. Ordenak. Obra eta garai adierazgarrienak.
Antzinako Erromaren eraikuntza. Eskultura-erretratua antzinako Erroman.
C. Argia eta espiritualitatea artean
Adierazpen plastiko eta bisualeko bitartekoen bilakaera, Erdi Arotik Barrokora bitarte. Arte modernoa.
D. Artea eta errepresentazioa.
Artearen aldaketak, Arte Klasikora itzuli zenetik, tradizioarekin apurtu zenera arte. (XIX. mendera arte).
E. Artea adierazpen gisa.
XX. mendea. Lehenengo abangoardiak.
Artea 1945etik aurrera. Bigarren abangoardiak.
Azken joerak. Abangoardien krisia.
F. Natura, gizartea eta komunikazioa artean.
Artea eta ekologia. Land Art-etik eta Povera-tik gaur egunera arte.
G. Metodologiak eta estrategiak
Mugimendu eta estilo artistikoei lotutako formak, funtzioak eta esanahiak aztertzeko eta artelanaren teknikaren eta prozeduraren analisia egiteko metodologiak. Ezagutzan konfiantza, garapenerako motor gisa.
Zereginen banaketak proiektu artistikoetan: eskatutako trebetasunen araberako hautaketa-irizpideak.
Proiektuen metodologia. Proiektu artistikoen faseak. Berdintasunean parte-hartze aktiborako estrategiak, diskriminaziorik ezako ikuspegi inklusibo, ez sexista eta estereotipo gabekoak.
Estiloak, teknikak eta lengoaiak hautatzeko estrategiak.
Jabetza intelektualarekiko jarrera etikoa, erabilera arduratsuak.
Eremu artistikoari lotutako lengoaia eta hiztegi espezifikoa. Ezagutza eta erabilera.

BOLUMENA

Inguratzen gaituen mundua hiru dimentsiokoa eta anitza da. Arte-ikasleek bizi duten testuinguru fisikoaz jabetu behar dute, objektuen berezitasunak,estetika eta eginkizuna, beren barne-egitura eta ezaugarri horien eta inguruko espazioaren arteko harremana ulertzeko aukera emango dieten tresnak eta baliabideak izan ditzaten.

Bolumen jakintzagaiak funtsezko konpetentziak barneratzeari egiten duen ekarpenari dagokienez, beren garapena sustatzen duela intentsitate txikiago edo handiagoarekin esan beharra dago, bere izaera anitz eta integratzailearen eskutik, ikaste holistiko eta konpetentziala ahalbidetzen baitu. Lehenik eta behin, jakintzagaiak osotasunean garatzen du Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia, arteen bitartez bideratzen baititu ikasleek esperimentatu dituzten esperientziak eta emozioak. Hemen, kooperazio- eta sozializazio-trebetasunek eta lengoaia artistikoen tekniken eta baliabideen erabilerak garrantzia handia hartzen dute iraunkortasun-irizpideak aintzat hartu eta aipatuei erantzuteko, oreka mantenduz ideien adierazpide sortzailearekin.

Halaber, IKTen erabilerak, hiru dimentsioko eremuan ikusizko eta ikus-entzunezko sorkuntzak ekoizteko tresna eraginkorrak izateaz gain, konpetentzia digitalaren garapena sustatzen du ere modu kritiko, seguru eta arduratsuan, pribatutasuna eta iraunkortasuna errespetatuz, egile-eskubideak errespetatuz eta informazioa egokiro erreferentziatuz.

STEM konpetentziak ondoko kontzeptuak biltzen ditu, besteren artean: ingurune naturala eta soziala ulertzea eta azaltzea jakintza eta metodologia zehatz batzuk erabiliz, behaketa eta esperimentazioa

barne. Horren guztiaren helburua galderak planteatzea eta probak oinarri dituzten ondorioak ateratzea da, mundu naturala eta testuinguru soziala interpretatu eta eraldatu ahal izateko, sorkuntza artistikoak berezko duen ariketa bat.

Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa delakoari lotzen zaio sorkuntza-prozesuen eta

-esperimentazioaren analisia eta arreta sustatzen duen heinean, bakoitzaren konpetentzien eta baliabide iraunkorren inguruko kontzientzia hartzea eta norberaren akatsak ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren zatitzat eta hobetzeko instrumentutzat jotzea suposatzen baitu. Bolumeneko jakintzagaiaren sorkuntza-prozesu orok eta bere garapenak ikasleen ekimenaren zentzua eta ekintzailetza-espiritua indartzen laguntzen dute. Aldi berean, jakintzagaiak arreta berezia eskaini behar dio kode etikoen eraikuntzari, etorkizuneko hiritarra adierazpen eta komunikazio artistikoaren erabilera zuzenean hezteko; edozein ikaste-egoeraren aurrean elkarri eragiteko eta garatzeko gai izateko beharrezkoak diren tresnak eta bitartekoak barnera ditzaten ikasleek.

Bolumen jakintzagaia Arte Plastikoetako Batxilergoko lehen ikasmailan emango da. Bere egiturari dagokionez, sei konpetentzia espezifiko zehaztu dira. Azken hauek, arlo honek sustatzen dituen konpetentzia-ikasteak dira: hiru dimentsioko lengoaia mundua ezagutzeko bitarteko gisa onartzea, honen bidez ikasleek kultur-aniztasunaren eta kultura eta arte ondarearen kontserbazioaren balioa ezagutuko baitute; hiru dimentsioko ekoizpen artistikoen inguruko hausnarketa kritikoa; eskultura-instrumentu ezberdinekin esperimentatzea; estetika- eta espresio-zentzu propioa; hiru dimentsioko lanak egitea berrikuntza eta iraunkortasuna abiapuntutzat hartuta; eta proiektu artistikoak planifikatzea.

Konpetentzia espezifikoen eskuratze-maila neurtzeko, planteaturiko ebaluazio irizpideak erabiliko dira. Hauek, konpetentzia horren eskakizun-maila markatzen dute. Ebaluazio irizpideen xedea egiaztatzea zer neurritan barneratu diren jakintzak da, nola aplikatzen eta xedatzen diren, ikasleak bere garapen pertsonal eta akademikorako garrantzitsuak diren jarrerak eta balioak agertzen dituen ala ez ikustea. Beren formulazioan, horrenbestez, erreferentzia argiak egiten dira jakiteari, egiten jakiteari eta izaten jakiteari.

Ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen dituzten oinarrizko jakintzak bost bloketan banatzen dira: Orokorrak; Konfigurazio-teknikak eta -materialak; Forma- eta espazio-konfigurazioko osagaiak; Hiru dimentsioko irudikatzearen analisia; eta Bolumena diseinu-prozesuan.

Jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak eskuratzeko beharrezkoa izango da ikasleei adierazpen bolumetrikoko esperientzia-aukera zabala esploratzeko aukera emango dieten ikaskuntza-egoerak antolatzea. Horretarako, material tradizionalak eta alternatiboak eta baliabide eta tresna teknologikoak erabiliko dira. Egoera horien garapenean konpetentzia espezifikoak batera landuko dira, banan-banan landu ordez, kasu bakoitzean esanguratsuenak diren jarduerak planteatuz. Honela, jakintzak, trebetasunak eta jarrerak elkarrekin lotuta eta progresiboki bereganatuko dira, beren konplexutasunari dagokionez. Egoera horiek beren heziketa-aplikazioen eta aplikazio profesionalen ikuspegi zabala emango diete ikasleei, beren alderdi anitzetan.

Honela bada, jakintzagaiaren xedea sortzeko gaitasuna sustatzea bolumenaren adierazpena aintzat hartuz, ikasleak soluzio propioak, orijinalak eta inklusiboak erabiltzera bultzatzen dituen ekoizpen dibergente bat sustatuz da. Helburuak lortu ahal izateko esfortzuaren kontzeptuak eta lanerako jarraitutasunak duten garrantzia nabarmenduko da ere. Horrek hautematea eta irudimena jakintza praktiko eta teknikoekin lotzera eramaten du, beti ere iraunkorrak eta orientaziora eta aukera profesionaletara zuzenduta.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Hiru dimentsioko lengoaia mundua ezagutzeko, komunikatzeko eta adierazteko bitarteko gisa ezagutzea, jakinminez, ekimenez eta adeitasunez, adierazpen artistiko ezberdinak alderatuz eta gai berberari eman zaizkion erantzun ezberdinak eta sortzaileak aurkituz, kultura ondarearen kontserbazioa eta kultura-aniztasuna baloratzeko.

Hiru dimentsioko lengoaia tresna boteretsua da mundua ezagutu eta ulertzeko. Adierazpen kultural ezberdinak alderatzerakoan, ekimenez eta jakinmineko eta errespetuzko begirada bat erakutsiz, ikasleek baldintzatzaile, behar eta ezaugarri zehatzak dituen gizarte batean kokatzen ditu. Horrek, estereotipoekin amaitzen eta adierazpen-askatasuna eta kultur aniztasuna aberastasun kulturalerako iturri gisa baloratzen lagunduko du. Pentsamendu dibergente bat bultzatuko da; hau da, erantzun eta galdera sortzaileak eta ezberdinak sortuko dituen prozesu bat, historian zehar emandako adibideen bitartez. Horrek guztiak kultura eta arte ondarearen balorazioa eta kontserbazioa bultzatzen lagunduko du.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, KE1, KD1, KPSII1.1, KPSII1.2, HK1, KAKK1.

2. Hiru dimentsioko ekoizpen ezberdinak aztertzea sarbide-kanal ezberdinak erabiliz eta jarrera kritikoa eta gogoetatsua agertuz, alborapenik gabe, erabilitako lengoaia, asmoa, mezua eta beren sorrera ikusi duen testuingurua ezagutuz, norberaren diskurtsoa argudiatzeko, bere iruditeria zabaltzeko eta gozamen estetikoa sustatzeko.

Hiru dimentsioko ekoizpen ezberdinak aztertzeak beren gaitasun kritikoa eta estetikoa garatzeko aukera emango die ikasleei. Sarbide-kanal ezberdinak erabiliz eginiko analisi-, ezagutze- eta behaketa prozesu honek ikuspegia heztea dakar. Sarbide hori aurrez aurrekoa izan daiteke (gertuko ondarea, museoak bisitatzea) edo teknologia berrien bitartez egin daiteke (webguneak, bisita birtualak)… Teknologia berriek hiru dimentsioko lanak ikusi eta ezagutzeko aukera ematen dute. Erabilera hori kritikoa eta segurua izan behar du, pribatutasuna eta egile-eskubideak errespetatuz. Hiru dimentsioko lengoaiaren ezagutza ezinbestekoa da ikasleek beharrezko tresnak izan ditzaten lan artistiko bolumetrikoen sorkuntza ikusi, deskubritu eta sentitu ahal izateko, gozamen estetikoa garatuz.

Artelan oro une historiko eta kultural zehatz baten parte da eta artistaren banakotasunari zein hartzen duen testuinguru sozialari lotua dago. Mezu eta asmo bat du beti eta, horrek, espezifikotasun eta ezaugarri bereziak ematen dizkio.

Hiru dimentsioko lengoaiaren berezitasunak ezagutzeak baliabide nahikoak emango dizkie, ikasleei, forma bolumetrikoen printzipioak eta oinarriak ikusi, ezagutu, sentitzeko eta horiez gozatzeko.

Ikasleek esperientzia artistiko horien emaitza beren nortasunean integratu ahalko dute, beren iruditeria zabalduz eta diskurtso kritiko, aske, propio eta adeitsu bat ahalbidetuz, lanak era zorrotzagoan azaltzeko aukera emango baitu. Halaber, jakintzagaiaren terminologia espezifikoa barneratzean komunikatzeko gaitasuna garatzen laguntzen du, obrak zehatzago azaltzen ikasiz.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, KD1, KPSII1.1, HK1, KAKK2.

3. Hiru dimentsioko sorkuntzak berezko dituen tresnak, teknikak eta materialak ezagutzea eta horiekin esperimentatzea, irizpide iraunkorrak aplikatuz, jarrera proaktiboa agertuz, beren adierazpen-abaguneak deskubrituz eta trebetasuna, erraztasuna eta abilezia lortuz beren maneiuan, norberaren hiru dimentsioko lengoaian sartzeko eta ahalegina eta lanerako jarraitutasuna baloratzeko.

Ikasleek hiru dimentsioko lanak sortzeko baliabideak, tresna eta teknika ugarirekin esperimentatu behar dute, aipatutakoak erabileran trebetasuna hobetuz joateko. Abilezia eta trebetasun hori ahalegin handiz eta lanerako jarraitutasuna agertuz lortzen da. Bi alderdi hauek behar-beharrezkoak dira ikaskuntzaren aprobetxamendu eraginkorrerako. Ikasleen jarrera proaktiboa funtsezkoa izango da beren lan bolumetriko propioak sortzeko egokien diren materialak deskubritu eta iker ditzaten. Ariketa horretan, oreka mantenduko dute inguruko munduarekin eta irizpide iraunkorrak aplikatu beharko dituzte. Horretarako, material batzuk edo besteak erabiltzeak duen eragina ezagutu beharko dute ikasleek. Honela, inguruarekiko begirunezkoa den baina, aldi berean, artista gisa duten nortasunaren eta somena garatzeko gaitasunaren aurka ez doan mentalitate bat garatuko dute.

Hiru dimentsioko sorkuntzak berezko dituen tresnak, teknikak eta materialak ezagutzeari eta horiekin esperimentatzeari esker, ikasleek beren hiru dimentsioko lengoaia propioa eraikiko dute.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, STEM2, KPSII5, HK4, EK3, KAKK3.1, KAKK3.2.

4. Lan bolumetrikoak sortzea, esperientzia kognitibo eta sentsorial pertsonaletik abiatuta, irizpide teknikoen bitartez norberaren eta beste pertsonen gaitasun artistikoa baloratuz, autokritika egiteko gaitasuna garatzeko, akatsa sortze-prozesuaren aukera gisa ikusteko eta hazkunde pertsonala sustatzeko.

Esperientzia kognitibo ezberdinak beharrezkoak dira lan bolumetrikoen diseinuan ikastea berritzeko. Lan horiek, aldi berean, pentsatzera bultzatzen dute eta sorkuntza eta parte-hartzea sustatzen dute, inguruko mundua ulertzeko.

Halaber, esperientzia horiek ikusmen, entzumen, ukimen, dastamen eta usainaren bidezko esperientzia sentsorialei lotuz gero hiru dimentsioko lanen sorkuntzaren arloan, objektu edo esperientzia bati loturiko informazioen, lengoaien eta intuizioen erlazioa ahalbidetzen da. Elkartze horri esker ikasleek gaitasun-multzo handi bat harmonizatu ahalko dute, jakintzaren garapena abiatuz honela eta erantzunak bilatuz inguruan duten testuinguru anitza ulertzeko beren gaitasuna mugatzen duten ezezagun ezberdinei.

Honela, beren autoestimua eta erresilientzia sendotuko dute eta, horrek, beren hazkunde pertsonala, trebetasun sozialen garapena eta enpatia, sen ona eta antzeko gaitasunak bultzatzen ditu. Sorkuntza-prozesuan, gainera, akatsa hobetzeko eta ikasteko abagune gisa hartzen ikasiko dute ere. Horrek guztiak bere sormena arlo artistikoan garatzeko eta beren hiru dimentsioko ekoizpen propioak sortzeko gaitasuna emango die.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, STEM2, KPSII1.1, KPSII1.2, HK1, EK3, KAKK3.1, KAKK3.2.

5. Hiru dimentsioko lanak egitea irizpide iraunkorrak aplikatuz, materialak eta teknikak aukeratzean eta norberaren ekoizpenak gauzatzean berrikuntzak eginez, eta komunikazio-bide arin eta askotarikotzat hartuz, plastikoki eta bolumetrikoki gorpuzteko eta bere nortasunaren eraikuntza sustatu eta osatzeko.

Lan bolumetrikoen sorkuntzan berrikuntzak eta iraunkortasunak estuki lotuta egon behar dute, beharrezko binomioa baita XXI. mendeko erronkak aktiboki eta norbere buruarekiko, gizartearekiko eta bizi dugun planetarekiko konpromisoa agertuz gainditu ahal izateko. Horretarako, ikasleek beharrezko tresnak, baliabideak eta eraikuntza-teknikak dituzte hiru dimentsioko beren ekoizpen propioak diseinatu eta sortzeko. Ariketa horretan, aukera-berdintasuneko printzipioak zainduko dira sarbide, partaidetza eta ikasteari dagokienez.

Beren sorkuntza bolumetrikoak beren adierazpen artistiko propio eta jatorraren isla bilakatuko dituen testuinguru batean, ikasleek esperimentatu ahalko dute ekintzailetza eta ekimenerako zentzua bultzatzeko beharrezkoak diren teknika, material eta baliabide ezberdinekin. Esperimentazio horretan huts egiteko beldurrik gabe arituko dira, ingurunearekiko komunikazioa bultzatuko dute eta beren autoestimu pertsonala eta artistikoa sustatuko dute berritzaileak eta, aldi bereran ingurumenarekiko adeitsuak diren lan bolumetrikoen garapenaren bitartez.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, STEM5, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

6. Proiektu artistikoak (banakakoak zein taldekoak) planifikatzea, materialak iraunkortasunetik aukeratuz, proiektuen fase ezberdinak antolatuz, erantzukizunak hartuz, besteon iritzia aintzat hartuz, hiru dimentsioko lanak sormenez ekoizteko eta eskaintzen dituzten aukerak baloratzeko.

Bolumen jakintzagaiak hezkuntza-proiektu iraunkorrak (banakakoak zein taldekoak) planifikatzeko eta garatzeko hezkuntza-testuinguru egoki bat eraikitzen laguntzen du eta beren ekoizpen artistiko bolume-

triko berritzaileak eta inklusiboak sortu, diseinatu eta proiektatzeko aukera ematen die ikasleei Proiektu horiek, plangintzarekin betez, sekuentziazio- eta abiapuntu-fase ezberdinak aintzat hartu eta jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoetara egokituko dira.

Baina, halaber, diziplinarteko proiektu artistiko ezberdinak diseina daitezke ere hiru dimentsioko lanak, instalazioak eta antzekoak sortzeko helburuarekin. Honela, materia ezberdinetako zereginak testuinguruan kokatutako proiektu integratzaile baten barruan uztartuko dira eta sorkuntza-prozesu horretan izandako akatsak abagune pertsonalak eta sozialak bilakatuko dira. Proiektu horien garapena aukera egokia izan daiteke ikasleak jakintzagaiari lotutako irteera-profesional ezberdinen inguruan orientatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, STEM3, KPSII3.1, KPSII3.2, HK1, EK1, EK2, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Bolumena
1. Konpetentzia espezifikoa.
1.1 Hiru dimentsioko lengoaia mundua ezagutzeko, komunikatzeko eta adierazteko modu gisa onartzea jakinmina eta adeitasuna agertuz, bere ezaugarrien eta gizartean duen eginkizunaren inguruan hausnartuz.
1.2 Kultura ondarearen aniztasuna adierazpen-askatasunaren emaitzatzat hartzea, estereotipoekin amaituz eta terminologia espezifikoa erabiliz irudikapen artistikoen balorazioan.
2. Konpetentzia espezifikoa.
2.1 Hiru dimentsioko lanen lengoaiak eta osagai teknikoak eta plastikoak jarrera kritikoaz eta gogoetatsuaz aztertzea, iritzi propioa aplikatuz beren ezaugarrien eta berezitasunen hautematean, terminologia espezifikoa erabiliz eta beren hautemateaz gozatuz.
2.2 Hiru dimentsioko lanak jarrera kritikoaz eta sarbide-kanal ezberdinak erabiliz alderatzea, sortu izan diren testuingurua eta beren mezuen intentzioa identifikatuz eta egile-eskubideak errespetatuz.
3. Konpetentzia espezifikoa.
3.1. Teknika, tresna eta material ezberdinekin esperimentatzea jarrera proaktiboa agertuz, beren aukerak deskubrituz eta beren ingurumen-inpaktuaren eta osteko birziklatzearen jakitun izanaz.
3.2. Hiru dimentsioko lan iraunkorrak sortzea euskarri eta baliabide ezberdinak erabiliz, beren adierazpen aukeren arabera egokienak diren teknikak eta materialak trebetasunez aplikatuz eta jarraitutasuna agertuz lanean.
4. Konpetentzia espezifikoa
4.1 Beste artisten nortasuna eta gaitasun artistikoa aitortzea, norberaren lanetarako erreferentziatzat hartuz proiektu artistiko pertsonalerako egokitzat jotzen diren osagai horiek; eta aipatu osagaiak teknikoki justifikatuz.
4.2 Norberaren balioak, ideiak eta sentimenduak sormenez adieraztea, lan bolumetrikoak sortzeko prozesuaren bitartez, akatsa hobetzeko aukera gisa ikusiz, norberaren sendotasunak aitortuz eta ahuleziak gainditzu.
5. Konpetentzia espezifikoa
5.1. Lan bolumetrikoak sortzea, berritasuna bilatuz materialak eta teknikak aukeratzerakoan, beren adierazpen aukeren ezagutzan sakonduz.
5.2 Hiru dimentsioko lanak ekoiztea, garatu beharreko proiektuaren iraunkortasuna eta materialen toxikotasun maila erantzukizunez eta konpromisoz baloratuz.
6. Konpetentzia espezifikoa
6.1 Bolumenari loturiko ogibide ezberdinak identifikatzea, eskaintzen dituzten aukerak eta lanerako sormenak dakarren balio erantsia ulertuz, norberaren iritzia era arrazoituan eta adeitsuan adieraziz.
6.2 Proiektu artistiko edo kulturalak planifikatzea eta sortzea, bakarka zein taldean, ekimena agertuz, erantzukizunak hartuz, iritzi ezberdinak errespetatuz eta kooperazioa sorkuntza artistikorako aberastasun iturria dela aitortuz.
6.3 Proiektu artistiko edo kultural baten prozesua edo azken emaitza ebaluatzea, akatsak abagune pertsonalak eta sozialak bilakatuz, iritzi positiboak zein negatiboak aintzat hartuz eta izandako zailtasunak eta lorturiko emaitzak baloratuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Bolumena
Orokorrak
Aniztasuna aberastasun kultural eta artistikoaren iturri gisa baloratzea.
kultura eta arte ondarea sustatzea eta kontserbatzea.
Estereotipoekin amaitzea eta adierazpen-askatasuna sustatzea.
Jarrera proaktiboa, kritikoa, gogoetatsua, jakinmin, ekimen eta errespetukoa
Pentsamendu sortzailea, dibergentea eta kritikoa sendotzea.
Terminologia espezifikoa ezagutzeko eta egokiro erabiltzea.
Tresna digitalak era kritiko, seguru eta arduratsuan erabiltzea.
Ingurumen-iraunkortasuna.
Autoezagutza, autokritika eta erresilientzia indartzea.
Akatsa hobetzeko eta ikasteko abagune gisa ikustea.
Berrikuntza, ekintzailetza eta ekimena sustatzea.
Lanean ahalegina eta jarraitutasuna sendotzea.
Erantzukizunak hartzea, enpatia izatea eta besteon iritzia aintzat hartzea.
Ekoizpen artistiko bolumetrikoetarako proiektuak: sekuentziazioa, faseak eta talde-lana.
Taldean lan egiteko estrategiak. Zereginak banatzeko eta lidergoa partekatzeko estrategiak. Gatazkak ebazteko estrategiak.
Jakintzagaiari loturiko ikasketak eta ogibideak.
Jabetza intelektuala errespetatzea.
A. Konfigurazio-teknikak eta -materialak.
Eskultura-materialak eta -instrumentuak. Material iraunkorrak, naturalak, iraungikorrak eta berritzaileak. Teknikak eta terminologia espezifikoa.
Konfigurazio-prozedurak: teknika gehigarriak (modelaketa, zuzeneko eskaiola), kentze-teknikak (taillaketa), eraikuntza-teknikak (egiturak eta instalazioak) eta erreprodukzio-teknikak (modelaketa eta hustuketa, puntuen ateratzea, pantografoa, 3D inprimagailuak).
Emozioak transmititzeko teknikak, artelan bolumetrikoen ekoizpenean eta harreran keinua, ideiak, ekintzak eta egoerak aztertzeko estrategiak.
Muntatze- eta artikulazio-teknikak egiturak eta instalazioak sortzeko.
Bitarteko grafiko-plastikoen emozio- eta adierazpen-ezaugarriak gorputz bolumetrikoetan.
B. Forma- eta espazio-konfigurazioko osagaiak.
Hiru dimentsioko formak eta beren lengoaia. Formaren egiturazko osagaiak: lerro, plano, ertz, erpin, azalera, bolumen, testurak (bisualak zein ukimenezkoak), ahurtasunak, ganbiltasunak, huts, espazio, masa, eskala, kolore.
Espazio-konposizioa (indar-eremuak, oreka, dinamismo, etab.) eta forma, eskala eta proportzioaren arteko harremana.
Forma eta egituraren arteko harremana. Kanpoko forma, barne-indarren proiekzio ordenatua.
Harreman-osagaiak (noranzko, posizio, espazio eta grabitatea).
Mugimendua bolumenean. Irudikatzea eskulturan. Osagai mugikorrak hiru dimentsioko lanean.
Erabilera komuneko oinarrizko objektuen diseinura egokitutako forma bolumetrikoen tipologia, ikasteko eta aztertzeko bitarteko gisa.
Argia, formak sortzen eta modelatzen dituen osagai. Kolore, testura eta ukimena.
Bitarteko grafiko-plastikoen emozio- eta adierazpen-ezaugarriak gorputz bolumetrikoetan.
C. Hiru dimentsioko irudikatzearen analisia.
Eskultura eta hiru dimentsioko artelanak Ondare artistiko eta kulturalean. Testuinguru historikoa eta teknika-, forma-, estetika- eta komunikazio-ezaugarri nagusienak.
Genero eta kultura arteko ikuspegia.

Bolumena
Land-Art, Arte Povera eta Ready Made. Arte objektual eta kontzeptuala. Instalazio artistikoa.
Ikonotasun-mailak eskultura-irudikapenetan. Hiperrealismo, errealismo, abstrakzio, sintesi, estilizazio. Erliebea eta kanpoko eskultura.
Hiru dimentsioko lengoaiaren aukera plastikoak eta adierazpen-aukerak eta bere sorkuntza-erabilera lan orijinalaren asmatzean eta gauzatzean.
D. Bolumena diseinu-prozesuan.
Hiru dimentsioko diseinuaren printzipioak eta oinarriak.
Oinarrizko objektuen diseinura egokitutako forma bolumetrikoen tipologia, ikasteko eta aztertzeko bitarteko gisa.
Hiru dimentsioko egituren proiektuak: modularitate, errepikapen, gradazio eta erritmoa espazioan.
Pieza bolumetriko errazak, proposaturiko produktuaren araberakoak. Diseinu iraunkor eta inklusiboa.

KORU ETA AHOTS-TEKNIKA

Ahotsa gizakiok komunikatzeko berezkoa dugun aparteko musika-tresna da. Fonazioa eta intonazioa kontrolatuta, musika eta hitzaren arteko konbinazioa lortzen da, kantua sortuz. Gizateriaren hastapenetatik, sentimenduak eta emozioak adierazteko modurik baliotsuenetako bat da.

Lan bat ahoz gauzatu ahal izateko ikasleek musika-hizkuntzaren jakintzak eta alderdi emozionalak barneratu behar dituzte. Aldi berean, aldi historiko eta estilo ezberdinetako obren interpretazio korala, kultura ezberdinak ezagutu eta balioesteko aukera bat da.

Ahotsa entrenatzeak gorputzaren prozesuei loturiko praktika bat eskatzen du. Prozesu horiekin aldibereko konexio bat ematen da fisiologikoki, emozionalki eta psikologikoki. Arnasketak, gorputzaren jarrerak, inpostazioak, aldarteak edo soinua espazioan proiektatzeak agerian uzten dute ahotsa-ekoizpena eragin handiko duen gorputz-ekintza gisa, landu beharra dagoela.

Ahots teknika landuz ikasleek beren fisonomia kontrolatzen ikasiko dute, barne mailan (arnasketa, fonazioa eta inpostazioa) zein jarrera-ohiturei eta gorputzaren mugimenduei dagokienez. Horrek, beren emozioak indibidualki edo taldeka adierazteko aukera emango dien musika-lan bat erreproduzitzea ahalbidetuko die.

Koru eta Ahots Teknika jakintzagaia bi mailatan banatzen da, non bigarrena aurretik landutako horren jarraipena eta hobekuntza da. Lehenengoan, landutako horren jarraipena eta bigarrena, landutakoaren jarraipena eta hobekuntza da. Bere izaera praktikoak adierazpide artistiko kolektiborako espazio bilakatzen du, entzute aktiboa zein ahotsaren bitartez komunikatzeko eta interpretatzeko gaitasuna garatu eta hobetzeko. Honela, ikasleek errepertorio aberats eta anitz bat barneratuko dute eta aldi berean, ikasten ari diren edo lehenago ikasi dutena, beste jakintzagai batzuetan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango dute.

Etapako helburuei eta Batxilergorako aurreikusitako funtsezko konpetentziei loturiko lau konpetentzia espezifiko oinarri hartuz diseinatu da jakintzagaia. Konpetentzia espezifiko horien eskutik erreferentzia kultural ugari ezagutuko dituzte ikasleek, gertueneko ingurunetik abiatuta, eta beren irizpide estetikoa sendotu, entzuteko ohitura suspertu eta musikaz gozatzeko aukerak handitu ahalko dituzte. Era berean, ahotsa eta gorputza komunikatzeko instrumentu gisa garatu ahalko dituzte, beren autoestimua eta autokonfiantza sendotuz. Halaber, komunikazio artistiko aberats bat eta balio kolektiboen garapena bultzatzen dituzte, norberaren hazkundea, kultura-ingurunearen aberastea eta arlo ezberdinetako garapen-aukeren identifikazioa sustatzen dute. Horien guztien eskutik, ikasleek beren identitate pertsonal eta kultural propioa eraikiko dute, aniztasunaren errespetuan oinarritua. Adierazpen-forma berriekiko jakinmina pizteak beren sormena sustatuko du eta, honela, beren aukera artistikoak beren balio pertsonaletan oinarritu eta horiek ingurunean duten eragina baloratuko duten hiritar arduratsuak heziko ditugu.

Ebaluazio irizpideek konpetentzia espezifiko bakoitzaren lorpen-maila baloratuko dute. Osotasunean ulertuta, ikasleek lortu duten konpetentzia-mailaren ikuspegi osoa eskainiko dute.

Ikasmaila bakoitzean oinarrizko jakintzen hiru bloke aurkezten dira: A. Analisia, B. Ahots-teknika eta C. Talde-praktika. Bloke horiek, ikasleek kantuaren eta taldeko ahots-interpretazioaren osagai nagusi gisa ezagutu behar dutena zehazten dute. Bloke horiek zehazten dute ikasleek kantuaren eta taldekako ahots interpretazioaren osagai nagusi gisara jakin behar duten hori. “Analisia” blokeak, besteren artean, musika-lana osatzen duten osagaiei eta horien arteko harremanari loturiko jakintzak biltzen ditu. Horretarako, hiztegi espezifiko bat eta entzute aktiborako estrategiak erabiliko dira. “Ahots teknika” izeneko blokean, bestalde, ahotsa eta gorputzaren jarrera zaintzeari, ahots ekoizpenaren osagaiei, inprobisazioei edo bokalizazioei buruzko jakintzak biltzen dira. Azkenik, “Talde-praktika” izeneko blokeak, ondoko alderdiei zuzenean loturiko jakintzak biltzen ditu: taldearen soinua, taldearen helburuak, adiskidetasun-harremanen, parte-hartzearen eta autoestimuaren sustatzea, koru errepertorioa, zuzendariaren jarraibideak eta eszenaratzea, baita interpretearen eta publikoaren arteko harremana ere. Bi ikasmailetan aldi, estilo, genero, talde eta kultura ezberdinetako lanak ikasi eta interpretatuko dira.

Azkenik, ikasleen behar ezberdinetara egokitutako baliabide anitzak inplikatuko dituzten ikas-egoerak garatuko dira, ikasleen arreta eta interesa lortzeko. Honela, musika-interpretazioaren eskutik, hainbat ikusle-motaren eta eszenatokiren aurreko emanaldietan, musikaren gozamena partekatzea bilatuko da eta, aldi berean, ondare kulturala hedatzea sustatuko da. Mota honetako ekoizpenak (dantza, antzerkia edo performancea bezalako beste adierazpide eszeniko batzuk barne har ditzakete ere) antolatzeak beste jakintzagai batzuen ikasteak barneratzea ahalbidetuko du. Horrez gain, talentu tekniko eta artistiko berriak sustatuko ditu.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Estilo, genero eta kultura ezberdinetako lanak aktiboki entzutea eta ikuskatzea, beren estilo- eta interpretazio-espezifikotasunak lengoaia tekniko egoki baten bitartez aztertuz, iritzi estetikoa garatzeko, entzute aktiboaren ohitura bultzatzeko eta musikaz kultura- eta arte-aniztasunaren iturri gisa gozatzeko izango dituzten aukerak handitzeko.

Entzute eta ikuskatze aktiboak ezinbestekoak dira musika-proposamen bat aztertu ahal izateko. Estilo-osagai komunak eta tradizioa interpretazioan analisi horretako oinarrizko erreferenteak izango dira. Analisi hori lengoaia tekniko egoki baten laguntzaz formulatuko da. Arreta berezia eskainiko zaio testuak musikarekin duen erlazioari interpretazioan duen isla aztertzeko. Era berean, emanaldien (zuzenekoak zein grabatuak) ikuskatzeak espresio-intentzioetan sakontzen eta gorputzaren lengoaiak musika-exekuzioari eta, bere kasuan, proposamen eszenikoari egoten dion ekarpena antzematen lagunduko du.

Ahotserako lan ezberdin ugari hautatzeak beren gustuak zabaltzeko, iritzi estetiko propioa garatzen joateko eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako identitate pertsonal eta kultural baten eraikuntza bultzatzeko aukera emango die ikasleei. Entzute aktiboaren praktika sistematikoak, bestetik, analisia findu dezake eta zabalagoak eta pertsonalagoak diren beste entzute batzuetan eragin dezake. Zehazki, praktika koralean konplexuago bilakatuko da azken honek norberaren soinua, besteena eta taldearen soinua entzutea eskatzen baitu pertsonak zuzentzen, exekutatzen edo inprobisatzen duen bitartean. Halaber, elkarrekintza bermatzeko, gorputzaren adierazpena ere gehitzeak norberaren eta beste kideen mugimendua aintzat hartzea eskatzen du.

Entzutea eta ikustea ikasteko, etorkizuneko produkzio eta interpretazio propioei ulertu, hausnartu eta barneratu den hori aplikatuz, ikaskuntzaren funtsezko zati bat da eta hobekuntzarako alderdi motibagarri bat inplika dezake.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, HKK2, KE3, KPSII1.1, HK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1.

2. Ahoz eta gorputzez adieraztea eta komunikatzea, indibidualki edo taldeka, hainbat teknika aplikatuz eta inprobisazioak eginaz, autoestimua eta autokonfiantza indartzeko.

Kanturako trebetasunak fonazio-organoa eta beste gorputz guztia inplikatzen duten teknika ezberdinak praktikan jarriz bereganatzen dira. Horrexegatik, oso garrantzitsua da ikasleak bere gorputza eta ematen duen soinua aktiboki entzutea eta, aldi berean, taldearen hautemate global bat garatzen joatea, soinu-alderdiari zein mugimenduaren arloari dagokienez. Horrela bakarrik landu ahal izango dira, egokiro, errepertorioaren, bere testuaren eta inprobisazioaren musika-eskakizunak, baita eszenaratze baten eskakizunak ere.

Ahozko inprobisazioko eta gorputz-adierazpeneko praktika ezberdinen bitartez esperimentaziorako espazioak sor daitezke. Jarduera horiek gauzatzeak bitarteko bat izan behar du, ikasleek beren ahotsa esploratzeko eta beren soinuak eta taldekideen soinua ezagutzeko, eta identitate propio eta imitaezinaren oinarri gisa aitor ditzaten. Finean, ikasleek beren beldurrak eta erresistentziak gainditzeko, aniztasuna baloratzeko eta beren ziurgabetasunak kudeatzeko gai izan behar dute. Ahots propioa proiekzio pertsonal gisa hartzeak eta aipatua egokiro eta era osasuntsuan erabiltzeak beren autoestimua handituko dute, eta norbanakoaren eta taldearen oreka fisiko eta emozionala sustatuko dute. Testuinguru horren barruan garrantzi berezia hartzen du ahotsa eta gorputza zaintzeko teknikak bereganatzeak, bizirik dagoen instrumentua diren heinean.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: KPSII2, KPSII3.1, HK1, EK2, KAKK3.1, KAKK3.2.

3. Musika-estilo eta genero-ezberdinetako lanak interpretatzea, ahots talde ezberdinetan parte hartuz, komunikazio artistiko aberats bat, emozioen adierazpena eta balio kolektiboen garapena indartzeko.

Atzerriko hizkuntzetan idatzita dauden eta kultura eta aldi ezberdinak jatorri dituzten errepertorio ezberdinetako lanak interpretatzeak adierazpen-eremua zabaltzen laguntzen du. Horrez gain, osagai motibagarria izan daiteke ikasleentzat, errepertorio horiek estetika, baliabide, interpretazio-teknika eta proposamen eszeniko ugari eta anitzengana eta, gehienbat, testuetatik zein musikatik sorturiko emozio anitzengana gerturatzen baitituzte. Aniztasun horrenganako gerturatze hori jarraitu beharreko ereduak eraginkorki islatuko dituzten ahozko, keinuzko eta gorputzezko adibideak identifikatzeko erabil daiteke.

Hautatuko errepertorioak zuzenean egon behar du lotua korua den “instrumentu kolektibo” horrek garatzen dituen gaitasunekin. Taldearen eta taldea osatzen duten kide guztien bilakaerek harreman estua dute, bata bestearenganako eraginekoa alegia, baina ez dago bien arteko konkordantzia zuzenik, pertsonek eta taldeek ez baitute beti era sinkronizatuan eboluzionatzen. Horrexegatik, eta ikasleen musika- eta ahots-dibertsitatearen maila altua egokiro aintzat hartzeko, ahots talde txikiekin eta akonpainamendurako musika-tresnekin lan bateratua gara daiteke. Lan horrek, gainera, hautatutako errepertorioa aberastuko du.

Entseguan zehar, ikasleak beren teknika eta ahots- eta gorputz-adierazpena hobetzen joango dira, taldearen zerbitzura jarriz eta zuzendariaren jarraibidetara egokituz. Ikaskuntza horiek lankidetzako esparru baten barruan gauzatuko dira. Bertan, talde-dinamikek helburu kolektiboak lortzea bilatuko dute taldeko kide ezberdinak integratuz eta beren ahotsen soinu pertsonala uztartuz.

Kantuaren botere sinergikoa energia biltzeko tresna bat da, sozializazioa eta besteekiko enpatia sustatzeko. Norberaren soinua kantuaren bitartez partekatzea, besteekin energia propioa partekatzea eta adierazpen kolektiboa garatzea da, kantatzeko esperientzia hori korua osatzen dutenen arteko lotura emozional indartsua bilakatuz.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: KE1, KPSII1.1, KPSII3.1, KAKK3.1, KAKK3.2.

4. Diziplina anitzeko proiektuak sortzea, berritzaileak eta iraunkorrak, ekoizpenak berezko dituen rol eta zeregin ezberdinak hartuz eta bide eta euskarri anitzak erabiliz, norberaren hazkunde artistikoa bultzatzeko, kultura-ingurunea aberasteko eta garapen pertsonal, sozial, akademiko edo profesionalerako aukerak identifikatzeko.

Proiektu eszeniko bat diseinatzeak eta eszenaratzeak taldean lan egitea eskatzen du. Taldeko sorkuntza-prozesu horretan parte hartzeak, lehen ideiatik produktua gorpuzten den arte, ikasleen ekimena eta autonomia sustatzen du, aurkituriko zailtasunak orijinaltasunez gainditzen laguntzen du eta xede komunaren alde erantzukizun indibidualak hartzera daramatza ikasleak.

Proiektuak barneratutako musika-bitartekoak praktikan jartzea ahalbidetzen du eta baldintza eta muga teknikoen kontzientzia izatea eskatzen du: beren konfiantza sustatzeko eta eskura dituzten bitartekoei etekinik handiena ateratzeko aukera bakarra da ikasleentzat. Eszenatokian artistikoki parte-hartzeak, bestalde, emozioak kudeatzea eta komunikazio-espazio horren baitako publikoa aitortzea eskatzen du ere.

Azkenik, diziplina anitzeko lanak egitea eta aplikazio eta erreminta teknologiko, analogiko eta digital ezberdinak erabiltzea eska dezake proiektuak, eskola-ekoizpena egoera profesional, artistikoetarantz eta kudeaketa-izaerako egoeretarantz orientatuz.

Zentzu horretan, antzezteak zein ekoizpen artistikoaren beste edozein eginkizun (aurreprodukzio, entseguak antolatzea, laguntza teknikoa edo hedatzea) betetzeak bere trebetasunak ezagutzeko eta musikaren arloari loturiko garapen pertsonal, sozial, akademiko edo profesionalerako aukera ezberdinak deskubritzea ahalbidetuko die ikasleei.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: STEM3, KD3, KD5, KPSII1.1, KPSII1.2, EK1, EK3, KAKK3.1, KAKK4.1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehenengo maila	Bigarren maila
1. Konpetentzia espezifikoa.	
1.1 Ahozko lanak aztertzea, era arrazoituan eta abegitsuan azalduz lan hori estilo, genero edo kultura zehatz bati lotzen duten ezaugarriak azalduz, bai eta interpretazioaren eta eszenaratzearen beste ezaugarri batzuk ere.	1.1 Ahozko lanak aztertzea, era arrazoituan eta abegitsuan azalduz lan hori estilo, genero edo kultura zehatz bati lotzen duten ezaugarriak azalduz, bere interpretazioa eta eszenaratzea hobetzen lagunduko duten soluzioak bilatuz.
	1.2 Testuaren eta musikaren arteko harremana azaltzea ahotserako konposizio ezberdinetan, testua eta musika-tentsioen kurba aztertuz.
2. Konpetentzia espezifikoa.	
2.1. Inprobisatzea eta ahoz eta gorputzez ariketak adieraztea, indibidualki zein taldeka, ahotsa eta gorputza zaintzeko teknikak aplikatuz eta autoestimua eta autokonfiantza indartuz.	2.1. Inprobisatzea eta ahoz eta gorputzez ariketa indibidualak eta taldekako ariketak era sortzailean adieraztea, entzute aktiboaren bitartez, ahots eta gorputz teknika osasuntsuak aplikatuz eta autoestimua eta autokonfiantza indartuz.
3. Konpetentzia espezifikoa.	
3.1 Ahots talde ezberdinetan parte hartzea, elkarlanean eta enpatiaz, musika-estilo eta -genero ezberdinetako lanak interpretatuz eta zuzendariaren jarraibideak aintzat hartuz.	3.1 Ahots talde ezberdinetan parte hartzea, elkarlanean, ahotsaren soinu pertsonala eskainiz eta errepertorio anitz bat zorroztasun teknikoaz interpretatuz eta zuzendariaren jarraibideak aintzat hartuz.
4. Konpetentzia espezifikoa	
4.1 Eszena-jarrera egokia eta publikoarekiko begirunea agertzea antzezpenetan.	4.1 Eszena-jarrera egokia eta publikoarekiko begirunea agertzea.
4.2 Aktiboki parte hartzea proiektu eszenikoen muntaian, geroz eta autonomia handiagoa agertuz eta rol eta eginkizun ezberdinak hartuz, indibidualki zein talde-lanaren barruan.	4.2 Diziplina anitzeko proiektuen muntaian eta diseinuan parte hartzea ekimena, erantzukizuna eta talde-kontzientzia agertuz, produkzioaren eginkizunetako bat hartuz eta garapen pertsonal, sozial, akademiko edo profesionalerako aukerak identifikatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehenengo maila
A. Analisia.
Hiztegi espezifikoa.
Entzute aktiborako estrategiak.
Hautatutako musika-estilo, -genero eta -kulturen funtsezko ezaugarriak.
Ahotserako lan errazak, mendebaldeko aldi eta estilo ezberdinetakoak, bai eta beste kultura-eremu batzuetakoak eta herrikoiak ere.
B. Ahots-teknika.
Erlaxazioa eta kontzentrazioa praktikatzeko estrategiak.
Ahotsa eta gorputzaren jarrera zaintzeko estrategiak.
Ahots produkzioaren osagaiak: arnasketa, emisioa, artikulazioa, erresonantziak eta dinamika.
Ahots erregistroak. Tesitura eta koloratura. Afinazioa eta enpastea taldean.
Gorputz adierazpenerako teknikak. Ahots emisioaren eta mugimenduaren arteko harremana.
Bokalizazioak eta inprobisazioak.
Belarri harmonikoa eta afinazioa: tarte melodikoen eta harmoniko errazen intonazioa.
C. Talde-praktika.
Taldearen soinua: arnasketa, ekitea, afinazioa, artikulazioa, erritmoa, fraseatzea eta dinamika. Ahotsen eta soinu-planoen arteko oreka.
Taldeko inprobisazioa garatzeko oinarriak.
Gorputz-perkusioa eta beste diseinu koreografiko batzuk.
Notazio konbentzionala eta ez konbentzionala duten partituren oinarrizko irakurketa egiteko estrategiak.
Musika-memoria.
Konpromisoa taldearen helburuekiko.
Zuzendaritza koralaren oinarrizko jarraibideak eta keinuak.
Isiltasuna, musika-interpretazioaren eta -entzutearen esparru gisa.
Mendebaldeko aldi eta estilo ezberdinetako eta beste kultura-arlo batzuetako koru-errepertorioa, oinarrizko maila, musika-tresnen laguntzarekin edo laguntzarik gabe.
Testua eta bere metrika, artikulazioaren, abiaduraren eta erritmo-zorroztasunaren oinarri.
Jarrera eszenatokian eta publikoarekiko harremana.
Bitarteko analogiko eta digitalak era kritikoan, seguruan eta arduratsuan erabiltzeko estrategiak, datuen babesa, jabetza intelektuala eta egile-eskubideak errespetatzeko jarraibideak.
Aniztasuna kultura- eta arte-aberastasunaren iturri gisa baloratzeko estrategiak.
Sorkuntza- eta interpretazio-prozesuetan autokonfiantza, autoestimua, ekimena eta lidergoa indartzeko estrategiak.
Sentimenduak, emozioak eta ideia artistikoak adierazteko eta komunikatzeko trebetasunak.

Bigarren maila
A. Analisia.
Testua eta musikaren arteko erlazioa.
Interpretazio- eta eszena-baliabideak. Musika-tentsioen kurba.
Hautatutako musika-estilo, -genero eta -kulturen funtsezko ezaugarriak.
Ahotserako lanak, mendebaldeko aldi eta estilo ezberdinetakoak, bai eta beste kultura-eremu batzuetakoak eta herrikoiak ere.

Bigarren maila
B. Ahots-teknika.
Erlaxazioa eta kontzentrazioa praktikatzeko estrategiak.
Ahotsa eta gorputzaren jarrera zaintzeko estrategiak.
Ahots produkzioaren osagaiak: arnasketa, emisioa, artikulazioa, erresonantziak eta dinamika.
Ahots erregistroak. Tesitura eta koloratura. Afinazioa eta enpastea taldean.
Gorputz adierazpenerako teknikak. Ahots emisioaren eta mugimenduaren arteko harremana.
Bokalizazioak eta inprobisazioak.
Belarri harmonikoa eta afinazioa: tarteen intonazioa, akordeak eta kadentziak.
C. Talde-praktika.
Taldearen soinua: arnasketa, ekitea, afinazioa, artikulazioa, erritmoa, fraseatzea eta dinamika. Ahotsen eta soinu-planoen arteko oreka.
Taldeko inprobisazioa garatzeko estrategiak.
Gorputz-perkusioa eta beste diseinu koreografiko batzuk.
Notazio konbentzionala eta ez konbentzionala duten partituren oinarrizko irakurketa egiteko estrategiak.
Buruz ikasteko estrategiak.
Konpromisoa taldearen helburuekiko.
Zuzendaritza koralaren jarraibideak eta keinuak.
Isiltasuna, musika-interpretazioaren eta -entzutearen esparru gisa.
Mendebaldeko aldi eta estilo ezberdinetako eta beste kultura-arlo batzuetako koru-errepertorioa, musika-tresnen laguntzarekin edo laguntzarik gabe.
Testua analisi fonetikoaren bitartez. Sistema fonetiko-fonologikoaren arauak.
Produkzio artistikoaren eginkizunak: aurreprodukzioa, entseguak antolatzeko jarraibideak, babes teknikoa eta hedapena.
Musikaren arloari loturiko garapen pertsonal, sozial, akademiko eta profesionalerako aukerak.
Bitarteko analogiko eta digitalak era kritikoan, seguruan eta arduratsuan erabiltzeko estrategiak, datuen babesa, jabetza intelektuala eta egile-eskubideak errespetatzeko jarraibideak.
Aniztasuna kultura- eta arte-aberastasunaren iturri gisa baloratzeko estrategiak.
Sorkuntza- eta interpretazio-prozesuetan autokonfiantza, autoestimua, ekimena eta lidergoa indartzeko estrategiak.
Sentimenduak, emozioak eta ideia artistikoak adierazteko eta komunikatzeko trebetasunak.

DISEINUA

Diseinua prozesu konplexua da, hainbat diziplinaren esku-hartzea behar duena eta bere jarduera askotariko alorretan proiektatzen duena: logotipoen sorkuntza, barnealdeko arkitekturen banaketak eta testurak, familia tipografikoak eta haien esanahi berezia eta abar. Diseinua gure bizitzaren alderdi guztietan agertzen zaigu, eta gure kezken, beharren eta gure kultura- eta arte-identitatearen isla da. Diseinuak ideiak garatzeko, irudikatzeko eta problema zehatzetan proiektatzeko tresnak eskaintzen dizkie ikasleei.

Diseinuak diziplinarteko lana, jakintzen interakzioa eta diziplinen konexioa dakartza. Hori guztia funtsezko konpetentzien garapenari lotuta dago, eta hori lagungarria da ikaskuntza holistiko eta konpetentzial baterako. Diseinuan, oinarrizkoa da ekintzailetza konpetentzia eta herritartasunerako konpetentzia sorkuntzaren azken helburua zehazten duten ardatz gisa garatzea. Halaber, kontuan hartu behar dugu baliabide eta tresna digitalen demokratizazioak modu iraultzailean eraldatu dituela diseinuaren esparruak. Bestalde, ezagutza teknikoa eta zientifikoa beharrezkoak dira behar funtzional orotan dauden problema zehatzak ebazteko. Ikasten ikasteko konpetentzia pertsonala zein konpetentzia kulturala jakintzagaiarekin lotuta daude berez, ikerketa, garapena eta adierazpen indibiduala eta kolektiboa baititu ardatz.

Diseinua funtsezko jarduera bihurtu da gure munduan. Izan ere, industria eta ekonomia dinamizatzen ditu, eta, aldi berean, kontsumoa sortzen duen motor bat dela esan daiteke. Hori dela eta, beharrezkoa da eskuragarri dauden baliabideak optimizatzeko eta diseinu iraunkor bat egiteko moduari buruzko gogoeta egitea. Diseinu horrek bizi-kalitatearen eta ingurunearen aldaketaren arteko oreka ahalbidetu beharko du, ingurumena narriatu gabe eta baliabide naturalak arriskuan jarri gabe. Iraunkortasunari buruzko gogoeta horrekin batera, aukera-berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua ardatz dituen diskurtso bat sortzen da, eta, horren ondorioz, gero eta inklusiboa izango den diseinua egokitu beharko da.

Batxilergoko 2. mailako Diseinua jakintzagaiak diseinua ikasten hasteko eta goi mailako ikasketetarako oinarri egokia finkatzeko beharrezkoak diren oinarriak eta trebetasunak eskaintzen dizkie ikasleei, eta honako ezagutza-ardatz nagusi hauek lantzen ditu:

– Inguruko munduaren azterketa, diseinuko produktuen hizkuntza deskodetuz eta haien egitura komunikatibo, formal eta semantikoak ezagutuz.

– Sortzeko, konposatzeko, irudikatzeko eta aurkezteko teknika, tresna eta prozedura analogikoak eta digitalak (bi dimentsioko eta hiru dimentsioko diseinuaren berezkoak) ezagutzea.

– Produktu berritzaile eta sortzaileen garapenean aplikatutako proiektu metodologietan sakontzea, diseinu inklusiboan oinarrituta.

– Formaren eta funtzioaren arteko erlazioa diseinuaren munduan.

Helburu horiek lortzeko, jakintzagaiko oinarrizko jakintzak 6 osagaitan (harrera eta identitate kulturala, ikerketa eta analisia, autoadierazpena, bizi-esperientzia, ekoizpen artistiko eta kulturala, eta plangintza eta antolaketa) eta haien ondorio diren eta diseinuaren jatorri eta funtzioei eta formarekin duen erlazioari buruzko ulermena, ezagutza eta gogoeta biltzen dituzten bederatzi konpetentzia espezifikotan egituratuta daude, adierazpen pertsonalaren bidez diseinuko proiektu indibidualak eta kolektiboak garatzeko eta, era horretan, bi eta hiru dimentsioko diseinuko produktuak sortzeko. Haien garapena ezarrita dauden eta ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak integratuz formulatu diren ebaluazio-irizpideen eskarien arabera egin da.

Diseinuko oinarrizko jakintzen multzoak honako hauek dira:

A. Diseinuaren kontzeptua, historia eta eremuak: diseinuaren bilakaera historikoaren hastapenak lantzen dira, jatorria eta kontzeptua azalduz. Diseinuaren definizioei dagokienez, “diseinu inklusibo” eta “diseinu iraunkor” kontzeptuak azpimarratzen dira. Bestalde, diseinuaren aplikazio-eremuak aztertzen dira.

B. Diseinua: konfigurazio formala eta metodologia: diseinuaren berezko hizkuntzaren oinarrizko elementuak eta antolatzeko moduak xehatzen dira, eta ikusizko sintaxiaren eta esanahien ezagutzaren garrantzia azpimarratzen da. Multzoa amaitzeko, diseinuko prozesuaren faseak azaltzen dira.

C. Diseinu grafikoa: bi dimentsioko diseinuari lotutako eremuak ikertzen dira, hala nola tipografia, argitalpen-diseinua, marka-irudia, seinaletika eta bi dimentsioko publizitate-diseinua. Halaber, diseinu grafikoaren berezko teknikak eta maketazioa erretikulen bidez antolatzeko modua sartzen dira. Eta komunikazio grafikoko proiektuen hastapenak lantzen dira.

D. Hiru dimentsioko diseinua: alde batetik, produktu-diseinua lantzen da, eta, bestetik, espazioen diseinua; proiektu bakoitzerako irudikapen espazialeko sistema egokiak aplikatzen dira beti. Packaginga ikertzen da diseinu grafikoaren eta hiru dimentsiokoaren arteko lotura gisa, bolumenen irudikapenaren eta trokelen garapenaren bidez. Ergonomiari eta antropometriari eta dibertsitate funtzionala kontuan hartzen duten produktuen diseinuan duten aplikazioari buruzko sarrera bat egiten da. Espazioen diseinuari dagokionez, alde batetik espazioen tipologiak eta haiei lotutako sentsazio psikologikoak aztertzen dira, eta, bestetik, espazioen funtzioak eta haien diseinuaren egokitzapena, betiere diseinu inklusiboaren lehentasuna gogora ekarriz.

Diseinatzea planifikatzea da, eta, beraz, problema jakin baterako konponbidea lortzeko jarduketak eta esku-hartzeak aurreratzea. Diseinuaren helburua da ingurunea eta, harekin batera, bizi-kalitatea hobetzea, erabiltzen ditugun produktuen identitatea hobetzearen bidez.

Azken batean, tresna handia da haren eraldaketa-ahalmena baliatzeko gai diren ikasleentzat.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Diseinuaren oinarriak identifikatzea bi eta hiru dimentsioko diseinuko hainbat produkturen analisi kritikotik abiatuz, esku hartzen duten prozesu eta tresnen konplexutasunaren zein hizkuntzen dimentsio sinboliko eta semantikoaren ulermenean sakontzeko.

Ondare kultural eta artistikoaren aniztasuna gizateriaren aberastasun-iturri nagusietako bat dela ulertu behar da. Landutako produktuek diseinuari lotuta eta diseinuaren berezko prozesu eta tresnetan oinarrituta dagoen aniztasunaren kontzeptu hori gauzatzen dute. Objektu eta ekoizpen horien formak eta funtzioak ikertzearen bidez, haien barne-egiturak eta sorkuntza-prozesu materialak eta kontzeptuzkoak argitu ahal izango dituzte ikasleek, eta dauden objektu horiek berriz eraldatzeko, haien funtzionaltasuna hobetzeko edo behar berrietara egokitzeko dauden aukerei buruzko gogoeta egin ahal izango da.

Diseinuaren aplikazio-esparruak oso zabalak dira, haren garapenak giza jarduera osoa hartzen baitu eraginpean. Era berean, diseinuaren hizkuntza espezifikoak aberatsak eta pluralak dira, eta dimentsio sinboliko eta semantiko handia dute. Euskarriak, baliabideak eta elementuak oso ugariak izan daitezke, eta, beraz, haiek aztertzea konplexua da. Dena dela, diseinuko produktuen adierazleak eta esanahiak unibertsaltzat har litekeen sintaxi baten bidez egituratuta daude, sintaxi horrek sarritan aldaera kultural, geografiko, ekonomiko eta sozialak agertzen baditu ere. Nolanahi ere, aldaera horiek ezagutu egin behar dira komunikazio-asmoa hobeto ulertzeko eta produktu horiek behar bezala hartzeko.

Ikasleek sintaxi hori bereganatzeak aukera emango die artikulatzen dituen hizkuntzak ulertzeko eta diseinuko produktu orotan funtzioak eta formak duten garrantzia baloratzeko. Horri esker, bi kontzeptu horien artean dagoen lotura identifikatu ahal izango dute. Diseinuko produktu baten identitatea, nolanahi ere, bi kontzeptu horien orekaren edo desorekaren araberakoa da.

Alderdi horiek lantzeko, ikasleek hainbat motatako iturri dokumental analogikoak edo digitalak ikertu eta objektuak berak aztertu ditzakete, eta ondorioak ahozko ekoizpenen, idatzizkoen eta multimodalen bidez komunikatuko dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, STEM1, STEM2, KD1, KPSII4, HK1, KAKK2.

2. Diseinuaren jatorriari, printzipioei eta funtzioei buruzko gogoeta egitea, garai, estilo eta aplikazio-esparru desberdinetako ekoizpenak konparatuz eta aztertuz, ingurumen-inpaktua, inpaktu soziala eta kulturala kritikoki baloratzeko.

“Diseinu” kontzeptua aldatu egin da historian, baina beti egon da lotuta arazo jakin batzuei konponbidea emango dioten produktuak garatzeko plangintzari. Gizarte eta aplikazio-esparru desberdinek dituzten arazo eta behar desberdinen ondorioz, inguruabar historiko, geografiko, ekonomiko eta sozialek produktuen estetika eta funtzionaltasuna neurri handian baldintzatu dutela islatzen du diseinuaren historiak. Alderdi horien ezagutzak, gainera, gizateriak ingurumen-inpaktuaz jabetu gabe planeta eraldatu izanari buruzko gogoeta sakon bat egitera eramango ditu ikasleak. Diseinua, nolanahi ere, jarduera ororen iraunkortasuna bilatzeko eta, era horretan, ingurumen inpaktuaren leuntzea ahalbidetzeko tresna eraginkorra da.

Halaber, diseinuaren kanonaren eraikuntzan dauden hutsune garrantzitsuak agerian uzten lagunduko duten beste alderdi garrantzitsu batzuei buruzko gogoeta bultzatuko da. Hutsune horien artean, emakumeena (diziplina horretako pertsona ospetsuen artean) eta mendebaldekoak ez diren kulturen ekarpenarena aipa daitezke.

Alderdi horiek lantzeko, ikasleek hainbat motatako iturri dokumental analogikoak edo digitalak ikertu eta objektuak berak aztertu ditzakete, eta ondorioak ahozko ekoizpenen, idatzizkoen eta multimodalen bidez komunikatuko dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, STEM2, KPSII1.1, HK1, HK3, HK4, KAKK1.

Kontsumoaren inguruko munduko ikuspegiak diseinu grafikoari, publizitate diseinuko kanpainei, kontsumitu beharreko produktuen packagingari edo merkataritza jarduera bultzatzen duten guneen diseinuari

3. Hainbat produkturen diseinuan agertzen diren konfigurazio formalak, konposiziokoak eta estrukturalak kritikoki eta zorrotz aztertzea, haien elementu plastikoak, estetikoak, funtzionalak eta komunikatiboak identifikatuz, norberaren ekoizpenak aberasteko eta iritzi kritiko bat osatzeko.

lotutako merkataritza- eta marketin estrategiei erantzuten die nagusiki. Hori dela eta, kontsumo-gizarte arduratsu eta iraunkor baterako aldaketak ardatz egituratzailea izan behar du Diseinua jakintzagaian. Esparru horrek erantzukizun handia dakar, eta ikasleek erantzukizun hori ezagutu eta beren gain hartu behar dute, produktuak sortzean irizpide etikoak aplikatuz. Hori, halaber, kontsumitzaile gisa betetzen duten rolera eraman ahal izango dute, eta propagandaren manipulazioari erantzuteko tresna eraginkorrak emango dizkie.

Horretarako, ikasleek diseinuaren hainbat osagai identifikatu behar dituzte, hala nola estetikan oso garrantzitsuak diren forma eta kolorea, konposizioa (ordena, konposizio modularra, simetria, dinamismoa eta dekonstrukzioa) eta alderdi materialak eta haien askotariko konbinazioak eta artikulazioak azpimarra daitezke. Aldi berean, edozein aplikazio-esparruri lotutako diseinuko produktuen azpian dauden komunikazio estrategiak edo estrategia funtzionalak argitu eta ezagutu behar dituzte, ingurune digitala oso kontuan hartuta. Elementu horiek identifikatzeaz gain, diseinuko proiektuak sortzeko metodologiak eta proiektu-prozesuak ezagutu behar dituzte. Horrek aukera emango die elementu horiek beren ingurunean ezagutzeko zein norberaren ekoizpenetan aplikatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM5, KD2, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2, KAKK4.1.

4. Diseinu-proiektu indibidualak eta kolektiboak planifikatzea, beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak irizpide egokiarekin hautatuz, norberaren eta besteen beharrei erantzungo dieten soluzio sortzaileak proposatzeko eta kritikoki aztertzeko.

Bi dimentsioko zein hiru dimentsioko produktuen edo espazioen diseinu grafikoak (ingurune digitala barnean hartuta) fase espezifiko batzuen plangintzan oinarritutako metodologia zehatz bat behar du. Plangintza-estrategia horien antolaketa hainbat faktoreren araberakoa da, baina baldintzatzailerik handiena produktua zuzenduta dagoen xede-taldea da. Ikasleek proiektua ebaluatzeko, proiektua proposatutako helburuetarako egokia den baloratu beharko dute, eta lana egiteko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak (hala nola irudikatzeko eta aurkezteko euskarriak, teknikak, metodoak eta sistemak, ingurune digitala barnean hartuta) irizpide egokiarekin hautatuko dituzte, prozesua diseinuaren funtsezko atala dela eta sortu beharreko azken produktua bezainbeste baloratu behar dela kontuan hartuta. Baloratzean, sortutako produktuaren inguruko mekanismoak azpimarratzen dira, eta horrek aukera ematen du mekanismo horiek norberaren ondorengo sorkuntzetan zein beste batzuen diseinuko produktuen analisian aplikatzeko.

Diziplinak lehenesten duen iraunkortasun-testuinguru globalaren barruan, ikuspegi sortzailea eta berritzailea sustatu behar da soluzioak bilatu eta planifikatzeko prozesuan zein produktuak ebatzi eta sortzeko prozesuan. Jakintzagaiaren barruan, kolaborazio-lana pertsonalki aberasteko eta proiekzio akademiko edo profesionalei aurrea hartzeko modu bat da. Horretarako, autonomiaz antolatuko diren eta diseinu-proiektuak garatzean sortzen diren arazoei askotariko erantzunak eta irudimentsuak emango dizkieten lantaldeetan sartuko dira ikasleak. Horretarako, oso garrantzitsua da ikasleak gai izatea planteatzen diren proiektuen beharrei, inguruabarrei eta ezaugarriei malgutasunez eta eraginkortasunez erantzuteko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, KD3, KPSII3.2, KPSII5, HK4, EK1, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

5. Aldez aurreko ideietan edo produktuetan oinarrituta proposamen pertsonalak eta irudimentsuak garatzea, jabetza intelektuala kontuan hartuz, norberaren eta besteen premiei sormenarekin erantzuteko eta autoestimua eta garapen pertsonala indartzeko.

Diseinuaren jarduera problema edo behar baterako konponbidea hainbat proposamenaren bidez planteatzean datza. Proposamen horien garapena, alde batetik, norberaren ideiak eta sentimendu eta kezka pertsonalak komunikatzeko tresna izango litzateke, eta, bestetik, aukera emango lieke irudimenari eta sormenari funtzio jakin bat izango luketen produktuetan gauzatzeko. Prozesu hori bereziki eraginkorra da ikasleen hurbileko ingurunetik abiatuz gero. Ildo horretan, aurrez dauden diseinuko produktuak era sortzailean egokitzea oso ariketa aberasgarria da ikasleentzat. Gainera, jabetza intelektuala babesten duten erregulazioekin ohitzea ahalbidetzen die, eta ikasleek herritartasun arduratsu eta errespetuzko baterako funtsezko elementu gisa bereganatzen dute jabetza intelektuala.

Bestalde, proposamenaren garapena osatzeko, aukeratutako diseinu-soluzioak argudiatu, azaldu eta bateratu egingo dira. Horren emaitza egindako eta azaldutako lanari buruzko gogoeta enpatikoa eta autokritikoa izango da, eta, era horretan, ikasleen autoestimua indartuko da.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, KPSII1.1, HK1, HK4, EK1, EK2, EK3, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.1, KAKK4.2.

6. Diseinuko produktuak sortzea, behar zehatzei (diseinu inklusiboari eta iraunkortasunari lotutakoak barnean hartuta) sormenarekin erantzunez eta produktuaren fakturaren zuzentasun teknikoa, koherentzia eta zehaztasuna zainduz, diseinuaren esparruko garapen pertsonala, akademikoa edo profesionala bultzatuko duen jarrera kritikoa eta arduratsua sustatzeko.

Diseinua produktu fisiko edo digital bat egitea dakarren prozesua da, eta, beraz, lantzeko eta egikaritzeko irizpide tekniko batzuk bete behar ditu eta proposamenaren bi edo hiru dimentsioko irudikapen formalari eta materialari buruzko arauetara egokitu behar du. Planteatzen diren behar mota desberdinen aurrean, ikasleek koherentziaz hautatu eta erabili behar dituzte eskuragarri dituzten baliabide teknikoak eta prozedurazkoak, eta ez dituzte erabiliko baldintzatzaile gisa, komunikazioa bideratzeko laguntza gisa baizik. Prozesu horretarako, beharrezkoa da jarrera kritikoa zein autokritikoa, eta hori lagungarria izango da ikasleen identitate pertsonala eta gaitasun ekonomikoak edo profesionalak eraikitzeko eta aberasteko.

Bestalde, azken hamarkadetan diziplina aberastu duten aldaketen artean, iraunkortasuna eta diseinu inklusiboa txertatzeak eragindakoak daude. Diseinu inklusiboak normaltasunaren paradigmaren inguruko pentsamoldea aldatzea dakar. Izan ere, diseinu inklusiboaren arabera, mugak ez dira pertsonenak; aitzitik, pertsonen eta ingurunearen eta objektuen arteko interakzioan gertatzen dira. Diseinuaren kategoria horri erabateko edo unibertsal ere deitzen zaio, eta ez du diseinu-soluzio ez-inklusibo baterako egokitzapenik proposatzen; aitzitik, trebetasunak hartzen ditu kontuan. Horrela, beraz, konpetentzia honen bidez ikasleak diseinu inklusiboa diseinu grafikoko edo produktu edo espazioen diseinuko proposamen guztietan dagoela konturatu daitezen eta proiektu indibidualetan zein kolektiboetan aurrez zeuden produktuen birdiseinu berritzaileak argudiatzeko abiapuntua izan dadin lortu nahi da. Era berean, ikasleek iraunkortasuna hartu behar dute aintzat beren proposamenetan, eta, horretarako, alderdi ekonomikoak, sozialak eta ekologikoak hartu behar dituzte kontuan. Ikasleek gizartea eraldatzeko tresna gisa baloratu behar dituzte diseinu inklusiboa eta iraunkortasuna, bai alderdi pertsonalean, bai alderdi partekatuan (askotariko deribatuekin hainbat esparru sozial, akademiko eta profesionaletan), eta ez dute ahaztu behar jabetza intelektuala, beti garrantzitsua baita diseinu-lanetan.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, KD3, KPSII2, HK4, EK1, EK3, KAKK3.2, KAKK4.1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Diseinua
1. konpetentzia espezifikoa.
1.1 Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko diseinuko objektuen formen eta funtzioen arteko erlazioa ezagutzea, objektu horiek eraldatu eta hobetu daitezkeen produktu gisa hautemanez.

Diseinua
1.2 Diseinuko objektuen inguruko hizkuntzaren berezko dimentsio sinbolikoak eta semantikoak azaltzea, haien elementu sintaktikoak eta osagaiak jarrera harkor eta errespetuzkoarekin identifikatuz.
2. konpetentzia espezifikoa.
2.1 Diseinuari lotutako mugimendu, korronte, eskola eta teorialari nagusien oinarrizko ezaugarriak identifikatzea, testuinguru geografiko, historiko eta sozial desberdinetako produktuak alderatuz eta emakumeek eta mendebaldekoak ez diren kulturek egindako ekarpenei buruzko gogoeta kritikoa eginez.
2.2 Problema berari lotutako diseinu-soluzio desberdinak kritikoki aztertzea, ingurunean duten inpaktuari buruzko gogoeta eginez eta ingurumenarekin eta diseinu iraunkorrarekin konprometitutako kontzientzia bat sustatuko duten argudioak ezarriz.
3. konpetentzia espezifikoa.
3.1 Diseinuaren hainbat esparrutako objektu eta produktuen egitura formalak, konposiziokoak eta estrukturalak ezagutzea, haiek garatzeko erabilitako prozesuak eta metodoak, abiapuntu diren helburu funtzionalak eta komunikazio-helburuak eta hainbat alderditan (hala nola inklusioan, iraunkortasunean eta kontsumo arduratsuan) duten inpaktua aztertuz.
3.2 Diseinuko hainbat produkturen konposizio-erlazioak aztertzea, ikusmen-hizkuntzaren oinarrizko elementuak identifikatuz eta hainbat alderditan (hala nola inklusioan, iraunkortasunean eta kontsumo arduratsuan) duten inpaktua azalduz.
4. konpetentzia espezifikoa.
4.1 Diseinu-proiektu indibidualak edo kolektiboak behar bezala planifikatzea, helburuak lortu nahi den komunikazio-inpaktuaren arabera ezarriz, garapen-planaren faseak programatuz, tresnak eta baliabideak irizpide egokiarekin hautatuz eta iraunkortasuna lehenetsiz.
4.2 Kolaborazio-diseinuko proiektuei lotutako lantaldeen antolaketa egokian aktiboki parte hartzea, eskatzen diren trebetasunak identifikatuz eta zereginak irizpide egokiarekin banatuz eta bere gain hartuz.
4.3 Norberaren eta besteen plangintza-proposamenak kritikoki eta argudioekin ebaluatzea, lortu nahi den komunikazio-inpakturako egokiak diren aztertuz.
5. konpetentzia espezifikoa.
5.1 Behar pertsonalei edo adierazpen-beharrei erantzuteko diseinu-soluzio berritzaileak proiektatzea, aurrez zeuden ideietatik edo produktuetatik abiatuz.
5.2 Diseinu-proposamen pertsonalak kritikoki ebaluatzea, haien koherentzia eta egokitasuna ebaluatuz eta norberaren zein besteen jabetza intelektualarekiko errespetua kontuan hartuz.
6. konpetentzia espezifikoa.
6.1 Diseinu grafikoko, industria-diseinuko edo bizitzeko espazioei lotutako oinarrizko proiektuak bakarka eta taldean egitea, produktu berritzaile bat lantzeko soluzio sortzaileak aplikatuz eta haien inplikazio sozialak, ekonomikoak eta eraldaketa-arlokoak zein jabetza intelektualari lotutako alderdiak kontuan hartuz.
6.2 Norberaren eta besteen lanak kritikoki eta argudioekin ebaluatzea, baliabide teknikoen hautaketa koherentea eta egokia, produktua egikaritu, garatu eta aurkezteko teknikak aplikatzean beharrezkoa den zorroztasuna eta zuzentasuna, eta lortu nahi den komunikazio-inpaktuarekiko eta jabetza intelektualaren errespetuarekiko egokitasun-maila baloratuz.
6.3 Diseinu inklusiboak giza jardueraren hainbat esparrutan esku hartzeko aukerak identifikatzea, gizartea eraldatzeko proiektu berritzaileen balioa agerian jarriz.
6.4 Diseinu inklusiboko proiektu bat taldean egitea, dibertsitate funtzional zehatz baterako edo batzuetarako egokitasuna lehenetsiz, konfigurazio formalak sormenarekin erabiliz eta hartutako erabakiak argudiatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Diseinua
A. Diseinuaren kontzeptua, historia eta eremuak.
Diseinuaren bilakaera historikoa. “Diseinu” kontzeptua.
Diseinua, ekologia eta iraunkortasuna. Diseinua kontsumoaren gizartean.
Diseinu inklusiboa.

Diseinua
Diseinuaren joerak, aldiak eta eskola eta pertsona ospetsu nagusiak.
Diseinua eta haren aplikazio-eremuak.
Diseinuaren sailkapenak - Artisautza eta industrializazioa.
Emakumea diseinuaren esparruan.
Diseinua, ekologia eta iraunkortasuna. Diseinua kontsumoaren gizartean. Ekodiseinuak gizarte- eta ingurumen-erronken soluzioari egindako ekarpenak.
Aniztasuna ondare-aberastasun gisa.
Mendebaldekoak ez diren kulturek diseinu unibertsalaren kanonari egindako ekarpena. Jabetze kulturala.
Jabetza intelektualaren oinarriak. Sormenaren babesa. Patenteak eta markak.
Diseinuaren esparruari lotutako hizkuntza eta hiztegi espezifikoa. Ezagutza eta erabilera.
B. Diseinua: konfigurazio formala eta metodologia.
Hizkuntza bisuala. Oinarrizko elementuak: puntua, lerroa, planoa, kolorea, forma eta testura.
Bi eta hiru dimentsioko irudiaren sintaxia.
Antolamendu eta konposizio modularra.
Diseinuaren dimentsio semantikoa.
Diseinuaren prozesua. Diseinuaren faseak.
Diseinu-proiektu baten sormen-prozesuak.
Diseinua eta funtzioa.
Proiektu-metodologia.
Lantaldeak antolatzeko estrategiak. Kolaborazio-lanerako dinamiken erabilera.
C. Diseinu grafikoa.
Diseinu grafikoaren komunikazio-funtzioak.
Tipografia, familia nagusiak, irakurgarritasuna, propietateak eta erabilera diseinuan.
Diseinu grafikoa, erretikularekin eta gabe. Diseinu grafikoko prozesuak eta teknikak.
Marka-irudia: diseinu korporatiboa.
Argitalpen-diseinua. Maketazioa eta orrialdeen konposizioa.
Publizitate-diseinua. Komunikazio grafikoko proiektuak.
Seinaletika eta haren aplikazioak.
D. Hiru dimentsioko diseinua.
Produktu-diseinua.
Objektuen tipologia. Produktu-diseinuan aplikatutako irudikapen-sistemak.
Diseinuan aplikatutako antropometria. Ergonomia.
Produktu-diseinua eta dibertsitate funtzionala.
Materialak, testurak eta koloreak. Ekoizpen-sistemak eta diseinuan duten eragina.
Packaginga: diseinu grafikotik diseinura. Trokelen hastapenak.
Espazioen diseinua. Espazio habitagarriaren (publiko edo pribatuaren) antolaketa.
Espazioen eta ibilbideen banaketa.
Diseinuan aplikatutako antropometria, ergonomia eta bionika.
E. Eraikuntza-elementuak.
Argiztapenaren printzipioak.
Barne-espazioen diseinua.

Diseinua
Espazioaren pertzepzio psikologikoa.
Espazioen diseinu inklusiboa.
F. Jarrerazkoak.
Diseinuaren esparruei lotutako lanbideak.
Pentsamendu kritikoa.
Errorea hobetzeko modu gisa.
Zorroztasuna lanak egitean eta/edo egikaritzean. Doitasuna, argitasuna eta garbitasuna lanetan eta jardueretan.
Ingurumen-iraunkortasuna.
Jarrera etikoa jabetza intelektualaren aurrean, erabilera arduratsuak.

IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA

Ikus-entzunezko Kultura jakintzagaiak tresna eraginkorrak eta nahikoak ematen dizkie ikasleei, bide anitzetatik jasotzen duten ikus-entzunezko informazioa egokiro eta era kritikoan prozesatzeko. Adierazpen artistiko garaikidearen bidez zein gure aldiaren ezaugarri nagusia den komunikazio mediatikoaren bidez. Ikus-entzunezko Kultura jakintzagaiak, halaber, ikus-entzunezko ekoizpenak egin ahal izateko prestatu nahi ditu ikasleak, beren burua adierazteko zein aurretik zehazturiko hartzaile batzuei zuzendua. Hori guztia, kooperazio-laneko esperientzia konplexu baten baitan. Horrek, ondorioz, prozesu kognitibo, kultural, emozional eta afektibo ezberdinak abiaraztea eskatzen du. Bai eta ikasleen pentsamendu dibergente eta sortzailea bultzatzea ere, beren identitate pertsonal eta kulturalaren aberastea ahalbidetuz honela.

Jakintzagaiak funtsezko konpetentziak barneratzeari dagokienez egiten duen ekarpenari buruz adierazi beharra dago horien guztien garapena sustatzen duela intentsitate txikiago edo handiagoarekin, bere izaera anitz eta integratzailearen eskutik, ikaste holistiko eta konpetentziala ahalbidetzen baitu. Hasteko, Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta Konpetentzia eleaniztuna beti egongo dira presente, ikus-entzunezko kultura lengoaia unibertsala baita. Era berean, jakintzagaiak Kontzientzia eta Adierazpide Kulturaletarako konpetentzia osotasunean garatzen du, ikus-entzunezko praktikaren bitartez esperientzia propioak eta ikasleek esperimentatu dituzten emozioak transmititzen baititu. Halaber, tresna digitalak, ikusizko eta ikus-entzunezko sorkuntzak ekoizteko tresna eraginkorrak izateaz gain, konpetentzia digitalaren garapena sustatzen dute ere modu kritiko, seguru eta arduratsuan, pribatutasuna eta iraunkortasuna errespetatuz.

STEM konpetentziak ondoko kontzeptuak biltzen ditu, besteren artean: ingurune naturala eta soziala ulertzea eta azaltzea jakintza eta metodologia zehatz batzuk erabiliz, behaketa eta esperimentazioa barne. Horren guztiaren helburua da galderak planteatzea eta probak oinarri dituzten ondorioak ateratzea mundu naturala eta testuinguru soziala interpretatu eta eraldatu ahal izateko, sorkuntza artistikoak berezko duen ariketa bat.

Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa delakoari dagokionez, sorkuntza-prozesuan zehar ondokoa ikasiko dute: beren erabakien gaineko erantzukizuna hartzen; akatsa ikaste gisa ikusten; besteon iritzia aintzat hartzen, beren konpromiso-zentzua eta kooperazioan lan egiteko gaitasuna handituz; pentsamendu kritikoa izaten; eta berrikuntzari garrantzia ematen. Halaber, jakintzagaiaren sorkuntza-prozesu orok eta bere garapenak ikasleen ekimenaren zentzua eta ekintzailetza espiritua indartzen laguntzen dute.

Aldi berean, jakintzagaiak kode etikoen garrantzia nabarmenduko du, ikasleak etorkizuneko hiritar gisara ere hezteko helburuarekin. Honekin batera, ikasleak ikusle bilakatzen dira: besteon ekoizpenen ikusle eta, halaber, beren ekoizpenenak ere. Horrek beren heziketa integralean lagunduko du beren

umiltasuna, heldutasun emozional, pertsonal eta akademikoa, autokonfiantza eta sozializazioa garatuz; finean, beren adimen emozionala garatuz. Ondokoak landuko dira ere: proiektu iraunkorren sorkuntza, elektrizitate-kontsumo arduratsua eta laneko segurtasuna, ikasleen heziketa globala eta ingurumen hezkuntza sustatuz honela.

Jakintzagaiaren egiturari dagokionez, sei konpetentzia espezifiko zehaztu dira. Azken hauek, arlo honek sustatzen dituen konpetentzia-ikasteak dira. Lehen biak ikasleen ikusle-rolari lotuta daude. Aldi eta gizarte ezberdinetako ikus-entzunezko ekoizpenen ezagutza, ulertzea eta analisia bultzatzen dute, genero ikuspegitik eta aniztasun kulturaletik. Honela, ikus-entzunezko ondare globala ezagutu eta barneratuko dute; pentsamendu dibergentea garatuko dute; eta adierazpen-askatasuna, diskurtso kritikoa errespetatu eta erabilitako lengoaiak bere egingo dituzte, beren diskurtso propioa aurrerago garatu ahal izateko.

Hurrengo konpetentziak ikasleen egile-rolari lotuta daude, sorkuntza (bakarka zein taldean) adierazteko erabiltzeko aukera lantzen dute. Horretarako, norbere burua ezagutu eta besteak ulertu behar dira. Ikus-entzunezko tekniken eta bitartekoen plangintza, ezagutza eta aplikazioa, bai eta kooperazio-lanaren garrantzia. Azken konpetentzia espezifikoa ikus-entzunezko ekoizpenaren hedatzeari eta ekoizpen-prozesuaren zein azken emaitzaren ebaluazioari lotua dago.

Konpetentzia espezifikoen eskuratze-maila neurtzeko, planteaturiko ebaluazio irizpideak erabiliko dira. Hauek, konpetentzia horren eskakizun-maila markatzen dute.

Oinarrizko jakintzak sei bloketan banatzen dira: A-Orokorrak. B-Irudia. C-Argazkigintzaren eta ikus entzunezkoaren historia: Daguerretik errealitate birtualera. Balioztatze estetikoa eta analisi formala. D-Argazki-irudiaren osagai formalak eta ikus-entzunezko lengoaia. Irudi finkoaren eta mugimenduzko irudiaren adierazpide-gaitasuna. E-Ikus-entzunezko adierazpide eta narratiba. F-Ikus-entzunezko ekoizpena. Teknikak eta prozedurak.

Jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak eskuratzeko beharrezkoa izango da ikasleei argazkigintzaren eta ikus-entzunezkoen lengoaiaren bitartez adierazpide-esperientzia ugari esploratzeko aukera emango dieten ikaskuntza-egoerak antolatzea. Egoera horien garapenean konpetentzia espezifikoak batera landuko dira, banan-banan landu ordez, kasu bakoitzean esanguratsuenak diren jarduerak planteatuz. Honela, jakintzak, trebetasunak eta jarrerak elkarrekin lotuta eta progresiboki bereganatuko dira, beren konplexutasunari dagokionez.

Jakintzagai honen xedea da ikasleen eta ikus-entzunezko sorkuntzaren arteko topagune bat ahalbidetzea. Horren bitartez, beste era batera ikusi, antzeztu eta egitera bultzatu nahi dira, bitarteko propioetan eta ikus-entzunezkoak diren erreferentzia kultural eta artistikoetan oinarritutako jarrera sortzaile bat sustatuz. Honela, gure aldiaren ezaugarri nagusiena den lengoaian emozionalki eta intelektualki inplikatuko ditugu ikasleak.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Argazkigintzaren eta ikus-entzunezkoen arloak mundua ezagutzeko eta ulertzeko modu gisa ulertzea, begirada kontziente, jakingura, adeitsu eta kritikoa agertuz arlo horietako narratiba-era ezberdinen aurrean, norberaren iruditeria zabaltzeko eta ikus-zentzunezko ondarearen kontserbazioa sustatzeko.

Argazkigintzaren historia eta eboluzioa ezagutzea funtsezkoa da ikus-entzunezko ondarearen legatua formalki ulertu ahal izateko. Horretarako, beharrezkoa da ikus-entzunezko ekoizpenak testuinguruan kokatzea, beren jatorri diren gizarteen ezagutza hobea, toleranteagoa eta adeitsuagoa lortzen baita honela. Ikasleek, alderdi hori landuz, zalantza bakar baten aurrean sortzen diren erantzun alternatiboak eta sortzaileak deskubrituko dituzte, pentsamendu sortzaile eta dibergentearen garapena bultzatuz eta aniztasun kulturala aberastasun-iturri moduan hartuz. Faktore horiek ikaslearen identitate pertsonal eta

kulturala eraikitzen laguntzen dute. Era berean, ikus-entzunezko ondare globala, funtsezko aberastasun kulturala den heinean kontserbatzeak, zaintzeak eta zabaltzeak duen garrantzi handia ulertuko dute. Horrek guztiak, pentsamendu kritikoa eraikitzen laguntzen du.

Ikasleek, egun, mota guztietako argazki-irudi fisiko eta ikus-entzunezko narrazio andana ikusteko aukera dute. Bizigarri bisualak (irudi finkotzat hartuta) bata bestearen atzetik datoz baina ikus entzunezkoak gure garaiaren ezaugarri nagusiak dira (telebista-serie, film, publizitate-iragarki, bideoklip, sare sozialei loturiko formatu berri, telebista-formatuak, etab.). Fenomeno horren aurrean begirada kontziente, kurioso, adeitsu eta kritiko bat agertuz, ikasleek beren diskurtso kritiko eta nortasun artistiko propioa eraikiko dituzte. Honekin batera, terminologia eta hiztegi espezifikoa barneratzeak eta erabiltzeak komunikatzeko gaitasuna hobetzen laguntzen du.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, KE1, KD1, KPSII1.1, KPSII1.2, HK1, HK3, KAKK1.

2. Aurreiritzirik gabe, argazki-irudi finkoak eta ikus-entzunezko ekoizpenak aztertzea horietan dauden lengoaia, osagai teknikoak, prozedurak, testuinguruak eta funtzioa ezagutuz, gozamen estetikoa sustatzeko, haien kultura-nortasuna eraikitzeko eta munduari buruzko begirada enpatiko eta tolerante bat garatuz.

Argazki-irudi finkoak eta ikus-entzunezko narrazioak sortzerakoan erabilitako teknikak eta lengoaiak oso anitzak dira. Garrantzitsua da ikasleek teknikoa eta lengoaia horiek barneratzea eta aniztasun hori aberastasun gisa hartzea.

Lengoaiak eta ekoizpenerako eta irudiak manipulatzeko baliabideak (postprodukzio kontzeptua funtsezkoa da zentzu horretan) eta ematen dituzten emaitza desberdinak aztertzeak eta identifikatzeak, argazki-eta ikus-entzunezko mezuak beren konplexutasun osoan ulertzea ahalbidetzen du. Ekoizpen-testuinguruen garrantzian sakontzeaz gain, iritziak, sentimenduak eta sinesteak transmititzeko bide gisa baloratzea ere. Analisi horren eskutik munduaren inguruko behako enpatikoa eraikiko dute, aurreiritzik gabekoa eta tolerantea, adierazpen-askatasunarekiko eta besteon ulertzearekiko errespetua, gozamen estetikoa eta identitate kultural propioaren eraikuntza garatuz.

Aztertutako adibideen artean aniztasun kulturala eta genero-ikuspegia sartu beharko dira, arreta berezia eskainiz emakumezkoek egindako ekoizpen artistikoen azterketari.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, KE1, KD1, KPSII1.1, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

3. Ikus-entzunezko lengoaiaren teknika, bialiabideak eta konbentzioak ezagutzea eta horiekin esperimentatzea, geroz eta autonomia handiagoa agertuz, beharrezko ekipamenduak eta konpetentziak identifikatuz eta hedabide honi loturiko teknologia ezberdinek eskaintzen dituzten aukerak aintzat hartuz, proiektu baten plangintzan eta gauzatzean integratzeko eta erabiltzeko.

Ikus-entzunezko lengoaia garaikidea definitzen duten ezaugarrietako bat da bere formatuen etenik gabeko mutaziora eta ingurune digitalak ekarri dituen prozedura, tresna eta tekniken biderkatze esponentzialera egokitzeko beharra. Ikasleek ikus-entzunezko lengoaiaren bitartekoak eta konbentzioak ezagutu eta identifikatu behar dituzte. Horretarako, garrantzitsua da aipatuekin esperimentatzea eta berritzea, sortzeko eskaintzen dituzten aukera itzeletan aktiboki sakondu eta ekoizpen-egoera eta -baldintza ezberdinetan era autonomoan jarduten ikasi ahal izateko.

Ikus-entzunezko hizkuntza eta haren teknikak ezagutze horretatik, biak ere ingurune digital horren aukeretan inskribatuak, gaur egun ezin baitira bereizi, ikasleek adierazpen pertsonal baten emaitza diren ikus-entzunezko ekoizpenak sortzeko benetako aukera sortuko da.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, STEM2, KD3, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII5, HK1, KE1, KAKK4.2.

4. Ikus-entzunezko ekoizpena sormenez eta kritikoki erabiltzea, adierazteko bide gisa, norberaren irudia baliabide bezala erabiliz, norbere burua eta bestea onartuz, norberaren ezagutza, norberegaganako konfiantza eta enpatia sendotzeko.

Ikus-entzunezko ekoizpen bat burutzea prozesu konplexu baten emaitza da. Prozesu horrek introspekziorako gaitasuna eta pentsamendu eta sentimendu propioak kanporantz proiektatzeko gaitasuna izatea eskatzen du. Horrenbestez, ingurunea ulertzeko gaitasuna, autoezagutza eta enpatia sortzea ezinbestekoak izango dira ikasleentzat, beren garaikideei "hitz egingo dien" ikus-entzunezko lan bat burutu ahal izateko.

Norberaren ezagutza ezinbestekoa da sorkuntza-lanean. Hoberena zein hain gustuko ez duguna bildu, barneratu eta ulertuko duen barruranzko behakorik gabe ezinezkoa baita lan artistiko esanguratsurik ekoiztea. Ikasleek ulertu behar dute akats bakoitza etorkizuneko arrakasta bateranzko pauso bat dela, nahiz eta arrakasta oso txikia izan, eta arrakasta hori ezingo litzatekeela ulertu akats hori gabe. Eta ulertu behar dute, halaber, norbere burua ezagutzea funtsezko tresna bat dela bide horretan. Besteak ulertzeko atea irekitzen baitu ere eta alderdi hori ezinbestekoa baita besteentzat esanguratsua izango den lan bat egiteko.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, KE1, STEM2, KD2, KPSII1.1, HK1, KAKK3.1, KAKK3.2.

5. Ikus-entzunezko ekoizpenak egitea, bakarka zein taldean, prozesuaren fase ezberdinak diseinatuz eta teknika egokiak aukeratuz, beren hartzaileak aintzat hartuz eta iraunkortasun irizpideak aplikatuz, eskaintzen dituzten aukerak baloratzeko, erronkak planteatzeko eta pertsonalitate artistiko zabala eta anitza eraikitzeko.

Ikus-entzunezko lengoaiaren ezaugarri nagusienetako bat "intersekzionalitatea" da, arte eszenikoen, arte digitalaren eta antzekoen osagaiak biltzen baititu. Horrexegatik, ikus-entzunezko ekoizpenak egiterakoan ikasleek beste adierazpide-baliabide batzuk erabiltzeko erronkari aurre egin beharko diote, osagai horiek ikus-entzunezko ekoizpenaren ezaugarri den zehazturiko prozesu zehaztu eta ordenatuan sartuz. Ideia sortzen denetik lana burutzen den arte ondoko osagaiak izan beharko dituen prozesu bat garatu beharko da: ordena eta jarraitutasuna; erantzukizunak hartzea; enpatia eta ikuspegi ezberdinak aintzat hartzea; eskaturiko trebezien eta proiektuen beharren araberako hautaketa irizpideak aplikatzea; fase ezberdinak eta proiektuen emaitzak ebaluatzeko estrategiak, etab.

Esperientzia horrek abiatutako proiektuen iraunkortasunari buruzko kezka natural bat ekarriko beharko du berarekin. Ikasleak Ikus-entzunezko ekoizpenera gerturatze horren ondorioz, ezinbeztekoa izango den nortasun artistiko aberatsa eta zabala eraikitzea, eremu horretan obra garrantzitsuak sortzeko.

Gure garaian ikus-entzunezko narrazioari ekiteko aukera itzelak daudenez, oso garrantzitsua da ikasleak ogibide ezberdinak eta horietako bakoitzak beren etorkizuneko garapenerako dakartzaten abaguneak identifikatzeko gai izatea.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, STEM3, KD3, KD4, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII5, HK1, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

6. Ikus-entzunezko ekoizpenak publikoki komunikatzea, ekoizpen-prozesu osoa zein azken emaitza ebaluatuz, ikusleen erreakzioen inguruan era irekian eta adeitsuan hausnartzeko.

Ikus-entzunezko ekoizpenak ez du zentzurik ez bada publikoarengana iristen. Eta bere potentzialtasun guztia, gainera, eraginen bat edo beste izaten duenean lortuko du. Horretarako, ikus entzunezko lanak zabaltzeko bitarteko ugari gaude. Egun, errazenak dira Internetek eskaintzen dituen horiek, ezbairik gabe. Erabilitako espazio birtualen arriskuak ebaluatzea, izaera pertsonaleko datuak babesteko neurriak ezagutzea eta jabetza intelektualaren eta egile eskubideen errespetua bermatzea beharrezkoa da.

Baina ezin dira beste aukera batzuk erdeinatu, ezta gutxiagorik ere. Garrantzitsua da ikasleek ahalik eta bide gehien ezagutzea, beren ekoizpenak ahalik eta publikorik zabalenarengana irits daitezen. Horreta-

rako, beren lanen hartzaileen erreakzioak ebaluatzen ikasi beharko dute, beti ere adeitasunez eta autokritika eginaz.

Prozesu horretan ikus-entzunezko produktu mota bakoitzera hoberen egokitzen diren ekoizpen metodoak eta horietako bakoitzarekin publikoarengana nola iristen den zehaztu beharko dute. Halaber, kasu bakoitzean egokiena den zabaltze-kanala erabaki beharko dute.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, STEM4, KPSII1.1, KPSII1.2, HK1, HK3, EK3, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.

Ikus-Entzunezko Kultura
1. Konpetentzia espezifikoa.
1.1 Argazkigintza eta ikus-entzunezkoen arloa mundua ezagutzeko eta ulertzeko modutzat jotzea, jakinminez eta adeitasunez hausnartuz beren ezaugarrien eta gizartean duten eginkizunaren inguruan, galdera beraren aurrean sortzen dituzten erantzun alternatiboak aurkituz.
1.2. Argazki-izaerako eta ikus-entzunezko narrazio-modu ezberdinak kritikoki aztertzea, historian zehar egon diren aldaketak aktiboki eta adeitasunez ulertuz eta argudiatuz, hiztegi eta terminologia berezia egokiro erabiliz eta argazkigintzaren eta ikus-entzunezkoen ondareak gizateriarentzako legatu gisa duen garrantzia baloratuz.
2. Konpetentzia espezifikoa.
2.1. Gizarte eta kultura ezberdinetako narrazioak alderatzea, norberaren identitate kultural eta audiobisual propioarekin era arrazoituan eta integratzailean harremanetan jarriz, elkarrekintzak eta partekatutako eraginak ulertuz eta adierazpen-askatasunarekiko eta besteon ulermenarekiko errespetua bultzatuz.
2.2. Aurreiritzirik gabe, argazki-irudi eta ikus-entzunezko ekoizpen ezberdinak aztertzea, lengoaiak eta osagai teknikoak, inguruko testuingurua eta igorri nahi dituzten mezuak identifikatuz, gozamen estetikoa eta munduaren gaineko behako enpatiko eta tolerantea baloratuz.
3. Konpetentzia espezifikoa.
3.1. kus-entzunezko produkzioaren prozesuan esperimentatzea eta berritzea, gero eta autonomia handiagoz, sormenez planifikatuz, beharrezko baliabide eta trebetasunak zehaztuz, haien aukeraketa arrazoituz justifikatuz eta haien adierazpen--aukeren ezagutzan sakonduz.
3.2. Ikus-entzunezko ekoizpen sormenez egitea, beharrezkoak diren bialiabideak eta trebeziak egokiro eta era berritzailean erabiliz eta aldez aurretik landuriko proiektura egokitutako azken emaitza bat bilatuz.
4. Konpetentzia espezifikoa.
4.1. Espresio- eta komunikazio-nahitasun pertsonal eta sortzailea duten ikus-entzunezko proposamenak egitea, akatsa hobetzeko aukeratzat hartuz eta proiektuaren exekuzioan autokritika eta komunikatzeko eta bestea ulertzeko beharra integratuz.
4.2 Norberaren ideiak, iritziak eta sentimenduak islatuko dituzten ikus-entzunezko ekoizpenak egitea aurretiko gai edo arrazoi bat oinarri hartuta, ikus-entzunezko arloaren adierazpidea ingurunea esploratzeko tresna gisa erabiliz.
5. Konpetentzia espezifikoa.
5.1. Ikus-entzunezkoen kulturari loturiko ogibide ezberdinak identifikatzea, eskaintzen dituzten aukerak eta lanerako sorkuntzaren balio erantsia ulertuz, norberaren iritzia era arrazoituan eta adeitsuan adieraziz.
5.2. Ikus-entzunezko ekoizpen iraunkor bat planifikatzea erantzukizunak hartuz, norberaren iritzia era arrazoituan eta adeitasunez adieraziz, planteaturiko erronkak eta kooperazio-lanak emaitza profesional bat lortzeko duen garrantzia ulertuz.
5.3. Bakarka edo taldean, ikus-entzunezko ekoizpen iraunkor bat sortzea, irekia eta kooperazio-izaerakoa, prozesuaren faseak diseinatuz eta teknika egokiak hautatuz, norberaren nortasun artistikoa zabalduko duen emaitza lortuz.
6. Konpetentzia espezifikoa.
6.1.Ikus-entzuneko ekoizpen baten azken emaitza aurkeztea, tresna digitalak era kritiko, seguru eta arduratsuan erabiliz, exekuzio-prozesuaren garapena, izandako zailtasunak, lorturiko aurreratzeak eta azken lorpenen balorazio bat partekatuz.
6.2 Aurkezturiko ikus-entzunezko ekoizpenen harrera era irekian eta adeitasunez aztertzea, iritzi positiboak zein negatiboak aintzat hartuz eta hortik hazkunde artistikorako irakaskuntza ateraz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Ikus-Entzunezko Kultura
A. Orokorrak.
Sorkuntza-pentsamolde dibergente eta kritikoa sendotzea.
Aniztasuna aberastasun kultural eta artistikoaren iturri gisa baloratzea.
kultura eta arte ondarea sustatzea eta babestea.
Ikus-entzunezkoan arloa, gizartea aurreiritzik gabe eta tolerantziaz ulertzeko tresna.
Gozamen estetikoa, ekintzailetza eta berrikuntzaren garrantzia garatzea.
Autoezagutza, autonomia, autokritika, apaltasuna eta besteon ulermena indartzea.
Akatsa, hobetzeko eta ikasteko aukeratzat hartzea.
Ikus-entzunezko kulturari loturiko ogibideak eta beren aukerak identifikatzea..
Erantzukizuna; erabakiak hartzea.
Enpatia eta ikuspegi ezberdinak balorazioa.
Tresna digitalak era kritiko, seguru eta arduratsuan erabiltzeko estrategiak, datuen babesa, jabetza intelektuala eta egile--eskubideak errespetatuz.
B. Irudia.
Definizioa. Hautemate bisuala. Garapen, eginkizun eta sailkapena.
Sintaxi bisuala eta irudiaren osagaiak.
Plano eta irudiaren arteko oreka. Osagai dinamikoak. Tamaina, formatu, eskala eta proportzioa.
C. Argazkigintzaren eta ikus-entzunezkoaren historia: Daguerretik errealitate birtualera. Balioztatze estetikoa eta analisi formala.
Argazkigintzaren eta zinematografoaren jatorria: aitzindariak teknologia-aurrerapenetan eta bi baliabideetako lengoaia-formen zehaztean.
Korronte historikoak argazkigintzan eta zinemagintzan eta ordezkaririk nagusienak.
Aniztasuna egungo eta iraganeko argazkigintza eta ikus-entzunezko adierazpenetan. Ohiko komunikabideak eta Internet. Irakurketa eta azterketa konparatiboa, testuinguru historikoa aintzat hartuz.
Ikus-entzunezko formatuak: fikziozko laburmetraia, ertain eta film luzeak, dokumental labur, ertain eta luzeak, film-saiakera, telebista-formatuak, bideoklip, fashion film, spot, hezkuntza-bideak, korporazio eta erakundeetarako bideoak, sare sozialei loturiko formatuak, etab. Forma-alderdi nagusienak.
D. Argazki-irudiaren eta ikus-entzunezko lengoaiaren osagai formalak eta adierazteko gaitasuna.
Plano (eskala: adierazteko balioa) eta hartualdia, kameraren angeluak eta mugimenduak.
Erakuste, fokuratze, eremu-sakonera, eremu eta eremutik kanpo.
Argien inguruko oinarrizko kontzeptuak.
Irudi finkorako eta irudi mugikorrerako konposizioa.
Kolorearen sinbologia eta psikologia. Zinemagile eta argazkilari handiek kolorea nola erabili zuten ikasteko estrategiak.
Moldaketa digitala.
Ikus-entzunezko irudiaren eginkizunak.
E. Ikus-entzunezko adierazpide eta narratiba.
Literatura-gidoia. Egiteko faseak. Eszena eta sekuentzia dramatikoa. Eskaleta.
Gidoi teknikoa, *storyboard*a.
Eszenaratzea: kokapenak, dekoratuak (bolumetrikoak eta birtualak), karakterizazioa, interpretazioa, argiak, mugimendua.
Soinu-banda: soinu-ikuspegia eta adierazpide-aukerak.
Muntaia eta postprodukzioa. Bilakaera eta gramatika.
Telebistaren eta publizitatearen lengoaiak.

Ikus-Entzunezko Kultura
F. Ikus-entzunezko ekoizpena. Teknikak eta prozedurak.
Lan-taldeak ikus-entzunezko ekoizpenean: zuzendaritza, ekoizpena, kamera/argazkia, soinua, arte, postprodukzioa.
Ikus-entzunezko ekoizpenean zereginak banatzeko estrategiak: beharrezko trebetasunetan oinarritako hautaketa-irizpideak.
Lan-faseak: aurreprodukzio, filmatze eta postprodukzioa.
Ikus-entzunezko teknikak, tresnak eta konbentzioak aukeratzeko estrategiak.
Bitarteko teknikoak errealizaziorako: kamera eta osagarriak, mikrofonoak, argientzako ekipamendua.
Soinu-grabazioa. Sinkroniko eta birsortua.
Edizio ez linealerako softwareen hastapenak.
Ikus-entzunezko edukiak zabaltzeko estrategiak: sare sozialak, merkataritza-aretoak, erakusketa espazio alternatiboak, zinemagintza jaialdiak (online zein aurrez aurrekoak), etab.
Ikus-entzunezko ekoizpenak ebaluatzeko teknikak eta estrategiak.

LITERATURA DRAMATIKOA

Literatura Dramatikoa jakintzagaiak Batxilergoko ikasleen funtsezko konpetentzien garapena modu ukaezinean aberasten du, beren kontzientzia artistikoa eta sentsibilitatea zabaltzen baititu, antzerki-generoaren ezaugarri adierazkor, sinboliko, tekniko, estetiko eta soziologikoei lotuta. Era berean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako literatura-hezkuntzarako jakintzagaian eta Batxilergoko Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Literatura Unibertsaleko jakintzagaietan jarraitutako ibilbidea osatzen du. Hortaz, antzeko printzipio metodologikoak ditu.

Izan ere, literatura-gela gune pribilegiatua da eskolatze osoan zehar jorratutako bi irakurketa-modalitateak —irakurketa gidatua eta irakurketa autonomoa— garatzeko, bien corpusek bat egin dezaten lagunduz. Aztertzen ari garen kasuan, eta genero dramatikoaren ezaugarriak kontuan hartuta, bi modalitate horiek harrera-kontzeptu zabalago bati irekitzen zaizkio, eta, horren bidez, antzerki-ondarerako sarbidea lortzen da, bai irakurketaren bidez, bai ikus-entzunezkoak ikusiz, eszenaratzetara joanez eta ikasleek testu horiek eszenaratzeko proposamen praktiko txikiak eginez. Esparru horiek estuki lotuta daude; izan ere, antzerki-hitza beti pentsatuta dago gune eszeniko batean modu praktikoan esateko, eta hori da ulertzeko modurik onena, eta ez du irakurtzeko soilik izan behar, gainerako literatura-generoekin gertatzen den bezala. Berezitasun hori kontuan hartuta, harrera gidatuaz eta harrera autonomoaz hitz egingo dugu, hala dagokionean. Literaturaren testuartekotasun zabalean barrena egindako ibilbide hau aukera bikaina da literaturaren, idazketaren, egiletzaren edo idazten den eta irakurtzen den gizarte-denborarekiko erlazioaren zentzuari buruz hausnartzeko. Azkenik, antzerkiaren ikusle izaten ikasteko gaitasuna sustatzen da. Horrez gain, horren garrantzia eta gizarte-kontzientzia sortzeko duen bokazioa ulertzeko, hizkuntza espezifiko batzuen zerbitzura dagoen sorkuntza artistikoa egiaztatu eta baloratzeko, eta, gainera, irakurketa dramatikoko oinarrizko teknika batzuen praktika esperimentatzeko gaitasuna ere sustatzen da.

Proposatutako ikuspegiak kontzientzia artistiko bat pizten du ikasleengan, eta oso baliagarria da ikasgelatik obra dramatiko bat sortzeko eta interpretatzeko prozesua ulertzeko, eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, tradizio literario deritzoguna tradizio ikusgarrian txertatuta dagoela ulertzeko eta baloratzeko. Horri gehitu behar zaio antzerki-generoko obrek pribilegio izugarria dutela, oso egokiak baitira irakurleen komunitatean partekatzeko. Obra bat modu partekatuan irakurtzeak hamaika aukera ematen ditu iritziak eta perspektibak trukatzeko, hura osatzen duten alderdiak (gaiak, hizkuntza, pragmatika, etab.) irakurtzen eta ikertzen jarraitzeko, baita hainbat testu sortzeko ere. Irakurketa-prozesuen atzeraelikadura horrek bide aberasgarria eskaintzen du ikasleen nortasuna eratzeko literaturako irakurle eta idazle gisa, antzerki- eta kultura-publiko gisa, baita identitate hori modelatzen duten metodologiak sistematizatzeko ere, hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren garapena sustatuz.

Jakintzagaiak, gainera, aukera ematen du historian genero dramatikoaren inguruko erreferentzien mapa bat bereganatzeko, ikasleei arte eszenikoak ulertzeko, interpretatzeko eta gozatzeko aukera emango dieten analisi-teknikak eskainiz, baita beren ekoizpen eta antzezpen eszenikoko testuinguru historiko eta kulturalekiko erlazioa ezagutzeko aukera ere (gehienetan ez dira bat etortzen), eta, aldi berean, emakumeek edo mendebaldekoak ez diren egileek idatzitako lanen zati handi bat kanpoan utzi duen kanon bat kritikoki zalantzan jartzeko gonbita egiten du. Iruditeriak zabaltzeak gizarte-kohesioari, kulturarteko hezkuntzari eta hezkidetzari laguntzen die, zalantzarik gabe. Literatura dramatikoaren klasikoen irakurketa partekatuak eta autonomoak, horien inguruan argudiatutako deliberazioak, ikerketa-prozesuen garapenak, eta klasikoen jabetze- eta birsortze-jarduerek ere funtsezko konpetentziak modu erabakigarrian garatzen laguntzen dute.

Literatura Dramatikoaren curriculuma bost konpetentzia espezifikotan oinarritzen da. Lehenik eta behin, literatura dramatikoaren klasikoak interpretatzeko trebetasunen garapena —irakurriak, eszenan ikusiak edo ikasleek interpretatuak izan daitezke—, obraren eraikuntza-elementuen barne-erlazioak eta obraren zentzua kontuan hartuz, baita horrek produkzio-testuinguruarekin eta literatura-tradizioan duen lekuarekin duen lotura ere; generoaren harrera-ezaugarri bereziak ahaztu gabe, eta arreta berezia jarriz dramatizatutako eta taldeko irakurketa moduetan. Alde batera utzi gabe horrelako irakurketak egiteko antzerki-ekintzak gauzatzeak eta ikusizko elementuak eta parateatralak erabiltzeak duten garrantzia. Bigarrenik, irakurketa- eta harrera-estrategiak abian jartzea, era autonomoan antzezlanen publiko gisa; horrela, harrera gidatu eta partekatutik sortutako erreferentzia-mapak aprobetxa daitezen, antzerki-ikusle gisa duten nortasuna eraikitzeko. Hirugarren konpetentzia espezifikoak garai artistiko, testuinguru artistiko eta arte-hizkuntza desberdinetako lanen irakurketa konparatua du ardatz, generoaren historian zehar unibertsal tematikoak, pertsonaien arketipoak eta bide formal errepikariak daudela egiaztatzeko. Hirugarren konpetentzia horren helburua da, halaber, testu dramatikoaren eta denboran zehar izan dituen eszenaratzeen arteko loturak aztertzea, egokitzapen zinematografikoak barne, eta, aldi berean, ikasleek etorkizunean eskura izango dituzten antzerki-, literatura- eta arte-esperientziak testuinguruan kokatzeko aukera emango duen erreferentzia partekatuen eta mapa kulturalaren esparrua eskuratzen laguntzea. Laugarrenik, antzerki-idazketari buruzko konpetentzia espezifiko bat garatzen da. Bertan, arte bisual ez-testualek erabiltzen dituzten sorkuntza-eskemak edo testua alde batera uzten ez duten arte bisualak aztertuko dira, azken kasu horretan testua obraren eragile nagusia ez izan arren. Azkenik, kanon literarioari buruzko eztabaida kulturalean parte hartzea, munduari buruzko begiraden aniztasunaren berri emango duten beste obra dramatiko batzuk eransteko beharra, eta literaturak imajinarioen eraikuntzan duen garrantzia aurkitzen ditugu.

Ebaluazio-irizpideek, konpetentzien ikuspegiari dagokionez, honako hauek hartzen dituzte kontuan: testu dramatikoen eta antzerki-emanaldien interpretazioari buruzko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak; obrei buruz argudiatutako balio-judizioen formulazioa; asmo literario eta eszenikoko testuak sortzea; eta horiek beren testuinguru soziohistorikoan, literarioan eta kulturalean inskribatzea ahalbidetuko duen mapa kultural bat osatzea. Horrek guztiak eskatzen du diagnostikoaren zerbitzura dauden ebaluazio-tresnak eta -erremintak dibertsifikatzea, eta ahozko eta idatzizko harrera, ekoizpen eta elkarrekintzarekin, ikerketa-prozesuekin eta pentsamendu kritikoaren garapenarekin lotutako trebetasunak hobetzea.

Testuen eta irakurleen edo ikusleen arteko topaketa jakintzagaiaren muina denez, jakintzak bi multzoren inguruan antolatzen dira. Multzo horiek literatura dramatikoko klasikoen eta obra garrantzitsuen harrera gidatuari eta harrera autonomoari lotuta daude, hurrenez hurren. Beraz, corpusa bera da, nahiz eta estrategia bereiziak garatzen diren harrera-modalitate baterako eta besterako. Lehenengo multzoa —irakurketatik abiatuta zentzumenak modu gidatu eta partekatuan eraikitzearekin lotutakoa—, antzerkira bertaratuz ikustea, gainera, antzerki-artearen berezitasunetara hurbilduz hasten da, testuan, errealizazio eszenikoan eta ikuskizunaren harreran arreta jarriz. Testuen hautaketari dagokionez, corpus ireki baten aldeko apustua egiten da, eta irakasleak harrera gidatua eta partekatua izango duen obra baten inguruko ibilbideak taxutzera gonbidatzen ditu. Lau ardatz tematikoren inguruan antolatuta —niaren antzerkia, besteak, mundua, metantzerkia—, aurkezpenak ez du ibilbideak eraikitzeko aukerak mugatzeko edo agortzeko asmorik: ez dute elkarren ondoan jarritako aginduen katalogoa osatzen. Haren helburua irakasleei aniztasunera eta ikasleen beharretara egokitutako aurrerapen-ibilbideak eraikitzeko adibideak ematea da.

Asmoa ez da, beraz, ikasturtean zehar proposamenak dakartzan aukera guztiak agortzea, baizik eta irakasle bakoitzak obra kopuru jakin bat aukeratzea eta foku bat hautatzea, beste testuinguru kultural edo molde generiko batzuetako beste obra batzuekin lotu ahal izateko; ondoren, batzuen eta besteen irakurketa konparatua egiteko, eta denboran zehar izan zitzaketen eszenaratzeak aztertzeko, baita etorkizunean eszenaratzeko aukera hausnartzeko ere. Ibilbide horiek aukera eman behar dute une, idazketa-testuinguru, ekoizpen eszeniko eta harrera, gatazka, literatura- eta pertsonaia-arketipo, bide eta adierazpide desberdinetara hurbiltzeko, baita testu klasikoak eta garaikideak, nazionalak eta atzerrikoak, literarioak eta ez-literarioak (historiografikoak, literatura-kritikakoak edo beste arte-kode batzuetakoak, antzerki-eszena, ikus-entzunezko fikzioa eta digital garaikidea barne) konparatuta irakurtzeko ere.

Literatura Dramatikoa jakintzagaiak, azken batean, aukera ematen die ikasleei, antzerki-irakurle edo antzerki-publiko gisa duten esperientziaren bidez, beren gaitasun artistiko, sortzaile eta interpretatiboen garapena ezagutzeko, eta, horrela, beren alderdi teorikoen eta praktikoen arteko beharrezko erlazioa ulertzen joateko. Funtsezkoa da lan-dinamika bat izatea, non etengabe aipatzen diren antzerki-jarduera eta testutik abiatuta askotariko denborak eta lekuak zeharkatzen dituzten egoera eszenikoak. Ikasleak, hala, literaturaren, estetikaren eta kulturaren arloetan moldatzen dira; eta horrela, sentsibilitatearen arloan duten hazkundearekin batera, bizi-esperientzia osoagoa izan dezakete, aniztasuna eskuratzen eta aurreiritzi eta estereotipo sozialak ezabatzen lagunduko diena. Funtsean, ikasleen kultura-ondarea eta haien adierazpen-aukerak aberasten laguntzea da kontua, iraganeko kulturak ilustratu zituzten antzezlanen, ikuskizunen eta antzerki-muntaien edertasuna zein gure oraina sostengatu eta gure etorkizuna aurreratzen dutenak balioesten ikasiz.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Literatura dramatikoko obrak irakurtzea edo horien eszenaratzea ikustea, eta eszena laburrak taularatzea, kontuan hartuz bai generoa osatzen duten elementuen barne-erlazioak eta horiek obretan dituzten funtzioak, bai obrek beren ekoizpen-testuinguruarekin eta kultura-tradizioan duten inskripzioarekin dituzten kanpo-erlazioak, literatura dramatikoaren gozamenerako aukerak zabaltzeko eta literatura- eta arte-sormena suspertzeko.

Konpetentzia horrek interpretazio-trebetasunak garatzeko funtzioa du: ondare dramatikoko obra garrantzitsuak eskuratzeko aukera emango dutenak; irakurketa edo irudikapen dramatikoen gainean oinarritutako balio-judizioa hitzez adieraztea errazten dutenak —balioespen estetikoan oinarrituta—; eta ikuspegi nazionalak eta europarrak eta unibertsalak eta antzerki-lanak beste adierazpen artistiko batzuekin uztartuko dituen mapa kulturala eraikitzen lagunduko dutenak. Antzerki-generoaren inguruko gozamen kontziente eta landua lortzea da helburua. Horretarako, ezinbestekoa izango da antzerki-generoak eta horien funtsa diren oinarrizko elementuak (kronotopoa, ekintza, gatazka, etab.) aztertzea.

Kontua ez da, ordea, helburu entziklopedikoak dituen literatura dramatikoaren historia bati ekitea, baizik eta ikasgelan —edo espazio eszeniko batean— harrera gidatua eta partekatua izango duten obra gutxi batzuk hautatzea. Lan horiekin batera, testu eta antzezpen batzuk eskainiko dira, eta, horiei esker, testuinguru historiko eta kulturalean kokatu ahal izango dira, literatura- eta eszena-tradizioan inskribatu ahal izango dira, euren interpretazioen historiarako sarbidea izango dute, eta beste forma artistiko klasiko eta garaikide batzuekin erlazionatu ahal izango dira.

Era berean, irakurketa dramatizatua eta/edo eszenaratzea behar bezala garatuko da, taldeka eta ozen, egoeren eta eszenen konfigurazioari arreta berezia eskainiz, emozioak eta hitzen intentsitatea nabarmenduz, ikasgelako prozesu batean antzerki-jardunari eta testutik abiatuta aurki daitezkeen egoera eszenikoei etengabeko aipamenak eginez.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4,K PSII5, HK1, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.

2. Literatura dramatikoko obra garrantzitsuak modu autonomoan irakurtzea edo ikustea plazer- eta ezagutza-iturri gisa, norberaren gustu, interes eta beharretara ondoen egokitzen direnak hautatzea norberaren irizpidearen arabera eta gomendio espezializatuak kontsultatuz, antzerkigintzara iristeko moduak dibertsifikatzea literaturaz haragoko fenomeno ikusgarri gisa, eta irakurketako eta antzerkiko publiko gisa esperientziak partekatzea, norberaren nortasun literarioa eraikitzeko eta bere dimentsio sozialaz gozatzeko.

Konpetentzia hori garatzeak esan nahi du aurrera egin behar dela autonomia sendotzen eta norberaren irakurketa-identitatea, nortasun artistikoa eta kulturala eraikitzen, funtsezkoa baita irakurle eta publiko eszeniko gisa eskola-bizitzatik haratago irauteko; horretarako, aldian-aldian eta etengabe denbora eskainiko zaie banakako irakurketari eta antzerki-ekitaldien eta arte eszenikoen parte-hartzeari eta gozamenari, oro har. Era berean, denbora eskainiko zaio gogoetari, irakurritako testuen, haien irudikapenen eta beste hedabide batzuetarako (zinema, telebista edo formatu digitalak) egokitzapenen artean erlazioak ezartzeko. Harrera gidatuaren modalitatearen berezko corpusa harrera autonomoaren modalitatearekin bat egiteak —bi kasuetan klasikoak eta garai guztietako literatura dramatikoko lan garrantzitsuak— aurrerabide-ibilbideak eraikitzeko aukera emango duten erreferentzia-mapak hornitzea ahalbidetzen du. Nolabaiteko konplexutasuna duten antzezlanek eta antzezpenek eskaintzen dituzten erresistentziak gainditzeko gai diren interpretazio-trebetasunak bereganatzeak hautaketa-irizpideak garatzen laguntzen du, horiek ezinbestekoak baitira antzerki-irakurle eta -ikusle autonomoen prestakuntzan.

Horrek esan nahi du gozamenerako moduak, estimatutako testuen aniztasuna eta konplexutasuna zabaldu behar direla —egungo forma literarioekin, azaleratzen ari diren praktika kulturalekin eta telebistako zinema edo fikzioa bezalako praktika kulturalekin kontaktua egotea barne—, eta irakurle edo publiko gisa izandako harrera-esperientzia adierazteko gaitasuna handitu behar dela. Baita testu batean oinarritzen ez diren sorkuntza-motorrak dituzten ikuskizunei buruzko hausnarketa ere. Helburua da antzerki-irakurketen multzoa zabaltzea eta, horrekin batera, obrak irakurtzeko moduak aberastea, haien proposamen estetikoa pixkanaka ikusi ahal izateko, eta, horrez gain, esperientziaren formulazioaren oinarri diren elementuak handitu ahal izatea, horiek baloratzeko; barne hartuz testuen arteko testuartekotasuna identifikatzea, eta irakurketekin eta antzerki-emanaldiekin lotutako saiakera ikertzea eta irakurtzea.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK2, HKK4, KD2, KPSII1, KPSII2, EKK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.

3. Garai artistiko, testuinguru artistiko eta arte-hizkuntza desberdinetako obra dramatikoen arteko loturak ezartzea, antzekotasunak eta desberdintasunak antzemanez, bakoitzak bere ekoizpen-testuinguruaren eta literaturaren eta gizartearen arteko erlazioaren arabera, historian zehar unibertsal tematikoak, pertsonaia-tipologiak eta bide formal errepikariak daudela egiaztatzeko.

Konpetentzia espezifiko horrek azpimarratzen du oso garrantzitsua dela aurrera egitea, irakasleek ezarritako harrera gidatuen ibilbideen esparruan, antzerkiaren fenomenoaren funtzionamendua antzematean, antzerki-testuaren nozioan eta antzezpenaren eta sistema estilistikoaren esanahi-elementuetan sakonduz, obrak antzezten direnean. Horretarako, beharrezkoa izango da obren interpretazioa elkarrekin ikertzeko eta eraikitzeko prozesuetan ikastea, testu dramatikoen eta horien eszenaratzeen arteko konparazio-analisia barne hartuz, eta antzerkia eraikitzeko oinarri diren konbentzioen funtzioak eta efektuak ulertuz.

Era berean, hainbat lan, eszenaratze, zinema-egokitzapen edo horiekin lotutako beste arte-irudikapen batzuk etengabe arakatzeak, ikertzeak eta alderatzeak gai, topiko eta pertsonaia unibertsalak daudela egiaztatzea ekarriko du, baita adierazpen-baliabideen eta balio etiko eta estetikoen fluktuazio historikoaren ulermena ere. Horrek guztiak antzerkiaren artea, oro har, eta literatura-genero dramatikoa, bereziki, tresna ideologiko erabakigarri gisa konfiguratzen du imajinario kolektiboen eraikuntzan.

Azken batean, ikasgelan modu gidatu eta partekatuan irakurtzeko genero dramatikoaren literatura-ondareko —emakume idazleen obrak barne hartu behar dituen ondare bat— obra garrantzitsu

batzuk hautatu behar dira euren egokitasunaren arabera, antzerkiaren eraikuntza eta funtzionamenduaren zein beste testu batzuekin eta ekoizpen-testuinguruko balio ideologiko eta estetikoekin ezartzen diren erlazioen eta oraina argitzeko eta azaltzeko duten ahalmenaren elementu garrantzitsuak erakusteko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, STEM2, KD1, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

4. Testu dramatikoak birsortzeko edo sortzeko beharrezkoak diren adierazpen- eta sormen-gaitasunak erabiltzea, generoa osatzen duten elementuak eta hainbat teknika erabiliz, ekintza dramatikoa, pertsonaien diseinua eta egoeren eta eszenen konfigurazioa osatzeko. Musikaren eta dantzaren historiako konpositore, interpretatzaile eta obra nagusiak ikertzea, informazio-iturri fidagarriak erabiliz, interpretazio-korronte desberdinak aztertzeko eta musika-ondarearen aberastasunari buruz eta norberaren kultura-nortasunari buruz hausnartzeko.

Antzerki-idazketaren irakaskuntzak —beharbada, beste literatura-genero batzuenaren aldean arreta gutxiago ematen zaio ikasgelan, baita dagoeneko idatziak diren testuen antzerki-jokoen aldean ere— adierazpide eta sormen potentziala du arte eszenikoen ezagutza anitza eta sentitua sustatzeko; horrek modu ukaezinean laguntzen du pertsona autonomoak, parte-hartzaileak, solidarioak, sortzaileak eta kultura artistikoa dutenak garatzen. Idazketa dramatikoa oso egokia da hizkuntza-, literatura- eta komunikazio-ikaskuntzen iturri gisa. Gainera, ahozko hizkuntza eta idatzizkoa oso modu esplizituan erlazionatzeko abantaila du, eta horrek bi adierazpideak hobetzea sustatzen du. Azkenik, antzerki-generoaren azpian dagoen gatazka dramatikoak nerabeen eta gazteen adierazpen intimo eta pertsonala errazten du, dela beren niari buruz, dela munduaz duten ikuspegiari buruz.

Konpetentzia horrek, beraz, eskatzen du idazketa dramatikoa ez dadila ikusi euren iruditerian jada oso presente dauden ikuskizunen kontzepzio jakin baten erreprodukzio- edo imitazio-prozesu huts gisa. Aitzitik, antzerki-lanaren egituraren ahalik eta ezagutza sistematikoena izan behar du abiapuntu, oinarrizko maila batean bada ere, testu dramatikoaren eta antzezpen eszenikoaren alderdi bikoitzean, jakintzagaiaren ibilbideetan bisitatutako testu eta antzezpenen bitartez. Horrela, benetako sormen-aukera berriak bilatzen dira ikasleengan, kontzeptuak erlazionatuz, pertsonaiak, eszenatokiak, giroak, gatazkak, arazoak eta soluzioak identifikatuz eta aldatuz esperimentazio dramatikoko egoeren inguruan, eta beti ere norberaren sormen-asmoa garatzen lagunduz.

Horretarako, beharrezkoa izango da literatura dramatikoa antzerki-ikuskizuna osatzen duen engranajearen zati gisa ulertzea; historian zehar antzerki-idazketaren artea osatu duten lanbideetako batzuk ezagutuz (poeta, dramaturgo, dramaturgilea…); eta ikusteko arteei arreta emanez (keinu-antzerkia, performancea, dantza, zirkua…), non idazlearen irudiari uko egin gabe, beren sorkuntza testuan soilik oinarritzen ez dutenak eta, horrela, sorkuntzarako erabiltzen dituzten idazketa-eskemak (partitura, es-kaleta) aintzat hartzen dituztenak.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4,KD3, EK1, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3, KAKK4.

5. Literatura-kanon dramatiko unibertsal baten eraikuntzan parte hartzea, emakumeen esperientzia-ikuspegia txertatuz, emakume idazleen edo funtsezko emakumezko pertsonaien antzerki-lanak irakurriz, ikusiz edo antzokira joanez, eta mendebaldeko kulturaren esparruak gainditzuz, beste ahots batzuekiko interes-, errespetu- eta sentikortasun-kontrapuntuak ezartzeko, eta munduaren eta bere iruditeriaren eraikuntza diskurtsiboari buruzko pentsamendu kritikoa garatzeko.

Sentiberatasun garaikidea eta oraintsuko azterketa literarioak bat datoz kanon literarioaren eraikuntzan absentzia nabarmenak adieraztean. Emakumeak falta direnez, eta mendebaldekoak ez diren ahotsak ere falta direnez, ezinbestekoa da kanona berreraikitzea, batzuk eta besteak sartzeko eta haiek baztertu izanaren arrazoiak aztertzeko. Literatura eta artea eragile erabakigarriak badira iruditeriak eraikitzeko —generoen eraikuntza soziala, “gu” baten eraketa “besteen” aurrean, edo eredu sentimentalen

eta maitasun-ereduen trazadura—, literatura-hezkuntzak, kasu honetan genero dramatikoaren inguruan, urrutiko begirada garatzen duten eta munduaren eraikuntza diskurtsiboari buruzko hausnarketa kritikoa bultzatzen duten testuak irakurtzeko, interpretatzeko eta berjabetzeko trebetasunak izan behar ditu. Horri esker, jarrera inkontzienteki sexistak, etnozentrikoak edo arrazistak aitortu eta baztertu ahal izango dira.

Horretarako, irakurketa partekatuko obren aukeraketak, baita hari lotutako antzerki-zatiek eta -emanaldiek ere, benetako ondare unibertsalaren lagin adierazgarriak izan behar dituzte, emakume idazleen, emakumezko pertsonaia aipagarrien eta mendebaldekoak ez diren obren presentziarekin; aldi berean, ibilbide horietakoren baten hari nagusiak alderdi horietan jar dezake arreta. Era berean, kontuan hartuko dira jakintzagai hau garatzen den autonomia-erkidegoko hizkuntzaren eta kulturaren berezitasunak, baita corpus literario-ikusgarria ere. Gaika antolatutako testuen corpus bat aurkezteak apustu horiek erraztu nahi ditu.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK2, HKK4, KE3, STEM2, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3, HK4, KAKK1, KAKK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Literatura Dramatikoa
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Irakurritako edo ikusitako antzerki-obren interpretazioa azaltzea eta argudiatzea, osatzen dituzten elementuen eta obraren zentzuaren arteko barne-erlazioak, eta testuaren eta haren testuinguru soziohistorikoaren eta literatura-tradizioaren arteko kanpo-erlazioak aztertzetik abiatuz, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta obren hautemate estetikoari lotutako balio-iritziak gaineratuz.
1.2. Antzerki-zatiak eta -obrak ozenki eta taldeka irakurtzea, arreta berezia jarriz egoeren eta eszenen konfigurazioan, emozioak, hitzen intentsitatea eta elementu prosodikoak nabarmenduz, eta talde-lanetan inplikatzeko gaitasuna, motibazioa eta interesa erakutsiz.
1.3. Proposatutako obren zati laburrak eszenaratzea, antzerkiaren elementu ikusgarriei garrantzia emanez, eta egileak testuan planteatzen dituen ekintzak eta sekuentzia berak ahalbidetzen dituen eszenaratzeko aukerak alderatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Literatura dramatikoko obra garrantzitsuen irakurketan, ikuspenean edo laguntzan oinarrituta interpretazio pertsonala egitea, alderdi tematikoak, generokoak eta azpigenerokoak, egituraren eta estiloaren elementuak eta obren balio etikoak eta estetikoak kontuan hartuz, eta beste obra batzuekin eta beste esperientzia artistiko eta kultural batzuekin lotura argumentatuak ezarriz.
2.2. Literatura-kultura dramatikoaren hainbat adierazpenetara iristea, norberaren irakurketa-nortasuna eta antzerki-publiko gisa modu kontziente eta sistematikoan aberastuko dituen irakurketa-ibilbide pertsonal baten bidez.
2.3. Literatura-elkarrizketetan parte hartzea, norberaren irakurketa-, ikustaldi- edo antzerki-esperientziak partekatuz, metahizkuntza espezifiko baten laguntzaz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Antzerki-testuak edo -zatiak elkarren artean edo haien eszenaratzearekin, egokitzapen zinematografikoarekin edo lotutako beste arte-emanaldi batzuekin alderatzea, antzekotasun- eta kontraste-elementuak ahoz edo idatziz argudiatuz, bai gai- eta eduki-alderdiei dagokienez, bai alderdi formal eta adierazkorrei dagokienez, eta obren balio etiko eta estetikoei arreta jarriz.
3.2. Irakurketa gidatuko obra dramatikoen arteko edo beste testu eta adierazpen artistiko batzuen eta euren eszenaratzeen arteko loturak aztertzea, gaien, topikoen, egituren, pertsonaien, hizkuntzaren, adierazpen-baliabideen eta balio etiko eta estetikoen arabera, euren ondorioak ahozko azalpen baten, entsegu baten edo aurkezpen multimodal baten bidez azalduz, lan honetan duten inplikazio pertsonala erakutsiz.
3.3. Antzerki-testuak, irakurritakoak edo ikusitakoak, beren etorkizun historiko kulturalean kokatzea, eta literatura dramatiko unibertsaleko genero, estilo eta obra garrantzitsuei buruzko ikuspegi orokorra eskaintzea, idatzizko edo ahozko azalpen edo azalpen multimodal bat prestatuz eta eginez, banaka edo taldeka, testuinguruaren ezagutza eta testuinguruaren ekoizpenean duen eragina erakusteko.

Literatura Dramatikoa
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Antzerki-testu pertsonalak edo kolektiboak sortzea, asmo literarioarekin eta estilo-kontzientziarekin, hainbat euskarritan eta beste arte-hizkuntza eta ikus-entzunezko hizkuntza batzuen laguntzaz, generoaren konbentzio formalak erabiltzen dituzten antzezlan edo antzerki-zati esanguratsuak irakurriz; testu idatziaren oinarrizko bi testu-sekuentziei (elkarrizketa eta akotazioak) eta esanahi-elementuen islari (espazioa eta objektu eszenikoak, argiztapena eta soinua, pertsonaien diseinua edo interpretazio-kodeak) erreparatuz bereziki.
4.2 Antzerkia osatzen duten lanbideak eta horiek historian zehar izan duten garrantzia bereiztea, berariaz literatura dramatikoa oinarri ez duten ikuskizunen zati laburrak ikusiz, eta lanbide horietako batean oinarritutako dramaturgia eszenikoa sortuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Egile garrantzitsuei, funtsezko emakumezko pertsonaiei, mendebaldekoak ez diren testuinguruetako antzerki-lanei, edo literatura-tradizioak proposatzen dituen iruditerien eraikuntzari buruzko ikuspegi askotarikoa eta kritikoa emango duten gai tematiko edo formalei buruzko ikerketa-proiektu bat egitea; horretarako, hitzaldien ikusgarritasunaren eta iruditeria kolektiboaren eraikuntzaren arteko erlazioari buruz egindako aurkikuntzak eta hausnarketa pertsonalak ahoz edo idatziz azalduz.
5.2. Literatura-kanon dramatiko unibertsal inklusiboa lantzeko ikuspegi pertsonala ematea, iruzkin kritikoak edo antzerki-testuen (ahozkoak zein idatzizkoak) aipamenak eginez, eta/edo irakurketei, ikustaldiei edo antzerki-emankizunei buruzko eztabaida edo mahai-inguruetan parte hartuz —horietan genero-ikuspegia txertatuko da, mendebaldeko kanonari dagokion ikuspegi etnozentrikoa zalantzan jarriko da, baita gure gizartean nagusi den eta edozein gutxiengoren aurkako zapalkuntza dakarren beste edozein diskurtso ere—.
5.3. Literatura dramatikoko obrak irakurtzea edo horien eszenaratzea ikustea, kontuan hartuz bai generoa osatzen duten elementuen barne-erlazioak eta horiek obretan dituzten funtzioak, bai obrek beren ekoizpen-testuinguruarekin eta kultura-tradizioan duten inskripzioarekin dituzten kanpo-erlazioak, literatura dramatikoaren gozamenerako aukerak zabaltzeko eta adierazpide artistikoa suspertzeko.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Literatura Dramatikoa
A. Hainbat genero, garai, testuinguru kultural eta kode artistikotako obren eta zatien arteko testuarteko erlazioak —baita horien ekoizpen-testuinguruekin ere— ezartzen dituzten gaikako ibilbideetan inskribatutako literatura dramatikoko testu garrantzitsu batzuen interpretazioaren eraikuntza gidatua eta partekatua.
Antzerki-artea: antzerki-testua (definizioa eta elementuak); antzerki-pertsonaia; antzezpen-errealizazioa; antzerki-harrera.
Literatura dramatikoaren gaiak eta formak.
Antzerki-testuak aztertzeko, interpretatzeko eta sortzeko estrategiak.
B. Literatura dramatikoko lan garrantzitsuen harrera autonomoa eta parte hartzea literatura-elkarrizketetan eta trukeetan.

MARRAZKETA ARTISTIKOA

Marrazteak zera esan nahi du: begirada behaketa zehatz eta kontenplazio bihurtu behar dela, inguratzen gaituen errealitatearen informazioa, adierazpen grafikoaren bidez, abstraitu eta sintetizatu ahal izateko. Marrazketa, beraz, behaketa-, gogoeta- eta irudikapen-prozesu interaktiboa da; hasteko teknika bat eskatzen duen prozesu bat da, bere baliabideak eta funtsezko elementuak ezagutzea eskatzen duena, etengabeko entrenamendu eta praktika ariketa bat.

Marrazketa lan zientifikoko, esploratzeko eta ikerketako metodo bat da. Marrazteko STEM konpetentziari lotutako hainbat kontzeptu ezagutu eta aplikatu behar dira, hala nola argia, kolorea, ikusmen-pertzepzioa, irudikapen-sistemak, giza anatomia, kanona, proportzioa, urrezko proportzioa, eskala… Ahaztu gabe, artistek historian zehar lortu dituzten aurrerapenak. Marrazketa hizkuntza unibertsala da, jarduera

intelektual bat baita, azterketa eta ezagutza bitarteko bat. Ideiaren eta haren irudikapen grafikoaren arteko lehen lotura da, eta horrek jarduera sortzaileen jatorria izatea eta gainerako arte guztien garapenean ezinbestekoa izatea eragiten du, proiektuak eta proposamen artistikoak ebazteko aurretiazko urratsa.

Hala ere, marraztea ez da arte-jarduera askoren edo ezagutza-tresna baten jatorria bakarrik, baita adierazpen eta komunikazio tresna ere. Azterketa arretatsu eta analitikoaren bidez ez ezik, gure irudimenaren bidez ere proiektatzen dugu gure mundu-ikuskera, errealitatea berrasmatuz. Marrazketa, gure pentsamenduen eta emozioen lehen adierazpenak egiteko baliagarri izateaz gain, intimoa eta zuzena da, bere berehalakotasuna askatzen duena; azken batean, espazioaz jabetzeko gure lehen ahalegina da. Jakintzagai honek espiritu ekintzailea sendotzen laguntzen du, jarrera sortzailearekin, malguarekin, ekimenarekin, talde lanarekin, norberarenganako konfiantzarekin eta zentzu kritikoarekin.

Jakintzagai osoaren garapenean zeharkako eduki gisa ezartzen dira proiektu iraunkorrak sortzea, hondakinen kudeaketa arduratsua eta segurtasuna, eta material artistikoen toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua; horrela, ikasleen prestakuntza globala eta ingurumen hezkuntza lortzen laguntzen da.

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, Marrazketa Artistikoa I eta II jakintzagaiak bi helburu nagusi ditu. Horietako bat da beharrezko trebetasunak eta teknikak eskuratzea, digitalak barne, hainbat proiektu eta esparrutan aplikatzeko. Lanean ahalegina eta jarraitutasuna sendotuz, ikaskuntza eraginkortasunez aprobetxatzeko eta garapen pertsonala lantzeko beharrezko baldintza gisa. Funtsezko bigarren helburua norberaren eta besteen obrekiko sentsibilitate estetikoa sustatzea da, prestakuntza eta aberastasun pertsonalerako iturri bezala, eta marrazketa adierazpen pertsonalerako bide independiente moduan aurkituz. Helburu hauei esker, jakintzagai hauetan ardatz nagusi gisa planteatuta, ahalmen metakognitiboa eta metaemotiboa garatzen dira.

Helburu hauek Marrazketa Artistikoa I eta II jakintzagaiko konpetentzia espezifikoen ernamuina dira. Konpetentzia hauek, gainera, jakintzagai honetarako funtsezko konpetentziaren lau osagaietan dute jatorria, kontzientzia eta adierazpen kulturalen konpetentziarena (kultura identitatea, kultura-harrera, autoadierazpena eta arte- eta kultura-ekoizpena), eta ikasleen konpetentzia-profilaren gainerako funtsezko konpetentzien deskriptoreekin konbinatzen dituzte; hitzezko komunikazioarekin, konpetentzia digitalarekin, bizikidetza demokratikoarekin, kulturartekotasunarekin edo sormenarekin lotutako alderdiak barne, ikaskuntza holistikoa eta konpetentziala bultzatuz. Konpetentzia espezifikoak aurkezteko ordena kontzientzia eta adierazpen kulturalerako konpetentziaren osagaietatik dator, eta ez da lan-metodo lineal gisa ulertu behar.

Konpetentzia espezifiko horietatik zuzenean ondorioztatzen diren ebaluazio-irizpideak haien lorpen-maila egiaztatzeko diseinatuta daude, eta ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak barne hartzen dituzte.

Marrazketa Artistikoa I-eko oinarrizko jakintzak multzo hauetan antolatzen dira: Orokorra; Marrazketaren kontzeptua eta historia; Adierazpen grafikoa eta haren oinarrizko baliabideak; Espazioaren pertzepzioa eta antolamendua; Argia, argi-iluna eta kolorea; Teknologia eta tresna digitalak eta Proiektu grafiko kolaboratiboak.

Marrazketa Artistikoa II jakintzagaian, egitura-erlazioen, irudikapenen eta teknika konplexuenen azterketan sakontzen da, marrazketaren eta haren aplikazioen ezagutza zabalagoan aurrera eginez, eta adierazpen grafikoaren berezko trebetasunak eskuratuz. Maila hori honako multzo hauetan antolatzen da: Orokorra; Marrazketaren kontzeptua eta historia; Adierazpen grafikoa eta bere oinarrizko baliabideak; Marrazketa eta espazioa; Argia, argi-iluna eta kolorea; Giza irudia; Proiektu grafiko kolaboratiboak.

Jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak eskuratzeko, ikaskuntza-egoera jakin batzuk behar dira, ikasleek adierazpen grafikoko esperientzia ugari miatu ahal izateko, material tradizionalak eta alternatiboak, eta baliabide eta tresna teknologikoak erabiliz. Egoera horien garapenean, konpetentzia espezifikoak ez dira independentetzat hartu behar; aitzitik, osotasunean landuko dira, kasu bakoitzean esanguratsuenak diren zereginek esku har dezaten; horrela, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak elkarri lotuta eta pixkanaka eskuratu ahal izango dira konplexutasunari dagokionez. Egoera horiek prestakuntza-aplikazioen eta aplikazio profesionalen panorama zabala eman behar diete ikasleei, hainbat alderditan.

Azkenik, gaineratu behar dugu marrazketa artistikoaren irakaskuntzak gure ikasleei sentsibilitate artistikoa eta gozamen estetikoa, sormena eta adierazkortasuna garatzen laguntzen diela, errealitateari buruzko behaketa, azterketa eta gogoeta egitea ahaztu gabe.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Marrazketa ezagutza, komunikazio eta adierazpen tresna moduan ulertzea, sortzen duen esanahien aniztasuna kultura eta arte aberastasunaren iturrilez baloratuz eta jakin mina, errespetua eta irizpide propioa erakutsiz, hainbat proposamen plastikotan irudikapen-aniztasuna balioesteko eta haren kontserbazioa sustatzeko.

Gizarteek munduaren irudikapenak egiten dituzte, hainbat adierazpen-bide erabiliz, eta horiek berezko nortasuna eta hausnarketa-prozesua sortzen dute, eta, aldi berean, kultura- eta arte-aniztasun zabala. Ildo horretan, marrazketa gizarte ororen pentsamoldeetako bat da, eta, horregatik, edozein leku eta garaitako adierazpen kultural eta artistikoetan duen presentzia identifikatzeak ikasleei laguntzen die hura ezagutza-, komunikazio- eta adierazpen-tresna unibertsal gisa baloratzen. Aldi berean, kultura aniztasunaren garrantzia aberastasun-iturri bezala uler dezakete, haren sustapenaren eta kontserbazioaren garrantzia baloratuz.

Ahozko, idatzizko ekoizpenen eta/edo ekoizpen multimodalen bidez marrazketaren erabilera-aniztasuna arte-eremu desberdinetan alderatzeak eta balioesteak, modu arrazoituan eta partekatuan, ikasleengan haren hizkuntzak eta teknikak ezagutzeko eta esploratzeko jakin-mina eragin behar du; horretarako, ikasleek haren funtzioei eta intentzionalitateei buruzko azterketa kritikoa eta iritzi propioa izan behar dute.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KD3, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2 .

2. Askotariko ekoizpen plastikoak jarrera ireki, kritiko eta gogoetatsuz aztertzea, horietan dauden hizkuntza, teknikak, prozedurak, funtzio esanguratsua eta adierazkortasuna ezagutuz, prestakuntza artistikoa zabaltzeko, ikusizko kontzientzia hartzeko eta plazer estetikoa garatzeko.

Harrera artistiko osoa egiteko, edozein proposamen kulturalen aurrean kokatu behar da, baita proposamen garaikideen aurrean ere, jarrera irekiarekin eta sormen-prozesu orotan beharrezkoak diren hizkuntza, baliabideak eta teknikak ahalik eta gehien ezagututa. Prozesu horretan zehar sortzen diren zailtasun plastikoak antzemateak prozesua baloratzen lagunduko du. Gainera, ekoizpen plastiko orotan dagoen adierazkortasun grafikoaren azterketa kritiko eta gogoetatsua, ahozko, idatzizko ekoizpenen eta/edo ekoizpen multimodalen bidez, lagungarria izango da ikasleentzat hiztegi eta terminologia espezifikoak behar bezala erabiltzeko. Aztertutako adibideen artean, kultura-aniztasuna eta genero-ikuspegia sartu behar dira, emakumeek egindako ekoizpen artistikoetan eta emakumeek artean izan duten eta duten presentzian fokua jarriz

Jakintzagai honen helburu saihestezina analisia ezagutzarekin uztartzea da, zailtasunen aurrean jarrera irekia eta errespetuzkoa mantenduz eta, horrela, ikusmen-kontzientzia eskuratzen lagunduz eta, asmo zabalagoarekin edozein adierazpen kultural edo artistikoren aurrean plazer estetikoa garatuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KD3, HK1, HK3, KAKK2.

3. Marrazketa eta honen tresnak eta hizkuntzak erabiltzea, errealitatea aztertuz, interpretatuz eta ulertuz, honen irudikapen grafiko objektiboa eta adierazkorra bultzatzeko, sentsibilitatea, irudimena eta sormena sustatzeko, eta hazkunde pertsonala eta artistikoa bultzatzeko.

Marrazteak ikusteko eraren zabalera dakar. Munduari buruzko ikerketa bat, eta, aldi berean, munduari buruz egiten dugun interpretazioari buruzko gogoeta bat da. Marrazketa, beraz, errealitatea ulertzeko, aztertzeko eta interpretatzeko bide artistikorik osatuenetako bat da. Batetik, errealitatea objektiboki

ikusteko aukera ematen digulako, eta, bestetik, artistaren berehalako adierazpen zuzena eta haren ikuspegi subjektiboa ahalbidetzen dituelako. Ezaugarri horiek ezagututa, ikasleek beren pentsamendua kanporatzeko erabili ahal izango dute; horrela, beren garapen pertsonala eta artistikoa bultzatuz.

Sormen-prozesu hori bultzatzeko, marrazketaren berezko oinarrizko baliabideen adierazpen-aukerak ezagutu eta aztertu behar dira: puntua, lerroa, forma eta testura, baita bere sintaxia ere. Era berean, oso garrantzitsua da errealitatearen behaketa xehetik abiatuta bozetoak egitea, norberaren irudimena barne har dezakeen adierazpen grafiko pertsonal baterantz aurrera egiteko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, KPSII1.1, KPSII1.2, HK1, KAKK3.1.

4. Material, teknika eta euskarri desberdinekin modu irudimentsu, berritzaile eta arakatzailean esperimentatzea, norberaren gorputza barne, proposamen artistiko garaikideetan duen garrantzia aztertuz, marrazketaren keinua eta espazioaren jabetzea norberaren onarpenerako eta adierazpen bide bezala aurkitzeko.

Artearen historian zehar, artistek beren lanetan sartu duten esperimentazio etengabearen ondorioz aurrerapen eta eraldaketa nagusiak gertatu dira. Bai une bakoitzean eskuragarri dauden material, teknika eta euskarriei dagokienez, bai hirudimentsiokotasunaren irudikapenari edo gizakiaren espazioaz jabetzeari eta bertan kokatzeari dagokienez. Joera artistiko diferentetan eta garai ezberdinetan alde handiak egon arren, espazioaren pertzepzioa eta irudikapena giza irudiaren neurria eskala eta proportzioaren erreferentzitzat hartuta egin dela errepikatzen da.

Proposamen artistiko garaikide batzuetan, giza gorputza arte-sorkuntzaren protagonista bihurtu da erreferentziazko muga hori gainditu. Bai euskarri moduan bai tresna moduan, keinuaren eta aztarnaren adierazkortasuna obraren erdigunera bertara eramanez.

Era berean, bi eta hiru dimentsioko irudikapenaren muga ere gainditu da, espazioa bera bereganatzeko eta esku-hartze artistikoaren beraren euskarri bihurtuz. Esperimentazioak azken adierazpen modu grafiko horiek ikertzea, aurkitzea eta aztertzea berekin dakar. Honek norberaren adierazpena bultzatzea, bere buruarekiko konfiantza eta norberaren onarpena garatzen ditu.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, KPSII1.1, KPSII1.2, HK1, KAKK3.1, KAKK 3.2

5. Praktika artistikoa adierazpen moduan balioestea, kultura-erreferenteak jarrera ireki eta aktiboz ikertuz, sorkuntza berrien berezko zati bezala, kultura-identitateak ekoizpenen aberastasun gisa duen garrantzia balioesteko.

Edozein lekutako eta garaitako adierazpen kultural eta artistikoak ezagutzeak eta aztertzeak, proposamen batzuek zer eragin izan duten sortzen ari den artistaren kulturaz bestelako kulturetan ulertzea erraztu egiten du. Era berean, hizkuntza plastiko, bisual eta ikus-entzunezkoen (argazkigintza, komikigintza, zinema, publizitatea) arteko loturak ezar ditzakete, eta marrazketak horietako bakoitzean lehen adierazpen-bide gisa duen presentzia azter dezakete. Aldi berean, ikus-kultura bat eratzen da eta sormen-baliabide bakoitzean erabilitako prozeduretan edo tekniketan izandako aurrerapenak deskubritzen dituzte. Gainera, arte-sorkuntza berri orok aurreko erreferenteekin ez duela noiz erabat hausten barneratuta, bere kultura-nortasuna euskarri eta oinarritzat hartzeak bere ekoizpenak aberasteko duen garrantzia balioetsi dezakete.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, KPSII1.1, HK1, HK3, KAKK2, KAKK3.1.

6 Ekoizpen grafiko adierazkorrak eta sortzaileak egitea, hizkuntza grafikoaren elementuek eta haien antolamenduak estilo pertsonal baten definizioan duten garrantzia baloratuz, eta lanean ahalegina eta jarraitutasuna erakutsiz, beren ekoizpenen komunikazio eta adierazpen ezaugarrietan aurrera egiteko, eta trazu eta keinu pertsonala lortzeko.

Marrazketa errealitatearen behaketa zehatz eta aktibotik abiatzen da. Beraz, abiapuntutzat dugun ikusmen-pertzepzioak nola funtzionatzen duten, honen legeek eta printzipioek, eta espazioan elementuen antolaketa ulertzea funtsezkoa da. Ikasleei hizkuntza grafikoaren elementuak, hauen formak, zeinuak, adierazpen-aukerak eta efektu bisualak ezagutzeak eta erabiltzen jakiteak, marrazketa oinarritzat hartuta, lan mekanismo bat eraikitzea errazten die. Horrek aukera ematen die irudiak, hauen egiturak eta konposizioa ulertzeko. Horrela, marrazketa formak aztertzeko metodo bihurtzen da, bertan objektuen ezaugarri nabarmenena erakusten da, aldi berean, objektuak gure aurrean beren egia osoan aurkitzen dira, oharkabean pasatzen zena azalduz. Metodo guztiek bezala, marrazketak lanean jarraitutasuna bat behar du. Gure proiektuetan beharrezkoak diren trebetasuna eta gaitasuna marraztuz bakarrik lotzen dira.

Ezagutza-metodoa izateaz gain, marrazketa adierazpen-metodoa da. Haren praktikan aurrera egitean, trazua eta keinua pertsonalagoak bihurtzen dira, gure adierazpen eta komunikazio aztarnak izatera iritsiz. Honi esker, errealitateari buruz dugun ikuspegia eta gure barne-mundua kanporatzea lortzen dugu.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.1, KAKK4.2.

7. Marrazketako berezko teknikak, tradizionalak zein digitalak, ezagutzea eta horiekin esperimentatzea, beharrezko tresnak, bitartekoak, euskarriak eta aurretiko trebetasunak identifikatuz, eta horiek erabiltzean pentsamendu dibergentea garatuz, ekoizpen grafikoak egitean modu arduratsuan, berritzailean, Iraunkorrean eta sortzailean integratzeko.

Ikasleek tresnen, bitartekoen eta euskarrien katalogo zabal baten aurretiazko oinarrizko ezagutzak eskuratu behar dituzte, marrazketa-teknika tradizionalekin zein digitalekin esperimentatu ahal izateko. Euren erabilera eta adierazpen-aukerak identifikatu ondoren, une bakoitzean euren helburuetarako egokienak direnak aukera ditzakete, eurekin esperimentatuz eta planteatzen zaizkien irudikapen grafikoetan soluzio alternatiboak arakatuz. Arlo horretan, halaber, erabiltzen dituzten materialen toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua ezagutzea garrantzitsua da, bai hauen ekoizpenari dagokionez, bai sortzen dituzten hondakinen kudeaketari dagokionez; hori guztia lan-praktika iraunkorrak, seguruak eta arduratsuak lortzeko helburuarekin.

Marrazketa analisi-metodo moduan ez ezik, sormen-hizkuntza gisa ere ezagutzeak irudikapen grafikoetan eman daitezkeen ikonikotasun-mailak, argi-ilunaren eta kolorearen adierazpen-balioak ulertzea dakar. Hasierako asmoarekin bat etorriz, baina sormen prozesuan aberastuko dituzten aldaketa posibleetara itxi gabe planteamendu desberdin horiek ebatziko dituzten ekoizpen grafikoak sortzeko. Gai bati soluzio desberdinak eta sortzaileak aurkituz eta, horrela, pentsamendu dibergentea garatuz. Ikasleek emaitza pertsonalak lortzeko, teknikarik egokienak hautatu behar dituzte, eta, horrez gain, teknika horien erabilera sortzailea, arduratsua, segurua eta iraunkorra berritu behar dute.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: KD2, STEM4, KPSII1.1, KPSII5, HK4, KAKK 4.1, KAKK 4.2.

8. Eskuratutako ezagutzak eta trebetasunak aberastea, akatsa hobetzeko eta ikasteko modutzat hartuz, oroimena eta oroitzapen bisuala garatuz, irudikapen grafikoko erronka berriei sormenez eta eraginkortasunez erantzuteko.

Errealitatearen irudikapen grafikoaren prozesuan, ondoren adierazgarriena hautatu eta abstraitzeko ingurua kontzienteki behatu behar da. Hautematen den errealitatea gure burmuinak jasotako informazioaz egiten duen berreraikuntza besterik ez da. Berreraikuntza horretan gure ikusizko oroimenak irudiak gogoratzeko gaitasun moduan ulertuta funtsezko faktore bezala esku hartzen du. Naturaletik marrazten denean, marrazkira eraman nahi den informazioa behatu, aztertu eta gorde egin behar da; horretarako, adierazpen grafikoan funtsezkoak diren trebetasunak oroitzapen bisuala eta oroimena lantzen dira. Ahokaduraren eta enkoadraketaren bidez, informazio hori planoan antolatzen da, eta proportzioak ezartzen dira bai formetan eta objektuetan, bai horiek inguratzen dituen espazioan.

Gainera, marrazteko prozesuan, batetik, akatsa hobekuntza eta ikaskuntza eran hartzen da, eta, bestetik, irudi mentalek, oroitzapenek eta irudimenak parte hartzen dute. Horregatik, ekoizpen grafikoetan, munduaren kanpoko ikuspegia eta interpretazioa ez ezik, barneko ikuspegia ere transmititzen da, eta adierazpen pertsonala eta gainerakoetatik bereizia lortzen da.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM4, KPSII1.1, KPSII 5, HK1, KAKK4.1, KAKK4.2.

9. Proiektu grafiko kolaboratiboak sortzea, diseinua eta prozesua planteatutako diziplinaren berezko beharretara egokituz, eta modu arduratsuan, sortzailean, jarrera positiboarekin eta errespetuarekin lagunduz haren plangintzan eta hura gauzatzean, balizko erronka profesionalei segurtasun handiagoz aurre egiteko eta proposamen horiek dakarten aberastasuna balioesteko.

Marrazketa diziplina-esparru askotan dago, hala nola diseinuan, arkitekturan, zientzian, literaturan edo artean. Proiektu zehatz bat modu kolaboratiboan eta helburu zehatz batekin diseinatzeko, plangintza egokia, antolaketa eta zereginen banaketa koherentea ezarri behar dira, diziplina-esparru bati egokitutako edozein proiektu grafiko sortzeak arrisku eta erronka garrantzitsuak bere gain hartzea dakarrela ulertuta. Ikasleak horretaz jabetu behar dira, eta une oro oso gogoan izan behar dute sortzen ari diren proiektuaren azken asmoa, baita erantzukizunak hartzearen eta besteen iritziak errespetatzearen garrantzia ere. Prozesu hori guztia lagungarria zaie ikasleei jakiteko hasierako plangintza egokitu behar dutela ekoizpenaren diseinuak berak eskatzen dituen zailtasun edo aldaketen aurrean. Era berean, ikasleek beren ideiak partekatzearen garrantzia ulertu behar dute, aurrean izan dezaketen publikoaren aniztasuna eta hedapen egoki baten eragina onartuz.

Sormen-prozesua eta azken emaitza ebaluatzea, akatsa hobetzeko eta ikasteko modutzat hartuta. Praktikara eraman aurretik izan daitezkeen akatsak eta ondo egindakoak aurkitzeak ondorengo sortze eta lantze-prozesua errazten du, hainbat alternatiba eta proposamen sartzea ahalbidetuz, eta, aldi berean, etorkizunean proiektu profesionalei aurre egiteko segurtasun handiagoa garatzen du ikasleengan.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM 3, KPSII1.1, KPSII3.1, KPSII3.2, EK1, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehengo maila	Bigarren maila
1. konpetentzia espezifikoa.	
1.1. Marrazketa mundua ezagutzeko eta ulertzeko bitartekotzat hartzea, ekimenez, jakin minez eta errespetuz gogoeta eginez adierazpen kultural eta artistiko desberdinetan duen presentziari buruz.	1.1. Marrazketak hainbat adierazpen kultural eta artistikotan duen presentzia irizpide propioz aztertzea, horien arteko erlazioak ezarriz, eta kultura- eta arte-aberastasun gisa sortutako esanahiak baloratuz.
1.2. Hainbat diziplina-esparrutan marrazketaren erabilera alderatzea, sormen-prozesuetan esku hartzen duten moduei buruzko azterketa autonomoa eta eztabaida konstruktiboa eginez.	1.2. Marrazketa hizkuntza grafiko intelektualizatu nola bihurtzen den ikustea, hainbat diziplina esparrutako ekoizpenen azterketa kritikoa eginez.
1.3. Kultura- eta arte-ondarearen sustapena eta kontserbazioa gizakiarentzat funtsezkotzat hartzea, ondare unibertsal gisa duen garrantziari buruzko irizpide pertsonalak defendatuz eta argudiatuz.	1.3. Kultura- eta arte-aniztasuna eta adierazpen askatasuna defendatzea, modu aktiboan, kritikoan, konprometituan eta errespetuz arrazoitutako eta argudiatutako diskurtsoa eginez.
2. konpetentzia espezifikoa.	
2.1. Jarrera ireki eta gogoetatsuarekin, hainbat proposamen artistikoren hizkuntzak eta elementu plastikoak arakatzea, historian zehar joeretan izan diren aldaketak ulertuz, eta hiztegia eta terminologia espezifikoa behar bezala erabiliz.	2.1. Hainbat proposamen artistikoren hizkuntzak eta elementu plastikoak jarrera ireki, kritiko eta gogoetatsuz aztertzea, askatasunean eragindako sorkuntza baloratuz eta mezuen asmoak aurreiritzirik gabe identifikatuz, hiztegi eta terminologia espezifikoak behar bezala erabiliz.

Lehenengo maila	Bigarren maila
2.2. Hainbat adierazpen kultural eta artistiko aztertzea, marrazketak adierazpen horietan betetzen duen zeregina ulertuz eta gizarteari erronka sortzaile eta estetikoek dakarkioten aberastasun kulturala eta artistikoa baloratuz.	2.2. Marrazketa ideiak eta irudimena bistaratu eta gauzatzeko elementu egokia zergatik den arrazoituta ulertzea eta azaltzea, horrela, arte egitatea interpretatzeko gaitasuna sustatzea lortuz.
3. konpetentzia espezifikoa.	
3.1. Oinarrizko baliabideen (puntua, lerroa, forma) eta horien sintaxiaren adierazpen-aukerak sentiberatasunez eta irudimenez esperimentatzea, sorkuntza grafikoaren prozesua hobetuz.	3.1. Norberaren errealitatea bozeto edo zirriborroetan grafikoki birsortzea, behaketa xehetik zein norberaren irudimenetik abiatuz, eta adierazpen pertsonal eta espontaneoa erabiliz.
3.2. Errealitatea bozeto edo zirriborroen bidez aztertzea, interpretatzea eta grafikoki irudikatzea, tresna egokiak erabiliz eta berezko, bat-bateko eta sormenezko adierazpena garatuz.	3.2. Modu pertsonalean, formen eta testuren adierazpen-aukerak aztertuko dituzten obra grafikoak egitea, zuzentasunez eta trebetasunez.
4. konpetentzia espezifikoa.	
4.1. Marrazkiak egiteko berezko aztarna eta keinuak ezartzea, materialen, tekniken eta euskarrien erabilera tradizionala manipulazio pertsonal eta berritzailearekin konbinatuz.	4.1. Aurrez esperimentatutako materialak, teknikak eta euskarriak gauzatze grafiko propioetan integratzea, gorputzak bere burua adierazteko baliabide eta modu gisa eskaintzen dituen aukerekin batera.
4.2. Konposizio bidimentsionalak, figuratiboak edo abstraktuak egitea, espazioaren pertzepzioa eta antolamendua arakatuz, eta norberaren adierazpen-asmorako egokienak diren teknika, material eta euskarriak arakatuz.	4.2. Hiru dimentsioko espazioa grafikoki birsortzea, bi dimentsioko edo hiru dimentsioko arte-ekoizpenetan, hainbat bitarteko eta teknika erabiliz, eta sakonerako efektuekin modu ireki eta irudimentsuan esperimentatuz.
5. konpetentzia espezifikoa.	
5.1 Norberaren intereseko arte-erreferenteetan eraginak eta loturak aktiboki aztertzea, aberasteko iturri gisa baloratuz eragin horiek.	5.1. Obra garaikideetan dauden arte erreferenteak modu aktiboan eta irekian ikertzea, kultura-herentziaren garrantzia onartuz.
5.2. Norberaren marrazki eta sorkuntza grafikoetan norberaren intereseko arte erreferenteetan erabilitako prozedurak edo teknikak txertatzea, sormen-praktika adierazpen eta komunikazio-bitarteko autonomo gisa erabiliz, eta errealitatearekin elkarreragiteko gaitasuna garatuz.	5.2. Praktika artistikoan norberaren sentimenduak eta emozioak adieraztea, ingurunearen eta bere intereseko obra artistikoen esplorazioa abiapuntutzat hartuz.
6. konpetentzia espezifikoa.	
6.1. Ikusmen-pertzepzioaren mekanismoak, horien legeak eta printzipioak ezagutzea eta erabiltzea, baita espazioko elementuen osaera eta antolamendua ere, horien aplikazioetan interesa agertuz eta komunikazio- eta/edo adierazpen-asmoekin aplikatuz.	6.1. Formak, horien tipologia, konbinazio posibleak eta hiri-inguruneetan edo ingurune naturaletan dauden espazio negatiboak eta positiboak grafikoki irudikatzea, nahita egindako eta hautazko azterketa baten bidez.
6.2. Norberaren irudikapenetan hizkuntza grafikoaren elementuekin esperimentatzea, marrazketa artistikoaren trazua eta keinua sartuz adierazpen- eta komunikazio-arrasto gisa.	6.2. Irudikapen grafikoetan trazu eta keinu pertsonal bat definitzea, lanean konstantzia aplikatuz, sorkuntza-prozesuan eskuaren eta garunaren artean sortzen den konexioa hobetzen saiatuz.
7. konpetentzia espezifikoa.	
7.1. Ikus-proposamen berberari soluzio grafiko desberdinak eta sortzaileak proposatzea, ikonikotasun-maila desberdinak erabiliz, beharrezko tresnak, bitartekoak eta euskarriak identifikatuz, aukeraketa arrazoituta eta errespetuarekin justifikatuz, erabileran berrikuntza bilatuz eta ingurumenean duen eragina kontuan hartuz.	7.1. Errealitatearen irudikapenerako soluzio alternatiboak eta sortzaileak proposatzea, ikonikotasun-maila desberdinetan, pentsamendu dibergentea erakutsiz, hautatutako tresnak, bitartekoak eta euskarriak behar bezala eta iraunkotasunetik abiatuta erabiliz, eta norberaren adierazpen-asmoetara egokitutako azken emaitza aktiboki bilatuz.
7.2.Errealitatearen interpretazio grafiko pertsonalerako tresnarik, bitartekorik eta euskarririk egokienak trebetasunez eta iraunkotasunaren ikuspegitik hautatzea eta erabiltzea, berezko sormen-asmoari hobekien laguntzen dioten argi-ilunaren eta kolorearen adierazpen-balioak erabiliz.	7.2. Tresnen erabileran berritzea, segurtasunez; ingurumen-inpaktua eta toxikotasuna, bitartekoak eta euskarriak errealitatearen edo barne-munduaren interpretazio grafikoetan kontuan hartuz, eta norberaren sormen-asmoari hobekien laguntzen dioten argi-ilunaren eta kolorearen adierazpen-balioak erabiliz.

Lehenengo maila	Bigarren maila
8. konpetentzia espezifikoa.	
8.1. Aukeratutako eredua grafikoki irudikatzea, akatsa hobetzeko modu gisa onartuz, haren ezaugarri adierazgarrienak hautatuz eta abstraituz, haren azterketatik eta analisitik abiatuta.	8.1. Behatutako errealitatea grafikoki interpretatzea, jasotako informazioa abstraituz eta oroimena eta oroitzapen bisuala lantzeko interesa jarriz.
8.2. Enkoadraketa, ahokadura eta perspektiba erabiltzea irudikapen grafikoko problemak ebazteko, bolumenak eta multzoak osatzen duen espazioa interes handiz aztertuz.	8.2. Adierazpen grafiko pertsonaletan eta sortzaileetan sakoneko perspektiba-efektuak lortzea, proportzioak eta argi-kontrasteak kontuan hartuz, eta perspektiba hiru dimentsionaltasuna birsortzeko metodo gisa baloratuz.
9. konpetentzia espezifikoa.	
9.1. Marrazketa artistikoarekin lotutako lanbideen adibideak identifikatzea, eskaintzen dituzten aukerak eta sormenak lanean duen balio erantsia ulertuz, eta norberaren iritzia arrazoituz eta errespetuz adieraziz.	9.1. Marrazketa artistikoarekin lotutako lanbideen adibideak ezagutzea, eskaintzen dituzten aukerak eta sormenak lanean duen balio erantsia arrazoituz eta errespetuz argudiatuz.
9.2. Diziplina-esparru jakin batean kokatutako proiektu grafiko kolaboratibo bat planifikatzea eta egitea, erantzukizunak hartuz eta besteen iritzia errespetatuz, marrazketa artistikoaren eta haren baliabideen adierazpen-balioak interes handiz erabiliz.	9.2. Produkzio grafiko bat modu kolaboratiboan diseinatzea eta sortzea, lan-metodo koherente bat planifikatuz eta marrazketa artistikoaren adierazpen-balioak aplikatuz.
9.3. Proiektu grafiko partekatu bat planifikatzean eta egitean sortutako zailtasunak aztertzea, akatsa hobetzeko eta ikasteko tresnatzat hartuz.	9.3. Proiektu grafiko partekatu guztien erronkei erabakitasunez eta jarrera positiboz aurre egitea, besteen ekarpenak errespetatuz, planifikatutako lan-prozesua eta egindako aldaketak ebaluatuz, baita azken emaitza ere.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehenengo maila
A multzoa. Orokorrak.
Ekimena, jakin-mina, errespetua eta irizpide propioa.
Aniztasunaren balorazioa aberastasun kultural eta artistikoaren iturri gisa.
Kultura eta arte-ondarearen sustapena eta kontserbazioa.
Marrazketa, gizartea ezagutzeko tresna bezala.
Jarrera irekia, kritikoa, gogoetatsua eta positiboa.
Plazer estetikoaren gaitasunaren garapena.
Sentsibilitatea, irudimena eta sormena.
Ikerketa eta berrikuntza.
Enpatia eta ikuspuntu diferenteen balorazioa.
Autoadierazpena, autonomia, autokonfiantza, autoestimua, onarpen pertsonala. Kultura herentziaren balioespena.
Ahaleginaren eta jarraitatutasunaren balorazioa lanean.
Pentsamendu dibergentearen garapena.
Ingurumen-iraunkortasuna.
Akatsa hobetzeko eta ikasteko modutzat hartzea.
B multzoa. Marrazketaren kontzeptua eta historia.
Marrazketa behaketako, gogoetako, irudimeneko, irudikapeneko eta komunikazioko prozesu interaktibo gisa.
Marrazketa artean: Antzinarotik arte garaikideraino. Hainbat sortzaileren lanik adierazgarrienak.

Lehenengo maila
Marrazketa, hainbat prozesu artistikoren zati moduan. Diziplina- eta ikus-esparruak: arte plastikoak eta ikusizkoak, diseinua, arkitektura, zientzia eta literatura. Marrazketarekin lotutako lanbideak.
C multzoa. Adierazpen grafikoa eta bere oinarrizko baliabideak.
Marrazketaren terminologia eta materialak.
Puntuaren aukera plastikoak eta adierazkorrak.
Lerroa: trazua eta grafismoa. Tramak.
Forma: tipologia, aplikazioak eta konbinazioak.
Formen eta horien eraldaketen hastapena: forma, elementuen eta erlazioen egitura eran ulertuta. Formen espazio negatiboak eta positiboak
Ikus- eta ukipen-ehunduraren hastapena.
Irudiaren ikonikotasun-mailak.
Bozetoa edo zirriborroa. Ahokadura eta marrazketa naturalaren hastapena.
Argazkigintzarekiko erlazioaren hastapena
Barneko, kanpoko, hiriko eta naturako espazioen hastapena.
Geometriaren eta naturaren hastapena.
Teknika grafiko-plastikoak, lehorrak eta hezeak.
Material grafiko plastikoak. Segurtasuna, toxikotasuna, ingurumen-inpaktua eta jasangarritasuna.
D multzoa. Espazioaren pertzepzioa eta antolamendua.
Ikusmen-pertzepzioaren oinarriak.
Gestalt-en psikologiaren printzipioak.
Ilusio optikoak.
Konposizioa metodo gisa. Konposizio-oreka. Ikusizko norabideak. Aplikazioak.
Ikusizko sintaxiaren antolamendu-sistemak. Aplikazioak.
Perspektibaren bidez espazioa irudikatzearen hastapena.
E.Argia eta bolumena.
Argia eta bolumena.
Argi eta argiztapen motak.
Tonuaren eta argi-ilunaren balorazioa.
Kolorearen izaera, pertzepzioa, psikologia eta sinbologia
Monokromia, bikromia eta trikromia. Kolorearen oinarrizko aplikazioak marrazketan.
F. multzoa. Teknologia eta tresna digitalak.
Pintura eta marrazketa digitaleko programen hastapena.
Marrazketa bektoriala.
Adierazpen artistikorako irudiak editatzeko tresnak.
Mugimenduan dagoen marrazketaren hastapena.
G. multzoa. Proiektu grafiko kolaboratiboak.
Proiektu grafiko kolaboratiboetan zereginen banaketa: hautaketa-irizpideak, eskatutako trebetasunetatik eta proiektuaren beharretatik abiatuta.
Erantzukizunak hartu eta besteen iritzia errespetatu.
Proiektu grafikoen faseak.
Hainbat diziplinatara egokitutako marrazketaren teknikak, erremintak, bitartekoak eta euskarriak hautatzeko estrategiak.
Proiektu grafikoen faseak eta emaitzak ebaluatzeko estrategiak.

Bigarren maila
A. Orokorrak.
Ekimena, jakin-mina, errespetua eta irizpide propioa.
Aniztasunaren balorazioa aberastasun kultural eta artistikoaren iturri gisa. Kultura- eta arte ondarearen sustapena eta kontserbazioa
Marrazketa, gizartea ezagutzeko tresna bezala.
Jarrera irekia, kritikoa, gogoetatsua eta positiboa.
Plazer estetikoaren gaitasunaren garapena.
Sentsibilitatea, irudimena eta sormena.
Ikerketa eta berrikuntza.
Enpatia eta hainbat ikuspunturen balorazioa.
Autoadierazpena, autonomia, autokonfiantza, autoestimua, onarpen pertsonala. Kultura herentziaren balioespena.
Ahaleginaren eta jarraitatutasunaren balorazioa lanean.
Pentsamendu dibergentearen garapena.
Ingurumen-iraunkortasuna.
Akatsa hobetzeko eta ikasteko modutzat hartzea.
B. Marrazketaren kontzeptua eta historia.
Marrazketa artearen historian zehar. Hainbat sortzaileren lanik adierazgarrienak.
Marrazketarekin lotutako lanbideak.
Irudikapen objektibotik subjektibora.
Bauhaus eta diseinua.
Marrazketa adierazpen artistiko garaikide gisa. Espazioan marraztu.
C. Adierazpen grafikoa eta bere oinarrizko baliabideak.
Oroimena eta oroitzapen bisuala.
Formak eta horien eraldaketa: forma, elementuen eta erlazioen egitura gisa ulertuta.
Formen espazio negatiboak eta positiboak Ikus- eta ukipen-ehundura.
Teknika grafiko grafiko-plastikoak, tradizionalak, alternatiboak eta digitalak.
D. Marrazketa eta espazioa.
Lerroa, marrazketa eta hiru dimentsiotasuna.
Perspektiba. Marrazketa artistikoan irudikapen-sistemen aplikazioa. Naturalaren enkoadraketa eta marrazketa. Argazkigintzarekin erlazioa.
Barneko, kanpoko, hiriko eta naturako espazioak.
Geometria eta natura.
E. Argia, argi-iluna eta kolorea.
Itzaleztadura eta orbana. Eskalak eta gako tonalak.
Kolorearen nolakotasunak eta erlazioak. Kolore-kontrastea. Kolore lokala, tonala eta girokoa. Kolorearen erabilerak marrazketan.
Kolorearen dimentsioak. Aplikazio praktikoak.
Perspektiba atmosferikoa.
Lerroari lotutako kolorea. Arte optikoa eta geometrikoa.
F. Giza irudia.
Gizakiaren irudikapena historian zehar. Kanona eta proportzioa. Edertasun-estereotipoak hainbat garaitan.
Anatomia artistikoari buruzko oinarrizko nozioak.
Naturalaren oharra. Eskortzoaren azterketa eta irudikapena.

Bigarren maila
Erretratua. Aurpegierak eta espresioak.
Giza gorputza euskarri eta adierazpen artistikoko tresna moduan.
G. Proiektu grafiko kolaboratiboak.
Proiektu grafiko kolaboratiboetan zereginen banaketa: hautaketa-irizpideak, eskatutako trebetasunetatik eta proiektuaren beharretatik abiatuta.
Erantzukizunak hartu eta besteen iritzia errespetatu.
Proiektu grafikoen faseak.
Hainbat diziplinatara egokitutako marrazketaren teknikak, erremintak, bitartekoak eta euskarriak hautatzeko estrategiak.
Proiektu grafikoen faseak eta emaitzak ebaluatzeko estrategiak.

MUSIKA-LENGOAIA ETA -PRAKTIKA

Musika-Lengoaia eta -Praktika jakintzagaiak musika-lengoaiaren osagai propioak identifikatzea du abiapuntu, jarraian osagai horiek interpretazioaren eta entzutezko ezagutzaren bidez praktikara erama-teko. Horrexegatik, xede bikoitza dauka: musika-lengoaiak osatzen dituzten osagaien ezagueran sakon-tzea eta komunikazio artistikorako gaitasuna sentimenduen eta emozioen adierazpenetik handitzea, musika-esperientzia biziz eta kritikoki baloratuz.

Musikak eta bere praktikak (interpretazio, inprobisazio zein sorkuntzaren bitartez) gaitasun ugari aktibatzen dituen adierazpide kultural bat osatzen dute, izatez. Hauek ikasterakoan, musika eraikitzean dauden faktore psikologiko, estetiko eta soziokulturalak ez ezik, arte honek erabiltzen dituen soinu-materialen izaera fisikoa eta bere erlazioen oinarri den proportzionaltasun matematikoa erakusten die ikasleei.

Musika-osagai horiek ulertzeak komunikatzeko eta ahotsaren, instrumentuen eta gorputzaren bitartez adierazteko gaitasuna perfekzionatzen lagunduko du. Halaber, kodearen eta terminologiaren espezifikoaren identifikazioa eta ulermena batera eskuratzea dakar. Horri esker, ikasleek musika-errepertorio anitz eta zabal bat aurkituko dute eta bere irudikatzea deskodifikatzen ikasiko dute musikaz egokiro hitz egin ahal izateko. Azken horrek entzuteko sentsibilitatea, musika-memoria eta iritsi estetiko propioen garapena sustatzen du.

Musikaren arloko aplikazioak eta bitarteko digitalak ikertu, informazioa lortu ikertzeko, informazioa lortzeko eta komunikatzeko erabiliko dira. Musika grabatu, erreproduzitu, sortu eta interpretatzeko erabiliko dira ere, pribatutasuna, jabetza intelektuala errespetatuz eta informazioa egokiro erreferentziatuz.

Oinarrizko hezkuntza amaitzerakoan ikaslearen irteera-profila osatzen duten konpetentziei eta Batxilergoko etapako helburuei loturiko bost konpetentzia espezifiko abiapuntu hartuz garatzen da jakintzagaia. Konpetentzia horiek eskuratuz gero, ikasleek musika-hizkuntzaren elementuak ezagutu eta erabili ahal izango dituzte, eta interpretaziotik eta sorkuntzatik abiatuta musikara hurbiltzeko beharrezkoa den sentsibilitatea bereganatuko dute. Era berean, hori lortzeko, irakurketan eta musika-diskurtsoa gauzatzean autonomia lortu behar da, ezinbestekoak baitira arte-erreferentzia ugari hautemateko eta norberaren musika-irizpidea osatzeko.

Planteatutako ebaluazio irizpideak ikasleek eskuratu duten konpetentzia-maila zehazteko eta oinarrizko jakintzak zenbateraino barneratu diren jakiteko erabiliko dira.

Oinarrizko jakintzak bi bloketan banatuta daude: “Musika-lengoaia” alde batetik, musika osatzen duten osagaiak ikastea ahalbidetzen duena; eta, bestetik, “Musika-praktika” delako blokea. Azken honetan entzuteko, interpretatzeko edo irakurtzeko estrategiak eta teknikak ikasiko dituzte, bai eta aplikazio eta programa informatikoak erabiltzen ere partiturak editatu, musika eta ikus-entzunezko lanak ekoiztu eta zabaltzeko.

Ikasleak partaide eta protagonista aktibo izango dira ikaskuntza-prozesuan, ikas-egoerak garatuko dituzten proposamen didaktikoen bitartez. Azken horiek ikasitako bitarteko ezberdinak (autonomia, ekime-

na, sormena, elkartasuna eta aniztasunarekiko errespetua, adibidez) mobilizatuko dituzten erronka errazak bultzatuko dituzte. Gainera, lankidetza lanak antolatzeak konpetentzien garapena bultzatuko du, berdinen arteko ikaskuntza esanguratsua erraztuz.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Entzute aktiboa erabiltzea, jarrera irekia eta adeitsua agertuz, arreta-estrategiak aplikatuz eta lan bat osatzen duten osagaiak identifikatuz eta hiztegi egokia erabiliz deskribatuz, musika-hautemateak berezko dituen alderdi subjektiboen eta emozionalen inguruan hausnartzeko.

Musika-lengoaia osatzen duten osagaiak ezagutzea eta deskribatzea, entzute aktibotik abiatuta, ezinbestekoak dira musika-lanak ulertu ahal izateko. Zailtasun progresiboa izango duten entzutezko hautemate-ariketen bitartez, ikasleek beharrezko trebetasunak garatuko dituzte musika-osagaien soinu-identifikazioa egin ahal izateko, bai eta osagai horiek musika-diskurtsoaren barruan duten eginkizuna aitortzeko. Honela, interpretazio- edo sorkuntza-prozesuetan eta identitate kultural propioa eraikitzeko aplika daitezkeen musika-patroiak barneratzeko prestatuko dira ikasleak.

Esparru horretan, beharrezkoa da ikasleek musika-terminologia egoki bat ulertzea eta erabiltzea, obraren ezaugarriak ez ezik, obraren sentsazioak ere modu egokian deskribatu ahal izateko eta norberaren esperientziaren alderdi subjektiboetan sakonduz.

Lan mota ezberdinak entzuteak, halaber, sonoritate berrietarantz irekitzeko jarrerak garatzea ahalbidetuko du, norberaren gustu propioak aberastuz.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, STEM2, KPSII1.1, KPSII3.1, KAKK1, KAKK3.1.

2. Estilo eta aldi ezberdinetako lanen musika-osagaiak identifikatzea, grafia ezberdineko partiturak aztertuz eta alderatuz, beren ezaugarriak deskribatzeko eta musika-notazioaren bilakaeran eragina izan duten faktoreen inguruan hausnartzeko.

Musika-osagaiak (doinu, erritmo, harmonia, tinbre, etab.) grafia ezberdineko partituren analisiaren bitartez identifikatzeari eta ulertzeari esker ikasleek loturak eratuko dituzte idatzitako musika-kodearen eta lanaren entzute-hautematearen artean. Era berean, musika denboran zehar kontserbatzeko bitarteko gisa duten erabilgarritasunaren inguruko hausnarketa ahalbidetzen dute.

Bere bilakaeran, musika-lengoaiak forma ezberdinak hartu izan ditu gizateriaren printzipio estetikoetara eta adierazpide-beharretara egokitzeko. Grafia ezberdineko partituren bitartez eginiko azterketa konparatiboak erabilitako kodea azaleratuko die ikasleei, jarraian deskodifika dezaten; baina, halaber, euskarri bat izango da beren behaketa eta azterketaren bitartez musika-sorkuntzan eta, horrenbestez, partituran izango duten irudikatzean eragiten duten testuinguru-faktoreak zehaztu ahal izateko.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, HKK2, STEM2, KPSII1.1, KAKK2.

3. Musika interpretatzeko estrategiak aplikatzea, irakurketa musika-lanera hurbiltzeko bitarteko gisa erabiliz eta, pixkanaka, musika-hizkuntza deskodetzeko eta integratzeko trebetasunak bereganatuz, inprobisazioak egiteko edo autonomiaz eta autokonfiantzaz exekutatzeko.

Musika interpretatzeko prozesuetan partiturak irakurtzea, entzunaldiaren laguntzaz edo gabe, lana deskubritzeko bitarteko bat bilakatzen da, osagaiak zehaztea eta musika-patroiak barneratzea ahalbidetzen baitu. Zentzu horretan, musika-kodearen identifikazioa, bere aplikazio praktikorako, errazagoa izango da aurretiko entzunaldi-prozesuekin eta partituraren jarraipenarekin osatuz gero. Gainera, barneratutako musika-materialetatik abiatuta, inprobisazioak (bakarka edo taldean, askeak edo zuzenduta)

egitea ahalbidetzen da. Inprobisazio horietan ideia berriak garatuko dira ahotsa, gorputza edo musika--tresna ezberdinak erabiliz.

Era berean, baliabide horiek erabiltzeko, beharrezkoak diren trebetasun teknikoak eskuratzea eskatzen du. Horrenbestez, konpetentzia hau lortzeko funtsezkoa izango da entsegua irakurtzeko, entzuteko, ikasteko eta musikaz elkarrekin gozatzeko eta, halaber, adierazpen-abileziak eta -trebetasunak garatzeko espazio gisa hartzea.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK2, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, KAKK3.1, KAKK3.2.

4. Musika-proiektuak egitea, haien faseak planifikatuz eta inplementatuz eta taldearen barruan askotariko funtzioak bere gain hartuz, enpatiaz eta elkarlanean, sormen-prozesuak bultzatzeko eta garapen pertsonal, sozial, akademiko eta profesionalerako aukerak identifikatzeko.

Musika-proiektuetan parte hartzea jakintzagaiaren berezko ikaskuntzak sormenezko esparru batean aplikatzeko aukera gisa aurkezten da. Bertan, aldez aurretik landutako musika-materialak hautatu edo berriak sor daitezke, eta, horrela, ondare artistikoa transmititzen eta berezko balioa aitortzen lagun.

Proiektuak elkar-lanean egitean, hainbat funtzio bere gain hartzea sustatzen da, eta prozesuaren fase guztietan aktiboki parte hartzea eta konpromisoa hartzea. Esperientzia horri esker, garapen pertsonal, sozial, akademiko eta profesionalerako aukerak aurkitu eta identifikatu ahal izango ditu, musikari lotuta.

Era berean, elkarlaneko musika-proiektuak garatzeak iritzi-aniztasunarekiko errespetuzko jarrerak lantzen laguntzen du, ikasleen hazkunde pertsonal eta soziala bultzatuz.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: STEM3, KD3, KPSII3.2, KPSII5, HK2, EK1, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

5. Teknologia digitalek musikaren arloan eskaintzen dituzten aukerak erabiltzea, soinua prozesatzeko, ikus-entzunezko ekoizpenerako eta partiturak editatzeko tresnak erabiliz jabetza intelektuala errespetatuz, musika idazteko, sortzeko eta zabaltzeko prozesuak garatzeko.

Tresna eta bitarteko teknologikoek eskaintzen dituzten aukerei esker, ikasleek gertaera musikalean parte har dezakete partiturak editatzeko eta soinua edo ikus-entzunezkoak ekoizteko prozesuen bitartez. Horretarako, aplikazio eta programa ezberdinak erabiliko dituzte. Baliabide horietako askok interfaze bat dute beste hizkuntza batean, batez ere ingelesez, eta horrek, aldi berean, beste hizkuntza bateko musika-hizkuntza tekniko bat eskuratzea errazten du.

Halaber, burututako musika-ekoizpenak edo ikus-entzunezko ekoizpenak Interneteko plataforma digital ezberdinen bitartez zabalduko direnez, ikasleen ohiko komunikazio-esparrua hedatu egingo da. Zentzu horretan, erabilitako espazio birtualen arriskuak ebaluatu beharko dituzte ikasleek, izaera pertsonaleko datuak babesteko neurriak ezagutu beharko dituzte eta jabetza intelektualaren eta egile-eskubideen errespetua bermatu beharko dute.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: KD1, KD2, KD3, KPSII1.1, EK1, EK3, KAKK2, KAKK3.1, KAKK4.1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Musika-Lengoaia eta -Praktika
1. Konpetentzia espezifikoa.
1.1 Lan baten musika-parametro eta osagai ezberdinak ezagutzea eta deskribatzea, entzute aktiboko estrategiak aplikatuz eta hiztegi espezifiko egokia erabiliz.

Musika-Lengoaia eta -Praktika
1.2 Musikak sortzen dituen sentsazioak eta lanaren ezaugarriekin izan dezaketen harremana jarrera irekia mantenduz eta adeitasunez partekatzea, entzute musikalak berezkoak dituen beste alderdi subjektibo batzuen inguruan hausnartuz.
2. Konpetentzia espezifikoa.
2.1 Estilo eta aldi ezberdinetako obren partituretan (ohiko grafiaz idatzita edo ez) presente dauden musika-osagaien (doinu, erritmo, harmonia, tinbre, etab.) ezaugarri nagusiak deskribatzea, beren osagaiak identifikatuz eta aztertuz.
2.2 Grafia ezberdina duten partituretako musika-elementuen irudikatzea alderatzea, musika-notazioaren bilakaeran eragin duten alderdien inguruan hausnartuz.
3. Konpetentzia espezifikoa.
3.1 Partitura errazak autonomiaz irakurtzea, entzunaldi baten laguntzarekin edo gabe, beren osagaiak identifikatuz eta musika-patroiak barneratuz.
3.2 Musika-zati errazak interpretatzea, bakarka edo taldean, ahotsa, gorputza edo musika-instrumentuak erabiliz, partituran dauden indikazioak jarraituz, norbere buruarengan konfiantza osoarekin.
3.3 Beharrezko trebetasun teknikoak eta adierazpide-abileziak erabiltzea ahozko zein instrumentu bidezko interpretaziorako edo interpretazio koreografikorako, entseguak (bakarka edo taldean) entzuteko, ikasteko eta gozatzeko espazio gisa hartuz.
3.4 Musika- edo koreografia-ideia errazak sortzea, besteon proposamenak onartuz eta hainbat musika-tresna, ahotsa edo gorputza erabiliz, inprobisazio libre edo gidatuetan.
4. Konpetentzia espezifikoa.
4.1 Elkarlaneko musika-proiektuak planifikatzea eta garatzea landutako musika-materialak aukeratuz edo berriak sortuz jakintzagaian barneratutako jakintzen aplikazioan oinarrituta.
4.2 Eginkizun ezberdinak hartzea kooperazio-izaerako musika-proiektuen plangintzan eta garapenean, aktiboki parte hartuz beren gauzatzean, beste taldekideen ekarpenak baloratuz eta garapen pertsonal, sozial, akademiko eta pertsonalerako aukerak identifikatuz.
5. Konpetentzia espezifikoa.
5.1 Musika-proiektuak garatzea, lorturiko jakintzak praktikara eramanaz eta partiturak editatzeko, soinua prozesatzeko eta ikus-entzunezko ekoizpenerako tresnak erabiliz.
5.2 Musika-ekoizpenak eta ikus-entzunezko ekoizpenak plataforma digitalen bitartez zabaltzea, ingurune seguruak erabiliz eta jabetza intelektuala eta egile-eskubideak errespetatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Musika-Lengoaia eta -Praktika
A. Musika-lengoaia.
Soinuaren parametroen irudikapen musikala.
Doinua: bitarteak eta eskala motak.
Erritmoa: neurriak; erritmo irregular eta askeak; polirritmiak eta polimetriak, balorazio bereziko taldeak.
Harmonia: fenomeno fisiko harmonikoa; bostunen zirkulua; eginkizun harmoniko nagusiak tonalitatean; akorde, lotura eta kadentziak; modulazioak eta tonu-progresioak. Modalitatea.
Musika-forma: egiturazko unitateak; forma sinple eta konplexuak.
Musikaren adierazpen-osagaiak: dinamika, agogika eta artikulazioa.
Ohiko grafia eta musika garaikidearen notaziorako sarrera.
B. Musika-praktika.
Musika-lanak edo -zatiak entzuteko edo ikusteko estrategiak.
Ahots bakarreko diktaketa errazak idatziz jasotzeko teknikak.

Musika-Lengoaia eta -Praktika
Ahotsaren, gorputzaren edo musika-tresnen bidez musika interpretatzeko teknikak, laguntzarekin edo laguntzarik gabe.
Musika-egitura errazak irakurtzeko, barneratzeko eta memorizatzeko estrategiak.
Tonu - eta modu- egituren entzumen-eta interpretazio-praktikak.
Erritmo, melodia eta harmonia eskema aske edo finkoen gainean inprobisatzeko estrategiak eta teknikak, mailaren arabe-rakoak.
Soinua, musika eta ikus-entzunezko ekoizpenak editatzeko eta ekoizteko teknikak eta aplikazio informatikoak. Lizentzia askeko aplikazio eta programa informatikoen berezko funtzionaltasunak.
Musika zabaltzeko jarraibideak: datuen babesa, jabetza intelektuala eta egile-eskubideak.
Musika-osagaiak mendebaldeko musika-tradizioan, folklorean eta hiri-izaerako musika herrikoietan.
Sentimendu, emozio eta ideia artistikoak adierazteko eta komunikatzeko trebetasunak.
Lankidetza-lanak antolatzea eta planifikatzea.
Musika sortzeko eta interpretatzeko prozesuetan autokonfiantza, autoestimua, ekimena eta lidergoa indartzeko estrategiak.

PROIEKTU ARTISTIKOAK

Proiektu Artistikoak jakintzagaiaren xedea osagai artistiko batetik abiatuta norbanakoan eta gizartean eragin positiboa izan dezaketen proiektuak garatzeko beharrezkoak diren konpetentziak transmititzea da. Ikasleek, Kultura eta arte ondarearen ezagutza balorazio eta balioestetik abiatuta, rol bikoitza hartu beharko dute: artista sortzaile eta proiektu-kudeatzaile.

Jakintzagai hau kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako funtsezko konpetentziari, eta ekintzailetza konpetentziari zuzenean lotua dago. Horrez gain, proiektu artistikoak garatzea sustatzen duten inguru-neak eta ingurune sortzaileak sortzen lagunduz, pertsona guztien egiazko berdintasuna sustatuz, bal-dintzatzaile sozial edo pertsonal guztien gainetik herritartasunerako konpetentzia garatzen du. Ekimen artistikoak sustatzen dituzten ingurune horiek malguak izan behar dute “nola”-ri dagokionez baina oso zorrotzak “zer” eta “noiz” aldagaiei dagokienez. Honela, autodiziplina eta inplikazioa sustatuko dute garatutako jardueran, bai eta taldean lan egiteko gaitasuna ere, konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa delakoari lotuta. Proiektu artistikoen alderdi sozialak eta globala ere izan daitekeen beren irismenak konpetentzia eleaniztuna, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia digitala lortzea eskatzen du.

STEM konpetentziak ondoko kontzeptuak biltzen ditu, besteren artean: ingurune naturala eta soziala ulertzea eta azaltzea jakintza eta metodologia zehatz batzuk erabiliz, behaketa eta esperimentazioa barne. Horren guztiaren helburua galderak planteatzea eta probak oinarri dituzten ondorioak ateratzea da mundu naturala eta testuinguru soziala interpretatu eta eraldatu ahal izateko, sorkuntza artistikoak berezko duen ariketa bat.

Sorkuntza-lana bultzatuko duen ingurunea ikasgelan bertan eraikitzea, ikasgelatik kanpoko edozein proiektu abiatu aurretik oso garrantzitsua da. Ikasleek beste jakintzagai batzuetan barneratuko dituz-ten eta garatuko diren proiektuen gaiak eta edukiak berma ditzaketen jakintzak, trebetasunak eta ja-rrerak aintzat hartu beharko dira. Koordinazioa bermatzea jakintzagai horiekin; eta lana diziplinartekoa noiz bilakatuko den zehaztea ezinbestekoa izango da. Horrek ikaste holistiko eta konpetentzial bat erraztuko du.

Jakintzagai honek sei konpetentzia espezifiko ditu. Horien xedea da proiektu artistiko iraunkor baten diseinu, garapen eta ebaluaziorako funtsezko alderdiak lantzea Kultura eta arte ondarearen jakintza, balorazio eta balioeste batetik abiatuta; jarraian egilearen rola dator, sormena garatuz; eta, azkenik, proiektu-kudeatzailearen rola gauzatu behar da proiektu artistikoa diseinatuz eta antolatuz, bere faseak zehaztuz, komunikazio publikoa eta proiektuaren ebaluazioa eginaz eta eragina neurtuz. Konpetentzia

espezifikoak ez dira bata bestearengandik isolatua dauden osagai isolatutzat hartuko, beren artean indartzen eta konbinatzen diren loturiko eginkizuntzat baizik.

Ebaluazio irizpideak konpetentzia espezifikoak ebaluatzen dituzten curriculum-osagaia dira. Konpetentzia-orientazio nabariarekin formulatu dira, jakintzen aplikazioaren eta jarreren balorazioaren bitartez.

Oinarrizko jakintzak lau bloketan banatzen dira: orokorrak; Kultura eta arte ondare; sormena eta proiektuak kudeatzea.

1. Orokorrak. Bloke honek ekoizpen artistikorako zein ikaste zereginerako balorazio, konpromiso eta jarrera proaktiborako tresnak eskaintzen ditu.
2. Kultura eta arte ondare Ekintzailetza kulturala. Bloke honek ondarea lantzen du, ezaguera, inspirazio eta aukera pertsonal, sozial eta ekonomikoetarako iturri gisa. Ondarearen osagaien ikuspegi osoa eta integratua lortzeko eta osagai horien potentzialtasunak hautemateko eta aprobetxatzeko tresnak eskaintzen ditu.
3. Sormena. Lan-ingurune sortzaileak. Bloke honetan sormena eta sormena −artistikoa gehienbat− sustatzen duten faktoreak lantzen dira. Gaitasun honek ingurune onuragarri bat behar du bere garapen osoa bermatzeko.
4. Proiektu artistikoak kudeatzea. Faseak. Eragina. Bloke honek proiektu artistikoen diseinua, beren fase ezberdinen kudeaketa, eta azkenean izango duten eragin sozialaren neurketa lantzen du.

Jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak eskuratzeko beharrezkoa izango da ikasleei esperientzia aukera zabala esploratzeko aukera emango dieten ikaskuntza-egoerak antolatzea. Egoera horien garapenean konpetentzia espezifikoak batera landuko dira, banan-banan landu ordez, kasu bakoitzean esanguratsuenak diren jarduerak planteatuz. Honela, jakintzak, trebetasunak eta jarrerak elkarrekin lotuta eta progresiboki bereganatuko dira, beren konplexutasunari dagokionez. Egoera horiek beren heziketa-aplikazioen eta aplikazio profesionalen ikuspegi zabala emango diete ikasleei, beren alderdi anitzetan.

Proiektu artistikoak ikastetxetik kanpo lan egitea eskatzen du. Ikastetxea bera, ordea, gertueneko testuinguru sozialera irekitako ekimen artistikoen haztegi bilakatu beharko da.

Aipatutako proiektuek testuinguru horretan une bakoitzean eragiten duten kezkak bildu beharko dituzte: ikusgarritasuna eta ahotsa ematea gizarte-egoera larrian edo estigmatizatuta dauden taldeei eta, halaber, berdintasuna, begirunea eta bestearen aitortza bezalako printzipioak sustatzea. Garrantzi berezia dauka sorkuntza artistikoko proiektuen bitartez emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna eta gorroto-delituen aurkako borroka sustatzea.

Lorturiko eragin soziala egungo munduaren ezagutza kritiko batetik zehaztu eta ebaluatuko da eta ingurumen-iraunkortasunaren aldeko konpromiso batekin.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Kultura eta arte ondareak jakintza-, inspirazio- eta aukera-iturri gisa duen balioa onartzea, kanal ezberdinetako hautemate zuzenaren bitartez, jarrera kritiko, interes eta begirunez, ondare globala eta gertukoa alderatuz, gizarte-kohesiorako duen eginkizunaren inguruan hausnartuz, aniztasuna, adierazpen-askatasuna preziatzeko eta garapen kultural bera aberasteko.

Gizakiari bere burua munduaren baitan ulertzen eta besteekin erlazionatzen laguntzen dioten ikurren ekoizpen kolektiboa da kultura. Berrikuntza eta aberaste erreferentzia-prozesu dinamiko bat. Bere zentzua eta esanahia produktu kulturalei lotuta daude. Produktu horiek, materialak zein immaterialak, kultura eta arte ondarea osatzen dute.

Kultura eta arte ondare globala ezagutu, preziatu eta baloratzeko gure ingurunea eta testuingurua osatzen duten produktu horietatik hasiko gara, gertueneko ondaretik. Hau da, sinbologia eta esanahi sozial bati

loturiko edozein adierazpen, material zein immaterial, komunitatean mendetan zehar egon den edo berriki gehitua izan den aintzat hartu gabe. Gertuko ondarearen hautemate proaktiboak, jarrera kritiko, interes eta begirunez eta, ahal bada, aurrez aurre gauzatua, hausnarketa kritikoaren garapena sustatzen du, ondareak duen gizarte-loturako eginkizunaren, aniztasun kulturalak suposatzen duen aberastasunaren kontzientziazioa, adierazpen-askatasuna eta gizartearen balio demokratikoak sustatzen ditu.

Gertueneko ondarea zer den eta zer eginkizun duen era irekian eta aberasgarrian ulertu ostean, azterketa konparatibo bat egin beharra dago ondare globalarekin. Gertuko ondarea zaindu eta bere balioak sustatzen direnean gauza bera egiten da ondare globalarekin, bereizezinak baitira biak. Egun, tresna digitalei esker, ondarearen hautematea kanal ezberdinen bitartez egiten da. Horrexegatik, ikasleek tresna digitalen erabilera kritiko, etiko eta arduratsu bat egin behar dute. Konexioak ezartzen dira distantzia fisiko handira dauden produktu kulturalekin, ideiak askatasunez adierazten dira, balizko kritikak (formalak zein edukiari loturiko horiek) irmoki argudiatzen dira, ondarearen osagai ezberdinekin esperimentatutako sentimenduak eta emozioak adierazten dira. Azkenik, terminologia espezifikoa erabiltzeak ikasleak duen komunikatzeko gaitasuna garatzen du.

Ondarearen balorizazioak eta kontserbazioak ikasleen beren ekimenei erantzun behar die; ondare globalarekin egindako azterketa konparatiboaren ostean, gertueneko ondareari lotuta egon beharko lukete nagusiki.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, KD1, KPSII1.1, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

2. Gertueneko kultura eta arte ondarearen asmoa, espezifikotasuna eta testuingurua jarrera irekiaz ikertzea, bere osagarriak bereiziz eta ondare globalarekin alderatuz, kultura berritze- eta aberaste--prozesu dinamiko gisa ulertzeko eta gozamen estetikoa zein ikuspegi kritikoa sustatzeko.

Ondareak bere motibazioaren, esanahiaren eta testuinguruaren eta bere adierazpen zehatza baldintzatzen duten ezaugarri espezifikoen ikerketa sakona eskatzen du.

Ezagutza horrek ez du esan nahi negatibotzat jo diren osagaiak onartuko direnik. Ondarea, edo bere kontsiderazioa prozesu dinamikoa direnez ondarearen esanahia berriz zehaztu daiteke, unean uneko eskari sinbolikoetara egokituz.

Gure gizarteak pluralak eta anitzak direnez, horrelakoak izango dira ere ikasle-taldearen ikuspegiak. Hori da lortu beharreko puntua etenik gabe berrituz eta esanahiz aldatuz joango den ondare horren gozamen partekatura iristeko.

Finean, ondarearen esanahia eta sinbologia berregokitzea da gakoa, balorazioaren bitartez, uneanunean oinarritutako analisi kritikoa eginaz eta kultura berritze eta aberaste erreferentzia-prozesu dinamiko gisa aintzat hartuz. Bai eta ondarea eta bere produktu kulturalen osagai formalen eta edukiaren ikuspegi kritiko bat sustatzea ere.

Aro bakoitzean gailendu diren historiek, ideiek eta ideologiek zenbait produktu kulturalei, beste batzuen gainetik lehentasuna eman ohi diete. Horrenbestez, gakoa, produktu kulturalek sinbologia eta esanahi ezberdinei, tokiko eta gizartearen baldintzatzaileen eta egoeren arabera, nola erantzuten dieten zehaztea da. Produktu kultural batzuek kultura guztientzat komunak diren adierazpenei nola erantzuten dieten zehaztu beharra dago ere. Ondarearen ezaguera sakonago batek gozamen estetikoaren garapena bultzatzen du.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, HKK2, HKK3, KD1, KPSII1.1, KPSII1.2, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

3. Identitate propioa eta erreferentzia kulturalak era sortzaile eta berritzailean adieraztea, jarrera ireki eta positiboz, euskarri edo baliobide gisara gertuko ondarea eta/edo ondare globala erabiliz, norberaren ezagutza, norberaren estimua eta norberarenganako konfiantza indartzeko.

Nortasun kulturala zentzua eraikitzeko prozesu gisa ulertuta, elkarren artean batu eta gainjartzen diren geruza ugariz osatuta daude. Geruza kulturalak ez dira osagai zurrunak: eboluzionatuz doaz, norbanakoak egiten duen heinean. Nortasun-geruza berriak gehitzearekin batera, ikasleek dagoeneko dituzten horiek kudeatu behar dituzte ere. Kudeaketa hori jarrera ireki eta positibo batean oinarrituta egin behar da, besteak eta norbere burua errespetatuz.

Gertuko ondareak norbanako edo talde baten identitate kulturala afinitate zein kontrastearen bidez adieraztea ahalbidetzen duten osagaiak ditu.

Pentsamendu dibergenteari loturiko sormenak ikuspegi berritzaileak, soluzio berriak, ikusmira ezberdina aplikatzea dakar; baita norbere buruarena ere. Inprobisatzeko eta berriz sortzeko gaitasuna funtsezkoa da sortzaile izateko. Era berean, erresilientzia norbanakoaren sortzeko gaitasunari estuki lotua dago, uneoro aldatzen doan mundu batean kokatzekorakoan gehienbat.

Ondarearen osagaien sinbologia eta esanahia berengan egindako jarduketa artistikoen bitartez alda daitekeenez, erreferentzia kultural propioen adierazpenak identitate horren eraldatzea suposa dezake.

Eraldatzeko gaitasun horrek, behin trebetasun bilakatuta, oso aldakorrak diren egoeretara egokitzeko aukera ematen dio norbanakoari, kokapen- edo ainguratze-osagai moduko bat galdu gabe.

Honela, ekimen eta ekintzailetzarako gaitasuna gertuko ondarearen gainean garatu ahalko du, norbere buruz duen ikuspegi berriak ondare horren inguruan emango dion kontsiderazioak bultzatuta.

Konpetentzia espezifiko hau ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, HKK2, STEM 2, KPSII1.1, KPSII1.2, HK1, EK1, KAKK 3.1, KAKK 3.2.

4. Komunikatzea eta adieraztea xede duten proiektu artistiko kulturalak eta iraunkorrak diseinatzea, ahalik eta partaide gehien lan-taldean inplikatuz, espazio, baliabideak, euskarri eta teknikak aukeratuz, ahal dela gertuko ondarearen aukerez baliatuz bere aniztasun sozial eta kulturala baloratzeko eta partekatutako identitate kultural bateko izate-zentzua indartzeko.

Proiektu artistiko iraunkor bat kudeatzeko prozesu orok partekatutako helburuen zehaztea izan behar du abiapuntu. Proiektu horiek gertuko testuinguru sozialean dauden kezkak landu behar dituzte, ikusgarritasuna eta ahotsa emanaz gizarte-egoera larrian dauden taldeei eta berdintasuna, begirunea eta bestearen aitortza sustatuz. Ekimenaren sustatzailea norbanako bat izan daiteke baina proiektuan parte hartuko dutenek bere zentzua eta intentzioa barneratu beharko dituzte, hasierako bulkada hori aberastuz. Prozesu guztian zehar ikasleek erantzukizunak hartu beharko dituzte, besteen iritziak errespetatu, lanerako jarraitutasuna izan, akatsa hobetzeko aukera gisa eta taldea aberastasun-iturri hartu beharko dituzte. Diseinu horrek ondokoak zehaztuko ditu: egin nahi denaren ikuspegi globala, nola eta non egin nahi den, zeinek eta nola parte hartuko duen eta aurreikusten diren emaitza artistiko eta sozialak. Halaber, zereginak banatuko dira, beharrezko trebetasunen eta proiektuaren beharren arabera.

Ezinbestekoa izango da dokumentazioa sortzea prozesua baino lehen, prozesuen zehar eta ondoren; eta diseinua bera, prozesua eta emaitza ebaluatzea. Ebaluazioa hasiera-hasieratik zehaztu behar da eta prozesua garatzen den bitartean gauzatu, faseak eta azken produktua optimizatzeko. Ebaluazio hori ikasleek prestatuko dute, beraiek zehaztu beharko dituzten aldagaietan oinarrituta. Honela, autokritika eta autoebaluazioa sustatzen dira.

Proiektuaren euskarri materiala izango diren gertuko (ahal dela) ondarearen osagaiak aukeratzeari dagokionez, ondare horren jakintzak eta bizipenak eduki beharko dira, eskaintzen dituen aukerei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.

Ideia, sentimendu eta emozioen adierazpen kolektiboak, aurretiko eztabaida batean eta osteko lankidetza-lanean oinarrituta, egiazki bultzatuko du taldearen adierazpen kultural propioen eraikuntza eta sendotzea. Identitate edo adierazpen kultural kolektibo horiek, irekiak eta dinamikoak, taldea hartzen duen komunitatearen adierazpen eta erreferenteak eralda ditzake.

Konpetentzia espezifiko hau Irteera-profilaren ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, KPSII3.1, KPSII 3.2, HK3, EK1, EK3, KAKK4.1, KAKK 4.2.

5. Proiektu kultural eta artistiko baten garapen-faseak sormenez antolatzea eta gauzatzea ikuspegi inklusibo, parte-hartzaile eta aniztasunarekiko adeitsua aplikatuz, eskura dauden bitartekoak aintzat hartuz eta iraunkortasuna bilatuz, inklusio soziala eta aukerak sortuko dituen emaitza bat lortzeko.

Proiektu artistiko baten faseak zehaztu ondoren, proiektuaren eskakizun kuantitatiboak eta kualitatiboak aintzat hartuko dituen lan-plangintza bat proposatu behar da era inklusibo, parte-hartzaile eta adeitsuan.

Proiektu kultural eta artistikoak ondoko helburuak bildu behar ditu: inklusio soziala bultzatzea; berdintasuna, errespetua eta bestearen aitortza, iraunkortasuna eta ingurumenarekiko errespetua sustatzea. Ingurumen-iraunkortasuna eta eragin soziala bermatzeko beharra alde batetik eta, bestetik, bitarteko urriak edo oso urriak izateak sormena sustatu eta pentsamendu dibergentea garatu behar dute lan-plangintza zehazterakoan agertzen diren benetako arazoei konponbide orijinalak eta berritzaileak emateko. Erreminta digitalak etikoki, era kritiko eta arduratsuan erabili behar dira ere, proiektua gauzatzerakoan zein proiektuan emandako pauso guztiekin batera doan dokumentazioa sortzerakoan.

Proiektu artistikoetan, helburuak eta epeak finkatu ondoren, hauek lortzeko moduak ahalik eta malguen izan behar du. Lan-plangintza zurrunki antolatu bada, parte-hartzaileek ez dute proiektu hori berezkotzat hartuko.

Jarduera kultural eta artistikoaren lagun diren prozesuen bitartez sormena, pentsamendu dibergentea, ekimena eta norberaren eta ingurunearen esplorazioa garatzen dira.

Soluzio sortzaileak komunitatea aberasteko gai izango den produktu artistiko bat sortzea ahalbidetuko du.

Konpetentzia espezifiko hau Irteera-profilaren ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, KE3, STEM3, STEM5, KD3, KPSII5, HK3, EK1, EK2, EK3, KAKK 4.1, KAKK 4.2.

6. Amaitutako proiektu artistiko eta kultural bat partekatzea eta ebaluatzea, irizpide teknikoak aplikatuz eta begirunez, emaitza eta prozesua balioetsiz eta sorturiko iritziak aurreiritzirik gabe integratuz, eskaintzen dituzten aukerak baloratzeko eta gertuko ingurunean eragin positiboa izaten laguntzeko.

Proiektu artistikoa ebaluatu eta era irekian eta adeitasunez partekatzeko ekintzan, bere jomuga den taldeak funtsezko papera du. Gertuko ondarearen osagaiak erabili direnez, bertaratuak ezagun den ingurune batean kokatzen dira. Azken emaitzaz gain, sorkuntza-prozesua erakusten da ere eta, horrexegatik, proiektuari loturiko dokumentazio guztiak garrantzi handia hartzen du. Ikasleek formatu ezberdineko erregistroak sortu behar dituzte, ideiatik azken produktura arte.

Prozesuaren bistaratzeak azken proiektuaren ulergarritasuna dakar eta, ondorioz, eragina areagotzen du. Horretarako, bertaratuei proiektuaren zentzua eta sinbologia bereganatzeko aukera emango dieten mekanismoak sortu beharko dituzte ikasleek, esperimentatu izan dituzten ideiak, sentimenduak eta emozioak transmititzen dituzten bitartean. Eragin sozialak garrantzi handiagoko edo txikiagoko eraldatze ezberdinak dakartza eta azken hauek, beren aldetik, aukerak suposa ditzakete komunitate horretan.

Ikasleek, era berean, proiektu artistikoei loturiko ogibide ezberdinak identifikatuko dituzte, bai eta etorkizuneko garapenerako eskaini ditzaketen aukerak ere. Akatsa, sorkuntza-prozesu orotan, hobetzeko aukera bat dela ere barneratu beharko dute ikasleek.

Konpetentzia espezifiko hau Irteera-profilaren ondoko deskriptoreei lotzen zaie: HKK1, KE3, STEM 4, KPSII1.1, KPSII1.2, EK3, KAKK 4.1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Proiektu Artistikoak
1. Konpetentzia espezifikoa.
1.1. Gertueneko kultura eta arte ondarearen funtsezko osagaiak ezagutzea, jarrera proaktiboa agertuz eta zuzeneko kontaktuaren bitartez, terminologia espezifikoa egokiro erabiliz eta gizarte-kohesioaren balioaren eta kultura-aniztasunaren balioespenaren inguruan kritikoki hausnartuz.
1.2. Gertueneko kultura eta arte ondarea globalarekin alderatzea kultura eta arte ondarea globala ezagutzeko kanal ezberdinak kritikoki, etikoki eta era arduratsuan erabiliz, pertsona bakoitzean sortzen dituen ideiak, sentimenduak eta emozioak interesa eta begirunea agertuz eta era irekian partekatuz, bere zaintza eta adierazpen-askatasuna sustatuz.
2. Konpetentzia espezifikoa.
2.1. Gertuko kultura eta arte ondarearen asmoa, espezifikotasuna eta testuingurua zehaztea, bere ezagutza eta hautematearen gozamena partekatuz, gozamen horretara eramaten duten osagaiak zehaztuz, ideiak adeitasunez kontrastatuz eta ikuspegi kritikoa bultzatuz.
2.2 Ondare globalaren eta gertuko horren arteko egiturazko harremanak ezartzea, beren osagaiak zentzu kritikoarekin eta era irekian alderatuz, kultura berritze- eta aberaste-prozesu dinamikotzat hartuz.
3. Konpetentzia espezifikoa.
3.1 Ideia, sentimendu eta emozio pertsonalak adieraztea, baliabide artistikoak erabiliz eta sormena landuz, gertuko kultura eta arte ondarea testuinguruan kokatuz, bere osagaiak era berritzailean erabiliz eta norbere burua esploratzeko erreminta moduan erabiliz.
3.2 Lan artistikoak egitea, norberaren eta/edo partekatutako erreferente kulturalak agertuz, gertuko kultura eta arte ondarea eta globala den horrekin malgutasunez eta era integratzailean, enpatiaz eta norbere buruarekiko eta besteekiko begirunea agertuz harremanetan jarriz.
4. Konpetentzia espezifikoa.
4.1 Gertuko ondareari lotua dagoen eta testuinguru horretan dauden kezkak landuko dituen proiektu kultural edo artistiko bat planifikatzea, ahalik eta partaide gehienak inplikatuz lankidetza-ariketa horretan, adierazpen indibiduala eta gertuko ondareak eskaintzen dituen bitartekoak erabiliz eta lankidetza-lana baloratuz.
4.2 Zereginak banatzea beharrezkoak diren trebetasunen eta proiektuaren beharren arabera, erantzukizunak hartuz, besteon iritziak errespetatuz, lanerako jarraitutasuna agertuz eta talde-lana aberaste-ariketa gisa hartuz.
4.3 Besteekin batera, adierazle kualitatiboak eta kuantitatiboak zehaztea, bai eta neurketa-instrumentuak ere, prozesu artistikoaren fase guztietako ebaluazio-mekanismo batean sartuz.
5. Konpetentzia espezifikoa.
5.1 Irizpide inklusiboak, ez baztertzaileak eta berdintasunaren aldeko irizpideak aplikatzea proiektu kultural eta artistiko bat garatzeko fase guztietan, prozesu horren barruan besteon iritziak eta proposamenak errespetatuz eta ingurumen-iraunkortasunerako jarraibideak erabiliz.
5.2 Proiektu kultural eta artistiko baten lan-plangintza malgua egituratzea, era sortzailean, agerturiko arazoei konponbide orijinalak eta berritzaileak emanaz, ekimena eta norbere buruaren eta ingurunearen esplorazioa sustatuz.
5.3. Erreminta digitalak kritikoki eta era arduratsuan erabiltzea, lan-plangintza zehazterakoan zein bere dokumentazioa osatzerakoan, jarrera etikoa agertuz jabetza intelektualaren aurrean.
6. Konpetentzia espezifikoa.
6.1. Ingurune sozialean eta hezkuntza-ingurunean garatutako proiektua publikoki komunikatzea bere jomuga den taldeari, era irekian eta adeitasunez, bere harrera erraztuko duten mekanismoak ezarriz eta bere eragin sozialaren inguruan hausnartuz.
6.2. Proiektu artistikoei loturiko ogibideen adibide ezberdinak identifikatzea, eskaintzen dituzten aukerak eta lan sortzailearen balio erantsia ulertuz, norberaren iritzia era arrazoituan eta adeitasunez agertuz.
6.3. Ebaluatzea, horretarako aurretik zehaztu ditugun adierazleak erabiliz, proiektu artistikoaren sorkuntza prozesua zein azken emaitza, sorturiko dokumentazioa, izandako zailtasunak, horiei emandako konponbideak eta lorturiko lorpenak, akatsa hobetzeko aukeratzat hartuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Proiektu Artistikoak
Orokorrak.
Jarrera proaktiboa, irekia, positiboa, kritikoa, interes eta begirunezkoa.
Pertsona- eta kultura-aniztasuna baloratzea eta errespetatzea.
Kultura eta arte ondarearen balioa eta kontserbazioa ezagutzea.
Jarrera etikoa jabetza intelektualaren aurrean, erabilera arduratsuak. Tresna digitalak era kritiko, iraunkor eta arduratsuan erabiltzea.
Terminologia espezifikoa era egokian erabiltzea.
Kultura berritze eta aberaste erreferentzia-prozesu dinamiko gisa ulertzea.
Norberaren ezagutza eta norberaren estimua.
Enpatia eta ikuspuntu desberdinen balorazioa.
Pentsamendu dibergente eta kritikoa, sormena, berrikuntza, ekimena eta norberaren eta ingurunearen esplorazioa.
Inprobisatzeko, berrasmatzeko eta erresilientziarako gaitasunaren estimulazioa.
Diziplina, jarraitutasuna eta erantzukizuna ohiturak talde-lanean.
Parte-hartze aktiboa berdintasunean, inklusiboa, ez sexista izango den eta bereizkeria dakarten estereotipoak gaindituko dituen ikuspegi bat aplikatuz.
Ingurumen-iraunkortasuna.
Akatsa hobetzeko eta ikasteko aukeratzat hartzea.
A. Kultura eta arte ondarea. Ekintzailetza kulturala.
Ondare kultural eta artistikoaren nozioa.
Gertuko ondarea eta ondare globala, material eta immateriala.
Kultura eta arte ondarea, ezagutza-, inspirazio- eta aukera-iturri.
B. Sormena. Lan-ingurune sortzaileak.
Sormena, trebetasun pertsonala eta adierazpen artistikorako tresna. Prozesu metakognitiboa.
Sormena sustatzeko eta garatzeko estrategiak eta teknikak.
Sorkuntza-blokeoa gainditzeko estrategiak.
C. Proiektu artistikoak kudeatzeko estrategiak. Faseak. Eragina.
Proiektu-metodologia. Proposamenak sortu eta aukeratzea.
Proiektu artistikoak. Plangintza eta faseak. Proiektuak kudeaketa.
Talde-lanerako estrategiak, lankidetza-lanerako dinamikak aplikatzea. Zereginen banaketa: hautapen irizpideak, eskatzen diren trebetasunetatik eta proiektuaren beharretatik abiatuta.
Proiektu artistikorako egokiak diren teknikak, tresnak, bitartekoak eta euskarriak aukeratzeko estrategiak.
Partekatutako lidergoa. Gatazkak konpontzea.
Dokumentazio, erregistro eta artxiborako estrategiak, teknikak eta euskarriak.
Proiektu artistikoen iraunkortasuna eta eragin soziala.
Proiektu artistikoen ebaluazioa.
Emaitzak hedatzea.
Esparru artistikoarekin lotutako garapen pertsonal, sozial, akademiko eta preofesionalerako aukerak. Kultura ekintzailetza.

BIOLOGIA

Batxilergoko 2. urteko Biologia jakintzagaiak aukera ematen die ikasleei zientzia biologikoekin lotutako oinarrizko jakintzak eta konpetentziak modu nabarmenean sakontzeko; izan ere, zientzia biologikoei aurreko etapetan baino ikuspegi mikroskopikoagoa eta molekularragoa ematen zaie. Biologiak, beraz, nahiko prestakuntza aurreratua eskaintzen du, ikasleei lan zientifikorako eta bizialdi osoko ikaskuntzarako funtsezko ezagutzak eta trebetasunak emanez, eta goi-mailako ikasketak hasteko edo lan-munduan sartzeko beharrezko oinarriak ezarriz.

Azken hamarkadetako aurrerapen zientifiko eta teknologikoek funtsezko ezagutzak ekarri dituzte gure gizartearen garapenerako. Biologian, eta bereziki biologia molekularraren garapenean, aurrerapen horiek goitik behera aldatu dute organismo biziaren kontzeptua eta haren funtzionamenduaren ulermena.

Hau da, zientzia biologikoen aurrerapena izaki bizidunen ulermen hutsetik haratago doa. Biologiaren aplikazioek bizi-kalitatea nabarmen hobetzea ekarri dute. Gainera, biologia-zientzien aplikazioak ez dira biologiarekin lotutako diziplinetan bakarrik erabiltzen, hala nola bioteknologian edo ingeniaritza genetikoan, baita a priori oso desberdinak diren beste eremu batzuetan ere, hala nola astrobiologian, bioingeniaritzan, biofisikan eta bioinformatikan, besteak beste.

Jakintzagai honek, beraz, ikerketa zientifikoa indartzen duten ikaskuntzak sustatzen ditu, egungo munduaren erronkekin eta garapen iraunkorrerako helburuekin konprometituta dauden ikasleak lortzeko, ikerketa lan-jarduera gisa bultzatuz; bertan, zientzialariek biologiaren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak erlazionatzen dituzte, gizartearen aurrerabidean modu eraginkorragoan laguntzeko.

Biologian, funtsezko zortzi konpetentziak jakintzagaiaren berezko sei konpetentzia espezifikoren bidez —etaparako deskribatzaile operatiboen zehaztapena— lantzen dira, eta horiek curriculumaren ardatz egituratzailea osatzen dute. Konpetentzia espezifiko horiek honela laburbildu daitezke: informazio zientifikoa aurkitzea, hautatzea eta kontrastatzea; informazio zientifikoa interpretatzea eta transmititzea, eta horri buruzko argudioak ematea; ikerketa-lanen ondorioak kritikoki aztertzea; zientzia biologikoekin lotutako problemak planteatzea eta ebaztea; ohitura osasungarrien eta jasangarrien garrantzia aztertzea; eta organismoen ezaugarri molekularrak haien ezaugarri makroskopikoekin lotzea.

Ebaluazio-irizpideak dira konpetentzien garapen-maila neurtzea ahalbidetzen duten oinarrizko curriculum-elementuetako beste bat. Horiek jakintzekin lotzen dituzte jakintzagai honen konpetentzia espezifikoak.

Oinarrizko jakintzak dira konpetentzia espezifikoak eta funtsezko konpetentziak lantzeko eta funtsezko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ulertzeko bitartekoa. Jakintzagai honek honako multzo hauek ditu:

– **Biomolekulak**, izaki bizidunek dituzten molekula organiko eta ez-organikoen azterketan zentratua;

– **Genetika molekularra**, DNAren erreplikazio-mekanismoa eta adierazpen genikoaren prozesua aztertzen dituena, horiek zelulak bereizteko prozesuarekin lotuz;

– **Biologia zelularra**, zelula motak, horien osagaiak, ziklo zelularraren etapak, mitosia eta meiosia eta funtzio biologikoa lantzen dituena;

– **Metabolismo**, izaki bizidunen erreakzio biokimiko nagusiez diharduena;

– **Ingeniaritza genetikoa eta bioteknologia**, bertan, izaki bizidunak edo haien osagaiak manipulatzeko metodoak aztertzen dira, hainbat alorretan (medikuntza, nekazaritza edo ekologia, besteak beste) teknologikoki aplikatzeko.

– Azkenik, **Immunologiak** immunitatearen kontzeptua, motak eta mekanismoak, gaixotasun infekziosoen faseak eta immunitate-sistemaren patologien azterketa lantzen ditu.

Hemen deskribatutako oinarrizko jakintzak konpetentzia-ikuspegi batetik landu behar dira, konpetentzia espezifikoak garatzeko bitarteko izan daitezen, eta ez soilik helburu gisa.

Laburbilduz, Batxilergoko 2. mailako Biologia jakintzagaiak izaki bizidunen azterketaren ikuspegi zabalagoa eskaintzen du, eskala askotan, bioelementuetatik hasi eta organismora arte. Jakintzagai zientifikoa izanik, ikasleen artean ikerketarako jakin-mina sortzea eta ikasketa akademikoekin jarraitzeko edo zientzia biologikoekin lotutako zenbait lanbidetan jarduteko prestatzea bilatzen da.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Iturri fidagarriak aurkitzea eta erabiltzea, informazioa identifikatuz, hautatuz eta antolatuz, hura kritikoki ebaluatuz eta egiazkotasuna egiaztatuz, modu autonomoan planteatutako galderak ebazteko eta zientzia biologikoekin erlazionatutako edukiak sortzeko.

Ikerketa zientifiko oro aztertu nahi den eremuko argitalpenen bilduma batekin hasten da. Horretarako, beharrezkoa da iturri fidagarriak ezagutzea eta erabiltzea, eta horietan bilatzea, planteatutako galderei erantzuteko informazio garrantzitsua hautatuta.

Gainera, bizialdi osoko ikaskuntzak zentzu kritikoa izan behar du iturri edo erakunde egokiak hautatzeko, informazioa bahetzeko eta planteatutako helburuaren arabera garrantzitsua den informazioa eskuratzeko.

Hautaketa hori egiteko trebetasuna, beraz, oso garrantzitsua da, egiten ari diren eta ondoren garatuko dituzten ikasketetarako ez ezik, lanbide zientifikoetan edo beste karrera profesional batzuetan aritzeko ere.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KE2, STEM4, KD1, KD2 eta KPSII4.

2. Informazioa eta datuak interpretatzea eta transmititzea lan zientifikoetatik abiatuz eta lan horiei buruz zehaztasunez argudiatzea, hainbat formatu erabiliz, zientzia biologikoen kontzeptuak, prozesuak, metodoak, esperimentuak edo emaitzak aztertzeko.

Zientziaren barruan, komunikazioak leku garrantzitsua betetzen du, kolaboraziorako eta ezagutzaren hedapenerako ezinbestekoa baita, aurrerapenak eta aurkikuntzak azkarrago aintzat hartzen lagunduz. Komunikazio zientifikoak, oro har, informazio garrantzitsua modurik eraginkorrenean trukatzea bilatzen du, eta, horretarako, hainbat formatutan —grafikoak, formulak, testuak, txostenak edo ereduak, besteak beste— oinarritzen da, komunitate zientifikoak haiek berrikusi, egiaztatu eta zabaldu ahal izateko.

Ikasleek eduki zientifikoak interpretatu eta transmititu behar dituzte, baita horiei buruzko iritzi propioa osatu ere, arrazoibideetan eta ebidentzietan oinarrituta, eta arrazoitu eta aberastu egin behar dute besteek emandako ikuspuntu eta probekin.

Laburbilduz, komunikazio zientifikoa prozesu konplexua da, askotariko trebetasunak (linguistikoak, matematikoak, digitalak, arrazoibide logikoa, etab.) modu integratuan uztartzen dituena, ezagutzak mobilizatzen dituena eta solaskidearekiko jarrera irekia eta tolerantea eskatzen duena. Hori guztia beharrezkoa da ez bakarrik karrera zientifikoko lanerako; horretaz gain, funtsezko alderdia ere bada gizaki ororen garapen pertsonal, sozial eta profesionalerako.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM2, STEM4, KD2, KD3, KPSII 4, EK3 eta KAKK4.1.

3. Zientzia biologikoekin lotutako ikerketa- edo dibulgazio-lanak aztertzea, haien egiazkotasuna edo metodo zientifikoaren urratsak zuzen jarraitu ote dituzten zentzu kritikoz egiaztatuz, ondorioen fidagarritasuna ebaluatzeko eta zientziak gizarteari egiten dion ekarpenari buruz argudiatzeko.

Pentsamendu kritikoa da, ziurrenik, giza garapenerako trebetasun garrantzitsuenetako bat, eta gainditzeko eta hobetzeko espirituaren oinarria. Esparru zientifikoan funtsezkoa da, besteak beste, ikerketa-lana binaka berrikusteko, horixe baita zientziaren zorroztasunaren eta egiazkotasunaren oinarria.

Pentsamendu kritikoa hezkuntzako lehen etapetatik lantzen hasi behar bada ere, Batxilergoan garapen-maila esanguratsua lortzen du, eta konpetentzia espezifiko horretan aurrera egiteak hura hobetzen laguntzen du. Gainera, lan zientifiko baten ondorioak aztertzeak berekin dakar ikasleengan pentsamendu kritikoa ez ezik, beste trebetasun batzuk ere mugiaraztea, hala nola komunikaziokoak eta digitalak, eta arrazoibide logikoa.

Era berean, konpetentzia espezifiko horren bidez garatzen diren jarrera analitikoa eta arrazoizko zalantza lantzea erabilgarriak dira testuinguru ez-zientifikoetan, eta ikasleak iruzurrak, gezurrak eta informazio sasizientifikoa antzemateko prestatzen dituzte. Zientziak gizarteari egiten dion ekarpenari buruzko ebidentzietan eta ezagutzan oinarritutako arrazoiketa lagungarria izango da ikasleentzat iritzi propio eta egiazkoa sortzeko, herritar analitiko, aktibo eta kritikoen parte izateko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KE1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KPSII 5, HK3 eta EK1.

4. Problemak planteatzea eta ebaztea, estrategia egokiak bilatuz eta erabiliz, soluzioak kritikoki aztertuz eta, beharrezkoa balitz, prozedura birformulatuz, zientzia biologikoekin lotutako fenomenoak azaltzeko.

Batxilergoko 2. mailan, garrantzitsua da ikasleekin ekimena lantzea, arrazoibidea eta beste estrategia batzuk erabiliz konpon daitezkeen gai edo problema berriak plantea ditzaten.

Konpetentzia espezifiko hori adierazitako problemak ebazteko oinarri gisa arrazoibidea erabiltzeari dagokio. Hala ere, nabarmendu behar da, aurreko etaparekin alderatuta, ikasleek ebazpen-estrategia berriak bilatzea lortu nahi dela, eskuratuta dituzten estrategiak nahikoak ez direnean. Horretarako, hainbat tresna eta baliabide teknologiko erabili beharko dira, erronkekiko eta ziurgabetasun- eta erresilientzia-egoerekiko jarrera positiboa, hasieran arrakastarik lortu ezean ebazpen-bide berriak probatzen jarraitzeko edo emaitzak hobetzeko.

Problemak ebaztea funtsezko konpetentzia da karrera zientifikoan; izan ere, zientzian diharduten pertsonek erronka eta ezusteko handiak izaten dituzte maiz beren helburuak lortzeko. Era berean, konpetentzia espezifiko hori beharrezkoa da bizitza profesionaleko eta pertsonaleko beste testuinguru askotan; beraz, ikasleen heldutasun intelektualari eta emozionalari laguntzen dio, eta, azken batean, herritar guztiz integratuak eta gizartearen hobekuntzarekin bat datozenak prestatzen laguntzen du.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM1, STEM2, KD1, KD5, KPSII1.1, KPSII5 eta EK3.

5. Iraunkorrarekin eta osasunarekin lotutako ekintza jakin batzuk kritikoki aztertzea, biologia molekularraren funtsetan oinarrituz, ohitura jasangarriak eta osasungarriak hartzeak duen garrantziari buruz argudiatzeko.

Batxilergoko 2. mailako Biologia jakintzagaiak osasuna mantentzearekin eta hobetzearekin eta garapen iraunkorraren ereduarekin bateragarriak diren jarrerak eta ohiturak irakatsi nahi ditu. Jakintzagai honen berritasuna, aurreko etapekin alderatuta, bere ikuspegi molekularra da. Hori dela eta, ekosistemen eta zenbait organismoren garrantzia aztertzeko, egiten dituzten erreakzio biokimikoak eta planeta-mailan duten garrantzia jorratuko dira. Horrela, molekulen mundua mundu makroskopikoarekin konektatuko da.

Garapen iraunkorreko eredu bat lortzea da, hain zuzen, gizateriaren erronka handienetako eta garrantzitsuenetako bat gaur egun. Asmo handiko helburu hori gauzatu ahal izateko, gizarteak —gure kasuan ikasleek— sistema biologikoen funtzionamendua sakon ulertzea lortu behar du, haien balioa balioetsi ahal izateko. Horrela, ohiturak barneratuko dira eta jarrera arduratsuak hartuko dira, ekosistemak eta biodibertsitatea kontserbatzera eta baliabideen kudeaketa hobetzera bideratuak.

Beraz, konpetentzia espezifiko horren helburua da ikasleek beren ohiturak eta hezkuntza-komunitateko kideenak aztertzea, eta, horretarako, biologia molekularraren funtsetan oinarritutako jarrera kritikoa

garatzea, bizimodu osasungarriago eta jasangarriago baterako aldaketa positiborako neurriak hartzeak duen garrantziaz argudiatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM2, STEM5, STEM6, KD4, KPSII2, HK4 eta EK1.

6. Biomolekula, bioelementu eta horien egitura eta interakzio biokimiko nagusien funtzioa aztertzea, organismo bizidunetan duten garrantziari buruz argudiatuz, horien ezaugarri makroskopikoak ezaugarri molekularretatik abiatuta azaltzeko.

Gaur egun, izaki bizidunen ulermena haien ezaugarri molekularren azterketan oinarritzen da. Izaki bizidunen konposizio kimikoa haien egiturak osatzen dituen oinarria da; haien ezagutza eta interakzio biokimikoak funtsezkoak dira izaki bizidunen funtzionamendua ulertzeko. Aurrerapen zientifiko-teknologikoari esker, izugarri aberastu da kimika organikoaren, biologia molekularraren eta biokimikaren inguruko ezagutza.

Konpetentzia espezifiko honen helburua da ikasleak izaki bizidunen ezaugarri makroskopikoak azaltzeko gai izatea, haiek osatzen dituzten biomolekulen funtzioaren analisitik abiatuta. Gainera, maila honetako ikasleen heldutasunak biomolekulen garrantziari eta izaki bizidunen egituretan eta funtzionamenduan duten elkarreraginei buruzko argudioa lantzea ahalbidetzen du.

Horregatik, konpetentzia espezifiko hori funtsezkoa da Batxilergoko ikasleentzat, eta aukera ematen die molekulen mundua makroskopikoarekin lotzeko, organismo bizidunen ikuspegi global osoa eskuratzeko eta hipotesiak formulatzeko eta biologiako diziplina ugariekin (biosanitarioak, bioteknologikoak, biofisikoak, biokimika, ingeniaritza biomedikoa...) lotutako problemak ebazteko beharrezkoak diren trebetasunak garatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1, STEM1, STEM2, KPSII 4 eta HK4.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Biologia
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Galderak planteatzea eta ebaztea eta jakintzagaiaren jakintzekin lotutako edukiak sortzea, iturriak modu egokian aurkittuz eta aipatuz, eta informazioa hautatuz, antolatuz eta kritikoki aztertuz.
1.2. Jakintzagaiarekin lotutako informazioaren egiazkotasuna kontrastatzea eta justifikatzea, iturri fidagarriak erabiliz, datuak emanez eta oinarri zientifikorik gabeko informazioekiko —hala nola sasizientziak, konspirazio-teoriak, funtsik gabeko sinesmenak, gezurrak, etab.— jarrera kritiko eta eszeptikoa hartuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Kontzeptu eta prozesu biologikoak kritikoki aztertzea, informazioa hainbat formatutan (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak edo bestelakoak) hautatuz eta interpretatuz.
2.2 Jakintzagaiari buruzko jakintzekin lotutako informazio edo iritzi arrazoituak komunikatzea, modu argi eta zorrotzean transmitituz, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak edo eduki digitalak, besteak beste), eta prozesuan zehar sor daitezkeen galderei modu arrazoitu eta zehatzean erantzunez.
2.3. Irizpide zientifikoekin argudiatzea jakintzagaiari buruzko jakintzekin zerikusia duten alderdiei buruz, jarrera desberdinen indarguneak eta ahuleziak arrazoituz eta besteen iritziarekiko jarrera ireki, malgu, hartzaile eta errespetuzkoa kontuan hartuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Jakintzagaiari buruzko jakintzekin lotutako ikerketa edo dibulgazio zientifikoko lan baten ondorioen fidagarritasuna ebaluatzea, lortutako emaitzen interpretazioa kontuan hartuz.

Biologia
3.2. Zientziak gizarteari egiten dion ekarpenari buruz —adibide zehatzak erabiliz— eta zientzian diharduten pertsonen lana argudiatzea, emakumearen zeregina nabarmenduz eta ikerketa etengabe eboluzionatzen ari den lan kolektibo eta dizipli-narteko gisa ulertuz, testuinguru politikoak eta baliabide ekonomikoek eraginda.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Fenomeno biologikoak azaltzea, problemak planteatuz eta ebatziz, eta estrategia eta baliabide egokiak bilatuz eta erabiliz.
4.2. Problema baten soluzioa kritikoki aztertzea, Biologia jakintzagaiaren jakintzak erabiliz, eta erabilitako prozedurak edo ondorioak birformulatzea, soluzio hori bideragarria ez bada, edo geroago emandako edo aurkitutako datu berrien aurrean.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Ohitura osasungarriak hartzearen garrantziari buruz argudiatzea, biologia molekularraren printzipioetan oinarrituz eta prozesu makroskopikoekin lotuz.
5.2. Garapen iraunkorreko eredu baten garrantzia justifikatzea, biologia molekularraren printzipioetan oinarrituz eta proze-su makroskopikoekin lotuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Izaki bizidunen ezaugarriak eta bizi-prozesuak azaltzea, haien biomolekulak, haien arteko interakzio biokimikoak eta erreakzio metabolikoak aztertuz.
6.2. Laborategian metodologia analitikoak aplikatzea material egokiak zehaztasunez erabiliz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Biologia
A. Biomolekulak
Bioelementuak, ezaugarri orokorrak eta izaki bizidunentzako garrantzia.
Biomolekula organikoak eta inorganikoak: ezaugarri orokorrak eta desberdintasunak.
Ura eta gatz mineralak: euren ezaugarri kimikoen eta funtzio biologikoen arteko erlazioa.
Monosakaridoak: ezaugarri kimikoak, forma linealak eta ziklikoak, isomeriak, loturak eta funtzioak.
Disakaridoak eta polisakaridoak: garrantzi biologiko handiena dutenen adibideak.
Lipido saponifikagarriak eta ez-saponifikagarriak: ezaugarri kimikoak, motak, desberdintasunak eta funtzio biologikoak.
Proteinak: ezaugarri kimikoak, egitura, funtzio biologikoa, paper biokatalizatzailea.
Bitaminak eta gatzak: funtzio biologikoa kofaktore entzimatiko gisa eta haiek dietan sartzearen garrantzia.
Azido nukleikoak: motak, ezaugarri kimikoak, egitura eta funtzio biologikoa.
B. Genetika molekularra
DNAren erreplikazio-mekanismoa: eredu prokariotoa.
Adierazpen genikoaren etapak: eredu prokariotoa. Kode genetikoa: ezaugarriak eta problemen ebazpena.
Mutazioak: DNAren erreplikazioarekin, eboluzioarekin eta biodibertsitatearekin duten lotura.
Adierazpen genikoaren erregulazioa: zelulen bereizketan duen garrantzia.
Genoma prokariotoak eta eukariotoak: ezaugarri orokorrak eta desberdintasunak.
C. Biologia zelularra
Teoria zelularra: inplikazio biologikoak.
Mikroskopia optikoa eta elektronikoa: irudiak, bereizmena eta laginak prestatzeko teknikak.
Mintz plasmatikoa: ultraegitura eta propietateak.
Prozesu osmotikoa: animalia-zelularen, landare-zelularen eta zelula prokariotoaren gaineko eragina.

Biologia
Mintz plasmatikoaren bidezko garraioa: mekanismoak (difusio sinplea eta erraztua, garraio aktiboa, endozitosia eta exozitosia) eta horietako bakoitzarekin garraiatutako molekula motak.
Organulu zelular eukariotoak eta prokariotoak: oinarrizko funtzioak.
Ziklo zelularra: faseak eta errregulazio-mekanismoak.
Mitosia eta meiosia: faseak eta funtzio biologikoa.
Minbizia: mutazioekin eta ziklo zelularraren alterazioarekin lotura. Azken ikerketak.
D. Metabolismoa
Metabolismoaren kontzeptua.
Anabolismoaren eta katabolismoaren kontzeptuak: desberdintasunak.
Arnasketa zelular anaerobikoan (glukolisia eta hartzidura) eta aerobikoan (gantz-azidoen β-oxidazioa, Krebs zikloa, elektroien garraio-katea eta fosforilazio oxidatiboa) inplikatutako prozesuak.
Metabolismo aerobikoa eta anaerobikoa: hauen errendimendu energetikoen kalkulu konparatiboa.
Anabolismo heterotrofoaren (aminoazidoen, proteinen eta gantz-azidoen sintesia) eta autotrofoaren (fotosintesia eta kimiosintesia) bidezidor nagusiak: garrantzi biologikoa.
E. Ingeniaritza genetikoa eta Bioteknologia
Transgenearen kontzeptua. Edizio genetikoaren eta transgenesiaren arteko aldeak.
Ingeniaritza genetikoko teknikak eta horien aplikazioak: PCR, murrizketa-entzimak, klonazio molekularra, CRISPR-CAS9, etab.
Bioteknologiaren garrantzia eta ondorioak: aplikazioak osasunean, nekazaritzan, ingurumenean, material berrietan, elikagaien industrian, etab. Mikroorganismoen zeregin azpimarragarria.
F. Immunologia
Immunitatearen kontzeptua.
Kanpoko hesiak: patogenoen sarrera zailtzeko duten garrantzia.
Berezko eta berariazko immunitatea: desberdintasunak.
Immunitate humorala eta zelularra: ekintza-mekanismoak.
Immunitate artifiziala eta naturala, pasiboa eta aktiboa: funtzionamendu-mekanismoak.
Gaixotasun infekziosoak: faseak.
Immunitate-sistemaren patologia nagusiak: kausak eta garrantzi klinikoa.

BIOLOGIA, GEOLOGIA ETA INGURUMEN ZIENTZIAK

Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak jakintzagaia Batxilergoko 1. mailako ikasleek egin ahal izango dute, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoan zehar eskuratu duten prestakuntza zientifikoa osatzeko. Diziplina horiek modu aktiboan laguntzen dute ikasle bakoitzak kalitatezko oinarri zientifiko bat eskura dezan, ikerketarako eta lan-mundurako profil zientifikoak eta teknikoak eskatzen dituen gizarte batean eroso moldatzeko.

Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak jakintzagaiak helburu du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan landutako ezagutzak sakontzea eta osatzea. Gainera, oinarriak ezartzen ditu goi-mailako ikasketetan prestakuntza zientifiko aurreratua aukeratu nahi duten ikasleentzat.

Hala, lehen maila honetan, Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak jakintzagai bakar batean bilduta daude, beren metodoekin eta hainbat gune tematikorekin lotutako ezaugarri komun batzuk partekatzen baitituzte. Hala ere, hurrengo ikasturtean diziplinak bereiz jorratuko dira, horietako bakoitzaren ezaugarri espezifikoak direla-eta, eta honako hauek izango dira: “Biologia” eta “Geologia eta Ingurumen Zientziak”.

Jakintzagai honek lagundu egiten du ikasleek Lur planetari eragiten dioten arazo eta erronken ikuspegi egokia izan dezaten eta, horrela, gure munduaren eraldaketan oinarritutako erabakiak hartzen parte hartu ahal izan dezaten, 2030 Agendaren garapen iraunkorrerako helburuek eta jomugek ezartzen dutenez.

Jakintzagaiaren curriculum-diseinua konpetentzia espezifikoetatik abiatzen da. Konpetentzia horiek garatzeak sendotu egiten ditu trebetasunak eta pentsamendu zientifikoa, eta indartu egiten du ikasleek gizartearekiko duten konpromiso arduratsua maila globalean; klima-aldaketaren aurkako ahalegin indibidualak eta kolektiboak sustatzen ditu, garapen iraunkorreko eredu bat lortzeko —ahalegin horiek lagundu egingo dute, gure bizi-kalitatea hobetzen ez ezik, gure natura- eta kultura-ondarea zaintzen ere—; ikasle guztien bokazio zientifikoa sustatzen du, bereziki emakumezko ikasleen artean, ikerketan erantzukizuneko postuetan dauden emakumeen kopuru txikia gainditzeko eta, horrela, emakumeen eta gizonen arteko benetako aukera-berdintasuna sustatzeko.

Jakintzagaia zientzien berezko sei konpetentzia espezifiko lortzera eta hobetzera bideratuta dago. Konpetentzia horiek curriculumaren ardatz egituratzailea osatzen duten funtsezko zortzi konpetentzien deskriptore operatiboak zehazten dituzte. Jakintzagai honetako konpetentzia espezifikoak lantzeak eta bere oinarrizko jakintzak eskuratzeak funtsezko konpetentzia guztiak garatzen eta etapako hainbat helburu betetzen laguntzen du. Konpetentzia espezifiko horiek honela laburbildu daitezke: informazio zientifikoa aurkitzea eta kritikoki ebaluatzea; informazio zientifikoa interpretatzea eta transmititzea eta hari buruz argudiatzea; zientziaren balioa ulertzea eta emakumeek zientzian egiten duten lana ikusaraztea; metodo zientifikoa ikerketa-proiektuetan aplikatzea; problemak ebaztea; eta osasunarekin eta iraunkortasunarekin lotutako ekimenak sustatzea, baita Lurraren Historiako gertaera handiak ere.

Ebaluazio-irizpideak dira konpetentzien garapen-maila neurtzeko bidea ematen duten oinarrizko beste curriculum-elementuetako bat. Horiek jakintzagai honetako konpetentzia espezifikoak jakintzekin lotzen dituzte.

Oinarrizko jakintzak konpetentzia espezifikoak eta funtsezko konpetentziak lantzeko bitartekoa dira, eta funtsezko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen dituzte. Jakintzagai honek honako multzo hauek ditu:

– **Proiektu zientifikoa**: proiektu zientifiko baten bidez zientziaren berezko trebetasunak eta pentsamendua modu praktikoan garatzean oinarritzen da.

– **Lurraren eta bizitzaren historia**: Gai hauek aztertzen ditu: Lurraren eta izaki bizidunen garapena, denbora geologikoaren magnitudea eta datazio-metodo geologikoetan oinarritutako problemen ebazpena.

– **Lurraren dinamika eta konposizioa**: lurrazalean izandako aldaketen kausak eta ondorioak eta arroka eta mineral motak aztertzen ditu.

– **Ekologia eta iraunkortasuna**: ekosistemen osagaiak, haien funtzionamendua eta garapen iraunkorreko eredu baten garrantzia aztertzen ditu.

– **Landareen fisiologia eta histologia**: ikasleak hurbilarazten ditu landareek beren bizi-funtzioak betetzeko erabiltzen dituzten mekanismoetara; landareak garatzen diren ingurumen-baldintzetara nola egokitzen diren analizatzen du, baita fotosintesiaren balantze orokorra eta garrantzi biologikoa ere.

– **Animalien fisiologia eta histologia**: Gai hauek analizatzen ditu: nutrizio- eta ugalketa-funtzioetan inplikatutako aparatuen fisiologia, eta zentzumen-errezeptoreen, koordinazio-sistemen eta organo efektoreen funtzionamendua.

– **Mikroorganismoak eta elementu genetiko mugikorrak**: Gai hauek hartzen ditu aztergai: mikrobio-espezie garrantzitsuenetako batzuk, horien aniztasun metabolikoa eta garrantzi ekologikoa; eta elementu genetiko mugikorren (birus, biroide, plasmido eta transposonen) eta prioien infekzio-mekanismoak eta ezaugarriak.

Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak jakintzagai zientifiko hutsa denez, gomendatzen da modu praktikoan jorratzea problemen ebazpenaren bidez, proiektuak eta ikerketak eginez, kolaborazioa sus-

tatuz, eta ez bakarkako lana bakarrik. Gainera, komeni da jakintzagaia modu esanguratsuan lotzea ikasleen errealitatearekin eta zientziekin zerikusia duten beste diziplina batzuekin, diziplinarteko ikuspegiaz, ikas-egoeren edo konpetentzia-jardueren bidez.

Laburbilduz, Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak jakintzagaia ikasteak erantzun zientifikoak bilatzeko interesa sustatu behar du. Azken batean, jakintzagai honen bidez bilatzen da ikasleek ikerketa zientifikorako jakin-mina sortzea eta prestakuntza jasotzea ikasketa akademikoekin jarraitzeko edo biologia-, geologia- eta ingurumen-zientziekin lotutako lanbide jakin batzuetan jarduteko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Iturri fidagarriak aurkitzea eta erabiltzea, informazioa identifikatuz, hautatuz eta antolatuz, kritikoki ebaluatuz eta haren egiazkotasuna kontrastatuz, biologia-, geologia- eta ingurumen-zientziekin lotutako galderak modu autonomoan ebazteko.

Zalantzak argitzeko, ezagutza berriak eskuratzeko edo baieztapen edo albisteen egiazkotasuna ziurtatzeko informazio garrantzitsua lortzea funtsezko trebetasuna da XXI. mendeko herritarrentzat. Era berean, ikerketa zientifiko oro azterketa-eremuko argitalpen garrantzitsuak arretaz biltzearekin hasten da.

Informazio-iturri fidagarri gehienak Internet bidez eskura daitezke. Hortaz, konpetentzia honen bidez, bilaketa- eta komunikazio-plataforma digitalak erabiltzea sustatuko da. Hala ere, egiazko informazioarekin batera, buloak, konspirazio-teoriak eta informazio osatugabeak edo sasizientifikoak daude. Horregatik, oso garrantzitsua da ikasleek espiritu kritikoa garatzea eta lortutako informazioa kontrastatzea eta ebaluatzea.

Era berean, egiazko informazioa garrantziaren arabera hautatu eta antolatu behar da, egindako galderei argi erantzun ahal izateko. Gainera, hezkuntza-etapa honetako ikasleen heldutasun intelektuala dela eta, gai horiek beren jakin-minez eta ekimenez planteatzea sustatuko da.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KE2, STEM4, KD1, KD2 eta KPSII4.

2. Informazio eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea eta horiei buruz zehaztasunez argudiatzea, hainbat formatu erabiliz, biologia-, geologia- eta ingurumen-zientzietako prozesuak, metodoak, esperimentuak edo emaitzak analizatzeko.

Komunikazioa funtsezko alderdia da lan zientifikoan, ez baita ezagutzarik sortzen transmititzen ez bada. Izan ere, edozein ikerketa zientifiko, aurkikuntza edo aurrerapen argitaratu egin behar da, komunitate zientifikoak berrikusi, egiaztatu eta zabaldu dezan.

Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak jakintzagaiaren izaera zientifikoa dela eta, helburu du ikasleek behar dituzten trebetasunak garatzea informazio zientifiko batetik ideia garrantzitsuenak ateratzeko (artikuluak, diagramak, taulak, grafikoak, etab. erabiliz) eta modu erraz, zehatz eta egiazkoan komunikatzeko, askotariko formatuak baliatuz (ahozko azalpena, plataforma birtualak, diapositiben aurkezpena eta posterrak, besteak beste), bai modu analogikoan, bai bitarteko digitalen bidez, egile-eskubideak errespetatuz eta informazioa behar bezala erreferentziatuz.

Era berean, konpetentzia espezifiko honek argudiaketa sustatzea du helburu, funtsezkoa baita ikasleen garapen sozial eta profesionalerako. Eztabaidetan, foroetan edo beste bide batzuetan argudiatzeak aukera ematen du norberaren jarrerak modu logiko eta funtsatuan defendatzeko, baina baita beste pertsona batzuen ideiak ulertzeko eta barneratzeko ere. Argudiaketa pentsamendu kolektiboko modu bat da, horretan parte hartzen dutenak aberasten dituena, eta bidea ematen duena erronken aurreko erresilientzia garatzeko, baita malgutasuna ere, besteen argudioen aurrean norberaren ideiei bira bat emateko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, EK3 eta KAKK4.1.

3. Ikerketa-proiektuak diseinatzea, planifikatzea eta garatzea, metodologia zientifikoen urratsei jarraituz, eskura dauden baliabideak modu errealistan kontuan hartuz eta kolaborazio-bideak bilatuz, biologia-, geologia- eta ingurumen-zientziekin lotutako alderdiak arakatzeko.

Ezagutza zientifikoa behaketa objektiboaren eta esperimentazioaren bidez lortutako ebidentzietatik abiatuta eraikitzen da, eta helburu du inguratzen gaituen munduaren funtzionamendua azaltzea eta gure garaiko problemei irtenbideak ematea. Metodo zientifikoak honako hauetan oinarritzen dira: ingurune naturalari edo sozialari buruzko galderak edo hipotesiak egitea, horiei erantzun ahal izateko estrategiak diseinatzea eta gauzatzea, emaitzak interpretatzea eta analizatzea, ondorioak ateratzea eta komunikatzea. Sarritan, deskribatutako ekintza horiek gauzatzeak erakundeen eta gizabanakoen arteko kolaborazioa eskatzen du.

Beraz, ikasleek zientzian erabiltzen diren metodologien urratsak aplikatzeko aukera ematen duten egoerak planteatzeak lagundu egiten du jakin-mina, zentzu kritikoa, espiritu ekintzailea eta kolaborazio-lanerako trebetasunak garatzen. Gainera, ikasleek trebetasunak eta ezagutzak eskuratuko dituzte. Horiek bidea emango diete ebidentzietan eta lan zientifikoan oinarritutako iritziak sortzeko.

Azken batean, trebetasun horiek, karrera zientifikoa garatzeko ez ezik, funtsezkoak dira hainbat erronkari aurre egiteko behar den erresilientzia hobetzeko eta, horrela, maila profesional, sozial edo pertsonalean erabat integratuta egongo diren herritarrak prestatzeko ere.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD3, KPSII3.2, KPSII5, EK1 eta EK3.

4. Ikerketa diziplinarteko eta taldeko lan gisa ulertzea, emakumearen lana aztertuz eta baloratuz, zientziak gizarteari egiten dion ekarpenari buruz argudiatzeko.

Konpetentzia espezifiko honen bidez, zientziak egungo gizartean duen garrantziaz jabetzen dira ikasleak. Era berean, zientziaren diziplinarteko izaera aitortzen du, jakintza-diziplinen arteko mendekotasun argi batek markatuta. Horrek jarduera zientifiko oro aberasten du eta ikerketaren garapen holistikoan islatzen da. Horregatik, garrantzitsua da ikasleek ulertzea zientzia-lana kolaborazio indibidual eta kolektiboaren mende dagoela.

Era berean, historian zehar nabarmena izan da emakumeen eta gizonen arteko desoreka lanbide zientifiko bat garatzeko eta, bereziki, maila akademiko edo profesionaletan postu altuagoak lortzeko, eta gaur egun ere mantentzen da hori. Horren arrazoien artean dago emakume zientzialariek duten agerikotasun txikia edo nulua.

Horregatik, garrantzitsua da ikasleek desoreka horren tamaina eta emakume zientzialarien existentzia ezagutzea, baita haien lana eta lan hori zein inguruabarretan egin zuten edo egiten duten ere.

Era berean, ikasleei emakume erreferenteak emateak neska diren ikasleen artean bokazio zientifikoak sustatzen laguntzen du.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE1, STEM2, STEM4, STEM6, KD2, KPSII4, KPSII5, HK3 eta KAKK1.

5. Problemak ebazteko estrategiak bilatzea eta erabiltzea, aurkitutako soluzioak eta erantzunak kritikoki analizatuz eta, beharrezkoa balitz, prozedura birformulatuz, biologia-, geologia- eta ingurumen-zientziekin lotutako fenomenoak azaltzeko.

Problemak ebaztea oinarrizko zientziaren eta zientzia aplikatuaren berezko zati bat da. Esperimentazioaren eta/edo behaketaren bidez arrazoibideak (hipotesiak) kontrastatuz eraikitzen dira zientzia enpi-

rikoak. Aurrerapen zientifikoa, beraz, mugatu egiten dute hipotesiak sortzeko ariketa intelektualerako trebetasunak eta hipotesi horiek esperimentalki frogatzeko gaitasun teknikoak eta giza mailakoak. Gainera, aurkikuntza eta aurrerapenetarako bidea oso gutxitan izaten da lerrozuzena, eta sarritan oztopatzen dute ustekabeko egoerek, prozesuko akatsek eta bestelako arazoek. Horregatik, zailtasunei aurre egitean, ezinbestekoa da zientzian diharduten pertsonek sormena, estrategia berriak bilatzeko edo askotariko tresnak erabiltzeko trebetasunak, lankidetzarako irekitasuna eta erresilientzia erakustea, berehalako arrakastarik lortu ez arren.

Gainera, problemak ebazteak eta eguneroko bizitzako beste testuinguru batzuetako hainbat fenomenori buruzko azalpen koherenteak bilatzeak antzeko trebetasunak eta jarrerak eskatzen ditu, erabateko garapen pertsonal, profesional eta sozialerako beharrezkoak. Arrazoi horiengatik, problemak ebazteko trebetasuna funtsezkotzat jotzen da eta jakintzagai honen curriculumaren parte da, ikasleei aukera ematen baitie analisi kritikoa garatzeko, kolaboratzeko, ziurgabetasun-egoeren eta aldaketa bizkorren aurrean moldatzeko, gizartean bete-betean parte hartzeko eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM1, STEM2, STEM4, KD1, KD5, KPSII 1.1 eta KPSII5.

6. Ingurumenaren kontserbazioarekin, iraunkortasunarekin eta osasunarekin lotutako ekimenak diseinatzea, sustatzea eta gauzatzea, biologia-, geologia- eta ingurumen-zientzien funtsak oinarri hartuz, ohitura iraunkor eta osasungarriak sustatzeko.

Gaur egun, ingurumenaren degradazioaren ondorioz, baliabide naturalak suntsitzen ari dira, horiek birsortzeko baino askoz erritmo biziagoan. Joera negatibo horien aurrerapena geldiarazteko eta beren hondamenezko ondorioak saihesteko, herritarren, estatuen eta korporazioen ekintza indibidual eta kolektiboak behar dira. Horretarako, ezinbestekoa da mundu naturalaren balio ekologikoa, zientifikoa, soziala eta ekonomikoa ezagutzea, eta ulertzea ingurumenaren degradazioak berekin dakartzala desberdintasuna, errefuxiatu klimatikoak, hondamendi naturalak eta bestelako krisi humanitarioak.

Arrazoi horiengatik, funtsezkoa da ikasleek konpetentzia espezifiko hau lantzea eta, horrela, garapen iraunkorreko eredu bat ezartzeko premiazko beharra justifikatzen duten oinarriak ezagutzea, eta ohitura indibidual eta kolektibo iraunkorrak sustatzeko eta hartzeko ekimen eta proiektu berritzaileen buru izatea. Konpetentzia espezifiko hau garatzeak ikasleei aukera ematen die giza fisiologiaren azterketan sakontzeko eta, horrela, osasuna eta bizi-kalitatea mantentzen eta hobetzen lagunduko duten ohiturak proposatzeko eta hartzeko. Alderdi hori bereziki garrantzitsua da, ohitura sedentarioek eta elikagai hiperkalorikoen kontsumoak goranzko joera dutelako, eta hori ondorio larriak izaten ari delako mundu garatuko herritarren osasunean.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM2, STEM5, STEM6, KD4, KPSII2, KPSII5, HK4, EK1 eta EK3.

7. Erregistro geologikoaren elementuak analizatzea, oinarri zientifikoak erabiliz, horiek Lurraren historian zehar izandako gertaera handiekin eta horien denbora-magnitudearekin erlazionatzeko.

Lurraren azterketak zailtasun handiak izan ditu eta oraindik baditu. Ondorioz, datu gutxi daude haren historiako aldi batzuei buruz. Lurra aztertzeko ikerketek espazio- eta denbora-eskala desberdineko prozedura ugari erabiltzea eskatzen dute eta, ondorioz, zailtasunak dituzte. Horregatik, geologoek landa-lana eta zeharkako metodoak erabiltzen dituzte, Lurraren historia azaltzeko ebidentziak lortzeko helburuarekin. Erregistro geologikoak Lurraren osagaiei eta bertan izandako gertaerei buruzko ebidentziak erakusten dizkigu, eta ikerketa zientifikoak, teknologia gero eta aurreratuagoen laguntzaz, aukera ematen digu gure planetaren ezagutza geologikoa eta biologikoa berritzeko eta Lurraren ulermena hobetzen duten ereduak ezartzeko.

Batxilergoan ikasleek heldutasun-maila lortu dute. Horri esker, erradioisotopoen datuak erabiliz material geologikoak datatzeko printzipioak uler ditzakete. Badute ere behar besteko garapen-maila intelektuala

denbora geologikoaren eskala eta gure planetako gertaera geologiko eta biologiko nagusien garrantzia ulertzeko.

Konpetentzia hau lantzeak ikasleei ahalbidetuko die arrazoibidearen bitartez elementu geologikoak analizatzeko trebetasunak garatzea eta, horrela, era horretako problema edo egoerei aurre egitea eta horiek ebaztean logika eta ezagutza aplikatzeko gai izatea.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, STEM2, STEM4, STEM6, KD1, KPSII4, HK4 eta KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Jakintzagaiaren jakintzekin zerikusia duten gaiak planteatzea eta ebaztea, iturri egokiak aurkituz eta aipatuz, eta informazioa hautatuz, antolatuz eta kritikoki analizatuz.
1.2. Jakintzagaiaren jakintzekin lotutako informazioaren egiazkotasuna kontrastatzea eta justifikatzea, iturri fidagarriak erabiliz eta jarrera kritiko eta eszeptikoa hartuz oinarri zientifikorik gabeko informazioekiko (hala nola sasizientziak, konspirazio-teoriak, funtsik gabeko sinesmenak, buloak, etab.).
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Jakintzagaiaren jakintzekin lotutako kontzeptuak eta prozesuak kritikoki analizatzea, informazioa hainbat formatutan interpretatuz (ereduak, grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak...).
2.2. Jakintzagaiaren jakintzekin edo lan zientifikoekin lotutako informazio edo iritzi arrazoituak komunikatzea, horiek modu argi eta zorrotzean transmitituz, terminologia eta formatu egokiak (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak eta sinboloak, besteak beste) eta tresna digitalak erabiliz, egile-eskubideak errespetatuz eta informazioa behar bezala erreferentziatuz.
2.3. Jakintzagaiaren jakintzekin lotutako alderdiei buruz argudiatzea, jarrera bat modu arrazoituan defendatuz, besteen iritziarekiko jokabide ireki, malgu, harkor eta errespetuzkoarekin.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Galderak planteatzea, iragarpenak egitea eta erantzun edo kontrastatu daitezkeen hipotesiak formulatzea, fenomeno biologikoak, geologikoak eta ingurumenekoak azaltzen saiatuko diren metodo zientifikoak erabiliz.
3.2. Fenomeno biologikoen, geologikoen eta ingurumenekoen inguruko esperimentazioa, datu-hartzea eta analisia diseinatzea, eta beharrezko tresnak hautatzea, galdera zehatzei erantzun eta planteatutako hipotesi bat kontrastatu ahal izateko moduan, alborapenak ahal den neurrian minimizatuz.
3.3. Fenomeno biologiko, geologiko eta ingurumenekoei buruzko esperimentuak egitea eta datu kuantitatiboak eta kualitatiboak hartzea, tresna, erreminta edo teknika egokiak zuzentasunez eta zehaztasunez hautatuz eta erabiliz.
3.4. Ikerketa-proiektu batean lortutako emaitzak interpretatzea eta analizatzea, beharrezkoa denean tresna matematikoak eta teknologikoak erabiliz, horien irismena eta mugak ezagutuz eta ondorio arrazoituak eta oinarrituak atereaz edo hori egitea ezinezkoa ote den baloratuz.
3.5. Proiektu zientifikoaren faseetan, ikastetxe barruan eta bertatik kanpo kolaborazioak ezartzea, eraginkortasun handiagoz lan egiteko asmoz, tresna teknologiko egokiak erabiliz, ikerketan kooperazioak duen garrantzia baloratuz, aniztasuna errespetatuz eta inklusioa bultzatuz.
3.6. Proiektu zientifikoaren sarrera, metodologia, emaitzak eta ondorioak argi eta zorrotz aurkeztea eta komunikatzea, formatu egokia (taulak, grafikoak, txostenak, etab.) eta tresna digitalak erabiliz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Ikerketa onartzea testuinguru politikoak eta baliabide ekonomikoek eragindako etengabeko bilakaeran dagoen lan kolektibo eta diziplinartekotzat.
4.2. Zientziak gizarteari egiten dion ekarpenari eta horretan aritzen diren pertsonen lanari buruz argudiatzea, emakumearen zeregina nabarmenduz.

Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Prozesu biologiko, geologiko edo ingurumenekoei buruzko problemak ebaztea edo haiek azaltzea, askotariko baliabideak erabiliz, hala nola norberaren ezagutzak, datuak eta informazioa, arrazoibide logikoa, pentsamendu konputazionala edo tresna digitalak.
5.2. Fenomeno biologiko, geologiko edo ingurumenekoei buruzko problema baten soluzioa kritikoki analizatzea, erabilitako prozedurak edo ateratako ondorioak aldatuz, baldin eta soluzio hori bideragarria ez bada edo gerora emandako edo aurkitutako datu berrien aurrean.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Ingurumen-problema nagusien kausak eta ondorio ekologiko, sozial eta ekonomikoak ikuspegi indibidual, lokal eta global batetik analizatzea, horiek gizateriaren erronka handitzat ulertuz eta datu zientifikoetan eta jakintzagaiari buruzko jakintzetan oinarrituz.
6.2. Tokian-tokian ohitura eta ekimen iraunkor eta osasungarriak proposatzea eta praktikan jartzea eta haien ondorio positiboei eta horiek hartzeko premiari buruz argudiatzea, jakintzagaiari buruzko jakintzetan oinarrituz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Lurraren historiako gertaera handiak erregistro geologikoaren elementu jakin batzuekin eta gaur egungo gertaerekin lotzea, oinarrizko printzipio geologikoak eta arrazoibide logikoa erabiliz.
7.2. Datazio-problemak ebaztea, erregistro geologikoaren eta fosilaren elementuak analizatuz eta datazio-metodoak aplikatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak
A. Proiektu zientifikoa
Hipotesiak, galderak, problemak eta aieruak: ikuspegi zientifikoaren bidezko planteamendua.
Informazioa bilatzeko estrategiak, kolaboraziokoak, komunikaziokoak eta erakunde zientifikoekiko interakziokoak: tresna digitalak, prozesuak aurkezteko formatuak, emaitzak eta ideiak (diapositibak, grafikoak, bideoak, posterrak, txostenak eta bestelakoak).
Informazio-iturri fidagarriak: bilatzeko, ezagutzeko eta erabiltzeko estrategiak.
Laborategiko edo landa-laneko esperientzia zientifikoak: diseinatzeko, planifikatzeko eta aurrera eramateko estrategiak. Hipotesiak kontrastatzeko estrategiak. Kontrol esperimentalak.
Emaitza zientifikoak analizatzeko metodoak: antolamendua, irudikapena eta tresna estatistikoak.
Komunikazio zientifikorako estrategiak: hiztegi zientifikoa, formatuak (txostenak, bideoak, ereduak, grafikoak eta bestelakoak) eta tresna digitalak.
Zientzia-lana eta zientzian diharduten pertsonak: biologia-, geologia- eta ingurumen-zientzietarako ekarpena eta garrantzi soziala. Emakumearen zeregina zientzian.
Jakintza zientifikoaren bilakaera historikoa: zientzia etengabe eraikitzen ari den lan kolektibo eta diziplinarteko gisa.
B. Lurraren eta bizitzaren historia
Denbora geologikoa: magnitudea, eskala eta datazio-metodoak. Datazio absolutuaren eta erlatiboaren problemak.
Lurraren historia: gertaera geologiko nagusiak.
Erregistro geologikoa aztertzeko metodoak eta printzipioak: Euskal Herriko historia geologikoaren berreraikuntza.
Bizitzaren historia Lurrean: izaki bizidunen talde handien aldaketa nagusiak eta justifikazioa eboluzioaren ikuspegitik.
Talde taxonomiko nagusiak: funtsezko ezaugarriak. Sailkapen nagusiak historian zehar. Woese (1977). Eztabaidak.
C. Lurraren dinamika eta konposizioa
Atmosferaren eta hidrosferaren egitura, dinamika eta funtzioak.
Geosferaren egitura, konposizioa eta dinamika: zuzeneko eta zeharkako azterketa-metodoak.

Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak
Barneko prozesu geologikoak, erliebea eta plaken tektonikarekiko erlazioa. Ertz motak, erliebeak, jarduera sismikoa eta bolkanikoa, eta horietako bakoitzaren ondoriozko arrokak.
Kanpoko prozesu geologikoak: eragile kausalak eta erliebearen gaineko ondorioak. Erliebea eta geomorfologia modelatzeko forma nagusiak.
Edafogenesia: lurzorua eratzen duten faktoreak eta prozesuak. Edafodibertsitatea eta horren kontserbazioaren garrantzia.
Arrisku naturalak: prozesu geologikoekiko eta giza jarduerekiko erlazioa. Iragarpen-, prebentzio- eta zuzenketa-estrategiak.
Arroken sailkapena: jatorriaren eta konposizioaren arabera. Ziklo litologikoa.
Mineral eta arroka garrantzitsuak eta ingurunea sailkatzeko eta identifikatzeko teknikak.
Mineralen eta arroken garrantzia: eguneroko erabilerak. Horien ustiapena eta erabilera arduratsua.
Ondare geologikoa kontserbatzearen garrantzia.
D. Ekologia eta iraunkortasuna
Ingurumena eragile ekonomiko eta sozial gisa: ingurumen-inpaktuaren ebaluazioak eta baliabideen eta hondakinen kudeaketa iraunkorrak duten garrantzia. Ingurumenaren, gizakien eta beste izaki bizidun batzuen osasunaren arteko erlazioa: *one health* (osasun bakarra).
Eguneroko jardueren iraunkortasuna: iraunkortasun-adierazleen erabilera, bizi-ohitura bateragarriak eta koherenteak garapen iraunkorreko eredu batekin. Aztarna ekologikoaren kontzeptua.
Garapen iraunkorreko eredu bat sustatzeko tokiko ekimenak eta ekimen globalak.
Ekosistemen dinamika: energia-fluxuak, materiaren zikloak (karbonoa, nitrogenoa, fosforoa eta sufrea), interdependentzia eta erlazio trofikoak. Problemen ebazpena.
Klima-aldaketa: karbonoaren zikloarekin duen erlazioa, arrazoiak eta ondorioak osasunean, ekonomian, ekologian eta gizartean. Horri aurre egiteko estrategiak eta tresnak: arintzea eta egokitzapena.
Biodibertsitatearen galera: kausak eta ingurumen- eta gizarte-ondorioak. Biodibertsitatea kontserbatzearen garrantzia.
Hondakinen problema. Konposatu xenobiotikoak: plastikoak eta horiek naturan eta izaki bizidunen osasunean dituzten eraginak. Hondakinen prebentzio eta kudeaketa egokia.
E. Landareen fisiologia eta histologia
Nutrizio-funtzioa: garrantzia eta horretan parte hartzen duten egiturak hainbat landare-taldetan. Fotosintesia, bere balantze orokorra eta garrantzia Lurreko bizitzarako. Izerdi gordinaren eta izerdi onduaren osaera, eraketa eta garraio-mekanismoak.
Erlazio-funtzioa: landareek estimuluei ematen dizkieten erantzunen motak eta fitohormonen eragina (auxinak, zitokininak, etilenoa, etab.).
Ugalketa-funtzioa: ugalketa sexuala eta asexuala, garrantzi ebolutiboa, ziklo biologikoak, ugalketa asexual motak, ugalketa sexualean inplikatutako prozesuak (polinizazioa, ernalketa, haziaren sakabanatzea eta fruitua) eta ekosistemarekin duten erlazioa.
Landareen egokitzapenak ingurunearekiko: egokitzapenen eta horiek garatzen diren ekosistemaren arteko erlazioa.
F. Animalien fisiologia eta histologia
Nutrizio-funtzioa: garrantzi biologikoa eta talde taxonomikoetan inplikatutako egiturak.
Erlazio-funtzioa: koordinazio-sistemen (nerbio-sistema eta sistema endokrinoa), zentzumen-errezeptoreen eta organo efektoreen fisiologia eta funtzionamendua talde taxonomikoetan.
Ugalketa-funtzioa: garrantzi biologikoa, motak eta inplikatutako egiturak talde taxonomiko ezberdinetan.
G. Mikroorganismoak eta elementu genetiko mugikorrak
Eubakterioak eta arkeobakterioak: desberdintasunak.
Bakterioen metabolismoa: garrantzi ekologikoaren adibideak (sinbiosia eta ziklo biogeokimikoak).
Mikroorganismoak gaixotasun infekziosoen eragile gisa: zoonosia eta epidemiak.
Mikroorganismoen hazkuntza: esterilizazio- eta hazkuntza-teknikak.
Transferentzia genetiko horizontaleko mekanismoak bakterioetan: antibiotikoekiko erresistentziaren arazoa.
Elementu genetiko mugikorrak (birusak, biroideak, plasmidoak eta transposonak) eta prioiak: ezaugarriak, infekzio-mekanismoak eta garrantzi biologikoa.

FISIKA

Batxilergoko bigarren mailan Fisika jakintzagaia ezinbesteko zientzia bihurtzen da ikasleak modalitate zientifiko teknologikoan prestatzeko, eraikitzen ari den zientzia baten parte aktibo izateko gaitasuna ematen baitu, haren bilakaera historikoaren analisitik eta fenomeno naturalak behatzeko, azaltzeko eta frogatzeko eskuratzen dituen trebetasunetatik abiatuta; izan ere, Fisika, natura aztertzen duen diziplina den aldetik, unibertsoa ulertzeaz eta deskribatzeaz arduratzen da, mikrokosmosean sortzen diren fenomenoetatik hasi eta makrokosmosean gertatzen direnak arte. Materiak, energiak eta elkarrekintzek ez dute jokabide bera egoera guztietan; hori dela eta, ikasleek natura azaltzeko aplikatu behar dituzten fisikaren ereduak, printzipioak eta legeak lan-eskalara egokitu behar dira, eta aurkitzen dituzten erantzunak beti hurbilduak eta testuinguruak baldintzatuak izango dira. Gainera, egokia da ikasleek fisika eboluzionatzen ari den zientziatzat hartzea, eta fisika teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin estuki erlazionatzen duten ezagutzak ere aintzat hartzea.

Bestalde, Oinarrizko Hezkuntzan eta Batxilergoko lehenengo mailan ikasleek eskuratu duten konpetentzia-ikaskuntza osatuz eta Batxilergoko funtsezko konpetentziak garatuz, ikasleak gai izango dira erakusteko eguneroko bizitzan gertatzen diren fenomeno asko eredu eta lege fisiko eskuragarrien bidez uler eta azal daitezkeela; halaber, fisika zerbait konplexua dela desmitifikatzeko ere gai izango dira. Fenomeno horiek aztertzea interesgarria izan dadin lortzea lagungarria da herritartasun kritikoak eta oinarri zientifiko egokia duen herritartasuna sortzeko.

Jakintzagaiaren diseinua konpetentzia espezifikoetatik abiatzen da, eta konpetentzia horiek garatzeak ezagutza, trebetasun eta jarrera zientifiko aurreratuak eskuratzeko gaitasuna ematen die ikasleei. Konpetentzia horiek ez dira soilik fisikaren elementuei buruzkoak, ikasleen prestakuntza osoan eginkizun garrantzitsua duten zeharkako eta diziplinarteko elementuei buruzkoak ere badira. Prozesu horretan ez da ahaztu behar zientzia honen izaera esperimentala; horregatik, metodologia eta tresna esperimentalak erabiltzea proposatzen da, besteak beste, legeen eta printzipioen formulazio matematikoa, laborategiko tresnak, eta kontzeptuak eta fenomenoak ulertzea erraztu dezaketen tresna teknologikoak. Bestalde, konpetentzia horien bidez, talde-lana eta balio sozial eta zibikoak sustatu nahi dira, bizitza osoan etengabeko prestakuntzarako, ingurumen-garapenerako, ondasun komunitariorako eta gizartearen aurrerabiderako zientzia erabiliko duten pertsona konprometituak —garapen iraunkorraren helburuekin bat datozenak— lortzeko.

Jakintzagai honen konpetentzia-ikaskuntza osatzeko, curriculumak ebaluazio-irizpideak aurkezten ditu. Konpetentzia espezifikoekin zuzenean lotuta daudenez, horiek ikasleen konpetentzia-aurrerapena modu esanguratsuan ebaluatzen dute, eta eduki teorikoak edo emaitzak osorik aztertzeaz eta naturako egoera zehatzei buruzko jakintza erabilgarria justifikatzeaz harago doan ebaluazioa egin nahi dute; hau da, arazoak eta egoerak ebazteko estrategiak eta tresnak eskuratzera bideratuta daude, ikaskuntza esanguratsuaren funtsezko elementu gisa. Ikaskuntzak testuinguru globalean txertatzeak aukera ematen du ikasleen garapen zientifikoa haien ebaluazioan islatzeko.

Ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan eta Batxilergoko lehen mailan eskuratu dituzten oinarrizko jakintzek maila horretan fisikak ematen dituen jakintza zientifikoak finkatzeko eta eraikitzeko konpetentzia-egitura bat sortu dute. Batxilergoko Fisikako jakintzagaiaren oinarrizko jakintza-multzoak aurreko etapetako irakaskuntzetako jakintzagaiak erlazionatzera eta osatzera bideratuta daude, ikasleek fisikako lan-ildoen eta horien askotariko aplikazioen pertzepzio globala eskuratu ahal izan dezaten. Modu horretan aurkeztuta badaude ere, blokeen antolamendua ez dator bat ezarritako sekuentzia batekin, irakasleek beren talde zehatzaren beharretarako denboralizazio egokienaren arabera lan egin ahal izan dezaten.

Lehenengo multzoa, zientziaren trebetasunak eta ikerketa zientifikoa barne hartzen dituena, gainerako multzoen zeharkako multzo bat da, eta zientziaren metodologiei eta fisikaren garapenean duten garrantziari egiten die erreferentzia; horrek aukera ematen du aurreko etapetan eskuratutako jarduera zientifikoaren oinarrizko estrategietan aurrera egiten eta sakontzen jarraitzeko, eta ezagutza zientifikoan sakontzeko aukera, zientziaren berezko prozeduren eta matematikarekin duen erlazioaren bidez. Gainera,

emakume-zientzialariek eta gizon-zientzialariek zientziaren garapenean duten zeregin nabarmena azpimarratzen da, baita kultura zientifikoak erabakiak irizpide zientifikoekin hartzeko oinarri gisa duen garrantzia ere, etengabe eboluzionatzen ari den gizarte honetan.

Hurrengo bi multzoak eremuen teoria klasikoari buruzkoak dira. Lehenengoan, eremu grabitatorioaren azterketari buruzko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen dira. Bertan, tresna matematiko egokiak erabiliz, masa-partikulen artean sortzen diren elkarrekintzak aurkezten dira, eta, aurreko ikasturteetako ezagutza batzuei loturik, haien mekanika, energia eta kontserbazio-printzipioak. Jarraian, bigarren multzoak elektromagnetismoari buruzko jakintzak biltzen ditu. Eremu elektrikoa eta magnetikoa deskribatzen ditu, estatikoak zein denboran aldakorrak, baita horien ezaugarriak eta aplikazio teknologikoak, biosanitarioak eta industrialak ere.

Hurrengo multzoa bibrazioei eta uhinei buruzkoa da, oszilazio-higidura perturbazioen sortzaile gisa kontuan hartuta, eta uhin-higidura baten bidez espazio-denboran hedatzen dela ikusita. Azkenik, uhinetan energia kontserbatzea eta adibide zehatzetan aplikatzea aurkezten du, hala nola soinu-uhinetan eta uhin elektromagnetikoetan; eta horrek optika fisikoaren eta optika geometrikoaren berezko prozesuen azterketa irekitzen du.

Azken multzoarekin, egungo eta etorkizuneko fisikaren panorama orokorra erakusten da. Bertan, fisika kuantikoaren eta partikulen fisikaren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak azaltzen dira. Fisika erlatibistaren funtsezko printzipioen pean, multzo honek materiaren osaera eta zientzia maila mikroskopikoan ikasten denean gertatzen diren prozesuak azaltzen dituzten ereduak biltzen ditu. Multzo honek fisikaren mugetara hurbiltzeko aukera emango die ikasleei, eta jakin-mina zabalduko die —ikasteko duten motorrik onena—, oraindik galdera asko argitu gabe daudela eta zientzia honen ikerketa eta garapenetik erantzun beharreko erronka asko daudela ikusita.

Jakintzagai honi konpetentzia-izaera emateko helburuarekin, oinarrizko jakintzak ikas-egoeretan bateratzea proposatzen da, ikasleek beren ezagupenak, trebetasunak eta jarrerak beren hurbileko errealitateari lotutako egoeretan aplikatu ahal izan ditzaten, horretarako beharrezko baliabideak erabiliz eta esperimentazio zientifikoa lan egiteko modu —banaka zein taldeka— gisa barne hartuz.

Jakintzagai honen bidez, azken batean, ikasleek zientzien ikerketarekiko jakin-mina sortzea, eta orain eta etorkizun hurbila dakarten eskaera sozial, teknologiko eta industrialak asetzeko haiek prestatzea bilatzen da.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Prozesu fisiko garrantzitsuenak arautzen dituzten teoriak, printzipioak eta legeak erabiltzea, euren oinarri esperimentala eta problemak ebaztean garapen matematikoa kontuan hartuz, fisika teknologiaren, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumen-jasangarritasunaren garapenean inplikatutako zientzia garrantzitsutzat hartzeko.

Fisikaren printzipioak, legeak eta teoriak erabiltzeak bere oinarri teorikoen ezagutza zabala eskatzen du. Esperimentazioaren bidez edo garapen matematikoak erabiliz, naturan gorputzen eta sistemen artean gertatzen diren elkarrekintzak ulertzeko eta deskribatzeko gaitasunak, aldi berean, pentsamendu zientifikoa garatzea ahalbidetzen du, fisikak esku hartzen duen testuinguru desberdinetan problemak ebazteari aplikatutako ezagutza berria eraikitzeko. Horrek esan nahi du fisika jakintzaren eremu bat dela, eta inplikazio handiak dituela teknologian, ekonomian, gizartean eta ingurumen-jasangarritasunean.

Horrela, fisikak eguneroko bizitzako beste eremu batzuetan dituen inplikazioak ulertuta, ikasleek testuinguru bakoitzari eragiten dioten egoerei buruzko iritzi oinarritua osatzea lortzen dute; hori beharrezkoa da pentsamendu kritikoa eta jarrera egokia garatzeko, eskuratutako ezagutza zientifikoaren bidez aurrerapen eraikitzen laguntzeko, soluzio jasangarriak emanez.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM5, KPSII4, EK1.

2. Fisikaren eredu, teoria eta lege onartuak sistema naturalen azterketa-oinarri gisa hartzea, haien eboluzioa aurreikusiz, gizarteak teknologia-, industria- eta biosanitario-arloan eskatzen dituen aplikazio praktikoekin erlazionatutako eguneroko problemei soluzio orokorrak emateko.

Fisikaren azterketak, naturaren zientzia den aldetik, ingurune naturalean gertatzen diren fenomenoak analizatzeko konpetentzia eman behar du. Horretarako, beharrezkoa da ezagutza-arlo honen funtsezko zutabeak osatzen dituzten ereduak, teoriak eta legeak jarraitzea; horiek, gainera, sistema eta objektu naturalen eboluzioa aurreikustea ahalbidetzen dute. Aldi berean, hori hala gertatzen da eguneroko egoeretan ikusitako fenomenoak eta fisikaren oinarriak eta printzipioak erlazionatzen direnean.

Hala, hainbat egoera partikularren azterketatik abiatuta, eguneroko problemei soluzio orokorrak ematen ikasten da, gizartearentzat beharrezkoak diren aplikazio praktikoak eragin baititzakete, eta produktuak eta onurak sortuko baitituzte, teknologia-, industria- edo biosanitarioa-alorretik garatuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, KPSII2, HK4.

3. Fisikaren hizkuntza erabiltzea bere printzipio, magnitude, unitate, ekuazio eta abarren formulazio matematikoaz baliatuz, komunitate zientifikoen arteko komunikazio egokia ezartzeko, eta ikerketarako funtsezko tresna bat gisa.

Konpetentzia espezifiko horren garapenak oinarri zientifikoa duten formalismoak erabiltzeko irizpide multzo bat helarazi nahi die ikasleei, fisikako problemen ebazpena behar bezala planteatu eta eztabaidatu ahal izateko, eta euren inguruko munduan dituzten aplikazioak eztabaidatzeko. Gainera, matematika-hizkuntzaren unibertsaltasuna eta haren formulazioa balioetsi dezaten lortu nahi da, planteamendu fisikoak eta horien ebazpenak ingurune eta bitarteko desberdinetan trukatzeko.

Ikasleak komunitate zientifikoarekin kolaboratzen parte hartzean integratzeak kode espezifiko, zorrotz eta komun bat eskatzen du, bertako kideen artean trukatzen diren mezuak argiak izango direla bermatzeko. Era berean, konpetentzia espezifiko horrekin aurrerapen teknologikoen eskaerari erantzun nahi zaio, ingurumenaren kontserbazioa kontuan hartuta.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE2, STEM1, STEM4, KD3.

4. Banakako eta taldeko lanean, modu autonomoan, eraginkorrean, kritikoan eta arduratsuan erabiltzea baliabideak hainbat formatutan, informazio- eta komunikazio-plataforma digitalak, sormena sustatzeko, zientzia- eta dibulgazio-materialak ekoiztuz eta elkartrukatuz, eta fisika gizarteari hurbiltzea errazteko, jakintza-eremu irisgarri gisa.

Gaur egungo irakaskuntza- eta ikaskuntza-testuinguru berrietan eskuratu beharreko trebetasunen artean dago ikasteko plataformak eta ingurune birtualak erabiltzea. Plataforma horiek hainbat motatako eta formatu desberdinetako baliabide eta materialen biltegi gisa balio dute, eta fisika ikasteko baliagarriak dira, baita banakako ikaskuntzarako eta ikaskuntza sozialerako bitarteko gisa ere. Beraz, beharrezkoa da baliabide horiek modu autonomoan eta efizientean erabiltzea, ikaskuntza autorregulatua errazteko eta, aldi berean, beste ikasleekin eta irakasleekin batera jardutean arduratsua izateko.

Aldi berean, zientzia- eta dibulgazio-materialen ekoizpenak eta trukeak fisika gizarteari modu sortzailean hurbiltzea ahalbidetzen dute, ezagutza-eremu irisgarri gisa aurkeztuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, STEM5, KD1, KD3, KPSII4.

5. Fisikaren berezko lan- eta ikerketa-teknikak aplikatzea, baita esperimentazioa, arrazoiketa logiko-matematikoa eta lankidetza ere, problemak ebatziz eta erlazionatutako egoerak interpretatuz, balio etiko eta jasangarrietan oinarritutako gizartean fisikak duen zeregina balioesteko.

Natura-zientziek berezko izaera esperimentala dute. Diziplina zientifiko horietako edozeinen helburu nagusietako bat fenomeno naturalen azalpena da, eta horrek teoriak eta legeak formulatzeko aukera

ematen du hainbat sistematan aplikatzeko. Fisikaren kasua ez da desberdina, eta garrantzitsua da ikasleei beren ingurunean eta hainbat eskalatan gertatzen diren fenomenoekiko jakin-mina helaraztea. Eguneroko prozesu fisiko batzuk erraz erreproduzitzen dira, eta fisikaren printzipioetan eta legeetan oinarrituta azal eta deskriba daitezke. Era berean, prozesu batzuk, erreproduzitu ezin diren arren, ingurune naturalean daude, oro har, eta laborategi birtualei esker, simulatu egin daitezke, haien azterketara errazago hurbiltzeko.

Lan esperimentala egungo ikerketa-eremuetan oso beharrezkoak diren kolaborazioa eta informazio-trukea sustatzen duten etapek osatutako multzo bat da. Horretarako, erroreen esperimentazioa eta estimazioa, hainbat hizkuntzatan dauden dokumentu-iturri ezberdinen erabilera eta baliabide teknologikoen erabilera sustatu behar dira. Azkenik, informazioa prozesu hori guztia biltzen duten txostenetan islatu behar da, eta horri esker, etorkizunean ikasleek komunitate zientifikoaren kide izateko aukera izango lukete.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KPSII3.2, HK4, EK3.

6. Fisikaren diziplina anitzeko izaera aitortzea eta aztertzea, haren ibilbide historiko garrantzitsua eta ezagutza zientifikoak aurrera egiteko egindako ekarpenak etengabeko eboluzioan eta berrikuntzan oinarritutako prozesutzat hartuz, beste diziplina zientifiko batzuekin ezagutza- eta erlazio-oinarriak ezartzeko.

Fisika gure eguneroko bizitzako hainbat esparrutan oso inplikatuta dagoen zientzia da, eta, beraz, garapen zientifiko, teknologiko eta industrialaren funtsezko parte da. Printzipio eta legeak behar bezala aplikatzeak aukera ematen du ezagutza berberetan oinarritutako hainbat problema ebazteko eta egoera desberdinetan ikasitakoen antzeko planteamenduak aplikatzeko, eta zientzia horren unibertsaltasuna erakusten du.

Fisikaren ezagutzek eta aplikazioek, beste zientzia batzuetakoekin batera (matematika edo teknologia, esaterako), sistema bat osatzen dute, eta sistema horren ekarpenek mesede egiten diote elkarri. Azterketak egiaztatzeko esperimentuak formalizatzeko beharrak pizgarri bat dakar garapen teknologikoan, eta alderantziz, teknologiaren aurrerapenak oinarrizko zientzien bidez (fisika, adibidez azalpena behar duten aurkikuntza berriak bultzatzen ditu. Hainbat diziplinatan adituak diren komunitate zientifikoen arteko kolaborazioa ezinbestekoa da garapen horretan

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, STEM6, KPSII5, HK1, EK1, KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Fisika
1. konpetentzia espezifikoa.
1.1. Fisikak zientziaren, teknologiaren, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumen-jasangarritasunaren garapenean duen garrantzia ezagutzea, esparru horiei buruzko oinarri zientifikoak behar bezala erabiliz.
1.2. Problemak modu esperimentalean eta analitikoan ebaztea, fisikaren printzipioak, legeak eta teoriak erabiliz.
2. konpetentzia espezifikoa.
2.1. Sistema naturalen eboluzioa aztertzea eta ulertzea, fisikaren ereduak, legeak eta teoriak erabiliz.
2.2. Problema orokorretarako soluzioak ekartzea, egoera partikularrak eta horien mende dauden aldagaiak aztertuz.
2.3. Teknologia-, industria- eta biosanitario-alorretan gizartearentzat baliagarriak diren aplikazio praktikoak eta produktuak ezagutzea, fisikaren ereduak, legeak eta teoriak oinarri hartuta haiek aztertuz.
3. konpetentzia espezifikoa.
3.1. Printzipio, lege eta teoria zientifikoak aplikatzea inguruneko prozesu fisikoen azterketa kritikoan, hala nola komunikabide desberdinetan behatutakoak eta argitaratutakoak, horien sorburuak aztertuz, ulertuz eta azalduz.

Fisika
3.2. Aldagai fisikoen unitateak zorrotz erabiltzea unitate-sistema desberdinetan, euren notazioa eta baliokidetasunak behar bezala erabiliz, eta aldagai fisikoak erlazionatzen dituzten grafikoak behar bezala lantzea eta interpretatzea, komunitate zientifiko osoarekin komunikazio eraginkorra ahalbidetuz.
3.3. Ariketak eta problemak ebaztean, emaitzak behar bezala adieraztea, lortutako irtenbideak argudiatuz, bai egoera errealen bidez, bai egoera idealen bidez.
4. konpetentzia espezifikoa.
4.1. Ikaskuntza-inguruneko beste kide batzuekin zientzia- eta dibulgazio-materialak kontsultatzea, lantzea eta trukatzea hainbat formatutan, plataforma digitalak modu autonomoan eta efizientean erabiliz.
4.2. Komunikabide digitalak eta tradizionalak modu kritikoan, etikoan eta arduratsuan erabiltzea, banakako eta taldeko lanaren bidez ikaskuntza aberasteko modu gisa.
5. konpetentzia espezifikoa.
5.1. Aldagai fisikoen arteko erlazioak lortzea, datu esperimentalak neurtuz eta tratatuz, erroreak zehaztuz eta irudikapen grafikoko sistemak erabiliz.
5.2. Prozesu fisiko jakin batzuk —errealak edo birtualak izan daitezke— laborategietan erreproduzitzea, haiek baldintzatzen dituzten aldagaiak aldatuz, inplikatuta dauden printzipio, lege edo teoriak kontuan hartuz, dagokion txostena formatu egokiarekin sortuz eta argudioak, ondorioak, datu-taulak, grafikoak eta erreferentzia bibliografikoak barne hartuz.
5.3. Fisika baloratzea, bere aurrerapenen inguruan eta, etikaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik, gizartean duen inplikazioaren inguruan modu arrazoituan eztabaidatuz.
6. konpetentzia espezifikoa.
6.1. Zientzia-diziplina guztietan gaur egun onartuta dauden legeak eta teoriak formulatzen lagundu duten fisikarekin erlazionatutako aurrerapen zientifiko nagusiak identifikatzea, hala nola zientziaren metodologiak, horien etengabeko eboluzioa eta unibertsaltasuna ulertzeko faseak.
6.2. Zientziaren diziplina anitzeko izaera eta diziplina batzuek besteei egiten dizkieten ekarpenak onartzea, fisikaren, kimikaren, biologiaren, geologiaren edo matematikaren arteko erlazioak ezarriz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Fisika
A. Zientziaren eta ikerketa zientifikoaren trebetasunak.
Metodologia zientifikoa eta honen oinarrizko ezaugarriak aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak galderak planteatzean, problemak ebaztean, lan esperimentalean eta proiektu zientifikoen ekintzailetzan.
Zientzia-ikaskuntzako inguruneen eta baliabideen erabilera egokia.
Hainbat bitartekotatik abiatuta, informazio zientifikoa interpretatzeko eta ekoizteko formatuak.
Lan esperimentalaren zorroztasunarekin eta zehaztasunarekin, eta hizkuntza zientifikoaren erabilera zuzenarekin lotutako lan zientifikoaren berezko estrategiak, unitate eta tresna matematikoen sistemen erabilera egokia barne.
Fisikaren eta kimikaren mugarri historiko eta egungo garrantzitsuenetan zientzia-kulturaren eta gizon eta emakume zientzialarien zereginaren balorazioa, eta horrek gizartearen aurrerapenean eta hobekuntzan duen isla.
B. Eremu grabitatorioa.
Kalkulu bektorialaren bidez, masa-sistema batek sortutako eremu grabitatorioaren zehaztapena. Eremuan murgilduta dauden objektuen aldagai zinematikoen eta dinamikoen gaineko eraginak.
Eremu grabitatorio bateko objektu baten momentu angeluarra: kalkulua, indar zentralekiko erlazioa eta haren kontserbazioaren aplikazioa mugimenduaren azterketan.
Eremu grabitatorio baten mende dagoen objektu baten energia mekanikoa: berak duen mugimendu mota deduzitzea, posizio, abiadura eta ibilbide mota desberdinen arteko desplazamenduetan dauden energia-balantzeen edo lanaren kalkulua.
Mugimendu planetarioan egiaztatzen diren legeak eta sateliteen eta zeruko gorputzen mugimendura estrapolazioa.

Fisika
Kosmologiarako eta astrofisikarako sarrera, eremu grabitatorioaren aplikazio gisa: fisikaren inplikazioa objektu astronomikoen eboluzioan, unibertsoaren ezagutzan eta ikerketaren eragina esparru horietan, industrian, teknologian, ekonomian eta gizartean.
C. Eremu elektromagnetikoa.
Eremu elektrikoa eta magnetikoa: tratamendu bektoriala, karga elektriko libreen aldagai zinematikoen eta dinamikoen zehaztapena eremu horien aurrean. Efektu horiek dituzten fenomeno naturalak eta aplikazio teknologikoak.
Eremu elektrikoaren intentsitatea karga diskretu eta jarraituen banaketetan: eremu elektrikoko fluxuaren kalkulua eta interpretazioa.
Karga estatikoen banaketa baten energia: karga libreak potentzial elektriko desberdineko puntuen artean mugitzean aldatzen diren eta konstante irauten duten magnitudeak.
Hainbat konfigurazio geometrikotan korronte elektrikoa duten hariek sortutako eremu magnetikoak: zuzenak, espirak, solenoideak edo torikoak. Elkarrekintza ingurunean dauden karga elektriko libreekin.
Karga sinpleen, imanen eta korronte elektrikoa duten harien banaketek konfigurazio geometriko desberdinetan sortutako eremu elektriko eta magnetikoko lineak.
Indar elektroeragilearen sorkuntza: motorren, sorgailuen eta transformadoreen funtzionamendua fluxu magnetikoaren aldaketa gertatzen den sistemetatik abiatuta.
D. Bibrazioak eta uhinak.
Oszilazio-higidura: gorputz oszilatzaile baten aldagai zinematikoak eta energia-kontserbazioa sistema horietan.
Uhin-higidura: oszilazio-grafikoak posizioaren eta denboraren arabera, hori deskribatzen duen uhin-ekuazioa eta mugimendu harmoniko sinplearekin duen erlazioa. Uhin-higidura mota desberdinak naturan.
Uhin-fenomenoak: zenbait uhin-fenomeno eta aplikazio agerian uzten dituzten egoera eta testuinguru naturalak. Soinu-uhinak eta horien ezaugarriak. Aldaketak uhinen propietateetan, igorlearen eta hartzailearen desplazamenduaren arabera.
Argiaren natura: eztabaida eta debate historikoak. Argia uhin elektromagnetiko gisa. Espektro elektromagnetikoa.
Irudien eraketa errefrakzio-indize desberdineko bitarteko eta objektuetan. Sistema optikoak: lente meheak, ispilu lauak eta kurbatuak eta horien aplikazioak.
E. Fisika erlatibista, kuantikoa, nuklearra eta partikulena.
Erlatibitate espazialaren oinarrizko printzipioak eta ondorioak: luzeraren uzkurdura, denboraren dilatazioa, energia eta masa erlatibistak.
Uhin-korpuskulu dualtasuna eta kuantizazioa: De Broglie-ren hipotesia eta efektu fotoelektrikoa. Ziurgabetasun-printzipioa, denboran eta energian oinarrituta formulatua.
Partikulen fisikaren eredu estandarra. Funtsezko partikulen sailkapenak. Funtsezko elkarrekintzak, partikulak trukatzeko prozesu gisa (bosoiak). Partikulen azeleragailuak.
Nukleo atomikoak eta isotopoen egonkortasuna. Erradioaktibitate naturala eta beste prozesu nuklear batzuk. Aplikazioak ingeniaritzaren, teknologiaren eta osasunaren arloetan.

FISIKA ETA KIMIKA

Batxilergoko lehenengo mailako Fisika eta Kimika jakintzagaiaren helburua da ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bereganatutako prestakuntza zientifikoa handitzea, eta aktiboki laguntzen du ikasleek oinarri kultural zientifiko aberatsa eta kalitatezkoa lortzen. Prestakuntza horren bidez, trebetasun handiz moldatuko dira ikerkuntzarako eta lan-mundurako profil zientifiko eta teknikoak eskatzen dituen gizartean. Ondorioz, Fisika eta Kimikako jakintzagaiak Batxilergoko helburua lortzen laguntzen du, ikasleei eskaintzen dielako prestakuntza, heldutasun intelektual eta humanoa, ezagutzak, gizarte-funtzioak garatzeko eta bizitza aktibora erantzukizunez eta gaitasunez txertatzeko trebetasunak eta jarrerak.

Batxilergoak ikasleei erraztasunak eman behar dizkie etorkizuneko prestakuntza eta lanbiderako ezinbestekoak diren konpetentziak eskuratzeko eta lortzeko. Alde horretatik, Fisika eta Kimika jakintzagaiak

Oinarrizko Hezkuntzako funtsezko gaitasunen garapenean sakontzen du. Konpetentzia horiek bat datoz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako ikasleen irteera-profilarekin, eta gainera ikasleen kultura-ezagutza zientifikoaren parte dira. Bestalde, jakintzagai honek goi-mailako ikasketetarako prestakuntzan ere ñabardura konpetentziala bat ere ematen die hurrengo ikasturtean prestakuntza zientifiko aurreratua aukera nahi duten ikasleei. Hurrengo ikasturtean Fisika eta Kimika jakintzagaia bi jakintzagaitan banatzen da, disziplina zientifiko bakoitzerako bana.

Fisika eta Kimika jakintzagaiari Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ematen zaion STEM ikuspegiak zientzietan modu integratuan prestatzen ditu ikasleak, Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzera bideratutako erronka batzuei aurre egiteko. Jakintzagai honen curriculuma irekia eta konpetentziala da, eta zientziaren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak barneratzen sakontzeaz gain, ikasleak beren profil pertsonala eta profesionala diseinatzera bideratzea du helburu, etorkizunerako dituzten lehentasunen arabera. Etorkizun horretan lanbide berriak egongo dira, eta Batxilergoko konpetentziak garrantzitsuak izango dira.

Batxilergoko lehenengo ikasturteko Fisika eta Kimikako curriculuma diseinatzeko jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak hartu dira abiapuntu, eta horiek izango dira gainerako curriculum-elementuen ardatza. Diseinu horren bidez, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua antolatzen da, eta curriculum osoari ematen dio izaera konpetentziala, bereziki. Prozesu horretan, funtsezko konpetentziak dira konpetentzia espezifikoen abiapuntua.

Konpetentzia espezifikoak ebaluatzeko, ebaluazio-irizpideak jasotzen ditu curriculum honek, eta bertan adierazten dira konpetentzia espezifikoen jarduera-mailak, oinarrizko jakintzen lorpenaren bidez, eta Batxilergoko funtsezko konpetentzien deskriptoreekin lotuta daude. Ebaluazio-irizpide horiek emaitzak eta prozesuak neurtzen dituzte, modu irekian, malguan eta curriculumaren baitan interkonektatuta. Irizpide horien bidez, kontzeptuak soilik ebaluatzea saihestu nahi da, eta jakintzagai honetarako definitutako konpetentziek berezkoak dituzten ezagutzen, trebetasunen eta jarreren ebaluazio holistikoa eta konpetentziala izango da. Ezagutza, trebetasun eta jarrera horien helburua da pentsamendu zientifiko konpetentzialari lotutako prozesu kognitiboak lantzea.

Ebaluazio-irizpideak erdiesteko, Batxilergoko lehenengo ikasturteko Fisika eta Kimikako curriculumak hainbat multzotan banatzen ditu oinarrizko jakintzak, hau da, ikasturte osoan zehar bereganatu behar diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak, aurreko etapakoei jarraipena ematea eta zabaltzea helburu. Batxilergoko etapa honek zientziaren trebetasunei eta ikerkuntza zientifikoari buruzko jakintza komunen multzo bat barne hartzen du, fisika eta kimikako multzo espezifikoez gain.

Zientziaren trebetasunei eta ikerkuntza zientifikoari buruzko Fisika eta Kimikako lehenengo multzo komun hori zeharka landuko da gainerako multzoetan, eta zientziaren metodologiei eta horiek fisikaren eta kimikaren garapenean duten garrantziari egiten dio erreferentzia. Lehenengo multzo horren bidez, aurreko etapetan bereganatutako jarduera zientifikoaren oinarrizko estrategietan jarraitzeko eta sakontzeko eta zientziaren berezko prozeduren eta matematikekin duen loturaren bidez ezagutza zientifikoan sakontzeko aukera ematen du. Horrez gain, emakume eta gizon-zientzialariek zientziaren garapenean duten funtzio nabarmena eta etengabe aldatzen ari den gizartean erabakiak irizpide zientifikoen arabera hartzeko oinarria eraikitzeko kultura zientifikoak duen garrantzia azpimarratzen ditu.

Kimikako berezko jakintzak materiaren egiturari eta lotura kimikoari buruzko multzoarekin hasten dira. Jakintza horiek funtsezkoak dira ezagutzak ikasturte honetan eta hurrengoan ulertzeko, Fisika eta Kimikako jakintzagaian ez ezik, baita eduki horiek oinarri dituzten beste diziplina zientifikoetan ere, Biologian esaterako.

Horren ondoren, erreakzio kimikoei buruzko multzoak tresna gehiago emango dizkio ikasleari, kalkulu estekiometriko aurreratuak egiteko eta, orokorrean, sistema fisiko-kimiko garrantzitsuekin kalkuluak egiteko, disoluzioak eta gas idealak esaterako.

Kimikako oinarrizko jakintzak kimika organikoari buruzko multzoarekin amaituko dira. Multzo hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken ikasturtean jorratu zen, eta etapa honetan sakonago jorratuko da, karbonoaren konposatuen propietate orokorrak eta horien nomenklatura ere jorratuko baitira. Jakintza

horiei esker, ikasleak prestatuko dira hurrengo ikasturtean ikasteko zeintzuk diren horien egitura eta erreaktibotasuna; oso garrantzitsua izanik gaur egungo gizarteko eremu askotan, esaterako, farmakoen eta polimeroen sintesian.

Fisikaren berezko jakintzak zinematikari buruzko multzoarekin hasten dira aurreko etapan bereganatutako ikaskuntzan esangura-maila handiagoa lortzeko. Multzo hori ikuspegi bektorialetik aurkezten da, unitate honetako zama matematikoa ikasleen heldutasunaren garapenak eskatzen duenera egokitzen joateko. Gainera, mugimendu kopuru handiagoa hartzen duenez, mekanikaren adar honen ikuspuntuak zabaltzeko aukera ematen die.

Mugimenduaren kausak zeintzuk diren ezagutzea ere garrantzitsua denez, hurrengo multzoak aurkezten ditu estatikari eta dinamikari buruzko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak. Aurreko multzoaren ikuspegi bektoriala aprobetxatuz, ikasleek tresna hau aplikatzen dute indarrek partikuletan eta solido zurrunetan dituzten efektuak deskribatzeko, indar bat sortzen duen momentuari dagokionez, kasu bakoitzean kausak nolakoak diren ondorioztatuz. Multzo horrek indarren deskribapen analitikoa eta horien adibideak ditu ardatz, eta ez indar zentralen kasu berezian (hori Batxilergoko 2. mailako Fisika jakintzagaian ikasiko da); hala, ikasleek hobeto ulertzea sustatu eta ezagutza esanguratsuaren oinarriak finkatuko dira.

Azkenik, energiari buruzko multzoko jakintzek aurreko etapan ikasitakoari jarraitzen diote, eta sakonago aztertzen dira lana, potentzia eta energia mekanikoa eta horren kontserbazioa, baita termodinamikaren oinarrizko alderdiak ere. Horrela, sistema termodinamiko sinpleen funtzionamendua eta horien berehalako aplikazioak ulertuko dituzte. Horren guztiaren helburua da energiak gure eguneroko bizitzan eta beste diziplina zientifiko eta teknologikoekin lotuta duen garrantzia ulertzea.

Jakintzagaiaren ikuspegi konpetentzialaren barnean, non oinarrizko jakintzek funtsezko funtzioa duten, hainbat ikas-egoera proposatzen dira eta, horietan, ikasleek ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak bereganatu eta aplikatzeko aukera izango dute, elkarrekin lotuta eta mailakatuta. Horrela, ikasleei aukera ematen die jakintzagai hau modu esanguratsuan konektatzeko bere errealitatearekin eta ezagutzaren beste arlo batzuekin, banakako zein taldeko lana sustatuz eta metodologia esperimentalak lehenetsiz, non ikasleak bere ikaskuntza-prozesuan partaide izango diren.

Batxilergoko lehenengo mailako Fisika eta Kimika jakintzagaiko curriculuma proposamen integratzailea bezala aurkezten da, Fisika eta Kimikako edukiak sendotzeko, ikaskuntza konpetentziala nabarmenduz eta ikerkuntza zientifikorako jakin-mina piztuz, eta ikasleen artean bokazio zientifikoa sustatuz. Bestalde, Fisika eta Kimikako ikaskuntza esanguratsua diziplina zientifikoetako ikasle kopuru handiagoan islatzen da, eta STEM metodologiak argi eta garbi laguntzen du horretan.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Fisika eta Kimikarekin loturiko problemak eta egoerak ebaztea, dagozkion lege eta teoria zientifikoak aplikatuz, gertakari naturalak ulertzeko eta azaltzeko eta zientzia horiek guztion ongizatea eta eguneroko errealitatea hobetzeko duten funtzioa nabarmentzeko.

Fenomeno naturalak azaltzeko ezagutza zientifiko egokiak aplikatzeak arrazoibide zientifiko bat eraikitzea eskatzen du, beharrezkoak direnak goi-mailako pentsamenduak sortzeko eta esanahiak eraikitzeko. Prozesu horrek, aldi berean, aipatu lege eta teoria zientifikoak hobeto ulertzen laguntzen du, atzeraelikadura-prozesuaren bidez. Fenomeno fisiko-kimikoak modu horretan ulertzeko, naturako gorputzen eta sistemen artean gertatzen diren interakzioak ulertu behar dira, horiek lege eta teoria fisiko-kimikoen arabera aztertu, horiek sortzen dituzten fenomenoak interpretatu eta ezagutza zientifiko berria eraikitzeko datuak hartu eta horiek kritikoki aztertzeko tresnak erabili.

Konpetentzia hori garatzeko beharrezkoa da natura-munduko ikerkuntza zientifikoan erabiltzen diren forma eta prozedura estandarrak ezagutzea. Garapen horren bidez, aldi berean, ikasleak bere hurbileko errealitatean eragiten duten alderdiei buruzko iritzi informatua eraikiko du, bereganatutako ezagutza

zientifikoaren bidez kritikoki hobetzen jarduteko. Beraz, konpetentzia espezifiko hori garatuta, eguneroko inguruneko eta gizarte- eta ingurumen-errealitate globaleko problemak detektatuko dira eta Fisika eta Kimikaren ikuspegitik jorratu, gizarte-ongizate komunean eragiten duten soluzio jasangarriak bilatuz.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: STEM1, STEM2, STEM5 eta KPSII2.

2. Gaitasunez arrazoitzea, pentsamendu zientifikoa eta zientziaren lanarekin lotutako trebetasunak erabiliz, natura eta ingurunea behatzeari, galderen eta hipotesien formulazioari eta horiek esperimentazioaren, ikerketaren eta ebidentzien bilaketaren bidez balioztatzeari aplikatzeko.

Ikasleek trebetasunak garatu behar dituzte, fenomeno naturalak ikuspegi zientifikotik behatzeko eta fenomeno horiek azaltzeko aukerak planteatzeko, lan zientifikoa ezaugarritzen duten prozeduretatik abiatuta, bereziki, Fisikaren eta Kimikaren alorretan. Konpetentzia espezifiko honek fenomeno naturalak esperimentazioaren, ebidentzien bilaketaren eta arrazoitze zientifikoaren bidez ikertzen lagunduko du, ikasleek prestakuntzan bereganatzen dituen ezagutzak erabiliz. Aurreko etapetan bereganatutako trebetasunen bidez, Batxilergoan zorrotzago erabiliko du metodologia zientifikoa, eta garrantzi eta lanketa handiagoko ondorioak eta erantzunak lortuko ditu.

Ikasle konpetentek etengabe lotzen dituzte jakintza akademikoak eta beren eguneroko errealitatearen bizipenak eta, horien bidez, ikasten dituzten lege eta teorien eta inguruko munduan behatzen dituzten fenomenoen arteko loturak aurkitzen dituzte. Horrela, planteatzen dituzten gaiak eta formulatzen dituzten hipotesiak ezagutza oinarrituen arabera eginda daude, eta fisikaren eta kimikaren lege nagusiekin koherenteak diren matematiko-terminoetan aztertzen dituzten aldagaien arteko erlazioak agerian uzten dituzte. Hortaz, emandako ondorioak eta azalpenak bat datoz ezagututako teoria zientifikoekin.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: STEM1, STEM2, KPSII4 eta EK1.

3. Informazio-fluxuak jabetasunez eta kaudimenez erabiltzea zientziaren komunikazio-erregistro desberdinetan, hala nola konposatu kimikoen nomenklaturan, lengoaia matematikoaren erabileran, neurtzeko unitateen behar bezalako erabileran, segurtasuna lan esperimentalean, informazioa ekoizteko eta interpretatzeko, hainbat formatu eta iturri erabiliz.

Ikasleek prestakuntza zientifiko osoa lortzeko, beharrezkoa da eskakizun-maila egokitzea komunikazio zientifikorako dituzten trebetasunak ebaluatzerakoan. Horretarako, hezkuntza-etapa honetan konpetentzia hori garatzeko, eguneroko errealitatean gertatzen diren fenomeno fisiko-kimikoei buruz ematen zaien informazioa ulertu behar dute, informazio hori edozein formatutan eskaintzen zaiela ere, eta informazio berria zuzentasunez, egiatasunez eta fideltasunez sortu behar dute, lengoaia matematikoak, unitate-sistemak, IUPAC arauak eta laborategietako segurtasunerako araudia behar bezala erabiliz, lengoaia zientifikoak ezagutzaren transmisioan duen balio unibertsala balioan jartzeko.

Lengoaia zientifiko unibertsala behar bezala erabiltzeak eta informazio zientifikoa gaitasunez interpretatu eta ekoizteak ikasleei aukera ematen die fisikaren, kimikaren eta gainerako diziplina zientifiko eta ez-zientifikoen arteko loturak eraikitzeko, batxilergoan ikasten diren beste jakintza-arlo batzuei dagozkienak,. Gainera, ikasleak prestatzen ditu komunitate zientifiko aktiboarekin loturak ezartzeko, gizartea hobetzen laguntzea helburu, eragina izan dezan ingurumenaren kontserbazioan eta norbanakoen zein komunitatearen osasunean; hala, curriculumari dagokionez, konpetentzia espezifiko honi funtsezko izaera ematen dio.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, HKK5, KE3, STEM4 eta KD2.

4. Plataforma digitalak eta askotariko baliabideak autonomiaz, kritikoki eta eraginkortasunez erabiltzea, banakako zein taldeko lanean, egiazko informazio zientifikoa kontsultatuz eta hautatuz, hainbat formatutako materialak sortuz eta ikaskuntza-ingurune ezberdinetan eraginkortasunez komunikatuz, kreatibitatea, garapen pertsonala eta norberaren ikaskuntza eta gizarte-ikaskuntza sustatzeko.

Konpetentzia zientifikoak garatzeko beharrezkoa da informazio-iturri anitz kontsultatzea, baliabide didaktikoak, tradizionalak zein digitalak, hautatu eta erabiltzeko. Gaur egun, Fisika eta Kimika irakatsi eta ikasteko beharrezko baliabide asko edukietako hainbat plataforma digitaletan daude eskuragarri eta, beraz, horiek autonomiaz erabiltzen badira, goi-mailako prozesu kognitiboak garatzea, eta ulermena, iritziak eraikitzea, kreatibitatea eta norberaren garapena errazten dituzte. Baliabide horiek kritikoki eta eraginkortasunez erabiltzeko beharrezkoa da, hainbat baliabideren artean, egiazkoak eta prestakuntza-beharrietarako egokiak direnak hautatzea, betetzen ari diren zereginetara eta erabilgarri dagoen denborara egokituta.

Aldi berean, beharrezkoa da plataforma digitalak autonomiaz, erantzukizunez eta kritikoki erabiltzea, baita horien ikaskuntza-inguruneak ere, esaterako: lan kolaboratiborako komunikazio-tresnak, ideiak eta edukiak trukatuz, iturriak aipatuz eta egile-eskubideak errespetatuz, hainbat formatutako dokumentuak abiapuntu, gizarte-ikaskuntza sustatzeko. Horretarako, beharrezkoa da ikasleek balioa eskaintzen duten materiala tradizional edo digitalak sortzen ikastea. Aipatu balioa, ikasleei ez ezik, gizarte osoarentzat ere eskaini behar dio.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: STEM3, KD1, KD3, KPSII3.2 eta EK2.

5. Askotariko taldetan kolaboratiboki lan egitea, koordinazioko, komunikazioko, ekintzailetzako trebetasunak eta erantzukizunen banaketa orekatua aplikatuz, aurrerapen zientifikoen ondorioak eta horiek norbanakoen eta komunitatearen osasunean eta ingurumen jasangarriko garapenean duten eragina aurreikusteko.

Fisika eta kimika ikasteak, lan-metodo, lege eta teoria garrantzitsuenei dagokienez, eta horien arteko harremanak, gainerako zientziekin eta teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin batera, ikasleek lan esperimentalean eta talde-ikerketako proiektuen garapenean jarrera konprometitua garatzea daker, baita jarrera etiko jakin batzuk hartzea eta harreman horietatik ondorioztatzen diren gizarte-konpromisoez jabetzea ere.

Gainera, zientzietan prestatzeko prozesuak lan aktiboa eskatzen du, irakurmenarekin, idazmenarekin, mintzamenarekin, teknologiarekin eta matematikekin batera. Trebetasun horiek guztiak modu integralean garatzea zentzuzkoagoa da generoa, sexu-orientazioa edota ideologia ezberdintasunak errespetatzen dituen askotariko taldearekin batera egiten bada, eta talde horretan, kooperazioak ez ezik, komunikazioak, eztabaidak eta erantzukizunen banaketa adostuak parte hartzen dute. Talde horien lanetan proposatzen diren ideiak arrazoiketa bidez balioztatzen dira, eta beharrezkoa da denen arteko adostasuna kolektiboak onartzeko; komunitate zientifikoan bezala gertatzen da, adostasuna ezinbesteko baldintza da ideia, esperimentu eta aurkikuntza berriak unibertsalki onartzeko. Ezin da ahaztu, bestalde, taldeko lana garatzearen abantailak: taldeko kideen arteko interdependentzia positiboa gertatzen da, osagarritasuna, erantzukizun partekatua, taldeko ebaluazioa, etab. Horiek guztiak konpetentzia espezifiko honen garapenaren bidez sustatzen dira.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: STEM3, STEM5, KPSII3.1, KPSII3.2, HK1 eta EK3.

6. Ezagutza zientifikoaren eraikuntza kolektibo eta ebolutiboan aktiboki parte hartzea, haren eguneroko eta hurbileko ingurunean, pentsamendu zientifikoa hedatzeko eragile aktibo bihurtzeko, informazio zientifiko eta teknologikora eszeptiko hurbilketaren bidez, eta ingurumenaren eta osasun publikoaren zaintza, garapen ekonomikoa eta gizarte berdinzalearen bilaketa balioan jarriz.

Azkenik, konpetentzia espezifiko honen helburua da ikasleei trebetasunak ematea, zientifikoki arrazoitutako irizpideekin erabakitzeko eta komunitate zientifikoak historia zehar egindako aurrerapenek, ikerketek eta aurkikuntzek dituzten aplikazio ezberdinen ondorio teknikoak, sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak balioesteko. Xedea da bizi diren munduarekin konprometitutako herritar trebeak sortzea. Zientziaren eta teknologiaren gizartearentzako alderdi garrantzitsuenak ezagutu eta azaltzeak aukera ematen du kritikoki balioesteko zeintzuk diren horien ondorioak; hala, ikasleek irizpide hobeak izango dituzte gizarteak eskura jartzen dizkien bitarteko eta produktu zientifiko eta teknologikoen behar bezalako erabileren inguruan erabakiak hartzeko orduan.

Era berean, konpetentzia espezifiko hori garatzeko, ikasleek modu aktiboan parte hartu behar dute proiektuetan. Proiektu horietan, erabakiak hartzen eta beren eguneroko bizitzan eta gizarte-ingurunean zientifikoki oinarritutako ekintzak egiten parte hartzen dute. Horrela. zientziaren kontzientzia soziala hobetzen da, eta hori beharrezkoa da ezagutza-gizarte aurreragoa eraikitzeko

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: STEM3, STEM4, STEM5, STEM6, KPSII5, EK2 eta KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Fisika eta Kimika
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Eguneroko gertakari fisiko-kimikoen analisian lege eta teoria zientifikoak aplikatzea, gertakarien arrazoiak ulertuz eta komunikatzeko hainbat euskarri eta bitarteko erabiliz azalduz.
1.2. Eguneroko egoeretatik abiatuta proposatutako problema fisiko-kimikoak ebaztea, lege eta teoria zientifikoak aplikatuz, soluzioak aurkituz eta argudiatuz, eta emaitzak behar bezala azalduz.
1.3. Eguneroko ingurunean egoera problematikoak identifikatzea, fisikatik eta kimikatik ekimenei ekitea eta soluzio jasangarriak bilatzea, gizartean eta ingurumenean eragindako inpaktua kritikoki aztertuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Hainbat problema eta behaketari erantzuna emateko hipotesiak formulatzea eta egiaztatzea, lan esperimentala, ikerketa, ebidentzien bilaketa eta arrazoitze logiko-matematikoa erraztasunez erabiliz.
2.2. Gai edo behaketa bati erantzuna bilatzeko hainbat metodo erabiltzea, lortutako emaitzak alderatuz, hala koherentzia eta fidagarritasuna ziurtatuz.
2.3. Formulatutako hipotesien baliozkotzearen prozedura garatzean lege eta teoria zientifiko ezagunak integratzea, aldagai ezberdinen arteko lotura kualitatibo eta kuantitatiboak aplikatuz, prozesua fidagarriagoa eta koherenteagoa izateko bereganatutako ezagutza zientifikoarekin.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Hainbat unitate-sistema zorroztasunez erabiltzea eta lotzea, horien idazkera eta baliokidetasuna behar bezala erabiliz, komunitate zientifiko osoarekin komunikazio eraginkorra ahalbideratuz.
3.2. Substantzia sinpleal, ioiak eta konposatu kimiko inorganiko eta organikoak behar bezala izendatu eta formulatzea, IUPAC arauak erabiliz, komunitate zientifiko osoarentzako lengoaia integratzaile eta unibertsalaren parte gisa.
3.3. Prozesu fisiko-kimiko jakin bati buruzko informazioa interpretatu eta adierazteko hainbat formatu erabiltzea, bakoitzak duen informazioa alderatuz eta, problema bat ebaztean, informazio adierazgarriena ateraz.
3.4. Laborategian edo alorrean esperimentazio zientifikoan bereganatutako ezagutzak praktikan jartzea, materialen ezagutza eta erabiltzeko oinarrizko araudia barne hartuz, baita espazio horien berezko segurtasun-arauak ere, eta aurrerabide zientifiko eta ekintzailean esperimentazio seguruak, norberaren eta kolektiboaren integritatea arriskuan jarri gabe, duen garrantzia ulertuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Hainbat ikaskuntza-inguruneren, benetakoen eta birtualen, bidez hezkuntza-komunitateko beste kideekin harremanetan egotea, askotariko baliabideak, tradizionalak eta digitalak, autonomiaz, zorroztasunez eta errespetuz erabiliz eta denen ekarpenak kritikoki aztertuz.
4.2. Edukiak sortzean eta informazioa kontsultatzean, banaka eta taldean, autonomiaz eta malgutasunez lan egitea, iturri eta tresna fidagarrienak zentzuz erabiliz eta egokienak ez direnak baztertuz, hala norberaren eta taldearen ikaskuntza hobetuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Ezagutza zientifikoaren eraikuntzan aktiboki parte hartzea, interakzioaren, kooperazioaren eta berdinen arteko ebaluazioaren presentzia agerian jarriz, problema baten edo ikas-egoera baten ebazpenean adostasuna lortzean eztabaidatzea, hausnarketa eta elkarrizketa hobetuz.
5.2. Taldeko lanaren bidez ezagutzak eraiki eta sortzea, baita sortutako ezagutzak asimilatzea gainditzeko alternatibak bilatzea ere, analisirako, eztabaidarako eta sintesirako uneak aurkituz, txostenetan, posterretan, aurkezpenetan edota artikuluetan irudikatutako produktuak osatzea ondorio emanez.

Fisika eta Kimika
5.3. Zientzien garapenarekin lotutako ingurumeneko, gizarteko eta etikako hainbat gairi buruz eztabaidatzea, informazioa eta arrazoitzea oinarri, aurrerapen horien ondorioei buruzko adostasuna lortuz eta proposatutako gaiei denen arteko sormenezko soluzioak proposatuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Ikasleak bere eguneroko bizitzan egiten dituen ekintzen ondorioak zientifikoki identifikatzea eta arrazoitzea, horiek nola hobetu aztertuz, gizarte hobe bat eraikitzeko aktiboki parte hartzeko modu gisa.
6.2. Gizartearen beharrizanak detektatzea, horiek hobetzen laguntzeko ezagutza zientifiko egokiak aplikatzeko, bereziki eraginez alderdi garrantzitsuetan, hala nola ingurumeneko erronka handien ebazpenean, garapen jasangarrian eta osasunaren zaintzan.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Fisika eta Kimika
A. Zientziaren trebetasunak eta ikerkuntza zientifikoa
Metodologia zientifikoa eta horren oinarrizko ezaugarriak gaien azalpenean, problemen ebazpenean, lan esperimentalean eta izaera zientifikoko proiektuan abiaraztean aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak.
Ikaskuntza zientifikoko hainbat ingurune eta baliabide erabiltzea: Fisika edo Kimikako laborategiko materiala eta tresna teknologikoak behar bezala erabiltzea. Laborategian jarduteko, lan egiteko eta segurtasuneko arauak. Laborategian hondakinak kudeatzeko oinarrizko arauak eta teknikak.
Informazio zientifikoa interpretatzeko eta ekoizteko hainbat formatu, hainbat bitartekoren bidez.
Jardun zientifikoaren berezko estrategiak, lan esperimentalean zorroztasunarekin lotutakoak, eta lengoaia zientifikoaren behar bezalako erabilerarekin lotutakoak, unitate-sistemak eta tresna matematikoak behar bezala erabiltzea barne hartuz.
Informazio zientifikoaren interpretazioa eta ekoizpena, hainbat formatu eta bitarteko erabiliz: norberaren irizpidearen garapena, pentsamendu zientifikoak gizartearen hobekuntzari egiten dion ekarpenean oinarrituta, gizarte justuagoa, bidezkoagoa eta berdinzaleagoa izan dadin.
Fisika eta kimikaren mugarri historikoetan eta gaur egungo mugarrietan kultura zientifikoaren eta zientzialarien zeregina baloratzea, eta gizartearen aurrerapenean eta hobekuntzan duen isla.
B. Lotura kimikoa eta materiaren egitura
Taula periodikoaren garapena: gaur egungo osaerari egindako ekarpen historikoak eta elementuen propietateak aurreikusteko tresna gisa duen garrantzia.
Atomoen egitura elektronikoa, erradiazio elektromagnetikoarekin interakzioaren analisiaren ondoren: elementu batek taula periodikoan duen posizioaren azalpena eta talde bakoitzeko elementu kimikoen propietateen antzekotasunen azalpena.
Atomoen eta ioien egonkortasunari buruzko teoriak: elementuen arteko loturen sorrera aurreikustea, horiek irudikatzea eta sustantzia kimikoen propietateak ondorioztatzea. Behaketaren eta esperimentazioaren bidez egiaztatzea.
Sustantzia sinpleen, ioien eta konposatu kimiko organikoen nomenklatura: konposizioa eta eguneroko bizitzan dituzten aplikazioak.
C. Erreakzio kimikoak
Kimikaren oinarrizko legeak: erlazio estekiometrikoak erreakzio kimikoetan eta konposatuen konposizioan. Eguneroko bizitzako kimikarekin lotutako gai kuantitatiboak ebaztea.
Erreakzio kimikoen sailkapena: kimikaren eta egungo gizarteko alderdi garrantzitsuen arteko loturak, adibidez, ingurumenaren kontserbazioa eta farmakoen garapena.
Sistema fisiko-kimikoetan materia-kantitateen kalkulua, adibidez, gas idealak edo disoluzioak eta horien propietateak: horiek eguneroko bizitzan dituzten egoeren berezko aldagai neurgarriak.
Erreakzio kimikoen estekiometria: ingeniaritza kimikoaren industria-prozesu adierazgarrienetan dituzten aplikazioak.
D. Kimika organikoa
Konposatu organikoen propietate fisiko eta kimiko orokorrak, talde funtzionalen egitura kimikoetatik abiatuta: serie homologoetako orokortasunak eta mundu errealeko aplikazioak.*

Fisika eta Kimika
IUPAC arauak konposatu mono eta polifuntzional batzuk behar bezala formulatu eta izendatzeko (hidrokarburoak, konposatu oxigenatuak eta konposatu nitrogenatuak).*
E. Zinematika
Objektu batek, kanpoko indarrarekin edo gabe, izan ditzakeen mugimendu ezberdinen denboraren araberako aldagai zinematikoak: fisikarekin eta eguneroko ingurunearekin lotutako benetako egoeren ebazpena.
Mugimendu zuzen eta zirkularrean eragiten duten aldagaiak: magnitudeak eta erabilitako unitateak. Ibilbide mota horiek dituzten eguneroko mugimenduak.
Mugimendu konposatu baten ibilbidearen eta hori deskribatzeko magnitudeen arteko lotura.*
F. Estatika eta dinamika
Partikula baten eta solido zurrun baten portaera estatiko edo dinamikoaren aurreikuspena, osaera bektorialetatik abiatuta eta indar pare baten eraginpean.
Partikula baten gainean aplikatutako mekanika bektorialaren eta bere atseden- edo mugimendu-egoeraren arteko erlazioa: fisikaren aplikazio estatiko edo dinamikoak beste eremuetan, adibidez, ingeniaritzan edo kirolean.
Dinamikaren legeen interpretazioa, magnitudeen terminoetan, momentu lineala eta bultzada mekanikoa kasu: benetako munduan aplikazioak.
G. Energia
Lan- eta potentzia-kontzeptuak: eguneroko ingurunearen sistema mekanikoen edo elektrikoen energia-kontsumoari eta errendimenduari buruzko hipotesiak egitea.
Sistema sinple baten energia potentziala eta energia zinetikoa: sistema kontserbatzaile eta ez-kontserbatzaileetan energia mekanikoa kontserbatzeko eta mundu errealean objektuen mugimendua eragiten duten kausak aztertzeko aplikazioa.
Sistema baten aldagai termodinamikoak, baldintzen arabera: esperimentatzen dituen tenperatura-aldaketen zehaztapena eta ingurunearekin gertatzen diren energia-transferentziak.

GEOLOGIA ETA INGURUMEN-ZIENTZIAK

Batxilergoko 2. mailako Geologia eta Ingurumen Zientziak jakintzagaia Zientzia eta Teknologiako Batxilergoan hauta dezake ikasleak, izen bereko diziplina zientifikoekin lotutako ezagutza eta trebetasun gehiago bereganatzeko. Horretarako, funtsezko zortzi konpetentziak eta etapako hainbat helburu garatzen dira, jarraian azalduko den moduan.

Izaera zientifikoagatik, zuzenean laguntzen du matematika, zientzia, teknologia eta ingeniaritzaren (STEM) konpetentzia eta etapako hainbat helburu lantzen.

Halaber, irakurtzeko, ikasteko eta diziplinako ohiturak sendotzeko aukera ematen du, baita mintzamena eta idazmena hobetzeko ere, txostenen eta proiektu zientifikoen azalpenen bidez (hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia). Gainera, argitalpen zientifiko adierazgarrienak hainbat hizkuntzatan daudenez, jakintzagaiari esker ikasleek konpetentzia eleaniztunaren komunikazio-trebetasunak hobetzeko aukera dute.

Era berean, Geologia eta Ingurumen Zientzien jakintzagaiak lan zientifikoak aztertzea sustatzen du, geologia-zientziekin lotutako arazoei erantzuteko eta, hala, konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa garatzen laguntzeko.

Kontzientziatzea ere helburu du jakintzagaiak; ebidentzia zientifikoaren bidez, garapen iraunkorrerako eredua hartzeko garrantziari buruz kontzientziatu nahi du, guztien ongizaterako herritarren konpromiso modu gisa (herritartasunerako konpetentzia). Geologia eta Ingurumen Zientziak jakintzagaiak ohitura jasangarriak sustatuko ditu eta, horretarako, geosferako baliabideen eguneroko aplikazioa eta horiek arduraz ustiatzeko eta kontsumitzeko garrantzia hartuko ditu ardatz. Gainera, ikasleek jasangarritasunarekin lotutako tokiko ekimenetan parte hartzea sustatuko da eta, horretarako, espiritu ekintzailea (ekintzailetza-konpetentzia) eta nork bere kabuz ikasteko trebetasunak (konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa) garatzeko aukera emango dio.

Gaiaren izaera zientifikoa dela eta, Geologia eta Ingurumen Zientziak jakintzagaia diziplinarteko ikuspegitik lantzea gomendatzen da, behaketa, jakin-mina, landa-lana eta kolaborazioa sustatuz. Horretarako, beharrezkoa da kultura-aniztasunarekiko edo ikuspuntu ezberdinekiko jarrera errespetuzkoa eta tolerantea garatzea (kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia).

Halaber, jakintzagaiaren bidez sustatuko da informazio zientifikoaren kolaborazioa, komunikazioa edo bilaketa hainbat baliabide erabilita egitea, teknologia digitalak kontuan hartuz, eta horien erabilera efiziente, arduratsu eta etikorako trebetasunen garapena ahalbidetuz (konpetentzia digitala).

Geologia eta Ingurumen Zientziak jakintzagaian sei konpetentzia espezifiko definitzen dira, eta horiek gidatzen dituzte jakintzagaiaren ildo nagusiak. Horrela laburbildu daitezke: informazio zientifikoaren interpretazioa eta transmisioa, informazio zientifikoko iturrien bilaketa eta erabilera, emaitza zientifikoen analisi kritikoa, problemen azalpena eta ebazpena, eta elementu, fenomeno eta arrisku geologikoen analisia. Sei konpetentzia espezifiko horietan daude zehaztuta Batxilergorako funtsezko zortzi konpetentzien deskribatzaile operatiboak. Konpetentzia espezifikoen garapenak, hortaz, curriculumaren ardatz diren funtsezko zortzi konpetentziei laguntzen die.

Halaber, jakintzagai honetan zientzia geologikoen hainbat ezagutza, trebetasun eta jarrera lantzen dira, eta honako multzotan antolatutako oinarrizko jakintzetan datoz definituta: «Geologian eta Ingurumen Zientzietan esperimentazioa» jakintzan modu praktikoan lantzen dira geologia- eta ingurumen-zientzietan lan zientifikoa egiteko beharrezko trebetasunak, zientzia horiek gizarteari egiten dioten ekarpenaren garrantzia balioesteko; «Plaken tektonika eta barne-geodinamika» jakintzan honako hauek aztertzen dira: plaka litosferikoen mugimenduak, horien kausak eta barne-prozesu geologikoekin duten lotura, eragiten dituzten deformazioak eta horien arteko loturak, giza jarduerak eta natura-arriskuak; «Kanpo-prozesu geologikoak» jakintzan erliebearen modelatu motak, horiek baldintzatzen dituzten faktoreak eta giza jarduerak eta kanpo-prozesu geologikoak denboran eta espazioan uztartuta eragiten dituzten natura-arriskuak aztertzen dira; «Mineralak, arroken osagaiak» jakintzan mineralen sailkapena aztertzen da, baita ezaugarrien arabera identifikatzea eta eratzeko baldintzen analisia ere; «Arroka igneoak, sedimentarioak eta metamorfikoak» jakintza aurreko multzoaren osagarria da eta arrokak jatorriaren arabera aztertzen eta sailkatzen ditu; arroka mota ezberdinen osaera-prozesuak eta konposizioa aztertzen ditu, baita prozesu tektonikoen eta sortzen dituzten arroken arteko lotura ere; azkenik, «Baliabide mineralak eta energetikoak» jakintzan baliabide geologiko nagusiak (mineralak, arrokak, ura eta lurzorua) lantzen dira, horien eguneroko erabilera eta garrantzia, horien erabileratik eta ustiapenetik eratorritako ingurumen-arazoak eta horien aprobetxamendu eta kontsumo jasangarriaren garrantzia.

Ikasleek jakintzagai honen konpetentzia espezifikoak bereganatzen eta garatzen dituztela balioesteko, ebaluazio-irizpideak definitzen dira. Izaera konpetentziala dute eta oinarrizko jakintzekin malgutasunez daude lotuta.

Nabarmentzekoa da, jakintzagaiaren izaera zientifikoa dela eta, laneko ikuspegia bereziki praktikoa eta errealitatearekin lotutakoa izango dela, diziplinartekotasuna bilatuz, eta, Legearen ildo nagusiek adierazten duten moduan, zortzi konpetentzia espezifikoak garatzea helburu, betiere. Helburu horiek lortze aldera, gomendagarria da ikas-egoerak edo ataza konpetentzialak benetako egoeratan oinarrituta jartzea praktikan, ikaslea motiba dadin ezagutza, trebetasun eta jarrera aniztasun zabal baterantz.

Laburbilduz, jakintzagai honek ikasleei laguntzen die planetaren funtzionamendua holistikoki ulertzeko kontzeptuak bereganatzen, sakontzen eta diziplinarteko loturak egiten, elementu geologikoak, horiei eragiten dieten ingurumen-prozesuak eta gizakiaren ekintzaren eragina aztertuz. Halaber, ingurumenarekiko kontzientziazioa ere sustatuko da, eta arreta jarriko da baliabide eta ondare geologikoetan eta horiek modu jasangarrian ustiatzeko garrantzian, kontsumo arduratsuaren eta eguneroko ekintzen bidez. Lan-metodologiarako, laborategiko esperientziak, landa-lana eta, azken batean, geologia- eta ingurumen-zientzietako berezko metodologiak lehenetsiko dira, ikasleek jakintzagaiaren jakintzak modu esanguratsuan bereganatzeko eta errealitatearekin lotzeko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Lan zientifikoetatik ateratako informazioa eta datuak zehaztasunez interpretatzea eta transmititzea, geologia- eta ingurumen-zientziekin lotutako kontzeptuak, prozesuak, metodoak, esperimentuak eta emaitzak aztertzeko.

Geologia- eta ingurumen-zientziek hainbat printzipio komun dituzte gainerako diziplina zientifikoekin, eta komunikazioa funtsezko alderdia da aurrerapenerako. Hala ere, zientzia hauek badituzte lan egiteko hainbat modu berezi eta, beraz, komunikatzeko berezko formatuak, esaterako, mapak (topografikoak, hidrografikoak, geologikoak, landarediarenak, etab., zehar-ebakiak, fluxu-diagramak eta bestelako informazioak.

Konpetentzia espezifiko hau garatzean, ikasleak aipatutako formatuekin trebatuko dira eta ikuspegi osoa bereganatuko dute, eta geologia- eta ingurumen-zientziekin lotutako elementuei eta fenomenoei buruzko ondorioak landuko dituzte, ondoren zehaztasunez transmititzeko. Gainera, konpetentzia honek argudiaketa lantzea du helburu, arrazoiketan eta ebidentzian oinarritutako komunikazio-prozesutzat hartuta.

Gai honen testuinguruan, komunikaziorako beharrezkoa da, ikasleen partetik, jakintzak eta hizkuntza- eta gizarte-trebetasunak mobilizatzea, arrazoiketa eta baliabide teknologikoak erabiltzea, baita jarrera irekia, errespetuzkoa eta tolerantea erakustea ere, behar bezala arrazoitutako besteen ideien aurrean. Ezagutza, trebetasun eta jarrera horiek oso gomendagarriak dira testuinguru zientifikoetako eta testuinguru horietatik kanpoko integrazio profesionalerako, gizarte-partaidetzarako eta asebetetze emozionalerako. Hortaz, konpetentzia espezifiko hau oso garrantzitsua da ikasleen garapenerako.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, HKK2, KE1, STEM4, KD3, KPSII4, HK3, KAKK3.2.

2. Iturri fidagarriak aurkitzea eta erabiltzea, informazioa identifikatuz, hautatuz eta antolatuz, kritikoki ebaluatuz eta egiazkotasuna alderatuz, proposatutako galderak autonomiaz ebazteko eta geologia- eta ingurumen-zientziekin lotutako edukiak sortzeko.

Informazioa biltzea eta kritikoki aztertzea ezinbestekoak dira ikerkuntza zientifikorako, baita geologiarekin eta ingurumenarekin lotutako gizarte-gaietako erabakiak hartzeko ere. Era berean, ezinbestekoak nahitaez zientifikoa es diren testuinguruetan, hala nola parte-hartze demokratikorako eta bizialdi osoko ikaskuntza. Gainera, prozesu konplexua da, eta beharrezkoa dute hainbat ezagutza, komunikaziorako trebetasunak, arrazoiketa logikoa eta baliabide teknologikoen erabilera modu integratuan erabiltzea.

Halaber, jakintzagai honen testuinguruan, ikasleak informazioa kontrastatzeko dituen trebetasunak hobetu nahi dira. Horretarako, beharrezkoa da iturri fidagarriak ezagutzea eta horiek identifikatzeko estrategiak erabiltzea; funtsezkoa da hori gaur egungo gizartean, beti egiazkoa ez den informazioz jositakoa.

Konpetentzia espezifiko honen beste alderdi berritzailea da, aurreko etapei dagokienez, ikasleak aurrez bildutako eta kontrastatutako informaziotik abiatuta edukiak sortzea sustatzen duela. Hortaz, jasotako informazioa ulertzeko maila altuagoa beharko da, ondoren originaltasunez egituratuta transmititzeko, zorroztasuna alde batera utzi gabe.

Hori dela eta, konpetentzia espezifiko honen garapenak oso ondorio positiboa izan dezake ikasleak egungo gizartean integratzeko, haien hazkunde pertsonal eta profesionala ahalbidetu eta herritar gisa duten konpromisoa indartzeko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK2, HKK3, KE2, STEM4, KD1, KPSII4, HK3.

3. Geologia- eta ingurumen-zientziekin lotutako ikerketa- edo dibulgazio-lanak kritikoki aztertzea, metodo zientifikoen jarraibideak behar bezala bete dituztela egiaztatuz, horien ondorioen fidagarritasuna ebaluatzeko.

Lan zientifiko orok binakako berrikuspen-prozesua behar du, argitaratu aurretik. Ohiko eta ezinbesteko praktika da hori, informazio zientifikoaren egiazkotasuna eta zehaztasuna ziurtatzeko eta, beraz, aurrerapen zientifikoak, gizartearen aurrerabide gisa, berezkoa du. Berrikuspena eskuzabalki egiten dute beste ikerketa-taldeetako eta azterketa-eremuan adituak diren beste zientzialariek, eta emaitza izan daiteke onartzea, atzera botatzea edo ikerketa hobetzeko proposamenak egitea. Horiek lana argitaratzeko baldintzak dira.

Batxilergoaren amaieran, ikasleak heldutasun akademiko eta emozional handiagoa izango du eta pentsamendu kritikoa nabarmen garatuko du eta, beraz, prestatuta egongo da hainbat informazio zientifikoren kalitatezko analisian barneratzeko. Binakako berrikuspena, lanbide zientifikoaren berezko prozesua da eta, beraz, oso konplexua, baita etapa honetako ikasleentzat ere. Hala ere, garrantzitsua da lan zientifiko edo dibulgatiboen ondorioak ebaluatzen hastea, horiek emaitza behagarriekin bat datozen ulertzeko.

Konpetentzia espezifiko hau garatzeko, pentsamendu kritikoa, arrazoiketa logikoa eta komunikazio-trebetasunak eragin behar dira, eta baliabide teknologikoak erabili, hala ikasleak herritar gisa integratzea eta parte hartzea sustatzeko. Gainera, jardun zientifikoak gizarteari egiten dion ekarpen positiboa balioetsiko du.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK2, HKK3, KE2, STEM2, STEM4, KD1, KPSII4, HK3.

4. Problemak proposatu eta ebaztea, estrategia egokiak bilatuz eta erabiliz, soluzioak kritikoki aztertuz eta, hala badagokio, prozedura birformulatuz, geologia- eta ingurumen-zientziekin lotutako fenomenoak azaltzeko.

Arrazoiketa erabiltzea bereziki garrantzitsua da edozein diziplina zientifiko ikertzeko, hipotesiak proposatu eta kontrastatzeko eta proiektu batek aurrera egitea oztopatzen duten ezustekoei aurre egiteko. Halaber, eguneroko bizitzaren hainbat testuingurutan, beharrezkoa da arrazoiketa logikoa eta bestelako estrategiak, pentsamendu konputazionala kasu, erabiltzea, zailtasunak jorratu eta hainbat motatako problemak ebazteko. Horrez gain, maiz, pertsonok hainbat egoera konplexuri egin behar diogu aurre eta, horretarako, metodo alternatiboak bilatu behar ditugu.

Konpetentzia espezifiko hau garatzeko, beharrezkoa da funtsezko lau alderdi lantzea: problemak azaltzea, horiek ebazteko tresna logikoak erabiltzea, ebazteko estrategiak bilatzea, hala badagokio, eta lortutako soluzioen balioa kritikoki aztertzea. Lau alderdi horiek betetzeko, beharrezkoa da gaiaren jakintzak, trebetasunak (arrazoiketa logikoa, pentsamendu kritikoa eta behaketa) eta jakin-mina eta erresilientzia moduko jarrerak eragitea. Etapa honetan, konpetentzia espezifiko honen bidez aipatutako trebetasun eta jarrerak sakonago garatzean, ikasleen etorkizun pertsonal eta profesionala zabaltzeko eta gizartea hobetzeko konprometitutako herritar gisa integratzeko aukera ematen du.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK3, STEM1, STEM2, KD1, KD5, KPSII1.1, EK3.

5. Ekintza jakin batzuk ingurumenean duten eragina edo baliabideen eskuragarritasuna landako behaketa bidez edo hainbat formatutako informazio bidez aztertzea, oinarri zientifikoetan oinarrituz, garapen jasangarriarekin bat datozen ohiturak sustatu eta hartzeko.

Baliabide geologikoak gure eguneroko jardueren funtsezko parte dira. Baliabideok balio handikoak diren arren, maiz ez gara balioaz ohartzen. Baliabide horietako batzuk, gainera, garrantzi geoestrategiko handia dute, petrolioak edo koltanak kasu, eta gatazka armatuen kausak dira.

Konpetentzia espezifiko hau garatuta, ikasleak natura-ingurunea behatzera animatuko ditugu, zuzenean edo hainbat formatutako informazioaren bidez (argazkiak, sateliteko irudiak, zehar-ebakiak, mapa hidrografikoak, geologikoak, landarediakoak, etab.) baliabideon erabilera eguneroko objektuetan aztertzeko, telefono mugikorretan adibidez, hala horien garrantzia balioesteko. Gainera, baliabideen ustiapenaren

ondoriozko ingurumen-inpaktuei, eskasiaren problematikari, kudeaketaren garrantziari eta kontsumo arduratsuari buruz hausnartzea sustatzen du. Beste era batera esanda, konpetentzia espezifiko honek oinarri eta trebetasun zientifikoak eskaintzen dizkie ikasleei, garapen iraunkorrerako ereduarekin bat datozen erabakiak hartu eta ohiturak hartzeko, guztien ongirako konpromisoan baliabideak arduraz kontsumitzearen bidez.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK3, STEM2, STEM5, KD4, KPSII2, HK4, EK1, KAKK1.

6. Erliebearen elementu geologikoak identifikatzea eta aztertzea, landako behaketa bidez edo hainbat formatutako informazioaren bidez, fenomenoak azaltzeko, historia geologikoa berreraikitzeko, aurreikuspenak egiteko eta gune jakin batean arrisku geologikoak identifikatzeko.

Fenomeno geologikoak hainbat eskalatan eta denbora-tartetan zehar gertatzen dira; maiz ez da posible guztiak zuzenean behatzea. Hala ere, eremuak xehe aztertzen badira, geologiako hainbat estrategia erabilita eta oinarrizko printzipioak aplikatuta, lurralde bateko historia geologikoa berreraiki daiteke eta, baita ere, bilakaeraren aurreikuspenak egin. Prozesu analitiko horren aplikazioen artean, nabarmentzekoa da arrisku geologikoak aurreikusteko eta prebenitzekoa. Arrisku geologikoak prebenitzeko oinarri teorikoak oso finkatuta daude. Hala ere, maiz, hondamendi larriak gertatzen dira, arriskuan dauden guneetan (euri-bideetan, adibidez) gizakiak kokatzen direlako.

Hori dela eta, garrantzitsua da ikasleek konpetentzia espezifiko hau garatzea, horren bidez bereganatuko baitituzte lurralde baten analisia egiteko gutxieneko ezagutza eta trebetasunak, natura-ingurunearen behaketa bidez edo geologia- eta ingurumen-informazioko hainbat iturriren bidez (hala nola, argazkiak, zehar-ebakiak edo mapa geologikoak). Hala, ondare geologikoa eta lurralde antolamendu egokia balioetsiko dira, neurrigabeko praktikak baztertuta. Horren bidez, herritar kritikoak izaten lagunduko da, herritarren ekintzekin natura-arriskuak eta galera ekologikoak, ekonomikoak eta giza galerak prebenitzeko edo murrizteko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK3, KE2, STEM2, STEM5, KD4, KPSII5, EK3, KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Geologia eta Ingurumen-Zientziak
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Gaiaren jakintzekin lotutako kontzeptuak eta prozesuak kritikoki aztertzea, informazioa hainbat formatutan hautatuz eta interpretatuz: mapak (topografikoak, hidrografikoak, geologiakok, landarediakoak, etab.), zehar-ebakiak, ereduak, fluxu-diagramak eta abar.
1.2. Gaiaren jakintzekin lotutako informazio edo iritzi arrazoituak komunikatzea, argi eta zehaztasunez transmitituz eta hiztegi eta formatu egokiak erabiliz: mapak (topografikoak, hidrografikoak, geologiakok, landarediakoak, etab.), zehar-ebakiak, ereduak, fluxu-diagramak edo bestelakoak, eta azalpenean zehar ager daitezkeen gaiei zehaztasunez erantzunez.
1.3. Gaiaren jakintzekin lotutako alderdiei buruzko eztabaida zientifikoak egitea, iritzi ezberdinen indarguneak eta ahuleziak modu arrazoituan kontuan hartuz eta gainerakoen iritzia harberatasunez eta errespetuz jasoaz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Gaiak proposatu eta ebaztea eta gaiaren jakintzekin lotutako edukiak sortzea, iturriak behar bezala kokatuz eta aipatuz; informazioa kritikoki hautatuz, antolatuz eta aztertuz.
2.2. Gaiaren jakintzekin lotutako informazioa kontrastatzea eta egiazkotasuna justifikatzea, iturri fidagarriak erabiliz eta oinarri zientifikorik gabeko informazioekiko (sasizientziak, teoria konspiratzaileak, funsgabeko sinesmenak, gezurrak, etab.) jarrera kritiko eta eszeptikoa agertzea.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Geologia eta Ingurumen Zientzietako gaiaren jakintzekin lotutako ikerketa edo dibulgazio zientifikoko lan baten ondorioen fidagarritasuna ebaluatzea, lortutako emaitzen interpretazioaren arabera.

Geologia eta Ingurumen-Zientziak
3.2. Zientziak eta zientzialariek gizarteari egiten dioten ekarpena argudiatzea, adibide zehatzak erabiliz, emakumeen zeregina nabarmenduz eta ikerkuntza testuinguru politikoak eta baliabide ekonomikoak baldintzatutako etengabe aldatzen ari den taldeko diziplinarteko lana dela ulertuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Geologia eta Ingurumen Zientzietako gaiaren jakintzekin lotutako fenomenoak problemen azalpen eta ebazpen bidez azaltzea, dagozkion estrategiak eta baliabideak bilatuz eta erabiliz.
4.2. Geologia eta Ingurumen Zientzietako gaiaren jakintzekin lotutako problema baten soluzioa kritikoki aztertzea eta erabilitako prozedurak edo ondorioak birformulatzea, soluzioa bideragarria ez bada edo emandako edo ondoren aurkitutako datu berrien aurrean.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Baliabide geologiko eta biosferako baliabide mota ezberdinen analisitik eta horien erabileratik abiatuta ohitura jasangarriak sustatzea eta hartzea.
5.2. Baliabide batzuen ustiapenaren inpaktua eta ingurumenaren narriadura lotzea, baliabideak arduraz kontsumitu eta aprobetxatzeak duen garrantziari buruz argudiatuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Eremu jakin baten historia geologikoa ondorioztatzea eta azaltzea, eta haren elementu geologikoak identifikatzea eta aztertzea, hainbat formatutako informazioan oinarrituta (argazkiak, zehar-ebakiak, mapa geologikoak, etab.).
6.2. Gune zehatz bateko fenomeno geologikoen eta natura-arriskuen gaineko aurreikuspenak egitea, horien gainean eragiten duten hainbat faktore aztertuz (gizakiaren jarduera, klimatologia, erliebea, landaredia, kokapena, barne-prozesu geologikoak, etab.) eta ondorio negatiboak prebenitzeko edo murrizteko ekintzak proposatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Geologia eta Ingurumen-Zientziak
A. Geologian eta Ingurumen Zientzietan esperimentazioa
Geologiako eta ingurumeneko informazio-iturriak: bilaketa, identifikazioa eta erabilera.
Geologiako eta ingurumeneko informazio-iturriak (mapak, zehar-ebakiak, aireko argazkiak, testuak, sateliteko irudiak, fluxu-diagramak, etab.): interpretazioa.
Lan geologikorako eta ingurumenekorako tresnak: landako eta laborategiko erabilera.
Erakunde zientifikoekin informazioa bilatzeko, kolaboratzeko, komunikatzeko eta elkarri eragiteko estrategiak: tresna digitalak, prozesuak, emaitzak eta ideiak aurkezteko formatuak (diapositibak, grafikoak, bideoak, posterrak, txostenak, eta abar).
Informazio geologikoa eta ingurumenekoa irudikatzeko tresnak: zutabe estratigrafikoa, zeharrebakiak, mapa, fluxu-diagrama, etab.
Ondare geologikoa eta ingurumenekoa: garrantziaren eta kontserbazioaren balioespena.
Eginkizun zientifikoa eta zientzialariak: geologia eta ingurumen-zientziak garatzeko ekarpena eta gizarte-garrantzia. Emakumearen eginkizuna.
Jakintza zientifikoaren bilakaera historikoa: geologiaren eta ingurumen-zientzien aurrerapena taldeko, diziplinarteko eta etengabeko eraikuntzako lan gisa.
B. Plaken tektonika eta barne-geodinamika
Planetaren barne-geodinamika: erliebearen gaineko eragina (bolkanismoa, seismoak, orogenia, mugimendu kontinentalak, etab.). Plaken tektonikaren teoria.
Wilson zikloa: horren eragina kontinenteen antolamenduan eta gertaera orogeniko nagusietan.
Barne-geodinamikaren egungo adierazpenak.
Arroken deformazioa: elastikoak, plastikoak eta hauskorrak. Arroken gainean eragiten duten indarrekin eta beste faktoreekin lotura.

Geologia eta Ingurumen-Zientziak
Barne-prozesu geologikoak eta horiei lotutako natura-arriskuak: giza jarduerarekin lotura. Lurralde antolamenduaren garrantzia.
C. Kanpo-prozesu geologikoak
Kanpo-prozesu geologikoak (meteorizazioa, edafogenesia, higadura, garraioa eta sedimentazioa) eta horren eraginak erliebean.
Erliebearen modelatuaren forma nagusien arteko lotura, eragile geologikoak, klima eta arroka nagusien propietateak eta antolamendu erlatiboa.
Erliebearen modelatuaren formak: eragile geologikoekin, klimarekin eta arroka nagusien propietate eta antolamendu erlatiboarekin loturak.
Kanpo-prozesu geologikoak eta horiei lotutako natura-arriskuak: giza jarduerarekin lotura. Lurralde antolamenduaren garrantzia.
D. Mineralak, arroken osagaiak
Mineral-kontzeptua.
Sailkapena.
Mineralak ezaugarri fisikoen arabera identifikatzea: identifikatzeko tresnak (gidak, gakoak, tresnak, baliabide teknologikoak, etab.).
Fase-diagrama: mineralak sortzeko eta eraldatzeko baldintzak.
E. Arroka igneoak, sedimentarioak eta metamor ikoak
Arroka-kontzeptua.
Arrokak jatorriaren arabera sailkatzea (igneoak, sedimentarioak eta metamorfikoak). Arroken jatorriaren eta ezaugarri behagarrien lotura.
Arroak ezaugarri fisikoen arabera identifikatzea: identifikatzeko tresnak (gidak, gakoak, tresnak, baliabide teknologikoak, etab.).
Magmak: sailkapena, osaera, bilakaera, arroka erresultantea, loturiko erupzio bolkaniko-motak eta sortutako erliebeak.
Diagenesia: kontzeptua, arroka sedimentario erresultante-motak, jatorrizko materialaren eta sedimentuaren arabera.
Arroka metamorfikoak: motak, osaeran eragiten duten faktoreak eta horien arteko lotura.
Ziklo litologikoa: osaera, arroka mota ezberdinen suntsiketa eta eraldaketa, plaken tektonikarekin eta kanpo-prozesu geolo-gikoekin lotura.
F. Lurraren geruza jariakorrak
Atmosfera eta hidrosfera: egitura, dinamika, funtzioak, lurreko kliman duen eragina, izaki bizidunentzako garrantzia.
Atmosferaren eta hidrosferaren kutsadura: definizioa, motak, kausak eta ondorioak.
G. Baliabideak eta horien kudeaketa jasangarria
Baliabide geologikoak eta biosferaren baliabideak: eguneroko bizitzan aplikatzea.
Baliabide, meategi eta erreserba kontzeptuak.
Hainbat baliabideren ustiapenaren ingurumen-inpaktua (hidrikoak, paisaietakoak, meatzaritzakoak, energetikoak, edafikoak, etab.). Baliabideen kontsumo arduratsuaren garrantzia, eraberritze-tasaren eta interes ekonomikoaren arabera.
Ur-baliabideak: ugaritasun erlatiboa, ustiapena, erabilerak eta kudeaketa jasangarrirako uren tratamenduaren garrantzia.
Lurzorua: ezaugarriak, ehundura, egitura, garrantzi ekologikoa eta produktibitatea.
Lurzoruen eta uren kutsadura eta degradazioa: giza jarduera batzuekin lotura (deforestazioa, nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboak).
Geosferako arroken, mineralen eta baliabide energetikoen ustiapena: motak eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.
Hondakinen kudeaketa: garrantzia eta helburuak (murriztea, balorizazioa, eraldaketa eta eliminazioa).
Baliabideen ustiapenaren ingurumen-inpaktuak (hidrikoak, paisaietakoak, meatzaritzakoak, energetikoak, edafikoak, etab.): prebentziorako neurriak, neurri zuzentzaileak eta neurri konpentsatzaileak.

KIMIKA

Batxilergoko 2. mailan, Kimikaren helburua da ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoko 1. mailan eskuratu dituzten ezagutzetan sakontzea. Maila horietan, ikasleak kimika ezagutzen hasi dira eta, lehen hurbilketa baten bidez, zientzia horren oinarrizko printzipioak ikasi dituzte, baita printzipio horiek fenomeno kimikorik sinpleenen deskribapenean nola aplikatzen diren ere. Eskuratutako ezagutza horietatik abiatuta, jakintzagai honen xedea da ikasleei zientzia honen ikuspegi zabalago bat, oinarri kimiko nahikoa eta beharrezkoak diren trebetasun esperimentalak eskaintzea, kimikarekiko interesa garatzeko eta, nahi izanez gero, kimikarekin lotutako ikasketak egin ahal izateko.

Batxilergoko 2. mailako Kimika jakintzagaiaren curriculum honetan helburu horiek lortzeko proposatzen diren konpetentzia espezifikoek, funtsezko konpetentziekin eta dagozkien deskriptoreekin batera, izaera holistikoa eta konpetentziala ematen diote jakintzagai honi. Prozesu eta fenomeno kimikoen oinarriak ulertzea, kimikaren ereduek eta legeek nola funtzionatzen duten ulertzea eta hizkuntza kimikoa behar bezala erabiltzea materia honen konpetentzia espezifikoen parte dira. Gainera, kimikak (zientzia gisa eta beste ezagutza-arlo batzuekiko erlazioetan, pentsamendu zientifikoaren berezko lan-tekniken garatzean eta egungo gizarteko industria-, osasun-, ekonomia- eta ingurumen-testuinguruetan dituen ondorioetan, ikasleen gaitasun-prestakuntza ematen laguntzen du, benetako ingurunean behar bezala moldatzeko

Jakintzagai honen curriculumaren izaera holistiko eta konpetentzialak era integratuan prestatzen ditu ikasleak zientzietan, Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzera bideratutako erronka batzuei aurre egiteko. Kimika ikasiz, ikasleek jakintzagaiaren osaera eta izaera nolakoa den eta nola eraldatzen den ulertzeko eta deskribatzeko gaitasunak garatzea lortzen da, horrez gain, errealitatea ulertzeko interesa pizteko eta zientzia horrek hainbat testuingurutan dituen aplikazioetatik eta garapen iraunkorrari egiten dizkion ekarpenetatik abiatuta duen garrantzia balioesteko. Jakintzagai honen curriculuma konpetentziala da, eta zientziaren ezagutza, trebetasun eta jarreren eskuratzean sakontzen laguntzeaz gain, ikasleak beren profil pertsonal eta profesionala etorkizunerako lehentasunen arabera diseinatzera bideratzea du helburu, Izan ere, etorkizunean lanbide berriak egongo dira, eta Batxilergoko funtsezko konpetentziek zeregin garrantzitsua izango dute haietan.

Konpetentzia espezifikoak eta lotutako oinarrizko jakintzen multzoak garatzearen bidez, ikasleen erabateko prestakuntza lortzen da Kimikan. Edonola ere, jakintzagai honen curriculum-garapena osatzeko, bere ebaluazio-irizpideak zehaztu behar dira. Irizpide horiek, curriculum honetako gainerako jakintzagaietan bezala, konpetentzia-izaera dute, zuzenean lotuta baitaude proposatu diren konpetentzia espezifiko guztiekin eta Batxilergoko oinarrizko konpetentzien deskriptoreekin. Hori dela eta, Batxilergoko 2. mailako Kimika jakintzagaiaren curriculumak konpetentzia espezifiko bakoitzerako biltzen dituen ebaluazio-irizpideek izaera irekia dute, eta ez dira kontzeptuen ebaluazio soilera mugatzen. Aitzitik, jakintzagai honetarako zehaztutako konpetentzien berezko ezagutzen, trebetasunen eta jarreren ebaluazio holistiko eta orokor bat aurreikusten dute.

Curriculuma osatzeko, Batxilergoko 2. mailako Kimikaren ikaskuntzak lau multzotan egituratzen ditu Lehen multzoa zeharka landuko da gainerako multzoetan, eta zientziaren eta ikerketa zientifikoaren metodoak ditu ardatz. Gainerako hiru multzoak, berriz, bereiz antolatuta daude, eta zientzia honen inguruko oinarrizko ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak —hezkuntza-etapa honetara egokituta— biltzeko aukera ematen dute.

Lehen multzoa gainerakoen zeharkakoa da, eta *zientziaren eta ikerketa zientifikoaren trebetasunetan* sakontzen du. Multzo horretan, zientziaren metodologiak eta kimikaren garapenean duten garrantzia lantzen dira, eta horrek aukera ematen du aurreko etapetan eskuratutako jarduera zientifikoaren oinarrizko estrategietan aurrera egiten eta sakontzen jarraitzeko eta zientziaren berezko prozeduren eta matematikarekiko erlazioaren bidez ezagutza zientifikoan sakontzeko. Gainera, emakume gizon-zientzialariek zientziaren garapenean duten zeregin nabarmena azpimarratzen da, baita kultura zientifikoak erabakiak irizpide zientifikoekin hartzeko oinarri gisa duen garrantzia ere, etengabe eboluzionatzen ari den gizarte honetan.

Bigarren multzoan, materiaren egituran eta lotura kimikoan sakontzen da, eta mekanika kuantikoaren oinarrizko printzipioak erabiltzen dira atomoak, haien egitura nuklearra eta azal elektronikoa deskriba-

tzeko eta hainbat lotura kimikoren eta molekula arteko indarren bidez elementu eta konposatuen eraketa eta propietateak aztertzeko.

Oinarrizko jakintzen hirugarren multzoak erreakzio kimikoen alderdirik aurreratuenetan murgiltzen ditu ikasleak, eta aurreko ikasturteetako kalkulu estekiometrikoak ez ezik, oinarri termodinamikoak eta zinetikoak ere lantzen ditu. Ondoren, oreka kimikoaren egoera lantzen da, eta eguneroko testuinguruetako erreakzio itzulgarrien garrantzia azpimarratzen da. Amaitzeko, oreka kimiko gisa ulertu behar diren erreakzio kimikoen adibideak ematen dira, hala nola hauspeakinen eraketan, azidoen eta baseen artean eta erredox bikote konjugatuen artean gertatzen direnak.

Azkenik, laugarren multzoak Kimikaren eremu zabala biltzen du, eta konposatu organikoen egitura eta erreaktibotasuna sakonean deskribatzen ditu. Egungo gizartean duen garrantzi handia dela eta, karbonoaren kimika zibilizazio baten aurrerapenaren adierazgarria da. Horregatik da hain garrantzitsua etapa honetan konposatu organikoak nolakoak diren eta nola erreakzionatzen duten ikastea, polimeroetan eta plastikoetan aplikatu ahal izateko.

Jakintzagai honen konpetentzia-izaeraren barruan, oinarrizko jakintzak ikas-egoera batzuetan elkartzea proposatzen da, ikasleek beren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak beren ingurune errealeko egoeretan aplikatu ahal izan ditzaten. Ikuspegi hori bat dator STEM ikaskuntzarekin. Izan ere, diziplina zientifiko guztiak era globalean lantzea proposatzen da ikaskuntza horretan.

Batxilergoko ikasketak osatzen dituzten oinarrizko zientziek pentsamendu zientifikoaren berezkoak diren zalantzan jartzean eta arrazoibidean oinarritutako ikasle-profil bat garatzen laguntzen dute, denek maila berean eta modu osagarrian. Kimika, zalantzarik gabe, funtsezko tresna da jakintza zientifiko horien ekarpenerako, gizakiaren beharrei erantzunak emateko.

Etapa honetan, Kimikaren ikaskuntzaren azken helburua ezagutza kimiko sakonagoa lortzea da. Ezagutza horrek pentsamendu zientifikoa garatuko du eta galdera gehiago, ezagutza handiagoa, zientziaren bereizgarriak diren lan-ohitura gehiago eta, azken batean, bokazio handiagoa eragingo ditu, eta horrek erraztu egingo die ikasleei jardun erakargarrietan aritzeko aukera, hala nola ikerketan eta zientziari lotutako lan-jardueretan.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Prozesu kimikorik garrantzitsuenen oinarriak ulertzea, deskribatzea eta aplikatzea, haien oinarri esperimentala eta deskribatzen dituzten fenomenoak kontuan hartuz, kimikak gizartearen garapenean betetzen duen zeregin garrantzitsua ezagutzeko.

Kimikak, natura-zientzien diziplina den aldetik, prozedura zientifikoen bidez, naturan gertatzen diren fenomenoen azken zergatiak zein diren jakiten saiatzen da, fenomeno horiek azaltzen dituzten lege zientifikoetan oinarrituta. Diziplina honek, gainera, oinarri esperimental handia du, eta, horregatik, erabilera anitzeko zientzia da, bereziki garrantzitsua beren prestakuntza ibilbide zientifiko, teknologiko edo sanitarioetan jarraitzeko erabakia hartzen duten ikasleen funtsezko prestakuntzarako.

Konpetentzia espezifiko honen garapenaren bidez, ikasleek kimika zientzia bizia dela eta haren ondorioak iraganean garrantzitsuak izateaz gain egungo eta etorkizuneko gizartearen hobekuntzari ekarpen handia egiten diotela uler dezaten lortu nahi da. Kimikaren adarren bitartez, kimikak teknologiari, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari egindako ekarpenik garrantzitsuenak zein diren jakingo dute ikasleek.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM5 eta EK1.

2. Sistema materialen propietateak aztertzearen bidez kimikaren ereduak eta legeak baliatzea, kimikaren aplikazio praktikoei eta ingurumenean dituzten ondorioei lotutako eguneroko problemetarako konponbide orokorrak ondorioztatzeko.

Zientzia kimikoa ezagutza-gorputz arrazionala, koherentea eta osatua da, eta haren legeek eta teoriek oinarrizko printzipioak eta behaketa esperimentalak dituzte oinarri. Hala ere, ez litzateke nahikoa izango ikasleek alderdi horretan bakarrik ikastea kimika. Zientzian aurkezten den naturaren eredu koherentea baliagarria dela frogatu behar da, eguneroko egoerekin eta errealitatea behatzean sortzen diren galderekin harremanetan jarriz. Horrela, beraz, sistema materialek beren konposizioaren arabera propietate eta aplikazio jakin batzuk dituztela eta egungo ingurumen-gai guztien sakonean eta, batez ere, gai horiei lotutako problemak ebazteko ideietan eta metodoetan oinarri kimiko bat dagoela justifikatzen duten kimikaren oinarrizko printzipioak identifikatzeko gai izan beharko dute diziplina hau ikasten duten ikasleek.

Materiaren izaeraren oinarri kimikoaren eta eragiten dioten aldaketen ezagutza sakon horretatik soilik aurkitu ahal izango dira galdera erreal eta praktikoei erantzun eta irtenbide eraginkorrak, gure pertzepzioaren bidez aurkezten diren edo komunikabideetan formulatzen diren moduan.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, KD5 eta EK1.

3. Hizkuntza kimikoaren kodeak (nomenklatura kimikoa, unitateak, ekuazioak eta abar) zuzen erabiltzea, erregela espezifikoak aplikatuz, komunitate zientifiko desberdinen arteko komunikazio egoki baterako oinarri gisa eta kimikaren ikerketarako funtsezko tresna gisa erabiltzeko.

Kimikak erabiltzen dituen hizkuntzetako kodeak oso espezifikoak dira, eta ezagutu egin behar dira diziplina honetan lan egiteko eta komunitate zientifikoko kideen artean komunikazio-harreman eraginkorrak ezartzeko. Zentzu zabalean, konpetentzia honek, IUPACek izendatzeko eta formulatzeko ezarritako arauak zuzen erabiltzera bideratuta egoteaz gain, kimikarekin zerikusia duen egoera batean beharrezkoak izan daitezkeen tresna guztiak ere aipatzen ditu, hala nola ekuazioei eta eragiketei dagozkien tresna matematikoak, unitateen sistemak eta horien barruko bihurketa egokiak.

Kimikarekin lotutako datuak eta informazioa behar bezala erabiltzea funtsezkoa da, edozein formatutan ematen direla ere, problemak interpretatzeko eta ebazteko, txosten zientifikoak eta ikerketak behar bezala egiteko, laborategiko praktikak egiteko edo ariketak ebazteko, adibidez. Horregatik, gaitasun espezifiko hori oso laguntza garrantzitsua da zientziarentzat oro har, eta kimikarentzat bereziki.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE1, STEM4, KPSII4 eta EK3.

4. Produktu eta prozesu kimikoen erabilera arduratsuak duen garrantzia ezagutzea, kimikak egungo gizartean duen eragin positiboari buruzko argudio informatuak landuz, askotan “kimiko” terminoari ematen zaizkion konnotazio negatiboak gainditzen laguntzeko.

Gizartean zabalduta dago —agian komunikabideen eta, bereziki, produktu jakin batzuen publizitateari lotutakoen eraginaren ondorioz— produktu kimikoak eta kimika, oro har, osasunerako eta ingurumenerako kaltegarriak diren ideia. Ideia hori herritarren informaziorik eta alfabetatze zientifikorik ezaren ondorioa da kasu gehienetan. Kimika ikasten duten ikasleek jakin behar dute unibertsoaren funtzionamendua azaltzen duten oinarrizko printzipioek oinarri zientifikoa dutela, eta gai izan behar dute substantzia eta prozesu naturalak kimikaren kontzeptuetatik abiatuta deskribatu eta justifikatu daitezkeela azaltzeko.

Horrez gain, kimikaren aurrerapenak gizartearen ongizaterako onura handiak ekarri dituela eta aurrerapen horiek zenbaitetan eragiten dituzten arazoak zientziaren eta teknologiaren garapenaren ondoriozko produktuen eta prozesuen erabilera axolagabe, desinformatu, interesatu edo arduragabeak eragiten dituela argudiatzeko eta azaltzeko trebatu behar dituzte ikasleak etapa honetan ikasitako eta praktikan jarritako ideiek.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM5, KPSII5 eta EK2.

5. Kimikako problemak ebaztean eta lotutako egoerak interpretatzean zientzia esperimentalen eta arrazoibide logiko-matematikoaren berezko lan-teknikak aplikatzea, kooperazioaren garrantzia baloratuz, balio etiko eta iraunkorretan oinarritutako gizarte batean kimikak beteko duen zereginaren balioa agerian jartzeko.

Jarduera zientifiko orotan, gizabanako eta entitate desberdinen arteko kolaborazioa funtsezkoa da aurrerapen zientifikoa lortzeko. Taldean lan egiteak, tresna digitalak eta askotariko baliabideak fidagarritasunez erabiltzeak eta azterketen emaitzak partekatzeak (betiere norenak diren ahaztu gabe) ikerketa zientifikoaren hazkunde nabaria dakar, aurrerapena kooperatiboa baita. Ikerketa zientifikoa hobetzearen aldeko apustu irmoa egitea eta horretarako ikerketa horretan bokazioz aritu nahi duten pertsonak izatea oso garrantzitsua da gure egungo gizartean, bizi-kalitatearen, teknologiaren eta osasunaren hobekuntza baitakar, besteak beste.

Konpetentzia espezifiko hori garatzearen helburua da ikasleak etapa honetatik aurrera zientzia esperimentaletan praktikan jartzen diren oinarrizko printzipioen arabera lan egitera ohitzea, eta zientziaren, zientzian aritzen diren pertsonen eta hori garatzen duten eta genero-desberdintasunak, orientazioa, sinesmena eta abar gainditzeko lan egiten duten erakundeen aldeko kidetasuna garatzea. Aldi berean, arrazoibide zientifikoa erabiltzeko trebetasunak eskuratzeak ikerketaren, lan-munduaren eta eguneroko errealitatearen hainbat testuingurutan egoera problematikoak interpretatu eta konpontzeko gaitasuna ematen die ikasleei.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD1, KD2, KD3, KD5 eta KPSII4.

6. Kimika jakintza-arlo diziplina anitzeko eta moldakorra gisa ezagutzea eta aztertzea, beste zientzia eta jakintza-arlo batzuekiko loturak agerian utziz, haren bidez ezagutza zientifiko eta globalerako hurbilketa holistiko bat egiteko.

Kimikaren oinarrizko kontzeptuak ezin dira sakonki ulertu kimikari lotutako beste zientzia-arlo batzuetako legeak eta teoriak ezagutu gabe. Era berean, kimikaren oinarrizko ideiak aplikatu behar dira beste diziplina zientifiko batzuen oinarriak ulertzeko. Gizartea erabat konektatuta dagoen bezala, kimika ez da diziplina zientifiko isolatu bat, eta kimikak beste zientzia eta jakintza-arlo batzuk garatzeko egiten dituen ekarpenak (eta alderantziz) ezinbestekoak dira zientziaren, teknologiaren eta gizartearen aurrerapen globalerako.

Ikasleak konpetentea izan daitezen, ikasketa esperimentalaren eta diziplinarteko harreman hori agerian uzten duten egoeren behaketaren bidez garatuko du bere ikaskuntza, ikerkuntzan eta esperimentazioan tresna teknologikoak aplikatuz, eta kimikaren berezko problemak ebazteko tresna matematikoak eta arrazoiketa logikoa erabiliz. Kimikaren berezko diziplinarteko oinarri holistiko horrek oinarri egokiak ematen dizkie kimika ikasten ari diren ikasleei, hainbat ezagutza-adarretan ikasten jarraitu ahal izan dezaten, hainbat prestakuntza-ibilbideren bidez, eta horrek eraginkortasunez laguntzen du pertsona gaituen prestakuntzan.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM4, STEM6, KPSII5, HK4 eta KAKK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Kimika
1. konpetentzia espezifikoa.
1.1. Kimikak eta beste arlo batzuekin dituen loturek gizartearen garapenean, zientziaren aurrerapenean, teknologian, ekonomian eta ingurumena errespetatuko duen garapen iraunkorrean duten garrantzia ezagutzea, kimikak alderdi horietan egin dituen eta funtsezkoak izan diren aurrerapenak identifikatuz.
1.2. Ingurunean gertatzen diren prozesu kimiko nagusiak eta sistema materialen propietateak deskribatzea, kimikaren barruko diziplinen berezko ezagutzen, trebetasunen eta jarreren bidez.
1.3. Kimikaren izaera esperimentala eta diziplinartekoa eta ikerketa zientifikoan eta egungo lan- eta ekonomia-esparruetan duen eragina ezagutzea, gertakari enpirikoak eta ezagutzaren eta giza jardueraren beste eremu batzuetan dituen aplikazioak kontuan hartuz.

Kimika
2. konpetentzia espezifikoa.
2.1. Kimikaren printzipioak zientziaren garapenari lotutako egungo arazo nagusiekin lotzea, komunikabideetan nola komunikatzen diren eta eguneroko esperientzian nola ikusten diren aztertuz.
2.2. Kimikaren oinarriak gizarte-, ekonomia-, politika- eta etika-arloetako gai esanguratsuak aztertzeko eta eztabaidatzeko testuinguruaren barruan ezinbesteko ezagutza-multzoa direla onartzea eta jakinaraztea, eta oinarri horiek eremu horietan duten presentzia eta eragina identifikatuz.
2.3. Kimikaren ereduak eta legeak modu informatu, koherente eta arrazoituan aplikatzea, esperimentuen, fenomeno naturalen, industria-prozesuen eta aurkikuntza zientifikoen ondorioak azalduz eta iragarriz.
3. konpetentzia espezifikoa.
3.1. IUPACen nomenklatura-arauak komunitate zientifiko osoan komunikazio eraginkorra ahalbidetuko duen kimikarako hizkuntza unibertsal baten oinarri gisa zuzen erabiltzea, arau horiek hainbat espezie kimikoren formulak eta izenak ezagutzean eta idaztean aplikatuz.
3.2. Kimika ikastean lortzen den pentsamendu zientifikoa garatzen laguntzeko tresna matematikoak zorrotz erabiltzea, tresna horiek problemak ebazteko aplikatuz eta, horretarako, ekuazioak, unitateak, eragiketak eta abar erabiliz.
3.3. Laborategian eta beste ingurune batzuetan substantzia kimikoak manipulatzearekin lotutako segurtasun-arauak praktikatzea eta errespetaraztea, bai eta hondakinak behar bezala kudeatzeko eta ezabatzeko prozedurak ere, kimikaren komunikazio-kode bereizgarriak behar bezala erabiliz.
4. konpetentzia espezifikoa.
4.1. Ingurunerik hurbilenean, ingurune naturalean eta ingurune industrial eta teknologikoan dauden sistema materialen konposizio kimikoa aztertzea, haien propietateak, aplikazioak eta onurak kimikaren printzipioetan oinarrituta daudela frogatuz.
4.2. Substantzia jakin batzuek ingurunean eta osasunean dituzten ondorio negatiboak zientzia kimikoak eragiten ez dituela eta produktu horiek oker edo zabarkeriaz erabiltzearen emaitza direla era informatuan argudiatzea, kimikaren teoriak eta legeak aplikatuz.
4.3. Teknologia kimikoari lotutako produktu ugariren onurak zein diren eta haien erabilerak eta aplikazioak gizartearen aurrerapenean nola lagundu duten azaltzea, ezagutza zientifiko egokiak erabiliz.
5. konpetentzia espezifikoa.
5.1. Hainbat diziplina zientifikotako espezialisten arteko kolaborazio-lanak kimikari egindako ekarpen handia ezagutzea, diziplina bakoitzaren berezko legeen eta teorien arteko konexioak agerian jarriz.
5.2. Kimikak pentsamendu zientifikoaren garapenari eta pentsamendu kritikoaren autonomiari egindako ekarpena ezagutzea, diziplina zientifikoen berezko lan-metodologiak praktikan jarriz.
5.3. Kimikari lotutako problemak ebaztea eta kimikari lotutako egoerak aztertzea, taldeko kide bakoitzak egiten duen ekarpenaren garrantziaz eta pentsamendu-aniztasunaz jabetuz eta lantaldeen barruan gizarte-trebetasun positiboak sendotuz.
5.4. Zailtasun handienak dituzten kimika-kontzeptuak eraginkortasunez irudikatzea eta bistaratzea, tresna digitalak eta askotariko baliabideak erabiliz, laborategi erreal eta birtualeko esperientziak barne.
6. konpetentzia espezifikoa.
6.1. Kimikaren oinarrian dauden funtsezko kontzeptuak azaltzea eta arrazoitzea, beste diziplina zientifiko batzuen (eta, bereziki, Fisikaren) kontzeptuak, legeak eta teoriak aplikatuz, esperimentazioaren eta ikerketaren bidez.
6.2. Beste diziplina zientifiko batzuen (hala nola biologiaren edo teknologiaren) funtsezko ideiak ondorioztatzea, haien oinarrizko edukien eta kimikaren berezko lege eta teorien arteko erlazioaren bidez.
6.3. Kimikaren problema eta alderdi bereizgarriak ebaztea, matematikak eta teknologiak eskaintzen dituzten tresnak erabiliz eta, era horretan, fenomeno esperimental eta naturalen eta diziplina honen berezko kontzeptuen arteko erlazioa ezagutuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Kimika	
A. Zientziaren eta ikerketa zientifikoaren trebetasunak.	
Gaiak planteatzean, problemak ebaztean, lan esperimentala egitean eta proiektu zientifikoei ekitean metodologia zientifikoa eta haren oinarrizko ezaugarriak aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak.	
Ikaskuntza zientifikorako hainbat ingurune eta baliabideren erabilera: Fisikako edo Kimikako laborategiko materialaren eta tresna teknologikoen erabilera egokia. Laborategiko portaera-, lan- eta segurtasun-arauak. Laborategian hondakinak kudeatzeko oinarrizko arauak eta teknikak.	
Hainbat euskarrietatik abiatuta, informazio zientifikoa interpretatu eta ekoizteko formatu desberdinak.	
Lan zientifikoaren berezko estrategiak, lan esperimentalaren zorroztasun eta doitasunari eta hizkuntza zientifikoaren erabilera zuzenari lotuak, unitate-sistemen eta tresna matematikoen erabilera egokia barne.	
Kultura zientifikoaren, emakume gizon-zientzialariek kimikaren mugarri historikoetan eta egungoetan bete duten zeregina-ren eta gizartearen aurrerapenean eta hobekuntzan duten islaren balorazioa.	
B. Lotura kimikoa eta materiaren egitura.	
1. Espektro atomikoak.	Espektro atomikoak, eredu atomikoa berrikusteko beharraren erantzule gisa. Fenomeno horrek eredu atomikoaren garapen historikoaren testuinguruan duen garrantzia.
	Elementuen igorpen-espektroaren eta xurgapen-espektroaren interpretazioa. Atomoaren egitura elektronikoarekiko erlazioa.
2. Egitura atomikoaren printzipio kuantikoak.	Espektro atomikoen fenomenoaren eta energiaren kuantizazioaren arteko erlazioa. Bohr-en eredutik eredu mekano-kuantikoetara: hainbat mailatako egitura elektroniko baten beharra.
	Heisenberg-en ziurgabetasunaren printzipioa eta elektroiaren uhina-korpuskulua izaera bikoitza “Orbital” kontzeptuaren izaera probabilistikoa.
	Zenbaki kuantikoak eta Pauliren esklusio-printzipioa. Atomoaren egitura elektronikoa. Moeller--en diagramaren erabilera elementu kimikoen konfigurazio elektronikoa idazteko.
3. Taula periodikoa eta atomoen propietateak.	Taula periodikoaren jatorriaren izaera esperimentala, elementuak beren propietateen arabera taldekatzeari dagokionez. Egungo teoria atomikoa eta behatutako lege esperimentalekin duen erlazioa.
	Elementu batek taula periodikoan duen posizioa, haren konfigurazio elektronikoaren arabera.
	Joera periodikoak. Taulako elementuen propietateen balioen aurreikuspenean duten aplikazioa, taulako posizioaren arabera.
	Lotura kimikoa eta molekulen arteko indarrak.
	Lotura motak, osatzen dituzten elementu indibidualen ezaugarrien arabera. Molekulen, kristalen eta egitura makroskopikoen osaeran inplikatutako energia. Substantzia kimikoen propietateak.
	Lewis-en ereduak, balentzia-geruzaren elektroi bikotearen pareen aldarapenaren teoria (BGE-PAT) eta orbitalen hibridazioa. Konposatu molekularren konfigurazio geometrikoa eta solidoen ezaugarria.
	Born-Haber zikloa. Kristal ionikoak sortzean trukatutako energia.
	Hodei elektronikoaren ereduak eta banden teoria kristal metalikoen propietate bereizgarriak azaltzeko.
	Molekulen arteko indarrak lotura kimikoaren ezaugarrien eta molekulen geometriaren arabera. Konposatu molekularren propietate makroskopikoak.
C. Erreakzio kimikoak.	
1. Termodinamika kimikoa.	Termodinamikaren lehen printzipioa: sistemen arteko energia-trukeak beroaren eta lanaren bidez.
	Ekuazio termokimikoak. “Erreakzio-entalpia” kontzeptua. Prozesu endotermikoak eta exotermikoak.
	Produktuen eta erreaktiboen arteko energia-balantzea Hess-en legearen arabera, formazio--entalpia estandarraren edo lotura-energien bidez erreakzio baten entalpia lortzeko.

Kimika	
	Termodinamikaren bigarren printzipioa. Entropia, prozesu kimikoen espontaneotasuna eta itzulezintasuna eraginpean hartzen dituen magnitudea.
	Erreakzio kimikoen Gibbs-en energiaren kalkulua eta haien espontaneotasuna sistemaren tenperaturaren arabera.
2. Zinetika kimikoa.	Talka-teoria, erreakzio kimikoen eskala mikroskopikoko eredu gisa. “Erreakzio-abiadura” eta “aktibazio-energia” kontzeptuak.
	Erreakzio-baldintzek erreakzioaren abiaduran duten eragina.
	Erreakzio kimiko baten abiaduraren lege diferentziala eta erreakzio-ordenak, erreakzio-abiadurari buruzko datu esperimentaletatik abiatuta.
3. Oreka kimikoa.	Oreka kimikoa prozesu dinamiko gisa: abiadura-ekuazioak eta alderdi termodinamikoak. Oreka-konstantearen adierazpena masa-ekintzaren legearen bidez.
	Erreakzioen oreka-konstantea erreaktiboak egoera fisiko desberdinetan daudenean. Kc-ren, Kp-ren eta disolbagarritasun-produktuaren arteko erlazioa oreka heterogeneoetan.
	Le Châtelier-en printzipioa eta erreakzio-kozientea. Orekan dauden sistemen bilakaera, sistemaren kontzentrazio-, presioedo tenperatura-baldintzen aldakuntzaren arabera.
4. Azido-base erreakzioak.	Substantzia baten izaera azidoa edo basikoa, Arrhenius-en eta Brønsted eta Lowry-ren teorien arabera.
	Azido eta base sendoak eta ahulak. Disoziazio-maila uretako disoluzio batean.
	Disoluzio azidoen eta basikoen pH-a. Ka eta Kb konstanteen adierazpena.
	“Azido-base bikote konjugatu” kontzeptua. Disoluzioen izaera azidoa edo basikoa, gatz baten hidrolisia gertatzen denean.
	Azidoen eta baseen arteko erreakzioak. “Neutralizazio” kontzeptua. Azido-base bolumetriak.
	Ingurumena kontserbatzeko prozesuan eragin berezia duten industria- eta kontsumo-mailako azido eta base garrantzitsuak.
5. Erredox erreakzioak.	Oxidazio-egoera. Erreakzio batean murrizten edo oxidatzen diren espezieak, oxidazio-zenbakiaren aldakuntzaren arabera.
	Oxidazio-erredukzio ekuazio kimikoak doitzeko ioi-elektroi metodoa. Kalkulu estekiometrikoak. Erredox bolumetriak.
	Erredox bikote baten potentzial estandarra. Bi erredox bikote inplikatzen dituzten prozesu kimiko eta elektrokimikoen espontaneotasuna.
	Faraday-ren legeak: karga elektrikoaren kantitatea eta substantzia kantitateak prozesu elektrokimiko batean. Kalkulu estekiometrikoak upel elektrolitikoetan.
	Oxidazio- eta erredukzio-erreakzioak bateria elektrikoen, upel elektrolitikoen eta erregai-pilen fabrikazioan eta funtzionamenduan, eta metalen korrosioaren prebentzioan.
D. Kimika organikoa.	
1. Isomeria.	Konposatu organikoen formula molekularrak eta garatuak. Isomeria estrukturala: motak.
	Eredu molekularrak edo molekulen 3D irudikapenerako teknikak. Konposatu baten isomero espazialak eta haien propietateak.
2. Erreaktibitate organikoa.	Funtzio organikoen propietate kimiko nagusiak. Portaera disoluzioan edo erreakzio kimikoetan.
	Erreakzio organiko mota nagusiak. Konposatu organikoen arteko erreakzioaren produktuak eta dagozkien ekuazio kimikoak.
3. Polimeroak.	Polimeroak osatzeko prozesua, dagozkien monomeroetatik abiatuta. Egitura eta propietateak.
	Polimeroen sailkapena izaeraren, egituraren eta konposizioaren arabera. Aplikazioak, propietateak eta lotutako ingurumen-arriskuak.

MATEMATIKA

Matematika gizadiaren lorpen kultural eta intelektual handienetako bat da. Historian zehar, kultura ezberdinak saiatu dira, etengabe eta modu iraunkorrean, natura matematika erabiliz deskribatzen eta eskuratutako ezagutza guztia etorkizuneko belaunaldiei transmititzen. Gaur egun, ondare intelektual horrek funtsezko balioa hartzen du, gure gizarteak aurre egin beharko dien ingurumena errespetatzea, energia-efizientzia edo industrializazioa bezalako erronka globalek baldintza aldakorretara egokitzeko, modu autonomoan ikasteko, egoerak modelizatzeko, ikerketa-bide berriak aztertzeko eta teknologia modu eraginkorrean erabiltzeko gai diren ikasleak behar dituzte. Beraz, XXI. mendeko herritarrentzat ezinbestekoa da konexio eta trebetasun matematikoak erabiltzea, hala nola arrazoiketa, modelizazioa, pentsamendu konputazionala eta problemen ebazpena.

Matematika I eta II-ren curriculum-garapena etapako helburu orokorrak lortzera bideratzen da, eta arreta berezia eskaintzen zaie ikasleek etapa amaitzean lortu behar dituzten Batxilergoko deskriptore operatiboetan kontzeptualizatutako funtsezko konpetentziak garatzeari eta eskuratzeari. Horrela, problemak interpretatzea eta prozedurak eta emaitzak komunikatzea lotuta daude hizkuntza-komunikaziorako konpetentziarekin eta konpetentzia eleaniztunarekin. Ekimenaren eta ekintzailetzaren zentzuek, etengabeko berrikuspenerako eta aldaketarako lan-plan bat ezartzean, ekintzailetza-konpetentziarekin lotzen dute. Erabakiak hartzea edo ziurgabetasun-egoeretara egokitzea konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoaren berezko osagaiak dira. Teknologia digitala modu kritiko eta arduratsuan erabiltzea, informazioa tratatzeko eta problemak ebazteko, konpetentzia digitalarekin lotzen dira zuzenean. Arrazoiketa eta argudiaketa, modelizazioa eta pentsamendu konputazionala STEM konpetentziaren elementu bereizgarriak dira. Matematikaren eta beste jakintza-arlo batzuen artean ezarritako loturak eta gizarte-testuinguruetako problemak ebaztea herritartasunerako konpetentziarekin lotuta daude. Azkenik, ezagutza matematiko berak —kulturaren adierazpen unibertsal gisa— kontzientzia eta adierazpen kulturalen konpetentziari laguntzen dio.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari jarraipena emanez, Matematika I eta II jakintzagaien konpetentzia espezifikoen ardatz nagusiak problemen ebazpena, kontzeptuak eraginkortasunez ulertzea eta prozedura matematikoak garatzea ahalbidetzen duten modelizazioa eta arrazoiketa dira, batez ere zientzia eta teknologiako gaiak interpretatzera eta aztertzera bideratutakoak. Konpetentzia espezifikoen ardatza ikasleek argumentazioa, konexioak, irudikapena, komunikazioa eta trebetasun sozioafektiboak bezalako trebetasunak garatzea hobekien ahalbidetzen duten prozesuak dira.

Gure jakintzagaiaren irakaskuntzan, problemak ebaztea eta ikerketa matematikoa funtsezko bi osagai dira; izan ere, jakintzagaiari lotuta dauden prozesu kognitiboak zientzia eta teknologiarekin zerikusia duten egoerak lantzeko, aztertzeko eta ebazteko erabiltzea ahalbidetzen dute, arrazoiketa, sormena eta pentsamendu abstraktua garatuz.

Problemak ebazteko, arrazoitzeko eta frogatzeko eta konexioak egiteko konpetentzia espezifikoak ikerketa matematikoaren berezko prozesuak eskuratzeko diseinatuta daude, hala nola galderak egitea, aieruak ezartzea, justifikatzea eta orokortzea, matematikaren berezko kontzeptuak eta prozedurak beste jakintza-arlo batzuetan lotzea eta aitortzea, bereziki zientzietan eta teknologian. Matematikaren izaera instrumentala azpimarratu behar da, ezagutza zientifiko eta teknologikoaren arloetarako funtsezko tresna baita.

Hezkuntza matematikoaren beste alderdi garrantzitsu batzuk komunikazioa eta irudikapena dira. Komunikazio-prozesuak ideiei esanahia eta iraunkortasuna ematen eta ideia horiek publiko egiten laguntzen du. Bestalde, kontzeptu eta prozedura matematikoak ulertzeko eta erabiltzeko, funtsezkoa da horiek irudikatzen diren modua. Biak estuki lotuta daude, ideiak adierazteko modu bat edo bestea aukeratzeak haien komunikazioa eta ulermena baldintza baititzake. Horregatik, komunikaziora eta irudikapenera bideratutako bi konpetentzia espezifiko barne hartzen dira.

Ikasle guztiek oinarrizko kontzeptu eta erlazio matematikoak erabiltzeaz gain, matematikaren magia esperimentatu ahal izateko, haren ikaskuntzaz gozatzeko eta zientzia honek gure bizi-baldintzen aurrerapenean eta hobekuntzan duen ezinbesteko eginkizuna ezagutzeko, matematikaren alderdi pertsonal, sozial eta emozionalarekin lotutako konpetentzia espezifiko bat sartu da.

Konpetentziak ikaste-egoeretan oinarrituz landuko dira, testuinguru erreal edo esanguratsuekin, ikasleak hausnarketara, lankidetzara eta ekintzara gonbidatuko dituztenak.

Konpetentzia espezifikoen lorpena neurtzeko, ebaluazio-irizpide batzuk erabiliko dira, kontzeptuen memorizazioaren edo prozeduren ohiko erreprodukzioaren aurrean konpetentziak abian jartzean fokua ipintzeko. Konpetentzia espezifikoekin eta ebaluazio-irizpideekin batera, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak barne hartzen dituzten oinarrizko jakintza batzuk txertatu dira. Ez dago ebaluazio-irizpideen eta jakintzen arteko lotura uniboko eta zuzenik; konpetentzia espezifikoak hainbat egoeratan jakintza desberdinak abian jarriz ebaluatuko dira, eta horien arteko loturak ezartzeko behar den malgutasuna emango da. Konpetentzia-ikuspegi batean, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak konpetentzia espezifikoen inguruan egituratzen dira. Irakasleek irizpide horiek testuinguruan kokatu eta malgutu behar dituzte, beren jardueraren arabera.

Konpetentzien izaera dela eta, kasu batzuetan, lehenengo eta bigarren mailen arteko ebaluazio-irizpideen graduazioa oinarrizko jakintzaren bidez egiten da. Horiek matematikaren esparru desberdinekin lotutako trebetasun-multzo gisa multzokatu dira: numerikoa, metrikoa, aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala, espaziala, estokastikoa eta sozioafektiboa. Garrantzitsua da adieraztea zentzuak eta jakintzak agertzeko ordenak ez dakarrela inolako sekuentziaziorik.

Zentzu matematikoa da eduki matematikoak modu funtzionalean eta norberaren trebetasunetan konfiantza izanik testuinguruan menderatzearekin lotutako gaitasunen multzoa. Hori dela eta, matematikaren konpetentzia-irakaskuntza planteatzen da, testuinguruan problemak edo atazak ebazteko kontzeptuak nagusitu eta haiei zentzua emateko, testuingurutik kanpoko egoeretan trebetasunak edo algoritmoak ikasi beharrean. Hala, zentzu matematikoa izan eta garatu behar da matematikoki konpetentziadun izatera iristeko.

Zentzu numerikoaren ezaugarria da numerazioari eta kalkuluari buruzko ezagutza zenbait testuingurutan aplikatzea, eta zenbakien eta eragiketen ulermenean, irudikapenean eta erabilera malguan oinarritutako trebetasunak eta pentsamoldeak garatzea.

Neurriaren zentzua inguratzen gaituen munduko objektuen atributuak ulertzean eta konparatzean oinarritzen da.

Espazio-zentzuak gure ingurunearen alderdi geometrikoen ulermena lantzen du, haien erlazioak identifikatzea, kokatzea, sailkatzea edo horiekin arrazoitzea geometria ikasteko funtsezko elementuak dira.

Zentzu aljebraikoak matematika komunikatzeko hizkuntza eskaintzen du. Zentzu aljebraikoaren eta pentsamendu konputazionalaren funtsezko ezaugarriak honako hauek dira: partikularrean orokorra dena ikustea, aldagaien arteko mendekotasun-patroiak eta -erlazioak antzematea eta hainbat irudikapenen bidez adieraztea, eta egoera matematikoak edo mundu errealekoak adierazpen sinbolikoekin modelizatzea.

Zentzu estokastikoan sartzen dira datuen analisia eta interpretazioa, aieruak egitea eta erabakiak hartzea estatistika-informaziotik abiatuta, horien balorazio kritikoa egitea eta ausazko fenomenoak ulertzea eta komunikatzea askotariko egoeretan.

Zentzu sozioafektiboak berekin dakar, alde batetik, emozioak ulertzeko eta maneiatzeko beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratzea eta aplikatzea, eta, bestetik, matematika ikasteko prozesuan agertzen den talde-lanaren kudeaketa aktiboa egitea. Zentzu hori ez da modu isolatuan landu behar, jakintzagaiaren garapenean zehar baizik.

Matematika ez da jakintza bananduen eta loturarik gabekoen bilduma bat, ezagutza-eremu integratu bat baizik. Konpetentzia espezifikoen, ebaluazio-irizpideen eta oinarrizko jakintzen multzoa osotasun bat eratzeko diseinatuta dago, matematikaren edo diziplina anitzeko multzoaren barruan zeregin errazak edo konplexuak, indibidualak edo kolektiboak, planteatzea errazteko, eta hainbat testuingurutan problemak ikertzeko, interpretatzeko, aztertzeko eta ebazteko tresna digitalak erabiltzeko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Eguneroko bizitzako eta zientziako eta teknologiako problemak modelizatzea eta ebaztea, hainbat estrategia eta arrazoitzeko modu aplikatuz, soluzio posibleak lortzeko.

Problemak ebaztea eta modelizazioa matematika ikasteko funtsezko ardatza dira, ezagutza matematikoa eraikitzeko prozesu nagusiak direlako. Eguneroko bizitzako nahiz mundu zientifiko eta teknologikoko problemak modelizatzeak eta ebazteak ikaskuntza-prozesua motibatu eta oinarri kognitibo sendoak ezar ditzake, matematika eguneroko bizitzako egoerak deskribatzeko, aztertzeko eta ulertzeko tresna gisa esperimentatu ahal izateko, baita ezagutza zientifikoak azaldu, formalizatu eta horiei zorroztasuna emateko ere.

Konpetentzia hori garatzeak honako hauek dakartza berekin: problema formulatzeko prozesuak, datuak edo objektu garrantzitsuak eta horien arteko erlazioak bilatzeko sistematizazioa, matematika-hizkuntzara edo sistema informatiko batek interpretatzeko erraza den lengoaiara kodifikatzea, eguneroko egoeren eredu abstraktuak sortzea, beste problema batzuekiko analogia bezalako ebazpen-estrategien erabilera, estimazioa, saiakera eta errorea, alderantzizko moduan ebaztea, problema errazagoetan deskonposatzea, etab.

Tresna digitalen erabilerak problema errazago ulertzeko, hainbat estrategia praktikan jartzeko, ebazpen-prozesua bideratzeko beharrezko egiaztapenak egiteko, jatorrizko probleman inplizituak ez diren beste erlazio batzuk aztertzeko eta ikerketa zientifikorako bide berriak irekitzeko balio behar du.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD2, KD5, KPSII4, KPSII5, EK3.

2. Problema baten soluzio posibleen baliozkotasuna egiaztatzea, arrazoiketa eta argudiaketa erabiliz, horien egokitasuna egiaztatzeko.

Problema bat ebaztean lortutako soluzioak aztertzeak gogoeta kritikoa, arrazoiketa eta argudiaketa bultzatzen ditu. Besteak beste, jasangarritasuna, kontsumo arduratsua, ekitatea edo diskriminaziorik eza bezalako ikuspegiak kontuan hartuta lortutako soluzioak eta ondorioak interpretatzeak erabaki arrazoituak hartzen, estrategiak ebaluatzen eta modu eraginkorrean komunikatzen laguntzen du.

Konpetentzia hori garatzeak metakognizioaren berezko hausnarketa-prozesuak dakartza berekin, hala nola autoebaluazioa eta koebaluazioa, tresna digitalen erabilera efikaza, prozesua hitzez adieraztea edo deskribatzea, eta soluzioak eta horien irismena baliozkotzeko soluzioak edo estrategiak egiaztatzeko hainbat moduren arteko hautaketa, aieru eta problema berriak planteatzeko aukera irekiz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD3, KPSII4, HK3, EK3.

3. Aieruak edo problemak formulatzea eta ikertzea, arrazoiketa eta argudiaketa erabiliz, tresna teknologikoen laguntzarekin, ezagutza matematiko berria sortzeko.

Aieruak formulatzea eta ikertzea eta eduki matematikoko problemak sortzea matematikako curriculumaren bi osagai garrantzitsu eta esanguratsu dira, eta zeregin matematikoaren funtsezko zatitzat hartzen dira. Egoera problematizatu bati edo dagoeneko ebatzita dagoen problema bati buruzko aieruak formulatzeak edo eduki matematikoa duten galderak sortzeak berekin dakar problema berriak sortzea, egoera jakin bat aztertzeko helburuarekin, baita problema bat birformulatzea ere hau ebazteko prozesuan zehar.

Konpetentzia hori garatzeak hainbat testuingurutan problemak ebazteko trebetasuna hobetu dezake, egoera zehatzen eta abstrakzio matematikoen arteko zubiak ezar ditzake eta eremu zientifiko-teknologikoan eskuratutako ezagutzak aplika ditzake. Ikasleek galderak egiten dituztenean, arrazoiketa eta hausnarketa hobetzen dituzte, eta, aldi berean, beren ezagutza eraikitzen dute, konpromiso eta jakin-min

handia sortuz, baita matematika ikasteko prozesuarekiko gogo bizia ere. Prozesu honetan, errorea onartzeak eta errore hori ikasteko aukera bihurtzeak aukera berriak ematen ditu, bai ezagutza berriak eskuratzeko, bai ezagutza horiek integratzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, STEM2, KD1, KD2, KD3, KD5, EK3.

4. Pentsamendu konputazionala modu efikazean erabiltzea, matematika erabiliz algoritmoak aldatuz, sortuz eta orokortuz, eguneroko bizitzako eta zientziaren eta teknologiaren esparruko egoerak modelizatzeko eta ebazteko.

Pentsamendu konputazionalak bat egiten du zuzenean problemen ebazpenarekin eta prozeduren planteamenduarekin, abstrakzioa erabiliz alderdi garrantzitsuenak identifikatzeko, patroiak ezagutzeko, zeregin sinpleagoetan deskonposatzeko eta algoritmoak definitzeko, sistema informatiko batek gauzatu dezakeen problemaren soluzio batera iristeko helburuarekin. Pentsamendu konputazionala eguneroko bizitzara eta zientziaren eta teknologiaren esparrura eramateak esan nahi du informatikaren funtsezko alderdiak ikasleen modelatze- eta simulazio-beharrekin erlazionatzea. Horretarako, beharrezkotzat jotzen da matematika programazioarekin konektatzea, tresna hori zuzenean erlazionatuta baitago problemak testuinguru matematikoan eta ez-matematikoan ebaztearekin.

Konpetentzia hori garatzeak berekin dakar eguneroko egoeren eta zientziaren eta teknologiaren esparruko egoeren eredu abstraktuak sortzea, hori automatizatzea eta modelizatzea, eta sistema informatiko batek erraz interpretatzen duen lengoaia batean kodetzea.

Pentsamendu konputazional horrek, ikasgelan lan egiteko baliabide teknologikoen aukeraketa egokiarekin batera, problemak ebaztean aplikatutako ezagutza matematikoan sakontzeko aukera emango dio ikasleari.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD2, KD3, KD5, EK3.

5. Ideia matematikoen arteko loturak ikertzea eta erabiltzea, kontzeptuen, prozeduren, argudioen eta ereduen arteko loturak ezarriz, ikuspegi matematiko integratua sortzeko.

Ideia matematiko desberdinen arteko loturak ezartzeak sakonago ulertzen laguntzen du problema beraren hainbat ikuspegik emaitza baliokideak nola sor ditzaketen. Ikasleek testuinguru batetik datozen ideiak erabil ditzakete beste testuinguru batean sortutako aieruak frogatzeko edo ezeztatzeko, eta, ideia matematikoak konektatzean, kontzeptuak, prozedurak eta argudioak hobeto uler ditzakete. Matematika osotasun gisa ulertzeak berekin dakar haren barne-loturak aztertzea eta jakintza multzoen artean zein maila bateko edo hezkuntza-etapa desberdinetako matematikaren artean dauden erlazioei buruz gogoeta egitea.

Konpetentzia hori garatzeak berekin dakar ideia matematiko berriak aurretiko ideiekin lotzea, problemen ebazpenean ideia matematikoen arteko loturak ezagutzea eta erabiltzea, eta osotasun integratu bat osatzeko ideia batzuk beste batzuen gainean nola eraikitzen diren ulertzea.

Konexioak egiteko eta erlazioak ezartzeko gaitasuna matematikaren ulermen-mailaren adierazle ona da, eta zuzenean erlazionatzen da egiten jakitearekin.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM3, KD2, KD3, KAKK1

6. Matematikak beste jakintza-arlo batzuekin dituen erlazioak ezagutzea eta horietan sakontzea, kontzeptuak eta prozedurak hainbat egoeratan erlazionatuz, problemak ebazteko eta gaitasun kritikoa, sortzailea eta berritzailea garatzeko.

Erlazioak behatzea eta lotura matematikoak ezartzea zeregin matematikoaren funtsezko alderdia da, ikasleek beren ezagutzak, irudikapen-multzo zabala erabiltzeko trebetasuna eta teknologiarako eskura-

garritasuna handitzen dituztenean, eta beste jakintza-arlo batzuekiko konexioek, zientziekin bereziki, ahalmen matematiko handia ematen dietenean. Matematikaren eta beste jakintza-arlo batzuen arteko lotura ez litzateke jakintza kontzeptualetara mugatu behar; aitzitik, prozeduretara eta jarreretara zabaldu beharko litzateke, prozedura eta jarrera matematikoa beste jakintzagai eta testuinguru batzuetara transferitu eta aplikatu ahal izateko.

Konpetentzia horren garapenak garrantzi handia hartzen du; izan ere, ideia, kontzeptu eta prozedura matematikoen arteko loturak sustatzeaz gain, alde batetik, beste jakintza-arlo batzuekin batera lan egitea sustatzen du —zientzia, teknologia, ingeniaritza, humanitateak, arteak eta gizarte-zientziak oro har, adibidez—, eta, bestetik, ingurunearekin lotura estuak ezartzea, gaur egungo hezkuntzaren beharrei eta erronkei erantzuteko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD2, KPSII5, HK4, EK2, EK3, KAKK1.

7. Informazio, kontzeptu eta prozesu matematikoak irudikatzea, hainbat teknologia hautatuz ideiak bistaratzeko eta arrazoibide matematikoak egituratzeko.

Ideia, kontzeptu eta prozedura matematikoen irudikapenek arrazoiketa eta frogapena errazten dute, erlazioak aztertzeko eta erantzunen baliozkotasuna egiaztatzeko erabiltzen dira, teknologia digitaletan modu naturalean agertzen dira eta komunikazio matematikoaren erdian daude.

Konpetentzia hori garatzeak esan nahi du irudikapen matematikoen errepertorioa eta irudikapen horiek modu efikazean nola erabili jakitea areagotu egiten dela, objektu berberen irudikapen diferenteek informazio desberdinak transmititzeko dituzten moduak azpimarratuz eta zereginerako egokiak diren irudikapenak hautatzearen garrantzia erakutsiz.

Entitate matematikoak irudikatzeak objektu matematikoen irudikapen-mota desberdinak ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna eskatzen du, hala nola krokisak, marrazkiak, diagramak, eskemak, taulak, grafikoak...

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, STEM4, KD1, KD2, KD5, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

8. Ideia matematikoak banaka eta taldean komunikatzea, euskarri, terminologia eta zorroztasun egokiak erabiliz, pentsamendu matematikoa antolatzeko eta sendotzeko.

Informazioaren gizartean, gero eta nabarmenagoa da komunikazio argi eta egiazkoa behar dela, ahoz zein idatziz. Beste batzuekin elkarrekin aritzeak aukera ematen du ideiak trukatzeko eta haiei buruz hausnartzeko, kolaboratzeko, kooperatzeko, ezagutza berriak sortzeko eta finkatzeko, komunikazioa matematika ikasteko ezinbesteko elementu bihurtuz.

Konpetentzia hori garatzeak berekin dakar gertaerak, ideiak, kontzeptuak eta prozedura konplexuak hitzez, analitikoki eta grafikoki adieraztea, egiazki eta zehatz-mehatz, terminologia matematiko egokia erabiliz, ideiei esanahia eta iraunkortasuna ematea eta horiek argitara ematea.

Horrela ulertutako komunikazioak pentsamendu matematikoa estimulatzen du, partikularizatzeko, orokortzeko, susmatzeko eta argudiatzeko prozesuen bidez. Horregatik, ikasleei problemak ebazteko, beste problema batzuk planteatzeko, aieruak eraikitzeko, aztertzeko, argudiatzeko, zalantzan jartzeko eta eztabaidatzeko espazioak eskaini behar zaizkie.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, EK1, EK2, STEM2, STEM4, KD2, KD3, KAKK3.2.

9. Trebetasun pertsonalak eta sozialak erabiltzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, akatsa eta ziurgabetasuna onartuz, erlazio osasungarriak sortuz eta talde heterogeneoetako proiektuetan aktiboki eta hausnarketa bidez parte hartuz, matematika ikasteko helburuak hobeto lortzeko.

Konpetentzia hori garatzeak berekin dakar, alde batetik, emozioak identifikatzea eta kudeatzea, estres--iturriak ezagutzea, jarraikia izatea, modu kritiko eta sortzailean pentsatzea, erresilientzia sortzea eta erronka matematiko berrien aurrean jarrera proaktiboa edukitzea, errorea ikasteko aukera dela eta askotariko emozioak modu pertsonalean hazteko egokiera direla ulertuz.

Bestetik, konpetentzia hori garatzeak berekin dakar besteekiko enpatia erakustea, beste pertsona batzuekin erlazio positiboak ezartzea eta mantentzea, entzute aktiboa eta komunikazio asertiboa trebatzea, taldean lan egitea eta erabaki arduratsuak hartzea. Era berean, matematikari buruz aldaera indibidual eta/edo sozialei lotuta aurrez pentsatutako estereotipoak eta ideiak haustea sustatu behar da, edozein diskriminazio motaren zentzugabekeria eta bidegabekeria logikoki oinarrituz.

Edonola ere, garrantzitsua da akatsa naturaltasunez onartzea eta ikasgelako dinamiketan sartzea, beti zigorra eragin gabe, baizik eta ikasteko palanka gisa erabilita. Testuinguru horretan, ikasgelak ekosistema bat izan behar du, eta bertan pertsona bakoitzaren erritmoak eta trebetasunak errespetatu behar dira, baita horien arteko loturak eta interakzioak ere, zientzien batxilergoko konpetentziak lortzen laguntzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: EK3, STEM5, KPSII1. 1, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, HK2, HK3, EK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehenengo maila	Bigarren maila
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1 Zenbait estrategia eta tresna erabiltzea, hala nola problema errazagoetan deskonposatzea edo alderantziz ebaztea, eguneroko bizitzako eta zientzia eta teknologiako problemak modelizatu eta ebaztean, efikaziaren arabera egokienak direnak erabiliz.	1.1 Zientziaren eta teknologiaren problemak modelizatzean eta ebaztean estrategia eta tresna desberdinak erabiltzea, digitalak barne, efikaziaren arabera egokienak direnak erabiliz.
1.2 Eguneroko bizitzako eta zientzia eta teknologiako problemen soluzio diferenteak lortzea, ebazpen-faseak jarraituz eta erabilitako prozedura deskribatuz.	1.2 Eguneroko bizitzako eta zientzia eta teknologiako problemen soluzio diferenteak lortzea, ebazpen-faseak jarraituz, eta erabilitako prozedura deskribatuz eta argudiatuz.
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1 Problema bat ebaztean lortutako soluzioen balio matematikoa egiaztatzea, arrazoiketa eta argudiaketa erabiliz.	2.1 Problema bat ebaztean lortutako soluzioen balio matematikoa frogatzea, arrazoiketa eta argudiaketa erabiliz.
2.2 Problema baten soluzio egokiena hautatzea, haren egokitasuna gizarte-testuinguruaren ezaugarrien (jasangarritasuna, ekitatea…) arabera aztertuz.	2.2 Problema baten soluzio egokiena hautatzea, haren egokitasuna gizarte-testuinguruaren ezaugarrien (jasangarritasuna, ekitatea…) arabera aztertuz, eta erabilitako prozedura matematikoaren egokitasuna baloratuz.
3. konpetentzia espezifikoa	
3.1 Ezagutza matematiko berriak eskuratzea, galderak, aieruak eta problemak modu gidatuan eta taldean formulatuz, arrazoibide eta argudio matematikoak erabiliz eta tresna teknologikoetan oinarrituz.	3.1 Ezagutza matematiko berriak eskuratzea, galderak, aieruak eta problemak modu autonomoan eta taldean formulatuz, arrazoibide eta argudio matematikoak erabiliz eta tresna teknologikoetan oinarrituz.
3.2 Aieruak edo problemak planteatzean egindako akatsa aitortzea, ikaskuntzan aurrera egiteko eta ezagutza berriak aurkitzeko modu gisa ulertuz.	3.2 Aieruak edo problemak planteatzean egindako akatsa onartzea, ikaskuntzan aurrera egiteko eta ezagutza berriak eskuratzeko modu gisa ulertuz.
4. konpetentzia espezifikoa	
4.1 Eguneroko bizitzako, eta zientzia eta teknologiako egoera problematizatuak interpretatzea eta modelizatzea, problema bat zatietan deskonposatuz, ereduak eta horiek sortzen dituzten printzipioak ezagutuz eta pentsamendu konputazionala erabiliz, algoritmoak aldatuz eta sortuz.	4.1 Eguneroko bizitzako, eta zientzia eta teknologiako egoera problematizatuak interpretatzea, modelizatzea eta ebaztea, problema bat zatietan deskonposatuz, ereduak eta horiek sortzen dituzten printzipioak ezagutuz eta pentsamendu konputazionala erabiliz, algoritmoak orokortuz eta sortuz.

Lehenengo maila	Bigarren maila
5. konpetentzia espezifikoa	
5.1 Ikuspegi matematiko integratua adieraztea, problemak ebatziz, erlazioak arakatuz, eta hainbat ideia eta elementu matematikoren arteko loturak aplikatuz (zenbaki errealak, bektoreak, zuzen baten ekuazioak, funtzioak eta propietateak, ausazko fenomenoak…).	5.1 Ikuspegi matematiko integratua adieraztea, problemak ebatziz, ikertuz, erlazioak arakatuz, eta hainbat ideia eta elementu matematikoren arteko loturak aplikatuz (zenbaki errealak, matrizeak, espazioaren bektoreak, zuzen baten eta plano baten ekuazioak, funtzioak, deribatuak, integralak…).
6. konpetentzia espezifikoa	
6.1 Problemak ebaztea hainbat egoeratan, prozesu matematikoak (inferitu, neurtu, komunikatu, sailkatu, aurreikusi…) erabiliz, eta mundu errealaren, zientziako eta teknologiako beste jakintza-arlo batzuen eta matematikaren arteko loturak ezarriz eta aplikatuz.	6.1 Problemak ebaztea hainbat egoeratan, prozesu matematikoak (inferitu, neurtu, komunikatu, sailkatu, aurreikusi…) erabiliz, eta mundu errealaren, zientziako eta teknologiako beste jakintza-arlo batzuen eta matematikaren arteko loturak ezarriz eta aplikatuz.
6.2 Ekintza berritzaileak proposatzea testuinguru zientifiko, teknologiko, artistiko eta kulturaletan, matematikaren sormen-ahalmena erabiliz.	6.2 Ekintza berritzaileak proposatzea testuinguru zientifiko, teknologiko, artistiko eta kulturaletan, matematikaren sormen-ahalmena erabiliz.
6.3 Matematikak gizadiaren aurrerabideari egiten dion ekarpena ezagutzea, hainbat problematikari eta gizartean planteatzen diren erronkei (ingurumena, kontsumoa, desberdintasunak…) soluzioak proposatzeko egiten duen ekarpena eta gizartean planteatzen diren erronka zientifiko eta teknologikoak identifikatuz.	6.3 Matematikak gizadiaren aurrerabideari egiten dion ekarpena aztertzea, egoera konplexuei eta gizartean planteatzen diren erronka zientifiko eta teknologikoei soluzioak proposatzeko egiten duen ekarpenaren inguruan hausnartuz.
7. konpetentzia espezifikoa	
7.1 Ideia matematikoak irudikatzea, pentsamendu- eta arrazoiketa-prozesu matematikoak egituratuz eta teknologiarik egokienak hautatuz.	7.1 Ideia matematikoak irudikatzea, pentsamendu- eta arrazoiketa-prozesu matematikoak egituratuz eta ikertuz, eta teknologiarik egokienak hautatuz.
7.2 Laguntzaileekin eta simulagailuekin elkarreragiteko eta irudikatzeko hainbat modu hautatzea eta erabiltzea, informazioa partekatzeko duten erabilgarritasuna baloratuz.	7.2 Laguntzaileekin eta simulagailuekin elkarreragiteko eta irudikatzeko hainbat modu analizatzea eta eztabaidatzea, informazioa partekatzeko duten erabilgarritasuna baloratuz.
8. konpetentzia espezifikoa	
8.1 Matematika-hizkuntza hainbat testuinguru eta euskarritan ezagutzea, interpretatzea eta erabiltzea, ezagutza berria finkatzeko eta sortzeko bide gisa.	8.1 Matematika-hizkuntzaren baliabide sinbolikoak (algebra matriziala, ekuazio-sistemak…) hainbat testuingurutan eta euskarritan erabiltzea, ezagutza berria finkatzeko eta sortzeko bide gisa.
8.2 Ideia matematikoak modu antolatuan eta egituratuan komunikatzea, euskarri, terminologia eta zorroztasun egokiak erabiliz eta jarraitutako prozesuei buruz hausnartuz.	8.2 Ideia matematikoak modu antolatuan eta egituratuan komunikatzea eta argudiatzea, euskarri, terminologia, zorroztasun eta zehaztasun egokiak erabiliz eta jarraitutako prozesuei buruz hausnartuz.
9. konpetentzia espezifikoa	
9.1 Ziurgabetasun-egoeretan helburuak lortzen jarraitzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, eta akatsa ikaskuntza-prozesuaren parte gisa aitortuz.	9.1 Ziurgabetasun-egoeretan helburuak lortzen jarraitzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, eta akatsa ikaskuntza-prozesuaren parte gisa erabiliz.
9.2 Erronken aurrean motibazio positiboa eta ezbeharren aurrean sendotasuna erakustea, kritika arrazoitua onartuz, matematikako ikaste-egoera desberdinei aurre egitean.	9.2 Erronken aurrean motibazio positiboa eta ezbeharren aurrean sendotasuna erakustea, kritika arrazoitua onartuz eta bertatik ikasiz, matematikako ikaste-egoera desberdinei aurre egitean.
9.3 Matematika-zereginetan aktiboki parte hartzea talde heterogeneoetan, eta gizarte-trebetasun egokienak identifikatzea, besteen emozioak eta esperientziak babestuz, haien arrazoibideak entzunez, taldeari esleitutako rolaren bidez ekarpenak eginez, eta talde-ongizatea eta erlazio osasungarriak sustatuz.	9.3 Matematika-zereginetan aktiboki eta sormenez parte hartzea talde heterogeneoetan, eta gizarte-trebetasun egokienak identifikatzea, besteen emozioak eta esperientziak babestuz, haien arrazoibideak integratuz, taldeari esleitutako rolaren bidez ekarpenak eginez, eta talde-ongizatea eta erlazio osasungarriak sustatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehenengo maila	
A. Zentzu numerikoa.	
1. Zenbaketa.	Problemak ebazteko zenbaketa-teknikak: aldakuntzak, permutazioak eta konbinazioak.
2. Eragiketen zentzua.	Bektoreen batura eta biderkadura eskalarra planoan: propietateak eta irudikapenak.
	Zenbaki errealekin eta bektoreekin jarduteko trebetasunen garapena, kalkulu mentala edo idatzizkoa erabiliz kasu errazetan, eta tresna teknologikoak kasu zailenetan.
3. Erlazioak.	Zenbaki konplexuak erro errealik ez duten ekuazio polinomikoen soluzio gisa.
	Bektoreen multzoa: egitura, ulermena eta propietateak.
B. Neurri-zentzua.	
1. Neurketa.	Luzerak eta angelu-neurriak zehazteko erlazio trigonometrikoak.
	Probabilitatea, ausazko fenomenoekin lotutako ziurgabetasunaren neurri gisa.
2. Aldaketa.	Taula, grafiko edo adierazpen aljebraiko batetik abiatuta, limite baten balioaren balioestea eta kalkulua.
	Funtzio baten jarraitutasuna: limiteen aplikazioa jarraitutasunaren azterketan.
	Funtzio baten deribatua: deribatuaren kontzeptuaren eraikuntza, hainbat testuingurutako aldaketaren azterketatik abiatuta.
	Oinarrizko deribatuen kalkulua: aplikazioa egoera errazetan.
C. Espazio-zentzua.	
1. Bi dimentsioko forma geometrikoak.	Bi dimentsioko objektu geometrikoak: propietateak eta ezaugarriak.
	Planoan objektuei buruzko problemen ebazpena, koordenatu kartesiarren bidez irudikatuta.
2. Lokalizazioa eta irudikapen-sistemak.	Objektu geometrikoen erlazioak planoan: erreminta digitalen laguntzaz irudikatu eta miatu.
	Objektu geometrikoen adierazpen aljebraikoak: ebatzi beharreko egoeraren arabera egokienaren hautaketa.
3. Bistaratze, arrazoibide eta modelizazio geometrikoa.	Objektu geometrikoen irudikapena planoan erreminta digitalak erabiliz, leku geometriko batean mugimenduan dagoen puntu batetik abiatuta sor daitezkeenak barne.
	Planoan problemak ebazteko eredu matematikoak (geometrikoak, aljebraikoak, grafikoak...). Eredu desberdinen arteko eta beste diziplina eta arlo interesgarri batzuekin loturak.
	Planoko aieru geometrikoak: tresna digitalen bidezko analisia eta egiaztapena (GeoGebra).
	Objektu baten posizioa eta mugimendua planoan modelizatu, bektoreak erabilita. Irristagailuak dituzten geometria dinamikoko programen (GeoGebra...) bidez bistaratzea eta interakzioa.
D. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala.	
1. Patroiak.	Egoera errazetan sortzen diren patroiak: identifikazioa eta orokortzea.
2. Eredu matematikoa.	Egoera errazetan funtsezko erlazio kuantitatiboak identifikatzeko estrategiak eta horiek modeliza ditzaketen funtzio motaren edo moten (polinomikoak, esponentzialak, arrazionalak, irrazionalak, logaritmikoak, trigonometrikoak eta zatika definituak) zehaztapena.
	Ekuazioak, inekuazioak eta sistemak: egoerak hainbat testuingurutan modelizatu eta ebatzi.
3. Berdintza eta desberdintza.	Ekuazioak, inekuazioak eta sistemak ebaztea, hainbat testuingurutako egoeren modelizaziotik abiatuta planteatzen diren erronkei irtenbidea emateko
4. Erlazioak eta funtzioak.	Funtzioen irudikapen grafikoa tresna teknologikoen bidez: behatutako erlazioen analisia eta interpretazioa.
	Funtzio moten propietateak, barne hartuz polinomika, esponentziala, arrazionala, irrazionala, logaritmikoa, trigonometrikoa eta zatika: ulermena eta konparazioa, baita tresna digitalen bidez ere.
	Aljebra sinbolikoa zientziaren eta teknologiaren erlazio matematikoen irudikapenean eta azalpenean.

Lehenengo maila	
5. Pentsamendu konputazionala.	Eguneroko bizitzako eta zientzia eta teknologiako problemen formulazioa, azterketa eta ebazpena, programa eta tresna egokiak erabiliz.
	Problema berbererako algoritmo alternatiboak: arrazoiketa logikoaren bidezko alderaketa.
E. Zentzu estokastikoa.	
1. Antolaketa eta datuen analisia. Banaketa.	Aldagai estatistiko bidimentsionalak: banaketa bateratua, banaketa marjinalak eta baldintzatuak. Mendetasun funtzionalaren eta estatistikoaren azterketa.
	Erregresio lineala eta koadratikoa: bi aldagai estatistikoren arteko erlazioa, doikuntzaren egokitasunaren analisia eta balorazio grafikoa.
	Korrelazio-koefizientea: erlazio linealaren kuantifikazioa, interpretazioa, haren fidagarritasunaren balorazioa testuinguru zientifiko, teknologiko eta abarretan.
	Korrelazioaren eta kausalitatearen arteko bereizketa.
	Tresna teknologikoak eta digitalak datu estatistikoak aztertzeko eta irudikatzeko.
2. Ziurgabetasuna.	Probabilitatearen estimazioa maiztasun erlatiboaren kontzeptutik abiatuta eta ausazko fenomenoekin lotutako ziurgabetasunaren neurri gisa.
	Eguneroko bizitzako problemak ebazteko probabilitate sinpleen eta konposatuen kalkulua. Laplaceren erregela, hainbat zenbaketa-teknikarekin konbinatuta (zuhaitz-diagramak, konbinatoriako teknika sinpleak...).
	Baldintzapeko probabilitatearekin lotutako paradoxak eta falaziak. Argudio engainagarrien ezagutza eta ziurgabetasuna dakarten bizitza errealeko egoeretan oinarritutako eta argudiatutako erabakiak hartzea.
3. Inferentzia.	Estatistika-azterketen diseinua eta dimentsio bakarreko eta bi dimentsioko laginen analisia, erabakiak hartzeko eta iritzi justifikatuak emateko tresna digitalak erabilita.
F. Zentzu sozioafektiboa.	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak.	Norberaren sentimenduak eta emozioak ezagutzeko autokontzientzia-trebetasunak, matematika ikasteko estres- eta antsietate-egoerei aurre eginez.
	Errorearen tratamendua, banakakoa eta kolektiboa, aldez aurretik eskuratutako jakintzak mugiarazteko eta matematikako ikasgelan ikasteko aukerak sortzeko elementu gisa.
2. Talde-lana eta erabakiak hartzea.	Problemak ebazteko hainbat aukera ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko oinarrizko trebetasunak.
	Problemak ebazteko hainbat planteamendu ezagutu eta onartu, besteen ikuspegiak norberaren estrategia berri eta hobetu bihurtuz, eta prozesuan enpatia eta errespetua erakutsiz.
	Problemak eta zeregin matematikoak ebazteko talde-laneko teknikak eta estrategiak, talde heterogeneoetan eta mistoetan, hala nola ikasketa kooperatiboa eta lidergo banatua.
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna.	Komunikazio eraginkorra garatzeko trebetasunak, entzute aktiboa, galderak egin edo laguntza eskatu eta eman, beharrezkoa denean.
	Historian zehar matematikak eta matematikariek zientziaren eta teknologiaren analisian eta aurrerapenean egindako ekarpenaren balorazioa.
	Ezagutza matematikoaren berezko balioaz jabetu, euskal gizarteak eta, oro har, munduak aurre egin beharreko etorkizuneko erronkei arrakastaz aurre egiteko eta herritar kritiko eta gogoetatsu gisa jarduteko.

Bigarren maila	
A. Zentzu numerikoa.	
1. Eragiketen zentzua.	Bektoreen eta matrizeen batura eta biderkadura: propietateen behar bezalako ulermena eta erabilera.
	Zenbaki errealekin, bektoreekin eta matrizeekin jarduteko trebetasunak. Kalkulu mentala edo idatzizkoa kasu errazetan, eta tresna teknologikoen erabilera kasurik konplexuenetan.
2. Erlazioak.	Bektore eta matrizeen multzoak: egitura, ulermena eta propietateak.

Bigarren maila	
B. Neurri-zentzua.	
1. Neurketa.	Kartesiar koordenatuen sistema batean luzera, azalera edo bolumena neurtzea dakarten problemak ebaztea.
	Integral bat interpretatzea, kurba baten azpiko azalera gisa definitua.
	Eremuen azalerak kalkulatzea integrazio oinarrizko teknikak erabilita.
	Probabilitatea, ausazko fenomenoekin lotutako ziurgabetasunaren neurri gisa.
2. Aldaketa.	Limitearen, jarraitutasunaren eta deribagarritasunaren kontzeptuen aplikazioa funtzioen bidez modeliza daitezkeen egoeren irudikapenari eta azterketari.
	Deribatua, aldaketaren arrazoi gisa. Software dinamikoaren bidezko interpretazio geometrikoa eta bistaratzea.
	Deribatuaren aplikazioa problemak ebazteko hainbat testuingurutan.
C. Espazio-zentzua.	
1. Bi eta hiru dimentsioko forma geometrikoak.	Hiru dimentsioko objektu geometrikoak: propietateen analisia eta atributuen zehaztapena.
	Espazioan objektuei buruzko problemen ebazpena, koordenatu kartesiarren bidez irudikatuta.
2. Lokalizazioa eta irudikapen-sistemak.	Objektu geometrikoen propietateen irudikapena eta azterketa espazioan eta haien arteko erlazioak: geometria analitikoa, baita tresna digitalen laguntzaz ere.
	Espazioko objektu geometrikoen adierazpen aljebraikoak: ebatzi beharreko egoeraren arabera egokienaren hautaketa.
3. Bistaratze, arrazoibide eta modelizazio geometrikoa.	Objektu geometrikoen irudikapena espazioan erreminta digitalak erabiliz.
	Espazioan problemak ebazteko eredu matematikoak (geometrikoak, aljebraikoak, grafikoak...). Beste diziplina eta arlo interesgarri batzuekiko loturak.
	Espazioko aieru geometrikoak: teoremen bidezko balidazioa.
	Objektu baten posizioa eta mugimendua espazioan modelizatu, bektoreak erabilita.
D. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala.	
1. Patroiak.	Patroiak eta erregulartasunak hainbat egoeratan: identifikazioa eta orokortzea.
2. Eredu matematikoa.	Erlazio kuantitatiboak hainbat egoeratan: modeliza ditzaketen funtzio motaren edo moten identifikazioa eta zehaztapena.
	Hainbat testuingurutako egoerak modelizatzeko eta ebazteko ekuazio-sistemak, baita tresna digitalen bidez ere.
	Testuinguru zientifikoetatik, sozialetatik eta eguneroko bizitzatik eratorritako egoerak modelizatzeko matrizeak.
	Matrizeen teknikak eta erabilera ekuazio linealen sistemak agertzen diren egoerak edo grafoak modelizatzeko.
3. Berdintza eta desberdintza.	Adierazpen aljebraikoen forma baliokideak ekuazioen eta inekuazioen ebazpenean, kalkulu mentalaren, arkatz- eta paper-algoritmoen eta tresna digitalen bidez.
	Ekuazio-sistema linealak: bateragarritasunaren azterketa (Rouché-Fröbeniusen Teorema) eta ebazpena (Cramer, Gauss) hainbat testuingurutan.
	Ekuazio eta matrize-sistemen ebazpena.
4. Erlazioak eta funtzioak.	Funtzioen irudikapen grafikoa tresna teknologikoen bidez: askotariko erlazioen azterketa eta interpretazioa.
	Funtzio moten propietateak: ulermena eta konparazioa.
	Problema-egoera baten, modu sinbolikoan funtzio gisa duen ereduaren eta funtzio horren irudikapen grafikoaren arteko loturak, laguntza digitalarekin.
5. Pentsamendu konputazionala.	Hainbat eratako problemen formulazioa, azterketa eta ebazpena, tresnarik edo programarik egokienak erabilita.

Bigarren maila	
	Matrizeekin egindako eragiketen propietateen azterketa algoritmikoa, determinatzaileak eta ekuazio linealen sistemen ebazpena.
	Tresna digitalen erabilera soluzio matematiko baten arrazoizkotasuna zehazteko.
	Problema bat ebazteko hainbat algoritmo aztertzea.
E. Zentzu estokastikoa.	
1. Ziurgabetasuna.	Probabilitateen kalkulua esperimentu konposatuetan. Probabilitate baldintzatua eta gertaeren independentzia. Zuhaitz-diagramak eta kontingentzia-taulak.
	Probabilitate osoaren teorema eta Bayesen teorema problemak ebaztean, ziurgabetasun-egoeretan erabaki egokiak hartzeko.
	A priori probabilitatea, egiantz-berresleipena eta a posteriori probabilitatea zuhaitz-diagrama baten edo kontingentzia-taula baten laguntzarekin eta Bayesen teoremarekin duen erlazioa aztertzeko estrategiak.
2. Probabilitate-banaketak.	Ausazko aldagai diskretuak eta jarraituak. Banaketaren parametroak.
	Fenomeno estokastikoen modelizazioa probabilitate binomialeko eta normaleko banaketen bidez. Probabilitateen kalkulua, baita informatika-aplikazioekin ere.
F. Zentzu sozioemozionala.	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak.	Norberaren sentimenduak eta emozioak ezagutzeko autokontzientzia- eta autokudeaketa-trebetasunak, matematika ikastean estres- eta antsietate-egoerei aurre eginez.
	Errorearen tratamendua eta azterketa, banakakoa eta kolektiboa, aldez aurretik eskuratutako jakintzak mugiarazteko eta matematikako ikasgelan ikasteko aukerak sortzeko elementu gisa.
2. Erabakiak hartzea.	Egoera ebaluatzeko eta testuinguru matematikoetan problemak ebazteko erabaki eraginkorrak hartzeko trebetasunak.
	Problemak ebazteko hainbat planteamendu ezagutu eta onartu, besteen ikuspegiak norberaren estrategia berri eta hobetu bihurtuz, eta prozesuan enpatia eta errespetua erakutsiz.
	Problemak eta zeregin matematikoak ebazteko talde-laneko teknikak eta estrategiak, talde heterogeneoetan eta mistoetan, hala nola ikasketa kooperatiboa eta lidergo banatua.
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna.	Matematikaren ikaskuntzan arrakasta izateko gizarte- eta komunikazio-trebetasun eraginkorrak.
	Historian zehar matematikak eta matematikariek zientziaren eta teknologiaren analisian eta aurrerapenean egindako ekarpenaren balorazioa.
	“Zentzu sozioafektibo” honetan ezarritako helburu guztiak lortzeko giza mugen onarpena, gure mugak eta akatsak onartuz eta horiek lortzen jarraitzeko erresilientziaz jokatuz.

MARRAZKETA TEKNIKOA

Marrazketa Teknikoak modu grafikoan eta objektiboan komunikatzeko eta ideiak edo proiektuak interpretazio fidagarria eta zehatza bermatzen duten konbentzioen arabera adierazteko eta zabaltzeko tresna eraginkorra ematen die ikasleei. Halaber, ikuspegi espaziala garatzen laguntzen du, planoan hiru dimentsioko espazioa irudikatzearen, problemak ebaztearen eta banakako zein taldeko proiektuak egitearen bidez.

Jakintzagaiak, haren aniztasun- eta integrazio-izaera dela eta, funtsezko konpetentzien eskuratzea sustatzen du neurri handiagoan edo txikiagoan. Horrek guztiak ikaskuntza holistikoa eta konpetentziala errazten du. Marrazketa Teknikoa zuzenean lotuta dago STEM konpetentziarekin, eta konplexutasun handi samarreko problema matematikoak grafikoki ebazteko tresnak eskaintzen ditu. Horretarako, metodo induktiboak eta deduktiboak zorrotz aplikatzen dira, eta hainbat alderdi baloratzen dira, hala nola zehaztasuna, argitasuna eta ongi egindako lana. Halaber, ekintzailetza-konpetentziarekin lotuta dago. Diziplina hau garai guztietako arkitektura- eta ingeniaritza-obretan agertzen da, sorkuntzan eta ekoizpenean betetzen duen zereginagatik ez ezik, adierazpen artistikoaren parte gisa ere bai.

Iraganeko eta egungo obren egiturei eta elementu geometrikoei buruzko analisiak eta oinarrizko azterketak zehaztasun teknikoa eta adierazpen-sentikortasuna duten objektuak eta espazioak hautemateko eta diseinatzeko prozesuan laguntzen du, kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentziarekin batera. Marrazketa normalizatua eraikuntza-prozesuko eragileen arteko komunikazio-bide nagusia da. Ikasleek objektuen forma eta dimentsioak bistaratzen eta garbi komunikatzen jakingo dute, UNE eta ISO arauei jarraikiz, hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari eta konpetentzia eleaniztunari lotutako hizkuntza unibertsalarekin. Bi eta hiru dimentsioko diseinuko eta marrazketako tresnak eta programak zeharka txertatzea lagungarria da ikasleek hizkuntza hori integratzeko, eta beren etorkizun profesionalerako ezinbestekoa den konpetentzia digitalaz hornitzen ditu modu kritiko, seguru, iraunkor eta arduratsuan. Era berean, analisirako gaitasuna, sormena, autonomia eta bat ez datorren pentsamendua indartzen ditu, eta errespetuzko eta enpatiazko jarrerak bultzatzen ditu, herritartasunerako konpetentziarekin eta konpetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoarekin batera.

Halaber, XXI. mendeko erronkak lantzen dira Batxilergoko bi urteetan, era integratuan. Ezarritako erronken artean, honako hauek sustatzen dira: ondarearen kontserbazioari lotutako herritarren konpromisoa tokiko esparruan eta esparru globalean; ezagutzarekiko konfiantza, garapenaren motor gisa; kultura digitalaren aprobetxamendu kritikoa, etikoa eta arduratsua; kontsumo arduratsua; eta aniztasun pertsonal eta kulturalaren balorazioa.

Jakintzagaiaren egiturari dagokionez, bost konpetentzia espezifiko ezarri dira, eta jakintzagai honen laguntzarekin lantzen diren konpetentzia-ikaskuntzak dira. Lehen konpetentzia espezifikoa arkitektura eta ingeniaritzako obrak haien egituren eta elementu teknikoen ikuspuntutik hautemateari eta aztertzeari lotuta dago. Bigarrenak problema grafiko-matematikoen ebazpena du ardatz, eta planoko geometriaren oinarriak praktikan jartzeko arrazoibide induktiboak, deduktiboak eta logikoak aplikatzen dira horretarako. Hirugarrenak hiru dimentsioko errealitatea irudikapen-sistemarik egokienaren bidez birsortzeko ikuspegi espazialari lotuta dago. Laugarrenak, berriz, aplikatu beharreko araudiaren araberako diseinuen formalizazioa eta kolaborazio-proiektu teknikoen aurkezpena jasotzen ditu. Azkenik, bosgarrenak ordenagailuz lagundutako diseinuko programa espezifikoen bidezko ikerketa eta esperimentazioa ditu ardatz.

Ebaluazio-irizpideak konpetentzia espezifikoak ebaluatzen dituzten curriculum-elementuak dira. Konpetentzia-orientazio nabariarekin formulatzen dira, jakintzak aplikatzearen eta hainbat jarrera baloratzearen bidez (hala nola autonomia eta autoikaskuntza, arrazoibideen zorroztasuna, eta trazaduren argitasuna eta zehaztasuna).

Oinarrizko jakintzak elkarren artean lotutako eta konpetentzia espezifikoekin hertsiki lotutako bost multzoren inguruan antolatuta daude: Orokorrak; Oinarri geometrikoak; Geometria proiektiboa; Normalizazioa eta proiektuen dokumentazio grafikoa; eta CAD sistemak.

Jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak eskuratzeko, ikaskuntza-egoera jakin batzuk behar dira, ikasleek adierazpen grafikoko esperientzia ugari arakatu ahal izateko, material tradizionalak eta alternatiboak, eta baliabide eta tresna teknologikoak erabiliz. Egoera horien garapenean, konpetentzia espezifikoak ez dira independentetzat hartu behar; aitzitik, osotasunean landuko dira, kasu bakoitzean esanguratsuenak diren zereginek esku har dezaten; horrela, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak elkarri lotuta eta pixkanaka eskuratu ahal izango dira konplexutasunari dagokionez. Egoera horiek prestakuntza-aplikazioen eta aplikazio profesionalen panorama zabala eman behar diete ikasleei, hainbat alderditan.

Jakintzagai honen prestakuntza-irismena ikasleen etorkizun profesionala eta pertsonala prestatzera bideratuta dago, teknika grafikoak baliabide tradizionalekin eta digitalekin erabiltzearen eta hainbat estrategia eskuratu eta inplementatzearen bidez (hala nola arrazoibide logikoa, ikuspegi espaziala, terminologia espezifikoaren erabilera, datuak hartzea eta ondorengo azterketetan beharrezkoak diren emaitzen interpretazioa). Eta, hori guztia, ikuspegi inklusibo eta ez-sexista batetik abiatuz eta gaur egun azterketa teknikoetan dagoen genero-arrakala gainditzeko beharra bereziki azpimarratuz.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Arkitekturako edo ingeniaritzako elementuak edo multzoak aztertzea, erabilitako egitura geometrikoak eta elementu teknikoak aztertuz, pentsamendu dibergentea sortzailea garatzeko eta haien estimazioa eta kontserbazioa sustatzeko.

Marrazketa Teknikoak leku garrantzitsua bete du eta betetzen du kulturan: garai guztietako arkitektura- eta ingeniaritza-obretan dago, eta ingeniaritza- eta arkitektura-obra bakoitzak sortu den gizarteari, haren beharrei, arazoei eta printzipioei buruzko informazioa ematen digu, hau da, mundua ezagutzeko modu bat da. Sorkuntzan eta ekoizpenean betetzen duen zereginagatik ez ezik, adierazpen artistikoaren parte gisa ere bai. Iraganeko eta egungo obren egituren eta elementu geometrikoen analisiak eta oinarrizko azterketak haien hautematea, sustapena eta kontserbazioa bultzatzen ditu, eta autonomia eta pentsamendu dibergentea, sortzailea sustatzen ditu, gai berari emandako erantzun desberdinak hauteman baitaitezke. Halaber, zorroztasun teknikoa eta adierazpen-sentikortasuna duten objektuak eta espazioak hautemateko eta diseinatzeko prozesuan laguntzen du. Azkenik, terminologia espezifiko teknikoaren zein artistikoaren erabilerak ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzen du.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM4, KD1, KPSII4, HK1, KAKK1 eta KAKK2.

2. Problema grafiko-matematikoetan arrazoibide induktiboak, deduktiboak eta logikoak erabiltzea, geometria lauaren oinarriak aplikatuz eta haiek gauzatzeko zorroztasuna erabiliz, eragiketa matematikoak, erlazioak, eraikuntzak eta transformazioak grafikoki ebazteko.

Konpetentzia honetan, arkitektura- eta ingeniaritza-marrazketan aplikatutako geometria lauaren azterketa lantzen da oinarrizko kontzeptu, propietate, erlazio eta eraikuntzen bidez. Konplexutasun handi samarreko problema matematikoak grafikoki ebazteko tresnak eskaintzen ditu. Horretarako, metodo induktiboak eta deduktiboak zorrotz aplikatzen dira, eta hainbat alderdi baloratzen dira, hala nola zehaztasuna, argitasuna eta ongi egindako lana.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM1, STEM2, STEM4, KPSII1.1, KPSII5, EK2.

3. Ikuspegi espaziala garatzea, proiektu sinpleetan geometria deskribatzailea erabiliz, marrazketak arkitekturan eta ingeniaritzetan duen garrantzia kontuan hartuz, problemak ebazteko eta planoan hiru dimentsioko errealitatea interpretatzeko eta grafikoki birsortzeko.

Geometria deskribatzailearen eratorritako irudikapen-sistemak beharrezkoak dira eraikuntza-prozesu guztietan; izan ere, proiektu-prozesu orok metodoen ezagutza behar du, haien irudikapenetik abiatuta haien arteko benetako magnitudeak, formak eta espazio-erlazioak zehaztu ahal izateko. Konpetentzia hau lotuta dago, alde batetik, irudi lauak eta gorputzak irudikatzeko gaitasunarekin, eta, bestetik, espazioko problema geometrikoen soluzioak adierazi eta kalkulatzeko gaitasunarekin. Horretarako, ezagutza tekniko espezifikoak aplikatzen dira, zorroztasuna agertu behar da arrazoibideetan, garbitasunarekiko interesa eta zehaztasuna gauzatzean ere. Halaber, egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten da.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM4, KPSII1.1, KPSII5, EK2, EK3.

4. Diseinu teknikoak formalizatzea, definitzea eta lantzea, UNE ISO arauak era egokian aplikatuz eta krokisak duen garrantzia baloratuz, arkitektura- eta ingeniaritza-proiektuak grafikoki dokumentatzeko.

Marrazketa normalizatua eraikuntza-prozesuko eragileen arteko komunikazio-bide nagusia da, zirriborroen eta krokisen bidez soluzio posible, askotariko eta sortzaileen lehen adierazpenetik abiatuta, pen-

tsamendu dibergentea sustatuz, eta lantegiko eta/edo eraikuntzako planoen bidez azken formalizazioa eginez. Halaber, beste osagai batzuekin duen erlazioa lantzen da muntaketa sinpleen planoak egitearen bidez.

Konpetentzia espezifiko hau analisi, adierazpen eta komunikazioko funtzio instrumentalei lotuta dago. Bestalde, eta komunikazioa eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da ezarrita dauden arauak eta sinbologia (UNE eta ISO arauak) ezagutzea eta proiektu teknikoei buruzko dokumentazio grafikoa ikasten hastea.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM1, STEM4, KD2, KPSII1.1, KPSII5, EK3.

5. Elementu, plano eta eskema teknikoak digitalki ikertzea, esperimentatzea eta irudikatzea CAD programa espezifikoak bakarka edo taldean erabiltiz, egungo lanbideetan duten erabilera balioetsiz, 2 eta 3 dimentsioko objektuak eta espazioak birtualizatzeko.

CAD sistemek eskaintzen dituzten soluzio grafikoak ingeniaritza- edo arkitektura-proiektuak sortzeko prozesuetan ohikoa den errealitatearen parte dira. Errealitate hori kontuan hartuta, tresna digitalek diziplina honetan eskaintzen dituzten prozesu, mekanismo eta aukeren inguruko prestakuntza-oinarri bat ematen du konpetentzia honek. Ildo horretan, planoko eta espazioko irudikapenari lotuta dauden jakintzagaiko jakintzen zeharkako aplikazio gisa txertatu behar da. Konpetentzia honek, beraz, ikasleak tresna digital horien ahalmenak modu kritiko, etiko, seguru eta arduratsuan erabiltzen eta baliatzen hasteko aukera errazten du. Era berean, errespetua, enpatia eta iritzi eta ikuspuntu desberdinen balorazioa bultzatzen ditu. Balio horiek, nolanahi ere, beharrezkoak dira talde-lanean.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM3, STEM4, KD1, KD2, KD3, EK3, KAKK4.1

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehenengo maila	Bigarren maila
1. konpetentzia espezifikoa.	
1.1. Matematikak eta marrazketa geometrikoak historian izan duten erlazioa azaltzea, hiztegi espezifikoa behar bezala erabiliz, hainbat esparrutan (hala nola arkitekturan eta ingeniaritzan) duten garrantzia baloratuz eta genero-ikuspegitik eta kultura-aniztasunetik abiatuz.	1.1. Arkitektura eta ingeniaritza garaikideetan egitura geometrikoek eta elementu teknikoek izan duten bilakaera aztertzea, aurrerabide teknologikoak eta irudikapen- eta modelatze-teknika digitalek arkitekturan eta ingeniaritzan duten eragina baloratuz.
1.2 Hainbat arkitektura- eta ingeniaritza-multzoren egitura geometrikoak eta elementu teknikoak aztertzea, alderdi berari emandako erantzun tekniko desberdinak eta haien kontserbazioaren garrantzia baloratuz.	
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1. Kalkulu matematikoak eta oinarrizko transformazioak grafikoki egitea, geometria lauaren kontzeptuak eta propietateak zehaztasunez, argitasunez eta garbitasunez aplikatuz.	2.1. Figura lauak eraikitzea, transformazio geometrikoak aplikatuz, irudikapen-sistemetan duten erabilgarritasuna baloratuz eta egikaritzean zorroztasuna erabiliz.
2.2. Eraikuntza poligonalak grafikoki trazatzea, haien propietateetan oinarrituz eta zehaztasunarekiko, argitasunarekiko, garbitasunarekiko eta ongi egindako lanarekiko interesa agertuz.	2.2. Ukitzaileak ebaztea, “potentzia” kontzeptuak zehaztasunez egikaritzeko jarrera batekin aplikatuz.
2.3. Ukitzaileak grafikoki ebaztea eta kurbak marraztea, haien propietateak aplikatuz, horiek gauzatzen zorroztasunez jokatuz	2.3. Kurba konikoak eta haien zuzen ukitzaileak trazatzea, propietateak eta eraikuntza-metodoak aplikatuz eta zehaztasunarekiko interesa agertuz.

Lehengo maila	Bigarren maila
3. konpetentzia espezifikoa	
3.1. Espazioko oinarrizko elementuak sistema diedrikoan irudikatzea, haien pertenentzia-erlazioa, posizioa eta distantzia zehaztuz eta arrazoibideetan zorroztasuna agertuz.	3.1. Problema geometrikoak eraispen, biraketa eta plano-aldaketen bidez ebaztea, arrazoibideetan zorroztasuna agertuz eta erabilitako metodoei eta lortutako emaitzei buruzko gogoeta eginez.
3.2. Elementu eta figura lauak sistema axonometrikoan definitzea, haren oinarriak aplikatuz eta espazioa irudikatzeko metodo gisa duen garrantzia baloratuz.	3.2. Gorputz geometrikoak eta biraketa-gorputzak irudikatzea, sistema diedrikoaren oinarriak aplikatuz eta zehaztasuna eta ongi egindako lana baloratuz.
3.3. Plano akotatuen sisteman oinarrizko elementuak irudikatzea eta interpretatzea, haren oinarriak erabiliz eta egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta eginez.	3.3. Hiru dimentsioko errealitatea irudikatzea solidoak perspektiba axonometrikoan eta konikoan irudikatzearen bidez, prozesuaren zehaztasun grafikoa eta sistema horiek arkitekturan eta ingeniaritzan duten erabilera baloratuz.
3.4. Elementuak perspektiba konikoan marraztea, beharrezkoak diren ezagutza teknikoak aplikatuz eta prozesuan beharrezkoa den zorroztasun grafikoa eta ongi egindako lana baloratuz.	3.4. Proiektu grafiko sinpleak plano akotatuen sistemaren bidez garatzea, sistema horri buruzko ezagutza espezifikoak aplikatuz eta egikaritzean zehaztasuna eta garbitasuna agertuz.
3.5. Dauden irudikapen-sistemetan marraztea, prozesuan beharrezkoa den zorroztasun grafikoa eta ebazpen eta eraikuntza grafikoko prozesuaren argitasuna eta zehaztasuna baloratuz.	3.5. Dauden irudikapen-sistemetan marraztea, ebazpen eta eraikuntza grafikoko prozesuaren argitasuna eta zehaztasuna baloratuz.
4. konpetentzia espezifikoa	
4.1. Objektu sinpleak haien bista akotatuen bidez grafikoki dokumentatzea, sintaxia, eskalak eta formatuak erabiltzean UNE ISO araudia aplikatuz, hizkuntza tekniko komun bat erabiltzearen garrantzia baloratuz eta zehaztasunarekiko interesa agertuz.	4.1. Hainbat eremutako proiektuetarako dokumentazio grafiko egokia lantzea, diseinu teknikoak formalizatuz eta definituz, arauen araberako krokisak eta planoak erabiliz, eta zehaztasunarekiko interesa erakutsiz.
4.2. Krokisa eta zirriborroa gogoeta-elementu gisa erabiltzea lan-prozesuetarako alternatiba eta soluzioetara hurbiltzean eta haiek ikertzean.	
5. konpetentzia espezifikoa	
5.1. Marrazketa bektorialeko programen bidez figura lauak eta hiru dimentsiokoak sortzea, eskaintzen dituzten tresnak eta lotutako teknikak modu seguru eta arduratsuan erabiliz.	5.1. Objektuak eta eraikuntzak irudikatzean euskarri digitala kritikoki, etikoki eta arduraz eta CAD aplikazioen bidez integratzea, tresna horiek marrazketarako eta kolaborazio-lanerako ematen dituzten aukerak baloratuz.
5.2. Hiru dimentsioko piezak birtualki birsortzea, taldekako proiektuak aurkezteko jatorrizkoen arteko eragiketa aljebraikoak aplikatuz, enpatia agertuz eta dauden ikuspuntuak kontuan hartuz.	

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehenengo maila
Orokorrak
Analisirako gaitasuna, sormena, autonomia, pentsamendu dibergentea eta ikuspegi espaziala indartzea.
Terminologia espezifikoaren erabilera.
Marrazketa teknikoa mundua ezagutzeko modu gisa baloratzea.
Marrazketa teknikoak arkitekturan eta ingeniaritzan duen garrantziaren ezagutzea.
Arrazoibideetan zorroztasuna eta egikaritzean zehaztasuna, argitasuna eta garbitasuna agertzea.

Lehenengo maila
Ongi egindako lanaren balorazioa.
Egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta.
Errespetua, enpatia eta iritzi eta ikuspuntu desberdinen balorazioa.
A. Oinarri geometrikoak.
Marrazketa teknikoaren garapen historikoa, genero-ikuspegia eta kultura-aniztasuna kontuan hartuz. Ekintza-esparruak eta aplikazioak: marrazketa arkitektonikoa, mekanikoa, elektrikoa eta elektronikoa, geologikoa, hirigintzakoa eta abar eraikuntzetan.
Geometria laua.
Geometriaren jatorria. Tales, Pitagoras, Euklides, Hipatia Alexandriakoa.
Leku geometrikoaren kontzeptua eta aplikazioa. Arku kapaza. Leku geometrikoen aplikazioak oinarrizko eraikuntzetan.
Proportzionaltasuna, baliokidetasuna eta antzekotasuna.
Triangeluak, laukiak eta poligono erregularrak. Propietateak eta eraikuntza-metodoak.
Oinarrizko ukitzaileak. Kurba teknikoak.
B. Geometria proiektiboa.
Geometria proiektiboaren oinarriak.
Sistema diedrikoa. Oinarriak eta oinarrizko elementuak. Puntuaren, zuzenaren eta planoaren irudikapena. Proiekzio-planoen bidezko aztarnak. Planoaren zehaztapena. Pertenentzia.
Elementuen arteko erlazioak: ebakidurak, paralelismoa eta elkarzutasuna. Distantzien lorpena.
Sistema axonometriko eta zeiharra. Perspektiba isometrikoa eta Cavalieri perspektiba. Ardatzen antolaera eta erredukzio--koefizienteen erabilera. Oinarrizko elementuak: puntua, zuzena, planoa.
Plano akotatuen sistema. Oinarriak eta oinarrizko elementuak.
Planoetan interpretatzeko elementuen identifikazioa.
Sistema konikoa: sistemaren oinarriak eta elementuak. Aurretiko perspektiba eta perspektiba zeiharra.
C. Normalizazioa eta proiektuen dokumentazio grafikoa.
Zenbakizko eskala eta eskala grafikoa. Eraikuntza eta erabilera.
Formatuak. Planoen tolestea.
“Normalizazio” kontzeptua. Oinarrizko arauak: UNE, ISO.
Normalizazioaren aplikazioak: sinbologia industriala eta arkitektonikoa.
Beharrezko bistak hautatzea. Linea normalizatuak. Akotazioa.
D. CAD sistemak.
2-3 dimentsioko aplikazio bektorialak.
3 dimentsioko piezen diseinu-oinarriak.
Kaxa-modelatzea. Oinarrizko eragiketak jatorrizkoekin.
Pieza sinpleekin pieza konplexuak osatzeko talde-laneko aplikazioak.

Bigarren maila
Orokorrak
Analisirako gaitasuna, sormena, autonomia, pentsamendu dibergentea eta ikuspegi espaziala indartzea.
Terminologia espezifikoaren erabilera.
Marrazketa teknikoa mundua ezagutzeko modu gisa baloratzea.
Marrazketa teknikoak arkitekturan eta ingeniaritzan duen garrantziaren ezagutzea.
Arrazoibideetan zorroztasuna eta egikaritzean zehaztasuna, argitasuna eta garbitasuna agertzeko interesa.

Bigarren maila
Ongi egindako lanaren balorazioa.
Egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta.
Errespetua, enpatia eta iritzi eta ikuspuntu desberdinen balorazioa.
A. Oinarri geometrikoak.
Geometria arkitekturan eta ingeniaritzan, industria-iraultzaz geroztik. Garapen teknologikoan eta forma berrien eraikuntza-ri aplikatutako teknika digitaletan lortutako aurrerapenak.
Transformazio geometrikoak: homologia eta afinitatea. Irudikapen-sistemetan problemak ebazteko aplikazioa.
Puntu baten potentzia zirkunferentzia batekiko. Ardatz erradikala eta zentro erradikala. Aplikazioak tangentzietan.
Kurba konikoak: elipsea, hiperbola eta parabola. Propietateak eta eraikuntza-metodoak. Zuzen ukitzaileak. Trazadura tresna digitalekin eta gabe.
B. Geometria proiektiboa.
Sistema diedrikoa. Planoetan dauden figurak. Eraispenak eta benetako magnitudeak. Biraketak eta plano-aldaketak. Aplikazioak. Gorputz geometrikoen irudikapena: prismak eta piramideak. Sekzio lauak eta sekzioaren benetako magnitudeak. Biraketa-gorputz zuzenen irudikapena: zilindroak eta konoak. Poliedro erregularren irudikapena: tetraedroa, hexaedroa eta oktaedroa.
Sistema axonometrikoa, ortogonala eta zeiharra. Figuren eta solidoen irudikapena.
Plano akotatu sistema. Estalki sinpleen problemen ebazpena. Lur-profilen edo lur-sekzioen irudikapena haien sestra-kurbetatik abiatuz.
Perspektiba konikoa. Solidoen eta hiru dimentsioko formen irudikapena haien bistetatik abiatuz.
C. Normalizazioa eta proiektuen dokumentazio grafikoa.
Industria-gorputz eta industria-pieza sinpleen irudikapena. Tailerreko krokisak eta planoak. Ebakidurak, sekzioak eta hausturak. Perspektiba normalizatuak.
Diseinua, ekologia eta iraunkortasuna.
Kolaborazioan egiteko proiektuak. Ingeniaritza- edo arkitektura proiektu sinple baten dokumentazio grafikoa lantzea..
Muntaketa-plano sinpleak. Lantzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
D. CAD sistemak.
CAD aplikazioak. Eraikuntza grafikoak euskarri digitalean.

TEKNOLOGIA ETA INGENIARITZA

Teknologia eta Ingeniaritza jakintzagaiak XXI. mendeko gizarteak planteatzen dituen beharrei irtenbidea eman nahi die, ongizatea hobetuz, emakumeak zientzian duen zeregina baloratuko den mundu iraunkorrago eta berdinzaleago baterako ekintzak eta jokabideak sustatuta. Halaber, desberdintasunak arintzean eta arrakala gehiago ez sortzean oinarritu behar du, ikasle guztien aukera-berdintasuna bermatzeko.

Mundu justu eta orekatu baterako bilakaeran, komeni da arreta jartzea ekoizpen-prozesuen iraunkortasunean, baita material eta energia-iturri desberdinen erabileran ere. Horregatik, Teknologia eta Ingeniaritza jakintzagaiak jakintza zientifikoak eta teknikoak bateratu nahi ditu, Batxilergoko etapako helburuak lortzen eta ikasleen funtsezko konpetentziak eskuratzen lagunduko duen ikuspegi konpetentzialaz.

Jakintzagaiaren diziplinarteko izaerak irteera-profila lortzen eta etapako helburuak eskuratzen laguntzen du. Matematikarako konpetentziari eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentziari lotutako alderdi teknikoak garatzen ditu. Halaber, hizkuntza-konpetentziaren, konpetentzia eleaniztunaren, konpetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoaren, ekintzailetza-konpetentziaren, herritartasunerako konpetentziaren eta kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentziaren inguruko beste zeharkako jakintza batzuei lotuta dago.

Teknologia eta Ingeniaritza jakintzagaia bi norabidetan erlazionatzen da gainerako jakintzagaiekin, diziplinarteko problemak ebatziz, eta praktika-eremu bat eskaintzen du, matematikako, esperimentu- eta gizarte-zientzietako, hizkuntzetako eta adierazpide artistikoko elementuak garatzeko.

Ikasleek planteatutako problemei erantzungo dieten produktuak eta kalitate-sistemak diseinatu, ikertu, fabrikatu, automatizatu eta hobetzera bideratzen dira konpetentzia espezifikoak. Hori guztia konpetentzietan oinarritzen da, benetako egoerei lotutako proiektuen bidez. Proiektu horiek berekin ekarri behar dute beste diziplina batzuetako jakintzak ikuspegi etiko eta iraunkorraz transferitzea. Ikasleak prestakuntza- eta lan-ingurunera hurbiltzen dira, jakintza teknikoetan aurrera eginez, jarrera konprometitu eta arduratsuagoarekin. Ekintzailetza, kolaborazioa eta egungo munduaren erronkekiko eta garapen iraunkorraren helburuekiko konpromisoa bultzatzen dira.

Jakintzagai honetako konpetentzia espezifikoak ebaluatzeko irizpideak orientazio konpetentzial nabarmenaz formulatzen dira. Batxilergoko 1. eta 2. mailen artean mailaketa bat ezartzen da, eta bereziki azpimarratzen da etapako lehen mailan proiektuetan parte hartzea eta azken mailan ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak egitea.

Jakintzagaia oinarrizko jakintzen multzo hauen inguruan egituratzen da —multzoen edukiak jarduera edo proiektu praktikoak garatuz erlazionatu behar dira—: Ikerketa- eta garapen-proiektuak, Materialak eta fabrikazioa, Sistema mekanikoak, Sistema elektriko eta elektronikoak, Automatizazioa eta Teknologia iraunkorra. Horretan guztian zentzu sozioemozionala kontuan hartzen da. Multzo horiek koherenteak dira planteatutako lan-metodologiarekin, konpetentzia espezifikoekin eta ebaluazio-irizpideekin.

Hori guztia konpetentzien ikuspegitik jorratzen da, ikasleek beren ezagutzak eta trebetasunak aplikatu ahal izateko proiektuak garatuta, testuinguruan kokatutako ikaste-egoera bati irtenbidea emateko, eta gero eta konpromiso handiagoa hartuta, hezkuntza-ingurunearen eta beste sektore sozial, ekonomiko eta ikerketako batzuen artean loturak sortzen laguntzeko.

Ikuspegi konpetentzial eta praktiko horren arabera, beharrezkoa da fabrikazio-laborategi bat izatea, fabrikazio digitaleko sistemak izan ditzakeen espazio espezifikotzat ulertuta. Horrek aukera ematen du garapen-potentzial handiko lan, prototipatze azkar eta offline fabrikazioko teknikak erabiltzeko, gure gizartearen eta gure produkzio-sistemaren eskariekin bat etorriz.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Ikerketa-proiektuak jarrera ekintzaileaz koordinatzea, problemak ebazteko estrategia eta teknika efizienteak ezarriz eta emaitzak behar bezala aurkeztuz, produktuak eta sistemak etengabe sortzeko eta hobetzeko.

Konpetentzia espezifiko honek berekin dakar problema teknikoak ebaztea eta kolaborazio-proiektuak koordinatu eta kudeatzea testuinguru analogiko eta digitaletan. Horretarako, asmatzea eta erabakiak hartzea errazten duten ikerketa-teknika espezifikoak gehitzen dira. Era berean, taldeen zereginak antolatzeko eta planifikatzeko estrategia iteratiboak lantzen dira. Horiek hainbat fasetan ebatziko dira, osatu beharko den hasierako oinarrizko soluzio batetik abiatuta. Alde horretatik, enpresa teknologikoek erabiltzen dituzten Design Thinking eta Agile metodoek malgutasun handiagoa ematen dute bezeroen eskarietan edozein aldaketa izanez gero. Produktuak etengabe hobetzea ere aurreikusten da, garatu beharreko proiektuen hasierako planteamendu gisa. Hori esparru industrialean gertatzen denaren isla da, bertan erabiltzen den dinamika nagusietako bat baita.

Konpetentzia espezifiko honetan, ikerketa I+G+Bko proiektuetarako hurbilketa gisa nabarmendu behar da. Horietan, garrantzi handia hartzen du informazioa behar bezala erreferentziatzeak eta dokumentazio teknikoa prestatzeak.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM3, STEM4, KD1, KD3, KD5, KPSII1.1 eta EK3.

2. Materialak hautatzea, irizpide teknikoak eta iraunkortasunekoak aplikatuz, kalitatezko produktuak fabrikatzeko eta planteatutako problema eta atazei ikuspegi etikoz eta arduratsuz erantzungo dieten inpaktu-azterketak egiteko.

Konpetentzia lotuta dago produktuak sortzeko erabili beharreko material egokiak beren ezaugarrietan oinarrituta hautatzeko konpetentziarekin, baita sortutako ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko konpetentziarekin ere.

aterialak zehazteko garaian, haien propietate teknikoei buruzko irizpideak hartuko dira kontuan (hala nola gogortasuna, erresistentzia, eroankortasun elektrikoa, isolamendu termikoa, etab.). Era berean, ikasleek kontuan hartuko dituzte teknika bat edo bestea aplikatuta materialek konformatuak izateko duten ahalmenarekin lotutako alderdiak, produktuaren azken diseinurako komeni denaren arabera. Materialak tratatua, aldatua edo aleatua izateko duen ahalmenari buruzko irizpideak ere kontuan hartu behar dira, haren ezaugarriak hobetzeko. Azkenik, ikasleek iraunkortasun-alderdiak baloratuko dituzte, helburu jakin baterako material egokienak zein diren zehazteko. Adibidez, bizi-ziklo osoan sortutako kutsadurari edo ziklo horren amaieran birziklatzeko ahalmenari erreparatuko zaio. Era berean, kontuan hartuko dira materialaren biodegradagarritasuna eta baliabideen erabilera kontrolatuarekin edo materialen eta produktuaren azken erabiltzaileen artean ezartzen den erlazioarekin lotutako beste alderdi batzuk.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, KD1, KD2, KPSII1.1, KPSII5, HK4 eta EK1.

3. Tresna digital egokien aukerak baliatzea, beren beharretara konfiguratuz eta diziplinarteko ezagutzak aplikatuz, atazak ebazteko eta emaitzak modu optimoan aurkezteko.

Konpetentziak etapa honetako ohiko ikaste-prozesuan digitalizazioa sartzeari buruzko alderdiak jorratzen ditu. Aurreko etaparen jarraipen gisa, tresna digitalen erabilera zabaldu eta indartzen da jakintzagaiarekin lotutako atazetan. Adibidez, informazioaren ikerketa, bilaketa eta hautaketarekin eta produktu eta sistema teknologikoen analisiarekin lotutako jarduerek eskatzen dute bilaketa-tresnak behar bezala erabiltzea. Orobat, kolaborazio-lanak, ideien komunikazioak edo lanen hedapenak eta aurkezpenak eskatzen dute eskura dauden komunikazio-tresnen ezaugarriak, aplikazioak, aukerak eta funtzionaltasunak ezagutzea. Era berean, diseinu- eta sorkuntza-prozesua programa sorta batekin osatzen da. Programa horiek aukera ematen dute sistemak dimentsionatu, simulatu, programatu eta kontrolatzeko edo produktuak fabrikatzeko.

Laburbilduz, soluzioak sortzean eta emaitzak hobetzean tresna digitalak erabili eta aplikatzea funtsezko tresna bihurtzen da prozesuaren edozein fasetan. Horren barruan sartzen dira soluzio teknologikoak kudeatu, diseinatu edo garatzeari, ariketa sinpleak modu praktikoan ebazteari edo dokumentazio teknikoa egin eta zabaltzeari lotutako tresnak.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD5, KPSII5 eta EK3.

4. Ezagutzak sortzea eta trebetasun teknikoak hobetzea, beste diziplina zientifiko batzuetako jakintzak transferituz eta aplikatuz, ingeniaritzaren esparruetako beharrak kalkulatzeko, problemak ebazteko edo haiei erantzuteko.

Ariketa soil bat edo arazo teknologiko konplexu bat ebazteko, beharrezkoa da diziplina zientifikoek eskaintzen dituzten teknikak, prozedurak eta jakintzak aplikatzea. Konpetentzia espezifiko honen helburua da ikasleek matematikan eskuratutako tresnak edo fisikaren edo kimikaren oinarriak erabiltzea problema mekaniko, elektriko, elektroniko edo automatizaziokoen magnitudeak eta aldagaiak kalkulatzeko edo programak garatzeko. Problema edo egoera berri eta askotarikoei aplikatutako jakintza-transferitzea horrek aukera ematen du ikasleen ezagutzak zabaltzeko eta ikasten ikasteko konpetentzia sustatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, KD2, KD5, KPSII5 eta EK3.

5. Sistema teknologikoak diseinatzea eta sortzea, erregulazio automatikoari, kontrol programatuari eta sortzen ari diren teknologiek eskaintzen dituzten aukerei buruzko ezagutzak aplikatuz, sistema teknologiko eta robotikoetako atazak aztertzeko, kontrolatzeko eta automatizatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau produktu edo soluzio teknologikoak gaitzeari lotuta dago, horien bidez ataza jakin batzuk modu autonomoan egikaritu ahal izateko. Helburua da diseinuetan erregulazio automatikoko edo kontrol programatuko elementuak txertatzea, makina edo sistema teknologikoetan ekintza errazak ahalbidetzeko. Horrek ikasleei erraztu egiten die makina eta robotetan atazak automatizatzea, kontrol-txarteletan programa egokiak ezarrita. Jarduera-ildo horretan, nabarmendu behar da sortzen ari diren teknologiek objektuen kontrolean eta talde-lanean duten egitekoa. Teknologia horien artean daude Adimen Artifiziala, Gauzen Internet, Big Data, etab.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD2, KD3, KD5, KPSII1.1 eta EK3.

6. Ingeniaritzaren esparruetako sistema teknologikoak analizatzea eta ulertzea, horien ezaugarriak aztertuz eta duten kontsumoa eta energia-efizientzia baloratuz, teknologiaren erabilera arduratsua eta iraunkorra ebaluatzeko.

Konpetentzia espezifiko honen helburua da ikasleei irizpide informatu bat ematea energiaren erabilerari eta horrek gizartean eta ingurumenean duen inpaktuari buruz. Energia-sistemen, esku hartzen duten agenteen eta etxeko hornidurekin lotutako oinarrizko alderdien ikuspegi orokorra eskuratzea landuko da. Osagarri gisa, askotariko proiektuei lotutako gizarte- eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan erabili beharreko irizpideak eman nahi zaizkie ikasleei.

Konpetentzia hau garatzeko, energia sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko sistemak eta hornidura lantzen dira, baita energia-merkatuen funtzionamendua ere. Bestalde, etxebizitzetako instalazioen, makina termikoen edo erregulazio automatikoko oinarrien azterketa ere nabarmentzen da, energiaren efizientziarekin eta aurreztearekin lotutako irizpideak kontuan hartuta, ikasleek energia arduraz eta modu iraunkorrean erabil dezaten.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, KD1, KD3, KD4, KPSII2, HK4 eta EK1.

7. Ideia teknologikoak banaka eta taldean komunikatzea, euskarri, terminologia eta zorroztasun egokia erabiliz, beren pentsamendu teknologikoa antolatzeko eta sendotzeko.

Informazioaren gizartean, egunetik egunera nabarmenagoa da komunikazio argia eta egiazkoa behar dela, ahoz zein idatziz. Besteekin interakzioan aritzeak aukera ematen du ideiak trukatzeko eta ideia horiei buruz gogoeta egiteko, kolaboratzeko, kooperatzeko eta ezagutza berriak sortu eta finkatzeko, komunikazioa ezinbesteko elementu bihurtuta jakintzagai teknologikoen ikaskuntzan.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar gertaera, ideia, kontzeptu eta prozedura konplexuak hitzez adieraztea, analitikoki eta grafikoki, modu egiazko eta zehatzean, terminologia tekniko egokia erabiliz, baita ideiei esanahia eta iraunkortasuna ematea eta testuinguru analogiko eta digitaletan publiko egitea ere, jabetza intelektuala errespetatuz eta informazioa behar bezala erreferentziatuz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, KE1, STEM4, KD3, KAKK4.1 eta KAKK4.2.

8. Trebetasun pertsonalak erabiltzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz eta ikaste-prozesuaren parte gisa akatsetik ikasiz, eta ziurgabetasun-egoerei aurre egitea, helburuak lortzen saiatua izateko, jakintzagai teknikoen ikaskuntzarekin gozatuz.

Teknologiek esku hartzen duten problema edo erronka globalenak ebaztea sarritan erronka bat da, eta ikasleek behar bezala kudeatzea komeni den emozio ugari dakartza horrek. Jakintzagai teknologikoen

ikaskuntzaren barruko trebetasun emozionalek ikasleen ongizatea, erregulazio emozionala eta ikasteko interesa sustatzen dituzte.

Konpetentzia hau garatzeko, beharrezkoa da jakintzagai teknologikoak ikasteko prozesuan emozioak identifikatu eta kudeatzea, estres-iturriak ezagutzea, helburuak lortzen saiatua izatea, modu kritiko eta sortzailean pentsatzea, erresilientzia sortzea eta erroka teknologiko berrien aurrean jarrera proaktiboa agertzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE3, STEM5, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.2, HK2, HK3 eta EK2.

9. Gizarte-trebetasunak erakustea, besteen emozioak eta esperientziak identifikatuz eta babestuz, eta esleitutako rolak dituzten talde heterogeneoetan lana aktiboki kudeatzea, Teknologiako eta Ingeniaritzako ikasle gisa identitate positiboari eusteko, talde-ongizatea eta harreman osasungarriak sustatuz.

Errespetuaren, tolerantziaren, berdintasunaren edo gatazkak modu baketsuan konpontzearen balioak lantzeak, erronka teknologikoak ebazteaz gain (komunikazio eraginkorrerako, plangintzarako, ikerketarako, motibaziorako eta konfiantzarako trebetasunak garatuz, harreman eta lan-ingurune osasungarriak sortzeko), ahalbidetu egiten du autokonfiantza sendotzea eta berdintasunean oinarritutako bizikidetza-egoerak normalizatzea. Halaber, sustatu egin behar da jakintzagai teknologien inguruan aurrez pentsatuta dauden eta alderdi indibidualei (hala nola generoari, adinari edo jakintzagai teknologikoetarako gaitasunari) lotuta dauden estereotipo eta ideien haustura.

Konpetentzia hau garatzeko, beharrezkoa da gainerakoekiko enpatia agertzea, harreman positiboak ezarri eta haiei eustea, entzute aktiboa eta komunikazio asertiboa baliatzea, taldean lan egitea eta erabaki arduratsuak hartzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII5, HK2 eta HK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehenengo maila	Bigarren maila
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1. Produktu baten sorrera eta hobekuntza modu grafikoan erakusten duten proiektuak ikertzea eta diseinatzea, erlazionatutako informazioa hautatuz, erreferentziatuz eta interpretatuz.	1.1. Ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak garatzea, produktuak etengabe sortu eta hobetzeko asmoz, kudeaketa-eredu kooperatibo eta malguak erabiliz.
1.2. Produktu bideragarriak eta sozialki arduratsuak sortzeko eta etengabe hobetzeko proiektuak garatzen eta koordinatzen parte hartzea, hobekuntzak identifikatuz eta prozesu iteratibo baten bidez prototipoak sortuz, jarrera ekintzaileaz.	1.2. Definitutako proiektua argiro eta modu ulergarrian komunikatzea eta hedatzea, hura testuinguru analogiko eta digitaletan landuz eta behar den dokumentazio teknikoarekin aurkeztuz.
1.3. Dokumentazio teknikoa lantzea, diagrama funtzionalak sortuz eta eskuzko bitartekoak eta/edo aplikazio digitalak erabiliz.	
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1. Produktu baten bizi-zikloa zehaztea, etapa bakoitzean kalitatea kontrolatzeko neurriak planifikatuz eta aplikatuz, diseinutik hasi eta merkaturatzera iritsi arte, etengabe hobetzeko estrategiak kontuan hartuz.	2.1. Material teknikoek produktu iraunkorrak eta kalitatezkoak fabrikatzeko duten egokitasuna analizatzea, haien barne-egitura, propietateak eta horiek aldatzeko eta hobetzeko tratamenduak aztertuz.
2.2. Kalitatezko produktuak fabrikatzeko material egokiak, tradizionalak edo belaunaldi berrikoak, hautatzea, haien ezaugarri teknikoetan oinarrituz eta iraunkortasun-irizpideak modu etikoan eta arduratsuan kontuan hartuz.	2.2. Prozesu teknologiko zehatzei buruzko ingurumen-inpaktua ebaluatzeko txosten errazak egitea, analisiak iturri eta irizpide sendoetan oinarrituz eta neurri zuzentzaile bideragarriak proposatuz.

Lehenengo maila	Bigarren maila
2.3. Ereduak edo prototipoak fabrikatzea, fabrikazio-teknika egokienak erabiliz eta beharrezko irizpide teknikoak eta iraunkortasunekoak aplikatuz.	
3. konpetentzia espezifikoa	
3.1. Proposatutako atazak eta esleitutako funtzioak modu optimoan ebaztea, hainbat tresna digital erabiliz eta konfiguratuz eta diziplinarteko ezagutzak modu kritiko, seguru eta arduratsuan aplikatuz.	3.1. Proiektu baten garapen- eta kudeaketa-faseekin lotutako problemak ebaztea (diseinua, simulazioa eta muntaketa, eta aurkezpena), aplikazio digitalek ematen dituzten tresna egokiak erabiliz.
3.2. Proiektuak aurkeztea, aplikazio digital egokiak erabiliz.	
4. konpetentzia espezifikoa	
4.1. Sistema eta instalazio mekanikoei lotutako problemak ebaztea, mugimenduen transmisio eta transformazioko, euskarriko eta loturako mekanismoen oinarriak aplikatuz.	4.1. Egitura sinpleak kalkulatzea, horiek jasan ditzaketen karga motak eta horien egonkortasuna aztertuz eta, horretarako, esperimentu eta kalkulu-prozedura egokiak erabiliz.
4.2. Sistema eta instalazio elektriko eta elektronikoekin lotutako problemak ebaztea, korronte zuzenaren eta makina elektrikoen oinarriak aplikatuz.	4.2. Makina termikoak (hozteko makinak, bero-ponpak eta motor termikoak) analizatzea, haien funtzionamendua ulertuz eta haien efizientziari buruzko oinarrizko kalkuluak eginez.
	4.3. Sistema pneumatiko eta hidraulikoen eskemak interpretatzea eta ebaztea, haien elementu bakoitzaren eta sistema osoaren funtzionamendua ulertuz eta dokumentatuz.
	4.4. Korronte alternoko zirkuituak interpretatzea eta ebaztea, horien elementuak identifikatuz eta duten funtzionamendua ulertuz.
	4.5. Zirkuitu konbinazional eta sekuentzial fisiko eta simulatuak esperimentatzea eta diseinatzea, elektronika digitalaren oinarriak aplikatuz eta soluzio teknologikoen diseinuan haien funtzionamendua ulertuz.
5. konpetentzia espezifikoa	
5.1. Sistema teknologiko eta robotikoen funtzionamendua kontrolatzea, programazio-hizkuntzak erabiliz eta sortzen ari diren teknologiek (hala nola Adimen Artifiziala, Telemetria, Gauzen Internet, Big Data...) eskaintzen dituzten aukerak aplikatuz.	5.1. Begizta irekiko eta itxiko sistema automatikoetan oinarritutako prozesu teknologikoen funtzionamendua ulertzea eta simulatzea, sinplifikazio-teknikak aplikatuz eta haien egonkortasuna analizatuz.
5.2. Roboten mugimenduak automatizatzea eta programatzea, modelizazioaren bidez eta algoritmo sinpleak aplikatuz.	
6. konpetentzia espezifikoa	
6.1. Energia-sistemak eta -merkatuak ebaluatzea, horien ezaugarriak aztertuz, beren magnitudeak kalkulatuz eta beren efizientzia baloratuz.	6.1. Ingeniaritza-sistemak erantzukizun sozialaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik analizatzea, materialei eta fabrikazio-prozesuei lotutako energia-efizientziaren ezaugarriak aztertuz.
6.2. Etxebizitza bateko instalazioak energia-efizientziaren ikuspegitik analizatzea, iraunkortasunarekin konpromiso handiena duten aukerak bilatuz eta horien erabilera arduratsua sustatuz.	
7. konpetentzia espezifikoa	
7.1. Ideia teknologikoak komunikatzean antolamendua erakustea, euskarri, terminologia eta zorroztasun egokia erabiliz, jabetza intelektuala errespetatuz eta informazioa behar bezala erreferentziatuz.	7.1. Ideia teknologikoak komunikatzean antolamendua erakustea, euskarri, terminologia eta zorroztasun egokia erabiliz, jabetza intelektuala errespetatuz eta informazioa behar bezala erreferentziatuz.
7.2. Hizkuntza teknikoa testuinguru analogiko eta digitaletan ezagutzea eta erabiltzea, informazioa zehaztasunez eta zorroztasunez komunikatuz.	7.2. Hizkuntza teknikoa hainbat testuingurutan ezagutzea eta erabiltzea, informazioa zehaztasunez eta zorroztasunez komunikatuz.

Lehenengo maila	Bigarren maila
8. konpetentzia espezifikoa	
8.1. Ziurgabetasun-egoeretan helburuak lortzen saiatua izatea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz eta akatsa ikaste-prozesuaren partetzat baliatuz.	8.1. Ziurgabetasun-egoeretan helburuak lortzen saiatua izatea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz eta akatsa ikaste-prozesuaren partetzat baliatuz.
8.2. Teknologia ikasteko egoerei aurre egitean saiatua izatea eta motibazio positiboa agertzea, kritika arrazoitua onartuz eta horretatik ikasiz.	8.2. Teknologia ikasteko egoerei aurre egitean saiatua izatea eta motibazio positiboa agertzea, kritika arrazoitua onartuz eta horretatik ikasiz.
9. konpetentzia espezifikoa	
9.1. Ataza teknologikoetan modu aktiboan parte hartzea talde heterogeneoetan, besteen emozioak eta esperientziak babestuz eta testuinguru analogiko eta digitaletan gizarte-trebetasun aproposenak identifikatuz.	9.1. Ataza teknologikoetan modu aktiboan parte hartzea talde heterogeneoetan, besteen emozioak eta esperientziak babestuz eta gizarte-trebetasun aproposenak identifikatuz.
9.2. Ataza teknologikoak modu inklusiboan banatzen laguntzea talde heterogeneoetan, besteen arrazoibideak entzunez, esleitutako rolaren bidez taldeari ekarpenak eginez eta talde-ongizatea eta harreman osasungarriak sustatuz.	9.2. Ataza teknologikoak modu inklusiboan banatzen laguntzea talde heterogeneoetan, besteen arrazoibideak entzunez, esleitutako rolaren bidez taldeari ekarpenak eginez eta talde-ongizatea eta harreman osasungarriak sustatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehenengo maila
A. Ikerketa- eta garapen-proiektuak
Proiektuak kudeatzeko eta garatzeko estrategiak: Design Thinking. Ikertzeko eta asmatzeko teknikak.
Produktuak: bizi-zikloa. Etengabe hobetzeko estrategiak. Diseinuaren eta merkaturatzearen plangintza eta garapena. Logistika, garraioa eta banaketa. Metrologia eta normalizazioa. Kalitate-kontrola.
Adierazpide grafikoa. CAD-CAE-CAM aplikazioak. Diagrama funtzionalak, eskemak eta krokisak.
Ekintzailetza, erresilientzia, pertseberantzia eta sormena, problemei diziplinarteko ikuspegitik heltzeko.
B. Materialak eta fabrikazioa
Material teknikoak eta material berriak. Sailkapena. Hautaketa eta aplikazio bereizgarriak.
Fabrikazio-teknikak: prototipatze azkarra eta eskaripekoa. Proiektuei aplikatutako fabrikazio digitala.
C. Sistema mekanikoak
Mugimenduak transmititzeko eta transformatzeko mekanismoak. Elementu mekanikoen euskarriak eta lotura. Diseinua, kalkulua, muntaia eta esperimentazio fisikoa edo simulatua. Proiektuetarako aplikazio praktikoa.
D. Sistema elektriko eta elektronikoak
Korronte zuzeneko zirkuituak eta makina elektrikoak. Zirkuituen interpretazioa eta irudikapen eskematizatua, kalkulua, muntaia eta esperimentazio fisikoa edo simulatua. Proiektuetarako aplikazioa.
E. Automatizazioa
Testu-programazioko hizkuntzak. Prozesuen automatizazioari aplikatutako programen sorkuntza.
Kontrol-sistemak. Kontzeptuak eta elementuak. Sistema sinpleen modelizazioa.
Kontrol-sistemei aplikatutako Adimen Artifiziala.
Komunikazio-protokoloak. Telemetria eta monitorizazioa. Gauzen Internet eta Big Data.
Robotika: mugimendu eta ekintza mekanikoen modelizazioa.
Autokonfiantza eta ekimena. Akatsa eta berrebaluazioa ikaskuntza-prozesuaren partetzat.
F. Teknologia iraunkorra
Energia-sistemak eta -merkatuak. Energia-kontsumo iraunkorra, aurrezteko teknikak eta irizpideak. Etxeko hornidurak.

Lehenengo maila	
Etxebizitzetako instalazioak: elektrikoak, uretakoak, klimatizaziokoak, komunikaziokoak eta domotikoak. Energia berriztagarriak, energia-efizientzia eta iraunkortasuna.	
G. Zentzu sozioemozionala	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak	Norberaren sentimenduak eta emozioak ezagutzeko autokontzientzia-trebetasunak, ikaskuntza teknologikoan litezkeen estres- eta antsietate-egoerei aurre eginez.
	Akats indibidualaren eta kolektiboaren tratamendua, eskuratutako jakintzak mobilizatzeko eta teknologia-gelan ikasteko aukerak sortzeko elementu gisa.
2. Talde-lana eta erabakiak hartzeko estrategiak	Erabakiak hartzean aukerak ebaluatzeko eta problemak ebazteko oinarrizko trebetasunak.
	Problemak ebaztean planteamendu desberdinak ezagutzeko eta onartzeko estrategiak, besteen ikuspegiak estrategia propio berri eta hobetuetan eraldatuz, eta prozesuan enpatia eta errespetua erakutsiz.
	Problema eta ataza teknologikoak talde heterogeneoetan eta mistoetan ebazteko talde-lanerako teknikak eta estrategiak, hala nola ikasketa kooperatiboa eta lidergo banatua.
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna	Komunikazio eraginkorra, entzute aktiboa, eta galderak egiteko edo, beharrezkoa denean, laguntza eskatzeko eta emateko moduak garatzeko trebetasunak.
	Teknologiak eta ingeniaritzak historian zehar zientziaren eta teknologiaren analisian eta aurrerapenean izan duten eraginaren balorazioa.

Bigarren maila	
A. Ikerketa- eta garapen-proiektuak	
Proiektuen kudeaketa eta garapena: Agile metodoak. Motak, ezaugarriak eta aplikazioak.	
Dokumentazio teknikoa hedatzeko eta komunikatzeko estrategiak. Prestatzeko, erreferentziatzeko eta aurkezteko estrategiak.	
B. Materialak eta fabrikazioa	
Barne-egitura. Propietateak eta saiakuntza-prozedurak.	
Propietateak eta iraunkortasuna aldatzeko eta hobetzeko diseinu-teknikak eta tratamenduak. Fabrikazio industrialeko teknikak.	
C. Sistema mekanikoak	
Egitura sinpleak. Karga motak, egonkortasuna eta oinarrizko kalkuluak.	
Makina termikoak: hozteko makina, bero-ponpa eta motor termikoak. Oinarrizko kalkuluak eta aplikazioak.	
Pneumatika eta hidraulika: osagaiak eta printzipio fisikoak. Deskribapena eta analisia. Aplikatu beharreko eskema bereizgarriak. Diseinu eta muntaia fisikoa edo simulatua.	
D. Sistema elektriko eta elektronikoak	
Korronte alternoko zirkuituak. Potentzien triangelua. Kalkulua, muntaia edo simulazioa.	
Elektronika digital konbinazionala. Diseinua eta sinplifikazioa. Esperimentazioa simulagailuetan.	
Elektronika sekuentziala. Esperimentazioa simulagailuetan.	
E. Automatizazioa	
Begizta irekiko eta itxiko sistemak. Sistemen sinplifikazioa. Multzoen aljebra. Egonkortasuna. Esperimentazioa simulagailuetan.	
F. Teknologia iraunkorra	
Gizarte- eta ingurumen-inpaktua. Ebaluazio-txostenak. Iraunkortasunaren balorazio kritikoa teknologiaren erabileran.	
G. Zentzu sozioemozionala	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak	Norberaren sentimenduak eta emozioak ezagutzera bideratutako autokontzientzia-trebetasunak, ikaskuntza teknologikoan litezkeen estres- eta antsietate-egoerei aurre eginez.
	Akats indibidualaren eta kolektiboaren tratamendua, eskuratutako jakintzak mobilizatzeko eta teknologia-gelan ikasteko aukerak sortzeko elementu gisa.

Bigarren maila	
2. Talde-lana eta erabakiak hartzeko estrategiak	Erabakiak hartzean aukerak ebaluatzeko eta problemak ebazteko oinarrizko trebetasunak.
	Problemak ebaztean planteamendu desberdinak ezagutzeko eta onartzeko estrategiak, besteen ikuspegiak estrategia propio berri eta hobetuetan eraldatuz, eta prozesuan enpatia eta errespetua erakutsiz.
	Problema eta ataza teknologikoak talde heterogeneoetan eta mistoetan ebazteko talde-lanerako teknikak eta estrategiak, hala nola ikasketa kooperatiboa eta lidergo banatua.
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna	Komunikazio eraginkorra, entzute aktiboa, eta galderak egiteko edo, beharrezkoa denean, laguntza eskatzeko eta emateko moduak garatzeko trebetasunak.
	Teknologiak eta ingeniaritzak historian zehar zientziaren eta teknologiaren analisian eta aurrerapenean izan duten eraginaren balorazioa.

EKONOMIA, EKINTZAILETZA ETA ENPRESA JARDUERA

Gai ekonomikoek gero eta garrantzi handiagoa dute gizartearen esparru guztietan, eta modu zuzen-zuzenean eragiten digute, indibidualki eta kolektiboki. Hori dela eta, prestakuntza espezifiko bat behar da, Batxilergoko ikasleari ekonomia, ekintzailetza eta enpresa-jarduera egungo errealitatearen oinarrizko alderdi gisa ulertzeko behar diren gakoak emango dizkiona. Diziplina hau Batxilergoko curriculumean sartzeak egungo gizartearen ikuspegi zabalagoa eta zehatzagoa lortzea ahalbidetzen du, eta herritartasuna jarrera gogoetatsu eta kontzientearekin gauzatzen laguntzen du, errealitate ekonomiko soziala ulertzea erraztuz, besteak beste kontzeptu hauen analisiaren bidez: klima-aldaketa, langabezia, baliabideen agortzea, iraultza teknologikoa, negozio-eredu berriak, etab. Horrela, prestakuntza-etapa honetan, ikasleak hobeto jabetuko dira gaur egun ekonomian duten eginkizunaz, kontsumitzaile, aurreztaile, ekintzaile, zergadun eta ondasun eta zerbitzu publikoen erabiltzaile diren aldetik, baita etorkizunean errenta-sortzaile eta herritar libre gisa beteko duten egitekoaz ere.

Ekonomia, Ekintzailetza eta Enpresa Jarduera jakintzagaiaren hezkuntzahelburua bat dator Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioarekin, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzkoarekin. Gomendio horretan jasotzen da pertsonek ekonomia eta aukera sozial eta ekonomikoak ulertu behar dituztela. Jakintzagaiaren abiapuntua da ikasleek funtsezko konpetentzia guztiak eskuratzea Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, baina, bereziki, ekintzailetzarako konpetentzia, herritartasunerako konpetentzia, konpetentzia digitala eta konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Konpetentzia horiek osatu egiten dira elementu hauen ekarpenarekin: batetik, ekonomiaren eta enpresen funtzionamendua eta ekintzaileen profila ulertzea ahalbidetzen duten elementuak, eta, bestetik, gogoeta kritiko eta eraikitzailearekin eta egungo arazo eta erronkei diziplinarteko ikuspegiaz aurre egiteko irtenbideen proposamenarekin lotutako elementuak.

Modalitate orokorreko Batxilergoko lehen mailako Ekonomia, Ekintzailetza eta Enpresa Jarduera jakintzagaiak, diziplina anitzekoa denez, eskatzen du hainbat arlo osagarri ikasiz jakintzak eskuratzea eta garatzea. Arlo horien artean daude matematika, ingelesa, filosofia eta etika, informatika, etab. Era berean, ekonomiak jakintzagai horien berezko jakintzak hobeto bereganatzen eta ulertzen laguntzen du. Horregatik, ezinbestekoa da jakintzagai horietako irakasleekin eraginkortasunez koordinatzea, konpetentziak behar bezala eskuratzeko.

Jakintzagaiaren diseinuak indarrean dagoen legerian finkatutako helburuak hartzen ditu kontuan, eta lagundu egiten du «espiritu ekintzailea» finkatzen «sormen, malgutasun, ekimen, talde-lan, norberarenganako konfiantza eta zentzu kritikoko jarrerekin». Jakintzagaia antolatuta dago ikasleek konpetentzia espezifiko batzuk eskuratzearen inguruan. Konpetentzia horiek proposatzen dute ikasleek modu kritikoan eta gogoetatsuan analizatzea zientzia ekonomikoaren ekarpenak, baloratuz, diziplinarteko ikuspegi batetik, pertsonek eta erakundeek erabaki ekonomikoak hartzeari dagokionez duten portaera, eskasiaren arazotik eta haren ondorioetatik abiatuta. Konpetentzia horiek ikasleengandik eskatzen dute, halaber, identifikatu eta balora ditzatela ekintzaileek bereizgarri dituzten trebetasunak eta konpetentziak, behar

dituzten heinean horiek bere egin ditzaten; ezagutu eta uler ditzatela enpresa-estrategiak, horien bilakaera analizatuz eta negozio-eredu berriak bereiziz; eta analiza ditzatela sortzen diren eraldaketa sozioekonomikoak, enpresa-jardueran berrikuntza eta iraultza digitala dakartenak.

Ebaluazio-irizpideen helburua da jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoen lorpenmaila zehaztea, jakintzak zein neurritan barneratzen eta nola aplikatzen diren egiaztatzea, eta ikasleek beren garapen pertsonal eta akademikorako jarrera eta balio garrantzitsuak hartzen dituzten ondorioztatzen dute. Haien formulazioan, beraz, jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea aipatzen da argi eta garbi.

Konpetentzia espezifikoak eskuratzen laguntzen duten oinarrizko jakintzak hiru multzotan antolatzen dira. Lehenengoa alderdi ekonomikoei lotuta dago, eta, aldi berean, bi azpimultzo biltzen ditu, hurrenez hurren, eskasiaren arazoari eta arazo ekonomikoaren tratamenduari buruzkoak, baita ekonomiarekin eta horrek beste diziplina batzuekin dituen loturekin zerikusia duten gaiei buruzkoak ere. Multzo honek aukera ematen du errealitatearen analisia ikuspegi zabalago eta integratzaileago batetik egiteko. Jakintzen bigarren multzoa ekintzailetzarekin eta ekintzaileen ezagutzarekin lotzen da. Ekimena eta zentzu ekintzailea duten pertsonen ezaugarri diren trebetasunak eta konpetentziak ikasleei aurkezten saiatzen da. Etorkizunerako bidean ikasleak inspiratuko dituzten benetako erreferentetzat ikusten dira pertsona horiek. Era berean, bide horretan topa ditzaketen zailtasunen ikuspegi objektiboa eta errealista eman nahi du. Hirugarren eta azken multzoak enpresa-jarduera du ardatz, eta enpresek gauzatzen dituzten estrategiak analizatzen ditu, baita negozio-eredu berriak ere, betiere kontuan hartuta iraultza teknologikoaren eta digitalaren ondorioz arlo horretan dauden berrikuntzak.

Gaiari ikuspegi teoriko-praktiko batetik heldu nahi zaio, jakintzak modu objektiboan aplikatuz enpresa-errealitateari buruzko kasuen analisian eta ikerketetan. Enpresa-estrategiak ezagutzeak eta eztabaidatzeak, kasu erreal eta esanguratsuen azterketatik abiatuta, bidea emango du ikasleak norberaren eta besteen ezaugarriak sustatzearen garrantziaz jabetzeko eta ahalegin-, iraunkortasun- eta gainditze-jarrerak sustatzeko, eta elementu horietan ikaskuntzarako eta lorpenerako bidean balio indibidual nahiz kolektiborako ekarpen bat ikusten da.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zientzia ekonomikoaren ekarpenak modu kritiko eta gogoetatsuan analizatzea, beste diziplina batzuekin duen erlazioa baloratuz, errealitatea ikuspegi integral batetik ulertzeko eta herritar arduratsu, autonomo eta konprometitu gisa jarduteko.

Gaur egungo errealitate ekonomikoa konplexua da, baita esparru horretan arazoei irtenbidea ematea eta erabakiak hartzea ere, aldagai askok esku hartzen baitute prozesu ekonomikoan. Horregatik, garrantzitsua da ikasleek, baliabide analogiko eta digitalen bidezko azterketa eta analisi gogoetatsuaren bidez, gai izatea zientzia ekonomikoaren ezagutzak eta probabilistikoak ez diren lege orokorrak ezartzeko dituzten zailtasunak beste diziplina batzuek eskaintzen dituzten ezagutzekin erlazionatzea, gizarte-zientzien esparrukoak nahiz beste esparru batzuetakoak izan. Konexio horrek munduaren ikuspegi osoagoa ematen du, eta aukera ematen du ingurune ekonomikoan eta sozialean gertatzen diren aldaketak hobeto ulertzeko eta arazo ekonomikoetarako irtenbide integralak proposatzeko, herritar arduratsu, autonomo eta konprometitu gisa.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM5, KD1, KPSII1.2, KPSII5, HK1, EK1 eta EK2.

2. Erabaki ekonomikoak hartzeko portaera bai indibiduala, bai kolektiboa diziplinarteko ikuspegitik analizatzea, eskasiaren arazoa eta horren ondorioak ebaluatuz, arazo horren ondoriozko aldaketa ekonomikoak eta sozialak ulertzeko eta horren arabera jarduteko.

Eskasiaren eta horren ondorioen arazoa zientzia ekonomiko osoaren azpian dago, eta gizabanakoen eta gizartearen portaera baldintzatzen du arlo horretan erabakiak hartzeko garaian.

Ikasleek arazo horren ikuspegi integrala izatea lortzen badute, gai izango dira jarduteko eta erabaki zorrotzagoak hartzeko, erabaki horiek analisi global baten emaitza izango baitira, eta horretan kontuan hartu izango dituzte, aldagai ekonomikoak ez ezik, beste aldagai soziologiko batzuk ere, hala nola giza-banakoen portaerak erabakiak hartzean duen eragina; aldagai psikologikoak, hala nola erabaki arrazionalak hartzean izandako akatsen analisia; edo filosofikoak eta etikoak, hala nola baliagarritasunari eta zoriontasunari buruzko gogoeta.
Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM2, STEM5, KPSII1.2, KPSII5, HK4, EK1 eta EK2

3. Korrespondentziak ezartzea garapen iraunkorreko helburuen eta kasu errealak aztertuz eskuratutako ikaskuntzen artean, ekonomia- eta enpresa-tresnen laguntzaz haiek analizatuz, egungo erronkei erantzuten lagunduko duen jarrera sentikorra eta portaera arduratsua eta proaktiboa sortzeko.

Garapen iraunkorreko helburuen (GIH) eta garapen ekonomiko eta sozialaren arteko erlazioa modu praktikoan ulertzeak eta aipatutako helburuak ekonomia- eta enpresa-tresnen bidez analizatzeak ikasleei bidea emango die haiek lortzearen garrantziaz jabetzeko, eta ekonomiaren esparruan eragin handia duten XXI. mendeko munduko erronkei erantzun ahal izateko.

Egoera errealak analizatzeak, halaber, ikasleei aukera emango die sentsibilizatzeko eta banakako edo taldeko ekintza errazen bidez gizartea eta ingurunea hobetu daitezkeela ulertzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, KPSII1.2, HK4, EK1 eta EK2.

4. Ekintzaileak egungo errealitatearen barruan ezaugarritzen dituzten trebetasunak eta konpetentziak identifikatzea eta baloratzea, haien profilak eta erronkei aurre egiteko modua analizatuz, norberaren ekintzailetza-trebetasunak ezagutzeko eta indartzeko eta bizitzako egoera errealetan aplikatzeko.

Egungo ekintzailearen profila analizatzeak konpetentzia pertsonal eta sozial desiragarriei buruz gogoeta egitea eskatzen du, hala nola honako hauei buruz: sormena, enpatia, ekimen-gaitasuna eta erronkei aurre egiteko gaitasuna. Era berean, profil hau garatzean eragina duten beste alderdi psikologiko batzuk baloratu eta kontuan hartu behar dira, hala nola ekiteko garaian beldurrak eragiten dituzten uste mugatzaileak, adimen emozionalaren garrantzia edo emozioen kontrola. Izan ere, horiek pentsamenduak eta lorpenaren irismena baldintzatzen dituzte.

Komeni da ikasleak hurbileko ekintzaileengana hurbiltzea, horien dohainak eta konpetentziak ezagutzen jakin dezaten eta, horrela, gai izan daitezen ekintzaileengandik ikasteko eta ebaluatzeko zer neurritan eskuratu edo indartu ditzaketen dohain eta konpetentzia horiek prestakuntzaren eta entrenamenduaren bidez, eguneroko bizitzan aplikatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, HK1, HK3, EK2 eta KAKK4.2

5. Enpresa-estrategiak ulertzea, horien bilakaera analizatuz eta hainbat esparru eta sektoreri lotutako erakundeek garatutako negozio-eredu berriak bereiziz, enpresen filosofia identifikatzeko, joerak ezagutzeko eta egungo gizartean enpresek duten jarduerari zentzu kritikoz balioa emateko.

Enpresa-estrategiak eboluzionatu egiten du eta aldaketa ekonomiko eta sozialetara egokitzen da. Bilakaera hori analizatu behar da, eta negozio-eredu berriei eta egungo gizartean enpresak dituen joerei buruz gogoeta egin behar da, espiritu kritikoz baloratuta sartzen ari diren aldaketak, hala nola lanlekua ulertzeko modu berria edo bezeroaren ezaugarri berriak, eta horrek negozio-estrategia berriak eskatzen ditu.

Ikasleek, enpresen kasu zehatzak analizatuta, enpresa bakoitzaren ikuspegia eta filosofia hobeto ulertu ahal izango dute, eta haien indarrak eta ahuleziak baloratu. Kasuen analisiak aztergai izan ditzake es-

trategia berritzaileak dituzten enpresa handiak, beren sektorean enpresaren kontzeptua aldatu dutenak, edo txikiagoak eta hurbilagokoak, beren balio-proposamena hain asmo handikoa ez izan arren, eragin-korra badena ingurune landatarretan, hiritarretan, tokikoetan eta globaletan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KD1, KPSII3.2, HK1, HK3, EK1, EK2 eta KAKK1.

6. Eraldaketa ekonomikoa eta soziala eta horren ondorioak analizatzea, berrikuntzak eta iraultza digitalak enpresa-jardueran duten garrantzia ezagutuz, enpresek egungo erronkei ematen dizkieten erantzunak ulertzeko eta erronka horietarako alternatibak eta irtenbide berriak proposatzeko.

Eraldaketa teknologiko, ekonomiko eta sozial azkarra aldaketa sakonak eragiten ari da enpresa-jardueran, eta horrek enpresak egokitzera eta berritzera behartzen ditu, gero eta lehiakorragoa den mundu batean bizirauteko, gero eta konplexuagoak diren arazoei erantzuteko eta egungo erronkei irtenbideak eskaintzeko.

Enpresak eraldaketa hori nola egiten ari diren ulertzeak ikasleei bidea emango die iraultza teknologikoak eta eraldaketa digitalak ekonomian dituzten ondorioak ebaluatzeko, baina baita beste esparru batzuetan ere, hala nola lan-merkatuan edo gizarte-antolamenduan, eta analisi kritiko batetik abiatuta desorekak hobetzeko alternatibak eta konponbideak planteatu ahal izango dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, STEM4, KD5, KPSII3.2, HK4, EK1 eta EK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ekonomia, Ekintzailetza eta Enpresa Jarduera
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Errealitatea ulertzea, zientzia ekonomikoak eskaintzen dituen ekarpenei buruzko analisi kritiko eta gogoetatsutik abiatuz eta beste diziplina batzuekin duen erlazioa baloratuz, haren ikuspegi integrala lortzeko eta erantzukizunak eta konpromisoak hartzeko.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1 Aldaketa ekonomikoak eta sozialak ulertzea, erabakiak hartzeko prozesuan gizakiak duen portaerari buruzko diziplinarteko analisi batetik abiatuz, eskasiaren arazoa eta horren ondorioak ebaluatuz eta ikasleak horren arabera jokatzera bultatuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1 Garapen iraunkorreko helburuen (GIH) eta garapen ekonomiko eta sozialaren artean dagoen erlazioaz jabetzea, erlazio hori tresna ekonomiko eta enpresarialen bidez analizatuz eta horren ondorioak irudikatuz.
3.2 Jarrera sentikorrak eta portaera arduratsuak eta proaktiboak sortzea, kasu errealen azterketatik abiatuta egungo erronkei erantzuten laguntzeko, errealitatearen eta eskuratutako ikaskuntzen arteko korrespondentziak ezarriz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1 Norberaren ekintzailetza-trebetasunak ezagutzea eta indartzea, hurbileko ekintzaileek dituzten trebetasunak eta bizitzako benetako erronkei aurre egiteko modua identifikatuz eta baloratuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1 Enpresen joerak ezagutzea eta haien filosofia identifikatzea, haien enpresa-estrategiak ulertuz eta haien bilakaera analizatuz, baita garatutako negozio-ereduak ere, enpresajarduerari zentzu kritikoz balioa emanez.
5.2 Hainbat sektore eta esparrutako enpresek garatutako negozio-eredu berriak bereiztea, horien aukerak eta mugak analizatuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1 Enpresek egungo erronkei ematen dizkieten erantzunak ulertzea, gizartea izaten ari den eraldaketa ekonomikoa, laborala eta soziala analizatuz.
6.2 Gaur egungo erronketarako alternatibak eta irtenbide berriak proposatzea, berrikuntzak eta iraultza digitalak enpresa-jardueran duten garrantzia ezagutuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Ekonomia, Ekintzailetza eta Enpresa Jarduera	
A. Ekonomia	
1. Eskasia eta arazo ekonomikoa	Eskasia eta horren ondorioak. Baliabideen gehiegizko ustiapenaren ondorioekiko sentsibilizazioa*. Aukera-kostua. Eskasia eta efizientzia. Ondasunen balioaren, erabilera-balioaren eta kanbiobalioaren paradoxa.
	Eskasia, eta baliabideak esleitzeko sistemak. Ondasun eta zerbitzuen merkatuaren funtzionamendua*.
	Lan-merkatua: Funtzionamendua eta joerak*.
	Merkatuaren akatsak eta sektore publikoaren esku-hartzearen balorazio positiboa. Sektore publikoaren akatsak eta horien inplikazioak*.
	Errentaren fluxu zirkularra*. Eskaintza eta eskari agregatua. Errealitate ekonomikoaren elementu eta agregatuen artean dauden erlazioei buruzko analisia.
	Finantza-sistema*. Dirua eta transakzioak. Finantza pertsonalen plangintza eta kudeaketa: arriskua eta onura.
	Garapen iraunkorreko helburuak (GIH) eta gaur egungo erronka ekonomikoak.*Tokiko kasuen azterketa: euskal gizarteak GIHak betetzeko Agenda 2030arekiko duen konpromisoa; aliantza sozialak eta ekonomikoak.
2. Ekonomia eta beste diziplina batzuk	Ekonomia gizarte-zientzia gisa*. Analisi ekonomikorako arazo nagusiei buruzko gogoeta kritikoa: errealitatearen konplexutasuna eta suposizio sinplifikatzaileen txertaketa. Lege orokorrak ezartzeko zailtasunen onarpena.
	Ekonomia matematikarekin eta estatistikarekin lotuta. Modelizazio matematikoa analisi ekonomikorako tresna gisa.
	Ekonomia eta soziologia*. Analisi ekonomikoa eta indibidualismo metodologikoa. Errealitate soziala analizatzeko beste alternatiba batzuk. Ikuspegi soziologikoa: talde soziala analisi ekonomikorako unitate gisa. Ongizate soziala eta bizi-kalitatea ikuspegi soziologikotik
	Ekonomia eta psikologia*. Gizabanakoak eta portaera arrazionala. Arrazionaltasunaren akatsak. Portaeraren ekonomia, psikologia ekonomikoa eta erabakiaren teoria. Ongizatea psikologia positiboan.
	Filosofia, etika eta ekonomia: utilitarismoa eta zoriontasuna. Eragile ekonomikoak eta horien erabilgarritasunaren maximizazioa*. Ongizate sozialaren maximizazioa eta eraginkortasuna versus ekitatea eztabaida ikuspegi etiko batetik.
B. Ekintzailetza	
Ekintzailea eta barne-ekintzailea. Konpetentziak, ezaugarriak eta ohiturak.*Adimen emozionala* eta adimen exekutiboa.	
Espiritu ekintzailea: beharren eta aukeren bilaketa.*Jarrera ekintzailearen sustapena. Sormenaren eta proaktibitatearen entrenamendua*.	
Ekintzailetzari buruzko usteak*. Ekiteko beldurra: Akatsaren ezagutza eta balorazioa ikasteko aukera gisa.	
Estereotipoak enpresa-profilean; genero-rolen haustura enpresa-jardueran.	
Gizarte-trebetasunak. Motak eta aplikazioa. Taldeen kudeaketa eta giza harremanen teoria.	
Ekintzailearen misioa eta ikuspegia. Ideia versus errealitatea:*proiektu ekintzailea sortzeari eta abian jartzeari buruzko oinarrizko nozioak*.	
Ideiaren, produktuaren eta markaren babesa*.	
Ekintzailearen autoebaluazioa. Tresnak.	
C. Enpresa-jarduera	
Iraultza teknologikoa. Teknologikoaren boterea. Negozio-ereduak. Eraldaketa digitala.	
*Iraultza digitalak eta teknologikoak eragindako aldaketen balorazio kritikoa.	
Merkatua eta bezeroak. Marketin digitala.*Negozio-eredu berriak.	

Ekonomia, Ekintzailetza eta Enpresa Jarduera
Enpresa-kultura eta talentuaren kudeaketa. Lidergoa. Emakumearen zeregina enpresajardueran.
Lanlekua. Etorkizuneko enpresa. Joerak.
Enpresaren estrategia eta kudeaketa.*Berrikuntza. Iraunkortasuna*.
Enpresa-kasuen analisia: barneko eta kanpoko analisia.*AMIA*.

KULTURA ETA ARTE MUGIMENDUAK

Kultura terminoak, talde edo garai jakin bateko ezagutzen, ideien, sinesmenen, tradizioen, portaeren, arteen, zientziaren eta abarren multzoari egiten dio erreferentzia. Horiek belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira gizarte-bizitzaren bidez. Chinoy-k adierazi zuen bezala *(An Introduction to Sociology), pertsonak eta gizartea bere osotasunean ez dira entitate erabat bereiziak, baina horietako bakoitzak giza bizitzaren ezaugarri bat irudikatzen du, eta bestearekin konektatzen da eta haren mende dago*. Kulturak, barne hartzen ditu gizatalde bat osatzen duten elementu guztiak konbinatzeko erabiltzen diren forma bereziak: irudikapen kolektiboak, sinesmenak, ideologiak, erakundeak, maila teknikoa, elementu geografikoak eta demografikoak, arau, jokabide eta pentsamolde normalizatuak edo instituzionalizatuak. Hala ere, *Kultura mugimenduak* deiturikoek —izan literarioak, piktorikoak, arkitektonikoak, musikalak…— gizarte baten sentipen komuna, zein sortzaileen ikuspuntu pertsonalak islatzen dituzte. Azken horiek haratago doaz, eta planteatzen dituzten proposamen berriei buruz hausnartzera bultzatzen dute.

Bestalde, *XX. mendeko Arte mugimenduak* deiturikoak, Arte garaikidearen korronteak dira, mendebaldeko Artearen historia zeharo aldatu zutenak eta honen eboluzioa markatu zutenak. Originaltasuna, kontzeptua eta hizkuntza plastikoa lehenetsi zituzten, XIX. mendera arte indarrean zeuden naturaren imitazioaren eta edertasunaren ideal klasikoaren gainetik, eta originaltasun hori sorkuntza-eragilea bihurtu zuten. Harrezkero, mugimendu ugari agertu dira, elkarren artean oso desberdinak, eta, ondorioz, egungo Artea XX. mendeko korronte horiek Globalizazioaren egungo fenomenoarekin bat egitearen emaitza da, eta horrek kulturen nahasketa ekarri du berekin. Hori guztia, teknologia berrien erabilerarekin batera, artistei sortzen eta berritzen laguntzen die, pintura, eskultura, arkitektura, musika, literatura, dantza, zinema edo argazkilaritzan aritzen badira ere. Eta ezin dugu alde batera utzi, lagunartean kulturatzat hartzen duguna, hau da, ikaskuntzaren bidez transmititzen eta eskuratzen den guztia, edo, RAE-ren arabera, *norbaiti bere iritzi kritikoa garatzeko aukera ematen dion ezagutza-multzoa*.

Laburbilduz, alde batetik, kultura-mugimenduen arteko interdependentzia aztertu, analizatu eta ulertzeak —bai mugimendu horien arte-adierazpenetan, bai sortuta izan diren eta gainditzen duten esparruko planteamendu filosofiko, sozial, espiritual eta abarretan—, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako *Geografia eta historia* jakintzagaiaren konpetentziak garatzeko prozesuari Batxilergoan jarraipena emateaz gain, *Mugimendu kultural eta artistikoak* aztertzearen garrantzia definitzen du, gaur egungo kultura- eta gizarte-bizitza ulertzeko. Bestetik, kultura eskuratzeak etengabeko ikaskuntza eskatzen du, bizitzaren erronkei erantzuteko etengabeko bilaketa. Eta garaikideko arte-adierazpenen aztertzeak egungo munduan zentzua hartzen duten kontzeptu- eta azterketa-tresnak eskaintzen ditu, gazteen adimenaren garapen orekaturako beharrezkoak diren datuak eta jarduera intelektuala ematen dituztenak. Jakintzagai honek kultura pertsonala, pentsamendua eta iritzi independentea sustatzeko duen gaitasuna, aurreko guztiagatik, eztabaidaezina da.

Mugimendu desberdinen teknika, baliabide eta konbentzio nagusiak ezagutzeak, berekin dakar, artelanetatik abiatuta, gogoeta egitea, egungo pentsaera moduen eta errealitatea hautemateko era desberdinen arteko harremanak ezartzea, eta entsamendu dibergentearen eta lan kooperatiboaren estrategiak aplikatzea. Era berean, laguntzen du, adierazpenen aniztasunenganako jarrera irekia eta errespetuzkoa garatzen, baina baita jarrera kritikoa ere; edo arteak Garapen Iraunkorrerako Helburuak bezalako erronkekiko duen konpromisoa ulertzen, baita norberaren gaitasun estetikoa garatzeko eta kultura-bizitzan eta Ondarearen kontserbazioan parte hartzeko interesa ere.

Jakintzagaiak, gizartean aurrera egiten lagunduko duten herritar zentzudunak, moldagarriak eta pentsakorrak, ikusle eta beharbada sortzaile gisa ere begirunez jokatuko dutenak prestatzen laguntzen du. Horretaz gain, jakintzagaiak ikasleei, eurek askatasunez aukeratutako unibertsitate-ibilbiderako prestakuntza bermatzen die. Eta hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Curriculumaren parte den diziplina gisa, Euskal Herriko arte-ondarea ere kontuan hartuz.

Oinarrizko jakintzak multzotan didaktikoki antolatuta daude, sekuentzia logiko batean lotzen direnak, eta ikasleak bideratuko dituenak, irakaslearen lanarekin eta espiritu pedagogiko eraikitzailearekin batera, jakintzagaiaren ulermen eta ikuspegi orokor bat lortzera, eta, pixkanaka eta nerabeen garapen psikokognitiboa kontuan hartuta, beren Konpetentzia profila osatzera. Horrela, Arte-mintzairen bilakaera pentsamenduarenarekin lotuta dagoela ikusiko da, eta horrek aipatutako Profila osatzen duten Funtsezko konpetentziak pixkanaka garatzen lagunduko du.

Horrela, jakintzagai hau ikasteak, zuzenean lantzen ditu Herritartasunerako konpetentzia, arte-adierazpen garaikideak behatuz, bai Historian sustraiak dituzten gaur egungo arazo etikoak eta nortasun-gaiak aztertzen, bai pentsamendu kritikoa garatzen laguntzen baitu; eta Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa, Arte-mintzairak gertaerekin eta pentsamenduekin erlazionatzen irakasten duelako, baita horiekin gozatu nahi dutenengan adierazi eta sortu nahi dena hautematen, eta bizitza osoan zehar ikaskuntza kudeatzeko beharrari erreparatzen ere irakasten duelako, egileen eredua jarraituz. Jakintzagaia, Kontzientzia eta adierazpen kulturalerako konpetentziaz ere arduratzen da, edozein motatako adierazpen artistiko ezagutzeak bai sentsibilitatea bai Ondare historiko-artistikoa aintzat hartzea, errespetatzea, balioestea eta hartaz gozatzea gauzatzen dituelako. Konpetentzia digitala, mendebaldeko kulturaren produktu bat izateaz gain, arte-mintzairen parte ere bada, eta gaur egun funtsezko tresna da edozein gai lantzeko, betiere modu seguru eta arduratsuan.

Zeharka bada ere, diziplina honek Ekintzailetza konpetentzia garatzen du; izan ere, laguntza ematen die ikasleei, mundu garaikideko adierazpen plastikoak ezagutzearen bidez, horien erronka intelektual, erlijioso, politiko, ekonomiko edo sozialekin batera, bizitzan zehar aurre egin beharko dieten beharrak, erronkak eta aukerak onartzen, gaur egun globalizatuta dagoen eta etengabe aldaketak jasaten dituen mundura egokitu ahal izateko. Azkenik, Hizkuntza komunikaziorako konpetentziari eta Konpetentzia eleaniztunari egiten zaien ekarpena eztabaidaezina da, ezinbestekoa baita edozein hizkuntzatan komunikatzea informazioa transmititzeko. Horri diziplinartekotasuna gehitzen badiogu, ikuspegi teorikotik zein sortzailetik, kulturak eta haien Arte-mintzairak hainbat espezialitatetatik —Historia, Arkitektura, Pintura, Optika, Teknologia, Filosofia, eta abar— erlazionatzeko aukera ematen duena, horietan trebatzeko beharra, ezagutza globalki ulertzeko, pentsatzeko eta gai sozial eta zientifikoak jorratzeko, saihestezina bihurtzen da.

Mugimendu artistiko eta kulturalak jakintzagaiari dagozkien konpetentzia espezifikoen helburua da, Artera hurbiltzeko funtsezko konpetentzietatik abiatuta — adibidez terminologia teknikoa erabiltzea, Kultura-mugimenduen eta Arte-mintzaira bakoitzaren berezitasun espezifikoak identifikatzea eta ezagutzea, eta obrak aztertzea— konplexuagoak diren beste batzuk arte. Azken horiek honako hauek dakartzate eurekin: kultura- eta arte-jarduera ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko bitarteko gisa deskribatzea; gaiaren eboluzioaren, historia hurbilaren eta orainaldiaren arteko loturak azaltzea; Kultura eta Arte ondarearen kontzeptuaren esanahia, balioa eta kontserbazioa, adierazpen artistikoko askatasuna eta egiletza-eskubideak bermatzen duten legeak ezagutzea; eta ekitaldi nabarmenen berri izatea eta horiek baloratzea, betiere genero-ikuspegi argi batetik.

Eta Batxilergoko bigarren mailako ikasleek jarraitu beharreko ikaskuntza- prozesuari dagokionez egindako aurrerapenak baloratzeko, ebaluazio-irizpideak daude, oinarrizko jakintzak zein neurritan barneratzen eta aplikatzen diren zehazten lagunduko dutenak. Hau da, ezagutzak zenbateraino barneratu diren eta, ondorioz, konpetentzia espezifikoetan zer progresio-maila lortu den zehaztea, baita ikasleek beren garapenerako garrantzizkoak diren jarrerak eta balioak bereganatu dituzten zehaztea ere. Irizpide horien formulazioan, beraz, jakitearen, egiten jakitearen eta izatearen erreferentziak jasotzen dira.

Oinarrizko jakintzak ezinbestekoak dira garaikideko mugimendu kulturalen eta arte-mintzairen transmisio zuzena egin ahal izateko. Ezinezkoa litzateke errealitate kultural desberdinak aztertzea, ezta etengabe-

ko aldaketa hautematea ere, gutxieneko datu batzuk ezagutu gabe, zehatzak eta pedagogikoki antolatuak direnak eta bilakaera horiek historia hurbilean eta gaur egun nolakoak izan diren, eta diren, erakusten dizkigutenak.

Oinarrizko jakintzak sei bloketan bereizi dira:

– *Mundu artistiko garaikideari hurbilketa,* ikasleei gainerako jakintzak ulertzeko tresnak ematen dizkiena. 1-6 puntuak transbertsalak dira, hau da, ikaste-egoera guztien bidez landu beharko dira.

– *Arkitektura eta Hirigintza*, egintza artistikoa estetikoki ederrak diren eta biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko baldintza betetzen duten hirien bilaketaren kontzepzio garaikidearekin lotzen du.

– *Natura, Artea eta Kultura*-k ikasleei balioko die, konposizio artistikoaren bidez gure espazio naturalen kontserbazioari buruzko sentsibilitatea suspertzea.

– *Artea Artearen barruan:* berrinterpretazioetatik abiatuta, Arteak bere hizkuntzetan eta obretan duen eraginari buruzko hausnarketarako bidea ematen du.

– *Garaikideko Arte mintzairak:* egunera arte, Arte garaikidearen bilakaeraren ondorioz dauden arte-mintzairen azterketa lantzen du. 2. puntua transbertsala da, hau da, ikaste-egoera guztien bidez landu beharko da.

– *Kultura- eta arte-ekitaldiak:* horren sorreratik, artearen eta kulturaren adarren batekin zerikusia duten gaur egungo gertaera publikoak. 7-9 puntuak transbertsala dira, lehen aipatutakoak bezala.

Horretaz gain, 2-5 blokeetan bildutako jakintzen artean jakintzagai honek egiten duen ibilbide gida gisa ulertu behar diren adibide batzuk daude, baina jakinda irakaslea izango dela egokitzat joko duen hautaketa egingo duena.

*Mugimendu kultural eta artistikoa*k, baliabide horien eta irakasleren lanaren bitartez, azken hori diziplinaren jakintza globala maneiatzen duena eta gida izanda, ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista izan daitezen eta figura pasibo eta ezagutza- hartzaile soil izateari utz diezaieten, lagundu egingo du. Jakintza aztertu, aplikatu eta sortzeko irakaskuntza eta informazioa ezagutza bihurtzea uztartu behar ditugu, horrela, kultura eta arte-adierazpen desberdinenganako sentsibilitatea sustatuko dugu eta, beraz, Ondarearekiko sentsibilitatea jakin-mina, pentsamendu kritikoa eta autonomia ere. Konbinazio horrek motibazioa sortuko du eta XXI. mendeko erronkak ikuspegi berrietatik ikusi ahal izango dira.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Arte-mintzaira bakoitzaren terminologia tekniko espezifikoa behar bezala erabiltzea, horren xedea ulertzen aurrera eginez, Arte garaikidearen adierazpen eta artisten ezaugarri formal edota tekniko esanguratsuenak argi eta koherentziaz adierazteko.

Termino artistikoen hiztegi zehatza eskuratzea lehentasunezkoa da, eta pixkanaka barneratu behar da. Edozein eratako artelanen eta horien testuinguru soziokulturalaren azterketa formala adierazteko aukera ematen du, ez bakarrik egintza artistikoa eta haren oinarrizko kontzeptuak (Artearen teoria eta funtzioa, arte-estilo eta -mugimenduen sorrera eta hedapena, edo hizkuntza bisualaren elementu nagusiak identifikatzea, besteak beste) jakitearen eta ulertzearen ikuspegitik, baita jakintzagaiaren ezagutza teknikoaren ikuspegitik ere.

Beraz, beharrezkoa da jakintzagaian erabilitako terminologia egokia erabiltzea, edozein motatako obren iruzkinak osatzeko eta ezaugarri formal eta tekniko esanguratsuenak argi eta koherentziaz adierazi ahal izateko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KD1, KD2, KD3, KPSII5, KAKK1, KAKK4.2.

2. Landutako mugimendu kultural eta arte-mintzaira bakoitzaren zehaztasun espezifikoak egoki identifikatzea eta ezagutzea, dagozkien baliabide eta teknikekin — tradizionalak eta teknologia berriak—, beren ezaugarri eta izaera propioen eta bereizgarrien ulermenean aurrera eginez, Arte garaikidearen adierazpen eta artista desberdinen ezaugarririk esanguratsuenak, formalak, teknikoak eta adierazkorrak argi eta koherentziaz erlazionatzera iristeko.

Kultura desberdinetako arte-adierazpenak garatzeko eta ekoizteko teknika oso ezberdinak eta askotarikoak erabiltzen dira, baita kode jakin batzuk ere. Hori guztia testuinguru analogiko eta digitaletan esplorazio aktibo baten bidez identifikatzeak eta ezagutzeak ikasleei prestakuntza emango die, eta artearekiko sentsibilizazioan, gozamenean eta hura interpretatzeko eta baloratzeko gaitasunean aurrera egiten lagunduko die.

Ondorioz, ezaugarri formalak, teknikoak eta adierazpenekoak —kultura- mugimenduen eta arte-mintzairen nolakotasun espezifiko gisa— egoki maneiatzea ezinbestekoa da, eta apurka-apurka barneratu behar da, edozein motatako obren azterketa formalaren eta haren testuinguru soziokulturalaren arteko erlazio-prozesuan aurrera egitea ahalbidetzen baitu, bai egintza artistikoa bera ulertuta, bai jakintzagaiaren ezagutza teknikoaren ikuspegitik.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KD1, KD2, KD3, KPSII3.2, KPSII4, HK1, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK4.2.

3. Hainbat mugimendu kultural eta artistikoen produkzioak argi eta zuzen aztertzea eta komentatzea, haien ezaugarri bereziak, teknikoak, funtzioa, testuinguru soziopolitikoa, kulturala, historikoa —hala badagokio— eta abar azpimarratuz, korronte artistiko eta kultura jakin batzuen izaera adierazten duten heinean deskribatzeko.

Kultura- eta arte-adierazpen bakoitzak informazio inplizitu ugari du, bai bere testuinguru soziopolitikoari buruz, bai artista bakoitzaren mundua sentitzeko, ulertzeko, horren inguruan galdetzeko eta harekin elkarreragiteko moduari buruz. Horrela, batetik, artista horiei dagozkien mugimendu kultural eta arte-mintzairen ezaugarrien ezagutzaren eta ulermenaren ondorioz, ikasleek artisten eta hauen obraren eta beren ingurunearen arteko erlazioak identifikatuko dituzte, eta, bestetik, Arteak duen eta izan duen funtzio-aniztasuna ezagutuko dute, bai maila indibidualean (autoadierazpena, autoezagutza eta sormena), bai kolektiboan. Horregatik, jakintzagaiaren ezaugarri formal eta tekniko esanguratsuenak behar bezala konbinatu behar dira, terminologia egokia erabiliz, iruzkinak egiteko eta obren barneko eta kanpoko ezaugarriak argi eta koherentziaz adierazteko. Betiere, egile-eskubideak errespetatuz eta informazioa behar bezala erreferentziatuz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KD1, KD2, KD3, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.2, KPSII4, HK1, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK4.2.

4. Kultura- eta arte-jarduera ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko bitarteko gisa deskribatzea, argudio sendoekin eta teknika kontuan hartuta, hainbat arte-mintzairetako obren behaketa eta miaketa aktiboaren bidez, norberaren sentsazioak ere adieraziz eta sorkuntza guztiekiko errespetua erakutsiz. Hori guztia, Artearekin lotura afektiboak ezartzen aurrera egiteko, estereotipoak gainditzen lan egiteko eta garapen pertsonalean aurrera egiteko.

Arte-mintzaira guztiak kultura-adierazpenak dira, aldi berean beste galdera batzuk sortzen dituen kezka bati erantzuten diotenak. Ikasleei artisten sormen-praktika hurbiltzeak errealitatea ikusteko modu berri bat erakutsiko die, eta dagoeneko beren iruditerian txertatuta dauden ideiak eta interesa pizten dieten beste batzuk identifikatu ahal izango dituzte, sentimenduak eta emozioak piztuko dizkietenak, eta, ondorioz, beren garapen pertsonalean barneratzen hasiko direnak.

Mugimendu kultural eta artistikoak jakintzagaiaren bidez, ikasleek ikusiko dute kulturak eta arteak gizarteko sektore guztietan parte hartzen dutela eta, aldi berean, gizarteko kide diren gizabanakoen kultura-identitatearen parte direla. Halaber, Artearen eta kulturaren izaerari buruz eztabaidatzen ikasiko dute,

baita haien ezaugarri eta asmoei buruz ere, eta ulertuko dute horietan ez dagoela egia bakar eta absoluturik, esperientzia estetikoa erlatiboa dela, eta, ondorioz, begiratzetik edo lan batean parte hartzetik sor daitezkeen ideien eta sentimenduen adierazpen guztiek kulturen arteko elkarrizketa aberastu egiten dutela.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KD1, KD2, KD3, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII4, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3.2, KAKK4.2.

5. Historia hurbileko eta orainaldiko kulturaren eta artearen eboluzioaren arteko loturak azaltzea, ikerketak, ezagutzak eta ikuspegi pertsonalak partekatuz, eta artearen, gizartearen, askatasun indibidual eta kolektiboen eta artisten inplikazio pertsonalaren arteko erlazioa identifikatuz; obren bidez transmititutakoa munduaren pertzepzio pertsonalarekin alderatzeko eta, beraz, Artearen eragin sozial potentziala ulertzeko, eta adierazpen-askatasunaren eta kultura-aniztasunaren beharra eta balioa ulertzeko.

Historia hurbileko kultura- eta arte-mugimenduen eboluzioa aztertuta, ikasleak konturatuko dira artistak etengabe ari direla adierazpen modu berriak bilatzen, teknika eta muga tradizionalak gainditzen saiatuz, teknologia erabiliz etorkizunerantz aurrera egiteko etengabeko premian. Era berean, orainaren eta iraganaren arteko aldeak arazo teknikoetan eta estetikoetan ez ezik, horien erabileran eta gizarte-inplikazioan ere aurkitzen direla ikusiko dute. Hori guztia ulertzeak gure ingurunean agertzen diren unibertso bisual eta adierazkor ugariak interpretatzeko tresnak ematen ditu.

Kultura eta Artea, elkartutako bi errealitate eta bi noranzko prozesu gisa ulertu behar dira. Biak hautemateko prozesuan gizabanako bakoitzaren berezko esperientziek ere parte hartzen dute. Arte-adierazpen desberdinei buruzko ikerketak erraztu egingo du ikasleek interdependentzia hori ulertzea eta loturak ezartzea, haien interakzioen konplexutasuna behatuz, eta artistek transmititutakoa, inguratzen gaituen munduaren berezko pertzepzioarekin lotuz eta alderatuz. Kausak eta ondorioak, erabaki estetikoak, lotura filosofikoak edota adierazkorrak eta abar azalduko dituzten ekarpenak egin nahi dira; izan ere, gogoeta guzti horrek, ikasleak aipatutako guztia esploratzea, galdetzea eta zalantzan jartzea eragingo du, eta, aldi berean, elkarrizketa eta eztabaida sustatuko dira ikaskuntzaren parte gisa. Horrek guztiak kultura-aniztasunaren eta adierazpen- askatasunaren garrantziari buruzko ezagutza ematen du, baita kultura-adierazpenen ondorio sozial eta ekonomikoei buruzkoa, eta mota guztietako helburuak lortzeko duten garrantziari buruzkoa ere, Garapen Iraunkorrerako Helburuak barne.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KD1, KD2, KD3, KPSII1.1, KPSII3.1, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, HK4, KAKK1, KAKK2, KAKK3.2, KAKK4.2.

6. Kultura- eta Arte-Ondarearen kontzeptuaren esanahia eta horrek ondare material eta immaterial gisa duen balio soziala ezagutzea, baita horren kontserbazioa, eta adierazpen artistikoko askatasuna eta egiletza-eskubideak bermatzen dituzten legeak ezagutzea ere, edozein garaitan sormen- eta adierazpen-askatasunak duten garrantziaz arrazoitzeko; artista sortzailearekin zerikusirik ez duten ekintzek arte- lanetan duten eragin positiboaz eta negatiboaz jabetuz, eta aniztasunak norberaren identitateari ematen dion aberastasunarekiko estimua erakutsiz.

Ondare Artistikoa iraganeko belaunaldien legatu gisa eta adierazpen biziko fenomeno gisa hautematea, eta ondare hori kontserbatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko eta sustatzeko beharraren kontzientzia izatea funtsezko erronkak dira edozein gizarte eta kulturarentzat. Alde horretatik, *Mugimendu kultural eta artistikoak* duen zeregina funtsezkoa da ikasleak Artearen balioaz eta garrantzi kultural, sozial eta materialaz jabetu daitezen, eta jakin dezaten badirela haiek kontserbatu, zaharberritu eta sustatzeko legeak eta Egile Eskubideak arautzen dituztenak.

Edozein arte-ekoizpenaren aurrean, garrantzitsua da ikasleek aztertzen duten obra ez ezik, sorkuntza--prozesuaren testuingurua eta baldintzak ere kontuan hartzen ikastea. Horrela, ideia bat gauzatzerakoan

dauden aukera ugariak nabarituko dituzte, adierazpen askeak kulturan duen garrantzia baloratuz eta artistekin enpatiaz jokatuz beren aukeraketetan, ohikoak ez diren alternatibak bilatzean eta ekoizpenean zehar izan ditzaketen zailtasunetan.

Askatasun artistikoak —zentsurarik, gobernu-interferentziarik edo talde politiko, erlijioso edo ekonomikoen presio sozialik gabeko adierazpen kultural desberdinak imajinatzea, sortzea eta banatzea— barne hartzen du herritar guztiek obra horiek eskuratzeko duten eskubidea, eta funtsezkoa da gizarteen ongizaterako. Hala ere, sorkuntza artistikoa aldaketa sakonak izaten ari den eta kulturaren zeregina etengabe zalantzan jartzen ari den une honetan, aipatutakoa erronka bat da, artistek askatasunez adierazteko dituzten eskubideak mehatxupean baitaude mundu osoan, batez ere beren ekoizpenek ideologia politikoak, sinesmen erlijiosoak eta kultura- eta gizarte- lehenespenak ezeztatzen edo kritikatzen dituztenean. Zentsurak eta giza eskubideen eta askatasun artistikoaren aurkako mehatxuek adierazpen kulturalen aniztasuna gutxitzen eta ahultzen dute, eta, horrez gain, egileen ongizatea eta bizi-kalitatea kaltetzen dute, bereziki gatazka-eremuetan bizi badira, mehatxu horiek beren bizitzetarako eta ogibideetarako arriskutsuak izan baitaitezke. Gainera, gizabanako eta talde intoleranteek adierazpen kulturalaren askatasunari egindako erasoek, gorroto- diskurtsoek, arrazakeriak eta xenofobiak, besteak beste, demokraziaren funtsezko baldintzetako bat ukatzea dakarte: pertsona guztiek gizabanako aske eta berdin gisa eztabaidatzeko duten eskubidea.

Munduko Txostenaren bidez, UNESCOk giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak bultzatzen dituzten politika eta neurriei buruzko informazioa partekatzen du, eta denboran zehar izandako aurrerapenak eta erronkak gainbegiratzen ditu. NAZIO BATUEN 16. *Garapen Iraunkorrerako Helburuak, lege nazionalen eta nazioarteko akordioen arabera, informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarrizko askatasunak babestea* du helburu. Adierazpen Kulturalen Aniztasuna Babesteari eta Sustatzeari buruzko 2005eko Konbentzioa nazioarteko akordio bat da, politika-esparru berezia ezartzen du 16. Garapen Iraunkorrerako Helburua gauzatzeko, eta arte- askatasuna sustatzea eta babestea bultzatzen du, adierazpen-askatasunaren oinarri gisa. Bertan honela dio: *kultura-aniztasuna babestu eta sustatu ahal izateko, ezinbestekoa da giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak bermatzea, hala nola adierazpen-, informazio- eta komunikazio-askatasuna, baita pertsonek kultura- adierazpen diferenteak eskuratzeko aukera izatea ere.*

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KD1, KD2, KD3, KPSII1.1, KPSII3.1, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, HK4, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3.2, KAKK4.2.

7. Hainbat arte-mintzairekin lotutako kultura- eta arte-ekitaldi nabarmenenak ezagutzea eta baloratzea, eta ikasleen trebetasunen araberako elkarlaneko- ekoizpenen adibideak egitea, sormen bideragarrienarekin eta hainbat baliabide, euskarri eta teknika erabiliz; kultura- eta arte-aniztasunarekin lotutako obra, instalazio, ekitaldi eta lanbideen aberastasuna eta aniztasuna eta horien oinarri ekonomikoa ezagutzeko eta horretaz argudiatu ahal izateko.

Kultura- eta arte-ekitaldiak, arte-mintzaira batekin lotutako ekintza garrantzitsuak dira, publiko mota zabalaren entretenimendurako eta gozamenerako diseinatuak, eta kolektibo edo diziplina jakin batzuen —arte plastikoak, musika, dantza, zinema, bideo-jokoak— kultura-identitatea sustatzea eta indartzea dute helburu. *Mugimendu kultural eta artistikoak* jakintzagaiaren helburuetako bat da, ikasleek kulturak eta arteak eskaintzen duten aukera zabala identifikatzea. Horien existentzia eta garrantzi soziala ezagutzeak, tokikoa, autonomikoa, nazionala edo mundukoa izan, eta ekitaldietara joateak, esparru akademikoan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen dute, arte- adierazpenak hainbat eratan balioetsiz eta aztertuz. Gainera, sormenezko eta kolaborazioko lan-metodoak erabiltzea ekoizpenen oinarrizko adibideak osatzeko, ikasleei lagunduko die trebetasun berritzaileak, sortzaileak eta parte-hartzaileak garatzen, baita erabaki partekatuak eta inklusiboak hartzen ere, eta haiek motibatuko ditu etorkizunean kultura- eta arte-adierazpenen ekoizpenarekin, hedapenarekin eta merkaturatzearekin lotutako erronka profesionalen aurrean.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, KE3, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII4, KPSII5, HK3, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.

8. Mugimendu kultural eta artistikoen azterketan genero-ikuspegia txertatzea, emakumeen zeregina artean aztertuz, baita emakumearen irudiaren bilakaera hainbat estilo eta mugimendutan ere, erabilitako Arte-mintzaira edozein dela ere, emakume artistak ikusarazteko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeko.

Gizarte-jokabide orokor baten barruan, garaikideko mugimendu kultural eta artistikoek ere, bizitza pribatu eta publikoan emakumearen baztertzea islatu dute.

Historikoki, beraien gaitasunak ukatu eta ezkutatu dira, eta hori oraindik ere agerian dago, besteak beste, museo handietan emakumeen presentzia urria dela kontuan hartuta. Emakume artisten lana naturaltasunez ikasteak lagundu egiten du, artea den espazio publikoan ere, emakumea ikusarazten eta balioesten. Beste alde batetik, arte- adierazpenetako emakumearen irudiaren bilakaerari dagokionez, protagonisten ikuspuntua aztertuz, hobeto jar daitezke testuinguruan eta uler daitezke beren generoagatik soilik arrazoirik gabe baztertuak diren eta izan diren pertsonen aldarrikapenak.

Jakintzagai hau aztertzeak gizonen eta emakumeen arteko arrakala onartezina murrizteko beharra ulertzen lagundu behar du. Obra garrantzitsuen iruzkinetik abiatuta, ikasleengan hausnarketa piztea da helburua, batetik, bai gizarte-adostasuna bai - borroka sortzen duten eta erreflexu gisa betetzen duten funtzioari buruz, eta, bestetik, esparru guztietan emakumearen aurkako diskriminazio-jokabideen aurrean, jarrera zibilizatuak eta arrazoinamendu kritikoan oinarrituta izateari buruz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KD1, KD2, KD3, KPSII1.1, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK3, KAKK1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Kultura eta Arte Mugimenduak
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Arte-mintzaira bakoitzaren terminologia espezifiko espezializatuari dagozkion kontzeptu esanguratsuenak ezagutzea eta erabiltzea, kontzeptu horiek aplikatuz Arte garaikideko obra mota guztiei buruzko gogoeta formal eta teknikoak argi eta koherentziaz adierazteko, testuinguru analogiko eta digitaletan.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Horien garrantzia ezagutu ondoren, kultura-mugimenduen ezaugarriak azaltzea, norberaren kultura-identitatearekin harremanak ezarriz.
2.2. Arte-mintzairen berezko ezaugarri formalak, bitartekoak eta teknikoak, tradizionalak zein berriak, ezagutzea eta azaltzea, produktu analogiko zein digitalen bidez, guztiekiko interesa, jakin-mina eta errespetua erakutsiz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Hainbat mintzairetako obren iruzkinaren eta analisirako elementuak erraztasunez erabiltzea, zenbait arte-lanen balio artistikoak ezagutuz eta prozesuan interesa erakutsiz.
3.2. Kultura- eta arte-ekoizpenak beren testuinguru soziopolitikoekin lotzea eta harreman hori deskribatzea, aztertutako kultura- eta arte-ekoizpenen ezaugarri bereziak zehaztuz, eta egungo testuinguruarekin modu irekian eta errespetuz erlazionatuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Sormena hainbat ideia, sentimendu eta emozio adierazteko bitarteko dela modu arrazoituan azaltzea eta ikusaraztea, landutako obren laguntzaz, kultura- eta arte-adierazpen garaikide batzuek ikaslearengan piztu ditzaketen sentsazio eta lotura pertsonalak deskribatuz.

Kultura eta Arte Mugimenduak
4.2. Landutako kultura- eta arte-adierazpenen adierazpen- eta estetika-asmoak ulertzea, deskribatzea eta horien inguruan argudiatzea, hizkuntza tekniko egokia erabiliz eta artistek haien inguruari buruz dituzten ikuspegiak kontuan hartuz eta errespetatuz; erreferente komunen balizko presentzia kontuan hartuz eta horiek aberastasun sozial eta pertsonaleko iturri gisa baloratzen jakinez.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Kulturaren eta artearen eboluzioaren, historia hurbilaren eta orainaldiaren arteko harremana ulertzea eta azaltzea, baita arte-mintzairek eta kultura-munduak gizartean izan dezaketen eragina ere, artisten inplikazioa ezagutzen eta errespetatzen dela erakutsiz.
5.2. Adierazpen-askatasunaren eta kultura-aniztasunaren garrantziaz argudiatzea, landutako lanen ezagutzan oinarrituta eta ikerketak egin ondoren, diskurtso tekniko, arrazoitu eta konprometituaren bidez; artistek transmititutakoa inguruko munduaren norberaren pertzepzioarekin lotuz eta alderatuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Ondare artistikoa kontserbatzearen, zaharberritzearen eta sustatzearen garrantzia eta beharra ulertzea eta azaltzea, ondare hori gizakien kultura-herentziaren funtsezko faktorea den heinean, baita artista eta sortzailetatik kanpoko ekintzek arte- lanetan duten eragin positiboa eta negatiboa ere. Hori guztia, kultura- eta arte- mugimenduek, gizarteen aldaketen eta eboluzio edo inmobilismo ideologikoaren isla bezala duten garrantziari buruz irizpide pertsonalak emanez.
6.2. Egile-eskubideen garrantzia ezagutzea, ulertzea eta zehaztea, baita eskubide horiek errespetatzeko arrazoi legalak, soziokulturalak eta ekonomikoak ere, jakintzagaiaren eguneroko lanean Jabetza Intelektualaren Legearen aginduak benetan ezagutzen eta betetzen direla erakutsiz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Kultura- eta arte-ekitaldi esanguratsuak ezagutzea eta bakoitzari dagokion mintzaira eta testuinguruan kokatzea, horien jatorria, ezaugarriak, gaiak, artistak eta obren adibideak ezagutuz.
7.2. Kultura- eta arte-aniztasunarekin lotutako obra, instalazio, ekitaldi eta lanbideen aberastasuna eta aniztasuna argudiatzea, kulturaren eta artearen munduko lanbide-eremuren bati lotutako ekoizpen propioak sortuz, banaka edo taldeka, hainbat bitarteko, euskarri eta teknika erabiliz.
8. konpetentzia espezifikoa
8.1 Arte garaikideko emakumezko figura nagusien ibilbidea eta garrantzi artistikoa ezagutu eta azaltzea, emakumea artista gisa ikusaraziz, bere lanaren garapenaren testuinguru politiko, sozial eta kulturala aztertuz, eta testuinguru horretan bere burua baliatzeko egindako ahalegina aintzatetsiz.
8.2 Emakumeek Arte garaikidean duten irudiaren eboluzioa kritikoki aztertzea, hainbat mugimendu, une eta kulturatako obra garrantzitsuen iruzkina eta analisi konparatiboa eginez, elementu teknikoetan, formaletan eta estilistikoetan oinarrituta, erabilitako Arte-mintzaira edozein dela ere.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Kultura eta Arte Mugimenduak
A. Mundu artistiko garaikideari hurbilketa.
1. Artearen eta Kulturaren definizioei buruzko eztabaida eta askotariko erantzunak. Artearen kontzeptua Historian zehar: arte-adierazpenen kontsiderazioa eta funtzioak.*
2. Arte-mintzairak komunikazio-modu gisa. Kodeen eta hizkuntzen aniztasuna Artean. Subjektibotasuna sormenean eta judizio estetikoan.*
3. Artearen terminologia eta hiztegi espezifikoa: arkitektura, eskultura, pintura, literatura, zinema, musika, argazkilaritza, komikigintza, publizitatea, arte eszenikoak, diseinua eta moda.*
4. Sorkuntza artistikoak aztertzeko —elementu teknikoak, formalak eta estilistikoak— eta obren esanahia, identifikazioa, testuingurua eta garrantzia aztertzeko tresnak.*
5. Eraginak, jarraitutasunak eta hausturak egungo kultur munduan.*
6. Artelanak eta egiletza-eskubideak.*

Kultura eta Arte Mugimenduak
7. Arte Garaikidearen aurrekariak: Abangoardietatik Arte Popa edo *Pop art*-era.* Abangoardien manifestu artistiko eta kulturalak eta Arte Garaikidearen oinarri teorikoaren jatorriak.* *Op art* edo Zinetismoa, *Happening*, Arte kontzeptuala, *Performance*a, Hiperrealismoa eta Minimalismoa zer diren.
8. Oraintsuko eta egungo espazio artistikoa, pentsamendu-esparru gisa. Arte-adierazpenen kontzeptu berriak edo Artearen poetikak eta gatazkak espazio publiko gisa: Artearen despolitizazio-prozesutik memoria kolektiboaren, aldarrikapen feministen eta abarren azterketa kritikora. Bauman-en *pentsamendu likidoa*.*
B. Arkitektura eta hirigintza.
1. Arkitektura eta gizartea: definizioa eta pentsamendu-korronteak XX. mendean eta gaur egun.*
2. Burdinaren eta kristalaren arkitektura. Jatorriak, ezaugarriak, testuingurua, arkitektoak eta obra garrantzitsuak.*
3. Arkitektura Arte Garaikidean. Geometria arkitektura. Definizioa, testuingurua, ezaugarriak eta obra garrantzitsuak: Arrazionalismotik edo Nazioarteko Estilotik (adibideak: Lloyd Wright, Le Corbusier, van der Rohe, Gropius, Niemeyer…) arkitekto modernoen hirugarren belaunaldira (Philip Drew). Postmodernitatearen eta goi-mailako teknologiako arkitekturaren planteamendutik kontzeptu- eta adierazpen-estiloetara.* (Adibideak Euskal Herrian: Frank Gehry, Norman Foster, Santiago Calatrava, Rafael Moneo eta Arata Isozaki).
4. Ekintza eta esku-hartze artistikoak hiri-espazioan eta hirigintza-proiektuetan. Definizioa, testuingurua, ezaugarriak eta obra garrantzitsuak.* (Bilboko adibide bat (2001): koloretako 175 behi). Hiri adimendunak.
5. Arkitektura eta hirigintza Euskal Herrian.* (Proposamenak: Artzain Onaren Katedrala, Bizkaiko Foru aldundiaren jauregia, Gasteizko Arte ederren museoa, euskal hiriburuetako zabalguneak. Donostiako Club nautikoa, Arantzazuko Santutegia, Donostiako Kursaala).
C. Natura, Artea eta Kultura.
1. *Plein air* inpresionistatik natura argazkilaritzara. Testuinguru soziopolitikoa, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.*
2. *Arte povera* italiarra. Testuinguru soziopolitikoa, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.* (Adibideak: Giovanni Anselmo —*Jaten duen egitura*—, Michelangelo Pistoletto —*Trapuen Venusa*—...).
3. Ingurumen-artea edo *Environmental art* eta *Land art*. Artea eta natura Espainian. Testuinguru soziopolitikoa, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.* (Adibideak: Robert Smithson —*Spiral Getty*—, Walter de Maria —*Tximisten eremua*—...)
4. Arteak kontzientzia ekologikoari egiten dion ekarpena. Arte ekologikoa. Testuinguru soziopolitikoa, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.*
D. Artea Artearen barruan.
1. Arte primitiboa, Ekialdekoa, Kolonaurrekoa eta afrikarra. Abangoardien inspirazio-iturri gisa duen papera.
2. Marcel Duchamp-en *ready-made* delakotik Herri Kultura eta *Pop art*-era. Pop artea Espainian. Testuinguru soziopolitikoa, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.*
3. Diziplinarteko harremanak: Literatura, Zinema, Musika, Argazkilaritza, Arte plastikoak, Komikigintza, Publizitatea, Arte eszenikoak, Diseinua eta Moda.
4. Horma-artea eta Ilusio optikoen artea (*Trompe l'oeil*). Arte hiritarra: Testuinguru soziopolitikoa, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.* (Adibidea: Banksy fenomenoa).
5. Argazkilaritza eta pintura. Elkarrekiko eraginak. Kutxa beltza edo Ganbera ilunetik mundu digitalera.*
6. Poesia, Literatura eta Artea. Poema bisualak (Kaligramak). Kubismo literariotik, Kreazionismotik eta Ultraismotik egungo adibideetara. Testuinguru soziopolitikoa, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.*
7. Zientzia fikzioa eta bere erreferenteak.
8. Giza gorputza arakatzen. *Happening* eta *Performance* (DADA eta Ekintza-artetik XXI. mendera), *Body art* eta Hiperrealismoko obren jatorriak, testuinguru soziopolitikoak, oinarri teorikoak, ezaugarriak, gaiak, artistak eta adibideak.*
9. XIX. eta XX. mendeetako artea Euskal Herrian.* (Adibideak: Adolfo Guiard, Arteta, Iturrino, Oteiza, Chillida, Agustín Ibarrola eta José Ibarrola. Euskal pintura eta eskultura berria: Ruiz Balerdi, Zumeta, Dora Salazar, Txomin Badiola, Jose Ibarrola, Cristina Iglesias, Juan Luis Moraza…).
E. Garaikideko Arte-mintzairak.
1. Dekorazio-arteetatik industria-diseinura. Definizioa, jatorriak, testuinguru soziopolitikoak, oinarri ekonomikoa, ezaugarriak, gaiak, artistak eta obren adibideak.*

Kultura eta Arte Mugimenduak
2. Artean erabilitako baliabide elektroniko, informatiko eta digitalak. Bideoartea. Bideo-jokotik multibertsoaren narratibara edo errealitate birtual alternatiboetara.*
3. Artea giroaren sortzaile izatetik, Arte Immersibo eta Interaktibora, Parisko *Atelier des Lumières*-en eta Bartzelonako Moco Museum-en adibideekin.*
4. Narratiba serialaren eztanda XXI. mendeko ikus-entzunezkoan.
F. Kultura- eta arte-ekitaldiak.
1. Instalazioak. Museoak, arte-zentroak eta interpretazio-zentroak: funtzioak, desberdintasunak, antzekotasunak eta adibideak.*
2. Parisko independenteen azoka: Redon, Seurat eta Signac-etik *Salon d 'Automne*ra. Parisko Azoka XXI. mendean.
3. Arte garaikideko museoak* (Adibideak: MoMA, Centre Georges Pompidou, Tate Modern, Museo nacional centro de arte Reina Sofía, Guggenheim Bilbao museoa, MACBA eta MUSAC). Biurtekoak eta nazioko eta nazioarteko arte-azokak. Artearen merkatua.
4. Ilustrazio- eta komiki-azoka nazionalak eta nazioartekoak.* (Adibideak: Ilustrísima, Madril; Irudika, Vitoria-Gasteiz; Utopía markets, Bartzelona; Animayo, Kanaria Handia; International graphic novel & comics).
5. Zinema, musika eta dantza garaikidea: testuinguru soziopolitikoa, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.* Nazioarteko eta nazioko jaialdiak. (Adibideak: Venezia, Cannes, Sundance, Berlin, Donostia, Sitges, Emakumeek egindako Nazioarteko zinema erakusketa, Zaragoza- eta SEMINCI; Glastonbury, Coachella, Lollapalooza, Reading, Leeds, Primavera sound, Wacken open air, Rock in Rio, Tomorrowland, Azkena rock festibala, Bilbao BBK Live, Primavera sound, DNA /NDG - Nafarroako dantza garaikidea…).
6. Erakusketa unibertsalak 1851tik gaur egun arte: jatorria, eboluzioa eta hasierako zein gaur egungo helburuak.
7. Arteak kirol-ekitaldietan.
8. Kultura-turismoarekin lotutako hiri-marketineko estrategiak.
9. Kultura- eta arte-estereotipoak. Artearen funtzio soziala. Artea ala negozioa? Genero-ikuspegia artean.*

MATEMATIKA OROKORRA

Egungo munduaren garapen zorabiagarriaren ondorioz, behar-beharrezkoa da ikasleek errealitatea analizatzeko eta interpretatzeko gaitasuna edukitzea, ziurgabetasunez betetako baldintza horietara egokitu ahal izateko, eta, gainera, beren kabuz ikasteko behar diren konpetentziak edukitzea. Horiek horrela, matematikak funtsezko egitekoa betetzen du ezagutza-alor ugaritako fenomenoak —sozialak, hezkuntzakoak, zientifikoak, ekonomikoak eta abar— modelizatzeko, analizatzeko eta ulertzeko. Konpetentzia matematikoek barnean hartzen dituzte, ideia eta elementu matematikoez gain, testuinguru ez-matematikoetara estrapola daitezkeen problemak ebazteko trebetasunak, arrazoibide matematikoari dagozkionak eta komunikaziokoak.

Matematika Orokorra nahitaezko jakintzagaia da batxilergoaren modalitate orokorraren barruan, eta etapako helburu orokorrak lortzen laguntzen du. Eginkizun horretan, arreta berezia emango zaio ikasleek etapa amaitzean lortu behar dituzten batxilergoko deskriptore operatiboetan kontzeptualizatutako funtsezko konpetentziak garatzeari eta eskuratzeari. Modalitate horretan, ezagutza matematikoak helburu izan behar du hainbat testuinguru errealetan egoera problematikoak interpretatzeko eta analizatzeko matematika aplikatzea, ikasleek erraztasunak izan ditzaten XXI. mendeko desafioei herritar informatu eta konprometitu gisa aurre egiteko.

Jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak artikulatzen dituzten funtsezko ardatzak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumari jarraikiz, problemen ebazpena eta informazioaren analisia eta interpretazioa dira. Horrez gain, arrazoibide matematikoa, konexioen ezarpena (arreta berezia emanez, jakintzagai honetan, hainbat testuinguru ez-matematikori eta beste jakintzagai batzuekiko eta errealitatearekiko erlazioari) eta irudikapen eta komunikazio matematikoa jorratzen dira.

Ikasle guztiek oinarrizko kontzeptu eta erlazio matematikoak erabiltzeaz gain, matematikaren edertasuna eta erabilgarritasuna esperimentatzeko aukera izango dutela ziurtatzeko, gizartean oso errotuta dauden aldez aurreko ideiak eta estereotipoak baztertuz, matematikaren alderdi pertsonalarekin, sozialarekin eta emozionalarekin erlazionatutako konpetentzia espezifiko bat sartu da.

Konpetentzia espezifiko horiek funtsezko konpetentzien deskriptore operatiboak eskuratzen laguntzeko prestatu dira. Problemen interpretazioa eta prozeduren eta emaitzen komunikazioa hizkuntza-komunikaziorako konpetentziarekin eta konpetentzia eleaniztunarekin erlazionatuta daude. Ekimenaren eta ekintzailetzaren zentzua, etengabe berrikusten eta aldatzen ari den lan-plan bat ezartzean, ekintzailetza-konpetentziari lotzen zaio. Erabakiak hartzea edo ziurgabetasun-egoeren aurrean egokitzea konpetentzia pertsonalaren, sozialaren eta ikasten ikastekoaren berezko osagaiak dira. Informazioa tratatzeko eta problemak ebazteko teknologia digitala modu kritiko eta arduratsuan erabiltzea zuzenean uztartzen da konpetentzia digitalarekin. Arrazoibidea, argudiatzea, modelizazioa eta pentsamendu konputazionala STEM konpetentziaren elementu bereizgarriak dira. Matematikaren eta beste ezagutza-arlo batzuen eta problemak gizarte-testuinguruetan ebaztearen artean ezarritako konexioak herritartasunerako konpetentziarekin erlazionatuta daude. Azkenik, ezagutza matematiko berak, kulturaren adierazpen unibertsal gisa eta edertasunaren edo harmoniaren bilaketan laguntzen duen heinean, kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia bultzatzen du.

Problemen ebazpenetik abiatuta, ikasgelan landu ez diren testuinguruei aplika dakizkiekeen arrazoibide eta irudikapen matematikorako estrategiak eskaini behar dira. Ekonomia, ingurumen-oreka, zientzia, osasuna edo teknologia bezalako arloek formulatutako problemen testuinguruak aberasteko balio behar dute. Baina horiek ere itxuraz matematikatik urrutiago dauden arloen testuinguruak hartu behar dituzte oinarri: hizkuntzalaritzak, geografiak edo ikerketa historikoak ere haiek aberasteko iturri izan behar dute. Bestalde, ez dira ahaztu behar testuinguru pertsonalak eta lanekoak, hala nola finantza pertsonalekin erlazionatutako problemak edo fakturetan edo publizitate-liburuxketako zenbakizko informazio konplexuaren interpretazioa. Garrantzitsua da matematikak beste jakintzagai batzuekin dituen loturak arakatzea eta analizatzea, kontzeptu eta pentsamendu matematikoari zentzua emateko.

Formulatutako ebaluazio-irizpideak konpetentzia espezifikoak zenbateraino eskuratzen diren ebaluatzera bideratzen dira. Horrek gidatu behar du irakasteko eta ikasteko prozesua, konpetentziak abian jartzera bidera dadin, kontzeptuak buruz ikastea edo prozedurak errutinaz erreproduzitzea baloratu beharrean, ikaskuntzak zentzua izan dezan eta benetan esanguratsua izan dadin. Konpetentzia espezifikoak oinarrizko hainbat jakintzaren mobilizaziotik abiatuta ebaluatu ahal izango dira. Jakintza horiek aurreko etapetan matematikako arlo eta jakintzagaien curriculumerako zehaztu diren multzoetan banatu dira, eta, horrela, koherentzia eman zaio curriculum osoari. Oinarrizko jakintzak zenbait zentzutan taldekatu dira, matematikaren esparruekin erlazionatutako trebetasunen multzo gisa: zentzu numerikoa, metrikoa, aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala, zentzu espaziala, estokastikoa eta sozioafektiboa.

Zentzu matematikoa da eduki matematikoak modu funtzionalean eta norberaren trebetasunetan konfiantza izanik testuinguruan menderatzearekin lotutako gaitasunen multzoa. Hori dela eta, matematikaren konpetentzia-irakaskuntza planteatzen da, testuinguruan problemak edo atazak ebazteko kontzeptuak nagusitu eta haiei zentzua emateko, testuingurutik kanpoko egoeretan trebetasunak edo algoritmoak ikasi beharrean. Hala, zentzu matematikoa izan eta garatu behar da matematikoki konpetentziadun izatera iristeko.

Zentzu numerikoan zenbakiaren maneiua eta ulermena finkatzen da, kontaketa-teknika konplexuagoetan aurrera egiten da, eta, aldi berean, hainbat testuinguru sozial eta zientifikotan (tasak, gehikuntzak eta abar) dagoen zenbakizko informazioaren ulermenean sakontzen da.

Neurriaren zentzuan zenbait testuingurutako magnitudeen eta aldaketaren azterketan eta analisian sakontzen da.

Zentzu espazialean planoko irudikapen espazialeko estrategiak eta grafoen teoria —problemak hainbat testuingurutan bistaratzeko eta modelizatzeko aplikazio garrantzitsuak dituen tresna— analizatzen dira.

Zentzu aljebraikoan ekuazioen eta funtzioen bidez tresna teknologikoen laguntzarekin modeliza daitezkeen egoera eta fenomenoei buruz ikertzen da.

Zentzu estokastikoan datuak analizatzeko eta interpretatzeko eta ziurgabetasuna eta ausazko fenomenoen modelizazioa maneiatzeko trebetasunak finkatzen dira.

Azkenik, zentzu sozioafektiboari dagozkion jakintzak beste zentzuei dagozkionekin integratuta tratatu behar dira, bereziki interesgarria baita batxilergoko modalitate orokorreko ikasketak egiten dituzten ikasleentzat. Talde-lana bultzatu behar da, aniztasuna onartuz eta inklusioa, tolerantzia eta diskriminaziorik eza errespetatzen dituzten jarrerak sustatuz. Erroreetatik ikasten ikastea eta frustrazioarekiko tolerantzia garatzea bereziki garrantzitsuak dira hezkuntza-etapa honetan.

Konpetentzia espezifikoen eskuratzeak eta oinarrizko jakintzen garapenak matematika egiteko modu berriak kontuan hartu behar dituzte. Tresna teknologikoek gaur egun betetzen duten eginkizuna eta gero eta ahalmen handiagoko gailuen eskuragarritasuna matematikako prozedurak aldatzen ari dira. Eskuzko soluzioko metodo sofistikatuen beharra zuten prozesuak eta eragiketak gaur egun erraz egin daitezke kalkulagailuak, kalkulu-orriak, geometria dinamikoko programak eta beste tresna digital batzuk erabilita. Aukera horri esker, jakintzagaiaren kontzeptuak eta oinarrizko jarrerak finkatzea eta egoerak interpretatzeko eta analizatzeko matematikaren erabileran sakontzea har ditzake ardatz irakaskuntzak. Ildo horretan, ikaskuntza, lehentasunez, fenomenoak interpretatu eta analizatzera eta arrazoibide matematikoa eskuratzera bideratu behar da, buruz eta errutinaz ikasteko jardunbideak alde batera utziz.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Eguneroko bizitzako eta hainbat esparrutako problemak modelizatzea eta ebaztea, zenbait estrategia eta arrazoibide aplikatuz, tresna teknologikoen laguntzarekin, soluzio posibleak lortzeko.

Problemen ebazpena eta modelizazioa matematika ikasteko funtsezko ardatza dira, ezagutza matematikoa eraikitzeko prozesu nagusiak dira-eta. Problemak hainbat testuingurutan modelizatzeak eta ebazteak ikasteko prozesua motiba dezake eta oinarri kognitibo sendoak ezar ditzake, kontzeptu matematikoak eraiki ahal izateko eta matematika eguneroko bizitzako eta esparru pertsonaleko, laneko eta esparru sozialeko egoerak deskribatzeko, analizatzeko eta areagotzeko tresna gisa esperimentatu ahal izateko.

Matematika Orokorra batxilergoko lehen mailan bakarrik irakasten dela kontuan harturik, konpetentzia honen garapenak garrantzi handiagoa hartzen du eta ezinbestekotzat jotzen da ezagutza matematiko funtzionala eta iraunkorra eskuratzeko. Horretarako, honako prozesu hauek landu beharko ditugu: problema formulatzea, datuak eta horien arteko erlazioak bilatzea, hizkuntza matematikoan kodetzea, eredu abstraktuak sortzea eta estrategia heuristikoak erabiltzea, hala nola beste problema batzuekiko analogia, zenbatespena, saiakuntza eta errorea, alderantzizko ebazpena eta problema errazagoetan deskonposatzea.

Problemak ebazteko tresna digitalak eta konputazionalak erabiltzeak, alde batetik, zenbait ebazpen-estrategia praktikan jartzea eta egokiena edo egokienak hautatzea errazten du, eta, bestetik, jatorrizko probleman esplizitu ez zeuden beste erlazio batzuk identifikatzeko eta arakatzeko eta matematikaren, zientziaren eta teknologiaren esparruetan ikerketa-bide berriak irekitzeko aukera eskaintzen du.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD2, KD5, KPSII4, KPSII5, EK3.

2. Problema baten soluzio posibleen baliozkotasuna egiaztatzea, arrazoibidea eta argudiatzea erabiliz, haien egokitasuna kontrastatzeko.

Egoera problematizatu baten ebazpenean lortutako soluzioen analisiak eta interpretazioak gogoeta kritikoa, arrazoibidea eta argudiatzea indartzen ditu. Lortutako soluzioak eta ondorioak zenbait ikuspegi

kontuan hartuta —iraunkortasuna, kontsumo arduratsua, ekitatea edo diskriminaziorik eza, besteak beste— interpretatzeak erabaki arrazoituak hartzen, estrategiak ebaluatzen eta modu eraginkorrean komunikatzen laguntzen du.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakartza metakognizioaren berezko gogoeta-prozesuak, hala nola autoebaluazioa eta koebaluazioa, tresna digitalak eraginkortasunez erabiltzea, prozesua hitzez adieraztea edo azaltzea, eta soluzioak egiaztatzeko metodoen edo soluzioak baliozkotzeko estrategien artean hautatzea, eta horien irismena interpretatzea, aieru eta problema berriak planteatzeko aukera irekiz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD2,KD3,KPSII4, HK3, EK3.

3. Matematikari buruzko galderak sortzea, jakintza eta estrategia ezagunak aplikatuz, eguneroko bizitzako egoerei erantzuteko.

Eduki matematikoa duten galderak sortzea matematikako curriculumaren beste osagai garrantzitsu eta esanguratsu bat da eta zeregin matematikoaren funtsezko partetzat hartzen da. Egoera problematizatu bati, datu multzo bati edo ebatzitako problema bati buruzko eduki matematikoa duten galderak sortzeak egoera jakin bat arakatzeko problema berriak sortzea eskatzen du, baita hura ebazteko prozesuan zehar problema hori berriz formulatzea ere.

Konpetentzia honen garapenak pentsamendu askotarikoagoa, kritikoagoa, malguagoa eta independenteagoa susta dezake, problemak zenbait testuingurutan ebazteko eta egoera zehatzen eta abstrakzio matematikoen arteko zubiak ezartzeko trebetasuna hobe dezake, matematikaren pertzepzioa areagotu dezake, eta kontzeptuak aberastu eta finkatu ditzake. Ikasleek galderak sortzen dituztenean arrazoibidea eta gogoeta hobetzen dituzte, beren ezagutza eraikitzen duten aldi berean. Horrek konpromiso eta jakin-min handia ekartzen du, baita matematika ikasteko prozesuarekiko gogoberotasuna piztu ere. Prozesu horretan, errorea bere gain hartzeak eta ikasteko aukera bihurtzeak ezagutza berriak eskuratzeko eta integratzeko aukera berriak zabaltzen ditu.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, STEM2, KD1, KD2, KD5, EK3.

4. Pentsamendu konputazionala eraginkortasunez erabiltzea eguneroko bizitzako egoerak modelizatzeko eta ebazteko, algoritmoak aldatuz edo sortuz.

Pentsamendu konputazionala zuzenean uztartzen da problemen ebazpenarekin eta prozeduren planteamenduarekin; abstrakzioa erabiltzen du alderdi garrantzitsuenak identifikatzeko, patroiak ezagutzeko, zeregin sinpleagoetan deskonposatzeko eta algoritmoak definitzeko, sistema informatiko batek egikaritu dezakeen problemaren soluzio batera iristeko helburuarekin. Pentsamendu konputazionala eguneroko bizitzara eta zientziaren eta teknologiaren esparrura eramateak informatikaren funtsezko alderdiak ikasleen modelaketa eta simulaziorako beharrekin lotzea dakar. Horretarako, beharrezkotzat jotzen da matematika programazioarekin konektatzea, tresna hori zuzenean erlazionatuta baitago problemak testuinguru matematikoan eta ez-matematikoan ebaztearekin.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar eguneroko egoeren eta ezagutzaren zenbait esparrutakoen eredu abstraktuak sortzea, horiek automatizatu eta modelizatzea, eta sistema informatiko batek erraz interpretatzeko moduko lengoaia batean kodetzea.

Pentsamendu konputazional horrek, ikasgelako lanerako baliabide teknologikoak egoki hautatzearekin batera, problemen ebazpenari aplikatutako ezagutza matematikoan sakontzeko aukera emango dio ikasleari.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD2, KD3, KD5, EK3.

5. Ideia matematikoen arteko konexioak ezagutzea eta erabiltzea, kontzeptu eta prozeduren arteko loturak ezarriz, errealitatearen ikuskera matematiko integratua sortzeko.

Ideia matematikoen arteko konexioak ezartzeak sakonago ulertzen laguntzen du arazo beraren zenbait ikuspegik nola sor ditzaketen emaitza baliokideak. Ikasleek testuinguru batetik datozen ideiak erabil ditzake beste testuinguru batean sortutako aieruak frogatzeko edo ezeztatzeko, eta, ideia matematikoak konektatzean, problemen ulermen handiagoa gara dezakete. Matematika osotasun gisa ulertzeak berekin dakar haren barne-konexioak aztertzea eta maila bereko zein hezkuntza-etapa desberdinetako jakintza multzoen artean dauden erlazioei buruz gogoeta egitea.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar ideia matematiko berriak aurretiko ideiekin lotzea, problemen ebazpenean ideia matematikoen arteko loturak ezagutzea eta erabiltzea, eta osotasun integratu bat osatzeko ideia batzuk beste batzuen gainean nola eraikitzen diren ulertzea.

Konexioak egiteko eta erlazioak ezartzeko gaitasuna matematikaren ulermen-mailaren adierazle ona da, eta zuzenean erlazionatzen da egiten jakitearekin.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM3, KD2, KD3, KKAK1.

6. Loturak deskubritzea eta matematikak beste ezagutza-arlo batzuekin dituen erlazioetan sakontzea, kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotuz, bizitza errealeko hainbat egoeratan problemak ebazteko.

Erlazioak behatzea eta konexio matematikoak ezartzea zeregin matematikoaren funtsezko alderdi bat da. Ikasleek beren ezagutzak, irudikapen multzo zabala erabiltzeko trebetasuna eta teknologiarako sarbidea areagotzen dituztenean, beste ezagutza-arlo batzuekiko konexioek, bereziki teknikarekin eta gizarte-zientziekin daudenek, ahalmen matematiko handia ematen diete. Matematikaren eta beste ezagutza-arlo batzuen arteko lotura ez litzateke jakintza kontzeptualetara mugatu behar; aitzitik, prozeduretara eta jarreretara zabaldu beharko litzateke, prozedura eta jarrera matematikoak beste jakintzagai eta testuinguru batzuetara transferitu eta aplikatu ahal izateko.

Konpetentzia honen garapenak garrantzi handia hartzen du. Izan ere, ideia, kontzeptu eta prozedura matematikoen arteko konexioak sustatzeaz gain, suspertu egiten du, alde batetik, beste ezagutza-arlo batzuekin batera lan egitea, hala nola teknologiarekin, humanitateekin, arteekin eta gizarte-zientziekin oro har, eta, bestetik, ingurunearekin lotura estuak ezartzea, gure egunetako hezkuntzaren behar eta erronkei erantzuteko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD3, KD5, HK4, EK2, EK3, KAKK1.

7. Fenomeno eta egoera arruntak kontzeptu eta prozesu matematikoen bidez irudikatzea, zenbait teknologia hautatuz, ideiak bistaratzeko eta arrazoibideak egituratzeko.

Ideia, kontzeptu eta prozedura matematikoen irudikapenek arrazoibidea eta argudiatzea errazten dituzte, erlazioak aztertzeko eta erantzunen baliozkotasuna kontrastatzeko erabiltzen dira, modu naturalean daude gizarte-zientzietan eta teknologia digitaletan, eta komunikazio matematikoaren erdigunean daude.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar irudikapen matematikoen errepertorioa handitzea eta irudikapen horiek modu eraginkorrean erabiltzeari buruzko ezagutza areagotzea, objektu beren irudikapen desberdinek informazio desberdinak nola transmiti ditzaketen azpimarratuz eta zereginerako irudikapen egokiak hautatzearen garrantzia erakutsiz.

Zenbait entitateren irudikapenak objektu matematikoak irudikatzeko zenbait modu —krokisak, diagramak, eskemak, taulak, grafikoak…— ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna dakar berekin.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, STEM4, KD1, KD2, KD5, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

8. Ideia matematikoak modu indibidual eta kolektiboan komunikatzea, euskarri, terminologia eta zorroztasun egokiak erabiliz, pentsamendu matematikoa antolatzeko eta finkatzeko.

Informazioaren gizartean, egunetik egunera nabarmenagoa da komunikazio garbia eta egiazkoa izateko premia, bai ahoz bai idatziz. Besteekin interakzioan jarduteak ideiak trukatzeko eta horiei buruz gogoeta egiteko aukera eskaintzen du, kolaboratzeko, kooperatzeko eta ezagutza berriak sortzeko eta finkatzeko, eta horrek komunikazioa ezinbesteko elementu bihurtzen du matematikaren ikaskuntzan.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar gertaerak, ideiak, kontzeptuak eta prozedurak hitzez eta grafikoki adieraztea, egiazki eta egoki, terminologia matematiko egokia erabiliz, ideiei esanahia eta iraunkortasuna emateko eta argitara emateko.

Hala ulertutako komunikazioak pentsamendu matematikoa estimulatzen du, partikularizatzeko, orokortzeko, susmatzeko eta argudiatzeko prozesuen bitartez. Horregatik, beharrezkoa da ikasleei problemak ebazteko, beste problema batzuk planteatzeko, aieruak eraikitzeko, analizatzeko, argudiatzeko, zalantzan jartzeko eta eztabaidatzeko espazioak eskaintzea.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, KE1, STEM2, STEM4, KD2, KD3, KAKK3.2.

9. Trebetasun pertsonalak zein sozialak garatzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, errorea eta ziurgabetasuna onartuz, harreman osasungarriak sortuz eta talde heterogeneoetan proiektuetan aktiboki eta gogoetatsu parte hartuz, matematikaren ikaskuntzan helburuen lorpena hobetzeko.

Matematikak esku hartzen duen problemak edo erronka globalagoak ebaztea emozio ugari inplikatzen dituen desafioa izaten da maiz, eta ikasleek emozio horiek behar bezala kudeatzea komeni da. Matematikaren ikaskuntzaren barruan trebetasun emozionalek ikasleen ongizatea, erregulazio emozionala eta hura ikasteko interesa sustatzen dituzte.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar matematika ikasteko prozesuan emozioak identifikatzea eta kudeatzea, estres-iturriak ezagutzea, helburuen lorpenean jarraikia izatea, modu kritiko eta sortzailean pentsatzea, erresilientzia sortzea eta erronka matematiko berrien aurrean jarrera proaktiboa edukitzea.

Errorea onartu egin behar da eta ikasgelako dinamikari txertatu behar zaio, eta ez beti zigortzeko modukoa izan; askotan prozesuak optimizatzeko palanka bat izaten da eta adierazteko erraztasunak eman behar dira ikaskuntzan aurrera egitea bultzatzeko. Testuinguru horretan, pertsona bakoitzaren erritmoak eta trebetasunak errespetatzen dituen ekosistema izan behar du ikasgelak, konpetentziak lortzea errazteari begira.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM5, KPSII1.1, KPSII.1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, HK2, HK3, EK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Matematika Orokorra
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Datu garrantzitsuenak eta horien arteko erlazioak identifikatzea, pentsamendu heuristikoa aktibatuko duten eta ebazpen-prozesua planifikatzen eta jorratzen lagunduko duten eskema, grafiko, diagrama, marrazki, taula eta baliabide digitalen bidez antolatuz informazioa.
1.2 Eguneroko bizitzako eta hainbat esparrutako problemak modelizatzean eta ebaztean zenbait estrategia —hala nola zenbatespena, saiakuntza eta errorea edo problema errazagoetan deskonposatzea— eta tresna —digitalak barne— erabiltzea, efizientziaren arabera egokienak direnak erabiliz.
1.3 Eguneroko bizitzako eta hainbat esparrutako problemen zenbait soluzio lortzea, ebazpen-faseei jarraikiz eta erabilitako prozedura deskribatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1 Problema baten ebazpenean lortutako soluzioen baliozkotasun matematikoa egiaztatzea, arrazoibidea eta argudiatzea erabiliz.

Matematika Orokorra
2.2 Problema baten soluziorik egokiena hautatzea, haren bidezkotasuna aztertuz testuinguru sozialaren ezaugarrien arabera (iraunkortasuna, ekitatea…).
3. konpetentzia espezifikoa
3.1 Ezagutza matematiko berria modu gidatuan eskuratzea, galderak eta aieruak formulatzea eta taldean eztabaidatzea abiapuntu hartuz.
3.2 Galderak edo problemak formulatzean edo ikertzean tresna teknologiko egokiak erabiltzea.
3.3 Galderen edo problemen planteamenduan errorea ezagutzea, matematika ikastean aurrera egiteko modu bat dela ulertuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1 Eguneroko bizitzako eta testuinguru tekniko eta sozialetako egoerak identifikatzea, modelizatzea eta ebaztea, pentsamendu konputazionala erabiliz, eta algoritmoak aldatuz eta sortuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1 Ikuskera matematiko integratua adieraztea, problemak ebatziz, erlazioak arakatuz eta zenbait ideia eta elementu matematikoren artean konexioak aplikatuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1 Problemak zenbait egoeratan ebaztea, prozesu matematikoak erabiliz, eta hainbat konexio ezarriz eta aplikatuz mundu errealaren eta ezagutza tekniko eta sozialeko beste ezagutza-arlo batzuen eta matematikaren artean.
6.2 Matematikak gizateriaren aurrerabideari egindako ekarpena eta egoera konplexuetarako eta gizartean planteatzen diren erronketarako soluzioen proposamenean egindako kontribuzioa ezagutzea.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1 Ideia matematikoak irudikatzea, pentsamendu eta arrazoibide matematikoen prozesuak egituratuz eta teknologiarik egokienak hautatuz.
7.2 Morroiekin eta simulagailuekin irudikatzeko zein interakzioan jarduteko hainbat modu hautatzea eta erabiltzea, informazioa partekatzeko erabilgarritasuna baloratuz.
8. konpetentzia espezifikoa
8.1 Hizkuntza matematikoa zenbait testuinguru eta euskarritan ezagutzea, interpretatzea eta erabiltzea, ezagutza berria sortzeko eta finkatzeko bide gisa.
8.2 Ideia matematikoak modu antolatu eta egituratuan komunikatzea eta argudiatzea, euskarri, terminologia eta zorroztasun egokiak erabiliz eta jarraitutako prozesuei buruz gogoeta eginez.
9. konpetentzia espezifikoa
9.1 Ziurgabetasun-egoeretan helburuak lortzen jarraikia izatea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, eta errorea ikasteko prozesuaren parte gisa erabiliz.
9.2 Erronken aurrean motibazio positiboa eta zoritxarraren aurrean adorea erakustea, kritika arrazoitua onartuz eta hortik ikasiz matematika ikasteko egoerei aurre egitean.
9.3 Talde heterogeneoetan zeregin matematikoetan aktiboki parte hartzea eta gizarte-trebetasunik egokienak identifikatzea, besteen emozio eta esperientziei babesa emanez, haien arrazoibideak entzunez, esleitutako rolaren bitartez taldeari ekarpenak eginez, eta taldearen ongizatea eta harreman osasungarriak sustatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Matematika Orokorra	
A. Zentzu numerikoa	
1. Zenbaketa	Elementuaren, multzoaren eta multzo baten kardinalaren kontzeptuen ulermena. Multzoekin egindako eragiketen aplikazio egokia.
	Multzo finituen kardinala zenbatzeko erregela eta estrategien erabilera, eguneroko bizitzako problemak ebazteko: konparazioaren, batuketaren, biderketaren eta zatiketaren printzipioak, usategiaren printzipioa, inklusioaren/esklusioaren printzipioa.

Matematika Orokorra	
2. Eragiketen zentzua	Eguneroko bizitzako dokumentuetan —finantza-dokumentuak, fakturak, aurrekontu pertsonalak, nominak, aseguruak eta abar— eragiketa konbinatuak eta ehunekoak barne hartzen dituen zenbakizko informazioaren interpretazioa eta aplikazioa.
	Tresna teknologikoak eta digitalak zenbakizko problemen ebazpenean
3. Finantza-hezkuntza	Arrazoien, proportzioen, ehunekoen, tasen (batekoa, ehunekoa, milakoa…), zergen eta gehikuntza absolutu eta erlatiboen arteko erlazioak, erlazio kuantitatiboak testuinguru errealetan irudikatzeko.
	Arrazoibide proportzionala finantza-problemen ebazpenean: interes-kobrantza duten ordainbideak, komisioak, kuotak, dibisa-trukeak eta abar.
B. Neurriaren zentzua	
1. Neurketa	Probabilitatea ausazko fenomenoekin lotutako ziurgabetasunaren neurri gisa.
2. Aldaketa	Aldakuntza absolutuaren eta batez besteko aldakuntza-tasaren azterketa.
	Deribatuaren kontzeptua, zenbait testuingurutako aldaketaren azterketatik abiatuta. Interpretazio geometrikoa. Tresna digitalekin egindako analisia.
C. Zentzu espaziala	
1. Lokalizazioa eta irudikapen-sistemak	Irudikapen-sistemak: koordenatu kartesiarrak, geografikoak…
2. Bistaratze, arrazoitze eta modelizazio geometrikoa	Eguneroko bizitzako egoeren irudikapena zenbait grafo motaren bidez: zuzendu gabeak, zuzenduak, planoak, haztatuak, zuhaitzak eta abar. Euler-en formula.
	Eguneroko problemen ebazpena grafoetako bide eta zirkuituen bidez: grafo eulertarrak eta hamiltondarrak, Euler-en teorema, grafoen kolorazioa, bitariko grafoak.
	Bide minimoaren problemaren ebazpena zenbait testuingurutan.
D. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala	
1. Patroiak	Patroiak eta erregulartasunak egoera errazetan: identifikazioa eta orokortzea.
2. Eredu matematikoa	Funtzio linealak, koadratikoak, arrazional errazak, esponentzialak, zatika jarraituak eta periodikoak: mundu errealeko egoeren (industria, zientziak, gizarte-zientziak…) modelizazioa tresna digitalen bidez.
	Ekuazioak, inekuazioak eta ekuazio-sistemak: hainbat testuingurutako egoeren modelizazioa eta ebazpena.
	Programazio lineala: mundu errealeko problemen modelizazioa eta ebazpena tresna digitalen bidez.
3. Erlazioak eta funtzioak	Funtzio polinomikoak, arrazional errazak, esponentzialak eta logaritmikoak: propietateen konparazioa eta ulermena.
4. Pentsamendu konputazionala	Eguneroko bizitzako eta zientziako eta teknologiako problemen formulazioa, analisia eta ebazpena, programa eta tresna egokiak erabiliz.
E. Zentzu estokastikoa	
1. Antolaketa eta datuen analisia	Informazio estatistikoaren interpretazioa eta analisia hainbat testuingurutan.
	Bi dimentsioko aldagai estatistikoak: baterako banaketa, bazter-banaketak eta baldintzazko banaketak. Mendekotasun funtzionalaren eta estatistikoaren analisia.
	Erregresio lineala eta koadratikoa: bi aldagai estatistikoren arteko erlazioa; doikuntzaren egokitasunaren analisi eta balorazio grafikoa.
	Korrelazio-koefizientea: interpretazioa, erlazio linealaren kuantifikazioa, fidagarritasunaren iragarpena eta balorazioa testuinguru teknikoetan, ekonomikoetan eta sozialetan.
	Korrelazioaren eta kausalitatearen arteko bereizketa.
	Tresna digitalak datu estatistikoen analisian eta irudikapenean.
2. Ziurgabetasuna	Probabilitatearen zenbatespena, maiztasun erlatiboaren kontzeptutik abiatuta eta ausazko fenomenoekin lotutako ziurgabetasunaren neurri gisa.

Matematika Orokorra	
	Probabilitate bakunen eta konposatuen kalkulua eguneroko bizitzako problemen ebazpenean. Laplace-ren erregela zenbait kontaketa-teknikarekin konbinatuta (zuhaitz-diagramak, konbinatoria-teknika errazak…). Probabilitate totalaren teorema.
	Baldintzazko probabilitatearekin erlazionatutako paradoxak eta falaziak. Ziurgabetasuna dakarten bizitza errealeko egoeretan argudio engainagarriak ezagutzeko eta oinarritutako eta argudiatutako erabakiak hartzeko estrategiak.
3. Probabilitate-banaketak	Probabilitate-banaketa uniformea, binomiala eta normala: banaketa horiek jarraitzen dituzten bizitza errealeko fenomenoen identifikazioa eta modelizazioa. Lotutako probabilitateen kalkulua tresna digitalen bidez.
4. Inferentzia	Lagin adierazgarrien hautaketa. Laginketa-teknika errazak. Zenbatespen baten baliozkotasunaren eztabaida, laginaren adierazgarritasunaren arabera.
	Hainbat testuingururekin erlazionatutako azterketa estatistikoen diseinua, tresna digitalak erabiliz. Lagin baten adierazgarritasuna.
F. Zentzu sozioemozionala	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak	Problemen ebazpenean zenbait aukera ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko oinarrizko trebetasunak.
	Problemen ebazpenean hainbat planteamendu ezagutzeko eta onartzeko estrategiak, besteen ikusmoldeak norberaren estrategia berri eta hobetu bihurtuz, prozesuan enpatia eta errespetua erakutsiz.
	Problemak eta zeregin matematikoak talde heterogeneo eta mistoetan ebazteko talde-laneko teknikak eta estrategiak, hala nola ikaskuntza kooperatiboa eta lidergo banatua.
2. Talde-lana eta erabakiak hartzea	Problemen eta zereginen ebazpenean aukerak ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko oinarrizko trebetasunak.
	Problemen ebazpenean hainbat planteamendu ezagutzeko eta onartzeko estrategiak, besteen ikusmoldeak norberaren estrategia berri eta hobetu bihurtuz, prozesuan enpatia eta errespetua erakutsiz.
	Problemak eta zeregin matematikoak talde heterogeneo eta mistoetan ebazteko talde-laneko teknikak eta estrategiak, hala nola ikaskuntza kooperatiboa eta lidergo banatua.
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna	Matematika ikasten arrakasta izateko gizarte- eta komunikazio-trebetasun eraginkorrak.
	Matematikak eta matematikariek historian zehar zientziaren eta teknologiaren analisian eta aurrerapenean izan duten ekarpenaren eta zereginaren balorazioa.
	Giza mugen onarpena, “zentzu sozioafektibo” honetan planteatutako helburu guztiak lortzeari begira, gure mugak eta gure erroreak onartuz eta erresilientziaz jokatuz haiek lortzen jarraitzeko.

ZIENTZIA OROKORRAK

Batxilergoko 2. mailako Zientzia Orokorrak jakintzagaiak ikasleei oinarrizko ikaskuntzak eskaintzen dizkie mundu naturaleko fenomenoak arautzen dituzten printzipio orokorrak ulertzeko funtsezkoak diren lau diziplina zientifikoetan. Jakintzagai honetara zientzietan aldez aurreko prestakuntza desberdinak dituzten ikasleak sartu ahal izango dira. Izan ere, jakintzagai honetako oinarrizko ikaskuntzak ikasle guztiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasi dituzten oinarrizko zientzietatik abiatuta eraikitzen dira, hortik aurrera sakonduz, Batxilergoko etapako berezko konpetentziak eta helburuak lortzeko.

Gaur egungo gizartean, prestakuntza zientifikoa edukitzeak gizabanakoari aukera ematen dio iritzi arrazoitu bat defendatzeko eztabaidagarriak izan daitezkeen eta egunerokotasunaren parte diren gertakarien aurrean. Horretarako, jakintzagai hau konpetentzia espezifikoetatik abiatzen da. Horiek, funtsezko konpetentziekin batera, helburu dute jakintzak, trebetasunak eta jarrerak ulertzea, azaltzea eta mobilizatzen jakitea, zientziaren egungo egoerarekin eta ondorioekin lotuta ez ezik, baita jarduera zientifikoaren pro-

zedurekin eta gizartean aurrera egiteko duen garrantziarekin, zientzian pertsonen arteko berdintasunezko tratuaren beharrarekin eta diziplina zientifiko guztien izaera sendo eta globalarekin ere.

Jakintzagaiaren izaera globalak sustatu egingo ditu egungo munduaren erronkekin eta garapen iraunkorreko helburuekin konprometitutako ikasleentzako ikaskuntzak, ikerketa lan-jarduera gisa indartuta, non zientzialariek diziplina zientifikoen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak erlazionatzen dituzten, beren ikasketak aberasteko eta, horrela, gizartearen aurrerabidean modu efizienteagoan laguntzeko.

Jakintzagai honetako konpetentzia espezifikoekin batera, ebaluazio-irizpideak daude. Irizpide horiek erreferenteak dira konpetentziak oinarrizko jakintzen bidez ebaluatzeko, hau da, gai zientifikoen aurrean espiritu kritikoa eskatzen duen gizarte batean moldatzeko ikasleek bereganatu behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ebaluatzeko.

Jakintzagaiaren oinarrizko ezagutzak bost multzotan daude egituratuta:

– **A multzoan** jarduera zientifiko orokorraren oinarrizko alderdiak jorratzen dira: fenomeno naturalak aztertzeko metodologia zientifikoen erabilera, esperimentazioa —beharrezko tresnak eta horien erabilera-arauak barne—, hizkuntza zientifikoaren eta dagozkion tresna matematikoen erabilera egokia, etab. Sarrerako multzo bat da, eta, modu teorikoan heltzen saiatu ordez, helburu du gainerako multzoetarako baliagarriak diren trebetasun praktikoak garatzea.

– **B multzoan** zientziaren funtsezko bi kontzeptu deskribatzen dira: materia eta energia. Kontzeptu horiek erraztasunez ezagutzea eta erabiltzea funtsezkoa da zientziaren ikasketa- eta lan-esparru guztietarako, hori baita sistema fisiko-kimikoen, biologikoen eta geologikoen ezagutzak eraikitzeko oinarria.

– **C multzoan** naturaren funtsezko indarrak eta horiek sistemetan dituzten eraginak lantzen dira. Berriz ere, zientziaren diziplina guztietarako funtsezko edukiak dira, eta ahalbidetu egiten dute oso alderdi garrantzitsuen azalpenak ematea, hala nola gorputzen mugimenduaren edo lurrazalaren deformazioen azalpenak.

– **D multzoan** Lurraren eta Lurreko sistemen azterketarako hurbilketa bat egiten da geologia planetarioaren, plaken tektonikaren eta geruza fluidoen dinamikaren ikuspuntutik. Gainera, ikasleak garapen iraunkorreko eredu bat hartu beharraz eta osasunaren sustapenaz kontzientziatzera bideratutako funtsezko alderdiak azpimarratzen dira.

– Azkenik, **E multzoan**, bioteknologiari eta horrek zenbait arlotako ikerketan duen garrantziari buruzko zenbait gai jorratzen dira. Arlo horien artean daude, besteak beste, gaixotasunak, nekazaritza eta abeltzaintzako teknikak edo ingurumena leheneratzea.

Curriculum honek eskaintzen dituen konpetentzia espezifikoek, ebaluazio-irizpideek eta jakintzek sustatu egiten dute ikerketa zientifikoaren berezko proiektuak eta diziplinarteko kooperazioa garatzea. Horrek izaera holistikoa eta integratua ematen dio zientziaren ikaskuntzari. Gainera, esanguratsutasuna aberasten du eta etorkizunari aurre egiteko prestatzen ditu ikasleak.

Zientzia Orokorrak curriculumak, zientzien garrantziaz kontzientziatzeko helburua izateaz gainera, zientziekin zuzenean lotuta ez dauden beste arlo profesional batzuk esploratu nahi dituzten ikasleei aukera emango die zientzien berezko ezagutzak eta ikaskuntzak eskuratzeko. Horiei esker, beren lan profesionalean ikuspegi zorrotza eta zehatza izango dute.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zientziaren berezko metodologiak aplikatzea, prozedura, material eta tresna egokiak zehaztasunez erabiliz, prozesu fisiko, kimiko, biologiko eta geologikoei buruzko galderei erantzuteko.

Oinarrizko alfabetatze zientifikoa lortzeko, ikasle bakoitzak ulertu behar du zein den komunitate zientifiko osoaren lan egiteko modua —fenomeno naturalen eta giza ekintzak sortutakoen azterketari dagokionez—, eta zein diren horretarako eskura dauden tresnak. Metodologia zientifikoak zientzian lan egiteko

funtsezko prozedurak dira. Ikasleek trebetasunak garatu behar dituzte fenomeno fisiko-kimiko naturalak eta giza ekintzak sortutakoak behatzeko, horiei buruzko hipotesiak emateko eta esperimentatzeko, baita lortzen dituzten emaitzak ikerketa-komunitateko gainerako kideekin bateratzeko trebetasunak ere, jakitun izanik prozesu fisiko, kimiko, biologiko eta geologikoetarako erantzunak konplexuak direla eta etengabe berrikusi eta baliozkotu beharreko eredu kontrastatuak behar dituztela.

Era berean, nahiz eta ikasleek etorkizunean ez erabaki zientzian aritzea jarduera profesional gisa, konpetentzia hau garatzeak pentsamendu zientifikoaren berezko trebetasun batzuk ematen dizkie, eguneroko bizitzako egoeretan aplika ditzaketenak, hala nola egoeren interpretazioa edo inguruan duten mundu naturalarekiko errespetua. Horrek lagundu egiten du ingurunea eta gizartea hobetzeko konpromisoa izango duten pertsonak prestatzen.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM1, STEM2, STEM3, KD1, KD3, KPSII4 eta EK1.

2. Fenomeno naturalak eta giza jarduerak ingurunean eragiten dituen aldaketak ulertzea eta azaltzea, printzipio, lege eta teoria zientifiko egokiak erabiliz, ingurune naturalaren funtzionamenduaren ikuspegi holistikoa lortzeko.

Konpetentzia zientifikoa garatzearen funtsezko helburua da inguruneko prozesuak ulertzea, azaltzea eta interpretatzea, funtsezko printzipio, lege eta teoria zientifikoen argitan. Konpetentzia espezifiko hau garatuta, pentsamendu zientifikoa ere garatzen laguntzen da, eta hori funtsezkoa da ezagutza berriak sortzeko.

Gainera, jakintzagai honetako ezagutzak aplikatzea bat dator zientzien ikuspegi globala osotasun integratu gisa hartu nahi duen ikaskuntzarekin.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM1, STEM2, STEM4, KD1 eta KPSII1.1.

3. Ohitura jasangarri eta osasungarrien garrantziari buruz argudiatzea, funts zientifikoetan oinarrituz, haiek baloratzeko eta beren ingurunean sustatzeko.

Gaur egun, gizakiak aurre egin beharreko erronka handi eta garrantzitsuenetako bat ingurumen-degradazioa da, horrek berekin mehatxu bat baitakar planetako bizitza, garapen ekonomikoa eta ongizate-gizartea arriskuan jartzeko. Erronka horri heltzeko ezinbesteko baldintza garapen iraunkorreko eredu bat ezartzea da. Horretarako, funtsezkoa da herritarrek natura-ingurunearekiko dugun mendekotasuna ulertzea; horrela, kontserbazioaren garrantzia baloratzeko eta helburu horrekin modu kontsekuente eta konprometituan jarduteko. Nabarmendu behar da, halaber, ohitura jasangarriak eta osasungarriak hartzea osasuna mantentzearen eta hobetzearen sinonimoa dela, lotura estua baitago giza ongizatearen eta horren euskarri diren zutabeei eustearen artean.

Konpetentzia espezifiko hau eskuratu eta garatuz gero, ikasleek, euren organismoaren eta ekosistemen funtzionamendua ezagututa, osasunaren, ingurumenaren kontserbazioaren eta garapen ekonomikoaren arteko lotura ulertzeko aukera izango dute, eta, horrela, beren garaiko arazoekiko pertsona konprometitu eta kritiko bihurtuko dira.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM2, STEM4, STEM5, KD2, KPSII2, HK4 eta EK1.

4. Pentsamendu zientifikoa eta arrazoibide logiko-matematikoak aplikatzea, estrategia eta tresna egokiak bilatuz eta hautatuz, zientzia esperimentalekin lotutako problemak ebazteko.

Pentsamendu zientifikoa zuzenean lotuta dago ikerketa zientifikoarekin, beharrezkoa baita ezarritako helburuak lortzen eta aurrera egiten jarraitzea ahalbidetuko duten hipotesiak edo estrategia berriak planteatzeko. Gainera, pentsamendu zientifikoak oinarrizko ezaugarri batzuk ditu, hala nola arrazoibidea erabiltzea gertaerak eta egoerak azaltzeko, teoria zientifikoak aplikatzea, sistematizazioa eta pentsamendu kritikoa.

Era berean, azterketa-alderdi batzuetan ezin da azterketa-prozesu edo -xedeen zuzeneko ebidentziarik lortu. Hortaz, arrazoibide logiko-matematikoa erabili behar da emaitzak eta horiek islatzen duten errealitatea elkarrekin konektatu ahal izateko. Era berean, logika eta arrazoibidea erabiltzea eskatzen duten eguneroko bizitzako agertokiak aurkitzea ohikoa da.

Konpetentzia espezifiko hau Zientzia Orokorrak curriculumean sartzearen helburua da ikasleek ikas dezatela tresna eta estrategia desberdinak erabiliz emaitza berberetara iritsi daitekeela, baldin eta tresna eta estrategia horiek fidagarriak eta egiaztatuak badira. Orobat, errorea lan-ildoak baztertzeko tresnatzat eta autokritika, erresilientzia eta berdinen arteko kolaborazioa hobetzen dituen ikasteko modutzat hartzea bilatzen da.

Nabarmendu behar da, halaber, problemak ebaztea prozesu konplexua dela, eta, arrazoitzeko trebetasunak ez ezik, jakintzagaiari buruzko ezagutzak eta erronkei modu positiboan aurre egiteko jarrerak ere mobilizatzen direla. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleek konpetentzia espezifiko hau garatzea, intelektualki heltzea eta erresilientzia hobetzea ahalbidetuko baitie, bizitza pertsonalean, sozialean eta profesionalean aurre egin beharreko hainbat egoerari arrakastaz hel diezaieten.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM1, STEM2, KD1, KPSII1.1, HK3 eta EK1.

5. Zientziak eta zientzian diharduten pertsonek egiten duten ekarpena analizatzea, genero-ikuspegiaz eta hura etengabe eraikitzen ari den prozesu kolektibo eta diziplinartekotzat ulertuz, gizartearen aurrerabidean duen funtsezko eginkizuna baloratzeko.

Garapen zientifiko eta teknologikoak ekarpen positiboa egiten dio gure gizartearen aurrerabideari. Zientziaren eta teknologiaren aurrerapena zientzian diharduten eta emakumeen ekarpena ikusarazten duten pertsonen lanaren mende dago, baita beste arlo batzuetako kolaborazio indibidual eta kolektiboaren mende ere. Horregatik, konpetentzia espezifiko honen helburua da oinarri zientifiko aberatsa eta bokazio zientifikoa izango duten herritarrak prestatzea, gure bizi-kalitatea hobetzeko bide gisa.

Konpetentzia espezifiko honen bidez, zientziak egungo gizartean duen garrantziaz jabetzen dira ikasleak, etengabe berrikusten eta eraikitzen ari den prozesu gisa. Era berean, zientziaren diziplinarteko izaera aitortzen du, jakintza-diziplinen arteko mendekotasun argi batek markatuta. Horrek jarduera zientifiko oro aberasten du eta zientziaren arloko ikerketaren eta lanaren garapen holistikoan islatzen da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1, STEM4, STEM6, KD3, KPSII4, HK1 eta KAKK1.

6. Askotariko baliabideak erabiltzea, zentzu kritikoz eta etikoz, kontrastatutako informazioa bilatzeko eta hautatzeko eta kolaborazioak ezartzeko.

Komunikazioa eta kolaborazioa aurrerapen zientifikoko prozesuaren berezko osagaiak dira. Komunikazio-prozesu horren zati batek iturri fidagarrietan argitaratutako informazio zientifikoa bilatzea eta hautatzea dakar. Informazio hori interpretatu egin behar da galdera zehatzei erantzuteko eta ondorio oinarrituak ezartzeko. Horretarako, lortutako informazioa modu kritikoan analizatu behar da, jatorria kontuan hartuta, iturri egokiak eta fidagarritasun gutxien dutenak bereizita, informazioa behar bezala erreferentziatuta eta egiletza-eskubideak errespetatuta.

Kolaborazio metodologia zientifikoen funtsezko beste alderdi bat da, eta helburu du lanaren efizientzia hobetzea, informazio-trukearen bidez hainbat pertsona edo talderen ahaleginak bateratuz eta, horrela, sinergia-efektu bat lortuz.

Gainera, konpetentzia espezifiko hau garatzea oso baliagarria da zientifikoak ez diren beste ingurune profesional batzuetan, baita testuinguru pertsonalean eta sozialean ere, adibidez, bizialdi osoko ikaskuntzan edo herritartasun demokratiko aktiboaren jardunean. Komunikazioak eta kolaborazioak berekin dakarte trebetasun sozialak hedatzea, zentzu kritikoa izatea, aniztasuna errespetatzea eta, sarritan,

baliabide teknologikoak efizientziaz, segurtasunez, etikaz eta arduraz erabiltzea. Horregatik, konpetentzia hau funtsezkoa da ikasleak herritar gisa erabat garatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KE2, STEM3, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII4 eta HK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Zientzia Orokorrak
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Ingurunean behatutako prozesu fisiko, kimiko, biologiko eta geologikoei buruzko galderak planteatzea eta erantzutea, metodologia zientifikoen jarraibideak betez.
1.2. Hipotesiak kontrastatzea, laborategietan edo ingurune birtualetan esperimentuak eginez, dagozkion segurtasun-arauei jarraituz.
1.3. Esperimentu edo lan zientifiko baten emaitzak interpretatzea eta analizatzea, galderei modu arrazoituan erantzunez.
1.4. Esperimentu edo lan zientifiko baten emaitzak jakinaraztea, baliabide egokiak erabiliz eta oinarrizko printzipio etikoen arabera.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Inguruneko fenomenoak analizatzea eta azaltzea, adierazpenen, taulen, grafikoen, ereduen, simulazioen, diagramen edo bestelako formatuen bidez.
2.2. Inguruan gertatzen diren fenomenoak azaltzea, natura-zientzien printzipioak, legeak eta teoriak erabiliz.
2.3. Fenomeno fisiko-kimiko garrantzitsuenak ezagutzea eta analizatzea, horiek lege edo teoria zientifiko nagusien bidez azalduz.
2.4. Biosferaren eta geosferaren oinarrizko elementuak eta prozesuak analizatzea eta azaltzea, oinarri zientifiko egokiak erabiliz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Garapen iraunkorreko eredu batekin bateragarriak diren ohiturak sustatzea eta horien garrantzia baloratzea, oinarri zientifikoak argudiatuz eta erabiliz.
3.2. Ohitura osasungarriak sustatzea (dieta orekatua, higienea, txertaketa, antibiotikoen erabilera egokia, drogen kontsumoa gaitzestea, ariketa fisikoa, loaren higienea, jarrera egokiak...) eta horien garrantzia baloratzea, argudiatuz eta giza fisiologiaren oinarriak erabiliz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Fenomeno eta prozesu fisiko, kimiko, biologiko eta geologikoekin lotutako problemak ebaztea, pentsamendu zientifikoa eta arrazoibide logiko-matematikoa erabiliz eta, beharrezkoa denean, ebazteko estrategia alternatiboak bilatuz.
4.2. Fenomeno eta prozesu fisiko, kimiko, biologiko eta geologikoekin lotutako problema baten soluzioa kritikoki analizatzea, erabilitako ondorioak edo estrategiak aldatuz, soluzioa bideragarria ez bada edo emandako datu berrien aurrean.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Zientzia ezagutza globaleko arlotzat baloratzea, hura osatzen duten diziplina guztien arteko erlazioa eta mendekotasuna analizatuz.
5.2. Zientziak gizartearen aurrerabidean duen garrantzia ezagutzea, ikerketa zientifikoaren jardunean pertsonek duten zeregin garrantzitsua baloratuz.
5.3. Zientzia etengabe eraikitzen ari den jakintza gisa baloratzea, egungo ezagutza zientifikora nola iritsi den erakutsiz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Fenomeno eta prozesu fisiko, kimiko, biologiko edo geologikoei buruzko informazioa hainbat formatutan bilatzea, kontrastatzea eta hautatzea, behar diren baliabide digitalak edo bestelakoak erabiliz, informazioa behar bezala erreferentziatuz eta egiletza-eskubideak errespetatuz.
6.2. Kolaborazioak ezartzea, proiektu zientifikoaren etapa bakoitzean, jarduerak egitean edo problemak ebaztean behar diren baliabideak erabiliz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Zientzia Orokorrak
A. Zientzia eraikitzen
Ikerketa zientifikoaren berezko metodologiak, gaiak identifikatzeko eta formulatzeko, hipotesiak lantzeko eta horien egiaztapen esperimentala egiteko.
Esperimentuak eta ikerketa-proiektuak: tresna egokien erabilera, kontrol esperimentalak eta arrazoibide logiko-matematikoa.
Ingurunearekin lotutako problemak eta gai zientifikoak ebaztean lortutako emaitzak analizatzeko metodoak.
Iturri egiatiak eta kolaborazio-bitartekoak: informazio zientifikoaren bilaketa hainbat formatutan eta tresna egokiekin.
Informazio zientifikoa: interpretazioa eta produkzioa, hizkuntza egokian. Ebidentzian eta arrazoibidean oinarritutako irizpide propioaren garapena.
Zientzialarien ekarpena zientziaren mugarri nagusietan, gizarteak aurrera egin eta hobetu dezan.
B. Materiaren eta energiaren unibertsoa
Sistema material makroskopikoak: eredu mikroskopikoen erabilera haien propietateak eta agregazio-egoerak analizatzeko, baita aldaketako prozesu fisiko eta kimikoak ere.
Sistema materialen sailkapena horien konposizioaren arabera: sistema naturalak deskribatzeko eta lotutako problemak ebazteko aplikazioa.
Materiaren barne-egitura eta horren lotura taula periodikoan gertatzen diren erregulartasunekin. Historian eta gaur egun duen garrantziaren ezagutza.
Konposatu kimikoen formazioa: nomenklatura oinarrizko alfabetatze zientifiko baten oinarri gisa (komunitate zientifiko osoarekin komunikazio efizientea ezartzea ahalbidetuko duen alfabetatze zientifikoa).
Sistema materialen transformazio kimikoak eta horiek arautzen dituzten legeak: garrantzia gaur egungo munduko industria-, ingurumen- eta gizarte-prozesuetan.
Sistema batean jasotako energia, haren propietateak eta adierazpenak: energia mekanikoaren kontserbazio-teorema eta prozesu termodinamiko garrantzitsuenak. Energia-kontsumoarekin eta garapen iraunkorraren beharrarekin lotutako problemen ebazpena.
C. Mugitzen gaituzten indarrak
Naturaren funtsezko indarrak: ingurune naturaleko prozesu fisiko garrantzitsuenak, hala nola fenomeno elektromagnetikoak, planeten mugimendua edo prozesu nuklearrak.
Estatikaren legeak: fisikarekin, biologiarekin, geologiarekin edo ingeniaritzarekin lotutako egiturak.
Mugimenduarekin lotutako mekanikaren legeak: objektu mugikor baten portaera eta horren aplikazioak, adibidez, bide-segurtasunean edo garapen teknologikoan.
D. Lurra sistema
Unibertsoaren, eguzki-sistemaren eta Lurraren jatorria: beraien ezaugarriekiko erlazioa.
Lurra eta Ilargia: mugimenduak eta horien efektuak.
Bizitzaren jatorria Lurrean: hipotesi nabariak. Beste planeta batzuetan bizitzeko aukera.
Ekosistemaren kontzeptua: osagai biotikoen eta abiotikoen arteko erlazioa.
Geosfera: egitura, dinamika, barneko eta kanpoko prozesu geologikoak. Plaken tektonikaren teoria.
Lurraren geruza fluidoak: funtzioak, dinamika, lurrazalarekiko eta izaki bizidunekiko interakzioa edafogenesian.
Izaki bizidunak ekosistemaren osagai biotiko gisa: Woese-ren araberako sailkapena (1977), ezaugarriak eta ingurunearekiko egokitzapenak. Eboluzioaren Teoria.
Ekosistemen dinamika: energia-fluxuak, materiaren zikloak eta erlazio trofikoak. Erlazionatutako problemen ebazpena.

Zientzia Orokorrak
Ingurumen-arazo nagusiak (berotze globala, ozono-geruza, naturaguneen suntsipena, biodibertsitatearen galera...) eta arrisku geologikoak: kausak eta ondorioak.
Garapen iraunkorraren eredua: garrantzia. Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak: horien erabilera eta ustiapen arduratsuaren garrantzia. Energia berriztagarriak. Hondakinen kudeaketa. Ekonomia zirkularra.
Ingurumenaren kontserbazioaren, osasunaren eta gizartearen garapen ekonomikoaren arteko erlazioa. One health kontzeptua (osasun bakarra).
E. XXI. menderako biologia
Biomolekula nagusiak (gluzidoak, lipidoak, proteinak eta azido nukleikoak): oinarrizko egitura eta haien funtzioekiko eta garrantzi biologikoarekiko erlazioa.
Informazio genetikoaren adierazpena: inplikatutako prozesuak. Kode genetikoaren ezaugarriak eta funtzio biologikoarekiko erlazioa.
Karaktereen transmisio genetikoa: problemen ebazpena eta aleloak heredatzeko edo fenotipoak agertzeko probabilitatearen analisia.
Ingeniaritza genetikoko teknikak: PCR, murrizte-entzimak, klonazio molekularra eta CRISPR-CAS9. Transgenearen kontzeptua. Edizio genetikoaren eta transgenesiaren arteko aldeak. DNA modu gidatuan manipulatzeko aukerak.
Gaixotasun infekziosoak eta ez-infekziosoak: kausak, prebentzioa eta tratamendua. Zoonosiak eta pandemiak. Txertoen mekanismoa eta garrantzia eta antibiotikoak egoki erabiltzearen garrantzia.
Bioteknologiaren aplikazioak eta ondorioak: nekazaritza, abeltzaintza, medikuntza edo ingurumen-leheneratzea. Mikroorganismoen garrantzi bioteknologikoa.

ARTEAREN HISTORIA

Hezkuntza-sistemaren xedea herritar gogoetatsu eta sortzaileak sortzea da, gure gizartea gero eta anitzagoa eta aldakorragoa baita. Alde batetik, honek areagotzen du nerabezaroan irudimentsuki pentsatzeko gaitasuna sustatzearen beharra, premia berriei egokitzeko. Bestalde, gizarte demokratikoek kognitiboki prestatutako eta emantzipatutako pertsonak behar dituzte, balio demokratikoak defendatzeko gai direnak. Horrek guztiak jarraipena ematen dio Batxilergoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako *Geografia eta Historia* jakintzagaiaren konpetentziak garatzeko prozesuari, eta *Artearen Historia*ren ikasketak duen garrantzia definitzen du, egungo gure bizitza soziala eta kulturala ulertzeko; izan ere, gaurko munduan zentzua hartzen duten tresna analitiko eta kontzeptualak eskaintzen ditu, zehazki, gazteen adimenaren garapen orekaturako beharrezkoak diren datuak eta ariketa intelektuala errazten dutenak. Horrenbestez, eztabaidaezina da jakintzagai hau beharrezkoa dela, pentsamendu eta judizio independentea sustatzen duen heinean.

Halaber, gizateriak denboran zehar garatu dituen pentsamendu, sentimendu, ideologia, sinesmen eta botere moduen multzo konplexua ulertzen laguntzen du, eta, Historiarekin eta Filosofiarekin batera, gure ingurunea nola hauteman eta diseinatu dugun ulertzen laguntzen du. Gombrich-ek dio Artea, berez, ez dela existitzen, artistak besterik ez. Artista horien bidez, ezagun zein ezezagunak, aro historiko bakoitzeko sentitzeko eta pentsatzeko modua bistaratzen zaigu.

Ikuspuntu horiek testuinguruan kokatzea eta, jakina, objektu artistikoak aztertzea dira gazteek behar dituzten tresnetako bi, gauzak baloratzeko, alderatzeko eta gogoeta pertsonaletan oinarritutako pentsamendu kritikoa erabiltzeko. Horrenbestez, ondoriozta daiteke jakintzagai honek arte-ekoizpena eta testuinguru historiko eta sozialaren araberako haren garapena eta bilakaera barne hartzeaz gain, barne duela artelanetan oinarritutako gogoeta eta pentsamenduaren eta iraganeko zein oraingo errealitatearen pertzepzioaren arteko erlazioa ere bai, gizakia eta bere indarguneak eta ahuleziak hobeto ulertzeko bitarteko diren aldetik.

Gainera, mugimendu artistikoen teknika, baliabide eta konbentzio nagusiak eta artelan, artista eta adierazpen nabarmenenak ezagutzeak berarekin dakar pentsamendu dibergenteko eta lan kooperatibo-

ko estrategiak aplikatzea. Era berean, arte- eta kultura- adierazpideen aniztasunarekiko jarrera irekia, errespetuzkoa eta kritikoa garatzen laguntzen du, eta norberaren gaitasun estetikoa garatzeko eta kultura-bizitzan eta kultura- eta arte-ondarearen kontserbazioan parte hartzeko interesa sustatzen du. Jakina, hori guztia Euskal Herriko arte-ondarea kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren parte den diziplina gisa.

Izatez, diziplina honen azterketak zuzenean laguntzen du Herritartasunerako konpetentzia garatzen, garai guztietako artelanen behaketaren bidez —bai historian sustraiak dituzten egungo arazo etikoen eta identitate-gaien analisian, bai pentsamendu kritikoaren garapenean—. Horrez gain, Konpetentzia pertsonala, soziala eta Ikasten ikastekoa ere bultzatzen du, arte-ekoizpenak gertaerekin eta pentsamenduekin lotzen irakasten baitu, baita arte-sorkuntzekin zer adierazi nahi den eta artelanez gozatzen dutenengan zer sortarazi nahi den bereizten ere. Bizitza osoan zehar egokitzeko eta ikaskuntza kudeatzeko beharrari erreparatzera eta horren inguruan hausnartzera bultzatzen du, egileen adibideari jarraituz. Jakintzagaia Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako konpetentziarekin ere lotzen da, artelanak ezagutzeak sentsibilizatzen baitu eta ondarea aintzat hartzera, errespetatzera, balioestera eta hartaz gozatzera eramaten baitu.

Modu zeharkakoago batean, diziplina honek Ekintzailetza konpetentzia garatzen du; izan ere, lagungarria da —garai bateko eta egungo munduko adierazpide plastikoa, baita dagozkien erronka intelektualak, ezagutzearen bidetik— premiak eta aukerak zentzu kritiko eta etikoaz ebaluatzeko eta, berariazko ezagutza teknikoetatik abiatuta, erronkei aurre egiteko, betiere norberaren produktuak gauzatzean ideia eta soluzio berritzaileak aurkezte aldera, hala nola, erakusketa-proiektuak. Azkenik, eztabaidaezina da Hizkuntza komunikaziorako konpetentziari eta Konpetentzia eleaniztunari egiten zaien ekarpena; izatez, informazioa jaso eta transmititzeko, ezinbestekoa da edozein hizkuntzatan komunikatzea, eta Konpetentzia digitala funtsezko tresna da gaur egun lan egiteko garaian.

Aurreko guztiari Artearen Historiaren diziplinartekotasuna gehituta, bai ikuspuntu teorikotik bai sormenezkotik —zenbait espezialitate lotzeko aukera ematen baitu, hala nola Historia, Arkitektura, Pintura, Optika, Kimika, Eskultura, Geologia, Filosofia…—, ondoriozta daiteke ukaezina dela jakintzagai honen beharra, ezagutza modu globalean ulertzeko, pentsatzeko eta gai sozial eta zientifikoei ekiteko prest egoteko.

Batxilergoko bigarren mailan Oinarrizko jakintzekin egindako lanaren bidez eskuratu eta garatuko diren trebetasunei Konpetentzia espezifiko deritze. Jakintzagai honetan zortzi Konpetentzia espezifiko definitzen dira: terminologia espezifikoa ulertzea eta erabiltzea; estilo nagusiak identifikatzea eta ezaugarritzea; arte-adierazpenik esanguratsuenak espazioan eta denboran kokatzea; arte-mintzairak ezagutzea eta ideia, desio eta emozioen komunikazio-tresna eta espresio estetiko gisa identifikatzea; historian zehar arteak izandako funtzioak eta ikuskerak bereiztea eta aztertzea; aldaketa estetikoak eta edertasun-kanonak deskribatzea; tokiko, nazioko eta munduko ondare artistikoa identifikatzea eta baloratzea, identitate indibidualak eta kolektiboak eta arte- identitateak definitzen eta transmititzen dituen elementua den heinean; eta, jakina, genero-ikuspegia txertatzea Artearen historiaren ikasketan.

Hori guztia oso lagungarria izango da gure ikasleek artelan eta artisten ezaugarri formal, tekniko eta adierazkorrik garrantzitsuenak argitasunez eta koherentziaz azaltzeko; norberaren gogoetak arin, ahoz eta ekoizpen propioen bidez komunikatzeko; Artearen Historiaren bilakaera zuzentzen duten mekanismoak ulertzeko; edozein garaitako eta kulturatako arte-adierazpenekiko errespetua eta estimua garatzeko; eta artelanak eta artistak beren garaiko eta esparruko korronte eta adierazpide jakin bateko adierazgarri gisa baloratzeko eta haien sormena aintzat hartzeko. Era berean, lagungarria izango da: norberaren iritziak eta sentimenduak koherentziaz eta arintasunez adierazteko eta besteen iritzi eta adierazpenekiko errespetua eta enpatia garatzeko; ekoizpenen aniztasuna giza sormenaren emaitza gisa baloratzeko eta artelanei buruzko iritzi arrazoituak eta informatuak emateko; artisten eta irudikatutako pertsonaien psikologia eta asmoa hautematen ikasteko eta aniztasunarekiko sentsibilitatea eta errespetua erakustea ahalbidetuko duen heldutasun pertsonalerantz bideratzeko, estereotipoak eta aurreiritziak gaindituz; Ondare artistikoaren kontserbazioarekiko eta hedapenarekiko konpromiso ardu-

ratsua hartzeko eta Garapen Iraunkorreko Helburuen lorpenarekin erlazionatzeko; baita emakume artistak bistaratzeko eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko ere.

Ikasleek gai honetan egindako aurrerapenak Ebaluazio-irizpideen bidez baloratzen ditugu. Ebaluazio-irizpide horien helburua da Jakintzak nola eta zein heinean barneratu diren eta, ondorioz, Konpetentzia espezifikoetan zer progresio-maila lortu den zehaztea eta ikasleek beren garapenerako garrantzizkoak diren jarrerak eta balioak eskuratu dituzten zehaztea, betiere Batxilergoko bigarren mailako ikasleek jarraitu beharreko ikaskuntza-prozesuari dagokionez. Horien formulazioan, beraz, jakiteari, egiten jakiteari eta izateari buruzko erreferentziak jasotzen dira.

Oinarrizko jakintzen bidez, ikasleek Konpetentzia profil fidagarri batera eramango dituzten Konpetentzia espezifikoak eskuratuko dituzte. Hori dela eta, elementu horiek ezinbestekoak dira gizakiok denboraren poderioz garatu ditugun askotariko mundu- ikuskerak adierazten dituzten formatu plastikoen transmisio egokia egiteko, baita errealitate aldakorrak eta horiei dagokien pentsamendua, askotan, gure akzioen eta erreakzioen ondorio direla ulertzeko ere. Bilakaera hori zein izan den erakusten diguten Artearen Historiari buruzko gutxieneko datu zehatz, historiko, tekniko eta pedagogikoki antolatu batzuk ezagutu gabe, ezinezkoa litzateke askotariko errealitateak aztertzea, ezta etengabeko aldaketa gertatzen ari den hautematea ere.

Oinarrizko jakintzak lau bloketan banatzen dira:

A. *Artearen historiari hurbilketa*; bloke honen edukia bat dator jakintzagaia landu ahala pixkanaka eskuratzen diren hiztegi teknikoa, analisi-elementuak eta printzipio teorikoak ezagutzearekin; bloke hau transbertsaltzat hartzen da.

B. *Artea eta bere funtzioak historian zehar*; multzo honetan Artearen Historiaren beraren bilakaerari dagozkion oinarrizko jakintzak jorratzen dira, funtzio baten inguruan antolatuta. Hala ere, hemen funtzio zehatz batekin lotzen diren korronte artistikoak zenbait epigraferen pean egon daitezke. Bereizgarriena hautatu da, besterik gabe. Bloke honetan lan-gida bat proposatzen da, baina irakasleen irizpideari irekita dago. Irakasleek, gainera, hemen sartu ez diren mugimendu artistikoak gehitu ditzakete, egokitzat hartzen badute.

C. *Artearen dimentsio indibidual eta soziala*; bloke honetan banakatzen dira gizakiaren irudikapenaz arduratzen diren jakintzak, emakumeak irudikapen gisa eta artista gisa betetzen duen eginkizunaz eta artearen balio sozialaz eta kulturalaz arduratzen direnak, baita egungo gaiez ere, hala nola egile-eskubideez, ondareaz eta abar. Jakintza hauek gainerakoak landu ahala ere eskuratu daitezke.

D. *Errealitatea, espazioa eta lurraldea Artean*; multzo honetan, Arkitekturarekin, Hirigintzarekin eta Pinturarekin zerikusia duten gaiak jorratzen dira; B blokearekin batera landu daitezke.

Oinarrizko jakintzak gai-irizpideen arabera antolatuta daude, asmo pedagogiko berritzaileaz; horrek ez du eragozten jakintzagaia ordena kronologiko naturalari jarraituz garatzea, edota bi ikuspuntuak konbinatzea, ikaste-egoerak modu pedagogikoan eta metodologia integratzaileen bidez antolatzeko, irakasleek egokitzat jotzen duten moduan. Bestalde, Oinarrizko jakintza transbertsalak hala behar duten Ikaste-egoera guztietan jorratu ahal izango dira.

*Artearen historia*ren erronka nagusia da, tresna hauekin, jakintzagaiaren jakintza orokorra duen irakaslea gidari izatea ikasleek beren ikaskuntza aurkitzeko prozesuan, ezagutzaren hartzaile huts eta pasibo izateari utz diezaioten. Analisirako, aplikaziorako, talde-lanerako eta jakintza sortzeko irakaskuntza lantzearekin batera, informazioa ezagutza bihurtu beharko da; horretarako, arte-adierazpenekiko eta, beraz, ondarearekiko, jakin-minarekiko, pentsamendu kritikoarekiko eta autonomiarekiko sentikortasuna sustatu beharko da. Konbinazio horren gabezian, ez da motibaziorik egongo, eta gauzak ezin izango dira ikuspegi berrietatik landu.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Arte-terminologia espezifikoa ezagutu eta erabiltzea, Artearen Historiako edozein garaitako artelanen eta artisten ezaugarri formal, tekniko eta adierazkor esanguratsuenak argi eta koherentziaz adierazteko, eta norberaren gogoetak arin, ahoz edota sintesi, laburpen, txosten, aipamen edo berezko aurkezpenen bidez komunikatzeko.

Arte-terminoen hiztegi zehatza eskuratzeak lehentasuna du, pixkanaka barneratu beharko dena. Horrek aukera ematen du artelanaren eta bere testuinguru historikoaren analisi formala azaltzeko, egintza artistikoen eta haren oinarrizko kontzeptuen ezagutzatik eta ulermenetik ez ezik (artearen teoria eta funtzioa, estilo eta mugimendu artistikoen sorrera eta hedapena edo ikus-hizkuntzaren elementu nagusiak hautematea, besteak beste), ezagutza teknikoaren ikuspegitik ere bai.

Beraz, ikasleek behar bezala erabili beharko dute Artearen historian erabiltzen den hiztegia, eta haren helburuaren ulermenean aurrera egin beharko dute. Hartara, artelanen iruzkinak eta ikerketa-lanak egitean, argi eta koherentziaz adieraziko dituzte ezaugarri formal eta tekniko adierazgarrienak, formatu digitaletan zein tradizionalagoetan, egile-eskubideak errespetatuz eta informazioa zuzen erreferentziatuz. Era berean, jakintzagaiaren berezko terminologia erabiltzeak nork bere gogoetak arin eta zorroztasunez komunikatzea ahalbidetuko du. Prozesu hau burutzeko, sintesiak, laburpenak, txostenak, aipamenak edo norberaren aurkezpenak egin beharko dira, eta horien bidez ikasitakoa antolatu, barneratu eta komunikatu, testuinguru analogikoetan eta digitaletan, zehaztasunez eta, ahal den heinean, sormenez. Testuinguru honetan, ezinbestekoa da ikasleek jakitea egile-eskubideak arautzen dituzten legeak ere badaudela.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1, KE2, KD1, KD2, KPSII1.1, KPSII3.2, KPSII5, EK2, KAKK1, KAKK2.

2. Estilo artistiko nagusiak identifikatzea eta ezaugarritzea, informazioa hautatuz eta haien artean sortzen diren eragin-, mailegu-, jarraitutasun- eta haustura-harremanak ezagutuz, artearen historiaren bilakaera zuzentzen duten mekanismoak ulertzeko eta edozein garai eta kulturatako arte-adierazpenekiko errespetua eta estimua garatzeko.

Batxilergoko bigarren maila bukatuta, ikasleek Artearen historia eta haren bilakaera osatzen duten etapa eta mugimenduei buruzko ikuspegi orokorra izan beharko dute. Ildo horretatik, pixkanaka ikasi beharko dute zer adierazpen eta estilo artistiko izan diren nagusi historian zehar; era berean, artelanak eta sortzaileak identifikatu beharko dituzte eta haien ezaugarri estilistiko nagusiak eta kultura-testuingurua aztertu beharko dituzte. Prozesuak, halaber, erlazioak ezartzea ahalbidetuko du, antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatu eta horiei buruzko oinarrizko informazioa modu kritikoan sistematizatzearekin batera. Horretarako, modu orekatuan hautatutako Artearen historiarako hurbilketa orokorra, argia eta globala ahalbidetuko duen informazioa izango de beharrezko baliabidea.

Jakintzagai honen ikasketari berez dagokionez, behar besteko arreta emango zaie eragin-harremanei eta estilo, egile eta mugimendu artistikoen arteko mailegu-, jarraipen- eta haustura-mekanismoei. Horrek guztiak ulertarazten du arte-mugimendu bat zergatik mantentzen den ondorengo kultura-adierazpenetan —Arte grekoa eta erromatarra—, zergatik irauten duen berez —Arte islamiarra— edo zergatik haustura batek desagerrarazten duen eta beste mugimendu bat sortzen den —Neoklasizismoa eta Erromantizismoa—. Une historikoaren eta dagokion arte-mintzairaren arteko harremanei buruzko etengabeko gogoetak ulertaraziko die ikasleei estilo bati zergatik jarraitzen dion beste estilo batek —askotan kontrajarria— edo zergatik bizi diren elkarrekin bi estilo aldi berean.

Beraz, ikasleek Artearen historiako mugimendu eta garaien arteko eragin artistikoak eta horien zergatia eta horien arteko loturak eta desberdintasunak aztertuko dituzte, eta argi eta garbi ezagutu eta transmititu beharko dituzte. Aldi berean, edozein garai eta kulturatako arte-adierazpenekiko errespetua eta estimua garatuko dute.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1, KE2, KD1, KD2, KPSII1.1, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII5, HK1, KAKK1, KAKK2.

3. Arte-adierazpen garrantzitsuenak aztertzea eta espazioan eta denboran kokatzea, haien ezaugarri teknikoak, formalak, funtzioa eta ingurune sozial, politiko eta kulturala iruzkinduz, artelanak eta artistak korronte jakin baten adierazle gisa eta bere garaiko eta esparruko adierazpide gisa baloratzeko eta bere sormena balioesteko.

Jakintzagai honen ikaskuntzaren oinarrizko helburua artelanak behar bezala aztertzea eta testuinguruan kokatzea da. Hori artista handien arte-lanen analisiaren bidez hasten da; izatez, artista horiek, beren esanahiagatik eta denboran zehar duten eraginagatik, erreferente dira Artearen historian. Garrantzitsua da, beraz, ikasleek mugimendu artistikoak eta dagozkien artelanik adierazgarrienak identifikatzea, haien elementu tekniko, formal eta estilistikoetan oinarrituta, eta hori guztia beren testuinguru, funtzio eta garrantziarekin erlazionatzea. Garrantzizkoa da, halaber, ikasleek ikastea azterketa- prozesuan ez dela joera diskriminatzailea duen irizpiderik erabili behar. Horretarako, Artearen historiarako hurbilketak ez du aurreiritzirik izan behar, eta beste kultura eta artista batzuetako artelanen azterketa ere barne hartu behar du, batik bat interesa eta kalitatea izan arren Artearen historiografiak, askotariko arrazoiak tarteko, baztertu dituenak.

Jakintzagaiaren helburuetako bat da arte-ekoizpenak giza pentsamenduaren eta kultura eta une historiko jakin bateko haren inguruabarren adierazpide gisa ulertzea. Hala, artelan baten azterketak ikasleentzat esanahi osoa har dezan, testuinguru soziokulturalarekin eta autorearen biografiarekin lotu behar da, eta, hala badagokio, bide artistiko berriak ireki izana edo artistak soluzio tekniko berriak erabili izana hauteman eta baloratu behar da. Gainera, komeni da kontuan hartzea inolako artelana guztiz ulertzeko bere sorkuntzan parte harturiko faktoreak eta inguruabarrak kontuan hartu behar badirela ere; artelan hori, aldi berean, iturri historikoa izan daitekeela hura sortu zuen garaia, kultura eta artistaren nortasuna ezagutzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1, KE2, KD1, KD2, KPSII1.1, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII5, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

4. Arte-mintzairak ezagutzea eta ideien, desioen eta emozioen komunikazio eta adierazpide estetikorako bide gisa identifikatzea, esparru artistikoarekin zerikusia duten komunikazio-egoeretan jarrera kooperatiboz parte hartuz, nork bere iritziak eta sentimenduak koherentziaz eta arintasunez adierazteko, besteen estimazio eta adierazpideekiko errespetua eta enpatia gordeta.

Bereziki garrantzitsua da ikasleek arte-mintzairak ezagutzea: arte plastikoak, arkitektura, musika, idazketa, antzerkia, dantza, zinema eta argazkilaritza. Artearen historia jakintzagaiari Arkitektura eta Arte plastikoak aztertzea dagokio, Arte garaikidean Zinema eta Argazkilaritza barne hartuta, komunikazio eta adierazpide estetikoko beste bi bide diren heinean. Forma horietako bakoitzak berariazko arauak eta jarraibideak ditu, garai, une historiko, kultura, genero, estilo edo artista bakoitzaren arabera modu askotara sortzen, hausten eta birsortzen direnak. Arau horiek eredu formalak eta jarraibide teknikoak izan daitezke (simetria, proportzioa, konposizioaren oreka, elementuen arteko tentsioa…), eta komeni da ikasleek horiek ezagutzea. Ikasleek ulertu behar dute esperientzia artistikoak, askotan, eskatzen duela aldez aurretik ezagutzea garai, arte eta artista bakoitzak zer teknika, kode adierazgarri eta hizkuntza plastiko eta bisual erabiltzen duen.

Era berean, helburua da ikasleek artelan batean identifikatzea horrek ideien, desioen eta emozioen komunikazio eta adierazpide estetikorako bide gisa duen alderdia, eta arterako hurbilketa erabili ahal izatea ezagutza berriak eraiki eta integratzeko eta lehendik eskuratutako jakintzak mobilizatzeko, baita bere iritziak eta sentimenduak koherentziaz eta arintasunez adierazteko ere. Hori, betiere esparru artistikoarekin zerikusia duten komunikazio-egoeretan jarrera kooperatiboz parte hartuz eta pertzepzio eta iritzi desberdinak errespetatuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1, KE2, KD1, KD2, KPSII3.1, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

5. Arteak historian zehar izan dituen funtzioak eta kontzeptzioak bereiztea eta aztertzea, informazioa modu kritikoan hautatuz eta aztertuz eta horren ikuspegi orokorra lortuz, ekoizpen anitzak giza sormenaren emaitza gisa baloratzeko eta artelanei buruzko iritzi arrazoituak eta informatuak emateko.

Batetik, Artearen historia jakintzagaian, funtsezkoa da ikasleek ulertzea zer den *Artearen funtzioa*. Hau da, funtsezkoa da historian zehar artelanen sortzaileek eta artelan horiek agindu edo finantzatu dituzten botere-agente, klase eta talde sozialen pentsamolde, interes eta ekintzek izan dituzten erlazioak arte--ekoizpenarekin identifikatzea, ezagutzea eta testuinguruan kokatzea.

Bestalde, ezinbestekoa da funtsezko kontzeptuak ikastea, hala nola *Artelana* bera edo *Artearen kontzepzioa* deiturikoa (imitazioa, adierazpidea, irudimenezko forma eta errealitatea), baita kontzepzio horien bilakaera ere —aldaketa historikoei lotuta—; betiere, artelanen ekoizpenaren eta pertzepzioaren dimentsio erlijiosoa, ideologikoa, politikoa, soziala, ekonomikoa, adierazkorra eta estetikoa kontuan hartuta.

Funtsezkoa da ikasleek diakronikoki zein sintetikoki ezagutzea historian zehar eta kultura eta gizarte anitzetan izandako irizpide estetikoen heterogeneotasuna edota aniztasuna. Horrez gain, arreta jarri behar diote Arte garaikidearen esparruari eta gaur egungo ikuspegiari, betiere horren guztiaren ikuspegi orokorra lortzen, askotariko adierazpide eta estilo sortzaileak identifikatu eta hauteman daitezen.

Helburua da arte-ekoizpena eta -pertzepzioa artelanean bertan islatzen diren zenbait testuinguru, asmo eta funtzionaltasunekin lotuta dagoen prozesu historiko konplexu gisa ulertzea, eta artelan horiei buruzko irizpen arrazoitua eta informatua ematera ailegatu ahal izatea.

Jakina, informazioa bilatu, hautatu, landu eta aztertzearekin lotzen diren estrategia eta prozesu guztiak ezinbestekoak dira jakintza berriak ikasi eta eskuratzeko. Hori dela eta, beharrezkoa da ikasleek behar besteko maila lortzea iturri fidagarriak maneiatzeko, baita datu-bilketa eta informazioaren lanketa egiaztatua doitasunez egiteko, informazioaren azterketa kritikoa eta zorrotza egin ahal izan dadin.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1, KE2,KD1, KD2, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII5, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

6. Artearen historian izandako aldaketa estetikoak eta edertasun-kanonak deskribatzea, zenbait estilo, garai eta tokitako artelanen arteko analisi konparatiboak eginez, artisten eta irudikatutako pertsonaien psikologia eta asmoa atzematen ikasteko, eta aniztasunarekiko sentsibilitatea eta errespetua lortzea ahalbidetuko duen heldutasun pertsonala lortzeko, estereotipoak eta aurreiritziak gaindituz.

Arteak ez du artelana soilik inplikatzen; garai jakin bateko gizakiek, inguruabarren arabera, edozein gairi buruz egiten duten interpretazioa ere inplikatzen du, bai lurreko boterearen edo botere erlijiosoaren ikuspegitik edo harekiko mendekotasunaren ikuspegitik, bai sentimenduaren, sinesmenen edo pentsamenduaren ikuspegitik. Kanon estetikoa aurreko guztiaren konbinazioaren emaitzazkoa da, eta, aldi berean, edertasunaren kontzeptuarekin, haren aurkakoarekin eta haren bilakaera historikoarekin lotu daiteke. Zenbait garaitako artelanen analisi konparatiboaren bidez, ikasleak arte- adierazpenetara hurbildu daitezke, eta, giza adimen konplexuan arakatuz, edertasunaren ideia eta balorazio estetikoko kanonak historian zehar nola aldatu diren hautematen, ulertzen eta azaltzen ikas dezakete. Gainera, ikuspegi horien ikuskera konplexua eta ez-dogmatikoa lortzen dute, eta beren irizpide eta gustuaren garapenari bide ematen diote.

Era berean, Artearen historiaren agertokian, ikasleei beren burua ezagutzen lagundu dakieke, kasu honetan denboran zehar gizakia irudikatzeko erabilitako moduei buruzko gogoetaren bidez. Irudiaren bidez norbera ikusgai egiteko, proiektatzeko eta identifikatzeko beharra oso zabalduta dago gaur egun herritar guztien artean, sare sozialen bidez bideratuta. Behar hori, nolanahi ere, konstante historiko-kulturala da, eta haren forma eta helburuei buruz galdetzera garamatza. Hala, autoerretratuak eta erretra-

tuak aztertzearen bidetik, ikasleak artisten eta pertsonaien psikologia eta xedea atzematen ikasiko du, Historiako pertsona nabarmenak zein gizarteko edozein mailatako ordezkariak izan. Ez dira alde batera utziko arraza eta etnien aniztasuna islatzen duten edo haurtzarotik zahartzarora eta heriotzara bitarteko bizitza-zikloa islatzen duten artelanak.

Azkenik, analisi honen helburuen artean dago nerabeei beren irudi fisikoaren kontzeptu doitu eta asertiboa hartzen laguntzea, baita giza aniztasunarekiko errespetu- eta onarpen-jarrera hartzen laguntzea ere, ezaugarri psikiko eta fisikoei dagokienez zein kultura-adierazpenei dagokienez, betiere orotariko estereotipo eta aurreiritzi diskriminatzaileak gainditzuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1, KE2,KD1, KD2, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII5, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

7. Tokiko, nazioko eta munduko Ondare Artistikoa identifikatzea eta baloratzea, identitate indibidual eta kolektiboak eta kulturalak definitzen eta transmititzen dituen elementu gisa, betiere haren funtzioen eta kudeaketaren adibide zehatzak modu kritikoan eta elkarrizketaren bidez ikertuz eta aztertuz, ondare artistikoaren kontserbaziorako eta hedapenerako konpromiso arduratsua hartzeko eta Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzearekin erlazionatzeko.

Ondare artistikoa aurreko belaunaldien ondare gisa eta adierazpide biziko fenomeno gisa aitortzea eta Ondare hori kontserbatzeko eta modu arduratsuan erabiltzeko beharraz jabetzea funtsezko erronkak dira edozein gizarte eta kulturarentzat. Ildo horretan, jakintzagaiaren eginkizuna funtsezkoa da ikasleek artearen balio eta garrantzi kultural, sozial eta materialaz jabetu daitezen, artearen kudeaketa onaren garrantzia uler dezaten eta haren kontserbazioa, zaharberritzea eta promozioa arautzen duten legeen jakitun izan daitezen. Horrela, konpromiso arduratsua har dezakete Ondarea kontserbatu eta hedatzeko.

Arteari, ia garai eta kultura guztietan egotz dakiokeen funtzioetako bat errealitateen ispilu gisa jokatzea da eta, horren bidez, identitate-portaerari zentzua ematea; izan ere, askotan, berezitasun zein sinesmen kolektiboak definitzen dituzten elementu bisualak, ikonikoak eta sinbolikoak irudikatzen ditu. Garrantzitsua da, beraz, ikasleek aztertzea, modu kritikoan eta elkarrizketaren bidez, arteak nola sor eta transmiti ditzakeen sentimenduak eta sinesmenak zenbait mailatan, eta nola erabili daitekeen propaganda, irudikapen eta hezkuntzarako bitarteko gisa, adibidez, erakunde akademikoak eta museistikoak sortuz.

Azkenik, jakintzagaiaren zeregina ere bada artea Garapen Iraunkorreko Helburuekin lotzea. Erronka da, ikasleak bizitzako arlo guztietan trantsizioko eta garapen iraunkorreko proiektuak eta ereduak erraztu eta bultzatzen dituen herritar gisa prestatzea. Testuinguru horretan, nabarmenduko da artista batzuek gaur egun arazoak ikusarazten laguntzen dutela edo erakunde aktibistekin kolaboratzen dutela aldaketa jasangarria lortzeko. Hartara, Artearen Historia kontzientziazio-tresna garrantzitsua ere bada.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1,KE2, KD1, KD2, KPSII1.2, KPSII4, KPSII5, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2.

8. Artearen Historiaren ikasketan genero-ikuspegia txertatzea, obra garrantzitsuetan aztertuz emakumeak zer zeregin bete duen eta emakumeen zer irudi eman den estilo eta mugimendu artistikoetan, emakumezko artistak ikusarazteko eta benetako berdintasuna sustatzeko.

Gizarte-jokabide orokor baten parte gisa, XVIII. mendearen erdialdetik aurrera sortutako Artearen Historiografiak ere emakumearen bazterketa islatu du. Historikoki ukatu eta ezkutatu da emakumearen sormen-gaitasuna, eta horren lekuko dugu, besteak beste, museo handienetako bildumetan emakumeen presentzia urria. Jakintzaga i honek ulertarazi behar du gizonen eta emakumeen arteko arrakala ilogikoa murriztu behar dela. Emakumezko artistak naturaltasunez aztertzeak —izan diren eta diren artista gisa— lagundu egingo du Artearen historiako emakumezko artista nagusiak ikusarazten eta hain balioa nabariarazten, emakume izate hutsagatik eta justifikaziorik gabe baztertu direnak.

Bestetik, artean emakumearen irudiak eta arlo femeninoak izan duten bilakaera aztertuz, bi sexuen arteko harremanak historian zehar hobeto koka daitezke testuinguruan eta hobeto uler daitezke. Obra

garrantzitsuen iruzkin historiko-artistikotik abiatuta, gai horri buruzko gogoeta piztu nahi da ikasleengan, zehazki obrek gizarte-etsipenaren sortzaile eta isla gisa duten funtzioari buruzko gogoeta; baita emakumeenganako diskriminazio-jokabideen aurrean zentzu kritikodun jarrera zibilizatuak sustatzea ere.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE1, KE2, KD1, KD2, KPSII1.2, KPSII5, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Artearen Historia
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Artearen historiaren jakintzagaiko terminologia espezializatuari dagozkion kontzeptu nagusiak ezagutzea eta erabiltzea, kontzeptu horiek behar bezala aplikatuz edozein garaitako obra orori buruzko irizpen formalak eta teknikoak argitasunez eta koherentziaz adierazteko, gogoeta pertsonalak arin komunikatzeko eta norberaren produktuak egiteko.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Historiako estilo artistiko nagusiak identifikatzea, informazioa hautatuz, oinarrizko ezaugarriak eta horiek denboran izan duten garapena deskribatuz eta arte-adierazpen guztiekiko errespetua erakutsiz.
2.2. Artearen historiaren bilakaera zuzentzen duten mekanismoak ezagutzea eta azaltzea, zenbait garaitako artelanen analisi konparatibotik, eta estiloen, artisten eta mugimenduen artean sortzen diren eragin, mailegu, jarraipen eta haustura-ko erlazioen azalpenetik abiatuta.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Zenbait hizkuntza, mugimendu artistiko eta garaitako artelanak aztertzea eta iruzkintzea, haien ezaugarri bereziak (teknikoak, formalak, funtzioa...) antzemanez baita egileak dagozkien korronteen adierazgarri gisa ere, prozeduraren ikuspegi orokorra erakutsiz eta sormena baloratuz.
3.2. Artelanak beren testuinguru ideologikoan, erlijiosoan, sozialean, politikoan, kulturalean eta ekonomikoan kokatzea, aurreiritziak saihestuz, erlazio horiek azalduz eta aurreko eta ondorengo testuinguruekin loturak bilatuz, irizpen kritiko eta arrazoitu baten bidez.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Arte-mintzairak ezagutzea, garai, une historiko, kultura, genero, estilo edo artista bakoitzari dagozkion bai teknikak, bai kode adierazgarriak eta bisualak ezagutuz.
4.2. Artelanak komunikabide gisa betetzen duten paperari buruzko iritziak sortzea, esparru artistikoarekin lotutako komunikazio-egoeretan jarrera kooperatiboz parte hartuz, ideiak argi, koherentziaz eta arintasunez adieraziz, eta besteen iritzi eta adierazpenekiko errespetua eta enpatia erakutsiz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Zenbait artelanek beren testuinguruari dagokionez betetzen duten funtzioa bereiztea, informazioa hautatzetik eta adibide zehatzak aztertzetik abiatuta, horren guztiaren ulermen eta irizpen kritiko eta arrazoitua erakutsiz.
5.2. Artearen kontzepzioa historian zehar modu kritikoan aztertzea eta azaltzea, artearen kodeak, mintzairak, sinboloak eta interpretazioak aintzat hartuz, ekoizpenen aniztasuna, giza sormenaren emaitza gisa, modu arrazoituan eta informatuan baloratuz eta haiekiko errespetua erakutsiz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Artearen historian edertasunaren ideia sozialak eta filosofikoak eta haren proiekzio estetikoko kanonek izan duten bilakaera ezagutzea eta azaltzea, dagozkien artelanetan identifikatuz eta etapa bakoitzeko ikuspegi nagusia aztertuz, aldi desberdinetako adibideen azterketa konparatiboaren bidez.
6.2. Estilo eta garai desberdinetako artelanetan edertasun-kanon desberdinei buruzko nork bere argudioak egitea, irudikapen horien formak eta helburuak identifikatuz, aniztasuna aberastasun-iturri gisa aintzat hartuz eta estereotipoak eta aurreiritziak gaindituz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Artelan nabarmen batzuk kultura-adierazpen eta identitate indibidual eta kolektiboen adierazpen transmisore gisa definitzen dituzten elementuak identifikatzea, horretan lagungarri izan diren baliabide estetiko eta ikonografikoen erabilera, modu kritikoan eta elkarrizketan, historiaren garai guztietako adibide zehatzak aztertuz.

Artearen Historia
7.2. Ondare artistikoaren garrantzia azaltzea eta baloratzea, ondare hori eskuratzeko, kontserbatzeko eta hedatzeko prozesuei buruz eta haren funtzioei buruz ikertuz, ondare hori arautzen duten legeen existentzia ezagutuz, artista sortzailearekin zerikusirik ez duten ekintzek arte-lanetan duten eragin positiboaz eta negatiboaz jabetuz eta egungo artea Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko kontzientziazio-tresna gisa hartuz.
8. konpetentzia espezifikoa
8.1. Artearen historiako emakumezko figura nagusien ibilbidea eta garrantzi artistikoa ezagutu eta azaltzea, emakumea artista gisa ikusaraziz, bere lanaren garapenaren testuinguru politiko, sozial eta kulturala aztertuz, eta testuinguru horretan bere burua baliatzeko egindako ahalegina aintzatetsiz.
8.2. Emakumeek artearen historian duten irudiaren eboluzioa kritikoki aztertzea, hainbat mugimendu, artelan garrantzitsuen iruzkina, eta irudi femeninoa irudikatuta dagoen zenbait garai eta kulturatako obren analisi konparatiboa eginez, elementu teknikoetan, formaletan eta estilistikoetan oinarrituta.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Artearen Historia
A. Artearen historiari hurbilketa
1. Artearen terminologia eta hiztegi espezifikoa, arkitekturan, eskulturan eta pinturan.*
2. Arte-ekoizpenak aztertzeko tresnak: elementu teknikoak, formalak eta estilistikoak, haien esanahia, identifikazioa, testuingurua eta garrantzia. Analisi konparatiboa.*
3. Artearen kontzeptua eta funtzioak historian zehar.*
4. Arte-mintzairak komunikazio-bide gisa. Artean dauden askotariko kodeak. Sormeneko eta iritzi estetikoko subjektibotasuna.*
5. Eraginak, maileguak, jarraipenak eta hausturak Artearen historian.*
6. Herritartasun etikoa ingurune analogiko eta digitaletan: artelana, egile-eskubideak eta jabetza intelektualarekiko errespetua. Informazioa, desinformazioa eta manipulazioa.*
B. Artea eta bere funtzioak historian zehar.
1. Artea eta bere funtzio magiko-erlijiosoa. Historiaurreko artea: interpretazio-teoriak, ezaugarri nagusiak, aroak eta adibideak. Labar-artea eta Arte higigarria Europan.* Arte etnikoa historiaurreko kulturak ulertzeko laguntza gisa.
2. Artea eta bere funtzio politikoa, boterearen komunikazio-tresna gisa. Testuinguruan kokatutako kasuen azterketa, ezaugarri nagusiak, aroak, artistak, adibideak eta bilakaera: – Arte mesopotamiarra, Arte egiptoarra eta Arte erromatarra.* – Gustuaren ordenamendu ofizialaren erabilera napoleonikoa: Arte neoklasikoa.* – Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko Errealismo sozialista, estetika faxista italiarra, nazi alemaniarra eta haren interpretazioa Espainia frankistan: pentsamendu politikoaren adierazpenaren adibideak arkitekturan, eskulturan, pinturan, karteletan, argazkilaritzan eta zineman. – Artearen eta interes politiko eta ekonomikoen arteko harremana, Aro garaikideko herritar berriak prestatzeko.
3. Artea eta bere funtzio estetikoa. Arte grekoaren azterketa, testuinguruan kokatzea, ezaugarri nagusiak, aroak, artistak, adibideak eta bilakaera.*
4. Artea eta bere funtzio propagandistikoa. Artea kontsumo-gizartean —artelana kontsumo-objektu gisa eta publizitatea gizartearen isla gisa (gustuak, ezinikusiak eta kontsumo-ohiturak)—. *Pop art*-etik *artelanen auraren galera*ra, Walter Benjamin-en iritziz.*
5. Artea eta bere funtzio pedagogiko erlijiosoa gizarte teozentrikoetan. Azterketa, testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak, bilakaera eta kasuen arteko erlazioa: – Arte paleokristaua eta Arte bizantziarra.* – Arte islamiarra Penintsula iberikoan.* – Arte erromanikoa eta Arte gotikoa.* – Arte erromanikoaren eta Arte gotikoaren gorabehera Euskal Herrian.*

Artearen Historia
6. Artea eta gizarte-bereizle gisa betetzen duen funtzioa: mezenasgoa eta bilduma- zaletasuna. Azterketa, testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak, bilakaera eta kasuen arteko erlazioa: – Errenazimenduko artea.* – Arte barrokoa.* – Errenazimendua eta Barrokoa Euskal Herrian.*
7. Artea eta bere funtzio kritikoa. Azterketa, testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak, bilakaera eta kasuen arteko erlazioa: – Goyaren pintura.* – Erromantizismoa.* – Errealismoa.* – Dadaismoaren ukapenetik eta transgresiotik Surrealismoaren baieztapenera.* – Neodadaismoa.* – Pop artea.*
8. Artea, eta arteak sentimenduak eta emozioak komunikatzeko betetzen duen funtzioa. Testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak eta bilakaera: – Erromantizismoa.* – Pintura inpresionista eta postinpresionista.* – Fauvismo frantziarra.* – Espresionismoa eta Espresionismo abstraktua.*
9. Artea eta aurrerapen teknologikoak, Industria Iraultzatik aro digitalera. – Industria Iraultza: material berriak, joera arkitektoniko berriak, espazioaren ikuskera berria eta hiri-zabalguneak.* – Testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak eta bilakaera: – Funtzionalismo arkitektonikoa.* – Futurismoa.* – Argazkilaritzaren eta zinemaren iraultza. – Postmodernitatea eta Arte digitala.
10. XIX. eta XX. mendeetako artea Euskal Herrian. Adibideak: Adolfo Guiard, Arteta, Iturrino, Oteiza eta Chillida. Pintura berria eta euskal eskultura: Ruiz Balerdi, Zumeta, Dora Salazar, Txomin Badiola, Cristina Iglesias, Juan Luis Moraza.*
11. Artisautzatik diseinura. Testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak eta bilakaera: Modernismoa, Art Noveau eta Art Decó.*
12. Artea eta Abstrakzioa. Testuinguruan kokatzea, ezaugarri orokorrak, aroak, adibideak eta bilakaera: – Kubismoa.* – Suprematismoa eta Neoplastizismoa.* – Abangoardiako eskultura.* – Europako Informalismoa.* – Abstrakzio postpiktorikoa.*
C. Artearen dimentsio indibidual eta soziala.
1. Artea eta identitate indibiduala eta kolektiboa. Geure burua irudikatzeko beharra: giza gorputzaren irudia eta erretratua. Artistaren irudiaren bilakaera. Eskolak, erregionalismoak eta identitate kolektiboak.*
2. Emakumea artean: – Emakumearen irudikapena, ikuspegi kritikotik.* – Emakumeak artista gisa eta ikusgarritasuna lortzeko egin duten borroka, historian zehar. Artemisia Gentileschi-tik Helen Frankenthaler-era.*
3. Ondare artistikoa: balio soziala, kulturala eta memoria kolektibokoa. Zaintza, kontserbazioa, zaharberritzea eta erabilera jasangarriak. Museografiaren eta Museologiaren arteko aldea eta elkarren osagarriak. Ondare nazionalaren legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ondarearen legea.*
D. Errealitatea, espazioa eta lurraldea Artean.
1. Pintura, espazioa eta perspektiba: hirugarren dimentsioaren konkista.*
2. Arkitektura eta espazioa: espazio arkitektonikoen sorrera. Funtzionalismo eta Arrazionalismo arkitektonikoa.*

Artearen Historia
3. Artea eta lurraldean esku hartzea: hirigintza arte gisa.*
4. Arkitektura eta hirigintza Euskal Herrian.*
5. Artea eta ingurumena. – Arkitektura, hirigintza eta diseinu jasangarria. – Arteak Garapen Iraunkorreko Helburuei egiten dien ekarpena.*

EKONOMIA

Egungo munduan planteatzen diren erronkei eta desafioei erreparatuta, beharbeharrezkoa da zenbait arloren arteko interkonexioa, hala nola arlo ekonomikoaren, sozialaren eta ingurumenekoaren artekoa. Gai ekonomikoek gero eta garrantzi handiagoa dute gizartearen zenbait alorretan, eta gugan oso eragin zuzena dute modu indibidualean eta kolektiboan. Hori dela eta, ekonomiari buruzko berariazko prestakuntza baten beharra planteatzen da, ikasleek ekonomia egungo errealitatearen oinarrizko alderdia dela ulertzeko beharrezko giltzarriak izan ditzaten. Batxilergoko curriculumean diziplina hori barne hartzeak aukera ematen du egungo gizartearen ikuspegi zabalagoa eta zehatzagoa eskuratzeko, eta laguntzen du hiritartasuna jarrera gogoetatsuz eta kontzientez baliatzen, egungo arazoak ulertzen laguntzen baitu, hala nola inflazioa, langabezia, baliabideen agortzea, pobrezia, azpigarapena, globalizazioa eta abar. Horrekin, ikasleak, prestakuntza-aldi honetan, kontzienteagoak izango dira gaur egun ekonomian betetzen duten eginkizunaz, hau da, kontsumitzaile, aurreztaile eta zergadun gisa eta ondasun eta zerbitzu publikoen erabiltzaile gisa betetzen duten eginkizunaz, eta etorkizunean errenta sortzaile gisa eta herritar libre gisa izango duten eginkizunaz.

Ikasleek Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako funtsezko konpetentzia guztiak eskuratu izana hartzen du abiapuntu jakintzagaiak, baina, bereziki, ekintzailetza-konpetentzia, herritartasunerako konpetentzia, konpetentzia digitala eta konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Konpetentzia horiek osatuko dira ekonomia eta aukera sozial eta ekonomikoak ulertzea ahalbidetuko duten elementuekin eta erakunde batek edo gizarteak berak aurre egin beharreko zailtasunekin, baita gogoeta kritiko eta eraikitzailearekin eta egungo arazo eta erronketarako soluzio-proposamenarekin ere.

Batxilergoko lehen mailako Ekonomia jakintzagaiak diziplina anitzeko izaera duenez gero, eskatzen du osagarri izango diren beste jakintzagai batzuk (matematika, ingelesa, filosofia eta etika, informatika eta abar) ikastearen bidez bereganatzea eta garatzea ezagutzak. Ekonomia jakintzagaiak, halaber, beste jakintzagai horietako jakintzak hobeto bereganatzen eta ulertzen lagunduko du; horregatik, ezinbestekoa da jakintzagai horietako irakasleekin eraginkortasunez koordinatzea, konpetentziak behar bezala eskura daitezen.

Curriculumak ikasleentzat adierazgarriak, funtzionalak eta interesgarriak diren ikaskuntzak lantzen ditu, eta zenbait alderdi garatzen dituzten konpetentzia espezifikoak eskuratzearen inguruan antolatuta dago. Lehenik eta behin, saiatzen dira azaltzen eskasiak portaera ekonomikoak baldintzatzen dituela, bai maila pertsonalean bai sozialean. Bigarrenik, proposatzen dute errealitatea aztertzea zientzia ekonomikoak berak eskaintzen dituen tresnen bidez—tresna horiei esker, batetik, ikuspegi mikroekonomikotik, eragile ekonomikoen portaera aztertu ahal izango da, eta, bestetik, ikuspegi makroekonomikotik, funtzionamendu ekonomiko agregatua aztertu ahal izango da—.Hirugarrenik, esku-hartze ekonomikoko tresnen eta ekonomia-politiken azalpena barne hartzen du, baita soluzio berriak behar dituzten egungo ekonomiaren erronken erakusketa ere. Ekonomia-zientziak —gizarte-zientzia den heinean— ekintzarako proiekzioa du, eta ekonomian esku hartzeko proposamenak garatzeko eta gizartearen ongizatea hobetzen laguntzeko aukera ematen du.

Ebaluazio-irizpideen helburua da jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak zenbateraino lortu diren zehaztea, jakintzak zenbateraino barneratzen diren eta nola aplikatzen diren egiaztatzea eta ikasleak bere garapen pertsonalerako eta akademikorako jarrera eta balio garrantzitsuak hartzen dituen zehaztea. Horien formulazioan, beraz, jakitearen, egiten jakitearen eta izaten jakitearen erreferentziak jasotzen dira.

Konpetentzia espezifikoak eskuratzen laguntzen duten oinarrizko jakintzak bost multzotan antolatzen dira. Lehen multzoa lotzen da errealitatearen analisitik abiatuta hartutako erabaki ekonomikoekin. Bigarren eta hirugarren multzoak lotzen dira ikasleei errealitate ekonomikoa mikroekonomiaren eta makroekonomiaren ikuspegitik ulertaraziko dieten tresnen erabilerarekin eta ezagutzarekin. Laugarren multzoa lotzen da ekonomia-politikekin, terminologiaren alderdi nagusiekin eta esparru globalizatu bateko ingurune ekonomikoan duten eraginarekin, baita arazoekin eta arazo horiei erantzuteko gobernuek erabiltzen dituzten tresnekin ere. Bosgarren eta azken multzoa oinarritzen da egungo ekonomiaren erronketan eta Espainiako ekonomiaren indarguneen eta ahulezien identifikazioan.

Aurreragoko ikasketei egokituko zaie multzo horietan barne hartzen diren oinarrizko jakintzetan sakontzea. Izan ere, jakintzagai honen helburua da ikasleek ekonomiaren arloko jakintzekin lehenengo harremana izatea eta jakintza horiek ulertu eta erlazionatzea; hartara, ikasleek ikuspegi orokor eta integratzailea lortuko dute.

Azkenik, jakintzagai hau ikuspegi teoriko-praktikotik planteatzen da; jakintzak errealitate sozioekonomikoari buruzko kasuen eta ikerketen analisirako aplikatuko dira eta, horretarako, behaketako eta ikerketako metodoak eta prozedurak eta analisi ekonomikorako tresnak erabiliko dira. Ikuspegi ekonomikotik egingo den errealitatearen analisitik abiatuta eta beste diziplina batzuekin dituen interkonexioak kontuan hartuta, ikasleek erabaki arrazoituak hartu ahal izango dituzte, eta egungo gizarteak planteatutako erronka berriei erantzuteko soluzioak emango dituzten ekimenak proposatu ahal izango dituzte.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Eskasiaren arazoa eta arlo ekonomikoko erabakiak hartzearen garrantzia baloratzea, sektoreetan duen eragina aztertuz eta sistemek eskaintzen dituzten soluzio alternatiboak alderatuz, errealitate ekonomikoaren funtzionamendua ulertzeko.

Eskasiaren arazo ekonomikoa osotasunean aztertu behar da, baita sektoreei nola eragiten dien ere; gainera, sistema ekonomikoek proposatzen dituzten soluzio alternatiboak aztertu beharko dira, horietako bakoitzaren abantailak eta eragozpenak modu kritikoan baloratzen ikas dadin. Horregatik, behar-beharrezkoa da ikasleak arazo horri buruz ikertzea, eta, horretarako, behar den informazioa zenbait iturritan bilatu eta tratatzea, matematika-arrazoibidearen berezko metodo induktiboak eta deduktiboak erabiltzea eta, ondoren, ikerketa horren emaitza komunikatzea, hizkuntza tekniko egokia erabiliz.

Egungo errealitate ekonomikoaz jabetzeak, bestalde, erabaki arduratsuak hartzeko garaian gure portaera hobeto ulertzeko aukera ematen du, bai norberaren beharrak ase nahi direnean, bai baliabideak zuzen banatu nahi direnean.

Era berean, globalizazioak eta kooperazio eta integrazio ekonomikoko prozesuek, ekoizpen-egitura globala ez ezik, egitura ekonomikoa eta gizartearen osotasuna ere nola aldatzen duten hausnartu beharko da.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, STEM2, KD1, KPSII3.2, KPSII5, EK1, EK2.

2. Merkatuaren funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea, merkatuaren akatsak analizatuz, akats horiek ingurunean duten eragina aztertzeko eta erabaki ekonomikoak errazago hartzeko.

Ikasleek merkatu moten eta konpetentzia-ereduen funtzionamendua ulertu behar dute, eskaintzan eta eskarian gertatzen diren aldaketen ondorioak interpretatu eta aurreikus ditzaten eta horren arabera jardun dezaten. Bestalde, ekonomiaren funtzionamenduan esku hartzeko beharra azaltzen duten merkatuaren akatsak eta mugak espiritu kritikoz hauteman eta aztertu behar dituzte, ekonomia-politikako zenbait neurriren bidez. Horren guztiaren ondorioz, ikasleek sektore publikoaren zeregin erregulatzailea

eta ekonomia-politikako neurriak ezagutuko dituzte, eta politika horiek aukera-berdintasunean, hazkundean eta errentaren birbanaketan dituzten ondorioei buruz gogoeta egingo dute.

Era berean, erakunde- eta politika-arloko euskal berezitasuna kontuan hartuta, ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoko berezitasun fiskalari buruzko ikerketa-lan bat egingo dute, eta, horren bidez, zerga- eta finantzaketa-sistema propioa izatearen ondorioak baloratuko dituzte. Batik bat Ekonomia Ituna nabarmendu beharko dute, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko zerga- eta finantza-harremanak egituratzen dituen elementua den heinean. Horretarako, horri buruzko informazioa bilatuko dute, euskarri digitalean nahiz analogikoan, eta modu kolaboratiboan arituko dira —horrek dakartzan jarrerak eta ohiturak sustatu beharko dira—.Ondoren, informazio hori zentzuz eta hizkuntza tekniko egokia erabiliz partekatuko dute.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, STEM1, KD1, KD2, KPSII3.2, HK2, HK3, EK1, EK2.

3. Errentaren fluxu zirkularrean esku hartzen duten eragile ekonomikoen zeregina bereiztea eta baloratzea, haren interakzioak ulertuz eta sortzen dituen onurak eta desorekak zentzu kritikoan onartuz, garapen ekonomikoa nola gertatzen den eta gizartearen ongizatearekin zer lotura duen azaltzeko.

Errealitate ekonomikoa ikuspuntu makroekonomikotik ulertuko bada, eragile ekonomikoek garapen ekonomikoan eta gizartearen ongizatean duten zeregina aztertu beharko da. Horietako bakoitzak garapen horretan laguntzen du bere partaidetzarekin, betiere lanaren, aurrezkiaren, gastuaren, zerga-politikaren edo dirulaguntzen bidez, besteak beste.

Errenta-fluxuaren ondoriozko hazkundeak onurak sortzen ditu, baina baita desorekak ere, hala nola langabezia eta kostuak, enpresa-kontzentrazioaren ondoriozko migrazio-fluxuak, ezkutuko ekonomia edo ingurumen-jasangarritasuna. Ikasleek elementu horiek ezagutu eta baloratuz gero, garapen ekonomikoa nola gertatzen den azaltzeko eta egoera problematikoetarako alternatibak planteatzeko behar diren jakintzak eskuratuko dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KPSII3.2, KPSII5, HK3, HK4, EK1, EK2.

4. Finantza-sistemaren eta diru-politikaren funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea, ekonomia errealean dituzten ondorioak baloratuz eta finantzaerabakietan esku hartzen duten elementuak aztertuz, norberaren finantzak erantzukizunez eta autonomiaz planifikatu eta kudeatzeko eta finantza-erabaki arrazoituak hartzeko.

Bizitzan zehar ditugun premia ekonomikoak desberdinak direla kontuan hartuta, ikasleek finantza-sistemaren funtzionamendua ezagutu behar dute, baita finantzasistemak inbertsioarekin, aurrezkiarekin, zorpetzearekin, aseguruekin eta abarrekin lotuta eskaintzen dituen produktuak ere. Horrela, finantza-erabakiak hartzeko gaitasuna hobetuko dute eta gastu pertsonalak autonomiaz planifikatu eta kudeatuko dituzte. Era berean, garrantzitsua da ikasleek ulertzea finantza-sistemak norantz jotzen duen, gizarte- eta teknologia-aldaketei dagokienez eta gaur egun planteatzen diren erronkei dagokienez.

Gainera, ikasleek jakin behar dute zer tresnek emango dieten aukera dirupolitikak aztertu eta baloratzeko eta, egungo finantza-esparruaren barruan, politika horiek inflazioan, hazkundean eta ongizatean dituzten ondorioak ulertzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KD4, KPSII1.2, KPSII3.2, KPSII5, EK1, EK2.

5. Egungo ekonomiak aurre egin beharreko erronkak eta desafioak identifikatzea eta baloratzea, globalizazio ekonomikoaren, ekonomia berriaren eta iraultza digitalaren inpaktua aztertuz, ekitatea, justizia eta jasangarritasuna sustatzen dituzten ekimenak proposatzeko.

Egungo ekonomiak erronka eta desafio handiei egin behar die aurre, harreman ekonomikoak gero eta konplexuagoak diren testuinguru globalizatuan. Testuinguru berri horretan, ekonomia berriak eta iraultza digitalak enpleguan eta errentaren banaketan duten eragina hauteman behar da.

Ikasleek modu kritikoan baloratu behar dute beren portaera kontsumitzaile, erabiltzaile eta balizko errenta-sortzaile gisa. Horretarako, globalizazioa eta globalizazioarekin lotutako arazoak ezagutu eta aztertu behar dituzte. Ezagutza horrek bere ingurune hurbilean ekimenak sor daitezen eta ekonomian modu aktiboan parte har dadin eragin dezake, berdintasuna, kontsumo arduratsua, etengabeko hobekuntza eta gizarte-ongizatea sustatzen dituzten ekintzen bidez.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, STEM5, KD5, KPSII1.2, KPSII3.2, KPSII5, EK1.

6. Egungo arazo ekonomikoak kasuen azterketaren, ikerketaren eta esperimentazioaren bidez analizatzea, analisi ekonomikorako tresnak erabiliz eta eragile ekonomikoen erabakiak baldintzatzen dituzten faktoreak kontuan hartuz, arazo horiek errazago ulertzeko eta behar indibidualei eta kolektiboei erantzungo dieten soluzio berritzaileak eta jasangarriak planteatzeko.

Errealitate sozioekonomikoaren azterketa konplexua da. Horregatik garrantzitsua da errealitatea sakonago ulertzen lagunduko duten eta errealitatean esku hartzeko laguntza emango duten zenbait analisi-metodo erabiltzea eta, horien bidez, gizartearen hobekuntzan eta ongizatean lagunduko duten baliozko proposamenak eta soluzioak eskaintzea. Garrantzitsua da ikasleek ekonomia esperimentalaren berezko tresnak erabiltzen ikastea, adibidez, hurbileko gaiei buruzko esperimentu ekonomiko errazak diseinatzea eta martxan jartzea, oinarrizko proiektu ekonomiko-enpresarial baten kostuetekina aztertzea edo errealitate ekonomikoari buruzko kasuak metodo zientifikoaren bidez aztertzea.

Bestalde, interesgarria da errealitatea portaeraren ekonomiaren ikuspegitik aztertzea, eta, alderdi ekonomikoez gain, beste faktore kognitibo, psikologiko, soziologiko, emozional eta ingurumeneko batzuk ere kontuan hartzea, egungo arazoei erantzun dakien.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM1, KPSII5, HK3, HK4, EK1, EK2, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ekonomia
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Egungo errealitate ekonomikoa ulertzea, integrazio ekonomikoko prozesuak baloratuz, eta hartutako erabakiek sektore ekonomikoetan duten eragina eta horren ondoriozko desoreka sektorialak aztertuz, euskal testuinguruan ere bai.
1.2 Gaia jorratuko duen ikerketaren bidez, eskasiaren arazoa baloratzea, baita sistema ekonomiko ororen oinarrizko arazoen giltzarri erabakigarriak aukeratzeko beharra ere, sistemek eskaintzen dituzten soluzio alternatiboei buruzko konparazioak eginez.
1.3 Globalizazioak eta kooperazio-prozesuek ekoizpen-egitura globala, egitura ekonomikoa, enpresen portaera eta gizarte osoa aldatzen duten moduaz gogoeta egitea.
1.4 Erabaki ekonomikoak modu indibidualean eta kolektiboan hartzeko garaian esku hartzen duten prozesuak ezagutzea, gizartean duten eragina aztertuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1 Merkatuaren funtzionamendua eta merkatuan egiten diren transakzioen izaera ulertzea, ekonomia eta gizartea hobetzeko iturri gisa duten garrantziari buruz gogoeta eginez.
2.2 Merkatuaren akatsak espiritu kritikoz aztertzea, akats horien ondorioak ebaluatuz eta izan ditzaketen soluzioei buruz hausnartuz.
2.3 Ekonomia-politikak, sektore publikoak esku hartzeko neurri gisa, duen garrantzia onartzea, ongizate-estatua mantentzeko eta sostengatzeko betetzen duen funtsezko eginkizuna baloratuz.

Ekonomia
2.4 Euskal berezitasun fiskalari buruzko ikerketa-lanaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoak zerga- eta finantzaketa-sistema propioa izatearen ondorioak baloratzea, Ekonomia Itunak Estatuko gainerako lurraldeekiko zerga- eta finantza-harremanen elementu egituratzaile gisa betetzen duen eginkizuna aitortuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1 Ekonomiaren garapena eta hazkundea eta gizarte-ongizatea nola gertatzen diren azaltzea, errentaren fluxu zirkularrean esku hartzen duten eragile ekonomikoen interakzioa zentzu kritikoan ulertuz eta baloratuz.
3.2 Errenta-fluxuaren ondoriozko hazkundeak sortzen dituen desorekak eta onurak ezagutzea, desoreka horietarako balizko soluzio izan daitezkeen alternatibak planteatuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1 Finantza-sistemaren funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea, ekonomia errealean dituen ondorioak baloratuz eta inbertsioan, aurrezkian eta finantza-produktuetan duen eragina aztertuz.
4.2 Eguneroko bizimoduan eragina duten erabaki ekonomikoak hartzerakoan, jakintzagaiaren bidez eskuratutako finantza--ezagutzak erabiltzea eta aplikatzea, erantzukizunez planifikatuz eta kudeatuz, eta ezagutza horien egokitasuna eta ekonomia errealean izan ditzaketen ondorioak baloratuz.
4.3 Diru-politikaren berezko tresnak ezagutzea eta aztertzea, finantza-merkatuaren testuinguruan aplikatuz eta ikuspegi globaletik ekonomian duten eragina modu kritikoan baloratuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1 Ekitatea, justizia eta jasangarritasuna sustatuko dituzten ekimenak proposatzea, egungo ekonomiak planteatzen dituen erronken eta desafioen identifikaziotik abiatuta, eta globalizazioak, ekonomia berriak eta iraultza digitalak herritarren ongizate ekonomiko eta sozialean eragiten duten eragina zentzu kritikoan aztertuz.
5.2 Egungo erronka ekonomikoak ulertzea, ingurunea modu kritikoan eta eraikitzailean aztertuz, ekonomia baldintzatzen eta eraldatzen duten elementuak identifikatuz eta erronka horiek planteatzen dituzten beharrei erantzungo dieten ekimenak sustatuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1 Behar indibidualei eta kolektiboei erantzungo dieten soluzio sozioekonomikoak planteatzea, errealitate ekonomikoa ikertuz, zenbait faktore kontuan hartuz eta ekonomiaren esparruko berezko tresnak aplikatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Ekonomia
A. Erabaki ekonomikoak
1. Ekonomia, beharrak, ondasunak eta eskasia. Energia-baliabideen mendekotasunaren eta gainustiapenaren ondorioekiko sentsibilizazioa*. Gizarteharremanen eduki ekonomikoa. Erabaki ekonomikoek hainbat sektoretan duten inpaktua ezagutzea: Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-sektoreen bilakaera eta horren ondoriozko desoreka sektorialak. Modelizazioa, interakzio ekonomikoak ulertzeko tresna gisa.
2. Erabaki ekonomikoak hartzeko prozesua. Arrazionaltasuna. Aukera-kostua*. Kostu berreskuraezinak. Analisi marjinala. Pizgarriak eta igurikapenak. Jokoen teoria.*Efizientzia. Arriskua eta ziurgabetasuna.
3. Ekonomia-antolamendu eta ekonomia-sistemak; balorazioa eta konparazioa*.
4. Finantza-erabakien plangintza eta kudeaketa: inbertsioa, aurrezkia eta kontsumoa. Dirua eta transakzioak. Diruaren funtzioak eta diru-formak. Arriskua eta etekina. Bankuek ekonomian betetzen duten zereginari buruzko gogoeta kritikoa.* Finantzaproduktuen funtzionamendua, hala nola maileguak, hipotekak eta horien ordezkoak*. Aseguruak.
5. Portaeraren ekonomia. Arrazionaltasun ekonomikoaren desbideratzeak. Erabaki ekonomikoak eta etika.
6. Errealitate ekonomikoa aztertzeko metodoak: metodo zientifikoa, modelizazioa eta esperimentu edo entsegu ekonomikoak.
B. Errealitate ekonomikoa. Mundua ikuspegi mikroekonomikotik ulertzeko tresnak
1. Trukea eta merkatua.* Merkatu motak eta funtzionamendua*. Irudikapen grafikoa. Elastikotasuna.*Merkatu-akatsak eta sektore publikoaren esku-hartzearen balorazio positiboa*. Kostua/etekina analisia.

Ekonomia
C. Errealitate ekonomikoa. Mundua ikuspegi makroekonomikotik ulertzeko tresnak
1. Makroekonomia. Eragile ekonomikoak eta errentaren fluxu zirkularra.* Eskari erantsia, eskaintza erantsia eta horien funtzionamendua.
2. Hazkunde ekonomikoari eta garapenari buruzko analisi kritikoa. Hazkundearen faktoreak*. Errentaren banaketa: efizientziaren eta ekitatearen arteko erlazioa.* Garapen sozialaren adierazleak*. Ongizatea eta bizi-kalitatea.
3. Lan-ekonomia. Lan-merkatuen funtzionamendua eta joerak.*Iraultza digitalak eta teknologikoak merkatu horretan eragindako aldaketen balorazio kritikoa. Langabezia motak. Ondorioak eta neurri zuzentzaileak. Soldata-arrakala. Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuaren berezitasuna*
4. Nazioarteko merkataritza, integrazio ekonomikoko prozesuak eta horien ondorioak. Protekzionismoa eta merkataritza askea.*Europako Diru Batasuna*
5. Finantza-sistema, haren funtzionamendua eta ondorioak*. Finantza-panoramaren bilakaera. Dirua. Diruaren tipologia eta dirua sortzeko prozesua.
D. Ekonomia-politikak
1. Ekonomia positiboa eta ekonomia normatiboa.* Estatuaren esku-hartzea eta horren justifikazioa. Ekonomia-politika eta haren ondorioak*.
2. Zerga-politika. Euskal Autonomia Erkidegoko fiskalitatea eta Ekonomia Ituna. Ongizate-estatua eta horren finantzaketa. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu publikoak, generoaren ikuspegitik. Solidaritate-printzipioa eta zergen balio sozialaren onarpena. Defizit publikoa, zor publikoa eta horien ondorioak. Ezkutuko ekonomia*.
3. Diru-politika eta prezioen egonkortasuna. Diru-merkatuaren funtzionamendua. Inflazioa: azalpen-teoriak. Diru-politikek inflazioan, hazkundean eta ongizatean duten ondorioa*.
E. Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren erronkak testuinguru globalizatuan
1. Globalizazioa: azalpen-faktoreak, aukerak eta arriskuak. Krisiaren, aukera gisa, onarpena eta balorazioa. Desberdintasunen gutxitzea/handitzea: azpigarapena. Pobrezia herrialde garatuetan: Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua*.
2. Ekonomia berria eta iraultza digitala*. Ekonomia kolaboratiboa. Ekonomia zirkularra. Iraultza digitalak enpleguan eta errentaren banaketan duen inpaktuari buruzko irizpen kritikoak. Biztanleria aktiboa iraultza digitalaren erronketara egokitzeko estrategia.
3. Ongizate-estatuaren etorkizuna*. Pentsioen jasangarritasuna.* Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren zahartzearen problematika*. Migrazio-fluxuak eta horien inplikazio sozioekonomikoak.
4. Beherakada ekonomikoari buruzko teoriak.
5. Garapen Iraunkorraren Helburuak (GIH) eta egungo erronka ekonomikoak*. Aztarna eta zor ekologikoa. Tokiko kasuen azterketa: Garapenerako 2030 Agendari Euskal Autonomia Erkidegoak egiten dion ekarpena; gizarte- eta ekonomia-itunak.

ENPRESA ETA NEGOZIO EREDUEN DISEINUA

Enpresa-erakundeak gure eguneroko bizitzaren parte dira, eta milioika pertsonek, eguneroko lanaren bidez, beren bizi-proiektua gara dezaten ahalbidetzen dute. Era berean, gure gizarteak aurrera egin dezan laguntzen dute. Horrexegatik da garrantzitsua haren funtzionamendua aztertzea, gure ingurunean izandako aldaketen ondorioz sortzen diren arazoei erantzuteko eta irtenbideak bilatzeko aukera ematen baitigu, proiektu ekintzaile berritzaileen sorreraren bidez.

Diziplina hori Batxilergoko Curriculumean sartzeak espiritu ekintzailea sendotzen laguntzen du, sormena, malgutasuna, ekimena, talde-lana, norberaren gaineko konfiantza eta zentzu kritikoa gisako jarreren bidez. Horrekin, ikasleek, prestakuntzaetapa honetan, trebetasun sozialak eta taldeetan eta erakundeetan integratzeko trebetasunak gara ditzakete, konpetentziak behar bezala garatze aldera. Era berean, gizarte-zientziekin zerikusia duten ikasketetarako irteerak bideratu eta erraztu nahi dira, batez ere ekonomiaren eta administrazioaren arloko ikasketetarako irteerak. Horrez gain, gero eta beharrezkoagoak diren harremanetarako eta komunikaziorako gaitasunekin, informazioaren tratamendurako teknika arrazionalen erabilerarekin, ekimenarekin eta autonomiarekin lotzen diren irteerak ere bideratu eta erraztu nahi dira.

Aurrekoa bat dator Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioan etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruz jasotakoarekin. Gomendio horretan adierazten denez, pertsonek ekonomia eta aukera sozial eta ekonomikoak ulertu behar dituzte, baita enpresa, erakunde edo gizarte batek aurre egin beharreko zailtasunak ere.

Jakintzagai honek bi helburu ditu: batetik, ikasleak enpresaren ezagutzara hurbiltzea —garapen ekonomikoaren katalizatzaile den heinean— eta, horretarako, berrikuntza enpresa-jardueraren funtsezko alderdi gisa nabarmentzea eta erantzukizun sozial korporatiboaren berezko balioak integratzea; bestetik, sormena eta berrikuntzaespiritua eta gogoeta kritikoa sustatzea, eta negozio-eredua diseinatzeko eta haren bideragarritasuna aztertzeko erabaki arrazoituak har daitezen sustatuko duen ekintzailetza-kultura sustatzea.

Ikasleek Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako funtsezko konpetentzia guztiak eskuratu izana hartzen du abiapuntu jakintzagaiak, baina, bereziki, ekintzailetza-konpetentzia, herritartasunerako konpetentzia, konpetentzia digitala eta konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Konpetentzia horiek osatuko dira enpresen funtzionamendua eta aukera sozial eta ekonomikoak ulertzea ahalbidetuko duten elementuekin eta aurre egin beharreko zailtasunekin, baita gogoeta kritiko eta eraikitzailearekin eta egungo arazo eta erronketarako soluzio-proposamenarekin ere.

Giza eta Gizarte Zientzietako Batxilergoko bigarren mailako Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua jakintzagaiak diziplina anitzeko izaera duenez gero, zenbait arlo osagarriren bidez (matematika, ingelesa, filosofia eta etika, informatika eta abar) jakintzak eskuratzea eta garatzea eskatzen du. Enpresa-munduaren ikasketak, halaber, beste jakintzagai horietako jakintzak hobeto bereganatzen eta ulertzen lagunduko du; horregatik, ezinbestekoa da arlo horietako irakasleekin eraginkortasunez koordinatzea, konpetentziak behar bezala eskura daitezen.

Jakintzagai hau ikaskuntza adierazgarri, funtzional eta ikasleentzat interesgarri batzuetatik abiatuta garatzen da, eta konpetentzia espezifiko batzuk eskuratzearen inguruan antolatuta dago. Konpetentzia horiek, lehenik eta behin, enpresa-jarduerak eta ekintzailetzak gizarte-eraldaketan duten garrantziari buruzkoak dira. Bigarrenik, ingurunea ezagutzeari buruzkoak dira, ingurunearen eta enpresen arteko erlazioak zehazteko. Hirugarrenik, enpresen funtzionamenduari eta barne-egiturari buruzkoak eta negozio-eredu berrien proposamenari buruzkoak dira. Laugarrenik, tresna berritzaileen erabilerari eta enpresek egiten duten komunikazio-estrategien erabileraren balorazioari buruzkoak dira. Azkenik, planteatutako negozio-ereduari buruzkoak dira —enpresaanalisirako tresnak erabiliko dira negozioaren bideragarritasunari buruzko ondorioak ateratzeko—.Egindako prozesuan ikasitakoari esker, ikasleek oinarrizko enpresa-plana idazteko eta aurkezteko behar diren ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak eskuratzen dituzte.

Ebaluazio-irizpideen helburua da jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak zenbateraino lortu diren zehaztea, jakintzak zenbateraino barneratzen diren eta nola aplikatzen diren egiaztatzea eta ikasleak bere garapen pertsonalerako eta akademikorako jarrera eta balio garrantzitsuak hartzen dituen zehaztea. Horien formulazioan, beraz, jakitearen, egiten jakitearen eta izaten jakitearen erreferentziak jasotzen dira.

Konpetentzia espezifikoak eskuratzen laguntzen duten oinarrizko jakintzak lau multzotan antolatzen dira.

– *Enpresa eta bere ingurunea* multzoa enpresa-proiektu baten jatorria ezagutzean datza: arriskatzen duen eta jarduera erantzukizun sozialaren, berdintasunaren eta inklusioaren testuinguruan egiten duen pertsona, ingurunea kontuan hartzen duena eta joera aldakorren eta berrikuntza funtsezko faktoretzat jotzearen garrantziaz jabetzen dena. Euskal inguruneari dagozkion zehaztapenak ere jasotzen dira, eta, hala, enpresa-proiektu hori zehatzago eta hurbilago kokatzen da testuinguruan.

– *Negozio- eta kudeaketa-eredua* multzoa negozio-ereduaren kontzeptupean dauden enpresaren arlo funtzionalak aztertzera bideratuta dago. Arlo horiek edozein enpresaren ardatz nagusiak biltzen dituzte, jarrera tradizionalenetatik berritzaileenetara. Negozio-ereduen patroien azterketa barne hartzen du, eta ikasleei egun indarrean dauden adibideak eskaintzen dizkie, balioa sortuko duten eta testuinguru berrietara egokitzen diren beste proposamen batzuetarako inspirazio-iturri izan daitezkeenak.

– *Negozio- eta kudeaketa-ereduetan berritzeko tresnak* multzoak sormen- eta berrikuntza-aukera handiagoak eskaintzen dituzten eta prozesuaren faseetan aplika daitezkeen baliabideak eta tresnak aurkezten dizkie ikasleei.

– *Enpresa-estrategia eta enpresa-errealitatea aztertzeko metodoak* multzoa lotzen da proiektuaren bideragarritasuna zehazteko enpresa-analisirako tresnak aplikatzea ahalbidetzen duten jakintzekin. Urteko kontuen analisia barne hartzen du, testuinguru jakin baten barruan oinarrizko enpresa-plan bat idaztera begira.

Jakintzagai hau ikuspegi teoriko-praktikotik planteatzen da, betiere negozio-eredu baten proposamenaren bidez. Izatez, negozio-eredurako proposamen hori egitean, jakintza multzoak jorratuko dira, praktikan jarriko dira eta ereduaren bideragarritasuna ebaluatzeko egindako prozesu osoa ulertuko da. Horrela, enpresa baten negozio-eredua sostengatzen duten ardatzei, erantzukizun sozial korporatiboaren eztabaidari eta emakumeen inklusio eta zereginari buruzko ikerketa egin ondoren, egoera jakin bati aplikatutako negozio-eredua diseinatu ahal izango da, eta, zeregin horretan, arlo horretako jakintzetan jasotako tresnak erabili ahal izango dira. Hortik aurrera, negozioeredua baliozkotzen da, haren bideragarritasuna baloratzen da eta hautemandako desoreketarako soluzioak proposatzen dira. Horrela, ikasleak erabakiak hartzeko prozesuaren protagonista bihurtuko dira, eta oinarrizko enpresa-plan bat idazteko eta komunikatzeko behar den informazioa izango dute.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Enpresa-jarduera eta jarduera ekintzailea aztertzea, gizartean duten eraldatzeahalmena onartuz eta prozesu horretako berrikuntzaren eta digitalizazioaren balioaz gogoeta eginez, gaur egungo ekonomiaren funtzionamendu orokorrean duten zeregina ulertzeko.

Errealitatea ikuspegi ekonomikotik ulertzea funtsezkoa da gure gizartea hobeto ulertzeko; horregatik, ikasleentzat garrantzi handikoa da pertsona ekintzaileek eta enpresek egungo testuinguruaren elementu eraldatzaile gisa betetzen duten zeregina ezagutzea. Izatez, dinamismo handia eta teknologia berriak eta haien aplikazio ugariak azkar barneratzeko ahalmena egungo testuinguruaren bereizgarri dira. Horrek guztiak eraginda, aldatzen ari da ekoizpen-egitura orokorra, baita egitura ekonomikoa eta gizarte osoa ere, eta horrek berrikuntza funtsezko elementu bihurtzen du edozein enpresarentzat.

Ikasleak beren inguruan zer gertatzen den ulertzeko gai badira, beren bizitza eta gizartea hobetzeko erabakiak hartu ahal izango dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KD2, KD5, KPSII1.2, KPSII3.2, HK1, EK1, EK2.

2. Ingurune ekonomikoa eta soziala eta ingurune horrek enpresa-jardueran duen eragina ikertzea, enpresen eta ingurunearen arteko erlazioak aztertuz eta erantzukizun sozial korporatiboaren, berdintasunaren eta inklusioaren irizpideetatik abiatzen diren estrategia bideragarriak identifikatuz, enpresen egokitze-gaitasuna baloratzeko.

Errealitatea ikuspegi ekonomikotik eta sozialetik aztertzean, ikasleak jabetu daitezke inguruneak enpresan duen eraginaz eta enpresa-funtzionamenduak gizartean edo ingurumenean dituen ondorioez, besteak beste.

Enpresak ez dira gizartean gertatzen denaz kanpo dauden erakundeak; hori dela eta, ezinbestekoa da ulertzea ingurune orokorreko eta espezifikoko elementuek zer eragin duten hartzen diren erabakietan.

Jakin-mina piztea eta errealitateari buruzko ikuspegi irekia izatea izango da ingurune sozioekonomikoa ikertzearen abiapuntua. Ezagutza horri esker, ikasleek konpondu behar diren arazoak identifikatu ahal izango dituzte eta gizarte-ongizatea areagotzen duten enpresa-soluzioak proposatu ahal izango dituzte.

Horretarako, kontuan hartuko dute soluzio horiek baliabideen agortzea, prekarietatea, desberdintasuna eta bestelako desorekak eragin ditzaketela. Horregatik, funtsezkoa da ikasleek jakitea enpresa batzuek zer ahalegin egiten duten beren enpresa-helburuak Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) bat egin dezaten. Izatez, enpresa horiek Erantzukizun Sozial Korporatiboa (ESK) barne hartzen dute, eta, horrela, desoreka horiek murrizten lagunduko dute eta gizarte bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortzen lagunduko duen balio-proposamena sortzeko gai izango dira, ingurunera azkar egokitzeari utzi gabe. Halaber, ezinbestekoa da ikaslea jabetzea enpresak zerga- eta lan-betebeharrak betetzen dituela, ongizate-estatuari euste aldera eta hura garatze aldera.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, STEM4, KD1, KPSII2, KPSII5, HK4, EK1.

3. Egungo negozio-ereduak ezagutzea eta ulertzea, beste eredu tradizional batzuekin alderatuz eta sormen-diseinua errazten duten estrategiak eta tresnak aplikatuz, balioa eman, beharrak ase eta ongizate ekonomiko eta sozialari laguntzen dioten negozioereduak proposatzeko.

Negozio-ereduak ezagutuko badira, enpresaren arlo funtzionalak aztertu beharko dira (ekoizpen-arloa, komertziala, finantzarioa...), arlo horiek baitira edozein negozio-ereduren ardatz nagusiak, tradizionalenetik berritzaileenera.

Gaur egun enpresek, tradizionalenetik teknologikoenetara, ingurune dinamikoetan dihardute. Ingurune horietan aldaketak azkar batean gertatzen dira eta aurre egin beharreko arazoak konplexuak izaten dira. Ezaugarri horrek ziurgabetasun handia sortzen du etorkizunera begira, eta inpaktu handia eragiten du enpresen erabaki estrategikoetan.

Negozio-eredu berrien bidez (adibidez, *long tail, freemium*, multiplataforma eta app), enpresek ingurune horiei aurre egin diezaiekete eta bizkor jardun ahal izango dute. Ikasleek eredu horiek ezagutu beharko dituzte, eta beste batzuk sormenez eta espiritu berritzailez proposatzeko eta diseinatzeko gai izan beharko dute.

Negozio-ereduak sortzeko, CANVAS mihisearen tresna erabiltzea proposatzen da. Tresna horrekin, ikasleek beren balio-proposamena landuko dute eta jarduerak, baliabideak eta funtsezko asoziazioak egingo dituzte, baita kanalak eta bezeroekiko harremanak, kostuen egitura eta diru-sarreren iturriak landu ere. Tresna horrekin batera, beste tresna osagarri batzuk ere landu daitezke, hala nola bezeroen enpatia-mapa, ikusizko pentsamendua edo ozeano urdinen estrategia.

Gaur egun, enpresek helburu hauek ere planteatzen dituzte: aberastasuna eta, aldi berean, berrikuntza sortzea; etengabe hobetzeko eta ingurunera egokitzeko nahiari eustea; beharrak asetzea; eta gizarte-ongizatea areagotzea. Ezinbestekoa izango da ikasleek ulertzea dualtasun hori osagarria dela enpresaren ikuspuntutik.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, STEM2, KD1, KPSII3.2, HK3, EK1.

4. Enpresa-munduan aplikatzekoak diren komunikazio-estrategiak baloratzea eta aukeratzea, formula berriak erabiliz eta enpresaren barruan nahiz kanpoan sortzen den informazioa lortuz, erabakiak hartzeko prozesuan beharrezkoa den informazioa eraginkortasunez kudeatzeko eta behar bezala transmititzeko.

Edozein erabaki-prozesutan informazioa eskuratzea eta komunikazio eraginkorra izatea funtsezkoa da edozein arlotako helburuak lortuko badira. Zehazki, enpresen arloan hautematen da hori, enpresak berak zein harekin erlazionatzen diren gainerako eragileek erabiltzen baitute informazio-fluxua. Enpresa-munduan aplika daitezkeen eta teknologia berriei oso lotuta dauden komunikazio-estrategiak erabiliz gauzatzen da hori guztia. Aurrekoarekin lotuta, ikasleek komunikazio-estrategia eraginkorrak eta arinak baliatu behar dituzte enpresaren eta inguruko eragileen artean informazioa trukatu eta kudeatzean; horrez gain, komunikazio-tresnak aplikatzen jakin behar dute, hala nola istorioen kontaketa (*storytelling*) eta igogailuko diskurtsoa (*elevator pitch*). Prozesu horretan, funtsezkoa da ikasleek jarrera kooperatiboa eta

errespetuzkoa izatea komunikatzeko moduan, baita argudiatzen eta entzuten ikastea eta ezagutarazi nahi dutena eraginkortasunez transmititzen ikastea ere.

Azkenik, XXI. mendeko berezko ekonomia-globalizazioak berarekin dakar enpresak gero eta nazioartekoagoak izatea eta gero eta gehiagotan beste hizkuntza batean komunikatzea. Horretarako, funtsezkoa da ikasleek zenbait hizkuntza ikasi eta erabiltzea, askotariko egoeretan zuzen eta autonomiaz komunika daitezen.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, KE1, KE2, KD2, KPSII3.2, EK2.

5. Diseinatutako negozio-ereduaren behin-behineko analisia egitea, gauzatutako prozesu osoa ulertzeko eta negozio-ereduaren proposamena baliozkotzeko behar diren enpresa-analisirako tresnak aplikatuz.

Prozesuaren zenbait unetan aplikatutako enpresa-analisirako tresnei esker, lor daiteke negozio-ereduaren proposamena baliozkotzeko informazioa. Baliozkotzea simulatutako egoera jakin batean egin behar da, eta, horretarako, ikasleei prozesu osoaren ikuspegi orokorra emango zaie, eta, aldi berean, ordura arte hartutako edozein erabaki zuzentzeko edo birplanteatzeko aukera emango zaie.

Lortutako informazio guztia, hartutako erabakiak, erabaki horien justifikazioa, eta erabilitako analisi-tresnen emaitzak dira ikasleek oinarrizko negozio-plan bat egiteko oinarria.

Horrela, helburua da ikasleak enpatizatzea eta pertsona ekintzailearen lekuan jartzea, egindako prozesu osoaren ikuspegi integrala lortzea eta asmatzeetatik nahiz akatsetatik ikastea.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: KD2, KD3, KPSII1.1, KPSII5, EK1, EK2, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Enpresa-jarduerak eta ekintzailetzak egungo ekonomian duten garrantzia ulertzea, gizartean duten eraldatze-ahalmena ezagutuz eta berrikuntzaren eta digitalizazioaren balioaz hausnartuz.
1.2 I+G+Bak gizarte- eta enpresa-garapenean betetzen duen eginkizuna aztertzea, ekonomian inpaktu handia duten joera eta teknologia berriak identifikatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1 Enpresak jarduera garatzen duen ingurunearen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, horietatik abiatuta hartutako estrategiak eta erabakiak azalduz eta jarduerak gizartean eta ingurumenean izan ditzakeen ondorioak azalduz.
2.2 Enpresa motak, enpresen elementuak eta eginkizunak eta enpresek hartzen dituzten forma juridikoak ezagutzea, jabeen eta kudeatzaileen legezko erantzukizunak eta kapitalaren eskakizunak horietako bakoitzarekin erlazionatuz.
2.3 Enpresek inguruko aldaketetara eta merkatuaren eskakizunetara azkar, arduraz eta modu jasangarrian egokitzeko duten gaitasuna baloratzea, haien ingurune ekonomikoa eta soziala eta enpresa-jardueran duten eragina ikertuz.
2.4 Negozio-eredua abian jartzeko tramite fiskalak, lanekoak eta Gizarte Segurantzakoak ezagutzea, legezko betekizun horiek betetzearen garrantzia baloratuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1 Egungo beharrei erantzutea ahalbidetuko duen negozio-eredu eraldatzailea proposatzea, eredu desberdinak konparatuz eta sormen-diseinuko estrategiak eta tresnak erabiliz.
3.2 Enpresa-erakundeen arloak aztertzea, hala nola ekoizpen-arloa, merkataritzakoa, finantzetakoa edo giza baliabideetakoa, arlo horien ezaugarriak aztertuz, negozio-eredu berritzaile baten kudeaketa efizientea lortzeko.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1 Enpresaren barne- eta kanpo-esparruan lortutako informazioa eraginkortasunez kudeatzea, komunikazio-formula berrien bidez informazioaren transmisioa errazten duten komunikazio-estrategiak hautatuz.
4.2 Gauzatutako negozio-ereduaren proiektua azaltzea, hizkuntzen erabilera eraginkorraren bidez eta gainerakoak balio proposamenarekin erakartzeko eta interesa pizteko behar diren tresnen erabilera eraginkorraren bidez.

Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua
5. konpetentzia espezifikoa
5.1 Planteatutako negozio-eredurako inbertsio-proiektuak baloratzea, VAN eta PAYBACK emaitzetatik abiatuta alternatibarik onuragarrienaren aukeraketa modu arrazoituan justifikatuz.
5.2 Diru-sarreren eta kostuen egitura zehaztea, haien etekina eta errentagarritasun-atalasea kalkulatuz, planteatutako negozio-eredutik abiatuta.
5.3 Simulatutako agertoki jakin batean oinarrizko negozio-plana egitea, hartutako erabakiak justifikatuz.
5.4 Ekonomia- eta finantza-egoera aztertzea eta azaltzea, balantzean zein galdu-irabazien kontuan jasotako informaziotik abiatuta, aurkitutako desoreketarako balizko soluzioak adieraziz.
5.5 Testuinguru jakin batean diseinatutako negozio-ereduaren proposamena baliozkotzea, gauzatutako prozesu osoa barne hartuz, enpresa-analisirako zenbait tresnaren bidez.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua
A. Enpresa eta bere ingurunea
1. Enpresaburua. Ekintzailea. Profilak*. Enpresaburuen irudiaren aitortza, egungo testuinguruaren eragile eraldatzaile gisa.* Ekintzailetza-kulturaren sustapena.
2. Enpresa. Sailkapena.*Enpresaren lokalizazioa eta dimentsioa: enpresa txiki eta ertainek euskal industria-ehunean duten garrantzi berezia*. Enpresa-jarduera arautzen duen esparru juridikoa.*Enpresen forma juridikoak. Kasu espezifiko bat: euskal kooperatibismoa.*
3. Enpresa-ingurunea*. Erantzukizun sozial korporatiboa. Emakumea eta ekintzailetza. Gizarteratzea eta ekintzailetza. Enpresak Garapen Iraunkorrerako Helburuekin duen konpromisoa: 2030 Agenda.
4. Enpresaren zerga- eta lan-arloko betebeharrak halabeharrez bete izanaren ikuskapena; euskal zerga-sistema eta Gizarte Segurantza.*
5. *Enpresa, digitalizazioa eta berrikuntza. I+G+B*. Berrikuntzaren teoriak. Berrikuntza motak. Joera emergenteak. Berrikuntza-estrategiak. Iraultza digitalak eta teknologikoak eragindako aldaketen balorazio kritikoa.
B. Negozio- eta kudeaketa-eredua.
1. Enpresa eta negozio-ereduak. Tradizionala versus egungoa.*
2. Merkataritza-funtzioa*. Bezeroen segmentua. Balio-proposamena. Kanalak. Bezeroekiko harremanak. Diru-sarreren iturriak.*Marketin-estrategiak: marketin 2.0.*
3. Ekoizpen- eta hornikuntza-funtzioa*. Ekoizpen-prozesua. Efizientzia eta produktibitatea. Funtsezko jarduerak. Funtsezko baliabideak. Funtsezko asoziazioak.*Kostuen egitura: kostuen sailkapena eta kalkulua.* Izakinak baloratzeko metodoak: FIFO eta batez besteko prezio haztatua; inbentarioaren kudeaketa: Eskabide-puntua. JIT.*
4. Giza baliabideen kudeaketa*. Talde arinen osaera eta funtzionamendua. Lan-merkatuak eskatzen dituen gaitasunak: lan kolaboratiboa eta talde-lana arintzen duten trebetasunen garapena eta hobekuntza. Kontratazioa eta enpresaren lan-erlazioak. Enpresetako berdintasuneta inklusio-politikak.
5. Finantza-funtzioa*. Ekonomia- eta finantza-egitura. Inbertsioa.*Inbertsioen balorazioa eta aukeraketa: VAN eta PAYBACK*. Finantza-baliabideak. Barne- eta kanpo-finantzaketako iturri alternatiboen analisia.
6. Enpresako informazioa: kontabilitate-betebeharrak. Ondarearen osaera eta balorazioa. Urteko kontuak eta irudi fidela.* Balantzearen elaborazioa* eta galdu-irabazien kontua.
C. Negozio- eta kudeaketa-ereduetan berritzeko tresnak
1. Negozio- eta kudeaketa-ereduaren mihisea: kontzeptua, arloak, multzoak, utilitatea eta negozioereduen patroiak*(CANVAS eredua).*
2. Bezeroen ikuspuntua:*enpatia-mapa.*
3. Sormen-pentsamenduaren sustapena*, negozio- eta kudeaketa-ereduaren diseinura aplikatua.*Sormen-prozesua:* dibergentzia eta konbergentzia. Negozio-ereduetarako ideia berriak sortzeko dinamikak.

Enpresa eta Negozio Ereduen Diseinua
4. Lehia eta merkatu-hobiak bilatzeko tresnak:**Google Trends.**
5. Ideiak antolatzeko tresnak: ikus-pentsamendua edo *Visual Thinking*. Laburtzeko gaitasuna. Ideiagintza.*Komunikazioa.*
6. Prototipogintza: kontzeptua eta utilitatea. Prototipogintzaren aukerak: ondasunak, zerbitzuak eta aplikazioak.
7. Proiektu edo ideia baten aurkezpen eraginkor eta laburraren garrantziaren balorazioa*. Metodologia: istorioen kontaketa edo *storytelling* eta igogailuko diskurtsoa edo *elevator pitch*. Beste metodologia batzuk.
8. Agertokiak: ideien esplorazioa, etorkizuneko agertokiak eta negozio-eredu berriak.
9. Negozio- eta kudeaketa-ereduetan berritzeko beste tresna batzuk.
D. Enpresa-estrategia eta enpresa-errealitatea aztertzeko metodoak
1. Negozio-ereduaren ingurunea. Aurreikuspena: funtsezko joerak. Makroekonomia: aldagai makroekonomikoak. Lehia: lehia-indarrak.
2. Negozio-ereduaren aurretiazko ebaluazioa:*AMIA analisia* Diru-sarreren eta kostuen aurreikuspenaren analisia eta*errentagarritasun-atalasea*.
3. Negozio-ereduaren balidazioa. *Lean Startup*. Bezeroen garapena. Produktu arineko garapena.
4. Ideiaren, produktuaren eta markaren babesa.*
5. Erabakiak hartzeko prozesua. Estrategiak. Simulazioa kalkulu-orrian. Oinarrizko negozioplanaren idazketa.
6. Emaitzen analisia: merkatuaren azterketa,*kontabilitate informazioaren interpretazioa* eta analisia, eta finantzako egoera-orrien analisia.

GEOGRAFIA

Geografiak pertsonen eta lurraldearen arteko elkarreragin eta interdependentzia konplexuak aztertzen ditu, eta pertsonak bizi diren espazioa ezagutzen laguntzen du, tokiko ingurunearen erreferentziatik testuinguru globalera. Era berean, etengabe eraldatzen ari den errealitate ekosoziala ulertzeko eta munduan gure tokia aurkitzeko gida baliagarria da, betiere mugak ezagutze aldera eta XXI. mendeko erronken aurrean aukerak bilatze aldera.

Espazio geografikoa da geografiaren aztergaia, eta jakintzagaiaren xedea da lurralde hori denboraren poderioz modelizatzen duten prozesu naturalen eta giza prozesuen ulermen eta azalpen holistikoa. Pertsonek espazioaren eta denboraren kontzientzia dutenez gero, beren inguruko errealitatearen interpretazio hori behar dute, bizi-esperientziak garatzen diren lurralde, une eta gizarte-egituraren pertzepzio pertsonalaz eta kolektiboaz haratago. Batxilergoko jakintzagai honetan, analisi geografikoa Euskal Herriaren eta Espainiaren mailan oinarritzen da, baina mundu garaikideko errealitateak modu kritikoan ezagutzeko eta baloratzeko beharrezkoa den Europaren ikuspegitik eta ikuspegi globaletik begiratuta.

Geografia jakintzagaiak hurbileko errealitate horiek eta errealitate globalak ulertzen laguntzen du, eta hori funtsezkoa izango da ikasleen nortasuna eraikitzeko, betiere norberaren identitatea osatzearen eta besteena errespetatzearen ildotik. Gainera, gizarte justua eta bidezkoa eraikitzeko bidean, herritartasun kritikorako oinarria izan behar du, balio demokratikoetatik, oinarrizko eskubideen errespetutik eta erantzukizun zibikotik abiatuta. Hartara, bat etorriko da Garapen Iraunkorraren Helburuekin.

Eskala globalean eta tokiko eskalan gertatzen diren etengabeko eraldaketen testuinguru honetan, Geografia jakintzagaiak natura-ingurunearen eta gizartearen ikuspegi integrala eskaini behar du, eta saiatu behar du pertsona ororen berezko jakin-mina pizten eta ezagutza geografikoez goza dezan lortzen. Konpetentzia espezifikoek lurraldean garatzen diren fenomeno naturalen eta giza fenomenoen ikerketan oinarritutako ikaskuntza dute ardatz, eta arreta berezia ematen diete beren ingurune hurbilenean gertatzen diren fenomenoei. Fenomeno horiek egungo gizarteen eguneroko bizitzan dute eragina, eta horietako batzuk etorkizuneko erronkak dira, nahiz eta, batzuetan, iraganean ere erronkak izan diren. Erronka ekosozialei pentsamendu geografikotik erantzungo bazaie, zorroztasun zientifikoan, estrategien

mobilizazioan eta jasangarritasunarekiko eta elkartasunarekiko konpromiso etikoan oinarritutako jakintzak aplikatu beharko dira, arazoak konpontze aldera.

Horregatik guztiagatik, Euskal Herriko eta Espainiako geografia ikastea lagungarria izango da ikasleen garapen pertsonalerako eta heldutasunerako; izatez, ikasleen identitatea osatu, eta haien enpatia indartuko du, askotariko gizarte batean bizi garela eta garapen iraunkorra behar duen gizarte- eta lurralde-desorekak ditugula barneratzearekin. Ikasleek —bizi diren ingurunearekin konpromisoa duten eta prestatuta dauden pertsona diren aldetik— konpetentzia espezifikoak eta eskuratutako oinarrizko jakintzak aplikatu beharko dituzte ingurunea eralda dezaketen ekintza indibidualei eta kolektiboei ekiteko, betiere iritzi etikoetatik abiatuta.

Geografia jakintzagaiak Batxilergoko etapako helburu orokorrak lortzen eta funtsezko konpetentziak eskuratzen laguntzen du, eta aurreko etapan Geografia eta Historia jakintzagaiarekin hasitako ikasleen pentsamendu geografikoa garatzeko aukera ematen du. Horrez gain, diziplinarteko testuinguruak eta esperientzia pertsonalak gehitzen dira, eta, horiek banaka edo multzoan hartuta, ikasleen ikaskuntza-ingurunea aberasteko baliatu behar dira. Izatez, ikasleen interesekin konektatuko dira eta berariazko premiei erantzungo diete.

Proposatutako oinarrizko jakintzekin lotzen diren konpetentzia espezifikoen ondoriozko ebaluazio-irizpideen bidez, sustatuko da ikasleek parte hartze aktiboa izan dezaten beren ikaskuntza-prozesuan, banako edo taldeko ikerketa aplikatuan, norberaren sorkuntza garrantzitsuen eta testuinguruan kokatuen sorreran eta jendaurreko komunikazio efizientean. Hori guztia ikaskuntza-prozesuaren balorazio kritiko eta etikoan oinarrituko da eta, beraz, haren bizi-ingurunearen eraldaketan eta Giza Eskubideekiko eta jasangarritasun-printzipioarekiko errespetuan.

Geografiaren izaera praktikoa dela eta, geografiak informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera arduratsuan moldatzeko aukera ematen die ikasleei, Geografia Informaziorako Teknologien (GIT) funtzionalitateari esker. Geografia Informaziorako Teknologia horiek oinarrizko baliabidea dira banakako eta taldeko ikerketak garatzeko, eta, horiei esker, lurraldearen diziplinarteko tratamendua plantea daiteke. Horrez gain, diagnostikorako tresna diren heinean, ikasleen gizarte-ingurunea hobetzeko ondorioak eta proposamenak eraginkortasunez aurkeztea eta komunikatzea ahalbidetzen dute, analisi kritikotik eta ikasleen heldutasuna eta parte-hartze zibikoa sustatzearen bidetik. Geografia jakintzagaiaren aplikagarritasunaren ondorioz, jakintzaren gizarteko eta gizarte-ekintzailetzako funtsezko diziplina da geografia.

Oinarrizko jakintzak hiru multzotan egituratzen dira, eta multzo horiek beren hiru dimentsioetatik jorratu behar dira: ezagutzak, trebetasunak eta balioak. Hiru dimentsio horien arteko transferentziak eta hiru multzoen arteko inbrikazioa funtsezkoak dira jakintzagaia modu praktikoan bideratzeko eta multzo horien zeharkako tratamendua sustatzeko.

– **Ingurune fisikoaren jasangarritasuna**k berarekin dakar erliebe, klima, landaredi, lurzoru eta hidrografiaren aniztasunaren balioa nabarmentzea.

– **Euskal Herria, Espainia, Europa eta globalizazioa** ardatz hartuta landuko dira Euskal Herriaren eta Espainiaren berezitasun eta aniztasun geografikoa barneratzeko, Euskal Herriak eta Espainiak munduan eta Europan duten kokalekuaz jabetzeko eta Europar Batasuneko kide izateak duen eragina baloratzeko beharrezkoak diren jakintza guztiak.

– **Lurraldearen antolamendua ikuspegi ekosozialean** izeneko multzoak baliabide naturalen aprobetxamenduen azterketa geografikoa eskatzen du; horretarako, jarduera ekonomikoak eta biztanleria lurraldearen alderdi eraldatzaile nagusitzat jotzen dira, prozesu horien kausetan eta ondorioetan sakontzen da, ondoriozko lurralde-desorekak alderatzen dira, jasangarritasunaren ikuspegia txertatzen da eta Europar Batasuneko politiken eragina baloratzen da.

Funtsezkoa da geografiak fenomeno espazialei ematen dien tratamendu integratzailea nabarmentzea. Aintzat hartu behar da sintesia pentsamendu geografikoaren helburu ukaezina dela, eta horretan lagundu behar dutela diziplina arteko ikuspegiak eta dimentsio ekosozialak.

Geografia jakintzagai irekia eta malgua da, irakasleek beren ikaskuntza-egoerak orotariko testuinguruetara egokitu ahal izan ditzaten —konpetentzia espezifikoak eta oinarrizko jakintzak ardatz egituratzailetzat hartuta—. Ildo horretan, egungo gizarteen erronka ekosozialei ematen zaizkien erantzunak pizgarri bihurtuko dira ikasleen ikaskuntza aktiborako, pentsamendu geografikoaren garapenerako eta geografia jakintza aplikatu gisa baloratzeko. Azken batean, jakintza ororen gaitasun eraldatzailea sustatuko da, erantzukizun zibikotik abiatuta eta autonomia pertsonalean eta pertsonekiko eta ingurumenarekiko errespetuan oinarrituta, aldaketen eta ziurgabetasunen egungo testuinguruan.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Euskal Herriko eta Espainiako egungo eta etorkizuneko erronka ekosozialei buruzko argudioak modu kritikoan eta irizpide geografikoekin ematea, kanal ofizialetatik eta ez-ofizialetatik —formaletatik eta informaletatik— jasotako mezuen kalitatea, fidagarritasuna eta asmoa identifikatuz, bizitza-ohiturak eta kontsumo-eredu jasangaitzak aldatzeko.

Ikasleek gizarteak aurrean dituen arazo ekosozialak aitortuko badituzte, arazo horiek identifikatzen jakin behar dute eta zenbait erronkaren aurrean —klima-larrialdia, erronka demografikoa edo baliabide mugatuen kudeaketa eta banaketa, besteak beste— bakoitzak dituen erantzukizunaz —enpresariala, indibiduala eta kolektiboa—

okoa eta balizko soluzioak eztabaida publikoaren mende izaten dira askotan. Horrek herritar informatuak eskatzen ditu, bitarteko ofizialetatik edo informaletatik jasotze Ingurune naturalari eta giza taldeei eragiten dieten eta, oro har, tokiko eskala gainditzen duten eta eskala globaleko prozesuen ondorio diren ekomendekotasun-egoerak dira. Arazo horien identifikazioa, norainokoa eta balizko soluzioak eztabaida publikoaren mende izaten dira askotan. Horrek herritar informatuak eskatzen ditu, bitarteko ofizialetatik edo informaletatik jasotzen dituzten mezuak irizpen kritikoen bidez aztertuko dituztenak; eta oinarri zientifikoetan eta datu fidagarri, eskuragarri eta egiaztatuetan oinarritzen ez diren argudioak errefusatzen dituztenak. Horrela soilik saihestu daiteke informazio faltsuetan edo manipulazio interesatua antzematen den informazioetan oinarritutako arrazoibideak hedatzea.

Horrenbestez, pentsamendu espazial kritikoa garatzea laguntza garrantzitsua da gaur egungo eta etorkizuneko erronkei erantzun etikoa eman dakien eta nahi ez diren ondorioei aurrea hartzeko behar diren baldintzak beteko dituen herritar trebatu eta informatuak lor daitezen. Era berean, ikasleek zorroztasunez hausnartu beharko lukete egoera berrietara egokitzeko duten gaitasunari buruz eta kontsumo-eredu jasangaitzak eraldatzeari buruz, baita, norberaren eta gainerakoen onurarako, bizi-ohitura osasungarriak hartzeko gaitasunari buruz ere, Garapen Iraunkorraren Helburuekin bat etorriz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, KE1, KE2, STEM5, KD1, PKSII2, KPSII4, HK1, HK4, EK1.

2. Paisaia naturalak eta gizatiartuak osatzen dituzten elementuak identifikatzea eta aztertzea, informazio-iturri bisualak, kartografikoak, estatistikoak, grafikoak eta idatziak interpretatuz, espazio geografikoaren eta haren osagaien arteko elkarreraginen konplexutasuna ulertzeko, haren aberastasuna estimatzeko eta jasangarritasuna ingurumen-kontserbaziorako ezinbesteko printzipio gisa aitortzeko.

Espazio geografikoa ulertzeak, espazio horren konplexutasunaz jabetzea eskatzen du, elementu abiotikoak, biotikoak eta giza ekintza konbinatzen diren sistema den heinean. Sistema guztiek bezalaxe, espazio geografikoa ere azpisistemez osatuta dago; hortaz, azpisistema horiek banantzen badira, errazago egingo da ezaugarrien azterketa xehatua eta errazago ebatzi ahal izango da analisian zer eskala erabiliko den. Tokikotik globalera, eskalak aztergai izango den esparrua edo partzela mugatzea ahalbidetzen du.

Espazio geografikoa ulertzeko orotariko iturriak interpretatuko dira, analogikoak eta digitalak, eta, hartara, gaiarekiko hurbilketa osoagoa egin ahal izango da. Paisaien behaketa —paisaiak zuzenean beha

daitezke tokian bertan—, kartografia eta grafikoak, berez, ikusizko informazio-iturri baliotsuak dira. Iturri estatistikoek datu bolumen handia maneiatzeko eta, hortaz, zenbait eskalatan konparazioak egiteko aukera ematen dute. Begirada geografikoa hezteak, halaber, paisaia-ondare aberatsa estimatzea eta ondare hori kontserbatzeko beharra garatzea eskatzen du. Iraunkortasuna izango da natura-ingurunearen eta ekintza antropikoaren arteko erlazioa modu kritikoan epaitzeko irizpidea.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM4, STEM5, KD1, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2.

3. Euskal Herriko eta Espainiako dibertsitate naturala eta Europarekiko berezitasun geografikoak aztertzea, erliebearen, klimaren, hidrografiaren eta biodibertsitatearen arloko ezaugarri komunak eta espezifikoak alderatuz, espazioaren pertzepzio pertsonalari buruz gogoeta egiteko.

Aniztasun naturalaren azterketari ekiteko, Euskal Herriko eta Espainiako lehorreko eta uretako ekosistemen aniztasun handia eragiten duten faktore fisikoak aztertu beharko dira. Horri esker, konparazioak egin daitezke eskualde geografiko bakoitzaren ezaugarri komunen eta espezifikoen artean; konparazio hori analogia eta desberdintasunen bilaketan oinarrituko da, eta unitate geomorfologiko, klimatiko, begetal eta hidrikoen banaketa eta ezaugarriak deskribatzeko garaian egiazta daitezkeen datu eta kalkulu fidagarrietatik abiatuko da. Aldi berean, azterketa horrek sistema bakoitzaren barruan sortzen diren elkarreragin eta interdependentzia konplexuak ulertzen laguntzen du, baita giza ekintzek sistemaren orekarako sortzen duten arriskua ere.

Horrekin guztiarekin, ikasleek naturaguneen aberastasuna eta aniztasuna balioetsi ahal izango dute, eta erakundeek garatzen dituzten babes- eta kontserbazio-politiken funtzioa ezagutu ahal izango dute, politika horien mugak eta aurre egin behar dieten oztopoak kontuan hartuz.

Pertsona bakoitzak lurraldeaz eta bere existentziaz duen pertzepzioak baldintzatzen ditu pertsonaren bizimodua eta loturak, baita leku batekoa edo batzuetakoa izatearen pertenentzia-sentimenduak ere. Pertzepzio horrek identitate indibidualean eta kolektiboan nola eragiten duen ulertzeak beste identitate batzuk onartzea dakar.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: KE3, STEM1, STEM4, KPSII3.1, HK1, HK3, KAKK1.

4. Fenomeno naturalak eta giza fenomenoak lokalizatzea eta haien mugak edo kategoriak zehaztasunez argudiatzea, Geografia Informaziorako Teknologiak (GIT) aplikatuz eta geografiaren eta kideko beste edozein zientzien berezko beste metodo eta teknika batzuk aplikatuz, edozein azterketatan edo ondoriozko jarduketa-proposamenetan eskalak zer garrantzi duen ulertzeko.

Geografiaren eta kideko beste edozein zientziaren berezko metodoak eraginkortasunez aplikatzeak eskatzen du metodo horiek modu praktikoan erabiltzea, lurraldean garatzen diren fenomeno fisikoak eta giza fenomenoak behatu, irudikatu eta azaltzerako orduan. Geografiaren Informaziorako Teknologien barruan daude kartografia, fotointerpretazioa, teledetekzioa eta Informazio Geografikoko Sistemak. Beren ezaugarri integratzaileen ondorioz eta informazio-iturri eta sormen-baliabide gisa duten ikus-potentziala kontuan hartuta, ikasleek behar bezala erabili beharko dituzte Geografia Informaziorako Teknologiak.

Orotariko eta zenbait eskalatako fenomeno fisikoen eta giza fenomenoen banaketa eta lokalizazioa, eta fenomeno horiek denboran duten bilakaera, geografiaren oinarrizko printzipioak dira, pentsamendu espaziala artikulatzen dutenak. Hori lortze aldera, Geografia Informaziorako Teknologiek beren potentziala zabaldu beharko dute, fenomeno bakoitzaren hedapena justifikatzeko argudioak ematen dituzten baliabideak eta mapa interaktiboak erabiliz. Hau da, eskualdeak, kategoriak edo tipologiak mugatu beharko dituzte, eta mugen eta trantsizio-eremuen arazoari buruz hausnartu. Etengabe aldatzen ari diren fenomeno natural eta giza fenomeno konplexuen aurrean, benetako arazoak zein diren zehatz jakitea eta, hartara, arazo horiei sormenezko irtenbideak emateko ekimena izatea, konpromiso zibikoaren berezko osagaia da.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE2, STEM1, STEM2, KD1, KD2, KD5, HK3, EK1, EK3.

5. Bai globalizazioaren kausak eta ondorioak, zein sistema ekonomikoen bilakaeran eta azkenaldiko gizarte-portaeretan globalizazioak duen eragina ulertzea, egungo munduaren interkonexioari eta interdependentziari buruz ikertuko duten berezko produktuak sortuz, egungo sistemak giza duintasunaren eta ingurumenaren gainean dituen zenbait eskalatako ondorioez jabetzeko.

Globalizazioa da herrialdeen arteko eta haien sistema ekonomikoen arteko egungo erlazio konplexuak biltzen dituen testuingurua. Horren kausak eta ondorioak ezagutzea ezinbestekoa da Euskal Herriko, Espainiako eta Europar Batasuneko jarduera ekonomikoek sektore guztietan berriki izan duten bilakaera eta ekonomia produktiboa industria-ondoko ekonomia batekin ordeztea ulertzeko. Industria-ondoko ekonomiak ekonomia produktiboa ordeztu izana ulertzeko. Era berean, portaera demografikoan eta biztanleen banaketa espazialean —bai lurraldeen artean, bai landa- eta hiri-eremuen artean— eragin handia izan duten eraldaketa soziokulturalak gertatu dira.

Horren kausak eta ondorioak ezagutzea, ezinbestekoa da Euskal Herriko, Espainiako eta Europar Batasuneko jarduera ekonomikoek sektore guztietan azken aldian izan duten bilakaera ulertzeko; baita industria-ondoko ekonomiak, ekonomia produktiboa ordeztu izan duela ulertzeko ere. Era berean, portaera demografikoan eta biztanleen banaketa espazialean —bai lurraldeen artean, bai landa- eta hiri-eremuen artean— eragin handia izan duten eraldaketa soziokulturalak gertatu dira.

Eraldaketa horiek eragiten dituzten faktoreak eta eraldaketa horiek lurraldean eta gizartean dituzten ondorioak ikertzeari esker, sakondu daiteke ekonomia globalizatuak sortzen dituen interdependentzia- eta interkonexio-erlazioetan. Gerturatze hori ikasleentzat hurbilekoak edo esanguratsuak diren arazo-egoeren edo kasuen azterketaren bidez egin daiteke —esate baterako, kontsumitzen ditugun ondasunen edo zerbitzuen jatorria, edo ohiko jardunbideez aparteko ideiak, portaerak eta bizimoduak bereganatzearen ondorioak—. Hurbileko egoera horietatik abiatuta, ikasleek globalizazioaren eragin positiboei eta negatiboei buruzko gogoeta egin ahal izango dute, gure kontsumo-ohituren eta bizimoduaren artean sortzen den gatazkari buruzkoa, eta horiek ahalbidetzen dituztenen giza duintasunarekiko eta ingurumenarkiko errespetuari buruzkoa.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, STEM1, STEM5, KD4, KPSII3.1, HK2, HK3, HK4, EK1, KAKK4.1.

6. Euskal Herriko eta Espainiako lurraldeen arteko desorekak eta egitura soziolaborala eta demografikoa modu kritikoan azaltzea, haien kausak aztertuz, lurraldeen arteko interdependentziaz jabetzeko eta elkartasuna, kooperazio-mekanismoak eta gizarte-kohesioa baloratzeko.

Baliabide naturalek eta giza baliabideek zenbait eskalatan (estatua, autonomia-erkidegoa...) eta landa- eta hiri-eremuen artean duten banaketa desorekatuaren diagnostiko zorrotza, desoreka sozioekonomikoen eta demografikoen azalpen kritikoaren oinarria izan behar da. Arrazoi historikoek, baliabideen eskuragarritasunak, erabaki politikoek edo enpresa-erabakiek egoera horretan lagundu dute. Egoera hori zenbait arlotan islatzen da, hala nola ekoizpen-sarean dauden desoreketan —tamaina erlatiboaren ondoriozkoak edo espezializazio-, kapitalizazio- edo berrikuntza-mailaren ondoriozkoak— edo biztanleriaren banaketa espazialean, edota sexuaren, adinaren eta egitura soziolaboralaren ondoriozko biztanleriaren konposizioan. Desoreka horien kausak ulertzea, zahartzeak, migrazio-mugimenduek, landa-despopulazioak eta hiri-aglomerazioek eragiten dituzten demografia-erronkak gainditzeko lehen urratsa izango da.

Egungo aberastasuna, biztanleriaren eta zerbitzu publiko eta pribatu batzuen banaketa desorekatua, gehienbat erabaki politikoen edo enpresa-erabakien emaitza da. Horregatik, ikasleen artean baloratu behar da elkartasunak eta kooperazioak duten garrantzia, baita birbanaketa-politiken, lurralde-antolamenduaren eta eskualde- garapenaren bidez lortzen den gizarte-kohesioak duen garrantzia ere.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM4,K PSII1.2, KPSII3.1, HK1, HK2, HK3, EK1, EK2, KAKK3.2.

7. Aurretiko ezagutzak, berriak eta beste jakintza arloetatik datozenak mobilizatzea, iraganeko, egungo eta etorkizuneko egoerei ekitean, erabakiak eta banaka- zein talde-lanerako estrategiak planifikatuz eta birplanteatuz, inguru hurbileko erronkak identifikatzeko eta eraldatzen ari diren testuinguruei irtenbide berritzaileak emateko.

Ikaskuntzari berari buruzko gogoeta funtsezko helburu metakognitiboa da. Norberaren aukerei eta mugei buruzko ezagutza hori lortzea baliagarria izango da autoestimu handia eraikitzeko eta, horri esker, bizitza aktiboan txertatu, eta funtzio sozialak betetzeko.

Planifikazioa aldez aurreko ezagutzak eta ezagutza berriak eta beste arlo batzuetako ezagutzak mobilizatzea eskatzen duen funtsezko prozesua da. Halaber, zenbait tresna abian jartzea eskatzen du: egoerak zalantzan jartzea, hipotesiak planteatzea, datuak biltzea, bildutako informazioa sistematikoki antolatzea, informazio hori tratatzea, beste ebidentzia batzuekin alderatzea eta ondorio justifikatuak ateratzea. Ikasleak beren ingurune hurbileko —landatarra edo hiritarra izan— erronka ekosozialen identifikazioan inplikatzea eta irtenbideak proposatzea oso motibagarria izango da ikasleek beren ezagutzak mobiliza ditzaten eta beren ikaskuntzari berari buruz hausnar dezaten.

Eztabaida- eta hausnarketa-prozesuen bidez taldean lan egiten denez gero, estrategia asko beste pertsona batzuekin negoziatu behar dira, produktu adostuak berrikus eta sor daitezen. Jakintza horien eta pentsamendu geografikoaren ekarpenaren helburua da etengabeko autoikaskuntza eta konpromiso zibiko aktiboa garatzea, bai ondorioak aurreikusteko eta ebaluatzeko garaian, bai arazo garrantzitsuei erantzuteko ekintzak lehenesteko edo erantzun berritzaileak planteatzeko garaian.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE2, STEM1, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.2, KPSII5, HK3, EK1, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Geografia
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Euskal Herriak eta Espainiak gaur egun eta etorkizunean izango dituzten erronka ekosozial nagusiak identifikatzea, geografiaren ikuspegiaren bidez haien kausak eta ondorioak azalduz.
1.2. Euskal Herriko eta Espainiako erronka natural eta sozialei buruz argudiatzea, modu konprometituan eta besteen iritzia errespetatuz, eskuratutako jakintzak erabiliz eta jendaurrean datu zorrotzak aurkeztuz, grafikoen, irudien eta kartografiaren laguntza digitalarekin.
1.3. Jasangaitzak diren bizimoduak eta kontsumo-ereduak auzitan jartzea eta egon daitezkeen alternatibak baloratzea, egungo eta etorkizuneko erronka ekosozialak jorratzen dituzten orotariko informazio-iturrien analisi geografikoaren bidez eraikitako argudioetan oinarrituz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Paisaia naturalei eta gizatiartuei buruzko informazioa zenbait iturritatik ateratzea, elementuak bereiziz eta faktore fisikoen eta giza faktoreen arteko elkarreraginak eta erlazioak interpretatuz.
2.2. Iraunkortasun printzipioa ingurune naturala kontserbatzeko modu gisa baloratzea, haren konplexutasun sistemikoa onartuz eta ekintza antropikoak haren gainean duen eragina onartuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako paisaia naturalen aniztasuna eta berezitasunak identifikatzea, haien elementuak, banaketa, ezaugarriak eta kontrasteak zenbait eskalatan alderatuz, baita gizakiak ingurune horiekin erlazionatzeko moduak alderatuz ere.
3.2. Espazio geografikoaren pertzepzioari buruz gogoeta egitea, mapetan ezaugarri komun eta espezifikoak dituzten eskualde geomorfologikoak eta bioklimatikoak lokalizatuz eta ezagutuz, eta ingurunearen iraunkortasunari egiten dion ekarpena nabarmenduz.

Geografia
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Geografia Informaziorako Teknologiek, eta geografiaren eta kideko zientzietako beste metodo eta teknika batzuek, ezagutza geografikoa eraikitzeko egiten duten ekarpena baloratzea, horien erabilerarekin ohituz.
4.2. Geografia Informaziorako Teknologien laguntzaz, edozein fenomeno fisiko edo giza fenomeno lokalizatzea edo irudikatzea, eskala egokia erabiliz eta aukeratutako metodoak eta datuak justifikatuz, baita eskualdeak edo analisirako kategoriak eta trantsizio-eremuak mugatuz ere.
4.3. Azalpenak emateko helburua duten banakako edo taldeko produktu propioak sortzea, diagnostikoak jakinaraziz, hipotesiak edo ondorioak proposatuz eta Geografia Informaziorako Teknologiak aplikatuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Globalizazioaren kausak azaltzea, baita globalizazioak antolamenduan eta sektore ekonomikoetan —zenbait eskalatan— dituen ondorioak ere, egitura ekonomikoaren bilakaerarekin eta ingurune hurbileko portaera sozialekin erlazionatuz.
5.2. Gure ekintzek ingurune hurbileko zein beste herrialde batzuetako lan- eta bizi-baldintzetan dituzten ondorioak azaltzen dituzten produktuak sortzea, formatu analogikoan nahiz digitalean, arrazoizko irtenbideak proposatuz.
5.3. Ingurumena zaintzeko beharra adieraztea, ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-moduek tokiko eskalan eta eskala globalean duten inpaktua aztertuz eta hobetzeko jarduerak proposatuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Euskal Herriko eta Espainiako estatuaren lurralde- eta administrazio-egitura eta Europar Batasunean sartzearen ondorioak aztertzea, erabaki politikoek biztanleriaren eta errentaren banaketan duten eragina antzemanez.
6.2. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako desoreka sozioekonomikoen jatorria argudiatzea, adierazle demografiko eta sozioekonomiko nagusiak interpretatuz eta gizarte tertziarizatuetan jarduera ekonomikoen eta biztanleriaren lokalizazio-faktoreak aztertuz.
6.3. Norbanakoen arteko desberdintasunak eta lurralde-desberdintasunak konpentsatzeko mekanismoen beharra argudiatzea, mekanismo horiek sortu dituzten prozesuak eta kausak eta horien ondorio soziolaboralak eta demografikoak identifikatuz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Tokiko eskalan eta eskala indibidual eta kolektiboan garrantzitsuak diren fenomeno naturalei eta giza fenomenoei buruzko jakintzak berregitea, pentsamendu geografikoa aplikatuz, aldez aurreko ezagutzak eta ezagutza berriak mobilizatuz eta modu kritikoan berrikusiz, hurbileko landa- edo hiri-inguruneko arazoak eta aukerak diagnostikatuz eta aurreikuspenak eta balizko irtenbideak arrazoituz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Geografia
A. Ingurune fisikoaren jasangarritasuna
Espainia eta Euskal Herria: munduan duten lokalizazioa eta situazio geografikoa, erliebe-mapen eta mapa bioklimatikoen bidez. Geoposizionamendua eta gailu mugikorrak. Geografia Informaziorako Teknologiak, baliagarritasuna eta aplikazio praktikoak.*
Faktore fisikoak eta paisaien eta ekosistemen aniztasuna. Irudien, kartografiaren eta datuen interpretazioa. Euskal Herriko eta Espainiako faktore fisikoen —geomorfologia, klimatologia, edafologia, hidrografia eta landaredia—, eta paisaien aniztasunaren analisia. Faktore fisikoak, giza jardueren baldintzatzaileak; eta giza jarduerek faktore fisikoei eragindako alterazioak.* Pertsonekin Pertsonentzat arriskuen prebentzioa.
Geomorfologia. Erliebearen eraketa eta eraldaketa. Iberiar penintsularen formazio geologikoa eta eremu litologikoak. Erliebe-unitate nagusien identifikazioa eta banaketa. Giza jarduerek erliebearen gainean duten inpaktua.*
Aniztasun klimatikoa. Klimen banaketari eta irudikapenari buruzko analisi konparatiboak. Euskal Herriko eta Espainiako eskualde klimatikoak irudikatzen dituzten klimogramen azterketa. Klima-larrialdia: aldaketak eredu termoplubiometrikoetan. Kausak, ondorioak eta egokitze-neurriak. Eguraldia interpretatzeko estrategiak* eta alerta meteorologikoak; web-orriak eta aplikazio mugikorrak.
Biodibertsitatea, lurzoruak eta sare hidrikoa. Ezaugarri hidrikoak, edafikoak eta begetalak, eskualde naturalen arabera. Euskal Herriko eta Espainiako arro hidrografiko nagusiak eta ibai-erregimenak. Giza jardueren inpaktua eta horien gaineko ondorioak*: biodibertsitatearen galera, lurzoruen galera eta uraren kudeaketa. Pertsonek sortutako arriskuak.

Geografia
Ingurumen-politikak: natura-ondarea babesteko diagnostiko-tresnen erabilera. Naturagune Babestuen Sarea eta Natura 2000 Sarea.*Garapen-ereduaren aldaketei buruzko eztabaida: iraunkortasun printzipioa.*
B. Euskal Herria, Espainia, Europa eta Globalizazioa.
Euskal Herria eta Espainia munduan. Egoera geografikoa munduan, mapa politikoen bidez. Munduan duten posizio erlatiboa, zenbait adierazle sozioekonomikotan. Globalizazioaren mehatxuak eta aukerak. Munduko testuinguru geopolitikoa eta nazioarteko erakundeetan parte hartzea.* Nazioarteko kooperazioa eta kanpo misioak. Garapen Iraunkorrerako Helburuekiko konpromisoen diagnostikoa.
Europa: herrialdeen lokalizazioa eta alderdi naturalak. Europar Batasuna gaur egun:* lurralde desorekak eta kohesioa politikak, mapa eta adierazle sozioekonomikoen bidez.*
Euskal Herriko administrazio-antolamendua, Espainiako Estatuaren testuinguruan*: lurraldeen arteko desoreken azterketa, nazio eta autonomia mailan.*Adierazle sozioekonomiko ofizialen erabilpena eta erabilera: Eustat, IGN, Espainiako Atlas Nazionala.* Lurraldearen kudeaketa eta antolamendua: eskualdearen kohesio eta garapenerako politikei buruzko eztabaida.*Ongizate estatuaren egungo egoera eta proiekzioak.*
C. Lurraldearen antolamendua ikuspegi ekosozialean
Biztanleriaren bilakaera eta egungo egoera: egituraren eta desoreken analisia. Adierazle nagusiak eta eredu demografikoak. Datuen, grafikoen eta mapen interpretazioa: iraganeko eta oraingo joerak eta proiekzioak. Migrazio-mugimenduak: kanpoko eta barneko migrazioak eta migrazioen ondorioak.* Aniztasun etnokulturalarekiko errespetua. Erronka demografikoak, kasuen azterketa: biztanleriaren zahartzea, eta landa-espazioaren despopulazioa…
Hiri-espazioak: hiri-kontzentrazio handiak* Europako eta munduko testuinguruan.*Hiriaren funtzioak eta inguruko lurraldearekiko interdependentzia-erlazioak. Hiri-egitura, planoen bidez. Hirigintza-politikek bizimoduan dituzten ondorioak eta ingurumen-inpaktuak.* Hiri jasangarrien ereduak; mugikortasuna. Egungo hirien erronkak, kasuen azterketa: etxebizitzaren arazoa, espazio publikoaren erabilerak, gentrifikazio-prozesuak, suburbanizazioa, eta abar.
Landa-espazioak. Nekazaritza paisaien identifikazioa eta elementuak.* Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren eraldaketak: jardunbide jasangarriak eta jasangaitzak. Hurbileko nekazaritzako elikagaien eta baso-produktuen gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-balioa*: aztarna ekologikoen eta egitura soziolaboralaren azterketa. Egungo Nekazaritza Politika Erkideak landa garapenean eta iraunkortasunean duen eragina. Kasuen azterketa: etiketa bereiziak, ekologikoa eta abar.
Itsas baliabideak eta itsasertzaren eraldaketa: arrantza, akuikultura eta bestelako aprobetxamenduak.* Iraunkortasuna eta Arrantza Politika Erkidea. Kasuen azterketa: itsaski-bilketa, baxurako eta alturako arrantza, akuikultura, arrantza-kalen gehiegizko ustiapena, eta abar.
Bigarren sektoreko espazioak. Industria-jardueren bilakaera eta eraldaketak, lehengaien erauzketa eta energia-ekoizpena. Bigarren sektoreko jarduerek paisaian duten inpaktua. Aztarna ekologikoen ebaluazioa; energia-mendekotasuna eta -trantsizioa;*industria-, gizarte- eta lan-sarearen egitura eta zeharkako enplegua.* Kasuen azterketa: eraikuntza, automobilgintza, nekazaritzako elikagaien industria, eta abar. Lokalizazio-faktoreak.*Europar Batasuneko politiken eraginari eta globalizazioari buruzko eztabaida: desindustrializazioa, deslokalizazioa eta industria-birmoldaketa.*
Espazio tertziarizatuak. Gizarte postindustrialak eta ekonomiaren tertziarizazioa. Aztarna ekologikoen, lurralde-antolaketaren eta gizarte- eta lan-egituraren analisi kritikoa, erantzukizun sozial korporatiboa eta kontsumitzaileen erantzukizuna.*Hirugarren sektoreko jarduerek paisaian duten inpaktua: lokalizazio-faktoreak, zerbitzuen eredu jasangaitzak eta alternatibak.* Kasuen azterketa: lehiakortasuna eta desorekak garraioan, merkataritzan, turismoan, funtsezko zerbitzuetan, eta abar. Ekonomia zirkularreko ereduak eta zerbitzuak: ekoizpenaren, banaketaren eta salmentaren arteko erlazioak. Ekonomia digitala: «ekonomia kolaboratiboaren» inpaktua eta negozio-eredu berriak testuinguru globalean eta Europar Batasunean.
Ingurumen-politikak: natura-ondarea babesteko diagnostiko-tresnen erabilera. Naturagune Babestuen Sarea eta Natura 2000 Sarea. Garapen-ereduaren aldaketei buruzko eztabaida: jasangarritasunaren printzipioa.

GIZARTE ZIENTZIEI APLIKATUTAKO MATEMATIKA

Matematika gizateriaren lorpen kultural eta intelektual handienetako bat da. Matematikaren garapena, historian zehar, mundu erreala interpretatzeko, deskribatzeko, analizatzeko eta modelizatzeko eta eguneroko bizitzako problemak ebazteko beharrari hertsiki loturik egon da. Antzinatik, milaka urtetan metatutako ezagutza matematiko guztia sortu eta transmititu da. Ahalegin handia egin da, etengabe eta iraunkorki eta kultura guztiek partekatuta, eta gizateriaren lorpen intelektual handienetako bat sortu da, egungo eta etorkizuneko erronka globalei arrakastaz aurre egiten jarraitu ahal izateko gaur egun ezin-

bestekotzat jotzen den ezagutza multzoa. Horretarako, matematikarako konpetentzia duten ikasleak behar dira, baldintza aldakorretara egokitzeko, modu autonomoan ikasteko, informazio kantitate handiak prozesatzeko eta interpretatzeko, gizarte-fenomenoak analizatzeko, modu kritikoan pentsatzeko eta teknologia eraginkortasunez erabiltzeko gai diren ikasleak. Beraz, XXI. mendeko herritarrentzat ezinbestekoa da konexio eta trebetasun matematikoak erabiltzea, hala nola arrazoiketa, modelizazioa, pentsamendu konputazionala eta problemen ebazpena

Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I eta II arloen curriculum-diseinua etapako helburu orokorrak lortzera bideratzen da. Eginkizun horretan, arreta berezia emango zaio ikasleek etapa amaitzean lortu behar dituzten batxilergoko deskriptore operatiboetan kontzeptualizatutako funtsezko konpetentziak garatzeari eta eskuratzeari. Horrela, problemen interpretazioa eta prozeduren eta emaitzen komunikazioa hizkuntza-komunikaziorako konpetentziarekin eta konpetentzia eleaniztunarekin erlazionatuta daude. Ekimenaren eta ekintzailetzaren zentzua, etengabe berrikusten eta aldatzen ari den lan-plan bat ezartzean, ekintzailetza-konpetentziari lotzen zaio. Erabakiak hartzea edo ziurgabetasun-egoeren aurrean egokitzea konpetentzia pertsonalaren, sozialaren eta ikasten ikastekoaren berezko osagaiak dira. Informazioa tratatzeko eta problemak ebazteko teknologia digitala modu kritiko eta arduratsuan erabiltzea zuzenean uztartzen da konpetentzia digitalarekin. Arrazoibidea, argudiatzea eta modelizazioa STEM konpetentziaren elementu bereizgarriak dira. Matematikaren eta beste ezagutza-arlo batzuen eta problemak gizarte-testuinguruetan ebaztearen artean ezarritako konexioak herritartasunerako konpetentziarekin erlazionatuta daude. Azkenik, ezagutza matematiko berak, gizarte-ikerketarako tresna gisa eta kulturaren adierazpen unibertsal gisa, kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia eskuratzen laguntzen du.

Jakintzagai honen irakaskuntza hertsiki loturik dago informazioaren eta gizarte-fenomenoen interpretazioari. Hori dela eta, datu esanguratsuak hautatzeko, behar bezala taldekatzeko, azterketa-esparruaren arabera interpretatzeko, ondorioak analizatzeko eta arrazoibide logikoekin oinarritutako erabakiak inferitzeko eta komunikatzeko trebetasunaren garapenean jarriko da arreta. Horretarako, problemak ebaztea, ikertzea eta testuinguru pertsonal eta sozialetan datuak analizatzea landuko da nagusiki. Ildo horretan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari jarraikiz, matematikarako konpetentzia espezifikoak definitu dira, kontzeptuen eta prozeduren ulermena azpimarratuta, ikasleei hainbat trebetasun garatzeko aukera emateari begira: problemen ebazpena, arrazoibidea eta argudiatzea, irudikapena eta komunikazioa, edo trebetasun sozioafektiboak.

Gure jakintzagaiaren irakaskuntzan, problemak ebaztea eta ikerketa matematikoa funtsezko bi osagai dira; izan ere, jakintzagaiari lotuta dauden prozesu kognitiboak gizarte-egoerak lantzeko, aztertzeko eta ebazteko erabiltzea ahalbidetzen dute, arrazoiketa, sormena eta pentsamendu abstraktua garatuz.

Problemen ebazpenari, arrazoibideari eta probari eta konexioei dagozkien konpetentzia espezifikoak gizarte-zientzietan ikertzearen berezko prozesuak eskuratzeko diseinatuta daude: galderak formulatzea, aieruak ezartzea, justifikazioa eta orokortzea, konexioa eta matematikaren berezko kontzeptuak eta prozedurak beste ezagutza-arlo batzuetan ezagutzea. Matematikaren izaera instrumentala azpimarratu behar da, ezagutza zientifiko eta teknologikoaren arloetarako funtsezko tresna baita

Gizarte-zientzietako hezkuntza matematikoaren beste alderdi bereziki garrantzitsu batzuk komunikazioa eta irudikapena dira. Komunikazioa, alde batetik, ideiak antolatzen, finkatzen eta esanahiz hornitzen laguntzen duen prozesua da, eta, bestetik, ezagutza jendarteratzea eta partekatzea ahalbidetzen du. Halaber, ideia eta objektu matematikoak erabiltzeko, ulertzeko, arrazoitzeko, egituratzeko eta komunikatzeko funtsezkoa da haiek irudikatzeko modua. Biak estuki lotuta daude, ideiak adierazteko modu bat edo bestea aukeratzeak haien komunikazioa eta ulermena baldintza baititzake. Horregatik, kontzeptuak eta prozedura matematikoak komunikatzeko eta irudikatzeko prozesuak eskuratzera bideratutako bi konpetentzia espezifiko barne hartzen dira.

Ikasle guztiek oinarrizko kontzeptu eta erlazio matematikoak erabiltzeaz gain, matematikaren magia esperimentatu ahal izateko, haren ikaskuntzaz gozatzeko eta zientzia honek gure bizi-baldintzen aurrerapenean eta hobekuntzan duen ezinbesteko eginkizuna ezagutzeko, matematikaren alderdi pertsonal, sozial eta emozionalarekin lotutako konpetentzia espezifiko bat sartu da.

Konpetentziak ikas-egoeretan oinarrituz landuko dira, testuinguru erreal edo esanguratsuekin, ikasleak hausnarketara, lankidetzara eta ekintzara gonbidatuko dituztenak.

Konpetentzia espezifikoak zenbateraino eskuratzen diren ebaluatzeko, konpetentziak abian jartzeko diseinatutako ebaluazio-irizpideak erabiliko dira lehentasunez, kontzeptuak buruz ikastea edo prozedurak errutinaz erreproduzitzea baloratu beharrean. Konpetentzia espezifikoekin eta ebaluazio-irizpideekin batera, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak barne hartzen dituzten oinarrizko jakintza batzuk txertatu dira. Ez dago ebaluazio-irizpideen eta jakintzen arteko lotura uniboko eta zuzenik; konpetentzia espezifikoak hainbat egoeratan jakintza desberdinak abian jarriz ebaluatuko dira, eta horien arteko loturak ezartzeko behar den malgutasuna emango da. Konpetentzia-ikuspegi batean, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak konpetentzia espezifikoen inguruan egituratzen dira. Irakasleek irizpide horiek testuinguruan kokatu eta malgutu behar dituzte, beren jardueraren arabera.

Konpetentzia espezifikoen izaera kontuan harturik, kasu batzuetan ebaluazio-irizpideak oinarrizko jakintzen bitartez mailakatzen dira lehen eta bigarren mailen artean. Jakintza horiek zenbait zentzutan taldekatu dira, matematikaren esparruekin erlazionatutako trebetasunen multzo gisa: zentzu numerikoa, metrikoa, aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala, zentzu estokastikoa eta sozioafektiboa. Garrantzitsua da adieraztea zentzuak eta jakintzak agertzeko ordenak ez dakarrela inolako sekuentziaziorik.

Zentzu matematikoa da eduki matematikoak modu funtzionalean eta norberaren trebetasunetan konfiantza izanik testuinguruan menderatzearekin lotutako gaitasunen multzoa. Hori dela eta, matematikaren konpetentzia-irakaskuntza planteatzen da, testuinguruan problemak edo atazak ebazteko kontzeptuak nagusitu eta haiei zentzua emateko, testuingurutik kanpoko egoeretan trebetasunak edo algoritmoak ikasi beharrean. Hala, zentzu matematikoa izan eta garatu behar da matematikoki konpetentziadun izatera iristeko.

Zentzu numerikoaren ezaugarria da numerazioari eta kalkuluari buruzko ezagutza zenbait testuingurutan aplikatzea, bereziki sozialetan, eta zenbakien eta eragiketen ulermenean, irudikapenean eta erabilera malguan oinarritutako trebetasunak, egiteko moduak eta pentsamoldeak garatzea.

Neurriaren zentzuak objektuen atributuak eta bizi garen gizartearen ezaugarriak ulertzea eta konparatzea hartzen du ardatz.

Zentzu aljebraikoak matematika komunikatzeko eta errealitatearen fenomenoak adierazteko hizkuntza eskaintzen du. Zentzu aljebraikoaren eta pentsamendu konputazionalaren funtsezko ezaugarriak honako hauek dira: partikularrean orokorra dena ikustea, aldagaien arteko mendekotasun-patroiak eta -erlazioak antzematea eta hainbat irudikapenen bidez adieraztea, eta egoera matematikoak edo mundu errealekoak adierazpen sinbolikoekin modelizatzea.

Zentzu estokastikoak hainbat alderdi hartzen ditu, hala nola datuak analizatzea eta interpretatzea, aieruak egitea, informazio estatistikotik abiatuta erabakiak hartzea, kritikoki baloratzea, eta, era askotako egoeretan ausazko fenomenoak ulertzea eta komunikatzea.

Zentzu sozioafektiboak berekin dakar, alde batetik, emozioak ulertzeko eta maneiatzeko behar diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratzea eta aplikatzea, eta, bestetik, matematika ikasteko prozesuan agertzen den talde-lana aktiboki kudeatzea. Zentzu hori ez da modu isolatuan landu behar, jakintzagaiaren garapenean zehar baizik.

Matematika ez da jakintza bereizi eta loturarik gabekoen bilduma; aitzitik, ezagutza-eremu integratua da. Konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak osotasun bat eratzeko diseinatuta daude, zeregin errazak edo konplexuak, indibidualak edo kolektiboak, matematikaren gorputzaren beraren barruan edo diziplina anitzeko testuinguruetan planteatzeri bidea emateko. Gizarte-zientzien esparruan tresna digitalak erabiltzeak funtsezko eginkizuna betetzen du inguratzen gaituen munduko zenbait testuingurutan problemak ikertzeko, interpretatzeko, analizatzeko eta ebazteko, eta, hartara, prozesu gogaikarriak eta errutinazkoak saihesteko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Eguneroko bizitzako eta gizarte-zientzietako problemak modelizatzea eta ebaztea, zenbait estrategia eta arrazoibide aplikatuz, soluzio posibleak lortzeko.

Problemen ebazpena eta modelizazioa matematika ikasteko funtsezko ardatza dira, eta gizarte-fenomenoak interpretatzeko eta analizatzeko ezinbesteko tresnak. Eguneroko bizitzako zein gizarte-zientzietako problemak modelizatzeak eta ebazteak ikasteko prozesua motiba dezake eta oinarri kognitibo sendoak ezar ditzake, kontzeptu matematikoak eraiki ahal izateko eta matematika eguneroko bizitzako edo gizarte-zientzietako egoerak deskribatzeko, analizatzeko eta areagotzeko tresna gisa esperimentatu ahal izateko.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar datu garrantzitsuak identifikatzea, erlazioak ezagutzea, galderak eta aieruak formulatzea, hizkuntza matematikoan edo programa informatiko batek erraz interpretatzeko moduko hizkuntza batean kodetzea, problema eredu batekin lotzea (aljebraikoa, estatistikoa, probabilistikoa…), estrategia bat hautatzea eta problema ebaztea. Analogia, zenbatespena, problema ebatzitzat ematea edo problema errazetan deskonposatzea bezalako ebazpen-estrategiak eskuratzea ezinbestekoa da gizarte gero eta konplexuago bateko egoera errealei aurre egiteko eta horiek ebazteko.

Bitarteko teknologiko eta digitalek datu estatistikoak tratatzeko eta analizatzeko eta funtzioak irudikatzeko ezinbesteko tresnak eskaintzen dituzte. Ikerketa estatistikoekin edo funtzioen bidezko modelizazioarekin erlazionatutako problemen ebazpenean, software matematikoa erabiltzeak ebatzi beharreko egoera ulertzea errazten du, ebazpen-estrategiarik egokiena hautatzen laguntzen du eta ikerketa-bide berriak irekitzeko aukera ematen du.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD2, KD5, KPSII4, KPSII5, EK3.

2. Problema baten soluzio posibleen baliozkotasuna egiaztatzea, arrazoibidea eta argudiatzea erabiliz, haien egokitasuna kontrastatzeko.

Egoera problematizatu baten ebazpenean lortutako soluzioen analisiak eta interpretazioak gogoeta kritikoa, arrazoibidea eta argudiatzea indartzen ditu. Lortutako soluzioak eta ondorioak zenbait ikuspegi kontuan hartuta —iraunkortasuna, kontsumo arduratsua, ekitatea edo diskriminaziorik eza, besteak beste— interpretatzeak erabaki arrazoituak hartzen, estrategiak ebaluatzen eta modu eraginkorrean komunikatzen laguntzen du.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakartza metakognizioaren berezko gogoeta-prozesuak, hala nola autoebaluazioa eta koebaluazioa, tresna digitalak eraginkortasunez erabiltzea, prozesua hitzez adieraztea edo azaltzea, eta soluzioak egiaztatzeko edo baliozkotzeko metodo edo estrategien artean hautatzea, eta horien irismena interpretatzea, aieru eta problema berriak planteatzeko aukera irekiz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD3, KPSII4, HK3, EK3

3. Aieruak edo problemak formulatzea, arrazoibidea eta argudiatzea erabiliz, tresna teknologikoen laguntzarekin, ezagutza matematiko berria sortzeko.

Esparru pertsonaleko, sozialeko eta lan-esparruko problemak ebazteko eduki matematikoa duten aieruak formulatzea eta galderak sortzea Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematikaren curriculumaren beste osagai garrantzitsu eta esanguratsu bat da, eta zeregin matematikoaren funtsezko partetzat jotzen da. Egoera problematizatu bati, datu multzo bati edo ebatzitako problema bati buruzko eduki matematikoa duten galderak sortzeak egoera jakin bat arakatzeko problema berriak sortzea eskatzen du, baita hura ebazteko prozesuan zehar problema hori berriz formulatzea ere.

Konpetentzia honen garapenak pentsamendu askotarikoagoa, kritikoagoa, malguagoa eta independenteagoa susta dezake, problemak zenbait testuingurutan ebazteko eta egoera zehatzen eta abstrakzio

matematikoen arteko zubiak ezartzeko trebetasuna hobe dezake, matematikaren pertzepzioa areagotu dezake, eta kontzeptuak aberastu eta finkatu ditzake. Ikasleek galderak sortzen dituztenean arrazoibidea eta gogoeta hobetzen dituzte, beren ezagutza eraikitzen duten aldi berean. Horrek konpromiso eta jakin-min handia ekartzen du, baita matematika ikasteko prozesuarekiko gogoberotasuna piztu ere. Prozesu horretan, errorea bere gain hartzeak eta ikasteko aukera bihurtzeak ezagutza berriak eskuratzeko eta integratzeko aukera berriak zabaltzen ditu.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, STEM2, KD1, KD2, KD3, KD5, EK3.

4. Pentsamendu konputazionala modu eraginkorrean erabiltzea, matematikaren bidez algoritmoak aldatuz, sortuz eta orokortuz, eguneroko bizitzako egoerak eta gizarte-zientzien esparrukoak modelizatzeko eta ebazteko.

Pentsamendu konputazionala zuzenean uztartzen da problemen ebazpenarekin eta prozeduren planteamenduarekin; abstrakzioa erabiltzen du alderdi garrantzitsuenak identifikatzeko, patroiak ezagutzeko, zeregin sinpleagoetan deskonposatzeko eta algoritmoak definitzeko, sistema informatiko batek egikaritu dezakeen problemaren soluzio batera iristeko helburuarekin. Pentsamendu konputazionala eguneroko bizitzara eta gizarte-zientzien esparrura eramateak informatikaren funtsezko alderdiak ikasleen antolaketa eta datuen analisirako beharrekin lotzea dakar.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar eguneroko egoeren eta gizarte-zientzien esparrukoen eredu abstraktuak sortzea, horiek automatizatu eta modelizatzea, eta sistema informatiko batek erraz interpretatzeko moduko lengoaia batean kodetzea.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD2, KD3, KD5, EK3.

5. Ideia matematikoen arteko konexioak ezagutzea eta erabiltzea, kontzeptu, prozedura eta argudioen arteko loturak ezarriz, gizarte-errealitatearen ikuskera matematiko integratua sortzeko.

Ideia matematikoen arteko konexioak ezartzeak sakonago ulertzen laguntzen du arazo beraren zenbait ikuspegik nola sor ditzaketen emaitza baliokideak. Ikasleek testuinguru batetik datozen ideiak erabil ditzake beste testuinguru batean sortutako aieruak frogatzeko edo ezeztatzeko, eta, ideia matematikoak konektatzean, problemen ulermen handiagoa gara dezakete. Matematika osotasun gisa ulertzeak berekin dakar haren barne-konexioak aztertzea eta jakintza multzoen artean, maila bateko matematikaren artean edo etapa desberdinetakoaren artean dauden erlazioei buruz gogoeta egitea.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar ideia matematiko berriak aurretiko ideiekin lotzea, problemen ebazpenean ideia matematikoen arteko loturak ezagutzea eta erabiltzea, eta osotasun integratu bat osatzeko ideia batzuk beste batzuen gainean nola eraikitzen diren ulertzea.

Konexioak egiteko eta erlazioak ezartzeko gaitasuna matematikaren ulermen-mailaren adierazle ona da, eta zuzenean erlazionatzen da egiten jakitearekin.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM3, KD2, KD3, KAKK1.

6. Loturak deskubritzea eta matematikak beste ezagutza-arlo batzuekin dituen erlazioetan sakontzea, kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotuz askotariko egoeretan, bereziki gizarte-zientzien egoeretan, problemak ebazteko eta gaitasun kritikoa, sortzailea eta berritzailea garatzeko.

Erlazioak behatzea eta konexio matematikoak ezartzea zeregin matematikoaren funtsezko alderdi bat da. Ikasleek beren ezagutzak, irudikapen multzo zabala erabiltzeko trebetasuna eta teknologiarako sarbidea areagotzen dituztenean, beste ezagutza-arlo batzuekiko konexio berriak ezartzeak, bereziki gizarte-zientziekin, ahalmen matematiko handia ematen die. Matematikaren eta beste ezagutza-arlo batzuen arteko lotura ez litzateke jakintza kontzeptualetara mugatu behar; aitzitik, prozeduretara eta

jarreretara zabaldu beharko litzateke, prozedura eta jarrera matematikoak beste jakintzagai eta testuinguru batzuetara transferitu eta aplikatu ahal izateko.

Konpetentzia honen garapenak garrantzi handia hartzen du. Izan ere, ideia, kontzeptu eta prozedura matematikoen arteko konexioak sustatzeaz gain, suspertu egiten du, alde batetik, beste ezagutza-arlo batzuekin batera lan egitea, hala nola zientziarekin, humanitateekin, arteekin eta gizarte-zientziekin oro har, eta, bestetik, ingurunearekin lotura estuak ezartzea, gure egunetako hezkuntzaren behar eta erronkei erantzuteko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD2, KPSII5, HK4, EK2, EK3, KAKK1.

7. Gizarte-errealitateko fenomenoak eta egoerak kontzeptu eta prozedura matematikoen bidez irudikatzea, zenbait teknologia hautatuz, ideiak bistaratzeko eta arrazoibideak egituratzeko.

Ideia, kontzeptu eta prozedura matematikoen irudikapenek arrazoibidea eta argudiatzea errazten dituzte, erlazioak aztertzeko eta erantzunen baliozkotasuna kontrastatzeko erabiltzen dira, modu naturalean daude gizarte-zientzietan eta teknologia digitaletan, eta komunikazio matematikoaren erdigunean daude.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar irudikapen matematikoen errepertorioa handitzea eta irudikapen horiek modu eraginkorrean erabiltzeari buruzko ezagutza areagotzea, objektu beren irudikapen desberdinek informazio desberdinak nola transmiti ditzaketen azpimarratuz eta zereginerako irudikapen egokiak hautatzearen garrantzia erakutsiz.

Zenbait entitateren irudikapenak objektuak irudikatzeko zenbait modu —diagramak, eskemak, taulak, grafikoak…— ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna dakar berekin.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, STEM4, KD1, KD2, KD5, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

8. Ideia matematikoak modu indibidual eta kolektiboan komunikatzea, euskarri, terminologia eta zorroztasun egokiak erabiliz, pentsamendu matematikoa antolatzeko eta finkatzeko.

Informazioaren gizartean, egunetik egunera nabarmenagoa da komunikazio garbia eta egiazkoa izateko premia, bai ahoz bai idatziz. Besteekin interakzioan jarduteak ideiak trukatzeko eta horiei buruz gogoeta egiteko aukera eskaintzen du, kolaboratzeko, kooperatzeko eta ezagutza berriak sortzeko eta finkatzeko, eta horrek komunikazioa ezinbesteko elementu bihurtzen du matematikaren ikaskuntzan.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar gizarte-errealitate gero eta konplexuagoaren gertaerak, ideiak, kontzeptuak eta prozedurak hitzez eta grafikoki adieraztea, egiazki eta zehatz-mehatz, terminologia matematiko egokia erabiliz, ideiei esanahia eta iraunkortasuna emateko argitara ematean.

Hala ulertutako komunikazioak pentsamendu matematikoa estimulatzen du, partikularizatzeko, orokortzeko, susmatzeko eta argudiatzeko prozesuen bitartez. Horregatik, beharrezkoa da ikasleei problemak ebazteko, beste problema batzuk planteatzeko, aieruak eraikitzeko, analizatzeko, argudiatzeko, zalantzan jartzeko eta eztabaidatzeko espazioak eskaintzea.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, EK1, EK2, STEM2, STEM4, KD2, KD3, KAKK3.2.

9. Trebetasun pertsonalak zein sozialak erabiltzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, errorea eta ziurgabetasuna onartuz, harreman osasungarriak sortuz eta talde heterogeneoetan proiektuetan aktiboki eta gogoetatsu parte hartuz, matematikaren ikaskuntzan helburuen lorpena hobetzeko.

Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar, alde batetik, emozioak identifikatzea eta kudeatzea, estres-iturriak ezagutzea, jarraikia izatea, modu kritiko eta sortzailean pentsatzea, erresilientzia sortzea eta

erronka matematiko berrien aurrean jarrera proaktiboa edukitzea, errorea ikasteko aukera dela eta askotariko emozioak modu pertsonalean hazteko egokiera direla ulertuz.

Bestalde, konpetentzia hau garatzeak berekin dakar besteekiko enpatia erakustea, beste pertsona batzuekin harreman positiboak ezartzea eta mantentzea, entzute aktiboa eta komunikazio asertiboa trebatzea, taldean lan egitea eta erabaki arduratsuak hartzea. Halaber, aldaera indibidualekin eta/edo sozialekin loturik dauden matematikari buruzko estereotipoak eta aldez aurreko ideiak apurtzea sustatu behar da, edozein diskriminazio motaren zentzugabekeria eta bidegabekeria logikoki oinarrituz.

Nolanahi ere, garrantzi handikoa da errorea onartzea eta ikasgelako dinamiketan naturaltasunez txertatzea, eta ez beti zigortzea, ikasteko palanka gisa erabiltzea baizik. Testuinguru horretan, pertsona bakoitzaren erritmoak eta trebetasunak eta konexioak eta interakzioak errespetatzen dituen ekosistema izan behar du ikasgelak, humanitateen eta gizarte-zientzien batxilergoko konpetentziak lortzea errazteari begira.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: EK3, STEM5, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, HK2, HK3, EK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehenengo maila	Bigarren maila
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1 Zenbait tresna eta estrategia erabiltzea, hala nola problema sinpleagoetan deskonposatzea edo alderantziz ebaztea, eguneroko bizitzako eta gizarte-zientzietako problemak ebazteko, efizientziaren arabera egokienak direnak hautatuz.	1.1 Zenbait tresna eta estrategia erabiltzea, digitalak barne, eguneroko bizitzako eta gizarte-zientzietako problemak ebazteko, efizientziaren arabera egokienak direnak hautatuz.
1.2 Eguneroko bizitzako eta gizarte-zientzietako problemen soluzio batzuk lortzea, ebazpen-faseei jarraikiz eta erabilitako prozedura deskribatuz.	1.2 Eguneroko bizitzako eta gizarte-zientzietako problemen zenbait soluzio lortzea, ebazpen-faseei jarraikiz eta erabilitako prozedura deskribatuz eta argudiatuz.
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1 Gizarte-esparruko problema baten ebazpenean lortutako soluzioen baliozkotasun matematikoa egiaztatzea, arrazoibidea eta argudiatzea erabiliz.	2.1 Gizarte-esparruko problema baten ebazpenean lortutako soluzioen baliozkotasun matematikoa frogatzea, arrazoibidea eta argudiatzea erabiliz.
2.2 Problema baten soluziorik egokiena hautatzea, haren bidezkotasuna aztertuz testuinguru sozial eta ekonomikoaren ezaugarrien arabera (iraunkortasuna, ekitatea…).	2.2 Problema baten soluziorik egokiena hautatzea, haren bidezkotasuna aztertuz testuinguru sozial eta ekonomikoaren ezaugarrien arabera (iraunkortasuna, ekitatea…), eta erabilitako prozedura matematikoaren egokitasuna baloratuz.
3. konpetentzia espezifikoa	
3.1 Ezagutza matematiko berriak eskuratzea galderak, usteak eta problemak modu gidatuan eta taldean formulatuz, arrazoibide eta argudio matematikoak erabiliz eta tresna teknologikoetan oinarrituz.	3.1 Ezagutza matematiko berriak eskuratzea galderak, usteak eta problemak modu gidatuan eta taldean formulatuz, arrazoibide eta argudio matematikoak erabiliz eta tresna teknologikoetan oinarrituz.
3.2 Aieruen edo problemen planteamenduan errorea ezagutzea, ikaskuntzan aurrera egiteko eta ezagutza berriak eskuratzeko modu bat dela ulertuz.	3.2 Aieruen edo problemen planteamenduan errorea bere gain hartzea, ikaskuntzan aurrera egiteko eta ezagutza berriak eskuratzeko modu bat dela ulertuz.
4. konpetentzia espezifikoa	
4.1 Eguneroko bizitzako eta gizarte-zientzietako egoera problematizatuak interpretatzea eta modelizatzea, arazo bat zatietan deskonposatuz, horiek sortzen dituzten patroiak eta printzipioak ezagutuz eta pentsamendu konputazionala erabiliz, algoritmoak aldatuz eta sortuz.	4.1 Eguneroko bizitzako eta gizarte-zientzietako egoera problematizatuak interpretatzea, modelizatzea eta ebaztea, arazo bat zatietan deskonposatuz, horiek sortzen dituzten patroiak eta printzipioak ezagutuz eta pentsamendu konputazionala erabiliz, algoritmoak aldatuz, orokortuz eta sortuz.

Lehenengo maila	Bigarren maila
5. konpetentzia espezifikoa	
5.1 Ikuskera matematiko integratua adieraztea, problemak ebatziz, erlazioak arakatuz eta zenbait ideia eta elementu matematikoren artean konexioak aplikatuz (zenbaki errealak, ekuazioak eta inekuazioak, funtzioak eta horien propietateak, fenomeno estatistikoak…).	5.1 Ikuskera matematiko integratua adieraztea, problemak ebatziz, ikertuz, erlazioak arakatuz eta zenbait ideia eta elementu matematikoren artean konexioak aplikatuz (zenbaki errealak, matrizeak, ekuazio- eta inekuazio-sistemak, funtzioak, fenomeno estatistikoak…).
6. konpetentzia espezifikoa	
6.1 Problemak zenbait egoeratan ebaztea, prozesu matematikoak (inferitu, neurtu, komunikatu, sailkatu, aurreikusi…) erabiliz, eta hainbat konexio ezarriz eta aplikatuz mundu errealaren eta humanitateen eta gizarte-zientzien beste ezagutza-arlo batzuen eta matematikaren artean.	6.1 Problemak hainbat egoeratan ebaztea, prozesu matematikoak (inferitu, neurtu, komunikatu, sailkatu, aurreikusi…) erabiliz, eta zenbait konexio ezarriz eta aplikatuz mundu errealaren eta humanitateen eta gizarte-zientzien beste ezagutza-arlo batzuen eta matematikaren artean.
6.2 Ekintza berritzaileak proposatzea testuinguru sozial, artistiko eta kulturaletan, matematikaren sormen-ahalmena erabiliz.	6.2 Ekintza berritzaileak proposatzea testuinguru sozial, artistiko eta kulturaletan, matematikaren sormen-ahalmena erabiliz.
6.3 Matematikak gizadiaren aurrerabideari egiten dion ekarpena ezagutzea, hainbat problematikari (ingurumena, kontsumoa, desberdintasunak…) eta gaur egun planteatzen diren gizarte-zientzien erronkei irtenbideak proposatzeko egiten duen ekarpena identifikatuz.	6.3 Matematikak gizateriaren aurrerabideari egiten dion ekarpena aztertzea, egoera konplexuei eta gaur egun planteatzen diren gizarte-zientzien erronkei irtenbideak proposatzeko egiten duen ekarpenari buruz hausnartuz.
7. konpetentzia espezifikoa	
7.1 Ideia matematikoak irudikatzea, pentsamendu eta arrazoibide matematikoen prozesuak egituratuz eta teknologiarik egokienak hautatuz.	7.1. Ideia matematikoak irudikatzea, pentsamendu eta arrazoibide matematikoen prozesuak egituratuz eta ikertuz, eta teknologiarik egokienak hautatuz.
7.2 Morroiekin eta simulagailuekin irudikatzeko zein interakzioan jarduteko hainbat modu hautatzea eta erabiltzea, informazioa partekatzeko erabilgarritasuna baloratuz.	7.2. Morroiekin eta simulagailuekin irudikatzeko zein interakzioan jarduteko hainbat modu hautatzea eta erabiltzea, informazioa partekatzeko erabilgarritasuna baloratuz.
8. konpetentzia espezifikoa	
8.1 Hizkuntza matematikoa zenbait testuinguru eta euskarritan ezagutzea eta interpretatzea, ezagutza berria sortzeko eta finkatzeko bide gisa.	8.1 Hizkuntza matematikoa zenbait testuinguru eta euskarritan ezagutzea eta interpretatzea, ezagutza berria sortzeko eta finkatzeko bide gisa.
8.2 Ideia matematikoak modu antolatu eta egituratuan komunikatzea, euskarri, terminologia eta zorroztasun egokiak erabiliz eta jarraitutako prozesuei buruz gogoeta eginez.	8.2 Ideia matematikoak modu antolatu eta egituratuan komunikatzea eta argudiatzea, euskarri, terminologia eta zorroztasun egokiak erabiliz eta jarraitutako prozesuei buruz gogoeta eginez.
9. konpetentzia espezifikoa	
9.1. Ziurgabetasun-egoeretan helburuak lortzen jarraikia izatea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, eta errorea ikasteko prozesuaren parte gisa erabiliz.	9.1 Ziurgabetasun-egoeretan helburuak lortzen jarraikia izatea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, eta errorea ikasteko prozesuaren parte gisa erabiliz.
9.2. Erronken aurrean motibazio positiboa eta zoritxarraren aurrean adorea erakustea, kritika arrazoitua onartuz matematika ikasteko egoerei aurre egitean.	9.2 Erronken aurrean motibazio positiboa eta zoritxarraren aurrean adorea erakustea, kritika arrazoitua onartuz eta hortik ikasiz matematika ikasteko egoerei aurre egitean.
9.3. Talde heterogeneoetan zeregin matematikoetan aktiboki parte hartzea eta gizarte-trebetasunik egokienak identifikatzea, besteen emozio eta esperientziei babesa emanez, haien arrazoibideak entzunez, esleitutako rolaren bitartez taldeari ekarpenak eginez, eta taldearen ongizatea eta harreman osasungarriak sustatuz.	9.3 Talde heterogeneoetan zeregin matematikoetan aktiboki parte hartzea eta gizarte-trebetasunik egokienak identifikatzea, besteen emozio eta esperientziei babesa emanez, haien arrazoibideak entzunez, esleitutako rolaren bitartez taldeari ekarpenak eginez, eta taldearen ongizatea eta harreman osasungarriak sustatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehenengo maila	
A. Zentzu numerikoa.	
1. Zenbaketa.	Kontaketa sistematikoen askotariko estrategiak eta teknikak (zuhaitz-diagramak, konbinatoria--teknikak eta abar).
2. Kantitatea.	Zenbakiak eta zenbaki-multzoak: sailkapena eta propietateen konparazioa eta kontrastea, zenbaki arrazionalak eta irrazionalak barne.
3. Eragiketen zentzua.	Berreturak, erroak eta logaritmoak: horien erlazioak ulertzea problemak sinplifikatzeko eta ebazteko.
4. Finantza-hezkuntza.	Finantza-hezkuntzarekin erlazionatutako problemak ebazteko estrategiak: kuotak, amortizazioa, interesak, maileguak… baliabide teknologikoak erabiliz.
B. Neurriaren zentzua.	
1. Neurketa.	Probabilitatea ausazko fenomenoekin lotutako ziurgabetasunaren neurri gisa.
2. Aldaketa.	Limiteak: zenbatespena edo kalkulua taula bat, grafiko bat edo adierazpen aljebraiko bat abiapuntu hartuta.
	Funtzio baten jarraitutasuna: limiteen aplikazioa jarraitutasunaren azterketan.
	Funtzio baten deribatua: kontzeptuaren eraikuntza, gizarte-zientzien testuinguruetako aldaketaren azterketatik abiatuta.
C. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala.	
1. Patroiak.	Egoera errazetan sortzen diren patroiak: identifikazioa eta orokortzea.
2. Eredu matematikoa.	Egoera errazetan oinarrizko erlazio kuantitatiboak identifikatzeko eta erlazio horiek modeliza ditzaketen funtzio mota edo motak (polinomikoak, esponentzialak, arrazionalak, logaritmikoak eta zatika definituak) zehazteko estrategiak.
	Ekuazioak, inekuazioak eta ekuazio-sistemak: egoeren modelizazioa bizitza errealeko eta gizarte-zientzietako hainbat testuingurutan, eta ebazpena.
3. Berdintza eta desberdintza.	Ekuazioak, inekuazioak eta sistemak ebaztea, hainbat testuingurutako egoeren modelizaziotik abiatuta planteatzen diren erronkei irtenbidea emateko.
4. Erlazioak eta funtzioak.	Funtzioen irudikapen grafikoa tresna teknologikoen bidez: behatutako erlazioen interpretazioa.
	Funtzio moten propietateak, barnean direla funtzio polinomikoa, esponentziala, arrazionala, logaritmikoa, periodikoa eta zatika: ulermena eta konparazioa, baita tresna digitalen bidez ere.
	Gizarte-zientzien eta ekonomiaren erlazio matematikoak irudikatzeko eta azaltzeko aljebra sinbolikoa.
5. Pentsamendu konputazionala.	Eguneroko bizitzako eta gizarte-zientzietako problemen formulazioa, analisia eta ebazpena, programa eta tresna egokiak erabiliz.
	Problema bererako algoritmo alternatiboak: arrazoibide logikoaren bidezko konparazioa.
D. Zentzu estokastikoa.	
1. Antolaketa eta datuen analisia.	Bi dimentsioko aldagai estatistikoak: baterako banaketa, bazter-banaketak eta baldintzazko banaketak. Mendekotasun funtzionalaren eta estatistikoaren analisia.
	Erregresio lineala eta koadratikoa: bi aldagai estatistikoren arteko erlazioa; doikuntzaren egokitasunaren analisi eta balorazio grafikoa.
	Korrelazio-koefizientea: interpretazioa, erlazio linealaren kuantifikazioa, fidagarritasunaren iragarpena eta balorazioa gizarte-zientzien testuinguruetan, eta abar.
	Korrelazioaren eta kausalitatearen arteko bereizketa.
	Tresna teknologikoak eta digitalak datu estatistikoen analisian eta irudikapenean.
2. Ziurgabetasuna.	Probabilitatearen zenbatespena, maiztasun erlatiboaren kontzeptutik abiatuta eta ausazko fenomenoekin lotutako ziurgabetasunaren neurri gisa.

Lehenengo maila	
	Probabilitate bakunen eta konposatuen kalkulua eguneroko bizitzako problemen ebazpenean. Laplace-ren erregela zenbait kontaketa-teknikarekin konbinatuta (zuhaitz-diagramak, konbinatoria-teknika errazak…).
	Baldintzazko probabilitatearekin erlazionatutako paradoxak eta falaziak. Ziurgabetasuna dakarten bizitza errealeko egoeretan argudio engainagarriak ezagutzeko eta oinarritutako eta argudiatutako erabakiak hartzeko estrategiak.
3. Probabilitate-banaketak.	Ausazko aldagai diskretuak eta jarraituak. Banaketaren parametroak.
	Fenomeno estokastikoen modelizazioa probabilitate binomialeko eta normaleko banaketen bidez. Probabilitateen kalkulua, baita informatika-aplikazioekin ere.
	Probabilitateak kalkulatzea, binomiala normaletik hurbilduz.
4. Inferentzia.	Azterketa estatistikoen diseinua: dimentsio bakarreko eta biko laginak hartzea eta analizatzea, tresna digitalak erabiliz erabakiak hartzeko eta iritzi justifikatuak emateko.
E. Zentzu sozioafektiboa.	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak.	Norberaren emozioak eta sentimenduak ezagutzera bideratutako autokontzientzia-trebetasunak, balizko estres- eta antsietate-egoerei aurre eginez matematikaren ikaskuntzan.
	Errore indibidual eta kolektiboaren tratamendua, aldez aurretik eskuratutako jakintzak mobilizatzen dituen eta matematikako ikasgelan ikasteko aukerak sortzen dituen elementu gisa.
2. Talde-lana eta erabakiak hartzea.	Problemen ebazpenean aukerak ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko oinarrizko trebetasunak.
	Problemen ebazpenean hainbat planteamendu ezagutzeko eta onartzeko estrategiak, besteen ikusmoldeak norberaren estrategia berri eta hobetu bihurtuz, prozesuan enpatia eta errespetua erakutsiz.
	Problemak eta zeregin matematikoak talde heterogeneo eta mistoetan ebazteko talde-laneko teknikak eta estrategiak, hala nola ikaskuntza kooperatiboa eta lidergo banatua.
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna.	Komunikazio eraginkorra garatzeko trebetasunak: entzute aktiboa, galderak formulatzea edo behar denean laguntza eskatzea eta ematea.
	Matematikak eta matematikariek historian zehar zientziaren eta teknologiaren analisian eta aurrerapenean izan duten ekarpenaren eta zereginaren balorazioa.
	Euskal gizarteak eta munduak oro har izango dituzten etorkizuneko erronkei arrakastaz aurre egiteko eta herritar kritiko eta gogoetatsu gisa jarduteko aplikatutako ezagutza matematikoaren berezko balioaz jabetzeko estrategiak.

Bigarren maila	
A. Zentzu numerikoa.	
1. Eragiketen zentzua.	Zenbaki errealekin eta matrizeekin eragiketak egiteko trebetasunaren garapena, kalkulu mentala edo lapitza eta papera erabiliz kasu errazetan eta teknologia kasu konplexuenetan.
	Matrizeen batura eta biderkadura: interpretazioa, ulermena eta propietateen aplikazio egokia.
2. Erlazioak.	Matrizeen multzoak: egitura, ulermena eta propietateak. .
B. Neurriaren zentzua.	
1. Neurketa.	Kurba baten azpiko azalera gisa definitutako integralaren interpretazioa.
	Jatorrizkoak kalkulatzeko oinarrizko teknikak. Funtzio polinomikoek mugatutako barrutien azaleren kalkulurako aplikazioa.
	Probabilitatea ausazko fenomenoekin lotutako ziurgabetasunaren neurri gisa.
2. Aldaketa.	Deribatua aldaketa-arrazoi gisa hainbat testuingurutako optimizazio-problemen ebazpenean (gizarte-zientziak, ekonomia…).
	Funtzio errazen bidez —funtzio polinomikoak eta funtzio arrazional garrantzitsu batzuk— modeliza daitezkeen egoeren irudikapenari eta azterketari limitearen eta deribatuaren kontzeptuak aplikatzeko estrategiak.

Bigarren maila	
C. Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala.	
1. Patroiak.	Patroiak eta erregulartasunak hainbat egoeratan: identifikazioa eta orokortzea.
2. Eredu matematikoa.	Erlazio kuantitatiboak hainbat egoeratan: erlazioak modeliza ditzaketen funtzio motaren edo moten identifikazioa eta zehaztapena.
	Hainbat testuingurutan egoerak modelizatzeko eta ebazteko ekuazio-sistemak eta inekuazioak, baita tresna digitalekin ere.
	Matrizeen erabilera, gutxienez ere, ekuazio linealen sistemak edo grafoak agertzen diren egoerak modelizatzeko.
	Inekuazio-sistemen erabilera, programazio linealeko problemak sorrarazten dituzten egoerak modelizatzeko.
2. Berdintza eta desberdintza.	Adierazpen aljebraikoen forma baliokideak ekuazioen eta inekuazioen ebazpenean, kalkulu mentalaren, arkatz- eta paper-algoritmoen eta tresna digitalen bidez.
	Ekuazio- eta inekuazio-sistema linealen ebazpena hainbat testuingurutan
4. Erlazioak eta funtzioak.	Funtzioen irudikapen grafikoa, analisia eta interpretazioa, zenbait bitarteko erabiliz, digitala barne.
	Funtzio moten propietateak: identifikazioa, ulermena eta konparazioa.
	Problema-egoera baten, haren funtzio sinbolikoaren moduko ereduaren eta funtzio horren irudikapen grafikoaren arteko konexioak, laguntza digitalarekin.
5. Pentsamendu konputazionala.	Eguneroko bizitzako eta gizarte-zientzietako problemen formulazioa, analisia eta ebazpena, tresna edo programarik egokienak erabiliz.
	Matrizeekin eta determinanteekin egindako eragiketen eta ekuazio linealen sistemen ebazpenaren propietateen analisi algoritmikoa.
	Matrizeekin egindako eragiketen propietateen eta ekuazio linealen sistemen ebazpenaren analisi algoritmikoa.
	Tresna digitalen erabilera, soluzio matematiko baten arrazoizkotasuna zehazteko.
D. Zentzu estokastikoa.	
1. Ziurgabetasuna.	Probabilitate-kalkulua esperimentu konposatuetan. Baldintzazko probabilitatea eta gertaeren independentzia. Zuhaitz-diagramak eta kontingentzia-taulak.
	Probabilitate totalaren teorema eta Bayesen teorema problemen ebazpenean, ziurgabetasun-egoeretan erabaki egokiak hartzeko.
	A priori probabilitatea, egiantz-berresleipena eta a posteriori probabilitatea zuhaitz-diagrama baten edo kontingentzia-taula baten laguntzarekin eta Bayesen teoremarekin duen erlazioa aztertzeko estrategiak.
2. Probabilitate-banaketak.	Ausazko aldagai diskretuak eta jarraituak. Banaketaren parametroak.
	Fenomeno estokastikoen modelizazioa probabilitate-banaketa binomialaren eta normalaren bidez. Probabilitateen kalkulua, baita aplikazio informatikoekin ere.
3. Inferentzia.	Lagin adierazgarrien hautaketa; laginketa-tekniken hastapenak.
	Batezbestekoaren, proportzioaren eta desbideratze tipikoaren estimazioa eta interpretazioa.
	Batezbestekoaren eta proportzioaren zenbatespena. Banaketa normalean oinarritutako konfiantza-tarteak. Testuinguruan kokatutako egoeren eraikuntza, analisia eta erabakiak hartzea.
	Konfiantzaren, errorearen eta lagin-tamainaren arteko erlazioa.
	Tresna digitalak azterketa estatistikoetan
E. Zentzu sozioafektiboa.	
1. Sinesmenak, jarrerak eta emozioak.	Norberaren emozioak eta sentimenduak ezagutzera bideratutako autokontzientzia- eta autogestio-trebetasunak, balizko estres- eta antsietate-egoerei aurre eginez matematikaren ikaskuntzan.

Bigarren maila	
	Errore indibidual eta kolektiboaren tratamendua eta analisia, aldez aurretik eskuratutako jakintzak mobilizatzen dituen eta matematikako ikasgelan ikasteko aukerak sortzen dituen elementu gisa.
2. Erabakiak hartzea.	Testuinguru matematikoetan problemak ebaztean egoera ebaluatzeko eta erabaki eraginkorrak hartzeko trebetasunak.
	Problemen ebazpenean hainbat planteamendu ezagutzeko eta onartzeko estrategiak, besteen ikusmoldeak norberaren estrategia berri eta hobetu bihurtuz, prozesuan enpatia eta errespetua erakutsiz.
	Problemak eta zeregin matematikoak talde heterogeneo eta mistoetan ebazteko talde-laneko teknikak eta estrategiak, hala nola ikaskuntza kooperatiboa eta lidergo banatua.
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna.	Matematika ikasten arrakasta izateko gizarte- eta komunikazio-trebetasun eraginkorrak.
	Matematikak eta matematikariek historian zehar zientziaren eta teknologiaren analisian eta aurrerapenean izan duten ekarpenaren eta zereginaren balorazioa.
	Giza mugen onarpena, “zentzu sozioafektibo” honetan planteatutako helburu guztiak lortzeari begira, gure mugak eta gure erroreak onartuz eta erresilientziaz jokatuz haiek lortzen jarraitzeko.

GREKOA

Grekoa modalitateko jakintzagaia da Humanitateen eta Gizarte Zientzien Batxilergoan, eta gogoeta sakona ahalbidetzen du orainari buruz eta Humanismoak XXI. mendeko erronken eta desafioen aurrean bete dezakeen eta bete behar duen zereginari buruz, greziar hizkuntzarekin, kulturarekin eta zibilizazioarekin zerikusia duten alderdien ikaskuntzaren bitartez.

Grekoaren helburu nagusia da greko klasikoaren oinarrizko hizkuntza-konpetentzia eskuratzea, batez ere idatzizko ulermenarekin zerikusia duena. Horri esker, ikasleek Greziar Antzinatean sartzeko iturri primarioak erabili ahal izango dituzte haren alderdi nagusiak ezagutzeko, ulertzeko eta interpretatzeko tresna pribilegiatu gisa. Hori dela eta, jakintzagai hau hiru ardatzen inguruan egituratzen da: grekoa, heleniar mundurako hurbilketa kritikoa eta greziar zibilizazioaren ondarearen eta legatuaren azterketa.

Jakintzagai honek, gainera, hizkuntzak, literatura, erlijioa, historia, filosofia, zuzenbidea, politika edo zientzia ikasteko balio instrumentala du, eta mundua, gertaerak eta sentimenduak ulertzeko aukera ematen duen eta ikasleen hezkuntza zibiko eta kulturalean laguntzen duen substratu kulturala eskaintzen du. Bestalde, Batxilergoko Grekoa jakintzagaiaren ikuspegi eleaniztunak gogoeta sakona eskatzen du grekoaren beraren funtzionamenduari buruz, haren lexikoari buruz, haren formanteei buruz, berezitasunei buruz eta ñabarduren aberastasunari buruz, baita EAEko irakaskuntzako hizkuntzei buruz eta ikasleen hizkuntza-errepertorio indibiduala osatzen dutenei buruz ere. Gogoeta metalinguistikoa eta hizkuntzen artekoa sustatzen ditu, eta hizkuntza-konpetentziak indartzen, hizkuntza-aniztasuna aintzat hartzen eta hizkuntzen arteko harremana bultzatzen laguntzen du, ikuspegi inklusibo eta demokratikotik, inongo aurreiritzirik gabe.

Konpetentzia espezifikoek, beraz, orainaren eta iraganaren artean elkarrizketa sakona ezartzeko aukera eskaintzen dute, ikuspegi kritiko eta humanistatik: alde batetik, testua eta haren ulermena hizkuntza klasikoen ikaskuntzan funtsezko elementu gisa kokatuz, haien kultura eta zibilizaziora heltzeko sarbide modura, hizkuntza-jakintzak eta hizkuntzaz bestekoak aldi berean aktibatuz; eta, bestetik, greziar zibilizazioaren testuei eta legatu material eta immaterialari eta Europako kultura, gizarte, politika eta identitateari egindako funtsezko ekarpenari buruzko gogoeta kritikoa, pertsonala eta kolektiboa egiten lagunduko duten tresnak garatuz, betiere genero-ikuspegia kontuan hartuta.

Oinarrizko jakintzak multzo bakar batean aurkezten dira, etapako bi mailen arteko ikaskuntza-testuinguruen araberako mailakatze eta sekuentziazio malgua ahalbidetzeko, eta bost multzotan antolatuta daude.

– Grekoa: greko klasikoaren oinarrizko hizkuntza-konpetentziak eskuratzea du ardatz, era askotako enuntziatuak, zatiak eta testuak irakurtzeko, ulertzeko eta interpretatzeko tresna gisa.

– *Eleaniztasuna:* grekoa ikasteak, zehazki grekoaren etimoak aztertu eta identifikatzeak, ikasleen lexiko-errepertorioa nola zabaltzen duen, terminoak komunikazio-egoeretara zehatzago molda ditzaten nabarmentzen du.

– *Literatura-hezkuntza:* grekozko literatura-testuen ulermenean eta interpretazioan inplikatutako jakintza guztiak integratzen ditu, eta testuen arteko ikusmoldearen bidez laguntzen du literatura-eredu klasikoetan inspiratutako unibertsal formal eta tematikoak identifikatzen eta deskribatzen.

– *Antzinako Grezia:* espiritu kritiko eta humanista garatzeko behar diren estrategiak eta ezagutzak biltzen ditu, eta iraganaren eta orainaren arteko antzekotasunei eta desberdintasunei buruzko gogoeta sustatzen du.

– *Legatua eta ondarea:* greziar zibilizazioaren herentzia material eta immaterialera hurbiltzea ahalbidetzen duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen ditu, eta, eginkizun horretan, inspirazio-iturri, historiaren lekukotasun gisa eta Europako kulturaren sustrai nagusienetako gisa duen balioa ezagutu eta balioesten du.

Grekoa II jakintzagaian Grekoa I jakintzagaiaren aldean egiten den sakontzeak honako alderdi hauek hartzen ditu: errealitatea analizatzeko kontzientzia teoriko eta metodologiko handiagoa; ezagutza multzo handiagoa mobilizatzea; testuen, eskatutako produkzio- edo interpretazio-trebetasunen eta erabilerei buruzko gogoetarako behar den metahizkuntzaren konplexutasuna mailakatzea; eta ikasleei emandako autonomia-maila. Horregatik, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak etapa honetako bi mailei buruzkoak dira.

Curriculum honen konpetentzia-izaerarekin bat etorriz, diziplinarteko zereginak sortzea gomendatzen da, testuinguruan kokatuak, esanguratsuak eta garrantzitsuak, eta ikas-egoerak garatzea, ikasleak gero eta autonomoagoak diren gizarte-eragiletzat eta beren ikaskuntza-prozesuaren arduraduntzat har daitezen, beren errepertorioak, interesak eta inguruabar espezifikoak kontuan hartuta, horrek zenbait metodologia konbinatzea ahalbidetzen du-eta. Ildo horretan, ikasleek zeregin aktiboa beteko dute grekozko hizkuntza-konpetentzia eskuratzeko prozesuan, testuen eta enuntziatuen esanahiaren ulermenean eta komunikazioan jarriz arreta, hiztegia eskuratzearen garrantzia azpimarratuz eta ikasgeletan boz gorako irakurketa, idatzizko konposizioa eta ahozko produkzioa txertatuz.

Grekoaren eta greziar kulturaren eta zibilizazioaren irakaskuntzak diziplinarteko lanerako aukera esanguratsuak eskaintzen ditu, zenbait jakintzagairen oinarrizko jakintzak konbinatzea eta aktibatzea ahalbidetzen dutenak. Horrela, ikasleek hauteman dezakete zer garrantzitsua den legatu klasikoa ezagutzea beren iritzi kritiko eta estetikoa, beren buruaz eta inguruko munduaz duten pertzepzioa aberasteko. Ildo horretan eta modu nabarmenean, greko klasikoaren ikasketak latinaren eta latindar kulturaren ikasketarekin kointziditzen duenez, bi jakintzagaien tratamendu koordinatua egitea komeni da. Azkenik, europar herritartasun demokratikoa eta aurreiritzirik gabekoa eraikitzen laguntzeko, jakintzagai honetatik nazioz haraindiko kolaborazio-lana egin daiteke, heleniar kultura egungo europar identitatea osatzen duten errealitateen topagune duten Europako programen esparruan. Horretarako, tresna digitalek potentzial handia dute jakintzagai honen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa indartzeko, baita alfabetatze mediatikoa eta teknologiaren erabilera egokia, segurua, etikoa eta arduratsua bultzatzeko ere.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Grekozko testu gero eta zailagoen ideia nagusiak ulertzea eta interpretatzea, eta grekoaren oinarrizko alderdiak ulertzea, unitate linguistikoak identifikatuz eta analizatuz eta horiei buruz gogoeta eginez, irakaskuntzako hizkuntzekiko eta ikasleen errepertorio indibidualeko beste hizkuntza batzuekiko konparazioaren bidez, grekozko literatura klasikoaren altxorretara zuzenean hurbiltzeko, gure zibilizazioaren oinarria den aldetik.

Enuntziatu eta testuen idatzizko ulermenaren hizkuntza-trebetasuna eskuratzea da hizkuntza klasikoak ikasteko prozesuaren muina. Horretarako, idatzizko eta ahozko ulermenaren eta produkzioaren, interakzioaren eta bitartekotzaren trebetasunak aldi berean eta pixkanaka garatzea ahalbidetuko duen didaktika proposatzen da, ikasleak grekoaren morfologiaren, sintaxiaren eta lexikoaren funtsezko ezagutzarantz bideratzeko. Eskuratutako ezagutzetatik abiatuta, ikasleek modu gero eta autonomoagoan irakurri, ulertu, produzitu eta interpretatzen dituzte enuntziatu errazak eta zailtasun egoki eta mailakatuko testuak euskarri analogiko eta digitaletan, eta, gainera, bitartekotza linguistikoko trebetasunak garatzen dituzte (laburbiltzea, sintetizatzea, azaltzea, parafraseatzea, itzultzea eta abar) grekotik irakaskuntzako hizkuntzetara, zuzentasun ortografikoari eta estilistikoari erreparatuta.

Enuntziatu eta testuak idatziz eta ahoz ulertzeko eta sortzeko trebetasunak eta interakzioaren eta bitartekotza linguistikoaren trebetasunak pixkanaka lortzeak erraztu egiten die ikasleei grekoaren lexikoa eta egitura sintaktikoak barneratzea, eta hizkuntzari berari buruzko gogoeta, termino metalinguistikoen erabilera eta lexiko-errepertorioa areagotzea bultzatzen du. Horri dagokionez, testuak interpretatzearen eta deskodetzearen didaktikak lagundu egiten du grekoaren unitate linguistikoak analizatzeko eta identifikatzeko estrategiak indartzen ez ezik, hizkuntza ezagunekiko konparazioarekin osatuz, testuaren testuingurua eta zentzua ezagutzeko funtsezkoak diren testu barneko eta testuen arteko erreferentziak ezagutzen ere.

Ikasleek grekoa ikasteko prozesuan duten zeregin aktiboak didaktika espezifikoa eskatzen du, hizkuntza-konpetentzia desberdinetan eragina duten hainbat estrategia txertatzeko, hala nola idatzizko eta ahozko ulermena eta produkzioa, interakzioa eta bitartekotza. Horiek horrela, irakasleak taldearen gidari gisa betetzen duen egitekoa funtsezkoa da, euskarri analogiko eta digitaletan baliagarriak diren baliabide eta iturri bibliografikoen erabilerari buruz orientatzeko ez ezik, ikasleak grekozko komunikazio-prozesuetan inplikatzeko ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KD3.

2. Erabili ohi den lexikoan grekoaren etimoak eta formanteak bereiztea, gertatu diren aldaketa semantikoak identifikatuz eta konparazioa ezarriz irakaskuntzako hizkuntzekin eta ikasleen errepertorio indibidualeko beste hizkuntza batzuekin, lexiko ezagunaren esanahi etimologikoa eta lexiko berriaren edo espezializatuaren esanahiak ondorioztatzeko.

Grekoa ikuspegi eleaniztunetik irakasteak aukera ematen die ikasleei beren hizkuntza-errepertorio indibiduala aktibatzeko, hura osatzen duten hizkuntzak erlazionatuz eta horietan grekoaren sustrai, aurrizki eta atzizkiak identifikatuz, eta denboran zehar gertatu diren aldaketa morfologiko edo semantiko posibleei buruz gogoeta eginez. Ikuspegi eleaniztunak eta komunikatiboak hizkuntza berrien ikaskuntza hobetzeko behar diren trebetasunak garatzen laguntzen du, eta ikasleen hizkuntza-ezagutzen maila desberdinak eta haien errepertorio indibidualak kontuan hartzea ahalbidetzen du. Halaber, hizkuntzak elkarri lotuta ikasteko bidea ematen du, grekoa zenbait hizkuntza modernoren lexikoan dagoen hizkuntza dela aitortuz, askotariko hizkuntza-eskakizunak balioesteko, eta aniztasun linguistikoa, dialektala eta kulturala identifikatzen, baloratzen eta errespetatzen lagunduz, kultura partekatua eraikitzeko.

Grekoaren lexikoa ikasteak irakurmena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzen laguntzen du, baita ikasleen errepertorio lexikala osatzen duten hizkuntzetan finkatzen eta zabaltzen ere, termino baten esanahi etimologikoa identifikatu eta definitzeko eta termino berri edo espezializatuen esanahiak ondorioztatzeko aukera eskainiz, bai esparru humanistikoan bai zientifiko-teknologikoan.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: KE2, KE3, STEM1, KPSII5, KAKK2.

3. Hainbat genero eta garaitako grekozko testuak irakurtzea, interpretatzea eta komentatzea, sorkuntza-prozesua konplexua eta testuinguru historiko, sozial eta politikotik eta haren eragin artistikoetatik bereizezina dela onartuz, haien genealogia identifikatzeko eta Europako literaturari egindako ekarpena baloratzeko.

Zenbait genero eta garaitako grekozko testuen irakurketa, interpretazioa eta komentarioa Grekoa jakintzagaiaren zutabeetako bat da batxilergoko etapan, eta ezinbestekoa da ikasleak informazioa lortzeko iturri primarioak erabiltzeak duen garrantziaz jabetu daitezen. Testu horien ulermenak eta interpretazioak ikaskuntzaren emaitza izan behar duen testuinguru historikoa, zibikoa, politikoa, soziala, linguistikoa eta kulturala behar du. Jatorrizko testuekin, edizio elebiduneko edo itzulitako testu osoekin edo hautatutako zatien bitartez lan egiteak grekozko oinarrizko kontzeptu eta terminoei arreta jartzea ahalbidetzen du, lexikoa eta kultura ezagutzea dakartenei, irakurketa kritikoa egiten laguntzeko eta mendebaldeko zibilizaziorako duten balioa mugatzen duten faktoreak identifikatzeko. Gainera, testu elebidunekin lan egiteak hizkuntza-jakintzak eta hizkuntzaz kanpokoak integratzen laguntzen du, zenbait itzulpen eta interpretazio-ikuspegi konparatzeko aukera eskainiz eta horien hurrenez hurreneko indar eta ahuleziei buruz eztabaidatuz.

Grekozko testuak irakurtzeak, oro har, ikasleen esperientziarekin zerikusirik ez duten testuak eskuratzea dakar berekin; horregatik, beharrezkoa da interpretazio-tresnak eskuratzea, irakurketarekin berarekin gero eta autonomia handiagoa izateko eta balio-iritzi kritikoak emateko. Grekozko testuak interpretatzeak berekin dakar mendebaldeko zibilizazioaren fundazioarekin lotuta daudela ulertzea eta onartzea, testuetarako hurbilketa testuinguruari eta gaiari buruzko ezagutzatik hasi eta analisi, gogoeta eta sorkuntzarako estrategiak garatzeraino kontuan hartzen duen prozesu dinamikotzat hartuz, betiere genero-ikuspegitik, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza izaera ulertzeko eta sentsibilitate estetikoa garatzeko. Literatura- eta arte-sorkuntzak eta Antzinate klasikoko gertakari historikoak eta elezaharretakoak ezagutzeak, baita asmo estetikoa duten testuak sortzeak ere, horiek inspirazio-iturritzat hartuta, zenbait euskarriren bitartez eta beste hizkuntza artistiko, ikus-entzunezko edo digital batzuen laguntzarekin, obrak ulergarriago egiten laguntzen du, gure kultura-ondarean duten iraupena identifikatuz eta baloratuz, baita erreferentziak antzinako ereduetatik hartu dituzten kulturetara eta literatura-, kultura- eta arte-mugimenduetara egokitzeko prozesuak ere. Testuen genealogia testuen arteko ikuspegiaren bitartez ezartzeko irakaskuntza-bitartekotzari esker, egiazta daiteke garai horietan unibertsal formalak eta tematikoak daudela, eta, aldi berean, bizitzan zehar gero eta konplexutasun, kalitate eta aniztasun handiagoa izango duten irakurketa-ibilbideak modu autonomoan sortzen laguntzen du.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK4, HK3, KAKK1, KAKK2.

4. Greziar zibilizazioak esparru pertsonalean, erlijiosoan eta soziopolitikoan dituen ezaugarriak analizatzea, genero-ikuspegiarekin, heleniar munduari buruzko ezagutzak bereganatuz eta oraina eta iragana kritikoki konparatuz, greziar mundu klasikoak gure inguruneari egin dizkion ekarpenak baloratzeko, herritartasun demokratiko eta konprometituaren oinarri gisa.

Heleniar zibilizazioaren ezaugarriak eta Europako identitateari egin dion ekarpena analizatzeak berekin dakar greziar iturrien bitartez adierazitako informazioa jasotzea eta kontrastatzea, ezaugarri horien legatuari eta gure gizartean duen presentziari buruz gogoeta egin ahal izateko estrategia egokiak aktibatuz. Konpetentzia espezifiko hau hiru esparruren inguruan egituratzen da: pertsonala, familia-loturak eta antzinako greziar munduko pertsonen bizitzako etapen ezaugarriak edo gerra bateko irabazleen eta galtzaileen portaera bezalako alderdiak biltzen dituena, besteak beste; erlijiosoa, sakratuaren antzinako kontzeptua eta gizabanakoak jainkoekin eta erituekin duen harremana biltzen dituena, besteak beste; eta soziopolitikoa, gizabanakoak polisarekin (πόλις) eta haren erakundeekin dituen harremanak eta gobernu-moduen araberako antolaketa sozialeko moduak kontuan hartzen dituena. Aipatutako hiru esparruen azterketa genero-ikuspegitik egin behar da, ikasleek aukera izan dezaten gizakiei esleitutako desberdintasun kulturalen ondorio diren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko gogoeta egiteko.

Iraganaren eta orainaren arteko erlazioaren analisi kritikoak ikerketa eta informazio-bilaketa gidatua eskatzen du, taldean edo bakarka egina, iturri analogikoetan zein digitaletan, ikuspegi humanistatik gogoeta egiteko denboran zeharreko konstante zein aldagai kulturalei buruz. Analisi kritikoko prozesuek gogoeta- eta komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dituzte, Antzinate klasikoaren herentzia eta hura jatorri duten desberdintasun kulturalak errespetatzen dituztenak, herritartasun demokratikoa eta inguruan

duen munduarekin konprometitua finkatzera bideratuak. Beraz, aukera bikaina eskaintzen dute ikasgelan eztabaidarako eta ahozko azalpenerako teknikak eta estrategiak abian jartzeko, oratoriaren tradizio klasikoarekin bat etorriz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KE3, KD1,KPSII3.1, HK1, HK3.

5. Greziar zibilizaziotik jasotako ondare historiko, arkeologiko, artistiko eta kulturala kritikoki baloratzea, haren iraunkortasuna sustatuz eta giza sorkuntzaren emaitza gisa eta historiaren lekukotasun gisa ezagutuz, greziar legatu material eta immateriala ezagutzaren transmisore gisa eta sorkuntza moderno eta garaikideen inspirazio-iturri gisa azaltzeko.

Kultura-ondarea, UNESCOk adierazten duen moduan, iraganetik oinordetzan hartzen diren, orainean sortzen diren eta etorkizuneko belaunaldiei transmititzen zaizkien baliabideen emaria gizarteen esku jartzen duen produktua eta prozesua da aldi berean. Gainera, mitologia klasikoarekin gertatzen den bezala, sormenerako eta berrikuntzarako inspirazio-iturria da, eta kultura-produktu garaikideak eta etorkizunekoak sortzen ditu; beraz, hura ezagutu eta identifikatzea lagungarria da bilakaera eta denboran zeharreko erlazioa ulertzeko.

Heleniar zibilizazioaren legatua, bai materiala bai immateriala (mitoak eta kondairak, aztarna arkeologikoak, antzezlanak, usadio sozialak, pentsamendu filosofikoaren sistemak, antolaketa politikoaren moduak eta abar), herentzia aparta da, eta haren iraunkortasunak berekin dakar oreka bidezkoa aurkitzea gaur egungo kultura-ondareari etekina ateratzearen eta etorkizuneko belaunaldientzat ondare horren aberastasuna babestearen artean. Ildo horretan, greziar ondare kulturala babesteko, iraganeko memoria kolektibo gisa duen balioa kontserbatzeko eta haren funtzio sozial eta kulturalak berrikusteko eta eguneratzeko interesa duten herritarren konpromisoa behar da, egungo arazoekin erlazionatzeko eta etorkizunean haien zentzua, esanahia eta funtzionamendua mantentzeko gai izan daitezen. Greziar munduaren herentziaren iraupenari eta hura babesteko, kontserbatzeko eta zaharberritzeko prozesuei buruzko ikerketak baliabide analogikoak zein digitalak erabiltzea eskatzen du, dokumentazio-espazioetara iristeko, hala nola liburutegietara, museoetara edo hondeaketetara.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KD2, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Grekoa I eta Grekoa II
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Testu edo pasarte egokitu edo jatorrizkoak, zailtasun egokikoak, modu gidatuan boz gora irakurtzea, euskarri analogikoetan edo digitaletan, greko klasikoaren azentuazio- eta ahoskera-arauak aplikatuz.
1.2. Zailtasun egokiko eta progresiboko testu edo pasarte egokitu edo jatorrizkoetako ahozko edo idatzizko enuntziatuetatik informazio garrantzitsua ateratzea, euskarri analogikoetan, digitaletan edo multimodaletan, hizkuntzaren unitate linguistiko erregularrak identifikatuz eta analizatuz, eta euskararekiko, gaztelaniarekiko eta beste hizkuntza ezagun batzuekiko aldaerak eta kointzidentziak antzemanez.
1.3. Etaparako zailtasun egokiko eta progresiboko testu edo pasarte egokitu edo jatorrizkoen ideia nagusiak eta oinarrizko argumentu-ildoak interpretatzea, ortografia- eta adierazpen-zuzentasunarekin.
1.4. Hitz polisemikoen esanahi egokia hautatzea eta erabakia justifikatzea, informazio kotestuala edo testuinguru-informazioa kontuan hartuz eta interpretazio eta bitartekotza idatzizkoaren prozesuari laguntzeko tresnak erabiliz (laburbiltzea, sintetizatzea, azaltzea, parafraseatzea, itzultzea eta abar) zenbait euskarritan, hala nola hiztegi-zerrendak, glosarioak, hiztegiak, mapak edo atlasak, zuzentzaile ortografikoak, gramatikalak eta estilo-liburuak.
1.5. Testuen edo zatien interpretazio eta bitartekotza idatzizkoaren lanak, norberarenak eta ikaskideenak, berrikustea eta zuzentzea, hobekuntza-proposamenak eginez eta aldaketak terminologia espezializatuarekin argudiatuz, gogoeta linguistikotik abiatuta.

Grekoa I eta Grekoa II
1.6. Zailtasun egokiko eta progresiboko testuak idaztea eta enuntziatuak adieraztea, euskarri analogikoetan edo digitaletan, grekoaren berezko egiturak behar bezala erabiliz.
1.7 Grekoa ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea, zailtasun horiek gainditzeko eta ikaskuntza finkatzeko estrategiarik egokienak eta eraginkorrenak hautatuz, norberaren ikaskuntza planifikatzeko jarduerak, autoebaluazioa eta koebaluazioa eginez, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (HEP) edo ikaskuntza-eguneroko batean proposatutakoak, esplizitu eginez eta partekatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Erabili ohi den termino baten esanahi etimologikoa ondorioztatzea eta termino agertu berrien edo lexiko espezializatutik datozenen esanahia inferitzea, grekoaren etimoak eta formanteak ezagutzeko estrategiak modu gidatuan aplikatuz, gertatu diren aldaketa fonetikoak, morfologikoak edo semantikoak kontuan hartuz.
2.2. Grekoaren eta hizkuntza modernoen arteko erlazioa modu gidatuan azaltzea, greko-jatorriko elementu linguistiko komunak analizatuz eta ikasleen errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta hizkeren estrategiak eta ezagutzak erabiliz.
2.3. Aurreiritzi eta estereotipo linguistikoak identifikatzea eta kritikoki analizatzea, aniztasuna aberastasun kultural, linguistiko eta dialektal gisa baloratzeko eta errespetatzeko jarrera hartuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Gero eta konplexutasun handiagoko era askotako grekozko testu eta zati literarioak interpretatzea eta komentatzea, norberaren esperientzia mobilizatzea, mundua eta giza izaera ulertzea eta sentsibilitate estetikoa eta irakurtzeko ohitura garatzea dakarten analisi- eta gogoeta-estrategiak aplikatuz.
3.2. Grekozko obra edo zati literarioen generoak, gaiak, topikoak eta balio etikoak edo estetikoak analizatzea eta azaltzea, geroztiko obra edo zati literarioekin konparatuz, testuen arteko ikuspegi gidatutik eta genero-ikuspegia aintzat hartuz.
3.3. Heleniar zibilizazioa aztertu eta ulertzeko funtsezko kontzeptuak izendatzen dituzten grekozko hitzak identifikatzea eta definitzea, zeinen ikaskuntzak ezagutza lexiko eta kulturalak konbinatzen baititu, hala nola ἀρχή, δῆμος, μῦθος edo λόγος, zenbait formatutako testuetan.
3.4. Testu indibidualak edo kolektiboak sortzea, literatura-asmoz, estilo-kontzientziaz, zenbait euskarritan eta beste hizkuntza artistiko eta ikus-entzunezko batzuen laguntzarekin, inspirazio-iturri gisa greziar zibilizazioa eta kultura hartu dituzten obra edo zati adierazgarrien irakurketatik abiatuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Heleniar gizartearen prozesu historikoak eta politikoak, erakundeak, bizimoduak eta ohiturak azaltzea, genero-ikuspegia aintzat hartuz, egungo gizarteek dituztenekin konparatuz, gizarteen bilakaeraren eta giza eskubideen argitan izandako egokitzapenak eta aldaketak baloratuz, eta kultura partekatuaren eta memoria kolektiboarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritarren garapenaren alde eginez.
4.2. Gure gizarteko greziar legatuaren zenbait alderdiren garrantziari, bilakaerari, asimilazioari edo horiek zalantzan jartzeari buruz eztabaidatzea, estrategia erretorikoak eta oratoria modu gidatuan erabiliz, behar denean jarreren artean bitartekotza eginez, informazio eta esperientzia egiazkoak hautatuz eta kontrastatuz, eta beste iritzi eta argudiatze batzuekiko interesa, errespetua eta enpatia erakutsiz.
4.3. Greziar zibilizazioaren esparru pertsonal, erlijioso eta soziopolitikoko legatuaren alderdiei buruzko ikerketa-lanak zenbait euskarritan egitea, emakumearen figura, ikuskera, lana eta ekarpena analizatuz, zenbait iturritatik datorren informazioa lokalizatuz, hautatuz, kontrastatuz eta berriz landuz, haren fidagarritasuna eta egokitasuna kalibratuz, eta zorroztasunaren eta jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Greziar zibilizazioaren legatu materiala eta immateriala inspirazio-iturri gisa identifikatzea eta azaltzea, geroztiko produkzio kulturalak eta artistikoak analizatuz.
5.2. Greziar zibilizaziotik oinordetzan hartutako ondare historiko, arkeologiko, artistiko eta kulturala ikertzea, modu egokian, enpatikoan eta errespetuzkoan jardunez, eta babesteko prozesuekiko eta haren iraunkortasuna ziurtatzen duten jarrera zibikoekiko interesa erakutsiz.
5.3. Ikasleen ingurunean greziar legatua arakatzea, eskuratutako ezagutzak aplikatuz eta haien erabileren inplikazioei buruz gogoeta eginez, Antzinate klasikoak beren eguneroko bizitzan duen iraupenaren adibideak emanez, eta emaitzak zenbait euskarriren bitartez aurkeztuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Grekoa I eta Grekoa II
A. Grekoa
1. Grekoaren unitate linguistikoak
Greko klasikoaren alfabetoa, ahoskera eta azentuazioa.*
Grekozko zatiak eta testuak boz gora irakurtzeko jarraibideak.*
Hitz motak.*
Hizkuntza flexiboaren kontzeptua: izen-flexioa eta flexio pronominala (kasu-sistema eta deklinabideak) eta aditz-flexioa (aditz-jokoen sistema).*
Perpaus-sintaxia: kasuen funtzioak eta sintaxia.*
Perpaus-egiturak. Komunztadura eta hitz-ordena perpaus bakunetan eta perpaus elkartuetan.*
Aditzaren forma nominalak.*
2. Idatzizko interpretazio eta bitartekotza: teknikak, prozesuak eta tresnak
Analisi morfosintaktikoa ulermen-tresna gisa.*
Maiztasuneko oinarrizko lexikoa.*
Bakarrizketa eta elkarrizketa moduko testu errazak eta laburrak entzunez ulertzeko estrategiak.*
Interpretazio eta bitartekotza idatzizkoaren estrategiak: espektatiben formulazioa testu-ingurunetik (izenburua, obra…) eta testutik beretik abiatuta (eremu tematikoak, hitz-familiak eta abar), baita testuingurutik abiatuta ere; gaiaren ezagutza; egituraren eta generoaren deskribapena; testuen berezitasun linguistikoak (zuzeneko/zeharkako diskurtsoa, aditz-denboren erabilera, galdera erretorikoa eta abar).*
Interpretazio eta bitartekotza idatzizkoaren tresnak: glosarioak, hiztegiak, atlasak edo zuzentzaile ortografikoak euskarri analogikoan edo digitalean, eta abar.*
Zenbait itzulpenen irakurketa konparatua eta testu elebidunen komentarioa, terminologia metalinguistikotik abiatuta.
Ohiko baliabide estilistikoak eta testuaren edukiarekiko erlazioa.*
Enuntziatu eta testu laburrak sortzeko jarraibideak.*
Elkarrizketa-konbentzio eta -estrategiak, formatu sinkronoan eta asinkronoan.*
Idatzizko bitartekotza arrazoibide logikoari, iraunkortasunari, memoriari, problemen ebazpenari eta analisi- eta sintesi-gaitasunari bidea ematen dion tresna gisa.*
Errorea ikasteko prozesuaren parte gisa eta hobetzeko jarrera positiboa.
Autoebaluaziorako, koebaluaziorako eta autokonponketarako estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak.
B. Eleaniztasuna
Historian zeharreko idazkera-sistemak.*
Greziar alfabetoa: historia eta geroztiko eragina. Greziar alfabetoa irakaskuntzako hizkuntzetara transkribatzeko arauak.*
Grekoaren eragina irakaskuntzako hizkuntzen eta ikasleen errepertorio linguistiko indibiduala osatzen duten gainerako hizkuntzen bilakaeran.*
Indoeuroperatik grekora. Grekoaren etapak.*
Lexikoa: grekozko hitzak osatzeko hitz-elkarketako eta eratorpeneko oinarrizko prozedurak; erabili ohi den lexikoan eta zientzien eta teknikaren lexiko espezifikoan dauden greko-jatorriko lexemak, atzizkiak eta aurrizkiak; irakaskuntzako hizkuntzetan erabili ohi diren hitzen esanahia eta definizioa, haien grekozko etimoetatik abiatuta; grekoaren eragina irakaskuntzako hizkuntzen eta ikasleen errepertorio linguistiko indibiduala osatzen duten gainerako hizkuntzen bilakaeran; familia lexikalak eta grekoaren maiztasuneko oinarrizko hiztegia lantzeko oinarrizko teknikak.*
Hitzen esanahi etimologikoa eta hiztegiaren erabilera egokiaren garrantzia ezagutzeko interesa, komunikazioan oinarrizko tresna den aldetik.*
Hizkuntza guztiekiko errespetua eta haien hiztunen desberdintasun kulturalen onarpena.*

Grekoa I eta Grekoa II
Grekoaren ikasleekin nazioz haraindiko mailan ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak garatzeko tresna analogikoak eta digitalak.*
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntza) buruz gogoeta egiteko eta gogoeta partekatzeko esamoldeak eta oinarrizko lexiko espezifikoa.*
C. Literatura-hezkuntza
Literatura grekoaren etapak eta transmisio-bideak.*
Literatura grekoaren genero eta autore nagusiak: jatorria, tipologia, kronologia, ezaugarriak, gaiak, arrazoiak, tradizioa eta ezaugarriak.*
Grekozko literatura-testuen komentario eta analisi linguistiko eta literariorako teknikak.*
Literatura grekoaren harrera: latinezko literaturaren eta Europako kultura-produkzioaren gaineko eragina. Oinarrizko nozioak: testuartekotasuna, *imitatio*, *aemulatio*, *interpretatio*, *allusio*.*
Grekozko literatura-generoen eta egungo literaturaren generoen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak.*
Literatura-kritikaren hastapenetarako jarraibideak.
Literaturarekiko interesa, atsegin-iturri eta munduaren ezagutza-iturri den aldetik.*
Kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien jabetza intelektualaren eta egile-eskubideen errespetua: datu bibliografikoak tratatzeko tresnak eta plagioa saihesteko baliabideak.*
D. Antzinako grezia
Antzinako Greziako geografia: leku nagusien topografia, izena eta funtzioa. Bidaiari ospetsuak*
Historia: etapak; greziar munduaren historiaren mugarriak K.a. VIII. mendearen eta K.o. V. mendearen artean; kondairak eta gertakari historiko nagusiak; Greziaren historiako pertsona ospetsu historiko garrantzitsuak, emakumeak barne (Lesbosko Safo, Aspasia, Roxane…), haien testuinguruko biografia eta Europarako garrantzia.*
Greziaren historia eta antolaketa politikoa eta soziala, egungo gizartearen historia eta kulturaren funtsezko parte gisa.*
Greziar zibilizazioaren erakundeak, sinesmenak eta bizimoduak, eta egungo gizartean duten isla eta iraupena.*
Greziar kulturak latindar zibilizazioan duen eragina: *Graecia capta ferum victorem cepit*.*
Greziak mendebaldeko gizartearen kulturari eta pentsamenduari egindako ekarpena.*
Greziaren eta Persia edo Erroma bezalako atzerriko kulturen arteko harremana.*
Mediterraneo itsasoa atzoko eta gaurko kulturen bidegurutze gisa.
Diskurtso publikoak bizitza politiko eta sozialerako duen garrantzia.
E. Legatua eta ondarea
Legatuaren, herentziaren eta ondarearen kontzeptuak.*
Grekozko testu-transmisioa kultura-ondare gisa eta zenbait kultura eta garairen bidezko ezagutza-iturri gisa. Idazkera-euskarriak: motak eta babesa.*
Mitologia klasikoa eta haren iraupena adierazpen literario eta artistikoetan.*
Herri-lanak eta hirigintza: eraikuntza, kontserbazioa, babesa eta zaharberritzea.*
Antzezlanak eta antzerki-festibalak, haien bilakaera eta gaur egungo iraupena.*
Atletismo-lehiaketak eta haien gaur egungo iraupena.*
Greziar erakunde politikoak eta egungo sistema politikoan izan duten eragina eta iraupena.*
Emakumearen lana, ikuskera eta ekarpena erromatar bizitza sozial, familiar eta politikoan.*
Ahoz eztabaidatzeko eta azaltzeko oinarrizko teknikak.
Hezkuntza Antzinako Grezian: Atenas eta Espartako hezkuntza-ereduak eta gaur egungo sistemekiko konparazioa.*
Greziar Antzinateko artelan nagusiak.
Antzinate klasikoarekin erlazionatutako gune arkeologiko, museo edo festibal nagusiak.*

LATINA

Latina modalitateko jakintzagaia da Humanitateen eta Gizarte Zientzien Batxilergoan, eta gogoeta sakona ahalbidetzen du orainari buruz eta Humanismoak XXI. mendeko erronken eta desafioen aurrean bete dezakeen eta bete behar duen zereginari buruz, erromatar hizkuntzarekin, kulturarekin eta zibilizazioarekin zerikusia duten alderdien ikaskuntzaren bitartez.

Latinaren helburu nagusia da latinezko oinarrizko hizkuntza-konpetentzia eskuratzea, batez ere idatzizko ulermenarekin zerikusia duena. Horri esker, ikasleek Erromatar Antzinatean sartzeko iturri primarioak erabili ahal izango dituzte haren alderdi nagusiak ezagutzeko, ulertzeko eta interpretatzeko tresna pribilegiatu gisa, eta kontzientzia kritikoa eta humanista garatu ahal izango dute, latindar zibilizazioak euskal identitateari, Estatukoari eta Europakoari egindako ekarpenak ulertu eta analizatu ahal izateko. Hori dela eta, jakintzagai hau hiru ardatzen inguruan egituratzen da: latina, erromatar mundurako hurbilketa kritikoa eta latindar zibilizazioaren ondarearen eta legatuaren azterketa.

Jakintzagai honek, gainera, hizkuntzak, literatura, erlijioa, historia, filosofia, zuzenbidea, politika edo zientzia ikasteko balio instrumentala du, eta mundua, gertaerak eta sentimenduak ulertzeko aukera ematen duen eta ikasleen hezkuntza zibiko eta kulturalean laguntzen duen substratu kulturala eskaintzen du. Bestalde, ikuspegi eleaniztunak gogoeta sakona eskatzen du latinaren beraren funtzionamenduari buruz, haren lexikoari buruz, haren formanteei buruz eta bilakaera fonetikoaren arauei buruz, baita EAEko irakaskuntzako hizkuntzei buruz eta ikasleen hizkuntza-errepertorio indibiduala osatzen dutenei buruz ere. Gogoeta metalinguistikoa eta hizkuntzen artekoa sustatzen ditu, eta hizkuntza-konpetentziak indartzen, hizkuntza-aniztasuna aintzat hartzen eta hizkuntzen arteko harremana bultzatzen laguntzen du, ikuspegi inklusibo eta demokratikotik, inongo aurreiritzirik gabe.

Batxilergoko latinerako konpetentzia espezifikoek, beraz, orainaren eta iraganaren artean elkarrizketa sakona ezartzeko aukera eskaintzen dute, ikuspegi kritiko eta humanistatik, eta bi ardatz nagusiren inguruan egituratzen dira: lehena, era askotako testuen irakurketa eta ulermena hizkuntza klasikoen ikaskuntzan funtsezko prozesu gisa kokatzean datza, baita haien kultura eta zibilizaziora heltzeko sarbide modura, hizkuntza-jakintzak eta hizkuntzaz bestelakoak aldi berean aktibatuz. Bigarren ardatzak latindar zibilizazioaren testuei eta legatu material eta immaterialari eta Europako kultura, gizarte, politika eta identitateari egindako funtsezko ekarpenari buruzko gogoeta kritikoa, pertsonala eta kolektiboa egiten lagunduko duten tresnak garatzea eskatzen du, betiere genero-ikuspegia kontuan hartuta.

Oinarrizko jakintzak bi mailetan banatzen dira, ikaskuntza-testuinguruen araberako mailakatze eta sekuentziazio malgua ahalbidetuz, eta bost multzotan antolatuta daude.

– *Latina:* latinaren oinarrizko hizkuntza-konpetentziak eskuratzea du ardatz, era askotako enuntziatuak, pasarteak eta testuak irakurtzeko, ulertzeko eta interpretatzeko tresna gisa.

– *Eleaniztasuna:* bilakaera fonetikoaren nozioak azpimarratzen ditu, eta nabarmentzen du latina ikasteak, zehazki latinezko formanteak identifikatu eta ezagutzeak, ikasleen lexiko-errepertorioa nola zabaltzen duen, terminoak komunikazio-egoeretara zehatzago molda ditzaten.

– *Literatura-hezkuntza:* latinezko literatura-testuen ulermenean eta interpretazioan inplikatutako jakintza guztiak integratzen ditu, eta testuen arteko ikusmoldearen bidez laguntzen du literatura-eredu klasikoetan inspiratutako unibertsal formal eta tematikoak identifikatzen eta deskribatzen.

– *Antzinako Erroma:* espiritu kritiko eta humanistaren garapena hartzen du ardatz, eta iraganaren eta orainaren arteko antzekotasunei eta desberdintasunei buruzko gogoeta sustatzen du.

– *Legatua eta ondarea:* latindar zibilizazioaren herentzia material eta immaterialera hurbiltzea ahalbidetzen du, eta, eginkizun horretan, inspirazio-iturri, teknika eta historiaren lekukotasun gisa duen balioa ezagutzea eta balioestea.

Latina II jakintzagaian Latina I jakintzagaiaren aldean egiten den sakontzeak honako alderdi hauek hartzen ditu: errealitatea analizatzeko kontzientzia teoriko eta metodologiko handiagoa; ezagutza multzo handiagoa mobilizatzea; testuen, eskatutako produkzio- edo interpretazio-trebetasunen eta erabilerei

buruzko gogoetarako behar den metahizkuntzaren konplexutasuna mailakatzea; eta ikasleei emandako autonomia-maila. Horregatik, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak etapa honetako bi mailei buruzkoak dira.

Curriculum honen konpetentzia-izaerarekin bat etorriz, zeharkako zereginak sortzera gonbidatzen da, testuinguruan kokatuak, esanguratsuak eta garrantzitsuak, eta ikas-egoerak garatzera, ikasleak gero eta autonomoagoak diren gizarte-eragiletzat eta beren ikaskuntza-prozesuaren arduraduntzat har daitezen, beren errepertorioak, interesak eta inguruabar espezifikoak kontuan hartuta, horrek zenbait metodologia konbinatzea ahalbidetzen du-eta. Ildo horretan, ikasleek zeregin aktiboa beteko dute latinezko hizkuntza-konpetentzia eskuratzeko prozesuan, testuen eta enuntziatuen esanahiaren ulermenean eta komunikazioan jarriz arreta, hiztegia eskuratzearen garrantzia azpimarratuz eta ikasgeletan boz gorako irakurketa, idatzizko konposizioa eta ahozko produkzioa txertatuz. Latinaren eta latindar kulturaren eta zibilizazioaren irakaskuntzak diziplinarteko lanerako aukera esanguratsuak eskaintzen ditu, zenbait jakintzagairen oinarrizko jakintzak konbinatzea eta aktibatzea ahalbidetzen dutenak. Horrela, ikasleek hauteman dezakete zer garrantzitsua den legatu klasikoa ezagutzea beren iritzi kritiko eta estetikoa, beren buruaz eta inguruko munduaz duten pertzepzioa aberasteko. Ikasketak grekoaren eta greziar kulturaren ikasketarekin kointziditzen duenez, bi jakintzagaien tratamendu koordinatua egin daiteke. Azkenik, europar herritartasun demokratikoa eta aurreiritzirik gabekoa eraikitzen laguntzeko, jakintzagai honetatik nazioz haraindiko kolaborazio-lana egin daiteke, latindar kultura egungo europar identitatea osatzen duten errealitateen topagune duten Europako programen esparruan. Ildo horretan, tresna digitalek potentzial handia dute jakintzagai honen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa indartzeko, baita alfabetatze mediatikoa eta teknologiaren erabilera egokia, segurua, etikoa eta arduratsua bultzatzeko ere.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Latinezko testu gero eta zailagoen ideia nagusiak ulertzea eta interpretatzea, latinaren oinarrizko alderdiak ezagutuz, unitate linguistikoak identifikatuz eta analizatuz eta horiei buruz gogoeta eginez, irakaskuntzako hizkuntzekiko eta ikasleen errepertorio indibidualeko beste hizkuntza batzuekiko konparazioaren bidez, latinezko literatura klasikoaren altxorretara zuzenean hurbiltzeko.

Enuntziatu eta testuen idatzizko ulermenaren hizkuntza-trebetasuna eskuratzea da hizkuntza klasikoak ikasteko prozesuaren muina. Horretarako, idatzizko eta ahozko ulermenaren eta produkzioaren, interakzioaren eta bitartekotzaren trebetasunak aldi berean eta pixkanaka garatzea ahalbidetuko duen didaktika proposatzen da, ikasleak latinaren morfologiaren, sintaxiaren eta lexikoaren funtsezko ezagutzarantz bideratzeko. Eskuratutako ezagutzetatik abiatuta, ikasleek modu gero eta autonomoagoan irakurri, ulertu, produzitu eta interpretatzen dituzte enuntziatu errazak eta zailtasun egoki eta mailakatuko testuak euskarri analogiko eta digitaletan, eta, gainera, bitartekotza linguistikoko trebetasunak garatzen dituzte (laburbiltzea, sintetizatzea, azaltzea, parafraseatzea, itzultzea eta abar) latinetik irakaskuntzako hizkuntzetara, zuzentasun ortografikoari eta estilistikoari erreparatuta.

Enuntziatu eta testuak idatziz eta ahoz ulertzeko eta sortzeko trebetasunak eta interakzioaren eta bitartekotza linguistikoaren trebetasunak pixkanaka lortzeak erraztu egiten die ikasleei latinaren lexikoa eta egitura sintaktikoak barneratzea, eta hizkuntzari berari buruzko gogoeta, termino metalinguistikoen erabilera eta lexiko-errepertorioa areagotzea bultzatzen du. Horri dagokionez, testuak interpretatzearen eta deskodetzearen didaktikak lagundu egiten du latinaren unitate linguistikoak analizatzeko eta identifikatzeko estrategiak indartzen ez ezik, hizkuntza ezagunekiko konparazioarekin osatuz, testuaren testuingurua eta zentzua ezagutzeko funtsezkoak diren testu barneko eta testuen arteko erreferentziak ezagutzen ere.

Ikasleek latina ikasteko prozesuan duten zeregin aktiboak didaktika espezifikoa eskatzen du, hizkuntza-konpetentzia desberdinetan eragina duten hainbat estrategia txertatzeko, hala nola idatzizko eta ahozko ulermena eta produkzioa, interakzioa eta bitartekotza. Horiek horrela, irakasleak taldearen gidari gisa betetzen duen egitekoa funtsezkoa da, euskarri analogiko eta digitaletan baliagarriak diren balia-

bide eta iturri bibliografikoen erabilerari buruz orientatzeko ez ezik, ikasleak latinezko komunikazio-prozesuetan inplikatzeko ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KD3.

2. Latinezko formanteak bereiztea eta denboran zehar gertatu diren aldaketak azaltzea, irakaskuntzako hizkuntzetakoekin eta ikasleen errepertorio indibidualeko beste hizkuntza batzuetakoekin konparatuz, lexiko ezagunaren esanahi etimologikoa eta lexiko berriaren edo espezializatuaren esanahiak ondorioztatzeko.

Latina ikuspegi eleaniztunetik irakasteak aukera ematen die ikasleei beren hizkuntza-errepertorio indibiduala aktibatzeko, hura osatzen duten hizkuntzak erlazionatuz eta horietan latinezko sustrai, aurrizki eta atzizkiak identifikatuz, eta denboran zehar gertatu diren aldaketa fonetiko, morfologiko edo semantiko posibleei buruz gogoeta eginez. Etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruzko 2018ko maiatzaren 22ko Kontseiluaren Gomendioaren arabera, ikuspegi eleaniztunak hizkuntza berrien ikaskuntza hobetzeko behar diren trebetasunak garatzen laguntzen du, eta ikasleen hizkuntza-ezagutzen maila desberdinak eta haien errepertorio indibidualak kontuan hartzea ahalbidetzen du. Konpetentzia espezifiko honek hizkuntzak elkarri lotuta ikasteko eta, ondorioz, hizkuntza-transferentziak egiteko bidea ematen du, latina zenbait hizkuntza modernoren jatorri-hizkuntza eta kultura-adstratua dela aitortuz, askotariko hizkuntza-eskakizunak balioesteko, eta aniztasun linguistikoa, dialektala eta kulturala identifikatzen, baloratzen eta errespetatzen lagunduz, kultura partekatua eraikitzeko.

Latinaren bilakaera ikasteak, latin kultuaren zein latin arruntaren formetatik abiatuz, irakurmena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzen laguntzen du, baita ikasleen errepertorio lexikala osatzen duten hizkuntzetan, erromanikoetan eta ez-erromanikoetan, finkatzen eta zabaltzen ere, termino baten esanahi etimologikoa identifikatu eta definitzeko eta termino berri edo espezializatuen esanahiak ondorioztatzeko aukera eskainiz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, KE3, STEM1, KPSII5, KAKK2.

3. Hainbat genero eta garaitako latinezko testuak irakurtzea, interpretatzea eta komentatzea, sorkuntza-prozesua konplexua eta testuinguru historiko, sozial eta politikotik eta haren eragin artistikoetatik bereizezina dela onartuz, haien genealogia eta Europako literaturari egindako ekarpena identifikatzeko.

Zenbait genero eta garaitako latinezko testuen irakurketa, interpretazioa eta komentarioa Latin jakintzagaiaren zutabeetako bat da batxilergoko etapan, eta ezinbestekoa da ikasleak informazioa lortzeko iturri primarioak erabiltzeak duen garrantziaz jabetu daitezen. Testu horien ulermenak eta interpretazioak ikaskuntzaren emaitza izan behar duen testuinguru historikoa, zibikoa, politikoa, soziala, linguistikoa eta kulturala behar du. Edizio elebiduneko testuekin, testu osoekin edo hautatutako zatien bitartez lan egiteak latinezko oinarrizko kontzeptu eta terminoei arreta jartzea ahalbidetzen du, lexikoa eta kultura ezagutzea dakartenei, irakurketa kritikoa egiten laguntzeko eta klasiko gisa duten balioa mugatzen duten faktoreak zehazteko. Gainera, testu elebidunekin lan egiteak hizkuntza-jakintzak eta hizkuntzaz kanpokoak integratzen laguntzen du, zenbait itzulpen eta interpretazio-ikuspegi konparatzeko aukera eskainiz eta horien hurrenez hurreneko indar eta ahuleziei buruz eztabaidatuz.

Latinezko testuak irakurtzeak, oro har, ikasleen esperientziarekin zerikusirik ez duten testuak eskuratzea dakar berekin; horregatik, beharrezkoa da interpretazio-tresnak eskuratzea, irakurketarekin berarekin gero eta autonomia handiagoa izateko eta balio-iritzi kritikoak emateko. Latinezko testuak interpretatzeak berekin dakar mendebaldeko zibilizazioaren fundazioarekin lotuta daudela ulertzea eta onartzea, testuetarako hurbilketa testuinguruari eta gaiari buruzko ezagutzatik hasi eta analisi- eta gogoeta-estrategiak garatzeraino kontuan hartzen duen prozesu dinamikotzat hartuz, betiere genero-ikuspegitik, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza izaera ulertzeko eta sentsibilitate estetikoa garatzeko. Literatura- eta arte-sorkuntzak eta Antzinate klasikoko gertakari historikoak eta elezaharretakoak eza-

gutzeak, baita asmo estetikoa duten testuak sortzeak ere, horiek inspirazio-iturritzat hartuta, zenbait euskarriren bitartez eta beste hizkuntza artistiko, ikus-entzunezko edo digital batzuen laguntzarekin, obrak ulergarriago egiten laguntzen du, gure kultura-ondarean duten iraupena identifikatuz eta baloratuz, baita erreferentziak antzinako ereduetatik hartu dituzten kulturetara eta literatura-, kultura- eta arte-mugimenduetara egokitzeko prozesuak ere. Testuen genealogia testuen arteko ikuspegiaren bitartez ezartzeko irakaskuntza-bitartekotzari esker, egiazta daiteke garai horietan unibertsal formalak eta tematikoak daudela, eta, aldi berean, bizitzan zehar gero eta konplexutasun, kalitate eta aniztasun handiagoa izango duten irakurketa-ibilbideak modu autonomoan sortzen laguntzen du.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK4, HK3, KAKK1, KAKK2.

4. Latindar zibilizazioak esparru pertsonalean, erlijiosoan eta soziopolitikoan dituen ezaugarriak analizatzea, genero-ikuspegiarekin, erromatar munduari buruzko ezagutzak bereganatuz eta oraina eta iragana kritikoki konparatuz, latindar mundu klasikoak gure inguruneari egin dizkion ekarpenak baloratzeko, herritartasun demokratiko eta konprometituaren oinarri gisa.

Latindar zibilizazioaren ezaugarriak eta Europako identitateari egin dion ekarpena analizatzeak berekin dakar latindar iturrien bitartez adierazitako informazioa jasotzea eta kontrastatzea, ezaugarri horien legatuari eta gure gizartean duen presentziari buruz gogoeta egin ahal izateko estrategia egokiak aktibatuz. Konpetentzia espezifiko hau hiru esparruren inguruan egituratzen da: pertsonala, familia-loturak eta antzinako munduko pertsonen bizitzako etapen ezaugarriak edo adinekoekiko errespetua bezalako alderdiak biltzen dituena, besteak beste; erlijiosoa, sakratuaren antzinako kontzeptua eta gizabanakoak jainkoekin eta erituekin duen harremana biltzen dituena, besteak beste; eta soziopolitikoa, gizabanakoak hiriarekin eta haren erakundeekin dituen harremanak eta gobernu-moduen araberako antolaketa-moduak kontuan hartzen dituena. Aipatutako hiru esparruen azterketa genero-ikuspegitik egin behar da, ikasleek aukera izan dezaten gizakiei esleitutako desberdintasun kulturalen ondorio diren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko gogoeta egiteko.

Iraganaren eta orainaren arteko erlazioaren analisi kritikoak ikerketa eta informazio-bilaketa gidatua eskatzen du, taldean edo bakarka egina, iturri analogikoetan zein digitaletan, ikuspegi humanistatik gogoeta egiteko denboran zeharreko konstante zein aldagai kulturalei buruz. Analisi kritikoko prozesuek gogoeta- eta komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dituzte, Antzinate klasikoaren herentzia eta hura jatorri duten desberdintasun kulturalak errespetatzen dituztenak, herritartasun demokratikoa eta inguruan duen munduarekin konprometitua finkatzera bideratuak. Beraz, aukera bikaina eskaintzen dute ikasgelan eztabaidarako eta ahozko azalpenerako teknikak eta estrategiak abian jartzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KE3, KD1, KPSII3.1, HK1, HK3.

5. Latindar zibilizaziotik jasotako ondare historiko, arkeologiko, artistiko eta kulturala kritikoki baloratzea, haren iraunkortasunaz interesatuz eta giza sorkuntzaren emaitza gisa eta historiaren lekukotasun gisa ezagutuz, latindar legatu material eta immateriala ezagutzaren transmisore gisa eta sorkuntza moderno eta garaikideen inspirazio-iturri gisa azaltzeko.

Kultura-ondarea, UNESCOk adierazten duen moduan, iraganetik oinordetzan hartzen diren, orainean sortzen diren eta etorkizuneko belaunaldiei transmititzen zaizkien baliabideen emaria gizarteen esku jartzen duen produktua eta prozesua da aldi berean. Gainera, mitologia klasikoarekin gertatzen den bezala, sormenerako eta berrikuntzarako inspirazio-iturria da, eta kultura-produktu garaikideak eta etorkizunekoak sortzen ditu; beraz, hura ezagutu eta identifikatzea lagungarria da kultura-produktuak eta horien bilakaera eta denboran zeharreko erlazioa ulertzeko.

Latindar zibilizazioaren legatua, bai materiala bai immateriala (aztarna arkeologikoak, testu-transmisioa, hirien, mitoen eta kondairen antolaketa eta plangintza, usadio sozialak, erritualak eta abar), herentzia aparta da, eta haren iraunkortasunak berekin dakar oreka bidezkoa aurkitzea gaur egungo kultura-ondareari etekina ateratzearen eta etorkizuneko belaunaldientzat ondare horren aberastasuna babestearen

artean. Ildo horretan, latindar ondare kulturala babesteko, iraganeko memoria kolektibo gisa duen balioa kontserbatzeko eta haren funtzio sozial eta kulturalak berrikusteko eta eguneratzeko interesa duten herritarren konpromisoa behar da, egungo arazoekin erlazionatzeko eta etorkizunean haien zentzua, esanahia eta funtzionamendua mantentzeko gai izan daitezen. Erromatar munduaren herentziaren iraupenari eta hura babesteko, kontserbatzeko eta zaharberritzeko prozesuei buruzko ikerketak baliabide analogikoak zein digitalak erabiltzea eskatzen du, dokumentazio-espazioetara iristeko, hala nola liburutegietara, museoetara edo indusketetan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KD2, HK1, HK4, EK1, KAKK1, KAKK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Latina I eta Latina II
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Testu edo pasarte egokitu edo jatorrizkoak, zailtasun egokikoak, modu gidatuan boz gora irakurtzea, euskarri analogikoetan edo digitaletan, latinaren azentuazio- eta ahoskera-arauak aplikatuz.
1.2. Zailtasun egokiko eta progresiboko testu edo pasarte egokitu edo jatorrizkoetako ahozko edo idatzizko enuntziatuetatik informazio garrantzitsua gero eta modu autonomoagoan ateratzea, euskarri analogikoetan, digitaletan edo multimodaletan, hizkuntzaren unitate linguistiko erregularrak identifikatuz eta analizatuz, eta euskararekiko, gaztelaniarekiko eta beste hizkuntza ezagun batzuekiko aldaerak eta kointzidentziak antzemanez.
1.3. Etaparako zailtasun egokiko eta progresiboko testu edo zati egokitu edo jatorrizkoen ideia nagusiak eta oinarrizko argumentu-ildoak gero eta modu autonomoagoan interpretatzea, ortografia- eta adierazpen-zuzentasunarekin.
1.4. Hitz polisemikoen esanahi egokia hautatzea eta erabakia justifikatzea, informazio kotestuala edo testuinguru-informazioa kontuan hartuz eta interpretazio eta bitartekotza idatzizkoaren prozesuari laguntzeko tresnak erabiliz (laburbiltzea, sintetizatzea, azaltzea, parafraseatzea, itzultzea eta abar) zenbait euskarritan, hala nola hiztegi-zerrendak, glosarioak, hiztegiak, mapak edo atlasak, zuzentzaile ortografikoak, gramatikalak eta estilo-liburuak.
1.5. Testuen edo zatien interpretazio eta bitartekotza idatzizkoaren lanak, norberarenak eta ikaskideenak, berrikustea eta zuzentzea, hobekuntza-proposamenak eginez eta aldaketak terminologia espezializatuarekin argudiatuz, gogoeta linguistikotik abiatuta.
1.6. Zailtasun egokiko eta progresiboko testuak idaztea eta enuntziatuak adieraztea, euskarri analogikoetan edo digitaletan, latinaren berezko egiturak behar bezala erabiliz.
1.7. Latina ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea, zailtasun horiek gainditzeko eta ikaskuntza finkatzeko estrategiarik egokienak eta eraginkorrenak hautatuz, norberaren ikaskuntza planifikatzeko jarduerak, autoebaluazioa eta koebaluazioa eginez, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (HEP) edo ikaskuntza-egunkari batean proposatutakoak, esplizitu eginez eta partekatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Erabili ohi den termino baten esanahi etimologikoa ondorioztatzea eta termino agertu berrien edo lexiko espezializatutik datozenen esanahia inferitzea, latinezko formanteak ezagutzeko estrategiak aplikatuz, gertatu diren aldaketa fonetikoak, morfologikoak edo semantikoak kontuan hartuz.
2.2. Latin kultutik zein latin arruntetik irakaskuntzako hizkuntzetaraino gertatu diren gero eta konplexutasun handiagoko aldaketa fonetikoak, morfologikoak edo semantikoak azaltzea, ahal denean bere errepertorioko beste hizkuntza batzuekiko konparazioaz baliatuz.
2.3. Latinaren eta hizkuntza modernoen arteko erlazioa azaltzea, latin-jatorriko elementu linguistiko komunak analizatuz eta ikasleen errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta hizkeren estrategiak eta ezagutzak modu gidatuan erabiliz.
2.4. Aurreiritzi eta estereotipo linguistikoak identifikatzea eta kritikoki analizatzea, aniztasuna aberastasun kultural, linguistiko eta dialektal gisa baloratzeko eta errespetatzeko jarrera hartuz, emandako irizpideetatik abiatuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Gero eta konplexutasun handiagoko era askotako testu eta zati literarioak interpretatzea eta komentatzea, norberaren esperientzia mobilizatzea, mundua eta giza izaera ulertzea eta sentsibilitate estetikoa eta irakurtzeko ohitura garatzea dakarten analisi- eta gogoeta-estrategiak aplikatuz.

Latina I eta Latina II
3.2. Latinezko obra edo zati literarioen generoak, gaiak, topikoak eta balio etikoak edo estetikoak analizatzea eta azaltzea, geroztiko obra edo zati literarioekin konparatuz, testuen arteko ikuspegitik eta genero-ikuspegia aintzat hartuz.
3.3. Latindar zibilizazioa aztertu eta ulertzeko funtsezko kontzeptuak izendatzen dituzten latinezko hitzak identifikatzea eta definitzea, zeinen ikaskuntzak ezagutza lexiko eta kulturalak konbinatzen baititu, hala nola *imperium*, *natura*, *civis* edo *paterfamilias*, zenbait formatutako testuetan.
3.4. Testu indibidualak edo kolektiboak sortzea, literatura-asmoz, estilo-kontzientziaz, zenbait euskarritan eta beste hizkuntza artistiko eta ikus-entzunezko batzuen laguntzarekin, inspirazio-iturri gisa latindar zibilizazioa eta kultura hartu dituzten obra edo zati adierazgarrien irakurketatik abiatuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Erromatar gizartearen prozesu historikoak eta politikoak, bizimoduak, erakundeak eta ohiturak azaltzea, genero-ikuspegia aintzat hartuz, egungo gizarteek dituztenekin konparatuz, gizarteen bilakaeraren eta giza eskubideen argitan izandako egokitzapenak eta aldaketak modu kritikoan baloratuz, eta kultura partekatuaren eta memoria kolektiboarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritarren garapenaren alde eginez.
4.2. Gure gizarteko erromatar legatuaren zenbait alderdiren garrantziari, bilakaerari, asimilazioari edo horiek zalantzan jartzeari buruz eztabaidatzea, estrategia erretorikoak eta oratoria modu gidatuan erabiliz, behar denean jarreren artean bitartekotza eginez, informazio eta esperientzia egiazkoak hautatuz eta kontrastatuz, eta beste iritzi eta argudiatze batzuekiko interesa, errespetua eta enpatia erakutsiz.
4.3. Latindar zibilizazioaren esparru pertsonal, erlijioso eta soziopolitikoko legatuaren alderdiei buruzko ikerketa-lanak zenbait euskarritan egitea, emakumearen figura, ikuskera, lana eta ekarpena analizatuz, zenbait iturritatik datorren informazioa hautatuz, kontrastatuz eta berriz landuz, haren fidagarritasuna eta egokitasuna kalibratuz, eta zorroztasunaren eta jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Latindar zibilizazioaren legatu materiala eta immateriala inspirazio-iturri gisa identifikatzea eta azaltzea, geroztiko produkzio kulturalak eta artistikoak analizatuz, emandako irizpideetatik abiatuz.
5.2. Latindar zibilizaziotik oinordetzan hartutako ondare historiko, arkeologiko, artistiko eta kulturala ikertzea, modu egokian, enpatikoan eta errespetuzkoan jardunez, eta eraikitzeko, babesteko, kontserbatzeko eta zaharberritzeko prozesuekiko eta haren iraunkortasuna ziurtatzen duten jarrera zibikoekiko interesa erakutsiz.
5.3. Ikasleen ingurunean erromanizazioaren aztarnak eta erromatar legatua arakatzea, eskuratutako ezagutzak aplikatuz eta haien erabileren inplikazioei buruz gogoeta eginez, Antzinate klasikoak beren eguneroko bizitzan duen iraupenaren adibideak emanez, eta emaitzak zenbait euskarriren bitartez aurkeztuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Latina I eta Latina II
A. Latina
1. Latinaren unitate linguistikoak
Latinaren alfabetoa, ahoskera eta azentuazioa.*
Latinezko zatiak eta testuak boz gora irakurtzeko jarraibideak.*
Hitz motak.*
Hizkuntza flexiboaren kontzeptua: izen-flexioa eta flexio pronominala (kasu-sistema eta deklinabideak) eta aditz-flexioa (aditz-jokoen sistema).*
Perpaus-sintaxia: kasuen funtzioak eta sintaxia.*
Perpaus-egiturak. Komunztadura eta hitz-ordena perpaus bakunetan eta perpaus elkartuetan.*
Aditzaren forma nominalak.*
2. Idatzizko interpretazio eta bitartekotza: teknikak, prozesuak eta tresnak
Analisi morfosintaktikoa ulermen-tresna gisa.*
Maiztasuneko oinarrizko lexikoa.*

Latina I eta Latina II
Bakarrizketa eta elkarrizketa moduko testu errazak eta laburrak entzunez ulertzeko estrategiak.*
Interpretazio eta bitartekotza idatzizkoaren estrategiak: espektatiben formulazioa testu-ingurunetik (izenburua, obra…) eta testutik beretik abiatuta (eremu tematikoak, hitz-familiak eta abar), baita testuingurutik abiatuta ere; gaiaren ezagutza; egituraren eta generoaren deskribapena; testuen berezitasun linguistikoak (zuzeneko/zeharkako diskurtsoa, aditz-denboren erabilera, galdera erretorikoa eta abar).
Interpretazio eta bitartekotza idatzizkoaren tresnak: glosarioak, hiztegiak, atlasak edo zuzentzaile ortografikoak euskarri analogikoan edo digitalean, eta abar.*
Zenbait itzulpenen irakurketa konparatua eta testu elebidunen komentarioa, terminologia metalinguistikotik abiatuta.*
Ohiko baliabide estilistikoak eta testuaren edukiarekiko erlazioa.*
Enuntziatu eta testu laburrak sortzeko estrategiak.*
Elkarrizketa-konbentzio eta -estrategiak, formatu sinkronoan eta asinkronoan.*
Idatzizko bitartekotza arrazoibide logikoari, iraunkortasunari, memoriari, problemen ebazpenari eta analisi- eta sintesi-gaitasunari bidea ematen dion tresna gisa.*
Errorea ikasteko prozesuaren parte gisa onartzeko estrategiak eta hobetzeko jarrera positiboa.
Autoebaluaziorako, koebaluaziorako eta autokonponketarako estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak.
B. Eleaniztasuna
Historian zeharreko idazkera-sistemak.*
Latinaren bilakaera: indoeuropar hizkuntzak, latinaren etapak, latin arrunta eta latin kultua, ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia.*
Latinaren eragina irakaskuntzako hizkuntzen eta ikasleen errepertorio linguistiko indibiduala osatzen duten gainerako hizkuntzen bilakaeran.*
Arau fonetikoak latinetik irakaskuntzako hizkuntzetarako bilakaeran.*
Lexikoa: erabili ohi den lexikoan eta zientzien eta teknikaren lexiko espezifikoan dauden latin-jatorriko lexemak, atzizkiak eta aurrizkiak; irakaskuntzako hizkuntzetan erabili ohi diren hitzen esanahia eta definizioa, haien latin-jatorriko etimoetatik abiatuta; hizkuntza modernoetan integratutako latinezko esamoldeak eta horien erabilera zenbait testu motatan (literarioak, kazetaritzakoak, publizitatekoak…).*
Hitzen esanahi etimologikoa eta hiztegiaren erabilera egokiaren garrantzia ezagutzeko interesa, komunikazioan oinarrizko tresna den aldetik.*
Latina, ikasteko hizkuntzak hobeto ezagutzea eta beste hizkuntza moderno batzuetara —erromanikoak eta ez-erromanikoak— errazago hurbiltzea ahalbidetzen duen tresna gisa.*
Hizkuntza guztiekiko errespetua eta haien hiztunen desberdintasun kulturalen onarpena.*
Latinaren hiztunekin edo ikasleekin nazioz haraindiko mailan ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak garatzeko tresna analogikoak eta digitalak.*
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntza) buruz gogoeta egiteko eta gogoeta partekatzeko esamoldeak eta oinarrizko lexiko espezifikoa.*
C. Literatura-hezkuntza
Latina mundu klasikoaren transmisio-bide nagusi gisa.*
Latinezko literaturaren etapak eta transmisio-bideak.*
Latinezko literaturaren genero nagusiak: jatorria, tipologia, kronologia, gaiak, arrazoiak, tradizioa, ezaugarriak eta autore nagusiak.*
Latinezko literatura-testuen komentario eta analisi linguistiko eta literariorako teknikak.*
Latinezko literaturaren harrera: latinezko literaturaren eta Europako kultura-produkzioaren gaineko eragina. Oinarrizko nozioak: testuartekotasuna, *interpretatio*, *imitatio*, *aemulatio*, *allusio*.*
Latinezko literatura-generoen eta egungo literaturaren generoen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak.*
Literatura-kritikaren hastapenetarako estrategiak.
Literaturarekiko interesa, atsegin-iturri eta munduaren ezagutza-iturri den aldetik.

Latina I eta Latina II
Kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien jabetza intelektualaren eta egile-eskubideen errespetua: datu bibliografikoak tratatzeko tresnak eta plagioa saihesteko baliabideak.*
D. Antzinako erroma
Erromaren hedapen-prozesuaren geografia, sortu zenetik Erromatar Inperioa desagertu arte.*
Antzinako Erromako topografia, hiriko leku nagusien izena eta funtzioa (adibidez, Erromako foroa, basilikak, Koliseoa, Zirku Maximoa).*
Antzinako Erromaren historia: Erromaren historiaren etapak (monarkia, errepublika, inperioa); erromatar munduaren historiaren mugarriak K.a. VIII. mendearen eta K.o. V. mendearen artean; Erromaren historiaren kondairak eta gertakari nagusiak; Erromaren historiako pertsona ospetsu historiko garrantzitsuak, emakumeak barne, haien testuinguruko biografia eta Europarako garrantzia (Hanibal, Kornelia, Zizeron, Kleopatra, Zesar, Lukrezia, Augusto, Seneka…).*
Erromaren historia eta antolaketa politikoa eta soziala, egungo gizartearen historia eta kulturaren funtsezko parte gisa.*
Latindar zibilizazioaren erakundeak, sinesmenak eta bizimoduak gaur egungo ikuspegi soziokulturaletik.*
Greziar kulturak latindar zibilizazioan duen eragina: *Graecia capta ferum victorem cepit*.*
Erromak mendebaldeko gizartearen kulturari eta pentsamenduari egindako ekarpena.*
Erromaren eta atzerriko kulturen (Grezia, Kartago…) arteko harremana.*
Mediterraneo itsasoa atzoko eta gaurko kulturen bidegurutze gisa.
E. Legatua eta ondarea
Legatuaren, herentziaren eta ondarearen kontzeptuak.*
Latinezko testu-transmisioa kultura-ondare gisa eta zenbait kultura eta garairen bidezko ezagutza-iturri gisa. Idazkera-euskarriak: motak eta babesa.*
Mitologia klasikoa adierazpen literario eta artistikoetan.*
Hispaniaren erromanizazioa eta haren iraupenaren aztarnak.*
Herri-lanak eta hirigintza: eraikuntza, kontserbazioa, babesa eta zaharberritzea.*
Zuzenbide erromatarra eta egungo sistema juridikoan duen garrantzia.*
Erromatar erakunde politikoak eta egungo sistema politikoan izan duten eragina eta iraupena.*
Emakumearen lana, ikuskera eta ekarpena erromatar bizitza sozial, familiar eta politikoan.*
Diskurtso publikoak bizitza politiko eta sozialerako duen garrantzia.
Ahoz eztabaidatzeko eta azaltzeko oinarrizko teknikak.
Erromatar Antzinateko artelan nagusiak.
Antzinate klasikoarekin erlazionatutako gune arkeologiko, museo edo festibal nagusiak.*

LITERATURA UNIBERTSALA

Literatura Unibertsala jakintzagaiak aurreko etapan literatura-hezkuntzan egindako bideari jarraitzen dio, eta, aldi berean, Batxilergoko Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura jakintzagaietan landutako literatura-hezkuntza osatzen du. Espazio aproposa da eskolatze osoan planteatutako literatura-irakurketako bi modalitateak garatzeko (irakurketa gidatua eta irakurketa autonomoa), eta haien corpusek eta haiekin gozatzeko moduek bat egiteko aukera ahalbidetzen du. Horren bidez, nerabeak eta gazteak urrundu egingo dira pixkanaka beren esperientzien esparruko obren identifikazio- eta argudio-irakurketa soiletik, eta interpretazio-trebetasun finkatuagoak behar dituzten eta ikuspegia beste kultura-esparru batzuetara irekitzen duten obra konplexuetara hurbilduko dira.

Jakintzagaiak erreferentzia partekatuen mapa batez jabetzeko aukera ematen du (ondare unibertsaleko obrak eta egileak, mugimendu estetikoak, generoak eta azpigeneroak, edota historia osoan agertu diren gaiak, topikoak, arketipoak, sinboloak eta abar), eta, aldi berean, emakumeek eta mendebaldekoak ez diren egileek idatzitako obra asko eta asko kanpoan utzi dituen kanona kritikoki zalantzan jartzera bultzatzen du. Iruditeriak zabaltzeak gizarte-kohesioari, kulturarteko hezkuntzari eta hezkidetzari laguntzen

die, zalantzarik gabe. Hortaz, literatura unibertsaleko klasikoen irakurketa partekatuak, haien inguruko loturen ezarpenak eta deliberazio argudiatuak, ikerketa-prozesuen garapenak edo klasikoak bereganatu eta birsortzeko jarduerek funtsezko konpetentzia guztiak garatzen laguntzen dute.

Aurreko guztiari jarraikiz, Literatura Unibertsaleko curriculuma egituratzen duten bost konpetentzia espezifiko daude, eta ondoren adieraziko ditugun ardatzei lotuta daude. Lehenik eta behin, literatura unibertsaleko klasikoak interpretatzeko trebetasunen garapena dago. Trebetasun horiek obraren eraikuntza- elementuen eta obraren zentzuaren arteko barne- erlazioak eta obraren eta haren produkzio-testuinguruaren eta literatura-tradizioan duen lekuaren arteko lotura hartuko dituzte kontuan. Horri dagokionez, literatura-asmoko testuak idazteak genero desberdinen konbentzioak bereganatzea errazten du eta, aldi berean, imitazio- edo birsortze-esperientzia sortzaileak eskaintzen ditu. Bigarrenik, erreferentzia-mapak eta irakurketa gidatuaren berezko irakurketa motak baliatuko dituzten irakurketa autonomorako estrategien garapena. Hirugarrenik, garai, testuinguru, genero eta hizkuntza artistiko desberdinetakoak diren eta historia osoan errepikariak izan diren unibertsal tematikoak eta bide formalak daudela egiaztatzea eta antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzea ahalbidetzen duten obren irakurketa konparatua. Laugarrenik, erreferentzia partekatuen esparru baten eta kultura-mapa baten bereganatzea, ikasleek etorkizunean izango dituzten literatura- eta arte-esperientziak testuinguruan kokatzea ahalbidetuko duena. Horretarako, garrantzitsua izango da esparru hori euskal literatura-obrekin eta bestelako adierazpen artistiko eta kulturalekin erreferentziatzea, ikasleek beste kultura batzuk euskal kultura-ondarearekin lotu ditzaten. Azkenik, literatura-kanonaren inguruko eztabaida kultural eta sozialean parte hartzea, eta munduari buruzko ikuspegien aniztasunaren eta literaturak iruditerien eraikuntzan duen garrantziaren berri emango duten beste obra eta irakurketa batzuk txertatzeko beharra.

Ebaluazio-irizpideek konpetentzia-ikuspegia dute, eta honako hauek dituzte ardatz: literatura-testuen interpretazioaren inguruko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak; obrei buruzko balio-iritzi argudiatuak formulatzea; literatura-asmoko testuak idaztea; eta testu horiek beren testuinguru soziohistorikoan, literarioan eta kulturalean inskribatzea eta literatura irakurtzeko jakintza bat sendotzea ahalbidetuko duen kultura-mapa bat osatzea. Horrek guztiak eskatzen du diagnostikoaren zerbitzura dauden ebaluazio-tresnak eta -erremintak dibertsifikatzea, eta ahozko eta idatzizko harrera, ekoizpen eta elkarrekintzarekin, ikerketa-prozesuekin eta pentsamendu kritikoaren garapenarekin lotutako trebetasunak hobetzea.

Jakintzagaiaren muina testuen eta irakurleen arteko topaketa denez gero, literatura unibertsaleko klasikoen irakurketa gidatuari eta irakurketa autonomoari lotutako bi multzoren inguruan antolatuta daude jakintzak. Beraz, corpusa bera da, nahiz eta estrategia bereiziak garatzen diren irakurketa-modalitate baterako eta besterako. Testuen hautaketari dagokionez, ardatz tematikoa eta generoarena gurutzatzen dituen corpus ireki baten aldeko apustua egiten da, eta ikasgelan era gidatuan eta partekatuan irakurriko den obra baten inguruko ibilbideak taxutzera bultzatzen dira irakasleak. Aurkezpena bost hari tematikoren inguruan antolatuta dago (nia, besteak, mundua, natura eta emakumea literatura unibertsalean, haietako bakoitza ahal bada literatura-genero edo literatura-azpigenero bati lotuta), eta ez du ibilbideak eraikitzeko aukerak mugatzeko edo agortzeko asmorik. Izan ere, ez da elkarri erantsitako preskripzioen katalogo bat. Haren helburua irakasleei aniztasunera eta ikasleen beharretara egokitutako aurrerapen-ibilbideak eraikitzeko adibideak ematea da.

Beraz, asmoa ez da ikasturtearen barruan proposamenak dakartzan aukera guztiak agortzea, baizik eta irakasle bakoitzak obra kopuru jakin bat hautatzea eta beste kultura-testuinguru edo molde generiko batzuetako obrekin lotzea ahalbidetuko dion ardatz bat aukeratzea, ondoren obra batzuen eta besteen irakurketa konparatua egiteko. Horrek aukera eman behar du une, ekoizpen- eta harrera-testuinguru, gatazka, literatura-arketipo, bide formal, adierazpide eta abarretara eta testu klasikoen eta garaikideen, nazionalen eta atzerrikoen, literaturakoen eta literaturakoak ez direnen (historiografikoak, literatura-kritikakoak edo beste arte-kode batzuetakoak, ikus-entzunezko fikzio eta fikzio digital garaikidea barne) irakurketa konparatura hurbiltzeko.

Ikuspegi tematikoari lehentasuna emateak ez du esan nahi, inola ere, obren testuinguru historikoa, haien sorrera artistikoaren berreraikuntza eta ondorengo legatuan utzitako aztarna alde batera utzi behar direnik, ezta testuen balio formalak eta, bereziki, literatura-arlokoak bigarren mailan utzi behar direnik ere.

Izan ere, literaturaren gai handiak gai horiek obra eta une historiko bakoitzean gauzatu diren forma eta genero desberdinekin nahasten ditu proposamenak. Ardatz tematikoak eskaintzen duen oinarriak aukera ematen du hainbat kultura-garai eta kultura-testuinguru zeharkatzeko, orainaren eta iraganaren arteko eta literatura desberdinen arteko loturak ezartzeko, eta gizakiak mendeetan kezkatu dituzten eta gaur egun ere nerabe eta gazteen galderak sorrarazten dituzten gaiekin konektatzeko.

Hori guztia dela eta, ibilbide zehatzagoak egiteko aukera ematen duten epigrafeak daude gai-multzo bakoitzean. Epigrafe horietan, aukeratutako obrarekin batera, hainbat testu emango dira, ekoizpenaren testuinguru historiko kulturalean eta aurreko eta ondorengo literatura-tradizioan kokatzeko eta haien interpretazioen historiara eta egungo harrera-testuingurura hurbiltzeko, bai ideien planoan, bai forma artistikoen planoan.

Hizkuntza-jakintzagaien curriculuma egituratzen duen printzipioa den hizkuntzen trataera integratua indartzeko, jakintzagai horiek ematen dituzten irakasleen arteko lankidetza jakintzagai honetan ere ezinbestekoa da. Aukera ugari daude elkarrekin jarduteko (diziplinarteko ikaste-egoerak, solasaldi dialogiko irekiak eta abar), eta, beraz, jakintzagai komun guztietan eta modalitate-jakintzagaietan ematen diren hizkuntza- eta literatura-irakaskuntzak era koordinatuan planifikatu behar dira.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Literatura unibertsaleko klasikoak irakurtzea, interpretatzea eta baloratzea, generoaren osagaien barne-erlazioak eta obretan betetzen dituzten funtzioak zein obren eta haien ekoizpen-testuinguruaren eta kultura-tradizioan duten lekuaren arteko kanpoko erlazioak kontuan hartuz, literaturaz gozatzeko aukerak zabaltzeko eta literatura- eta arte-sormena bultzatzeko.

Konpetentzia honen funtzioa irakurketarekin gozamen kontzienteagoa eta landuagoa lortzea da. Helburua da literatura-ondare unibertsaleko obra garrantzitsuetara hurbiltzea ahalbidetuko duten interpretazio-trebetasunak garatzea. Trebetasun horiek irakurketetan oinarritutako balio-iritzi bat hitzez adieraztea ahalbidetuko dute, hautemate estetikoan oinarrituta, eta gure lurraldeko testuinguruak Europakoekin eta unibertsalekin, eta literatura-obrak beste adierazpen artistiko eta kultural batzuekin uztartuko dituen kultura-mapa bat eraikitzen lagunduko dute. Halaber, literatura-testuak estilo-kontzientziarekin sortzea bultzatu behar da, dauden generoen konbentzio formalak errespetatuz edo berrinterpretatuz.

Dena dela, helburua ez da asmo entziklopedikodun literaturaren historia bat lantzea, ikasgelan era gidatuan eta partekatuan irakurriko den obra kopuru txiki bat hautatzea baizik. Obra horiekin batera, hainbat testu emango dira, eta, haien bidez, obrak testuinguru historiko kulturalean zein literatura-tradizioan kokatu ahal izango dira, haien interpretazioen historiara hurbildu ahal izango da eta beste forma artistiko klasiko eta garaikide batzuekin lotu ahal izango dira. Ibilbide bakoitzean, beraz, literatura-genero, aldi historiko eta kultura-testuinguru desberdinetako obrak uztartuko dira, ildo nagusi gisa aukeratutako ardatzaren arabera, eta obra horien pasarte esanguratsuak hautatuko dira. Azken batean, literatura-ondare unibertsaleko obra garrantzitsu batzuen irakurketan lagundu nahi da ikasgelan. Obra horiek, nolanahi ere, literaturaren eraikuntzaren eta funtzionamenduaren eta beste testu batzuekin eta ekoizpen-testuinguruko balio ideologiko eta estetikoekin ezartzen dituzten erlazioen elementuak agerian jartzeko duten garrantziagatik eta oraina argitzeko eta azaltzeko ahalmenagatik hautatuko dira.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profinaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK2, HKK4, KD2, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.

2. Literatura unibertsaleko klasikoak gozamen- eta ezagutza-iturri gisa irakurtzea era autonomoan eta irakurketa-esperientziak partekatzea, norberaren irakurle-identitatea eraikitzeko, literatura- eta kultura-jakintza bat finkatzeko eta irakurketaren gizarte-dimentsioaz gozatzeko.

Konpetentzia hau garatzeko, aurrera egin behar da autonomia finkatzen eta irakurtzeko ohitura eskola-bizitzatik kanpo iraunarazteko funtsezkoa den irakurle-identitate propioa eraikitzen. Nolanahi ere, aldiz-

kako denbora jarraitu bat eskaini behar zaio bakarkako irakurketari, eta irakurritako testuen artean erlazioak ezartzea ahalbidetuko duten gogoeta- eta elkarrizketa-uneak ziurtatu behar dira. Solasaldi dialogikoak estrategia errepikariak izango dira horretarako. Irakurketa gidatuaren modalitatearen berezko corpusa irakurketa autonomoaren modalitatearen corpusarekin bat egiteak —biak literatura unibertsaleko klasikoez osatuta daude— aurrerabide-ibilbideak eraikitzeko aukera emango duten erreferentzia-mapez hornitzea ahalbidetzen du. Nolabaiteko konplexutasuna dakarten obrek planteatzen dituzten erresistentziak gainditzeko interpretazio-trebetasunak bereganatzeak literatura-irakurle autonomoaren prestakuntzan ezinbestekoak diren hautaketa-irizpideen garapena errazten du.

Konpetentzia hau lagungarria da ikasleek irakurketa gidatuen eta autonomoen arteko erlazioak ezartzea ahalbidetzen duen literatura- eta kultura-jakintza finkatzeko. Jakintza horrek, halaber, irakurritako obrak ikertzea, testuak ulertu eta interpretatzeko irakurketa- eta kultura-esperientzia mobilizatzea eta testuak beren ekoizpen-testuinguruan eta inskribatuta dauden kultura-formetan kokatzea ahalbidetzen du. Gainera, funtzioei eta obren oinarri diren konbentzioen ondorioei buruzko gogoeta autonomoa ahalbidetzen du.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profinaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KD3, KPSII1.2, KPSII5, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1.

3. Garai, genero eta hizkuntza artistiko desberdinetako obren arteko loturak ezartzea, antzekotasunak eta desberdintasunak antzemanez, bakoitzaren ekoizpen-testuinguruaren eta literaturaren eta gizartearen arteko erlazioaren arabera, kulturaren historian unibertsal tematiko eta bide formal errepikariak daudela egiaztatzeko.

Jakintzagaiaren beste konpetentzia espezifiko bat iruditeriak ezagutzea da —bai elementu sinbolikoak, bai gizakiak bere esperientzia zifratu eta komunikatzeko eta historia osoan artistikoki lantzeko erabili dituen bide formalak—.Ardatz tematikoan ibilbideen eraikuntza lehenesteak eta ibilbide horiek testuarteko irakurketara irekitzeak interes antropologiko eta kultural ukaezina du, baita errentagarritasun didaktiko handia ere. Izan ere, bilakaera historikoa gorabehera iraun duten topikoak, gaiak, kezkak, sinesmenak, asmoak eta arrazoiak daudela egiaztatzea, garai eta testuinguru desberdinetan izan duten tratamendua zehaztea eta obrak beren harrera-komunitate garaikidearentzat zer izan ziren eta egungo irakurle batentzat zer diren alderatzea ahalbidetzen du.

Horrek guztiak geure burua heredatutako eskema batzuen barruan sentitzen eta pentsatzen duen eta kultura-legatu baten zorduna den gizabanako gisa ulertzen laguntzen digu. Legatu horretan, nolanahi ere, literaturak zeregin erabakigarria betetzen du, eta formak eta gaiak baztertu edo finkatu egin dira, azkenean molde batzuetan (hots, literatura-generoetan) gauzatu arte. Azken batean, literatura eguneroko hizkuntzatik urrunduta dagoen, baina gure alderdi psikologiko eta soziala eraginpean hartzen eta osatzen duen adierazpide gisa ulertu behar da. Geure buruan sinbolo eta esperientzia komun batzuen sistematik at pentsatu ezin dugun izakiak gara, eta, alderdi horretan, literaturak funtsezko funtzioa betetzen du.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profinaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KD1, KPSII5, HK1, KAKK1, KAKK2.

4. Mugimendu estetiko nagusien eta ondare unibertsaleko literatura-obrarik garrantzitsuenetako batzuen ezaugarrien ezagutzan oinarrituta erreferentzia partekatuen esparru bat finkatzea, literatura- eta kultura-esperientzia pertsonalak jasoko dituen kultura-mapa bat osatzeko.

Iruditerien eraikuntza literaturaren kontua zen garai batean; gaur egun, berriz, ikus-entzunezko fikziozko produktuetan oinarrituta dago. Horren bidez, sarritan iragankorrak diren belaunaldi-loturak sendotu egiten dira, baina belaunaldien artekoak ahuldu, kontakizun partekatuen gabeziaren ondorioz. Bestalde, egungo bizimoduen berezko zatiketak eta bertigoak zaildu egiten dute historiaren, artearen eta kulturaren uhin luzeei begira jartzea, baina haiek ezinbestekoak dira obra batzuek eta besteek plano sinkronikoan zein diakronikoan ezartzen dituzten erlazioak zehazteko. Eskolari, beraz, zeregin bikoitza dagokio: alde batetik, baliotsutzat jotzen dugun kultura-ondarea transmititzea (une jakin batean kultura osoaren oinarri den liburu multzoa); bestetik, erreferentzia-mapa sinpleak eta zorrotzak, arinak eta zehatzak eskaintzea.

Mapa horietan, pertsona bakoitzaren kultura-esperientziak jaso ahal izango dira, baita eskolatze-urteetatik kanpokoak ere.

Hori dela eta, eta testuak hautatu eta antolatzeko ardatza kronologikoa ez bada ere, literaturaren irakaskuntzak ezin du alde batera utzi literaturaren historiaren osoko ikuspegia, ezta dagokion garaiko arte-konbentzioei eta literatura-generoen bilakaerari lotuta dagoen literatura-testuaren espezifikotasun formala ere. Dena dela, osoko ikuspegi hori ez da abiapuntu gisa interpretatu behar (horren arabera, literatura-testuak testigantza edo adibide soilak izango lirateke), iriste-puntu gisa baizik. Testuen irakurketak —testu horiek interpretatzeko askotariko testuinguru-elementuak (historikoak, artistikoak eta kulturalak) behar direla kontuan hartuta— ahalbidetuko du mugimendu estetiko handiak, haien arteko jarraitutasun- eta haustura-elementuak eta literatura-ondare unibertsaleko obrarik garrantzitsuenek duten lekua plano orokor handi batean ikustea ahalbidetuko duen friso bat pixkanaka eta modu partekatuan eraikitzeko aukera.

Erreferentzia-esparru hori finkatzeko, ikasleak euskal literaturara hurbilduko dira, hurbileko kultura-erreferentziez hornitzeko eta obra unibertsalak euskal literaturako obrekin lotzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profinaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK4, KD2, KD3, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK4.1, KAKK4.2.

5. Mendebaldeko kulturaren esparruak gaindituko dituen eta emakume idazleen obrak irakurtzearen bidez emakumeen esperientziaren ikuspegia jasoko duen literatura-kanon unibertsal baten eraikuntzan parte hartzea, munduaren eta haren iruditerien eraikuntza diskurtsiboaren inguruko pentsamendu kritikoa garatzeko.

Egungo sentikortasuna eta literatura-azterlan berriak bat datoz ustez unibertsala den literaturaren kanonaren eraikuntzan dauden hutsune nabarmenak aipatzean. Emakumeak falta direnez, eta mendebaldekoak ez diren ahotsak ere falta direnez, ezinbestekoa da kanona berreraikitzea, batzuk eta besteak sartzeko eta haiek baztertu izanaren arrazoiak aztertzeko. Literatura eragile erabakigarria bada irudi-teriak eraikitzeko —generoen eraikuntza soziala, “gu” baten eraketa “besteen” aurrean, edo eredu sentimentalen eta maitasun-ereduen trazadura—, literatura-hezkuntzak urrutiko begirada garatzen duten eta munduaren eraikuntza diskurtsiboari buruzko gogoeta kritikoa bultzatzen duten testuak irakurtzeko, interpretatzeko eta berjabetzeko trebetasunak jaso behar ditu. Horri esker, jarrera inkontzienteki sexistak eta etnozentrikoak ezagutu eta baztertu ahal izango dira.

Horretarako, partekatuta eta lagunduta irakurri beharreko obrak eta haiei lotutako pasarteak hautatzean, ondare benetan unibertsal bateko obra adierazgarriak txertatu behar dira, emakume idazleak eta mendebaldekoak ez diren obrak kontuan hartuta. Ibilbide horietako batzuen ildo nagusiak alderdi horiek izan ditzake ardatz, hain zuzen ere. Ildo horretan, ardatz bikoitzean (ardatz tematikoan eta genero-ardatzean) oinarrituta antolatutako testuen corpus bat aurkeztearen bidez, apustu horiek bultzatu nahi dira.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profinaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KD1, KPSII3.1, KPSII4, HK1, KAKK1, KAAK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Literatura Unibertsala
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Irakurritako obra osoen edo pasarteen interpretazioa azaltzea eta argudiatzea, osatzen dituzten elementuen eta obraren zentzuaren arteko barne-erlazioak, eta testuaren eta haren testuinguru soziohistorikoaren eta literatura-tradizioaren arteko kanpo-erlazioak aztertzetik abiatuz, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta obren hautemate estetikoari lotutako balio-iritziak gaineratuz.
1.2. Testu pertsonal edo kolektiboak literatura-asmoarekin eta estilo-kontzientziarekin sortzea, hainbat euskarritan eta beste hizkuntza artistiko edo ikus-entzunezko batzuen bidez, literatura-generoen eta literatura-estiloen konbentzio formalak erabiltzen dituzten obren edo pasarte esanguratsuen irakurketatik abiatuz.

Literatura Unibertsala
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Interpretazio pertsonal bat lantzea, literatura unibertsaleko obra garrantzitsuen irakurketa autonomotik abiatuz, obren alderdi tematikoak, genero- eta azpigenero-alderdiak, egituraren eta estiloaren elementuak eta balio etikoak eta estetikoak kontuan hartuz, eta beste obra batzuekin eta beste esperientzia artistiko eta kultural batzuekin lotura argudiatuak ezarriz.
2.2. Literatura-elkarrizketetan irakurketa-esperientzia pertsonalak adieraztea, metahizkuntza egokia eta teknikoki zuzena erabiliz, entzute aktiboko jarrerak eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-adeitasuneko estrategiak agertuz, irakurle--ibilbidea finkatuz eta norberaren irakurle-identitatea era kontziente eta sistematikoan aberastuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Literatura-testuak edo literatura-pasarteak elkarren artean eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuekin alderatzea, alderdi tematikoei eta eduki-alderdiei zein alderdi formalei eta adierazpen-alderdiei dagokienez dituzten antzekotasunak eta desberdintasunak hitzez edo idatziz argudiatuz eta haien balio etikoak eta estetikoak ere kontuan hartuz.
3.2. Hitzezko azalpen, saiakera edo aurkezpen multimodal batean gauzatuko den eta bilakaera historikoa gorabehera iraun duten topikoak, gaiak, kezkak, sinesmenak, asmoak eta arrazoiak daudela egiaztatzea ahalbidetuko duen ikerketa-proiektu bat garatzea eta haiek garai eta testuinguru desberdinetan izan duten tratamendua zehaztea, hainbat iturritatik lortutako informazioa hautatuz eta alderatuz, haren fidagarritasuna eta egokitasuna neurtuz, diskriminazio mota oro baztertuz eta jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Irakurritako testuak beren testuinguru historiko-kulturalean kokatuko dituen eta mugimendu artistikoen eta literatura unibertsaleko obra garrantzitsuen osoko ikuspegi bat eskainiko duen erakusketa multimodal bat lantzea, irakurlearen inplikazioa eta erantzun pertsonala argi eta garbi adieraziz eta talde-lanean eta gatazken kudeaketan aktiboki eta proaktiboki parte hartuz.
4.2. Literatura unibertsaleko mugimendu estetikorik esanguratsuenen oinarrizko ezaugarrien eta sortu ziren testuinguru historiko-kulturalaren eta euskal literatura, zinema, musika edo pinturako obren arteko erlazioari buruzko interpretazio pertsonala hitzez edo era multimodalean azaltzea eta argudiatzea, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta obren hautemate estetikoari lotutako balio-iritziak gaineratuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Emakume idazle garrantzitsuei, mendebaldekoak ez diren testuinguruetako literatura-obrei edota literatura-tradizioak proposatzen duen iruditeria-eraikuntzaren inguruko ikuspegi kritikoa eta askotarikoa eskainiko duten alderdi tematiko edo formalei buruzko saiakera indibidual batean gauzatuko den eta hainbat iturritatik lortutako informazioa aurkitu, hautatu eta alderatzea, haren fidagarritasuna eta egokitasuna neurtzea, berriz lantzea eta era sortzailean komunikatzea dakarren ikerketa-proiektu bat taldeka egitea, jabetza intelektualarekiko ikuspuntu kritikoa eta errespetuzkoa agertuz.
5.2. Munduaren eta haren iruditerien eraikuntza diskurtsiboari buruzko iritziak, ondorioak eta argudioak idatziz adieraztea, jarrera kritikoa agertuz eta informazioaren aipamena behar bezala eginez.
5.3. Genero-ikuspegia eskaintzen duten eta patriarkatuaren oinarrizko egiturak, mendebaldeko kanonaren berezko begirada etnozentrikoa eta gure gizartean nagusi den eta edozein gutxiengoren zapalkuntza dakarren beste edozein diskurtso zalantzan jarriko dituzten irakurketei buruzko solasaldi dialogikoetan kritikoki, aktiboki eta egokiro parte hartzea, entzute aktiboko jarrerak eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-adeitasuneko estrategiak agertuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Literatura Unibertsala	
A. Hainbat genero, garai, kultura-testuinguru eta kode artistikotako obren eta pasarteen arteko testuarteko erlazioak —baita horien ekoizpen-testuinguruekin ere— ezartzen dituzten gaikako ibilbideetan inskribatutako literatura unibertsaleko klasiko batzuen interpretazioaren eraikuntza gidatua eta partekatua, honako ardatz eta estrategia hauei jarraikiz:	
1. Literatura unibertsaleko gaiak eta formak	
1.1. Nia adieraztea	Poesia lirikoa.
	Testigantza-literatura eta literatura biografikoa: egunkariak, gutunak, oroitzapenak, autobiografiak, autofikzioa eta abar.
	Narratiba existentziala: krisian dauden pertsonaiak.

Literatura Unibertsala	
1.2. Besteekin hitz egitea	Legearen edo patuaren aurrean: tragedia.
	Gizarte-konbentzioen aurrean: drama.
	Umore kritikoa, atsegin emateko umorea: komedia.
1.3. Mundua imajinatzea, mundua behatzea, munduan jardutea	Imajinatutako munduak: mitoak eta narratiba. Mitologiak. Heroiak. Alegiazko bidaiak. Espazio eta izaki fantastikoak. Utopiak, distopiak, zientzia fikzioa.
	Behatutako munduak: ipuina eta eleberria. Bildungsroman edo heziketa-eleberria. Espazio pribatuak, espazio publikoak: afektu intimoak eta gizarte-loturak. Desparekotasunak, diskriminazioa, indarkeriak, estereotipoak. Gerra eta iraultza. Migrazioak eta kultura-identitateak. Kolonialismoa eta emantzipazioa.
	Ihes-munduak: kontakizun laburra eta genero-eleberria. Abentura-literatura eta polizia-eleberria. Beldurrezko literatura.
	Artea konpromiso gisa: saiakera. Ideien literatura.
1.4. Emakumea eta literatura unibertsala	Emakume idazleak.
	Emakume idazleen ikusezintasuna.
	Emakumeen ikuspegia literatura unibertsalean. Maitasun erromantikoan oinarrituta sortutako estereotipoak (emazte etsia, emakume ezkondu adulteroa, neskazaharra, maitasunaren apaizemeak, neska gazte aratza).
1.5. Gizakia, animaliak eta natura: mirespena, zirrara, salaketa. Poesia, narratiba eta saiakera.	
2. Irakurketa partekaturako analisi, interpretazio, birsortze eta balorazio kritikoko estrategiak.	
Obren interpretazioa literatura-eztabaiden edo literatura-elkarrizketen bidez.	
Literatura-generoaren osagaiak eta obraren zentzuarekin duten lotura. Adierazpen-baliabideen harreran dituzten ondorioak.	
Obrak interpretatzeko eta literatura-tradizioan duten lekua ulertzeko beharrezkoa den informazio soziohistorikoa, kulturala eta artistikoa.	
Genero-ikuspegia duen irakurketa, nagusi den kulturaren kontakizunak ulertzeko eta patriarkatuari buruzko ikuspegi kritiko bat eraikitzeko.	
Obren eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuen arteko testuarteko loturak, gaien, topikoen, egituren eta hizkuntzen arabera. Jarraitutasun- eta haustura-elementuak.	
Literaturaren funtzionamendua gizarte-iruditeriak eraikitzeko erabakigarria den tresna ideologiko gisa, genero-ikuspegia bereziki azpimarratuz.	
Testuen interpretazioa argudioekin adierazteko estrategiak, aztertutako alderdiak integratuz eta balio kulturalak, etikoak eta estetikoak kontuan hartuz.	
Adierazpen-irakurketa, dramatizazioa eta errezitatzea, inplikatutako ulermen-, bereganatze- eta oralizazio-prozesuak kontuan hartuz.	
Literatura-asmoko testuen sorkuntza, irakurritako obretatik abiatuz.	
Norberaren ekoizpenen inguruko jarrera kritikoa, haien hobekuntzari begira.	
Diskriminazio mota ororen gaitzespena.	
B. Ondare unibertsaleko obra garrantzitsuen irakurketa autonomoa, honako estrategia hauek garatuz:	
Obren hautaketa, autonomiaz eta gomendio espezializatuen laguntzarekin.	
Literatura-elkarrizketetan eta irakurketa-gomendioen elkartrukeetan parte hartzeko estrategiak, testuinguru presentzialean eta digitalean.	
Liburutegien erabilera autonomoa eta ohikoa. Beste kultura-esperientzia batzuk izateko aukera.	
Irakurketa-gustu pertsonalak argudioekin adierazteko jarraibideak. Irakurritako corpusaren dibertsifikazioa.	
Esperientzia pertsonala, irakurketa-esperientzia eta kultura-esperientzia mobilizatzeko eta, era horretan, irakurritako obraren eta egungo alderdien eta beste literatura- edo arte-adierazpen batzuen artean loturak ezartzeko estrategiak.	
Hainbat euskarritako irakurgaiak gomendatzeko jarraibideak, alderdi tematikoak, formalak eta testuartekoak kontuan hartuz.	

Literatura Unibertsala
Irakurtzeko interesa.
Genero-kontzientzia eta genero-ikuspegia.
C. Komunikazioa eta lanaren antolaketa
1. Interakzioa eta azalpena
Entzute aktibo, asertibitate, hizkuntza-adeitasun eta elkarrizketa-kooperazioko estrategiak.
Jarrera proaktiboa eta parte-hartze aktiboa taldekako lanak egitean.
Gatazkak kudeatzeko eta elkarrizketa bidez konpontzeko estrategiak.
Entzuleen premietara eta azalpen-denborara egokitzeko estrategiak.
Argudiatutako ahozko deliberazioa.
Irakurketa-esperientzia adierazteko estrategiak, metahizkuntza espezifikoa eta teknikoki egokia erabiliz eta alderdi tematikoak, genero- eta azpigenero-alderdiak, egituraren eta estiloaren elementuak eta obren balio etikoak eta estetikoak kontuan hartuz.
2. Idatzizko ekoizpena
Lantzeko prozesua: informazioaren bilaketa, plangintza, idazketa, berrikuspena eta edizioa hainbat euskarritan.
Aipamenak eta erreferentzia bibliografikoak egiteko prozedurak. Orri-oinak eta haien erabilerak. Bibliografia eta webgrafia.
Idaztearen bidez pentsamendua antolatzeko eta emozioak kudeatzeko jarraibideak: idazketa automatikoa, eskemak, kontzeptuzko mapak eta laburpenak.
3. Iturrien erabilera eta informazio-alfabetatzea
Hainbat iturritako informazioa aurkitu, hautatu eta alderatzeko estrategiak.
Alderatutako iturrien fidagarritasuna eta egokitasuna neurtzeko estrategiak.
Etiketa eta aztarna digitala.
Proiektuak egiteko plataforma birtualak.
Berriz landutako informazioa kritikoki, sormenarekin eta jabetza intelektuala errespetatuz komunikatu eta zabaltzeko estrategiak.
Informazio garrantzitsuaren edukiak kudeatzeko, informazio hori biltegiratzeko eta berreskuratzeko jarraibideak. Albiste faltsuak eta gertakarien egiaztapena. Ziberamua.
Euskarazko literatura, literatura-sorkuntza eta idatzizko kalitatea garatzeko eta sustatzeko erakundeak ("Literatura Unibertsala" bilduma (EIZIE), "Urruzuno literatur leihaketa"…)

MUNDU GARAIKIDEAREN HISTORIA

Hezkuntza-sistemaren xedea, herritar gogoetatsu eta sortzaileak prestatzea da, gure gizartea gero eta anitzagoa eta aldakorragoa baita. Alde batetik, honek areagotzen du nerabezaroan irudimentsuki pentsatzeko gaitasuna sustatzearen beharra, premia berriei egokitzeko. Bestalde, gizarte demokratikoek kognitiboki prestatutako eta emantzipatutako pertsonak behar dituzte, balio demokratikoak defendatzeko gai direnak.

Batxilergoan, *Mundu Garaikidearen Historia*k, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako *Geografia eta Historia* jakintzagaiaren konpetentziak garatzeko prozesuari jarraipena emateaz gain, munduko iragana aztertzeak gaur egungo politika, ekonomia eta gizarte-bizitza ulertzeko duen garrantzia definitzen du, egungo munduan zentzua hartzen duten tresna kontzeptualak eskaintzen dizkigulako. Are gehiago, jakintzagaiak gazteen adimenaren garapen orekaturako beharrezkoak diren datuak eta jarduera intelektuala ematen digu. Beraz, eztabaidaezina da *Mundu Garaikidearen Historia* lantzeko beharra, pentsamendu eta judizio analitiko askerako gaitasuna sustatzen laguntzen duen jakintzagai gisa.

Historiak, gertakarietan eta ondorengo hausnarketetan oinarrituta, nor garen eta zergatik garen jakiten laguntzen digu. Eta horrek guztiak baliabideak bilatzen ditu, eztabaida pertsonaletan oinarritutako pen-

tsamendu kritikoa balioesteko, alderatzeko eta gauzatzeko. Beraz, ondoriozta daiteke jakintzagai honen oinarrizko jakintzak irakasteak barne hartzen dituela, ez bakarrik iraganeko garaiei buruzko ezagutzak, baizik eta gertaeretatik abiatutako gogoeta egitea eta iraganaren eta orainaren arteko erlazioak bilatzea ere. Hau da, gizartean aurrera egiten lagunduko duten herritar zentzudunak, moldagarriak eta pentsakorrak sortzeko tresnak. Eta hori guztia, jakina, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren parte den diziplina gisa, Euskadiko testuinguru global, historiko eta gaur egungoarekiko harremana.

Oinarrizko jakintzak multzotan antolatzeak, diziplinaren ordena kronologikoa errespetatzen du, baina, euren planteamenduen bidez, espiritu pedagogiko berritzailea ere proposatzen da. Konbinazio horrek ikasleak bideratuko ditu, irakaslearen lanarekin batera, Mundu Garaikidearen Historiaren ulermen eta ikuspegi orokor bat lortzera, eta, pixkanaka eta nerabeen eboluzio psikokognitiboa kontuan hartuta, euren konpetentzia-profila osatzen.

Horrela, *Mundu Garaikidearen Historia* ikasteak, zuzenean lantzen ditu Herritartasunerako Konpetentzia -kultura politikoa, pentsamendu kritikoa eta herritarren parte-hartze aktiboa garatzen laguntzen duelako-; eta Konpetentzia Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa —gertaerak erlazionatzen, hausnartzen eta aldaketetara egokitzeko eta bizitza osoan zehar ikaskuntza kudeatzeko beharrari erreparatzen irakasten du eta. Kontzientzia eta Adierazpide Kulturalerako Konpetentziaz ere arduratzen da, edozein motatako adierazpen artistiko ezagutzeak bai sentsibilitatea bai Ondare Historiko-Artistikoa aintzat hartzea, errespetatzea, balioestea eta hartaz gozatzea gauzatzen dituelako.

Zeharka, diziplina honek Ekintzailetza Konpetentzia ere garatzen du; izan ere, ikasleei laguntzen die bizitzan zehar izango dituzten beharrak, erronkak eta aukerak onartzen, gaur egun globalizatuta dagoen eta etengabe aldaketak jasaten dituen mundura egokitu ahal izateko. Azkenik, Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentziari eta Konpetentzia Eleaniztunari egiten zaien ekarpena eztabaidaezina da, ezinbestekoa baita edozein hizkuntzatan komunikatzea informazioa transmititzeko; eta Konpetentzia Digitala funtsezkoa da gaur egun edozein jakintzagaitan trebatzeko.

Horri guztiari, Geografia eta Historiaren diziplinartekotasuna gehitzen badiogu, gainerako jakintzagaiekin batera lan egiteko aukera ematen duena, iragana ezagutzeko beharraren ondorioa -egungo munduan kokatzeko eta hura ulertu, zaindu, aberastu eta dituen xehetasunez gozatzeko- saihestezina bihurtzen da. Historian zehar, jakintza-diziplina guztiak gizakiok etengabe planteatzen ditugun galderei eta beharrei erantzuteko garatu direla kontuan izanik, ukaezina da, besteak beste, Industrializazioen Historiaren eta Ekonomia eta Teknologiaren artekoa.

Batxilergo osoan zehar, *oinarrizko jakintzen* bidez egindako lanaren bitartez eskuratzen eta garatzen joango diren trebetasunei *konpetentzia espezifikoak* deitzen zaie. Historia Garaikideko kasuan, horien helburua da: Aro Garaikidearen hasieratik gaur egunera arte, pentsamenduak eta ideologiek errealitatea eraldatzeko bete duten funtzioa ezagutzea eta interpretatzea; identitate kolektiboak eraikitzeko prozesua deskribatzea, baita mundu garaikidearen konfigurazio sozial, politiko eta kulturalean duten garrantzia ere; Historia Garaikidean sistema demokratikoak finkatzen lagundu duten prozesuak, mugimenduak, ekintzak eta eraldaketak identifikatzea eta ezaugarritzea, baita haien atzerapausoak ere; garatutako sistema eta eredu ekonomikoak azaltzea; joera demografikoetan, bizimoduetan eta bizi-zikloetan gertatu diren aldaketak eta iraunkortasunak deskribatzea eta aztertzea; gaur egungo desberdintasun sozioekonomikoen jatorria definitzea; Aro Garaikideko gatazka nagusien eta haien indarkeria- eta suntsipen-maila handiaren kausak eta ondorioak ezagutzea eta aztertzea; Globalizazioaren fenomenoa azaltzea, gaur egungo gizarteetako harreman-esparru gisa, baita Globalizazioak tokiko eta munduko esparruan eta pertsonen eguneroko bizitzan duen eragina ere, eta Historia Garaikide unibertsalaren eta egungo egoera soziopolitikoaren analisian genero-ikuspegia txertatzea.

Horrek guztiak gure ikasleei lagunduko die sortutako proposamen sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalak modu kritikoan baloratzen, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren ikuspegi etikotik; identitate kolektiboek gaur egun duten esanahia eta garrantzia ulertzen eta sortu dituzten ondare-aberastasuna eta ondoriotasun historiko eta kulturala baloratzen, baita pertenentzia-sentimenduak errespetatuko dituen elkarrizketa konstruktibo baterako lagungarriak diren norberaren argudioak egiten; sistema demokratikoen lorpenak, ahuleziak eta mehatxuak ulertzen eta elkarbizitzaren eta oinarrizko eskubideen berme gisa

duten zeregina baloratzen; sistema ekonomikoek sortutako subordinazio- eta mendekotasun-harremanez jabetzen, planetaren iraunkortasuna baloratzen eta gizarte-eskubideen garrantzia eta oinarrizko baliabideen eskuratze unibertsala defendatzen; Estatuen, eskualde eta herrialdeen arteko antzekotasun eta desberdintasun demografikoak eta sozialak behatzen; egungo gizarte konplexuak nola osatu diren ulertzen, desberdintasuna horien arazo nagusietako bat dela onartzen eta komunitate bidezkoagoak eta kohesionatuagoak lortzeak planteatzen dituen erronkak bereganatzen; informazioaren manipulazioa atzematen, norberaren argudioak sortzen, gure iragan hurbileko gertakari traumatikoei aurre egiten, horiek errepika daitezen saihesten, biktimak aintzatezten eta Justizia Unibertsalaren printzipioaren aplikazioa defendatzen; globalizazioarekin lotutako XXI. mendeko erronka nagusiak identifikatzen eta ezagutzen, eta Garapen Iraunkorreko Helburuei aurre egiteko konpromiso ekosozialak hartzearen beharra baloratzen eta emakumeek Historian duten presentzia aitortzen, baita beraien oztopoak eta aurrerapen- eta atzerapen-uneak ezagutzen, eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko jarrerak sustatzen.

Eta ikasleek egindako aurrerapenak baloratzeko, ebaluazio-irizpideak daude. Horien helburua da, jakintzak zenbateraino barneratu diren eta, ondorioz, konpetentzia espezifikoetan zer progresio-maila lortu den zehaztea, baita ikasleek beren garapenerako garrantzizkoak diren jarrerak eta balioak bereganatu dituzten zehaztea ere. Irizpide horien formulazioan, beraz, jakitearen, egiten jakitearen eta izatearen erreferentziak jasotzen dira.

Oinarrizko Jakintzen bidez, ikasleek Konpetentzia Profil fidagarri batera eramango dituzten Konpetentzia Espezifikoak eskuratuko dituzte. Horregatik, jakintza horiek ezinbestekoak dira, gizakiok Mundu Garaikidearen Historian zehar mundua ulertzeko izan ditugun modu desberdinen transmisio zuzena behar bezala egin ahal izateko. Era berean, errealitate aldakorrak gizakiaren eraginek baldintzatzen dituztela hau da, aldaketa horietako asko gure ekintzen ondorio direla, bereganatzeko. Horregatik, ezinezkoa litzateke errealitatea aztertzea, ezta etengabeko aldaketa hautematea ere, gutxieneko datu historiko batzuk ezagutu gabe, zehatzak eta pedagogikoki antolatuak direnak, eta bilakaera horiek guztiak zeintzuk izan diren erakusten dizkigutenak.

Oinarrizko jakintzak hiru bloketan bereizi dira: *A. Gizarteak denboran zehar,* hau da, Historiari dagozkion oinarrizko jakintzak; *B. Egungo munduaren erronkak*, hau da, egungo auzi geopolitikoak; eta *C. Konpromiso zibikoa*, oso-osorik gainerako jakintzekin batera landuko diren zeharkako gaiak jorratzen dituena. Aditzera eman behar da, A bloke barruan zeharkako jakintza batzuk ere badaudela (A1 11 eta 14), eta horiek ikaste egoera guztietan landu beharko direla. Gainerakoak, jakintza espezifikoak dira eta jorratu ahal izango dira adierazitako moduan (politika, gizarte, ekonomia, ideologia eta abarren erlazioetatik abiatuta), edo ikaste-egoerak pedagogikoki antolatzeko helburuarekin konbinatuta, adibidez, Historia Garaikidearen etapen arabera, edo irakasle-taldeak egokiagotzat joko duen moduan.

Jakintzagai honek, baliabide horien eta irakasleren lanaren bitartez, azken hori jakintzaren jabe eta gida izanda, ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista izan daitezen eta figura pasibo eta ezagutza-hartzaile soil izateari utz diezaieten, lagundu egingo du. Jakintza aztertu, aplikatu eta sortzeko irakaskuntza eta informazioa ezagutza bihurtzea uztartu behar ditugu, horrela, Historia Garaikidearen bilakaeraren ikaskuntza, jakin-mina, pentsamendu kritikoa, autonomia eta, ondorioz, erresilientzia sustatuz. Lotura hori gabe, ez da motibaziorik egongo eta gauzak ezingo dira ikuspegi berrietatik landu. Konbinazio horrek motibazioa sortuko du eta XXI. mendeko erronkak ikuspegi berrietatik ikusi ahal izango dira.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Aro Garaikidearen hasieratik gaur egunera arte pentsamenduak eta ideologiek errealitatea eraldatzeko bete duten funtzioa ezagutzea eta interpretatzea, iturri historiko eta historiografikoak erabiliz eta Historiaren funtsezko gaiei buruzko eztabaidetara hurbilduz, sortutako proposamen sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalak modu kritikoan baloratzeko, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren ikuspegi etikotik.

Pentsamendua, pertsonok gure adimenean errealitatearen ideiak eta errepresentazioak osatzeko eta erlazionatzeko dugun gaitasuna da. Ideologia, ideia filosofiko, politiko, sozial, ekonomiko eta abarren multzo bat da, sistema ekonomiko, sozial edo politiko bat eraldatzeko edo kontserbatzeko garatua. Aro Garaikidea, zalantzarik gabe, ideologien aroa da, Antzinako Erregimenaren krisitik eta liberalismoaren garaipenetik abiatuz, gaur egunera arte iritsi arte. Ideologiek gizarte-eredu berrien sorreran eta horiek aldatzeko aukeren eta sistema politikoen artikulazioan izan duten zeregina ezagutzea ezinbestekoa da 1789. urtetik gaur egunera arteko prozesu nagusiak ulertzeko.

Ikasleek, iturri desberdinen bidez, ideiek, kolektiboen gainean duten mobilizazio-ahalmena ulertu ahal izango dute. Horrek guztiak berekin dakar zenbait fenomenori buruzko ezagutzak maneiatzea, hala nola gizarte-mugimenduei, prozesu iraultzaileei, sistema politikoei, langile-mugimenduei eta haien bide politiko eta sindikalei, faxismoen fenomenoei eta Aro Garaikidea markatu eta markatzen duten gainerako fenomenoei buruzkoak. Aipatutako guztiaren azterketa kritikoa eta arrazoitua, ikuspegi historiko objektibo eta etiko batetik planteatu behar da, eta kontuan hartu behar dira Nazio Batuen Erakundeak babestutako adierazpenetako eta akordioetako edukiak.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KD2, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3.

2. Identitate kolektiboak eraikitzeko prozesua deskribatzea, baita mundu garaikidearen konfigurazio sozial, politiko eta kulturalean duten garrantzia ere, pentsamendu historikoaren kontzeptu eta metodoak erabiliz, gaur egun duten esanahia eta garrantzia ulertzeko, pertenentzia-sentimenduak errespetatuko dituen elkarrizketa konstruktibo baterako lagungarriak diren norberaren argudioak egiteko, eta identitate kolektiboek sortu dituzten ondare-aberastasuna eta ondoriotasun historiko eta kulturala baloratzeko.

Identitateak, gure irudipen sozialak islatzeko moduetako bat dira, pertsonok geure buruaz eta parte garen taldeez ditugun erreferentzien eta irudien fusioa baitira. Identitate kolektiboek bereizketa-elementuak dakartzate, hala nola, talde jakin batzuetako kide, nortasun kolektiboko atributuak eta amankomuneko bilakaera historikoa izatea, askotan osagai emozionalak eragiten dituztenak. Gaur egun *Identitate kulturalak* deiturikoek —*nazio-identitateak,* termino historikoetan ulertuta, barne hartuta—, sorreratik erronka politiko batzuk sortu dituzte; alderdiek, beren taldeen interes eta eskubideen defentsarik onenak eta zuzenenak zirela adierazi baitzuten, azpiordezkatutzat zirelakoan. Beraz, identitate kolektiboen garrantzia ulertzea Historia Garaikidearen ikuspegi globalaren zati banaezina da, munduaren konfigurazio sozial, politiko eta kulturalaren elementu gisa duten eginkizunarekin batera.

Testu historiografiko eta iturri historiko desberdinen analisiaren bidez, aipatutako gertaera horien jatorri eta kausa historikoak aztertzeak baita, egungo informazio-iturriak ere kontuan hartu ondoren, berezko argudiaketa objektiboak egiten hasteak, ikasleek bere argudioak lantzera eramango ditu, pertenentzia--sentimendu guztiak errespetatzen eta horri buruzko elkarrizketa eraikitzailea egiten lagunduko dutenak.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, HKK5, KE3,KPSII1.2, KPSII3.1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2.

3. Historia Garaikidean sistema demokratikoak finkatzen lagundu duten prozesuak, mugimenduak, ekintzak eta eraldaketak identifikatzea eta ezaugarritzea, baita haien atzerapausoak ere, gertakizunen azterketa konparatzailearen eta termino eta kontzeptu historikoen erabilera zuzenaren bidez, sistema demokratikoen lorpenak, ahuleziak eta mehatxuak ulertzeko eta elkarbizitzaren eta oinarrizko eskubideen berme gisa duten zeregina baloratzeko.

Historia aurrerapausoen eta atzerapausoen bilakaera ez lineala da. 1789an hasi, eta XIX. mendean zehar mendebaldeko sistema politikoek izan duten bilakaerak ekarpenak egin dizkio parlamentarismoa garatzeko prozesuari, atzerapausoak kontuan hartuta, egungo demokraziak ezarri eta finkatu arte. XIX. mendeko iraultza burgesek, haien parlamentarismo liberalarekin —batzuetan ezegonkorra—, industrializazio-prozesuekin eta kolonialismoarekin batera, XX. mendean joera autoritario kontserbadoreetarantz

eboluzionatu zuten batzuetan. Izatez, nazioarteko gatazka handiek eta bi sistema ekonomikoren (kapitalista eta komunista) arteko lehiak markatu zuten XX. mendea. Historiak, egungo mundu globalizaturaino ekarri gaitu.

Hori guztia ulertu eta barneratzeari esker, eta Historia Garaikidean sistema demokratikoak finkatzen lagundu duten prozesu, mugimendu, ekintza eta eraldaketa politikoak ulertzen eta azaltzen jakiteari esker —baita haien atzerakadak ulertzen eta azaltzen jakiteari esker ere—, jabetu gaitezke gaur egun mendebaldeko munduan indarrean dauden konstituzioen dimentsio demokratikoaz, gure bizikidetzaren oinarri gisa eta gure oinarrizko eskubideen berme gisa. Jakintzagaiari datxekio, beraz, prozesu horiek definitzeko eta testuinguruan kokatzeko aukera ematen duten termino eta kontzeptu historikoak, politikoak eta juridikoak zuzen erabiltzea eta maneiatzea.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KE2, STEM2, KPSII1.1, HK1, HK2, HK3, EK1.

4. Aro Garaikidean garatutako sistema eta eredu ekonomikoak azaltzea, iturri historiko eta historiografikoen bidez, aurrerapen-ideiaren interpretazioa ikertuz eta sistema horiek gizartean, ingurumenean eta lurraldean dituzten ondorioei buruz ere ikertuz, betiere subordinazio- eta mendekotasun-harremanez jabetzeko, planetaren iraunkortasuna baloratzeko eta gizarte-eskubideen garrantzia eta oinarrizko baliabideen eskuratze unibertsala defendatzeko.

Mundu-mailako ekonomiak Aro Garaikidean zehar izandako bilakaera aztertzeak, ikasleari lagunduko dio, bai horrek gizartearen garapenarekin duen zuzeneko harremanak, bai gaur egungo egoera. Globalizazioaren ekonomiaren funtzionamenduarekin trebatzeko, funtsezkoa da lehenik eta behin bere erro historikoak eta bere eragileen pentsamenduak eta politikak aztertzea, oinarrizko kontzeptuak erabiltzeaz gain; krisi ziklikoak, interbentzionismoa edo librekanbismoa, besteak beste. Bestalde, aztertze horrek, bilakaera ekonomiko unibertsalean —estatu liberalak eraikitzeko funtsezko oinarrietako bat kapitalismoa zena— eta gaur egunera arteko garapenean baita 1789tik aurrera egon diren arazoetan ere, Historiaren panoramika bat ematen du, egungo ereduaren zergatiarekin edota gizarte-ongizatea edo iraunkortasuna bezalako gaiez arduratzeko beharrarekin lotzen dena. Azken honek, gainera, ikuspegi kritikoa ematen dio aurrerapenaren ideiari, haren planteamendu filosofiko eta ekonomikoei eta haren ondorio politikoei. Historikoki bere lehentasunen artean, ez aberastasunaren banaketa, ez ingurumen-ondorioak kontuan hartu ez dituen hazkunde ekonomikoak eragindako ondorioak kontuan hartu behar dira.

Magnitude horiek ezagutzeko bideak eskatzen du dokumentu historikoetako iruzkinez baliatzea —grafikoak, estatistikak, erroldak eta abar— eta aplikazio informatikoak erabiltzea. Lan horrek interpretaziorako eta loturak egiteko gaitasunaren garapena eskatzen du, faktore ekonomikoak gainerako fenomeno historikoekin elkartzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM4, STEM5, KPSII1.1, HK1, HK2, HK3, EK1, EK2.

5. Aro Garaikidean zehar, joera demografikoetan, bizimoduetan eta bizi-zikloetan gertatu diren aldaketak eta iraunkortasunak deskribatzea eta aztertzea; ikerketa-proiektuen bitartez, estatuen, eskualde eta herrialdeen arteko antzekotasun eta desberdintasun demografikoak eta sozialak behatzeko.

Ikasleek, mendebaldeko gizarte unibertsalaren bilakaera demografikoa eta aldaketak eta jarraitutasunak Aro Garaikidean zehar aztertu behar dute, mendeko izatetik herritar izatera egindako urratsa harreman eta garapen sozial, ekonomiko eta politikoko modu berriekin, espazioaren banaketarekin eta lurraldeen arteko desoreka mantentzearekin lotuz. Horrela, ikasleek ulertuko dute, bai modernizazio ekonomiko eta sozialaren prozesua, bai, historian eta orainaldian, gizarteen heterogeneotasun eta konplexutasun handia; haien antzekotasunak, dibergentziak eta desberdintasun demografiko eta sozialak ere kontuan hartuz. Biztanleriari, bizimoduei eta eguneroko bizitzari buruzko azterlanak funtsezkoak dira gizarte-, genero-harremanak eta belaunaldien arteko erlazioak ulertzeko, baita gure aniztasun sozialak gordetzen dituen gizarte garaikideen pertzepzio, emozio eta egitura kulturalak ulertzeko ere.

Aipatutako azterketa, subjektuan eta gizataldeko esperientzietan oinarritu behar da eta analisia, iturri historiografikoen eta askotariko iturri historikoen —hala nola datu estatistikoen, testuen, errolden eta abar— aztertze kritikoaren bidez egin behar da. Gizarteen bilakaerak barne hartzen ditu: lorpenak eta atzerapenak, Estatuen erregimen politiko desberdinek orain arte hartutako neurriak, eguneroko bizitza eta ongizate-mailen eboluzioa eta etorkizuneko mugak eta erronkak. Eta gaurkotasunari dagokionez, gatazkak kudeatzeko, desberdintasunak arintzeko, gizarte-tentsioa neutralizatzeko edo ordena publikoaren nahasmendua erreprimitzeko hartutako neurriak kontuan hartuta, gertakari handiak ingurune hurbilenarekin lotzeko interesa piztu ahal izango da ikasleengan, baita gizartea beste ikuspegi batetik aztertzekoa ere; hain zuzen ere, guzti horri buruz hartu diren politiken irismena eta berdintasunaren, ongizatearen, justiziaren eta gizarte-kohesioaren bidean egindako aurrerapenak eta mugak baloratzera eramango dituena.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, STEM3, KD2, KPSII3.1, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3.

6. Gaur egungo desberdintasun sozioekonomikoen jatorria definitzea, sistema eta ziklo ekonomikoen eta gizarte-taldeen bilakaeraren ezagutzaren bidez, azterketa multikausala erabiliz eta subjektuek Historian izan duten zeregin eraldatzailea baloratuz; egungo gizarte konplexuak nola osatu diren ulertzeko, desberdintasuna horien arazo nagusietako bat dela onartzeko eta komunitate bidezkoagoak eta kohesionatuagoak lortzeak planteatzen dituen erronkak bere gain hartzeko.

Ikasleek, Historia Garaikide unibertsalaren ikasketaren bidez, identifikatu eta erlazionatuko dute askotariko faktoreek nola zehaztu dituzten, politikatik eta ekonomiatik, eskubide zibil eta sozialetan izan diren aldaketak. Gizaki sozial garen aldetik, gizakiok kolektibitatean bizi behar dugu. Gure gizarteak guk geuk sortutako arauen arabera antolatzen dira. Arau horiek, historian zehar, hainbat erakunderen sorrera eragin dute, eta horien bidez ezartzen dira gure harremanak modu antolatuan gidatzen dituzten arauak. Era berean, jarduera ekonomikoa giza gizarte orori datxekio; izatez, gizarte-bizitzaren funtsezko elementua da, eta bere arauak ere baditu. Historian, lehenengo mugimendu ekonomikoak —truke modukoak— egiaztatu zirenetik gaur egunera arte, fenomeno ekonomikoen seinaleak ditugu, bai gure eguneroko jardueretan, bai burtsan egiten diren transakzio garrantzitsu eta handienetan.

Aro Garaikidearen hasieran, ekonomiaren joko-arauak aldatu ziren, eta gure gizarteek Kapitalismoa ezarri zuten baliabideak eta aberastasuna administratzeko modu gisa; horretarako, mendeko izatetik herritar izatera pasatzearekin zuzenean lotzen diren banaketa ekonomikoko ideia berriak izan ziren oinarri. Horrela, Adam Smith-en ideia nagusia aplikatu zuten. Ideia horren arabera, merkatu-ekonomia deitu zionaren bidez lor daiteke ongizate integrala, eta ongizate integral horretan gizabanako bakoitza, jabetza pribatuari esker, bere bizitzaren jabe izan daiteke eta bere helburuak lortzearen alde borroka dezake. Karl Marx izan zen haren kritiko nagusia, eta mundu ekonomiko eta soziala antolatzeko beste aukera batzuk ezar zitezen sustatu zuen. Kontua da gaur egun mundu kapitalista globalizatuan bizi garela, eta behar mugagabeei erantzun behar dieten baliabide mugatuak dituen mundua dela. Mundu horretan, gure zibilizazioak ez du gizarte-desberdintasuna gainditu; aitzitik, edozein estatutako edo erkidegotako herritar batzuen ongizate sozioekonomikoan eragina duen arazoa da. Ez dugu inoiz ahaztu behar subjektuek zein kolektiboek zeregin eraldatzailea izan dutela eta dutela Historian, eta aintzat hartu behar dugu gure egungo gizarteen osaera —iraganeko gizarteena bezalaxe— bi agente horien emaitza dela eta gizarte-desberdintasunek oso lotura estua dutela gizarte-bidegabekeriekin, hau da, kasurik muturrekoenetan, giza eskubideen aurkako bortxaketak eragin ditzaketen bidegabekeriekin.

Gero eta aldaketa bizkorragoen eraginpean dauden egungo gizarte konplexuen parte diren aldetik, gure ikasleek ikasi behar dute —ekonomiaren eta gizartearen arteko loturaren ezagutzatik— zer garrantzitsua den konpromiso zibiko irmoa erakustea gizarte-kohesioarekin, elkartasunarekin, aniztasunarekiko errespetuarekin eta gutxiengoen eskubideen lorpenarekin.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM1, KD5, KPSII1.2, KPSII3.1, EK2, EK3.

7. Aro Garaikideko gatazka nagusien eta haien indarkeria- eta suntsipen-maila handiaren kausak eta ondorioak ezagutzea eta aztertzea, testu historikoen eta iturri historiografiko fidagarrien analisiaren bidez; informazioaren manipulazioa atzemateko, norberaren argudioak sortzeko, gure iragan hurbileko gertakari traumatikoei aurre egiteko, horiek errepika daitezen saihesteko, biktimak aintzatezteko eta Justizia Unibertsalaren printzipioaren aplikazioa defendatzeko.

Jakintzagai honen helburuetako bat da ikasleei ulertaraztea —jakintzagaiaren alderdi guztien bidez— Historia ikasteak egungo munduari zentzua emateko aukera ematen duela. Izatez, gaur egungo gatazka askok duela hamarkada edo mende batzuetan dute jatorria; hartara, gaurko gertakariei soilik begiratuz gero, eman dezake gatazka bakanak direla. Historia Garaikide unibertsala ikasteak gertakari horiek sakon ulertzeko aukera emango du, baita gertakari horiek barneko nahiz mundu-mailako harreman politikoetan izan zituzten eta egun dituzten kausak eta ondorioak ulertzeko aukera ere; izatez, gerrek, matxinadek eta konkistek aurrekariak dituzte, nazioak denbora luzez markatzeko gai direnak.

XX. mendeko gerra totalek agerian utzi zuten XIX. mendean Europan lortu zen aurrerapenaren eta zibilizazioaren berezko zuzenbide publikoko nozioaren inguruko hipokresia. Gerraren berritasun nagusia izan zen, Mendebaldeko Europaren bihotzean bertan, errepikatu zirela aurreko gerretako eta bereziki gerra kolonialetako ezaugarriak (borrokalariak eta zibilak bereizketarik gabe konkistatzea eta sarraskia egitea), baina oraingoan suntsitzeko askoz sendoagoak ziren baliabide teknikoen bidez. Zoritxarrez, gainera, laborategi antropologiko erraldoi bihurtu ziren, eta genozidiorako eta suntsiketarako funtsezko baldintzak diseinatu ziren, kontzentrazio-esparruen sistemarekin. Horrek guztiak Historiaren gaineko ardura- eta kontzientzia-arazo bat planteatzen du gizarte osoarentzat, ezin baikenuke herritar izan memoria historikoaren eramaile izan gabe. Ez da nahikoa indarkeria gaitzestea, indarkeriaren erroak eta ondorioak ezagutu eta aztertu behar dira.

Lan hori egiten duten historialariek XX. mendeko indarkeriak deskribatu, sailkatu, bereizi eta alderatzen dituzte, baina ez izugarrikerien kontalari hutsa izateko. Nazioarteko harremanen teoria errealistaren ordezkari Edward Hallett Carr-ek honako gogoeta honetan oinarritu zituen bere lanak: gizakien izaerak gatazkara eta gerrara eramaten gaitu —etengabe eta behin eta berriz gertatzen den fenomeno gisa—, eta gerra desagerraraztea ideal gauzaezina da. Edonola ere, Lehen Mundu Gerrak eta Bigarren Mundu Gerrarako bideak guztiz markatu zuten gogoeta hori. Horrek talka egiten du egungo Mendebaldeko gizarteen ikuspegi orokorrarekin; izan ere, agian, nahiko modu xumean eta soilik hemengoa eta oraina oinarri hartuta, eta XX. mendeko gatazka handien moduko gatazkarik ezean, ez ditugu hautematen gerra baten benetako konplexutasunak eta ondorioak, eta, gainera, ez dugu gai horrekiko interes handirik erakusten. Betiereko bake baten eta gatazka handirik gabeko mundu baten ilusioa modu kontraesankorrean eta arduragabean finkatu da mendebaldean. Kontraesankorra, zeren eta, Gerra Hotzaren ondoren nazioarteko gerra klasiko handiak ia desagertu diren arren, intentsitate txikiko eta iraunaldi luzeko bestelako gatazken kopurua bikoiztu egin baita munduan. Eta arduragabea, zeren eta indarkeria-mota berri horiek urrutiko lekuetan garatzen baitira, hala nola Sirian, Afganistanen eta Ukrainan, hau da, mendebaldeko mundutik eta hedabideen arreta bizitik kanpo eta gure gizartearentzat ikusezina den periferian.

Historia Garaikidea aztertzeari eta ulertzeari esker, ezagutzen ditugu iraganeko joera ekonomikoak, politikoak, sozialak, kulturalak edo barneko gatazkei edo nazioarteko gatazkei buruzkoak, eta gai izan gaitezke egungo munduan gertatuko denari buruzko arrazoizko aurreikuspenak egiteko. Hala ere, Historian ez da benetako irudi bakartzat aurkezten diren ikuspegiez fidatu behar; beste bertsio batzuk ezagutu behar dira. Horretarako, jakintzagai honetan, iturri historiografiko fidagarriak erabili beharko dira eta testu historikoak aztertu, informazioaren manipulazioa atzematen ikasteko. Horrez gain, ikasleek gure iragan hurbileko gertakari traumatikoei aurre egiteko gaitasuna eraiki beharko dute, antzeko gertaerak errepikatzea saihestu daitekeela jakin behar dute, biktimak aintzatetsi beharko dituzte eta Justizia Unibertsalaren printzipioaren aplikazioa defendatu.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KPSII1.1, KPSII3.1, KPSII4, HK1, HK2, HK3.

8. Globalizazioaren fenomenoa azaltzea, gaur egungo gizarteetako harreman-esparru gisa, baita globalizazioak tokiko eta munduko esparruan eta pertsonen eguneroko bizitzan duen eragina ere, informazioa bilatu, hautatu eta tratatzeko, eta iturriak kontrastatu eta kritikoki irakurtzeko prozesuen bidez, XXI. mendeko erronka nagusiak identifikatzeko eta ezagutzeko, eta Garapen Iraunkorreko Helburuei aurre egiteko konpromiso ekosozialak hartzearen beharra baloratzeko.

Historia Garaikideak ikasleei begiak irekitzen dizkie mundua, lehenengo gizarte konplexuetatik eratzen joan den sare komertziala dela ikus dezaten. *Globalizazioa*, gaur egungo gizarteetan zenbaitentzat modu positiboan ulertutako kontzeptua da, Globalizazioa kosmopolitismoaren ikuspegitik ikusten dutelako eta munduko herritartasunaren kontzeptu erromantikoa ahalbidetzen duelakoan. Beste batzuentzat, ordez, negatiboa da, arriskuan jartzen baitu nazionalismoaren kontzeptua bera (hizkuntza, ohiturak, kultura, legeak, eta abar). Bi ikuspuntu horiek onargarriak izanik ere, ikasleek ulertu behar dute gure Globalizazioa egungo kapitalismoaren ondorio bat besterik ez dela eta kulturarekin baino merkatuarekin zerikusi handiagoa duela, eta errentagarritasunarekin kosmopolitismoarekin baino gehiago, betiere geopolitikarekin duen harremana ahaztu gabe.

Globalizazioaren fenomenoa, beraz, Industria-Iraultzetan jatorria duen ondorio ekonomikoa da batik bat; zehazki, gaur egun ekonomia arautzen duen kapital-metaketa deituriko prozesuaren hasierarekin lotzen dena. XIX. mendearen erdialdetik aurrera, ekonomia kapitalista izan da nagusi mendebaldeko gizarteetan, eta lege batzuen mende dago, zeinak, horien bilakaera historikoan zehar, etekin maximoaren jomuga lortuko duen antolamendu soziopolitiko bat eraikitzen joan diren. Guzti hori, gaur egun, sare informatikoen eta enpresa kudeatzaileen euskarri zabal batean oinarritzen da, hala nola bankuen edo Balio-Sozietatearen gainean, planetako leku batetik bestera ahalik eta denbora laburrenean eta gastu txikiarekin mugitu daitezkeenak. Bestalde, giza taldeen integrazio orokorra Neoliberalismo deritzon doktrina ideologiko eta politikoaren bidez gauzatzen da. Europako ekialdean, Sozialismoa erori ondoren, merkatuen askatasunean oinarritzen den gizarte-eredu eztabaidaezin gisa egokitu da neoliberalismoa, merkataritza-transakzioen kontrol burokratikoa lasaitzeari edo desarautzeari erantzuten diona. Multinazionalak eta nazioarteko kapital-merkataritza-gune nagusiak egungo gizartea definitzen duen metaketa ekonomikoaren prozesuaren ondorio dira, eta joera da kapitalak gero eta esku gutxiagok bereganatzea.

Gizartean, globalizazioaren fenomenoak modu positiboan eragiten die klase pribilegiatuei, eta merkataritza-hedapenak hirietako klase ertainak barne hartzen ditu gizarte-euskarri gisa —aldi berean kontsumo-gizartearen euskarri direnak eta haren mende daudenak—. Gainera, Txina eta India gisako herrialdeetan finkatu den hazkunde-erritmo handiaren ondorioz, eta nazioarteko integrazio ekonomikoaren etengabeko garapenaren ondorioz, nabarmen aldatu dira industria-jardueren kokapen geografikoaren pautak, eta horrek eragina izan du langileengan eta mundu-mailako lan-harremanetan.

Horrek guztiak, jakina, ondorioak ditu gu guztiongan. Fenomeno guzti hau ulertzeko behar diren datuak, informazioa modu gidatuan bilatzeko eta hautatzeko prozesuen bidez bildu behar dira. Hartara, ikasleek XXI. mendeko erronka nagusien jatorri historikoak identifikatzen eta ezagutzen lortuko dute, betiere Globalizazioa ulertu ondoren eta Globalizazioak tokiko esparruan eta eguneroko bizitzan duen eragina estrapolatu ondoren. Prozesuak, halaber, lagunduko die Garapen Iraunkorreko Helburuei aurre egiteko orotariko konpromisoak hartzearen beharra ulertzen.

Azkenik, XXI. mendeko erronka nagusiak eta aurre egin beharreko arriskuak identifikatzea eta erronka horiei aurre egiteko eskualde-mailako eta maila orokorreko konpromiso eta itunak baloratzea —batez ere larrialdi klimatikoarekin zerikusia dutenak—, ezinbestekoa izango da ekosozialki arduratsuak diren jarrerak hartzeko, bai eta planetaren iraunkortasunera, erakunde demokratikoen defentsara, ongizate kolektiboaren hobekuntzara eta egungo eta etorkizuneko belaunaldien arteko elkartasunera bideratutakoak ere.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM5, KD1, KPSII2, KPSII4, HK3, HK4, EK1.

9. Historia Garaikide unibertsalaren eta egungo egoera soziopolitikoaren analisian genero-ikuspegia txertatzea, emakumeen zeregina iturri historikoen bidez eta mugimendu feministei buruzko ikerketa zuzenaren bidez aztertuz, betiere emakumeek Historian izandako presentzia aintzatesteko, oztopoez eta aurrerapen- eta atzerapen-uneez ohartarazteko eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren aldeko jarrerak sustatzeko.

Aro Garaikideko munduak ere, gizarte-jokabide orokor gisa, bizitza pribatu eta publikoan emakumearen baztertzea islatu du. Historikoki, beraien gaitasunak ukatu eta ezkutatu dira, eta hori oraindik ere agerian dago, besteak beste, soldata-arrakalari, edota gizarte, politika eta enpresaren arloko goi-karguetan emakumezkoen presentzia urriari erreparatzen bazaie. Historia ikastean, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna sortu eta mantendu duten nagusitasun kultural eta soziopolitikoko mekanismoak identifikatzen dira, eta, horri esker, ezagutzen dira emakumea gizartean eta politikan aintzatesteko dauden oztopoak eta aurrerapen- eta atzerapen-uneak, eta baloratzen dira emakumearen emantzipazioaren aldeko ekintza guztiak.

Jakintzagai honen bidez, iturri historiografikoetatik eta testu nabarmenen iruzkinetik abiatuta, Historiak, beren generoagatik soilik, bidegabeki isilarazi eta alde batera utzi dituen emakume esanguratsu indibidualak eta kolektiboak berreskuratu nahi dira. Horretaz gain, ikasleengan piztu nahi da, alde batetik, onespenari eta borroka sozialari buruzko hausnarketa eta, bestetik, eremu guztietan jarrera zibilizatuak eta, hausnartuz kritikoak emakumearen aurkako diskriminazio-jokabideen aurrean.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM5, KD1, KPSII3.1, KPSII5, HK3, HK4, EK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Mundu Garaikidearen Historia
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Aro Garaikidearen jatorritik gaur egunera arte, pentsamenduak eta ideologiek errealitatearen eraldaketan bete duten funtzioa aztertzea, haien ezaugarriak ulertuz eta testuinguruan kokatuz, testu historiografikoen bidez eta ikus-entzunezko nahiz literaturako beste dokumentu batzuen bidez.
1.2. Iritzi arrazoituak sortzea eta Historia Garaikideko gai nagusiei buruz eta gaurkotasuneko gaiei buruz eztabaidatzea, proiektu sozial, politiko eta kultural nagusiak modu kritikoan baloratuz, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren ikuspegi etikotik.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Identitate kolektiboak nola eraiki diren deskribatzea, pentsamendu historikoaren kontzeptuak eta metodoak erabiliz, identitate-aniztasuna eta -sentimenduak errespetatuz eta haien ondare historikoa eta kulturala baloratuz.
2.2. Identitate kolektiboek mundu garaikidearen konfigurazio sozial, politiko eta kulturalean duten garrantzia ulertzea, testu historikoak, historiografikoak eta egungo informazio-iturriak modu kritikoan aztertuz eta elkarrizketa konstruktiborako eta errespetuzkorako lagungarriak izango diren nork bere argudioak landuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Historia Garaikidean zehar, sistema demokratikoak finkatzen lagundu duten prozesuak, mugimenduak, ekintzak eta eraldaketak ezagutzea, baita haien atzerapausoak ere, askatasun eta herritartasun kontzeptuek hartu dituzten esanahiak azalduz, gertaeren azterketa konparatzailearen bidez eta sistema demokratikoek oinarri dituzten testu politiko eta konstituzionalak ulertuz eta iruzkinduz.
3.2. Historia Garaikideko iraultza eta aldaketa kontzeptuak eta haien kausak eta baldintzatzaileak azaltzea, XIX. eta XX. mendeetako iraultza burgesen eta sozialisten zikloak eta horiek sortu dituzten akzio- eta erreakzio-mugimenduak aztertuz.
3.3. Sistema demokratikoek bizikidetzaren eta oinarrizko eskubideen berme gisa duten eginkizuna baloratzea, haien lorpenak, ahuleziak eta mehatxuak modu kritikoan aztertuz, egungo informazio-iturrien bidez.

Mundu Garaikidearen Historia
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Aurrerapenaren ideiaren esanahi historikoa azaltzea, baita horrek gizartean, ingurumenean eta lurraldean dituen ondorio ugariak ere, iturri historiografikoen eta ekonomia-arloko dokumentu historikoen iruzkinen bidez eta hazkundeko eta atzeraldiko erritmoen eta zikloen ulermenaren bidez, betiere planetaren iraunkortasuna bermatuko duten portaera ekosozialak hartzearen beharra baloratuz eta oinarrizko baliabideetarako eskuratze unibertsalaren garrantzia defendatuz.
4.2. Aro Garaikideko sistema ekonomikoak alderatzea, haien garapena eta haiek eusten dituzten doktrinak eta teoriak aztertuz, hegemonia-, subordinazio- eta mendekotasun-harremanak identifikatuz eta estatuan nahiz nazioartean sortu eta sortzen dituzten gatazkak identifikatuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Historia Garaikideko aldaketak eta jarraitutasunak identifikatzea, portaera demografikoak, bizimoduak eta bizi-zikloa deskribatuz eta aztertuz.
5.2. Gaur egun estatuen, eskualdeen eta herrialdeen artean dauden antzekotasun eta desberdintasun demografikoak eta sozialak modu kritikoan alderatzea, haien kausak azaltzen dituzten ikerketa-proiektuak eginez.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Historia Garaikidean berdintasun eta herritartasun kontzeptuek hartu dituzten esanahiak deskribatzea, baita horien kausak eta ondorio politiko, sozial eta ekonomikoak ere, XIX. eta XX. mendeetako sistema politiko eta sozial nagusien analisi multikausalaren bidez eta desberdintasunak eta gizarte-talde jakin batzuetan gertatzen den botere-kontzentrazioa identifikatuz.
6.2. Langile Mugimenduen kausak eta sorrera- eta bilakaera-prozesua ezagutzea, baita bizi-baldintzak, lan-mundua, lan-harremanak eta Historia Garaikidean zeharreko gatazkakortasuna ere, diziplina anitzeko ikerketaren bidez eta aurrerapen horiek bete duten eta betetzen duten zeregina baloratuz —ekintza kolektibo gisa zein subjektuak Historian izan duen jarduketatik—, gizarte-eskubideen eta ongizate kolektiboaren lorpenaren garrantzia ulertzeko.
6.3. Dokumentu fidagarri eta erreferentziatuen azterketa kritiko baten ondoren, XIX. eta XX. mendeetako gizartearen bilakaera argudiatzea, prozesu historikoetan izandako lorpenak eta atzerapenak, Estatuek eta nazioarteko erakundeek unean-unean hartutako neurriak, eta etorkizuneko mugak eta erronkak identifikatuz, kolektibo zaurgarrienen aldeko elkartasun-ikuspegitik.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Historia Garaikideko gatazka nagusiak ezagutzea, hizkuntza tekniko egokiaren bidez arrazoiak, prozesuak, protagonistak eta ondorioak azalduz, iturri historiografiko fidagarriak erabiliz eta memoria historikoaren garrantzia, biktimen aintzatespena eta Justizia Unibertsalaren printzipioaren aplikazioa ulertuz.
7.2. Aro Garaikideko gatazketan izandako indarkeria- eta suntsitze-mailaz jabetzea, iturri historiografiko fidagarriak, testu historikoak eta datu egiaztatuak erabiliz, eta indarkeriaren erabilerak izan duen inpaktu soziala eta emozionala baloratuz, baita bakearen eta bitartekotzaren alde egiten duten erakundeen eta nazioarteko komunitatearen zereginak eta mugak baloratuz ere.
8. konpetentzia espezifikoa
8.1. Globalizazioaren fenomenoa azaltzea eta globalizazioak oinarri dituen faktore historikoak eta toki-mailan eta mundu-mailan dituen eraginak modu kritikoan azaltzea, zenbait informazio-iturri erabiliz, iturri horiek zuzen hautatu, balidatu, kontrastatu eta tratatuz, desinformazioa detektatuz eta etengabe aldatzen ari den ingurune ekonomiko, sozial eta kulturalaren erronkei aurre egiteko alternatibak kontuan hartuz.
8.2. XXI. mendeko erronka nagusiak eta haien jatorri historikoa ezagutzea eta identifikatzea, egungo testuinguru globaleko askotariko prozesu politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalekin erlazionatuz, eta planetaren iraunkortasunera, ongizate kolektiboaren hobekuntzara eta egungo eta etorkizuneko belaunaldien arteko elkartasunera bideratutako portaera ekosozial arduratsuak hartzeko beharra argudiatuz.
9. konpetentzia espezifikoa
9.1. Genero-ikuspegia txertatzea Historia Garaikide unibertsalaren analisian eta egungo panoramaren behaketan, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna sortu eta mantendu duten mekanismo kultural eta soziopolitikoak identifikatuz, baita esleitutako rolak eta gizonek eta emakumeek tradizioz bete izan dituzten jarduera-eremuak identifikatuz ere.
9.2. Historia Garaikidean emakumearen bazterkeriaren errealitatea egiaztatzea, iturri historikoak aztertuz, gizartean eta politikan emakumea onartzeko dauden oztopoak, aurrerapenak eta atzerapenak identifikatuz, mugimendu feministak emakumearen emantzipazioaren alde egindako ekintzak baloratuz, eta figura indibidualak eta kolektiboak berreskuratuz, protagonista isildu eta baztertu gisa.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Mundu Garaikidearen Historia
A. Gizarteak denboran zehar
1. Historialariaren lana: historiografia eta iturri historikoen tipologia eta horien azterketarako metodologia. Historiaren ikerketa.*
2. Aro Garaikideko aldaketak eta iraultzak: Antzinako Erregimeneko krisia eta liberalismoaren garaipena. XIX. mendeko iraultza burgesak: lorpenak, oposizioak eta erreakzioak. Sistema parlamentarioen funtzionamendua eta bilakaera.*
3. Nazionalismoen jatorria, nazionalismoen esanahi historikoa eta politikoa eta mundu garaikidean duten eragina. Estatu nazional berriak eraikitzeko prozesuak eta inperio plurinazionalen krisia XIX. mendean. Kontratu soziala: eskubide zibilak eta eskubide sozialak Aro Garaikidean, eta mugimendu demokratiko, errepublikar eta sozialisten sorrera eta garapena. Erbestearen eginkizuna.*
4. Hazkunde ekonomikoaren erritmoak eta ereduak munduan, Aro Garaikidean zehar: industria-iraultzak eta kapitalismoaren ezarpena. Sistema ekonomiko garaikideen zikloak eta krisiak. Garapen ekonomikoaren faktoreak eta inplikazio sozialak, politikoak eta ingurumenekoak.*
5. Gizarteak Aro Garaikidean: taldeak; klase eta rol sozialak; bizi-mailen, bizi-baldintzen eta bizimoduen eraldaketak. Gizarte-desberdintasuna. Biztanleriaren bilakaera eta ziklo demografikoak.*
6. Langile-mugimenduak eta langile-klasearen bilakaera historikoa: lehen langile-erakundeak, ideologia iraultzaileak —komunismoa eta anarkismoa— eta gizartea eraldatzeko proiektuak. Lan-eskubideen eta bizi-baldintzen hobekuntzaren aldeko gatazkak eta esperientziak.*
7. Industria-potentzien munduko hegemonia: inperialismoaren aroa. Nagusitasuna eta baliabide ekonomikoen eta ustiapena. Nazio kolonizatuetan izandako ondorioak. Biltzarren Europatik Bake Armatura: industria-potentzien arteko gatazkak, akordioak eta itunak.*
8. Mundua gerran: mundu-gerrak eta horien ondorioak. Errusiako Iraultza. Gerra arteko mundua: demokraziaren krisia eta totalitarismoen gorakada. Depresio Handia eta horren ondorio soziopolitikoak. Faxismoa, nazismoa eta XX. eta XXI. mendeetako beste mugimendu autoritarioak. Holokaustoaren eta Historia Garaikideko beste genozidio batzuen kausak eta ondorioak.*
9. Nazioarteko harremanak XX. mendeko bigarren erditik aurrera. Gerra Hotza eta bloke-politika. XX. eta XXI. mendeetako liberalizazio- eta deskolonizazio-mugimenduak, trantsizio politikoak eta demokratizazio-prozesuak.*
10. Bakerako erakundeak eta instituzioak: Nazioen Elkartetik Nazio Batuen Erakundera. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Esku-hartze edo injerentzia humanitarioa eta Justizia Unibertsala: Nazioarteko Zigor Auzitegia eta haren mugak.*
11. Historia Garaikidean nazioen eta estatuen arteko gatazken faktoreak: gertaera historikoak, osagai emozionalak eta memoria kolektiboa. Indarkeriaren biktimen aitortza, erreparazioa eta dignifikazioa.*
12. Ekintza kolektiboa, masa-alderdiak eta lidergo politikoa XX. mendean: ordezkaritzako demokraziaren funtzionamendua eta zailtasunak.
13. Munduko biztanleria hazkundearen egungo erronka.* Bizi-ziklo eta gizarte-antolaketan izandako aldaketak eta iraunkortasunak, mundu garaikidean. Talde zaurgarriak eta baztertuak. Subjektu kolektiboaren eginkizuna historia garaikidean.
14. Emakumeen egoeraren bilakaera gizarte garaikidean*: menderatze- eta sumisio-mekanismoak eta aldaketa soziokulturalak. Emakumeen emantzipazioaren aldeko mugimendua eta berdintasunaren aldeko borroka: mugimendu feministen sorrera eta garapena.*
15. Eskubide-berdintasunaren eta gutxiengoen aitorpenaren aldeko eta diskriminazioaren kontrako gizarte-mugimenduak.
B. Egungo munduaren erronkak
1. Globalizazio-prozesua mundu garaikidean, eta haren ondorioak gaur egungo gizartean.*
2. Garapen zientifikoa, teknologikoa eta digitala eta etorkizun ekonomikoaren, sozialaren eta laboralaren erronka berriak.*
3. Ameriketako Estatu Batuen hegemoniaren amaiera eta munduko ordena multipolar berria: bloke komunistaren desagerpena eta potentzia berrien sorrera. Eskualde eta mundu mailako mehatxuak.*
4. Garapen ekonomikoa eta iraunkortasuna*: liberalismo klasikoaren mugagabeko garapen ideiatik Garapen Iraunkorreko Helburuetara. Tesi neoliberalak eta gizarte aurreratuetako ongizate-estatuaren krisia. Neokolonialismoa eta mendekotasuna hegoalde globalean.*

Mundu Garaikidearen Historia
5. Munduko eskualde-integrazio prozesuak. Europar Batasunaren eraikuntza; egungo egoera eta etorkizuneko erronkak.* Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko nazioarteko itunak.
6. Biztanleriaren exodo masiboak: migrazio ekonomikoak, klimatikoak eta politikoak. Errefuxiatu kontzeptu berria.*
7. Klima-larrialdia eta haren egungo eta etorkizuneko erronkak.
8. Ideologien krisia eta *Historiaren Amaieraren* berrinterpretazioak: eszeptizismoaren eta populismo berrien aroa. Sistema autoritarioen berragerpena.
9. Gaur egungo demokrazien erronkak: ustelkeria, erakundeen eta alderdi-sistemaren krisia, sistemaren gaineko sinesgarritasunaren galera, joera autoritarioak, sistemaren aurkako mugimenduak…*
C. Konpromiso zibikoa
1. Kontzientzia demokratikoa: konstituzioaren printzipioen eta arauen ezagutza, balio zibikoen erabilera eta herritarren parte-hartzea.*
2. Identitatea eta pertenentzia-sentimenduak: identitate-aniztasunaren onarpena, adierazpen ideologiko eta kulturalekiko tolerantzia eta errespetua, eta ondare-aberastasunaren aitorpena eta defentsa.*
3. Genero-berdintasuna: emakumeen egoera munduan, eta diskriminazioaren aurkako eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren aldeko jarrerak.*
4. Portaera ekosoziala: ingurumenaren aldeko eta klima-larrialdiaren aurkako mugimenduak. Garapen Iraunkorrerako Helburuekiko konpromisoa.*
5. Aniztasun sozial, etniko eta kulturalarekiko errespetua eta balorazioa: tolerantzia eta intolerantzia Mundu Garaikidearen historian. Gutxiengoen eskubideen defentsa.*
6. Herritartasun etiko digitala: jabetza intelektualarekiko errespetua. Herritartasun globalaren parte-hartzea eta erabilera, teknologia digitalen bidez. Desinformazioa eta manipulazioaren aurreko prebentzio eta defentsa.*
7. Elkartasuna eta kooperazioa: munduko erronka handiak, eta konpromiso soziala, asoziazionismoa eta boluntariotza lortzeko jokabideak.*
8. Ondare historikoa kontserbatzea eta hedatzea: ondare-legeak, memoria kolektiboaren ondare-, gizarte- eta kultura-balioa. Artxibategiak, museoak eta historiaren dibulgazio eta interpretaziorako zentroak.*

ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA OINARRIAK

Euskal Herrian, enpresaburuaren irudiak tradizio handia du, gure kulturaren eta idiosinkrasiaren parte da; horregatik, garrantzizkoa da espiritu horri eustea belaunaldi berrietan, betiere gizabanakoarentzat berarentzat eta gizartearentzat ondorio positiboak dakartzan ekintzailetza bultza dadin eta, hartara, bizi-kalitatea, aurrerapena eta gizarteongizatea hobetu dadin. Egungo testuinguruan, beraz, garrantzizkoa da ideiak proiektu bihurtzeko beharrezkoak diren konpetentziak eta gaitasunak sustatzea ikasleengan; jakintzagaiak sormena eta berrikuntza-espiritua bultzatu behar du, ikasleak maila profesionalean prestatzeaz gain, eta akatsa modu positiboan baloratu eta hautematearen garrantzia sustatu behar du.

Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak 2. mailako jakintzagaiaren ikaskuntza eta prestakuntza beharbeharrezkoa da gure hezkuntza-sistemaren etapa honetan, espiritu ekintzailea sendotzen baitu, enpresa-proiektu baten bidez eta sormen, malgutasun, ekimen, talde-lan, norberarenganako konfiantza eta zentzu kritikoko jarreren bidez. Era berean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeari bultzada erabakigarria ematen dio, informazioa bilatzeko ez ezik, informazioa prozesatzeko eta emaitza aurkezteko ere bai. Arloak ahozko eta idatzizko adierazpidea menderatzen laguntzen du, eta, horri esker, komunikazio eraginkorra lortzen da eta, hartara, bere proiektua behar bezala aurkezten da. Era berean, sortzen diren gatazkak modu egokian konpondu ahal izatea ahalbidetuko dion heldutasun pertsonala eta soziala finkatzen laguntzen du.

Azkenik, jakintzagaiak erraztuko du ikasleek gizarte-erantzukizun korporatiboaren zereginari buruz eta negozioen balorazio etikoari buruz gogoeta egin dezaten. Horri esker, ikasleek erantzukidetasuna sus-tatuko duen kontzientzia zibiko arduratsua eskura dezakete —gizarte zuzen, bidezko eta inklusiboaren eraikuntzan parte har dezaten bultzatuko duena—.

Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak jakintzagaiaren hezkuntza-helburua bat dator etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruzko Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioarekin. Gomendio horrek adierazten duenez, ikasitakoa denbora errealean aplikatu ahal izatea eta ideia, teoria, produktu eta ezagutza berriak sortzea ahalbidetuko duten tresnak txertatu beharko dira hezkuntzan.

Irakasgai honen curriculuma diseinatzean, espero den konpetentzia-garapena zehazten duten deskriptore operatiboak hartu dira erreferentetzat, betiere Batxilergoa amaitzean ikasleek izango duten irteera-profilaren arabera.

Ikasleentzat interesgarriak diren ikaskuntza adierazgarri eta funtzionaletatik abiatuta garatzen da, eta konpetentzia espezifiko batzuk eskuratzearen inguruan antolatuta dago. Konpetentzia horiek helburu hauek dituzte:

– Lehenik eta behin, espiritu proaktiboa sustatuko da. Espiritu hori ekintzailetza pertsonal, sozial eta enpresarialaren kultura arinagoan eta berritzaileagoan islatu behar da. Horretarako, ikasleek ulertu behar dute ekintzaileak testuinguru global batean egin behar duela bere bidea —testuinguru horren elementuak elkarrekin erlazionatuta daude—, eta jakin behar dute zer estrategiari jarraitu behar zaion erronkei aurre egiteko, ziurgabetasuna kudeatzeko eta proiektua gauzatzera eramango duten erabaki egokiak hartzeko. Horrek eskatzen du ingurunea arakatzea eta, horretarako, zenbait esparru analizatzea —besteak beste, esparru soziala, ingurumenekoa, kulturala eta enpresariala— eta arreta berezia eskaintzea arlo teknologikoari eta digitalari. Horrela, ikuspegi ekonomiko batetik, sor daitezkeen beharrak eta aukerak identifikatuko dira, beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide materialak, immaterialak eta digitalak aurkituko dira, eta ikuspegi ekintzailea izango duen proiektu pertsonal edo profesional batean aplikatuko dira.

– Bigarrenik, konpetentzia espezifikoek laguntzen dute ikasleek ikaskuntzak plano praktiko batera transferi ditzaten eta honako alderdi hauek barne hartuko dituen enpresa-proiektu bat gara dezaten: ideiagintza, kudeaketa eta garapenprozesua; jendaurrean aurkezteko beharrezkoak diren komunikaziotrebetasunak erabiltzea; sortutako dokumentazioa tramitatzea (betekizun juridikoak, salerosketa-fakturak, kontabilitatea...); proiektu horren bideragarritasunerako behar den finantzaketa bilatzea; eta, azkenik, enpresako sail horien (hornikuntza, merkataritza eta abar) kudeaketa koordinatua.

Irakasgai honen abiapuntua da ikasleek Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan dituzten funtsezko konpetentzia guztiak lortzea, baina, zehazki, ekintzailetza-konpetentzia, herritartasunerako konpetentzia eta konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Konpetentzia horiek osatzeko, batetik, enpresen funtzionamendua eta pertsona ekintzaileen profila ulertzeko elementuak ematen dira, eta, bestetik, enpresako sail guztien kudeaketa osagarria erraztuko duten tresnak ematen dira —horietan sortutako dokumentazioa bereziki nabarmentzen da—.

Ezarritako ebaluazio-irizpideen helburua da konpetentzia espezifikoen eskuratze-maila egiaztatzea, hau da, etorkizunean lanbide-proiekzioa izango duten esparru pertsonal, sozial eta akademikoko egoeretan edo jardueretan aplika daitekeen jarduera kognitibo, instrumental eta jarrerazkoaren maila egiaztatzea.

Konpetentzia espezifikoak eskuratzen laguntzen duten oinarrizko jakintzak lau multzotan antolatzen dira.

– *Negozio-ideia: enpresa-proiektua.* Irakasgai honetan jorratzen diren gainerako ikaskuntzetarako abiapuntua da, multzo honetan aukeratzen den negozioideiarekin lanean jarraituko baita ikasturte osoan. Horretarako, garrantzi handikoa da ingurunea eta ekintzailearen profila aztertzea —Euskadiko enpresaburuaren irudiak duen tradizioari jarraikiz—, berrikuntza, digitalizazioa eta sormena aintzat hartzea, eta hori guztia Agenda 2030eko Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzearekin lotzea.

– *Enpresa abian jartzea: forma juridikoa, administrazio- eta kontabilitate-tramiteak.* Multzo honetan aztertzen dira enpresek har ditzaketen forma juridikoak, enpresak abian jartzeko beharrezkoak diren tramiteak (fiskalak, lanekoak, Gizarte Segurantzakoak eta bestelakoak) eta horretarako behar den dokumentazioa. Bestalde, garrantzi handikoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoaren berariazko fiskalitatearen berezitasunak ezagutzea, zehazki Euskal Ekonomia Itunari dagozkionak. Era berean, kontabilitate-ziklo bat ulertzeko eta garatzeko ikaskuntzak jorratuko dira, kontabilitate-aplikazio informatiko baten bidez.

– *Enpresen barne-antolaketa: sailak eta beren funtzioak.* Ikasleak erosketa, salmenta, giza baliabide eta inbertsio eta finantzako sailekin lotzen diren eragiketak ezagutu beharko ditu, modu osagarrian. Batetik, hornikuntza-sailak sortutako dokumentazioa eta ordaintzeko moduak ezagutu eta erabiliko ditu. Halaber, merkatuaren ezaugarriak aztertuko dituen marketin-plan sinplea prestatu, eta prozesu horri dagokion dokumentazioa kudeatuko du. Bestalde, langileen beharrak aztertuko ditu eta langileak hautatzeko eta prestatzeko prozesuetatik pasako da; azkenik, enpresarentzako bideragarritasun-plana prestatu, eta beharrezkoak diren inbertsioak eta finantza-baliabideak zehaztuko ditu.

– *Negozio-ideiaren garapenaren jendaurreko erakusketa.* Saiatuko da proiektu ekintzailea jendaurrean ezagutarazten, jendaurreko komunikazio- eta aurkezpen-tekniken bidez eta tresna informatikoetan eta ikus-entzunezkoetan oinarrituta.

Irakasgai honen programazioari dagokionez, curriculuma ikuspegi teoriko-praktikotik zehaztea proposatzen da, eta, horretarako, proiektu ekintzaile baten garapenean aplikatuko dira jakintzak, proiektuaren fase bakoitzean. Horrela, ikaskuntzak ekintzan eta ekintzatik eraikiko dira. Ikasleek enpresa-proiektu bat prestatuko dute, eta ahaleginak bideratuko dituzte enpresako sail bakoitzaren antolaketa, informazioa eta administrazioa behar bezala tratatzera eta kudeaketako barne-prozesuak ikasi eta aztertzera.

Enpresetan dokumentu askorekin lan egin behar denez gero, dokumentuadministrazioa bihurtzen da enpresa-erakundeen kezka nagusietako bat. Hori dela eta, dokumentuak erraz biltegiratzea ahalbidetuko duen sistema eraginkorra behar da. Sistema hori edukiz gero, ikasleek modu efizientean eta sistematikoan kontrolatu ahal izango dituzte dokumentuen sorrera, harrera, mantentzea, erabilera eta antolaketa.

Era berean, taldean lan egin, eta erabakiak giro malgu eta irekian hartuko ditu, bere gaitasunak zabaltzeko eta bere trebetasunak eta jarrera ekintzaileak indartzeko moduan. Lan-dinamika horrek pertsona guztientzat balioa sortzera bideratuko den sormen, kolaborazio eta partaidetzako kultura sorrarazten du. Proiektu hori gauzatuko bada, beharrezkoa da, batetik, ezagutzak eskuratzea eta garatzea hainbat arlo aztertuz, hala nola gizarte-zientzietarako aplikatutako matematika (prezioak finkatzea, kostuak kalkulatzea…), ingelesa, filosofia (enpresa-etika eta -erantzukizuna) eta informatika (kalkulu-orriak, Interneteko aplikazioak, gailu mugikorrak, eta abar); eta, bestetik, ezinbestekoa da irakasgai horietako irakasleekin eraginkortasunez koordinatzea, horrela proiektu berritzailea efizientziaz egin ahal izan dadin.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Inguruneko informazio ekonomikoa aztertzea, berrikuntza- eta digitalizazio faktoreak baloratuz, negozio-ideia bideragarria hautatzeko zenbait dinamikaren bidez.

Bilatzen da, analisi ekonomiko, sozial, kultural eta abarretik, ikasleek hobeto ulertzea beren ingurunea. Era berean, bilatzen da ikasleek teknologiak eta teknologien askotariko aplikazioek ekoizpen-egitura globalean duten inpaktua ulertzea.

Era berean, garrantzitsua da enpresaburuek gizartearen elementu eraldatzaile gisa betetzen duten zeregina ezagutzea, haien irudia gure euskal kultura ekintzailearen berezko ezaugarri gisa identifikatzea eta enpresa-jardueran gero eta beharrezkoagoa den emakumearen presentzia azpimarratzea.

Kontzeptu horiek guztiak ulertzen badira, ikasleak errazago hartu ahal izango ditu erabakiak, XXI. mendeko gizartea aldatzen lagunduko dion bizi-proiektu egokia gara dezan.

Hori dela eta, behar-beharrezkoa da ikasleek taldean arintasunez lan egitea, beren ikuspuntuak jarrera proaktiboz azaltzea eta komunikazio arina eta errespetuzkoa izatea. Soilik horrela gai izango dira zenbait aukeraren artean negozio-ideia bideragarria eta jasangarria hautatzeko, negozio-ideia sortzailea eta berritzailea edukitzeko eta negozio-ideia horrek balio soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa eskaintzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, KD1, KPSII3.1, HK1, EK1, EK3

2. Forma juridikoak eta legezko tramiteak identifikatzea, horiek zer erakundetan aurkeztu behar diren ezagutuz, enpresa abian jartzeko beharrezkoa den dokumentazioa behar bezala kudeatzeko.

Batetik, ikasleek legezko tramiteak (lanekoak, fiskalak, Gizarte Segurantzakoak) ezagut ditzaten eta horiek kudeatzen dituzten erakundeak identifika ditzaten lortu nahi da, betiere guztia negozio bat abian jartzeko beharrezkoa den prozeduraren barruan. Horretarako, erakundeen web-orriak erabili behar dira (Gizarte Segurantza, Foru Aldundia, Merkataritza Erregistroa, Udalak, eta abar) eta tramiteak egiteko eta negozioa sortzeko legezko epeak betetzearen garrantzia onartu behar da. Era berean, proposatzen da ikasleek forma juridikoaren hautaketari buruzko erabaki arrazoituak hartzea, betiere bazkide kopurua, ondare-erantzukizuna, kapital-baldintzak, fiskalitatea eta negozio-planean jasotako gainerako baldintzak kontuan hartuz.

Bestalde, enpresa-jarduerak sortzen dituen dokumentuak erabili eta artxibatzearen bidez, zenbait komunikazio-zirkuitu ezartzen dira, bai enpresaren barruan bai kanpoan. Hori dela eta, ikasleak beharrezko komunikazio-teknikak bereizi eta aplikatuko ditu. Era berean, garrantzi berezia dute enpresak sortzen duen dokumentazioa ezagutzeak eta sailkapen-arau ofizialak gordetzeko betebeharrari buruzko ezagutzak.

Azken finean, argi dago garrantzitsua dela enpresa-jarduketetan indarrean dagoen legedia betetzea, eta, hala, enpresa-etikarekin, gizarte-ongizatearekin, ingurumen-jasangarritasunarekin eta jardunbide egokiekin lotutako jarduerak garatzen laguntzea.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, HKK5, KE1, STEM1, KD1, KD2, KD4, KPSII3.1, HK1, EK2, EK3.

3. Kontabilitate-zikloaren garapena ulertzea, Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako irizpideak betez, enpresaren irudi fidela islatzeko.

Ikasleek, Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako printzipioen araberako oinarrizko kontabilitate-kontzeptuak eskura ditzaten lortu nahi da, baita, metodologia egokiaren bidez, kontabilitate-zikloaren garapena uler dezaten ere. Era berean, ikasleek ulertu beharko dute zer garrantzia duen kontabilitate-betebeharrak betetzeak eta liburuek prozesu horretan duten zeregina onartzeak. Horri esker, ikasleek errazago ondorioztatuko dute kontabilitate-eragiketek zer eragin duten enpresa-ondarean.

Kontabilitate-aplikazio informatiko baten oinarrizko erabileraren bidez, ikasleek enpresa-jarduerak sortzen dituen kontabilitate-egitate nagusiak islatuko dituzte eta dagozkion idazpenak (kontabilitatekoak) egingo dituzte, euskarri diren dokumentuetatik abiatuta (salerosketakoak, ordainketakoak, nominak, gizarte-aseguruak, askotariko gastuen fakturak); hori guztia, Kontabilitate Plan Orokorraren printzipio eta arauen arabera egingo da.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KPSII3.1, EK2

4. Modu kritikoan eta gogoetatsuan analizatzea sailen funtzionamendu koordinatua, horietako bakoitzarentzat plan osagarriak prestatuz, enpresak hasiera batean planteatutako helburuak eta xedeak lortzeko.

Ikasleek beren enpresaren funtzionamenduaren ikuspegi praktikoa eta orokorra izan dezaten lortu nahi da, hura osatzen duten arloak ikasi eta aztertzearen bidez, sail bakoitzerako plana diseinatzearen bidez eta, era berean, planteatutako helburuak lortzeko sailen artean eskatzen den koherentziaren bidez.

Batetik, honako alderdi hauek barne hartuko dituen hornikuntza-plan bat diseinatuko du: hornitzaileen bilaketa (on line eta off line), hornitzaileak aukeratzeko irizpideak (prezioak, entrega-epeak, horniduren kalitatea, ordaintzeko modua…) eta eskaintzak alderatzeko zenbait tresna erabiltzea. Horrez gain, hornitzaileekin informazioa trukatzeko erabiltzen diren dokumentu-motak identifikatuko ditu (aurrekontuak,

eskaerak, albaranak eta fakturak). Era berean, prozesuaren etapetan aplika daitezkeen negoziazio- eta komunikazio-teknikak ezagutuko ditu.

Bestalde, bere produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko prozesua aztertuko du eta marketin-plan sinplea landuko du. Horretarako, ikasleak gai izango dira bezeroari arreta ematera bideratutako gizarte-trebetasunak aplikatzeko, merkatu-ikerketa sinplea egiteko —kalkulu-orriak erabiliz, adibidez— banaketa-kanal egokiak hautatzeko, zenbait publizitate- eta sustapen-ekintza garatzeko —batez ere gizarte-maila ertainean arreta berezia jarriz— eta, azkenik, ordainketa-bitartekoak ezagutu eta erabiltzeko, hala nola txekeak, ordainagiriak, kanbio-letrak edo zor-agiriak. Azkenik, giza baliabideen kudeaketa planifikatuko du eta, horretarako, langileen beharrak ebaluatuko ditu, lanpostuak eta horien profilak aztertuko ditu, lanpostuak hautatzeko prozesua deskribatuko du, prestakuntza-planak egingo ditu, Gizarte Segurantzarekiko administrazio-betebeharrak onartuko ditu (altak, bajak, filiazioak…) eta langileak kontratatzeko eta ordaintzeko prozesuaren ondoriozko dokumentuak kudeatuko ditu (kontratuak, nominak eta kotizazio-dokumentuak).

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, STEM1, STEM4, KD1 KD2, KPSII3.2, HK2, EK2.

5. Beharrezkoa den inbertsioa eta enpresaren finantza-beharrak zehaztea, enpresak finantzaketa-iturriak baliatu ahal izatea baloratuz, enpresaren bideragarritasuna ziurtatzeko.

Ikasleak inbertsio-plan bat egiteko gai diren egiaztatu nahi da. Horretarako, hasierako egoera-balantze erraza egin beharko dute, aktiboaren partida nagusiak inbertsio horiekin lotzeko. Halaber, beren proiekturako beharrak eta finantzaketa-iturriak aztertu beharko dituzte, norberarenak zein kanpokoak, eta egokienak hautatu eta egoera-balantzearen pasiboan jasoko dituzte.

Era berean, ikasleak proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa zehaztuko du; hartara, diruzaintzako aurreikuspeneko egoera-orriak prestatuko ditu kalkulu-orriak gisako aplikazio informatikoen bidez. Beharrezkoak diren inbertsioak ere aztertuko ditu, eta zenbait metodoren bidez hautatuko ditu, hala nola VAN eta “pay-back” bidez.

Gainera, merkataritza-bideragarritasuna egiaztatuko du, aurrez egindako merkatu-ikerketan lortutako informazioa abiapuntu izanik. Era berean, eta enpresak Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzera bideratutako konpromiso etiko, ekologiko eta sozial arduratsua hartze aldera, ingurumen-bideragarritasuna aztertuko du eta haren gaineko inpaktua baloratuko du auditoretza baten bidez edo aplikatzekoa den ingurumen-araudia betetzen dela egiaztatzearen bidez.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, STEM1, STEM4, KD1 KD2, KPSII3.2, HK4, EK1, EK2, EK3.

6. Komunikazio-trebetasunak garatzea, tresna informatikoak eta ikus-entzunezkoak erabiliz, enpresa proiektua jendaurrean azaltzeko eta komunikatzeko.

Proiektuaren jendaurreko erakusketan, ikasleak jendearen arreta erakartzeko komunikazio-trebetasunak eta trebetasun teknikoak erabiltzen dituen egiaztatu nahi da. Erakusketaren prestakuntzaren, garapenaren eta defentsaren arloko alderdiei erreparatuko zaie.

Prestakuntzari dagokionez, gai izan beharko du proiektuaren alderdi nagusiak laburtzeko, aurkezpenean erabili beharreko materiala prestatzeko eta erakusketa entseatzeko, kontuan hartuz, besteak beste, denboraren kontrola eta erabili beharreko baliabide teknikoak.

Garapenari dagokionez, ikasleek hitzezko eta hitzik gabeko adierazpidea zainduko dute eta ideiak modu zehatz, atsegin eta antolatuan azalduko dituzte, aurkezpen-tresna eraginkorrenak erabiliz, hala nola istorioen kontaketa (*storytelling*) edo igogailuko diskurtsoa (*elevator pitch*). Azkenik, ikasleak gai izango dira batzorde ebaluatzaileak egin diezazkiokeen galderei argudioz erantzuteko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2 KD2, KD3, KPSII1.2, HK1, EK1, EK2, KAKK3.1, KAKK4.2

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Inguruneko informazio ekonomikoa, soziala, kulturala eta abar aztertzea, berrikuntzak eta teknologiak enpresa-jardueran betetzen duten funtsezko zeregina baloratuz.
1.2 Negozio-ideia hautatzea, aukeraketa hori modu teknikoan arrazoituz, behin abantailak eta eragozpenak aztertu ondoren.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1 Behar den dokumentazioa indarreko legediaren arabera betetzea, dokumentazioa aurkeztu behar den erakunde egokiak ezagutuz eta hori betetzea Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren printzipiotzat hartuz.
2.2 Enpresaren forma juridikoa hautatzea, aukeraketa horren egokitasuna argudio bidez justifikatuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1 Enpresaren eragiketen ondoriozko kontabilitate-egitateak Kontabilitate Plan Orokorraren printzipioen arabera kontabilizatzea, kontabilitate-aplikazio informatikoa oinarrizko mailan erabiliz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1 Enpresaren azken helburuekin koherentea izango den eta koordinatuko den hornikuntzaplana diseinatzea, enpresarentzako hornitzailerik egokienak aukeratuz eta haiekin komunikatzeko prozesuan sortutako dokumentazioa behar bezala administratuz.
4.2 Produktuen merkaturatzea garatuko duen marketin-plana egitea, produktu horiek saltzeko merkataritza-prozesuan sortutako dokumentazioa eraginkortasunez erabiliz.
4.3 Enpresako langile-beharrak ebaluatzea eta lanpostu horien eginkizunak deskribatzea, hautespen-, prestakuntza- eta ordainketa-prozesuan sortutako dokumentuak aztertuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1 Inbertsio-plana prestatzea, beharrezkoak diren finantzaketa-iturriak baloratuz eta hautatuz.
5.2 Enpresaren bideragarritasuna zehaztea, zenbait metodo aplikatuz, analisi-ikuspegien arabera.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1 Komunikazio-trebetasunak erabiltzea negozio-plana aurkezteko, proiektua eraginkortasunez hedatzen lagunduko duten tresna informatiko eta ikus-entzunezko erakargarriak erabiliz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak
A. Negozio-ideia: enpresa-proiektua
1. Enpresaburuaren eta ekintzailearen irudiaren aitorpena. Enpresa-arriskua. Euskal enpresa-kultura*.
2. Genero-rolen haustura enpresa-jardueran.
3. Berrikuntza eta digitalizazioa.
4. Lokalizazioa eta enpresaren ingurunearen analisia*.
5. Sormena, ideiak eta soluzioak; negozio-ideiak hautatzeko dinamikak.
6. Egungo enpresa-erronkak: etika, Gizarte Erantzukizun Korporatiboa eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak. *Euskal gizartearen konpromisoa 2030 Agendarekin, Garapen Iraunkorrerako Helburuak betetzeko*.
B. Enpresa abian jartzea: forma juridikoa, administrazio- eta kontabilitatetramiteak
1. Enpresen forma juridikoak*.
2. Enpresa-esparru juridikoa. Enpresaren zerga- eta lan-arloko betebeharrak halabeharrez bete izanaren balorazioa; *euskal zerga-sistema*. Gizarte Segurantza.

Administrazio eta Kudeaketa Oinarriak
3. Kontabilitate Plan Orokorra. Enpresaren informazioa: *kontabilitate-betebeharrak*. Ondarearen osaera eta balorazioa. Urteko kontuak eta irudi fidela. Balantzearen elaborazioa eta galdu-irabazien kontua. Kontabilitate-liburuak. Kontabilitate--tresna informatikoak.
C. Enpresen barne-antolaketa: sailak eta beren funtzioak
1. Merkataritza-saila*. Marketin Mixeko politikak (produktua, prezioa, sustapena eta banaketa). Fakturazioa (deskontuak, garraioak, ontziak).
2. Hornikuntza-saila*. Plangintza, negoziazioa eta hornitzaileen aukeraketa. Salerosketaeragiketen dokumentazioaren formalizazioa (eskaerak, albaranak eta fakturak), baita ordainketa-bitartekoena ere (ordainagiriak, kanbio-letrak eta txekeak).
3. Giza baliabideen saila*. Plangintza, aukeraketa eta langileen kontratazioa. Talde arinen osaera eta funtzionamendua. Ordainketa- eta kontratazio-prozesuaren dokumentuak. Enpresetan berdintasun- eta inklusio-plan bat lantzearen beharraren onarpena.
4. Inbertsio- eta finantza-saila*. Inbertsio-plana eta diruzaintzako aurrekontua egiteko prozedura. Finantzaketa-iturrien aukeraketa. Finantza-bitartekarien zeregina.
Merkataritza- eta ingurumen-bideragarritasuna uztartzeko konpromisoa.
D. Negozio-ideiaren garapenaren jendaurreko erakusketa
1. Negoziazio- eta komunikazio-teknikak*.
2. Proiektu edo ideia baten aurkezpen eraginkor eta laburraren garrantziaren balorazioa*. Metodologia: istorioen kontaketa (*storytelling*) eta igogailuko diskurtsoa (*elevator pitch*).

AHOZKO KOMUNIKAZIOA ATZERRIKO HIZKUNTZAN

Ahozko komunikazioak berebiziko garrantzia du, bai nortasuna eratzeko, bai besteekiko harremanetarako. Gaur egungo munduan, jendaurrean hitz egiteko eta eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna funtsezkoa da, ingurune pertsonalean ez ezik, esparru profesional eta akademikoan ere. Egoera formal batean hitz egiten irakasteak esan nahi du ikasleak alderdi linguistiko diskurtsiboak, erretorikoak, testuinguruarekin zerikusia dutenak eta hitzik gabeko alderdiak kontrolatzen ikasi behar duela. Beraz, ahozko komunikazio-konpetentziak harreman pertsonal, profesional eta sozialak errazten dituenez, haren irakaskuntza/ikaskuntzak lehentasunezkoa izan behar du hezkuntza-esparruan; eta hala jasotzen du Europako Kontseiluak proposatutako Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak (HEEEB), non zeregin garrantzitsua ematen baitzaio ahozko komunikaziorako konpetentziari.

Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan 1. mailako jakintzagaiaren helburua ahozko komunikazio-konpetentzia eskuratzen sakontzea da, ahozko komunikazioa ahaleginik egin gabe egin dadin, eguneroko egoeretan zein egoera espezifikoagoetan eta konplexuagoetan, gizartean elkarreragiteko, eta ahozko testuak ulertzeko eta sortzeko. Baina hautazko jakintzagai honen zentzua ez da soilik Atzerriko Lehen Hizkuntza, eta Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura jakintzagaiek markatutako ibilbidea osatzea; aitzitik, gero eta globalizatuagoa eta digitalagoa den gizarte batek markatutako oratoria modu berrietara hurbildu nahi ditu ikasleak, eta atzerriko hizkuntzako esparru publikoko ahozko komunikazioan zentratuko da. Era berean, eta hizkuntzen tratamendu integratua kontuan hartuta, jakintzagaiaren helburua ere izango da atzerriko hizkuntzan eskuratutako trebetasunak ikasleen hizkuntza-errepertorioko gainerako hizkuntzetara transferitzea, eta alderantziz.

Beraz, jakintzagai batez ere praktikoa da, eta helburua da ikasleak konpetente eta eraginkor izatea jendaurrean komunikatzeko. Horretarako, paper aktiboa eman beharko zaie ikasleei, eta, horretarako, eztabaidetan, mahai-inguruetan, solasaldietan, aurkezpenetan, diskurtsoetan eta abar parte hartuko dute. Ikasleek erraztasunez eta erregistro egokiz jardun beharko dute beren etorkizun akademiko eta profesionalera bideratutako hainbat egoeratan, hala nola gradu-amaierako edo master-amaierako proiektuen edo lanen defentsan, inaugurazio-hitzaldi laburren, txostenen edo komunikazioen aurkezpenean, enpresaren barruan eta kanpoan, besteak beste.

Jakintzagai hau lagungarria da Batxilergoko funtsezko konpetentziak eskuratzeko, eta zuzenean parte hartzen du konpetentzia eleaniztunaren lorpenean. Izan ere, konpetentzia horrek ikaskuntzarako eta komunikaziorako hainbat hizkuntza era egoki eta eraginkorrean erabiltzea dakar. Kasu honetan, gizarte-elkarrekintzan eta planifikatutako ahozko testu espontaneoen ulermenean eta sorkuntzan zentratzen da. Konpetentzia eleaniztunak komunikazio-dimentsioa ez ezik, alderdi historikoak eta kulturartekoak ere barne hartzen ditu, eta atzerriko hizkuntzan ahozko komunikazio egokia izatearen garrantzia aitortzen du, esparru publikoko egoeretan hobeto moldatzeko bitarteko gisa. Halaber, jakintzagaiak pentsamendu kritikoa eta sortzailea garatzen laguntzen du, baita herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetatsua gauzatzen ere. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera segurua, etikoa, irauinkorra eta arduratsua sustatzen duten informazio-alfabetatzea eta alfabetatze mediatikoa dira jakintzagai honetan garrantzitsuak diren beste ikaskuntza-elementu batzuk. Hortaz, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna lortzen ez ezik, Batxilergoa amaitzean funtsezko konpetentziak garatzen eta eskuratzen ere laguntzen du jakintzagai honek.

Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoek atzerriko hizkuntzaren arloan landutako zenbait konpetentziarekiko sakontzea eta zabaltzea dakarte, arreta berezia jarriz ahozko komunikazioan eta elkarrekintzan; halaber, ikasleen errepertorioetan eta esperientzietan oinarrituta garatuko dira. Lehenengo konpetentzia informazioa bilatzean zentratzen da, aurrerago informazio hori ezagutza berri bihurtzeko. Bigarren konpetentziak esparru publiko formalagoko ahozko testuak sortzea lantzen du, hala nola diskurtsoak, aurkezpenak, albisteak, bakarrizketak, podcast-en pasarteak, etab. Hirugarren eta laugarren konpetentziek elkarrekintza informala eta formala dituzte helburu; eta bosgarrenak prosodia du ardatz, ahozko ulermena eta adierazpena hobetzeko bitarteko gisa. Seigarren eta azken konpetentziak ahozko diskurtso-generoen konparazio kritikoa eta haien ezaugarrien transferigarritasuna norberaren hizkuntza errepertorioko hizkuntzen artean lantzen ditu.

Jakintzagaiaren ebaluazio-irizpideek zehazten dute ikasleek erdietsitako konpetentzia espezifikoen lorpen-maila; beraz, horiekin lotuta aurkezten dira. Beren formulazioa konpetentziala den heinean, ikasleek eskuratu beharreko prozesua edo gaitasuna, aplikatzeko testuingurua edo modua eta prozesu edo gaitasun horren erabilera adieraziz planteatzen dira irizpideak. Ebaluazio-irizpideen nibelazioa Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan (HEEEB) oinarrituta dago, irizpideak Batxilergoko etapako ikasleen heldutasunera eta garapen psikoebolutibora egokituta badaude ere.

Oinarrizko jakintzek jakintzagaiko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko beharrezkoak diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea) biltzen dituzte, eta irizpideen bitartez ikaskuntzak ebaluatzeko aukera errazten dute. Lau multzotan egituratzen dira. Ahozkoaren ulermen eta ekoizpenerako eta elkarrekintzarako hizkuntza-jarduerak garatzeko mugitu behar diren jakintzak biltzen ditu *Komunikazioa* multzoak. *Alfabetatze mediatikoa eta informazio-alfabetatzea* multzoak informazio egiazkoa eta egokia bilatzeko, hautatzeko eta kudeatzeko eta sarean presentzia eta ikusgarritasuna izateko beharrezko jakintzak biltzen ditu. Halaber, ulermenerako, produkziorako eta koprodukziorako tresna analogikoak eta digitalak eta horiek etikaz, segurtasunez eta kritikoki erabiltzeko beharrezko estrategiak biltzen ditu. *Eleaniztasuna eta ikaskuntzari buruzko gogoeta* multzoak hizkuntzen funtzionamenduari buruzko gogoeta egiteko gaitasunari lotutako jakintzak biltzen ditu, atzerriko hizkuntza ikasten eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzak hobetzen laguntzeko. Azkenik, *Kulturartekotasuna* multzoak atzerriko hizkuntzaren bidez komunikatutako kulturei buruzko jakintzak biltzen ditu. Halaber, atzerriko hizkuntza herrien artean komunikatu eta ulertzeko baliabidea eta parte-hartze sozialerako eta aberaste pertsonalerako tresna den heinean harekiko interes-jarrerak garatzera bideratutako jakintzak jasotzen ditu.

Ikasleak gai izango dira esparru desberdinen berezko komunikazio-egoeretan oinarrizko jakintza guztiak abian jartzeko gai izatea espero da. Ulertzeko eta sortzeko ahozko testuak ikasleek ezagutzen dituzten eguneroko gaiei buruzkoak izango dira, garrantzi pertsonalekoak edo interes publikokoak, eta Garapen Iraunkorrerako Helburuei (GIH) eta XXI. mendeko erronkei lotutako alderdiak jasoko dituzte.

HEEEB-n planteatzen den ekintzara bideratuta dagoen eta metodologia eklektikoen erabilera sustatzen duen ikuspegiari jarraikiz, curriculum honen konpetentzia-izaerak Ahozko komunikazioa atzerriko hizkuntzan jakintzagaiaren ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa sendotzeko tresna digitalak erabiltzera

eta hizkuntzen tratamendu integratua kontuan hartuko duten eta ikasleen heldutasunera, zirkunstantzietara, beharretara eta interesetara egokituko diren diziplinarteko eta testuinguruan kokatutako zeregin esanguratsuak eta garrantzitsuak sortzera bultzatzen ditu irakasleak. Ikasleak beren ikasteko prozesuaren erantzuleak izango diren gizarte-eragile autonomotzat hartuko dira. Jakintzagai honetan, nazioz haraindiko kolaborazio-proiektuak txertatu beharko lirateke, aurreiritzirik gabeko Europako herritartasun demokratiko baten eraikuntza bultzatuko duten Europako programen esparruan.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Hainbat iturritatik datorren informazioa gero eta modu autonomoagoan aurkitzea, hautatzea eta kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera ebaluatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuz; horretarako, jabetza intelektuala errespetatzen duen ikuspegi sortzaile, kritiko eta pertsonala hartuz, informazio hori integratzeko eta komunikazio berri batean ezagutza bihurtzeko.

Informazioa eskuratzeak ez du berez ezagutza bermatzen; izatez, ezagutza ulertu behar da gizarte modernoaren printzipio egituratzaile gisa eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko funtsezko tresna gisa. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleek informazioa ezagutza bihurtzeko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea, eta, horretarako, jakitea informazio hori noiz behar den, non bila daitekeen, nola kudea daitekeen eta nola ebaluatu eta komunikatu daitekeen, betiere ikuspuntu kritiko eta pertsonaletik eta jarrera etiko, arduratsu eta errespetuzkoa erakutsiz jabetza intelektualeko lizentzia motekiko.

Ahalegindu behar da ikasleek —bakarka edo modu kooperatiboan— askotariko informazio-iturri fidagarriak eta seguruak kontsultatzea testuinguru sozial edo akademikoetan, eta euren hizkuntza-erreperto-rioko hainbat hizkuntzatan, betiere curriculumeko gaiei buruzko edo gaurkotasun sozial, zientifiko eta kulturaleko alderdi garrantzitsuei buruzko ikerketa-lanak edo -proiektuak egin ditzaten. Ikerketa-prozesu horiei gero eta modu autonomoagoan ekin behar zaie, jabetza intelektuala errespetatuz, eta plangintza--estrategiak eta eskuratutako ezagutza hedatzeko erabiltzen diren ekoizpen propioen aurkezpenean ezarritako konbentzioak ezagutzea eskatzen dute: epigrafeetan antolatzea; hitzordu-prozedurak, oharrak, bibliografia eta webgrafia.

Alde horretatik, ingurune digitalek garrantzi handia dute informazio-alfabetatzean, eta informazio ugari ematen dute berehala. Hala ere, manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak saihesteko, beharrezkoa izango da alfabetatze mediatikoa, ikasleei estrategiak emanez bilaketa aurreratuak eta eduki-edizio egokia egiteko. Hala, ikasgelan komunikabideen eta sare sozialen bidez zabaldutako gezurren eta *clickbait*en (titular sentsazionalistak) gehiegizko erabilerak aztertzea gomendatzen da. Era berean, ikasleek sarean eta identitate digitalean duten presentzia behar bezala kudeatzen ikasi beharko dute, beren pribatutasuna, gainerakoena eta beren gailu digitalak babestuz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII4, KPSII5.

2. Erabilera komuneko diskurtso-generoetako jatorrizko ahozko testuak, koherenteak eta kohesionatuak, sortzea, sormenez eta egokitasunez, elementu prosodikoak kontuan hartuz, eta plangintza, sintesia, konpentsazioa edo autozuzenketa bezalako estrategiak eta beldur eszenikoari aurre egiteko estrategiak erabiliz, esparru publikoko komunikazio-egoerei erantzuteko.

Ahozko ekoizpen formalari lotutako trebetasunak funtsezkoak izango dira ondorengo garapen akademiko eta profesionalerako. Horrela, jakintzagai honetan, arreta berezia jarriko zaie solaskideen artean distantzia soziala handiagoa den egoera publikoei. Egoera horietan, hizkuntza-erabilera landuagoak, erregistro formalak eta hitzik gabeko komunikazioarekin zerikusia duen guztiaren kontrol kontzientea behar dira.

Ahozko ekoizpen formalak genero diskurtsibo espezifikoen gakoak ezagutzea eta ikasleei ikas egoerak proposatzea eskatzen du, ikasleentzat garrantzi pertsonaleko edo interes publikoko gaiei buruzko ahozko ekoizpenei aldizka aurre egin ahal izateko. Ekoizpen horiek Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) lotuta egongo dira, sormenez, koherentziaz eta egokitasunez, eta maiz erabiltzen diren zenbait hizkuntza-adierazpen dituen hizkuntza estandar batean.

Ekoizpen horrek etapa honetan aurkezpen formal sinple eta argia barne har dezake, hainbat formatu eta euskarritan, tamaina ertainekoa, ideiak adibideekin eta xehetasun egokiekin osatuko dituena. Aurkezpena aldez aurretik ondo antolatuta egongo da, eta zuzentasun gramatikalarekin eta ahoskera, erritmo eta intonazio egokiarekin azalduko da, nahiz eta atzerritar batena dela argi egon. Halaber, komunikabideen esparruko —albistea eta erreportajea—, esparru akademikoko —diskurtsoak eta saiakerak—, umorearen esparruko —bakarrizketak edo txisteak— eta sare sozialetako —Tweet bideoa, YouTubeko tutorialak edo podcast-eko pasarteak— diskurtso-generoak. Era berean, gai bati buruzko ikuspuntu edo arrazoibide baten azalpen xehatua ere jaso dezake, hitzaldi, defentsa, aipamen edo saiakeren bidez, azalpen eta argudio garrantzitsuak emanez, kausei, ondorioei eta hipotesiei buruz espekulatuz, eta hainbat aukera ebaluatuz; hori guztia ikasleek esan nahi dutena eta esateko modua planifikatu ahal izateko hizkuntzaren gaineko kontrola erakutsiz.

Ahozko aurkezpenak elkarren osagarri diren lau alderdi menderatzea eskatzen du: hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntza on bat praktikan jartzea (arreta berezia jarriz hizpidean, zinesian eta proxemikan), auditorioaren arreta bereganatzeko; beldur eszenikoari aurre egiteko estrategiak; diskurtsoa memorizatzeko eta barneratzeko teknikak, inprobisatzeko eta sortzaileak izateko gaitasuna barne hartzen dutenak; eta baliabide informatikoetan eta ikus-entzunezkoetan laguntza egokia eta orekatua ematea, beharrezkoak izanez gero.

Azkenik, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ahozko komunikazio multimodalerako (sinkronoa zein asinkronoa) formatu berriak ahalbidetzen dituzte, eta, era berean, ikasleen ahozko ekarpenak erregistratu ahal izatea errazten dute, testuinguru errealetan heda daitezen eta ondoren aztertu, berrikusi eta ebalua daitezen (autoebaluazioa eta koebaluazioa).

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE1, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII5, EK3, KAKK3.1.

3. Beste pertsona batzuekin aktiboki elkarreragitea testuinguru informaletan, jariakortasun eta zehaztasun nahikoarekin, modu espontaneoan eta ulergarrian, baliabide analogikoak eta digitalak erabiliz eta kortesia-arauak errespetatuz, enpatiaz, errespetuz eta eraginkortasunez jokatzeko, eta eguneroko komunikazio-egoeretan eta kulturarteko egoeretan elkar ulertzea sustatzeko.

Elkarrekintzak bi parte-hartzaile edo gehiago inplikatzen ditu diskurtso bat osatzeko garaian. Pertsonen arteko elkarrekintza hizkuntzaren jatorria dela uste da, eta Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan jakintzagaian pertsonen arteko funtzioak, funtzio kooperatiboak eta transakzionalak biltzen ditu. Beste pertsona batzuekiko elkarrekintzan, honako hauek esku hartzen dute: hizkuntza-adeitasunak, netiketak, komunikazioaren hitzezko eta hitzik gabeko elementuek, eta ahozko genero dialogikoetarako eta multimodaletarako egokitzapenak. Elkarrekintza informalaren bidez, ikasleentzat garrantzi pertsonala duten edo interes publikoa duten eguneroko egoerei erantzutea espero da; horrela, gertaerak kontatu ahal izango dira, eta esperientziak, nahiak eta helburuak deskribatu ahal izango dira, baita iritziak argudiatu edo planak eta ideiak hainbat formatu eta euskarritan azaldu ere.

Bat-bateko elkarrekintzek beren intereseko hainbat gairi buruzko nolabaiteko arintasuna, naturaltasuna eta zehaztasuna duten elkarrizketa informaletan parte hartzea dakarte, parte hartzeko eta elkarrekintzari eusteko estrategiak eta esanahiak negoziatzeko estrategiak erabiliz. Elkarrekintza horiek kulturarteko egoeren testuinguruan koka daitezke.

Konpetentzia espezifiko hori funtsezkoa da ikaskuntzan, hizkuntzen arteko transferentziak egiteko, kooperazioan jarduteko, hitza eman eta hartzeko zein argibideak edo berrespena eskatzera bideratutako galderak egiteko estrategiak biltzen baititu. Elkarrekintza, gainera, ezinbesteko jarduera da lan koo-

peratiboan, non ikasleek zubiak sortzeko gizarte-eragile gisa jarduten duten. Zereginak eta erantzukizunak ekitatez, eraginkortasunez, errespetuz eta enpatiaz banatzea eta onartzea helburu partekatuak lortzera bideratuta dago, eta mezuak ulertzen lagunduko duten bitartekotza-estrategiak behar ditu, adibidez, birformulazioa. Gainera, elkarrekin komunikatzeko eta batera lan egiteko gailu digitalek, tresnek, aplikazioek eta lineako zerbitzuek elkarrekintzarako aukerak ematen dituzte, eta, era berean, ikasleei aukera ematen diete hizkuntza-kortesia eta netiketa arautzen dituzten arauak eta printzipioak ikasteko eta aplikatzeko, baita beren nortasun digitala kudeatzeko ere; horrez gain, ikasleak herritar demokratiko, arduratsu, errespetuzko, seguru eta aktiboak izateko prestatzen dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE1, KE2, KD3, KPSII3.1.

4. Aldez aurretik planifikatutako elkarrekintza formaletan asertiboki eta aktiboki parte hartzea, haiek erregulatzen dituzten elkarrekintzako, esku-hartzerako eta kortesiarako arauak errespetatuz, esparru publikoko komunikazio-egoerei erantzuteko.

Elkarrekintza formalak ahozko ekoizpenarekin zein informazioaren bilaketa eta plangintzarekin zerikusia duten estrategiak praktikan jartzen ditu, baina, era berean, esanahia negoziatzeko estrategiak eskatzen ditu. Ez du lagunarteko hizkuntzarik onartzen, eta tonu kultua eta aseptikoa erabiltzea eskatzen du.

Jakintzagai honetan, esparru publikoko elkarrizketa-genero formalen —hala nola eztabaidak, solasaldiak eta tertuliak— berezko konbentzioen ezagutzan sakondu beharko da. Non ikasleak zenbait ideia eta argudio sortu eta ordenatu dituen, baina, aldi berean, solaskidearengandik lortutako informazioekin elkarreragin behar duen.

Elkarrekintzak interes publikoko eta gaurkotasuneko gaiak jorratu behar ditu, informazio orokorra eta zehatza eskainiz, adibide egokiak erabiliz, bere ikuspuntuak behar bezain argi defendatuz eta argudiatuz, besteen ekarpenen aurrean errespetuzko jarrera eta jarrera kritikoa erakutsiz, eta diskriminazio eta indarkeria mota guztiak baztertuz. Horrela, komunikazio-praktikak bizikidetza demokratikoaren eta gatazken kudeaketa elkarrizketatuaren zerbitzura jarriko dituen herritartasuna sortzen lagunduko dugu.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE1, KE2, KPSII3.1., KPSII4, HK1, HK3.

5. Ahoz ozen irakurtzea eta, batez ere, literaturaren arloko testuak antzeztea, modu adierazkor eta dramatizatuan, testuek dituzten sentimenduak eta pentsamenduak behar bezala adierazteko, norberaren eta entzuleen ulermena errazteko eta ahozko errespetuzko esku-hartzeetan bat-batekotasunarekin eta prosodiarekin lotutako berezko hizkuntza-trebetasunak hobetzeko.

Testuak modu adierazkorrean eta dramatizatuan irakurtzeak eta antzezteak esan nahi du beste pertsona batzuek sortutako mezuen azken muinari balioa ematea, haien sentimenduak eta pentsamenduak edo pertsona horiek sortutako pertsonaienak nabarmenduz. Testuak birsortzeak (albisteak, publizitate-iragarkiak, antzezlanak, ipuinak, poemak, elkarrizketa-testuak...), ozen irakurtzeko ariketa honen eta haien antzezpenaren bidez, informazioa ulertzen, barneratzen eta prozesatzen eta modu argi eta eraginkorrean transmititzen laguntzen du, testuak biltzen dituen ñabardura guztiak jasoz, hartzaileei informazio hori ulertzea ez ezik, gozatzea ere bermatzeko. Birsorkuntza hori hainbat euskarri eta formaturen bidez landu daiteke (albistegiak, podcastak, antzerki-emanaldiak, txotxongiloekin antzeztutako antzezlanak...). Idatzizko testuan ahoskera oinarritzeko aukerak —zailtasun bereziko hitzak edo esaldi bereziki konplexuak praktikatzeko behin eta berriz irakur daitezkeenak— ikasleengan beharrezko konfiantza sortzen du adierazpen-irakurketa modu egokian egiteko, eta ahoskera, intonazioa, abiadura eta bat-batekotasuna hobetzen lagunduko die aurrerago egingo dituzten ahozko esku-hartzeetan.

Adierazpenezko irakurketa dramatizatuaren eta testuen irudikapenaren bidez, ikasleek ahozko komunikazio-prozesuan dauden hizkuntza-trebetasunak hobetzen dituzte. Irakaslearen lana da, moldaketaren bidez, irakurketarekin eta interpretazioarekin lan egitean ahozkotasunarekin lotzen diren elementuen garrantzia-

ri buruz hausnartzen laguntzea: puntuazio-zeinuen ahozko irudikapen zuzena; azentu prosodikoa; abiadura, erritmoa eta etenaldiak; ahotsaren modulazioa eta kontrola; ahoskera argia eta zehatza; perpaus mota desberdinen (galdetzaileak, harridurazkoak, deklaratiboak…) adierazpenezko intonazioa; proxemikarekin eta zinesiarekin zerikusia duten hizkuntzaz kanpoko faktoreak, eta abar. Eta, era berean, ikaskuntza horiek kontuan hartuko dituzten bat-bateko eta errespetuzko beste ahozko jarduera batzuk sustatzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE1, KD2, KAKK2, KAKK3.2, KAKK4.1, KAKK4.2.

6. Hizkuntza-errepertorio pertsonala mugiaraztea eta erabiltzea, hura osatzen duten hizkuntza eta barietate bakoitzeko ahozko diskurtso-generoen ezberdintasunei eta antzekotasunei buruzko gogoeta kritikoa eginez, eta norberaren estrategiak eta ezagutzak azalduz eta partekatuz, ahozko testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.

Hizkuntza-errepertorioaren erabilera eta haren funtzionamenduari buruzko gogoeta hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztunari lotuta daude. Ikuspegi eleaniztunaren abiapuntua da ikasleek ezagutzen dituzten hizkuntzekin dituzten esperientziak hizkuntza berrien ikaskuntza zabaltzeko eta hobetzeko oinarria direla, eta hizkuntza-errepertorio eleaniztuna eta jakin-min eta sentsibilizazio kulturala garatzen eta aberasten laguntzen dietela.

Batxilergoko etapan, ezinbestekoa da ikasleek hizkuntzen funtzionamenduari buruzko gogoeta egitea eta beren errepertorio pertsonala osatzen duten hizkuntzak sistematikoki alderatzea, antzekotasunak eta desberdintasunak aztertuz, komunikazio-egoerara egokitzen diren diskurtso koherenteak eta kohesionatuak sortzeko, eta hizkuntza horietan lortutako ezagutzak eta estrategiak zabaltzeko. Jakintzagai honen bidez ahozko diskurtso-generoen ezaugarrien desberdintasunak eta antzekotasunak identifikatzen lagundu behar dugu. Hizkuntzei eta haien funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoak eta sistematikoak ikasleek hizkuntzen arteko erlazioak ulertzea dakar, eta hizkuntza- eta komunikazio-esparruan dituzten indarrak eta gabeziak identifikatzen laguntzen du. Ikasleak, gainera, ezagutza eta estrategia propioez jabetuko dira, eta esplizitu egingo dituzte, autoebaluaziorako, koebaluaziorako, autozuzenketarako estrategia eta tresnen bidez. Ildo horretan, ziurgabetasunari aurre egiteko eta autokonfiantzaren eta ekimenaren zentzua eta helburuak lortzean edo erabakiak hartzean beharrezkoa den jarraikitasuna garatzeko trebetasunak ere beharko dira.

Hizkuntza-errepertorioari buruzko eduki berriak eraikitzeko eta integratzeko, eta atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratu eta hausnartzeko gailu eta tresna analogikoak nahiz digitalak hautatu, konfiguratu eta aplikatzeak, haien hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntza guztiak eskuratzea eta hobetzea erraztu dezakete.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, KD3, KPSII1.1, KPSII5.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ikasleek interesa duten norberaren eremu pertsonalari, publikoari, profesionalari edo hezkuntzakoari dagozkien gaiei buruzkoak izango dira testuak.

Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasun garrantzitsuenak ulertzea, testuen asmoa eta iritziak, inplizituak zein esplizituak bereiztea eta esanahiak inferitu eta hitzik gabeko elementuak interpretatzea komunikazio-egoera bakoitzean estrategia eta ezagutza egokienak hautatu, antolatu eta aplikatuz.
1.2. Informazioa bilatu, hautatu eta kontrastatzea, baliozkotasun, kalitate, gaurkotasun eta fidagarritasuneko irizpideak aplikatuz, eta modu egokian eta seguruan gordetzea.

Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan
1.3. Hainbat iturritatik datorren informazioa birformulazio- eta sintesi-estrategiak erabiliz integratzea, jabetza intelektuala errespetatuz eta baliabide analogiko eta digital egokienak hautatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Aldez aurretik planifikatutako esparru publikoko diskurtso-generoetako testu argiak, koherenteak, zehatzak, ondo antolatuak eta solaskideari eta komunikazio-xedeari egokituak ahoz adieraztea, erraz eta eraginkortasunez komunikatzeko aukera emango dion jariakortasun-, zuzentasun-, ahoskera- eta intonazio-mailarekin, eta informatzeko eta argudiatzeko helburuarekin, ahozko baliabideak eta ahozkoak ez direnak erabiliz, eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eginez.
2.2. Gorputz-hizkuntza, espazioa eta presentzia eszenikoa komunikazio-kode gisa erabiltzea, publikoaren aurrean ematen den diskurtsoaren adierazkortasuna eta eraginkortasuna goraipatzeko.
2.3. Esparru publikoko ahozko testuak eta testu multimodalak planifikatzeko eta sortzeko ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, baita aurrez aurreko diskurtsoetan edo diskurtso birtualetan denbora kudeatzeko eta entzuleen arreta erakarri eta mantentzeko estrategiak ere; kasu bakoitzean egokitzeko gaitasuna erakutsiz, eta inprobisazioari eta bat-batekotasunari lekua utziz.
2.4. Norberaren eta besteren ahozko ekoizpenaren akatsak antzematea, ebaluazioaren eta autoebaluazioaren ohiko praktikatik abiatuta, horiek hobetzeko soluzioak proposatuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Elkarrizketa informaletan bat-batean parte hartzea, gai orokorrei, akademikoei, profesionalei edo aisialdiari buruz hitz egitean arintasun, naturaltasun eta zehaztasun apur bat erakutsiz.
3.2 Kultura arteko egoeretan enpatiaz eta eraginkortasunez jardutea eta elkar ulertzea sustatzea, kultura partekatuaren eta iraunkortasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritarren garapena bultzatuz eta justifikatuz.
3.3. Komunikazioa hasi, jarraitu eta amaitzeko, hitza adeitasunez hartu eta emateko, norberaren ekarpena solaskideen ekarpenera egokitzeko (haien erreakzioak hautemanez), argibideak eta azalpenak eskatu eta formulatzeko, arazoak birformulatu, konparatu eta egiaztatu, laburbildu, haietan lagundu, eztabaidatu eta konpontzeko eta egoera zailak eta haien identitate digitala kudeatzeko estrategia eta ezagutza egokiak eraginkortasunez, naturaltasunez eta ingurune desberdinetan hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Informazio garrantzitsua identifikatzea, gaia zehaztuz eta parte-hartzaile bakoitzaren komunikazio-asmoa eta jarrera ezagutuz, baita komunikazio-truke formalak (eztabaidak, batzarrak eta solasaldiak) arautzen dituzten forma- eta eduki-desberdintasunak ere.
4.2. Eztabaida, batzar eta solasaldietan adierazpenez eta aktiboki planifikatzea, parte hartzea eta kolaboratzea, horiek arautzen dituzten elkarrekintza, esku-hartze eta kortesiazko arauak errespetatuz, ideiak eta iritziak zehaztasunez adieraziz, modu sinesgarrian argudiatuz eta besteen iritziak errespetatuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Ahoskera, intonazio, ahotsaren modulazio eta erritmo egokiz adieraztea komunikabideetako eta literaturako testuak, irakurketa adierazkor eta dramatizatuaren eta haren antzezpenaren bidez, irakurritakoarekiko enpatia eta sentsibilitatea erakutsiz.
5.2. Testuen irakurketa eta dramatizazioa hobetzeko oinarrizko estrategiak hautatu, antolatu eta erabiltzea, elementu prosodikoei arreta berezia eskainiz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Hainbat hizkuntza alderatzea eta antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatzea, hizkuntzen funtzionamenduari buruz sistematikoki gogoeta eginez eta haien arteko loturak ezarriz.
6.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko eta hizkuntza horretan ulertzeko eta ahoz komunikatzeko gaitasuna hobetzen lagunduko duten estrategiak eta ezagutzak ekimenez eta sormenez erabiltzea, beste solaskide batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzarekin edo gabe.
6.3. Atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzaren inguruko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta haiei buruzko gogoeta egitea, zailtasun horiek gainditzeko eta ikaskuntza indartzeko estrategiarik egokienak eta eraginkorrenak hautatuz, ikaskuntzaren beraren plangintza-estrategien eta plangintza-tresnen bidez (hala nola Hizkuntzen Portfolio Europarraren eta ikaskuntza-eguneroko baten bidez), aurrerapen eta zailtasun horiek esplizitu eginez eta partekatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan
A. Komunikazioa.
Ahozko testuen eta multimodalen ulermena (aurrea hartzea, egiaztapena, dedukzioa, zalantzen argitzea, ulertzeko arazo propioen identifikazioa eta abar), produkzioa eta koprodukzioa (informazioaren plangintza eta bilaketa, testua egitea, haren berrikuspena eta autozuzenketa) planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta zuzentzeko estrategiak. *
Eguneroko egoeretan bitartekotza-jarduerak egitea ahalbidetzen duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.
Komunikazioaren esparruari eta testuinguruari egokitutako komunikazio-funtzioak: fenomenoak eta gertaerak deskribatu; jarraibideak eta aholkuak eman; emozioak adierazi; iritzia adierazi; argudioak adierazi; beste batzuen iritziak birformulatu, aurkeztu, laburtu. *
Testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak, ahozkoak eta multimodalak, ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzeko, ekoizteko eta koproduzitzeko erabili ohi direnak, lexikoan eta egituretan aberatsak eta zabalak, pertsonen arteko (telefono bidezko solasaldiak, elkarrizketak), mundu profesionaleko, komunikabideetako eta publizitateko (iragarkiak, erreseinak, zutabeak, berria, elkarrizketa, erreportajea, solasaldia, eztabaida, podcast episodioa…), testu akademikoetako (mintzaldia, hitzaldia, entsegua…) sare sozialetako (bideo-tweet, YouTubeko tutorialak edo podcast-eko pasarteak), umoreko (bakarrizketak, txisteak) eta literaturako esparruetakoak.
Hizkuntza-unitateak eta unitate horiei lotutako esanahiak, hala nola honako hauen adierazpena: entitatea eta bere propietateak, kantitatea eta nolakotasuna, espazioa eta espazio-erlazioak, denbora eta denbora-erlazioak, baieztapena, ukapena, galdera eta harridura, erlazio logikoak. *
Ikasleentzat interesa duen denborari eta espazioari lotutako lexiko arrunta eta espezializatua; egoerak, ekitaldiak eta gertaerak; jarduerak, prozedurak eta prozesuak; harreman pertsonalak, sozialak, akademikoak eta profesionalak; hezkuntza, lana eta ekintzailetza; hizkuntza eta kulturarteko komunikazioa; zientzia eta teknologia; historia eta kultura; eta lexikoa aberasteko estrategiak (eratorpena, konposizioa, polisemia, sinonimia eta abar).
Soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak eta patroi horiei lotutako esanahi eta asmo komunikatibo orokorrak. Oinarrizko alfabeto fonetikoa. *
Proxemika eta Zinesia: espazio eszenikoa eta gorputz-hizkuntza. *
Konbentzio ortografikoak eta formatu, patroi eta elementu grafikoei lotutako esanahiak eta komunikazio asmoak.
Komunikazioa hasi, jarraitu eta amaitzeko, hitza hartu eta emateko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, birformulatu, konparatu eta kontrastatzeko, laburbildu eta parafraseatzeko, kolaborazioan aritzeko, esanahiak negoziatzeko edo ironia detektatzeko elkarrizketa-konbentzioak eta elkarrizketa-estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan. *
Auditorioaren arreta eta onginahia bereganatzeko estrategiak. *
Entzute aktiboa, asertibitatea eta baliabideak gatazkak elkarrizketa bidez kudeatzeko eta konpontzeko.
Jendaurrean hitz egiteko kudeaketa emozionala: autokonfiantza, enpatia eta asertibitatea. Hazkunde pertsonala eta beldur eszenikoaren galera.
Oratoriak gizartea mugitzeko duen boterea eta gizartea guztion onerako tresna bihurtzeko beharra, ikuspegi etiko batetik.
B. Informazio-alfabetatzea eta alfabetatze mediatikoa.
Baliozko informazioa, kalitatekoa, egungoa eta fidagarria bilatu eta hautatzeko baliabide analogiko eta digitalak eta estrategia aurreratuak, eta edukiez arduratzea. *
Komunikabideen eta sare sozialen bidez zabaldutako gezurrak eta *clickbait*ak (titular sentsazionalistak) detektatzeko estrategiak. Manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak.
Kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien gaineko jabetza intelektuala eta egile-eskubideak: datu bibliografikoak tratatzeko tresnak eta plagioa saihesteko baliabideak. *
Ahozko ulermen, ekoizpen eta baterako ekoizpenerako, idatzizkorako eta multimodalerako tresna analogikoak eta digitalak; eta proiektuak atzerriko hizkuntzako hiztunekin edo ikasleekin ikasi, komunikatu eta garatzeko hezkuntza-arloko elkarrekintza, kolaborazio eta kooperazioko plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, kolaborazio-tresna digitalak eta abar). *
Sarean ekintzak, presentzia eta ikusgaitasuna arduraz kudeatzeko eta herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetatsua gauzatzeko estrategiak.
C. Eleaniztasuna eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.
Autokonfiantza, ekimena eta asertibitatea. Autozuzenketa- eta autoebaluazio-estrategiak, atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza autonomoan aurrera egiteko baliabide gisa. *

Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan
Komunikazio-behar jakin bati eraginkortasunez eta autonomia, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun handiarekin erantzuteko eta atzerriko hizkuntzan eta norberaren hizkuntza-errepertorioko gainerako hizkuntzetan lortutako konpetentzia-mailaren ondoriozko mugak gainditzeko estrategiak eta teknikak. *
Ikasteko baliabideak, eta hizkuntza-unitateak identifikatu, antolatu, gogoan gorde, berreskuratu eta sormenez erabiltzeko estrategiak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak eta abar), hizkuntza-errepertorio pertsonala osatzen duten hizkuntzen eta aldaeren konparaziotik abiatuz. Maileguak, kalkoak eta transferentzia negatiboak. *
Autoebaluazio, koebaluazio eta autozuzenketarako eta atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzaren inguruko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzeko tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak. Hizkuntzen Porfolio Europarra (HPE). *
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikatzeko eta ikasteko tresnei buruzko gogoeta egiteko eta gogoeta partekatzeko esamoldeak eta lexiko espezifikoa (metahizkuntza). *
Atzerriko hizkuntzaren eta ikasleen hizkuntza-errepertorioko beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta hizkuntzen arteko konparazio sistematikoa egiteko estrategiak: jatorria eta ahaidetasunak. *
Kooperazio-estrategia sinpleak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartzeko jarraibideak. *
D. Kulturartekotasuna.
Atzerriko hizkuntza herrien arteko komunikaziorako eta elkar ulertzeko baliabide gisa, beste kultura eta hizkuntza batzuetara hurbiltzeko bideratzaile gisa eta parte-hartze sozialerako eta aberaste pertsonalerako tresna gisa. *
Atzerriko hizkuntzako hiztunekin edo ikasleekin hainbat baliabide erabiliz, ahoskera, erritmo eta intonazio egokiarekin, erabilera komuneko konbentzio ortografikoak eta sozialak errespetatuz eta testuen aurkezpena zainduz komunikazio-elkartrukeak egiteko eta atzerriko hizkuntzan hitz egiten den herrialdeetako kultura-informazioak ezagutzeko interesa eta ekimena. *
Atzerriko hizkuntzaren berezko kultura-ereduak.
Konbentzio sozialei, adeitasun-arauei eta erregistroei lotutako alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak; instituzioak, ohiturak eta erituak; balioak, arauak, sinesmenak eta jarrerak; estereotipoak eta tabuak; hitzik gabeko hizkuntza. *
Atzerriko hizkuntzak munduan dituen aldaerak.
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak prebenitu, detektatu eta baztertzeko eta haien aurrean jarduteko estrategiak. *
Literatura-testuaren eta irakurketaren balorazioa gozamen-iturri gisa, arte- eta kultura-adierazpenetarako hurbilketari eta hizkuntza-aberastasunari eta aberastasun pertsonalari begira.
Literatura-testuak eta komunikabideen berezko testuak dramatizatu, birsortu eta errezitatzeko estrategiak. *

ALJEBRA ETA KALKULUA

Matematika giza esparru eta jarduera guztietan agertzen da, eta horietan begirada zehatza, zorrotza eta koherentea eskaintzen dio errealitateari. Matematikaren curriculumak irteera-profila osatzen duten funtsezko konpetentzien garapena bultzatzen du, eta horiek eskuratzeak ikasleen garapen pertsonala, soziala, akademikoa eta lanekoa erraztuko du. 1. mailako Aljebra eta Kalkulua jakintzagaiak prestakuntza hori osatzea proposatzen du, arlo zientifiko-teknologikoko karrerei ekiteko, matematika-ezagutza sendotuz.

Jakintzagai honetan ez da goi-mailetako edukietan aurrera egitea proposatzen, baizik eta Zientzietako Matematika I jakintzagaian proposatzen diren ezagutzak finkatzea; izan ere, jakintzagai hori aurrerago emango den matematika eskuratzeko oinarria izango da. Bestela, irakasgai honek curriculumak lortu nahi duenaren eta ikasleek benetan bereganatzen dutenaren arteko desfasea arindu nahi du, jakintza-gaiari metodologia aktiboarekin eta baliabide teknologikoen erabilera biziarekin aurre eginez, problemak modu dinamiko eta aberastuan ebaztea bultzatzeko.

Ikasleek ezagutza eraikitzeko, errutinazko prozeduretan emandako denbora murriztu behar da, eta, aldiz, funtsezko konpetentzien garapena bultzatzen duten trebetasunei eskainitakoa handitu: ikertzea, aieruak formulatzea, argudiatzea, komunikatzea, esperimentatzea eta, bereziki, problemak ebaztea.

Laguntzaile matematikoek ohiko prozedurak saihestu eta ikuspegi kontzeptualak eta prozedurazkoak indartuko dituzte, eta, horrekin batera, arrazoiketan oinarritutako matematika. Irakasgai honen ikuspegitik aljebraren problemak ebazteari eta kalkuluari ekitea proposatzen da simulazio, laguntzaile matematiko, aplikazio, kalkulu-orri eta abarren laguntzarekin.

Aljebra eta kalkuluko ikasleek begirada eta matematika-hizkuntza bat garatuko dute. Begirada matematikoak, zentzu matematikoarekin oso lotuta, aniztasunez eta eredu adierazgarriz jositako errealitate aljebraikoa eta konputazionala hautemateko aukera emango dio, baita kalkuluak zehaztasuna emango duen errealitate konplexu eta modelizagarria ere. Matematika-hizkuntzak, pertsona guztientzat jatorri partekatua eta komuna duenak, errealitate konplexu baten deskribapena eta tratamendua lantzeko aukera emango du, aljebraren eta kalkuluaren tresna espezifikoekin modu partekatuan kudeatu eta uler daitezkeen sistemak simulatuz.

Proposamen honen matematikak Batxilergoko matematika uztartzen eta osatzen du, bai konpetentzia espezifikoetan eta ebaluazio-irizpideetan, bai oinarrizko jakintzetan, ikaskuntzan sakonduz ikasketa zientifiko-teknologikoetan jarraitzea errazteko.

Aljebra eta Kalkulua jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak definitzeko ildo nagusiak problemak ebaztea eta trebetasun sozioemozionalak dira. Gainera, aieruen formulazioa eta arrazoiketa matematikoa, esparru horietako elementuen arteko loturak ezartzea, eta matematikaren beste eremu batzuekin, beste irakasgaiekin eta errealitatearekin loturak ezartzea lantzen da; eta, azkenik, irudikapen eta komunikazio matematikoa lantzen da.

Problemak ebaztea matematika ikastearen helburua da, baita problemak modu esanguratsuan eta funtzionalean ikasteko metodorik eraginkorrenetako bat ere. Aljebrak eta Kalkuluak prozesu matematikoen modelizazioan sakontzen duten eta problema konplexuak ebaztea errazten duten tresna espezifikoak eskaintzen dituzte.

Didaktikako ikerketak erakutsi du matematikako errendimendua hobetu daitekeela aurreiritziak ezabatu eta matematikarekiko emozio positiboak garatzen badira. Aljebraren eta kalkuluaren ezagutzan sakontzeak errendimendu horren hobekuntza sendotzea du helburua.

Hemen ere, ikasgelako eztabaida matematikoak etengabea izan behar du ikaskuntza bultzatzeko eta ezagutza partekatua eraikitzeko. Deliberamendu horietan, akatsa ikaskuntzarako palanka gisa onartu eta aprobetxatu behar da.

Zentzu matematikoa domeinuarekin lotutako gaitasunen multzo gisa ulertzen dugu, eduki matematikoen testuinguruan, modu funtzionalean eta norberaren trebetasunekiko konfiantzarekin. Ikuskera horretatik abiatuta, matematikaren jakintzak zentzu matematikoetan multzokatu dira. Zentzu horiek matematikaren hainbat esparrurekin lotutako trebetasun multzoak dira: numerikoa, neurriarena, aljebraikoa eta konputazionala, espaziala, estokastikoa eta sozioafektiboa.

Aljebra eta Kalkulua aukerako jakintzagaiaren kasuan, tresna horiekin problemak ebaztean jarriko dugu arreta, matematikarako konpetentzia eta matematikako zentzu guztiak indartzeko. Hainbat baliabide digital integratuko ditugu, hala nola laguntzaile matematikoak, simulazioak, software dinamikoak eta abar, ikaste-egoerei aurre egiteko eta ekosistema aberastuetan problemak ebazteko.

Curriculumaren elementuak —bai konpetentzia espezifikoak, bai ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak— osotasun bat eratzeko diseinatuta daude, testuinguru esanguratsu eta garrantzitsuetan zeregin konplexuak planteatzea errazteko, konpetentzia-planteamendu bat bultzatuko duten baliabide teknologikoak erabiliz. Konpetentzien izaera dela-eta, kasu batzuetan, ebaluazio-irizpideak oinarrizko jakintzen bidez zehazten dira; kasu honetan, Aljebra eta Kalkuluaren jakintzaren bidez. Ikaste-egoerek, problemak ebazteak, proiektukako ikaskuntzak, simulazio eta tresna digitalekin lan egiteak eta ikasleen beharren arabera konbinatutako beste metodologia aktibo batzuek diziplinartekotasuna ahalbidetzen dute eta hausnarketa kritikoa eta sormena bultzatzen dituzte.

Prestakuntza-ebaluazioa proposatzen da, jarraitua, kualitatiboa eta ez kuantifikagarria, elkarrizketan, ulermenean eta hobekuntzan oinarritua. Akatsa ikaskuntza-prozesuaren zati bat izango da, baita autorregulaziotik egindako aurrerapenak ezagutzeko eta baloratzeko aukera bat ere.

Matematika irakasteko eta ikasteko, motibazio egokia, testuinguruan kokatutako zereginak, behar den denbora eta baliabide digitalen erabilera hartu behar dira kontuan.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Aljebra eta Kalkulu problemak modelatzea eta ebaztea, hainbat estrategia eta arrazoitzeko modu aplikatuz, soluzioen egokitasuna aztertuz eta egiaztatuz, ezagutza matematiko berria sortzeko eta errealitate konplexua interpretatzeko, baliabide digitalen laguntzaz.

Problemak ebaztea izan da ezagutza matematikoa eraikitzeko jarduerarik benetakoenetako eta emankorrenetako bat, eta, gaur egun, ikasleen konpetentziak garatzeko tresnarik eraginkorrenetako bat da. Aljebra eta Kalkulua erabiltzea eskatzen duen zientziaren eta teknologiaren hainbat esparrutako problemak ebazteak berekin dakar egoera errealen eredu abstraktuak sortzea, Matematikaren adar horien berezko kontzeptuak, erlazioak eta prozedurak modu esanguratsuan aplikatu ahal izateko. Horrela, analisi-gaitasuna, arrazoiketa, iragarpena edo pentsamendu kritikoa bezalako trebetasunak eskuratzea sustatzen da.

Problema baten soluzioak kalkulatu ondoren, soluzio horiek egiaztatzeko eta aztertzeko prozesua gauzatu behar da, bai matematikaren ikuspegitik, bai errealitatea interpretatzearen ikuspegitik. Balioztatzea prozesu osoaren berrikuspen kritikoaren bidez egingo da: soluzioen egokitasuna ebazpen-testuinguruan, galderak egitea, soluzio eraginkorragoak eta errazagoak bilatzea, orokortzea…

Era berean, ezinbestekotzat jotzen da ebazteko teknikak eta estrategiak aplikatzea eskatzen duten egoerak ahalbidetzea (analogia, simetria, ebatzitako problema suposatzea, zati sinpleetan deskonposatzea, usategiaren printzipioa, indukzioa…), software informatiko egokiaren ohiko laguntzarekin (kalkulu-orriak, zenbaketa numerikoko programak, aljebra sinbolikoa…), kalkuluak errazteko, jarraibideak bistaratzeko, erlazioak esploratzeko eta ebazpen-estrategia egokiak aurkitzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, KD3, KPSII1.1, EK3, KAKK4.2.

2. Kalkuluaren tresnekin aieruak eta problemak formulatzea eta ikertzea, hainbat jakintza erlazionatuz eta irudikapen analitiko-aljebraiko egokia emanez, tresna teknologikoen laguntzarekin, ezagutza matematiko berria sortzeko.

Matematika egiten jakitea prozesu luze eta neketsua da, eta lotura estua du aieruak formulatzearekin eta problema berriak planteatzearekin. Galderak egiteak, hipotesiak planteatzeak, aieruak ikertzeak eta dagoeneko ebatzita dauden problemak ebazteko bide berriak aztertzeak ezagutza berria finkatzeko eta sortzeko aukera ematen dute. Horrela, aljebra sinbolikoaren bidez harremanak aurkitzeak eta adierazteak, patroiak behatzeak, joerak ikasteak eta muga kontzeptua begiesteak problemak birformulatzea eta iragarpenak egitea ahalbidetzen die ikasleei.

Konpetentzia honen garapenak pentsamendu sortzaileagoa, askotarikoagoa eta malguagoa susta dezake, eta problemak ebazteko trebetasun heuristikoak hobetu ditzake. Halaber, zubiak ezarriko dira egoera zehatzen eta abstrakzio matematikoen artean, eta ezagutza berriak aurretik eskuratutakoekin konektatuko dira.

Manipulazio-materialak, kalkulagailuak, morroi matematikoak, software dinamikoa eta simulagailu birtualak erabiltzeari esker, propietateak bistaratu, iragarpenak egin, aieruak formulatu eta ongi arrazoitutako ondorioak lor daitezke.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, STEM2, STEM3, KD1, KD2, KPSII5.

3. Zenbaki konplexuekin eta ekuazio- eta inekuazio-sistemekin zentzu aljebraikoa garatzea, problemak ebazteko sinboloak eta propietateak erabiliz, errealitatea modelizatzeko fokua erlazio matematikoetan jarriz.

Pentsamendu aljebraikoa hizkuntza sinboliko baten bidez adierazten da. Hizkuntza horren bidez, erraz manipulatu daitezkeen esamoldeekin egiturak, patroiak eta erlazioak irudikatu nahi dira, errealitatea modelizatzeko eta adierazpen horiek eraldatzeko, eta horrela, ondorioak ateratzeko eta problema konplexuak ebazteko.

Aljebra hizkuntza matematikoena da. Bertan aldagaiak eta horien arteko erlazioak barne hartzen dira, adierazpen sinbolikoen bidez orokortu eta modelizatzeko. Adierazpen aljebraikoen elementuak: aldagaiak, ezezagunak, parametroak…; batzuetan, soluzio jakin batzuetarako egiaztatuko den erlazio bat islatzen dute, eta, beste batzuetan, aldiz, erlazio hori egiaztatu egingo da aldagai(ar)i esleitzen diogun edozein baliotarako.

Berdintasunek edo desberdintasunek, beste baliokide sinpleago batzuetara aldatuz, ikaste-egoeraren erlazioak edo modelizatu dugun problema matematikoa adierazten duten ezezagunen balioak kalkulatzeko aukera ematen dute. Gaur egun, adierazpen aljebraikoak prozesatzeko softwareak ditugu; software horiek aukera ematen digute problemak ulertzeko eta ebazteko, tresna horien laguntzarekin.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, KD3, KD5, KAKK4.2.

4. Aljebra eta Kalkuluaren, beste matematika-esparru batzuen eta beste jakintza-arlo batzuen arteko loturak ezagutzea eta ikertzea, kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotuz, ikuspegi matematiko integratua garatzeko eta hainbat egoeratan problemak ebazteko.

Matematika ikasteko orduan, funtsezkoa da Aljebraren eta Kalkuluaren artean, eta horien eta ezagutzaren beste arlo batzuen artean loturak behatzea eta ikertzea, edo egoera errealetan problemak ebaztearen arteko loturak ere. Konexio horiek ezagutzeak eta erabiltzeak eskuratutako ezagutzak modu iraunkorrean eta sakonean ulertzea dakar, jakintza horiek diziplina zientifiko-teknologikoetako hainbat egoeratan aplikatzea erraztuz.

Aljebrak eta Kalkuluak osotasun integratu eta koherente batean dituzten erlazioak ezagutzeko, haien arteko loturak aztertu eta haiei buruz hausnartu behar da. Horretarako, teknologia berriek tresna ezin hobeak eskaintzen dituzte. Tresna horiek elementu matematiko desberdinen (aritmetikoak, aljebraikoak, geometrikoak...) propietateak eta erlazioak bistaratzen laguntzen dute.

Konpetentzia horren garapenak garrantzi handia hartzen du; izan ere, konexioak sustatzeaz gain, beste arlo batzuekin batera lan egitea sustatzen du, eta lotura estuak ezartzen ditu ingurunearekin eta esparru zientifiko-teknologikoko beste diziplina batzuekin.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD3, KPSII5, HK4, EK3, KAKK1.

5. Kontzeptuak, prozedurak eta emaitza matematikoak irudikatzea eta komunikatzea, kasu bakoitzean egokiena den teknologia eta/edo hizkuntza hautatuz (digitala, grafikoa, ahozkoa, idatzizkoa, sinbolikoa...), ideiak adierazpen aljebraikoen bidez bistaratzeko, kalkulu arrazoituko prozesuak egituratzeko, eta ideia matematikoei esanahia eta koherentzia emateko.

Ideia matematikoak pentsatu, ulertu eta komunikatzeko, ideia horiek askotan hizkuntza aljebraikoaren bidez irudikatu behar ditugu, eta horrek sormen-prozesu bat dakar berekin, ideia bat edo erlazio matematiko bat eraldatzeko, eta horrela, ulergarri, ikusgarri eta komunikagarri egiteko. Ez gara matematikako objektuekin zuzenean harremanetan jartzen, objektu horien irudikapen bereziekin baizik. Horregatik, irudikapen- eta komunikazio-sistemen barietate nahikoa zabala erabiliz gero, hobeto ulertu ahal izango dira aztergai dugun kontzeptuak dituen ezaugarri eta propietate garrantzitsuak.

Konpetentzia hori garatzeak berekin dakar, alde batetik, objektu matematikoen hainbat irudikapen mota ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna (krokisak, marrazkiak, diagramak, eskemak, taulak, grafikoak…), eta, bestetik, kalkuluak egitea, gertaerak, ideiak, kontzeptuak eta prozedurak ahoz, grafikoki eta aljebraikoki komunikatzea, modu egiazkoan eta zehatzean, ideiei esanahia eta iraunkortasuna emateko.

Informazioaren gizartean, teknologia berriek funtsezko zeregina betetzen dute, eta ezinbesteko baliabide bihurtzen dira pentsamendu-prozesuak hobetzeko, problemak irudikatzeko, interpretatzeko eta konpontzeko gaitasuna handitzeko, eta kontzeptuak eta prozedurak modu interaktiboan komunikatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, KE1, STEM2, STEM3, STEM4, KD1, KD2, KD3, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

6. Trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, akatsa eta ziurgabetasuna onartuz, erlazio osasungarriak sortuz eta talde heterogeneoetako proiektuetan aktiboki eta hausnarketa bidez parte hartuz, Aljebra eta Kalkulua ikasteko helburuak hobeto lortzeko.

Konpetentzia hori garatzeak berekin dakar, alde batetik, emozioak identifikatzea eta kudeatzea, estres-iturriak ezagutzea, jarraikia izatea, modu kritiko eta sortzailean pentsatzea, erresilientzia sortzea eta erronka matematiko berrien aurrean jarrera proaktiboa edukitzea, errorea ikasteko aukera dela eta askotariko emozioak modu pertsonalean hazteko egokiera direla ulertuz.

Bestetik, konpetentzia hori garatzeak berekin dakar besteekiko enpatia erakustea, beste pertsona batzuekin erlazio positiboak ezartzea eta mantentzea, entzute aktiboa eta komunikazio asertiboa trebatzea, taldean lan egitea eta erabaki arduratsuak hartzea. Era berean, matematikari buruz aldaera indibidual eta/edo sozialei lotuta aurrez pentsatutako estereotipoak eta ideiak haustea sustatu behar da, edozein diskriminazio motaren zentzugabekeria eta bidegabekeria logikoki oinarrituz.

Edonola ere, garrantzitsua da akatsa naturaltasunez onartzea eta ikasgelako dinamiketan sartzea, beti zigorra eragin gabe, baizik eta ikasteko palanka gisa erabilita. Testuinguru horretan, ikasgelak ekosistema bat izan behar du, eta bertan pertsona bakoitzaren erritmoak eta trebetasunak errespetatu behar dira, baita horien arteko loturak eta elkarrekintzak ere, konpetentziak lortzen laguntzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, STEM3, STEM5, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, HK3, EK2, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Aljebra eta Kalkulua
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Hainbat esparrutan (matematika, esparru zientifiko-teknikoa, eguneroko bizitza...) problemak ebaztea —tresna aljebraikoen bidez modeliza daitezkeenak (ekuazioak, inekuazioak eta sistemak)—, adierazpen sinbolikorik egokiena hautatuz, soluzio egokiak lortu arte eraldatuz, baliabide digitalen laguntzaz soluzio horien egokitasuna egiaztatuz, eta ahoz eta idatziz jarraitutako prozedura justifikatuz.
1.2 Analisi matematikoarekin lotutako kontzeptuak, ideiak eta prozesuak (mugak, asintotak, jarraitutasuna, deribatuak...) nahasten dituzten problemak ebazteko estrategiak erabiltzea, lortutako soluzioak tresna teknologikoen laguntzaz interpretatuz, aztertuz eta kontrastatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1 Ezagutza berriak eskuratzea, egoera errealak modelizatzen dituzten funtzioekin eta horien propietate garrantzitsuenekin lotutako aieruak eta hipotesiak formulatuz eta, horretarako, manipulatzeko aukera ematen duten tresna aljebraikoak, eta bistaratzen eta egiaztatzen lagunduko duten aplikazio informatikoen simulazioak erabiliz.
2.2 Egituren, patroien (numerikoak, geometrikoak, aljebraikoak) eta euren arteko erlazioen inguruan aieratzea, modu autonomoan eta taldean, elementu eta konexio matematikoak eta errealitatearenak interpretatuz eta ondorioztatutako propietateak egiaztatuz.

Aljebra eta Kalkulua
2.3 Dagoeneko ebatzita dauden problemen aldaerak eta orokortzeak planteatzea, errealitatearen ikuspegi zabalagoa eta munduaren konplexutasunaren aurrean ikuspegi sortzailea errazteko, modelizazioa sustatuz, errealitatea eraginkortasunez kudeatzeko tresna gisa.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1 Askotariko ekuazioak, inekuazioak eta adierazpen aljebraikoak ebaztea, baliabide digital elkarreragileak erabiliz, elementuekin eta horiek osatzen dituzten erlazioekin elkarreragitea ahalbidetzen duten hizkuntza eta propietateak ulertuz.
3.2 Funtzioak eta horien propietateak ezagutzea, irudikatzea eta interpretatzea, errealitatearen fenomenoak modelizatzeko, horietan garrantzitsuak diren elementuak eta erlazioak identifikatuz.
3.3 Deribatuaren kontzeptua eta haren irudikapenak erabiltzea aldaketa eta haren intentsitatea adierazteko modu gisa, deribatua puntu batean, bat-bateko truke-tasa, zuzen ukitzailearen malda, funtzio deribatua eta beste hainbat kontzeptu erlazionatuz, simulagailu birtualak erabiliz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Hainbat ideia matematiko (aritmetikoak, aljebraikoak, geometrikoak…) erlazionatzea eta lotzea, errealitatearen begirada integratua eta kritikoa osatuz, tresna digital interaktiboen laguntzarekin.
4.2 Matematikaren hainbat arlo, ezagutzaren beste esparru batzuk eta bizitza erreala lotzea, hainbat testuingurutan problemak ebatziz eta fenomeno natural eta sozialekiko begirada kritiko eta autonomoa garatuz.
4.3 Matematikak baliabideak kudeatzeko eta gizateriaren aurrerabideari laguntzeko ezartzen dituen errealitatea aztertzeko tresnak baloratzea.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1 Ideia matematikoen hainbat irudikapen interpretatzea eta osatzea, zentzu kritikoa garatuz eta tresna aljebraikoak eta aplikazio informatikoak erabiliz.
5.2 Problema matematikoak ebazteko kontzeptuak, prozedurak eta prozesuak zehaztasunez komunikatzea, hizkuntza eta irudikapen-sistema egokienak eta lana erraztuko duten tresna digitalak erabiliz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Norberaren sentsazioak identifikatzea eta kudeatzea, autokontzientzia eta autorregulazioa garatzea eta erronka matematikoei heltzean ahuleziak eta indarguneak ezagutzea.
6.2 Matematikaren ikaskuntzan zein bizitzako beste esparru batzuetan kritika onartuz jarraitzea.
6.3 Talde heterogeneoetan erabakiak hartzen eta ondorioak ateratzen laguntzea, matematikako eta beste esparru batzuetako problemak ebatziz.
6.4 Talde-lanean esleitutako rola bere gain hartzea, zereginen garapenean erantzukizunez eta errespetuz parte hartuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Aljebra eta Kalkulua
A. Problemen ebazpena
Problemak ebazteko ereduak: problema ulertu, plan bat sortu, plana gauzatu eta soluzioa egiaztatu.
Problemak ebazteko estrategiak: kodifikazioa, bistaratze grafikoa, problemaren aldaketa, amaieratik hasi, partikularizatu eta orokortu, aieratu, indukzio-printzipioa, absurdora murriztu…
Problema irekiak: problemaren eztabaida, metodo zientifikora hurbilketa; jarraibide numerikoak, alfanumerikoak eta geometrikoak; datuen aieruak eta aldaketak.
B. Aljebra
Zenbakizko segidak. Termino orokorra.
Zenbaki konplexuak: eragiketak eta irudikapena.
Hizkuntza aljebraikoa problemak ebaztean: egoera errealak aljebraikoki modelizatzeko estrategiak.

Aljebra eta Kalkulua
Ekuazio aljebraikoak eta ez-aljebraikoak (irrazionalak, esponentzialak, logaritmikoak...). Ebazpen-metodoak. Aplikazioa problemak ebaztean.
Lehen eta bigarren mailako inekuazioak. Inekuazio-sistemak. Ebazpena eta aplikazioa testuinguruan kokatutako egoeretan.
Ekuazio linealen sistemak. Matrize-eskritura. Gauss-en metodoa.
C. Kalkulua
Funtzioak eta funtzioak dituzten eragiketak
Zuzen erreala: tarteak eta inguruneak. Zenbakizko segida. Segida baten muga. Mugen kalkulua.
Mugak eta jarraitutasuna. Adar amaigabeak. Asintotak. Jarraitutasuna puntu batean eta tarte batean.
Deribatua eta horren aplikazioak. Deribatua puntu batean. Funtzio deribatua. Funtzio baten deribatua eta irudikapen grafikoa.
D. Simulazioak eta laguntzaile matematikoak
Osagaiak, horien arteko harremanak eta elkarrekintza simulazio batekin.
Sarean bilaketa, simulazio itxien eta simulazioak sortzeko baliabideen antolaketa eta bilketa.
Matematika irakasteko eta ikasteko laguntzaile matematikoak: GeoGebra, Desmos…
E. Aljebra ikasteko modu berriak: Graspable Math
Graspable Math tresna: ingurune birtuala eta haren erabilgarritasunak.
Aljebra sinbolikoa. GM bidezko adierazpen aljebraikoen erlazio linealak eta koadratikoak, baliokidetasunak eta transformazioak.
Ekuazioak, ekuazio-sistemak eta inekuazioak: GM tresna digital interaktiboaren laguntzaz ebatzi eta interpretatu.
F. Alderdi sozioafektiboak
Akatsaren onarpena eta erabilera ikaskuntzarako palanka gisa.
Talde-lana eta bestearen onarpena, bere indargune eta ahuleziekin.
Eskuzabaltasuna eta enpatia jarduera komunetan, eta arrakastak eta porrotak partekatu.

ANATOMIA APLIKATUA

Batxilergoko 1. mailako Anatomia Aplikatuari buruzko jakintzagaia, Batxilergoko 2. mailako Giza Fisiologiari buruzko jakintzagaiarekin batera, etorkizuneko osasun-profesionalen prestakuntzako oinarrizko eta ezinbesteko ikasgaiak dira, baita gorputza laneko tresna eta adierazteko bitarteko gisa erabiltzen dutenentzat ere. Hala ere, ikasgaia ezinbestekoa da pertsonaren garapen integralerako, giza gorputzaren eta ekintza motorraren egiturak eta funtzionamendua ulertzeak beharrezko oinarria eskaintzen dielako ikasleei, ohitura osasuntsuak ezagutzeko eta osasuntsuak ez direnak identifikatzeko, izan eguneroko ariketa fisikoan, kirolean zein aisialdian.

Hori guztia dela eta, ikasgaiak giza gorputzaren eta motrizitatearen inguruko hainbat jakintza-alorretako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen ditu, hala nola anatomia, biomekanika, ariketa fisikoaren zientziak eta fisiologia (Batxilergoko 2. mailarako proposatutako jakintzagaia). Hortaz, beste jakintzagai batzuekin koordinatzea beharrezkoa izango da, honako hauekin: Biologia eta Geologia, Kultura Zientifikoa, Marrazketa Artistikoa eta Gorputz Hezkuntza.

Jakintzagaiari jarraipena emateko, Batxilergoko bigarren mailarako Fisiologia eta giza anatomia ikasgaia proposatu da hautazko gisa, osagarriak baitira bi diziplina horiek. Lehenengoak izaki bizidunen egitura eta morfologia aztertzen ditu eta bigarrenak horien funtzioak eta fisiopatologiak ditu ardatz.

Bi jakintzagaiok, gainera, zortzi Milurtekoko Garapen Helburuetatik lau garatzen laguntzen dute, osasunarekin lotura zuzena dituztenak, hain zuzen ere. Esaterako, Garapen Iraunkorrerako 3. Helburua garatzen laguntzen du, “Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria eta ongizatea sustatzea”, eta gainerako GJHak jorratzen dituzten curriculumeko zientzia-ikasgaiekin batera, 2030 urtera osasuntsuago heltzea da helburua.

Ikasgaiaren curriculumaren diseinuak anatomiaren eta fisiologiaren berezko konpetentzia espezifikoen bidez lantzen diren zortzi funtsezko konpetentziak ditu abiapuntu, eta horren garapenak trebetasun eta pentsamendu zientifikoa indartu eta osasunaren aldeko eta ohitura osasuntsuen aldeko ahalegin indibidualak eta kolektiboak sustatzen ditu. Azken batean, bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute. Ikasgaiaren sei konpetentzia espezifikoak horrela laburbildu daitezke: giza gorputza egitura global gisa ulertzea; arazoak ebatzi eta ikerketa txikiak egitea; egitura anatomikoen eskemak eta ereduak egitea; anatomiak eta fisiologiak zientzia gisa duten garrantzia eta horien ekarpena balioestea; laborategian esperimentu-jardunean trebetasunak eta gaitasunak garatzea; eta, azkenik, giza gorputza zaintzeko anatomia eta fisiologia ezagutzeak duen garrantzia ulertzea.

Konpetentzien garapen-maila neurtzeko oinarrizko curriculum-elementuak ebaluazio-irizpideak dira. Irizpide horiek ikasgaiaren konpetentzia espezifikoak eta jakintzak lotzen dituzte, eta konpetentzia espezifikoetan bereganatutako maila zehazten dute. Horregatik daude elkarri lotuta. Konpetentzien formulazioak ikasleek bereganatu beharreko prozesua edo gaitasuna azaltzen du, testuinguruarekin edo aplikatzeko moduarekin eta prozesu edo gaitasun horren erabilerarekin batera.

Oinarrizko jakintzetan daude azalduta funtsezko ezagutza, trebetasun eta jarrerak eta horien bidez landuko dira konpetentzia espezifikoak eta, beraz, funtsezko konpetentziak. Azken horiek dira Batxilergoan zehar garatu beharrekoak. Jakintzak modu irekian datoz aurkeztuta, hau da, ikasgaiaren irakasleak plangintza nahierara egiteko, eta jakintzetan ikasleen interesen eta beharrizanen arabera eta erabilitako metodologiaren arabera sakontzeko.

Hala, mikrotik makrorako bidaia bi noranzkoan egin daiteke. Kontuan har daitezke bizi-funtzioak (elikadura, harremana eta ugalketa) edo, adibidez, bizitzaren etapa ezberdinak. Edonola ere, giza gorputza koordinatuta dagoela eta osorik funtzionatzen duela izango da ondorioa.

Ikasgaiaren jakintzak hiru multzotan daude banatuta:

– **Ikerketa proiektuak edo kasuen ebazpena:** ikerketa txikiak egitea, problemak ebaztea edo kasuak analizatzea proposatzen da, landu beharreko edozein gairen edukiak txertatu ahal izateko.

– **Laborategiko esperientziak:** lan praktikoen edo esperimentalen multzoa, une horretan lantzen ari diren edukiekin integratuta garatu behar diren trebetasun eta abilezia praktikoak garatzeko ezinbestekoa.

– **Giza gorputzaren antolaketa eta egiturak.** Multzo handi honetan jorratzen dira giza organismoaren antolaketa eta egiturak. Sistema eta aparatutan sailkatu dira errazago ikasteko, baina horien denen ikuspegi globala bereganatu behar da, giza organismoa sistema biologiko osoa dela ulertzeko.

Etapa honetan, ikasleek abstrakzio eta arrazoiketa logiko maila handiagoarekin egin ditzakete ariketak, analisia, hausnarketa eta argudiaketa menperatzen baitituzte, besteak beste. Alderdi horiez gain, ikasgaiaren ikuspegi zientifikoak estrategia eta prozedura metodologikoak baldintzatuko ditu.

Ikasgaia ikuspuntu praktikotik jorratuko da, ikasleen ikaskuntza esanguratsua, eraginkorra eta iraunkorra sustatuz, eta laborategiko trebetasunak garatuz, hala nola, mikroskopioa erabiltzea, organoak disekzionatzea, disekzionatzeko tresnak erabiltzea eta eredu plastikoekin organoak eta aparatuak identifikatzea, aplikazioekin eta simulazio digitalekin…

Laburbilduz, hautazko ikasgai hau garatzeko kontuan hartuko dira ikasleen gaur egungo edota etorkizuneko interesak, motibazioak eta gaitasunak, baita ikastetxean eta inguruan eskuragarri dauden baliabideak ere. Horrez gain, banakako zein taldeko ikaskuntza praktikoa nabarmenduko da.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Giza gorputza “makroegitura global” gisa ulertzea, antolaketa estrukturalaren mailak identifikatuz, giza gorputza osagaiak erlazionatuta eta koordinatuta dituen unitate biologiko gisa aurkezteko.

Giza gorputza ez da organo eta sistemen batura, ingurumen-baldintzen arabera modu harmonikoan funtzionatzen duen eta ingurunearekin materia eta energia trukatzen dituen unitate antolatua baizik. Truke hori iraunkorra da eta bizirik irautea bermatzen du.

Ikasteko antolaketa linealari jarraitzen bazaio ere, konpetentzia espezifiko honen bitartez ikasleek ulertuko dute giza gorputza globalki funtzionatzen duen eta zenbait antolaketa-mailaz osatuta dagoen (biomolekulak, zelulak, ehunak, organoak, organo-sistemak eta organismo osoa) unitatea dela, horrela lortuko baita ikasleek giza organismoaren irudikapen kontzeptuala eraikitzea, sistema konplexua, irekia, koordinatua eta ugaltzeko gaitasuna duen sistema gisa ulertua.

Ezinbestekoa da, hortaz, giza gorputza, gorputza osatzen duten egiturak, organismoaren barruan duten kokapena eta gainerako organoekin ezartzen dituzten erlazioak ezagutzea. Oinarrizko ezagutza horiekin bestetik ezin izango da ulertu, lehenik, haren funtzionamendu egokia eta, ondoren, ager daitezkeen desorekak.

Gainera, kontuan izan behar dugu giza gorputz guztiak desberdinak direla, nahiz eta egitura bera izan; horregatik, gizakiok izaki indibidualak gara, gorputz bakarrak eta errepikaezinak ditugu, eta, beraz, azterketa orokorraz gain, sexu bereko, sexu desberdinetako eta baita bizitzaren etapa desberdinetako gizabanakoen arteko desberdintasunak ere aztertuko dira.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM4, KD4, KPSII2, KPSII4 eta KPSII5.

2. Informazio zientifikoa bilatzea, hautatzea, interpretatzea eta transmititzea, hainbat baliabide eta euskarri erabiliz eta terminologia eta hizkuntza egokia baliatuz, problemak ebazteko eta ikerketa anatomiko-funtzional txikiak egiteko.

Ikerketa zientifiko guztietan beharrezkoa da gaiarekin erlazionatutako informazioa bilatzea, hautatzea eta biltzea, ematen digun informazio mota ezagutzea eta informazio hori baliozkoa eta fidagarria den baloratzea. Ikerketa hainbat iturritatik lortzen den informazioari esker gauzatzen da: iturri inprimatuak (liburuak, artikuluak, tesiak, ikerketa-proiektuak…), digitalak (audioak, bideoak, konferentziak, liburuak…) eta grafikoak (argazkiak, marrazkiak…).

Horregatik, konpetentzia honen bidez lortu nahi da ikasleek anatomiaren eta fisiologiaren gaiei buruzko informazioa autonomiaz aurkitzea, hainbat informazio-iturri erabiliz, eta horiek ulertzea, eta, hala ez bada, hori lortzeko baliabideak bilatzeko gai izatea, eta terminologia egokia erabiliz transmititzea problemak ebaztean, ikerketa txikiak egitean edo kasuak ebaztean

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, STEM2, STEM3, STEM4, KD1, KD2, KPSII1.2 eta KPSII4.

3. Giza gorputzaren errealitatea azaltzeko eskemak eta ereduak egitea, kontzeptu, printzipio eta estrategiak erabiliz egitura anatomikoak eta horien funtzioa ezagutzeko eta hobeto ulertzeko.

IKTen erabilera eta animalia-jatorriko pieza anatomikoen disekzioa dira egitura anatomikoak eta horien funtzioa ezagutzeko eta ulertzeko estrategietako batzuk. Marrazkiak, eskemak edo ereduak egitea giza antolaketa ikusarazteko ezinbesteko tresna da. Hainbat iturritatik lortutako irudiak lagungarriak izan daitezke egitura anatomikoak eta inplikatutako prozesuak ezagutzeko, interpretatzeko eta ulertzeko (mikroskopia optikoaren edo elektronikoaren irudiak, argazkiak, anatomia-marrazkiak, prozesuen ilustrazio eskematikoak, bideoen analisiak, 3D ereduak, errealitate areagotua, adimen artifiziala…).

Konpetentzia honen garapenaren bidez, ikasleak organoen topografiaz, tamainaz, proportzioez, formaz, funtzioaz eta konexioaz jabetzeaz gain, sormena garatu eta sustatu nahi da hainbat bitarteko eta euskarritan, eta, gainera, gure gizartean garatu diren eta garatzen diren adierazpen artistiko eta kulturalak baloratu.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM2, STEM4, KD2, KAKK1 eta KAKK4.1.

4. Anatomiaren eta fisiologiaren zientzia gisako izaera ezagutzea, beste zientzia eta adierazpen artistiko batzuekin duten erlazioa baloratuz, pertsonen prestakuntza integralerako ekarpenak eta gizartearen gaineko ondorioak aintzat hartzeko.

Konpetentzia espezifiko honen bidez, anatomiak eta fisiologiak, zientziak diren aldetik, gure bizi-kalitatean duten garrantzia ulertuko dute ikasleek. Ez da ahaztu behar irakasgai horiek anatomia deskriptibotik, anatomia funtzionaletik, fisiologiatik, biomekanikatik eta patologiatik datozen ezagutzek osatzen dituztela, eta horrek areagotu egiten duela giza gorputzaren ulermena ikuspegi biologiko orokorretik eta arte eszenikoetan errendimendu fisikoa eta artistikoa hobetzearen ikuspuntutik, baita gizabanako gisa egiten ditugun errutinazko jardueren ondorio diren zenbait prozesu patologikoren agerpenaren prebentzioari begira ere.

Hala ere, anatomia eta fisiologia biologia- eta osasun-zientziekin erlazionatuta egoteaz gain, beste irakasgai zientifiko batzuen ekarpenekin aberastu dira eta horien onura jaso dute, diziplina horien azterketa zabaldu, irauli eta erraztu baitute. Horien artean aipa daitezke, besteak beste, elektronika, nerbio-sistemaren azterketan, geologia, batez ere anatomia konparatuan eta fisiologia ebolutiboan, kimika eta bere printzipioak fisiopatologian…

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, STEM4, STEM5, STEM6, KD3, KPSII1.1, KPSII2, KAKK1 eta KAKK2.

5. Laborategian arakatzeko eta problemak ebazteko trebetasunak eta abileziak garatzea, anatomia eta fisiologiako lan esperimentalak eginez, ezagutza eraikitzeko eta ereduak azaltzeko.

Lan esperimentalak egiteak trebetasunak eta abileziak garatzen laguntzen du, eta baliagarria da, halaber, eskuratutako ezagutzak problema praktiko sinple, anatomiko-funtzional eta jarduera fisikoari buruzkoen ebazpenari autonomiaz aplikatzeko.

Mota horretako praktikei esker, ikasleek ezagutza eraiki dezakete informazio-bilaketa, behaketa, analisia eta hausnarketa abiapuntu hartuta. Ikasleek beren ikaskuntza sakona indartzen dute egindako praktiken bidez. Esperimentazio kualitatiboaren inguruko azalpen-ereduak eraikitzeak fenomenoak sakonki ulertzea ahalbidetzen du. Jarduera esperimentalak demostrazioa gainditzen du eta anatomia eta fisiologiaren ulermena errazten du.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KPSII4, KPSII5 eta EK1.

6. Anatomiaren eta fisiologiaren ezagutza giza gorputza zaintzeko zein garrantzitsua den ulertzea, osasunaren eta bizi-hobekuntzaren aldeko ekintzak identifikatuz, ohitura osasungarriak, arduratsuak eta iraunkorrak hartzeko.

Konpetentzia espezifiko honen garapenaren bidez, ikasleek ulertuko dute pertsona bakoitzak osasunaren zaintzan duen erantzukizuna, giza gorputzak, hau da, unitate biologikoak behar bezala funtziona dezan. Horrela, gai izango dira, batetik, anatomikoki eta fisiologikoki onargarria den eta osasuna babesten duen lan fisikoa eta, bestetik, errendimendu fisikoa murrizten duen eta desoreka eragiten duen —eta horrek, aldi berean, gaixotasuna edo lesioa eragin dezake— gorputzaren erabilera txarra bereizteko.

Osasun arduratsuaren aldeko ekintzak identifikatuko dituzte, adibidez, loaren, ergonomiaren, elikaduraren eta jarduera fisikoaren ohiturak, gorputzaren mugez eta beharrez jabetuz, ohitura ez-osasungarriekiko jarrera kritikoa erakutsiz eta pertsonen gorputz-aniztasuna errespetatuz.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM4, STEM5, STEM6, KD4, KPSII2, KPSII5, HK4 eta EK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Anatomia Aplikatua
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Giza gorputzaren antolaketa unitate biologiko gisa deskribatzea, elementuak eta egiturak hainbat formatu eta euskarritan identifikatuz.
1.2. Giza gorputzaren sistemak eta aparatuak osatzen dituzten egiturazko elementuak aztertzea, anatomikoki kokatuz eta analogiak eta ezberdintasunak adieraziz.
1.3. Giza gorputzaren egitura ulertzea eta ezagutzea, molekulei, zelulei, ehunei, organoei eta sistemei dagokienez, bizitzaren etapa ezberdinetan eta sexuen arabera, analogiak eta ezberdintasunak identifikatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Anatomia-problemak ebaztea, informazio zientifikoa behar bezala bilatuz, tratatuz eta komunikatuz eta egiazko iturri fidagarriak aipatuz eta erabiliz.
2.2. Dokumentu-ikerketa txikiak eta kasuak ebaztekoak egitea, bakarka edo taldean, hizkuntza eta terminologia zehaztasunez eta zuzentasunez erabiliz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Egitura anatomikoak aztertzea, eskemak, marrazkiak eta ereduak eginez, organoen forma, topografia, kokapena, antolaketa eta horien arteko lotura kontuan hartuz.
3.2. Laborategian egindako disekzioetan behatuta edo beste iturrien bidez (argazkiak, bideoak, 3D ereduak…) egindako disekzioetan behatuta egitura anatomikoak interpretatzea eta ulertzea, dagokien kontzeptu eta estrategien bidez azalduz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Anatomiak gure gorputzaren ezagutzari egindako ekarpena baloratzea, osasuna hobetzeko eta zaintzeko eta pertsonen prestakuntza integralean duen garrantzia identifikatuz.
4.2. Anatomiaren ekarpenak beste zientzia eta adierazpen artistikoekin erlazionatzea, horietan egindako ekarpena baloratuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Zientziaren prozedurekin bat datozen esperimentu-ikerketarako trebetasunak aplikatzea, ereduak adierazteko eta giza gorputzari buruzko ezagutza sortzeko erabiliz.
5.2. Disekzionatzeko, behatzeko edo problemak ebazteko esperimentu-prozedura behar bezala egitea, laborategiko tresnak, materialak eta ekipoak manipulatuz eta erabilitako ikerketa-teknikei buruzko erabakiak hartuz.
5.3. Jakin-mina, sormena, araketa-jarduera eta espiritu kritikoa adieraztea, jardun zientifikoaren ezaugarri garrantzitsuak direla aintzat hartuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Norbanakoen eta kolektiboaren osasuna hobetzeko ekintzak identifikatzea, horien onurak azalduz eta norberaren ongizatea hobetzeko ondorioak deduzituz.
6.2. Ohitura osasuntsuak sustatzea, bizitzako etapa ezberdinetan bereganatzeko epe labur edo luzeko erronkak edo helburuak planifikatuz.
6.3. Lesioak edo patologiak eragin ditzaketen ohiturekiko jarrera kritikoa adieraztea, horiek prebenitzeko anatomiaren ezagutzak duen garrantzia ulertuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Anatomia Aplikatua
Ikerketa-proiektuak edo kasuen ebazpena
Hipotesiak, galderak, problemak eta aieruak: ikuspegi zientifikoa duen planteamendua.
Informazioa bilatzeko, kolaboratzeko, komunikatzeko eta erakunde zientifikoekin interakzioan jarduteko estrategiak: tresna digitalak, eta prozesuak, emaitzak eta ideiak aurkezteko formatuak (diapositibak, grafikoak, bideoak, posterrak, txostenak eta bestelakoak).

Anatomia Aplikatua
Informazio-iturri fidagarriak: bilaketa, ezagutzea eta erabilera.
Laborategiko esperientzia zientifikoak: diseinua, plangintza eta gauzatzea.
Emaitza zientifikoak analizatzeko metodoak: antolaketa, irudikapena eta tresna estatistikoak.
Komunikazio zientifikoko estrategiak: hiztegi zientifikoa, formatuak (txostenak, bideoak, ereduak, grafikoak eta bestelakoak) eta tresna digitalak.
Laborategiko esperientziak
Laborategian ehunak behatzeko teknikak.
Laborategian egiturak eta organoak disekzionatu eta behatzeko teknikak.
Laborategian jarduera enpirikoaren berezko trebetasunak eta jarrerak. Lankidetza eta erantzukizuna.
Giza gorputzaren antolaketa eta egiturak
– *Anatomia orokorra*: Giza gorputzaren antolaketa. Egitura eta konfigurazioa. Termino deskribatzaileak eta plano anatomikoak.
– *Giza histologia.*
– *Lokomozio-sistema.* Hezurrak. Hezur-ehuna. Hezur motak eta kokapena. Muskuluak. Muskulu motak eta kokapena. Muskulu-zuntzaren antolaketa. Artikulazioak. Motak.
– *Sistema kardiobaskularra eta arnas sistema.* Bihotzaren egitura anatomikoa eta histologikoa. Zirkulazio-aparatuaren ezaugarri orokorrak. Arteria-, zain- eta kapilar--zirkulazioa. Arnas aparatuaren ezaugarri anatomikoak. Biriken propietate fisikoak.
– *Digestio-aparatua. Iraitz-aparatua.* Iraitz-aparatuaren ezaugarri anatomikoak. Gernu-aparatuaren anatomia. Nefronaren egitura.
– *Nerbio-sistema.* Nerbio-sistemaren antolaketa. Nerbio-sistema zentrala eta periferikoa. Nerbio-sistema somatikoa eta begetatiboa. Nerbio-sistemaren zelulak: Neuronak eta neurogliaren zelulak.
– *Ugaltze-sistema.* Bi sexuen ugaltze-sistemaren anatomia. Haurdunaldiaren anatomia. Aldaketa anatomikoak. Giza enbriologia. Enbrioi--garapena eta egiturak.
– *Osasuna eta gaixotasuna* bizitzako etapa ezberdinetan. Giza egitura anatomiko bakoitzarekin lotutako ohiko lesioak eta patologiak. Prebentziorako ohiturak.

ARGAZKIGINTZA

Irudia nonahi dagoen eta saltzeko zein kontzientzia indibidual eta kolektiboa sortzeko erabiltzen den gizarte honetan, manipulazio-arriskua oso handia da. Hori dela eta, argazkigintzari buruzko ezagutzak funtsezko zeregina betetzen du. Ikasleek argazki hizkuntza ikasteko, hainbat kulturatako gizonek eta emakumeek egindako ekoizpenak aztertzen dira. Ikasleek ekoizpen horien asmoa eta mezuak identifikatzen dituzte, eta irudien erabileren eta haiek kontsumitzeko ohituren inguruan kontzientziatzen laguntzen duen iritzi kritiko propioa garatzen dute.

Funtsezko gaitasunak eskuratzeko egiten duen ekarpenari dagokionez, jakintzagaiak, neurri handiagoan edo txikiagoan, gaitasun horiek guztiak garatzen laguntzen du. Izan ere, izaera integratzailea eta askotarikoa du, eta horrek ikaskuntza holistikoa eta konpetentziala errazten du. Lehenik eta behin, kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia zuzenean lotuta dago Argazkigintza jakintzagaiarekin. Hainbat tresnaren eta teknikaren adierazpen-elementuen bidez, ikasleak beren sormen- eta arte-behar propioez jabetuko dira, eta horrek hizkuntza pertsonal bat sortzen lagunduko du. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna beti agertzen dira, argazki-hizkuntza hizkuntza unibertsala baita. Gainera, argazki-ekoizpenak egitean, manipulatzean eta zabaltzean tresna digitalak era kritiko, seguru eta arduratsuan eta pribatutasuna eta iraunkortasuna errespetatuz erabiltzeak konpetentzia digitala garatzen laguntzen du. Irakasgai hau oso lotuta dago STEM konpetentziarekin. “Fotografia”

hitza grekozko “phos” eta “graphé” terminoen konbinazioa da, eta “argiarekin marraztu” esan nahi du. Beraz, argiaren ezagutza ezinbestekoa da argazkigintza ulertzeko. Bestalde, sortzeko prozesuak, beste zenbait kontzepturen artean, ingurune natural eta soziala ulertzea eta azaltzea dakar, eta prozesu horretan ezagutza eta metodologia multzo bat erabiltzen da, behaketa eta esperimentazioa barne, galderak planteatzeko, frogetan oinarritutako ondorioak ateratzeko eta, era horretan, mundu naturala eta testuinguru soziala interpretatu eta eraldatu ahal izateko.

Konpetentzia pertsonalari, sozialari eta ikasten ikastekoari dagokionez, ikasleek ikasiko dute sorkuntza-prozesuan beren erabakien erantzule izaten, akatsa ikaskuntzatzat eta ahalegina helburuak lortzeko baliabidetzat hartzen, gainerakoen iritzia kontuan hartzen, konpromisoaren zentzua eta kolaborazio-lanerako gaitasuna areagotuz, pentsamendu kritikoa izaten eta berrikuntzari garrantzia ematen. Gainera, sortzeko prozesuak eta haren garapenak ikasleen ekimen-zentzua eta ekintzailetza-espiritua sustatzen laguntzen dute.

Aldi berean, 1. mailako jakintzagai honek kode etikoak sortzen saiatu behar du, ikasleak etorkizuneko herritar gisa prestatzeko. Era berean, ikasleak ikusle bihurtzen dira, ez bakarrik kanpoko ekoizpenen ikusle, baita norberaren ekoizpenen ikusle ere, eta horrek lagundu egingo dio ikasleen prestakuntza integralari, apaltasuna, heldutasun emozional, pertsonal eta akademikoa, autokonfiantza eta sozializazioa garatuz; azken batean, haien adimen emozionala.

Jakintzagaiaren egiturari dagokionez, sei konpetentzia espezifiko ezarri dira, eta irakasgai honen laguntzarekin lantzen diren konpetentzia-ikaskuntzak dira. Bi lehenak ikasleek betetzen duten ikusle-zereginari lotuta daude. Garai eta gizarte desberdinetako argazki ekoizpenen ezagutza, ulermena eta analisia sustatzen dute, genero-ikuspegian eta kultura aniztasunean oinarrituta. Hori lagungarria izango da ikasleek argazki-ondarea ezagutzeko eta hartaz jabetzeko, estereotipoak desagerrarazteko, diskurtso kritikoa garatzeko, beren diskurtsoa sortzeko erabilitako hizkuntzak bereganatzeko eta prestakuntza artistikoa zabaltzeko. Ondorengo konpetentziek ikaslearen sorkuntza-zeregina dute ardatz, eta sorkuntza adierazpen indibidual zein kolektibo gisa esperimentatzeko eta erabiltzeko aukera lantzen dute. Horretarako, beharrezkoak dira autoezagutza, besteak ulertzea, argazkigintzako tekniken eta baliabideen plangintza, ezagutza eta aplikazioa, eta kolaborazio-lanari garrantzia ematea.

Ebaluazio-irizpideak konpetentzia espezifikoak ebaluatzen dituzten curriculum elementuak dira. Konpetentzia-orientazio nabariarekin formulatzen dira, jakintzak aplikatzearen eta hainbat jarrera baloratzearen bidez.

Oinarrizko jakintzak sei multzotan antolatuta daude: Orokorrak; Argazkigintzaren bilakaera historikoa; Argia eta kolorea; Argazki-kamera; Laborategia; Irudi digitala.

Irakasgaiko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko, ikasleei argazki-hizkuntzaren bidez eta eskuragarri dauden baliabide guztiak erabiliz adierazpen-esperientzia sorta handia ikertzeko aukera emango dieten ikaskuntza-egoera batzuk beharko dira. Egoera horien garapenean, konpetentzia espezifikoak ez dira independentetzat hartu behar; aitzitik, osotasunean landuko dira, kasu bakoitzean esanguratsuenak diren zereginek esku har dezaten; horrela, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak elkarri lotuta eta pixkanaka eskuratu ahal izango dira konplexutasunari dagokionez.

Irakasgai honen azken helburua ikasleak argazki-sorkuntzara hurbiltzea da. Horretarako, ikasleen sorkuntza-gaitasuna eta beste era batera begiratu, jardun eta egiteko ausardia bultzatuko dira, baliabide propioetatik eta erreferentzia kultural eta artistikoetatik abiatuko den sormen-jokabide bat bultzatuko da, eta emozionalki eta intelektualki azalduko da gure garaia definitzen duen hizkuntzan.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Argazki-hizkuntza mundua ezagutzeko eta ulertzeko baliabide gisa kritikoki ezaguzea, jakin-mina eta errespetua erakutsiz, argazkigintzak hainbat eremutan izan dituen eta dituen erabilerak eta aplikazioak eta pertsonengan eta gizarteetan duen eragina kontuan hartuz, terminologia espezifikoa erabiliz, gizartean betetzen duen funtzioa eta kultura aniztasuna aberastasun-iturri gisa aintzat hartzeko eta argazki-ondarea sustatu eta kontserbatzeko.

Argazki-hizkuntzaren historia eta bilakaera ezagutzea tresna eraginkorra da mundua ezagutzeko eta ulertzeko. Ezagutza horrek honako hauek dakartza: argazki-hizkuntzaren bilakaera historikoa ezagutzea, garrantzi soziala eta kulturala ulertzea, gizarte desberdinetan ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak adierazi eta komunikatzeko dagoen modua errespetatzea, eta erabili den eta erabiltzen den eremuak eta eremu horietan duen balioa identifikatzea. Hori guztia ezinbestekoa da argazki-ondarearen legatua formalki ezagutu ahal izateko, hori balorazioa eta kontserbazioa sustatzeko aldez aurreko urratsa da.

Hizkuntza horren bilakaeraren ulermenak eta ezagutzak, garapen teknologikoarekin eta iruditeria sozialaren eta identitate kolektiboen eraikuntzan duen eraginarekin batera, sortzen den gizarteen ezagutza hobea, toleranteagoa eta errespetuzkoagoa dakar, baita kultura aniztasuna aberastasun-iturri gisa ulertzea ere. Horretarako, funtsezkoa da jakin-min handiko eta errespetuzko ikuspegi kritiko bat. Hori guztia lagungarria da diskurtso propio eta kritiko bat eraikitzeko, estereotipoak desagerrarazteko eta gizaki guztien arteko berdintasuna sustatzeko. Era berean, hiztegi eta terminologia espezifikoa bereganatzeak eta erabiltzeak komunikaziorako gaitasuna hobetzen laguntzen du, gauzak hitz-jario egokiarekin eta zuzentasunez adierazten baitira.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE1, KD1, KPSII1.1, KPSII1.2, HK1, HK3, KAKK1.

2. Hainbat argazki-ekoizpen aztertzea inolako alborapenik gabe, jakin-mina, errespetua eta jarrera irekia agertuz, hizkuntza, elementu teknikoak, adierazkortasuna, asmoa, mezua eta sortu diren testuingurua identifikatuz eta terminologia espezifikoa behar bezala erabiliz, estereotipoak eta konbentzionalismoak desagerrarazteko, irizpide estetikoa eta diskurtso kritikoa eta librea garatzeko eta iruditeria zabaltzeko.

Aztertutako adibideen artean, kultura-aniztasuna eta genero-ikuspegia txertatu behar dira, eta emakumeek egindako arte-ekoizpenen azterketan arreta jarriz. Halaber, emakumeek historian bete duten zeregina aitortu eta benetako berdintasuna bultzatuko da, inolako diskriminaziorik gabe.

Hainbat argazki-ekoizpenen analisiaren bidez, diskurtso kritiko, libre, propio eta errespetuzko bat osatzeko eta gaitasun kritikoa eta estetikoa garatzeko hainbat baliabideak eskuratzen dituzte ikasleek. Argazki-hizkuntzaren elementuak, asmoa, mezua eta ekoizpenen testuingurua identifikatzeak konbentzionalismoak desagerrarazten laguntzen du. Analisi horrek, halaber, hiztegi eta terminologia espezifikoa bereganatzen eta zuzen erabiltzen laguntzen du, eta, horren bidez, ikasleen komunikazio-gaitasuna, hitz-jarioa eta zuzentasuna hobetu egiten da. Horren guztiaren emaitza irizpide estetikoa eta norberaren iruditeria aberasten eta zabaltzen dituen esperientzia artistikoan txertatzen da.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE2, KD1, KPSII1.1, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

3. Argazkigintzako tresnak, euskarriak eta elementuak ezagutzea eta esperimentatzea, autonomiaz eta trebetasunez, adierazteko eskaintzen dituzten aukerak eta arazo bera konpontzeko ematen dituzten irtenbide desberdinak aurkituz, iraunkortasun- eta berrikuntza-irizpideak erakutsiz, eta ahalegina helburuak lortzeko metodo gisa barneratuz, norberaren argazki-hizkuntzan txertatzeko eta pentsamendu dibergentea garatzeko.

Argazkigintzako elementuak ezagutzeak eta haiekin esperimentatzeak haien adierazpen ahalmena ezagutzea errazten du. Ikasleek argazki-hizkuntzaren baliabideak eta konbentzioak ezagutu eta identifikatu behar dituzte, eta, horretarako, garrantzitsua da haiekin esperimentatzea eta berritzea, haien sormen-ahalmen handietan aktiboki sakondu ahal izateko eta ekoizpen-egoera eta ekoizpen-inguruabar desberdinetan autonomiaz moldatzen ikasteko.

Gaur egun, teknologiak irudiak sortzeko eta manipulatzeko aukera ugari eskaintzen ditu. Horregatik, ikasleek modu seguru, osasungarri, iraunkor, kritiko eta arduratsuan erabili behar dituzte tresna digitalak. Tresna horiek sakonean ezagutzea lagungarria da iritzi kritiko propioa osatzeko, eta iritzi horrek, aldi berean, irudi digitalen erabilerez eta kontsumo-ohiturez jabetzen laguntzen du.

Ikerketa hori iraunkortasun-irizpideen arabera egin behar da, ingurumen-inpaktua kontuan hartuz. Halaber, sortutako hondakinak eta ondorengo birziklatzea arduraz kudeatuko dira.

Esperimentazio horren bidez, halaber, irakasgai honen berezko teknikak eta tresnak manipulatu eta erabiltzeko trebetasuna eskuratzen dute ikasleek. Gainera, diziplina- eta lan ohiturak finkatzen dituzte, eta ahalegina helburuak lortzeko metodo gisa barneratzen dute.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM2, KD3, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII5, HK1, EK1, KAKK4.2.

4. Sormenez, jarrera ireki eta positiboz argazki-lanak sortzea, norberaren esperientzietatik edo gai jakin batetik abiatuz, teknika, tresna eta euskarri egokiak hautatuz eta akatsa hobetzeko aukera gisa barneratuz, bere konfiantza, autoezagutza eta autokritikarako gaitasuna sendotzeko.

Sortzeko prozesua prozesu konplexu baten emaitza da, eta beharrezkoak dira, bereziki, introspekziorako gaitasuna eta norberaren pentsamenduak eta sentimenduak kanpora proiektatzeko gaitasuna. Autoezagutza funtsezkoa da sormen-lanean. Aurkitzen dugunaren alderdirik onenak zein gutxien atsegin ditugunak bildu, barneratu eta ulertuko dituen barruranzko begiradarik gabe ezinezkoa da artelan esanguratsu bat egitea. Prozesu horretan, ikasleek esperimentatzen eta barneratzen dute akats bakoitza etorkizuneko arrakastarako urrats bat, bide berri bat eta hobetzeko aukera bat dela.

Sortzeko prozesuan, autonomia garatu, autoezagutza finkatu, autokritika sustatu eta autoadierazpena eraikitzen dugu.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD2, KPSII1.1, KPSII5, EK3, KAKK3.1, KAKK3.2

5. Argazki-ekoizpenak bakarka edo taldeka egitea, iraunkortasun-irizpideak erakutsiz, prozesuaren faseak diseinatuz, erantzukizuna bere gain hartuz eta teknika, tresna eta euskarririk egokienak hautatuz, ekoizpen horiek eskaintzen dituzten aukerak eta talde-lana baloratzeko eta nortasun artistiko zabala eta askotarikoa osatzeko.

Argazki-proiektu artistikoak egitean, ikasleek prozesu oso bat burutu behar dute, ideia sortzen denetik pieza amaitzen den arte. Prozesu horretan, beharrezkoak izango dira honako hauek: ordena eta jarraikitasuna; erantzukizunak bere gain hartzea; enpatia eta ikuspuntu desberdinen balorazioa; hautaketa-irizpideak, beharrezkoak diren trebetasunetan eta proiektuaren beharretan oinarrituta; proiektu horien faseak eta emaitzak ebaluatzeko estrategiak eta abar. Gaitasun horiek, nolanahi ere, oso garrantzitsuak dira bizitzan planteatzen diren erronkei aurre egiteko.

Proiektu horien garapena aukera aproposa izan daiteke ikasleek lanbide-irteerak eta beren etorkizuneko garapenean izan ditzaketen aukerak identifikatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM3, KD3, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, EK3, KAKK4.1, KAKK 4.2.

6. Argazki-ekoizpenak publikoki komunikatzea, sortzeko prozesua zein norberaren lan prozesua, azken emaitza eta espazio birtualen arriskuak eta onurak ebaluatuz, ikusleen erreakzioei buruzko gogoeta irekia eta errespetuzkoa egiteko.

Sortzeko prozesuaren ondoren, argazki-ekoizpenak beste bide bat egin behar du jendaurrean jartzean. Ekoizpen horiek hedatzeko, bide ugari daude, eta eskuragarrienak internetek eskaintzen dituenak dira gaur egun. Beharrezkoa da ikasleek erabilitako espazio birtualen arriskuak ebaluatzea, datu pertsonalak babesteko neurriak ezagutzea eta jabetza intelektualarekiko eta egile-eskubideekiko errespetua ziurtatzea.

Ikasleek, halaber, sortzeko prozesuaren, bertan egindako jardunaren eta azken emaitzaren ebaluazioa egiten dute. Ebaluazio-prozesu hori amaitzeko, ekoizpenaren ikusleen erreakzioari buruzko gogoeta egiten da, modu irekian eta errespetuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM3, KD3, KPSII5, HK1, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Argazkigintza
1. konpetentzia espezifikoa.
1.1 Historian argazkigintzak izan dituen eta dituen erabilerak eta aplikazioak eta haien balioa ezaguzea, jakin-minetik eta errespetutik abiatuz, terminologia espezifikoa behar bezala erabiliz eta kultura-aniztasuna aberastasun-iturri gisa baloratuz.
1.2 Argazki-hizkuntza mundua ezagutzeko eta ulertzeko baliabide gisa kritikoki baloratzea, pertsonengan duen oihartzuna eta gizartean betetzen duen funtzioa aintzat hartuz, terminologia espezifikoa zuzen erabiliz eta, era horretan, argazki-ondarearen kontserbazioa sustatuz.
2. konpetentzia espezifikoa.
2.1 Argazki-hizkuntza, haren elementu teknikoak eta hainbat argazki-ekoizpen adierazkortasuna identifikatzea, jakin-mina erakutsiz, hiztegi eta terminologia espezifikoa behar bezala erabiliz eta irudimena eta zentzu estetikoa zabalduz.
2.2 Hainbat argazki-ekoizpen jarrera irekiarekin eta errespetuz erlazionatzea, asmoa, mezua eta sortu diren testuingurua aztertuz, hiztegi eta terminologia espezifikoa behar bezala erabiliz eta estereotipoak desagerraraziz.
3. konpetentzia espezifikoa.
3.1 Hainbat teknika, tresna eta euskarrirekin esperimentatzea, haien adierazpen-aukerak ezagutuz, arazo berari konponbide desberdina aurkituz eta hondakinak eta haien birziklatzea arduraz kudeatuz.
3.2 Argazki-ekoizpenak egitea, beharrezkoak diren baliabideak, tresnak eta trebetasunak behar bezala eta modu berritzailean erabiliz, aldez aurretik prestatutako proiektura egokituz eta lanean ahalegina eta jarraitutasuna baloratuz.
4. konpetentzia espezifikoa.
4.1 Sormenezko argazki-ekoizpenak norberaren adierazpen- eta komunikazio-asmoarekin egitea, akatsa hobetzeko aukeratzat hartuz eta argazki-adierazpena ingurunea eta bere burua ikertzeko tresna gisa erabiliz.
5. konpetentzia espezifikoa.
5.1 Argazkigintzari lotutako lanbideen adibideak identifikatzea, eskaintzen dituzten aukerak eta lanean sormenak duen balio erantsia ulertuz eta norberaren iritzia era arrazoituan eta errespetuarekin adieraziz.
5.2 Argazki-proiektu artistiko bat sortzea, bakarka edo taldean, fase guztiak planifikatuz, erantzukizunak bere gain hartuz, proiektuaren beharretarako tresnarik eta teknikarik egokienak hautatuz eta kooperazio-lana baloratuz.
5.3 Prozesua eta azken produktua ebaluatzea, aldeko zein kontrako iritziak kontuan hartuz eta aurkitutako zailtasunak eta emandako irtenbide teknikoak baloratuz.
6. konpetentzia espezifikoa.
6.1 Argazki-ekoizpen baten azken emaitza azaltzea, tresna digitalak modu kritiko, seguru eta arduratsuan erabiliz eta ekoizpen horren garapena, aurkitutako zailtasunak, egindako aurrerapenak eta lorpenen balorazioa partekatuz.
6.2 Aurkeztutako argazki-ekoizpenen hartzea modu irekian eta errespetuz aztertzea, iritzi positiboak zein negatiboak kontuan hartuz eta, horretatik arte-hazkunderako ikaskuntza ateraz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Argazkigintza
A. Orokorrak.
Argazkiak egiteko erabilitako argazki-kameren, aparatuen, materialen eta espazioen erabilera eta manipulazio zuzena.
Hiztegi eta teminologia espezifikoaren ezagutza eta erabilera zuzena.
Aniztasunaren balorazioa aberasteko eta estereotipoak desagerrarazteko iturri gisa.
Argazki-hizkuntza mundua ezagutzeko eta ulertzeko baliabidea.
Kultura- eta arte-ondarearen sustapena eta kontserbazioa.
Sentsibilitate artistikoaren eta irizpide estetikoaren garapena.
Jarrera proaktiboa, jakin-min jarrera eta errespetu-jarrera.
Gozamen estetikoa sustatzea eta espiritu ekintzailea, sormena eta pentsamendu dibergentea eta kritikoa finkatzea.
Ingurumen-berrikuntza eta ingurumen-iraunkortasuna, sortutako hondakinen kudeaketa eta birziklatzea.
Tresna digitalen erabilera kritikoa, segurua, adierazkorra eta arduratsua, datuen babesarekiko, jabetza intelektualarekiko eta egile-eskubideekiko errespetua.
Lan-ohituren finkapena, ahalegina helburuak lortzeko metodo gisa.
Akatsa hobetzeko eta ikasteko modutzat hartzea.
Norberaren ezagutza, autonomia, autokonfiantza, autokritika, apaltasuna eta bestearen ulermena sendotzea.
Kolaborazio-lanaren, erantzukizuna, erabakiak hartzea, enpatia eta gainerakoen iritzien baloratzea.
Argazkigintzari lotutako lanbideak.
Ingurune fotografikoak eskaintzen dituen aukerak baloratzea, baita horrek eragiten dituen eraldaketa sozialak eta produktiboak ere. Kontsumo kritikoko ohiturak.
B. Argazkigintzaren bilakaera historikoa.
Argazkigintzaren jatorria.
Argazki-irudikapeneko sistemen bilakaera historikoa, alborapenik gabe. Argazkigintza digitalaren aurrekariak.
Argazkigintzaren historiako une nagusien deskribapena eta analisia.
Argazkigintzak beste arte eta diziplina batzuetan eta gizartean duen garrantzia.
Argazkigintzaren esparruak: artistikoa, fotokazetaritza, argazki-edizioa…
Argazkigintza-generoen sailkapena eta karakterizazioa.
C. Argia eta kolorea.
Argia. Izaera eta ezaugarriak.
Argia. Jatorria: naturala, girotze-argia, artifiziala.
Argia. Hedapena: gogorra, ertaina, leuna.
Argia. Norabidea: zenit-argia, baxua, albokoa, argi-kontrakoa, aurrekoa, hiru puntukoa.
Zuria eta beltza. Kolorea. Kontraste kromatikoa. Argi-koloreak eta materia-koloreak.
Argiaren erabilera egokia, formaren eta kontrastea.
Argiztapena argazkigintzan. Argiaren garrantzia argazki-prozesuan.
Argiztapen-ekipamenduak.
D. Argazki-kamera.
Irudi estenopeikoak eta optikoak. Kameraren printzipioak: kamera iluna eta objektiboak.
Gizakiaren begia eta kamera.
Argazki-kamera. Motak.

Argazkigintza
Lenteak eta objektiboak: objektibo motak eta objektiboaren elementuak.
Esposizioa: diafragma, eremu-sakonera, f zenbakiak, obturadorea…
Enkoadraketa: planoak, angeluak eta konposizioa.
E. Laborategia.
Filmaren errebelatzea. Oinarrizko ekipamendua: errebelatze-tankea, film-karga, errebelatzailea, paro-bainua, finkatzailea, garbiketa eta lehorketa. Ezagutza eta manipulazioa.
Positibatzea: handigailua, argazki-paperaren esposizioa, errebelatzea. Ezagutza eta manipulazioa.
Laborategiko lanaren antolaketa.
F. Irudi digitala.
Argazkigintza digitalaren oinarrizko funtsak.
Irudi digitala hartzeko gailuak. Bereizmena, kuantifikazioa, konpresioa.
Digitalizazioa. Bit-mapa. Kolore-sakontasuna.
Kamera digitala. Oinarrizko elementuak.
Biltegiratze-sistemak. Irudiaren tamaina. Artxibo-formatuak.
Irudien tratamendu digitala. Irudia tratatzeko programak.

ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA

Egungo gizarteen bilakaera bizkorra eta haien askotariko loturak direla eta, gizabanakoei gero eta globalagoa, kulturartekoagoa eta eleaniztunagoa den egungo errealitatearekin konprometitutako herritartasun independente eta aktibo bat gauzatzen lagunduko dieten konpetentziak garatu behar dira. Kultura Demokratikorako Konpetentzien Erreferentzia Esparruan adierazten denez, kulturalki askotarikoak diren egungo gizarteetan prozesu demokratikoek kulturarteko elkarrizketa behar dute. Beraz, hainbat hizkuntzatan komunikatzea funtsezkoa da kultura demokratikoa garatzeko. Europako Hezkuntza Esparruaren ideiaren barruan, hizkuntza bat baino gehiagotan komunikatzeari esker mugak ez dira hezkuntza eta prestakuntzarako oztopo. Horrela komunikatzeko aukerak, gainera, nazioartekotzea eta mugikortasuna bultzatzen ditu eta beste kultura batzuk ezagutzea eta ikasleen ikuspegiak zabaltzea ahalbidetzen du. Horixe da, hain zuzen ere, Batxilergoko etapan atzerriko bigarren hizkuntza bat ikasteko helburua; izan ere, gure autonomia-erkidegoan, beste autonomia-erkidego batzuetan ez bezala, bi hizkuntza koofizialen eta atzerriko lehen hizkuntzaren irakaskuntzari gehitzen zaio.

Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaia eskaintzeak Batxilergoko funtsezko hainbat konpetentzia eskuratzen laguntzen du eta, zuzenean, ikasleen hizkuntza-konpetentziak, eleaniztunak eta kulturartekoak hobetzen, hizkuntzarekin, komunikazioarekin eta zentzu kritikoarekin lotutako gaitasunak garatzen lagunduz, eta hizkuntza-, arte- eta kultura-aniztasuna baloratuz eta errespetatuz. Horrez gain, jakintzagai honek ingurune digitaletan hobeto moldatzea eta atzerriko hizkuntzaren bidez komunikatutako kulturetara hurbiltzea (prestakuntza- eta ikaskuntza-eragile gisa zein informazio- eta gozamen-iturri gisa) ahalbidetzen die ikasleei. Horregatik, jakintzagai honetan, ikaskuntza elementu garrantzitsuak dira, halaber, pentsamendu kritikoaren garapena, informazio-alfabetatzea eta informazio- eta komunikazio-teknologien erabilera egokia, segurua, etikoa eta arduratsua. Hortaz, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna lortzen ez ezik, Batxilergoa amaitzean funtsezko konpetentziak garatzen eta eskuratzen ere laguntzen du Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaiak.

Jakintzagai honek aukera ematen die ikasleei beren hizkuntza-errepertorio indibiduala zabaltzeko. Hartara, haien esperientziak aprobetxatu ahal izango dituzte hobeto komunikatzeko haien familia-hizkuntzetan, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialetan eta atzerriko hizkuntzetan. Jakintzagai hau Batxilergoan ikuspegi eleaniztun batetik landu beharko litzateke. Honek hausnarketa sakona

eskatzen du, hizkuntzaren beraren funtzionamenduari, lexikoari, formanteei, berezitasunei eta ñabarduren inguruan duen aberastasunari buruz ez ezik, EAEko irakaskuntza-hizkuntzei eta ikasleen banakako hizkuntza-errepertorioa osatzen dutenei buruz ere. Horrela, hausnarketa metalinguistikoa eta interlinguistikoa bultzatzen dute, eta hizkuntza-konpetentziak indartzen, hizkuntza-aniztasuna balioesten eta hizkuntzen arteko erlazioa bultzatzen dute, ikuspegi inklusibo, demokratiko eta aurreiritzirik gabeko batetik.

Bestalde, hizkuntzak ikastearen oinarrizko helburua da etapa bakoitzaren berezko komunikazio-egoeretara egokitutako askotariko testuak era koherente, kohesionatu eta zuzenean ulertu eta ekoizteko gaitasuna garatzea, bizitza osoko ikaskuntzarako oinarriak finkatzeko, testuinguru formaletan, informaletan eta ez-formaletan. Hizkuntza erabiltzen ikastea problemak aztertzen eta ebazten, planak egiten, erabaki-prozesuei ekiten eta komunikazio-egoera bakoitzerako estrategia egokiak erabiltzen ikastea ere bada. Horrenbestez, edukia eta hizkuntza integratu beharko dira, eta, ildo horretan, diziplinarteko lana, ikas egoeren bidez planteatua, ezinbestekoa izango da ikasleek jakintzagai bakoitzaren berezko diskurtso-generoak beregana ditzaten.

Curriculum hau guztiz konpetentziala denez, jakintzagai hau sei konpetentzia espezifikotatik abiatuz diseinatu da, Atzerriko Hizkuntzaren curriculumean planteatu diren berberak, eta horiek diziplina honetako lanaren ardatz izango dira. Batxilergoko konpetentzia espezifiko horiek ulermeneko, ekoizpeneko, elkarrekintzako eta bitartekaritzako komunikazio-jarduerekin lotutako alderdiak biltzen dituzte, baita eleaniztasunarekin eta kulturartekotasunarekin lotutakoak ere.

Bestalde, oinarrizko jakintzek jakintzagaiko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko beharrezkoak diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea) biltzen dituzte, eta irizpideen bitartez ikaskuntzak ebaluatzeko aukera errazten dute. Hiru multzotan egituratuta daude. *Komunikazioa* multzoan biltzen dira ulermen, ekoizpen, elkarrekintza eta bitartekotzako komunikazio-jarduerak garatzeko abian jarri behar diren jakintzak —informazio-iturrien bilaketarekin eta kontsultatutako iturrien kudeaketarekin lotutakoak barne—. *Eleaniztasuna* multzoak hizkuntzen funtzionamenduari buruz gogoeta egiteko gaitasunarekin lotzen diren jakintzak biltzen ditu, atzerriko hizkuntza ikasten eta ikaslearen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzak hobetzen laguntzeko. Azkenik, *Kulturartekotasuna* multzoan atzerriko hizkuntzaren bidez bideratzen diren kulturei buruzko jakintzak biltzen dira, eta aberasteko eta gainerakoekin harremanetan jartzeko aukera gisa baloratzen da. Multzo horretan sartzen dira, halaber, beste hizkuntza, hizkuntza-barietate eta kultura batzuk ulertzeko eta balioesteko interes-jarrerak garatzera bideratutako jakintzak.

Batxilergoko etapan Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaia hautazko jakintzagaia da. Gainera, ikasten ari diren ikasleek lehenago ere izan dezakete harremana jakintzagaiarekin, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan nahitaez eskaini beharreko aukerako jakintzagaien artean baitago. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (HEEEB) erreferentea da jakintzagaiaren curriculum-elementuak garatzeko eta berdintzeko. Curriculumeko elementu horiek ikasleen heldutasunera eta garapen psikoebolutibora egokitzen dira pixkanaka, eta jakintzagai honekin lehen harremana duten ikasleei zuzenduta daude. Horregatik, Atzerriko bigarren hizkuntzaren jakintzagaiko irakasleek curriculuma doitu eta egokitu beharko dute ikasleek izan ditzaketen mailen aniztasunera. Hori kontuan hartuta, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak erreferente gisa erabili behar dira, bai ikasleen abiapuntua hautemateko, bai amaierako maila ebaluatzeko. Horrela, ikasleek banaka izandako aurrerapen-maila ezartzen lagunduko da.

HEEEB-k planteatzen duen ekintzara bideratuta dagoen eta metodologia eklektikoen erabilera sustatzen duen ikuspegiari jarraikiz, curriculum honen konpetentzia-izaerak atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa sendotzeko tresna digitalak erabiltzera eta hizkuntzen tratamendu integratua kontuan hartuko duten diziplinarteko eta testuinguruan kokatutako zeregin esanguratsuak eta garrantzitsuak sortzera bultzatzen ditu irakasleak. Ikasleak gero eta autonomoagoa izango den eta beren ikaskuntza-prozesuan gero eta ardura handiagoa duen eragile sozialtzat hartuko dira. Etapa honetan, nazioz haraindiko kolaborazio-proiektuak txertatu behako lirateke, aurreiritzirik gabeko Europako herritartasun demokratiko baten eraikuntza bultzatuko duten Europako programen esparruan.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Oinarrizko diskurtso-generoetako testuak, hizkuntza estandarrean eta argi adierazitakoak, ulertzea eta interpretatzea, iturri fidagarriak bilatuz eta esanahiak inferitzeko estrategiak erabiliz, betiere zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzeko eta komunikazio-egoera zehatzetan horien edukia baloratzeko.

Ulermenak informazioa jasotzea eta prozesatzea dakar. Batxilergoko Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaian ulermena komunikazio-trebetasuna da, eta ikasleentzako garrantzi pertsonala duten eguneroko gaiei buruzko eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko testuetan, testu idatzietan eta multimodaletan oinarrituta garatu behar da.

Maila honetan, Atzerriko Bigarren Hizkuntzaren ulermenak berarekin dakar testuak ulertu eta interpretatzea, eta zentzu orokorra eta xehetasunik garrantzitsuenak ateratzea, testuen komunikazio-beharrak asetze aldera. Horretarako, garapen psikoebolutiborako eta ikasleen premietarako egokienak diren estrategiak aktibatu behar dira, testuaren esanahiaren eta zentzuaren errepresentazioa berreraikitzeko eta testu horien azpian dagoen komunikazio-asmoari buruzko hipotesiak formulatzeko.

Ikasleentzako ulermen-estrategiarik baliagarrienen artean, honako hauek aipa daitezke: esanahien inferentzia eta egiaztapena, hitzik gabeko lementuen interpretazioa, testuen azpian dauden iritziei eta asmoari buruzko hipotesien formulazioa eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen ezagutza, trebetasun eta jarreren transferentzia eta integrazioa. Testuaren asmoari buruzko hasierako hipotesia egiaztatzea eta, beharrezkoa izanez gero, ikasleei hipotesi alternatiboak planteatzea ahalbidetzen dieten hainbat irudikapen motaren (idazketa, irudia, grafikoa, taulak, diagramak, soinua, keinuak eta abar), testuinguru-informazioaren (hizkuntzaz kanpoko elementuak) eta informazio kotestualaren (hizkuntza-elementuak) interpretazioa biltzen ditu ulermenak.

Estrategia horiez gain, iturri fidagarriak euskarri analogikoetan zein digitaletan bilatzea oso metodo baliagarria da ulermenerako, informazioa egiaztatu, balidatu eta sostengatzea eta testuetan oinarrituta ondorio garrantzitsuak lortzea ahalbidetzen baitu. Ulertzeko eta interpretatzeko prozesuetarako, aurreiritzi eta estereotipoen identifikazio kritikoa eta desberdintasun eta antzekotasun etnokulturalekiko interesa bultzatuko duten komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dira.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KE2, STEM4, KD1, KPSII5, KAKK2.

2. Oinarrizko eta eguneroko diskurtso-generoetako testu originalak ekoiztea, hedadura ertainekoak, errazak eta antolaketa argikoak, planifikazioa, konpentsazioa edo autokonponketa gisako estrategiak erabiliz, betiere mezu garrantzitsuak sormenez, egokitasunez eta koherentziaz adierazteko eta komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.

Ekoizpenak ahozko adierazpena, idatzizkoa zein multimodala biltzen ditu. Etapa honetan, ikasleentzat garrantzi pertsonala duten eguneroko gaiei buruzko testuak idatzi eta azaldu behar dira, sormenez, koherentziaz eta egokitasunez. Etapa honek zenbait formatu eta euskarritako ekoizpenak barne har ditzake: deskribapen edo pasadizo txiki baten azalpena, hedapen handiagoko aurkezpen formala, argudio sinple bat, edo egitateak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak eta sentimenduak tresna digital eta analogikoen bidez adierazten dituzten testuak idaztea. Ekoizpenak, halaber, interneteko informazioaren bilaketa aurreratua dakar, dokumentazio-iturri gisa. Formatu multimodalean, ekoizpenak esanahia sortzeko baliabideen baterako erabilera aurreikusten du (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak eta abar), baita komunikatzeko, kolaborazioan lan egiteko eta informazioa partekatzeko gailu digitalen, tresnen eta aplikazioen hautaketa, konfigurazioa eta erabilera ere, sareko ekintzak, presentzia eta agerikotasuna arduraz kudeatuz.

Testugintzarekin lotutako jarduerek funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte esparru pertsonalean, sozialean, hezkuntzakoan eta profesionalean, eta balio sozial eta zibiko zehatza lotzen da horiekin. Hainbat euskarritako ekoizpenik formalenetan lortutako trebetasuna komunikazioaren konbentzioen eta diskur-

tso-ezaugarririk ohikoenen identifikazioaren eta esperientziaren bidezko ikaskuntzaren emaitza da. Etapa honetan, ekoizpenak oinarritzen dira oinarrizko alderdi formalen ikaskuntzan (alderdi linguistikoagoak, soziolinguistikoagoak eta pragmatikoagoak), erabilitako generoarekin lotutako ohiko itxaropen eta konbentzioen ikaskuntzan, hizkuntzaren erabilera etikoaren ikaskuntzan, sormenezko ekoizpen-tresnen ikaskuntzan eta erabilitako euskarriaren ikaskuntzan. Ekoizpen formala zein informala hobetzeko aukera ematen duten estrategiek honako hauek biltzen dituzte etapa honetan: plangintza, autoebaluazioa eta koebaluazioa, atzeraelikadura eta monitorizazio, balidazio eta konpentsazio autonomoa eta sistematikoa.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KPSII5, KAKK3.1.

3. Beste pertsona batzuekin gero eta autonomia handiagoz elkarreraginean aritzea, kooperazio- estrategiak erabiliz, baliabide analogikoak eta digitalak erabiliz eta kortesia arauak errespetatuz, betiere komunikazio-asmo zehatzei erantzuteko.

Elkarrekintzak bi parte-hartzaile edo gehiago inplikatzen ditu diskurtso bat osatzeko garaian. Pertsona arteko elkarrekintza hizkuntzaren jatorritzat hartzen da, eta pertsona arteko funtzioak, kooperatiboak eta transakzionalak biltzen ditu. Beste pertsona batzuekiko elkarrekintzan, honako hauek esku hartzen dute: hizkuntza-adeitasunak, netiketak, komunikazioaren hitzezko eta ez-hitzezko elementuek, eta ahozko erregistro eta genero dialogikoetarako, idatzizkoetarako eta multimodaletarako egokitzapenak. Hezkuntza-etapa honetan, elkarrekintzak ikasleentzat garrantzi pertsonala duten eguneroko gaiak lantzea espero da.

Konpetentzia espezifiko hau funtsezkoa da atzerriko bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan, honako estrategia hauek barne hartzen baititu: hizkuntzen arteko transferentziak; kooperazio-estrategiak; elkarrizketa hasi, eutsi edo amaitzekoak; hitz egiteko txandak lagatzekoak eta hartzekoak; eta argitzea edo errepikatzea eskatzekoak. Elkarrekintza, gainera, ezinbesteko jarduera da kooperazio-lanean. Izan ere, lan horretan, zereginak eta erantzukizunak modu zuzen, eraginkor, errespetuzko eta enpatikoan banatu eta onartzeko zeregina helburu partekatuak lortzera bideratuta dago. Horrez gain, hizkuntza-adeitasunari eta netiketari buruzko arauak eta printzipioak ikasi eta aplikatzeak herritartasun demokratikoa, arduratsua, errespetuzkoa, segurua eta aktiboa gauzatzeko prestatzen ditu ikasleak.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE2, KD3, KPSII3.1, KPSII3.2, HK3, KAKK3.1.

4. Hizkuntzen arteko edo hizkuntza bereko erregistroen arteko bitartekotza egitea eguneroko egoeretan, kontzeptuak azaltzera edo mezuak sinplifikatzera bideratutako estrategia eta ezagutza errazak erabiliz, informazioa era eraginkor, argi eta arduratsuan helarazteko eta komunikazioa erraztuko duen giro positiboa sortzeko.

Bitartekotza hainbat estrategiatan (hala nola birformulazioan) oinarrituta mezuak edo testuak ahoz edo idatziz azaltzean eta haien ulermena erraztean datzan hizkuntza-jarduera da. Bitartekotzan, ikasleek gizarte-eragile gisa jardun behar dute, eta beren ardura izango da zubiak sortzea eta mezuak modu dialogikoan eraikitzea, hizkuntza desberdinen artean ez ezik, hizkuntza beraren modalitate edo erregistroen artean ere bai.

Batxilergoan, Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaian bitartekaritza, batez ere, hiru alderditan zentratzen da: Alde batetik, hizkuntzak komunikazio-testuingurutik sortzen diren erronkak konpontzeko tresna gisa duen rolean, komunikaziorako eta ikaskuntzarako espazio eta baldintza egokiak sortuz. Bestalde, bitartekaritzak kooperazioa eta besteen parte-hartzea sustatzea eskatzen du, esanahi berriak eraikitzeko eta ulertzeko. Azkenik, bitartekotzak informazio berria era egoki, arduratsu eta konstruktiboan helaraztea dakar. Horretarako, baliabide konbentzionalak zein aplikazio edo plataforma birtualak erabil daitezke edukiak itzultzeko, aztertzeko, interpretatzeko eta partekatzeko. Etapa honetan, mezuak edo testuak garrantzi pertsonala duten eguneroko gaiei buruzkoak izango dira. Formatu multimodalean, birformulazioak edo bitartekotzak esanahia sortzeko hainbat baliabideren interpretazioa eta erabilera bateratua biltzen ditu: idazkera, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak, etab.

Bitartekotzak ikasleen pentsamendu estrategikoa garatzen laguntzen du; izatez, komunikazio eraginkorra lortze aldera, ikasleek beren errepertorioko trebetasun eta estrategiarik egokienak zuzen aukeratzea dakar bitartekotzak. Gainera, informazioa trukatzen den ingurune kooperatiboetan norberaren eta beste pertsona batzuen parte-hartzea errazten du. Era berean, eskura dauden baliabideak aitortzea eta besteen motibazioa eta enpatia sustatzea eskatzen du, eta, horrekin, solaskideen motibazioak, ideiak eta egoera pertsonalak ulertzea eta errespetatzea eta norberarenekin harmonizatzea. Hori dela eta, enpatia, errespetua, espiritu kritikoa eta zentzu etikoa funtsezko elementuak dira bitartekotzan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE2, KE3, STEM4, KPSII3.1, KPSII3.2, EK1.

5. Norberaren hizkuntza-errepertorioa mobilizatzea eta erabiltzea, errepertorio hori osatzen duten hizkuntza eta aldaera bakoitzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoa eginez eta norberaren ezagutzak eta estrategiak esplizitu eginez eta partekatuz, betiere atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasuna eta komunikazio-behar zehatzei eman beharreko erantzuna hobetzeko.

Hizkuntza-errepertorioaren erabilera eta haren funtzionamenduari buruzko gogoeta hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztunari lotuta daude. Ikuspegi eleaniztunaren abiapuntua da ikasleek ezagutzen dituzten hizkuntzekin dituzten esperientziak hizkuntza berrien ikaskuntza zabaltzeko eta hobetzeko oinarria direla, eta hizkuntza-errepertorio eleaniztuna eta jakin-min eta sentsibilizazio kulturala garatzen eta aberasten laguntzen dietela.

Batxilergoko etapan, eta zehazkiago errepertorioa hizkuntza bat gehiagorekin zabaltzen duen jakintzagai honetan, ezinbestekoa da ikasleek hizkuntzen funtzionamenduari buruzko gogoeta egitea eta haien banakako errepertorioak sistematikoki alderatzea. Horretarako, antzekotasunak eta desberdintasunak aztertuko dituzte, hizkuntza horietan ezagutzak eta estrategiak zabaltze aldera. Era horretan, hizkuntza berrien ikaskuntza erraztu eta komunikaziorako konpetentzia hobetuko da. Hizkuntzei eta haien funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoak eta sistematikoak ikasleek hizkuntzen arteko erlazioak ulertzea dakar, eta hizkuntza- eta komunikazio-esparruan dituzten indarrak eta gabeziak identifikatzen laguntzen du. Ikasleak, gainera, ezagutza eta estrategia propioez jabetuko dira, eta esplizitu egingo dituzte. Ildo horretan, ziurgabetasunari aurre egiteko eta ekimenaren zentzua eta helburuak lortzean edo erabakiak hartzean beharrezkoa den jarraikitasuna garatzeko trebetasunak ere beharko dira.

Gainera, hainbat hizkuntza eta aldaera ezagutzeak gizartearen hizkuntza-aniztasuna alderdi aberasgarri gisa kritikoki baloratzea eta aniztasun horretara egokitzea ahalbidetzen du. Norberaren hizkuntza--errepertorioari buruzko eduki berriak sortu eta txertatzeko gailu eta tresna analogikoak zein digitalak hautatzeak, konfiguratzeak eta aplikatzeak beste hizkuntza batzuk eskuratzeko eta hobetzeko zeregina erraztu dezakete.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, KD3, KPSII1.1, KPSII5.

6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna modu kritikoan baloratzea eta aniztasun horretara egokitzea, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta partekatuz, betiere kulturarteko egoeretan enpatiaz, asertibotasunez eta errespetuz jokatzeko eta elkar ulertzea sustatzeko.

Kulturartekotasunak gizartearen hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna esperimentatzea, aztertzea eta hari etekina ateratzea dakar. Batxilergoko etapan, kulturartekotasunak gainerakoekin ulertzea errazten du, eta arreta espezifikoa merezi du. Izan ere, ikasleek herritartasun arduratsua, errespetuzkoa eta konprometitua gauzatzeko oinarriak finkatzen ditu, eta estereotipo eta aurreiritzien ondorioz kulturartekotasunaren pertzepzioa desitxuratuta egotea eta hori diskriminazio mota jakin batzuen jatorria izatea eragozten du. Balorazio kritikoak eta aniztasunera egokitzeak kulturarteko egoeretan enpatiaz, errespetuz eta arduraz jokatzea ahalbidetu behar diete ikasleei.

Aniztasunaz jabetzeak hainbat kulturaren arteko lotura ezartzeko aukera ematen die ikasleei. Gainera, sentsibilitate artistiko eta kulturalaren garapena bultzatzen du, baita beste kultura batzuetako pertsone-

kin harremanak ezartzea ahalbidetuko duten estrategia ugari identifikatu eta erabiltzeko gaitasuna ere. Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan planteatu daitezkeen kulturarteko egoerek (Europako programen esparruan, adibidez) esperientzia, ideia, gizarte eta kultura berrietara irekitzeko, desberdinarekiko interesa agertzeko, norberaren ikuspegia eta kultura-balioen sistema bera erlatibizatzeko eta diskriminazio mota orotan oinarritutako jarreren edo estereotipoen sendotzearen ondorioak baztertzeko eta ebaluatzeko aukera ematen diete ikasleei. Hori guztia kultura partekatu bat eta iraunkortasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasuna bultzatzeko eta justifikatzeko helburuarekin garatu behar da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, KPSII3.1, HK3, KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Etapa honetan, hizkuntza-mailan landu beharreko testuek garrantzi pertsonaleko gaiei eta esperientziatik hurbil dauden eguneroko gaiei buruzkoak izan behar dute, pertsonen arteko harremanen, ikaskuntzaren, hedabideen eta fikzioaren arloetakoak, eta ikasleen heldutasun-mailari egokituak.

Atzerriko Bigarren Hizkuntza
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Modu argian eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko, idatzizko zein testu multimodal labur eta errazen zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzea eta aztertzea eta informazio egokia hautatzea, berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.
1.2. Gero eta luzeagoak eta errazak diren testuen edukia eta diskurtso-ezaugarriak kritikoki interpretatzea eta baloratzea.
1.3. Modu argian eta hizkuntza estandarrean adierazitako testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasunik garrantzitsuenak ulertzeko, esanahiak inferitzeko eta hitzik gabeko elementuak interpretatzeko eta baliotasunari, kalitateari, gaurkotasunari eta fidagarritasunari lotutako irizpideak aplikatuz informazioa bilatu, hautatu, egiaztatu eta era egoki eta seguruan biltegiratzeko komunikazio-egoera bakoitzean egokienak diren estrategiak eta ezagutzak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Komunikazio-egoerarako egokiak diren testu errazak, ondo egituratuak, ulergarriak eta koherenteak ahoz adieraztea behar besteko zuzentasunez, arintasunez, ahoskeraz eta intonazioz, zenbait euskarritan deskribatzeko, kontatzeko, argudiatzeko eta informatzeko, betiere hitzezko baliabideak eta hitzezkoak ez direnak erabiliz eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eginez.
2.2. Gero eta luzeagoak izango diren testuak idaztea eta zabaltzea, behar bezalako argitasunez, koherentziaz, kohesioz, zuzentasunez, sormenez eta proposatutako komunikazio-egoerara eta erabilitako tresna analogiko eta digitaletara egokituz, banaka edo kooperazioan, hainbat iturritako informazioa eta ideiak modu koherentean birformulatuz eta antolatuz, jabetza intelektuala errespetatuz, plagioa saihestuz eta hizkuntzaren erabilera etikoa eginez.
2.3. Testu ongi egituratuak eta komunikazio-asmoetara, testuinguru-ezaugarrietara, alderdi soziokulturaletara eta testu-tipologiara egokituak osatzeko plangintza, ekoizpen, berrikuspen eta kooperazioko ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren eta testua zuzenduta dagoen solaskide erreal edo potentzialen arabera egokienak diren baliabide fisikoak edo digitalak erabiliz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Egoera interaktibo sinkrono edo asinkronoetan plangintza egitea eta aktiboki kolaboratzea, hainbat euskarriren bidez, honako hauek bezalako baliabidetan oinarrituz: errepikapena, erritmo pausatua edo ez-hitzezko hizkuntza; iniziatiba, jarrera kritikoa, sormena, enpatia eta errespetua erakutsiz kortesia linguistikoarekiko eta netiketarekiko, baita solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioekiko ere.
3.2.Komunikazioa hasi , jarraitu eta amaitzeko, hitza hartu eta emateko, argibideak eta azalpenak eskatu eta formulatzeko, transakzioetan eta kudeaketetan moldatzeko, eskaintzak eta iradokizunak egiteko, eta eguneroko egoeretan arazoak birformulatzeko, alderatzeko, kontrastatzeko eta konpontzeko estrategia egokiak hautatzea, antolatzea eta erabiltzea, malgutasunez eta hainbat ingurunetan.

Atzerriko Bigarren Hizkuntza
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Aniztasuna kontuan hartu beharreko eguneroko egoeretan testu, kontzeptu eta komunikazio laburrak eta sinpleak interpretatzea eta azaltzea, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta estimazioa agertuz eta, hainbat baliabide eta euskarritan oinarrituta, elkar ulertzeko ohiko problemen ebazpenean parte hartuz.
4.2. Zubiak sortzen lagunduko duten, komunikazioa erraztuko duten, testuak, kontzeptuak eta mezuak azaltzeko eta sinplifikatzeko baliagarriak izango diren eta komunikazio-asmoetarako, testuinguru-ezaugarrietarako, alderdi soziokulturaletarako eta testu-tipologiarako egokiak izango diren estrategiak aplikatzea, baliabide eta euskarri fisikoak edo digitalak erabiliz, zereginaren eta solaskideen aldez aurreko ezagutzaren arabera.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Hainbat hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatzea, hizkuntzen funtzionamenduari buruz sistematikoki gogoeta eginez eta haien arteko loturak ezarriz.
5.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko eta hizkuntza horretan komunikatzeko gaitasuna hobetzen lagunduko duten estrategiak eta ezagutzak ekimenez eta sormenez erabiltzea, beste solaskide batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzarekin edo gabe.
5.3. Atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzaren inguruko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta haiei buruzko gogoeta egitea, zailtasun horiek gainditzeko eta ikaskuntza indartzeko estrategiarik egokienak eta eraginkorrenak hautatuz, ikaskuntzaren beraren, autoebaluazioaren eta koebaluazioaren plangintza-estrategien eta plangintza-tresnen bidez, hala nola Hizkuntzen Portfolio Europarraren (HPE) bidez edo ikaskuntza-eguneroko batean proposatutakoen bidez, aurrerapen eta zailtasun horiek esplizitu eginez eta partekatuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Kulturarteko egoeretan modu egoki, enpatiko eta errespetuzkoan jokatzea, hizkuntza eta kultura desberdinen artean loturak eraikiz, diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipo mota oro baztertuz eta ebaluatuz, eta komunikazioa zailtzen duten faktore soziokulturalak zuzenduz.
6.2. Atzerriko hizkuntzan hitz egiten den herrialdeen berezko hizkuntza-aniztasuna, aniztasun soziokulturala eta arte-aniztasuna kritikoki baloratzea, gozamen eta aberastasun pertsonaleko iturritzat hartuz giza eskubideei dagokienez, eta aniztasun horretara egokitzea, kultura partekatu baten eta iraunkortasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasun baten garapena bultzatuz eta justifikatuz.
6.3. Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna defendatu eta estimatzeko estrategiak sistematikoki aplikatzea, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz eta justiziaren, ekitatearen eta berdintasunaren printzipioak errespetatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Atzerriko Bigarren Hizkuntza I eta II
A. Komunikazioa.
Ahozko, idatzizko eta testu multimodal labur eta errazen ulermena (aurrea hartzea, egiaztapena, dedukzioa, zalantzen argitzea, ulertzeko arazo propioen identifikazioa eta abar), produkzioa eta koprodukzioa (informazioaren plangintza eta bilaketa, testua lantzeko zeregina, berrikuspena eta autozuzenketa) planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta zuzentzeko estrategiak. *
Eguneroko egoeretan bitartekotza-jarduerak egitea ahalbidetzen duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak. *
Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako oinarrizko komunikazio-funtzioak: agurtzea, agur esatea, aurkeztea eta nork bere burua aurkeztea; pertsonak, objektuak, lekuak, fenomenoak eta gertakariak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; eguneroko gaiei buruzko informazioa eta informazio pertsonala eskatu eta trukatzea; jarraibideak eta aginduak eman eta eskatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaini, onartu eta errefusatzea; gustua, nahia edo interesa eta oinarrizko emozioak modu partzialean adieraztea; iraganeko gertaera puntualak eta ohikoak kontatzea, unean uneko egoerak deskribatzea eta etorkizuneko egoerak adieraztea; iritzia, aukera, ahalmena, obligazioa eta debekua adieraztea; ziurgabetasuna eta zalantza adieraztea. *
Testuinguru-ereduak eta oinarrizko diskurtso-generoak ahozko testuak, testu idatziak eta multimodalak ulertzeko, sortzeko eta koproduzitzeko, gero eta luzeagoak eta konplexuagoak, literarioak eta ez-literarioak: testuinguruaren ezaugarriak eta aintzatespena (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako itxaropenak; generoaren, testu-funtzioaren eta egituraren araberako antolaketa eta egituraketa. *

Atzerriko Bigarren Hizkuntza I eta II
Erabilera orokorreko hizkuntza-unitateak eta hauei lotutako esanahiak, hala nola entitatearen adierazpena eta haren propietateak; kantitatea eta kualitatea; espazioa eta espazio-erlazioak, denbora eta denbora-erlazioak; baieztapena, ukapena, galdera eta harridura, erlazio logikoak. *
Ikasleek erabili ohi duten eta beren interesekoa den lexikoa, alderdi hauei buruzkoa: norberaren identifikazioa; pertsonen arteko harremanak, harreman sozialak, akademikoak eta profesionalak; toki eta inguruneak; denbora eta espazioa; aisia eta denbora librea; egoerak, ekitaldiak eta gertakariak; osasuna eta jarduera fisikoa; eguneroko bizitza; etxebizitza eta etxea; klima eta ingurune naturala; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eskola-sistema eta prestakuntza. *
Erabili ohi diren soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroi horiei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmo orokorrak. Oinarrizko alfabeto fonetikoa. *
Erabili ohi diren konbentzio ortografikoak eta formatu, patroi eta elementu grafikoei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmoak.*
Erabili ohi diren elkarrizketa-konbentzio eta -estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasi, mantendu eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, berriro formulatu, alderatu eta kontrastatzeko, laburtzeko, kolaborazioan aritzeko, eztabaidatzeko eta abar. *
Baliozko informazioa, kalitatekoa, egungoa eta fidagarria bilatu eta hautatzeko baliabide analogiko eta digitalak eta estrategia aurreratuak, eta edukiez arduratzea: hiztegiak, kontsulta-liburuak, liburutegiak, mediatekak, sareko etiketak, baliabide digitalak eta informatikoak, etab. *
Kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien gaineko jabetza intelektuala eta egile-eskubideak: datu bibliografikoak tratatzeko tresnak eta plagioa saihesteko baliabideak. *
Ahozko ulermen, produkzio eta koprodukziorako, idatzizkorako eta multimodalerako tresna analogikoak eta digitalak; eta proiektuak atzerriko hizkuntzako hiztunekin edo ikasleekin ikasi, komunikatu eta garatzeko hezkuntza-arloko elkarrekintza, kolaborazio eta kooperazioko plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, kolaborazio-tresna digitalak eta abar). *
B. Eleaniztasuna eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.
Autokonfiantza, ekimena eta asertibitatea. Autozuzenketa- eta autoebaluazio-estrategiak, atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza autonomoan aurrera egiteko baliabide gisa. *
Komunikazio-behar jakin bati gero eta arintasun, egokitzapen eta zuzentasun handiagoz eta eraginkortasunez erantzuteko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzako eta norberaren hizkuntza-errepertorioko gainerako hizkuntzetako konpetentzia-mailaren ondoriozko mugen gainetik. *
Ikasteko baliabideak, eta hizkuntza-unitateak identifikatu, antolatu, gogoan gorde, berreskuratu eta sormenez erabiltzeko estrategiak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak eta abar), hizkuntza-errepertorio pertsonala osatzen duten hizkuntzen eta aldaeren konparaziotik abiatuz. Maileguak, kalkoak eta transferentzia negatiboak. *
Autoebaluazio, koebaluazio eta autozuzenketarako eta atzerriko hizkuntzaren ikaskuntzaren inguruko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzeko estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak. Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE). *
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntzari) buruzko enuntziatuak ulertzeko eta haien inguruan gogoeta egiteko erabili ohi diren lexikoa eta esamoldeak. *
Atzerriko hizkuntzaren eta ikasleen hizkuntza-errepertorioko beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta hizkuntzen arteko konparazio sistematikoa egiteko estrategiak: jatorria eta ahaidetasunak. *
Kooperazio-estrategia sinpleak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartzeko jarraibideak. Gatazken kudeaketa. *
C. Kulturartekotasuna.
Atzerriko hizkuntza herrien arteko komunikaziorako eta elkar ulertzeko baliabide gisa, beste kultura eta hizkuntza batzuetara hurbiltzeko bideratzaile gisa eta parte-hartze sozialerako eta aberaste pertsonalerako tresna gisa. *
Atzerriko hizkuntzako hiztunekin edo ikasleekin hainbat baliabide erabiliz, ahoskera, erritmo eta intonazio egokiarekin, erabilera komuneko konbentzio ortografikoak eta sozialak errespetatuz eta testuen aurkezpena zainduz komunikazio-elkartrukeak egiteko eta atzerriko hizkuntzan hitz egiten den herrialdeetako kultura-informazioak ezagutzeko interesa eta ekimena. *
Erabili ohi diren atzerriko hizkuntzaren berezko kultura-patroiak. *
Erabili ohi diren eguneroko bizitzari, bizi-baldintzei eta pertsonen arteko harremanei buruzko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak; erabili ohi diren gizarte-konbentzioak; hitzik gabeko hizkuntza, hizkuntza-kortesia eta netiketa; atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako berezko historia, geografia, kultura, arauak, jarrerak, ohiturak eta balioak. *

Atzerriko Bigarren Hizkuntza I eta II
Atzerriko bigarren hizkuntzaren aldaerak munduan.
Atzerriko bigarren hizkuntza Euskal Herrian eta bere eragina euskaran.
Hizkuntzen egoera Europan. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak, menderatzaileak, menderatuak. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna.
Balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko estrategiak. *
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak detektatu eta baztertzeko eta haien aurrean jarduteko estrategiak. *
Literatura-testuaren eta irakurketaren balorazioa gozamen-iturri gisa, arte- eta kultura-adierazpenetarako hurbilketari eta hizkuntza-aberastasunari eta aberastasun pertsonalari begira.

ELEKTRONIKA

Elektronika fisikaren adar gisa defini daiteke, nahiz eta, bere garapenagatik, ingeniaritzaren espezializazio gisa ere defini daitekeen. Elektroien edo elektrikoki kargatutako beste partikula batzuen fluxuaren eroapenean eta kontrolean oinarritzen diren sistemak aztertzen eta erabiltzen ditu. Horrela, elektronikaren azterketak bere oinarri diren printzipio fisikoen azterketa eta bere aplikazio praktiko anitzak biltzen ditu.

Gaur egun, sistema elektronikoak giza jarduera gehienetan daude, bai lan-inguruneetan, bai ingurune pertsonalean. Zalantzarik gabe, elektronikaren garapenak duela urte gutxi batzuk pentsaezinak ziren aurrerapen teknologikoak ahalbidetu ditu. Baina, era berean, zalantzarik gabe, garapen horrek eragin kaltegarria du gizartean edo jasangarritasunean.

Beraz, beharrezkoa da errealitate hori Batxilergoko ikasleei hurbiltzea, jakintza zientifikoak eta teknikoak haien eskura jarriz, gai jakin batzuen aurrean jarrera kritikoak hartzeko eta egungo gizartean sortzen diren problemen eta beharren aurrean arduraz, sormenez, konpromisoz eta eraginkortasunez jokatzeko gai izateko.

Curriculumak Elektronikarako lehen hurbilketa proposatzen du DBHko etapan —Teknologia eta Digitalizazioa eta Teknologia irakasgaien bidez—, eta Batxilergoko 1. mailan, diziplina hau eta bere aplikazioak aztertzen jarraitzen da Teknologia eta Ingeniaritza jakintzagaian.

Batxilergoko 1. mailako jakintzagai hau ikasteak elektronikaren eta horrekin lotutako prozesu teknologikoen oinarrietan sakontzeko aukera ematen die ikasleei, konpetentzia-ikuspegi batekin etapako helburuak lortzen eta dagozkien funtsezko konpetentziak eskuratzen laguntzeko. Horri dagokionez, batez ere matematikarako konpetentziarekin eta zientzia, teknologia eta ingeniaritza konpetentziarekin lotutako alderdiak garatzen ditu, baita gainerako funtsezko konpetentziekin lotutako beste trebetasun batzuekin erlazionatutakoak ere: konpetentzia digitala, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, konpetentzia eleaniztuna, konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa, ekintzailetza-konpetentzia, herritartasunerako konpetentzia, eta kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

Konpetentzia espezifikoen helburua da ikasleek —elektrizitatearen printzipioak aztertuz eta analizatuz, kalkuluak eta neurketak eginez, zirkuitu elektronikoak interpretatuz, diseinatuz, simulatuz, muntatuz eta ondoren ebaluatuz edo proiektuak garatuz— trebetasun nahikoak garatzea planteatutako problemei erantzuna emango dieten sistema elektronikoak aztertzeko, diseinatzeko edo aldatzeko, inplementatzeko eta ebaluatzeko, beste diziplina batzuetako jakintzak transferituz, modu kritiko, konprometitu eta ar-duratsuan, ekimena, lankidetza-espiritua eta inplikazioa erakutsiz garapen irisgarri eta jasangarriarekin, maila globalean eta tokikoan.

Hori guztia garatuko da, ikasleak elektronikaren berezko prestakuntza-, ikerketa- eta lan-ingurunera hurbilduz —ikuspegi inklusibotik eta ez-sexistatik—, arlo honetan bokazio profesionalak sustatzeko asmoz.

Horretarako, oso interesgarria da ikasleei erakustea Euskadin elektronikarekin lotutako zer jardue-ra garatzen diren ikasketa-zentro, enpresa edo zentro teknologikoen mailan (I+G+B).

Irakasgai honen ebaluazio-irizpideak konpetentzia-orientazio nabarmenarekin formulatzen dira, ikasleek hainbat problemari aurre egiteko eta proiektuak garatzeko diziplina arteko jakintzak modu estrategikoan erabil ditzaten. Horretarako, bereziki azpimarratzen dira problemak ebaztea, esperimentazio eta ikerketa zientifikoa, dokumentazio teknikoaren eta tresna digitalen erabilera hainbat lan egiteko, talde-lana, plangintza, erabaki arduratsuak hartzea eta jarrera konprometitua eta errespetuzkoa.

Jakintzagaia 7 oinarrizko jakintza multzotan antolatzen da, eta horien edukia nagusiki praktikoak diren jardueren edo proiektuen garapenaren bidez erlazionatuko da.

– «Elektronika: eboluzioa eta egungo egoera» multzoa elektronikaren arloko bilakaera teknologikoan eta bere aplikazioetan zentratzen da, eta ikasleak elektronikaren sektorera maila globalean eta tokikoan hurbilduz

– «Zirkuitu eta osagai elektrikoak» multzoak elektronika aztertzeko beharrezkoak diren zirkuitu elektrikoei buruzko funtsezko alderdi batzuk aurkezten ditu.

– «Elektronika analogikoa», «Elektronika digitala» eta «Sistema elektroniko programagarriak. *Automatizazioa»* multzoek elektronikaren berezko alderdi kontzeptualak eta prozedurazkoak biltzen dituzte, eta problema teknologikoetarako soluzioak asmatzeko edo proiektuak egiteko oinarri gisa balio dute.

– Azken bi multzoak —*«Tresna digitalen erabilera eta informazioaren kudeaketa»* eta «Zentzu sozioemozionala»— zeharkakoak dira, eta garatu beharreko edozein jardueran edo proiektuan une oro presente egon behar duten prozeduretan eta jarreretan eta balioetan oinarritzen dira.

Jakintzagaiaren garapenean konpetentzien ikuspegia finkatzeko, komenigarria da jakintza hauek testuinguruan kokaturiko ikas-egoerak dakartzaten diziplinarteko proiektuetan bildu ahal izatea. Proiektu horietan, ikasleek beren ezagutzak eta trebetasunak transferitu eta aplikatu ahal izango dituzte, premia jakin bati irtenbidea emateko. Premia horrek jatorria testuinguru pertsonal edo sozial batean izan dezake, maila lokalean edo globalean, eta jarrera konprometitua eta kritikoa izatea eskatzen du. Horrela, besteak beste, hezkuntza-ingurunearen eta beste gizarte-, ekonomia- edo ikerketa-sektore batzuen arteko loturak sortu nahi dira.

Jakintzagaiari eman behar zaion ikuspegi konpetentziala eta praktikoa kontuan hartuta, oso interesgarria da tailer edo laborategi moduko espazio bat izatea, aurretik deskribatutako jarduera praktikoak garatu ahal izateko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Elektronikaren arloan berrikuntza teknologikoa historian zehar aztertzea, jasangarritasun- edo irisgarritasun-irizpideak aplikatuz, komunikazioen, industriaren edo medikuntzaren garapenari egiten dion ekarpena zentzu kritikoz baloratuz, diziplina honek eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko eta ulertzeko, baita gaur egun arlo horretan egiten diren lanak ere.

Gaur egungo gizarte teknologizatuan gero eta beharrezkoagoak dira jakintza zientifikoak eta teknikoak, jarduera ugari eraginkortasunez garatu ahal izateko eta arlo pertsonalean zein lan-arloan egoera desberdinei aurre egiteko oinarri gisa. Ezagutza honek aukera ematen du zenbait gairen aurrean jarrera kritikoak hartzeko eta planteatzen diren problemen eta beharren aurrean arduraz, sormenez eta eraginkortasunez jokatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau garatzean, ikasleak gai izan daitezke elektronikak, hainbat aplikazioren bidez, garapen teknologikoari egiten dion ekarpena baloratzeko. Era berean, produktu elektronikoen garapen- eta ekoizpen-prozesuaren, jarduera horrek jasangarritasun-mailan duen eraginaren eta sektoreak maila globalean eta tokian-tokian eskaintzen dituen aukeren ikuspegi orokorra garatuko du.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM4, STEM5, STEM6, KD1, KD3, KD4, KD5, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK4, EK1.

2. Zirkuitu elektroniko analogikoetan eta digitaletan erabiltzen diren seinale elektrikoak deskribatzea, horiek definitzen dituzten magnitudeak kalkulatuz eta/edo neurtuz, hauek erabiltzen dituzten sistemen erantzunak ondorioztatzeko.

Ariketa soil bat edo problema teknologiko konplexuago bat ebazteko, diziplina zientifiko desberdinek eskaintzen dituzten teknikak, prozedurak eta jakintzak aplikatu behar dira.

Konpetentzia espezifiko honen helburua da, batetik, ikasleek matematikan eskuratutako trebetasunak edo elektrizitatearen oinarriak erabiltzea problema elektriko eta elektronikoen magnitudeen eta aldagaien balioak kalkulatzeko, eta, bestetik, magnitude elektrikoen hainbat neurketa egitea, muntaia edo simulazio sinpleen bidez, eskuratutako ezagutzak finkatzeko tresna gisa.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM4, KD3, KD5, KPSII4, KPSII5, EK1.

3. Zirkuitu elektronikoen eskemak interpretatzea, haien multzo funtzionalak aztertuz eta osagaiak dokumentazio teknikoarekin lagunduta deskribatuz, eta kalkuluak eta/edo neurketak eginez, beharrezkoa denean, horiek hobetzeko edo egokitzeko proposamenak egiteko.

Konpetentzia espezifiko honen helburua da ikasleei zirkuitu elektroniko analogiko zein digitalen eskemak ulertzeko, interpretatzeko eta, hala badagokio, aldatzeko beharrezko trebetasunak ematea.

Konpetentzia hau garatzeko, ikasleek sinbologia elektriko eta elektronikoa, dokumentazio teknikoa eta horren hizkuntza eta irudikapen grafikoak ezagutu beharko dituzte. Osagai diskretuak zein zirkuitu integratuak ezagutzeko gai izan beharko dute, eta horien konexio-moduak ulertu beharko dituzte. Era berean, zirkuituen multzo funtzionalak identifikatu beharko dituzte eta horietako bakoitzak betetzen duen funtzioa ulertu beharko dute, kasuan kasuko sistema elektronikoaren funtzionamendua ondorioztatzeko sarrera, irteera edo prozesuko elementuak diren zehaztuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM4, KD3, KD5, KPSII4, KPSII5, EK1.

4. Sistema elektronikoak diseinatzea, programatzea eta simulatzea, hainbat tresna digital erabiliz, kalkuluak eta neurketak eginez, parametro desberdinen aldaketak printzipio funtzionalen arabera duen eragina aztertzeko eta emaitzak espero direnetara egokitzeko.

Konpetentzia espezifiko honek ekintza jakin batzuk automatikoki gauzatzeko sistema elektronikoak sortzeari egiten dio erreferentzia, ezagutza zientifiko-teknologikoak eta pentsamendu konputazionalaren printzipioak aplikatuz.

Lehenik eta behin, ikasleek funtzio edo zeregin bat automatizatuko duen sistema elektroniko bat diseinatu behar dute. Sistema elektronikoei elementu programagarriak gehitzeak soluzio gehiago inplementatzea ahalbidetzen du. Horrela, ikasleek hainbat zeregin automatizatu ahal izango dituzte, hala nola eragingailuei eragitea, robot baten elementuen mugimendua kontrolatzea eta abar, kontrol-txarteletan exekutatu daitezkeen programa informatikoak inplementatuz. Simulazio-tresnen bidez, diseinatutako sistemaren funtzionamendua behatuko da, asmatu zenerako eskakizunak betetzen dituen egiaztatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, KD3, KD5, KPSII4, KPSII5, EK1, EK3.

5. Zirkuitu elektroniko sinpleak muntatzea eta ebaluatzea, diziplina honetan eta beste batzuetan eskuratutako kontzeptuzko eta prozedurazko ezagutzak transferituz, lanaren faseak antolatuz, segurtasun-arauak kontuan hartuz eta beharrezkoak diren egiaztapenak eta neurketak eginez, aurreikusitako funtzionamendua eta emaitzak lortzeko.

Konpetentzia espezifiko honek aurrez diseinatutako eta simulatutako zirkuitu elektronikoak inplementatzea eta ondoren horiek ebaluatzea eta doitzea planteatzen du.

Ikasleak diseinatutakoa gauzatzeko gai izatea lortu nahi da, ikasitakoa transferituz, plangintza bati jarraituz, eta laneko eta segurtasuneko arauak kontuan hartuz. Muntaia egin ondoren, hainbat egiaztapen eta doikuntza egin behar dituzte zirkuituak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko, azken emaitza eta jarraitutako prozedura ebaluatuz eta hobetzeko proposamenak eginez.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, KD3, KD5, KPSII4, KPSII5, EK1, EK3.

6. Informazioaren tratamendu egokia egitea, tresna digitalak zuzen eta arduraz erabiliz, diziplinarteko jakintzak estrategikoki transferituz eta aplikatuz, ezagutzak sortzeko, trebetasun teknikoak hobetzeko, problemak kalkulatu eta ebazteko, edo ideiak testuinguru desberdinetan jarrera sortzailearekin zabaltzeko.

Informazioaren eta komunikazioaren gizartean ezinbestekoa da informazioa kudeatzeko trebetasunak izatea. Ikerketa edo informazioa bilatu eta hautatzearekin lotutako jardueretan, ezinbestekoa da haren jatorria eta egokitasuna baloratzeko gai izatea, haren egiazkotasuna kontrastatzea eta haren analisi kritikoa egitea. Halaber, beste batzuekin elkarrekin aritzeak aukera ematen du ideiak trukatzeko eta haiei buruz hausnartzeko, kolaboratzeko, kooperatzeko, ezagutza berriak sortzeko eta finkatzeko, komunikazioa irakasgai zientifiko-teknologikoak ikasteko ezinbesteko elementu bihurtuz.

Konpetentzia honek informazioaren tratamenduari eta ideiak zenbait bitarteko erabiliz komunikatu eta adierazteari buruzko alderdiak jorratzen ditu, eta arreta berezia eskaintzen dio tresna digitalen erabilerari. Gainera, irakasgai zientifiko-teknikoa denez, tresna digitalen erabilera beste helburu batzuetara ere hedatzen da. Horrela, sistema elektronikoak diseinatzeko eta simulatzeko edo kontrolatzeko tresna digitalak funtsezko tresna bihurtzen dira ariketa errazak ebazteko, esperimentatzeko eta ikertzeko jarduerak egiteko edo proiektuak garatzeko eta horiei buruzko dokumentazioa egiteko eta zabaltzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5, KPSII4, KPSII5, EK3.

7. Trebetasun pertsonalak eta gizarte-trebetasunak erabiltzea, motibazioa eta emozioak autorregulatuz eta errorea edo ziurgabetasuna ikaskuntza-prozesuaren parte gisa ulertuz, erantzukizunak hartuz, enpatia erakutsiz, aktiboki entzunez eta elkarrizketa gatazkak kudeatzeko tresna gisa baloratuz, zenbait zeregin banaka edo taldean garatzeko aldez aurreko plangintza bati jarraikiz.

Egungo gizartean, beharrezkoa da trebetasun pertsonalak eta gizarte-abileziak garatzea, eguneroko bizitzako hainbat egoeratan moldatzeko.

Konpetentzia espezifiko honek jarrerekin eta autorregulazioarekin lotutako alderdiak kontuan hartzen ditu. Horrela, konpetentzia hau garatzeak berekin dakar autokonfiantza eta ekimena erakustea edo, arazoei aurre egitean, estilo kognitiboa, motibazioa eta emozioak autorregulatzea. Era berean, erabakiak modu arrazoitu eta adostuan hartzeari, prozesuak planifikatzeari, gauzatzeari, ebaluatzeari eta optimizatzeari eta talde-lanari lotutako alderdiak jasotzen ditu, zenbait jarduera garatzean parte-hartze aktiboa eta arduratsua sustatuz. Azkenik, inklusioaren, errespetuaren, entzute aktiboaren, asertibitatearen eta hizkuntzaren erabilera ez-diskriminatzailearen garrantzia azpimarratzen du, talde-ongizatea eta harreman osasungarriak sustatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, STEM3, STEM5, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK2, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Electronika
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Elektronikak historian zehar zientziak eta teknologiak aurrera egiteko izan duen ekarpena baloratzea, elektronikaren objektuak une egokian kokatuz, eta jasangarritasuneko eta ingurumen-inpaktuko irizpideak kontuan hartuz.
1.2. Elektronikako aplikazio-arloak eta produktuak identifikatzea, gaur egun toki-mailan eta maila globalean elektronikarekin lotuta garatzen diren jarduerak kokatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Seinale elektriko motak identifikatzea, haien balio bereizgarriak adieraziz eta seinale-forma desberdinak bereiziz.
2.2. Zirkuitu elektrikoetan kalkuluak egitea, magnitude elektrikoen balio bereizgarriak erlazionatzen dituzten algoritmoak behar bezala aplikatuz.
2.3. Zirkuitu elektrikoen funtzionamendua azaltzea, tentsio zuzenean zein alternoan, hainbat parametroren neurketak eginez.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Zirkuitu elektroniko baten osagaiak identifikatzea eta bere zehaztapen teknikoak interpretatzea, horien funtzioa deskribatuz.
3.2. Zirkuitu elektronikoak aztertzea, multzo funtzionalak adieraziz eta multzo bakoitzak osotasunean duen funtzioa identifikatuz.
3.3. Zirkuitu elektronikoetan kalkuluak eta/edo neurketak egitea, emaitzak interpretatuz eta zirkuituaren portaera ondorioztatuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Hainbat zehaztapen betetzen dituzten zirkuitu elektronikoak diseinatzea, tresna desberdinak erabiliz.
4.2. Funtzio desberdinak betetzen dituzten sistema elektronikoen funtzionamendua kontrolatzea, programazio-lengoaiak eta tresna digitalak erabiliz.
4.3. Zirkuitu elektronikoen simulazioak egitea, hainbat parametro aldatuz eta lortutako emaitzak doituz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Zirkuitu elektronikoak muntatzea edo dagoeneko muntatuta daudenetan aldaketak egitea, eskema bati jarraituz, osagai elektronikoak behar bezala konektatuz, erremintak behar bezala erabiliz eta muntaian segurtasun-arauak errespetatuz.
5.2. Hainbat zirkuitu elektronikoren funtzionamendua aztertzea eta ebaluatzea, neurketak eta doikuntzak eginez eta lortutako emaitzak aurreikusitakoekin kontrastatuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Proposatutako zereginak eta esleitutako funtzioak modu egokian ebaztea, hainbat tresna digital erabiliz eta konfiguratuz eta, hala badagokio, programatuz, diziplinarteko ezagutzak autonomiaz aplikatuz, modu kritikoan, seguruan, arduratsuan eta jabetza intelektualarekiko errespetuz.
6.2. Hizkuntza zientifiko-teknikoa, ahozkoa nahiz grafikoa, hainbat testuinguru eta formatutan ezagutzea eta interpretatzea, hainbat iturritatik datorren informazioa aurkituz, hautatuz eta kontrastatuz, eta haren egokitasuna ebaluatuz, integratuz eta ezagutzan eraldatuz.
6.3. Ideiak, proposamenak edo soluzioak modu eraginkorrean eta antolatuan komunikatzea eta zabaltzea, ikuspegi sortzailea hartuz, ikasitakoa transferituz eta hizkuntza teknikoa —ahozkoa zein grafikoa— erabiltzean euskarri, terminologia eta zorroztasun egokiak erabiliz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Helburuak lortzeko jarraikitasuna eta motibazio positiboa erakustea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, beste diziplina batzuetako ezagutzak transferituz eta errorea edo kritika arrazoitua ikaskuntza-prozesuaren parte gisa ulertuz.
7.2. Talde heterogeneoetan modu aktibo eta arduratsuan parte hartzea, erabakiak adostasunez hartuz, lanaren plangintzan eta garapenean lagunduz, testuinguru analogiko eta digitaletan esleitutako rolaren bidez.
7.3. Zereginak talde heterogeneoetan zuzen banatzen laguntzea, gainerako kideen arrazoibideak aktiboki entzunez, ideiak eta iritziak asertiboki emanez eta talde-ongizatea eta erlazio osasungarri eta inklusiboak sustatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Electronika
A. Elektronika: eboluzioa eta egungo egoera
Sistema elektronikoen eboluzioa. Garapen-etapak. Gizarte-eragina eta ingurumen-inpaktua.
Sistema elektronikoen aplikazioak. Arlo teknologikoak: telekomunikazioak, erregulazioa eta kontrola, informazioa tratatzeko sistemak, nanoteknologia…
Produktu-arloak: elektronika industriala, kontsumoko elektronika, elektromedikuntza, automobilgintzako elektronika, beste batzuk. Produkzio-prozesuak: osagaiak, ekipoak eta sistemak.
B. Zirkuitu eta osagai elektronikoak
Magnitude elektrikoak: erresistentzia, tentsioa, intentsitatea eta potentzia.
Kalkuluak korronte zuzeneko eta korronte alternoko zirkuitu elektrikoetan.
Osagai pasiboak: motak, ezaugarriak eta aplikazioak.
Osagai aktiboak: motak, ezaugarriak eta aplikazioak.
Beste osagai batzuk: erresistentzia aldakorrak, gailu optoelektronikoak, erreleak…
Seinale elektrikoen neurketa eta behaketa. Neurgailuak. Erabiltzeko arauak.
C. Elektronika analogikoa
Kommutazio-zirkuituak. Transistorea kommutazioan. Multibibratzaileak, osziladoreak. 555 zirkuitu integratua.
Artezketa, iragaztea, egonkortzea eta erregulazioa. Elikadura-iturriak.
Anplifikazio-zirkuituak. Transistorea anplifikazioan. Anplifikadore integratuak.
Eskemen interpretazioa. Osagaien eta multzo funtzionalen identifikazioa.
Zirkuituen diseinua, simulazioa eta ebaluazioa. Kalkuluak eta neurketak.
Zirkuituen muntaketa.
D. Elektronika digitala
Kode bitarra. Booleren aljebra.
Funtzio logikoak. Ate logikoak.
Zirkuitu konbinazionalak.
Zirkuitu sekuentzialak.
Eskemen interpretazioa. Osagaien eta multzo funtzionalen identifikazioa.
Zirkuituen diseinua, simulazioa eta ebaluazioa.
Zirkuituen muntaketa.
Konbertsio analogiko-digitala eta digital-analogikoa.
E. Sistema elektroniko programagarriak. Automatizazioa
Sistema automatikoak eta kontrolekoak. Txartel programagarriak. Ezaugarriak eta elementuak.
Prozesuen automatizazio programatua: diseinua, programazioa, simulazioa edo muntaketa eta ebaluazioa.
F. Tresna digitalen erabilera eta informazioaren kudeaketa
1. Tresna digitalak.
Diseinuko eta simulazioko tresnak, laborategi birtualak…
2. Dokumentazio teknikoa.
Informazio teknikoaren bilaketa, interpretazioa eta hautaketa: osagai elektronikoen ezaugarriak (Data Sheets), katalogo eta eskuliburu teknikoak, segurtasun-arauak…
Sinbologia elektrikoaren eta elektronikoaren interpretazioa.
Diagrama funtzionalen eta eskemen interpretazioa.

Electronika
3. Ideien / soluzioen komunikazioa eta hedapena.
Txostenen eta dokumentazio teknikoaren elaborazioa.
Hizkuntza teknikoaren erabilera eta datuen adierazpen grafikoa.
Sinbologia elektrikoaren eta elektronikoaren erabilera.
Diagrama funtzionalen eta eskemen prestaketa.
G. Zentzu sozioemozionala
1. Jarrerak eta autorregulazioa.
Estilo kognitiboaren, motibazioaren eta emozioen autorregulazioa. Ekintzailetza, erresilientzia, jarraikitasuna eta sormena.
Autokonfiantza eta ekimena. Errorearen tratamendua (banakakoa edo kolektiboa) eta berrebaluazioa jakintzak mugiarazteko eta ikasteko aukerak sortzeko elementu gisa.
2. Erabakiak hartzea, plangintza eta talde-lana.
2.1. Erabakiak hartzea.
Problemak ebazteko hainbat aukera ezagutzeko, onartzeko eta ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko oinarrizko trebetasunak.
2.2. Plangintza.
Ideien, zereginen eta proiektuen bideragarritasunaren planifikazioa eta analisia.
Planifikatutakoaren gauzatzea eta, hala badagokio, doikuntza (epeak, materialen zaintza eta erabilera egokia…).
Planifikatutakoaren eta egindakoaren ebaluazioa eta hobekuntza-proposamenen garapena (prozesuaren optimizazioa).
2.3. Talde-lana.
Talde heterogeneoetako lan-teknikak eta -estrategiak. Zereginetan kolaboratu eta kooperatu ingurune fisiko zein birtualetan.
Erantzukizunak bere gain hartzeko jarraibideak. Lidergo banatua.
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna.
Komunikazio eraginkorra garatzeko trebetasunak; enpatia, entzute aktiboa eta asertibitatea.
Hizkuntzaren erabilera ez-diskriminatzailea. Estereotipo sexisten identifikazioa.

EUSKAL HERRIKO HISTORIA

Hezkuntza-sistemaren xedea herritar gogoetatsuak eta sortzaileak prestatzea da, gure gizartea gero eta anitzagoa eta aldakorragoa baita. Alde batetik, honek areagotzen du nerabezaroan irudimentsuki pentsatzeko gaitasuna sustatzearen beharra, premia berriei egokitzeko. Bestalde, gizarte demokratikoek kognitiboki prestatutako eta emantzipatutako pertsonak behar dituzte, balio demokratikoak defendatzeko gai direnak.

Aro Garaikidea hasi arte antolatutako *Euskal Herriko Historia* jakintzagaia ikasteko aukerak, Batxilergoko 1. mailan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako *Geografia eta Historia*ren konpetentzia-garapenaren prozesuari jarraitutasuna emateaz gain, Batxilergoko bigarren mailako *Espainiako Historia* ardatz-jakintzagaiaren parte den Euskal Herriko Historia garaikidea ulertzen lagunduko die ikasleei. Halaber, eskualde-mailan iragana aztertzeak gure egungo bizitza soziala, politikoa eta ekonomikoa ulertzeko duen garrantzia definitzen du, egungo munduan zentzua hartzen duten tresna kontzeptualak eskaintzen dizkigulako. Are gehiago, jakintzagaiak gazteen adimenaren garapen orekaturako beharrezkoak diren datuak eta jarduera intelektuala errazten dituzten tresna kontzeptualak ematen dizkigu. Beraz, eztabaidaezina da *Euskal Herriko Historia* lantzeko beharra, pentsamendu eta judizio analitiko askerako gaitasuna sustatzen laguntzen duen irakasgai gisa.

Historiak, gertakarietan eta ondorengo hausnarketetan oinarrituta, nor garen eta zergatik garen jakiten laguntzen digu. Eta horrek guztiak baliabideak ematen ditu baloratzeko, alderatzeko eta digresio pertso-

naletan oinarritutako pentsamendu kritikoa erabiltzeko. Beraz, ondoriozta daiteke, irakasgai honetako Oinarrizko jakintzak irakasteak barne hartzen dituela, ez bakarrik iraganeko garaiei buruzko ezagutzak, baizik eta gertaeretatik abiatutako gogoeta egitea eta iraganaren eta orainaren arteko erlazioak bilatzea ere. Hau da, hurbilen dugunaren ezagutzan oinarrituta, gizartean aurrera egiten lagunduko duten herritar zentzudunak, moldagarriak eta pentsakorrak sortzeko tresnak. Euskal Herriaren iraganaren berezitasunak kontuan hartzea eta testuinguru globalarekin duten lotura, historikoki eta egungo ikuspegian oinarrituta, ikustea zentzuzkoa eta koherentea ez ezik, beharrezkoa ere bada.

Irakasgai honek honako konpetentzia hauek garatzen laguntzen du zuzenean: Herritartasunerako konpetentzia -kultura politikoa, pentsamendu kritikoa eta herritarren parte-hartze aktiboa garatzen laguntzen baitu- eta Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa -gertaerak erlazionatzen, hausnartzen eta aldaketetara egokitzeko eta bizitza osoan zehar ikaskuntza kudeatzeko beharrari erreparatzen irakasten du eta-. Halaber, Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako konpetentzia lantzen du. Izan ere, gure Ondarerik hurbilenaren adierazpen oro ezagutzeak sentsibilizatu egiten du, eta ondare hori kontuan hartzera, errespetatzera, estimatzera eta harekin gozatzera bultzatzen du.

Zeharka bada ere, diziplina honek Ekintzailetza-konpetentzia garatzen du. Izan ere, laguntza ematen die ikasleei, gizakiaren bilakaera gure hurbileko, lehenaldiko eta gaur egungo kultura-ingurunean ezagutuz eta erronka politiko, ekonomiko edo sozialak kontuan harturik, bizitzan zehar aurre egin beharko dieten beharrak, erronkak eta aukerak onartzen, gaur egun globalizatuta dagoen eta etengabe aldaketak jasaten dituen mundura egokitu ahal izateko. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari eta Konpetentzia eleaniztunari egiten dion ekarpena ukaezina da, bai edozein hizkuntzatan komunikazioa informazioa helarazteko ezinbestekoa delako, bai, kasu honetan, euskararen beraren berezitasun historikoagatik. Bestalde, Konpetentzia digitala funtsezkoa da, zalantzarik gabe, irakasgai hau lantzeko. Azkenik, *Euskal Herriko Historia* jakintzagaiak Matematikarako konpetentzia eta Zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia (STEM) garatzen ere laguntzen du, metodo zientifikoak, arrazoibide logikoa eta irudikapen matematikoa erabiltzen baitira informazioa aztertzeko eta problemak ebazteko garaian.

Historia osoan jakintza-diziplina guztiak gizakiak etengabe planteatutako galderei eta erronkei erantzuteko garatu direla kontuan hartuta, Industrializazioaren Historiaren eta Euskal Herriko ekonomia eta teknologiaren arteko erlazioaren adibidea, besteak beste, ukaezina da.

Horri guztiari Historiaren diziplinartekotasuna gehitzen badiogu, gainerako irakasgaiekin batera lan egiteko aukera ematen duena, gure ingurune hurbileko iragana ezagutzeko beharraren ondorioa —egungo munduan kokatzeko eta hura ulertu, zaindu, aberastu eta dituen xehetasun ugariez gozatzeko— saihestezina bihurtzen da. Historian zehar, jakintza-diziplina guztiak gizakiok etengabe planteatzen ditugun galderei eta erronkei erantzuteko garatu direla kontuan hartuta, Industrializazioaren Historiaren eta Euskal Herriko Ekonomia eta Teknologiaren arteko erlazioaren adibidea, besteak beste, ukaezina da.

Batxilergoko lehen mailan zehar, *Oinarrizko jakintzen* bidez egindako lanaren bitartez eskuratzen eta garatzen joango diren trebetasunei *Konpetentzia espezifikoak* deitzen zaie. Konpetentzia espezifikoen helburua da ikasleak, dagokion hiztegi teknikoa behar bezala erabiliz, iturri historiografikoak, webgrafikoak eta historikoak baliatuz eta Euskal Herriaren historia XIX. mendera arte hartzen duen pixkanakako lan-eta ikaskuntza- prozesu batean, gai izatea historian garrantzitsuak izan diren gai historikoak, ekonomikoak, politikoak, sozialak eta kulturalak edozein formatutan ikertzeko eta haien inguruan argudiatzeko, baita egungo egoera kontuan hartuta ere; lurralde- eta administrazio-antolamenduko ereduak ezagutzeko; lurraldean aplikatu diren sistema ekonomikoak azaltzeko; portaera demografikoak eta bizimoduetan, bizi-zikloetan eta biztanleriaren banaketan gertatutako aldaketak deskribatu eta aztertzeko; Aro Garaikidera arteko lotura kolektiboak eta konfigurazio eta herentzia sozial, politiko eta kulturalaren elementu gisa bete duten zeregina bereizteko; gatazka politiko, sozial eta erlijioso nagusiak ezagutzeko eta testuinguruan kokatzeko; Historia Garaikidea hasi arteko eraldaketen eta atzerakaden prozesu historikoak ezagutzeko eta azaltzeko; euskal komunitateak egindako ekarpen kulturalak eta artistikoak identifikatzeko; eta aurreko guztiaren analisian genero-ikuspegia txertatzeko.

Hori guztia lagungarria izango da ikasleentzat ezagutzak eskuratzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko; Euskal Herriko egungo lurralde-antolamenduaren jatorria ikuspegi historiko garbi batetik ulertzeko

eta herritarren egungo parte-hartzearen eta gizarte-kohesioaren aurrerapenak eta lorpenak ulertzeko; giza duintasuna errespetatuko duten alternatiba ekonomikoak sustatzearen eta iraunkortasunarekin konpromisoak hartzearen garrantzia baloratzeko; portaera demografikoek eta bizimoduetan, bizi-zikloetan eta biztanleriaren banaketan gertatutako aldaketek garapen sozial, ekonomiko eta politikoarekin, bizitza- eta ongizate-mailen bilakaerarekin eta lurraldearen etorkizuneko muga eta erronkekin duten erlazioa ulertzeko; lotura kolektiboen egungo garrantzia ulertzeko, elkarrizketa konstruktiboan laguntzeko duten argudio objektiboak lantzeko, kidetasun-sentimendu oro errespetatzeko eta ondare- aberastasuna eta legatu historiko eta kulturala baloratzeko; gure iragan hurbileko gertaera traumatikoei aurre egiteko, haien errepikapena saihesteko, biktima guztiak aitortzeko eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren aplikazioa sustatzeko; ekarpen kulturalak eta artistikoak munduko herritar guztien ondare komun gisa eta identitate kolektiboaren oinarri gisa baloratzeko; eta emakumeen presentzia aitortzeko, haien oztopoez, aurrerapenez eta atzerakadez konturatzeko eta berdintasun eraginkorraren aldeko jarrerak sustatzeko.

Ikasleek gai horietan egiten dituzten aurrerapenak baloratzeko, Ebaluazio- irizpideak ditugu. Haien helburua da, jakintzak zenbateraino barneratzen diren eta, beraz, Konpetentzia espezifikoen lorpenaren zer aurrerapen-maila lortu den zehaztea, baita ikasleek beren garapenerako garrantzitsuak diren jarrerak eta balioak bereganatu dituzten zehaztea ere. Irizpide horien formulazioan, beraz, jakitearen, egiten jakitearen eta izatearen erreferentziak jasotzen dira.

Oinarrizko jakintzen bidez, ikasleek Konpetentzia profil fidagarri batera eramango dituzten Konpetentzia espezifikoak eskuratuko dituzte. Hori dela eta, jakintza horiek ezinbestekoak dira Euskal Herriko historian gizartea, lurraldea eta kultura ulertzeko egon diren eta dauden modu desberdinak behar bezala transmititu ahal izateko eta, halaber, errealitate aldakorrak aurretik gertatutako guztiak baldintzatzen dituela eta, beraz, aldaketa horietako asko gure ekintzen ondorioak direla barneratzeko. Horregatik, bilakaera nolakoa izan den erakusten diguten gutxieneko eta pedagogikoki antolatutako datu historiko zehatz batzuk jakin gabe, ezinezkoa izango litzateke errealitatea aztertzea ezta etengabeko aldaketaren barruan dugun berezitasuna hautematea ere.

Oinarrizko jakintzak blokeetan didaktikoki antolatuta daude eta diziplinaren ordena naturala errespetatzen duen sekuentzia logiko batean lotzen dira, baina, euren planteamenduen bidez, espiritu pedagogiko berritzailea ere proposatzen da. Konbinazio horrek ikasleak bideratuko ditu, irakaslearen lanarekin batera, *Euskal Herriko Historia*ren ulermen eta ikuspegi orokor bat lortzera eta, pixkanaka eta nerabeen garapen psikokognitiboa kontuan hartuta, euren Konpetentzia-profila osatzen, panorama orokor bateko piezak behar bezala ahokatzen laguntuko dien oinarri sendo bat eskuratuz.

Oinarrizko jakintzak hiru blokeetan banatu dira: A. *Ikerketa historikoaren erronkak*, hau da, Historia ikertu eta lantzeko teknikei buruzko oinarrizkoa (komeni da hauek beti azpimarratzea, irakasgaiko profesionalen kolektibo osoaren subjektibotasunaren topiko soziala pixkanaka baztertzen joateko), gainerako jakintzen aldi berean landuko dena; eta *B. Gizarteak denboran zehar, Euskal Herriko Historia*ri dagozkion oinarrizko jakintzak eskuratzea ardatz duena. Eta *C. Konpromiso zibikoa*, lehen bloke moduan oso-osorik gainerako jakintzekin batera landuko diren gai transbertsalak jorratzen dituena, hau da, ikaste-egoera guztietan landu beharrekoak. Bestalde, bigarren blokeko Jakintzak politikari, gizarteari, demografiari, kultura-ekarpenei eta abarri lotutako erlazioetatik abiatuta uztartu litezke, kronologikoki landu litezke, adierazita dauden moduan, edota irakasle-taldeak egokiagotzat joko duen moduan.

Irakasgai honek, baliabide horien eta irakaslearen lanaren bitartez —azken hori diziplinaren jakintza globala maneiatzen duena eta gida izanda—, ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista izan daitezen eta figura pasibo eta ezagutza-hartzaile soil izateari utz diezaieten, lagundu egingo du. Jakintza aztertu, aplikatu eta sortzeko irakaskuntza, eta informazioa ezagutza bihurtzea uztartu behar ditugu. Horrela, Euskal Herriko XIX. mendera arteko bilakaeraren ikaskuntza, jakin-mina, pentsamendu kritikoa, errespetua eta autonomia sustatuko ditugu. Konbinazio horrek motibazioa sortuko du eta XXI. mendeko Euskal Herriak dituen erronkak ikuspegi berrietatik ikusi ahal izango dira.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Euskal Herriko historian zehar, baita egungo egoera kontuan hartuta ere, garrantzitsuak izan diren auzi historiko, ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalen inguruan ikertzea, argudiatzea eta hainbat formatuetan produktu propioak egitea, informazioa bilatuz, aukeratuz, tratatuz eta antolatuz eta iturri historikoak eta geografikoak erabiliz, ezagutzak eskuratzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko.

Informazioa bilatu, hautatu eta tratatzearekin lotutako trebetasunak eta prozesuak ezinbesteko tresnak dira ikaste-egoera guztietan, gure egungo ezagutzaren gizartearen testuinguruan. Konpetentzia horiek entrenatzea eta erabiltzea funtsezkoa da datuak, edukiak eta jakintzak, hau da, ezagutza, eskuratzeko eta barneratzeko. Horretarako, bilaketa-sistemak, datu-baseak eta baliabide-plataformak ikasleentzat eskuragarri dauden ingurune digitaletan erabiltzearekin lotutako estrategia konplexuak garatu behar dira, dokumentu eta iturri geografiko eta historikoak erabiltzeaz gain. Prozesuak, ulermenezko irakurketarako, iturrien kritikarako, datuen maneiurako eta metaketarako oinarrizko prozesuak barne hartzen ditu, baita partekatutako informazioa modu eraginkorrean konektatzeko eta antolatzeko estrategia egokiak ere, bai banakako, bai talde lanetan.

Hainbat informazio-iturri egiaztatzetik abiatuta, iritzi propioak sortzeko, eta oinarririk gabeko iritziak eta informazio faltsuak bereizteko gaitasuna funtsezkoa da gizarte honetan, non, aldi berean, gehiegizko informazioa eta nahita emandako desinformazioa ailegatzen zaigun. Gainera, gizateriari, bai ingurune hurbilenean, bai testuinguru globalean, eragiten dioten arazo eta erronka nagusiekiko interesa eta sentsibilitatea izateak eta komunikabideetan eta sare sozialetan sortzen diren eztabaiden jarraipena egiteak, herritarren jarrera arrazionala garatzeko eta pentsamendu kritikoa gauzatzeko beharra dakartza. Ideia propioak sortzea eta ideia horiek pentsamendu-korronte eta mugimendu ideologiko desberdinekin alderatzea edota lotzea, baita Euskal Herriko Historiako auzi nagusiei buruzko elkarrizketa eta eztabaiden bidez argudiatuz azaltzea ere, funtsezkoa da ikuspuntuak elkarri trukatzeko eta identitate indibidualak eratzeko. Are gehiago, jarrera toleranteak finkatzeko, baita pentsatzeko beste modu batzuenganako errespetua barne hartzen duen kontzientzia zibikoa sortzeko ere. Azkenik, konpetentzia honen garapenak ideiak eta pentsamenduak originaltasunez eta sormenez islatzeko gai diren produktuak egiteko beharra sortu behar du, produktu horien forma testuinguru desberdinetara egokituz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII2, KPSII3.1, KPSII4, HK3, EK3.

2. Euskal Herrian Aro garaikidera arte izan diren lurralde- eta administrazio- antolamendu ereduak ezagutzea, beren Penintsulako eta nazioarteko testuinguruekin lotuz, egungo antolamenduaren jatorria ikuspegi historiko garbi batetik ulertzeko eta egungo herritarren parte-hartzearen eta gizarte-kohesioaren aurrerapenak eta lorpenak ulertzeko.

Historia, oraina ulergarri egin dezakeen tresna gisa baliatzen dugu. Euskal Herriko berezitasunak, bertako erakundeen bilakaera eta XIX. mendera arteko konstante historikoak ezagutzea, eta horretarako iturri historiografikoak erabiltzea eta bilakaera hori kritikoki aztertzea da bidea ikasleek aurrerago Euskal Herriko Historia garaikidea (Batxilergoko bigarren mailako ardatz jakintzagaiaren, *Espainaiko Historia*ren, parte dena) argiago ulertu ahal izateko eta, era horretan, lurraldea egungo egoerara nola iritsi den ulertzeko ideia garbi bat osatzeko.

Historia osoan zehar, gizakiok hainbat modutan antolatu dugu bizikidetza. Modu horiek guztiek eragina izan dute Iberiar Penintsulan eta egungo Frantzian, eta, beraz, Euskal Herrian ere bai. Prozesu horrek lurraldean izan zuen islarekin batera, euskal berezitasuna garatzen hasi zen. Berezitasun hori -oso azaleko eta asmo handirik gabeko laburpen bat eginez-, bilakaera historiko berezi eta konplexu batean datza, eta Foruen auziaren protagonismoa ukaezina dauka (Lurralde historikoek XIII. mendeaz geroztik autogobernua izan zuten), baita euskal hizkuntza eta kultura denboran zeharko iraupenean eta nazio-kontzientzia baten pixkanakako garapenean ere. Nolanahi ere, nazio-kontzientzia terminoa ez zen XIX. mendera arte garatu eta zentzua hartu, hizkuntza, kultura, folklore, ohiturak eta lege tradizionalak, eta

zenbait kasutan erlijioa ere, partekatzen duten lurralde bateko biztanleei erreferentzia egiteko, baina Estatu bat osatu gabe; hau da, subiranotasunik gabeko nazio bati.

Espainiako Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako berezitasuna 1978ko Konstituzioaren Lehen xedapen gehigarrian islatuta geratu zen, *Eskubide historikoak* izenpean. Horri dagokionez, 1979ko Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren lehen artikuluak honako hau dio: *Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazpen gisa eta autogobernua eskuratzeko, Autonomia Erkidego moduan eratzen da Espainiako Estatuaren barruan, Euskadi zein Euskal Herria izenez, Konstituzioarekin eta oinarrizko erakunde--arau duen Estatutu honekin bat.* Estatutua, beraz, euskal identitatearen egungo sinbolo aktiboa da Estatuan, eta Autonomia Erkidegoko erakundeek protagonismo ukaezina dute gaur egun.

Euskal Herriko bilakaera historikoa ezagutzeak memoria historikoa zer den ulertzen lagunduko die ikasleei, ingurune hurbiletik abiatuta. Halaber, pertsona guztien ekarpena ikusteko aukera emango du, emakumeek bizitza sozial eta politikoan eskubide osoko herritar gisa parte hartzeko egin eta egiten duten borroka barnean hartuta. Izan ere, ekarpen guzti horiek herritarren egungo parte-hartzearen eta gizarte-kohesioaren aurrerapen eta lorpenetako asko eragin dituzte etapa historiko desberdinetan.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII2, KPSII4, HK1, HK3, EK3.

3. Euskal Herrian Aro Garaikidera arte aplikatu diren sistema ekonomikoak azaltzea, haien bilakaera iturri historiografikoekin eta dokumentu historikoekin kritikoki aztertuz eta ingurunean eta gizarteetan izan dituzten ondorioak kontuan hartuz, giza duintasuna errespetatuko duten alternatibak -hala nola oinarrizko baliabideen eskuratze unibertsala eta eskubide sozialak- sustatzearen garrantzia baloratzeko.

Euskal lurraldeko ekonomiak XIX. mendera arte izan duen eboluzioa aztertzea lagungarria izango da ikasleentzat, horrek gizartearen garapenarekin duen harremanetik, egungo egoerara arte ulertzeko. Globalizazioaren ekonomiaren funtzionamenduarekin ohitzeko, funtsezkoa da, lehenik eta behin, eskualde- mailan ere haren erro historikoak aztertzea, iturri historiografikoen eta izaera ekonomikoko dokumentu historikoen —prezioen erregistroak, kontabilitateak, produkzioko urtekari estatistikoak eta abar— erabileraren bidez, oinarrizko kontzeptuak erabiltzeaz gain. Bestalde, bilakaera ekonomikoak Euskal Herriko historiaren ikuspegi bat ematen du, egungo ereduaren zergatiarekin lotzen dena, eta gizarte-ongizateaz eta jasangarritasunaz arduratzeko beharraren zergatiarekin ere. Azken honek, gainera, aurrerapenaren ideiari eta haren deribazio politiko, ekonomiko eta sozialei ikuspegi kritikoa ematea dakar.

Garapen pertsonala erabakigarria da ikasleen prestakuntza integralean. Ikasleek euskal ekonomiaren XIX. mendera arteko bilakaeraren osagaiak identifikatu ahal izateko, lagungarria izango da euskal hazkunde ekonomikoaren sustraiez (burdina protagonista izanik) jabetzea eta sustrai horiek informazioa eraginkortasunez lotzeko eta antolatzeko datuak eta estrategia egokiak erabiliz deskribatzea. Izan ere, tradizioaren bilakaeraren ondorioz, Euskal Herria nagusiki nekazaritzan eta biziraupen hutsean oinarritutako ekonomia bat izatetik Espainiako Estatuko industrializazio-prozesuaren buru izatera igaro zen. Dinamismo ekonomiko hori eta egungo egoera, berezitasun geografiko eta Foral erabakigarri batzuen eta gorabehera sozial eta ekonomiko batzuen historiaren emaitza dira. Bide horrek, besteak beste, gure gaur egungo zerga-sistema propiora eraman gaitu. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatu zentralaren arteko finantza-harremanak arautzen dituen Hitzarmen ekonomikoa.

Bereziki garrantzitsua da ikasleak konturatzea historikoki inon ez dela lehenetsi aberastasunaren banaketa, ezta haren ingurumen-ondorioak ere. Baliabideen lorpena eta banaketa, lana eta lan-betebeharrak gizakien bizitzaren parte izan dira historia osoan. Hori dela eta, ikasleek egungo ekonomiaren oinarri historikoak eta mekanismoak ulertu behar dituzte, erabaki ekonomiko kontzienteak eta arduratsuak hartu ahal izateko eta alternatiba osasungarriak, iraunkorrak, aberasgarriak eta giza duintasuna eta gizartearekiko eta ingurunearekiko konpromisoa errespetatuko dituztenak sustatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, STEM2, KD1, KD2, KD3, KPSII2, KPSII4, HK1, HK3, EK3.

4. Euskal Herrian Aro garaikidera arte izan diren joera demografikoak eta bizimoduetan, bizi-zikloetan eta biztanleriaren banaketan gertatutako aldaketak deskribatzea eta aztertzea, talde sozialen, generoen eta gutxiengoen arteko desberdintasunak eta haiek harremanak ezartzeko dituzten moduak ikertuz, garapen sozial, ekonomiko eta politikoarekin duten erlazioa, bizi- eta ongizate-mailen bilakaera eta lurraldearen etorkizuneko mugak eta erronkak ulertzeko.

Ikasleek Euskal Herriko gizarteak XIX. mendera arte izan dituen bilakaera demografikoa, aldaketak eta jarraitutasunak aztertu behar dituzte, harremanetarako eta garapen sozial, ekonomiko eta politikorako moduak erlazionatuz eta biztanleriak espazioan duen banaketa eta desorekaren arrazoiak (Lurralde historiko desberdinen barruan ere) kontuan hartuz. Helburua da euskal gizartearen modernizazio ekonomiko eta sozialaren prozesua, zein horrek historian izan duen, eta gaur egun duen, heterogeneotasun eta konplexutasun handia ulertzea (antzekotasun eta desberdintasun demografikoak eta sozialak kontuan hartuta). Horien guztien bereizkuntza Iberiar Penintsulako eremu edo eskualdeen artean, baita haien barruan ere, eta bizimoduei eta eguneroko jarduerari buruzko azterlanak txertatzea funtsezkoa da portaera sozialak, genero-harremanak, belaunaldien arteko harremanak eta gure gizarte-aniztasunak biltzen dituen gizarte garaikideen pertzepzioak, emozioak eta eskema kulturalak ulertzeko.

Ikasleen prestakuntza integralaren zati gisa, ikerketa-proiektuak egin eta pentsamendu kritikoa aplikatu ondoren, Euskal Herriko historian izan diren portaera demografikoez eta bizi-zikloen eta bizimoduen bilakaeraz jabetzea eta horiek deskribatzea lagungarria izango da, halaber, nortasun indibidualen eta kolektiboen osagaiak (kognitiboa, morala, emozionala eta abar) ingurunean identifikatzeko. Bereziki garrantzitsua da bizimoduei eta haiei dagokienez etapa historikoen araberako desberdintasunei eta horien bilakaerari erreparatzea, denboran hurbilen ditugun belaunaldietan izan diren portaera-aldaketei eta belaunaldi horien arteko harremanei ere gertutik erreparatzeko.

Analisi horrek subjektua zein esperientzia kolektiboak izan behar ditu ardatz, eta iturri historiografikoen eta askotariko iturri historikoen (datu estatistikoak, testuak, erroldak eta abar) azterketa kritikoaren bidez egin behar da. Bilakaeraren barruan, lorpenak eta atzerapausoak, lurraldean izan diren erregimenek orain arte hartu dituzten neurriak, bizi- eta ongizate-mailen bilakaera eta etorkizuneko mugak eta erronkak sartzen dira. Eta dagoeneko gaurkotasunaren planoan, gatazkak kudeatzeko, desberdintasunak arintzeko eta gizarte-tentsioa eta ordenaren alterazioak neutralizatzeko hartu diren neurriak kontuan hartuta, haien ingurunean iragana gure egungo errealitatearekin lotzera eta hartu diren politiken norainokoa baloratzera eta Euskal Herrian berdintasuna, ongizatea, justizia eta gizarte-kohesioa lortzeko bidean egindako urratsak eta dauden mugak ulertzera eramango dituen ikuspegi batetik gure gizartea ikusteko interesa piztu ahal izango da ikasleengan.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII3.1, KPSII4, HK3, HK4, EK3.

5. Euskal Herrian Aro garaikidera arte izan diren talde-identitateak eta konfigurazio eta herentzia sozial, politiko eta kulturalerako elementu gisa bete duten eginkizuna zehaztasun historikoarekin bereiztea eta azaltzea, iturri mota oro erabiliz eta haien bilakaera kritikoki aztertuz, gaur egun duten esanahia ulertzeko, elkarrizketa konstruktiboan lagunduko duten argudio objektiboak landu ahal izateko, giza-talde baten kide izatearen sentimenduak errespetatzeko eta sortu duten Ondare-aberastasuna eta horien legatu historiko eta kulturala baloratzeko.

Talde-identitateak komunitateen barruko lotura kultural eta afektiboen ondorioz sortzen dira. Neurri handiagoan edo txikiagoan, ezaugarri berberak partekatzeak, eta horiei lotuta sentitzeak, kide izatearen sentimendu komun bat sortzen dute, eta sentimendu horrek identitate indibidualetan ere eragina du. Hori Historiako auzirik konplexu eta problematikoenetako bat da eta, beraz, Euskal Herrian ere bai. Izan ere, orain arte iraun duten zenbaitetan bizikidetza zaildu duten desadostasunak eta kontsiderazioak sortu dira. Beraz, prozesu horiei erreparatu behar diegu eta prozesu horiek eraikitzen, transmititzen eta eboluzionatzen lagundu duten elementuak ulertu behar ditugu, hala nola pentsamendua, erlijioa, lurraldea, artea, hizkuntza, adierazpen kulturalak eta abar. Bestalde, beharrezkoa da ulertzea, baita ere, zer me-

kanismo sozial eta emozionalek bultzatu zuten eta bultzatzen duten talde-kide izatearen sentimendu desberdinak sortzera. Ondorioz, *Euskal Herriko Historia*ren ikuspegi orokorraren zati bereizezina da talde-identitateek eta haiek munduko konfigurazio sozial, politiko eta kulturalaren elementu gisa betetzen duten zereginaren garrantzia ulertzea.

Fenomeno horien jatorria eta arrazoi historikoak askotariko testu historiografikoen analisiaren bidez aztertzeak eta ikasteak, eta egungo informazio-iturriak kontuan hartu ondoren argudio objektibo propioak lantzen hasteak kidetasun-sentimendu guztiak errespetatuko dituzten eta elkarrizketa konstruktiboan lagunduko duten arrazoibideak lantzera eramango ditu ikasleak. Talde-identitateen adierazpenak errespetatzen, eta beren kultura zein arte-adierazpenek ondare komunan duten garrantzia onartzen ikasteak, ondare materiala eta immaterialaren esanahi historikoa eta sinbolikoa ulertzea dakar, baita hura kontserbatzea, sustatzea eta balioestea bultzatzen duten ekintzak sustatzen lagundu ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KD1, KD3, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3, EK3, KAKK1, KAKK2.

6. Euskal Herrian Aro garaikidera arte gertatu ziren gatazka politiko, sozial eta erlijioso nagusiak ezagutzea eta testuinguruan kokatzea, testu historikoak eta iturri historiografikoak erabiliz eta alderatuz, informazioaren erabilera partzialak detektatzeko, argudio propioak sortzeko, gure iragan hurbileko gertaera traumatikoei aurre egiten lagunduko duen norberaren gaitasuna eraikitzeko, horrelako gertaerarik berriz ez izateko, biktima guztiak aitortzeko eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren aplikazioa sustatzeko.

Irakasgai honen helburuetako bat da ikasleei ulertaraztea —jakintzagaiaren alderdi guztien bidez— Historia ikasteak egungo munduari zentzua emateko aukera ematen duela. Izan ere, gaur egungo gatazka askok duela hamarkada edo mende batzuetan dute jatorria; hartara, gaurko gertakariei soilik begiratuz gero, eman dezake gatazka bakanak direla. Euskal Herriko XIX. mendera arteko Historia ikasteak gertakari horiek sakon ulertzeko aukera emango du, baita gure ingurune hurbileko harreman politiko eta sozialetan izan zituzten eta egun dituzten kausak eta ondorioak ulertzeko aukera ere; izatez, gatazka guztiek aurrekariak dituzte, nazioak denbora luzez markatzeko gai direnak. Aipatutako guztiak, gizarte osoari dagokion Historiaren kontzientziaren inguruko auzia planteatzen du, ezin baikara herritarrak izan memoria historikoaren eramaileak ez bagara. Ez da nahikoa indarkeria gaitzestea, haren sustraiak eta ondorioak ezagutu eta aztertu behar dira.

Euskal Herriko XIX. mendera arteko Historia aztertzeari eta ulertzeari esker, ikasleek iraganeko joera ekonomikoak, politikoak, sozialak, kulturalak edota gatazkei buruzkoak ezagutuko dituzte, eta gaur egun lurraldean gertatzen denaren inguruko ikuspegi propioa osatzeko gai izango dira. Hala ere, Historian ez da benetako irudi bakartzat aurkezten diren ikuspegiez fidatu behar, beste bertsio batzuk ezagutu behar dira eta kausak eta ondorioak ezagutzean zentratu. Horretarako, irakasgai hau lantzean, iturri historiografiko fidagarriak erabili beharko dira eta testu historikoak aztertu, informazioaren manipulazioa atzematen ikasteko. Horrez gain, ikasleek gure iragan hurbileko gertakari traumatikoei aurre egiteko gaitasuna eraiki, antzeko gertaerak errepikatzea saihestu daitekeela jakin, biktima guztiak aintzatetsi eta Justizia Unibertsalaren printzipioaren aplikazioa defendatu beharko dituzte.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII3.1, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK3.

7. Euskal komunitateak Aro garaikidera arte egindako ekarpen zientifikoak, kulturalak eta artistikoak identifikatzea, dokumentu historikoak eta sorkuntza artistikoak aztertuz, ekarpen horiek munduko herritarren Ondare komun gisa eta identitate kolektiboaren oinarri gisa baloratzeko eta kultura-adierazpide guztiekiko errespetua sustatzeko.

Herri baten eboluzio historikoa ulertzeko, hori pentsamenduaren, kulturaren eta artearen hedapen-fluxu handien testuinguruan kokatu behar dugu. Euskal Herriaren ekarpen aberatsa eta askotarikoa perspektibarekin ikusi eta balioetsi behar dugu, balio unibertsalak kontuan hartuz, eta *presentismoan* erori gabe.

Bestalde, ekarpen horiek gaur egun duten eraginak suposatzen du, iraganeko pentsalari handietatik jasotako jakintzek mundua eta gizateria ulertzeko modu propio eta bereizgarri bat utzi digutela. Kultura-ondarea iraganeko belaunaldien legatu gisa eta adierazpide-fenomeno bizi gisa aitortzea eta hura kontserbatzeko eta sustatzeko beharraz jabetzea funtsezko erronka da edozein gizarte eta kulturarentzat. Ildo horretan, *Euskal Herriko Historia* jakintzagaiaren zeregina funtsezkoa da ikasleak dokumentu historikoen, folklorearen, edozein arte motatako obren eta abarren bidez euskal kulturaren balio eta garrantzi kultural, sozial eta materialaz jabetu daitezen.

Horri guztiari gizarte bateko bizitza beste herri batzuekiko kontaktutik eta interakziotik kanpo ulertzeko ezintasuna (are gehiago egungo mundu globalizatuan) gaineratu behar zaio. Ikasleak aniztasunarekiko errespetuaz eta tolerantziaz kontzientziatzea funtsezkoa da gizartearen garapenerako, elkarrizketa, elkartasuna eta kulturen arteko elkar ulertzea baitira edozein mailatan bizikidetza baketsua lortzeko bitartekoak

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KD1, KD2, KD3, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII4, KPSII5, HK1, EK3, KAKK1, KAKK2.

8. Aro Garaikidera arte, Euskal Herriko Historiaren analisian genero-ikuspegia txertatzea, lurraldeko emakumeen errealitatea iturri historikoen bidez ikertuz, haien presentzia aitortzeko, oztopoak eta aurrerapen- eta atzerakada-uneak ohartarazteko, eta berdintasun eraginkorraren aldeko jarrerak sustatzeko.

Gizarte-jokabide orokorra denez gero, Euskal Herrian ere islatu eta islatzen da emakumeek bizitza pribatuan eta publikoan jasaten duten baztertzea. Gizarteak euskal matriarkatuaren inguruko uste sendo samarra badu ere, emakumeek etxeko eremutik haratago izan duten erabaki- eta botere-ahalmena ezin da lotu gaur emakumeak erabakitzeko eta boterea izateko duen gaitasunarekin, gizonenarekin alderatuta. Historikoki, beraien gaitasunak ukatu eta ezkutatu egin dira, eta hori, oraindik ere agerian dago, besteak beste, soldata-arrakalari edota gizarte, politika eta enpresaren arloko goi-karguetan emakumezkoen presentzia urriari, gero eta handiagoa bada ere, erreparatzen bazaie. Egungo euskal gizartea irekia eta tolerantea da, baina hutsune handiak ere baditu. *Euskal Herriko Historia* ikastean, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna sortu eta mantendu duten nagusitasun kultural eta soziopolitikorako mekanismoak identifikatzen dira, eta, horri esker, ezagutzen dira emakumea gizartean eta politikan aintzatesteko dauden oztopoak eta aurrerapen- eta atzerapen-uneak, eta baloratzen dira emakumearen emantzipazioaren aldeko ekintza guztiak.

Irakasgai hau aztertzeak, beraz, gizonen eta emakumeen arteko arrakala onartezina murrizteko beharra ulertzen lagundu behar du. Iturri historikoetatik, testu nabarmenen iruzkinetik, eta euskal emakumeen errealitateari buruzko zuzeneko ikerketatik abiatuta, Euskal Herriko Historiak beren generoagatik soilik, bidegabeki isilarazi eta alde batera utzi dituen emakume esanguratsu indibidualak eta kolektiboak berreskuratu nahi dira. Horretaz gain, ikasleengan piztu nahi da, alde batetik, onespenari eta borroka sozialari buruzko hausnarketa eta, bestetik, eremu guztietan jarrera zibilizatuak eta arrazoinamendu kritikoan oinarrituta, emakumearen aurkako diskriminazio-jokabideen aurrean.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KD1, KD2, KD3, KPSII1.1, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3, EK3, KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Euskal Herriko Historia
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Euskal Herriko Historian, XIX. mendera arte izan diren prozesu eta gertaera historiko, ekonomiko, politiko, sozial eta kultural garrantzitsuei buruzko informazioa bilatzea, hautatzea, antolatzea eta komunikatzea, iraganaren eta orainaren arteko erlazioa kontuan hartuz, hainbat euskarritan aurkeztuz eta lortu nahi diren helburuak aintzat hartuz.

Euskal Herriko Historia
1.2. Euskal Herriko Historiari, XIX. mendera arte lotutako auzi historiko, ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalen inguruan kritikoki argudiatzea, bakarka zein taldean, iturri fidagarriak eta askotarikoak alderatuz eta baloratuz (arkeologia eta artxibistika barnean hartuta) eta jakintzagaiaren berezko terminoak eta kontzeptuak txertatuz eta behar bezala erabiliz.
2. konpetentzia espezifikoa
1.1. Euskal Herriko Historian, XIX. mendera arte aplikatu diren lurralde- eta administrazio-antolamendu eredu nagusiak adieraztea eta azaltzea, gaiaren ulermena islatuko duten produktuen bidez, garai haietako ereduen eta egungo sistema demokratikoen artean dagoen aldea kontuan hartuz.
2.2. Euskal Herriko Historian, XIX. mendera arte aplikatu diren lurralde- eta administrazio-antolamendu eredu nagusiak beren penintsulako eta nazioarteko testuinguruekin lotzea, garai hartako betebehar eta eskubideak eta gure egungo komunitate-bizitzaren berezkoak bereiziz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Euskal Herriko Historian, XIX. mendera arte izan diren sistema ekonomikoak eta haien garapen-prozesuak aztertzea, azaltzea eta elkarren artean alderatzea, dokumentu ekonomikoen bidez ikertuz eta gertatu diren aldaketak eta jarraitutasunak eta ingurunean eta gizarteetan izan dituzten ondorioak kontuan hartuz.
3.2. Euskal Herriko Historian garapen ekonomikoaren ideiaren eta haren gizarte-, lurralde- eta ingurumen-ondorioen esanahi historikoari buruzko ezagutza aplikatzea, giza duintasuna errespetatuko duten alternatibak sustatzeko beharra, eskubide sozialen garrantzia eta oinarrizko baliabideetarako irispide unibertsala baloratuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Portaera demografikoak, haien bilakaera eta Euskal Herriko gizartean XIX. mendera arte izan diren aldaketekin eta jarraitutasunekin duten erlazioa deskribatzea eta aztertzea, ikerketa-proiektuen eta pentsamendu kritikoaren aplikazioaren bidez, bizi- eta ongizate-mailen bilakaerarekin eta etorkizuneko muga eta erronkekin lotuz.
4.2. Euskal Herriko Historiako bizi-etapa eta bizimodu ezagunen ezaugarriak identifikatzea, lurraldeko hainbat eremuren artean eta eremu horien barruan zeuden antzekotasun eta desberdintasun demografikoak eta sozialak bereiziz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1 Euskal Herriko Historian sortu diren lotura kolektiboak azaltzea, iturri historiografikoak erabiliz, haien bilakaera kritikoki aztertuz eta, elkarrizketa konstruktiboaren bidez, kidetasun-sentimendu guztiak aitortuz eta errespetatuz.
5.2. Euskal Herriko Historian identitate kolektiboek konfigurazio eta herentzia sozial, politiko eta kulturalean bete duten zeregina deskribatzea, argudio objektibo propioak erabiliz eta haien legatu historikoa eta kulturala mundu osoko herritarren ondare komun gisa aitortuz eta baloratuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Euskal Herriko Historian, XIX. mendera arte izan diren gatazka nagusiak eta haien arrazoiak, prozesuak, protagonistak eta ondorioak ezagutzea eta azaltzea, iturri historiografikoen erabileraren eta testu historikoen analisiaren bidez ikertuz, argudiatutako arrazoibide propioak landuz eta memoria historikoak egungo egoeraren ikuspegi objektibo bat lortzeko, antzeko gertaerak saihesteko eta biktima guztiak aitortzeko duen garrantzia ulertuz.
6.2. Euskal Herriko Historian, XIX. mendera arte izan diren gatazka nagusiak azaltzea eta aztertzea, iturri historiografiko fidagarriak eta testu historikoak erabiliz, informazioaren erabilera partzialak detektatuz, gure iragan hurbileko gertaera traumatikoei aurre egiteko norberaren gaitasuna garatuz eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren aplikazioa sustatuz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Euskal komunitateak Historian egindako ekarpen zientifikoak, kulturalak eta artistikoak deskribatzea eta testuinguruan kokatzea, eta iraganeko eta egungo kulturekin dituzten konexioak eta elkarrekiko erlazioa adieraztea, haietako edozeinen adierazpideak errespetatuz.
7.2. Euskal ekarpen kultural eta artistikoek penintsulako edo munduko edozein kulturaren sustraietan eta eraldaketetan bete duten zeregina identifikatzea eta azaltzea, kultura-izaerako dokumentu historikoak (literatura, erituak, sinesmenak, ohiturak, musika, dantzak eta abar) eta artelan plastikoak erabiliz, haien legatua munduko herritarren ondare komun gisa eta identitate kolektiboaren oinarri gisa aitortuz eta baloratuz.
8. konpetentzia espezifikoa
7.1. XIX. mendera arteko Euskal Herriko Historiaren analisian eta egungo egoeraren behaketan, genero-ikuspegia txertatzea, gizonen eta emakumeen arteko desparekotasuna sortu eta iraunarazi duten mekanismo kulturalak eta soziopolitikoak, esleitutako rolak eta bakoitzak bete izan dituen jarduera-espazioak identifikatuz eta berdintasun iraunkorraren aldeko jarrerak sustatuz.
7.2. Euskal Herriko Historian, XIX. mendera arte emakumeek jasan duten bazterketaren errealitatea egiaztatzea, emakumeek gizartean eta politikan duten presentzia aitortzeko garaian izan diren oztopoez, aurrerapenez eta atzerakadez konturatuz eta protagonista isilaraziak eta ezkutatuak izan diren euskal figura indibidualak eta kolektiboak berreskuratuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Euskal Herriko Historia
A. Ikerketa historikoaren erronkak.
1. Historia ikertzeko eta lantzeko teknikak. Arkeologiarako eta artxibistikarako hurbilketa. Artxiboen, liburutegien, museoen eta Euskal Herriko legatu historiko eta kulturalaren esanahia eta garrantzia. *
2. Metodo zientifikoa eta ikerketa historikoa. Dauden eskola historiografiko eta geografikoen eta haiei lotutako pentsamendu historikoaren metodologien, eta korronte historiografikoaren arabera prozesuetan eskuhartzen duten osagai ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalen identifikazioaren hastapenak.
3. Testuinguru historikoan kokatutako egungo arazoen aurrean judizio propioak eta argudiatuak lantzeko estrategiak. Haien defentsa eta azalpen kritikoa, aurkezpenen eta eztabaiden bitartez.
4. Kontzientzia historikoa eta iraganaren eta orainaren arteko konexioa. Historiaren erabilera publikoak: Euskal Herriko Historiako prozesu eta gertaera garrantzitsu jakin batzuen interpretazio historiografikoak, eta egungo gizartearen eztabaidetan agertzen diren ezagutza historikoei buruzko analisia.
B. Gizarteak denboran.
1. Paleolitoaren aztarnak Euskal Herrian. Glaziazioen eragina inguruan, lehen biztanleak, kultura materiala eta labar-artea. Haitzuloak (Ekain, Amalda, Benta Laperra, Isturitze, Arenaza, Santimamiñe...). *
2. Neolitoa eta Metalen Aroa. Bizimoduan gertatutako lehen aldaketak eta lehen herrixkak. Migrazio indoeuroparrak. Fenomeno megalitikoa. Erromatarren aurreko herrien aniztasuna Euskal Herriko lurraldean, eta haien filiazioaren zailtasuna. Euskararen jatorria. *
3. Erroma Euskal Herrian. Administrazioa eta erromanizazio-mailak: *Ager* eta *Saltus*. Garrantzi estrategikoa eta komertziala (Forua, Oiasso, Lapurdum). Erromaren eragin kulturala. Inbasioak.
4. Lurralde-antolamenduaren bilakaera Erdi Aroan. Bisigodoak, frankoak eta musulmanak. Baskoniako eta Akitaniako dukerriak. Iruñeko Erresumatik Nafarroako Erresumara. Penintsulako erresumen arteko gatazkak. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Gaztelako Erresuman txertatzeko prozesua. Ingalaterrako Erresuma Lapurdin eta Zuberoan. *
5. Erdi Aroko gizarte-eraldaketak. Landa-eremua eta hiri-eremua: *hiri-gutunak*. Done Jakue Bidea. Goraldi ekonomikoa eta hazkunde demografikoa. XIV. mendeko krisia. Emakumeen eta gutxiengo sozialen egoera (agoteak, juduak eta abar). Noblezia-gatazkak: Oinaztarrak eta ganboatarrak; agaramontarrak eta beaumontarrak. *
6. Aro Modernoaren hasiera eta monarkia autoritarioen sendotzea. Nafarroako Erresumaren konkista eta Gaztelako Erresuman txertatzeko prozesua. Foru-sistema osatzeko eta finkatzeko prozesua Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Euskaldunak Amerikako esplorazioan eta konkistan. Ondorio sozioekonomikoak.*
7. Pentsamoldeen aldaketa. Errenazimentua eta humanismoa Euskal Herrian. Euskaraz idatzitako lehen testuak. Erlijio-gatazkak: erreforma protestantea, kontrarreforma eta sorgin-ehiza. *
8. Euskal lurraldeak Antzinako Erregimenean. Foru-sistema eta haren bilakaera: erregimen politikoa, erakundeak, pribilegioak eta monarkiarekiko harremanak. Frantzian eta Espainian Borboi etxea igo izanaren ondorioak.*
9. Eraldaketak ekonomian eta gizartean. Krisi eta hedapen ekonomikoa. *Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia*. Aldakuntza demografikoak. Gizartea eta kaparetasun unibertsalaren garrantzi historikoa. Gizarte- gatazkakortasuna: *matxinadak*. Emakumeak euskal Aro Modernoan.*
10.Ilustrazioaren eragina. *Euskalerriaren Adiskideen Elkartea.* Eraldaketa zientifikoak eta teknologikoak Euskal Herrian Aro Garaikidea hasi arte. Adierazpide kulturalak eta artistikoak.*
11.Frantziako Iraultzaren eragina Euskal Herrian. Foruen abolizioa eta departamentuen sorrera Behe Nafarroan, Lapurdin eta Zuberoan. Konbentzioaren Gerra eta Espainiako Independentzia Gerra. Ondorengo eraldaketa politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaleko prozesuan izan zuten eragina.*
C. Konpromiso zibikoa.
1. Herritartasun etiko digitala: jabetza intelektualarekiko errespetua. Prebentzioa eta defentsa desinformazioaren eta manipulazioaren aurrean.*
2. Identitatea eta kidetasun-sentimenduak: identitate-aniztasunaren aitorpena, tolerantzia eta kultura-adierazpenekiko errespetua.*
3. Aniztasun sozial, etniko eta kulturalaren balorazioa eta harekiko errespetua. Gutxiengoen eskubideen defentsa.*
4. Genero-berdintasuna: diskriminazioaren aurkako eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren aldeko jarrerak.
5. Ondare historikoaren kontserbazioa eta hedapena: artxiboak, museoak eta interpretazio-zentroak. Memoria kolektiboaren ondare-, gizarte- eta kultura-balioa.*

XX. MENDEKO EUSKAL LITERATURA ETA LITERATURA ESPAINIARRA

XX. mendeko Euskal literatura eta Literatura espainiarra 1. mailako jakintzagaiaren helburua da Euskara eta Lite-ratura eta Gaztelania eta Literatura jakintzagaien eta Literatura Unibertsala modalitateko jakintzagaiaren bidez eskuratutako prestakuntza literarioan eta humanistikoan sakontzea. Baina hautazko aukera horren zentzua ez da soilik jakintzagai horiek markatutako ibilbidea osatzea, baizik eta honako hau ere bilatzen da: alde batetik, ikasleak beren testuinguru soziokulturaletik eta denborazkotik hurbilen dagoen literatu-rarekin harremanetan jartzea, eurak bizi diren gizartea ulertzeko; eta, bestetik, literatura garaikideari, bertako egileei, obrei eta generoei buruzko oinarrizko kontzeptuak ulertu eta ezaugarritu ahal izatea, literatura garaikidea aztertzeko eta ikertzeko gaitasuna areagotzeko, eta gogoeta sakona barne hartzen duten iritziak emateko. Ikasleek, beraz, hainbat motatako ezagutzak eskuratuko dituzte; literaturaren ingurukoez gain, alderdi historiko-sozialak ere ikasiko dituzte, literatura-adierazpenak eragin dituzten arrazoiak hobeto ulertzen lagunduko dietenak.

Jakintzagaia modu orokor eta irekian planteatzen bada ere, komeni da jakintzagaiko irakasleek ibilbidea ordena kronologikoari jarraiki egokitzea, literatura-genero nagusiei erreparatuta, gertakarien segidaren, eta, ondorioz, XX. mendeko adierazpen artistiko-kulturalen sormenaren ulermena errazteko. Horrela, mende hasierako tradizioko literatura eta bere moralizazio-grina aztertzen hasi ahal izango da, aurrerago, Gerra Zibilak, erbesteak eta gerraosteak erabat markatutako ondorengo sorkuntza literario eta artistikoak jorratzeko (diktadura jasan eta demokraziara eboluzionatu zuen gizartea eraldatu zuten gertaerak), eta, azkenik, gaur egungo joera literarioak dakartzan Aro Berrian murgiltzeko. Ikasleei lagunduko zaie landutako literaturetan adierazgarrienak diren eta beren bizipen eta interesetatik hurbilen dauden autoreak aukeratzen (gizonen eta emakumeen arteko oreka mantenduz), eta eduki berriak jakintzagai komunetan eskuratutako ezagutzekin lotuko dira. Ardatz tematikoak oinarri bat eskaintzen du, kultura-garaiak eta -testuinguruak zeharkatzeko, orainaren eta iraganaren arteko erlazioak ezartzeko, eta beste garai batzuetan gizartea kezkatu zuten gaiekin lotzeko, nerabeek eta gazteek gaur egun ere gai horiei buruz galdetzen baitute.

Hautazko jakintzagai honek etapa honetako funtsezko konpetentziak eta jakintzagaiak garatzen laguntzen du, bereziki Humanitate eta Gizarte Zientzien modalitatearekin zuzenean lotutakoak. Literatura-hizkuntzak hizkuntzaren adierazpen-aukerak ikertzea eskatzen du, eta horiei buruzko hausnarketak ikasleen sentsibilitate estetikoa garatzen laguntzen du. Beraz, bere ekarpena garrantzitsuagoa izango da beste adierazpen artistiko eta kultural batzuk —hala nola musika, pintura edo zinema— lantzen dituzten beste jakintzagai batzuekin erlazionatzen den heinean. Garatzen diren irakatsi eta ikasteko prozesuek norberaren jarduera aztertzen, arautzen eta bideratzen ikastea eskatzen dute, eta horrek ekintzailetza-konpetentzia garatzen ere laguntzen du. Espazioan eta denboran hurbilen dagoen kultura-testuinguruaren literatura-testuak ezagutzea baliabide egokia da norberaren nortasuna testuinguru kultural eta historiko batean eraikitzeko, eta lagungarria da nortasun linguistiko eta kultural kolektibo batean parte hartzeko. Horrek guztiak herritartasunerako konpetentzia garatzen laguntzen du. Konpetentzia pertsonala, sozialа eta ikasten ikastekoa jakintzagai honekin garatzen da, trebetasun kognitibo-linguistikoen garapenean erantzukizun handia duen heinean, norberaren ikaskuntza erregularizatzea, gogoeta egitea, literatura-ezagutzak elkarrekin eraikitzea elkarrekintzaren bidez... sustatuz. Ez dugu ahaztu behar IKT-en eboluzioak komunikatzeko eta jakintzagai honetan landu behar den literaturara hurbiltzeko modu berriak ekarri dituela, eta, horrela, konpetentzia digitala bultzatuko da; izan ere, informazio garrantzitsua bilatzeko, hautatzeko eta prozesatzeko trebetasunak landuko dira, eta norberaren testuak osatu eta aztertuko dira. Azkenik, hizkuntza-jakintzagaiekin lotura handiena duten bi konpetentziak (KE eta HKK) garatuko dira jakintzagai honetan; izan ere, literatura-testuak ulertzeko gaitasuna hobetzeak eta literatura-jakintza garatzeak irakurketa-ohitura autonomoa sendotzen laguntzen dute jakintzagai hau ikasten duten ikasleen artean. Gainera, jakintzagai honi lotutako ikaskuntza asko transferitu daitezkeen ikaskuntzak dira, eta, beraz, jakintzagaiak berak azpiko hizkuntza-konpetentzia komuna garatzen laguntzen du.

Aurreko guztiarekin bat etorriz, bost dira XX. mendeko Euskal literatura eta Literatura espainiarra jakintzagaiaren curriculuma egituratzen duten berariazko konpetentziak, eta hiru ardatz dituzte: literatura-testuen irakurketa, ikerketa-lana eta ahozko zein idatzizko gogoeta. Lehenengo konpetentzia espezifikoa

irakurketa autonomoari eta horrek eskaintzen dituen gozatzeko moduei buruzkoa da. Konpetentzia horrek interpretazio-trebetasun sendoagoak eskatzen dituzten obra konplexuetara hurbiltzen ditu nerabeak eta gazteak. Bigarrenak literatura garaikidea osatzen duten mugimendu estetikoen karakterizazioan sakontzen du; bertan, obraren eraikuntza-elementuen barne-erlazioak obraren zentzuarekin aztertzen ditu, baita horrek bere produkzio-testuinguruarekin eta literatura-tradizioan duen lekuarekin duen lotura ere. Hirugarren konpetentziaren ardatza da loturak bilatzea eta literaturaren eta adierazpen artistiko eta kultural desberdinen arteko antzekotasunak antzematea. Laugarren konpetentziaren bidez, ikasleen sormen-alderdia sustatu nahi da, idatzizko, ahozko edo hainbat motatako literatura-ekoizpen multimodalen bidez. Eta azkenak informazioa bilatu eta hautatzean eta alfabetatze informazionalean jartzen du fokua.

Ebaluazio-irizpideek ikasleek konpetentzia espezifikoak zenbateraino eskuratu dituzten zehazten dute, eta, beraz, konpetentzia horiei erabat lotuta aurkezten dira. Beren konpetentzia-formulazioan, ikasleek eskuratu beharreko prozesua edo gaitasuna, aplikatzeko testuingurua edo modua eta erabilera adieraziz planteatzen dira.

Oinarrizko jakintzak lau multzotan antolatuta daude:

– *Literaturaren genero nagusiak:* literatura-genero narratiboa, dramatikoa, lirikoa eta ahozko literatura biltzen ditu (azken hori batez ere bertsolaritzari lotuta dago), eta ibilbide kronologiko bat proposatzen da, irakasleei aurrerapen-ibilbideak eraikitzeko adibideak emateko helburu bakarrarekin.

– *Irakurketa gidatua:* literatura-testuak interpretatzeko, aztertzeko eta baloratzeko trebetasunak garatzeko beharrezkoak diren jakintzak eta estrategiak biltzen ditu, euskal eta espainiar literaturetako obra adierazgarriak hautatuz, eta gizonezko eta emakumezko egileen arteko oreka mantenduz.

– *Irakurketa autonomoa:* irakurtzeko ohitura sendotzean sakontzea eta irakurketa-identitatea bera eratzea jorratzen ditu.

– *Lanaren eta komunikazioaren antolamendua:* ahozko eta idatzizko komunikazioan, eta informazio-alfabetizazioan inplikatutako jakintzak integratzen ditu, eta literatura-testuen ikaskuntzari, sorkuntzari, harrerari, elkarrekintzari eta analisi kritikoari buruzko hausnarketa-lanen inguruan egituratzen ditu, baita horiekin batera doazen ikerketa-prozesuak ere.

Jakintzagaiaren helburuak lortzeko, oso garrantzitsua da hainbat jakintzagaitako irakasleen arteko kolaborazioa eta plangintza koordinatua, elkarrekin jarduteko aukera ugariren bidez diziplinarteko lana sustatzeko (diziplinarteko ikaste-egoerak, solasaldi dialogiko irekiak, antzerki-emanaldiak, literatura-lehiaketak…). Gainera, proposamen hori euskararen eta gaztelaniaren tratamendu integratuaren adierazpen argia da, bi hizkuntzak ikasgelan erabiltzeko, bi literaturak alderatzeko eta haien ibilbideak aztertzeko aukera ematen baitu, XX. mendeko literaturaren korronte handien arabera.

Jakintzagai honek emakumeek idatzitako lanen zati handi bat kanpoan utzi duen kanon bat kritikoki zalantzan jartzera gonbidatzen gaitu. Emakume idazleen hutsune hori konpentsatzeko, irakasle guztiek jabetu behar dute gertakari horretaz, eta XX. mendeko euskal eta espainiar literaturetako lan esanguratsuenen corpus orekatua sortu, eta narratiba kontrahegemonikoak eskainiko dituzte, ideologia patriarkalak gainditzen laguntzeko. Ideologia horiek jakintzagai honetan landuko dira, gizarte-kohesioan, hezkuntzan eta hezkidetzan laguntzeko.

Azken batean, jakintzagai honen helburua da alfabetatze kulturalaren prozesua osatzea eta ikasleei literatura-prestakuntza sendoa ematea, beren bizitzan zehar baliagarri izan dakien eta XXI. mendeko herritar gisa trebatzen lagun diezaien. Ikasle horiek pertsona jasoak, kritikoak eta ondo informatuak eskatzen dituen gizarte bateko kide izango dira; hitzen erabilera eraginkorra eta etikoa egiteko gai izango dira; desberdintasunak errespetatuko dituzte; herritartasun digital aktibo eta segurua gauzatzeko gai izango dira; informazioa eskuratzeko eta ezagutza bihurtzeko gaitasuna izango dute, beren kabuz ikasteko, baita lankidetzan aritzeko eta taldean lan egiteko ere; pertsona sortzaileak eta ekintzaileak; eta garapen iraunkorrarekin eta arte- eta kultura-ondarearen zaintzarekin, giza eskubideen defentsarekin eta berdintasunezko bizikidetza baketsu eta demokratikoarekin konprometituak.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. XX. mendeko euskal eta espainiar literaturako obrak eta pasarteak irakurtzea, gozamen eta aberastasun pertsonal eta kulturalaren iturri gisa, irakurketak irizpide propioekin hautatuz, eta irakurketa-esperientzia partekatzea, norberaren irakurketa-identitatea eraikitzeko eta irakurketaren dimentsio sozialaz gozatzeko.

Konpetentzia honen helburu nagusia irakurzaletasuna eta irakurketa-identitatearen eraikuntza sustatzea da. XX. mendeko euskal eta espainiar literaturara hurbilduz, ikasleek beren ingurunearen sustrai kulturalak hobeto ezagutu ahal izango dituzte eta, horrela, inguratzen dituen mundua ulertu ahal izango dute. Ikasleek euskal eta espainiar kultura-ondareari dagozkion obrak eta zatiak irakurriko dituzte, bakarkako irakurketari aldian-aldian eta etengabe denbora eskainiz, eta irakasleak banakako edo taldeko hausnarketa-uneak sustatuko ditu, irakurritako testuen artean erlazioak ezartzeko. Gogoeta-une horiek errazteko, irakasleak eztabaida-foro edo solasaldi dialogiko bihurtuko du ikasgela, eta ikasleek beren irakurketa-esperientziak partekatuko dituzte bertan. Baina ikasgelaz gain, ikastetxe barruko eta kanpoko beste espazio batzuk ere erabili behar dira, ikasleek, irakurtzeaz gain, irakurketarekin lotutako jardueretan parte hartu ahal izan dezaten beren gelako edo beste gela batzuetako ikaskideekin, senideekin, lagunekin, idazleekin, auzoko edo herriko jendearekin... Azken batean, ikasleak ikastetxeko Irakurketa Planean sartzea eta irakurzaletasuna sustatzen duten jardueren bultzatzaile bihurtzea da helburua, literaturarekiko zaletasuna eta literaturarekiko beste emankortasun-modu bat transmititzeko gai izan daitezen.

Obrei buruzko balio-iritzi esplizitazioa askoz ere elementu gehiagotan oinarrituko da, estetikatik harago, eta irakurritako obrekin zerikusia duten saiakeren ikerketa, irakurketa eta ekoizpena barne hartuko ditu. Horrela, literatura- eta kultura-jakintza eskuratzen lagunduko da, honako hauek ahalbidetzeko: hautatutako irakurketen arteko erlazioak ezartzea, norberaren irakurketa- eta kultura-esperientzia mugiaraztea, testuak ulertzea eta interpretatzea, testuak beren ekoizpen-testuinguruan eta horiek barne hartzen dituzten kultura-formetan zehaztasunez kokatzea, eta obrak eraikitzeko erabiltzen diren konbentzioen funtzioak eta ondorioak ulertzea.

Konpetentzia espezifiko hau Irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KE1, KPSII1.2, KPSII3.1, HK3.

2. Literatura-genero nagusien funtsezko ezaugarriak, joerak eta kontzeptuak eta adierazpen-baliabideak identifikatzea eta azaltzea, baita horietan behin eta berriz agertzen diren gaiak ere, XX. mendeko euskal eta espainiar literaturako lan esanguratsuak irakurriz, aztertuz eta alderatuz, literatura-sorkuntzako kezka, sinesmen eta asmo komunak daudela egiaztatzeko.

Konpetentzia honen bidez, ikasleak irakurketa konparatuan eta literatura-lanak aztertzeko tekniketan prestatzea lortu nahi da, XX. mendeko euskal eta espainiar literatura osatzen duten genero eta mugimendu estetikoen karakterizazioan sakontzeko, obraren eraikuntza-elementuen barne-erlazioak obraren zentzuarekin behatuz, baita bere ekoizpen-testuinguruarekin eta literatura-tradizioan duen lekuarekin duen erlazioa behatuz ere. Horretarako, irakasleak egile esanguratsuen obra kopuru jakin bat aukeratuko du (gizon eta emakume idazleen arteko oreka mantenduz), eta foku bat hautatuko du obra horiek molde generiko desberdinetako beste obra batzuekin lotzeko.

Hainbat genero, testuinguru eta hizkuntza artistikotako literatura-lanen irakurketa konparatuak aukera emango du XX. mendean zehar behin eta berriz izan diren unibertsal tematikoak eta bide formalak daudela egiaztatzeko eta antzekotasunak eta desberdintasunak antzemateko. Testuak aztertzeko tekniken bidez, ikertzeko, azterketa kritikoa egiteko eta iritziak emateko gaitasuna sustatuko da, datu garrantzitsuetan oinarritutako hausnarketa bat barne hartuta, eta obrak horiek idatzi ziren testuinguru historiko-sozialarekin erlazionatuta, ulermenean sakontzeko. Ikasleek, beraz, trebetasunez erabili behar dute informazioaren eta iritziaren txandakatzea (kontsultatutako iturriak kontsignatuz), eta azalpen-argitasun egokia

agertu behar dute, nolabaiteko estilo-bokazioarekin. Ikasleek, azken batean, zentzuen eraikuntza kolektiboaren parte izateak dakarren erantzukizunaz jabetu behar dute, ikuspuntu kultural eta etikotik abiatuta.

Banakako ikerketa-lanak eta lan kooperatiboak egingo dira. Horietan, ikasleek iturri analogiko zein digitaletan, informazioa bilatu, hautatu eta prozesatuko dute, eta lan egokiak, kohesionatuak eta koherenteak sortuko dituzte (aldez aurretik planifikatuta), analisi kritikoa eta baloraziozkoa islatzeko, eta irakurritako testuak eta egileak interpretatzeko. Ikasleak ahozko iruzkinetan eta eztabaidetan parte hartzera bultzatuko dituzte, literatura-testuen zentzuari eta haien ekoizpen- eta harrera-testuinguruari, gatazkei, literatura-arketipoei, bide formalei, adierazteko moduei eta abarri buruzko iritziak kontrastatzen laguntzeko. Komeni da beste jakintzagai batzuekin koordinatuta lan egitea, hala nola, Literatura Unibertsalarekin, Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literaturarekin, Espainiako Historiarekin edo Euskal Herriko Historiarekin, ikaskuntzari zentzu osoa eta kohesionatua emateko, jakintzagai batean ikasitakoa sendotuz eta beste batera transferituz.

Konpetentzia espezifiko hau Irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK4, HKK5, KD1, KD2, KPSII3.1, HK1, HK3.

3. XX. mendeko euskal eta espainiar literaturako lanen eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuen artean dauden erlazioak aztertzea, horiek sortu ziren garaiko eraginak kontuan hartuz, adierazpen-moduen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzeko.

Konpetentzia honen eginkizuna interpretazio-trebetasunak garatzea da, XX. mendeko euskal eta espainiar kultura-ondareko obra garrantzitsuak ezagutzen hasteko. Ikasleek irakurketei buruz argudiatutako balio-iritzia hitzez adieraziko dute, eta literatura-lanak beste adierazpen artistiko eta kultural batzuekin (eskultura, pintura, musika, zinema, dantza, etab.) lotuko dituzte. Helburua da literatura-lanen eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuen arteko erlazio arrazoituak ezartzea, gai, topiko, egitura, adierazpen-baliabide, balio etiko eta estetiko eta historikotasunaren nozioan sakonduz, irakurketaren ulermen eta interpretazio landua lortzeko eta osatzen ari garen historia hobeto ulertzeko.

Ikasgelan gidatuta eta partekatuta irakurriko diren literatura-lan gutxi batzuk hautatu behar dira, adierazpen artistiko eta kultural horien eta beste batzuen arteko loturaren inguruko ikerketa errazteko. Horretarako, bai testuinguru historiko eta kulturalean, bai literatura-tradizioan, bere interpretazioen historian eta beste forma artistiko klasiko eta egungoekiko elkarrizketan sakonduko da. Azken batean, ikasgelan modu gidatu eta partekatuan irakurtzeko euskal eta espainiar literatura-ondareko obra garrantzitsu batzuk —emakume idazleen obrak barne— hautatu behar dira, literaturaren eraikuntza eta funtzionamenduaren zein beste modu artistiko batzuekin eta ekoizpen-testuinguruko balio ideologiko eta estetikoekin ezartzen diren erlazioen eta oraina argitzeko eta azaltzeko duten ahalmenaren elementu garrantzitsuak erakusteko.

Ikaskuntza horri zentzu osoa emateko, esparru artistikoko beste jakintzagai batzuekin batera lan egitea bultzatu behar da, diziplinarteko ikaste-egoeren bidez. Era berean, oso gomendagarria da antzezlanetara, museoetara, kontzertuetara... joatea. Askotariko testuen eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuen arteko loturak sortuz, ikasleek ulermen eta interpretazio kritikoko trebetasunak hobetuko dituzte, eta mapa kultural bat osatuko dute, literaturaz gozatzeko aukerak zabaltzearekin batera.

Konpetentzia espezifiko hau Irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK4, HKK5, KD1, KD2, KD3, KPSII3.1, KPSII3.2, HK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK4.2.

4. Literatura-testu idatziak, ahozkoak edo multimodalak sortzea, banaka edo taldeka, alderdi sortzailea pizteko eta sentsibilitate estetikoa garatzeko.

Idaztea hainbat konpetentzia aktibatzea eskatzen duen ekintza konplexua da. Tarte luzea dago adimenean dagoenaren eta paper batean islatutakoaren artean, eta, bide hori egiteko, ikasleek beren pentsamenduak, ideiak edo iritziak transmititu, azaldu edo deskribatzen dituzten hitz, adierazpen eta forma egokiak bilatzeko estrategiak aktibatu beharko dituzte, eta, horrela, hautematen duten errealitatea inter-

pretatu. Ikasleak ekoizpen literarioak sortzen dituenean, bere sormena aztertzen du bere errealitatearen inguruan ideiak sortzeko. Horregatik guztiagatik, idazketatik lortzen den emaitzetako bat pentsatzeko gaitasuna hobetzea da, erretorika eta narrazio-trebetasunak lantzen baitira; eta beste bat, zalantzarik gabe, sormenaren garapena da, edozein motatako literatura-lanak egitea errealitateaz haragoko unibertso berri baten behaketa, azterketa, pertzepzioa eta ekoizpenaren emaitza baita.

Literatura-asmoko testuak idazteak, beraz, genero desberdinen konbentzioak bereganatzea errazten du eta, aldi berean, imitazio- edo birsortze-esperientzia sortzaileak eskaintzen ditu. Irakaslearen ardura da sormenezko literatura-idazketa hori sustatzea, eta, horren bidez, ikasleek aurrez aztertutako literatura-lanak imitatuko dituzte, beren ekoizpenak sortzeko. Horretarako, ikasleentzako hainbat jarduera berritzaile eta motibatzaile proposatu ahal izango dira. Jarduera horiek banaka edo taldeka egin ahal izango dira, genero-ikuspegiarekin, plataforma analogikoak eta digitalak erabiliz, eta ikastetxean bertan eta kanpora begira egin ahal izango dira, hala nola *fanfictions* sorkuntzak, poesia-, ipuin- edo bertso-lehiaketak, podcastak, filmen, film laburren edo antzerkien istorioak edo gidoiak, *booktrailer*rak... Sorkuntza horiek proposatu, egin eta zabaltzeko, beharrezkoa da ikasleak ikastetxeko Irakurketa Planarekin ohitu eta inplikatzea, eta horrelako jarduerak lantzen eta sustatzen dituzten ikastetxetik hurbil dauden erakunde publiko edo pribatuen (udalak, kultura-zentroak, antzerki-aretoak...) artean loturak sortzea.

Konpetentzia espezifiko hau Irteera-profilaren deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK4, KD2, KD3, KPSII5, EK3, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.2.

5. Hainbat iturritatik datorren informazioa bilatzea, hautatzea, kontrastatzea eta ebaluatzea, kritikoki eta eraginkortasunez, literatura-gaiei buruzko ikerlanak eta analisiak egiteko.

Informazioaren ekoizpena, ugaritzea eta banaketa egungo gizarteak eratzen dituen printzipioa da, baina informazioaren eskuragarritasunak ez du ezagutza berez bermatzen. Hori dela eta, ezinbestekoa da ikasleek informazioa ezagutza bihurtzeko abileziak eta trebetasunak eskuratzea, eta jakitea informazio hori noiz behar den, non bilatu behar den eta nola kudeatu, ebaluatu eta komunikatu behar den, ikuspuntu kritiko, efikaz eta pertsonal bat hartuz eta jabetza intelektualarekin eta identitate digitalarekin jarrera etiko eta arduratsu bat agertuz. Alfabetatze Mediatiko eta Informazionalaren (AMI) aldeko apustua da. Horrek teknologien erabilera arduratsua dakar, informazio partzial edo faltsuen detekzioa, iturrien etengabeko ebaluazioa, erabilera-denborak eta autorregulazioa bereziki kontuan hartuta.

Ahalegina egin behar da ikasleek, banaka edo modu kooperatiboan, iturri bibliografiko askotarikoak, fidagarriak eta seguruak eskura ditzaten, XX. mendeko euskal eta espainiar literaturari buruzko lanak edo ikerketa-proiektuak egiteko. Ikerketa-prozesu horietan, informazioaren aurretiko plangintza, kudeaketa eta bilketa egin behar da behar bezala berreskuratzeko, eta ezarritako aurkezpen-konbentzioei jarraitu behar zaie (aurkibidea, epigrafeetan oinarritutako antolaketa, aipamenak egiteko prozedurak, oin-oharrak, bibliografia eta webgrafia). Era berean, sormena garatu behar da eta testuingurura egokitu beharra dago ikaskuntza berria zabaltzean.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII4, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

XX. Mendeko Euskal Literatura eta Literatura Espainiarra
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. XX. mendeko euskal eta espainiar literaturako lanak banaka irakurtzea, eta irakurketa-ibilbide eta kultura-ibilbide pertsonalaren aurrerapenaren berri ematea, irakurketak hautatzeko irizpideak, literatura-kulturara iristeko moduak eta irakurketa-esperientzia arrazoituz.
1.2. Literatura-eztabaida eta -solasaldietan aktiboki, zuzen eta zorrotz parte hartzea, edozein diskriminazio mota (sexista barne) baztertuz, eta elkarrizketa-kooperaziorako, hizkuntza-adeitasunerako eta entzute aktiborako estrategiak erabiliz.

XX. Mendeko Euskal Literatura eta Literatura Espainiarra
1.3 Ikastetxearen Irakurketa Planean aktiboki parte hartzea, jarduerak proposatuz, diseinatuz eta gauzatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Euskal Herriko eta Espainiako XX. mendeko literatura-obra edo -zatiei buruzko ahozko eta idatzizko diskurtsoak sortzea, zentzu kritikoz eta literatura-testuak aztertzeko teknikak egoki erabiliz, literatura-ulermena, -azterketa eta -gogoeta egiteko gaitasuna erakutsiz.
2.2. Ikerketa-proiektu bat garatzea, topikoak, gaiak, kezkak, sinesmenak, nahiak eta arrazoiak daudela egiaztatzeko, hainbat iturritatik datorren informazioa hautatu eta kontrastatuz, fidagarritasuna eta egokitasuna kalibratuz, eta modu kritikoan komunikatzea diskriminazio mota oro baztertuz eta jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz.
2.3. Eztabaida eta solasaldietan aktiboki parte hartzea, irakurritako lanen interpretazioa argudiatuz, testuak bere testuinguru soziohistorikoarekin eta kulturalarekin eta literatur tradizioarekin dituen harremanak aztertuz; horretarako, metahizkuntza espezifikoa erabiliz, obren balioespen estetikoari lotutako balio-iritziak txertatuz, eta elkarrizketa-kooperazioko, hizkuntza--kortesiako eta entzute aktiboko estrategiak erabiliz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Azalpenak eta argudiaketak —ahozkoak, idatziak edo multimodalak— egitea, literatura-testuak edo -zatiak beste adierazpen artistiko eta kultural batzuekin alderatuz, bai alderdi tematikoei eta edukiei dagokienez, bai formalei, egiturei eta adierazpenei dagokienez, beren balio etiko eta estetikoei ere erreparatuz, zorroztasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiaz, eta behar den bibliografia eraginkortasunez erabiliz.
3.2. Aztergai diren literatura-lanak beste adierazpen artistiko eta kultural batzuen oinarri gisa erabiltzen direla aitortzeko, lankidetzako ikerketa-proiektuak garatzea, jardueretan interesa eta inplikazioa erakutsiz eta talde-lanean jarrera proaktiboarekin, gatazkak elkarrizketa bidez kudeatzeko eta adostasunak bilatzeko estrategiak erabiliz, eta solaskideen iritzi eta sentimenduekiko errespetuzko jarrera enpatikoa erakutsiz .
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Literatura-asmoko testu idatziak sortzea, sormenarekin eta genero-ikuspegiarekin, aztertutako literatura-genero eta -estilo desberdinetako konbentzio formalak erabiliz.
4.2. Jatorrizko literatura-produktuak sortzea hainbat euskarritan eta beste hizkuntza artistiko eta ikus-entzunezko batzuen laguntzarekin, aztertutako obra edo zatietatik abiatuz, elkarlanean eta sormenez, eta hizkuntzaren edozein erabilera diskriminatzaile baztertuz.
4.3. Testu propioak berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, metahizkuntzazko eta hizkuntza arteko gogoetan oinarrituta aldaketak argudiatuz eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz, eta ulertzeko arazoak identifikatzea eta konpontzea, hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko ezagutza esplizituak erabiliz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Hainbat iturritatik datorren informazioa bilatzea, hautatzea eta kontrastatzea, arreta berezia jarriz informazio horren egokitasunaren ebaluazioan, eta sormenez berregitea eta komunikatzea, ikuspegi kritikoa eta jabetza intelektualarekiko errespetuzkoa hartuz.
5.2. Literatura-gaiei buruzko ikerketa-lanak egitea, banaka edo modu kooperatiboan, hainbat euskarritan, hautatutako informazioa abiapuntu hartuz, eta jabetza intelektuala eta ezarritako aurkezpen-konbentzioak errespetatuz.
5.3. Teknologia digitalak modu kritiko, seguru, osasungarri eta jasangarrian erabiltzeko ohiturak hartzea, arriskuak ebaluatuz eta horiek erabiltzean neurriak aplikatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

XX. Mendeko Euskal Literatura eta Literatura Espainiarra	
A. Literatura-genero nagusiak.	
1.1. Narratiba	Euskal narratiba tradizionala (historikoa eta ohiturazkoa).
	Gerraosteko eta berreraikuntzako narratiba.
	Espainiako kulturaren Zilarrezko Aroaren bigarren erdiko narratiba espainiarra (modernismoa, 98ko belaunaldia eta 14ko belaunaldia).

XX. Mendeko Euskal Literatura eta Literatura Espainiarra	
	Narratiba modernoa (existentzialismoa, esperimentalismoa, intimismoa eta lirismoa).
	Narratiba eta errealismoak (errealismo magikoa, neorrealismoa, errealismo psikologikoa, genero-literatura).
1.2. Dramatika	Antzerkia.
	Zinema eta telebista.
1.3. Lirika	Poesia XIX. mendearen amaieratik 1936ra:
	-Euskal Errenazimendua (poesia erromantikoa, poemak...).
	-27ko belaunaldia.
	Gerra osteko eta berreraikuntzako poesia (poesia sinbolista eta poesia soziala).
	Aro berria (abangoardia literarioak eta abangoardia osteko eklektizismoa).
1.4. Ahozko literatura	Ipuinak.
	Ahozkotasunarekin lotutako euskal kultur tradizioak (bertsolaritza, baladak eta abesti narratiboak).
	Euskal musika-ondare tradizional eta garaikideko erreferentziazko abestiak eta musika taldeak.
B. Irakurketa gidatua.	
Literatura-eztabaiden edo literatura-elkarrizketen bidez obren interpretazioa era partekatuan egiteko estrategiak.	
Literatura-generoaren osagaiak eta obraren zentzuarekin duten lotura. Adierazpen-baliabideen harreran dituzten ondorioak.	
XX. mendeko euskal eta espainiar literaturaren eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuen arteko erlazio esanguratsuak, gaien, topikoen, egituren eta hizkuntzen arabera.	
Testuen interpretazioa argudioekin adierazteko estrategiak, aztertutako alderdiak integratuz eta balio kulturalak, etikoak eta estetikoak kontuan hartuz.	
Genero-ikuspegian oinarritutako irakurketa.	
XX. mendeko euskal eta espainiar literaturaren egile adierazgarrienak.	
C. Irakurketa autonomoa.	
Obrak hautatzeko autonomia, gomendio espezializatuen laguntzaz.	
Testuinguru presentzialean eta digitalean literatura-elkarrizketetan eta irakurketa-gomendioen elkartrukeetan parte hartzeko estrategiak, gaikako eta generoko alderdi formalak eta testuartekoak kontuan hartuta.	
Liburutegi fisiko eta birtualen erabilera autonomoa eta ohikoa.	
Norberaren irakurketa-gustuen eta irakurketa-esperientziaren komunikazioaren adierazpen argumentatua	
Literatura ezagutza berrien iturri, iragana eta oraina ulertzeko iturri eta sentsibilitate estetikoa garatzeko lagungarri gisa.	
Euskal eta espainiar literatura-, musika- eta eszena-ondarearekin lotura emozionalak (sentsazio berrien esperimentazioa), sinbolikoak (pertsona gisa aberasteko beharra) eta kulturalak ezartzeko estrategiak.	
Irakurtzeko interesa.	
D. Lanaren eta komunikazioaren antolamendua.	
1. Ulermena.	
Literatura-lanetan islatzen diren konbentzio soziokulturalen eta haiek sortu diren gizartearen arteko erlazioak.	
Hainbat testuingurutan ekoitzitako lanen antzekotasunak eta desberdintasunak.	
Literatura-generoen ezaugarriak eta baliabide estilistikoak.	
Norberaren, irakurketaren eta kulturaren esperientzia mobilizatzeko jarraibideak, irakurritako lanaren eta Euskal Herriko eta Espainiako alderdi historikoen eta gaur egungo alderdien eta beste adierazpen literario edo artistiko batzuen artean loturak ezartzeko.	
Obrak interpretatzeko eta literatura-tradizioan duten lekua ulertzeko estrategiak, informazio soziohistorikoa, kulturala eta artistikoa erabiliz.	

XX. Mendeko Euskal Literatura eta Literatura Espainiarra
2. Ekoizpena.
Ahozko produkzio formalerako estrategiak: Informazioa planifikatu eta bilatu, testuingururatu eta aztertu. Entzuleenganako eta azalpen-denborarako egokitzapena. Ez-hitzezko elementuak. Argudiatutako ahozko deliberazioa.
Idatzizko ekoizpenerako estrategiak: informazioaren bilaketa, planifikazioa, idazketa, berrikustea eta edizioa hainbat euskarritan.
Jarrera kritikoa eta zorrotza informazio-iturrien sinesgarritasunaren aurrean eta norberaren testuak sortzean besteek egiten dituzten sorkuntzen aurrean.
Aipamenak eta erreferentzia bibliografikoak egiteko prozedurak.
Hitzezko hizkuntzaren, ez-hitzezkoaren eta ikonikoaren erabilera ez-sexistarako jarraibideak. Genero-kontzientzia eta genero-ikuspegia.
Literatura-asmoko testuak sortzeko jarraibideak, irakurritako obretatik abiatuz.
Literaturako obra edo zatiei buruzko testu-azterketa eta -iruzkinak, generoei, aldiei, lanei eta egileei buruz eskuratutako ezagutzak aplikatuta.
3. Elkarrekintza.
Izaera formaleko elkarrekintzarako jarraibideak. Hitza hartzeko eta emateko jarraibideak. Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-adeitasuna.
Entzute aktiboa, asertibitatea eta baliabideak gatazkak elkarrizketa bidez kudeatzeko eta konpontzeko.
Parte-hartze aktibo, gogoetatsu eta egokirako jarraibideak.
Hizkuntza inklusiboa eta diskriminazio mota oro baztertzea, diskriminazio sexista barne.
4. Informazio-alfabetatzea.
Informazioa fidagarritasun-, kalitate- eta egokitasun-irizpideen arabera bilatzeko eta hautatzeko estrategiak.
Berriz landutako informazioa sormenarekin eta jabetza intelektuala errespetatuz komunikatu eta zabaltzeko estrategiak.
Etiketa eta aztarna digitala.
Proiektuak egiteko plataformak (booktrailerrak, podcastak...).
5. Ikaskuntzari buruzko gogoeta.
Bakarkako eta taldeko lana antolatzeko estrategiak. Erantzukizunak bere gain hartzeko jarraibideak.
Jarrera proaktiboa talde-lanean.
Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.
Norberaren ekoizpenen inguruko jarrera kritikoa, haien hobekuntzari begira.

EGUNGO MUNDUAREN GATAZKAK ETA ERREALITATEAK, ETA KOMUNIKABIDEEKIN ETA SARE SOZIALEKIN DUTEN ERLAZIOA

Egungo Munduaren Gatazkak eta Errealitateak, eta Komunikabideekin eta Sare Sozialekin duten Erlazioa 1. mailako jakintzagaia ikasleei esparru kontzeptual bat emateko helburuarekin sortu zen; gaur egungo problema-tika nagusiei buruzko hausnarketaren bidez eta postmodernitatearen eragin handiena duten pentsalari batzuek egungo gizarteari buruz duten ikuspegiaren bidez, ikasleei teknologia berriek, Komunikabideek eta Sare Sozialek informazioaren kudeaketan jokatzen duten funtsezko eginkizunean eta iritzi publikoa-ren orientazioan duten eraginean pentsatzeko aukera eman diezaieten.

Ikasleei gako jakin batzuk eman nahi zaizkie inguratzen gaituen errealitate soziala, politikoa eta ekono-mikoa ulertzeko, eta gai horiei buruz eta gure garaiari buruz hausnartzen duten egileengana hurbilketa txiki bat egin nahi da, informazioaren tratamendua aztertuz bertan arreta jartzeko, batez ere Komunika-bideetan eta Sare Sozialetan. Informazioaren kudeaketa beti izan da funtsezkoa gizarteentzat, baina iraultza teknologikoak eta sare sozialek aldaketa handiak ekarri dituzte. Beraz, gai horiei buruzko ezagutza txiki bat eta hausnarketa ezinbestekoak dira gure ikasleek egungo

gizartea ulertzeko eta autono-mia handiagoa garatzeko, parametro berrien pean funtzionatzen duen mundu honetan belaunaldi digi-talean jaiotako herritar gisa.

Irakasgai honek —jorratzen dituen gaiak eta alderdiak askotarikoak direlako eta, batez ere, gai horietara hurbiltzeko aukera asko daudelako— Batxilergoko funtsezko konpetentziak eta etapako helburuak modu integratuan garatzeko espazio egokia eskaintzen du. Planteatzen den egungo gizartearen azterketak, maila funtzionalean zein maila intelektualean, jorratzeko modu diferenteak (informazioa bilatzea, gizarte-mekanismoak ulertzea, diskurtso filosofikoak aztertzea, argudiozko elkarrizketa kooperatiboetan oinarritutako gogoeta, etab.) eskatzen dituzten gai asko aztertzen ditu, eta horrek zuzenean edo zeharka funtsezko konpetentzia guztiak lantzea eragiten du. Hori guztia kontuan hartuta, eta erlazio zuzena duenez, jakintzagaia horietako lautan zentratzen da bereziki: hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, konpetentzia digitala, konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa, eta herritartasunerako konpetentzia.

Gorago azaldutakoarekin bat etorriz, bai gertakarietatik, bai hausnarketatik errealitate soziala jorratzen duten irakasgaien —hala nola Filosofia, Filosofiaren Historia, Espainiako Historia edo Mundu Garaiki-dearen Historia, Artearen Historia eta abar— eta izaera teknikoagokoak dituzten irakasgaien —Ikus-en-tzunezko kultura, Teknologia eta Ingeniaritza, Ekonomia edo Enpresa eta negozio-ereduak— arteko lotura da jakintzagai hau. Gaur egungo gizarteak ulertzeak, eta, zehazki, horietan Komunikabideen eta Sare Sozialen bidez tratatutako informazioak duen rolak, berekin dakar bai gizartea ulertzea —haren izaerari eta funtzionamenduari buruzko ikuspegi propioa eraiki ahal izateko —, bai bitarteko horien azpian dauden mekanismoek —alderdi teknologiko eta ekonomikoan— nola funtzionatzen duten jakitea. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu irakasgai honek jokatzen duen papera ikasleei ikuspegi integratzaile eta holistiko bat emateko orduan, lehen aipatutako jakintza eta konpetentziekiko.

Irakasgai honetako funtsezko konpetentziak zazpi puntutan antolatzen dira, eta horiek, oro har, bi multzotan bana genitzake. Lehenengoak oinarrizko jakintzekin lotura estua duten lau konpetentzia biltzen ditu: 1., 2., 3. eta 5.a. Lehenengoa ikasleek postmodernitatearen ezaugarriak barneratzearekin lotuta dago, egungo pentsalari eraginkorrenen diskurtsoetatik abiatuta. Helburua da jorratutako gaiei buruzko interpre-tazio bat egitea, gai horien eta ikasleen bizi-ingurunearen arteko loturak ezarriz. Hirugarren konpetentzia espezifikoa teknologia berrien, Komunikabideen eta Sare Sozialen esparruko ezagutza teknikoei dagokie, haien funtzionamenduan sakonduz, egungo gizarteko informazioaren fluxua eta kudeaketa aztertu ahal izateko, baita horiek eremu sozial, ekonomiko eta politikoekin duten erlazioa ere. Bigarren konpetentzia gaur egungo munduaren problematika nagusiei lotuta dago, eta bere helburua ikasleek —euren azterketak eginez eta eurek ulertuz— problematika horien konplexutasunaren aurrean kokatzeko gai izatea da, horietan parte hartzen duten faktore indibidualak eta kolektiboak, eta gure ingurune hurbilean duten presentzia identifikatuz. Hori zuzenean lotuta dago 5. konpetentziarekin, mundu globalizatuko egungo errealitateaz, eta estatuen eta kulturen arteko koexistentzia-harremanez arduratzen baita.

Bigarren multzo batean 4., 6. eta 7. konpetentziak erlaziona ditzakegu, izaera praktikokoak, baina horien garapenak lotura estua izan behar du aurrekoekin. Ikasleak orientatu ahal izateko beharrezkoa den ezagutzen esparrua ezarri ondoren, helburua da beren portaeren azterketa egitea, egungo problematiken inguruan, batez ere informazioaren kudeaketari dagokionez, jarrera eta ohitura kontzienteagoak eta oinarrituagoak izateko. Seigarren konpetentziaren helburua da oinarrizko jakintzak aldez aurreko analisi eta ikerketa baten bidez lantzea, azaldutako gaiei buruzko ezagutzak ikasleen eskura jartzeko. Hausnarketara eta ikasleek beren posizionamenduak eraikitzera zuzenean bideratutako jakintzagaia da. Horrela, gai konplexuei buruzko pentsamendu propioa garatzeko, ikasgelan kooperazioko argudiozko elkarrizketa sistematizatua erabili behar da, ikasleen elkarrizketen eta posizionamenduen oinarri izango den informazioa barneratzearekin batera. Eta azaldutako guztia gauzatzen laguntzeko, 7. konpetentzia informazioa bilatzeaz, aukeratzeaz, tratatzeaz eta antolatzeaz arduratzen da, hainbat iturritatik abiatuta, ikasleekin euren pentsamendu kritikoa garatzen lagunduko diguten ezagutzak eskuratzeko.

Ebaluazio-irizpideen helburua da jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoen lorpen-maila zehaztea eta jakintzak zein neurritan barneratzen eta nola aplikatzen diren zehaztea, eta ikasleak bere garapen

pertsonal eta akademikorako jarrera eta balio garrantzitsuak hartzen ote dituen zehaztea. Haien formulazioan, beraz, jakitea, egiten jakitea eta izaten jakitea aipatzen dira argi eta garbi. Hortaz, oinarrizko jakintzei loturik, ebaluazio-irizpideek ikasteko prozesuak zein ikaskuntzaren emaitzak berak hartu behar dituzte kontuan, eta horiek behar bezala gauzatzeko, konpetentzia espezifikoen garapena zehaztuko den ikasteko testuinguru eta egoeretara egokitzeko moduko askotariko ebaluazio-tresnak beharko dira.

Oinarrizko jakintzei dagokienez, lau multzotan banatuta daude, eta horien ordena ez da nahitaezkoa; aitzitik, irakasle bakoitzak nahi duen moduan antolatu ahal izango du. Lehenengoak gizarte postmodernoaren azterketa du ardatz, ikuspegi filosofiko eta soziologiko batetik. Horren helburua ikasleei gure garaiko gai nagusiak ezagutaraztea da, aurrerago, gai horien eta egungo gizartean informazioaren kudeaketaren arteko harremanean sakontzeko, eta pentsalari garaikide eraginkorrenetako batzuk aurkezteko. Aukeratutako pentsalari horiek dagoeneko gogoeta egina dute Komunikabideei, Sare Sozialei, teknologia berriei edo XXI. mendeko problematika nagusiei buruz. Problematika horiek gainerako multzoetan landuko dira.

Bigarren eta hirugarren multzoek gaur egungo gai sozial, ekonomiko eta politiko garrantzitsuenak jartzen dituzte mahai gainean. Aurkezten diren problematika guztiek ez dute berdin eragiten, eta munduan ere ez dute presentzia bera, baina guztiak globalak eta gaur egungoak dira, eta modu batera edo bestera eragiten diete kultura eta gizarte-maila desberdinei. Gaur egungo gizartearen ardatz diren eta aurre egin behar diegun arazo nagusien inguruan gutxieneko ezagutza izateak berebiziko garrantzia du, pentsalariek gure garaiari buruz egiten dituzten hausnarketek bezalaxe. Bi gauzak atzemateak gogoeta eragin behar du ikasgelan. Hemen, besteak beste, geopolitika, demografia, kontsumoa, hezkuntza, osasuna, lana, aisia, diskriminazioa edo indarkeria jorratzen dira, ikasleak errealitate konplexu baten aurrean kokatzeko ezinbestekoak direlako, eta errealitate horri buruz ikertu eta hausnartu behar delako. Informazioarekin zerikusia duten gaiak multzo horiek osatzen dituzten gai bakoitzaren arabera landuko dira.

Laugarren multzoa teknologia berrietan eta informazioaren kudeaketan oinarritutako jakintzez osatuta dago. Horrela, sare sozialen edo komunikabideen funtzionamenduari buruzko ikerketaren eta horrek biltzen dituen elementu sozial, politiko eta ekonomikoei buruzko ikerketaren bidez, helburua da inguratzen gaituen errealitatearen ulermena erraztea, ikasleek beren iritzi propioa eraiki ahal izan dezaten, intelektuala zein bizitzari lotua. Prozesu honetan funtsezko garrantzia hartzen du oinarrizko beste hiru jakintza multzoetan jorratutakoak.

Garrantzitsua da azpimarratzea, oinarrizko jakintzen ordenarekiko malgutasuna iradoki bada ere, ezinbestekoa dela guztiak modu orekatuan eta antzeko sakontasunez lantzea. Era berean, funtsezkoa da ikasturtean zehar hainbat multzotako jakintzen arteko etengabeko erlazioak ezartzea, ikasleei azaldutako guztiaren arteko erlazioa ulertzeko aukera emanez eta irakasgai hau aztertzen duen errealitatearen konplexutasuna modu integralean jasoko duen ikuskera eratzen lagunduz. Horregatik, garrantzitsua da hain zabala eta diziplinartekoa den azterketa-eremu baten aurrean, irakasleek aldez aurretik ikertzea ikasleek zein multzotan dituzten gabezia handienak.

Azkenik, gogoratu behar da tokiko ikuspegiak, genero-ikuspegiak eta ikuspegi inklusiboak hezkuntza-praktikan txertatuta egon daitezen lortzeko, eredu artistiko, kultural, antropologiko, linguistiko edo sozialetara jotzea beharrezkoa denean, kontuan izan behar ditugu aniztasuna (funtzionala, sexual-afektiboa, ekonomikoa, jatorrikoa...), genero-berdintasuna eta euskal dimentsioa. Adibideak erreferentzia gisa erabili beharko dira pentsamendu gogoetatsua eta, ondorioz, pentsamendu kritikoa garatzeko. Gainera, Batxilergoan garrantzitsua da aipatu ditugun euskal dimentsioari eta inklusioari lotutako ideia eta egile jakin batzuen bidez erreferentzia teoriko jakin batzuk lantzea.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Postmodernitatearen berezitasunak ezagutzea eta interpretatzea, testuen, egileen eta gaur egungo gizarte-fenomenoen inguruko diskurtsoaren azterketatik eta interpretaziotik abiatuz, gai horien garrantzia ezagutzeko, eta gai izateko horiek norberaren eta gure ingurunearen bizitzeko moduekin lotzeko.

Irakatsi eta ikasteko prozesuan, pentsamenduaren historian zehar jada hainbat alditan aztertu diren alderdi sozial, kultural, artistiko, historiko, zientifiko eta politikotan sakontzen dute ikasleek. Une garaikidea da, bereziki azken 50 urteak eta Postmodernitatearen fenomenoa, gutxien sakontzen den garaia —oso hurbil dagoelako—. Horregatik, postmodernitatearen ideia —Modernitatearen joeren aurkakotasun edo gainditze gisa ulertuta— ez daukagu kontzienteki asimilatuta.

Irakasgai honek egungo errealitatea ulertzen lagundu diezaguketen esparru teorikoak eta kontzeptualak identifikatzen eta ezagutzen lagundu nahi du. Ulertu behar dugu zer den postmodernitatea eta zer eztabaida ekarri dituen gure bizitzetara, bai gizartean, bai arlo pertsonalean. Azken hamarkadetan pentsalari nagusi batzuek egindako hausnarketetan sakonduz, duela gutxiko fenomenoak aztertuko ditugu, horien aurrean jarrera kritikoagoa, kontzienteagoa eta ahaldunagoa hartzeko. Horrek lagundu egin behar die ikasleei hobeto ulertzen zerk duen eragina, eta horrek, batzuetan, baldintzatu egiten du egungo gizartea sentitzeko, pentsatzeko eta bizitzeko modua, eta, ondorioz, baita ikasleena bera ere. Hori guztia hainbat diziplinatan (Soziologia, Historia, Zientzia Politikoak, Filosofia edo Kazetaritza) argitaratutako hausnarketen azterketa kritikoaren bidez egingo dugu.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, KE1, KPSII4, HK1, HK3, KAKK1.

2. Egungo munduaren problematika nagusiak eta horien konplexutasun sistemikoa eta kausa anitzekoa identifikatzea eta aztertzea, informazioa kontrastatuz eta horiei buruz argudiatutako elkarrizketa kritikoa eginez, prozesu horietan parte hartzen duten eragile indibidualak eta kolektiboak, horiek gure bizitzetan duten eragina eta bertan dugun erantzukizuna identifikatzeko.

Gaur egungo munduaren problematiken azterketatik eta horiei buruzko informazioaren kontrastetik abiatuz, eta haien konplexutasun sistemikoa eta kausa anitzekoa azpimarratuz, irakasgai honen helburua da ikasleak izatea, modu kritiko eta arrazoituan, errealitate soziopolitiko postmodernoaren inguruko kezkak pizten lagunduko dieten jarrera kontzienteak eraikiko dutenak, ikerketa pertsonalaren bidez eta dinamika dialogikoetan parte hartuz. Egungo gatazka nagusiei buruzko ikerketa gidatu horrek erreferentzia-esparru egokia eman behar die ikasleei XXI. mendeko erronken aurrean herritartasun kontziente, kritikoki konprometitu, gogoetatsu eta konstruktibo bat osatzeko. Esparru horrek erronkek gure bizitzetan duten eragina eta bertan guk dugun erantzukizuna identifikatzen ditu.

Helburua da ikasleek erronka horiek eta haien inplikazioak ulertzea, erronken aurrean posizionatu ahal izateko, eta, ildo horretatik, erronken alderdi anitzak eta nahastutako eragileak aztertzea eta kategorizatzea. Ikasleen hurbileko errealitateari dagokionez zein gai orokorrei dagokienez, berebiziko garrantzi du —irakasgai horren dimentsio teoriko-praktikoari jarraikiz— irakasleek arreta berezia jartzea bidezko zubiak eraikitzeari, betiere ikasleek errealitateari zentzua emango dioten beharrezko loturak ezar ditzaten eta beren ekintzak gidatuko dituzten posizionamendu propioak eraiki ditzaten.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, STEM2, KD1, KPSII1.2, KPSII4, HK1, HK3, HK4.

3. Teknologia berrien, komunikabideen eta sare sozialen antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea eta kritikoki aztertzea, informazioaren kudeaketari dagokionez, kazetaritza, zientzia eta dibulgazio izaerako artikuluak, testigantzak eta ikus-entzunezkoak aztertuz, mezuen funtzionamenduaren, informazio-fluxuen eta botere-erlazioen irudi argia lortzeko, baita mezuen eduki, antolaketa eta kontrolarena, eta horiek gizartean duten eraginarena ere.

Hautazko irakasgai honen ardatz nagusietako bat izan behar da ikasleek ulertzea komunikabideek eta sare sozialek iritzi publikoan, botere-harremanetan eta gizarte-harremanetan eta garapen orokorrean duten eragina. Testu idatzien, testigantzen eta ikus-entzunezko materialaren analisiak komunikabideen eta sare sozialen funtzionamenduari buruz ikertzeko eta gogoeta egiteko tresna izan behar du, mezuen forman eta asmoan sakonduz, bai zuzenetan, bai subliminaletan eta inplizituetan.

Irakasleek gidatutako metodologia dialogikoarekin bat etorriz egin behar da lana. Lan hori ikasleen ikerketan oinarritu behar da, eta beti komunikazio-zientzietatik, ingeniaritza teknologikotik, soziologiatik edo zientzia politikoetatik prozesuaren eragile izan daitekeen edozein gairi buruz sortutako edukien kontrastetik abiatu behar da.

Horren ondorioz, ikasleek mapa argigarriagoa lortu behar dute komunikabideak eta sare sozialak garatzeak eta erabiltzeak dakarrena baino, horretan guztian zer interes nahasten diren kontuan hartuz. Horrela bakarrik eraiki ahal izango dute euren iritzi propioa tresna horiek gizabanako eta gizarte gisa eskaintzen dizkiguten arrisku eta aukeren aurrean.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, KD1, KPSII1.2, KPSII4, HK1, HK3, HK4, EK1.

4. Teknologia berrien, komunikabideen eta sare sozialen erabilera pertsonalak, eta aurkezten dizkiguten dilema etikoen aurrean dugun jarrera aztertzea eta zalantzan jartzea, autoanalisiaren, gogoeta autonomoaren eta argudiozko elkarrizketa kooperatiboaren bidez, tresna horien erabilera arduratsuagoak egiteko. Komunikabideak eta sare sozialak beste tresna bat dira egungo belaunaldiak gizarteratzeko. Euren erabilera etengabea eta orokorra izateak ez du esan nahi kontziente eta eraginkorra denik. Ezinbestekoa da hausnarketa kritikoa eta arrazoitua egitea, tresna horien kontrola erabiltzailearen esku egon dadin, eta ez alderantziz.

Irakasgai honen helburuak lortzeko, sareen banakako erabilera aztertzeaz gain, horien erabilerarekin —arriskutsua edo egokia baina espero ez diren ondorioekin— zerikusia duten hurbileko gatazkak edo gatazka globalak aztertuko dira. Garrantzitsua da zer litzatekeen komunikabideak eta sare sozialak modu desegokian erabiltzearen inguruan hausnartzea, gaur-gaurkoz egin nahiko genukeen erabilera horrekin —egokiagoa iruditzen zaigulako— alderatuta.

Konpetentzia horren bidez, beraz, ikasleek hainbat tresnen ezaugarrietan, erabileran, irismenean, arriskuetan eta potentzialtasunean sakontzea lortu nahi da, autoanalisitik eta autoezagutzatik abiatuta. Elkarrizketa kooperatibo argudiatzailetik zalantzan jartze gidatuak ikasleak XXI. mendeko komunikazio-sistemaren aurrean kontzienteago egingo dituzten tresnak lortzeko prozesua aktibatu behar du. Horrek autonomoagoak ere egingo ditu etorkizuneko aldaketen aurrean.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, HKK5, KD4, KD5, KPSII1.2, KPSII4, HK3, EK2.

5. Estatuen eta kulturen arteko koexistentzia-, hegemonia-, mendekotasun- eta sumisio-erlazioak identifikatzea, globalizazio-prozesuaren testuinguruan kokatuz eta horren aurrean dauden jarrerak ezagutuz, gai horien inguruan jarrera kontzientea eta argumentatua eraikitzeko eta etorkizuneko eszenatoki-aldaketetarako trebetasun kritikoak finkatzeko.

Gaur egungo munduko arazoek inguratzen gaituzte, eta, komunikabideen eremutik hasi eta familia- eta gizarte-elkarrizketetaraino eta erakunde-munduraino, herritar gisa interpelatzen gaituzten hamaika mezu azaltzen zaizkigu. Estatuen eta kulturen arteko koexistentzia-, hegemonia-, mendekotasun- eta sumisio-erlazioak —globalizazio-prozesuaren testuinguruan kokatuak— identifikatzea irakasgai honek planteatzen duen lanaren parte da, ikasleak gaitzeko gatazkei buruzko posizio propio eta kontziente bat eraikitzen.

Ezin ditugu ahaztu estatuen arteko erlazioak, gaur egun gure ekoizpen- eta merkaturatze-sistemak zuzentzen dituenak, eta harreman horien ondorioak nabari dira bai jarduten duten nazioarteko testuinguruaren eraketan, bai estatuen barne-egituretan. Globalizazioak eta azken hogeita hamar urteetako aldaketen emaitza ekonomikoek ondorio ugari dituzte —onuragarriak edo kaltegarriak— gure bizitzako esparru guztietan. Hori irakasgai honen beste ardatz batekin lotu behar da: nola iristen den informazioa herritarrengana; hori bereziki interesgarria da gaur egungo mundu aldakor eta konplexu honetan.

Jakintzagaiak planteatutako hausnarketa-prozesuaren parte da, batetik, existitzen diren problematiken aurrean dauden jarrerak ezagutzea, eta, bestetik, alternatibak eraikitzeko ideiek duten zeregina. Ikasleei

ezagutzak integratzen eta iritziak emateko konplexutasunari aurre egiten lagundu behar diegu, informazioa osatu gabea edo mugatua izanda ere. Garrantzitsua da, halaber, judizio horietan haien ideien eta ekintzen ondorio diren inplikazio sozial eta etikoei buruzko hausnarketak egitea. Prozesu horretan, ezinbestekoa da informazioa kontrastatzeko eta argudiatutako elkarrizketarako lan kooperatiboa egitea, baina, aldi berean, ezinbestekoa da norberak bere hitzaldia edukitzea, oraina baldintzatzen duten eta etorkizuna, planetaren eta bertan bizi garen espezieen biziraupena eta duintasuna baldintzatuko duten gaiei lotutako jakintzak eta trebetasunak aktibatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, HKK5, KPSII4, HK1, HK3, HK4, EK1.

6. Argudiozko elkarrizketa kooperatiboa modu zorrotz, kritiko, tolerante eta enpatikoan egitea, elkarrizketa horrek behar dituen jarraibide etiko eta formalak barneratuz eta eskatzen digun kudeaketa emozionala identifikatuz, talde-jardueretan parte hartzearen eta komunikabideekin eta sare sozialekin lotutako gaien planteamendu dialogikoaren bidez, ideien kontrastea eta elkartrukea sustatzeko eta herritartasun aktiboa, emozionalki gaitua eta demokratikoa gauzatzeko.

Eredu dialogikoak, hasieratik, zalantzarik gabeko lehentasuna du pentsamendu abstraktua eta kritikoa garatzeko metodo gisa, eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko funtsezko erreferente gisa. Hori da, beraz, argudiozko elkarrizketa gizarte-hezkuntzarako oinarria dela esan dezakegun konpetentzia garrantzitsuenetako bat. Lan egiteko modu honek gutxitan elkarrekin agertzen diren hainbat bertute batzen ditu: zorroztasun arrazionalaren eskakizuna, aniztasun ideologikoaren onarpena eta bat ez gatozen pertsonekiko errespetuzko jarrera enpatikoa, jarrera komun bat bilatzeari eta elkarrekin aurkitzeari utzi gabe, eta desadostasuna nahitaez gatazka gisa ulertu behar izan gabe, ikuspegien aniztasun eta osagarritasun gisa baino.

Elkarrizketa, bestalde, ikaskuntzaren beraren antzeko prozesua da, honako hauek eraginpean hartzen dituen ia ikuspuntu pedagogiko orotatik: alderdi motibazionalak, emozionalak, ikaskuntza aktiboa eta esanguratsua, ikerketa edo aurkikuntza bidezko irakaskuntza, kolaborazio-lana edo bizitza osoko prestakuntza. Oro har, ziurgabetasunaren eta kritikaren elementuak era konstruktiboan integratzen ditu, eta aukera ematen du elementu horietatik abiatuta planteamendu berritzaileak eta gainditzaileak aurkitzeko. Gainera, kooperazioaren, zintzotasunaren eta eskuzabaltasun hermeneutikoaren printzipioei jarraitzen die, eta izaera irekia eta amaitu gabea du, baina horrek ez du esan nahi eraginkortasun txikiagoa duenik ikerketarako eta herritartasunaren jardun aktibo eta demokratikorako.

Azaldutako guztia guztiz beharrezkoa da garapen teknologikoak, oro har, eta komunikabideek eta, bereziki, sare sozialek planteatzen dizkiguten errealitate berriei buruzko hausnarketan.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, STEM1, KPSII3.1, KPSII4, HK2, HK3, KAKK1, KAKK3.2.

7. Gaur egun garrantzitsuak diren arazoei buruz ikertu eta norbere produktuak ekoiztu, hainbat formatutan eta tokikotik globalera, informazioa bilatuz, aukeratuz, tratatuz eta antolatuz, eta askotariko iturriak erabiliz, ezagutzak eskuratzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko.

Informazioa bilatu, hautatu eta tratatzearekin lotutako trebetasunak eta prozesuak ezinbesteko tresnak dira ikaste-egoera guztietan, ezagutzaren gizartearen testuinguruan. Konpetentzia hori entrenatzea eta erabiltzea funtsezkoa da datuak, edukiak eta jakintzak eskuratzeko eta barneratzeko. Horretarako, bilaketa-sistemak, datu-baseak eta baliabide-plataformak ikasleentzat eskuragarri dauden ingurune digitaletan erabiltzearekin lotutako estrategia konplexuak garatu behar dira, eta, horrez gain, beste dokumentu eta iturri batzuk erabili behar dira. Ulermenezko irakurketarako, iturrien kritikarako, datuen maneiurako eta metaketarako oinarrizko prozesuak barne hartzen ditu, baita partekatutako informazioa modu eraginkorrean konektatzeko eta antolatzeko estrategia egokiak ere, bai ingurune indibidualetan, bai kolektiboetan.

Iritzi propioak sortzea, hainbat informazio-iturri egiaztatzetik abiatuta eraikiak, eta funtsik gabeko iritziak eta informazio faltsuak bereizteko gaitasuna funtsezkoak dira aldi berean gehiegizko informazioa eta

nahita desinformatzea elkarrekin bizi diren gizartean. Gizateriari eragiten dioten arazo eta erronka nagusiekiko interesa eta sentsibilitatea izateak, bai ingurune hurbilenean, bai testuinguru globalean, eta komunikabideetan eta sare sozialetan sortzen diren eztabaiden jarraipena egiteak, herritarren jarrera kritikoa eta arrazoitua garatzeko beharra dakar. Konpetentzia horren garapenak ideiak eta pentsamenduak originaltasunez eta sormenez islatzeko gai diren produktuak egiteko beharra sortu behar du, forma testuinguru desberdinetara egokituz.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3, EK3, KAKK3.1, KAKK3.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Egungo Munduaren Gatazkak eta Errealitateak, eta Komunikabideekin eta Sare Sozialekin Duten Erlazioa.
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Postmodernitateari buruzko kontzepzio garrantzitsuenen ezagutza esanguratsua eskuratzea eta adieraztea, horiek ikertuz eta zein gairi erantzuten dieten identifikatuz.
1.2. Gizarte postmodernoarekin lotutako arazo, ideia, tesi eta eztabaida nagusiak identifikatzea, ulertzea eta horiei buruz eztabaidatzea, hainbat egileren egungo gizarte-fenomenoei buruzko testuen eta diskurtsoen analisi eta iruzkin kritikoa eginez.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Egungo munduaren problematika nagusiak aztertzea eta ulertzea, diziplinartekotasunez, modu sistemikoan eta eraldatzailean, hainbat jakintza-eremutatik datozen datuak, kontzeptuak, ideiak eta prozedurak erabiliz, orientatuz, kontrastatuz eta kritikoki egituratuz.
2.2. Gaur egungo gizartearen gai nagusietan parte hartzen duten eragile indibidualak eta kolektiboak identifikatzea, ikasleen bizi-ingurunetik errealitate soziopolitiko globaleraino doan analisia eginez.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Teknologia berrietan, sare sozialetan eta komunikabideetan dagoen informazioaren kudeaketaren konplexutasuna barne hartuko duen ikuskera sortzea, haren antolaketa eta funtzionamendua aztertuz.
3.2. Mezuetako eta edukiko botere-erlazio inplizituak identifikatzea, komunikabideetatik eta sare sozialetatik datorren hainbat motatako informazioa aztertuz, kontrastatuz eta iragaziz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Teknologia berrien, komunikabideen eta sare sozialen erabilerari buruzko jarrera kontzientea hartzea, arreta berezia jarriz informazioaren kudeaketan, norberaren eta ingurunearen praktikak aztertuz eta zalantzan jarriz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Gaur egungo arazo soziopolitiko nagusien aurrean jarrera propioa garatzea, estatuen eta kulturen arteko erlazioen azterketa geopolitiko eta filosofikoa eginez eta lehian dauden jarrera desberdinen inguruko argudiozko elkarrizketaren bidez.
5.2. Edozein gai problematikoren inguruan jarrera kritikoa izateko eta ideiak eta jarrerak garatzeko aukera ematen duten jarraibideak barneratzea, ikasgelako dinamikak errepikatuz. Dinamika horiek lehendik daudenekin alderatuz ideia berriak zalantzan jartzea, aztertzea eta lantzea sustatzen dute.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Ideien kontrastea eta trukea eta herritartasun aktibo eta demokratikoaren jarduketa sustatzea, talde-jardueretan parte hartuz eta elkarrizketa arrazionala, errespetuzkoa, irekia, eraikitzailea eta egiarekiko konprometitua eginez, filosofikoki garrantzitsuak diren gai eta arazoei buruz.
6.2. Nork bere baitan identifikatzea ariketa dialogikorako indarguneak eta ahulguneak, bai maila tekniko-argumentatiboan, bai maila emozionalean, horiek konpontzeko estrategiak bilatuz eta ezarriz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Gaur egungo arazo garrantzitsuei buruzko informazioa bilatzea eta hautatzea, iturriak kritikoki tratatuz eta informazioak kontrastatuz.
7.2. Gaur egungo tokiko eta munduko arazo garrantzitsuak ulertzea eta adieraztea, erabilitako informazioan oinarritutako produktu propioak hainbat formatutan landuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Egungo Munduaren Gatazkak eta Errealitateak, eta Komunikabideekin eta Sare Sozialekin Duten Erlazioa
1- Gizarte postmodernoaren ezaugarriak.
1. Postmodernitatearen hastapena. Modernitatearen eta errealitate postmodernoaren balioen gainbehera. Egiaren kontzepzioa postmodernitatean. Gianni Vattimo... Jean-François Lyotard...
2. Frankfurteko eskola eta arrazoi instrumentala: Max Horkheimer, Helbert Marcuse… Kritikak pentsamendu postmodernoari eta modernitatearen proposamen erreformistak: Jürgen Habermas, Hannah Arendt…
3. Eredu hegemonikoen haustura eta aukera-aniztasuna bizitzako esparru guztietan: kausak eta ondorioak. Zoriontasunaren kontzeptua gaur egungo gizartean. Desafekzio politikoa eta indibidualismoa.
4. Gai garaikideei buruz hitz egiten duten gaur egungo pentsalariak: Byung Chung Hal, Naomi Klein, Noam Chomsky, Zygmunt Bauman, Marina Garces...
2- Egungo munduaren errealitate eta gatazka globalak.
1. Munduko eskualde geografiko handiak. Egungo munduaren antolaketa politikoa eta ekonomikoa. Multipolaritatea eta globalizazio ekonomikoa. Nazioarteko erakunde, aliantza eta multzo komertzial nagusiak.
2. Nazioarteko erlazioak. Iparralde eta Hegoalde globalak. Gerrak eta gatazka armatuak. Identitate- eta erlijio-gatazkak. Diplomaziaren eta nazioarteko erakundeen zeregina.
3. Globalizazio ekonomikoa eta kulturala eta horren ondorioak. Nazioarteko merkataritzaren fluxuak eta herrialdeen arteko desberdintasun ekonomikoa. Globalizazioa aro digitalean.
4. Aldaketa eredu demografikoan eta bizi-zikloetan. Zainketen kudeaketa. Arrazoi desberdinetatik eratorritako migrazio-mugimenduak: politikoak, klimatikoak, ekonomikoak...
5. Kapitalismoa eta enplegua aro digitalean. Publikoa eta pribatua egungo gizartean. Desparekotasuna eta pobrezia: ongizate-estatuaren krisia eta gizarte-polarizazioa. Langabezia eta lan-prekarietatea.
6. Ingurumenaren gaia. Ingurumen-iraunkortasuna. Baliabide naturalak/energetikoak eta horien ustiapenaren, eskasiaren edo agortzearen ondorioak. Klima-aldaketaren ondorioak. Ingurumena eta teknologia berriak.
3- Errealitate eta gatazka unibertsalak gaur.
1. Kontsumo-gizartea. Beharren sorrera, zaharkitze programatua eta kontsumoa bultzatzeko beste modu batzuk. Publizitatearen eragina. Kontsumismoa.
2. Politika gaur egungo gizartean. Desafekzio politikoa. Politikan parte hartzeko eskema eta modu tradizionalen eta egungo alternatiboen aldaketa. Polarizazio politikoa eta populismoaren eta estremismoaren gorakada. Komunikazio digitala egungo politikan. Askatasunak XXI. mendean.
3. Osasuna. Elikadura. Sedentarismoa eta gehiegizko jarduera. Osasun mentala eta adikzioak. Teknologia berriak eta osasuna. Osasunaren kudeaketa. Jarrera azientifikoak.
4. Bizimoduak. Aisialdia eta horrek hainbat esparrurekin duen erlazioa: ekonomia, kultura, gizartea, ingurumena, hirigintza, osasuna… Aisialdiaren kudeaketa. Aisialdia aro digitalean. Bizimodu indibidualistak eta komunitarioak. Kuantifikaziorako joera.
5. Hezkuntza. Hezkuntzara sarrera. Hezkuntzaren inguruko hainbat ikuspegi. Hezkuntza aro digitalean. Kulturaren eta jakintzaren ikusmoldea eta balioa XXI. mendean.
6. Indarkeria eta diskriminazioa egungo gizartean. Homofobia, transfobia, xenofobia, aporofobia eta arrazakeria. Diskriminazioa eta genero-indarkeria. Bizikidetzan ematen den indarkeriarekin lotutako arazoak. Indarkeria eta diskriminazioa esparru digitalean.
4- Informazioari, sare sozialei eta teknologia berriei lotutako egungo munduaren gatazkak eta errealitateak.
1. XXI. mendeko aldaketa teknologikoak. Teknologia berriak eta sare sozialak: zer diren, zeintzuk diren eta zein ezaugarri dituzten. Teknologia berrien inguruko eztabaida etikoak. Tekno-optimismoa eta tekno-pesimismoa. Tekno-filia eta tekno-fobia.
2. Informazioaren gizartea. Kazetaritzaren, komunikabideen, sare sozialen eta iritzia sortzen duten beste eragile batzuen zeregina.
3. Informazioaren sorrera eta transmisioa sare sozialetan eta komunikabideetan. Informazioaren sustapena, omisioa, gidaritza eta zentsura. Boterea, ekonomia eta kontrol soziala. Big data: ezaugarriak, erabilerak eta arriskuak. Alborapen algoritmikoa eta informazioaren hiper pertsonalizazioa. Enpresa handiak eta software librea.

Egungo Munduaren Gatazkak eta Errealitateak, eta Komunikabideekin eta Sare Sozialekin Duten Erlazioa
4. Igorleen eta hartzaileen eskutik informazioaren kudeaketa egungo gizartean. Desinformazioa, gaininformazioa, informazioaren monopolioa, fake news, clickbait, erakarpenaren ekonomia… Egiazko irizpideak eta interesak informazioaren kudeaketan.
5. Sare sozialak gizarte-fenomeno gisa. Sare sozialak informazio- eta mobilizazio-iturri gisa. Sare sozialak: adierazpen-askatasuna eta moraltasuna. Pribatutasuna informazioari, sareei eta teknologia berriei dagokienez.
6. Teknologia berrien eta sare sozialen ekarpenak eta arriskuak: telelana, sareak eta aktibismoa, eten digitala, zibersegurtasuna, datuen babesa. Indarkeria eta diskriminazioa esparru birtualean. Gaur egungo harreman afektibo-sexualak eta horien inguruan sortu diren industriak.

GIZA ANATOMIA ETA FISIOLOGIA

Giza Anatomia eta Fisiologia Batxilergoko bigarren mailarako aukerako irakasgai gisa eskaintzen da. Organismo bizidun baten eta hura osatzen duten atalen funtzionamendu normalaren azterketan oinarritzen da, zelulen barruko mekanismo molekularretatik hasi eta ehun, organo eta sistemen ekintzetara iritsi arte, eta organismoak, oro har, bizitzarako funtsezkoak diren zeregin bereziak nola gauzatzen dituen aztertuz, bere prozesu kimikoak eta fisikoak barne. Aitzitik, anatomia egituraren azterketa da, batxilergoko lehen mailan sakon ikasten den zati deskribatzailea. Hala ere, bereizketa hori gorabehera, bi diziplinak ezin dira banandu. Ehun edo organo baten funtzioa hertsiki erlazionatzen da haren egiturarekin, eta pentsa daiteke egitura horrek bere funtziorako eraginkorra izateko eboluzionatu zuela.

Horiek horrela, fisiologia eta anatomia behar bezala ulertzeko, beharrezkoa da gorputzari, haren sistema eta aparatuei eta horiek funtzionarazten dituzten prozesu ugariei buruzko ikuspegi orokorra eraikitzea. Beraz, irakasgai honetan giza organismoa sistema biologiko oso gisa aztertzen da. Eginkizun horretan, alderdi anatomiko eta fisiologikoak garatzen dira, baina baita osasun-egoera mantentzearekin erlazionatutakoak ere, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) definizioaren arabera. Gaixotasunaren edo lesio fisiopatologikoaren tratamendua eta prebentzioa aipatzen dira, haren kausei, ondorioei eta soluzio posibleei buruz hausnartuz, eta, bereziki azpimarratuz gaixotasun edo lesio fisiopatologikoarekiko erantzukizun pertsonala, garapen iraunkorrerako helburuen (GIH) garapenean laguntzeko, adibidez 3. helburua lortze aldera: “Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea”.

Batxilergoko 1. mailako Anatomia jakintzagaiaren curriculumean aipatzen den era berean, irakasgai hau hainbat ezagutza-arlotako oinarrizko jakintzek osatzen dute. Hori dela eta, irakasgai honekin gainjar daitezkeen edo beste ikuspegi bat eman behar zaien beste irakasgai batzuekin koordinatzeko premia azpimarratzen da.

Jakintzagaiaren curriculum-diseinuak Batxilergoko lehen eta bigarren mailetako Anatomia eta Fisiologia irakasgaietako konpetentzia espezifikoen bitartez lantzen diren funtsezko zortzi konpetentzietan du abiapuntua. Konpetentzia horien garapenak trebetasunak eta pentsamendu zientifikoa indartzen ditu, eta ahalegin indibidualak eta kolektiboak sustatzen ditu osasunaren eta ohitura osasungarrien alde eta, azken batean, gure bizi-kalitatea hobetzeari begira. Irakasgai honetako funtsezko sei konpetentziak honela laburbil daitezke: giza gorputza egitura global gisa ulertzea; problemak ebaztea eta ikerketa txikiak egitea; egitura anatomikoen eta haien funtzioaren eskemak eta ereduak egitea; anatomiaren eta fisiologiaren zientzia gisako garrantzia eta haien ekarpena baloratzea; laborategiko lan esperimentalean trebetasunak eta abileziak garatzea; eta, azkenik, anatomiaren eta fisiologiaren ezagutza giza gorputza zaintzeko zein garrantzitsua den ulertzea.

Konpetentzien garapen-maila ebaluazio-irizpideen bidez neurtzen da; irizpide horiek jakintzagaiaren oinarrizko jakintzekin lotzen dituzte, curriculum-elementuak hertsiki lotuta egon daitezen.

Jakintzagaiaren oinarrizko jakintzek konpetentzia espezifikoak lortzeko funtsezko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen dituzte. Hori dela eta, irakasleek beren ustez garrantzitsuenak diren edo ikasleentzat interes berezikoak diren alderdi guztiak areagotu eta sakondu ahal izango dituzte.

3 jakintza multzo handi proposatzen dira:

– **Ikerketa proiektuak edo kasuen ebazpena:** ikerketa txikiak egitea, problemak ebaztea edo kasuak analizatzea proposatzen da, landu beharreko edozein gairen edukiak txertatu ahal izateko.

– **Laborategiko esperientziak:** lan praktikoen edo esperimentalen multzoa, une horretan lantzen ari diren edukiekin integratuta garatu behar diren trebetasun eta abilezia praktikoak garatzeko ezinbestekoa.

– **Giza gorputzaren funtzionamendua:** eduki-multzo handia, organismoa osatzen duten sistemen eta aparatuen funtzioak bereiz lantzen dituena, haien azterketa eskuragarriagoa izan dadin, baina horien guztien integrazioarekin eta ikuspegi orokorrarekin amaitu behar duena, giza organismoa sistema biologiko oso gisa uler dadin.

Jakintzagaian erabilitako metodologiari dagokionez, proposatzen da ikasleek parte-hartze interaktiboa izan behar duten jardueren inguruan egituratzea, eta, ahal den guztietan, kolaborazio-testuinguruak erabiltzea. Zereginak testuinguruan behar bezala kokatuta planteatu behar dira, ikasleek uler dezaten horiek egitea beharrezkoa dela, aldez aurretik formulatutako galderei edo problemei erantzun posibleak bilatzeko. Laborategiko edo ikasgelako esperientziak, ikastetxean dauden baliabideen arabera, eta ikastetxearen barruan edo kanpoan egiten den beste edozein jarduera, horrela ulertu behar dira. Horregatik, ordutegiaren gehiena bete behar duten lan praktikoek edo esperimentalek lotura estua izan behar dute ikasgelan une bakoitzean lantzen ari diren edukiekin.

Beraz, aukerako irakasgai honek lehentasunezko helburu hauek izango ditu: lehenik, ikasleek gorputzari, haren sistema eta aparatuei eta horiek funtzionarazten dituzten prozesu ugariei buruzko ikuspegi orokorra eraikitzea; ikuspegi global hori da sistemen integrazioa esaten zaiona; bigarren helburua organismoaren funtzionamendu optimoa bermatzeko osasun-egoera mantentzearekin eta fisiologiako jarduera praktikoak egiteko trebetasunak eskuratzearekin erlazionatuta dago; eta, azkenik, baina aurrekoak bezain garrantzitsua, espero da ikasleek prestakuntza oinarrizkoa eta balioaniztuna eskuratzea, prest egon daitezen ikasketak egiten jarraitzeko bai lanbide-heziketako zikloetan bai unibertsitate-ikasketetan (medikuntza, erizaintza, fisioterapia, kirol-jarduerak, pertsonen zaintza…).

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Giza gorputza “makroegitura global” gisa ulertzea, antolaketa estrukturalaren mailak identifikatuz, giza gorputza osagaiak erlazionatuta eta koordinatuta dituen unitate biologiko gisa aurkezteko.

Giza gorputza ez da organo eta sistemen batura, ingurumen-baldintzen arabera modu harmonikoan funtzionatzen duen eta ingurunearekin materia eta energia trukatzen dituen unitate antolatua baizik. Truke hori iraunkorra da eta bizirik irautea bermatzen du.

Ikasteko antolaketa linealari jarraitzen bazaio ere, konpetentzia espezifiko honen bitartez ikasleek ulertuko dute giza gorputza globalki funtzionatzen duen eta zenbait antolaketa-mailaz osatuta dagoen (biomolekulak, zelulak, ehunak, organoak, organo-sistemak eta organismo osoa) unitatea dela, horrela lortuko baita ikasleek giza organismoaren irudikapen kontzeptuala eraikitzea, sistema konplexua, irekia, koordinatua eta ugaltzeko gaitasuna duen sistema gisa ulertua.

Ezinbestekoa da, hortaz, giza gorputza, gorputza osatzen duten egiturak, organismoaren barruan duten kokapena eta gainerako organoekin ezartzen dituzten erlazioak ezagutzea. Oinarrizko ezagutza horiekin bestetik ezin izango da ulertu, lehenik, haren funtzionamendu egokia eta, ondoren, ager daitezkeen desorekak.

Gainera, kontuan izan behar dugu giza gorputz guztiak desberdinak direla, nahiz eta egitura bera izan; horregatik, gizakiok izaki indibidualak gara, gorputz bakarrak eta errepikaezinak ditugu, eta, beraz, azterketa orokorraz gain, sexu bereko, sexu desberdinetako eta baita bizitzaren etapa desberdinetako gizabanakoen arteko desberdintasunak ere aztertuko dira.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM4, KD4, KPSII2, KPSII4 eta KPSII5.

2. Informazio zientifikoa bilatzea, hautatzea, interpretatzea eta transmititzea, hainbat baliabide eta euskarri erabiliz eta terminologia eta hizkuntza egokia baliatuz, problemak ebazteko eta ikerketa anatomiko-funtzional txikiak egiteko.

Ikerketa zientifiko guztietan beharrezkoa da gaiarekin erlazionatutako informazioa bilatzea, hautatzea eta biltzea, ematen digun informazio mota ezagutzea eta informazio hori baliozkoa eta fidagarria den baloratzea. Ikerketa hainbat iturritatik lortzen den informazioari esker gauzatzen da: iturri inprimatuak (liburuak, artikuluak, tesiak, ikerketa-proiektuak…), digitalak (audioak, bideoak, konferentziak, liburuak…) eta grafikoak (argazkiak, marrazkiak…).

Horregatik, konpetentzia honen bidez lortu nahi da ikasleek anatomiaren eta fisiologiaren gaiei buruzko informazioa autonomiaz aurkitzea, hainbat informazio-iturri erabiliz, eta horiek ulertzea, eta, hala ez bada, hori lortzeko baliabideak bilatzeko gai izatea, eta terminologia egokia erabiliz transmititzea problemak ebaztean, ikerketa txikiak egitean edo kasuak ebaztean

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, STEM2, STEM3, STEM4, KD1, KD2, KPSII1.2 eta KPSII4.

3. Giza gorputzaren errealitatea azaltzeko eskemak eta ereduak egitea, kontzeptu, printzipio eta estrategiak erabiliz egitura anatomikoak eta horien funtzioa ezagutzeko eta hobeto ulertzeko.

IKTen erabilera eta animalia-jatorriko pieza anatomikoen disekzioa dira egitura anatomikoak eta horien funtzioa ezagutzeko eta ulertzeko estrategietako batzuk. Marrazkiak, eskemak edo ereduak egitea giza antolaketa ikusarazteko ezinbesteko tresna da. Hainbat iturritatik lortutako irudiak lagungarriak izan daitezke egitura anatomikoak eta inplikatutako prozesuak ezagutzeko, interpretatzeko eta ulertzeko (mikroskopia optikoaren edo elektronikoaren irudiak, argazkiak, anatomia-marrazkiak, prozesuen ilustrazio eskematikoak, bideoen analisiak, 3D ereduak, errealitate areagotua, adimen artifiziala…).

Konpetentzia honen garapenaren bidez, ikasleak organoen topografiaz, tamainaz, proportzioez, formaz, funtzioaz eta konexioaz jabetzeaz gain, sormena garatu eta sustatu nahi da hainbat bitarteko eta euskarritan, eta, gainera, gure gizartean garatu diren eta garatzen diren adierazpen artistiko eta kulturalak baloratu.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM2, STEM4, KD2, KAKK1 eta KAKK4.1.

4. Anatomiaren eta fisiologiaren zientzia gisako izaera ezagutzea, beste zientzia eta adierazpen artistiko batzuekin duten erlazioa baloratuz, pertsonen prestakuntza integralerako ekarpenak eta gizartearen gaineko ondorioak aintzat hartzeko.

Konpetentzia espezifiko honen bidez, anatomiak eta fisiologiak, zientziak diren aldetik, gure bizi-kalitatean duten garrantzia ulertuko dute ikasleek. Ez da ahaztu behar irakasgai horiek anatomia deskriptibotik, anatomia funtzionaletik, fisiologiatik, biomekanikatik eta patologiatik datozen ezagutzek osatzen dituztela, eta horrek areagotu egiten duela giza gorputzaren ulermena ikuspegi biologiko orokorretik eta arte eszenikoetan errendimendu fisikoa eta artistikoa hobetzearen ikuspuntutik, baita gizabanako gisa egiten ditugun errutinazko jardueren ondorio diren zenbait prozesu patologikoren agerpenaren prebentzioari begira ere.

Hala ere, anatomia eta fisiologia biologia- eta osasun-zientziekin erlazionatuta egoteaz gain, beste irakasgai zientifiko batzuen ekarpenekin aberastu dira eta horien onura jaso dute, diziplina horien azterketa zabaldu, irauli eta erraztu baitute. Horien artean aipa daitezke, besteak beste, elektronika, nerbio-sistemaren azterketan, geologia, batez ere anatomia konparatuan eta fisiologia ebolutiboan, kimika eta bere printzipioak fisiopatologian…

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, STEM4, STEM5, STEM6, KD3, KPSII1.1, KPSII2, KAKK1 eta KAKK2.

5. Laborategian arakatzeko eta problemak ebazteko trebetasunak eta abileziak garatzea, anatomia eta fisiologiako lan esperimentalak eginez, ezagutza eraikitzeko eta ereduak azaltzeko.

Lan esperimentalak egiteak trebetasunak eta abileziak garatzen laguntzen du, eta baliagarria da, halaber, eskuratutako ezagutzak problema praktiko sinple, anatomiko-funtzional eta jarduera fisikoari buruzkoen ebazpenari autonomiaz aplikatzeko.

Mota horretako praktikei esker, ikasleek ezagutza eraiki dezakete informazio-bilaketa, behaketa, analisia eta hausnarketa abiapuntu hartuta. Ikasleek beren ikaskuntza sakona indartzen dute egindako praktiken bidez. Esperimentazio kualitatiboaren inguruko azalpen-ereduak eraikitzeak fenomenoak sakonki ulertzea ahalbidetzen du. Jarduera esperimentalak demostrazioa gainditzen du eta anatomia eta fisiologiaren ulermena errazten du.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KPSII4, KPSII5 eta EK1.

6. Anatomiaren eta fisiologiaren ezagutza giza gorputza zaintzeko zein garrantzitsua den ulertzea, osasunaren eta bizi-hobekuntzaren aldeko ekintzak identifikatuz, ohitura osasungarriak, arduratsuak eta iraunkorrak hartzeko.

Konpetentzia espezifiko honen garapenaren bidez, ikasleek ulertuko dute pertsona bakoitzak osasunaren zaintzan duen erantzukizuna, giza gorputzak, hau da, unitate biologikoak behar bezala funtziona dezan. Horrela, gai izango dira, batetik, anatomikoki eta fisiologikoki onargarria den eta osasuna babesten duen lan fisikoa eta, bestetik, errendimendu fisikoa murrizten duen eta desoreka eragiten duen —eta horrek, aldi berean, gaixotasuna edo lesioa eragin dezake— gorputzaren erabilera txarra bereizteko.

Osasun arduratsuaren aldeko ekintzak identifikatuko dituzte, adibidez, loaren, ergonomiaren, elikaduraren eta jarduera fisikoaren ohiturak, gorputzaren mugez eta beharrez jabetuz, ohitura ez-osasungarriekiko jarrera kritikoa erakutsiz eta pertsonen gorputz-aniztasuna errespetatuz.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM4, STEM5, STEM6, KD4, KPSII2, KPSII5, HK4 eta EK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Giza Anatomia eta Fisiologia
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Giza gorputzaren egitura eta funtzioa ulertzea, bizitzaren etapetan eta sexuen arabera, analogiak eta desberdintasunak azalduz.
1.2. Giza organismo osasuntsuaren aparatu eta sistemen eta gizakiarengan homeostasia mantentzen laguntzen duten kontrol-mekanismo fisiologikoen funtzionamendua ulertzea eta deskribatzea modu arrazoituan.
1.3. Giza gorputzaren funtzionamendua interpretatzea, haren antolaketa-mailak osatzen dituzten eta unitate estruktural eta funtzional gisa ezaugarritzen duten elementuen integrazio anatomiko eta funtzionalaren emaitza gisa modu arrazoituan.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Problema eta kasu fisiopatologikoak ebaztea, fisiologiaren ezagutza teorikoak eta praktikoak aplikatuz.
2.2. Fisiologiako problemak ebaztea informazio zientifikoaren bilaketa, tratamendu eta komunikazio egokiaren bidez eta iturri egiazkoen eta fidagarrien aipamenaren eta erabileraren bidez.
2.3. Dokumentu-ikerketa txikiak eta kasuak ebaztekoak egitea, bakarka edo taldean, hizkuntza eta terminologia zehaztasunez eta zuzentasunez erabiliz.

Giza Anatomia eta Fisiologia
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Egitura anatomikoen funtzionamendua azaltzea, zenbait bitarteko eta euskarri modu sortzailean erabiliz.
3.2. Organo, aparatu eta sistemen egitura anatomikoa eta funtzioa erlazionatzea, eskemak eta ereduak eginez haiek azaltzean.
3.3. Bizitzaren etapa bakoitzean aparatu eta sistemen funtzionamenduan dauden desberdintasun fisiologiko garrantzitsuenak identifikatzea, horien arteko erlazioak eta sortutako aldaketak analizatuz.
3.4. Gaixotasunak giza gorputzaren egituran eta funtzioan dituen eraginak, mekanismoak eta adierazpenak ulertzea eta ezagutzea, giza gorputzaren funtzionamendu egokiarekin konparatuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Fisiologiak gure gorputza ezagutzeko egiten dituen ekarpenak baloratzea, osasunaren hobekuntzan eta zaintzan eta pertsonen prestakuntza integralean duen garrantzia eta gizartean dituen ondorioak identifikatuz.
4.2. Giza sistemen eta aparatuen egiturei eta funtzionamenduari buruzko ezagutza jarduera fisikoekin, kirol-jarduerekin eta jarduera artistikoekin erlazionatzea, jarduera horiei egiten dieten ekarpena baloratuz.
4.3. Sistemek eta aparatuek organismoaren funtzionamendu orokorrean betetzen duten zeregina identifikatzea, eguneroko jarduera fisikoen, kirol-jardueren eta gorputz-jarduera artistikoen gaineko errendimenduarekin erlazionatuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Esperimentu zientifikoetatik datozen datuak interpretatzea eta analizatzea —nutrizioa eta dietak, odol- eta gernu-analisiak…—, giza gorputzaren funtzionamenduari buruzko ereduei azalpenak emanez.
5.2. Fisiologiako problema praktikoak ebaztea, laginak, argazkiak, bideoak… behatuz, informazioa zorroztasunez bilatuz eta analizatuz eta soluzioari buruz hausnartuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Prozesu fisiologikoak eta patologikoak bereiztea, giza gorputzaren asalduei eta gaixotasunei buruzko ezagutzaren bidez.
6.2. Nutrizio- eta metabolismo-prozesuak deskribatzea, inplikatutako egiturak, jarduera fisikoarekiko erlazioa eta fisiopatologiak azalduz.
6.3. Osasunean eta gorputz-jardueren errendimenduan eragin positiboa duten nutrizio-ohiturak baloratzea, nutrizio-portaeraren nahasmendurik ohikoenak eta osasunaren gainean dituzten ondorioak identifikatuz.
6.4. Osasun arduratsuaren aldeko ekintzak identifikatzea, osasungarriak ez diren, gizartean onartu ohi diren eta organismoaren funtzionamendu egokian eragina duten ohiturekiko jarrera kritikoa erakutsiz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Giza Anatomia eta Fisiologia
Ikerketa proiektuak edo kasuen ebazpena:
Hipotesiak, galderak, problemak eta aieruak: ikuspegi zientifikoa duen planteamendua.
Informazioa bilatzeko, kolaboratzeko, komunikatzeko eta erakunde zientifikoekin interakzioan jarduteko estrategiak: tresna digitalak, eta prozesuak, emaitzak eta ideiak aurkezteko formatuak (diapositibak, grafikoak, bideoak, posterrak, txostenak eta bestelakoak).
Informazio-iturri fidagarriak: bilaketa, ezagutzea eta erabilera.
Laborategiko esperientzia zientifikoak: diseinua, plangintza eta gauzatzea.
Emaitza zientifikoak analizatzeko metodoak: antolaketa, irudikapena eta tresna estatistikoak.
Komunikazio zientifikoko estrategiak: hiztegi zientifikoa, formatuak (txostenak, bideoak, ereduak, grafikoak eta bestelakoak) eta tresna digitalak.
Laborategiko esperientziak
Odol- eta gernu-analisi klinikoen analisia.

Giza Anatomia eta Fisiologia
Gernu-analisi komertziala.
Elektrokardiogramen eta espirometrien analisia.
Glukosa-analisia.
Kasu patologikoen eta fisiologikoen analisia.
Konstanteen neurketa (tenperatura, tentsioa, pultsua…) zenbait jarduera-egoeretan.
Osmosi-praktikak.
Nutrizioa eta dietak.
Laborategiko lan enpirikoaren berezko trebetasunak eta jarrerak. Kolaborazioa eta erantzukizuna.
Giza gorputzaren funtzionamendua
Fisiologia orokorra. Homeostasia. Mintz plasmatikoan zeharreko garraioa.
Biomolekulak. Metabolismoa. Digestio-funtzioa, digestioaren fisiologia.
Zirkulazio-aparatuaren fisiologia: kardiobaskularra, fetala eta porta.
Arnas aparatuaren fisiologia.
Odola. Odol-zelulen funtzioak. Globulu gorriak: garraioa eta tanpoi-sistema. Plaketak: hemostasia eta koagulazio-prozesua. Globulu zuriak: immunitatea.
Sistema linfatikoa. Linfa eta gongoil linfatikoak.
Nerbio-sistemaren fisiologia. Seinale elektrikoa. Nerbio-sistemaren komunikazioa. Sinapsia eta neurotransmisoreak.
Lokomozio-sistemaren fisiologia. Jarduera fisikoa eta kultura-adierazpena.
Hormonak eta sistema endokrinoa.
Osasuna eta gaixotasuna. Fisiopatologiak. Fisiopatologien prebentziora bideratutako ohitura osasungarriak. Transplanteak. Aurrerapen medikoak eta teknologikoak.

GIZARTE-ANTROPOLOGIA

Gizarte-antropologia, Batxilergoko 1. mailako hautazko jakintzagai gisa, ikasleak arlo akademikoan, sozialean, etikoan eta profesionalean trebatzen laguntzen du neurri handi batean. Hori gertatzen da, bai lantzen diren arazo eta eduki teorikoengatik (ohiturak eta bizimoduak, arau-kodeak, erritualak, erakundeak, hierarkiak eta gizarte-prozesuak, etab.), bai ikerketa-ohiturak sortzea sustatzen duelako (gertaeren eta datuen azterketa, argudiaketa egiaztatua, landa-lana etab.). Ikasgai honen helburu estrategikoen artean kultura-aniztasunari buruzko ezagutzak eraikitzea dago, migrazioek, mestizajeak, lurraldeen okupazioek, merkataritza-trukeek eta abarrek eragindako ezaugarri kulturalak edo eredu soziologikoen transforma-zioan sakonduz, eta, horrekin batera, pertsonen, herrien edo herrien identitateen eraikuntzan nola era-giten duten azpimarratzea. Horrek ikasleak bultzatu behar ditu Euskal Herriko zein beraien jatorrizko marko kulturaleko (dagoen kasuetan) interesa garatzera, beste kultura batzuekin alderatzera, beren ondare naturala, kulturala, soziala eta historikoa balioesteko. Arestian azaldutakotik ondorioztatzen da, halaber, materia honek sormena eta berrikuntza garatzeko esperientziak ekar ditzakeela; izan ere, jo-rratutako arazoei buruzko irtenbideak bilatzea eskatzen du, hala nola, gizarte- eta landa-ikerketako lanak, txostenak egitea, elkarrizketa dialogikoetan edo dinamiketan parte hartzea edo garapen soziokomunita-rioko proiektuak sortzea. Ikaslegoak landa-lana oinarritzat izango duen ikerketa etnografikoa garatu beharko du, bere interesetatik abiatuta, ondare material eta inmaterialaren inguruko ezagutza elikatuz konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzaren logikatik.

Jakintzak barneratzeko aurrera eraman daitezkeen ekoizpen motek, konpetentzia guztien elkarrekintza sustatuko dute, ikerketa lan autonomoa eta kooperatiboa izango baita ardatz. Euskal kultur-ingurunea zein beste ingurune kultural batzuk osatzen duten ideiei eta praktikei buruzko hausnarketa kritikoak, aldi berean, ikasleen heldutasun pertsonala eta soziala sustatzeko eta ikasleen

dimentsio intelektuala nahiz beren nortasuna osatzen duten alderdi etikoak, politikoak, zibikoak, emozionalak eta estetikoak garatzeko balio du. Funtsezko konpetentzia guztiak lantzen badira ere, bereziki jorratzen dira Hiritartasunerako Konpetentzia, Konpetentzia Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa eta Kontzientzia eta Adierazpen Kulturalerako Konpetentzia.

Ikasgaiak planteatzen dituen ikaskuntzengatik, ikasleen egoerekin zerikusia duten hurbileko arazoen edo fenomenoen tratamenduaren ondorioz, eta susta ditzakeen ikuspegien aniztasunagatik, arlokako lan moldeak errazteaz gain, tokiko eragile herrikoi, kultural, sozial eta instituzionalekin elkarlana bultzatzeko espazio aproposa sortzen du. GIzarte-antropologiak berezko duen ikuspegi holistikoagatik eta ikerketa metodo anitzengatik, zientzia, giza zientzia zein arte arloko materiekin lotura naturalak egin daitezke. Ezagutzek, sinesmenek, arteak, moralak, ohiturek eta zuzenbideak osatzen dute kultura, horregatik, historia, geologia, geografia, filosofia, matematika zein artearen oinarriak bezalako ikasgaiekin elkarlanean lan egin dezake, beste askoren artean.

Materiaren izaera holistikoaren logikan, konpetentzia espezifikoak antropologiaren ikerketa lerroen sakontzearekin zein etnografoen praktiken esperimentazioarekin lotuta daude. Lehengo bi konpetentziek, gizarte-antropologiarenmarko kontzeptual zein metodologikoa ulertzea bilatzen dute. Hirugarrenak, aldiz, tokiko errealitatearen gaineko ikerketa etnografikoa egiteko, ikaslegoak beharrezkoak dituen gaitasun psiko-emozionalak barnebiltzen ditu. Laugarrenak, antropologiaren ikerketa lerro diren sistemak (erlijioa, sozio-ekonomikoa, familia, sinbolikoa etab.) ulertzea du helburu, antropologiaren aberastasuna eta eragin kultural, sozial eta historikoaren dimentsioa hartzeko. Bostgarrenak, norbera eta kulturaren arteko harremanetan sakontzen du eta identitatearen eraikuntzaren analisian aldagai berriak identifikatzen lagunduko du ikaslegoa. Seigarrenak, antropologiak ikerketagai dituen aldagaiak kritika autonomoaren begiradarekin aztertzea bilatzen du, kultur aniztasunak eta kulturen arteko harreman eredu ezberdinek (berdinzaleak zein menperatzaileak) suposatzen duten erronken jabe eginez eta horiek elkarrizketa dialogiko kooperatiboaren bitartez landuz. Azken konpetentziak, etnografoaren azalean jartzera eramango du ikaslegoa, inguratzen duen erralitate kultural eta sozialak ikertzeko, zein, euskal etnografiaren gaineko argazki osoa osatzeko.

Ebaluazio-irizpideei dagokienez, adierazitako kopetentzia espezifiko bakoitzari zuzenean lotuta formulatzen dira, eta diagnostikorako eta hobekuntzarako tresnatzat hartu behar dira horiek eskuratzetik es-pero den jardun-mailari dagokionez. Horregatik, oinarrizko jakintzei dagokienez, ikaskuntza-prozesuei eta -produktuei berei erreparatu behar diete, eta, behar bezala gauzatzeko, askotariko ebaluazio-tresnak behar dituzte, konpetentziaren garapena zehaztu behar den ikaskuntza-testuinguru eta -egoeretara egokitu daitezkeenak.

Oinarrizko jakintzak zazpi bloketan antolatuta daude antropologiaren adarrak zein ikerketa lerroak direnei erantzunez eta euskal etnografiari hurbilketa eginez. Lehen blokearekin izan ezik, antropologiari sarrera egin eta ikasleari oinarrizko tresna kontzeptual zein prozedimentalak eman behar dizkionak, gainontzekoekin malgutasunez jardun daiteke, ikaslegoaren interesak zein testuinguaren beharrak (zonalde geografikoa, une soziala, ikastetxearen proiektuak etab.) zeintzuk diren identifikatuz eta, horien arabera, bloke bati edo beste batik denbora gehiago eskainiz. Posible den heinean, garrantzitsua da bloke guztiak ikuspegi dialogiko eta bizipenetatik abiatuta lantzea, etnografo lanaren praktika eta herra-mienta ezberdinei eta hausnarketa kooperatibo argudiatuari lekua eginez.

Lehen blokeak Antropologiari sarrera eta ikerketa metodoak, antropologia zientziaren oinarrizko markoa zutabetzea du eginkizun. Bigarrena, Kultura eta gizartea, kulturaren kontzeptura hurbildu eta horrekin lotutako enkulturazioaren aurpegi ezberdinetan sakontzen du. Gizartea, kultura eta nortasuna izenekoak, kulturak gure identitateetan duen eragina aletzen du. Hurrengo hiru blokeek, antropologo sozialaren ikerketa lerro diren erlijio, familia, sozio-ekonomia eta sinbolo sistemak aztertzen ditu. Azkenak, Inguruari begirada antropologiatik, euskal etnografiaren argazkia egin eta tokiko praktika etnografikora bultzatu nahi du ikaslegoa.

Antropologiaren irakaskuntza eta ikaskuntza ez dira gaien eta gaien aurkezpen programatiko soila izan behar, baizik eta galdera antropologikoak deskubritzeko esperientzia erreal bat sortzea, eta esperientzia

horretatik ikasleak gonbidatzea horien inguruko ikerketa analitikora, eman zaizkien erantzunen ebaluazio kritikora eta beren jarrera pertsonalak zorrotz eraikitzera. Azken horren mende dago, gainera, jarrera horiekin bat datorren praxia garatzea eta ikasleek beraien bizitza pertsonala, soziala eta profesionala orientatu dezakeen gogoeta egitea. Ildo horretan, jakintzagaiaren programazioak kontuan hartu beharko du etnografia-jarduerak berez dituen garrantzizko arazoekin konprometitutako izaera dialogikoa, parte-hartzailea, diziplinartekoa, sortzailea eta konprometitua, autonomia pertsonala eta herritarren jardun kritiko eta ekosozial arduratsua lortzera bideratuz.

Tokiko ikuspegiak, genero-ikuspegiak eta ikuspegi inklusiboak hezkuntza praktikan integratuta egon daitezen, eta adibideak, erreferente artistikoak, kulturalak, antropologikoak, linguistikoak edo sozialak erabili behar direnean, kontuan izan behar ditugu aniztasuna (funtzionala, sexuala, afektiboa, ekonomikoa, jatorrikoa...), generoberdintasuna eta euskal dimentsioa, beste kultura-dimentsio batzuekin alderatuz, beharrezkoa izanez gero. Adibide horiek erreferentzia izan behar dute pentsamendu kritikoa eta pentsamendu gogoetatsua garatzeko. Gainera, oinarrizko jakintzetan eta konpetentzietan aipatzen den bezala, garrantzitsua da batxilergoan zenbait erreferente teoriko lantzea, euskal dimentsioarekin eta aipatu dugun inklusioarekin zerikusia duten ideia eta egile zehatzen bidez.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Antropologiaren oinarrizko jakintzak eta hiztegia erabili, iturrien arakatze kontrastatu eta segurua eginez eta ikerketa eta komunikazioko prozeduren erabilera oinarri hartuz, gertaerak, fenomenoak edo harremanak antropologiaren begirada holistikotik aztertu eta azaldu ahal izateko.

Lehen konpetentzia honen helburua antropologiari sarrera egitea da, ikasleentzat guztiz berria den arlo bat dela kontuan hartuta. Hau honela, antropologiaren sorrera eta hastapenak, definizioa eta izaera, adarrak, teknikak… ezagutu eta interpretatzeko gaitasuna landuko dute. Antropologiaren begirada holistikoak ematen duen ikuskera barneratu eta lan etnografikorako beharrezkoa den oinarrizko hiztegia erabiltzen ikasiko dute. Bide honetan, ikasleek irakasleengandik jasoko dute informazioa batzutan, baina euren kabuz ere bilatuko dute beste batzutan, ikerketa eta komunikazio prozeduren erabileran trebatuz. Ideia, bide batetik zein bestetik jasotako informazioarekin, edukien azterketa zorrotza egitea da edozein kasutan, informazio honen barneratze hutsetik haratago haren gaineko gogoeta ikertzaile eta autonomoa sustatuz. Informazio garrantzitsua bilatzeko eta antolatzeko prozesu hau, bai ingurune digitaletan bai analogikoetan, kurrikulum osoan lantzen diren irizpide eta prozeduren menderatze batetik abiatzen da.

Era berean, ezagutzak ekoizteko eta transmititzeko, metodoak eta protokoloak menderatzea beharrezkoa da. Bukatzeko, garrantzitsua da, gaiaren sarrera den honetan, eta oinarrizko ezagutzekin lotua dagoelako batez ere, ikasleen jakin-mina piztea motibazioa elikatzeko. Zentsu honetan, berezko dituzten ezagutza eta bizipenekin lotutako jarduerak funtsezkoak dira, galderak eta zalantzak mahai gainean jartzen dituztenak, erantzun eta edukien zuzentasunean zentratu ordez. Fase hau ezinbestekoa da arloan modurik eta naturalenean sartzeko eta guztioi eragiten diguten kultur markoen azterketaz ari garela ulertzeko.

Konpetentzia espezifiko hau hurrengo deskriptoreekin lotuta dago*:* HKK1, HKK2, HKK3, KD1, HK1, KAKK2.

2. Antropologiaren lan-metodoak eta -teknikak erabili, azalpen-hipotesiak eta kulturen arteko konparazioak eginez eta bizimoduak kritikoki balioetsiz, gizakiaren ezaugarriak zein kultura eta gizarteak osatzen eta antolatzen dituzten elementuak aztertzeko.

Antropologiaren oinarrizko ikerketa-tekniken ezagutza, informazio segurua eta garrantzitsua bilatzeko, antolatzeko eta ebaluatzeko irizpideak eta prozedurak menderatzetik abiatzen da, bai ingurune digitaletan, bai analogikoetan, bai esparru akademikoan, bai egunerokoenean. Bestalde, iturrietatik abiatuta egiten den ikerketa antropologikoa, besteak beste, irakurtzeko ohitura garatzea ez ezik, iturri horien

azterketa, interpretazio eta ebaluazio kritikorako estrategia oinarrizkoak eta espezifikoak erabiltzea ere eskatzen du, bai idatzizkoak bai ahozkoak, testualak edo ikusentzunezkoak. Era berean, antropologiaren oinarrizko ezagutza iturri diren landa behaketara eta arkeologiara hurbildu behar da ikaslegoa, praktikatik lehenengoari dagokionez eta, arkeologiarekin lotuta ditugun inguruko baliabideak (museoak, indusketak etab.) bertatik-bertara ezagutuz, bigarrenari dagokionez. Era berean, ikerketa antropologikotik lortutako ezagutzak ekoizteko eta transmititzeko metodoak eta protokoloak menderatzea ere eskatzen du, hala nola testuetan, diskurtsoetan, aurkezpenetan, ikus-entzunezko dokumentuetan edo beste edozein motatako sorkuntzetan isla daitezkeen proiektuak egiteko eta jendaurrean komunikatzeko jarraibideak landu behar dituzte. Helburua da ikasleengan, ikerketa antropologikoaren inguruko motibazioa piztea, testuinguru hurbilean kokatutako proiektu bat garatuz eta hori komunikatuz. Proposamen horrek, ikerketa-lanaren formatuaren pean, norberaren ingurune kultural eta sozialaren inguruko ezagutzan sakontzen eta iritzia eta autonomia garatzen lagunduko du.

Konpetentzia espezifiko hau hurrengo deskriptoreekin lotuta dago*:* HKK1, HKK3, KE3, KD1, HK1, KAKK1.

3. Erronkei aurre egiteko autonomia eskuratu, konpromisoak eta erantzukizunak hartuz, lankidetzan arituz eta erabakiak irizpide propioz hartuz, ikerketa proiektuak garatu eta gizarte eta kulturen azterketa etnografiko esanguratsuak egiteko.

Proiektu bati arrakastaz aurre egiteko, ezinbestekoa da norberaren eta besteen ezaugarri bereizgarriak eta ezaugarri pertsonalak ezagutzea eta balioestea. Pertsonen ahalmenak behar bezala identifikatuz gero, lantalde orekatua, eraginkorra, kooperatiboa, motibatua eta arduratsua eratu ahal izango da, ahuleziak konpentsatuko dituena eta batzuen eta besteen indarguneak indartuko dituena, eta, horrela, heldu nahi zaion proiektuaren beharretara egokituko da. Hainbat estrategia abiarazi behar dira lantaldeak eratzeko, helburuak, arauak, rolak eta erantzukizunak modu ekitatiboan definituz eta kideen arteko aniztasuna bultzatuz. Horrela, talde multidimentsionalak lortzen dira, inklusiboak, elkarrizketaren bidez adimen kolektiboa sortzeko gai direnak, autonomiaz funtzionatzea eta berrikuntza bizkorrean laguntzea ahalbidetuko diena.

Gizarte-trebetasunak (enpatia, asertibitatea, erresilientzia, negoziazioa, lidergoa eta besteen interesekiko, hautapenekiko eta ideiekiko errespetua) behar bezala garatzeak eta erabiltzeak, bai eta hainbat hizkuntza ezagutzeak eta komunikazio-trebetasunak erabiltzeak ere, taldeko kideen artean ikuspegi partekatua izatea, lan-giro ona sortzea eta lankidetza-loturak eraikitzea errazten du, hazkunde pertsonala eta kolektiboa lortzeko. Gizarte eta kultur antropologiak espazio naturala ematen du aurretik aipatutako guztia entrenatzeko; izan ere, materia honen eginkizunetako bat, testuinguruan kokatutako ikerketa antropologiko baten inguruko proiektua garatzea izango da eta, haratago joanda, oinarrizko jakintza guztiak ikerketa ahalik eta autonomoaren bidetik bideratu behar dira.

Konpetentzia espezifiko hau hurrengo deskriptoreekin lotuta dago: HKK3, STEM3, KD1, KPSII1.2, HK1, EK2, EK3.

4. Ikerketa antropologikoaren ildo nagusiak ulertu, sinesmen, erlijio, ahaidetasun-sistema, sinbolo, sistema sozio-ekonomiko, hizkuntza, genero eta adin aldagaien inguruko azterlan eta teoria etnografikoak aztertuz prozedura kritiko eta dialektikoen bidez, antropologiaren aberastasunaren eta eragin kultural, sozial eta historikoaren eta ondare komunari egiten dion ekarpenaren ikuskera zorrotz eta kritikoa sortzeko.

Antropologiaren hezkuntza-funtzioetako bat, kultura eta gizarte antolaketak ikuspegi holistiko batetik aztertzen dituela kontuan izanda, honako hau da: kulturak eta horien eraginpean dauden gizakiak, sinesmen, erlijio, ahaidetasun-sistema, sinbolo sistema, sistema sozio-ekonomiko, genero eta adin aldagaien azterketatik begiratzea, gure bizitza baldintzatzen duten kultur faktoreak osorik, sistemikoki, diziplinartean eta diziplinaz haraindi ulertzen laguntzeko. Horretarako ikerketa eta iturri fidagarrien azterketa egiteaz gain, prozedura dialogikoen beharra dugu, gizarte eta kulturen analisiaren ikuspegi antropologiko konparatiboa, hausnarketa indibidual zein kooperatiboaren gehigarriarekin janzteko. Oina-

rrizko marko kontzeptuala behin eskainita, ikaslegoa inguratzen duen errealitate kulturaletako azterketatik abiatu behar da sistema bakoitzaren azterketa. Horrela, ikaslegoak aukera izango du kulturen ikuspegi holistikoa hartu eta aldagai anitz horrek beraien inguruan duten eraginaren dimentsioa hartzeko; baita horien eragin pertsonalaz eta sozialaz modu kooperatiboan eta argudiatuan hausnartzeko ere.

Konpetentzia espezifiko hau hurrengo deskriptoreekin lotuta dago: HKK2, HKK3, KE3, KD1, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

5. Enkulturazioaren kontzeptua eta honek nortasunean duen eragin estrukturala ulertu, aldagai (generoa, adina, sexualitatea, ezagutza, emozioak…) guztien azterketa antropologiaren ikuspegi holistikotik eginez, identitatearen eraikuntzaren gaineko hausnarketa aberasteko.

Enkulturazioa gizabanako batek gizartearen arauak, ohiturak, trebetasunak eta balioak ezagutzen dituen ikaskuntza prozesu horri egiten dio erreferentzia. Hemendik ondorioztatzen da, norbere ikuspuntuen eta jarreren atzean faktore kulturalen presentzia dagoela, eta faktore hauen eragina handia dela. Honetaz jabetzea oinarrizkoa da, gure funtzionamenduan eta harremanetan ikusten dena, hein handi batean, hurbil ditugun marko kulturalen eraginpean dagoela ulertzeko. Hain oinarrizkoa ematen duen hau, ez da hain erreza ulertzeko gidaritza on bat egon ezean. Zentsu berean, ez da soilik hurbilketa teorikotik ulertzen den zerbait askotan eta horregatik, kasuen azterketak, jakintzekin harremanetan, asko laguntzen die ikasleei. Horrela, zeharka bada ere baina ikasleei euren buruaz hitz egiteko atea zabalduz, kontu handiz egin beharreko zerbait beti ere, ikasleek euren burua ezagutzeko aukera dute beste batzuen kasuen azterketatik eta bertan agertzen diren kontzeptu eta ideiak aztertuz. Identitatearen eraikuntza betean daudenean, prozesu horretan eragiten duten faktoreen artean estrategikoa den kulturarena abstrakziotik ulertzeko atakan jarri behar da ikaslegoa, kulturak guztiongan duen eragina onartuz eta zalantzan jarriz aldi berean.

Konpetentzia espezifiko hau hurrengo deskriptoreekin lotuta dago: HKK3, KD1, HK1, KAKK1, KAKK3.1.

6. Kultur aniztasunaren inguruko hausnarketan sakondu kulturen arteko harreman eredu ezberdinak aztertuz, kasuen analisia eta elkarrizketa kooperatibo argudiatua erabiliz, elkarbizitza hobetzeko eta kulturetan zein gure bizimoduan duten eraginaz jabetzeko.

Konpetentzia honen bidez, ikasleak, banaka edo taldean, kulturen arteko bizikidetzaren, asimilazioaren edo konfrontazioaren ondorioz sortzen diren harremanak ikertzeko gaitasuna landu nahi da, hala nola globalizazioa, etnozentrismoa, kolonialismoa edo kultura-aniztasunaren paradigmak ulertu eta horien gaineko argudiaketa kritikoa garatzeko. Ikerketa hori motibatzeko, kanpoko errealitateetatik edo tokiko bizipenetatik eta bizipen pertsonaletatik abia daiteke, betiere antropologiak eskatzen duen analisi holistiko eta etnografikoan kokatzen bada. Era berean, XXI. mendeko kontsumo gizarteak (kontsumismoa, baliabide naturalen gehiegizko ustiapena, salgaien ekoizpenaren deslokalizazioa, etnozentrismoa, akulturazioa, etab.) gizarteetan, herrietan eta kulturetan dituen ondorioak deskribatu eta azalduko dira. Edozein doktrinamendu dogmatikotik urrun, antropologiak eskatzen du kulturak osatzen dituzten aldagai guztiak aztertzea, ikasleak izan daitezen, modu arrazoituan eta koherentean, ikerketa pertsonalaren bidez eta besteekiko elkarreraginean eta elkarrizketan, berezkoak dituen printzipioak eta jarrerak deskubritzen dituena.

Konpetentzia espezifiko hau hurrengo deskriptoreekin lotuta dago: HKK5, KE3, KPSII1.2, HK1, HK3, HK4, KAKK1.

7. Hurbileko kulturen eta gizarte antolaketen azterketa egin, etnografia lanak aztertuz eta landa-lana erabiliz, horrek duen aldagai aniztasunaren jabe egiteko eta Euskal Herriko etnografian eta gaur egungo errealitatean sakontzeko.

Landa-lanak berebiziko garrantzia du ikerketa etnografikoan. Gure ingurune kultural eta soziala ezagutze bidean, ikaslegoak hori du tresna ezinbestekoa. Horrela, konpetentzia honen garapenenerako, etnogra-

fo lanaren prozedurak jarriko dituzte martxan, beraien ingurune kultural naturaletatik abiatuta, ikerketa lana garatzeko. Belaunaldi arteko sarea sendotu eta aurrekoen bizimodua hobeto ulertu eta beraiengan izan dituen ondorioak aztertzeko erabili dezakete edo kultur fenomeno garaikideen atzean dauden sistemetan sakontzeko. Euskal Herrian eta, ondorioz, ikastetxeetan elkarbizi diren kulturak balioan jarri eta horrek sortzen duen aberastasuna antropologiatik begiratzera bultzatuko zaie. Euskal etnografiaren uzta oparoan sakontzeko aukera emango zaie baita ere, beraien ikerketa etnografikoak elikatzeko batetik, eta euskal etnografiaren erreferente eta baliabide historiko zein garaikideak ulertzeko bestetik.

Konpetentzia espezifiko hau hurrengo deskriptoreekin lotuta dago: HKK2, HKK3, KE3, KD1, KPSII4, HK1, EK1, KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Gizarte-Antropologia
1. Konpetentzia espezifikoa
1.1. Lan etnografikoaren aberastasunaz eta ikuspegi holistikoaz jabetzea, kultur-eremu anitzetako testu, bideo edo bestelako materialetan, hiztegia eta teoria antropologikoak identifikatuz, baita esperientzia, ekintza edo gertaera komun eta gaurkotasunezkoetan ere.
1.2. Antropologiaren ikerketa-ildoen eta adarren oinarrizko ezagutza lortzea, ikerketa antropologikoaren praktika indibidual edo kolektiboaren testuinguruan horiek kritikoki erabiliz.
2. Konpetentzia espezifikoa
2.1. Ikerketa antropologikoaren oinarrizko prozeduren ezagutza praktikoa erakustea, besteak beste, iturri fidagarriak identifikatuz, informazioa eraginkortasunez eta segurtasunez bilatuz, kulturak alderatuz eta hortik lortutako informazioa behar bezala antolatuz, aztertuz, interpretatuz, ebaluatuz eta komunikatuz, bai digitalki, bai bitarteko tradizionalagoen bidez.
3. Konpetentzia espezifikoa
3.1. Etnografiaren esparruan jarrera arakatzailea, autonomoa eta aktiboa garatzea, jatorrizko produktuak diseinatuz, landuz eta publikoki komunikatuz, hala nola ikerketa-lanak, hitzaldiak, testu-iruzkinak edo bestelakoak.
3.2. Taldean lan egitean oreka egokia sortzea arazo antropologikoen kontsiderazioan alderdi arrazional eta emozionalaren artean, bereziki kulturen arteko bizikidetzari eta kulturen asimilazioari dagozkienak, kultura propioaren eta beste esparru kultural batzuen inguruan berariaz hausnartuz.
4. Konpetentzia espezifikoa
4.1. Antropologiaren ikerketa-ildoak, ikuspegi holistikoa, sinismen, sinbolo, ahaidetasun, gizarte- eta ekonomia-antolamendu, genero eta adin sistemekin lotutako oinarrizko kontzeptuak abstrakziotik ulertzea, horiek kulturen eta gizarte-antolaketaren inguruko eztabaida garaikideekin erlazionatuz.
4.2. Antropologiaren ikerketa-ildoak eta horien atzean dauden azpi-sistemak sailkatzea, inguratzen gaituzten kulturak etnografoaren begiradatik analizatuz. Ikerketa-ildo bakoitzaren atzean dauden sailkapenak eta azpi-sistemak zerrendatu, adibideetatik abiatuta kontzeptu teorikoak ulertuz.
5. Konpetentzia espezifikoa
5.1. Enkulturazioaren zentzua eta dimentsioa barneratzea, norberarekin zein inguruko pertsona zein giza taldeekin harremandutako adibideetan sakonduz.
5.2. Norberaren eta gure dimentsio biologiko eta kulturalaren kontzeptu egokia eraikitzea, haren izaeraren eta nortasunaren dimentsio anitzak aitortuz, kulturaren eragina eta alderdi desberdinak aztertuz, kulturen eta pertsona izateko moduen inguruko ikerketa eta solasaldien bitartez.
6. Konpetentzia espezifikoa
6.1. Kultur aniztasunarekin eta kulturen arteko bizikidetzarekin lotutako gatazken dimentsioa eta garrantzia ezagutzea, gatazka horiek antropologiatik formulatuz, aitortuz eta aztertuz, kasuak aztertuz, elkarrizketa kooperatibo argumentatiboa landuz eta dilema etikoak planteatuz.
6.2. Kulturen arteko harreman eredu ezberdinei lotutako gaiei eta arazoei buruzko argudiozko diskurtsoak sortu eta ebaluatzea, ahozkoak zein idatzizkoak, arau eta jarraibide logikoak, erretorikoak eta argumentuzkoak zuzen erabiltzen direla erakutsiz.

Gizarte-Antropologia
6.3. Iritziei eta hipotesiei eusteko modu dogmatiko, faltsu eta partzialak identifikatu eta saihestea, argudiatzeko bertuteak erabiliz eta gezur eta partzialtasun horien izaera azalduz.
7. Konpetentzia espezifikoa
7.1. Euskal kulturaren eta gizarte antolaketaren aldagaiak antropologikoaren begiradatik ezagutu, euskal etnografoen lanaren azterketa eginez, zein inguruak eskaintzen dituen baliabide material eta inmaterialak bertatik bertara ezagutuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Gizarte-Antropologia
1. ANTROPOLOGIARI SARRERA ETA IKERKETA METODOAK: Zer da antropologia, antropologiaren adarrak, zertarako antropologia gaur egun, landa-lana ikerketa metodo bezala, etnografia eta etnografoaren praktikak, arkeologia eta arkeologiaren praktikak, datu bilketa. Antropologiaren ekarpenaren errekonozimendua eta interesa.
2. KULTURA ETA GIZARTEA: Kulturaren definizioa eta osagaiak, kultur aniztasuna (etnozentrismoa, erlatibismo kulturala eta antropologiaren ondorioak), natura eta kultura, garapenari buruzko teoriak eta horien ondorioak, mundu mailako joerak gaur egun, globalizazio kulturala. Herriak eta kulturak Euskal Herrian XXI. mendean. Artearen produkzio soziala: artea, artisautza, artista, artisaua. Ondare materiala eta inmateriala eta horren balioa eta zaintza
3. GIZARTEA, KULTURA ETA NORTASUNA: enkulturazioa eta honen mugak, generoa eta enkulturazioa, kultura eta nortasuna, kultura eta sexualitatea, kultura eta emozioak, kultura eta ezagutza, kultura eta adina eta zahartzaroaren rolak. Enkulturazioa nigan eta nire ingurukoengan.
4. SINESMENAK ETA ERLIJIO SISTEMAK: erlijioa, kosmologia eta ideologia. Sineste erlijiosoen arteko aldaerak. Erlijioa sinesmen-sistema gisa. Erlijioa eta bere instituzioak. Mitoa, ritoa. Sekularizazio prozesua. Espiritualtasun garaikidea. Erlijiosistemen inguruko hausnarketa.
5. SISTEMA SOZIO-EKONOMIKOAK ETA ETXEKO BIZIMODUAREN ANTOLAMENDUA: Gizarte motak: tribala, buruzagitza eta Estatua. Boterea antolatzeko moduak. Ekoizpena, ugalketa eta truke ereduak. Ahaidetasun-sistema: familia eta ezkontza-arauak, horren funtzio ekonomiko-sozialak eta transformazioa. Gure sistemetan sakontzen eta hausnartzen.
6. HIZKUNTZAREN ANTROPOLOGIA ETA SISTEMA SINBOLIKOAK: animalien komunikazioa eta giza hizkuntza, hizkuntzaren jabetzea, hizkuntza eta pentsamenduaren harremana, hizkuntza eta generoa, hizkuntza eta klase soziala, hizkuntzaz aparteko sinbolo-sistemak. Norberaren eta ingurukoen sinbolo sistemaren azterketa.
7. INGURUARI BEGIRADA ANTROPOLOGIATIK: ikerketa etnografikoa Euskal Herrian Jose Miguel Barandiaranek euskal folklore eta etnografiaz egindako lan etnografikotik hasita, Mari Luz Estebanen “gorputzaren antropologiaren” proposamen teoriko-metodologikotik egindako ekarpen berritzailera arte. Tokiko ikerketa etnografikoa praktikatik lantzen, ikerketa etnografikoa.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKT I ETA IKT II)

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak(IKT) izeneko jakintzagaiak lantzen dituen konpetentzien bidez, ikasleek arrakastaz egingo dute aurrera haien prestakuntza-ibilbidean, eta XXI. mendeko gizartearen erronka teknologiko nagusiei aurre egiteko gaitasuna izango dute. Aipatutako erronka horien artean daude inguruan dugun informazio kantitate handia aztertu eta prozesatzea, informazio hori ezagutza berri bihurtzeko; IKT modu seguru, kritiko, etiko, arduratsu eta jasangarrian erabiltzea; bizitza osoan ikastea eta prestatzea; eta bizitza sozial eta profesionalean eraginkortasunez eta konstruktiboki parte hartzeko konpetentzia sozial eta zibikoak garatzea. Hori guztia ikuspegi inklusibotik eta gizonen eta emakumezkoen arteko berdintasun eraginkorraren ikuspegitik.

Mundu justua eta orekatua lortzeko, komeni da arreta jartzea teknologia digitalen jasangarritasunari, horien erabilera etiko eta seguruari arreta jartzea, baita ekitaterik gabeko eta bazterketako egoerak detektatzeari ere, eten digitalak eragindakoak kasu. Hori dela eta, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak jakintzagaiaren helburua da jakintza zientifiko eta teknikoak uztartzea da, ikuspegi konpe-

tentziala oinarri hartuta, Batxilergoko helburuak lortzen eta ikasleen funtsezko konpetentziak bereganatzen laguntzeko.

Jakintzagaia diziplinartekoa denez, etapako helburuak lortzen eta irteera-profila eskuratzen laguntzen du. Konpetentzia matematikoarekin eta zientziako, teknologiako eta ingeniaritzako konpetentziekin lotutako alderdi teknikoak jorratzen ditu. Halaber, hizkuntza-konpetentziarekin, konpetentzia eleaniztunarekin, konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoarekin, ekintzailetza-konpetentziarekin eta herritartasunerako konpetentziarekin lotutako zeharkako beste jakintza batzuekin ere badu harremana.

IKTek lotura zuzena dute gainerako ikasgaiekin, teknologia digitalak zuzen, kritikoki eta modu jasangarrian erabiltzea beharrezkoa baita horiek guztiak garatzeko; ezagutza bereganatu, sortu eta hedatzeko tresnak eskaintzen ditu, baita bizitza osoan ikasteko tresnak eman ere.

Jakintzagaiaren balio hezigarriaren bidez, eguneroko testuinguruetan txertatzen dira konpetentzia espezifikoak eta, hala, proposatutako benetako arazoei erantzuna emateko hardware eta software soluzioak diseinatu, ikertu, automatizatu eta hobetzeko aukera ematen die ikasleei, bidezko gizarte digitalean beharrezkoak izan eta curriculumaren ardatz nagusi diren ohiturak bereganatzeko. Hori guztia, alderdi konpetentzialari lotuta, benetako egoerekin lotutako proiektu bidez jorratuko da, eta beste diziplinetako jakintzak ikuspegi etiko eta jasangarrien bidez helaraziko dira. Ikasleak prestakuntza- eta lan-ingurunera hurbilduko ditu, IKTen munduan sortzen diren eskaera berrietara egokitzeko aukera ematen die, teknologia digitalen jakintzan jarrera konprometituago eta arduratsuagoa batekin, herritartasun digital kritikoa, informatua, arduratsua eta etikoa sortzen lagunduz, autonomia, berdintasuna eta inklusioa garatzen laguntzeko, eten digitalaz eta estereotipo sexistez jabetuz. Ekintzailetzarekin, lankidetzarekin eta gaur egungo munduaren erronkekin nahiz garapen jasangarrirako helburuekin konpromisoa bultzatzen dira.

Jakintzagai honen konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideek joera konpetentzial argia dute. Konpetentzietan Batxilergoko 1. mailaren eta 2. arteko mailaren arteko mailaketa azaltzen da. Lehenengoan, aurreko etapetan bereganatutako kontzeptuak sendotzea da helburua, baita proiektuak ikertu eta diseinatzea ere; bigarren mailan, aipatu proiektuak garatzea eta kudeatzea da xedea.

Jakintzagaia oinarrizko lau jakintzako multzotan dago banatuta, eta edukiak izaera praktikoko hainbat ariketa eta proiektu bidez lotuko dira hainbat motatako eta konplexutasun-mailatako benetako arazoei irtenbidea emateko:

Ikerketa- eta garapen-proiektuak hainbat motatako eta konplexutasun-mailatako benetako arazoei irtenbidea emateko*,* arazo teknikoen soluzioei buruzkoak edo algoritmo eta aplikazio informatikoen bidez irtenbidea ematekoak, eta *ideien komunikazioa eta hedapena*; *Ikaskuntzarako ingurune pertsonala kudeatzea eta aberastea*, ikasleek ezagutza modu pertsonalizatuan sortzeko eta etengabeko ikaskuntza errazteko; *Segurtasuna, pribatutasuna eta herritar kritikoak* multzoan Internet modu seguruan, arduratsuan eta etikoki erabiltzea jorratuko da, baita herritartasun digital kritikoa, etikoa eta aktiboa lortzeko estrategiak landu ere. Azkenik, *alderdi sozio-emozionala*ri buruzko jakintzak gainerako oinarrizko jakintzekin batera jorratuko dira. Multzo horiek bat datoz proposatutako lan-metodologiarekin, konpetentzia espezifikoekin eta ebaluazio-irizpideekin.

Hori guztia konpetentzia-ikuspegitik landuko da, eta ikasleek beren ezagutzak eta trebetasunak aplikatzeko proiektuak garatuko dituzte, testuinguruan kokatutako ikas-egoerari erantzuna emateko, gero eta konpromiso handiagoko jarrerarekin. Hala, hezkuntza-ingurunearen eta gainerako gizarte-, ekonomia- eta ikerketa-sektoreen arteko loturak sortzea sustatuko da.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Proiektuak koordinatu eta kudeatzea, banaka eta taldean, gailuak eta sareak konektatu eta konfiguratzea beharrezkoa den konplexutasun anitzeko benetako arazoei irtenbidea emateko, hardware eta software ezagutzak aplikatuz, eguneroko informatikako eta komunikazioko tresnak eta instalazioak kudeatzeko.

Konpetentzia espezifiko honetan hainbat motatako arazo teknikoak ebatziko dira, eta proiektu kolaboratiboak koordinatu eta kudeatuko dira, benetako arazo tekniko jakin batzuei soluzio digital sortzaile eta berritzailea emateko. Halaber, hainbat estrategia landuko dira taldeen zereginak antolatu eta planifikatzeko (hainbat fasetan ebazteko direnak). Horretarako, oinarrizko hasierako soluziotik abiatuko dira, taldeko parte-hartzaileen lan bateratuaren bidez osatzeko.

Aurreko etapetan, ikasleek bereganatu dituzte eguneroko gailuak mantendu eta konfiguratzeko trebetasunak, baita ohiko arazo teknikoak identifikatu eta ebazteko trebetasunak ere. Etapa honetan, trebetasun horiek sendotzeaz gain, gailuen, sareen eta aplikazioen konexioak eta konfigurazioak esku hartzen duten benetako egoerei soluzio globalak emango dizkiete, berrerabilpena eta energia-aurrezpenerako ohiturak kontuan hartuta.

Halaber, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek azkar egiten dutenez aurrera, funtsezkoa da Interneteko funtzionalitateak, komunikazio-sistema ezberdinen elementuak jorratzea eta digitalizazioari, objektuen konexioari (IoT), adimen artifizialari (AA) edo big datari buruzko teknologia berriak txertatzea.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, STEM3, STEM4, KD3, KD4, KD5, KPSII1.1 eta EK3.

2. Hainbat konplexutasun mailatako proiektuak koordinatu eta kudeatzea, benetako arazoei soluzio eraginkor, sortzaile eta berritzailea emateko, pentsamendu konputazionalaren printzipioak erabiliz eta programazio-lengoaia errazak eta intuitiboak erabiliz, programa informatikoetan inplementa daitezkeen algoritmoak diseinatzeko eta garatzeko.

Pentsamendu konputazionala erabat lotuta dago arazoak sormenez eta modu berritzailean ebaztearekin eta prozedurak proposatzearekin. Abstrakzioa erabiltzen du alderdi adierazgarrienak identifikatzeko, eta zeregin errazagoetan banatzen du, arazoari irtenbidea emateko modua sistema informatiko batek exekuta dezan. Beste era batera esanda, honako prozesu hauek abian jartzea esan nahi du: proposatutako arazoa bereiztea, informazioa egituratzea, arazoa modelizatzea, prozesua sekuentziatzea eta algoritmoak diseinatzea; hori guztia, programa informatiko batek exekuta dezan. Hala, konpetentzia honen helburua da hainbat konplexutasun-mailatako proiektuak egitea, eta proiektu horien soluzioak hainbat algoritmo eta aplikazio informatikoren diseinua eta sormena modu eraginkor, sortzaile eta berritzailean egitea.

Konpetentzia espezifiko hau honako irteera-profilen deskriptore hauekin dago lotuta: STEM1, STEM2, STEM3, KD2, KD3, KD5 eta EK3.

3. Ikaskuntzarako ingurune pertsonala kudeatzea eta aberastea, norberaren beharrizanetara egokituz, jakin-min berdinak dituzten beste pertsonekin sarean kudeatuz eta eremu digitaleko baliabideak baliatuz etengabeko ikaskuntza optimizatzeko eta kudeatzeko.

Gure ingurunea azkar ari da aldatzen eta etengabe ari dira sortzen komunikatzeko eta ikasteko aukera berriak eskaintzen dizkiguten teknologiak, tresnak eta zerbitzuak. Horiei guztiei esker, informazioa eta ezagutzak modu pertsonalizatuan jaso ditzakegu. Aurreko etapetan, ikasleek beren ikaskuntzarako ingurunea sortu eta konfiguratu dute; Batxilergoko etapa honetan ingurune hori kudeatzen eta aberasten ikasiko dute, haien jakin-min, ezagutza eta beharrizanetara egokituta, ezagutza sortzeko eta bizitza osoan ikastea optimizatzeko. Horrela, ikasleek hobetu egingo dute edukiak, baliabideak, informazio-iturriak, esperientziak, iritziak eta ideiak kontsultatzeko modua eta, gainera, aukera izango dute berdinen arteko sareak sortu eta jakin-min eta interesak partekatzeko, egile-eskubideak errespetatuz eta informazioa behar bezala erreferentziatuz.

Konpetentzia espezifiko hau honako irteera-profilen deskriptore hauekin dago lotuta: KD1, KD2, KD3, KPSII1.1, KPSII4, KPSII5 eta EK3.

4. IKTak modu seguruan, arduratsuan eta etikoan erabiltzea, arriskuak ezagutuz eta gure segurtasuna eta pribatutasuna babesteko neurriak hartuz, IKTak modu jasangarrian erabiliz eta gizarteari egiten dioten ekarpena aintzat hartuz, herritar digital kritikoak, aktiboak eta arduratsuak bilakatzeko.

Erabat konektatuta dagoen mundu batean bizi gara. Komunikazio-gailuak masiboki erabiltzen ditugu eta, ondorioz, arriskuak, mehatxuak eta erasoak jasotzeko aukerak areagotzen dira. Nortasun digitalari eta Interneten uzten dugun aztarnari gero eta arreta handiagoa jarri behar diegu.

Bestalde, Internet eta sarean erabiltzen ditugun zerbitzuak funtsezko elementua dira gure bizitzetan, baina zerbitzu horiek erabiltzaileok ematen ditugun informazio eta datu pertsonalei esker jasotzen ditugu. Hortaz, beharrezkoa zaigu horrek guztiak gure segurtasun eta pribatutasunarentzat izan dezakeen arriskuaz jabetzea.

Konpetentzia honetan Internet modu seguruan, arduratsuan eta etikoan erabiltzeari lotutako alderdiak lantzen dira, eduki ditzakegun arriskuak ezagutuz eta sareko zerbitzuak erabiltzeko beharrezko jarraibideak emanez, eten digitalaz kontziente izan eta gure segurtasuna eta pribatutasuna zaintzeko herritar digital kritiko, aktibo eta arduratsuak bilakatzeko. Ikasleek beren nortasun digitala modu eraginkorrean kudeatzea nabarmentzen du, sarean presentzia zaindua izateko, eta kontuan hartuz zabaltzen den irudia eta sarean uzten dugun aztarna. Halaber, ongizate pertsonalak jasan ditzakeen kanpoko mehatxuak ere lantzen dira, baita zibernautak behar bezala tratatzeko eta beste pertsonek sarean egiten dituzten ekintzak errespetatzeko estrategiak ere. IKTek gizarteari egiten dioten ekarpena aintzat hartzen da, baita teknologia digitalek ingurumenean duten eragina ere, IKTak modu jasangarrian erabiltzea sustatuz. Emakumeek teknologia digitalak garatzeko egin duten ekarpena ere kontuan hartuko da, emakumeen bokazio zientifiko eta teknologikoa sustatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau honako irteera-profilen deskriptore hauekin dago lotuta: STEM5, KD4, KPSII2, KPSII5, HK3, HK4 eta EK1.

5. Ideia teknologikoak eta digitalak komunikatzea, banaka eta taldean, dagokion euskarria, terminologia eta zorroztasuna erabiliz, pentsamendu digitala antolatzeko eta sendotzeko.

Informazioaren eta ezagutzaren gizartean, gero eta agerikoagoa da komunikazio argi eta egiazkoaren beharra, izan ahoz nahiz idatziz. Besteekin harremanetan egonda, ideiak trukatu eta horien gainean hausnartzeko aukera eskaintzen du, elkarrekin aritzeko, kooperatzeko, ezagutza berriak sortu eta indartzeko aukera, hain zuzen ere. Hala, komunikazioa funtsezko elementua da jakintzagai teknologikoak ikasteko.

Konpetentzia hau garatzeko, gertaera, ideia, kontzeptu eta prozedura konplexuak ahoz, analitikoki eta grafikoki adierazi behar dira, egiazko datu zorrotzak oinarri eta dagokion terminologia teknikoa erabilita, ideiei esanahia eman eta jendaurrean hedatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, HKK3, KE1, STEM4 eta KD3.

6. Norberaren eta besteen emozioak identifikatu eta kudeatzeko trebetasun pertsonal eta sozialak erabiltzea, akatsak ikaskuntza-prozesuaren parte direla ikastea, ziurgabetasun-egoerei aurre egitea, lana talde heterogeneoetan aktiboki kudeatzea, IKT ikasle gisa nortasun positiboa edukitzea eta norberaren eta taldearen ongizatea eta harreman osasuntsuak sustatzea.

Teknologia digitalek esku hartzen duten arazoak edo erronkak ebazteko, maiz, norberaren eta besteen emozioak ezagutu eta kudeatu behar dira, IKTen ikaskuntzan ikasle guztien ongizatea, emozio-erregulazioa eta ikaskuntzarako interesa sustatzeko.

Konpetentzia honetan, alde batetik, IKTen ikaskuntza-prozesuan norberaren emozioak identifikatu eta kudeatuko dira, estresa eragiten duten iturriak identifikatuko dira, helburuak lortzeko lan egiten saiatuko dira, modu kritiko eta sortzailean pentsatuko da, erresilientzia sortuko da eta erronka teknologiko berrien

aurrean jarrera proaktiboa hartuko da. Beste aldetik, besteekiko enpatia agertuko da, harreman positiboak sortu eta mantenduko dira, entzute aktiboa eta komunikazio asertiboa landuko dira, talde-lanean eta erabakiak arduratsuki hartzean harreman eta lan-ingurune osasuntsuak sortzeko, norberaren konfiantza indartzeko eta berdintasunezko elkarbizitza-egoerak finkatzeko. Halaber, norbanakoei loturiko IKTei buruzko estereotipo eta aurreiritziekin haustea sustatuko da, adibidez, generoarekin eta gai teknologikoetarako trebetasunekin lotura dutenak.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: STEM5, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, HK3 eta EK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lehenengo maila	Bigarren maila
1. konpetentzia espezifikoa	
1.1. Gailuak konektatu eta konfiguratzea eta tokiko sareak kudeatzea, hainbat komunikazio-sistemekin lotutako ezagutzak eta prozesuak jarrera proaktiboaz aplikatuz.	1.1. Ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak garatzea eta kudeatzea, beharrezko gailuen, tokiko sareen eta aplikazioen konexioari eta konfigurazioari lotutako hainbat konplexutasun-mailatako benetako arazoen soluzioak sortuz eta hobetuz, proiektuan esku hartzen duten hainbat sistemarekin lotutako ezagutzak eta prozesuak aplikatuz, soluzioak kritikoki ebaluatuz eta, hala badagokio, prozedura birformulatuz.
1.2. Sistema eragileak eta aplikazioak instalatzea eta mantentzea, horien ezaugarriak beharrizan pertsonalen arabera konfiguratuz.	1.2. Hardware eta software proiektu jasangarriak koordinatzeko taldeen zereginak antolatzea eta planifikatzea, hobekuntzak identifikatuz eta iterazio-prozesu bidezko prototipoak sortuz, jarrera ekintzailea adieraziz.
1.3. Zenbait komunikazio-sistemaren, tokiko sareren eta aplikazioren konexioan eta konfigurazioan esku hartzen duten benetako arazoei soluzio teknikoak sortzeko proiektuak ikertzea eta diseinatzea, soluzio posibleak kritikoki ebaluatuz eta, hala badagokio, prozedura birformulatuz.	1.3. Proiektuaren dokumentazio teknikoa osatzea, proiektuaren ezaugarriak, funtzionaltasunak, abantailak eta desabantailak identifikatuz, lengoaia argi eta zorrotzarekin, dagozkion aplikazio informatikoen erabileraren bidez.
1.4. Erabilitako materialak berrerabiltzea, behin eta berriz edo hainbat modutara erabiliz, eta energia aurrezteko ohiturak hartzea, ingurumen-inpaktu txikiena duten gailuak hautatuz, alferrikako zabor teknologikoa sortzea saihestuz eta behar bezala birziklatuz	
2. konpetentzia espezifikoa	
2.1. Proiektuen diseinuan parte hartzea, diziplina zientifiko-teknikoetan ohikoak diren aplikazioen garapenarekin lotutako arazo informatiko errazei software soluzio sortzaileak deskribatuz eta diseinatuz.	2.1. Beharrizan eta interesen araberako aplikazioak programatzea, zailtasun desberdinetakoak, programazio-elementuak behar bezala erabiliz eta kode irekiko programazio-lengoaiak eta -inguruneak baliatuz.
2.2. Pentsamendu konputazionalaren printzipioak aplikatzea ikasleen ingurune pertsonalari eta sozialari lotutako arazo errazei irtenbidea emateko, arazoa alderdi soiletan bereiziz, ereduak identifikatuz eta algoritmoak diseinatzeko abstrakzioa erabiliz.	2.2 Software-proiektu errazak garatzea eta kudeatzea, diziplina zientifiko-teknikoan erabili ohi diren aplikazioak garatzearekin lotutako hainbat konplexutasun-mailatako arazo informatikoei irtenbidea emateko eta ikasleen interesekoak izateko, egin beharreko hainbat zeregin garatzea antolatuz eta planifikatuz: definizioa, analisia, diseinua, inplementazioa, frogak eta dokumentazioa.
2.3. Ikasleek egunerokoan erabiltzen dituzten hainbat gailutarako aplikazio errazak diseinatzea, dagozkion programazio-elementuak erabiliz eta programazio-lengoaia erraz eta intuitiboak erabiliz.	

Lehenengo maila	Bigarren maila
3. konpetentzia espezifikoa	
3.1. Eremu digitalean ikaskuntza kudeatzea, ikaskuntzarako ingurune pertsonala baliabide digitalak txertatuta aberastuz, norbere jakin-min, ezagutza eta beharrizanetara egokituz, ezagutza sortzeko eta bizitza osoan zehar ikastea optimizatzeko.	3.1. Ikaskuntzarako ingurune pertsonalean baliabide digital eta ezagutza berriak txertatzea, ezagutza eta etengabeko ikaskuntza sortzen aurrera egiteko.
3.2. Informazioa bilatzea eta hautatzea, norbere beharrizanen arabera, bilaketa-tresnek nola funtzionatzen duten ulertuz eta ikaskuntzarako ingurune pertsonalaren tresnak kritikoki erabiliz.	3.2. Komunikazioko espazio birtualetan eta ikaskuntza kolaboratiboko plataformetan elkarri eragitea, informazioa eta datuak partekatuz eta argitaratuz, hainbat erabiltzailetara jarrera parte-hartzaile bidez egokituz.
3.3. Eduki digitalak banaka eta taldeka sortzea, integratzea eta berregitea, ezagutza berria eta eduki digitalak kreatiboki sortzeko tresnak hautatuz, egiletza-eskubideak errespetatuaz eta informazioaren erreferentziak behar bezala adieraziz.	3.3. Eremu digitalean lankidetza-sareak sortzea, antzeko interesak dituzten pertsonekin edo taldeekin harremanetan jarriz, berdinen arteko ikaskuntza eta lankidetza sustatuz.
4. konpetentzia espezifikoa	
4.1. Interneteko datu pertsonalak eta sortutako aztarna digitala babestea, sare sozialetako eta lan-espazio birtualetako pribatutasun-baldintzak konfiguratuz.	4.1 Informazioaren gizartearen ezaugarriak eta Jakintzaren gizarterantz egindako bilakaera ezagutzea eta aintzat hartzea, informazioaren eta haren sareko ezaugarrien garrantzia kontuan hartuz.
4.2. Egunerokoan erabiltzen ditugun gailuak babestea, pasahitzak, sistema eragileak eta antibirusak aldizka konfiguratuz eta eguneratuz.	4.2 IKTek gizartearen eraldaketan duten eragina ezagutzea, hainbat testuingurutan, hala nola hezkuntzan, familian, gizartean, kulturan eta politikan egindako ekarpena baloratuz, emakumeek beren bokazio zientifiko-teknologikoa sustatzeko egindakoa bereziki aintzat hartuz eta hainbat kolektibok aipatu teknologiak erabiltzeko duten eten digitalaz (ekonomikoa, geografikoa, generokoa, hizkuntzakoa…) jabetuz.
4.3. Sarean mehatxu diren egoerak identifikatzea eta horien aurrean erantzuten jakitea, hainbat aukeraren artean soluzio onena hautatuz eta ongizate pertsonala eta kolektiboa aintzat hartuz.	4.3 Konektatutako bitarteko digitalek adierazteko ematen duten aukeraren, erraztasunaren eta askatasunaren garrantzia aintzat hartzea, bitartekoen objektibotasuna, ideologia, nahitasuna, joera eta iraungipena kontuan hartuta jasotzen diren mezuak kritikoki aztertuz.
4.4. Gailuak erabiltzean osasun fisikoa babesteko ohitura osasungarriak hartzea, honako neurri hauek hartuz: behar bezalako jesartzea, pantailarekiko distantzia, teklatuaren eta saguaren erabilera, neke fisikoari eta buruko nekeari kontra egiteko etenaldiak eginez.	
4.5. Teknologia digitalen ingurumen-inpaktua identifikatzea, horiek modu jasangarrian erabiltzea sustatuz.	
4.6. Datu eta tresna digitalak etikoki erabiltzea, etiketa digitalaren arauak aplikatuz eta sareko gainerako erabiltzaileak errespetatuz.	
5. konpetentzia espezifikoa	
5.1. Ideia eta soluzio teknologikoak argi eta garbi eta modu ordenatuan komunikatzea, dagozkien euskarria, terminologia eta zorroztasuna baliatuz.	5.1. Ideia eta soluzio teknologikoak zorroztasunez, argitasunez eta koherentziaz komunikatzea, hartutako erabaki eta soluzioak lengoaia teknikoz arrazoituz eta defendatuz.
5.2. Lengoaia teknikoa hainbat testuingurutan identifikatzea eta erabiltzea, informazioa zorroztasunez komunikatuz.	5.2. Soluzio tekniko jakin bat garatu eta defendatzen duen talde tekniko baten testuingurura egokitutako terminologia zehatz eta zorrotz erabiltzea.
6. konpetentzia espezifikoa	
6.1. Ziurgabetasun-egoeretan helburuak lortzeko jarrera positiboa izatea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz eta akatsa ikaskuntza-prozesuaren parte dela ulertuz.	6.1. Ziurgabetasun-egoeretan helburuak gero eta hobeto lortzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz eta akatsa ikaskuntza-prozesuaren parte dela ulertuz.

Lehenengo maila	Bigarren maila
6.2. Motibazio positiboa adieraztea, arrazoitutako kritika onartuz eta ikasiz, teknologia digitalen ikas-egoerei aurre egiteko.	6.2. Motibazio positiboa eta pertseberantzia adieraztea, arrazoitutako kritika onartuz eta ikasiz, teknologia digitalen ikas-egoerei aurre egiteko.
6.3. Teknologia digitalen berezko zereginetan talde heterogeneoetan aktiboki parte hartzea, besteen emozioak eta esperientziak errespetatuz eta zeregin bakoitzerako trebetasun eta jarrera sozial egokienak identifikatuz.	6.3. Zeregin tekniko eta digitalak talde heterogeneoetan inklusiboki banatzea, besteen arrazoiketa entzunez, norbere funtzioaren bidez ekarpenak eginez eta taldearen ongizatea eta harreman mesedegarriak sustatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lehenengo maila	
A. Ikerketa- eta garapen-proiektuak.	
* Proiektuak ikertzeko eta diseinatzeko estrategiak: soluzio teknikoen ikerketa- eta diseinu-teknikak.	
* Ordenagailu-arkitektura: konfigurazioa eta problemen ebazpena.	
* Gailuen konfigurazioa eta konexioa.	
* Sistema eragileak: instalazioa eta konfigurazioa.	
* Algoritmoak eta fluxu-diagramak.	
* Algoritmoak identifikatzeko eta aldatzeko estrategiak.	
Software-arazo errazei irtenbidea emateko aplikazio informatikoak.	
* Ideiak eta emaitzak aurkezteko eta zabaltzeko estrategiak: testuinguruaren araberako hizkera, gorputz-hizkera eta adierazpena. Lengoaia teknikoa, inklusiboa eta estereotipo sexistarik gabea.	
B. Ikaskuntzarako ingurune pertsonala.	
* Ikaskuntzarako ingurune pertsonalaren kudeaketa eta aberasketa ikasleen beharrizan eta interesen arabera.	
Bilatzaileen funtzionamendua.	
* Bilaketa aurreratuak eta informazio-kudeaketa.	
* Eduki digitalak editatzeko eta sortzeko estrategiak, banaka eta taldeka, tresna egokienak erabiliz: testu-editoreak, kalkulu-orriak, eskuorriak, aldizkariak, aurkezpen interaktiboak.	
* Lizentziak eta egiletza-eskubideak.	
C. Segurtasuna, pribatutasuna eta herritar kritikoak	
* Gailuen babesa. Prebentziozko neurriak eta neurri zuzentzaileak eguneroko erabilerako gailuen arriskuei, mehatxuei eta erasoei aurre egiteko.	
* Segurtasuna eta datuen babesa. Nortasuna, ospea, pribatutasuna eta aztarna digitala. Prebentziozko neurriak. Sare sozialen konfigurazioa. Nortasun birtualen kudeaketa.	
* Osasun fisikoan eta buruko osasunean segurtasuna. Ongizate pertsonalarentzako arriskuak eta mehatxuak. Erantzuteko aukerak. Sareko indarkeria- eta arrisku-egoerak.	
* Ingurumenaren segurtasuna: teknologia digitalen erabilera jasangarria.	
* Komunikazio-estrategiak eta sarearen erabilera kritikoa, albiste faltsuak eta iruzurrak detektatzeko tresnak.	
* Kudeaketa administratiboak: onlineko zerbitzu publikoak, erregistro digitalak eta ziurtagiri ofizialak.	
Hardware eta software libreko komunitateak.	
Emakumeek konpetentzia digitalak garatzeko egindako ekarpena.	
D. Alderdi sozio-emozionala.	
1. Iritziak, jarrerak eta emozioak	* Jakin-mina, ekimena, pertseberantzia eta erresilientzia teknologia digitalen arazoak ebazteko.

Lehenengo maila	
	* Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioak, autokontzientzia eta autoerregulazioa kasu, identifikatzeko estrategiak.
	* Malgutasun kognitiboaren garapena, beharrezkoa denean estrategia aldatzeko prestutasuna, akatsa ikasteko aukera bihurtuz.
	Ekintzailetza eta sormena arazoak diziplinarteko ikuspegitik jorratzeko.
2. Talde-lana eta erabakiak hartzea.	* Talde-lana optimizatzeko teknika kooperatiboak hautatzeko estrategiak. Jokabide enpatikoak eta gatazkak kudeatzeko estrategiak.
	* Egoera gatazkatsuak ebazteko erabaki egokiak hartzeko metodoak.
	Ahalduntzea eta erantzukizun-funtzioetarako emakumeen parte-hartzea.
3. Inklusioa, errespetua eta dibertsitatea.	* Jarrera inklusiboak sustatzeko eta ikasgelako eta gizarteko dibertsitatea onartzeko estrategiak.
	* Teknologiek eta digitalizazioak giza jakintzen hainbat eremu garatzeko egindako ekarpena genero-ikuspegitik ezagutzeko estrategiak.

Bigarren maila	
A. Ikerketa- eta garapen-proiektuak.	
* Hardware eta software proiektuen kudeaketa eta garapena: motak, ezaugarriak eta aplikazioa.	
* Dokumentazio teknikoaren hedapena eta komunikazioa. Osaera, erreferentziak eta aurkezpena.	
* Komunikazio-sistemak eta Internet. Sareko gailuak eta funtzionamendua. Tokiko sarea sortzeko prozedura eta gailuen konexioa.	
* Hainbat konplexutasun-mailatako aplikazio informatikoak. Kode irekiko programazio-ingurune eta -lengoaiak.	
Konektatutako gailuak (IoT+Wearables), adimen artifiziala (AA) eta big data.	
* Ideia, kontzeptuak edo emaitzak zorrotz, zehatz eta dagokion hiztegi tekniko bidez aurkeztu eta hedatzeko estrategiak, hainbat forotara egokituta eta lengoaia inklusiboa eta estereotipo sexistarik gabe erabilita.	
B. Ikaskuntzarako ingurune pertsonala.	
* Ikaskuntzarako ingurune pertsonala hobetzen jarraitzeko estrategiak, ikasleen interesak eta beharrizanak kontuan hartuz.	
* Komunikazioa eta sareko kolaborazioa.	
* Argitalpen eta hedapen arduratsua sarean.	
* Informazio-iturrien eta edukien zaintzaren kudeaketa.	
* Aipuak eta erreferentzia bibliografikoak. Estilo bibliografikoak.	
* Irudiak, audioak eta bideoak editatzeko aplikazioak.	
Datu-baseak.	
C. Segurtasuna, pribatutasuna eta herritar digital kritikoak.	
* Datu pertsonalak babesteari buruzko eskubideak. Interneteko iruzur eta mehatxu ohikoenak.	
* Informazioaren gizartea eta jakintzaren gizartea.	
* IKTek gizarteko hainbat testuinguru eraldatzeko egindako ekarpena: hezkuntzan, familian, gizartean, kulturan eta politikan.	
* Konpetentzia digitalak Europako esparruan: DigComp, digCompEdu, Selfie.	
* Etika datuen eta tresna digitalen erabileran: adimen artifiziala, joerak (algoritmikoak eta ideologikoak), zaharkitzapen programatua eta burujabetza teknologikoa.	
D. Alderdi sozio-emozionala.	
1. Iritziak, jarrerak eta emozioak.	* Norbere sentimenduak eta emozioak ezagutzeko autokontzientzia eta autokudeaketarako trebetasunak, teknologia digitalen ikaskuntzan estres- eta antsietate-egoerei aurre eginez.
	* Akatsaren tratamendua eta analisia, banakakoa eta kolektiboa, bereganatutako aurretiazko ezagutzak mobilizatzeko elementu gisa eta IKTak ikasteko aukera-sortzaile gisa.
	Ekintzailetzan eta kreatibitatean saiatzea arazoak diziplinarteko ikuspegitik jorratzeko.

Bigarren maila	
2. Talde-lana eta erabakiak hartzea.	* Jokabide enpatikoak eta gatazkak kudeatzeko estrategiak.
	* IKT testuinguruetan arazoak ebazteko erabaki eraginkorrak hartzeko estrategiak.
3. Inklusioa, errespetua eta dibertsitatea.	* Jarrera inklusiboak sustatzeko eta ikasgelako eta gizarteko dibertsitatea onartzeko estrategietan jarraipena.
	Proposatutako helburu guztietan gizakiaren mugak ezagutzea, nork bere mugak eta akatsak onartuz eta helburuak lortzeko erresilientziaz jokatuz.

IRUDIA ETA SOINUA

Irudia eta Soinua 2. mailako jakintzagaiak aberaste kulturalaren eta artistikoaren iturri diren sentsibilitate artistikoa eta irizpide estetikoa garatzen lagunduko du. Ikusizko eta ikus entzunezko hizkuntzaren elementuak ezagututa, ikasleek ikus-entzunezko irudiak eta produkzioak ulertu eta interpreta ditzakete. Horrek au-rreiritziak ezabatzea errazten du eta norberaren iritzi kritikoa sortzea, betiere ikusizko eta ikus-entzunezko ekoizpenen erabileren, portaeren eta kontsumo-ohituren aurrean. Ikasleak, sortzaile diren aldetik, ekoizpenak modu berritzaile eta iraunkorean egiteko trebatzen dira. Izatez, sortutako hondakinen kudea-keta eta ondorengo birziklapena kontuan hartuko dituzte eta teknologiak modu seguru, adierazkor eta arduratsuan erabiliko dituzte.

Funtsezko konpetentziak lortzeko egiten den ekarpenari dagokionez, jakintzagaiak laguntzen du konpetentzia horiek guztiak hein handiagoan edo txikiagoan garatzen — askotarikoak eta integratzaileak dira—, eta horrek konpetentzien araberako ikaskuntza holistikoa bultzatzen du. Lehenik eta behin, kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia zuzenean lotzen da Irudia eta Soinua jakintzagaiarekin; izan ere, sormenezko jarduerak eta prozesuak biltzen ditu, eta, jarduera eta prozesu horiei esker, ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak kultura guztietan sormenez adierazten diren

modua ulertzea eta errespetatzea eragin dezake. Era berean, zenbait tresnaren eta teknikaren adierazpen-elementuak identifikatzearekin eta esperimentatzearekin, ikasleak beren sorkuntza-beharrez eta behar artistikoez jabetu ahal izango dira, eta lagungarria izango zaie hizkuntza pertsonala sortzeko.

Irakasgai honetan sartzen dira, halaber, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna; izan ere, batetik, ikasleek zenbait koderen bidez beren komunikazio-sistema ikasten dute, eta, bestetik, ikasleek beren balorazioak adierazten dituzte, beren proiektuak azaldu, argudiatu eta erakusten dituzte, eta, aldi berean, jakintzagaiaren hiztegi espezifikoa bereganatzen eta erabiltzen dute eta, hala, komunikatzeko gaitasuna garatzen dute.

STEM konpetentziak, besteak beste, ingurune naturala eta soziala ulertzea eta azaltzea dakar, zenbait ezagutza eta metodologiaren bidez —behaketa eta esperimentazioa barne—. Hartara, testuinguru soziala eta naturala interpretatu eta eraldatzeko probetan oinarritutako galderak planteatu, eta ondorioak atera ahal izango dituzte; eta hori arte-sorkuntzaren berezkoa da.

Besteak beste, ikusizko eta ikus-entzunezko sorkuntzak ekoizteko tresna digitalak erabiltzen badira, tresna horiek behar bezala erabiltzen ikasi beharko da. Izatez, tresna horiek modu kritikoan, seguruan eta arduratsuan erabili beharko dira, eta datuen babesa, jabetza intelektuala eta egile-eskubideak errespetatu beharko dira. Hori guztia konpetentzia digitalarekin lotuta dago.

Sorkuntza-prozesuan konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa eta herritartasunerako konpetentzia lantzen dira, batik bat. Ikasleek, prozesu horretan beren adierazpidearen bilaketan, modu autonomoan parte hartzen dute problemak ebazteko garaian. Ildo horretan, erabakiak hartuko dituzte, eta erantzukizunak beren gain hartuko dituzte; beren autoestimua, beren buruarekiko konfiantza, apaltasuna eta bestearen ulermena sendotuko dituzte. Halaber, lan-ohiturak barneratuko dituzte, eta ahalegina bihurtuko da helburuak lortzeko bitarteko; akatsa hobekuntza-aukera izango da, eta berrikuntza eta pentsamendu kritikoaren sorrera garrantzi handikoak izango dira. Bestalde, talde-lanaren bidez, erres-

petua, tolerantzia eta kooperazioa gisako jarrerak sustatzen dira. Gainera, ikasleengan ekimenaren zentzua eta ekintzailetza-espiritua indartzen dira.

Jakintzagaiaren egiturari dagokionez, sei konpetentzia espezifiko ezarri dira, hain zuzen ere arlo horrekin zerikusia duten konpetentzia-ikaskuntzak. Bi lehenengoak ikasleen ikusle-zereginarekin dute zerikusia. Zenbait gizarte eta gaitako ikus-entzunezko ekoizpenen ezagutza, ulermena eta analisia sustatzen dute, generoaren eta kultura aniztasunaren ikuspegitik. Horrek lagundu egingo du ondare bisualaren eta ikus entzunezkoaren ezagutzan eta kontzientzian, estereotipoak desagerrarazten, diskurtso kritikoa egiten eta aurrerago ikasleek beren diskurtsoa sortzeko erabiliko dituzten hizkuntzak bereganatzen, eta arte-prestakuntza areagotzen. Hurrengo konpetentziek ikasleen sortzaile-rola dute ardatz, eta sorkuntza adierazpide indibidual zein kolektibo gisa esperimentatzeari eta erabiltzeari buruzkoak dira. Horrek nork bere burua ezagutzea eta bestea ulertzea eskatzen du, baita ikusizko eta ikus-entzunezko baliabideak eta teknikak planifikatu, ezagutu eta aplikatzea eta kolaborazio-lanaren garrantzia nabarmentzea ere.

Ebaluazio-irizpideak dira konpetentzia espezifikoak ebaluatzen dituzten curriculum-elementuak. Konpetentzia-orientazio argiarekin formulatzen dira, jakintzen aplikazioaren bidez eta jarreren balorazioaren bidez.

Oinarrizko jakintzak sei multzotan banatuta daude: Orokorrak; Oinarri fisikoak eta pertzepziozkoak; Irudiaren eta ikus-entzunezko ekoizpenen historia; Ikus-entzunezko erregistroa eta erreprodukzioa; Garapen teknologikoa; Adierazpen-baliabideak.

Jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoak eskuratze aldera, ikasleei esperientzia sorta zabala ikertzeko aukera emango dieten ikaskuntza-egoerak behar dira. Egoera horien garapenean, konpetentzia espezifikoak ez dira independenteak izango, beren osotasunean landuko dira, eta kasuan-kasuan adierazgarrienak diren jarduerak bultzatuko dira, betiere ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak elkarren artean erlazionatuta eta gero eta konplexutasun handiagoz eskuratu ahal izateko moduan. Egoera horiek panorama zabala eskainiko diete ikasleei prestakuntza- eta lanbide aplikazioetan, askotariko alderdietan.

Jakintzagai honen azken helburua ikasleei ikusizko eta ikus-entzunezko sorkuntzarako hurbilketa erraztea da, haien sorkuntza-gaitasuna bultzatzea, eta ikasleengan konponbide propioak eta originalak sustatzen dituen ekoizpen dibergentea sustatzea. Lanean ahaleginaren eta jarraitutasunaren kontzeptua ere finkatzen da, helburuak lortzeko bitarteko gisa. Azkenik, ikasleek lanbideak eta lanbide-irteerak identifikatzen dituzte, baita etorkizuneko garapenean eskain ditzaketen aukerak ere.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Ikusizko eta ikus-entzunezko hizkuntza onartzea mundua ezagutu eta ulertzeko bitarteko gisa, jakin-mina, errespetua eta irizpide propioa erakutsiz, hizkuntza horren bilakaeraz, gizartean duen funtzioaz eta gizarte-iruditerian eta identitate kolektiboan duen eraginaz gogoeta eginez, eta terminologia espezifikoa erabiliz, kultura aniztasuna aberastasun-iturri gisa baloratzeko, estereotipoak desagerrarazteko eta ikusizko eta ikus-entzunezko ondarea babesteko.

Ikusizko eta ikus-entzunezko hizkuntzaren historia eta bilakaera ezagutzea tresna ahaltsua da mundua ezagutu eta ulertzeko. Ezagutza horrek berarekin dakar ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak zenbait gizartetan adierazteko eta komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea. Hori guztia ezinbestekoa da ikusizko eta ikus-entzunezko ondarea modu formalean ulertzeko eta, ondorioz, ondare hori balora eta kontserba dadin sustatzeko.

Hizkuntza horrek, garapen teknologikoarekin lotuta, izan duen bilakaera eta gizarte-iruditeriaren eta identitate kolektiboen eraikuntzan izan duen eragina ulertu eta ezagutzeak berarekin dakar, halaber, hizkuntza hori sortzen duten gizarteak hobeto eta modu toleranteagoan eta errespetuzkoagoan ezagutzea, baita kultura-aniztasuna aberastasun-iturri gisa ulertzea ere. Xede horrekin, ezinbestekoa da, halaber, begirada ikusbera, errespetuzkoa eta kritikoa. Horrek guztiak lagunduko du diskurtso propio eta

kritikoa eraikitzen, estereotipoak desagerrarazten eta gizaki guztien arteko berdintasuna sustatzen. Era berean, berariazko hiztegia eta terminologia bereganatzearekin eta erabiltzearekin, komunikazio-gaitasuna hobetzen da, arin eta zuzen adierazten baita.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE1, KD1, KPSII1.1, KPSII1.2, HK1, HK3, KAKK1.

2. Ikusizko eta ikus-entzunezko ekoizpenak jarrera proaktibo eta kritikoz aztertzea, erabilitako hizkuntzak, bilatutako asmoa, mezua eta sortu diren testuingurua identifikatuz eta gai berari emandako irtenbideak zehaztuz, arte-prestakuntza zabaltzeko eta gozamen estetikoa sustatzeko.

Ikusizko eta ikus-entzunezko produkzioen analisia lagungarria da gaitasun kritikoa eta estetikoa garatzeko eta diskurtso kritikoa, librea, propioa eta errespetuzkoa eraikitzeko. Era berean, analisi horri esker, berariazko hiztegia eta terminologia barneratu, eta zuzen erabiltzen da, eta horrela idatzizko nahiz ahozko adierazpena hobetzen da. Horren guztiaren emaitza esperientzia artistikoan integratzen da, eta norberaren iruditeria aberasten eta zabaltzen da.

Aztertutako adibideen artean, kultura-aniztasuna eta genero-ikuspegia sartu behar dira, eta arreta berezia eskainiko zaio emakumeek egindako arte-ekoizpenaren azterketari. Hizkuntzak identifikatzeak eta bereizteak ahalbidetzen du ekoizpenen asmoa eta mezuak beren konplexutasun osoan ulertzea. Ekoizpenak sortu diren testuinguruak, bestalde, premia, baldintzatzaile eta ezaugarri jakin batzuk dituen gizarte batean kokatzen ditu ekoizpenak. Arazo berari emandako zenbait irtenbide ezagutuz gero, irtenbide horiek norberaren iruditeriaren parte bihurtzen dira, eta gero norberaren sorkuntza-prozesuan erabil daitezke. Horri guztiari esker, zabaltzen da arte prestakuntza eta sustatzen da gozamen estetikoa.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE2, KD1, KPSII1.1, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

3. Ikusizko eta ikus-entzunezko hizkuntzako elementuak ezagutzea eta horiekin esperimentatzea, tresna digitalen aukerak barne, iraunkortasun- eta berrikuntza irizpideak erakutsiz, horien aukerak ezagutuz eta horien erabilera menderatuz eta trebetasuna eskuratuz, norberaren arte-errepertorioan txertatzeko eta lanean ahalegina eta jarraitutasuna baloratzeko.

Ikusizko eta ikus-entzunezko tresnekin eta hizkuntzekin esperimentatzeak eta berritzeak aukera ematen du hizkuntza horien baliabideak eta konbentzioak sakonago ezagutzeko eta horien erabileran trebetasuna areagotzeko. Trebetasun, menderatze eta arintasun hori lortuko bada, ahalegin eta jarraitutasun handia behar da lanean, ezinbestekoa baita ikaskuntza eraginkortasunez balia dadin.

Horretarako, iraunkortasun-irizpideak eta ingurumen-inpaktua hartu behar dira kontuan eta sortutako hondakinak arduraz kudeatu eta, gero, birziklatu behar dira. Garrantzizkoa da, halaber, ikasleek tresna digitalen sormen- eta adierazpen-aukeren berri izatea eta erabilera arduratsua eta kritikoa egitea, jabetza intelektuala errespetatuz.

Ikusizko eta ikus-entzunezko sorkuntzari dagozkion tresna, teknika eta materialen ezagutzari esker eta horiekin esperimentatzeari esker, beren hizkuntza eraikitzen dute ikasleek.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM2, KD3, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII5, HK1, EK1, KAKK4.2.

4. Ikusizko eta ikus-entzunezko obrak sormenez egitea, iraunkortasun- eta berrikuntza-irizpideak erakutsiz, bizi-esperientzietatik edo emandako gai batetik abiatuz, erabilitako elementuen eta tekniken erabilera argudiatuz, akatsa hobetzeko aukeratzat hartuz eta bere adierazpena hobetzeko, bere buruaren gaineko konfiantza eta ezagutza indartzeko eta autokritikarako gaitasuna areagotzeko.

Ikusizko eta ikus-entzunezko ekoizpenen prestaketan, sormena eta pentsamendu dibergentea baliatuz gero, irtenbide berriak eta ikuspegi berritzaileak lortzen dira; ikuspuntu berri batetik abiatutako mundua-

ren zein norberaren bestelako ikuspegia lortzen da. Era berean, akatsa hobekuntza- eta ikaskuntza-aukera gisa onartzea funtsezkoa da prozesu horretan eskatzen den malgutasuna lortuko bada.

Garrantzitsua da, halaber, teknologiarekin zerikusi handia duten baliabideak ezagutzea eta horiekin esperimentatzea. Izan ere, baliabide horiek modu kritiko, seguru eta arduratsuan erabili behar dira, hau da, jabetza intelektuala errespetatu behar da eta ingurumenean duten eragina kontuan hartu behar da.

Sorkuntza-prozesu horretan, gure ingurunea miatzeaz gain, geure burua ere arakatzen dugu. Sorkuntza-prozesuaren bidetik, autonomia garatzen dugu, nork bere buruaren gaineko ezagutza sendotzen dugu, autokritika sustatzen dugu eta norberaren adierazpidea eraikitzen dugu.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD2, KPSII1.1, KPSII5, EK3, KAKK3.1, KAKK3.2

5. Proiektu artistiko indibidualak edo kolektiboak egitea, faseak planifikatuz, proiektuaren beharretara egokitzen diren elementuak hautatuz, erantzukizunak bere gain hartuz eta besteen iritziak kontuan hartuz, sorkuntza artistikoak eta lan kolaboratiboak eskaintzen dituzten aukerak baloratzeko.

Proiektu artistikoak egiteak proposamen kolaboratiboak edo indibidualak asmatu, diseinatu eta proiektatzeko aukera ematen du. Prozesu horretan, ikasleak bere gain hartu behar ditu erantzukizunak, gainerakoen iritzia errespetatu behar du, akatsa hobekuntza-aukera gisa onartu behar du, eta diziplina-, jarraitutasun- eta ahalegin-ohiturak hartu behar ditu; izatez, gaitasun horiek guztiak ezinbestekoak dira bizitzak dakarren ziurgabetasuna kudeatzeko.

Proiektu horien garapena aukera paregabea izan daiteke ikasleek lanbide irtenbideak identifika ditzaten eta beren etorkizuneko garapenerako eskaintzen dituzten aukerak zehatz ditzaten.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM3, KD3, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

6. Ikusizko eta ikus-entzunezko produkzioak hedatzea, sorkuntza-prozesua zein norberaren lan-prozesua bera eta azken emaitza ebaluatuz, baita espazio birtualen arriskuak eta onurak ebaluatuz ere, ikusleen erreakzioei buruz modu irekian eta errespetuz gogoeta egiteko.

Gaur egun hedapenerako askotariko bideak daude, eta horien arteko erabilgarrienak Internetek eskaintzen dizkigu. Hedapenerako bide mota horiek askotariko onurak dituzte: mundu-mailako konexioa, azkartasuna, ikusle kopuru handia… Horregatik, garrantzi handikoa da ikasleek espazio birtual horien arriskuak ebaluatzea. Horretarako, datu pertsonalak babesteko neurriak ezagutu behar dituzte, eta jabetza pribatuarekiko eta egile-eskubideekiko errespetua azaldu behar dute, besteak beste.

Era berean, garrantzizkoa da ikasleek sorkuntza-prozesua ebaluatzea, baita beren jarduna prozesu horretan eta azken emaitza ere. Ebaluazio-prozesu horri amaiera ematen zaio ekoizpen horren ikusleen erreakzioari buruz modu irekian eta errespetuz gogoeta egitearekin.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM3, KD3, KPSII5, HK1, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Irudia eta Soinua
1. konpetentzia espezifikoa.
1.1 Ikusizko eta ikus-entzunezko hizkuntza onartzea mundua ezagutzeko eta ulertzeko bitarteko gisa, jakin-mina eta errespetua erakutsiz, Historian izan duen bilakaerari eta gizartean betetzen duen funtzioari buruz gogoeta eginez eta berariazko hiztegia eta terminologia zuzen erabiliz.

Irudia eta Soinua
1.2 Ikusizko eta ikus-entzunezko hizkuntzek identitate kolektiboen konfigurazioan duten eraginari buruz gogoeta egitea, norberaren irizpidearekin eta errespetuz, eta berariazko hiztegia eta terminologia zuzen erabiliz eta estereotipoak ezabatuz.
2. konpetentzia espezifikoa.
2.1 Ikusizko eta ikus-entzunezko zenbait ekoizpenetan erabilitako hizkuntzaren elementuak, ezaugarriak eta berezitasunak identifikatzea, baita gai berari emandako konponbideak ere, berariazko hiztegia eta terminologia erabiliz.
2.2 Ikusizko eta ikus-entzunezko ekoizpenak alderatzea, haien asmoa, mezua eta sortu diren testuingurua identifikatuz eta horiekin gozatuz.
3. konpetentzia espezifikoa.
3.1 Arduraz esperimentatzea zenbait teknika eta tresnarekin —digitalak barne—, haien adierazpen-aukerak ezagutuz eta ingurumenean duten eraginaz eta ondorengo birziklapenaz jabetuz
3.2 Ikusizko eta ikus-entzunezko ekoizpenak egitea, beharrezkoak diren bitartekoak, tresnak eta gaitasunak trebetasunez eta modu berritzailean erabiliz eta lanean ahalegin eta jarraitutasun jarrera hartuz.
4. konpetentzia espezifikoa.
4.1 Bizi-esperientzietatik abiatuta, ikusizko eta ikus-entzunezko obrak sortzea, iraunkoritasun- eta berrikuntza-irizpideak erabiliz, akatsa hobekuntza-aukera gisa onartuz, norberaren mugak aitortuz eta gainditzen saiatuz.
4.2 Ikusizko eta ikus-entzunezko ekoizpenak egitea, gai jakin bati buruzko norberaren ideiak eta sentimenduak sormenez adieraziz, erabilitako elementuak eta teknikak argudiatuz eta nork bere buruarekiko konfiantza indartuz.
5. konpetentzia espezifikoa.
5.1 Ikusizko eta ikus-entzunezko arloarekin lotzen diren lanbideen adibideak identifikatzea, eskaintzen dituzten aukerak ulertuz, sorkuntzak lanean duen balio erantsia ulertuz eta norberaren iritzia modu arrazoituan eta errespetuz adieraziz.
5.2 Proiektu artistiko indibiduala edo kolektiboa sortzea, faseak planifikatuz, erantzukizunak bere gain hartuz, proiektuaren beharretarako tresna eta teknikarik egokienak hautatuz eta lan kooperatiboa baloratuz.
5.3 Prozesua eta azken produktua ebaluatzea, aldeko eta kontrako iritziak kontuan hartuz eta aurkitutako zailtasunak eta hartutako irtenbide teknikoak baloratuz
6. konpetentzia espezifikoa.
6.1 Ikusizko eta ikus-entzunezko ekoizpenak hedatzea, hedapenerako bideak hautatuz eta espazio digitalak modu kritiko, seguru eta arduratsuan erabiliz, sormen-prozesuan aurkitutako zailtasunak eta erdietsitako lorpenak partekatuz.
6.2 Modu irekian eta errespetuz aurkeztutako ikusizko eta ikus-entzunezko ekoizpenen harrera aztertzea, iritzi positiboak eta negatiboak kontuan hartuz, eta horretatik hazkunde artistikorako ikaskuntza ateraz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Irudia eta Soinua
Orokorrak.
Aniztasunaren balorazioa, aberastasun-iturri gisa eta estereotipoak desagerrarazteko iturri gisa.
Berariazko hiztegia eta terminologia.
Ikusizko eta ikus-entzunezko hizkuntza, mundua ezagutzeko eta ulertzeko bitarteko gisa.
kultura eta arte ondarearen sustapena eta kontserbazioa.
Sentsibilitate artistikoaren eta irizpide estetikoaren garapena.
Jakin-minezko eta errespetuzko jarrera proaktiboa.
Gozamen estetikoaren sustapena eta espiritu ekintzailea, sormena, eta pentsamendu dibergente eta kritikoa sendotzea.
Ingurumen-iraunkortasuna eta berrikuntza.
Tresna digitalen erabilera kritikoa, segurua, adierazkorra eta arduratsua; datuen babesarekiko, jabetza intelektualarekiko eta egile-eskubideekiko errespetua.

Irudia eta Soinua	
Lan-ohiturak sendotzea, ahalegina helburuak lortzeko bidea.	
Akatsa ikaskuntza- eta hobekuntza-aukeratzat hartzea.	
Nork bere buruaren ezagutza, autonomia, nork bere buruaren gaineko konfiantza, autokritika, apaltasuna eta bestearen ulermena.	
Lan kolaboratiboaren balorazioa, erantzukizuna eta erabakiak hartzeko prozesua, enpatia eta gainerakoen iritzien balorazioa.	
Ikusizko eta ikus-entzunezko arloarekin lotzen diren lanbideak.	
Ikusizko eta ikus-entzunezko baliabideek eskaintzen dituzten aukeren balorazioa, baita eragiten dituzten gizarte- eta ekoizpen-eraldaketak. Kontsumo kritikoko ohiturak.	
A. Oinarri fisikoak eta pertzepziozkoak.	
Irudi-kontzeptua.	
Analogia eta ikonikotasun-mailak. Irudikapen ikonikoak, askotariko kualitateak dituzten artifizio gisa.	
Irudiaren atributu nagusiak: distira, kontrastea, saturazioa eta definizioa. Bereizketa eta aldakuntza.	
Soinuaren izaera eta ezaugarriak: maiztasuna, tinbrea eta intentsitatea. Maiztasunaren eta intentsitatearen aldaketa.	
Irudien kategorizazioa, erreferentearekiko analogia-mailari erreparatuta.	
B. Irudiaren eta ikus-entzunezko ekoizpenen historia.	
Argazkia: gela ilunetik tresna digitaletara.	
Zinema: mugimenduaren ilusioaren aurrekariak, sorrera, masa-ikuskizuna, soinua eta kolorea.	
Irratia: adierazpen-elementuak (ahotsa eta hizkuntza, musika eta motak, soinu efektuak).	
Telebista: hasierako esperimentuetatik, lehen emisio erregularretara eta kolorera. Zuzeneko programak eta aurrez grabatuak. Norberaren eta besteen programak.	
Bideoa: hasieratik egungo erabilerara.	
C. Ikus-entzunezko erregistroa eta erreprodukzioa.	
1. Argazkia.	Argazki-kamera: formatuak eta motak.
	Egitura, zatiak eta funtzioak: bisorea,objektiboa, obturadorea, diafragma eta fotometroa.
	Enkoadraketa.
	Objektiboak: fokuratze-distantzia. Motak, ezaugarriak eta aplikazioak. Ikus-angelua eta perspektiba.
	Eremu-sakonera: kontzeptua, fokuratze-distantziaren eta objektiboaren araberako aldaketa
	Argiztapena: argi naturala eta artifiziala, kolorearen tenperatura eta iragazkiak, zuzenekoa eta islatua, gogorra eta leuna, flasha, argiztapen-teknikak
2. Zinema.	Kamera eta euskarri zinematografikoak.
	Trukoketa: agerpenak eta desagerpenak, gardentasunak, gainjartzeak eta erreserbak, eraldaketak, maketak.
	Animazioa.
	Soinu optikoa eta magnetikoa.
	Muntaia, prozesu gisa.
3. Soinua.	Soinua erregistratzeko sistemak. Soinua sortzeko oinarrizko printzipioak.
	Soinu-erreprodukzioa: soinu-iturriak eta seinale motak, anplifikadoreak eta bozgorailuak.
	Soinu-seinaleak eta tratamendua.
	Soinu-pertzepzioa; oinarrizko elementuak (erreberberazioa, distortsioa, intentsitatea…).

Irudia eta Soinua	
4. Bideoa.	Irudiaren atzipena.
	Bideo-kamera. Motak.
	Bideo-seinalearen grabaketa eta erreprodukzioa.
	Konexio eta seinale motak. Sarrerak eta irteerak.
	Edizio elektronikoa edo bideo-seinalearen muntaia.
D. Garapen teknologikoa.	
Transmisio-sistemak: airez eta kable bidez.	
Bereizmen handiko bideoa eta telebista.	
Irudia eta informatika. Irudi digitalizatua eta sorkuntza digitaleko irudia. Infografia. Argazki magnetikoa. Zuri-beltzeko filmen koloreztatzea.	
Soinu eta teknologia digitala.	
Errealitate berriak ikus-entzunezko informazioan, komunikazioan eta transmisioan: interaktibitatea eta biltegiratzea multimedia-euskarrietan —idatzizkoa, grafikoa, soinuduna eta ikusizkoa—, zuntz optikozko kableak, telekomunikazio-sateliteak, irrati- eta telebista-transmisio digitala.	
Errealitatearen pertzepzioa eta ikus-entzunezko berreraikuntza.	
Ikus-entzunezko komunikazioa eta informazioa: objektibitatea eta subjektibitatea.	
Ikus-entzunezko bitartekoen zeregina iritzi publikoaren konfigurazioan, informazioaren bidez.	
Ikus-entzunezko informazioaren eta komunikazioaren eskuragarritasuna.	
Hedapena: sare sozialak, areto komertzialak, erakusketa-espazio alternatiboak, Internet.	
E. Adierazpen-baliabideak.	
1- Espazioa eta osaera.	Enkoadraketa, errealitatearen hautespena.
	Ikuspuntua eta angelu motak, planoak: adierazpen-balioak eta hautespena.
	Irudi dinamikoa eta irudien segida.
2- Mugimendua.	Mugimendua enkoadraketaren barruan eta kameraren mugimendua.
	Panoramika. Motak: horizontala, bertikala, zeiharra, zirkularra, ekortzea. Behar bezala lortzeko arauak.
	Travelling-a. Motak: hurbilketakoa, urruntzekoa, akonpainamendukoa, zirkularra.
	Garabia, espazio tridimentsionalean mugimenduak konbinatzeko aukerak. Teknologia berriak. Kameraren mugimenduak ordenagailu bidez kontrolatzeko aplikazioa.
	Zooma, mugimendu faltsu gisa.
3- Denbora dimentsioak.	Denbora kronometrikoa eta dramatikoa. Elipsia eta horren kausak.
	Planoaren iraunaldia.
	Eszena, sekuentzia eta plano/sekuentzia.
	Iragate moduak: ebaketa, itzaltzea, itzaltze kateatua, desfokuratzeak eta desegiteak, ekortzea, errezel-efektua
	Kontakizun-denbora: bizkortzeak eta mantsotzeak.
	Flash-back-a eta *flash-forward*-a. Ekintza paraleloak.
	Ikus-jarraitutasuna eta *raccord*-ak.
	“Jarraitutasun artifizialari” eusteko moduak.
4- Muntaia.	Plano/sekuentziatik muntaiara: muntaia espazioaren eta denboraren manipulazio gisa.

Irudia eta Soinua	
5- Soinua.	Soinu-planoak eta soinu-perspektiba.
	Soinu-bandaren osagaiak: hitza, musika eta soinu-efektuak.
	Grabazio-teknikak.
	Bikoizketa eta jatorrizko soinu-banda. Sinkronizazioa.
	Soinu-efektuen sorrera.

JARDUERA FISIKOA, AISIA ETA OSASUNA

Gazteek astialdiaz egiten duten erabilerarekin eta sedentarismoaren datuekin, osasungarriak ez diren ohiturekin eta haurren obesitatearekin edo gehiegizko pisuarekin gero eta kezkatuago dagoen gizarte honetan, ezinbestekoa da norabidea aldatzea. Gero eta ebidentzia gehiago daude akzio motorrak maila psikologikoan, fisiologikoan, sozialean eta, azken batean, gure ikasleen garapen integralari ekartzen dizkion onurei buruz. Ildo horretan, Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna aukerako jakintzagaiak beste urrats bat egiten du bizitza aktiboa eta osasungarria lortzeko bidean. Era berean, jarduera fisikoarekin, aisiarekin eta osasunarekin erlazionatutako etorkizuneko ikasketetarako zubi eta orientabide modukoa da irakasgai hau, etorkizunean ikasketa horiei aurre egitea ahalbidetuko duten ezagutza espezifikoak, konpetentziak eta trebetasunak ematen ditu-eta. Ildo horretan, irakasgai honen bitartez ikasleek gai izan behar dute jarduera fisikoarekin, aisiarekin eta osasunarekin erlazionatutako lanbideak eta ikasketak zuzenean ezagutzeko, eta, hartara, beren interes, helburu eta beharren arabera dagozkien erabakiak hartzeko.

Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna jakintzagaian, ikasleen garapen pertsonal eta sozial egokia bermatuko duen konpetentzia motorra hobetzeko eta norberaren edo besteen jarduera fisikoa planifikatzeko behar den autonomia garatzeko lan egiten da. Kultura motorraren berezko ezagutzetan ere sakontzen da, eta herritartasun aktiboa eta demokratikoa egikaritzea ahalbidetzen duten balio zibikoak bultzatzen dira. Asmoa da, gainera, ikasleek gure gizartean aisia konstruktiboa zuzentzen duten oinarri kontzeptualak ulertzea, astialdian erabiltzeko, beste esparru batzuetan erabiltzea baztertu gabe. Azkenik, jarduera fisikoarekin erlazionatutako praktiken irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren alderdi psikopedagogikoak ikasten hasiko dira ikasleak.

Gure ikasleen garapen integrala lortzeko helburuari erreparatuta, Batxilergoaren amaieran irteera-profilean ezarritako konpetentziak eta etaparen helburu orokorrak izango dira oinarrizko erreferentzia. Konpetentzia horien deskriptoreak izan dira arloaren konpetentzia espezifikoak definitzeko erreferentzia-esparrua. Aukerako irakasgai honek funtsezko konpetentziak garatzen laguntzen badu ere, ekarpen garrantzitsuena konpetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoari eta herritartasunerako konpetentziari egiten die.

Heziketa Fisikoaren arloko konpetentzia espezifikoek konpetentzia motorrak biltzen dituzte, baita jarduera fisikoarekin, aisiarekin eta osasunarekin erlazionatutako etorkizun akademiko, profesional eta pertsonalerako funtsezko alderdiak jaso ere. Esparru motorreko irakaskuntzarekin, jarduera fisikoaren plangintzarekin eta kudeaketarekin, egokitze fisikoarekin eta portaera arduratsuak eta errespetuzkoak garatzearekin zerikusia duten alderdiak jorratzen dira. Ekintza motorraren bitartez eta jarduera fisikoarekin, aisiarekin eta osasunarekin erlazionatutako ezagutza, trebetasun eta jarreren bidez, kooperatzen ikasten dugu, gure mugak eta aukerak eta besteenak ezagutzen, erronkak ebazteko talde gisa lan egin behar dugun egoerei aurre egiten eta ohitura osasungarriak hartzen, besteak beste.

Curriculumaren antolaketa-proposamen berrian eta elementuetan, funtsezko elementuak konpetentzia espezifikoak dira, eta, batez ere, ebaluazio-irizpideak; izan ere, horiek dira praktikatik hurbilen dagoen tresna eta konpetentzia espezifikoak eta, beraz, irteera-profila eskuratzeko eta garatzeko graduazioa eskaintzen duena. Oinarrizko jakintzak, ikuspegi berri horretan, haien presentzia justifikatzen duten ba-

liabideak dira, ezinbestekoak baitira konpetentziak eta irizpideak garatzeko. Irakasgai honetan 5 multzotan antolatzen dira oinarrizko jakintzak, eta multzo horiek testuinguru desberdinetan garatu beharko dira, izaera praktiko eta inklusiboagatik nabarmenduko diren askotariko ikas-egoerak sor daitezen.

Kontuan harturik mekanismo kognitibo guztiak motrizitatean oinarritzen direla eta mugimenduak ezagutza berriak eskuratzen, ikaskuntza berrien aurrean motibatzen eta kontzentratzen laguntzen duela, irakasgai hau agertoki ezin hobea da kulturetatik ikasteko, gure biologia hobeto ezagutzeko, harremanak izaten ikasteko eta gure historia ezagutzeko… Horrek erraztu egiten du loturak ezartzea eta beste ikasgai batzuekin konbergentziak sortzea, ikaskuntzaren ikuspegi holistikoa eskaini ahal izateko, gure errealitate konplexu eta interkonektatuarekin bat.

Adierazi beharra dago egoera motorren bidez ingurune fisiko, sozial eta kulturalarekiko interakzioen unibertso bat azaltzen diegula gure ikasleei, haien garapenerako funtsezkoa. Gainera, nork bere burua eta besteak ezagutzeko aukera ematen diegu, harreman, emozio, erabaki eta sorkuntzen unibertso aberasgarria sustatuz.

Azkenik, jakintzagaiaren eduki kontzeptual handiak ez gaitu ikasgelan lan teoriko gehiegi egitera eraman behar. Beraz, praktika motorraren denborak nagusi izan behar du eduki teorikoak modu praktikoan eta metodologia aktiboak erabiliz garatzea helburu duen irakasgai honetan.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Gaur egungo gizartean aisia eta jarduera fisikoa ulertzeko moduak analizatzea, bizi-kalitatean dituzten ondorioekin erlazionatuz eta ohitura osasungarrien funtsezko alderdiak identifikatuz, bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duen bizimodu aktiboa eta osasungarria hartzeko beharrarekin konprometitzeko.

Aisia sedentarioaren gehiegizko eskaintzak eta nerabeen pantailen aurreko gehiegizko egonaldiari eta beste ohitura negatibo batzuei buruzko hausnarketak gure gizarteak aisiari buruz duen ideiaren analisi kritikoa eskatzen digute. Ikasleen ingurune hurbileko aisia-eskaintza eta jarduera fisikoarekin erlazionatutako esperientzia positiboak ezagutuz gero, aukera gehiago izango dituzte beren astialdia bizi-kalitatea areagotzen lagunduko dieten aisia-proposamen aktibo eta osasungarriekin betetzeko.

Ikasleak aisia osasungarriko jardueretan parte hartzea baldintzatzen duten elementu guztiez jabetzen direnean eta beren bizi-ohiturak, interesak, helburu pertsonalak eta aukerak kontuan hartzeko gai direnean eskuratzen dute konpetentzia espezifiko hau. Horretarako, garrantzitsua da gure erkidegoko kirol-jarduera fisikoaren antolaketa-egitura ezagutzea eta analizatzea, baita kirol-elkarte bat sortzeko prozedura ere.

Konpetentzia honi hel dakioke parte-hartze aktibotik, elikadura osasungarritik, lehen sorospenetatik, jarrera-hezkuntzatik, gorputzaren zaintzatik, autokontzeptutik, autoestimutik, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan hautemandako iruditik edo eguneroko testuinguruetan eta/edo kirolarekin eta jarduera fisikoarekin lotutako egoeretan gertatzen diren portaera antisozialen eta osasunerako ohitura txarren azterketatik, besteak beste.

Konpetentzia espezifiko hau Batxilergoko funtsezko konpetentzien deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, STEM5, KPSII1.2, HK1 eta HK3.

2. Askotariko barne- eta kanpo-logikako egoera motorretan moldatzea, norberaren eta besteen esku-hartzea baloratuz eta berregokituz, ekintza-plan indibidual eta kolektibo landuak modu autonomoan sortzeko.

Gure ikasleak akzio-dominio guztien eraginpean jarriz eta, gainera, kirol-jokoen lau arlo handiak kontuan hartuz (ia jokoak, joko tradizionalak, ia kirolak eta kirolak), konpetentzia honek jokabide motorra lantzeko

aukera ugari eskaintzen ditu. Egoera psikomotor eta soziomotorren bidez sortuko diren esperientziak eta ikaskuntzak honako hauek izango dituzte ardatz: energia-iturriak dosifikatzea, norberaren gorputza ezagutzea, erabakiak hartzea, gainerakoen gorputz-zeinuak deskodetzea, aurkaria gainditzeko estrategikoki jardutea, jokabide motor solidarioak sortzea… Eta gorputz-adierazpeneko jardueren bidez, egoera artistiko-espresiboetan era motorrean adierazteko gaitasuna ere garatuko dugu, eta ohiko motrizitatea motrizitate sinboliko eta espresibo bihurtuko dugu.

Konpetentzia honi esker, ikasleek aurrera egin dezakete akzio-dominio bakoitzean gero eta konplexuagoak eta doituagoak diren akzio-planak lantzen, eta gai izan daitezke beren eta besteen jarduketari buruz hausnartzeko, beren ikaskuntza-prozesuaz jabetuz eta jomuga berriak ezarriz ahulezien, indarguneen eta hobetzeko aukeren arabera.

Aukera ematen digu, halaber, ikasleen mugimendu-premia asetzeko, bizitza aktiboa eta osasungarria sustatzeko eta ezagutza motorra areagotzeko. Gainera, ikasleak konpromiso motorreko une gehiagotan jartzeak garun-aktibazioaren maila handitzea ahalbidetuko du, eta, era horretan, ikaskuntzen eraginkortasuna hobetuko da eta emaitza positiboak lortuko dira beste irakasgai batzuetan.

Konpetentzia espezifiko hau Batxilergoko funtsezko konpetentzien deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, KE1, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.2, HK1, HK4, KAKK3.2, KAKK4.1 eta KAKK4.2.

3. Esparru motorreko esku-hartze didaktikoak diseinatzea, aplikatzea eta ebaluatzea, esku-hartzearen xede diren pertsonen ezaugarrien eta premien analisitik abiatuta, irakatsi eta ikasteko prozesu motorraren funtsezko elementuekin ohitzeko.

Konpetentzia honek proposatutako premia eta helburuetara egokitutako irakatsi eta ikasteko prozesuak proposatzeko gaitasuna hartzen du aintzat. Irakaslearen eta/edo monitorearen rolean jartzean datza, saio eta sekuentzia didaktiko errazak diseinatzeko eta gauzatzeko behar diren kontzeptuak eta tresnak bereganatze aldera.

Egoera motor bakoitzaren barne-logika ulertzeak espero diren eragin pedagogikoak ezagutzea ahalbidetzen du, eta ezarritako helburuak lortzeko zeregin motor egokienak hautatzeko aukera ematen digu. Gainera, hautatutako praktiken ezaugarri estrukturalak ezagututa, haien barneko eta kanpoko logikaren alderdiak alda ditzakegu, proposatutako zereginak planteatutako premia eta helburuetara egokitzeko.

Konpetentzia espezifiko hau Batxilergoko funtsezko konpetentzien deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, STEM2, KPSII1.2, KPSII5 eta EK3.

4. Egoera fisikoa planifikatzea eta kudeatzea, entrenamendu-legeak eta -printzipioak aplikatuz eta jarduera fisikoarekin erlazionatutako lanbideetan edo ikasketetan sartzeko proba fisikoak analizatuz, norberaren edo hirugarrenen baldintza- eta koordinazio-gaitasun fisikoak eraginkortasunez garatzen laguntzeko.

Konpetentzia hau osasunera bideratutako egoera fisikoaren hobekuntzarekin erlazionatutako osagaien entrenamendu-sistemen ezagutzatik eta bizipenetik jorra daiteke: erresistentzia kardiobaskularra edo erresistentzia aerobikoa, indar muskularra eta malgutasuna, batez ere. Jarduera fisiko guztiek ez dute zertan osasungarriak izan. Baldintza jakin batzuk betetzen ez baditu, litekeena da osasunean eragin nabarmenik ez izatea. Gainera, jarduera fisikoa gizabanakoaren gaitasun-mailara egokituta ez badago, osasunean eragin negatiboren bat ere izan lezake.

Plangintza eraginkorra izateko, protagonistek entrenamenduaren legeak eta printzipioak aplikatu behar dituzte, aldagaiak behar bezala eta pixkanaka konbinatzeko, eta, hartara, gaitasunen hasierako ebaluaziotik abiatuta eta helburu jakin baten arabera hobekuntza ahalbidetzeko.

Laburbilduz, konpetentzia honen bitartez gaitasun fisikoak identifikatzeko ahalmena garatzen dugu, eta, etorkizuneko ikasketen edo lanbideen eskakizunen arabera, proba fisikoetan nolabaiteko errendimendua

lortu behar bada, ikasleak gai izango dira denbora, baliabideak, ezagutzak eta praktikak modu autonomoan kudeatzeko, helburua lortzea ahalbidetuko duen plangintza koherente eta eraginkor baten bitartez.

Konpetentzia espezifiko hau Batxilergoko funtsezko konpetentzien deskriptore operatibo hauekin lotzen da: KD3, KPSII1.1, KPSII1.2, EK1 eta EK3.

5. Portaera arduratsuak eta errespetuzkoak garatzea, giro positiboa, espiritu ekintzailea, sormena, autonomia, ekimen pertsonala, talde-lana eta zentzu kritikoa bultzatuz, gizarteratze emankorra ahalbidetuko duten balioak eta jarrerak sustatzeko eta ondasun naturalak eta soziokulturalak kontserbatzeko.

Konpetentzia honek gure ikasleen dimentsio afektiboa eta erlazionala besteekiko interakzioan jorratzeko aukera ematen digu, eta ingurunearekiko harreman ekoiraunkorra azpimarratzea ahalbidetzen du. Egoera soziomotorren bidez gizarte-dimentsioa lantzeak aukera ugari ematen ditu ikasleen arteko harremanak lantzeko eta konplizitateen, babesen eta kooperazioaren balioa agerian jartzeko. Gainera, praktika motorrak aproposak dira gatazkei aurrea hartzeko eta gatazken kudeaketa dialogikoa lantzeko, ikasleek elkar ezagutzeko, zaintzeko eta elkarrekiko konfiantza izateko. Horrek guztiak ikasgelan giro positiboa sortzen laguntzen du.

Ikasleen hurbileko testuinguru ludikoetan lan egiteak aukera ematen du oinarrizko gizarte-trebetasunak, komunikazio eraginkorrerako gaitasuna, errespetua eta ongizaterako eta gizarteratze emankorrerako beharrezkoak diren jarrera prosozialak eta asertibitatea probatzeko. Praktika motorren eta irakasleak ikasleekin duen interakzioaren balio emergenteek tresna ona eskaintzen dute jarrerak eta balio positiboak transmititzeko.

Konpetentzia espezifiko hau Batxilergoko funtsezko konpetentzien deskriptore operatibo hauekin lotzen da: HKK5, KE1, STEM5, KPSII2, KPSII3.1, HK2, HK3 eta HK4.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Jarduera fisikoek ongizate fisiko, afektibo eta sozial-erlazionalerako eskaintzen dizkiguten ekarpenak baloratzea eta esperimentatzea, aisialdiaren antolaketan kontuan hartuz.
1.2. Jarduera fisikoaren gizarte-eskaintza analizatzea eta baloratzea, aisiaren, osasunaren eta bizi-kalitatearen kontzeptuei buruz hausnartuz eta jarrera kritikoa erakutsiz jarduera fisikoak eta kirolak gaur egungo gizartean duten tratamenduaren aurrean.
1.3. Ikastetxean jarduera fisikoa antolatzen eta sustatzen parte hartzea, kirol- eta/edo jolas-ekitaldi baten antolaketaren elementuak analizatuz eta eskubide- eta aukera-berdintasun eraginkorra esplizituki sustatuz.
1.4. Kirol-erakunde baten sorkuntza, antolaketa eta funtzionamendua ulertzea, ingurune hurbileko kirol-elkarteak analizatuz.
1.5. Jarduera fisikoarekin erlazionatutako lesioak sendatzeko neurri espezifikoak ezagutzea eta modu arduratsu eta autonomoan aplikatzea, baita lehen sorospenak aplikatzea ere, lehen eta bigarren mailako balorazio-protokoloak barneratuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Jarduera artistiko-espresiboen, jokoen eta kirolen sorta zabal batean aktiboki parte hartzea, egindako esku-hartzea baloratuz eta hobekuntza-proposamenak planteatuz.
2.2. Akzio-plan landuak modu autonomoan sortzea, zeregin motorraren eskakizunak eta parte-hartzaileen ezaugarriak eta inguruabarrak analizatuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Egoera motorrak haien barne- eta kanpo-logikatik analizatzea, zeregin motorrak hautatuz eta aldatuz eta esku-hartze didaktikoaren premietara egokituz.
3.2. Sekuentzia didaktiko motorrak diseinatzea eta zuzentzea, esku hartzeko estrategiak eta estiloak baloratuz eta prozesua eta emaitzak ebaluatuz.

Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Giza gorputzaren egitura eta funtzionamendua identifikatzea eta ulertzea, organismoa ariketa fisikora egokitzeko oinarrizko fenomenoak eta elikadura osasungarriaren garrantzia analizatuz.
4.2. Ezaugarri eta premia pertsonaletara egokitutako eta egoera fisikoaren aldez aurreko analisian oinarritutako egokitze fisikorako oinarrizko programa bat diseinatzea eta gauzatzea.
4.3. Jarduera fisikoarekin erlazionatutako irtenbide akademiko eta profesional posibleak baloratzea, sarbide-betekizunak, ibilbideak eta lanbide-garapeneko esparruak analizatuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Bizikidetzako balioak eta jarrerak sustatzea, ikasgelako eta ikastetxeko giro onaren mesedetan, autonomia, ekimen pertsonala eta zentzu kritikoa erakutsiz.
5.2. Natura- eta hiri-ingurunearen kontserbazioan laguntzea, praktika motorrek sor dezaketen ingurumen-inpaktua minimizatuz eta jarrera ekoarduratsua erakutsiz.
5.3. Material autoeraikiak sortzea eta erabiltzea, ingurunearen ikuspegi ekoiraunkor eta komunitario batetik jardunez.
5.4. Planteatutako dinamika eta jardueretan aktiboki parte hartzea, emozioak eta gizarte-harremanak behar bezala kudeatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna
A. Jarduera fisikoa eta osasuna.
Oinarrizko kontzeptuen analisia: jarduera fisikoa, ariketa fisikoa, egoera fisikoa, osasuna eta bizi-kalitatea.
Bizi-kalitatearen kontzeptuaren bilakaera.
Ariketa fisikoa erregulartasunez egiteak sasoiaren eta osasunaren gainean dituen ondorio positiboak eta arriskuak.
Lehen sorospenetako oinarrizko maniobrak egiteko eta jarduteko oinarrizko irizpideen aplikazioa: lehen eta bigarren mailako balorazioa.
Jarduera fisikoarekin erlazionatutako lesioak sendatzeko jarraibideak.
Jarrera, erlaxazioa eta arnasketa bezalako ohitura osasungarriekin erlazionatutako jarduerak.
Mugikortasun iraunkorra.
B. Egokitze fisikoa
Ariketa fisikoaren anatomia eta fisiologia.
Organismoa ariketa fisikora egokitzeko oinarrizko fenomenoak.
Entrenamendua erregulatzen duten printzipioak eta legeak.
Oinarrizko baldintza- eta koordinazio-gaitasun fisikoak.
Gaitasun fisikoak entrenatzeko sistemak.
Entrenamenduaren diseinua.
Egoera fisikoaren ebaluazioa proba objektiboen bidez.
Premia pertsonaletara egokitutako egokitze fisikorako programa baten diseinua.
Elikadura-ohiturei buruzko analisia eta hausnarketa, eta elikadura orekatura zuzendutako jarduera fisikoaren araberako dieten diseinua.
C. Ludomotrizitatea
Egoera psikomotorrak.
Oposizioko, kooperazioko eta oposizio-kolaborazioko egoera soziomotorrak.
Ziurgabetasuna duen inguruneko egoera motorrak.

Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna
Jarduera fisiko artistiko-espresiboak.
Ia jokoak, kirolak, joko tradizionalak eta egoera didaktikoak.
Balio indibidualak, sozialak eta ingurumenekoak: joko garbia, talde-lana, norberaren gaineko konfiantza, arauekiko errespetua, parte-hartze demokratikoa, autonomia eta ekimen pertsonala, aniztasunarekiko errespetua, jokabide iraunkorrak eta ekologikoak.
Esfortzuaren eta hobetzeko grinaren aurreko erresilientzia eta jarrera positiboa.
D. Jarduera fisikoaren irakaskuntza, plangintza eta kudeaketa
Kirol-jarduera fisikoen plangintza eta antolaketa.
Heziketa fisikoarekin erlazionatutako akzio motorraren zientziaren oinarrizko kontzeptuak.
Heziketa fisikoa: bilakaera historikoa, xedeak eta gaur egungo ikuspegiak.
Saio eta sekuentzia didaktiko errazen diseinua: helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa.
Jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruko ikasketak eta irtenbide profesionalak eta sarbide-proba fisikoak.
E. Jarduera fisikoa eta kirola aisiaren gizartean.
Aisia eta astialdia: jarduera fisikoa gizartean.
Kirola gaur egungo gizartean: kontzeptua, bilakaera eta adierazpideak (ikuskizun-kirola, lehiakorra, hezigarria, egokitua, jolas modukoa…).
Kirol-erakundeak eta -instituzioak: Kirol Kontseilu Gorena, kirol-entitateak: federazioak, klubak, eskolako kirol-elkarteak…
Jarduera jakin batzuen ingurumenaren gaineko inpaktua eta ingurunea zaintzeko jarduketak.
Autoeraikuntza eta materialen birziklatzea.
Gure ingurunean egin daitezkeen kirol edo jarduera fisiko posibleen gizarte-eskaintza.
Euskal unibertso ludikoa: jokoaren eta jolasaren kontzeptuak eta praktiken katalogoa.
Pierre de Coubertinen proiektu pedagogikoa eta gaur egungo olinpiar mugimendua: olinpiar jokoen bilakaera.

KULTURA ZIENTIFIKOA

Batxilergoko 1. mailako Kultura Zientifikoa jakintzagaiaren helburu nagusia da jakintzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratzea, gai zientifiko-teknologikoei buruzko erabaki hausnartuak eta oinarrituak hartzeko, ebidentzia zientifikoen emaitzetara hurbilduz. Ebidentzia horiek hainbat gai zientifikoren azterketaren oinarri dira eta herritar gisa parte hartzea sustatzen dute, Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIH) aldeko ikaskuntza sustatzeko.

Irakasgai honek gai desberdinei lotutako gure garaiko galdera edo arazo nagusiei modu integratuan heltzeko aukera ematen digu. Horrela, ikaskuntza esanguratsuagoa lortzen, eta ikasleek zientziarekiko duten interesa, motibazioa eta jakin-mina areagotzen laguntzen digu. Kultura zientifikoa ulertzeko moduari buruzko galderak egiten dira eta zientzia eta teknologia gaiei buruzko galderak erantzun, hezkuntza zientifiko baliagarria garatu nahi badugu jakintzaren gizarte honetan. Hori egiteko, zientzia, teknologia eta gizarteari buruzko ikerketen egungo testuinguruak hartzen ditugu kontuan.

Bestalde, zientziaren komunikazioak leku nabarmena du arautu gabeko hezkuntza-zirkuituetan. Adibidez, komunikabideek sarritan informazio zientifikoa ematen du, kasu batzuetan dibulgazio esplizitu baten ondorioz edo, normalean, potentzialtasun zientifiko-teknologikoek edo istripu teknologikoek edo ingurumenari lotutakoek eragindako gizarte-eztabaida gisa. Gainera, gure bizitzan zehar hartu behar ditugun hamaika erabaki zientziarekin lotuta daude; horregatik, gero eta garrantzitsuagoa da kultura zientifikoa izatea. Azken batean, hautazko irakasgai honek hezkuntza zientifikoa eta teknologikoa ahalik eta gehien aberastu nahi du, eta esparru formaletan zein ez-formaletan hedatzen da, gizarte-mailan esanguratsua izan dadin.

"Kultura Zientifikoa" curriculumaren garapenak batxilergorako definitu diren etapa-helburuak eta funtsezko konpetentziak garatzen laguntzen du. Bi elementu horiek konpetentzia espezifikoetan eta etapa amaitzean aurreikusitako funtsezko konpetentzien eskuratze-mailaren deskriptore operatiboetan zehazten dira. Oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak dira jakintzagaiaren berezko edukiak eta jarduera-mailak zehazten dituzten curriculumaren beste bi elementuak.

Hona hemen, laburbilduta, sei konpetentzia espezifikoak: zientziaren gaitasun potentziala eta mugak baloratzea eta balioestea; beharrak eta aurrerapenak kritikoki aztertzea; komunikatzeko abileziak eta trebetasunak garatzea; ezagutza zientifikoak gizarteari egiten dizkion ekarpenak aitortzea; lan zientifikoaren berezko jarrerak erakustea; eta, azkenik, Euskal Herriko zientziaren ekimenak eta protagonistak ezagutzea.

Irakasgai honetako oinarrizko jakintzei dagokienez, sei multzotan egituratzen dira, irakasleek zientziaren aurrerapenean beharrezkoak diren edo sor daitezkeen jakintzak barneratzeko nahikoa irekiak.

– Lehenengo multzoa: "**Zer jaten dugu?**" Gai hauek jorratzen ditu: elikagaiak, arlo horretan gertatu diren aldaketak eta aurrerapenak, anabolizatzaileekin, kontserbatzaileekin eta gehigarriekin lotutako eztabaidak, eta elikagai sintetiko berriak.

– Bigarren multzoan, "**Zahartzea**" izenekoan, zelulen birprogramazioarekin, menopausiarekin eta zahartze osasungarriarekin lotutako edukiak garatzen dira, besteak beste.

– Hirugarren multzoak, "**Ingeniaritza genetikoa**" izenekoak, geneen manipulazioa, alor horretan izandako aurrerapenak eta egungo eta etorkizuneko gizarte-ondorioak ditu hizpide.

– Laugarren multzoak, "**Osasuna eta medikamentuak**" izenekoak, farmakologiaren, biomedikuntzaren eta bioetikaren artean dauden erlazioak jorratzen ditu.

– Bosgarren multzoak, "**Mundu iraunkorragoa**" izenekoak, zientzia-arloko albisteak, gaiak eta ekimenak komunikatzeko, zabaltzeko eta hedatzeko estrategiak garatzera bideratutako jakintzak biltzen ditu, GIHei erantzuteko.

– Seigarren multzoak, "**Erronka zientifikoak eta etorkizunerako lehentasunak**" izenekoak, iraultza zientifiko berriei, aurkikuntzei, aurrerapenei eta horiek gizartean duten eraginari buruzko gaiak jorratzen ditu.

Ondorioz, irakasgai hau garatuta, ibilbide akademiko diferenteak izan dituzten ikasleek eguneroko bizitzetan erabilgarriak diren eduki zientifikoak barneratzen dituzte, eta eduki horiek erabakiak herritar gisa hartzeko aukera ematen diete. Horiek beren ingurune hurbilenetan (familiakoak, eskolakoak, komunitarioak, etab.) azaleratzen diren alderdi sozial eta lokaletan, gaietan eta arazoetan zentratu daitezke, eta arazo globalei —planeta osoari dagozkion gaiei— ere arreta eman diezaiekete, hala nola ingurumenari, industria-hazkundearen mugei, biosanitarioei eta abarri lotutakoei. Azkenik, zientzia eta ingeniaritza anitzen izaera eta irismena ezagutzera ematen da, zientziari eta teknologiari lotutako irteera profesional desberdinekiko interesa pizteko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zientziaren gaitasun potentziala eta mugak kritikoki baloratzea eta balioestea, ezagutza zientifikoak erabiliz, ongizate pertsonal eta kolektibo handiagoa lortzeko.

Eguzki-sistemako beste planeta batzuetara gailuak bidaltzen ditugu, materiaren osagai txikienak aztertzen ditugu, nanopartikulak, izaki bizidunek maila molekularrean nola funtzionatzen duten ulertzen saiatzeko tresnak ditugu, bakterio sinpleenetatik (mycoplasma) giza espezieraino. Badirudi gure zientziak ez duela mugarik, baina kontua da ikerketa zientifikoak badituela, hala nola muga fisikoak, ekonomikoak, etikoak eta abar. Hala ere, zientzia ezin da mugatu giza jakin-mina mugagabea delako. Gizarteak ideien eztabaida behar du, galderak egin eta horiei erantzun; gainera, mundua ulertzeko beharra giza berezitasunaren funtsezko zati bat da.

Ikasleek, konpetentzia hau garatuz, zientziaren gaitasun potentziala baloratzen dute; horrek berekin dakar hobekuntza, aurrerapena eta horren ondorioak, eragin soziala, ekonomikoa, etikoa eta abar aztertzea, ikuspegi multidimentsional eta integratu batetik, baina bere mugez jabetuta.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM2, STEM4, STEM6, KD5, KPSII2, KPSII5. HK4 eta KAKK1 .

2. Premia sozialen eta garapen zientifiko-teknologikoaren arteko erlazioa kritikoki aztertzea eta ebaluatzea, herritarren informazioa eta parte-hartzea baloratuz, soluzioak bilatzeko eta Garapen Iraunkorreko Helburuen araberako neurriak hartzeko.

Askotariko teknologiek objektuak, tresnak, ekoizpen-bitartekoak, zerbitzuak, espazioak eta inguruneak ekoizteko, aldatzeko eta hobetzeko aukera ematen dute, era askotako premiak asetzeko. Garapen teknologikoarekin handitu egin da —esponentzialki gainera— ezagutza zientifiko berriak lortzeko eta horiek aplikatzeko aukera, produktu gehiago eta hobeak eskaintzeko. Garapen zientifikoak eta teknologikoak garrantzi handia izan du eraldaketa sozial askotan, ez bakarrik bizi-baldintzei dagokienez, baita barne-antolaketan eta balio eta sinesmen partekatuetan ere.

Baina, aurrerapen hori gertatu den aldi berean, handitu egin dira desberdintasunak aberastasunaren ekoizpenari eta banaketari dagokienez. Garapen teknologikoak aldaketa kultural eta etiko sakonak ere ekarri ditu, paisaiaren konfigurazioan eragin du, planetako baliabide naturalak agortzeko aukera hurbildu du eta nahi ez diren ondorio kaltegarriak eragin ditu ingurumenean.

Konpetentzia espezifiko horrek gaitasuna ematen die ikasleei zientziaren eta teknologiaren eginkizunari buruzko iritzi pertsonal eta kritikoa emateko, eta gizateria osoari eragiten dioten arazoak konpontzen lagundu dezaketen jardueretan parte hartzeko (eztanda demografikoa, herrien garapen desberdina, baliabideak agortzea, atmosferaren berokuntza, biodibertsitate-galerak, etab.); baldin eta jarduera horiek interes kolektiboen zerbitzura jartzen badira eta koherenteak badira Garapen Iraunkorreko Helburuekin.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM2, STEM4, STEM5, STEM6, KD5, KPSII2, HK4 eta EK1.

3. Komunikazio-abileziak eta -trebetasunak garatzea dibulgazio zientifikoaren berezko tresna eta instrumentuen bidez, zientzia komunitatera hurbiltzeko.

Gaur inoiz baino nabarmenagoa da komunikazio zientifikoak gizartean duen garrantzia eta eragina. Ezagutza berriak zabaltzeko modua eta komunikazio horren eragile arduradunak erabakigarriak dira zientziari eta teknologiari buruzko iritzi eta jarrera publikoak eratzeko.

Dibulgazio zientifikoaren helburua ezagutza transmititzea da, jarduera zientifikoari balioa emanez; hori lortzeko, hainbat elementu hartu behar dira kontuan: egindako jarduerak, hartzailea eta komunikazio-kanalak.

Zientzia zabaltzeko hainbat jarduera daude, ikasleek beren ingurunean egin ditzaketenak, hala nola mahai-inguruak; esperientziak sortzea jarduera interaktibo presentzialen bidez (laborategietan, instalazio zientifikoetan, bisitetan, txangoetan…); eskola-lehiaketak deitzea; edo dibulgazio-ikuskizunetan, zientzia-bakarrizketetan, ekimenetan, kafe-solasaldietan parte hartzea. Beste jarduera mota batzuk ere plantea daitezke, hala nola dibulgazio-artikuluak idaztea, erakusketak antolatzea, podcast-a egitea edo sare sozialetan parte hartzea.

Konpetentzia honetan, eduki zientifikoak zabaltzeak esan nahi du ikasleek estrategia espezifikoak eta komunikazioaren berezko trebetasunak garatu behar dituztela, eta, horretarako, tresna egokiak erabili behar dituztela zientzia herritarrengana hurbiltzeko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM6, KD2 eta KPSII5.

4. Ezagutza zientifikoak giza pentsamenduari egindako ekarpenak aitortzea, gizateriaren historia eta bere bizi-baldintzak markatu dituzten eztabaida eta iraultza handiak aintzat hartuz, zientzia etengabeko aldaketan eta eboluzioan dagoen —non gizonek eta emakumeek parte hartzen duten— eraikuntza kolektibo gisa baloratzeko.

Historian zehar, iraultza eta eztabaida handiak izan dira —gizateria eta haren bizi-baldintzak markatu dituztenak—, eta ekarpen zientifikoek zeregin handia izan dute horietan. Garapen zientifikoak ezagutza liluragarriak eragin ditu. Ezagutza horiek bizitzaren eta unibertsoaren, iraganaren eta eboluzioaren, eta, beharbada, balizko etorkizunaren ikuspegia zabaldu dute.

Erlatibista, kuantikoa, genomikoa eta wegeneriarra bezalako iraultzek gizartean oihartzun handia izan duten eta gizartean eztabaida berriak sortu dituzten aurkikuntza berriak eman dituzte. Honako hauek bezalako aurkikuntzak: unibertsoaren hedapenaren ebidentziak, pultsareak eta kuasarrak, zulo beltzak, exoplanetak, materia eta energia ilunak, goi-energien fisika, plaken tektonika, ingeniaritza genetikoa...; horiek aldaketa iraultzaileak ekarri dituzte zientzian eta gure mundu-ikuskeran, eta aldaketek gizateriaren aurrerapenari lagundu diote.

Konpetentzia honetan, trebetasunak garatzen inplikatzen dira ikasleak bizi diren mundu konplexua ulertzeko, gizateriaren historia eta haren bizi-baldintzak markatu dituzten eztabaida handiak eta iraultzak balioesteko, horietan zientzia eta parte-hartzea funtsezkoak baitira.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: KE3, STEM4, STEM5, STEM6, KPSII1.2, HK1, HK3, EK1 eta KAKK1.

5. Lan zientifikoaren berezko jarrerak erakustea, hala nola informazioa kritikoki bilatzea eta baloratzea, deskribatutako gertaerak egiaztatu eta kontrastatzea eta talde-lana, metodologia zientifikoarekin koherenteak diren arauak erabiliz (zorroztasuna, objektibotasuna) mezu, azalpen eta argudio zientifikoak sortzeko.

Informazio ugari izatea —batez ere sarean— ezaugarri duen aro batean gaude. Horren ondorioz, lan zientifikoan garrantzitsuena ez da informazioa bilatzea soilik, baizik eta eduki fidagarria eta egiazkoa iragazteko gaitasuna izatea, zientziarekin lotutako galderei eta problemei heltzeko.

Konpetentzia hori garatzeak informazioa modu egokian erabiltzeko gaitasuna ematen die ikasleei, hainbat iturri eta testu zientifikotako informazioak kontrastatuz, ezagutzan oinarritutako erabaki egokiak hartzeko, bai banaka, bai taldean.

Ezinbestekoa da ikasleek testu edo artikulu zientifikoan deskribatutako gertakariak edo ideiak aztertu, egiaztatu eta kontrastatzeko beharra onartzea, ezagutza edo ideia berriak eskuratzeko. Metodologia zientifikoak prozesu hori testu, azalpen edo argudio zientifikoak sortzeko behar besteko zorroztasunez eta objektibotasunez egitea errazten du.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KE2, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KPSII3.2, KPSII4 eta EK1.

6. Euskal Herrian garatzen diren zientzia-ekimenak ezagutzea, protagonisten zeregina baloratuz, ikasleen eta ikertzaileen, unibertsitateen eta zientzia-jarduera gauzatzen den zentroen arteko kolaborazioa eta zabalkundea sustatzeko.

Unibertsitateetako ikerketa-egiturek eta gainerako ikerketa-zentroek funtsezko eginkizuna dute ezagutza zientifikoa sortzeko eta Euskal Herrirako interes zientifikoa duten ekimenak garatzeko. Ikasleek zentro horietan egiten diren jarduerak ezagutzeak zientziarekiko interesa eta motibazioa pizten ditu. Gainera, ikaskuntza berriak barne hartzeko aukera izango dute, ekimen horiek euren ingurunean zabaltzen —txostenen, aurkezpen digitalen eta abarren bidez— parte hartzen duten eta kolaboratzen duten heinean.

Garrantzitsua da ikasleek ikertzaileen lana ezagutzea eta balioestea, zientziarekiko eta zientziarako interesa sustatzeko eta, aldi berean, azterketa zientifikoak sustatzeko. Zientzialariak ikasgelara hurbilduz, zientziaren irudia hobetzen da, ikerketarekiko eta bere ikaskuntzarekiko jarrera kritiko positiboak sortuz.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, STEM4, STEM6, KD1, HK2, EK1 eta KAKK2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Kultura Zientifikoa
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Zientziaren aurrerapenak eta hobekuntzak ezagutzea, gizartean, ekonomian, ingurumenean eta abar dituen ondorioak baloratuz.
1.2. Ezagutzak, trebetasunak eta jarrera zientifikoak hainbat testuingurutan (osasuna, aurrerapen teknologikoak, zahartzea…) erabiltzea, zientziaren potentziala eta mugak balioetsiz eta baloratuz.
1.3. Ekarpen zientifiko-teknologikoak eta horiek ongizate pertsonal eta kolektiboan duten eragina aztertzea, zientziaren indarguneak eta mugak baloratuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Gizarte-beharrak (elikadura-iraultza, material berriak...) eta garapen zientifiko-teknologikoaren ekarpenak erlazionatzea, horien abantailak eta desabantailak ikuspegi zientifikotik baloratuz.
2.2. Ikasleengandik hurbil dauden eta GIHekin bat datozen gizarte-arazoei (kontsumo arduratsua, osasuna eta ongizatea, klimaren aldeko ekintza...) soluzioak bilatzea, premia soziala eta garapen zientifiko-teknologikoa kritikoki ebaluatuz.
2.3. XXI. mendeko erronkekin bat datozen ekintza osasungarriak eta iraunkorrak planteatu eta sustatzea, ezagutza zientifikoak erabiliz eta hezkuntza-komunitatearen ekarpenak kontuan hartuz.
2.4. Informazio- eta komunikazio-tresna batzuen gizarte-ondorioak eta erabilgarritasuna ezagutzea, horiek kontsumo-ohituretan eta gizarte-harremanetan duten eragina aztertuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Zientzia herritarrengana hurbiltzea, komunikazio-trebetasunak eta -abileziak, baliabideak eta zientzia-dibulgaziorako tresnak (digitalak, ikus-entzunezkoak, ahozkoak, idatzizkoak) erabiliz, zein publikori zuzenduta dagoen kontuan hartuta.
3.2. Albiste edo ikerketa zientifikoak (pandemia, medikamentuak, genetika, elikadura…) erraztasunez identifikatzea, egiazkotasuna eta fidagarritasun zientifikoa ematen dioten elementuak bereiziz.
3.3. Jakintzagaiaren jakintzekin lotutako berriak edo ikerketa-proiektuak jakinaraztea, arrazoibide zientifikoa erabiliz.
3.4. Testu zientifikoak edo iturri zientifiko-grafikoak aztertzea, horien zorroztasuna eta fidagarritasuna zein edukia kritikoki balioetsiz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Zientzia eta bertan parte hartzen duten pertsonak baloratzea, ezagutza zientifikoak giza pentsamenduari egiten dizkion ekarpenak aitortuz.
4.2. Historia eta bizi-baldintzak markatu dituzten eztabaida nagusiak eta iraultzak aztertzea, zientziaren ekarpenak baloratuz.
4.3. Gizartearen arazo, eztabaida eta iraultza nagusiei buruz eztabaidatzea, testu eta diskurtso zientifikoen azterketa kritikotik abiatuz.
4.4. Zientzia etengabe aldatzen ari den eraikuntza kolektiboa dela ulertzea eta argudiatzea, emakumeek zein gizonek gizateriaren aurrerabidean duten parte-hartzea balioetsiz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Mezu, azalpen eta argudiaketa zientifikoak sortzea, lan zientifikoarekin koherenteak diren arauak erabiliz (objektibotasuna, zorroztasuna, etab.).
5.2. Eztabaida edo jarduera zientifikoak (genetika, erronka zientifikoak, ohiturak, osasuna…) planifikatzea eta horietan parte hartzea, norberaren ideiak partekatuz eta defendatuz eta talde osoarenak errespetatuz.
5.3. Gertaera zientifikoak (zulo beltzak, pandemia, transgenikoak…) aztertzea, erabilitako iturrien fidagarritasuna banaka edo taldean egiaztatuz, eta zientziarekiko jarrera kritikoa eta positiboa erakutsiz.

Kultura Zientifikoa
5.4. Taldean lan egitea, beharrezkoa denean, zereginetan kooperazio, kolaborazio eta parte-hartze arduratsuko jarrerak erakutsiz, rolak asumituz eta desberdintasunak errespetuz eta tolerantziaz onartuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Hezkuntza- edo zientzia-esparru diferentetan kolaborazioak proposatzea, Euskal Herrian garatzen diren ekimenak balioetsiz.
6.2. Unibertsitateek eta ikerketa-zentroek garatzen dituzten jarduera eta ekimen zientifikoak hezkuntza-komunitatean zabaltzea, txostenak, aurkezpenak... sortuz, hainbat formatutan.
6.3. Zientzian diharduten pertsonek betetzen duten zeregina baloratzea, hainbat arlotan haiek egindako ikerketak, dibulgazioak eta ekarpen zientifikoak aztertuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Kultura Zientifikoa
ZER JATEN DUGU?
Elikagai funtzionalak: Omega 3, bifidus, lactobacillus…
Proteina artifizialak.
Elikagai transgenikoak.
Elikagaien kontserbatzaileak eta gehigarriak: alde onak eta txarrak.
Esteroide anabolizatzaileak.
Elikadura-iraultza: elikagai berriak, 3D inprimaketa edo gastronomia zientifikoa.
ZAHARTZEA
Zelulen birprogramazioa.
Menopausia.
Telomeroak, zahartzea eta minbizia.
Neuronak.
Zahartze osasungarria. Gehiago eta hobeto bizi?
INGENIARITZA GENETIKOA
Genetika: edizio genomikoa eta transgenikoak.
Sekuentziazio genoma. Atlas zelularra.
Lagundutako ugalketa-teknikak. Agur gaixotasun genetikoei.
Genoma eta epigenetika.
OSASUNA ETA MEDIKAMENTUAK
Farmakologia: droga, medikamentuak eta eszipientea. Farmakoen dosia eta administrazioa. Generikoak eta patenteak. Koordainketak.
Medikuntza eta etika: baimen informatua. Saiakuntza klinikoak: faseak. Animalia-esperimentazioa. Giza akuria.
Zainketa aringarriak. Bizi-testamentua.
MUNDU JASANGARRIAGO BAT: MUNDU HOBEA?
Ingurumen-hezkuntza. Funtzioak eta helburuak. Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH).
Dibulgazioa eta eztabaida zientifikoak, esparru formaletan eta ez-formaletan.
Ekimen zientifikoak. Herritarrentzako zientzia.

Kultura Zientifikoa
ERRONKA ZIENTIFIKOAK ETA ETORKIZUNERAKO LEHENTASUNAK
Unibertsoa jomugan.
Material berriak.
Nüwa proiektua.

LABORATEGIKO TEKNIKAK

1.imailako jakintzagai hau diziplina praktiko gisa eratuta dago bereziki. 1. Mailako diziplina horretan, zientzien adarretan (Biologian, Fisikan, Geologian eta Kimikan) eskuratutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak laborategian garatuko dira, laneko teknika eta metodologia sistematizatu eta zehatz batzuk aplikatzearen bidez.

Hainbat irakasgaitako edukiak gune komun batean (laborategian) integratzea eta elkarrekin lotzea ahalbidetzen duten diziplinarteko ikerketak, praktikak eta proiektuak egitean oinarritutako metodologia bat da. Gune horrek, aldi berean, bakarkako lanaren zein kolaborazio-lanaren garapena errazten du, eta autonomia ahalbidetzen du laborategiko zereginetan.

Halaber, ikasleak laborategiaren ezagutzarekin, funtzionamenduarekin eta esanahiarekin ohituko dira: laborategiaren egitura fisikoa, instalazioak, altzariak, materialak, aparatuak, produktuak eta antolaketa--eredua (mantentzea, laneko arriskuen prebentzioa, hondakinen kudeaketa eta kalitate-prozedura normalizatuak). Bestalde, egiten den lanaren helburua betetzea ahalbidetzen duten teknikak garatuko dira. Teknika horiek laborategi orotako oinarrizko bi funtzioetan laburbildu daitezke: funtzio analitikoa eta ikerketa-funtzioa.

Funtzio analitikoak analisi kualitatiboa zein kuantitatiboa ahalbidetzen du. Ikerketa-funtzioak, berriz, esperimentazioa ahalbidetzen du, eta produktu eta material berriak ezagutzeko oinarria da. Aldi berean, funtzio analitikoa zein ikerketa-funtzioa elkarrekin lotuta daude, teknika komun batzuk erabiltzen baitituz-te beren helburuak betetzeko. Teknika horiek, fisikan, kimikan, biologian eta geologian ez ezik, zientzien beste adar batzuetan ere aplikatzen dira (Medikuntzan, Farmazian, Albaitaritzan, Ingurumen Zientzietan, Ingeniaritzetan eta abar). Hortaz, laborategia eta hari lotutako teknikak erabilera komunekoak eta zeharkako erabilerakoak dira ezagutza zientifiko-teknologikoaren eremu guztietan, eta konpetentziak eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak garatzen laguntzen dute modu holistiko eta integralean.

Jakintzagaiaren curriculum-diseinua funtsezko zortzi konpetentziatan oinarrituta dago. Konpetentzia horiek jakintzagaiaren berezko konpetentzia espezifikoen bitartez lantzen dira, eta zehaztutako deskriptoreen bidez lotzen dira.

Konpetentzia espezifikoen garapenak ezagutza, trebetasun eta jarrera zientifikoak eskuratzeko gaitasuna ematen die ikasleei. Konpetentzia horiek, nolanahi ere, ez daude bideratuta, besterik gabe, laborategiko teknikak garatzera, beste trebetasun batzuk hobetzera baizik, hala nola ikasleen prestakuntza osoan zeregin garrantzitsua betetzen duten komunikazio-trebetasuna, talde-lana, ekintzailetza-trebetasuna eta trebetasun soziala.

Irakasgai honen konpetentzia-ikaskuntza osatzeko, curriculumak ebaluazio-irizpide batzuk ditu. Konpetentzia espezifikoekin zuzenean lotuta daudenez gero, ebaluazio-irizpideek ikasleen aurrerapena ebaluatzen dute modu esanguratsuan, eta problemak ebazteko (ikaskuntzaren funtsezko elementu gisa) estrategiak eta tresnak eskuratzera bideratuta daude.

Konpetentzia espezifikoak garatzeko, oinarrizko jakintzen sei multzo daude. Jakintza horiek aurreko etapetako irakaspenak laborategiko ingurunean lotzera eta osatzera bideratuta daude, ikasleek laborategiko tekniketan eta haien aplikazioetan diziplina zientifikoen lan-ildoen pertzepzio orokorra eskuratu ahal izan dezaten.

Irakasgai honen oinarrizko jakintzetan, oinarrizko trebetasun zientifikoak zeharka lantzen dira multzo guztietan.

– Lehen multzoan bildutako oinarrizko jakintzek **oinarrizko laborategia** dute ardatz (instalazioak, materialak eta antolaketa), eta baliabide materialei eta laborategiko antolaketari lotuta daude. Eduki horiek komunak eta ezinbestekoak dira teknikak garatzeko.

– Bigarren multzoa, **saiakuntza fisiko-kimikoei** buruzkoa, konposatuen ezaugarri eta propietate fisikoak zehazten dituzten aldagaiak aztertzean eta neurtzean datza, eta produktuak eta haien izaera kimikoa identifikatzen saiatzea du helburu.

– Hirugarren multzoa **oinarrizko eragiketei eta prozesuei** buruzkoa da, eta, bertan, osagaiak bereizteko eragiketak deskribatzen dira eta produktuak lortzera, ikertzera eta laburbiltzera bideratutako erreakzio kimikoak egiten dira.

– Laugarren multzoa **analisi kimikoari** lotuta dago, eta lagin batean dauden substantzia kimikoak identifikatzea eta kuantifikatzea du xede. Horretarako, analisi kualitatiboak zein kuantitatiboak egiten dira.

– Bosgarren multzoak **analisi instrumentala** du ardatz, eta analisirako metodo instrumentalak garatzen ditu. Metodo horiek, oro har, jakintzagaiarekin zuzenean lotuta dagoen propietate fisiko baten finkapena dute oinarri. Hiru metodo motatan zehazten da nagusiki: metodo elektrikoak, optikoak eta kromatografikoak. Kontuan hartu behar da aparatu espezifikoak behar direla, eta askotan garestiak direla. Hori dela eta, multzo hau laborategiko ekipamenduaren arabera, simulazioen bidez, laborategi birtualekin edo ikerketa dokumental bat eginez garatuko da.

– Azkenik, seigarren multzoa, **saiakuntza mikrobiologiko, biokimiko eta bioteknologikoei** buruzkoa, mikroorganismoak, haien jarduerak, egitura, ugalketa, metabolismoa eta identifikazioa modu esperimentalean behatzeko tekniketan datza. Saiakuntza biokimikoak eta bioteknologikoak analisi klinikora eta elikadura-analisira bideratuta daude funtsean.

Irakasgai honen konpetentzia-izaeraren barruan, oinarrizko jakintzak ikasteko jarduera batzuetan elkartzea proposatzen da, ikasleek beren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak inguruneko egoeretan aplikatu ahal izan ditzaten.

Hautaketa integratu honen bidez, etorkizuneko unibertsitateko ikasleen zein prestakuntza goi-mailako heziketa-zikloetan jarraitzen duten ikasleen ibilbide zientifiko-teknologikoaren eskariei erantzun nahi zaie.

Hori dela eta, Laborategiko Teknikak jakintzagaiak zientzia aplikatuaren izaera du funtsean, eta trebetasunek dute lehentasuna, haien oinarri diren ezagutzek izan ordez. Gainera, irakasgai honen helburua da konpetentzia espezifikoak behar bezala garatzeko aukera ematen duten jarrerak sortzea.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Laborategiko abileziak eta trebetasunak garatzea, prozedura, teknika, material eta tresnarik egokienak doitasunez erabiliz, prozesu fisiko, kimiko, biologiko eta geologikoei lotutako galderei erantzuteko.

Konpetentzia hau garatzeak laborategiaren eta pentsamendu zientifikoaren berezkoak diren eta eguneroko bizitzako egoeretan aplika daitezkeen abileziak eta trebetasunak (hala nola antolatzeko gaitasuna, plangintza, esperimentazioa eta dedukzioa) ematen dizkie ikasleei modu praktikoan, egoerak interpretatzeko eta prozesu fisiko, kimiko, biologiko eta geologikoei lotutako galderei erantzuteko. Prozedurak, materialak eta tresnak modu egokian eta doitasunez erabiltzeak eta prozesu bakoitzerako teknikarik egokiena erabakitzeak metodologia zientifikoak erabiltzeko beharrezkoak diren laborategiko abileziak eta trebetasunak ematen dizkiete ikasleei.

Hortaz, laborategian garatzen diren trebetasunen eta abilezien bidez, gertaerak ulertzea eta ondorioak aurreikustea ahalbidetzen da, araketa zientifiko esperimentalean oinarrituta. Ikerketa hori problemaren

identifikazio eta planteamenduarekin hasi eta haren ebazpenaren aurkezpen dokumentatuarekin amaitzen da.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, KD3, KPSII5 eta KAKK4.2.

2. Laborategian egin daitezkeen lanen ikuspegi orokorra eta aniztasuna aitortzea, hainbat teknika eta esperientzia ezagutuz eta aplikatuz, trebetasun eta jarrera zientifikoak garatzeko.

Garrantzitsua da ikasleek ulertzea laborategian teknika analitikoak eta ikerketa-teknikak lantzea funtsezkoa dela konpetentzia hau garatzeko, zientzia guztiek elkarreragiteaz gain "zientzia egiten" baita laborategian. Laborategia, gainera, galdera eta problema zientifiko-teknologikoak planteatzeko eta haiei erantzuteko sortutako lekua da. Galdera eta problema horien erantzuna ikasleek berek aurkituko dute metodo zientifikoaren ondoriozko lan ordenatu eta egituratuaren bidez.

Konpetentzia zientifiko honen garapenaren funtsezko oinarria da ulertzea laborategian hainbat lan egiteak eta hainbat teknika ezagutu eta aplikatzeak esperientzia ematen duela, eta balio erantsia ematen diela ikasleek aurreko urteetan eskuratu dituzten eta metodologia zientifiko horiek erabiltzeko trebetasunak eta jarrerak hobetzeko baliagarriak izango diren trebetasun eta jarrera zientifikoei.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM2, STEM3, STEM6, KD4, KPSII1.1 eta KPSII4.

3. Problemak ebaztea eta ikerketa txikiak egitea, bakarka zein taldean, laborategiko lanaren berezko metodologia zientifikoak autonomiaz erabiliz, eguneroko bizitzako produktuak eta materialak aztertzeko, kontrolatzeko eta lortzeko.

Konpetentzia honetan, ikasleek konpromisoa hartzen dute laborategiko lanari dagozkion problemak ebaztea eta ikerketa txikiak egitea eta, era horretan, erantzunak gogoeta deduktibo eta planifikatuetan oinarrituta lortzeko, metodo zientifikoa erabiliz.

Konpetentzia duten ikasleek pentsamendu zientifikoaren mekanismoak erabiltzen dituzte landutako gaien ondoriozko galdera gehiago egiteko eta eguneroko bizitzako produktuak eta materialak aztertu, kontrolatu edo lortzeko. Kasu horietan, talde-lanak eta bakarkako lanak zeregin garrantzitsua betetzen dute, eta metodologia zientifikoak erabiltzeko autonomia ahalbidetzen dute.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, KD2, KPSII3.2, KPSII5, EK1 eta EK3.

4. Prozedurazko lanaren garrantzia ulertzea, metodo analitikoen bidez egindako kalitate-kontrola baloratuz, eguneroko bizitzan erabiltzen eta kontsumitzen diren produktuen propietateak ezagutzea ahalbidetuko duten datuak eta emaitzak lortzeko.

Laborategiko lan esperimentalaren bidez, planteatzen zaizkien egoerei edo problemei irtenbidea ematea ahalbidetzen duten trebetasunak eta estrategiak eskuratzen dituzte ikasleek, eta lan horren helburuetako bat da egunero erabiltzen diren produktuen analisi kualitatiboak eta kuantitatiboak egitea, haien propietateak ezagutzeko, kontrastatu eta egiaztatu ahal izango diren datuak eta emaitzak lortzeko eta kalitate-kontrolaren garrantzia baloratzeko.

Konpetentzia honen barruan, ikasleek jakin behar dute nola tratatu behar diren analisian lortutako datuak, eta zorrotz baloratuko dute datu horien prozesua, esperimentazioa eta irudikapena, enpirikoki lortutako emaitzen egiazko ondorioak ateratzeko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM4, KD2, KPSII4, KPSIID5 eta HK4.

5. Informazio zientifiko-teknologikoa eta lortutako datuak zehaztasunez interpretatzea, tratatzea eta komunikatzea, hainbat euskarri, material eta baliabide eta hiztegi zientifiko egokia erabiliz, lanaren emaitzak eta ondorioak aurkezteko.

Metodologia zientifikoaren barruan, ikerketaren emaitzak interpretatu eta adierazi egiten dira zientziaren eta teknologiaren hizkuntza espezifikoaren bidez, egindako ikerketarako txosten edo memoria egoki batean aurkezten dira, eta txosten hori komunikatu eta zabaldu egiten da.

Zientzia aplikatuko emaitzak eta ondorioak komunikatzeak jarduteko prozedurak garbi eta zehatz deskribatzea, azaltzea, argudiatzea eta ondorioak ateratzea dakar. Ikasleek ulertuko dute komunikazioa, lan esperimentalaren emaitzen formatu egokia eta hiztegi zuzena erabiliz, ezinbestekoa dela eztabaidak eta bateratze-lana egiteko, eremu akademikoan zein beste batzuetan.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, KE1, KE2, STEM2, STEM4, KD2, KD3, KPSII1.1 eta KPSII4.

6. Ezagutza fisikoak, kimikoak, geologikoak eta biologikoak modu integratuan, eta haiek teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten erlazioak hainbat testuingurutan erabiltzea, eguneroko egoeretako problemak aztertuz, egungo munduaren erronkekin bat datozen erabaki arduratsuak hartzeko.

Ezagutza zientifikoa erabiltzeak zuzeneko isla du ingurumenean, teknologian eta gizartean, eta bizi-kalitatea hobetzeko beharrezkoak diren tresnak eskaintzen ditu. Garrantzitsua da ikasleek zientzia guztiek prozesuetan duten inplikazioa ezagutzea eta zientzia horien ezagutzak erabiltzea, etorkizun gogobetegarri eta iraunkor baten lorpenean aktiboki parte hartu ahal izateko eta eguneroko egoeretan sor daitezkeen arazoak konpontzera bideratutako proposamenak egiteko.

Konpetentzia hau garatzean, ikasleek diziplina zientifikoen kolaborazioak eskaintzen dituen ahalmenak ulertuko dituzte, eta zientzien inguruko ezagutzak erabiliko dituzte ongizate kolektiboa lehenetsiko den mundu iraunkorrago eta berdinago baterako gizarte-eraldaketan laguntzeko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM5, STEM6, KPSII2, KPSII5, HK4, EK1 eta EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Laborategiko Teknikak
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Prozesuetan materialak eta tresnak doitasunez erabiltzea, kasu bakoitzean teknikarik egokiena erabiliz.
1.2. Ingurune naturalean behatutako prozesuen inguruan planteatutako galderak edo gaiak ebaztea, laborategiaren berezko trebetasunak eta abileziak erabiliz eta, beharrezkoa denean, inplikatutako legeak eta teoriak kontuan hartuz.
1.3. Fenomeno zientifikoei buruzko hipotesien egiazkotasuna edo faltsutasuna egiaztatzea, esperimentuak eginez eta esperimentazio-inguruneko arauak betez.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Metodologia zientifikoen berezko trebetasunak eta jarrerak garatzea, hainbat teknika eta esperientzia ezagutuz eta aplikatuz, eta laborategiko lanen aniztasuna baloratuz.
2.2. Laborategiko teknikei eta haien aplikazioei buruzko iritziak eta erabakiak lantzea, argudiatzea eta adieraztea, haien garapena, aukerak eta mugak aztertuz.
2.3. Konposatuen fabrikazio-prozesuak eta oinarrizko eragiketak identifikatzea eta bereiztea, osagaiak bereizteko eta produktuak lortzeko hainbat ekipamendu eta material erabiliz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Egunero erabiltzen diren produktuak eta materialak aztertzea, kontrolatzea eta lortzea, bakarka zein taldean ikerketa txikiak eginez.

Laborategiko Teknikak
3.2. Beharrezkoa denean taldean lan egitea, zereginetan kooperazio, kolaborazio eta parte-hartze arduratsuko jarrerak agertuz, rolak bere gain hartuz eta desberdintasunak errespetuarekin eta tolerantziarekin onartuz.
3.3. Laborategiko lanaren berezko metodologiak autonomiaz erabiltzea, problemak ebazteko teknikarik egokiena planifikatuz eta hautatuz.
3.4. Ikerketak bakarka edo taldean planifikatzea eta egitea, laborategiko segurtasun-arauak eta materialen eta produktuen erabilera arduratsua errespetatuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Aldagai fisiko-kimikoak neurtzea (masa, bolumena, tenperatura, biskositatea eta abar), laginerako teknika eta aparatu egokia hautatuz eta erabiliz eta prozedurazko lana era egokian eginez (zehaztasuna, objektibotasuna, doitasuna eta abar).
4.2. Lagin bat identifikatzean eta kuantifikatzean lortutako datuak eta emaitzak aztertzea, kalitate-kontrolak erabilitako baliabide analitikoetan duen garrantzia baloratuz.
4.3. Egindako analisietan lortutako emaitzak modu egokian eta hainbat formatutan adieraztea, esperientzien soluzioak irizpide egokiarekin argudiatuz.
4.4. Egunero erabiltzen eta kontsumitzen diren produktuen propietateak identifikatzea eta ezagutzea, erabilitako laginerako teknika eta tresna egokiak erabiliz, lortutako emaitzak aztertuz eta, beharrezkoa denean, birformulatuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Laborategi erreal edo birtualetan prozesu jakin batzuk erreproduzitzea edo simulatzea, baldintzatzen duten aldagaiak aldatuz, inplikatutako printzipioak, legeak eta teoriak kontuan hartuz eta emaitzak era egokian adieraziz.
5.2. Lan esperimentalaren eta ikerketa-lanaren memoria edo txostenak lantzea, hainbat iturritako testuak, eskemak eta irudikapen grafikoak hainbat formatutan erabiliz.
5.3. Lan zientifiko esperimental edo dokumentalaren emaitzak eta ondorioak aurkeztea, informazio zientifikoa zehaztasunez eta era egokian interpretatuz, tratatuz eta komunikatuz, egile-eskubideak errespetatuz eta oinarrizko printzipio etikoei jarraituz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Eguneroko egoerei lotutako problemak aztertzea, horiek ebazten lagunduko duten proposamenak eginez eta erabaki arduratsuak eta garapen iraunkorrerako helburuekin koherenteak hartuz.
6.2. Zientziaren diziplina anitzeko izaera eta diziplina batzuek besteei egindako ekarpenak aitortzea, biologiako, fisikako, geologiako eta kimikako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak erabiliz eta eguneroko bizitzako egoerak aztertuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Laborategiko Teknikak
1. multzoa. Oinarrizko laborategia: antolaketa, segurtasuna eta higienea.
Laborategiko instalazioak.
Laborategiko materialak: beirazko material orokorra: graduatua eta graduatu gabea. Erabilera komun eta anitzeko materialak.
Askotariko aparatuak, ekipamenduak eta tresnak: berotze-ekipamenduak, ur-desmineralizatzailea, lehorgailuak, irabiagailu magnetikoak, balantzak, dosifikagailuak eta abar. Lupak, mikroskopioak eta haien erabilerak.
Ur motak eta laborategiko produktu kimikoak. Aurkezteko moduak eta ontzi motak.
Laborategiko segurtasunari eta higieneari buruzko arau orokorrak. Laborategian gerta daitezkeen istripuen aurrean jarduteko protokoloak.
Laborategiko ekipamendu konbentzionalen erabilera eta garbiketa.
Produktuen manipulazioa eta etiketatzea.
Hondakinen kudeaketa.
Produktu kimikoen biltegiratzea.

Laborategiko Teknikak
2. multzoa. Saiakuntza fisiko-kimikoak.
Aldagai fisiko-kimikorik ohikoenen eta haien unitateen azterketa.
Doitasunaren eta zehaztasunaren arteko aldea.
Kalibratzea eta ziurgabetasuna: aldizkakotasuna eta erregistro dokumentalak. Trazabilitatea.
Neurriak: bolumena, masa, dentsitatea, tenperatura eta presioa.
3. multzoa. Oinarrizko eragiketak eta prozesuak.
Laborategiko oinarrizko eragiketak: funtsa, sailkapena eta aplikazioak. Bereizketak: mekanikoak, termikoak eta difusionalak. Prozesu kimikoa. Erreakzioak, produktuen lorpena, erreaktibo mugatzailea eta errendimendua. Erreakzio kimikoak: endotermikoak, exotermikoak eta berezkoak. Erreakzio-abiaduran eragina duten faktoreak.
4. multzoa. Analisi kimikoa.
Azidotasuna eta basikotasuna.
Disoluzio baten kontzentrazioaren kalkulua, laborategian.
Analisi kualitatiboa: katioien analisia, funtzio organikoen identifikazioa.
Analisi kuantitatiboa: bolumetriak eta grabimetriak.
Analisirako merkataritza-metodoak: identifikazio-kita eta in situ balorazioa.
5. multzoa. Analisi instrumentala.
Metodo instrumentalak: funtsa, sailkapena eta aplikazioak.
Metodo elektrikoak.
Metodo optikoak.
Bereizketa kromatografikorako metodoak.
6. multzoa. Saiakuntza mikrobiologikoak, biokimikoak eta bioteknologikoak.
Mikroorganismoak. Motak eta bereizketa (laborategian): archaea, eubakterioak, onddoak eta protistoak.
Laborategi mikrobiologikoko aparatu espezifikoak. Mikrobiologiako laborategian jarraitu beharreko arau orokorrak. Arriskuen analisia.
Esterilizazio-metodoak: bero lehorra, bero hezea, iragazketa eta esterilizazio kimikoa.
Kultibo-baliabideen prestaketa. Mikroorganismoen kultiboak: kultibo motak, ereiteko eta inkubatzeko teknikak.
Mikroorganismoen isolamendua eta kontaketa.
Proba biokimiko klasikoak eta mikroorganismoak identifikatzeko merkataritza-sistemak.
Analitika klinikoa: konposizioa eta gernu- eta odol-analisirako testa.
Elikagaien eta haien kutsatzaile kimiko eta mikrobiologikorik ohikoenen analisia eta konposizioa.
Elikadura-bioteknologia: esnekien ekoizpena, bakterioetatik eta onddoetatik abiatuta.
Bioteknologia aplikatua eta ikerketa-bioteknologia: bakterioen eta eukariotoen DNAren erauzketa. Entzimen bioekoizpenaren detekzioa.

LURRAREN ETA INGURUMENAREN ZIENTZIAK

Batxilergoko 2. mailako Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak jakintzagaiak, Lurreko sistemen eta giza sistemarekin dituzten interakzioen azterketa du ardatz, ingurumena sorrarazten dutena. Irakasgai hau ikasteak, Lurrean gertatzen diren prozesu geologiko, fisiko, kimiko eta biologikoen, Lurraren egituraren

eta osaeraren, historiaren, Lurrean dauden sistemen arteko interakzioen eta baliabide naturalen aprobetxamenduaren ezagutza zabaltzen du, etorkizuneko portaera aurreikusteko eta ingurumena, baliabide naturalak eta planeta osoa babestuko dituzten garapen-ereduak diseinatzeko beharrari erantzuteko.

Alderdi garrantzitsu bat da Lurra dimentsio anitzeko sistema erraldoi bat dela. Hori dela eta, bereizita dauden baina elkarreragiten duten atal asko ditu gure planetak. Hori dela eta, atal batean gertatzen den aldaketa batek beste aldaketa batzuk eragin ditzake beste atal batean edo guztietan (eta, askotan, bistakoak eta nabariak ez diren moduetan). Sistema osoa aldi berean aztertzerik ez badago ere, sistemaren kontzeptuaren eta sisteman gertatzen diren elkarrekiko erlazio garrantzitsu askoren ezagutza eta ikuspuntu bat garatu daiteke.

Bestalde, Lurrak gizartearen euskarri diren baliabideak eta bizitzari eusteko beharrezkoak diren osagaiak eskaintzen ditu. Hori dela eta, planetari buruzko ezagutza garrantzitsua da gizartearen ongizaterako. Lurraren eta Ingurumenaren Zientziek fenomeno naturalak, antropikoak eta pertsonen eta ingurumenaren arteko erlazioaren ondoriozkoak ezagutzen laguntzen dute.

Gizateriak erronka garrantzitsuak ditu XXI. mendean, hala nola energia-iturri alternatiboen bilaketa, lehengaien hornidura, uraren eskuragarritasuna, ingurumen-inpaktuen analisia, berotze globala eta biodibertsitatearen galera. Jakintzagaiak gizateriarentzat eta ingurunearentzat iraunkorra izango den eredu baterako etorkizuneko aldaketa bati buruz arakatzeko ezagutzak eskaintzen ditu. Ingurumenaren inguruko problematika eta aurrerapen zientifikoak ezagutzea lagungarria da garapenaren eta ingurumenaren arteko soluzio integratzaileak formulatzeko, eta gure planetaren kudeaketa iraunkor bat ezartzea ahalbidetzen du, ingurumen-arazo larriak saihesteko. Irakasgai honen bidez, ikasleek egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta Agenda 2030ean zehaztutako Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lortzen laguntzeko ezagutzak eskura ditzaten lortu nahi da.

Irakasgai honen curriculuma sei konpetentzia espezifikotan egituratuta dago. Konpetentzia horiek funtsezko konpetentziei lotuta daude konpetentzia bakoitzerako deskribatzen diren deskriptore operatiboen bidez.

Irakasgai honetako konpetentzia espezifikoak honako hauek dira, labur-labur: ikerketa zientifikoaren berezko estrategiak erabiltzea; gure planetan sortzen diren erlazioez jabetzea; Lurraren eta Ingurumenaren Zientzien inguruko ezagutzak egoera problematiko errealetan aplikatzea; zientzien hizkuntza ulertzea eta zehaztasunez erabiltzea; baliabide naturalak erabiltzeko aukerak ebaluatzea; eta Lurraren eta Ingurumenaren Zientziek pertsonen prestakuntza integralean duten kultura-dimentsioa aintzat hartzea.

Ebaluazio-irizpideak konpetentzia espezifikoen garapen-maila neurtzea ahalbidetzen duten eta irakasgaiko oinarrizko jakintzak konpetentzia horiekin lotzen dituzten oinarrizko curriculum-elementuak dira. Beren konpetentzia-formulazioan, ikasleek eskuratu beharreko prozesua edo gaitasuna, aplikatzeko testuingurua edo modua eta prozesu edo gaitasun horren erabilera adieraziz planteatzen dira irizpideak.

Oinarrizko jakintzek, bestalde, funtsezko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen dituzte, eta, haien bidez, konpetentzia espezifikoak eta, beraz, funtsezko konpetentziak lantzen dira (Batxilergo osoan garatu beharreko konpetentziak).

Irakasgai hau osatzen duten oinarrizko jakintzak hainbat ezagutza-arlori lotuta daude (geologiari, ingurumen-zientziei, biologiari, kultura zientifikoari eta abar), eta, beraz, bereziki azpimarratzen da gainjarri daitezkeen edo ikuspegi desberdina behar duten irakasgaiekin koordinatzeko beharra.

Irakasgai honetako oinarrizko jakintzak zeharkako multzo batean eta lau multzo espezifikotan ezarrita daude:

– **Ikerketa proiektuak edo kasuen ebazpena;** zeharkako multzo honetan, ondorengo multzo espezifikoetan landu beharreko gaietako edozeinen edukiak gaineratzeko aukera emango duten ikerketa txikiak egitea, problemak ebaztea edo kasuak aztertzea proposatzen da.

– **Lurra izeneko sistema**; multzo honetan, planeta sistematzat hartzeko ikuspegia proposatzen da, eta Lurra osatzen duten azpisistemak eta haien interakzioak aztertzen dira.

– **Ingurumena eta giza-espeziea**; multzo zabala da, eta, bertan, “ingurumen” kontzeptua aztertzen da eta baliabide naturalei, haien erabilerei eta giza ekintzaren ondorioz ingurumenean sortzen diren arrisku eta inpaktuei buruzko edukiak lantzen dira.

– **Lurra eta ingurumena ulertzea**; multzo honetako edukiak zientzialariek Lurraren eta ingurumenaren ezagutzaren inguruan egindako ikerketetan, haren funtzionamenduan eta emandako interpretazioetan oinarrituta daude.

– **Ingurumena eta garapena**; multzo honek epe ertain eta luzean ingurumenaren garapen eta kudeaketa iraunkor bat lortzeko legegintza-oinarria, ekimenak, itunak eta akordioak (globalak eta tokikoak) ematen ditu.

Oinarrizko jakintzak zeharka landu daitezke multzo guztiak elkartuz, eta, nolanahi ere, hizkuntza zientifikoaren ikaskuntzan sakonduko duten estrategia metodologikoak azpimarratzen dira, honako helburu hauekin: eztabaidetan parte hartzeko hipotesiak proposatzea, deskribatzea, azaltzea, interpretatzea, eta argudiatzea; ingurumen-problematiketarako soluzioak proposatzea; ikerketa zientifikoaren bidez galderei erantzutea; garapen iraunkorraren inguruko gaiei lotutako ekimenak eta neurriak (ikasleen ingurunekoak) ezagutzea (horretarako, beharrezkoa da jarduera egokiak diseinatzea eta gogoeta didaktiko espezifiko bat egitea). Garrantzitsua da ikasleen interesak, motibazioak eta egungo eta/edo etorkizuneko gaitasunak kontuan hartzea, baita ikastetxean eta ingurunean eskuragarri dauden baliabideak ere.

Ondorio gisa, aukerako irakasgai honek lehentasunezko honako helburu hauek izango ditu: lehenik eta behin, ikasleek Lurraren sistemaren, sistema horren funtzionamendurako prozesu ugarien eta sistemaren zatien eta interakzioen inguruko ikuspegi orokor bat eraikitzea, ebidentzia zientifikoetan oinarritua; bigarren helburua Lurraren eta haren osagaien osasun-egoeraren mantentzeari lotuta dago, etorkizuneko belaunaldiei planeta osasuntsu bat bermatze aldera; eta, azkenik, ikasleek ikasketak heziketa-ziklo profesionaletan zein unibertsitate-ikasketetan jarraitzeko prestatuko dituen oinarrizko eta balio anitzeko prestakuntza bat eskuratzea espero da (ingurumen-hezkuntza, menien kontserbazioa eta hobekuntza, ingurumenaren kudeaketa, geologia, ekologia, ingurumen-zientziak, itsas biologia, ingurumen-ingeniaritza eta abar).

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Ikerketa zientifikoaren berezko estrategia dokumentalak zein esperimentalak erabiltzea, bakarka zein taldean, Lurraren eta Ingurumenaren Zientzien inguruko kontzeptuak, teoriak eta ereduak erlazionatuz, ikuspegi orokor bat izateko eta Lurra sistemaren funtzionamendua interpretatzeko.

Lurra sistematzat hartuz gero, beharrezkoa da planetaren egitura, bilakaera-dinamika eta ekosistemak ikuspegi holistiko batetik aztertzea. Lurra sistema eta haren funtzionamendua zuzentzen duten prozesuak oro har ulertzea eta, bereziki, funtzionamenduan dagoenean haren propietateak eta interakzioak nola agertzen diren ulertzea irakasgai honetan kontuan hartu beharreko oinarrizko alderdia da.

Ikasleek zientzialariek gure planetari buruzko datu fidagarriak lortzen saiatzean izaten dituzten zailtasunetako batzuk eta zailtasun horiek gainditzeko garatu diren metodo burutsuetako batzuk aztertuko dituzte. Halaber, hipotesiak formulatzeko eta frogatzeko moduen adibide asko aztertuko dituzte, eta teoria zientifiko nagusietako batzuen bilakaera eta garapena ikasiko dute.

Azpimarra egiten da ez soilik zientzialariek dakiten hartan baizik eta nola aurkitzen duten hura.

Gainera, ikerketa zientifikorako estrategiak garatzeak zientzia alderdi subjektibo asko dituen esparru dinamiko, eztabaidagarri eta berrikusgarri gisa ulertzen, kontzeptuak, teoriak eta ereduak finkatzen eta elkarrekin lotzen laguntzen die ikasleei. Konpetentzia espezifiko hau eskuratzeak araketaren edo esperimentazioaren bidez planetaren ikuspegi orokorra lortzeko beharrezkoa den gaitasuna ematen die ikasleei.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, KD1, KD2, KPSII3.2 eta KPSII4.

2. Gure planetan gertatzen diren erlazioez jabetzea, fenomeno naturalak eta giza ekintzak sortutakoak interpretatuz, ekosistema naturalen funtzionamendua eta sistema antropogenikoekin duten interakzioa ulertzeko, bai testuinguru zientifikoan, bai eguneroko bizitzaren testuinguruan.

Gaur egun, Lurra sistemaren funtzionamendua ezin da ulertu giza jarduera kontuan hartu gabe. Izan ere, gizakiak ingurumen-espazioan eragindako okupazioaren, alterazioaren eta degradazioaren ondorioak jasaten ditu planetak. Giza jarduerak kalteak eta arazoak sortzen ditu sistema naturalaren egituran eta funtzionamenduan, eta kalte eta arazo horiek eragina dute bizi-kalitatean eta sistemaren bideragarritasunean. Hala ere, ezin dugu ahaztu gizakia planetaren partaideetako bat gehiago baino ez dela. Beraz, eragina du ingurumena osatzen duten gainerako sistemetan, eta haien eragina ere jasotzen du.

Ikasleek ulertuko dute arrisku naturalak eta giza jarduerek eragindako inpaktuak planetan gertatzen diren erlazio kausalak edo sistema batek beste batean dituen ondorioak direla; arrisku naturalak sistema naturalen funtzionamenduak giza sisteman dituen ondorio gisa, eta inpaktuak, berriz, giza jarduerek sistema naturalen egituran eta funtzioan dituzten ondorio gisa.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM2, STEM6, KPSII1.2, KPSII4, HK1 eta HK4.

3. Lurraren eta Ingurumenaren Zientzien ezagutzak sistema naturaletako egoera problematiko errealetan aplikatzea, sistema horiek aztertuz, interpretatuz eta baloratuz, ingurune naturala kontserbatzen, babesten eta hobetzen laguntzeko eta etorkizun iraunkor bat eraikitzeko.

Lurra sistemaren dinamikak eragina du izaki bizidunengan, baina gure espezieak, aldi berean, eragin handia izan dezake prozesu geologikoetan eta ingurumen-prozesuetan. Adibidez, ibaien goraldiak naturalak dira, baina zenbait giza jarduerak (hala nola basoak bakantzeak eta hiriak eta urtegiak eraikitzeak) goraldi horien tamaina eta maiztasuna alda ditzakete. Tamalez, sistema naturalak beti ez dira egokitzen aldaketa artifizialetara guk aurreikusi bezala. Adibidez, ingurumenean egiten den eta aurreikusitakoaren arabera gizartearentzat onuragarria izango zen alterazio batek kontrako ondorioa izan dezake.

Garrantzitsua da ikasleek oinarrizko printzipio geologikoak eta ingurumen-arazoak ulertzeko beharrezkoak diren printzipioak ulertzea.

Prozesu naturalak, ingurumen-problematika eta arriskuaren prebentzioa ezagutzea eta ulertzea lagungarria da garapenaren eta ingurumenaren arteko soluzio integratzaileak formulatzeko, eta gure planetaren kudeaketa iraunkorra ezartzea ahalbidetzen du.

Konpetentzia espezifiko hau garatzean, ikasleek Lurraren Zientziei buruz dituzten ezagutzak sendotuko dituzte, eta haien aplikazioa ingurune naturala kontserbatu, babestu eta hobetzeko ezinbestekoa dela ulertuko dute.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM2, STEM5, STEM6, KD4, KPSII2, HK3, HK4 eta EK1.

4. Zientzien hizkuntza zehaztasunez ulertzea eta erabiltzea, zorroztasuna, argitasuna eta ordena baloratuz eta hainbat euskarri eta baliabide erabiliz, Lurraren eta Ingurumenaren Zientziei lotutako gaiak zehatz-mehatz komunikatzeko.

Eguneroko bizitzako hizkuntza ez da nahikoa zientziaren fenomenoak adierazteko. Hori dela eta, komunitate zientifikoak hezkuntza espezializatu bat erabiltzen du komunikatzeko (hizkuntza zientifikoa), eta hizkuntza horrek adierazpide propioak eta espezializatuak behar ditu (terminoak, grafikoak, mapak, sinboloak eta ekuazioak).

Hizkuntza zientifikoa zientziaren berezko kontzeptuak eta prozesuak ulertu ondoren ideia zientifikoak azaltzeko eta eztabaidatzeko komunikazio-tresna da.

Konpetentzia espezifiko honen bidez, beren ekoizpenetan hizkuntza zientifikoa zehaztasunez erabili behar dela eta hizkuntza unibertsala, adiera bakarrekoa, zehatza, objektiboa eta neutrala dela ulertuko dute ikasleek.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, KE2, STEM2, STEM4, KD3, KPSII4 eta KAKK4.2.

5. Baliabide naturalak eta haien aplikazioak erabiltzeko aukerak ebaluatzea eta baliabide horien mugak ezagutzea, erabilera berritzeko ahalmenera egokitzeko beharra pentsamendu kritikoarekin baloratuz, gizartearen garapenak ingurumenerako dituen inplikazioak ulertzeko.

Baliabide naturalak planetak eskaintzen dizkigun elementuak edo ondasunak dira. Baliabide horiek pertsonen zein gainerako izaki bizidunen bizi-premiei erantzuteko erabil daitezke. Azken alderdi hori garrantzitsua da, baliabide naturalak aipatzen ditugunean badirudi planetako gainerako izaki bizidunak ahazten ditugula, eta izaki horiek ere baliabide naturalak behar dituzte. Era berean, baliabide horiek oso garrantzitsuak dira egungo gizartearen ongizaterako eta garapenerako, baina etorkizuneko belaunaldien ongizatea ere bermatu behar dute.

Ikasleek ulertuko dute baliabide natural berriztagarriak (ura, eguzki-erradiazioa, haizea, biomasa eta abar) etengabe eskuragarri daudela, baina baliabidearen erabilera-tasa birsortze-tasa baino handiagoa bada agortzeko eta baliabide berriztagarria izateari uzteko arriskua sor litekeela. Hori dela eta, gure baliabide naturalak arduraz erabili behar ditugula hartu behar dugu kontuan beti.

Aitzitik, baliabide natural ez-berriztagarriak (petrolioa, burdina, ikatza eta abar) oso aldi geologiko moteletan osatzen dira (milioika urteko aldietan). Baliabide horien gehiegizko ustiapenak baliabideak agortzea eta, azkenean, desagertzea dakar. Hortaz, ezin dira berrerabili, berroneratu edo ekoiztu kontsumo-tasa handi bati eusteko moduko erritmoan.

Ikasleek, gainera, ulertuko dute kontsumitu daitezkeen materialen zerrenda aldakorra dela garaiaren, gizarteak eta inguruneak dituzten beharren, ohituren eta eskuratutako teknologiaren arabera. Aldagai horiek guztiek material baten erabilgarritasuna eta balioa finkatzen dute garai jakin batean, eta material horren erabilerarik eza edo abandonua beste garai batean.

Beraz, ikasleek baliabide naturalen ekoizpen garbi baterako zein ustiapen arrazional eta berriztagarrirako garapen iraunkorra sustatu behar dela ulertuko dute, baliabide guztien erabilera efizientean, ekitatiboan eta, ingurumenari dagokionez, arduratsuan oinarrituta.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, STEM6, KD4, KPSII5, HK4 eta EK1.

6. Lurraren eta Ingurumenaren Zientziek pertsonen prestakuntza integralean duten kultura-dimentsioa aintzat hartzea eta zientzia horien ekarpenek jendartean eta ingurumenean duten eragina baloratzea, hipotesiak eta teoriak aztertuz eta konparatuz eta etengabeko eraikuntza-prozesu batean murgilduta dagoen zientziaren izaera aitortuz, ingurumena toki-mailan eta maila globalean hobetzeko ekintzetan aktiboki eta arduraz parte hartzeko.

Gizarte aurreratuek gero eta neurri handiagoan baloratzen dute Lurraren eta ingurumenaren kultura zientifikoa. Ondare geologikoaren eta ingurumen-ondarearen errespetua, gure natura errepikaezinaren eta gure lurralde-identitatearen parte gisa. Interes Geologikoko Lekuen deklarazioak eta ingurune naturala babesteko legeriari zenbait kontzeptu gaineratzeak (biosferaren erreserba, geodibertsitatea, geoparkea eta abar) lege- eta kultura-estatusa ematen diote geologia- eta ingurumen-ondareari.

Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak, garapenaren eta berrikuntzaren zerbitzura ez ezik, planetaren iraunkortasunaren, osasunaren eta harmoniaren zerbitzura ere badaude. Esparru berrietan esku hartzen dute, hala nola ingurumenaren babesean eta hondamendi naturalen prebentzioan, eta, aldi berean, beren ekarpenak nagusi diren interesekin bat ez datozenean gizarteak ekarpen horien inguruan agertzen duen ulertezintasuna gainditzea dute helburu.

Konpetentzia espezifiko honek uraren, klimaren eta bizitzaren inguruko askotariko kultura bat eskaintzen die ikasleei, geosferari, hidrosferari, atmosferari, biosferari eta antroposferari buruzko ezagutzaren bidez. Halaber, planetaren eta bertako izaki bizidunen etorkizuna bermatuko duen sistema orekatu bat lortzeko elkarrekin nola erlazionatu behar duten erakusten du.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM2, STEM4, STEM5, STEM6, KPSII2, HK1, HK4, EK1 eta KAKK1.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Landako eta laborategiko datuak eta behaketak, teknika eta tresna egokiekin aztertzea eta interpretatzea, emaitzak txostenetan edo landa-koadernoan behar bezala dokumentatuz.
1.2. Landako eta laborategiko lana modu arduratsu eta seguruan egitea, ikerketa zientifikoaren berezko estrategiak bakarka edo taldean aplikatuz.
1.3. Lurra-sistemaren funtzionamendua modu globalean interpretatzea, Lurraren eta Ingurumenaren Zientzien inguruko kontzeptuak, teoriak eta ereduak erlazionatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Bizitzaren agerpenaren eta giza jardueren ondorioz gertatutako ingurumen-aldaketetan sistemen dinamika azaltzea, Lurra sortu zenetik izan diren aldaketa atmosferiko, hidriko eta biologiko nagusiak aztertuz eta interpretatuz.
2.2. Ekosistema naturalen funtzionamendua eta sistema antropogenikoekiko interakzioa ulertzea, osagaiak testuinguru zientifiko batean zein eguneroko bizitzako testuinguru batean identifikatuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Arrisku naturalen arrazoiak aztertzea, Lurraren eta Ingurumenaren Zientziei buruzko ezagutzak egoera problematiko errealetan aplikatuz.
3.2. Ingurune naturalaren inguruko prebentzio-, zuzenketa- eta babes-neurriak proposatzea, sistema naturalak eta sor daitezkeen arriskuak aztertuz eta baloratuz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Jakintzagaiari buruzko informazioa publiko espezializatu baten edo bestelako publiko baten aurrean zorroztasun, argitasun, doitasun eta ordenarekin interpretatzea eta transmititzea, idatziz zein ahoz.
4.2. Irakasgaiko jakintzei lotutako informazioak modu arrazoituan komunikatzea, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoak, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak edo eduki digitalak, besteak beste) eta prozesuan sor daitezkeen galderei oinarri egokiarekin eta doitasunarekin erantzunez.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Ingurumen-prozesuak eta lotutako arriskuak ezagutzea eta ulertzea, Lurreko baliabideak ustiatzeko zein kontserbatzeko beharra argudiatuz.
5.2. Gizartearen garapenak ingurumenerako dituen inplikazioak ulertzea, toki-mailan edo maila globalean kontsumo eta ekoizpen iraunkorreko ekimenak sustatuz.
5.3. Gizartearen garapenak ingurumenean dituen inplikazioak (positiboak eta negatiboak) identifikatzea, baliabide naturalen erabilera aztertuz.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Ingurumena hobetzeko helburua duten ekintzak proposatzea eta sustatzea, ondare geologikoa eta ingurumen-ondarea toki-mailan eta maila globalean baloratuz.
6.2. Euskal Herriko ondare geologikoa eta ingurumen-ondarea identifikatzea eta ezagutzea, ondare horren ezaugarriak aztertuz eta konparatuz eta baliabide natural eta kultural gisa duen balioa aitortuz.
6.3. Formazio geologikoei buruzko hipotesiak eta teoriak aztertzea eta konparatzea, egungo paisaia interpretatuz eta etorkizuneko paisaia aurreikusiz.
6.4. Herrialdeek adostutako protokoloen eta konpromisoen garrantzia baloratzea (Garapen Iraunkorrerako Helburuak, Agenda 2030, Milurtekoko Garapen Helburuak eta abar), haien beharra eta gizartearen eta ingurumenaren hobekuntzan duten eragina toki-mailan eta maila globalean ebaluatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Lurraren eta Ingurumenaren Zientziak
0. multzoa. Ikerketa proiektuak edo kasuen ebazpena.
Hipotesiak, galderak, problemak eta aieruak: ikuspegi zientifikoaren bidezko planteamendua.
Informazioa bilatzeko estrategiak, kolaboraziokoak, komunikaziokoak eta erakunde zientifikoekiko interakziokoak: tresna digitalak, prozesuak aurkezteko formatuak, emaitzak eta ideiak (diapositibak, grafikoak, bideoak, posterrak, txostenak eta bestelakoak).
Informazio-iturri fidagarriak: bilatzeko, ezagutzeko eta erabiltzeko estrategiak.
Emaitza zientifikoak aztertzeko metodoak: antolamendua, irudikapena eta tresna estatistikoak.
Komunikazio zientifikorako estrategiak: hiztegi zientifikoa, formatuak (txostenak, bideoak, ereduak, grafikoak eta bestelakoak) eta tresna digitalak.
Ikerketa-lanaren berezko trebetasunak eta jarrerak. Kolaborazioa eta erantzukizuna.
1. multzoa. Lurra izeneko sistema.
Atmosfera.
Hidrosfera.
Geosfera. Plaken tektonika, teoria globala.
Biosfera. Lurraren bilakaera eta dibertsitate biologikoa.
Lurraren sistemaren interakzioak eta globaltasuna. Ekosfera.
2. multzoa. Ingurumena eta giza-espeziea.
“Ingurumen” kontzeptua. Ingurumen-sistemen ereduak.
Baliabide naturalak, erabilerak, arriskuak eta inpaktuak:
Arrokak eta mineralak: Lur arraroak, XXI. mendeko elementu gutiziatuak.
Ura: lehengairik preziatuena etorkizunean.
Biosferaren baliabideak: Izaki bizidun guztien oinarrizko beharra estalita?
Lurzorua: deforestazioa eta lurzoruaren suntsipena.
Klima-arriskuak. Iraganeko aldaketa klimatikoak, egungoaren ondorioak aurreikusteko.
Barneko eta kanpoko arrisku geologikoak. Prebenitzeko ezagutu.
Giza jarduerak ingurumenean eragindako arriskuak eta inpaktua. Antropozenoa. Biodibertsitatearen galera. Ekosistemetarako ondorioak.
Euskal Herrian sortutako hondakinak eta uraren, airearen, lurzoruaren eta abarren kutsatzaileak.
3. multzoa. Lurra eta ingurumena ulertzea.
Ikerketa zientifikoaren izaera. Teoria zientifiko nagusien bilakaera eta garapena.
Ezagutza zientifikoaren garapenean eta dedukzioan esku hartzen duten behaketa-teknikak eta arrazoitze-prozesuak. Baliabideak, hondakinak eta kutsatzaileak ikertzeko eta kudeatzeko teknologiak.
Lurra espaziotik.
4. multzoa. Ingurumena eta garapena
Naturaren eta gizakiaren arteko interakzioak eta haien ondorioak. Kontrolik gabeko desarrollismoa, kontserbazionismoa eta garapen iraunkorra.
Ingurumen Hezkuntza. Garapen Iraunkorrerako Helburuak zabaltzeko eta haien inguruan kontzientziatzeko oinarria.
Protokoloak, konpromisoak eta ingurumen-araudia. Garapen Iraunkorrerako Helburuak, Agenda 2030, gune babestuak, Europako Itun Berdea (Basque Green Deal ibilbidea) …
Ingurumen-ebaluaziorako tresnak.
Euskal Herriko ondare biogeologikoa. Kontserbazioa eta babesa.

MEKANIKA

Mekanika fisikaren adarra da, gorputzen mugimendua eta pausagunea eta zenbait indarren eraginpean denboran duten bilakaera aztertu eta analizatzen dituena. Halaber, makinak edo mekanismoak diseinatu, eraiki, mantendu eta optimizatzeaz arduratzen den ingeniaritzaren espezialitate gisa ere defini daiteke. Beraz, zientzia aplikatu baten modura ulertu eta jorratu behar da.

Gaur egungo gizartea ezin da ulertu zientziak eta teknologiak, oro har, eta mekanikak, bereziki, garapen- eta ongizate-mailei egindako ekarpenak kontuan hartzen ez badira. Tokian-tokian, automobilgintza eta makina-erreminta bezalako industria-sektoreek funtsezko zeregina betetzen dute produkzio-ehunean. Hala ere, arreta berezia jarri behar da gizarte teknologizatuen iraunkortasuna bezalako alderdietan, eta ingurumen-kutsadura edo zenbait baliabide motaren kontsumoa bezalako alderdiak analizatu eta baloratu, bai industriaren edo zerbitzuen esparruan, bai etxeko esparruetan.

Horretarako, herritarrek jakintza zientifiko eta teknikoak behar dituzte, zenbait gairen aurrean jarrera kritikoak hartzeko eta planteatzen diren arazo eta beharren aurrean erantzukizunez, sormenez, konprometituta eta eraginkortasunez jarduteko gai izateko.

Ildo horretan, Mekanika 2. mailako jakintzagaia erdibidean kokatu nahi da, Fisika eta Teknologia eta Ingeniaritza irakasgaien artean, jakintza zientifiko-matematikoen eta teknikoen arteko erlazioa nabarmenduz konpetentzia-ikuspegiarekin, Batxilergoko etapako helburuak lortzen eta ikasleen funtsezko konpetentziak eskuratzen laguntzeko. Ildo horretan, nagusiki matematikarako konpetentziarekin eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentziarekin erlazionatutako alderdiak garatzen ditu, baita gainerako funtsezko konpetentziekin lotutako trebetasunekin erlazionatutakoak ere: konpetentzia digitala, hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, konpetentzia eleaniztuna, konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa, ekintzailetza-konpetentzia, herritartasunerako konpetentzia, eta kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

Konpetentzia espezifikoen xedea da ikasleek, zenbait baliabideren bidez —zenbait printzipio fisikoren azterketa eta analisia; hizkuntza zientifiko-matematikoa menderatzea; ariketa praktikoen ebazpena; esperimentazio eta ikerketa zientifikoa; edo diseinu- eta ikerketa-proiektuen garapena—, fisikaren printzipioak eta legeak planteatutako problemei erantzuten dieten sistema mekanikoetan aplikatzeko behar adinako trebetasunak garatzea, beste diziplina batzuetako jakintzak transferituz, modu autonomoan jardunez eta garapen irisgarri eta iraunkorrarekiko jarrera arduratsua eta inplikatua erakutsiz.

Horrek guztiak ikasleak hurbilduko ditu, ikuspegi inklusibo eta ez-sexistatik, jarduera zientifiko eta teknologikoaren berezko prestakuntza-, ikerketa- eta lan-ingurunera, esparru horietan bokazioak sustatzen laguntzeko. Ildo horretan, Euskadiko mekanikaren sektorearen ikuspegi panoramikoa emango zaie ikasleei, ikastetxeei, zentro teknologikoei (I+G+B) eta enpresei dagokienez.

Irakasgai honen ebaluazio-irizpideak konpetentzia-orientazio nabarmenarekin formulatzen dira, eta bereziki azpimarratzen dituzte problemen ebazpena, esperimentazioa eta ikerketa zientifikoa edo proiektuen garapena, baita informazioaren tratamendua, zenbait zeregin egiteko tresna digitalen erabilera, talde-lana, plangintza, erabaki arduratsuak hartzea eta jarrera konprometitua eta errespetuzkoa ere.

Jakintzagaia oinarrizko jakintzen 7 multzoren inguruan egituratzen da. Oinarrizko jakintzen edukia jarduera edo proiektu praktikoen garapenaren bitartez erlazionatu behar da.

– *«Mekanika: sarrera eta oinarrizko kontzeptuak»* multzoak bi zati ditu: sarrerak mekanikaren sektorearen bilakaera historikoa eta egungo egoera ditu aztergai; beste zatiak, berriz, jakintzagaia ikasteko oinarrizko kontzeptu fisikoak eta matematikoak aurkezten dizkie ikasleei.

– *«Zinematika», «Dinamika», «Estatika»* eta *«Materialen erresistentzia»* multzoek mekanikaren berezko alderdi kontzeptualak zein prozedurazkoak lantzen dituzte, fisikaren zein teknologiaren ikuspegitik, eta proiektuak gauzatzeko edo problema zientifiko-teknologikoetarako soluzioen burutapena egiteko oinarria osatzen dute.

– Azken bi multzoak *«Tresna digitalen erabilera eta informazioaren kudeaketa»* eta *«Zentzu sozioemozionala»* zeharkakoak dira, eta une oro eta garatu beharreko jarduera edo proiektu guztietan egon behar duten prozedurak, jarrerak eta balioak dituzte ardatz.

Jakintzagaiari konpetentzia-ikuspegia emateko, komeni da jakintzak testuinguruan kokatutako ikas-egoerak dakartzaten diziplinarteko proiektuetan bildu ahal izatea. Horrelakoetan, ikasleek beren ezagutzak eta trebetasunak esperimentatu edo aplikatu ahal izango dituzte premia jakin bati irtenbidea emateko. Premia hori testuinguru pertsonal, sozial edo kultural batetik sor daiteke, maila lokalean edo globalean, gero eta konpromiso-jarrera handiagoarekin. Horrela, besteak beste, hezkuntza-ingurunearen eta beste gizarte-, ekonomia- edo ikerketa-sektore batzuen arteko loturak sortu nahi dira.

Konpetentzia-ikuspegi praktiko horren arabera, oso komenigarria da, eta potentzial handia ematen du, tailer edo laborategi moduko espazio bat edukitzea, irakasgai honetako jarduera praktikoak garatu ahal izateko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Mekanikaren alorrean historian zehar izandako berrikuntza ezagutzea eta zentzu kritikoarekin analizatzea, haren oinarri zientifikoa zein aplikazio teknikoak kontuan hartuz, garapen teknologikoari egindako ekarpena, egungo aplikazio praktikoak eta ingurumen-iraunkortasunaren gaineko inpaktua ulertzeko eta baloratzeko.

Gaur egungo gizartean oso erabilgarria da zenbait diziplinatatik datozen jakintza zientifikoak eta teknikoak izatea, egunero jasotzen den informazio asko irizpidez interpretatzeko, zenbait gairen aurrean jarrera kritikoak hartzeko eta planteatzen diren erronken eta beharren aurrean arduraz, sormenez eta eraginkortasunez jokatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau garatzean, ikasleek erlazioa ezarri ahal izango dute mekanikaren printzipio fisikoen eta haren aplikazio praktikoen artean, eta diziplina horrek garapen teknologikoari egiten dion ekarpena egiaztatuko dute. Era berean, ikasleek mekanikarekin erlazionatutako jarduera-sektoreak eta jarduera horrek iraunkortasunaren ikuspegitik duen ondorioa ezagutzea lortu nahi da.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM4, STEM5, STEM6, KD1, KD3, KD4, KD5, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK4, EK1.

2. Mekanikaren teoriak, legeak eta ereduak aplikatzea, testuinguru errealak ezarritako mugak kontuan hartuz, zenbait sistema mekanikoren ezaugarriak justifikatzeko eta haien portaera inferitzeko.

Mekanikaren ikasketak, zientzia aplikatua den aldetik, zenbait fenomeno analizatzeko konpetentzia eman behar du. Horretarako, beharrezkoa da ezagutza-alor horren funtsezko zutabeak osatzen dituzten eta, gainera, sistema mekanikoen bilakaera iragartzea ahalbidetzen duten teoriak, legeak eta ereduak hartzea. Halaber, printzipio horiek aplikatzen ditugu eguneroko egoeretan ikusten ditugun fenomenoak mekanikaren oinarri eta printzipioekin erlazionatzen ditugunean.

Hala, zenbait egoeraren analisitik abiatuta, planteatutako problemei soluzioak ematen ikasten da, eta horrek aplikazio praktikoak ekar ditzake, eta produktuak sortu alor teknologikotik egindako garapenaren bitartez.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM4, KPSII4, KPSII5.

3. Arrazoibide logiko-matematikoa eta esperimentazioa erabiltzea, mekanikaren berezko printzipio, magnitude, unitate eta abarren formulazio matematikoa zorrotz eta zuzentasunez aplikatuz eta datuen tratamendu grafiko zuzena eginez, ezagutza-oinarriak ezartzeko eta adibide simulatuetan edo aplikazio praktiko errealetan problemak ebazteko.

Ariketa soil bat edo problema konplexuago bat ebazteko, beharrezkoa da zenbait diziplina zientifikotatik datozen teknikak, prozedurak eta jakintzak aplikatzea.

Konpetentzia espezifiko honen asmoa da, alde batetik, ikasleek hizkuntza matematikoa eta horren formulazioa baloratzea eta erabiltzea, eta, bestetik, esperimentu edo simulazio errazak egitea, mekanikako problemen ebazpena egoki planteatu eta eztabaidatu ahal izateko eta eskuratutako ezagutzak finkatzeko tresna gisa dituen aplikazio praktikoak eztabaidatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM4, KD3, KD5, KPSII4, KPSII5, EK3.

4. Zientziaren eta ingeniaritzaren berezko prozedurak eta teknikak, hala nola ikerketa zientifikoa edo problema teknologikoak ebazteko prozesuak aplikatzea, modu autonomo, eraginkor, kritiko eta arduratsuan, behar diren ezagutzak transferituz, proiektuak plangintza bati jarraikiz modu indibidualean edo kooperatiboan garatzeko.

Konpetentzia honetan sartzen dira soluzioak bilatzeari eta proiektu zientifiko-teknologikoak garatzeari buruzko alderdiak, ikerketa zientifikotik eta problema teknologikoak ebazteko metodotik gertu dauden metodologien bitartez, I+G+B proiektuetara hurbiltzeko.

Lan zientifikoak zenbait estrategia aplikatzea eskatzen du, eta bere garapenean esperimentazioa eta erroreen zenbatespena, zenbait hizkuntzatan dauden dokumentu-iturrien erabilera eta baliabide teknologikoen erabilera sustatu behar ditu.

Proiektu zientifiko-teknologikoak garatzeko, lanak behar bezala planifikatu eta kudeatu behar dira, proiektu sekuentzial baten faseei jarraituz eta lehentasunak ezarriz.

Konpetentzia honetan, halaber, sormena estimulatzeko eta sustatzeko hainbat teknika lantzen dira. Taldeetan lan eginez, ikasleek kooperazio- eta kolaborazio-proiektuak koordinatzeko eta kudeatzeko teknikak aplikatu behar dituzte. Halaber, espiritu ekintzailea eta lidergo banatua sustatzen dira, ikasle guztien ekimena eta proaktibotasuna garatu nahian. Hori guztia hezkidetzako tratamenduarekin, genero- edo lan zientifiko-teknologikorako gaitasun-estereotipoak alde batera utzita.

Azkenik, informazioa prozesu hori guztia jasoko duten txostenetan hezurmamitu behar da; horrek berekin dakar gertakariak, ideiak, kontzeptuak eta prozedura konplexuak hitzez, modu analitikoan eta grafikoki zehatz-mehatz adieraztea, terminologia egokia erabiliz, sortutako ideiak eta soluzioak komunikatzeko eta zabaltzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, KD3, KD5, KPSII4, KPSII5, EK1, EK3.

5. Informazioaren tratamendu egokia egitea, tresna digitalak zuzentasunez eta erantzukizunez erabiliz, diziplinarteko jakintzak estrategikoki aplikatuz eta transferituz, ezagutzak sortzeko, trebetasun teknikoak hobetzeko, kalkulatzeko eta problemak ebazteko edo ideiak zabaltzeko, zenbait testuingurutan eta jarrera sortzailea erakutsita.

Informazioaren eta komunikazioaren gizartean ezinbestekoa da informazioa kudeatzeko trebetasunak izatea. Ikerketa edo informazioa bilatu eta hautatzearekin lotutako jardueretan, ezinbestekoa da haren jatorria eta egokitasuna baloratzeko, egiazkotasuna kontrastatzeko eta haren analisi kritikoa egiteko gai izatea. Halaber, besteekin interakzioan jarduteak ideiak trukatzeko eta horiei buruz gogoeta egiteko, kolaboratzeko, kooperatzeko eta ezagutza berriak sortzeko eta finkatzeko aukera ematen du, eta horrek komunikazioa ezinbesteko elementu bihurtzen du irakasgai zientifiko-teknologikoen ikaskuntzan.

Konpetentzia honek informazioaren tratamenduari eta ideiak zenbait bitarteko erabiliz komunikatu eta adierazteari buruzko alderdiak jorratzen ditu, eta arreta berezia eskaintzen dio tresna digitalen erabilerari. Irakasgai zientifiko-teknikoa denez, gainera, tresna digitalen erabilera beste xede batzuetara ere

hedatzen da. Horrela, sistema mekanikoak diseinatzeko eta simulatzeko edo kontrolatzeko tresna digitalak erabiltzea funtsezko tresna bihurtzen da ariketa errazak modu praktikoan ebazteko, esperimentatzeko eta ikertzeko jarduerak egiteko edo proiektuak garatzeko eta horiei buruzko dokumentazioa egiteko eta zabaltzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD4, KD5, KPSII4, KPSII5, EK3.

6. Trebetasun pertsonalak eta sozialak erabiltzea, motibazioa eta emozioak autorregulatuz eta errorea edo ziurgabetasuna ikasteko prozesuaren parte dela ulertuz, erantzukizunak bere gain hartuz, enpatia erakutsiz, modu aktiboan entzunez eta elkarrizketa gatazkak kudeatzeko tresna gisa baloratuz, zenbait zeregin bakarka edo taldean garatzeko, aldez aurreko plangintzari jarraikiz.

Egungo gizartean, beharrezkoa da trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzea, eguneroko bizitzako zenbait egoeratan moldatzeko.

Konpetentzia espezifiko honek jarrerekin eta autorregulazioarekin erlazionatutako alderdiak kontuan hartzen ditu. Horrela, konpetentzia hau garatzeak berekin dakar autokonfiantza eta ekimena erakustea edo, arazoei aurre egitean, estilo kognitiboa, motibazioa eta emozioak autorregulatzea. Era berean, erabakiak modu arrazoitu eta adostuan hartzeari, prozesuak planifikatzeari, gauzatzeari, ebaluatzeari eta optimizatzeari eta talde-lanari lotutako alderdiak jasotzen ditu, zenbait jarduera garatzean parte-hartze aktiboa eta arduratsua sustatuz. Azkenik, inklusioaren, errespetuaren, entzute aktiboaren, asertibitatearen eta hizkuntzaren erabilera ez-diskriminatzailearen garrantzia azpimarratzen du, talde-ongizatea eta harreman osasungarriak sustatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, STEM3, STEM5, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.1, KPSII3.2, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK2, EK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Mekanika
1. konpetentzia espezifikoa
1.1. Mekanikaren zientzia aplikatuaren izaera ezagutzea, diziplina hori gorputzen mugimendua eta oreka aztertzen dituen fisikaren adarra eta, aldi berean, sistema mekanikoen azterketan, eraikuntzan eta hobekuntzan ardaztutako teknologiaren espezialitatea dela ulertuz.
1.2. Lege eta teoria fisikoak formulatzen eta gizartearentzat funtsezkoak diren sistema eta produktu teknologikoak garatzen lagundu duten mekanikaren alorreko aurrerapen nagusiak identifikatzea eta baloratzea, diziplina horrek garapen zientifiko-teknologikoari egiten dion ekarpena analizatuz, etikaren eta iraunkortasunaren irizpideak aplikatuz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Sistema mekanikoen portaera inferitzea, horietan biltzen diren ekintzak eta horien interrelazioa analizatuz.
2.2. Zenbait objektu eta sistema mekanikoren morfologia, dimentsioak, erabilitako materialak eta eraikuntza-modua justifikatzea, ezaugarri horiek jasaten dituzten eskakizun mekanikoekin erlazionatuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Problemak modu analitikoan ebaztea, mekanikan erabiltzen diren printzipio, magnitude, unitate eta abarren formulazio matematikoa zuzentasunez eta zorrotz erabiliz, eta zenbait aldagai erlazionatzen dituzten grafikoak modu egokian eginez eta interpretatuz.
3.2. Prozesu jakin batzuk laborategi errealetan edo birtualetan erreproduzitzea edo simulatzea, sistemek haiek baldintzatzen dituzten aldagaien balioak aldatzean ematen dituzten erantzunak behatuz eta inplikatutako printzipio, lege edo teoriak kontuan hartuz.
3.3. Zenbait magnituderen arteko erlazioak lortzea, datu esperimentalak neurtuz eta tratatuz, erroreak zehaztuz eta datu-taulak, kalkulu-tresnak eta irudikapen grafikoko sistemak behar bezala erabiliz.

Mekanika
4. konpetentzia espezifikoa
4.1. Metodologia zientifikoa (behaketa, eztabaida, hipotesien formulazioa, esperimentazioa, datuen analisia, ondorioak ateratzea eta emaitzen komunikazioa) zenbait egoeratan aplikatzea, modu autonomo, eraginkor, kritiko eta sortzailean.
4.2. Problema teknologikoak ebazteko metodoak (problemaren edo beharraren identifikazioa, informazio-bilaketa, diseinua, plangintza, eraikuntza, ebaluazioa eta doikuntzak, eta emaitzen komunikazioa) aplikatzea, modu autonomo, eraginkor, kritiko eta sortzailean.
4.3. Egindako lanari buruzko txostenak egitea, hizkuntza zientifiko-teknikoa eta tresna egokiak zorrotz erabiliz, lortutako ondorioak analizatuz, ulertuz eta azalduz, eta argudioak, datu-taulak, grafikoak eta erreferentzia bibliografikoak barne hartuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Proposatutako zereginak eta esleitutako funtzioak modu optimoan ebaztea, zenbait tresna digital erabiliz eta konfiguratuz, eta diziplinarteko ezagutzak modu kritiko, seguru eta arduratsuan eta jabetza intelektuala errespetatzeko moduan aplikatuz.
5.2. Hizkuntza zientifiko-tekniko hitzezkoa zein grafikoa zenbait testuinguru eta formatutan ezagutzea eta interpretatzea, zenbait iturritatik datorren informazioa lokalizatuz, hautatuz eta kontrastatuz, haren egokitasuna ebaluatuz, integratuz eta ezagutza bihurtuz.
5.3. Ideiak, proposamenak edo soluzioak modu eraginkor eta antolatuan komunikatzea eta zabaltzea, ikuspuntu sortzailea hartuz, ikasitakoa transferituz eta euskarri, terminologia eta zorroztasun egokiak erabiliz hizkuntza tekniko hitzezkoa zein grafikoa erabiltzean.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1. Helburuak lortzen jarraikitasuna eta motibazio positiboa erakustea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, beste diziplina batzuetako ezagutzak transferituz, eta errorea edo kritika arrazoitua ikasteko prozesuaren parte dela ulertuz.
6.2. Talde heterogeneoetan modu aktibo eta arduratsuan parte hartzea, erabakiak modu adostuan hartuz, lana planifikatzen eta garatzen lagunduz, esleitutako rolaren bitartez, testuinguru analogiko eta digitaletan.
6.3. Talde heterogeneoetan zereginak ekitatez banatzen laguntzea, gainerako kideen arrazoibideak aktiboki entzunez, ideiak eta iritziak modu asertiboan emanez, eta talde-ongizatea eta harreman osasungarriak eta inklusiboak sustatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Mekanika
A. Mekanika: sarrera eta oinarrizko kontzeptuak.
Mekanikako aurrerapenen historian zeharreko ekarpena. Soluzioen bilakaera.
Mekanikaren aplikazioak: kontsumoa, industria, automobilgintza, bestelakoak.
Mekanikaren sektorea Euskadin: industria-sektorea, zentro teknologikoak (I+G+B), erlazionatutako ikasketak.
Neurri-sistemak: SI, CGS eta teknikoa. Baliokidetasunak.
Bektore eta momentuekin egindako eragiketak.
Oinarrizko kontzeptuak: masa-geometria, grabitate-zentroa, inertzia-momentua, biraketa-erradioa.
Lotura mekanikoak. Motak, ezaugarriak, askatasun-graduak. Lotura mekanikoen azterketa eta modelizazioa mekanismo eta sistema material errealetan.
Sistema material baten gaineko ekintzak. Barne- eta kanpo-indarrak; motak. Indar baten momentua. Indar-parea. Ekintzen azterketa eta modelizazioa mekanismo eta sistema material errealetan.
Lotura mekaniko perfektuen bidezko indar- eta momentu-transmisioa. Lotura mekaniko errealak; marruskadura.
B. Zinematika.
Puntuaren zinematika. Higidura lineala, zirkularra eta harmonikoa.
Solidoaren zinematika. Translazio-higidura, ardatz baten inguruko biraketa-higidura eta higidura helikoidala: higidura uniformea eta azelerazio uniformeko higidura. Eragileak. Higidura absolutua, erlatiboa eta arrastekoa. Sistema inertzialak.

Mekanika
Higidura laua. Aldiuneko biraketa-zentroa. Higidura-konposizioa.
Mekanismoen eta makinen elementuen analisi zinematikoa. Tresna digitalekin egindako simulazioa.
C. Dinamika.
Newtonen legeak higidura lineal eta zirkularretan.
Puntuaren dinamika. Bulkada angeluarra, momentuak. Ekuazioak.
Solidoaren dinamika. Planoko translazioa eta ardatz baten inguruko biraketa. Inertzia-momentua. Momentu lineala eta angeluarra. Ekuazioak.
Lana, energia eta potentzia. Energia zinetikoaren teorema. Energia mekanikoaren kontserbazioa sistema isolatu batean. Potentzia, momentua eta biraketa-erregimena.
Makina eta mekanismoen analisi dinamikoa; horien gaineko ekintzak. Makina eta mekanismoen errendimendua.
Bibrazioaren eraginpeko solido elastikoa. Erresonantzia.
D. Estatika.
Puntu materialen sistema baten oreka: oreka-baldintza unibertsalak.
Indar planokideen sistema baten eraginpeko solido zurrun libre edo lotura finkodun baten oreka. Marruskadura estatikoa eta dinamikoa.
Egitura artikulatuen azterketa estatikoa. Egituretan tentsioak kalkulatzeko metodoak: Korapiloak, Sekzioak (Ritter), Cremona.
Mekanismo lauen eta makina sinpleen azterketa estatikoa.
Oreka-egoeren analisia eta simulazioa tresna digitalekin.
E. Materialen erresistentzia.
Materialen elastikotasuna eta plastikotasuna; Hookeren legea. Segurtasun-koefizientea.
Trakzio-, konpresio-, ebaketa-, bihurdura- eta makurdura-esfortzuak. Kargak, indarrak eta momentuak; deformazioak, diagramak, aplikazioak.
Esfortzu termikoak.
Esfortzu-kontzentrazioa. Nekea.
Katalogoen eta araudi teknikoaren analisia. Dimentsionatua, parametro tipikoak. Kalkuluetako aplikazioa. Saiakuntzak.
F. Tresna digitalen erabilera eta informazioaren kudeaketa.
1. Tresna digitalak.
Diseinu- eta simulazio-tresnak, laborategi birtualak…
2. Dokumentazio zientifiko-teknikoa.
Informazio zientifiko-teknikoaren bilaketa, interpretazioa eta hautaketa.
Katalogoen eta araudi teknikoaren analisia (dimentsionatua, parametro tipikoak, segurtasun-arauak…). Kalkuluetako aplikazioa.
Diagrama funtzionalen eta eskemen interpretazioa.
3. Ideien/soluzioen komunikazioa eta zabalkundea.
Txostenen eta dokumentazio teknikoaren elaborazioa.
Hizkuntza matematikoaren eta teknikoaren erabilera. Datuen irudikapen grafikoa.
Mekanikaren berezko notazio eta sinbologiaren erabilera.
Diagrama funtzionalen eta eskemen elaborazioa.
G. Zentzu sozioemozionala.
1. Jarrerak eta autorregulazioa.
Estilo kognitiboaren, motibazioaren eta emozioen autorregulazioa. Ekintzailetza, erresilientzia, jarraikitasuna eta sormena.
Autokonfiantza eta ekimena. Errorearen (indibiduala edo kolektiboa) tratamendua eta berrebaluazioa, jakintzak mobilizatzen dituen eta ikasteko aukerak sortzen dituen elementu gisa.

Mekanika
2. Erabakiak hartzeko jarraibideak, plangintza eta talde-lana.
2.1. Erabakiak hartzeko jarraibideak.
Problemen ebazpenean zenbait aukera ezagutzeko, onartzeko eta ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko oinarrizko trebetasunak.
2.2. Plangintza.
Ideia, zeregin eta proiektuen bideragarritasunaren plangintza eta analisia.
Planifikatutakoaren exekuzioa eta, hala badagokio, doikuntza (epeak, materialen zaintza eta erabilera zuzena…).
Planifikatu eta egindakoaren ebaluazioa eta hobekuntza-proposamenen garapena (prozesuaren optimizazioa).
2.3. Talde-lana.
Talde heterogeneoetan lan egiteko teknikak eta estrategiak. Zereginetan kolaboratu eta kooperatu ingurune fisikoetan zein birtualetan
Erantzukizunak bere gain hartzeko jarraibideak. Lidergo banatua.
3. Inklusioa, errespetua eta aniztasuna.
Komunikazio eraginkorra garatzeko trebetasunak; enpatia, entzute aktiboa eta asertibitatea.
Hizkuntzaren erabilera ez-diskriminatzailea. Estereotipo sexisten identifikazioa.

MUSIKA-INFORMATIKA

Musika-informatika 1. mailako jakintzagaia ikasleek oinarrizko konpetentziak eskuratzeko diseinatuta dago, euren prestakuntza-ibilbidean arrakasta-bermeekin aurrera egiteko eta XXI. mendeko gizarteak planteatzen dituen desafio eta erronka teknologiko nagusiei aurre egiteko. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) gure gizartearen ardatz nagusietako bat dira, eta haien irismena giza jardueraren es-parru guztietara hedatzen da, besteak beste, arte-diziplinen esparrura. Testuinguru horretan, musikak erabat integratu du berrikuntza zientifiko-teknologikoa, eta horrek lagundu egin du musika-informatika jakintzagaia curriculumean sartzen. Horrek, trebetasun tekniko batzuk eskuratzea eta musikan erabil eta aplika daitezkeen teknologia berriekin lotutako gaiak maneiatzea erraztu egiten du.

Jakintzagai honen helburua ikasleak musika-konposizioa sortzeko, erreproduzitzeko, erregistratzeko eta entzuteko prozesuan sartzea da, ordenagailuaren eta hizkuntza informatikoaren erabilera kritiko, seguru eta arduratsuaren bidez. Akustikaren eta teknologiaren funtsezko elementuetara eta horiek ikasgelako sorkuntza-lanetan duten aplikazio praktikora lehen hurbilketa bat egitea proposatzen da. Horretarako, jabetza intelektualaren eta musikaren kontsumoan erantzukizun eta iraunkortasuneko balioen inguruko hausnarketa etikoa egitea azpimarratzen da, baita batxilergoko beste jakintzagai batzuetan lortutako baliabideak aprobetxatzea ere, hala nola musika-hizkuntza. Horrela, ikasleen musika-prestakuntza inte-grala lortzen laguntzen da, gure garaiko eskaerekin bat datorrena; era horretan, tresna baliagarriak ematen zaizkie ezagutza eskuratzeko, sortzeko eta transmititzeko, eta haien bizitza osoko ikaskuntza-prozesua osatu eta zabaltzeko.

Jakintzagaia lau konpetentzia espezifikotan oinarrituta garatzen da. Konpetentzia horiek Batxilergoaren amaieran ikasleen irteera-profila osatzen duten konpetentziekin eta etaparen helburuekin lotuta daude. Adierazpen artistikoak balioestera eta sormena ulertzeko modu desberdinetara bideratuta daude, baita norberaren ideiak eta gizartean betetzen den lekuaren zentzua garatzera eta adieraztera ere, euren hurbileneko ingurunetik abiatuta. Era berean, ikasleek beren gustuak zabalduko dituzte eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako identitate pertsonal eta kultural propioa eraikiko dute. Adierazpen-modu berriekiko euren jakin-mina bultzatzeak euren sormena piztuko du, beren hautu artistikoak balio pertso-naletan oinarrituko dituzten herritarrak prestatzen lagunduz.

Proposatutako ebaluazio-irizpideek konpetentzia espezifikoetan lortutako maila zehazteko eta oinarrizko jakintzen lorpen-maila baloratzeko balio dute. Horrek guztiak, bere osotasunean hartuta, ikasleek lortu duten konpetentzia-mailaren ikuspegi osoa ematen du.

Oinarrizko jakintzak hiru multzotan banatuta daude: lehenak, A. “Soinua. Musika-hizkuntza”, soinuaren funts fisikoei buruzko oinarrizko jakintzak jasotzen ditu, baita musika-hizkuntzaren kontzeptuen aplikazio praktikoa musika-informatikaren programetan ere. Bigarrenean, B. “Musikaren grabazioa, edizioa eta erreprodukzioa”, soinuaren grabazioarekin, edizioarekin eta erreprodukzioarekin lotutako oinarrizko nozioak eta programak, erreproduzigailu motak, musika-euskarri eta -artxiboak, erabilera-lizentziak eta egile-eskubideak biltzen dira. Hirugarren multzoa, C. “Musika-sorkuntza”, partituren eta audioaren, musika-eduki digitalen eta diziplina anitzeko proposamenen sorkuntza eta edizioari lotuta dago.

Azkenik, ikasleen beharretara egokitutako askotariko baliabideak erabiltzen dituzten ikas-egoerak, curriculumeko hainbat irakasgai elkar erlazionatzen dituztenak, garatuko dira. Eskuratutako baliabideak mobilizatzea errazten dute horiek, baita autonomia, ekimena, sormena eta aniztasunarekiko errespetua ere. Kolaborazio-lanak antolatzeak konpetentzien garapena sustatzen du, berdinen arteko ikaskuntza erraztuz eta ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista bihurtuz; hori guztia, beren hautemateko, aztertzeko, osasuna zaintzeko eta ingurumena zaintzeko gaitasuna garatuko duten esperientzien, proiektuen, erronken eta zereginen bidez, berrikuntza eta garapen iraunkorraren helburuekiko konpromisoa bultzatuz.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Informatikak musika sortzeko, grabatzeko, editatzeko eta erreproduzitzeko eskaintzen dituen aukerak ezagutzea, horretarako egokiak diren baliabideak eta oinarrizko funtzionamendua identifikatuz, horiek autoikaskuntzarako, gozamenerako eta norbera aberasteko tresna gisa baliatzeko.

Musika-informatikak eskaintzen dituen aukerak eta baliabideak, programak eta aplikazioak ezagutzea funtsezkoa da ikasleek horiek musika sortzeko, grabatzeko, editatzeko eta erreproduzitzeko zereginetan txertatu ahal izateko.

Ikasgelan baliabide informatiko ugari aurkeztearen helburua da ikasleek haien funtzionamendua ezagutzeko duten interesa piztea eta haiek erabiltzeko beharrezko trebetasunak pixkanaka garatu ditzaten laguntzea. Haien funtzionamendua ezagutzeak, halaber, baliabide egokienak identifikatzen lagunduko du, hainbat lan sormenez egiteko.

Informatikak eskaintzen dituen aukerak arian-arian barneratzeak erraztu egiten die ikasleei gertaera-musikalean parte hartzea, partituren edizioaren bidez, nork bere ikaskuntzak eraikitzearen bidez, sonoritate eta musika-ekoizpen berrietara irekitzearen bidez, haien gustuak eta gozamen pertsonalerako aukera aberastuz. Gainera, baliabide horietako askok interfaze bat dute beste hizkuntza batean, batez ere ingelesez. Horri esker, musika-hizkuntza tekniko bat beste hizkuntza batean eskuratzeko aukera dago.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: KE1, KD1, KD2, KPSII1.1, HK1, KAKK2.

2. Musika sortzeko, grabatzeko, editatzeko eta erreproduzitzeko hainbat euskarri eta formatu informatiko modu eraginkorrean erabiltzea, banaka edo taldeka, lanerako egokitasunaren arabera hautatuz, eta euren erabilera segurua, arduratsua eta etikoa ziurtatuz, esparru akademiko, pertsonal eta profesionalarekin lotutako beharrak asetzeko.

Konpetentzia hori garatzeak euskarri eta formatu informatikoak modu seguru, etiko eta arduratsuan erabiltzea, datu pertsonalak babesteko neurriak ezagutzea eta musika-edukiak sortu, grabatu, editatu eta erreproduzitzean jabetza intelektualarekiko eta egile- eskubideekiko errespetua ziurtatzea eskatzen du. Horrela, komunikazioa eta tresna digitalen erabilera hobetuko dira edukiak eta artxiboak hainbat formatutan zabaltzeko eta partekatzeko.

Beste pertsona batzuekin hainbat esparrutan informazioa trukatzeko beharrak lan- taldearekiko jarrera arduratsua eta errespetuzkoa eskatzen du, bai testuinguru pertsonalean bai sareko elkarrekintzetan aplika daitezkeenak, tresna digitalen, plataforma birtualen edo komunikazio-sare sozialen bidez.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KD2, KD3, KPSII3.2, KAKK2, KAKK4.1.

3. Soinuaren oinarri fisikoak eta musika-hizkuntzaren ezagutza espezifikoak aplikatzea arte-konposizioan eta -ekoizpenean, hainbat programa eta aplikazio informatikoren bidez, musikaren eta haren adierazpen-aukeren ulermena areagotzeko, baita beste pertsona batzuekin errespetuz eta enpatiaz komunikatzeko ere.

Akustikari eta musika-hizkuntzari buruzko oinarrizko ezagutzak barneratzea baliabide baliotsua da hainbat informatika-programa eta -aplikazio erabiltzean ikasleek horiek txertatzeko aukera izan dezaten. Horrela, musika editatzeko, grabatzeko eta erreproduzitzeko zereginak, ekoizpenak eta jarduerak musika hobeto ulertzeko modua izango dira.

Musikaren fenomenoa ulertzeak areagotu egingo du ikasleek musikaren adierazpen-aukerak ezagutzeko duten gaitasuna, eta beste pertsona batzuekin enpatiaz eta errespetuz komunikatzeko prozesuei eta sormen-egoerei aurre egiten lagunduko die.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KD2, KD3, KPSII3.1, KAKK3.2.

4. Diziplina anitzeko kolaborazio-proiektu berritzaileak eta iraunkorrak sortzea, musikako informatika--programa eta -aplikazioez baliatuz, eskuratutako ezagutzak aplikatuz eta produkzioaren berezko rolak eta zereginak ikuspegi inklusibo batetik hartuz, hazkunde artistiko propioa bultzatzeko, kultura--ingurunea aberasteko eta garapen pertsonalerako, sozialerako, akademikorako edo profesionalerako aukerak identifikatzeko.

Diziplina anitzeko musika-proiektuetan parte hartzea jakintzagaiaren berezko ikaskuntzak sormenezko esparru digitalean aplikatzeko aukera gisa aurkezten da. Bertan, aurrez landutako musika-materialak hauta daitezke, edo beste material berri batzuk sor daitezke, askotariko programa eta aplikazio informatikoak erabiliz. Horrela, arte-ondarea transmititzen eta berezko balioa aitortzen lagunduko da.

Proiektuak modu kolaboratiboan egitean, iritzi-aniztasunarekiko errespetuzko jarrerak lantzen laguntzen da, eta ikasleek funtzio desberdinak beren gain hartzea eta prozesuaren fase guztietan aktiboki parte hartzea eta konpromisoa hartzea sustatzen da. Esperientzia horri esker, musikari lotutako garapen pertsonalerako, sozialerako, akademikorako eta profesionalerako hainbat aukera aurkitu eta identifikatu ahal izango dituzte, iraunkortasun- irizpideak kontuan hartuta.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM3, STEM5, KD3, KD4, KPSII2, KPSII3.2, HK4, EK3, KAKK4.1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Musika-Informatika
1. konpetentzia espezifikoa.
1.1. Hainbat baliabide informatikoren funtzionamendua ezagutzea, musikaren sorkuntzan, grabazioan eta erreprodukzioan eskaintzen dituzten autoikaskuntza, gozamen eta aberaste pertsonaleko aukerak baliatuz.
2. konpetentzia espezifikoa.
2.1. Musikako eduki digitalak sortzea, grabatzea, editatzea eta erreproduzitzea, banaka edo taldeka, zereginerako tresnarik egokienak hautatuz eta erabilera segurua, arduratsua eta etikoa ziurtatuz.
3. konpetentzia espezifikoa.
3.1. Soinuaren oinarri fisikoak eta musika-hizkuntzaren ezagutza espezifikoak txertatzea musika-konposizio eta -ekoizpen txikietan baliabide digitalen bitartez.
3.2. Programa eta aplikazio informatikoak behar bezala erabiltzea, garatu beharreko musika-proposamenen ezaugarrien eta adierazpen-beharren arabera, banaka edo taldean, errespetuz eta enpatiaz.

Musika-Informatika
4. konpetentzia espezifikoa.
4.1. Diziplina anitzeko kolaborazio-proiektuak sortzen aktiboki parte hartzea, produkzio- rolak eta -zereginak modu inklusiboan hartuz, eta garapen pertsonalerako, sozialerako, akademikorako edo profesionalerako aukerak identifikatuz.
4.2 Arte-sorkuntzako zereginetan ekimenez eta erantzukizunez eskuratutako ezagutza teknologikoak aplikatzea, berrikuntza- eta iraunkortasun-irizpideak kontuan hartuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Musika-Informatika
A. SOINUA. MUSIKA HIZKUNTZA.
Soinuaren oinarri fisikoak eta audioaren eboluzioa gaur egunera arte.
Uhin-formak, maiztasuna, anplitudea. Soinu sinpleak eta konplexuak.
Soinu-mailak. Osasunerako eta ingurumen-segurtasunerako garrantzia.
Soinu elektronikoak eta elektroakustikoak.
Musika-hizkuntzaren oinarrizko kontzeptuak. Aplikazio praktikoa informatika musikaleko programetan.
B. MUSIKAREN GRABAZIOA, EDIZIOA ETA ERREPRODUKZIOA.
Soinua grabatzeari, editatzeari eta erreproduzitzeari buruzko oinarrizko nozioak.
Soinua grabatzeko formatuak.
Erreproduzigailu motak, euskarriak eta musika-artxiboak. Biltegiratzea, fitxategiak bihurtzea eta euskarri batetik besterako aldaketa.
Soinuak editatzeko eta musika-sorkuntzan aplikatzeko programak.
Sintesi-soinuak sortzeko programak.
Musika-produkzioaren hastapenak: grabazioa hainbat pistatan, ekualizazioa, iragazkien eta efektuen aplikazioa, nahasketa.
Erabilera-lizentziak eta egile-eskubideak.
C. MUSIKA SORKUNTZA.
Musika-eduki digitalen sorkuntza genero-estereotiporik gabe.
Teknika, baliabide eta korronte estetiko nagusien oinarrizko ezagutza.
Hainbat arte-hizkuntza estimatzeko jarrera.
Ekintzailetza, iraunkortasuna, malgutasuna eta sormena diziplina anitzeko proposamenak egitean.
Ingurune digitalarekin lotutako problemak ebazteko jakin-mina eta ekimena.
Kultura-aniztasunaren eta haren adierazpen- eta komunikazio-moduen balorazioa.

MUSIKAREN ETA DANTZAREN HISTORIA

Musikaren eta Dantzaren Historia jakintzagaiak bi diziplina horien bilakaeraren inguruko ikuspegi orokor bat ematen die ikasleei, eta loturak ezartzen ditu diziplina horiek sortu ziren testuinguruekin. Era berean, ikasleak musikaren eta dantzaren bilakaera historikoaren aldiak (sailkapen tradizionalaren arabera) ezagutzen hasiko dira, antzinaro klasikotik gaur arte, eta historian musika- eta dantza-sorkuntza ulertzeko izan diren moduak landuko dituzte. Horren bidez, ikasleek musikaren eta dantzaren ezaugarriak identifikatu ahal izango dituzte, haien bilakaera ulertzeko, beste adierazpen artistiko batzuekin loturak ezartzeko eta, era horretan, kultura-errepertorioa aberasteko. Gainera, prestakuntza kultural eta artisti-

koa zabalduko dute, musikak eta dantzak artearen historian duten lekuaren ikuspegi orokorrago bat eskuratuko dute, eta iritzi estetiko propioak ezartzeko irizpideak garatuko dituzte.

Historian zehar garatu diren genero eta estilo desberdinetako piezak entzuteak eta ikusteak eta askotariko iturri dokumentalak eta teknologia digitalak erabiltzeak eta aztertzeak, jakintzagaiaren ikuspegi praktikoa errazten dute. Halaber, ahotsaren, gorputzaren eta hainbat musika-tresnaren bidez interpretatzeak eta dramatizatzeak, musika eta dantza esperimentazio eta esperientzia propiotik abiatuta ulertzea eta ekintza artistikoa bizitzea ahalbidetzen dute. Gainera, arte mota horiek garatu diren testuinguruen ikerketak, gustu artistikoek denboran izan dituzten aldaketak ulertzea eta aniztasunean oinarritutako kultura-identitate bat eraikitzea errazten du.

Jakintzagai honetako konpetentzia espezifikoak Batxilergoko funtsezko konpetentzien eta etapako helburuen deskriptoreetan oinarrituta diseinatu dira, zuzenean lotuta daude kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako funtsezko konpetentziarekin, eta kultura-identitatearen, kultura-harreraren, autoadierazpenaren eta ekoizpen artistiko eta kulturalaren ardatzen inguruan garatzen dira. Era berean, ikasleek adierazpen artistikoekiko estimua garatzera, musika-ekintza pentsamendu artistikoarekin lotzera, interpretazioaren eta dramatizazioaren bidez esperimentatzera, aldi historiko bakoitzaren ezaugarririk garrantzitsuenak ezagutzera eta balio-iritzi propioak eta ongi oinarrituak adieraztera bideratuta daude. Konpetentzia horiek lagungarriak dira, halaber, ikasleek entzuteko eta ikusteko prozedurei ekitera, testu-iruzkinak egitera eta musika- eta dantza-adierazpenak gainerako arteekin alderatzera bideratutako tresnak zabaldu ahal izateko. Gainera, argudio kritikoak lantzeko beharrezkoa den kontzeptu-barneratzea sustatzen dute, ikasleen gustu musikal propioa osatzeko eta errepertorio kulturala eta estetikoa garatu eta aberasteko. Ikerketak egitearen, haien emaitzak zabaltzearen eta musika- eta dantza-piezen interpretazioak ikusi eta entzutearen bidez, egile-eskubideei eta jabetza intelektualari buruzko gogoeta etikoa bultzatzen du irakasgai honek.

Jakintzagaiko ebaluazio-irizpideek konpetentzia espezifikoen lorpen-maila zehazten dute, eta behaketa, informazioa biltzeko aukera eta konpetentzia horiek eskuratzearen balorazioa (askotariko ikuspegietan oinarrituta) ahalbidetzeko diseinatu dira.

Oinarrizko jakintzak lau multzotan antolatuta daude. Lehenengo multzoan, «Ikusmen- eta entzumen-pertzepzioa», musika- eta dantza-adierazpenak hartzeko, haien elementuak identifikatzeko eta aztertzeko beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak daude sartuta. Bestalde, «Sorkuntza-testuinguruak», multzoak etapa historikoen, generoen, estiloen, konpositore garrantzitsuen, interpretatzaileen eta musika eta dantzaren eta beste adierazpen artistiko batzuen arteko loturaren berezko jakintzak biltzen ditu. Hirugarren multzoak, «Ikerketa, iritzi kritikoa eta hedapena», ikerketa-prozesuei, iturri fidagarrien erabilerari, egile-eskubideei eta jabetza intelektualari eta teknologia digitalek bi adierazpide horien hedapenean duten eraginari lotutako jakintzak biltzen ditu. Azkenik, «Esperimentazio aktiboa» multzoaren bidez, ikasleek musikaren eta dantzaren bilakaera interpretazio musikalaren, dantza sinpleen praktikaren edo obra adierazgarrien dramatizazioaren bidez ikasteko behar izango dituzten jakintzak sartzen dira.

Jakintzagai honen konpetentzia-ikuspegiari jarraituz, ikasleentzat esanguratsuak diren esperientzietan oinarritutako eta komunikazio-, analisi- eta gogoeta-testuinguruetan landutako jarduerak planteatuko dituzten ikas-egoerak diseinatzea gomendatzen da. Horren bidez, ikasleek egoera horiei aurre egiteko jakintzak baliatzea espero da. Nolanahi ere, egoera horiek, XXI. mendeko erronkei lotuta, diziplinartekotasuna eta jardunak egoera errealetara eramateko aukera erraztuko dituzte. Egoera horiek, halaber, sentikortasuna, sormena, irudimena eta hautemateko eta aztertzeko gaitasuna garatuko dituzten esperientzien, prozesuen, proiektuen, erronken eta zereginen bitartez beren ikaskuntzako protagonista bihurtzea ahalbidetuko diete ikasleei.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Musikaren eta dantzaren ezaugarri teknikoak eta estilistikoak identifikatzea, eskuragarri dauden azterketa-iturriak aztertzearen bidez historian izan duten bilakaera aintzat hartuz, testuinguru jakin batean betetzen duten funtzioa ezagutzeko.

Musika eta dantza adierazpen- eta komunikazio-baliabideak dira, eta, hitzezko hizkuntzaren erabilera gainditzuz, identifikatzen dituen eta askotan bietan batera eboluzionatu duen kode propio bat garatu dute. Aldi bakoitzean, aldatu egiten dira arte mota horien ezaugarri estilistiko bereizgarriak, beren testuingurua definitzen duten beste alderdi batzuekin eta une jakin batean betetzen duten funtzioarekin lotuta baitaude.

Hainbat garaitako piezak entzuteak edo ikusteak eta testu eta partitura adierazgarriak aztertzeak ezaugarri teknikoak identifikatu eta alderatzea eta musikak eta dantzak denboran izan duten bilakaera aintzat hartzea ahalbidetuko diete ikasleei. Gainera, parametro historiko-estetikoak kontuan hartuta, ikasleek piezak beren testuinguruan kokatu ahal izango dituzte, dagokion sorkuntza-ingurunean betetzen zuten funtzioa zehaztu ahal izango dute, eta hori guztia ikasgelan partekatu ahal izango dute azalpen--izaerako ahozko testuen, idatzizkoen edo multimodalen bidez.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, STEM2, KPSII3.1, KPSII4, HK3, KAKK2.

2. Musika eta dantza beste adierazpide artistiko batzuekin erlazionatzea, giza pentsamenduaren bilakaerarekin lotuz, artearen diziplinarteko izaera ulertzeko eta kultura-ondare gisa kontserbatzearen eta zabaltzearen garrantzia baloratzeko.

Beste adierazpen artistiko batzuk bezala, musika eta dantza gizateriaren historiari berari eta hura baldintzatzen duten askotariko faktoreei lotuta daude. Ildo horretan, beste arte mota batzuetako adierazpideen bilakaeraren eta musika- edo dantza-ekintzarekiko erlazioaren ezagutzak, analisiak, ulermenak eta balorazio kritikoak diziplinarteko ikuspegi bat ematen diete ikasleei. Ikuspegi horrek, aberastu egiten ditu ikasleak, eta ondarea kontserbatzearen eta zabaltzearen garrantziari dagokionez, jarrera arduratsua eta errespetuzkoa hartzea ahalbidetzen die. Horri dagokionez, oso baliagarriak dira teknologia digitalak liburutegi eta bilduma digitalerako sarbidea errazten baituzte eta, horren bitartez, literatura-testuak kontsultatzeko edo, besteak beste, artelan plastikoak edo dekorazio-arteetako obrak ikusteko aukera ematen dute.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM2, KD1, KPSII4, HK1, KAKK1, KAKK2.

3. Hainbat garai eta estilotako musikako eta dantzako obra garrantzitsuen pasarte musikalak edo egokitzapenak elkarlanean interpretatzea, dramatizazioaren eta ahotsaren, gorputzaren eta hainbat tresnaren erabileraren bidez, gertaera artistikoa bizi ahal izateko eta norberaren esperientziatik ulertzeko.

Musika eta dantza gizateriari gauzak adierazteko balio izan dioten bi adierazpen artistiko dira. Hori dela eta, haiek ikasteko, ikasleek, bere baitan esperimentatu ahal izateko, hainbat alditako musikarekin eta dantzarekin esperimentatu bere baitan ahal izateko jarduerak antolatu behar dituzte, bi diziplinetako obra garrantzitsuak interpretatuz edo dramatizatuz.

Hainbat aldi historikotako musika-tresna edo ahots bidezko piezen eta dantza sinpleen egokitzapenak interpretatzeak, aldi historiko jakin bateko musikan eta dantzan praktikoki murgiltzea ez ezik, haiek ezagutzea eta jatorrizko piezekin eta bi adierazpide artistiko horien ondorengo bilakaerarekin alderatzea errazten du. Era horretan, musika- eta dantza-ondarearen aberastasunaz jabetuko dira ikasleak.

Interpretazio-zereginak elkarrekin egiteak, gainera, zenbait balio eskuratzea dakar, hala nola errespetua, kolaborazioa eta talde-lana.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, KPSII1.1, KPSII3.1, KPSII3.2, KAKK3.1, KAKK3.2, KAKK4.1, KAKK4.2.

4. Musikaren eta dantzaren historiako konpositore, interprete eta obra nagusiei buruz ikertzea, informazio-iturri fidagarriak erabiliz, interpretazio-korronte desberdinak aztertzeko eta musika-ondarearen aberastasunari eta norberaren kultura-identitateari buruzko gogoeta egiteko.

Musika- eta dantza-proposamenen ikerketaren, analisiaren eta balioespen kritikoaren bitartez, irizpide propioa eskuratzeak eta eraikitzeak jarrera irekia eta harkorra garatzen laguntzen du, eta jarrera horrek ikuspegi zabala ematen die ikasleei, munduan kokatzeko, aniztasunarekiko onarpen- eta errespetu-jarrerarekin. Informazioa iturri fidagarrietan (analogikoetan zein digitaletan) bilatzearen bidez, ikasleek autonomiaz ikertu dezakete musikaren eta dantzaren historia.

Musikaren eta dantzaren bilakaera haien testuinguruan aztertzeak artearen eta kulturaren garapenari eta bilakaerari dagokionez, etorkizunak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko kultura-identitate propioaren garapena errazten du. Ildo horretan, ikasgela gune egokia da sorkuntza edo interpretazio musikalaren eta eszenikoaren inguruko gogoeta sustatzeko, obrak konposatzen edo interpretatzen dituztenen nortasun artistikoaren adierazpide diren heinean.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, STEM2, KD1, KD2, KPSII1.1, KPSII4, HK1, KAKK1, KAKK2.

5. Musikaren eta dantzaren bilakaerari buruzko iritzi eta ideia propioak, informatuak eta oinarrituak transmititzea, tresna analogikoak eta digitalak erabiliz, argudio teorikoak eta estetikoak azalduz, hiztegi teknikoa behar bezala erabiliz eta obrak sortu diren testuingurua kritikoki aztertuz, gertaera musikalaren inguruko komunikazio-gaitasuna garatzeko.

Musikak eta dantzak historian izan duten bilakaerari buruzko ideia eta iritzi propioak, informatuak eta oinarrituak transmititzeak musika- eta dantza-ekintza hobeto ulertzea bermatzen die ikasleei. Horretarako, garrantzitsua da ikasleek hainbat iturri kontsultatzen ikastea eta informazioa bilatu, hautatu eta berriz lantzeko estrategiak garatzea, norberaren ideien eta iritzien oinarri izango diren datuak atera ahal izateko. Beharrezkoa da, halaber, jakintzagaiaren berezko hiztegi espezifikoa eskuratzea, argudioak behar bezala adierazi ahal izateko.

Alde horretatik, musikaren eta dantzaren inguruko alderdi teoriko eta estetikoen ikuspegi kritiko bat garatzeko aukera eskainiko zaie ikasleei. Ikuspegi kritiko hori partekatzeko, obren sorkuntza-testuingurua kontuan hartuko duten eta egile-eskubideak eta jabetza intelektuala errespetatuko dituzten musika-lanak, erreseinak edo iruzkinak (ahozkoak, idatzizkoak edo multimodalak) egitea proposatzen da. Ildo horretan, aplikazio digitalak informazioa hainbat formatutan komunikatu edo zabaltzeko laguntza gisa erabiltzeak musika-ekintza komunikatzeko gaitasuna hobetzen lagunduko die ikasleei.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KD2, KD3, KPSII1.1, KPSII5, HK3, KAKK1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Musikaren eta Dantzaren Historia
1. konpetentzia espezifikoa.
1.1 Hainbat garai historikotako musikaren eta dantzaren ezaugarri teknikoak eta estilistikoak ezagutzea, adierazpen artistikoak aktiboki entzutearen eta ikustearen zein partitura eta testu adierazgarriak aztertzearen bidez, aniztasun artistikoa aintzat hartuz.
1.2 Musikak eta dantzak hainbat testuingurutan betetzen duten funtzioa zehaztea, adierazpen artistiko horien ezaugarrien eta aldiaren bereizgarriak diren gertakari historiko-estetikoen arteko loturak ezarriz.
2. konpetentzia espezifikoa.
2.1 Musikaren, dantzaren eta beste adierazpen artistiko batzuen arteko loturak testuinguru analogiko eta digitaletan azaltzea, partekatzen dituzten baldintzatzaile historikoak eta oinarri estetikoak identifikatuz eta haien diziplinarteko izaera ulertuz.
2.2 Ondare musikal, eszeniko eta artistikoak garai baten adierazpide gisa duen garrantzia baloratzea, haren kontserbazioaren eta hedapenaren inguruko jarrera arduratsua eta errespetuzkoa agertuz.

Musikaren eta Dantzaren Historia
3. konpetentzia espezifikoa.
3.1 Hainbat garai eta estilotako musikako eta dantzako obra garrantzitsuen pasarteak edo egokitzapenak gorputzaren, ahotsaren edo musika-tresnen bidez eta kolaborazioan interpretatzea edo dramatizatzea.
3.2 Musika- eta dantza-ondarearen aberastasuna baloratzea, interpretazioen egokitzapenean eta jatorrizko obrekiko kontrastean aldi jakin bateko ezaugarriak ezagutzearen bidez.
3.3 Interpretazioetan aktiboki parte hartzea, esleitutako funtzioak bere gain hartuz eta proposatutako errepertorioa ezagutzeko eta horretaz gozatzeko interesa agertuz.
4. konpetentzia espezifikoa.
4.1 Interpretazio-korronteak kritikoki aztertzea, obra beraren hainbat bertsio musikal alderatuz eta dagokion garaiko estetikarekiko lotura identifikatuz.
4.2 Musikaren eta dantzaren historiako konpositore, interprete eta obra nagusiei buruzko ikerketetan iturri analogiko eta digital fidagarriak erabiltzea, informazioa bilatu, hautatu eta berriz lantzeko estrategiak aplikatuz.
4.3 Norberaren kultura-identitateari buruzko gogoeta egitea, egindako ikerketen bidez musika-ondarearen aberastasuna sentikortasun eta errespetuarekin baloratuz.
5. konpetentzia espezifikoa.
5.1 Musikaren eta dantzaren bilakaerari buruzko informazioa bilatu, hautatu eta berriz lantzeko estrategiak aplikatzea, hainbat iturri dokumental, analogiko eta digital era fidagarri eta arduratsuan erabiliz eta egile-eskubideak eta jabetza-intelektuala errespetatuz.
5.2. Sorkuntza-testuinguru jakin batean musika- eta dantza-ondareari lotutako alderdi teorikoak eta estetikoak kritikoki aztertzea, iritzi eta ideia propioak, informatuak eta oinarrituak hiztegi egokiarekin adieraziz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Musikaren eta Dantzaren Historia
A multzoa. Ikusmen- eta entzumen-pertzepzioa.
Hainbat aldi historikotako musikaren eta dantzaren ezaugarri estilistikoak entzumen- eta ikusmen-mailan: identifikazioa eta analisia.
Hartze artistikoaren alderdi soziokulturalak. Formatuen bilakaera eta publikoaren garapena.
Testuak eta partiturak entzun, ikusi eta aztertzeko estrategiak.
Aniztasun artistikoaren onarpena.
B multzoa. Sorkuntza-testuinguruak.
Musika-sorkuntzan eragina duten faktore kulturalak, sozialak, ekonomikoak eta politikoak. Musikaren eta dantzaren funtzio soziala.
Musikak eta dantzak historian izan dituzten ezaugarri eta bilakaera estetikoak eta estilistikoak.
Musikako eta dantzako korronte, eskola, egile, interprete eta obra adierazgarri nagusiak, Antzinaro klasikotik gaur arte.
Interpretearen zeregina historian.
Musika eta dantza, eta beste arteekin duten erlazioa.
Musika- eta dantza-ondarea ezagutu, errespetatu eta zabaltzeko interesa.
Besteen ideia eta sentimenduekiko sentikortasuna baterako sorkuntza-zereginetan.
C multzoa. Ikerketa, iritzi kritikoa eta hedapena.
Musika-ikerketa: informazioa bilatu, hautatu, tratatu eta zabaltzeko prozesuak. Musika-ikerketarako iturriak: fidagarritasuna eta baliotasuna.
Teknologia digitalak musikaren eta dantzaren hedapenean. Erreseina, iruzkin eta kritika musikalak. Egile-eskubideak eta jabetza intelektuala.
Autokonfiantza eta autoestimua iritzi kritikoak ematean eta sentimenduak eta emozioak adieraztean.
Kultura-identitatea: aniztasuna eta kide izatearen sentimendua.

Musikaren eta Dantzaren Historia
D multzoa. Esperimentazio aktiboa.
Musika-errepertorioko obra egokituak edo pasarte musikal adierazgarriak interpretatzeko teknika sinpleak.
Hainbat garai historikotako dantza sinpleen praktika.
Ahots-musikako testuak dramatizatzeko estrategiak eta oinarrizko teknikak, eta haien dramatizazioa.
Musika- eta dantza-interpretazioan eta interpretazio eszenikoan erantzukizunak bere gain hartzeko, aktiboki parte hartzeko eta gozatzeko estrategiak.

PINTURA

Historian zehar, pintura inguruko errealitatea eta imajinario pertsonal eta kolektiboa irudikatzeko bitartekoa izan da.Pintura komunikabide sozial, erlijioso eta politiko gisa erabiltzea funtsezkoa izan da XIX. mendean argazkigintza asmatu zen arte, ordura arte pinturaren funtzio nagusia zenetik askatu baitzuen: “errealitatearen” irudikapena. Pintura, batez ere, ideia eta sentimendu pertsonal eta kolektiboen adierazpide bihurtzen da.

Adierazpen-beharrak bezala, materialak, tresnak eta prozedurak eboluzionatu egiten dira denborarekin, eta ondare tekniko-artistiko bat osatzen dute. Ondare hori ezagutzea ezinbesteko baldintza izango da artelanak aztertu edo ekoizteko prest dagoen edozein pertsonaren baliabideak aberasteko.

Pintura 1. mailako jakintzagaia sormenari eta praktika artistikoari buruzko gogoeta baino gehiago da ikasleentzat; arteak gure gizartean duen ahalmen eraldatzailea ezagutzeko eta agerian jartzeko aukera.

Badakigu pinturaren ezagutza eta praktika hertsiki lotuta daudela Batxilergoa amaitzean ikasleen irtee-ra-profilean jasotako funtsezko konpetentziak garatzearekin eta eskuratzearekin. Pinturaren azterketaren bidez, ikusmenaren bidez komunikatzeko eta nolabaiteko konplexutasuna duten proiektu sortzaileak lantzeko gai den nortasun artistikoaren berezko hizkuntza ikertu eta bilatzeko aukera ematen da. Gainera, askotariko arte-ekoizpenen aurrean, norberarenak zein besterenak izan, heldutasun adierazkorra, autoadierazpena eta espiritu kritikoaren garapena lortzea izango da jakintzagaiaren helburu nagusietako bat. Artelanak ezagutzeak eta ekoizteak ezagutzen transferentzia mekanikoa gainditzea, eta estereotipo kulturalak, sexistak, aurreiritziak eta oztopo sozialak gainditzea sustatzen du. Gainera, giza ekoizpen orotan bezala, beharrezkoa da iraunkotasuna kontuan hartzea, bai baliabideen erabileran, bai arte-ekoizpenak sor ditzakeen hondakinen kudeaketan.

Bestalde, ekintzailetza-konpetentzia da gainerako konpetentzia guztien ardatza. Betiere ikuspegi inklusibotik begiratuta, jarduera ororen oinarri gisa, eta kultura- eta arte-ondarearen aniztasuna balioesteak dakarren aberastasuna kontuan hartuta. Irakasgai honetako oinarrizko jakintzak Kultura Kontzientzia eta Adierazpena konpetentziaren sei osagaien inguruan eta horietatik eratorritako sei konpetentzia espezifikoen inguruan artikulatzen dira. Konpetentzia horiek honako hauetan oinarritzen dira: margolanen ezagutzan eta balorazioan, horien azterketan eta teknikak jasotzean, eta lan horien erabileran arte-ekoizpenak egiteko, bakarka zein taldean, prozesu horiek erronka pertsonal eta aukera profesional berrietan txertatuz.

Ebaluazio-irizpideak ezartzeko, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak barne hartu dira.

Honako hauek dira jakintza-multzoak:

A. Ikusizko hizkuntzaren eta pertzepzioaren oinarrizko elementuak eta printzipioak.

B. Materialak: Multzo honetan, antzinatasunetik erabili diren euskarriak, materialak eta teknikak aztertuko dira, baita sailkatzeko moduak, izan ditzaketen elkarreraginak, segurtasuna eta ingurumen-inpaktua ere.

C. Pintura-teknikak: Multzo honetan kolorearen inguruko teknikak landuko dira, hala nola erabili beharreko euskarriak eta horiek arte-ekoizpenetan dituzten aplikazioak, eta teknika bakoitzari lotutako ezaugarri plastikoak eta estilistikoak aztertuko dira.

D. Pintura Artearen Historiaren bidez. Ezagutza, balorazioa eta analisia.

E. Proiektu grafiko-plastikoak. Jarrerak: Multzo hau lotuta dago lanaren antolamenduarekin eta lan artistiko propioen eta besteenen behaketan eta produkzioan garatu beharreko jakintza orokorrekin. Banakako eta taldeko proiektuen plangintza eta portaera-arauak, aniztasunarekiko errespetua, autokritikaren garapena, ahaleginaren balorazioa, porrotaren bidezko ikaskuntza, etab.

Irakasgai hau Batxilergoko lehenengo mailan eskaintzen da, modalitate guztietarako hautazko aukera gisa, eta asteroko saioak ikastetxearen antolakuntzak emango ditu.

Ikaskuntza-egoerek elkarri lotutako lana ahalbidetuko dute. Horrela, lan-munduan eta mundu profesionalean proiektatzen denarekin bat datozen lan-metodologiak jasoko dira, teknologia digitala erabiliz informazioa eskuratzeko, eta ikasleek jakintzagaian inplikazio handiagoa izango dute, eurei prestakuntza osoagoa eta integralagoa eskainiz.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Pintura-artelanak ezagutzea eta baloratzea, adierazpen artistiko desberdinak behatuz, gizarte-, historia- eta kultura-testuinguruarekin erlazionatu ahal izateko eta ondarea kontserbatzeko beharra ulertzeko.

Arte-ekoizpenak kultura-identitatearen eta sortu diren testuinguru sozial eta historikoaren isla dira.

Iraganeko produkzioen aurkikuntzak funtsezko gakoak ematen ditu orainaren interpretaziorako eta etengabeko ikaskuntzarako. Era berean, ondarearen kontserbaziorako erabaki garrantzitsuak hartzea errazten du.

Funtsezkoa da produkzio artistiko oro testuinguruan kokatzea, behar bezala baloratu ahal izateko, artearen historiaren bilakaerari buruzko ikuspegia izateko, eta, horrekin batera, produkzio horiek sorrarazten dituzten gizarteen bilakaeraren berri izateko.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KD1, KPSII1.1, HK1, KAKK1.

2. Pintura-artelanak ikertzea eta aztertzea artearen historiako mugimendu eta aldi desberdinak kontuan hartuz, harrera eta gozamen estetikoa garatzeko eta proposamen horien asmoa eta zentzua ulertzeko, terminologia espezifikoa zuzen erabiliz.

Pintura-lanen azterketa prozesu konplexua da, eta hainbat metodologiatatik heldu behar zaio. Horiek lanaren ikusizko azterketaren osagarriak dira beti, eta haren sinpletasun teknikoa, berehalakotasuna eta aldakortasuna direla medio, lehen hurbilketa-metodotzat har daiteke. Lanaren ikusizko azterketa funtsezko bi lerroren artean dago. Alde batetik, arte-ekoizpenak ikusterakoan ikasleek plazer estetikoa garatzen dute, eta, horrela, beste prozesu kognitibo garrantzitsu batzuk aktibatzen dituzte, hala nola arreta eta memoria. Bestetik, lanen ikusizko azterketaren bidez, ikasleek pertzepzioan zentzu kritikoa hartzen dute, eta horrek aukera ematen die lanak berak edo artistak lan hori sortzean dituen asmoak identifikatzeko.

Aztertutako adibideen artean genero-ikuspegia txertatuko da, emakumeek egindako arte-ekoizpenen azterketaren bitartez.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KD1, KPSII5, HK1, KAKK2.

3. Pintura-ekoizpenen harreran aktiboki parte hartzea, haien sorkuntza-prozesuak ikertuz, haien iraunkortasun-maila eta ingurumen-inpaktua bereizteko gaitasuna garatzeko.

Historian zehar erabilitako teknikak ezagutuz, ikertuz eta aztertuz, ikasleek pintura lanak identifikatzeko eta sailkatzeko gaitasuna garatzen dute. Ekoizpen horiek produktu materialki fisikoak dira eta ingurumenaren aldetik kontuan hartu beharreko elementuak. Ikasleek kontuan hartu behar dituzte gogoeta horiek, lana jasotzen dutenean lan jakin batean erabilitako teknikek, materialek eta prozedurek ingurumenean duten inpaktua hautematen jakiteko. Gainera, arte-ekoizpenaren iraunkortasun hori ondare artistikoaren kontserbazioaren kontzientziarekin osatu behar da, iraunkortasunaren eta arte-ekoizpenen kontserbazioaren artean errespetuzko elkarrizketa ezarriz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, STEM2, KD1, KPSII2, HK2, HK4, KAKK2.

4. Adierazteko gaitasuna garatzea, hainbat material, tresna eta teknikarekin esperimentatuz, norberaren autonomia, sormena eta irudimena garatzeko, eta zentzu kritikoa eraikitzea autoestimuko eta norberaren buruarekiko konfiantzazko giroan.

Pintura-ekoizpenek, beren mugen barruan, esperimentazio-maila handia ahalbidetzen dute, askotariko materialak, tresnak eta teknikak konbinatuz. Alderdi horien ezagutzan sakontzeak askatasun nahikoa ematen die ikasleei beren ideia

pertsonalak irudikatzeko eta sentimenduak irudimenez eta sormenez adierazteko. Trebetasun horiek eskuratzeak aukera ematen die ikasleei inprobisazioan trebatzeko eta proposatutako ekoizpenak erraztasunez gauzatzeko. Ekoizpen horiek ebaztea bultzada bat da ikasleentzat beren hazkunde pertsonalean. Horrek autokonfiantza

giroa sortzen du, eta, aldi berean, beren zentzu kritikoa areagotzen du eta autoestimua handitzen du.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: KE2, STEM1, KPSII5, HK3, EK1, KAKK3.2.

5. Arte-ekoizpenak egitea, banakakoak zein taldekoak, baliabideak egokituz eta gauzatzearen kalitatea baloratuz, ideiak, iritziak eta sentimenduak adierazteko eta norberaren eta besteen lanaren aldeko diskurtso enpatikoa ezartzeko.

Pintura-teknikek baliabide indartsuak eta oso egokiak eskaintzen dituzte edozein gairi buruzko ideiak, sentimenduak eta iritziak modu pertsonal eta askean adierazteko.

Gauzatze-prozesuan, ikasleek prozesuaren uneak, aurrerapena eta tekniken aplikazio egokia ebaluatu beharko dituzte, hala behar izanez gero, egoki iritzitako edozein elementu indartzeko, aldatzeko edo errepikatzeko.

Proiektuak indibidualak direnean, autonomia eta autoestimua garatzen laguntzen dute, baina, aldi berean, etorkizuneko kolaborazio-ekoizpenak aberasteko aukera ematen dute.

Proiektuak kolektiboak direnean, ikasleek besteengandik jasotzen dute, besteei ekarpenak egiten dizkiete, enpatia sortzen dute eta problemak eta gatazkak ebazteari aurre egiten diote, eskuratutako trebetasunak eta teknikak kontzienteago finkatuz.

Banakako edo taldeko proiektuak egiteko edozein fasetan pentsamendu dibergentea sartzeak, proposamenak eraginkortasunez gauzatzea ahalbidetzeaz gain, sormenari lotutako baliabideen integrazioa bultzatzen du, beste diziplina eta proiektu batzuetan aplikatzeko baliagarriak diren lan-dinamika enpatikoak barne hartuz.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: KE2, STEM3, KPSII1.1, KPSII3.1, KPSII3. 2, HK1, HK3, EK1, EK3, KAKK3.1, KAKK4.1.

6. Arte-ekoizpen bat —banakakoa eta/edo kolektiboa— egiteko faseak modu aktiboan planifikatzea eta parte hartzea, proposamen bati eraginkortasunez eta sormenez erantzuteko, eta sortzen diren ondorio inklusiboak, sozialak eta aukera pertsonalak ulertzea, lanbide-aukerekin lotutakoak barne.

Lanaren plangintza eta ekoizpena bukatutako azken produktua adina balio edo gehiago duen osagai bihurtzen da.

Proiektu artistiko kolektibo orok kide guztien inplikazio aktiboa behar du, azken ekoizpena arrakastaz gauzatzeko ez ezik, plangintza- eta sorkuntza-prozesuan esku hartzen duten ikaskuntza guztiak aurrera eramateko ere. Komunikazio-prozesu bat da, eztabaidatzekoa, zalantzan jartzekoa, ideiak trukatzekoa, inklusioa eta aniztasunarekiko errespetua bultzatzen dituena, eta ikasleen garapen pertsonalerako eta sozialerako aukerak balioesten dituena, baita ikasleen lanbide-aukerak ezagutzea ere.

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE2, STEM1, STEM3, KPSII3.1, KPSII3.2, HK2, HK4, EK2, EK3, KAKK4.2

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Pintura
1. konpetentzia espezifikoa.
1.1. Pintura-teknikak eta -estiloak testuinguru sozial, historiko eta kulturalarekin lotzea, artelanak aurreiritzirik gabe behatuz.
1.2. Hainbat garai eta testuingurutako ekoizpenak ezagutzea, teknika eta estilo piktorikoen kultura eta arte-aniztasunak dakarren aberastasuna eta horiek kontserbatzearen garrantzia baloratuz.
2. konpetentzia espezifikoa.
2.1. Arte-ekoizpenak aztertzea, askotariko testuinguru kulturanitzean gozamen estetikoa sustatzeko, hurbiltzeko eta ikasteko askotariko metodologiak ezarriz.
2.2.Arte-ekoizpenen intentzionalitatea eta zentzua erabilitako pintura-teknikekin lotzea, ikusizko azterketarako gaitasuna aktiboki garatuz, terminologia espezifikoa zuzen erabiliz.
3. konpetentzia espezifikoa.
3.1. Pinturak sortzeko prozesuan esku hartzen duten prozedurak, materialak eta tresnak interes handiz ezagutzea, informazioa behatzeko, bilatzeko eta hautatzeko prozedurak aplikatuz, eta horien jasangarritasuna eta ingurumen-inpaktua aztertuz.
3.2. Pintura-teknikak sailkatzea, haien testuinguru historiko, komunikatibo eta adierazkorrari jarraiki, aurrez pentsatutako ideiarik gabe, aldi eta artista garrantzitsuenen artelanak aztertuz.
4. konpetentzia espezifikoa.
4.1. Pintura-hizkuntzaren bitartekoekin modu sortzailean esperimentatzea, adierazpen pertsonal eta autonomorako gaitasuna garatuz, proposamen askeek zein orientatuek motibatutako arte ekoizpenak sortuz.
4.2.. Sormenez eta irudimenez inprobisatzea, pintura-teknika desberdinekin banakako proiektu batean, zentzu kritikoa eraikiz eta hazkunde pertsonala sustatzen duen autoestimua garatuz.
5. konpetentzia espezifikoa.
5.1. Adierazpen- eta komunikazio-egoera bakoitzerako baliabide egokiak sormenez hautatzea, arrazoi jakin batekin ekoizpen plastikoak egitean aplikatuz
5.2.Proposamen artistiko indibidualak eta kolektiboak trebetasunez eta teknika kontrolatuz ebaztea gai zehatzen bidez.
6. konpetentzia espezifikoa.
6.1. Pintura-lan baten produkzioa planifikatzea, sormenez eta irudimenez banakako edo kolaborazioko proposamen zehatz batera egokitzeko baliabide egokiak hautatuz, haiek ebaztean sortzen diren aukera pertsonalak, sozialak eta inklusiboak baloratuz.
6.2. Proiektu artistiko kolektibo baten faseetan aktiboki inplikatzea, kohesioa, integrazioa eta inklusioa sortuz, eta proiektua norberaren esperientziarekin aberastuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Pintura
Ikusizko hizkuntzaren eta pertzepzioaren oinarrizko elementuak eta printzipioak.
Espazioa antolatzeko oinarrizko egiturak.
Pertzepzio-kategoriak: norabidea, oreka, pisu bisuala, herenaren legea, urrezko sekzioa, forma, kolorea, espazioa, argia, perspektiba, mugimendua, dinamika, erritmoa, adierazkortasuna.
Materialak.
Pinturari lotutako materialak, tresnak eta euskarriak. Ezaugarriak eta terminologia espezifikoa.
Pintura-teknikei lotutako euskarriak, tresnak, pigmentuak, aglutinatzaileak eta disolbatzaileak. Eboluzio historikoa. Materialen arteko elkarrekintza.
Material artistikoen segurtasuna, toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua.
Pintura- teknikak.
Teknika lehorrak: grafitozko arkatzak, ikatz-ziria, arkatz konposatuak, sanginak, barra koipetsuak, kolorekoak eta pastelak. Aplikazioa lanak egitean
Teknika hezeak eta mistoak. Tinta eta bere tresnak. Aplikazioa lanak egitean.
Teknika solidoak, oliozkoak eta mistoak. Arrautza-tenplea. Enkaustadurak. Pastelak. Olioak. Urarekin nahas daitezkeen olioak. Pintura biodegradagarriak. Aplikazioa proiektuak eta lanak egitean.
Pintura historian zehar.
Estilo eta garai askotako pintura-lanak: analisi teknikoa eta prozedurazkoa.
Euskal Herriko jatorrizko obrak. Aberastasuna eta adierazpen-balioa.
Proiektu grafiko-plastikoak.Jarrerak.
Proiektu-metodologia.
Proiektu grafiko-plastikoak planifikatzeko eta garatzeko estrategiak.
Lan-taldeen antolamendua.Parte-hartze aktiboa berdintasunean, ikuspegi inklusiboa, ez-sexista eta diskriminatzen duten estereotipoak gainditzekoa hartuz.
Diziplina- eta erantzukizun-ohiturak talde-lanean.
Pintura-lan bat egiteko prozesua.
Autonomia eta zorroztasuna lanak egitean eta/edo egikaritzean.
Proiektu grafiko-plastikoen erakusketa eta hedapena.
Proiektu grafikoen faseak eta emaitzak ebaluatzeko estrategiak. Errorea hobetzeko eta ikasteko aukera gisa.
Ingurumen-jasangarritasuna.
Jakin-mina, jarrera irekia eta sentsibilitatea artearekiko eta haren norabide berriekiko.

PSIKOLOGIA

Psikologia 2.go mailako jakintzagaia duen helburu nagusia Batxilergoan, prozesu mentalak eta jarrerak aztertzen dituen zientzia den aldetik, ikasleei beraien eta besteen prozesu mental eta jarrerak ulertzeko beharrezkoa duten esparru kontzeptual eta metodologiko bat eskaintzea da. Esparru horretatik abiatuta, ikasleak bere burua ulertu ahalko du, bere ingurukoak ulertzen dituen aldi berean, beti ere garapen pertsonala eta ongizate mental eta emozionala helburu dituelarik. Helburu nagusi honi lotuta beraz, materiak izaera teoriko-praktikoa izan behar du. Gure prozesu mentaletan parte hartzen duten faktoreen, teoria psikologikoen edo teknika ezberdinen erabilpenen gaineko ezagutzak, ikasleari bere burua koka-tzeko erreferentzia bat ematen diote. Ikerketa eta esperimentuen presentziak jorratu beharrekoaren barruan, ikasleen interesei lotuak izan behar direnak (kontestua, etapa eta garaia kontutan hartuta), hauen kezka eta zalantzei erantzun bat topatzeko bidea

eman behar diete. Nerabezaroa autoezagutzaren eta identitatearen eraikuntzaren aroa da besteen gainetik, eta horregatik hain zuzen ere, materia honek ibilbide guztietako ikasleengan izan dezakeen onura handia da horrela planteatuta.

Psikologia jakintzagaiak, ikasleei jarreren atzean dauden prozesu mentaletaz jabetzen laguntzen dien heinean, eta norbere burua eta besteak ulertzeko bide ematen dien heinean, batxilergoko funtsezko gaitasunen eta etapako helburuen garapen integraturako espazio egokia eskaintzen du. Materia honek gizakia du aztergai, egiten duen guztia eta honen zergatiak. Baina guztiz ulertzea ezinezkoa den honi, hurbilketa zientifiko bat egitea da hain zuzen psikologiaren balore nagusietako bat. Horregatik, funtsezko konpetentzia guztiak lantzen badira ere, lau dira bereziki jorratzen direnak: STEM eta Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko konpetentzia psikologiaren izaerari lotuta; eta Herritartasunaren konpetentzia zein Ekintzailetasunaren konpetentzia, proposamen honetan planteatzen diren ezagutzen gaineko hausnarketa kooperatiboa eta ikerketa lan lerroei lotuta hurrenez hurren.

Arlo honek etapako gainerako arloekin duen harremanari dagokionez, Psikologia humanitateen eta zientzien arteko lotura egiten laguntzen du, ikasleek aukeratzen duten ibilbidea edozein dela ere. Ikerketa objektua gizakiaren jarrera eta hau eragiten duten prozesu mentalak izanik, gure bizi esperientziarekin modu batean edo bestean harreman bat duten humanitateetako eremu guztiekin lotzen du (Filosofia, Artea, literatura…). Ikerketa burutzeko moduak ordea, jakintza zientifikoaren barnean kokatzen diren arloekin lotzen du (Matematika, Biologia, Anatomia…). Ezin dugu ahaztu bestalde, Gorputz heziketarekin duen harremana ere, adimena eta gorputzaren arteko banaezintasunaren harira. Proposamen honen izaera teoriko-praktikoa kontutan hartzen badugu ere, hausnarketaren eta ikerketen presentziak agerian uzten du ere Psikologia arloaren bi aurpegiak. Norbere burari buruzko gogoetak eta norberaren ulermen sakonago bat bereganatzeak onura ikaragarriak ditu zentsu guztietan, heldutasun maila honek ikasleen heziketa prozesuan dakartzan ondorio positiboekin. Hurbilketa zientifikoaren ezaugarriek muga batzuen barruan mugitzen laguntzen diete bestalde, frogak eta ebidentziak balioa azpimarratu eta bilatzen laguntzen dielarik, posible denean.

Konpetentzia espezifikoei dagokionez, zortzi puntutan antolatuta dago materia. Lehen bi konpetentziak psikologiaren gaineko jakintzekin lotuago daudenak dira, lehena psikologiaren oinarrizko kontzeptuekin eta bigarrena teoria psikologiko nagusiekin. Bietan, informazioa ulertzea da helburua, baina baita honen gaineko hausnarketa egitea eta kontzeptu zein teoriek duten garrantziaz jabetzea ere. Hirugarren konpetentziak psikologian dauden hamaika eztabaidei egiten die erreferentzia. Hauen artean garrantzitsuenak errotikoak diren heinean (izaera, metodoak, definizioak…) hurbilketa ireki eta gogoetatsua izan behar da, auzi hauen gainean dauden ikuspuntu ezberdin eta anitzak ulertu eta posizio propioa eraiki dezan ikaslegoak. Laugarren konpetentzian psikologiaren eremu profesionalera begira jarri nahi ditugu ikasleak, harekin lotutako ikasketak edo lana buruan dutenentzat, baina baita ere psikologiaren aplikazio ezberdinak ezagutu nahi dituztenentzat. Bostgarren konpetentziaren helburua, gure ideia eta jarreren atzean dagoen faktore psikologikoaren presentziaz, haren izaeraz eta gure bizitzan duen eraginaz jabetzea da. Seigarren konpetentzian aldiz, eta aurrekoan hasitako bidearekin jarraituz, ikasleari psikologiako materian ikasten duena bere kudeaketa pertsonalean aplikatzeko estrategiak emango zaizkio. Arlo honen helburuetako bat norbere burua ezagutzea da, eta ezagutza hau norberaren ongizate emozionalerako erabiltzea. Zazpigarren konpetentzian ikasleek estrategia batzuk barneratzea da bilatzen dena ere, baina kasu honetan, eta ikaste prozesuarekin harreman estuan dauden prozesu psikologikoak aztertuko ditugunez kurtsoan zehar, ikasleen heziketan lagungarriak suertatu ahal zaizkien teknika eta jakintzetaz ari gara. Azken konpetentziak, elkarrizketa kooperatibo eta argudiatuari egiten dio erreferentzia. Nahiz eta psikologia zientzia bat izan, argi dago eztabaidagarriak diren auzi asko daudela, edo eta hausnarketa sakon bat eskatzen dutenak. Interesgarria da ere elkarrizketa hauek ikasleak motibatzeko eta euren buruetan galderak sustatzeko erabiltzea ere, batez ere gaien sarrera gisa. Hau honela, elkarrizketa hauen helburua ikasleek gai hauei buruz gogoeta egitea da, psikologiaren gaineko jakintza sakonago bat lortzen duten bitartean hausnarketa kooperatibo eta argudiatu batek dakartzan onura guztiak barneratzen dituztelarik ere.

Ebaluazio-irizpideei dagokienez, adierazitako gaitasun espezifiko bakoitzari zuzenean lotuta formulatzen dira, eta diagnostikorako eta hobekuntzarako tresnatzat hartu behar dira horiek eskuratzetik espero den

jardun-mailari dagokionez. Horregatik, oinarrizko jakintzei dagokienez, ikaskuntza-prozesuei eta -produktuei berei erreparatu behar diete, eta, behar bezala gauzatzeko, askotariko ebaluazio-tresnak behar dituzte, gaitasunen garapena zehaztu behar den ikaskuntza-testuinguru eta -egoeretara egokitu daitezkeenak.

Oinarrizko jakintzak, eduki kopuru oso ezberdinak dituzten zortzi multzotan antolatuak daude. Multzo hauek psikologiak barne hartzen duen eremu aberats eta zabalaren oinarrizko eta osotasunezko ikuspegia ematera bideratuta daude. Oinarrizko jakintza hauen helburu bat da ere, psikologiari hurbilketa teorikoaz gain, honen beharrizana gutxietzi gabe, jakintza hauek errealitatearekin lotzea, ikasleenarekin kontu handiz eta posible baldin bada. Hau honela, lehen multzoan gaiarekiko oinarrizko hurbilketa bat planteatzen da, psikologiaren zabaltasunaren ikuspegi orokor bat ematen diena ikasleei. Bigarren multzoan portaeraren oinarri biologikoak aztertzen dira. Hirugarren eta laugarren multzoetan prozesu kognitiboak aztertzen dira, oinarrizkoak eta goi mailakoak hurrenez hurren. Bostgarren multzoan gizakiaren eraikuntzan parte hartzen duten faktore psikologiko nagusiak aztertzen dira: motibazioa, nortasuna eta afektibitatea. Seigarren multzoan asaldura eta nahasmendu psikologikoak aztertzen dira, hauen ezaugarriak sailkapenak eta sailkapen nagusietan zentratuz. Zazpigarren multzoaren helburua psikologiak errealitatean duen presentzia aztertzea da, zentsurik eta zabalenean, eta aurretik aipatutako erabilgarritasun praktikoari begira. Bukatzeko, zortzigarren eta azken multzoan, psikologia soziala eta erakundeen psikologia ditugu aztergai, gaiaren eremu handietako bat zalantzarik gabe.

Psikologiaren gizarte zientzia izaeraren harira, eta gizakiak bere burua ezagutzeko saiakera bat denez batez ere, honen konplexutasuna kontuan hartzen duen hurbilketa bat egin behar dela gogoratu nahi dugu berriz, hurbilketa zientifikotik harago doana eta jakintzen aurkezpen programatiko soiletik harago doana. Zentsu honetan, funtsezkoa da elkarrizketa kooperatibo argudiatuek izan behar duten papera, eztabaidagai diren auzietan eta hortarako aproposak diren materialak erabilita, ikasleen motibazioa zein gogoeta bultzatzeko. Honelako jarduerek bide eman diezaiokete baita ere, ikasleek arloko jakintzen gaineko zalantzak plazaratzeko eta hauek, euren garapen pertosonalean zein ongizate emozionalean nola lagundu diezaioketen puntuari lasaitasunez heltzeko.

Tokiko ikuspegiak, genero-ikuspegiak eta ikuspegi inklusiboak hezkuntza-praktikan

integratuta egon daitezen, eta adibideak, erreferente artistikoak, kulturalak, antropologikoak, linguistikoak edo sozialak erabili behar direnean, kontuan izan behar ditugu aniztasuna (funtzionala, sexuala, afektiboa, ekonomikoa, jatorrikoa...), genero-berdintasuna eta euskal dimentsioa, beste kultura-dimentsio batzuei dagokienez, beharrezkoa izanez gero. Adibide horiek erreferentzia izan behar dute pentsamendu kritikoa eta pentsamendu gogoetatsua garatzeko.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Psikologiaren oinarriei buruzko informazioa zuzentasunez interpretatzea eta transmititzea, iturri fidagarrien erabilera segurua, eta edukien azterketa zorrotza eginda, psikologiaren gaineko oinarrizko edukien ezagutza bereganatzeko eta hauen inguruko gogoeta sustatzeko, jarrera ikertzailea eta autonomoaren bitartez.

Psikologiako oinarrietara doa lehen konpetentzia hau. Helburua psikologiari sarrera bat egitea da, ikasleentzat guztiz berria den arlo bat dela kontuan hartuta. Hau honela, ikasleek psikologiaren sorrera eta hastapenak, definizioa eta izaera, ikerketa eremua, adarrak, teknikak, metodoak… bezalako auzien gaineko informazioa ulertu eta interpretatzeko gaitasuna landuko dute. Bide honetan, ikasleek irakasleengandik jasoko dute informazioa batzutan, baina euren kabuz ere bilatuko dute beste batzutan, eta hemen iturri fidagarrietara jo beharko dute. Ideia, bide batetik zein bestetik jasotako informazioarekin, edukien azterketa zorrotza egitea da edozein kasutan, informazio honen barneratze hutsetik haratago haren gaineko gogoeta ikertzaile eta autonomoa sustatuz. Informazio garrantzitsua bilatzeko eta antolatzeko prozesu hau, bai ingurune digitaletan bai analogikoetan, kurrikulum osoan lantzen diren irizpide eta prozeduren menderatze batetik abiatzen da. Era berean, ezagutzak ekoizteko eta transmititzeko,

metodoak eta protokoloak menderatzea beharrezkoa da. Bukatzeko, garrantzitsua da, gaiaren sarrera den honetan, eta oinarrizko ezagutzekin lotua dagoelako batez ere, ikasleen jakin-mina piztea motibazioa pizteko. Zentsu honetan, aurretiko ezagutzekin lotutako jarduerak funtsezkoak dira, galderak eta zalantzak mahai gainean jartzen dituztenak, erantzun eta edukien zuzentasunean zentratu ordez. Fase hau ezinbestekoa da arloan modurik eta onenean sartzeko, eta egingarria da guztiz, psikologiaren ikerketa objetua norbanakoen jarrerak eta hauen atzean dauden prozesu mentalak direla kontutan hartuta.

Konpetentzia hau deskriptore hauekin dago lotua: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, HK1.

2. Psikologiako eskola garrantzitsuenen ideia eta teoria nagusiak beren testuinguru historikoan ulertzea, ideia eta teoria horien analisiaren bidez eta erantzuten dieten auzi eta galderen azterketaren bidez, psikologian dagoen ikuspuntu ezberdinen arteko aldeak ulertzeko, eta teoria hauen eragin kultural, sozial eta historikoaz nahiz ondare komunari egiten dioten ekarpenaz jabetzeko.

Psikologiaren historian agertu diren ideia eta teoria nagusiak kultura-ondare komunaren parte dira eta ikasleak hortaz jabetzea garrantzitsua da. Honetarako, psikologia eskolen ideia eta teoria hauen ezagutza ezinbestekoa da, eta hau lortzeko teoria eta ideia hauek zer galderari erantzuten dieten barneratu behar da. Historian zehar psikologia eskola eta psikologo garrantzitsuenek formulatu eta eztabaidatu dituzten ikusmolde eta ideia horiek gure ondare kulturalaren emaitza eta haren bultzatzaile dira aldi berean, eta harreman hau ulertzea garrantzitsua da. Gizakiak bere jarrera eta pentsamenduei buruz planteatzen dituen galderen gaineko erantzun zientifiko bat emate nahian jaiotzen da psikologia azken finean. Guzti hau esanda beraz, eskola eta psikologo garrantzitsuenen teoriak ulertzea da konpetentzia honetan helburua, bai. Baina ezinezkoa da hau benetan lortzea, ondare kultural zabalarekin eta abiapuntuan dauden galderekin harremanetan ez bada, kontestu baten barruan egin ezean. Bestalde, argi dago psikologiak bere auzi bakoitza formulatzeko eta lantzeko erabili dituen termino, kontzeptu eta teorien emaria ulertzea eta erabiltzea ezin dela egin ere, ez bada haien benetako esperientziekin lotua. Beraz, ikasleei ideia guzti hauek euren errealitatearekin lotzen laguntzen dioten hurbilketa baten planteamendua ezinbestekoa da irakaslearen partetik. Honen faltan, oso zaila da ikasleentzat teoria hauek benetan ezagutzea, baloratzea eta berrinterpretzea.

Konpetentzia hau deskriptore hauekin dago lotua: HKK2, HKK3, KE1, STEM4, HK1.

3. Psikologiaren baitan eman diren eta ematen diren eztabaida nagusiak zeintzuk diren ulertzea, batez ere haren izaera eta metodologia zientifikoari lotutakoak, hala nola kontzeptuen definizioekin lotutakoak, gai honen inguruko informazio fidagarria bilaketa eta azterketa kritiko baten bidez, psikologiaren baitan dagoen anistazunaz jabetu eta auzi hauen inguruko posizio propio bat eraikitzeko.

Psikologia izaera mistoa duen jakintza bat dela esan dezakegu. Gizarte zientzien metodologia erabiltzen du gehienetan, honek natur zientziekin duen aldea kontutan hartu behar dugularik lehenik eta behin, baina haren ikerketa objektuak ere, gizakiaren jarrera eta haren atzean dauden prozesu mentalak alegia, ezinezkoa egiten du beti metodologia honetara mugatzea ez eta baieztapenen objetibotasun batetaz hitzegitea. Hau honela, psikologiaren baitako auzi batzuen gaineko adostasuna totala edo handia izanik ere, beste auzi askotan ikuspuntu anitzak daude. Hala ere, eta egitate hori akats edo disfuntzio gisa hartu beharrean, psikologiaren berezko ezaugarri gisa ulertu behar da, plurala eta argudiaketari irekia dagoela ulertuta, era berean, elkarrizketa arrazional ireki eta konstruktibo bat gauzatzeko abagune bat bezala. Garrantzitsua da ikasleek psikologiaren izaera bikoitz hau ulertzea beraz, zientifikoa eta eztabaidari irekia aldi berean. Ideia honen barneratzeak soilik, lagunduko die auzi hauen gaineko eztabaidan motibatuak murgiltzea, eta psikologiak barnehartzen duen ezagutza eremuaren zabalkundea eta konplexutasuna benetan ulertzea. Behin guzti honetaz jabetuta, eta psikologiaren baitan eztabaida gai nagusiak zeintzuk diren jakinda (izaera, metodoa, definizioak…) eta hauen gaineko ikuspuntu anitzen informazio fidagarria jasota, auzi hauen gaineko hausnarketari elkarrizketa kooperatibo argudiatuaren bidez heltzea da helburua. Ikasleei, psikologian bertan gertatzen den moduan, auzi hauen gaineko posizio propioak eraikitzen lagundu diezaieketen hausnarketak.

Konpetentzia hau deskriptore hauekin dago lotua HKK2, HKK3, KE1, STEM2, KD1, KPSII2, HK3.

4. Psikologiak eremu profesionalean duen presentzia ikertzea, eta eremu ezberdinetan dagoen estruktura eta erabiltzen diren lan egiteko modu eta ildo nagusiak aztertzea, adibide errealetatik abiatuta, lan eremu hauen eta lan ildo, teknikak eta dagozkien kode deontologikoak aztertuz, psikologiako ikasketen eta psikologiak dituen aplikazio profesionalaren gaineko ideia erreal bat eraiki ahal izateko, bai erabiltzaile bai eta emaile potentzial gisa.

Psikologia disziplina akademiko bat da, eta hori dela eta du bere lekua hezkuntza kurikulumean. Baina psikologia zientzia bat, eta esparru zabal bat hartzen duen lan eremu bat ere bada, eta garrantzitsua da ikasleek psikologiak duen zabaltasun hortaz jabetzea. Konpetentzia honetan psikologiaren alderdi profesionalean zentratuko gara. Egia esan, momentu baten ere ez ditugu alde batera utziko alderdi akademikoa eta zientifikoa, psikologiarekin lotutako goi mailako ikasketetaz eta ikerketa zientifikoarekin lotutako irtenbide profesionaletaz arituko bai gara ere zentsu batean, baina konpetentzia honen helburua psikologiak gure gizartean duen eremua aztertzea den heinean, lan munduarekin duen harremanaren azterketaren bidez egingo dugu hurbilketa. Hau honela, helburua ez da psikologiarekin lotutako lanbideak zeintzuk diren ezagutzea, baizik eta adibide errealetatik abiatuta, mapa handi honen ikuspegi osoa izatea eta eremu anistazun honen barruan dauden lan ildo ezberdinen oinarriak eta teknikak aztertzea, kode deontologikoekin batera. Aldi berean, lan eremu hauek psikologiako ikasketekin duten lotura ere mahai gainean jarri nahi da, ikasleek psikologiak errealitatean duen inplementazioaren ideia orokor bat jaso dezan, eremu eta ildo bakoitzaren gaineko zehaztapenekin, eta psikologia ikasketak egitea baloratzekotan ibilbidean topatuko duena eta irtenbide profesionalen gaineko ideia bat izan dezan. Bukatzeko, garrantzitsua da gogoratzea psikologiaren eremu profesionalaren ezagutza hau erabiltzaile potentzialen ikuspegitik egin behar dugula lehenik eta behin, osasun sistemaren ezagutza eta arazo bat izatekotan topatu ahal ditugun irtenbide ezberdinen ezagutzari lotua alegia. Errekurtso eta teknika hauen gaineko hausnarketa eta eztabaida ere beharrezkoak dira puntu honetan.

Konpetentzia hau deskriptore hauekin dago lotua: HKK2, HKK3, KE1, KD1.

5. Norberaren eta besteen ikuspuntu eta jarreren atzean dagoen faktore psikologikoaren garrantziaz jabetzea, haren dimentsioa ulertzen lagundu ahal diguten faktore eta kasuen azterketaren bidez, hobeto ulertzeko norberaren eta besteen funtzionamendu psikologikoa, eta norberaren ulermen sakonago, kontziente eta objektiboago bat garatu ahal izateko.

Psikologiak banakoen jarrerak eta hauekin lotuak dauden prozesu mentalak aztertzen dituela esan dugu behin baino gehiagotan. Berez ondorioztatzen da hemendik, norbere ikuspuntuen eta jarreren atzean faktore psikologikoen presentzia dagoela, eta faktore hauen eragina handia dela. Honetaz jabetzea oinarrizkoa da, gure funtzionamenduan eta harremanetan ikusten dena, begien bistakoa dena, baino gehiago dagoela ulertzeko. Hain oinarrizkoa ematen duen hau, ez da hain erreza ulertzeko gidaritza on bat egon ezean. Zentsu berean, ez da hurbilketa teorikotik ulertzen den zerbait askotan eta horregatik, kasuen azterketak, jakintzekin harremanetan, asko laguntzen die ikasleei, faktore psikologikoaren presentziaz jabetzen. Horrela, zeharka bada ere baina ikasleek euren buruaz hitzegiteko atea zabalduz, kontu handiz egin beharreko zerbait beti ere, ikasleek euren burua ezagutzeko aukera dute beste batzuen kasuen azterketatik eta bertan agertzen diren emandako kontzeptu eta ideiak azalduz. Norbere buruaren ezagutza ere ez dugu jakin-min hutsetik egiten, eta norbere ideia, jarrera eta erabakien gaineko ikuspuntu kontziente eta objektiboago bat lortzea, psikologiak nabarmenki lagundu dazakelarik bigarrenarekin, hurrengo konpetentzian aipatzen den kudeaketa estrategien bereganatzearekin lotua dago, kudeaketa pertsonal hobeago bat bilatzen beti.

Konpetentzia hau deskriptore hauekin dago lotua: HKK1, HKK2, KPSII1.1., KPSII1.2, KPSII2, KPSII5, HK1.

6. Norberaren errealitatea ikuspuntu psikologiko batetik aztertzeko estrategiak eskuratzea, alderdi intelektualari, afektiboari eta jarrerazkoari dagokionez, materian aurkezten diren ezagutzak norberaren errealitatearekin lotzeko aukera ematen duten jardueren bidez, ezagutza hau norbere garapen pertsonala eta ongizate emozionalean zein besteekin ditugun harremanetan erabiltzeko.

Psikologiaren ikuspegi zabal eta sakon bat proposatzen ari gara arloaren kurrikulum honetan, baina ezin dugu ahaztu psikologia pertsonen jarrerak eta prozesu mentalak ikertzen baditu erantzunak eta hobekuntza bideak topatu nahian egiten duela. Psikologiaren erroetara eramaten gaituen premisa honek, ikasleek euren zalantza, galdera eta beharrizanekin jartzen gaitu harremanetan, azken finean psikologiako oinarrizko nozio batzuk jasotzeak norbere burua ikuspuntu psikologiko batetik aztertzeko beharrezkoak diren estrategiak bereganatzen lagundu behar digu. Konpetentzia honen muina, materia honetan ikasleek barneratzen duten informazio guztia, hemen eta orain, baliagarria izan daiten da. Azken finean, norbere burua ezagutzea pertsona orok dugun beharrizan bat dela jakinda, baina nerabezaroak nortasunaren eraikuntzarekin duen lotura estua dela eta, gai honen gaineko galderak eta zalantzak beste etapa batzuetan baino ugariagoak diren aldetik, psikologia eremu pertsonalarekin lotuta jaio zen eta eremu pertsonalera ekartzea da konpetentzia honen helburua.

Hau honela, norbere burua psikologikoki aztertzearen helburua norbere garapen pertsonala eta ongizate emozionala, hala nola besteekin ditugun harremanak, hobeto kudeatzea da. Estrategia hauek eskuratzea beraz, honen lorpenean lagundu dezakete dudarik gabe.

Konpetentzia hau deskriptore hauekin dago lotua: HKK2, KPSII2, HK1, EK1.

7. Norberaren heziketa prozesuan onuragarriak izan daitezkeen jakintzak, teknikak eta estrategiak ezagutzea, oinarrizko prozesu kognitiboen analisia eta haren gaineko teoria ezberdinen azterketatik, bizitza den betiereko ikasketa prozesuan jakintza, teknika eta estrategia hauek aplikatu eta emaitza arrakastatsuagoak izateko guk erabakitako horretan.

Psikologiako arloan ikasleek barneratzen dituzten ezagutzak hemen eta orain baliagarriak izatearen ideiarekin jarraituz, hauen heziketa prozesuari begira dago zazpigarren konpetentzia. prozesu kognitiboen azterketa sakona planteatzen da oinarrizko jakintzetan, alde batetik psikologian garrantzi handiko gaia delako, baina batxilergorako bideratuta dagoen arlo batetaz hitzegiten ari garela kontuan hartuta, ikasleek bereganatzen dituzten ezagutzak eta teknikak euren hezkuntza prozesuan aplikatu ahal izango dituztelakoan ere. Garrantzitsua da hemen ulertzea, ez garela helburu eta emaitza akademikoetara mugatzen esaten ari garen honetan, baizik eta heziketa prozesuaz ari garela, honek duen zabalkundearekin eta konplexutasunarekin. Halaber, prozesu honekin lotura estua duen heltze prozesua eta garapen pertsonala ere, harremanetan jarri nahi dugu esandakoarekin, psikologiatik egiten den prozesu kognitiboen azterketa batek hauetan onura asko ekarri ahal dituelakoan ere. Honen adibide bat litzateke ikasleak euren ibilbide akademikoaren gaineko erabakiak hartzen lagundu diezaieketen ezagutzak eurenganatzea esate baterako, heldutasunarekin lotua dagoena eta erabaki pertsonal bat delarik ere azken finean.

Konpetentzia hau deskriptore hauekin dago lotua: HKK2, STEM1, KPSII1.1, KPSII2, KPSII5, EK3.

8. Psikologiak ikertzen dituen gaien gaineko elkarrizketa argudiatuak modu zorrotz, kritiko, tolerante eta enpatikoan egitea, elkarrizketak eskatzen dituen jarraibide etiko eta formalak barneratuz, eskatzen digun kudeaketa emozionala eginez eta zientifikoak diren argudioak erabiliz posible den kasuetan eta ahal den neurrian, elkarrizketa kooperatibo hauen bidez ideien elkartrukearen balioa barneratu eta auzien gaineko hausnarketa sakonago bat sustatzeko.

Aurretik ere aipatu dugu konpetentzia baten baino gehiago, eta bereziki psikologiaren barruan eztabaidagai diren auzietaz diharduen hirugarren konpetentzian, elkarrizketa kooperatibo argudiatuaren presentzia ezinbestekoa dela materia honetan. Honen arrazoia bikoitza da: psikologiaren izaera bera alde batetik, zientifikotasunak ematen dion objetibotasuna eta ikerketa objektuak ematen dion humanitate irekitasunaren artean mugitzen dena; eta hausnarketa elkarrizketan oinarritutako hausnarketa kooperatiboek duten indarra, ikasleen motibazioa zalantza eta galderen bidez sustatzeko. Elkarrizketa kooperatibo argudiatuak elkarrekin gutxitan agertzen diren hainbat bertute batzen ditu: zorroztasun arrazionala eskatzea, aniztasun ideologikoa onartzea eta desadostasuna adierazten dugun pertsonekiko errespetuzko eta enpatiazko jarrera izatea. Horregatik, eta arloaren puntu batzuetan, adostasunei ate itxi gabe, distentsioa gatazkatzat hartu beharrean ikuspegien aniztasun eta osagarritasuna planteatzen lagundu

diezagukeen tresna da elkarrizketa. Zentsu zabalago baten, elkarrizketa kooperatibo argudiatuaren erabilpena, alderdi motibazionaletan, emozionaletan, ikaskuntza aktibo eta esanguratsuan, ikerketa edo aurkikuntza bidezko irakaskuntzan, elkarlanean edo bizitza osoko ikaskuntzan indarra jartzen duen proposamen pedagogiko baten markoan ezinbesteko tresna da, arlo guztietan baina bereziki gizarte zientzia eta humanitateetan.

Konpetentzia hau deskriptore hauekin dago lotua: HKK1, HKK5, STEM1, KPSII4, HK2, HK3.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Psikologia
1. konpetentzia espezifikoa
1.1- Psikologiaren oinarrizko informazio eta prozeduren ezagutza praktikoa erakustea, informazio iturri fidagarriak erabilita, jasotako informazioa zuzentasunez interpretatuz eta transmitituz, ba digitalki, bai bitarteko analogikoen bidez.
1.2- Psikologiaren auzien gaineko jarrera ikertzailea, autonomoa eta aktiboa garatzea, hauen inguruko produktuak diseinatuz, garatuz eta besteen aurrean azalduz, hala nola ikerketa-lanak hausnarketak, testu-iruzkinak eta bestelakoak.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1- Psikologia eskola ezberdinen ikuspuntuen arteko aldeetaz, eta hauetariko bakoitzak izan duen eraginaz, jabetzea, edozein kultura-eremutako testu edo dokumentuetan, bai eta esperientzia, ekintza edo gertaera komunagoetan, ideia eta teoria filosofiko nagusiak identifikatuz eta aztertuz.
2.2- Psikologia eskola ezberdinetako ideia eta teorien oinarrizko ezagutza bat lortzea eta erakustea, horiek jarduera indibidual eta kolektiboen testuinguruan zuzentasunez erabiliz eta kritikoki aztertuz.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1- Psikologiaren baitan ematen diren eztabaida nagusietaz jabetzea, eztabaida hauen gaineko ikuspuntu ezberdinak erakusten dituzten informazioen azterketa kritikoa eginez.
3.2- Psikologiaren baitan ematen diren eztabaida nagusien inguruko posizio propio bat eraikitzea, hausnarketa jarduera indibidual zein kolektiboetan, iritzi hauek argudioen bidez azalduz.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1- Psikologiak errealitatean dituen inplementazio modu ezberdinak ezagutzea, honekin lotutako irtenbide akademiko eta jarduera profesionalak zeintzuk diren ulertzen direla erakusten duten jarduerak garatuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1- Norbere buruarekin eta besteekin ditugun harremanetan faktore psikologikoak duen presentziaz jabetzea, faktore hauen gaineko informazioa jasota, gure jarreran eta besteengan identifikatuz.
5.2- Norbere buruarekin eta besteekin ditugun harremanak emozionalki osasuntsuagoa den modu batean kudeatzea, faktore psikologikoen presentzia identifikatuta, hauen gaineko ezagutza aplikatuz harreman hauetan.
6. konpetentzia espezifikoa
6.1- Arloan ematen diren ezagutzetaz baliatzea norbere buruaren ezagutza konsziente eta objetiboago bat garatzeko, alderdi intelektual, afektibo eta jarrerazkoak aztertu, eta bertan aurkitzen ditugun faktore psikologikoak identifikatuz eta hauei buruz hausnartuz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1- Norberaren heziketa prozesuan hobekuntza bat ekar dezaketen estrategia eta teknika psikologikoak aplikatzea, hauen ezagutzatik abiatuta, norbere ohituren analisi bat egin eta hobekuntza plan bat diseinatu eta garatuz.
8. konpetentzia espezifikoa
8.1- Psikologiarekin lotura duten gai eta eztabaiden inguruko ahozko zein idatzizko diskurtso argudiatuak sortzea, gai eta eztabaida hauen gaineko elkarrizketa kooperatiboetan zein idatzizko hausnarketetan, iritziak argudio egokiekin defendatuz.
8.2- Argudiozko elkarrizketa kooperatiboekin lotuak dauden lankidetzaren, egiarekiko konpromisoaren, aniztasunarekiko errespetuaren eta jarrera diskriminatzaile edo arbitrario ororen gaitzespenaren garrantzia ulertzea, printzipio guzti horiek argudiatzeko praktikan eta besteekiko elkarrizketan aplikatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Psikologia
Psikologiaren sorrera eta psikologiari sarrera
1. Psikologiaren sorrera eta hastapenak. Psikologiaren sustrai filosofikoak. Psikologiaren izaera eta haren gaineko eztabaida nagusiak. Psikologia eta psikiatriaren arteko aldeak.
2. Psikologiaren oinarrizko teknikak. Psikologiaren definizioa, ikerketa eremua, esparruak eta metodoak. Psikologia eskola nagusiak.
3. Psikologiaren presentzia errealitatean (lan esparruak, terapiak, ikerketa…). Psikologia gizartearen ikuspuntutik.
4. Psikologiak egiten dituen ekarpen pertsonalak eta sozialak balioan jartzea.
Portaeraren oinarri biologikoak.
1. Nerbio-sistema zentralaren egitura eta funtzionamendua. Sistema endokrinoa.
2. Neurozientziaren oinarriak.
3. Portaeraren oinarri genetikoak. Biologia eta kulturaren eragina psikologiaren ikuspegitik.
Oinarrizko prozesu kognitiboak: pertzepzioa, arreta eta memoria.
1. Pertzepzioa eta hartan parte hartzen duten faktoreak. Pertzepzioaren gaineko teoriak. Pertzepzioaren nahasmenduak.
2. Arreta eta haren asaldurak. Arreta handitzeko teknikak: erlaxazioa eta mindfulness.
3. Memoria. Memoria motak. Memoriaren asaldurak.
Goi-mailako prozesu kognitiboak: ikaskuntza, inteligentzia eta Pentsamendua.
1. Ikaskuntza eta ikaskuntzaren teoria nagusiak.
2. Adimenaren kontzeptua. Adimenaren gaineko teoriak. Adimenaren ebaluazioa.
3. Adimen emozionala. Pentsamendu dibergentea eta konbergentea.
4. Norberaren prozesu kognitiboen analisia eta hobekuntza proposamenak.
Gizakiaren eraikuntza. Motibazioa, nortasuna eta afektibitatea.
1. Motiboak eta desirak. Frustrazioa. Motibazioaren teoriak.
2. Nortasunaren gaineko teoriak. Autoestimua. Nortasunaren garapen faseak. Garapenaren psikologia eta Psikologia ebolutiboa.
3. Harreman afektiboak eta sexualak. Sexu-orientazioa eta nortasun sexuala. Afektibotasunaren eta sexualitatearen garrantzia pertsonen bizitzan.
4. Emozioak eta hauen gaineko sailkapena.
5. Norberaren motibazio, nortasun eta afektibitatearen gaineko analisia.
Asaldurak eta nahasmendu psikologikoak. Hauei aurre egitea.
1. Emozioen asaldura batzuk: indiferentzia emozionala, mendetasun afektiboa, trastorno maniakodepresiboa eta emozioen kontrolik eza.
2. Beste arazo emozional batzuk: beldurra, fobiak, antsietatea, estresa, depresioa. Drogak eta nortasunaren asaldurak.
3. Nahasmendu psikologikoak. Sailkapen nagusiak: DSM eta CIE. Nahasmenduen ezaugarriak eta aurre egiteko estrategiak.
4. Zoramenaren kontzeptua eta gaixotasun mentalen gaineko eztabaida. Nahasduren sailkapenaren gaineko eztabaida.
Psikologiaren presentzia errealitatean
1. Osasun mentala: asaldura ezberdinei aurre egiteko baliabide pribatuak eta publikoak (udal zerbitzuak, elkarteak, osasungintza…).
2. Terapia mota nagusiak eta hauen ezaugarriak. Psikologiaren eta terapiaren mugen gaineko eztabaida.
3. Giza prozesu psikologiko unibertsalak: dolua (faseak), apegoa (apego motak), erresilientzia, zaurgarritasuna…
4. Prozesu psikologiko espezifiko gatazkatsuak: tratu txarrak, harreman toxikoak, suizidioa, adikzioak, biolentzia…
5. Norberaren analisia prozesu psikologikoen arabera.
6. Género, kultura, arraza… aldagaien presentzia eta hauen gaineko eztabaidak psikologian.

Psikologia
Psikologia soziala eta erakundeen psikologia.
1. Kulturen arteko aldeak zenbait alderditan: portaera sozial eta afektiboan, prozesu kognitiboetan eta izaeran. Sozializazioko eta gizarte-ikaskuntzako prozesuak. Berdintasun ezaren eraikuntza soziala.
2. Gizarte-harremanak: taldea, gizartearekiko eragina eta autoritatea. Bizitza sozialeko jarrera, arauak eta balioak. Masen prozesu psikologikoak: obedientzia, gaizkia eta konformismoaren mekanismoak. Ingurunearen azterketa psikologia sozialetik.
3. Psikologia eta lana. Eragiten duten faktore psikologikoak: adaptazioa, berrikuntzak, lankidetza, jakintzaren kudeaketa, sormena eta autoestimua. Lan-osasuneko arazoak: estresa, antsietatea, laneko jazarpena eta Burnout sindromea.

ZUZENBIDEA

Gizakiak bizirauteko, beharrezkoa da gizarte-talde bat denboran zehar existitu eta irautea, hala talde horren elkarbizitza ere ahalbidetzeko. Hori dela eta, gizarte guztiek izan dituzte historian zehar hainbat formaltasun-mailatako arauak, bizikidetza orekatua, taldearen biziraupena eta kohesioa bermatzeko. Hasieran, erabilerak eta ohiturak hartu zituzten gizarteek hainbat arauketa eta elkarbizitza ezartzeko sistema gisa. Ondoren, sistema egituratuagoa ezartzea erabaki zen, idatziz jasotako arau-sorta bilakatuta eta, arau gehienak, gizarteko kideek —norbanakoek, eragile ekonomikoek eta, zuzenbidezko estatuetan, erakundeek— onartu zituzten. Hala ere, norbanako-talde bakoitzak egoki irizten dituen arauak ezar ditzake: gizarte batean legezkoa dena, legez kanpokoa izan daiteke beste gizarte batean.

Gure inguruneari dagokionez, aplikagarri zaizkigun arauak gure erakundeek egindako arauketaren ondoriozkoak dira. Erakunde horiek nazioartekoak, Europakoak, estatu mailakoak, erkidegokoak eta tokikoak dira. Era berean, arau horiek zuzenbidearen hainbat adarrek garatu eta adierazten dituzte, hala nola honako hauek: zuzenbide zibila, zuzenbide penala, administratiboa, merkataritza- eta lan-zuzenbidea, ingurumen-zuzenbidea, etab.

Modu berean, Zuzenbidearen unibertsaltasuna aintzat hartzen bada ere, ezin dugu ahaztu hainbat errealitatetara egokitzen dela. Euskal Autonomia Erkidegoan, euskal zuzenbide zibilak jasotzen duen berezitasun bat dugu, auzotartasun zibila adibidez; auzotartasun horren arabera ezartzen dira gure eguneroko hainbat alderdi, hala nola ondasun- eta oinordetza-eskubidearen eta ezkontzako erregimen ekonomikoaren printzipioak.

Hortaz, esan dezakegu Zuzenbideak gizarte baten kideen portaera arautzen duela. Batzuetan argi antzematen ez badugu ere, presente dago gure egunerokoan eta, beraz, oinarrizkotzat ditugun ekintzek (bide publikotik ibiltzeak, produktu bat erosteak, gure laneko harremanek, lapurreta edo istripua gertatzeko aukerak) garrantzi juridikoa dute.

Ildo horretatik, “Zuzenbidea” 1. mailako jakintzagaia beharrezkoa da hezkuntza-sistemako etapa honetan, ikasleengan sendotzen baitu gizarte baten parte izatearen kontzientzia, eta gizartean kritikoki jarduteko jarrera, berezko arauak dituen taldeko kide izatearen baldintza bereganatuz eta bete-betean demokratikoa den gizartean, Zuzenbideak lortu behar dituen demokraziaren, elkartasunaren eta justizia sozialaren balioak garatuz.

“Zuzenbidea” ikasgaiak Batxilergoko etapako funtsezko konpetentziekin eta helburu orokorrekin bat datozen gaitasunak lortzen laguntzen du, eta konpetentzia eta helburu horiek dira: herritartasun demokratikoa erabiltzea, modu arduratsuan eta autonomoan jarduteko heldutasuna sendotzea, eskubide-berdintasun eragingarria sustatzea edo gizartean bizitzearen ondoriozko betebeharrez jabetzea.

Gainera, diziplinarteko testuinguruak eta esperientzia pertsonalak gehitu dira, eta horiez baliatuko dira ikasleen ikaste-ingurunea aberasteko, izan banaka zein taldean, haien interesa elkarlotuz eta beharrizan espezifikoei arreta jarriz.

Ebaluazio-irizpideek, konpetentzia espezifikoetatik eta proposatutako oinarrizko jakintzetatik eratorrita, ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan aktiboki parte hartzea, ikerketa banaka edo taldean aplikatzea,

sorkuntza adierazgarriak testuinguruan kokatuta sortzea eta jendaurrean eraginkortasunez komunikatzea sustatzen dute. Hori guztia ikaskuntza-prozesuaren eta, hortaz, bizi-ingurunearen eraldaketaren balioespen kritiko eta etikoa ardatz hartuta

Konpetentzia espezifikoak bereganatzeko oinarrizko jakintzak lau multzotan daude banatuta:

– *Zuzenbidearen funtsezko oinarriak:* Lehenengo multzo honetan, ikasleei lagunduko zaie hausnartzen Zuzenbideak gizarte-antolakuntzan duen funtzioaren inguruan, eta helburua da ezaugarri bereizgarriak eta Zuzenbidearen definizioa ezartzea; halaber, Zuzenbidearen adar ezberdinak eta lengoaia juridikoaren esanahi tekniko eta zientifikoa ezagutzea sustatzen da.
  Bestalde, "kultura orokorraren" hainbat alderdi garatzen laguntzen du —oinordetza-eskubidea edo familiakoa, besteak beste—, azaletik bada ere, gero eta beharrezkoagoa baita bizitzako hainbat unetan horiek erabiltzea.

– *Zuzenbidea, enpresa eta lana.* Multzo honetan, ikasleek bizitzan zehar halabeharrez biziko dituzten testuinguruetara hurbiltzeko beharko dituzten oinarrizko kontzeptuak lantzen dira: haien eguneroko merkataritza-harreman guztiak arautuko dituzten merkatu-ekonomiak erabiltzen dituen tresnei buruzko ezagutzak, lan-harremanei eta Gizarte Segurantzari buruzko ezagutzak edo "zerga-kontzientzia" sortzen laguntzen duten ezagutzak, ikasleek modu kritikoan hausnar dezaten guztion ongiari ekarpena egitearen beharra, bakoitzak legeak ezartzen dionaren arabera.

– *Zuzenbidea eta gizartea.* Multzo honen helburua da ikasleek ezagutzea nola dagoen antolatuta herrialde bateko botere politiko eta soziala eta, hori oinarri hartuta, hainbat balio gain hartzea, esaterako: demokrazia, diskriminaziorik eza, elkartasuna, herritarren ordezkariek iragarritako legeak errespetatzea, indarkeriarik eza, Herri baten kide izatearen kontzientzia. Horretarako, oraingo testuak aztertuko dira, ingurumena babesteko legeak, migratzailearen babeserakoak eta genero-berdintasunari buruzkoak, besteak beste.
  Garrantzitsua da azpimarratzea, alde batetik, ezagutza horiek oso garrantzitsuak direla ikasleak "zuzenbidearen kulturan" prestatzeko, hau da, "araudia"ren funtzionamendua ezagutzea, Zuzenbidea Demokraziaren tresna gisa ulertzeko.

– *Kasu praktikoen azalpen publikoa.* Kasu praktiko baten ebazpena kasu hori jendaurrean aurkeztuta ezagutaraztea da. Horretarako, jendaurrean komunikatzeko eta aurkezteko teknikak landuko dira, eta tresna informatikoak eta ikus-entzunezkoak izango dira euskarri.

Ikasgaiaren programazioari dagokionez, curriculuma ikuspegi teoriko-praktikotik zehaztea proposatzen da, eta ezagutzak dagokien atalarekin lotutako kasu praktiko txikien bidez garatuko dira. Hartara, ikaskuntza ekintzan bertan eta ekintzatik bertatik eraikiko da. Ikasleek taldean lan egingo dute, erabakiak giro malgu eta irekian hartuko dituzte, hala haien gaitasunak erabili eta trebetasun eta jarrera ekintzaileak indartzeko.

Lan-dinamika horrek kultura sortzailea, kolaboratiboa eta parte-hartzailea sustatzen du, eta helburu du pertsona guztientzako balioa sortzea.

Kasu praktiko horiek garatzeko, beharrezkoa da, alde batetik, Zuzenbidearen familiako beste ikasgaiak aztertzea —Ekonomia eta Kudeaketa eta Administrazioko Prozesuak, batez ere— eta, bestetik, ezinbestekoa da aipatu ikasgaietako irakasleekin koordinatzea, errepikapenak saihesteko eta, bereziki, ikasteko estrategia bateratuak ezartzeko. Hartara, helburuak beteko dira eta aipatu ikasgaiak garatzeko beharrezko oinarri juridikoa bereganatuko da.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zuzenbidearen adar ezberdinen funtzioa aztertzea, horien berezko terminologia ulertuz eta bereganatuz, Zuzenbideak banakako edota taldeko gatazkak ebazteko eta gizarte-elkarbizitza hobetzeko egindako ekarpena balioesteko.

Konpetentzia honen bidez, egiaztatu nahi da ikasleek oinarrizko terminologia juridikoa txertatu dutela beren berezko hiztegian, ikasgaia ikasi bitartean erabiltzeko eta beren bizitza pertsonaleko une ezberdinetan (familian, lanean, etxebizitza eskuratzean…) eragiten dieten gaiak identifikatzeko.

Halaber, helburua da Zuzenbidearen adar ezberdinetara ikuspegi kritikoaren bidez hurbiltzea, testuinguruan jarritako adibideak aztertzearen bidez, honako gai hauen eguneroko egoeren adibideen bidez: nazionalitatea lortzea, kontratuak formalizatzea, etxegabetzeen ondorioak, zigorrak betetzea eta birgizarteratzea, zehapenen derrigortasuna, zaintza partekatua, etab. Hala, hausnarketa koherentea erraztu eta Zuzenbideak gatazkak ebazteko eta gizarte-elkarbizitza bermatzeko elementu gisa duen funtzioari buruzko balioespen positiboa ahalbidetuko da.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, HKK3, HKK5, KE1, KD1, KPSII1.2, HK1, HK2, HK3.

2. Merkatuaren eta enpresaren araudi juridikoa interpretatzea, bi eremuotan eragile ekonomikoek duten funtzioari buruz hausnartuz, praktika espekulatzaile bidegabeen aurrean Zuzenbidea zorrotz betetzearen garrantzia egiaztatzeko.

Beharrezkoa da herrialde baten makineria ekonomikoa eratzen duten zatiak arautzen dituen legedi espezifikoa aztertzea. Hortaz, enpresa-munduko berezko kontzeptuak ikasiko dira, hala nola kiebra jotzea edo ordainketa-etendura eta enpresen edo enpresaburuen erantzukizun juridikoak. Halaber, balore-merkatuan edo finantzabitartekarien berezko jarduerarako —nagusiki, finantza-entitateetarako— indarrean dagoen legedia ikertzeko hurbilpena egingo da, “bidezkoa”, “legezkoa” edo “etikoa” moduko kontzeptuen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak bereizteko.

Hori guztia garatzeko, jorratu beharreko gaietan benetako kasuak aztertu eta azalduko dira.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, HKK3, HKK5, KE1, KD1, KPSII1.1, KPSII4, HK1, HK2, HK3.

3. Langileen Estatutuaren edukia eta egitura aztertzea eta ebaluatzea, lan- kontratuari, ordezkaritza--eskubideari eta norbanakoen zein kolektiboen gatazken ebazpenari garrantzia emanez, gaur egungo laneko legediari buruzko hausnarketa kritikoa egiteko.

Helburua da ikasleek langileen eskubideen eta betebeharren funtsezko eskubideen kartaren oinarri diren ildo nagusiak ulertzea, eta bereziki azpimarratzea gehien eragin diezaieketen alderdiak, edo identifikatuen sentiarazten dituzten alderdiak, kontratazio-modu ezberdinak eta kontratazio-aldeetan duen eragina aztertuz. Halaber, negoziazio kolektiboa eta gatazken ebazpena arautzen duen egitura juridiko osoa ere landuko da, bertan erabilitako terminologiaren esanahia ulertzeko eta gaur egungo laneko legedia interpretatzeko gai izan daitezen. Era berean, gomendagarria da hainbat kasu espezifiko aztertzea, adibidez, sexuen arteko soldata-arrakala edo emakumeek hainbat arrazoigatik jasaten dituzten laneko diskriminazioak.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KD1, KPSII1.2, KPSII4, HK1, HK2.

4. Gizarte Segurantzak antolamendu juridikoan duen funtzionamendua deskribatzea, zerga-bilketaren mekanismoa ulertuz eta afiliatuek jasotzeko eskubidea duten hainbat prestazioren ezaugarriak azalduz, Gizarte Segurantzak errentaren birbanatzaile eta ongizate-estatuaren bermatzaile gisa duen funtzio solidarioa ezagutzeko.

Alde batetik, helburua da ikasleek ulertzea zergatik dagoen Gizarte Segurantza estatu batean eta Gizarte Segurantza edukitzearen beharra arrazoitu eta ebaluatzeko gai izatea, Gizarte Segurantzaren funtzionamendua ezagutuz eta balioetsiz. Halaber, beharrezkoa da gure etorkizuneko ongizate-estatuaren kalitateari buruzko hausnarketa kritikoa egitea, eta hori gure egungo gizarteak aurre egin beharreko

arriskuekin lotzea, hala nola, honako hauekin: herritarren zahartzea, pentsio-sistemaren jasangarritasuna edota krisi ekonomiko global luzeen aurrean gizarte-prestazioak handitzeko beharrizana.

Bestalde, beharrezkoa da kotizazio-sistemaren bidez zergak biltzeko mekanismoa ulertzea. Horretarako, adibidez, nomina erraz bat eta Gizarte Segurantzaren eredu formalak (TC2, TC1, afiliazio-altak, etab.) aztertuko dira. Gainera, afiliatuek hainbat egoera direla medio (langabezia, gaixotasuna, baliaezintasuna…) prestazioa jasotzeko eskubidea izan eta hori jasotzeko baldintzak ezagutuko dira.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KD1, KPSII4, HK1, HK2, HK3, EK1.

5. Hainbat erakunde publikoren zergak biltzeko funtzioa balioestea, zergak biltzeko sistema ezberdinak ezagutuz, baita herritarren kontzientzia arduratsua bereganatzeko zerga adierazgarrienak ezagutuz ere, zerga-betebeharrak betetzeko eta zergak ordaintzea saihestearen gizarte-kostua ekiditeko.

Helburua da, alde batetik, ikasleek zerga-sistema orokorra, zerga-bilketarako sistemak eta zerga motak ezagutzea. Hartara, zergak biltzeko funtzioaren eta gizartegastu eta -ongizateko politikak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak jasotzeko beharrizanaren arteko lotura ulertuko dute. Halaber, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, beharrezkoa da euskal zerga-sistemaren berezitasunak azpimarratzea eta, horretarako, euskal kontzertu ekonomikoa eta Foru Aldundien funtzioa aztertuko dira, administrazioaren benetako funtzionamenduaren ikuspegi zabalagoa eskuratzeko.

Bestalde, garrantzitsua da ikasleek ezagutzea eta balioestea zeintzuk diren zergadunek (pertsona fisikoek eta sozietateek) Altxor Publikoari haien baliabideen zati bat emateko derrigortasunari ematen dioten erantzuna, zerga-iruzurra gainerako zergadunekiko solidarioa ez den jarrera gisa identifikatzeko. Horretarako, gai horien inguruko benetako kasuak aztertu eta azalduko dira.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, HKK2, HKK3, STEM1, KD1, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

6. Gure gizartearen antolaketa juridiko-politikoa ulertzea, Espainiako Konstituzioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren alderdi adierazgarrienak eztabaidatuz eta azalduz, gure arau eta erakundeen aldeko prestutasuna adierazteko eta horien behar bezalako funtzionamendua ziurtatu eta horien oinarri diren eta sustatzen dituzten balio demokratikoak bere egiteko.

Helburua da, alde batetik, ikasleek modu kritikoan balioestea Konstituzioaren esanahia: izan ikuspegi juridikotik, aukera politikotik zein “legeen lege” izanagatik. Halaber, beharrezkoa da haren garrantzia modu abstraktuan ez identifikatzea, Konstituzioak ikasleen eguneroko bizitzan izan dezakeen eraginari dagokionean baizik, eta demokraziaren berezko balioak gain hartuz betiere: diskriminaziorik eza, elkartasuna, herritarren ordezkariek iragarritako legeekiko errespetua, indarkeriarik eza.

Bestalde, helburua da ikasleek, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar izanik, Autonomia Estatutuaren funtsezko alderdiak ezagutzea, hori baita elkarbizitza eta Estatuaren gainerako erkidegoekin harremana ezartzen duena. Horrela, erkidegoaren kide izatearen kontzientzia eta politikarekiko interes eraikitzaile eta parte-hartzailea sustatuko dira, baita ikasleen inguruneko gizarte-antolakundeak demokratikoago egiteko jarrera positiboa sustatu ere.

Funtsezko bi lege horiek —Konstituzioa eta Estatutua— ulertzeko eta ezagutzeko, gure antolamendu juridikoan eremu pertsonal, publiko eta sozioekonomikorako biltzen dituen oinarrizko eskubide batzuk aztertuko dira. Hori guztia egiteko, ingurumena, genero-berdintasuna eta kalteberatasun-egoeran dauden kolektiboen babesari buruzko alderdiak, besteak beste, arautzen dituzten hainbat araudi aztertuko dira. Analisi horren bidez, ikasleek ingurumen-eskubideen eta eskubide administratiboaren inguruko oinarrizko kontzeptuak ezagutuko dituzte eta, hala, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko konpromiso etikoari eta eko-sozialari buruz hausnartuko dute, baita kalteberatasun-egoeran egoteagatik kolektibo batzuk babes berezia behar duten ala ez hausnartu ere.

Azkenik, beharrezkoa da ikasleek gure euskal gizartearen berezitasunak interpretatzea eta horiei buruz hausnartzea, gure berezko legediak euskal gizartearen ongizatea hobetzeko egiten dituzten ekarpenak balioetsiz. Horrela, Zuzenbidea gure herrialdearen berezko adierazpenaren beste elementu bat gehiago da.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, HKK2, HKK3, KD1, KPSII3.1, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, KAKK1.

7. Komunikatzeko trebetasunak garatzea, tresna informatikoak eta ikusentzunezkoak erabiliz, kasu praktikoen ebazpena jendaurrean azaltzeko eta komunikatzeko.

Helburua da ikasleek, kasu praktikoak jendaurrean azaltzean, arreta bereganatzeko komunikatzeko trebetasun teknikoak erabiltzen dituztela egiaztatzea, kasu praktikoak prestatu, garatu eta defendatzeari lotutako alderdiak jorratuz.

Kasuen prestaketari dagokionez, gai izan behar dute kasuaren alderdi nagusiak laburbiltzeko, aurkezpenean erabiltzeko materiala osatzeko eta aurkezpenaren proba egiteko. Horretarako, denbora eta erabili beharreko bitarteko teknikoak kontrolatu behar dituzte.

Kasuaren garapenari dagokionez, ikasleek hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioa zainduko dute, eta ideiak behar bezala, zehatz eta antolatuta azalduko dituzte, aurkezpenerako eraginkorrenak diren tresnak erabiliz. Azkenik, ikasleek gai izan behar dute batzorde ebaluatzaile batek egin ditzakeen galderei argudio bidez erantzuteko.

Konpetentzia espezifiko hau honako deskriptore hauekin dago lotuta: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, KD2, KD3, KPSII 1.2 HK1, EK1, EK2, KAKK3.1, KAKK4.2.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Zuzenbidea
1. konpetentzia espezifikoa
1.1 Zuzenbidearen adar ezberdinen ekarpenak ezagutzea, kasu adierazgarrien analisien bidez, *ad hoc* terminologiaren erabilera errespetatuz eta gatazkak ebazteko egindako ekarpena positiboki balioetsiz.
2. konpetentzia espezifikoa
2.1. Eragile ekonomikoen funtzioa aztertzea, harreman ekonomikoak arautzen dituen araudia betetzeko beharrizanari buruz hausnartuz, hala etorkizunean bidegabeko jokabideak saihesteko.
3. konpetentzia espezifikoa
3.1. Gaur egungo laneko legedia interpretatzea eta balioestea, aurrez hautatutako kasu adierazgarrien azterketaren bidez: kontratu-egoera, ordezkaritza-eskubideak eta negoziazioa eta norbanakoen zein kolektiboen gatazkak ebazteko prozesuak.
4. konpetentzia espezifikoa
4.1.Gizarte Segurantzak gure antolamendu juridikoan duen existentzia balioestea, ongizateestatuan bermatzaile gisa duen funtzioa argudioen bidez justifikatuz.
4.2. Gizarte Segurantzaren zergak biltzeko sistema ulertzea, hainbat dokumentu formal aztertuz: nomina eta Gizarte Segurantzaren TC2 eta TC1 ereduak.
4.3. Gizarte Segurantzak jasotzen dituen egoerak aztertzea, bakoitzaren ezaugarri baldintzatzaileak eta bakoitzari dagozkion prestazioak azalduz eta, hala, aipatu erakundearen funtzionamendua ulertuz.
5. konpetentzia espezifikoa
5.1. Zerga-sistema orokorra eta euskal foru-zerga sistema ezagutzea, zerga eta zerga-sistema ezberdinak ezagutuz eta baliabide monetarioak lortzeko beharra birbanaketa-justiziaren printzipio gisa balioetsiz.
5.2. Zerga-iruzurreko eguneroko benetako kasuak identifikatzea eta aztertzea, iruzurgileen praktika insolidarioek gizartearri eragiten dioten kalteari buruz hausnartuz.

Zuzenbidea
6. konpetentzia espezifikoa
6.1 Giza eskubideak, ingurumen-eskubideak eta bereziki kalteberak diren kolektiboen eskubideak babestearen beharrari buruz hausnartzea, hori defendatzea bermatzen duten hurbileko araudi-testuak aztertuz eta gure legediak horretan egiten duen ekarpena balioetsiz.
7. konpetentzia espezifikoa
7.1. Ideiak aurkeztu eta argudiatzeko komunikazio-trebetasunak erabiltzea, ideiak eraginkortasunez hedatzeko tresna informatiko edota ikus-entzunezko erakargarriak erabiliz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

Zuzenbidea	
A. Zuzenbidearen funtsezko oinarriak.	
Antolamendu juridikoaren iturriak. Zuzenbidearen printzipio nagusiak: eskubide naturala eta eskubide positiboa.	
Arauen hierarkia eta Zuzenbidearen adarrak;	
Zuzenbide Zibilaren, Penalaren eta Administratiboaren ezaugarriak eta oinarrizko funtzioak. Kasuen analisia.	
Legedia versus justizia.	
B. Zuzenbidea, enpresa eta lana.	
B.1. Merkataritza-zuzenbidea	Merkataritza-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak eta gainerako araudi juridiko ekonomikora hurbilpena. Enpresa motaren araberako erantzukizun juridikoa. Kiebra jotzea eta ordainketa--etendura. Merkatuaren oinarrizko erregulazioa.
	Balore-burtsaren eta finantza-bitartekarien funtzionamenduari buruzko oinarrizko araudia.
	Balore-merkatuek espekulazio-foro gisa duten funtzioaren aurrean jarrera kritikoa.
B.2. Lan-zuzenbidea	Lan-zuzenbidearen kontzeptua: Langileen Estatutua: edukia eta egitura. Langileen Estatutuak gizarte justuagoa lortzeko egiten duen ekarpenaren balioespena. Soldata-arrakala eta emakumeen laneko diskriminazioa.
	Norbanakoen harremanen tratamendua Langileen Estatutuan: Lankontratua: kontzeptua eta motak. Gizabanakoen gatazkak.
	Harreman kolektiboen tratamendua Langileen Estatutuan: ordezkaritzaeskubidea, negoziazio kolektiboa eta gatazka kolektiboak.
	Gizabanakoen eta kolektiboen ebazpenei buruzko benetako kasu praktikoen analisia.
	Gizarte Segurantza: kontzeptua eta prestazioak.
	Gizarte Segurantza ongizate-estatuaren bermatzaile izateko balioespena.
B.3. Zerga-zuzenbidea	Zerga-sistemaren egitura: Ogasun Publikoa, Zentrala, Tokikoa eta Euskal Foru Ogasuna.
	Zerga-bilketarako sistemak. Zuzeneko zergak eta zeharkakoak.
	Zerga-motak: Sozietateak, PFEZ, BEZ eta beste zerga batzuk.
	Euskal Autonomia Erkidegoaren foru-izaeraren ezagutza eta balioespena.
	Zerga-iruzurrarekiko sentsibilizazioa.
C. Zuzenbidea eta gizartea	
Estatua: kontzeptua, Espainiako estatuaren antolaketa, Erkidegoen Estatua eta nazioz gaindiko erakundeak.	
78ko Espainiako Konstituzioa: artikulu adierazgarrienen analisia. Funtsezko Eskubideen babesari buruzko hausnarketa kritikoa.	
Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua: eskumenak, erakundeak eta ahalmenak. Eskumen adierazgarrienen analisia. Autogobernuaren defentsarekiko eta jarduerarekiko konpromisoa.	

Zuzenbidea
Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren aintzatespena; Giza Eskubideak babesten dituzten erakundeak; Arartekoa.
Euskal gizarteak 2030 Agendan GJHak betetzeko konpromisoa. Ingurumenaren oinarrizko araudia.
Kalteberatasun bereziko testuinguruetan kolektiboak babesteko arauak.
D. Kasuen garapenaren azalpen publikoa
Negoziazio eta komunikaziorako teknikak.
Aurkezpen eraginkor eta zehatza egitearen garrantziaren balioespena. Aurkezpenetarako tresnak.

MAIATZAREN 30EKO 76/2023 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

IKAS-EGOERAK

Irteera-profilaren barruko konpetentziak erreferentzia dira curriculuma antolatu eta garatzeko, baita funtsezko jakintzak hautatzeko ere. Testuinguru horretan, konpetentziak eskuratzeko eta garatzeko prozesua zenbait printzipio metodologikorekin bultzatuko da:

- Ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan duten protagonismoa nabarmenduko da, askotariko baliabide metodologikoen bidez (ikerketa-metodologiak, zuzeneko irakaskuntza, ezagutzaren eraikuntza kolektiboa eta ikaskuntza-ingurune pertsonalen garapena, besteak beste).
- Testuinguruan kokatutako ikaskuntza adierazgarria, garrantzitsua eta integratzailea sustatuko da, testuinguruko nahiz curriculumeko elementuak artikulatuko dituena. Ikasleek informazioa erabili eta aplikatzeko aukerak izango dituzte, eta iritzia eraiki ahal izango dute polemika baten testuinguruan, fenomeno baten azalpenean edo problema baten irtenbidearen eraikuntzan.

Ildo horretatik, ikas-egoerek printzipio horiei erantzuten diete, funtsezko jakintzak eskuratu, aktibatu eta erabiltzeko testuinguru egituratua proposatzen baitute konpetentzien ikuspegitik.

Ikuspegi hori zuzenean lotzen da irteera-profilean eragina duten zortzi hezkuntza-konpetentzia hauekin:

- Komunikaziorako konpetentzia
- Konpetentzia eleaniztuna
- Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia
- Konpetentzia digitala
- Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa
- Herritartasunerako konpetentzia
- Ekintzailetza-konpetentzia
- Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia

Planteatu denez, ikas-egoera batek abiapuntu zehatz batetik (problema, erronka, desafio edo galdera) azken produktu bat egitera eramango duen ibilbide didaktiko bat ezartzen du, testuinguru espezifiko jakin batean.

Ikas-egoera baterako abiapuntu baten adibideak izango lirateke, adibidez, ikasleek planteatutako gai interesgarri bat, fenomeno baten behaketa, gertaera bati buruzko polemika bat, arreta sortu duen informazioa, gizarteari oro har edo ikasleen inguruari eragiten dion problematika bat, errealitateko elementu bati buruzko galdera bat, problema batetik abiatutako ikerketa bat, ikastetxeaz kanpoko eragile batek planteatutako behar bat, ulertu beharreko dilema bat…

Ibilbide didaktiko hori osatzen duten zereginen eta jardueren diseinuak eta inplementazioak ahalbidetuko du jakintza desberdinak eskuratzea (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak), hori baita konpetentzien garapenaren oinarria. Arlo edo ikasgai bati baino gehiagori, normalean, dagozkien jakintzak txertatu eta konbinatzetik egindako garapena da, planteatzen den egoera interpretatzea ahalbidetuko duena.

Problema konplexuei ekiteak sustatzen du ikasten duen pertsonak arrazoitzea, imajinatzea, planifikatzea, aztertzea, ikertzea, baliabideak kudeatzea, autorregulatzea, modu kolaboratiboan lan egitea, ebaluatzea, bere ikaskuntzak komunikatzea eta, horretarako, interes komunarekin zerikusia duten alderdiak sustatzea, hala nola, desberdintasunei aurre egiteko erronka, kontzientzia globala edo bizikidetza demokratikoa. Alderdi horiek, beraz, funtsezkoak dira ikasleak XXI. mendeko erronkei eraginkortasunez erantzuteko gai izango badira.

Egoeretan oinarritzen den ikaskuntzak, askotan, berarekin dakar kultura-produktu bat edo komunitaterako zerbitzu bat egitea. Produktu horiek prestatzean, konpetentzien ikasketa erraztuko

duten prozesuak eragiten dira, hau da, jakintza-esparruen arteko mugak gainditzen dituzten prozesuak. Ikas-egoera batean landutako produktuak izan daitezke: aurkikuntzak edo lortu diren ondorioak publiko jakin batekin partekatzea, ahozko azalpen baten bidez; erakusketa bat antolatzea eta, gidari moduan, azaltzea; informazio-liburuxkak egitea, artea bitarteko gisa erabiliz; gizartean hausnarketa eragingo duten aldarrikapen-ekintzak egitea; elkartasun-kanpainak diseinatu eta gauzatzea; ikasleen eta irakasleen artean erabakiak diseinatu, prestatu eta hartzea, ondorioak jasoko dituen blog bat egiteko;...

Proposamen didaktiko guztietan bezalaxe, zereginak eta jarduerak zenbait fasetan antolatuko dira, eta fase horietan ikasteko jarduerak sartuko dira, tartean direla gogoeta eta autorregulazioa azpimarratuko duten prestakuntza-ebaluazioko jarduerak. Hartara:

a. **Hasierako fasean**, proposatuko dira ingurunea taldean hautemateko jarduerak, ikasleen errealitate adierazgarria aztertu eta problematizatzeko jarduerak, aldez aurreko ikaskuntzekin eta motibazioarekin lotzeko jarduerak, eta ikaskuntza-helburuak, ebaluazio-irizpideak eta plangintza-jarduerak partekatu eta adosteko jarduerak.

b. **Garapen fasean**, zenbait ingurunetan (analogikoetan nahiz digitaletan) informazioa bilatu, prozesatu eta interpretatzeko jarduerak egingo dira, baita aurreko ideiekin alderatzeko jarduerak, errealitatea ulertzeko ereduak egituratu eta eraikitzeko jarduerak eta autorregulazio-jarduerak ere.

c. **Amaierako fasean**, aplikazio jarduerak eta zereginak egingo dira, baita abstrakzioa eta antzeko beste testuinguruetarako transferentzia bultzatzen duten jarduerak, azken ekoizpenaren komunikaziorako jarduerak, entzute errealen aurrean egindako ikaskuntzak eta ebaluazio-jarduerak ere.

Egingo diren ikaskuntzek bizitza errealetik hurbil dauden egoera pertsonal, akademiko edo sozialei aurre egiteko baliozkoak izan beharko dute, benetako esanahia izan behar dute, eta ikasleentzat adierazgarriak diren problemak kudeatzeko baliabideak eskaini behar dituzte.

Ikaskuntzak testuinguruan kokatzeko prozesua osatze aldera, transferituak izateko aukera izan behar da, konpetentziek jarduteko moduak sortzen baitituzte eta, hartara, elkarrengandik hurbil dauden testuinguru eta egoeretan moldatzeko aukera ematen baitute.

Ikaskuntza-egoera diseinatzea, praktikan jartzea eta ebaluatzea irakaskuntzarako tresna didaktiko eta metodologiko garrantzitsua da ikasle guztientzako hezkuntza- eta konpetentzia-ikuspegi batean lan egiteko; era berean, irakasle-taldeko beste kide batzuekin eta kanpoko eragileekin komunikatzeko tresna garrantzitsua da.

Ikas-egoerak diseinatzean, aurreko elementuez gain, elkarrekin lotuta dauden honako elementu hauek ere hartuko dira aintzat:

a. **Ikas-egoeraren identifikazioa** (arlo inplikatuak, ikasle hartzaileak, saio kopurua, titulua…)
b. Ikas-egoeraren esparrua edo ikuspegia:
   - Testuingurua: pertsonala, soziala, akademikoa, kokatzen den ingurunea deskribatzen duena.
   - Abiapuntu gisa baliagarria den problema, erronka, desafioa edo galdera: erantzuna edo irtenbidea eman behar zaion testuingurutik sortzen dena.
   - Espero den produktua zehazten duen amaierako zeregina.

c. Ikas-egoeraren curriculum- eta antolamendu-elementuak:
   - Curriculumaren justifikazioa edo argudioa, adieraziko dituena funtsezko konpetentziekiko lotura, inplikatutako arlo edo ikasgaien konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta curriculumaren funtsezko jakintzak. Ikas-egoerarako formulatutako helburu didaktikoak.

- Faseen arabera antolatutako jardueren proposamena: hasierako fasea, garapenekoa eta amaierakoa. Ikaskuntza-jarduerena zein ebaluazio-jarduerena. Barnean direla Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsaleko estrategiak eta ebaluazio-adierazleak, fase bakoitzean.
- Antolaketa, metodologiak eta baliabideak.
    1. Espazioen erabilera.
    2. Hautatutako printzipio eta estrategia metodologikoak. Taldekatzeko moduak eta talde-lana.
    3. Baliabide pertsonalak eta materialak, ingurune analogikokoak eta digitalekoak.
- Ebaluazio-prozesuak eta -tresnak

Ebaluazio-tresna analogikoen eta digitalen erabilera, ebaluazioaren prestakuntza-ikuspegitik eta ikas-egoeraren adierazleak kontuan izanik.

MAIATZAREN 30EKO 76/2023 DEKRETUAREN IV. ERANSKINA

BATXILERGOKO IKASGAIEN ARTEKO JARRAITUTASUNA

Batxilergoko 1. maila	Batxilergoko 2. maila
Euskara eta Literatura I.	Euskara eta Literatura II.
Gaztelania eta Literatura I.	Gaztelania eta Literatura II.
Matematika I.	Matematika II.
Atzerriko Lehen Hizkuntza I.	Atzerriko Lehen Hizkuntza II.
Marrazketa Teknikoa I.	Marrazketa Teknikoa II.
Marrazketa Teknikoa I. /Arte Plastikoei eta Diseinuari Aplikatutako Marrazketa Teknikoa I.	Arte Plastikoei eta Diseinuari Aplikatutako Marrazketa Teknikoa II.
Latina I.	Latina II.
Greziera I.	Greziera II.
Matematika I. / Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I.	Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II.
Analisi Musikala I.	Analisi Musikala II.
Koru eta Ahots Teknika I.	Koru eta Ahots Teknika II.
Arte Eszenikoak I.	Arte Eszenikoak II.
Marrazketa artistikoa I.	Marrazketa artistikoa II.
Atzerriko Bigarren Hizkuntza I.	Atzerriko Bigarren Hizkuntza II.
Teknologia eta Ingeniaritza I.	Teknologia eta Ingeniaritza II.
Informazio eta Komunikazio Teknologiak I.	Informazio eta Komunikazio Teknologiak II.
Fisika eta Kimika	Fisika / Kimika
Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak	Biologia / Geologia eta Ingurumen Zientziak

MAIATZAREN 30EKO 76/2023 DEKRETUAREN V. ERANSKINA

ORDUTEGIA

BATXILERGOA

		Minimoak		Erreferentziako ordutegia	
		1.	2.	1.	2.
KOMUNAK	Heziketa Fisikoa	2	0	2	0
	Filosofia	3	0	3	0
	Gaztelania eta literatura	3	3	3	3
	Euskara eta literatura	3	3	3	3
	Atzerriko hizkuntza	3	3	3	3
	Filosofiaren historia		3		3
	Espainiako historia		3		3
MODALITATEKOAK 1. MAILA	Matematika orokorra				
	Matematika I				
	GZ Matematika I				
	Latina I				
	Marrazketa Artistikoa I				
	Musika analisia I				
	Arte Eszenikoak I	3	0	4	0
MODALITATEKOAK 2. MAILA	Zientzia orokorrak				
	Matematika II				
	GZ Matematika II				
	Latina II				
	Marrazketa Artistikoa II				
	Musika Analisia II				
	Arte Eszenikoak II	0	3	0	4
Modalitatekoak	Gutxienez hiru orduko bi ikasgai	6	6	8	8
Hautazkoak (horietako batek ikastetxeak ematen dituen modalitateko ikasgaien ordu-karga bera izan beharko du)	Gutxienez bi orduko ikasgai bat	2		2	
	Gutxienez hiru orduko ikasgai bat	3	3	4	4
	Tutoretza	1	1	1	1
	Zentroaren eskaintza propioa	4	4	0	0
	Erlijioa/Komunitaterako proiektua tutoreak eman beharko du/Eskaintza propioa	1	1	1	1
	Guztira	**34**	**33**	**34**	**33**